

Jakintza-arloa: Historia

## Komunitate zientifiko euskalduna

Azterketa historikoa eta bibliometrikoa

Egilea: **KARMELE ARTETXE SANCHEZ**

Urtea: 2010

Zuzendariak: MIKEL AIZPURU MURUA, XABIER ISASI BALANZATEGI

Unibertsitatea: EHU

ISBN: 978-84-8438-333-8

## Hitzaurrea

Doktorego-tesia 2010. urteko otsailaren 19an defendatu nuen UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Gradu Aretoan. Ordutik urte t'erdi eskas pasa da, beraz ibilbide laburra egin du oraindik. Dena den, denbora nahikoa igaro da bi gauza ikusteko: batetik, orain tesia beste modu batera idatziko nukeela, eta bestetik, akatsen bat edo beste detektatzeko. Baina hori, zorionez edo zoritxarrez, denoi gertatu zaigun zerbait dela uste dut.

Aipatutako ibilbide labur horretan tesiaren argitalpena prestatzen aritu naiz. Ez diot nahi beste denbora eta arreta eskaini, tartean hainbat gauza egiteko izan ditudalako: EHUko lana, UEUko zuzendaritza, haurdunaldia eta abar. Hala ere, tarteka-marteka atera dudana denborarekin, 800 orrialdeko testua moldatzeari ekin diot. Argi neukan bere hartan ezin zela argitaratu, ez bazen euskarri elektronikoan. Aukera hori Tesiker proiektuaren bitartez izan dudanez, paperezko ediziorako, bertsio dibulгатibo eta sintetikoagoak prestatzen saiatu naiz. Beraz, tesi osoa, idatzi zen bezala ikusi nahi duenak hementxe dauka aukera.

Aldiz, tesitik eratorritako lanak eta bertsioak kontsultatu nahi dituenarentzat argibide batzuk emango ditut. Lehenengo eta behin erabaki nuen tesia osorik laburbiltzea baino, zatika moldatzea eta argitaratzea. Izan ere, tesiak planteamendu, sakontasun eta ikuspegiagatik, 3 atal desberdin ditu:

I. Lehenengoak, gerraurreko kapituluak, izaera historikoa du, baina saiakera modukoa da. Bertan gerraurreko euskarazko ekoizpen jasoa ulertzeko marko interpretatibo berri bat proposatzen dugu. Produkzio horren ezaugarri eta muga ideologikoen gaineko hausnarketa bat. Atal hau oraingoan, ez dut aukerarik izan paperean argitaratzeko, nahiz eta horretan ari naizen.

II. Gerraosteko euskal kulturgintza jasoari buruzko lau kapituluak, tesiko mamitsuenak, UEUk 2011. urtearen amaieran argitaratuko duen Euskara unibertsitatera bidean liburuaren oinarri dira.

III. Hirugarren eta azken atalak Historia alboratu eta bibliometria besarkatzen du. Bertan, unibertsitate mailako produkzioaren (1968-2007) azterketa egin dugu. Hau da, goi mailako euskarazko dokumentazioa, kide kopurua zein azpiegitura deskribatu dira. Atal honek, moldaketa batzuk egin ostean, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Gizartearen egoera Sarian aurkezturik akzesita lortu zuen. Une honetan Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratzen duen aldizkarian (Soziologiazko Euskal Koadernoak) kaleratu da, 28 zenbakian. Aldizkaria paperean plazaratzen da, baita euskarri elektronikoan ere. Beraz Kabinetearen web gunean kontsulta daiteke.

Hitzaurre hau amaitzeko, azken ohar bat egin nahi nuke defentsa egunarekin lotutakoa. Egun hartatik zerbait gogoratzen badut, nirekin batera egon ziren pertsonak dira. Noski, epaimahaia: Pello Salaburu, Ludger Mees, Pruden Gartzia, Emilio Majuelo eta Juantxo Madariaga. Ohiko zorion oharrak egin zizkidatenak, eta baten batek erdeinuzko hitz batzuk ere bai. Era berean

zuzendariak gogoratzen ditut, Mikel Aizpuru eta Xabier Isasi, seguru aski ni baino gehiago sufritzen. Eta azkenik, defentsara bertaratutako familia, lagun eta lankideak. Sarri mugak lausoak dira, maiz lankideak lagun bihurtzen direlako, lagun handiak. Alde horretatik zorionekoa ni, tesiarekin lagunartean amaitu nuelako.

Orduz geroztik, egin izan dudan guztia errazagoa iruditu zait.

Karmele Artetxe Sánchez  
Zamudion, 2011ko urriaren 2an

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**GAUR EGUNGO HISTORIA SAILA**

# **Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa**

**Doktorego-tesia**

**I**

**KARMELE ARTETXE SANCHEZ**

Zuzendariak:  
Mikel X. Aizpuru Murua  
Xabier Isasi Balanzategi

Leioa, 2009

“Baiña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soiña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa”

Lizardi, 1931

# Aurkibidea

## I. Liburukia

<b>ATARIKOA.....</b>	<b>1</b>
----------------------	----------

## AZTERKETA HISTORIKOA

### **I. GERRAURREKO EUSKARAZKO KULTURGINTZA JASOA**

1. Sarrera eta abagune historikoa.....	11
2. Euskarazko kulturgintza jasoa: oinarrizko gakoak.....	13
3. Euskara tresna: hiztunaren lehenestea.....	13
3.1. Laborari euskaldunentzako argitalpenak.....	15
3.2. Lanbideetan hizkuntza eskakizuna euskaldunekin aritzeko.....	19
4. Euskara helburu: hizkuntza prestatzeko eta normalizatzeko proiektuak.....	22
4.1. Elkarte euskaltzaleak.....	28
4.1.1. Euskal Esnalearen hitzaldi-zikloak.....	36
4.2. Argitalpenak: jakintzaren dibulgazio idatzia.....	42
4.2.1. Dibulgazio zientifikoa egunkari eta aldizkarietan.....	42
4.2.1.1. Zientzia dibulgazioa nekazariarentzat.....	44
4.2.1.2. Einstein <i>Euzkadin</i> .....	46
4.2.2. Osasun zaintza euskaraz vs Medikuntza euskaraz.....	50
4.2.3. Literatur itzulpenak.....	53
4.2.4. Eskola liburuak: jakintza-arloak euskaraz abiatzeko saiakerak.....	56

5. Euskara objektu: hizkuntzaren gaineko ikerkuntza.....	58
5.1. Hizkuntzalarien jarrerak.....	59
5.2. Eusko Ikaskuntzen erdal praxia.....	63
5.2.1. <i>Lizardi</i> eta Etxegarairen arteko eztabaida .....	65
5.2.2. Gerraurreko ekitaldiak: kongresuak eta udako ikastaroak.....	68
5.2.3. Euskal Unibertsitatea.....	72
5.3. Goi mailako aldizkarikak.....	74
5.3.1. RIEV, Urkixoren aldizkaria.....	75
5.3.2. Eusko Ikaskuntzaren aldizkariak: RIEV eta <i>Anuario Eusko-Folklore</i> .....	78
6. Euskaltzaindia: hizkuntzaren prestaketa eta ikerketaren artean.....	79
6.1. Euskararen batasunaz batzarra.....	84
6.2. Erizkizundi Irukoitza: euskarazko ikerkuntza proiektua.....	88
6.3. <i>Eusker</i> a: Euskaltzaindiaren sozializaziorako tresna.....	90
7. Gerraurrean irekitako aukerak.....	93

## **II. FRANKISMOAREN LEHEN URTEETAKO SAIO EUSKALTZALEAK (1940-1953)**

1. Sarrera eta abagune historikoa.....	97
2. Goi mailako erakunde eta elkarteak.....	100
2.1. Euskaltzaindia: euskaltzaleen topagune zatitua.....	100
2.2. Euskara kultur hizkuntza bihurtzeko Krutwig-en saioa.....	103
2.3. Urkixo Mintegia.....	108
2.4. Eusko Ikaskuntzaren kongresuak.....	111
3. Aldizkariak.....	114
3.1. <i>Egan</i> .....	116
3.2. <i>Euzko-Gogoa</i> : “euskal aldizkari bakarra”.....	117
3.2.1. Aldizkariaren azterketa kuantitatiboa.....	122
3.2.2. Harpidedunak.....	124

3.2.3.	Finantziazioa.....	127
3.2.4.	Aldizkariaren lankideak eta egileak.....	129
3.2.5.	<i>Gogo</i> zubi.....	132
3.2.6.	Ondorioa <i>Euzko-Gogoaz</i> .....	136
4.	Liburuak eta argitaletxeak.....	138
4.1.	EFA: Arantzazuko frantziskotarren argitaletxea.....	139
4.2.	Itxaropena argitaldaria eta “Kuliska sorta” bilduma.....	140
4.3.	Itzulpen lanak.....	146
4.3.1.	Sofoklesen itzultzaile bi: Zaitegi vs Errandonea.....	148
5.	Hizkuntzaren prestaketa eta erabilera: nahi eta ezinaren artean.....	150

### III. HIZKUNTZA ESTANDARRAREN BIDEAN (1954-1968)

1.	Sarrera eta abagune historikoa.....	153
2.	Biltzarrak: euskararen batasuna ontzeko bilguneak.....	165
2.1.	Euskaltzaleen I. Biltzarra (Arantzazu, 1956) .....	166
2.1.1.	Mitxelenaren interbentzio inprobisatua.....	169
2.2.	Euskaltzaleen II. Biltzarra (Bilbo, 1958) .....	173
2.3.	Euskaltzaleen III. Biltzarra: Mogelen gorazarrez (Eibar, 1959)...177	
2.4.	Euskaltzaleen IV. Biltzarra (Donostia, 1961).....	179
2.4.1.	Intxausti eta kulturaren bidea euskararentzat.....	180
2.5.	Euskaltzaleen V. Biltzarra (Arantzazu, 1963).....	184
2.6.	Euskaltzaleen VI. Biltzarra (Loiola, 1964).....	188
2.7.	Euskal Idazkaritza eta Baionako Biltzarra (Baiona, 1964).....	190
2.8.	Jakinlarien bilerak.....	194
2.9.	Idazleen Ermuko Bilera (Ermua, 1968).....	197
2.10.	“Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak” edo Euskaltzaleen VII. Biltzarra (Arantzazu, 1968).....	200
2.11.	Biltzarren balantze gisakoa.....	207



3.	Goi mailako elkarte eta erakundeak.....	209
3.1.	Euskal Kulturaren Alde (EKA).....	211
3.1.1.	Euskaltzale Alkartasuna: Euskal Idazkaritzaren aurrekaria.....	219
3.2.	Eskualzaleen Biltzarra: “Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa”....	221
3.3.	Euskaltzaindia .....	223
4.	Aldizkariak.....	225
4.1.	<i>Euskera</i> buletinaren berragerpena.....	229
4.1.1.	<i>Euzko-Gogoa</i> eta <i>Euskeraren</i> arteko eztabaida.....	231
4.2.	ASJU: euskal hizkuntzalaritzaren internazionalizazioa.....	237
4.3.	<i>Yakinetik Jakinera</i> : garbizaletik mordoilora.....	239
4.3.1.	Aldizkariaren epealdiak.....	242
4.3.2.	Aldizkari proiektuaren bilakaera.....	244
4.3.3.	Euskararen hilobitik tiraka.....	249
4.3.4.	Eliztar lankideetatik, lankide laikoetara.....	253
4.3.5.	Aldizkariaren filologizazioa.....	254
4.4.	<i>Branka</i> : euskaldun sozialista aldizkaria.....	257
5.	Liburu ekoizpena.....	263
5.1.	Literatura, Didaktika eta eliz lanak nagusi.....	265
5.2.	Beste jakintza esparruak.....	271
5.3.	Itzulpen-lanak.....	277
5.4.	Liburugintzaren filologizazioa.....	281
6.	Hizkuntza batasunean murgildutako komunitatea.....	287

#### **IV. KOMUNITATE ZIENTIFIKO EUSKALDUNA UNIBERTSITATERA BIDEAN (1969-1978)**

1.	Sarrera eta abagune historikoa.....	291
2.	Euskal Herriko pasaia unibertsitarioa.....	295
2.1.	Unibertsitate konfesionalak.....	297

2.2.	Bilboko Unibertsitatearen sorrera.....	298
2.3.	Unibertsitate barruti bakarraren eskaria.....	302
2.4.	Euskara unibertsitateetan.....	305
2.4.1.	Unibertsitate profesionaletan euskara zantzuak.....	307
2.4.2.	Euskara unibertsitate publikoan.....	312
2.5.	Unibertsitateetako euskal kultur mugimendua.....	317
2.5.1.	Euskal kultur elkarteak (EKM, EKT, EIT,...).....	319
2.5.2.	Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegia (EKM).....	323
2.5.3.	Donostiako EKTtik Elhuyar Talderako ibilbidea.....	326
2.5.4.	Bilboko Unibertsitateko euskal kultur elkarteak .....	328
2.5.4.1.	Zientzia Fakultateko EKTa.....	329
2.6.	Irakasle Eskolak: irakasle euskaldunak sortzen.....	335
2.6.1.	Bilboko Irakasle Eskola.....	337
2.7.	Euskal Herriko eta AEBko ikasketen arteko aldeak.....	344
3.	Goi mailako elkarte eta erakundeak.....	346
3.1.	Labayru Ikastegia eta Eusko Ikaskuntza.....	348
3.2.	Euskaltzaindia normalizazio lanetan murgilduta.....	352
3.2.1.	Euskararen batasuna gidatzeko euskaltzainburu berria....	354
3.2.2.	Euskara irakasle tituluak.....	358
3.2.2.1.	D eta B mailako euskal irakasle tituluak.....	362
3.2.3.	Akademiaren hiztegitza jarduna.....	370
3.2.3.1.	Hiztegi espezializatuak.....	371
3.2.3.2.	Eskola mailako testugintzaren kezkatik eratorritako hiztegitza.....	373
3.2.3.3.	Euskararen batasunarekin lotutako hiztegitza.....	376
3.2.4.	Akademiaren jardun unibertsitarioa.....	379
3.2.4.1.	Irakasle Eskolak Euskaltzaindiaren jomuga.....	382
3.3.	Euskal Unibertsitate bidean.....	388
3.3.1.	Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).....	392
3.3.1.1.	Udako Ikastaroak.....	396
3.3.1.2.	Hizkuntza hautua.....	399

3.3.2.	Elhuyar: taldetik kultur elkartera.....	402
3.3.3.	Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Institutua (UZEI).....	406
3.3.3.1.	Mitxelena-UZEI afera.....	410
4.	Biltzarrak eta udako ikastaroak.....	413
4.1.	Euskara Batua berrikusteko unea (Bergara, 1978).....	416
4.1.1.	Soziologi eta Estatistika Batzordearen hitzaldiak.....	420
4.1.2.	Eztabaiden gaintik, Euskara Batuaren berrespena.....	424
5.	Aldizkariak.....	427
5.1.	Nafarroako Gobernuaren aldizkariak.....	430
5.1.1.	<i>Fontes Linguae Vasconum</i> .....	433
5.2.	Elhuyar aldizkaria.....	438
5.2.1.	Zientzia eta teknika arloko aldizkari filologizatua.....	444
5.2.2.	Euskaratik ingelesera salto egiteko lehen saiakerak.....	446
5.2.3.	Ikerkuntza euskaraz.....	449
5.3.	Kultur aldizkari politikoak: <i>Zabal</i> eta <i>Zehatz</i> .....	454
5.3.1.	<i>Zabal</i> , erbesteko aldizkaria.....	456
5.3.2.	<i>Zehatz</i> , <i>Zabalen</i> jarraitzailea.....	460
5.3.3.	Aldizkarien arteko jarraikortasunak eta aldeak.....	463
6.	Euskal liburugintza 70eko hamarkadan.....	466
6.1.	Arregiren eta euskal liburugintzaren planifikazioa.....	467
6.2.	Batasunaren eragina liburugintzan eta produkzioaren aitzindaritasuna.....	471
6.3.	UEU: argitaletxe unibertsitarioa.....	475
6.3.1.	Zientzien nagusigoa UEUren ekimen editorialean.....	479
6.3.2.	Planifikatu gabeko jarduera arrakastatsua.....	483
6.4.	Euskarazko goi mailako idazlanen saritzea.....	489

## V. KOMUNITATE ZIENTIFIKO EUSKALDUNAREN HEDATZEA

1. Sarrera eta abagune historikoa.....	499
2. Garai nahasiak Euskal Herriko Unibertsitatean.....	503
2.1. Euskal Unibertsitaterako Planifikazio-Batzordea.....	506
2.2. Beharrizanen Lantaldea.....	508
2.3. Premia larriko neurrien txostena.....	509
2.3.1. 1978/79. ikasturteko erradiografia.....	510
2.3.2. 1979/80. ikasturterako proposatutako neurriak.....	515
2.3.3. Txostenaren aplikazioa.....	519
2.4. Euskararako Kabinete Teknikoa.....	522
2.4.1. Unibertsitatearen euskararen inguruko jardueren antolaketa.....	523
2.4.2. Euskarazko irakaskuntzaren gertakuntza.....	525
2.4.3. Euskarazko testugintzaren sustapena.....	527
2.5. Irakasleria eta ikasleria elebiduna.....	530
2.5.1. Zientzia Fakultateko irakasle eta ikasle euskaltzaleak.....	533
2.5.1.1. Posibilismoaren lorpenak irakaskuntzan.....	533
2.5.1.2. Goi mailako lan akademikoak eta Azkue Sariak.....	540
2.5.1.3. <i>Leioako euskalkia</i> .....	545
2.5.1.4. Bultza!.....	547
2.5.2. Irakaslegai euskaldunentzako bekak.....	550
2.6. Estatutuak eta euskararen ofizialtasuna unibertsitatean.....	553
2.7. Euskara errektoreorde karguaren sorrera.....	556
2.8. Euskararen erabilera normaltzeko plangintza.....	559
2.8.1. Lehen plangintza eta beste plangintza batzuen arteko konparaketa.....	560
2.8.2. Plangintzak markatutako helburuak.....	562
2.8.2.1. Euskarazko ikerkuntza.....	565
2.8.2.2. Irakaslegai euskaldunen formakuntza beken bidez.....	568

3. Kultur erakunde eta elkarteak.....	572
3.1. Idazleen eta itzultzaileen elkarteak.....	574
4. Biltzarrak eta udako ikastaroak.....	576
4.1. Aditu euskaldunen bilkurak.....	576
4.2. Udako ikastaroak.....	579
5. Aldizkariak.....	581
5.1. Euskarazko aldizkarien eztanda.....	581
5.2. Aldizkari eleanitzak.....	587
5.3. Eusko Ikaskuntzaren sailetako koadernoak.....	591
6. Hamaika liburu, baina itzulpen gutxi.....	595

## **II. Liburukia**

### **AZTERKETA BIBLIOMETRIKOA**

#### **VI. GOI MAILAKO EUSKARAZKO PRODUKZIOAREN AZTERKETA BIBLIOMETRIKOA (1968-2007)**

1. Ibilera berrirako sarrera.....	601
2. Metodologia eta informazio-iturria.....	602
2.1. Bibliometriarako sarrera.....	602
2.1.1. Auziaren egoera.....	606
2.1.2. Ebaluazioa.....	609
2.2. Hizkuntzak eta jarduera zientifikoa.....	612
2.3. Informazio iturriaren deskribapena: Inguma datu-basea.....	620
2.3.1. Egitasmoaren deskribapena.....	620
2.3.2. Katalogazio lanaren irizpide nagusiak.....	622
2.3.2.1. Egileak.....	622
2.3.2.2. Dokumentuak.....	622
2.3.2.3. Erakundeak.....	626

3. Goi mailako produkzioaren azterketa.....	627
3.1. Idatzizko dokumentazioa.....	628
3.1.1. Price-ren legea.....	630
3.1.2. Euskarazko produkzio idatziaren sailkapena.....	632
3.1.2.1. Jakintza-arloen arabera.....	633
3.1.2.2. Jakintza multzoen bilakaera.....	640
3.1.2.3. Ahozkoaren azterketa.....	643
3.2. Zientzietako produkzio idatzia euskaraz eta erdaraz.....	644
3.3. Euskarazko doktorego-tesiak.....	649
3.3.1. Euskarazko tesiak ezagutzeko ikerketa dokumentala.....	649
3.3.2. Euskarazko tesien kopuruak eta bilakaera.....	652
3.3.3. Tesien fenomenologia zabala.....	654
3.3.4. Galesez, katalanez eta euskaraz egindako doktorego-tesien arteko aldea.....	658
4. Egile euskaldunen azterketa.....	662
4.1. Egile motak: norbanakoak, kolektiboak eta ezezagunak.....	663
4.2. Egileen bilakaera.....	666
4.3. Egileen ekoizpena eta Lotka-ren legea.....	667
4.3.1. Ekoizpen bakarra duten egileak.....	669
4.3.2. Euskarazko produkziorik gabeko unibertsitateko irakasle euskaldunak.....	671
4.3.3. Ekoizpen bakarra duten egileen bilakaera.....	672
4.3.4. Urte desberdinetan ekoizpenak dituzten egileak.....	674
4.4. Egileen posta helbide elektronikoak.....	675
4.5. Dokumentuen egile kopurua.....	679
4.6. Egileak jakintza-arloa.....	681
5. Erakundeen azterketa.....	684
5.1. Erakundeen bilakaera.....	685
5.2. Aldizkarien azterketa.....	689
5.2.1. Aldizkarien ezaugarri nagusiak: hizkuntza eredu, mota eta tiradak.....	691

5.2.2. Erakunde ekoizlea.....	694
5.2.2.1. Goi mailako elkarte eta erakundeak.....	696
5.2.2.2. Euskal Herriko Unibertsitatearen aldizkariak....	701
5.2.2.3. <i>The International Journal of Developmental Biology</i> .....	704
5.2.3. Aldizkariak erakarrirako egileak.....	708
5.2.4. Aldizkarien produkzioaren bilakaera.....	713
5.2.4.1. Aldizkari motaren arabera bilakaeraren azterketa.....	715
5.2.5. Azken hausnarketa.....	716
5.3. Argitaletxeen azterketa.....	719
5.3.1. Unibertsitateen ekarria.....	721
5.4. Ahozkoaren azterketara hurbilpena.....	725

**ONDORIOAK ETA EZTABAIDARAKO GAIAK.....729**

**BIBLIOGRAFIA.....751**

**TAULEN AURKIBIDEA.....807**

**GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....813**

**LABURDURAK.....815**

**ERANSKINAK.....819**

- 1. ERANSKINA:** Inguma datu-basean erabilitako Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU).....819
- 2. ERANSKINA:** Goi mailako euskarazko produkzio idatzia urteka (1966-2007).....821
- 3. ERANSKINA:** Goi mailako euskarazko produkzioaren sailkapenerako taula.....823

<b>4. ERANSKINA:</b>	Goi mailako euskarazko produkzio idatzia jakintza-arloen arabera.....	825
<b>5. ERANSKINA:</b>	Aldizkariak euskarazko produkzioaren arabera.....	827



**Atarikoa**

## ***Aurkezpena***

Gasteizen Historia karrera amaitzean, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) proiektu batean, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (Inguma-n) lanean hasi nintzen. Karrera garaitik ezagutzen nuen UEU, Historia sailak antolatutako ikastaroetan parte hartuta nengoen. Beste unibertsitario euskaldun askoren antzera, bertan eman nuen nire lehen hitzaldia eta bertan ere kaleratu nituen nire lehen lan idatziak.

Inguma-ko lanak eta UEUn ezagututako pertsonak, ikasten eta ikertzen jarraitzeko gogoia eraberritu zidaten, hainbestera ze lanean hasi eta lau urtera erabaki nuen Komunitate Zientifiko Euskaldunari buruzko doktorego-tesia prestatzea. Hortaz, tesia egiteko ideia Inguma-tik sortu zen. Tesia egiteko, UEUko lana utzi nuen. Lau urtez UPV/EHUren Euskara Errektoreordetzak doktorego-tesiak euskaraz prestatzeko ematen duen diru-laguntza jaso dut.

Ia bost urte joan dira tesia egiten hasi nintzenetik. Tarte horretan tesiari esker ohartu naiz eskolatik hasi eta tesia aurkeztu arte, zergatik eta nola izan den posible nire ibilbide gehien-gehiena euskaraz egin ahal izatea, baita oraindik zer dagoen egiteke ere.

## ***Ikergaia eta tesiaren xedea***

Tesi honen xede nagusia da Komunitate Zientifiko Euskalduna aztertzea. Komunitate Zientifiko Euskalduna osatzen dute zientzia eta jakintza-arlo desberdinetan ari diren euskaldun aditu, ikertzaile, profesional, irakasle eta beraien arteko harremanek eta antolaketa moldeek. Euskaldun horiek, esparru honetan ari diren erakunde, elkarte eta unibertsitateek eskaintzen duten azpiegiturarekin, goi mailako euskarazko produkzioa ekoizten dute molde jakin batean, hau da, modu formal eta arautuan (idatziz eta metodo zientifikoarekin edo behintzat kontrastatu daitezkeen informazioa emanez). Ekoizteaz gainera, kontsumitzen dute, euskarazko komunikazio zirkuitua eraikiz. Alde horretatik euskaldunak ez dira desberdintzen bestelako komunitate zientifikoetatik, espainiar edo frantziarra moduko komunitateetatik.

Erabiltzen den teoriaren arabera terminologia desberdinarekin aipatu eta azter daiteke komunitate zientifiko bat. Pedagogiaren esparruan aditua den Etienne Wenger-i jarraituz gero, Komunitate Zientifiko Euskalduna *Community of Practice* edo praktika komunitatetzat har daiteke. Bertan ikaskuntza prozesuaren eta ezagutzaren ekoizpenaren izaera soziala, komunitate bidezkoa, azpimarratzen da. Zientziaren soziologiaren esparruko batek berriz, Knorr-Cetina-k adibidez, *Epistemic Cultures* obran, komunitatearen antolaketa soziala eta horren eragina ezagutzaren ekoizpenean aztertuko lituzke. Horiek guztiak interesgarri dira. Hala ere, gure asmoa tesi honetan ez da Komunitate Zientifiko Euskalduna pedagogia edota zientziaren soziologiaren esparruko teoriaren batera egokitzen den ala ez konprobatzea, baizik haren eraketa eta bilakaera historikoa azaltzea eta bere ezaugarri bibliometrikoak deskribatzea. Behin prozesu historikoak azalduta eta ezaugarri bibliometrikoak adierazita, aipatutako ildoko azterketak egitea posible izango da.

Komunitate Zientifiko Euskalduna aztertzeke asmo zabal honen baitan, beraz, helburu zehatzago bi izan ditugu: batetik, komunitatearen eraketa eta bilakaera historikoa azaltzea, eta bestetik, gaur egun komunitateak duen neurria agertzea, hau da, goi mailako euskarazko produkzioa, kide kopurua zein azpiegitura deskribatzea. Izan ere, bata zein bestea lotuta ote zeuden konprobatu nahi genuen. Gure ikerketan ondorioztatu dugunez, euskarazko produkzioaren ezaugarriak (jakintza-arloak, azpiegitura...) lotuta daude hainbat faktore historikorekin: euskarak goi mailako erregistroaren finkapenean izan duen bilakaerarekin, Euskal Herriko goi mailako ikasketen ezarpen berantiarrarekin... Horregatik funtsezkoa zen, euskarazko goi mailako produkzioaren azterketa bibliometrikoa egin baino lehen, gaiarekin lotutako XX. mendeko faktoreak jasotzea.

Gure asmoa zen, halaber, euskararen beraren bilakaerak Komunitate Zientifiko Euskaldunean zer nolako eragina izan zuen aztertzea. Izan ere, hizkuntzaren XX. mendeko egoerak (batasun ezak, hiztun galerak...) goi mailako euskarazko komunikazioa nolabait erasan behar zuen.

Bidenabar, euskarazko komunikazio zientifikoa aztertzean, hau da, euskaldunen komunitatea zientifikoa eta euskara ikertzean, asmo orokorragorik xerkatzen genuen: hizkuntza gutxituen komunitate zientifikoak nola eratzen diren analizatzea. Zoritxarrez, munduan hizkuntza gutxitu gutxik lortzen du ahozkotik idatzizkorako jauzia egitea, are gutxiagok hizkuntza estandarizatzea, eta oraindik ere ez ohikoagoa da goi mailako komunikazio esparru bat eratzea hizkuntza gutxitu bateko zientifikoaren artean. Euskara salbuespen bitxi horietako bat da, XX. mendean lortutako hizkuntzaren batasunari esker, komunitate zientifiko bat eratzea erdietsi duelako. Beraz, alde horretatik euskarak zinezko aukera eskaintzen du hizkuntza gutxitu baten komunikazio zientifikoa eta bere komunitatea aztertzeko.

Tesian ikusiko dugunez, hizkuntza gutxituetan, eta zehazki euskararen kasuan, komunitatea eratzeko oinarrizko abiapuntua hizkuntza bera da. Hizkuntzaren gaineko kezka eta berau aitzineratzeko asmoak mintzaira horretan ari diren adituen lehen bilgunea dira. Hizkuntza topagunea da, beraz. Horregatik, hasiera batean, hizkuntza bereko baina jakintza-arlo desberdinetako adituak denak batera daude. Hau da, hizkuntzaren batasun prozesuaren inguruan hizkuntzalari edota idazleekin batera egon ohi dira medikuak, ingeniariak, abokatuak eta bestelako ikasketak dituzten profesional eta adituak. Beranduago, hizkuntza batasun prozesuaren arabera, eta eredu estandarren zabalpenaren arabera –eta honetan elementu klabea da hizkuntzaren txertaketa goi mailako ikasketetan eta bereziki unibertsitatean–, komunitate zientifikoa hazi eta hedatu ahal izango da. Ordurako, edo orduantxe, komunitatea jakintza-arloetan antolatzen hasiko da, hizkuntza nagusituen komunitate zientifikoetan ohikoa den moduan. Hurrengo pausua espezializazioa litzateke, hau da, jakintza-arloen baitan gaien araberrako azpitaldeetan egituratzea. Gure ustez, Komunitate Zientifiko Euskalduna azken fase honetara heldu gabe dago, aditu euskaldunak arlo oso espezializatuetan aritu arren, jarduera hori, normalean, erdaraz egiten dutelako.

Komunitate zientifikoei buruzko ikerketak, dela komunikazioa zientifikoa, dela goi mailako produkzioaren azterketa, gurean ez dira oso arruntak. Eta are gutxiago dira arruntak euskaldunak edota hizkuntza gutxituetako kasuak aztertzen dituztenak. Hala ere, ezagutzaren gizarte honetan, non zientzia, teknologia eta goi mailako kultur gaiekin

lotutako arloak gero eta arreta handiago erakartzen duten, besteak beste, ekonomiarekin duten loturarengatik, gero eta ohikoagoak, are beharrezkoak, bihurtzen ari dira, baita euskaldunei buruzkoak ere. Izan ere, mota honetako ikerketek funtsezko gakoak eman ditzakete euskara unibertsitatean sustatzeko, egile euskaldunen ebaluaziorako, herrialde baten zientzia eta teknologia sistema bere osotasunean ezagutzeko, zientzia eta teknologiarako plan eraginkorragoak taxutzeko, euskal unibertsitatea diseinatuzeko, eta abar.

### ***Metodologia eta informazio-iturriak***

Komunitate Zientifiko Euskalduna denboran zehar eraiki den neurrian, une bakoitzean ezaugarri desberdinak izan ditu. Historiaren eskutik eta ardatz kronologikoa oinarritzat harturik, garai bakoitzeko ezaugarri, proiektu eta eragile nagusiak aztertu ditugu, harik eta 90eko hamarkadara heldu arte. Orduz geroztik Komunitate Zientifiko Euskaldunean parte hartzen duten egileak, erakundeak eta euskarazko produkzioa hain hazten dira asko, eta bestalde, hain da hurbila garai hori, ezen guztiaren gaineko ikuspegi osoa emateko beste diziplina zientifiko bat erabili baititugu, *bibliometria* hain zuzen ere. Bibliometria, estatistika eta eragiketa matematikoen bidez, dokumentazio multzo baten erakunde ekoizle, egile eta kontsumitzaileak aztertzeke baliagarria da.

Inguma datu-basea izan da azterketa bibliometrikoan erabilitako informazio-iturri nagusia, beste datu-baseetatik ateratako datuekin (ISI, Dialnet...) eta ikertzaileek emandako informazioarekin osatu duguna. Datu-base horiei buruzko azalpen zehatzagoak bibliometria atalean ematen ditugu, baina erabilitako informazio bolumenaren irudi bat izateko aipa daiteke Inguma-n bertan bakarrik 30.000 erregistroraino daudela. Historiari buruzko ataletan, bi motatako informazio-iturriak kontsultatu ditugu: batetik, zuzenak, garaian bertan ekoizitako agiriak (argitaragabeak) eta argitaratutako obrak (liburuak zein aldizkarietako lanak), eta bestetik, zeharkakoak edo bigarren mailakoak, hau da, ikertzaileek kaleratutako bibliografia. Lehenengo motako iturriak kontsultatzeko artxiboetara jo dugu, erakundeetara (Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Artxiboa eta UEU Artxiboa, hurrenez hurren) eta pertsona batzuen artxibo pertsonaletara, hain zuzen ere. Bigarrengoetarako berriz, liburutegietara.

Halaber informazio eta dokumentazio ugari aurkitu dugu *World Wide Web*ean, arruntki Internet izenarekin ezagutzen dena. Inguma bera bertan dago, baita bestelako erreferentzien datu-baseak eta material digitalizatuak ere. Alde horretatik bereziki garrantzitsuak izan dira Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK), bertan erreferentzia ugari aurkitzeaz gainera, zuzenean hainbat dokumentu digitalizatu kontsultatu ahal izan ditugulako, eta Armiarma Proiektua (Literatur Aldizkarien Gordailua Ibiñagabeitia Proiektua, Euskal Prentsaren lanak eta Klasikoen Gordailua). Kasu batzuetan etxean paperezko dokumentazio izan arren, *Euzko-Gogoa* aldizkariaren kasuan esaterako, euskarri elektronikoa oso erabilgarria egin zaigu, bertatik bilaketak egitea errazago zelako.

### ***Hasierako asmoa eta gerokoak***

Hasierako asmoa, doktorego-tesietan ohikoa izaten denez, zabalagoa zen, eta ez zen mugatzen historia eta bibliometriara, azterketa soziologiko bat egitea ere aurreikusten baitzen. Hola, gaur eguneko Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ezaugarri soziologikoak eta komunitatearen osaera, hau da, kideen arteko loturak, harremanak eta partaidetza aztertu nahi ziren. Izatez, atal soziologiko hori burutzeko, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ordezkartza kualitatiboki adierazgarri bati, 22 pertsonari elkarrizketa egituratuak egin genizkien. Halaber, euskaraz goi mailako ekoizpena duten 2700 egileri galde-sortak bidali zitzaizkien eta % 23ak erantzun zuen. Elkarrizketa zein galde-sortekin informazio oso aberatsa bildu zen. Tamalez, hain zen informazio ugaria, ezen konturatu ginen gaur egungo Komunitate Zientifiko Euskaldunaren egoera eta ezaugarri soziologikoak deskribatzea beste tesi oso baterako gaia zela. Horregatik atal soziologikoa doktorego-tesi honetatik kanpo uztea erabaki genuen. Tesia amaitzean ildo horretan ikertzen jarraitzeko asmoa dugu. Edozein modutan, neurri handi batean UPV/EHUko irakaslea den Ane Larrinagak bere doktorego tesian (*Kulturgileak eta kulturgintzaren esparrua*) nolabait gai hau landu du, nahiz eta A. Larrinagak gai honetara egindako hurbilpena eta gure planteamendua oso desberdinak diren.

## **Tesiaren ildoak eta egitura**

Tesiak 6 kapitulu ditu, lehenengo bostak historiari buruzkoak dira eta azkenekoa azterketa bibliometriko bat da. Tesia ondorio orokor eta eztabaidarako zenbait gai planteatuz ixten da. Kapitulu guztiak kronologikoki antolatuta daude, eta kapitulu bakoitzean epe jakin bateko proiektuak, eragileak, diskurtsoak, eta abar azaltzen dira. Horregatik azterketa bibliometrikoa azkena da, kapitulu horretan gaur egunera arteko goi mailako euskarazko ekoizpena eta egileak aztertzen direlako.

Historiari buruzko kapitulu bakoitza sarrera banarekin abiatzen da garaiko abagune historiko orokorra kokatzen duena (unean uneko gertaera politiko-ekonomiko nagusiak, euskararen gaineko diskurtsoak eta bilakaera soziala, eta abar). Ondoren, eta ordena aldakorrean, kapitulu guztietan honako hiru interesgune hauen berri eman dugu: A) euskal kultur erakundeak; B) euskaldunen topaguneak (ekitaldiak, jardunaldiak, biltzarrak, eta abar), eta C) produkzioa idatzia (aldizkariak eta liburu argitalpenak). Kapitulu bakoitza garatzeko lerro kronologikoari lotu gatzaizkio ahal bezainbat, baina epe bakoitzean aipatutako interesgune bakoitzak garrantzi desberdina duenez, eta momentuko eszenatokian protagonismo desberdina hartzen duenez, interesguneak aipatutako ordena horretan, edo beste batean, agertu dira.

Epe bakoitzaren muga kronologikoak finkatzeko urte zehatzak erabili ditugu. Hala ere, jakin badakigu urte batzuk ez direla aparteko mugarriak eta konbentzioz aukeratu ditugu, epe bakoitza bereiztu ahal izateko. Salbuespen nagusia, 1936. urtea da. Izan ere, urte horretan hasitako gerrak, eta garaile irtendako erregimenak, eten latza ezarri zuten gerraurreko euskal kulturaren dinamikekin.

Lehenengo kapituluan gerraurrea azaltzen da, eta beste lauretan gerraosteko urteak. Gaur eguneko Komunitate Zientifiko Euskalduna gerraostean eratu zen hizkuntza batasunaren inguruan. Horregatik gerraosteari buruzko kapituluak sakonagoak dira, gerraurrekoa baino. Gerraurreko kapituluan tesiko ikergaiaren gaineko sarrera aurkezten da. Bertan azaltzen dugu euskarazko kulturgintza jasoan euskararen inguruan hiru planteamendu zeudela (*euskara tresna*, *euskara helburua* eta *euskara objektu*) baita bakoitzaren gaineko adibideak eman ere, gerraurreko proiektu eta eragile

guztiak aipatu gabe. Finean gerrak kamustutako dinamika interesgarrienen berri ematen dugu, gerraren eragina norartekoa izan zen erakusteko.

Gerraurrean aurkeztutako hipotesia kulturgintza jasoan euskarak zuen erabileraz (tresna gisa, helburu gisa edo objektu gisa), ez dugu etengabe esplizitatu gerraostea aztertzeko, nahiz aldika aipatu. Hipotesia behin eta berriro konprobatzea baino garrantzitsua iruditu zaigu euskarazko kulturgintza jaso gerraostean zertan zen argitzea. Izan ere, gerraosteko lehenengo hamarkadak nahiko ilunak izan ziren, eta orain arte ezezagunak ziren zenbait jardueren berri ematen ahalegindu gara, hala nola euskarazko goi mailako lanen lehiaketa eta sariketen berri. Alde horretatik gerraurreko euskarazko kulturgintza hobeto ezagutzen da gerraostekoa baino. Edozein kasutan, tesiaren azken kapituluan (*Ondorioak eta eztabaidarako gaiak*) aipatutako hipotesiaren araberako gerraostearen irakurketa egiten dugu.

Bestalde, gerraosteko kapituluetan Komunitate Zientifiko Euskalduna aztertzeko euskal kulturgintza jasoaren egoera zein den azaltzeaz gainera, arreta berezia jarri dugu izaera desberdineko bi fenomenotan: alde batetik hizkuntzaren batasun prozesuan, aditu euskaldunen lehen trinkotzea ekarri zuelako, eta goi mailako euskarazko erregistroaren sorrerarekin oso lotuta egon zelako; eta bestetik, unibertsitate eta goi-mailako ikasketa zentroen sorreran eta finkatzean, hola egile euskaldunen formazioan eta komunitate zientifikoaren sorreran eduki zuten (edo eduki ez zuten) eragina agertzeko.

Tesiaren 6. kapituluan azken 40 urteotako goi mailako euskarazko produkzioaren, bereziki produkzio idatziaren azterketa bibliometrikoa egin dugu (ekoizpenaren bilakaera, jakintza-arloen banaketa, eta abar), baita egile euskaldunena zein euskarazko produkzioa duten erakundeena ere.

## **Eskerrak**

Eskerrak ematea ez da erraza, batzuk modu publikoan ager daitezke, beste batzuk berriz ez. Neurriarekin asmatzea ere zaila da, hau da, arrazoiak ematean edo aintzakotza adieraztean, norbait/zerbait ahaztu ohi da eta pertsona batzuk behar baino laudorio gehiago/gutxiago jasotzen dituzte. Azken finean, aitor dezagun, eskerren atalak



ageriko helburua betetzeaz gainera, badu beste asmorik: doktoregaia kokatzea bere arloko komunitate zientifikoaren baitan eta haren harreman sarearen berri ematea: nazioarteko adituekin dituen loturak, ospeko pertsonekin duen harremana, departamentu batean duen kokapena eta abar. Metaerabilera honen zale handia naiz, eta obra batean halako atalik aurkituz gero, beti irakurtzen dut, egileek informazio informal ugari eskaini ohi dutelako bertan, beren buruaz eta proiektuaren ibilbideaz. Honekin guztiarekin koherentzian, nire eskerren zerrenda egin nahi izan dut, doktorego-tesia prestatzen hainbat bidelagun izan ditudalako. Zerrendak ez du exhaustiboa izateko asmorik, eta esan beharrik ez badago ere, goian aipatutako tasun eta keria guztiak ditu.

Hasteko nire zuzendari biei, Mikel Aizpururi eta Xabier Isasiri, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet, besteak beste, konfiantza, laguntza eta askatasun handia eman didatelako hasieran zirriboratu nien proiektua aurrera eramateko.

Halaber, ezinbestekoa zait Pruden Gartzia aipatzea, ezagutzen dudanetik, modu batera edo bestera, urtetan ni xaxatzen ibili delako. Esate baterako, Inguma oinarri hartuta tesia egiteko ideia berea izan zen. Agian, bere abiapuntuko proposamena eta nik egin dudana ez datoz guztiz bat, baina badakit interesgarritzat joko duela egindakoa. Prudenekin batera, Iñaki Alegria, Uxune Martinez eta laurok Inguma datu-basearen batzordea osatu dugu urtetan. Iñaki beti eduki dut laguntzeko gertu. Datozen urteotan proiektu berrietan berarekin kolaboratzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Uxunetaz beste horrenbeste esan dezaket.

Tesia egin bitartean pertsona asko ezagutzeko eta hainbatekin lasai solasteko aukera izan dut. Laguntza handia eta askotarikoa jaso dut hainbatengandik. Honako hauei beraien ibilbide profesionalaz eta pertsonalaz hitz egiteko orduan erakutsitako irekitasuna eta eskuzabaltasuna eskertu nahi diet ordena alfabetikoan aipatuta: Jose Ramon Aihartza, Kepa Altonaga, Ander Altuna, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Jose Ramon Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Mari Karmen Goiriena, Hervé Grellier, Jacinto Iturbe, Xabier Kintana, Mari Karmen Menika, Jesus Mari Txurruka, Mikel Zalbide eta Ana Zubiaga. J. M. Txurrukari bereziki eskertu nahi diot

bere artxibo pertsonala kontsultatzeko aukera eman izana. Tesiaren kapitulu batzuk prestatzeko ezinbestekoa izan zait bere dokumentazioa.

Arestian aipatu moduan, hasierako tesi proiektuak hiru atal zituen historikoa, bibliometrikoa eta soziologikoa. Hirurak ikertu eta landu arren, azkenean denbora eta espazio mugengatik atal soziologikoa tesi honetatik kanpo geratu da. Atal soziologikoa lantzeko, hau da, Komunitate Zientifiko Euskalduna osatzen duten gaur egungo egileak deskribatzeko, galde-sorta eta elkarrizketa egituratuak egin nituen. Batean eta bestean hainbatek parte hartu zuten. Galde-sorta 500 egile euskaldun baino gehiagok erantzun zuten, eta askok galdetegiari erantzuteaz gainera, bestelako iritzia, ohar eta kritikak helarazi zizkidaten, zein baino zein interesgarriagoak. Elkarrizketetan berriz, jakintza-arlo desberdinetako 22 pertsonak parte hartu zuten: Joseba Agirreazkuenaga, Kepa Altonaga, Iñaki Antigüedad, Edorta Arana, Anuntxi Arana, Joxe Azurmendi, Baleren Bakaikoa, Nekane Balluerka, Arturo Elozegi, Lore Erriondo, Karmele Fernandez, Jose Ramon Furundarena, Inazio Garin, Jacinto Iturbe, Jon Kortazar, Iñaki Martinez de Luna, Beñat Oihartzabal, Jose Mari Pitarke, Jose Mari Rodriguez Ibabe, Isabel Salcedo, Kepa Sarasola eta Andres Urrutia. Denei eskertu gura diet nirekin izandako abegikortasuna. Ez da alferrekoa izan eskainitako denbora eta arreta. Izan ere, tesia amaitu orduko galde-sorta eta elkarrizketetatik bildutako materiala zehatzago aztertzeke eta argitalpena prestatzeko asmoa daukat.

Lagundu didatenen artean ez nituzke aipatu gabe utzi nahi nire proiektua kritikatu, ezbaian jarri edo atea itxi didatenak. Izan ere, zer pentsatu ugari eman didate, eta epe luzean uste baino lagungarriagoak izan dira nahiz eta unean asko amorrarazi. Aitortza zintzoa da, izenik aipatuko ez dudan arren.

Tesia nagusiki etxearen soseguan prestatu dut, nahiz eta noizik behin artxibo eta liburutegiren batera hurbildu. Nire kuttunena, arrazoi askorengatik Azkue Biblioteka da, eta bertan lanean dihardutenei nire eskerrak eman nahi dizkiet laguntza handia eskaini izan didatelako, Kristina Arana, Nere Altuna, Josune Olabarria eta Pruden Gartzinari hain zuzen ere.

Nola ez, etxekoei, modu zabalean ulertuta, eskerrak eman nahi nizkieke, eta bereziki bi pertsona zoriondu gura nituzke: Enara Artetxe eta Jurgi Kintana. Zorionak Enarari, tesia amaitzeagatik eta ni baino gazteagoa izanik, ia bost urte gazteagoa, behingoagatik nik baino arinago hegaz egin duelako. Nire tesia aurkezten dudanerako, bera doktorea izango da jada. Jurgiri zorionak azkenean etxea tesietatik askatu dugulako, zer izango da hurrengoa?

# **AZTERKETA HISTORIKOA**

## **I. Gerraurreko euskarazko kulturgintza jaso**

## 1. Sarrera eta abagune historikoa

Tesia gerraurrean hasiko dugu. Garai hartan dute iturburua gaur egunera arte iraun duten planteamendu desberdinek euskara kulturgintza jasoan erabiltzeari dagokionez. Atal honetan, beraz, Espainiako Gerra Zibil aurreko kultur joerak izango dira aztergai. Aurrenik, ordea, sarrera historiko txiki bat egingo dugu gaia kokatzeko.

1936ko gerrak itxitako epea 1876an ireki zela esan liteke, Bigarren Gerra Karlista amaitu eta foruak abolitu zirenean. Kronologia hori, berez, Hego Euskal Herriari dagokio, baina tartean gertatu zirenek euskal kultura osoan izan zuten eragina, eta ondorioz Iparraldeari ere badagozkio. Horregatik 1876 eta 1936 urteak izango dira kapitulu honetako mugarri nagusiak. Nolanahi ere, XIX. mende amaierako kultur joeretako batek XVI. mendean zuen jatorria eta aurrekari hori ere aipatuko da.

Hizkuntza gehienetan ekoizpen jasoaren agerpena unibertsitate munduari lotuta egoten da. Euskarak ez du oraintsu arte halako loturarik izan. Izan ere, Antzinako Erregimenean zehar Euskal Herrian sortu ziren unibertsitateek eta goi mailako ikastetxeek (Oñatikoak, Iratxeakoak, Bergarakoak eta abar) ez zuten euskara erabili kultur hizkuntza gisa. Izatez, ez ziren oso unibertsitate indartsuak izan, eta euskal eliteak, sarri, atzerriko unibertsitateetara joaten ziren (Salamancara, Parisera eta abar)<sup>1</sup>. Beraz, euskal eliteak, bai zibilak eta bai erlijiosoak, erdaraz formatzen ziren (latinez, gaztelaniaz, frantsesez...). Ondorioz boterearen, goi kulturaren eta igoera sozialaren hizkuntza erdara zen. Horrek ez zuen kentzen euskal eliteek, eremu euskaldunetan, euskara ere jakitea. Eta hola, nahiz modu subalterno batean izan, euskarazko idazki batzuk ere sortu zituzten, lehena XVI. mendean.

Garai berean, Euskal Herriko populazioaren gehiengoa euskaldun elebakarra, nekazaria eta alfabetatu gabea zen. Erreforma eta Kontraerreforma erlijiosoak tarteko, herritar xeheen letratze prozesu mantso bat abiatu zen XVI-XVII mendeetan. Prozesu

---

<sup>1</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 22-24)

hori XIX. mendean azkartu zen estatuek ezarritako eskolatzeko orokorrarekin. Nolanahi ere, 1876 urtea iritsi zenerako Euskal Herriko populazioaren erdia ere ez zegoen alfabetatuta<sup>2</sup>. Artean jende gehienak nekazari izaten zirauen. Bestalde, zazpi probintzien multzoan kalkulatu da 1860 aldera biztanlegoaren % 55a euskalduna zela, milioi erdi pertsona inguru<sup>3</sup>.

Gizarte egitura tradizional hori 1876tik aurrera hasi zen kualitatiboki aldatzen. Batetik, maila politikoan, Madrilgo gobernuak foru erregimena deuseztatu zuen, eta Hegoaldeko euskal probintziak, ordura arte autogobernu aski zabala izan zutenak Espainiako Estatu-Nazio proiektuan estuago txertatu ziren. Bestetik, maila ekonomikoan, industrializazio azkarra abiatu zen Bilboko itsasadarrean, mende berriarekin Bizkai osora eta Gipuzkoara hedatu zena.

Industriak immigrazioa ere eragin zuen. Azkenean, 1930 urterako Bizkaian eta Gipuzkoan populazio aktiboaren % 25 baino ez zen lehen sektoretik bizi, eta % 40 baino gehiago industrian ari zen lanean<sup>4</sup>. Garapen ekonomikoak goi ikasketa guneen sorrera erraztu zuen orobat, batez ere helburu teknikodunak (Deustuko unibertsitatea, Bilboko Ingenieritza eskola eta abar) eta erdaraz ari zirenak. Erdarazko eskolatzeko orokorrak ere, aurrera egin zuen garai honetan. Modu horretara, euskaldun portzentzajea atzeraka joan zen.

Eraldaketa sakon eta maiz traumatiko horiek guztiek, ideologia eta masa mugimendu berrien garapena ekarri zuten. Hala agertu ziren, besteak beste, sozialismoa eta euskal nazionalismoa XIX. mende bukaeran. Gerra Zibila lehertu zenerako lehen mailako presentzia zuten gizartean. Testuinguru horretan kokatzen dira aztertuko ditugun euskarazko kulturgintza jasoaren joera desberdinak.

---

<sup>2</sup> (Dávila, 1995: 188)

<sup>3</sup> (Erize, 1997: 263)

<sup>4</sup> (Dávila, 1995: 24)

## 2. Euskarazko kulturgintza jaso: oinarrizko gakoak

1936ko gerra baino lehen, eta geroago ere, kulturgintza jasoan euskararen erabilera edo rolaren arabera, hiru planteamendu nagusi bereiz litezke:

- *Euskara tresna.* Euskaldunarengan (hiztunarengan) zentratutako joera. Planteamendu honetan eraikitako proiektuek euskara baliatzen zuten euskaldun elebakar (edo ia elebakarrengana) heltzeko. Beraz joera honen baitan ekoizpen praktikoa zen nagusi, ikasketa gutxiko euskaldunei zuzendua, eta horregatik normalean maila ez oso jasokoa.
- *Euskara helburu.* Planteamendu honetan hizkuntza bera zen kultur proiektuen gakoa. Proiektu batzuk euskararen gaitzea eta prestaketa bilatu zuten, eta beste batzuk aldiz, beronen erabileraren zabalpena eta normalizazioa. Baziren ere, helburu biak uztartu zituztenak. Noski euskararen aitzineratzeko proiektuek, hiztunarengan eragina zuten, baina hiztuna bigarren mailan geratzen zen. Planteamendu hau nagusiki euskal abertzaletasunari lotuta zegoen.
- *Euskara objektu.* Euskal hizkuntza eta kulturaren ikerketara bideratutako planteamendua zen hau. Euskara eta euskal kultura ikergai zientifiko gisa hartzen ziren. Helburua ez zen euskal hiztunarengana iristea, ezta euskara gaitzea ere, baizik zientzia egitea. Gehienetan erdaraz egiten zen.

Ondoko lerroetan aipatutako planteamendu bakoitza xehekiago aztertuko dugu, gerraurreko adibideak emanez.

## 3. Euskara tresna: hiztunaren lehenestea

Euskaldun hiztun elebakarrengan zentratutako kultur planteamenduak nagusi izan ziren XVI. mendetik XIX. mendearen amaiera arte. Tarte horretan Euskal Herrian ekoitzi zen goi mailako kultura ia guztia erdaraz sortu zen (latinez, gaztelaniaz,



frantsesez...). Euskararen erabilera idatzia batez ere maila apalekoentzat gordetzen zen. Elizak, esate baterako, XVI. mendetik euskaldunen artean bere doktrina zabaltzeko, euskara erabili zuen, ez euskara aitzineratzeko egitasmorik zuelako, gehienak nekazari euskaldun elebakarrak zirelako baizik. Jose Mari Larreak dioten bezala: “Euskal literaturaren hasieran, hortaz, XVII-XVIII. mendeetan euskara dateke euskaldunen hezketa erlijiorako tresna hutsa, Eliza erdaldun batek zeukan bide bakarra publiko euskaldun baten bereganatzeko.”<sup>5</sup> Hortik esplikitzen da euskal letretako testu erlijiosoen ugaritasuna ere (doktrina, katixima, ikasbide eta abar). Planteamendu pragmatiko honetan euskara soilik ezinbestean erabiltzen zen, erdararik ez zekitenengana heldu ahal izateko. Normalean, idazki erlijiosoetako euskara, maila apalekoa izaten zen, sarritan erdaratik hala-moduz itzulia. Asmoa ez zen, beraz, euskara kultur hizkuntza jaso bilakatzea. Horretarako erdara erabiltzen zen<sup>6</sup>.

Izan zen, hala ere, helburu pragmatikotik harago, alegia erlijioa hedatzeaz gainera, euskara kultur hizkuntza bilakatzeko ekimenik, adibidez, Joanes Leizarragarena<sup>7</sup> edo *Axularrena*<sup>8</sup>. Elizatik kanpo ere, euskara kultura hizkuntza bilakatzeko beste saiorik izan zen (adb. Joanes Etxeberri Sarakoarena<sup>9</sup> edo Jusef Egiategirena<sup>10</sup>), baina emaitza urrikoa. Ekimen hauen atzean Euskal Herriko elite ertaina, batez ere Iparraldekoa, zegoela ematen du. Zernahi gisaz, euskara kultur hizkuntza bilakatzeko ekimen desberdinak, bai Elizaren baitan, bai Elizatik kanpokoak,

---

<sup>5</sup> (Larrea, 1994: 31)

<sup>6</sup> Elizaren jarreraz ikus J. Azurmendi (1992: 455-467)

<sup>7</sup> Leizarragaren Biblia, J. Intxaustik erakusten duenez, XVI. mendeko euskarazko itzulpen lan bat baino zerbait gehiago da: Joana Albret erreginak, bere erreinuan martxan jarritako hizkuntza politika orokorrako baten emaitza da, euskara eta biarnesarekin lotutako hizkuntza politika (Intxausti, 1995)

<sup>8</sup> Ikus *Axularren* asmoez J. M. Larreak lana (Larrea, 1994: 37)

<sup>9</sup> Joanes Etxeberri “Sarako” medikuaren gainean Gidor Bilbaok doktorego-tesia prestatu du. Bilbaok, Etxeberri Sarakoaren idazlan ezezagun guztien testuak bildu (*Escuararen hatsapenac, Escual Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* eta *Lau-urdiri gomendiozco carta edo guthuna*), aztertu eta edizio filologiko bakar batean testuok finkatu ditu. Bilbaok erakutsi du Etxeberri prosa-lanak, gramatika-lanak eta hiztegiak prestatu zituela hiru helbururekin: batetik munduko hizkuntzaren bat ikasi behar zuten euskaldunei lehenbizi latina ikasteko tresna bat eskaintzea; bestetik euskaldunei euskaraz idazteko laguntza eskaintzea; eta azkenik euskarak beste hizkuntzek bezainbeste balio zuela frogatzea (Bilbao Telletxea, 2007)

<sup>10</sup> Jusef Egiategi zuberotar irakasleak 1785eko *Lehen liburria edo Filosofo huskaldunaren ekheia* testua prestatu zuen, nahiz eta ez zuen argitaratu. Txomin Peillenek lanaren lehen edizio bat prestatu zuen arte, hau da, 1983. urtera arte, praktikoki ezaguna zen obra hau. Ikertzaile batzuren hipotesia da XVIII. mendean zuberotar eliteko kide zirenetako batzuk, euskara, latinaren edo frantsesaren pareko kultura hizkuntza bihurtzeko asmoa zutela, eta J. Egiategi horren adibide litzateke (Oihartzabal, 2001 eta Kintana Goiriena, 2003)

ez ziren nagusi izan euskal letretan eta ez zuten jarraipen iraunkorrik izan (nahiz tradizio jaso xume bat abiatu)<sup>11</sup>.

XVI. mendetik Euskal Herriaren lehen industrializaziora arte, euskal herritarrak, nagusiki nekazariak eta artisauak izan ziren (kostakoak marinelak) eta euskaraz haientzat idatzi zen batez ere. Irakurle euskaldunek eliz-liburuez gain, laborantzarako (eta modu mugatuagoan, nabigaziorako) euskarazko testu batzuk ere izan zituzten, asmo praktikodunak orobat. Liburu horiek gai *teknikoez* ziren heinean ekoizpen jasotzat har daitezke, nahiz ez ziren goren mailakoak, eta horregatik aztertuko ditugu.

### **3.1. Laborari euskaldunentzako argitalpenak**

Hasteko azpimarratu behar da, XVI-XIX. mende tartean euskaraz inprimatutako liburu gehienak eliztarrak edota elizkoiak izan zirela, hau da, eliz-gaiekin lotutako mota askotako lanak: otoitz liburuak, deboziozkoak, istorio biblikoak, santuen bizitzak, katiximak, kristau ikasbideak eta abar. Jurgi Kintana historialariak dioenez:

“Ipar Euskal Herrian, XVI. mendetik Frantses Iraultzara arte, liburu gehiago argitaratu ziren euskaraz frantsesez baino (90 euskaraz, 73 frantsesez eta 9 beste hizkuntzatan). Baina euskarazko liburu produkzioa, ia osotara gai erlijiosoen ingurukoa zen (90 liburutik 83), frantsesez orotariko gaiak lantzen ziren bitartean (literatura, zientziak, testu juridikoak, historia lanak, ...).”<sup>12</sup>

Erlijosioak ez ziren euskal liburuen artean zeuden aipatu liburu *teknikoak*. Hola XVII. mendean Piarres Etxeberri *Dorrek Liburu hau da itsasoco nabigacioneoa* (1677) argitaratu zuen Baionan. Itsas Nabigaziorako Martin Oihartzabal kapitainak frantsesez<sup>13</sup> prestatutako liburuaren euskaratzea da, *Dorrek zerbait gehiago abanzatuba*. Gogoan izan behar da Iparraldeak, Lapurdik batez ere, XVII. mendean halako hazkunde ekonomikoa bizi zuela, eta eragile ekonomiko nagusia itsas nabigazioan oinarritutako merkataritza zela. Beraz euskaldun asko marinela ziren. Horiei begira osatu zuen *Dorrek bere liburuak*:

<sup>11</sup> Ikus euskarazko literatur tradizio jaso baina intermitenteaz J. M. Larrearen lana (Larrea, 1994: 36-38)

<sup>12</sup> (Kintana Goiriena, 2003: 15)

<sup>13</sup> M. Oihartzabalek prestatutako liburuaren jatorrizko izenburua hau da: *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarsabal, habitant de Çubiburu*.

“Iakiteko duzu liburu hunetan konprenitzen direla arrutak, lekoak, zundak, eta marea kontubak, eta entradak, ezagutzak halturak halanola, lebantekoak, Espainiakoak, Franziakoak, Bretaniakoak, Normandiakoak, eta Picardiakoak, Flandeskoak, Angeleterrakoak, Irlandakoak, Eskosiakoak, eta Ternubakoak, halanola baitire segidan iskribatubak, **plazer duten maistrubenzat edo pillotubenzat, edo itsasoan nabigatzen dutenentzat**, perilletarik goardatzeko, eta lehenbizikorik Lebantekotz berzeak segidan ditubela.”<sup>14</sup> [beltzak gureak dira]

*Dorreren* liburuaz gain ez zen beste obrarik idatzi euskaraz itsas nabigazioari buruz. Aldiz XVII. mendetik aurrera euskaldunen laborantza aitzineratzeko asmoz zenbait liburu prestatu ziren. Lehenik aipatuko dugun egilea, Mongongo Dassançã da eta bere 1692ko *Laborarien abissua* liburuxka<sup>15</sup>. M. Dassançak lan honetan ez zuen laborantzaren gaia zuzenean landu, albaitaritzarena baizik. Bertan laborariak abereen zaintzarako behar zituzten albaitaritzea ezagupenak jaso zituen. M. Dassançak berak lanaren lehen esaldian aitortzen zuen: “Jauna, entreprenitu dut obra xume bat ezkoaraz inprimatzera Laborarien faboretan”. M. Dassançã kimikaria zen, eta ondoko aipuan dioen moduan, liburuan bildutako gaixotasunen erremedioak ez zituen berak asmatu, autore modernoengandik bildu baizik:

“...othoisten naute adiskide batzuek zenbait fagore eritarzun horren kontra egiteaz, eta hala resolitu dut haien satisfazionea gatik **obra xume** baten egitera, zeinetan erakutxiko baiteret Idien, eta behien, eta ardien eritarzun prinzipalen ezagutza, eta heier komeni zaizkoten erremedio miragarriak. Orduian segura zaiteste ez direla hemen gauzak nik pensatuak bainan bai ikhiak lehenagoko auktor handi eta oraiko moderno famatuietarik. Eta nola hanitx nork bere nazioneentzat traillaillatu baidire alemaniakoak alemanez, espainiakoak espainiolez, hala nola **franzian egin baitute Maison rustikaz fransesen, eta gu franziakoak izan arren ezkualdun guziek ez dakigu erdaraz eta partikularki laborariak konprenitzeko berehala liburu miragarri hartan diren misterioak, hargatik entreprenitu dut obra xume hau ezkoaraz emaiterat bat bederak iakin dezatentzat zein erreitx den ezkoaraz konprenitzea** lehenagoko eta oraiko auktorren sendimenduak.”<sup>16</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, berariaz erdaraz ez zekiten euskaldun laborariei zuzendutako dibulgazio lana zen. Eta mota bereko liburu gehiago argitaratu zen Iparraldean XVII-

---

<sup>14</sup> *Dorre* [P. Etxeberri]: *Liburu hau da itsasoco nabigacionecoa*, Baiona, 1677. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebDorreItxasoko.htm> [kontsulta data: 2009-02-06]

<sup>15</sup> M. Dassançak prestatutako lan honek beranduago aldaera bi izan zituen: batetik J. P. Xabalgoitik XVIII. mendean izenburu berdinarekin publikatutakoa, eta bestea, B. Goienetxeren *Marechalaren liburia* 1831ean. Hiru testuen aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia P. Urkizuk argitaratu du ASJUn (Urkizu, 1999). Testuok modu elektronikoak kontsultatu nahi izanez gero hementxe daude: <http://www.vc.ehu.es/gordailua/> eta <http://klasikoak.armiarma.com> [kontsulta data: 2007-10-20]

<sup>16</sup> M. Dassançã: *Laborarien abissua*, 1692. <http://klasikoak.armiarma.com/pdf/DasanzaAbissua.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18] edo hemen [http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien\\_abissua\(1692\).htm](http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborarien_abissua(1692).htm) [kontsulta data: 2009-06-20]

XX. mende artean. XIX. mendean, liburuez gain, almanakak<sup>17</sup> eta egutegiak<sup>18</sup>, baserritar elkartearen arautegiak<sup>19</sup> eta ganadu erakusketa/lehiaketa arauak<sup>20</sup> ere kaleratu ziren. XIX. mende bukaeran euskarazko lehen prentsa agertzean, nekazaritza arloko artikulua parra-parra publikatu ziren. Arlo honetan ere, Iparraldeko egileak nagusitu ziren. *Eskualduna* aldizkaria adibidez (1887-1944) testuinguru horretan agertu zen.

Hegoaldean XIX. mendearen azken laurdenera arte itxaron behar da nekazaritzari buruzko euskarazko lehen liburua argitaratu arte. Juan Goitiak idatzi zuen: *Eusquerazco agricultura*<sup>21</sup> eta 1886an Tolosan kaleratu zen. Goitiak ere liburu hau nekazari euskaldunentzat idatzi zuen. Hau da, erdaraz ulertzen ez zuten nekazari laborantzako azken berrikuntzak helarazteko eta, bide batez, Euskal Herriko lurretan praktikatzen zen nekazaritzara egokitutako argibideak emateko:

“... eta beste bat leitu izandu det Oliban jaunac escriptua, eta premiatu edo sariatua Madrid-co concurso genealean; eta ez det dudacic ifiñcen izango dala ongui eracusten duana eta provechosoa provinci edo paraje ascotaraco; baña guchi valio duana da euscal errietaraco, cergatic billatcen zayon bi falta, ceñac diran; bat liburu orren ideaz valiatzeco [sic] erdera edo gaztelania ez dan ongui comprenditcen necazari euscaldunen artean, eta bestea, necazarizan oso ejercicio diferentea dalaco beste provinci ascotaco aldean euskal errietan, bada icusten degu **emengo necazarien arteraco, erderaz edo beste hitzcunzaren batean escriptuac izan ezquero liburua izan arren arguitasun andietacoa edo ongui eracusten duana, comprenditcen ez dala beraren ideac artutceco eta ongui aprovechatceco moduan, cergatic**

<sup>17</sup> Ikus J. Diaz Nocik prestatutako erroldan almanakak zeintzuk ziren, non eta zein urteetan argitaratu ziren (Diaz Noci, 1994). Euskaraz argitaratutako almanakak gutxi aztertuta daude, eta Kepa Altonagak erakusten duenez, almanakak euskararen historia sozialerako funtsezko informazio iturriak izan daitezke (Altonaga 2007)

<sup>18</sup> Almanaka eta egutegiaren arteko harremana estua da, eta hein handiz almanakak egutegiaren garapena dira, egutegiaren edukia hedatuta eta zabalago landuta jasota baitaude. Egutegiak nekazariarentzat funtsezko elementuak ziren laborantzako uneak programatzeko: ereitea, uzta biltzea eta abar. Almanaketan nekazaritzarako ohar, aholku eta bestelako jakingarriak agertzen ziren. Bestalde euskal almanakak eta egutegiaren sorrera eta bilakaeraren gaineko azterketarik interesgarrienak Javier Diaz Nocik eskaintzen ditu. Diaz Nocik euskarazko kazetaritzaren hastapenak almanaketan ikusi ditu (Diaz Noci, 1998: 32)

<sup>19</sup> Nekazaritza zein abeltzantzatik bizi ziren Iparraldeko zein Hegoaldeko baserritarrek, gehienetan euskaldun elebakarrak, antolatutako elkarte, kofradia eta bestelako topaguneen araudiak XIX. mendearen azken laurdenean euskaraz idatzi ziren maiz. Hala aipatu behar ditugu: Baigorriko laborarien kofrariaren araudia euskaraz eta frantsesetik idatzi zena *Baigorriko Laborari-Confrariaco: frantsesetik syndicat agricole deitzen denaren erreglamendua* (1892), Tolosako nekazari elkartearen arautegia euskaraz jarri zuten eta *Euskalzalaren* argitaratu zen (“Nekazari [sic] edo lugiñen anaikideak” *Euskalzalare*, 1898.03.17), 1906an urtean *Abere gorrietan hiltzearen kontra asuramenduzko konfrariaren erreglamendua* Baionan atera zen, eta 1910ean Hazparnen *Elgar-Lagun: Hazparneko abere konfrarioaren erreglamendua*.

<sup>20</sup> Ganadu eta baserriko produktuen (barazkiak, eztia...) lehiaketa handi bat antolatu zen Hondarribian 1914. urtean. Lehiaketan parte hartzeko oinarriak, kategoriak, sariak, epaimahaiaren aukeraketa eta prozedura azaltzeko 31 orrialdeko liburuska bat argitaratu zen (*Nekazaritza eta ganaduen billaldiya*).

<sup>21</sup> Liburu honen azpitutuluak honela dio: *Necazari euscaldunentzat guttiz egoqui datocen ejercicioac eracusten dituana eta Carlos Irugarrenaren Españar-malla erreguezco aguiriyen zaldun dan Alzaga-ko necazari Juan Domingo Goitia Garmendia escriptuba*.

**liburu oyetzaz ongui comprenditzen dutenac aprovechatceco moduan euscal errietaco necazarien artean chit guchi dira,**<sup>22</sup> [beltzak gureak dira]

XX. mendera iritsita, Hegoaldeko adibideen artean aipa daiteke Gipuzkoako diputazioak agindutako Ignacio Gallastegi Artizen lanaren euskaratzea. Hola argitaratu zen: *Sagardotarako sagarrak: sagardotarako sagar onak izateko sagastiak nola jarri ta zaitu bear diran* (1917). I. Gallastegi nekazaritza-ingeniarria zen eta Fraisoroko Nekazaritza Eskolako zuzendaria<sup>23</sup>. Fraisorokoa Nekazaritza, esnegintza eta sagardogintza ikasteko eskola zen. Beraz, diputazioak euskaratu zuen I. Gallastegik eskolan bere ikasleekin erabiliko zuen materiala (I. Gallastegiren lana gaztelaniaz ez baitzen inoiz publikatu). Diputazioak halako proiektua finantzatu zuen ez baserritarren euskalduntzeari begira, baizik euskaldun elebarrarentzat, edo erdara kamuski ezagutzen zutenentzat. Pentsatzekoa da euskal hiztunak elebidun erabatekoak izan balira, diputazioak ez zuela bere gain hartuko halako proiekturik, sasoi honetan diputazioek ez baitzuten euskara sustatzeko politikarik. Itzulpen honek gure ustez, helburu ekonomikoa zuen batez ere, sagarrondoaren uzta, eta sagardoaren ekoizpena handitzeko eta hobetzeko asmoz enkargatuko zelako. Sagar ekoizpenaren hazkundea, aberastasuna zen heinean, halako liburua eskura izatea probetxuzkoa zen denentzat bai diputazioarentzat bai nekazariarentzat. Horregatik euskarazko edizioaren hitzaurrean bi ideia nagusi azpimarratzen dira: alde batetik, liburua euskara errazean dagoela, bertan esaten dena uler dadin (ikus testuan beltzez azpimarratutako esaldiak); eta bestalde, nekazariak azken aurrerapenak ezagutu beharra zutela atzean ez geratzeko.

“Gipuzkoa’n, ondasun asko biltzen da sagastiak dirala bide; ala ere, ordea, **gure nekazariak ez dituzte bear bezela erabiltzen sagasti oiek.**

Utsune ori betetzeko, aukerazko erabaki bat artu zuten nekazaritzari dagozkion gaiak aurrera eramateko izendatuak dauden Diputadu jaunak. ¿Zein erabaki da ori? **Sagastiak, sagar asko ta ona eman dezaten, nola erabili bear diran nekazariak jakin-eraztea;** ortarako, liburucho batean erakuspen argiak jartzeko esan zioten Diputadu oiek Fraisoro deritzaion echearen zuzendariari.

Agindu ziotena egin zuan zuzendari jaun arek. Au da, begi-aurrean daukazuten au, lancho ura; **ta zuentzat argigo izan dedin, esan nai deguna garbi-garbi ikasi dezazuten, euskeraz ipiñi degu liburuchoa.**

Irakurri, ba, astiro ta gogoz. Beti sagar artean zabiltzatelako guztia badakizutela, ez uste. Jakintsuak aurrera dijoaz beren ikaskizunetan, eta egunero-egunero agertzen digute gauza berriren bat. Oiek ikasi ezik, atzean geldituko zerate, ta, zuek ez uste izan arren, ez diezute sagastiai bear ainbat ondasun kenduko.

---

<sup>22</sup> J. Goitia: *Eusquerazco agricultura*, Tolosa: Eusebio Lopez-en moldiztegia, 1886, 7.

<sup>23</sup> 1926ko Eusko Ikaskuntzen IV. Kongresuan nekazaritza eskoletaz, eta bereziki Fraisorori buruz aritu zen (“Presente y porvenir de las escuelas de agricultura vascas”)

Ikasi, ba. **Argi, garbi, guztiok ulertzeko eraz itzegingo degu**, ta erraz egin litezken gauza asko esango dizkitzute. Entzun zer diogun, ta dioguna egin”<sup>24</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, obra honen helburua ez zen prosa zientifiko jaso eskaintzea, frutikulturaren azken aurrerapenen berri ematea baizik profil linguistiko jakin bateko irakurle goari.

Beraz, Elizako, nabigazioko eta nekazaritzako euskarazko obrak euskaldun (ia) elebakarrentzat ziren eta bertan erabilitako euskara moldea ulertterraza zen. Euskara zientifikorik ez dago, nahiz eta prosa jasoa adibideak badiren bereziki Iparraldean. Laborarientzako testuei buruz esandakoa aplikagarria da euskarazko osasungintza arloko lanei.

### **3.2. Lanbideetan hizkuntza eskakizuna euskaldunekin aritzeko**

Euskal erakundeek, hala nola Hegoaldeko diputazioek, euskarari dagokionez, euskara promozionatzeko egitasmo zehatzik ez zuten planteatzen. Aldiz, komunikazio-tresna praktikoa gisa batzuetan kontuan hartzen zuten. Hau da, Euskal Herrian euskaldun elebakarrak (edo erdara mordoiloa hitz egiten zutenak) asko ziren, eta beraz, populazio horretan txertatu beharreko zerbitzuak euskaraz ere eskaini beharra zegoen. Beraz, foruen garaitik diputazioek euskal populazioarekin harremanetan zeuden lanbideetan, hau da, irakaskuntzan, armadan, elizan eta osasun arloetan euskaldunak izendatzea babesten zuten sarritan. Ikuspegi erabat praktikoa zen, euskara komunikazio-tresna gisa beharrezkoa baitzen. Hala, irakasle, mediku, apaiz... euskaldunen eskariak, hau da, zerbitzu-eskaintzarekin lotutako lanbideak, XIX. mendean sarritan egin ziren diputazioen aldetik<sup>25</sup>.

1876. urtean, gerra karlista bukatzean, eta foruak abolitu arren, kontzertu ekonomikoak autonomi maila jakin bat ahalbidetu zuen. A. Narbaizak dioen bezala, “Toki Administrazioak (Udalek zein Diputazioak) beren langileak hautatzeko balia zezaketen euskararen eskakizuna. Gauzak horrela, Gipuzkoan barrena behintzat,

<sup>24</sup> Ignacio Gallastegiren lanaren euskararako itzulpenaren hitzaurretik (Gallastegi, 1917)

<sup>25</sup> (Kintana Goiriena, 2005: 43-45)

normala izango da, besteak beste, mediku, emagin edo idazkari euskaldunak izatea”<sup>26</sup>. Egoera horrek II. Errepublikaren garairaino segitu zuen. Zergatia, J. A. Rodriguez Ranz eta J. Unanuek azaltzen dute:

“Toki administrazioko lanpostuetan euskararen ezagutzaren galdapena eragin zuen faktore nagusia gizarte-bizitzaren baitako presio soziolinguistikoa izan zen. Presio soziolinguistikoa horrek behartzen zituen agintariak kontutan hartzera euskararen ezagutza lanpostuen hornikuntza erabakitzen zutenean. Beraz, faktore eragilea administrazioz kanpokoa da”<sup>27</sup>

Hala, Donostiako Udalak euskararen ezagutza eskatu zuen Igeldo auzoko mediku lanposturako, eta prentsan honela iragarri zen:

“ANUNCIO.

Hallándose vacante la plaza de médico titular del barrio de Igueldo, por haber renunciado el que la desempeñaba, se pone en conocimiento de los que deseen solicitarla que que [sic] queda abierto un Concurso por espacio de quince días. (...)

**Los solicitantes deberán acreditar ser Doctores ó Licenciados en Medicina y Cirugía y poseer el idioma vascongado**”<sup>28</sup> [beltzak gureak dira]

A. Narbaizak dioenez, Donostiako udalean zeuden errepublikarrak Igeldon aritzeko medikuaren hizkuntza eskakizunaren inguruan zalantzi agertzean, monarkikoen argumentu nagusia honako hau izan zen “Igeldon euskara baino ez zela hitz egiten!”<sup>29</sup>. Halaber, Donostiako Udalak 1892an espetxeko kapelau berririk ez zuen izendatu, hautagaiak euskaraz ez zekielako<sup>30</sup>.

Gipuzkoako Diputazioan, 1914. urtean, *Kirikiñok* zioenez, Orbea, Intziarte eta Angulo diputatuek Diputazioaren otseina izateko euskara jakitea beharrezkoa ez izatea proposatu zuten. J. Elortza diputatu jaimistak zera erantzun zien: “euskera bearbearra dala Diputazioaren otseñentzat, euskaldunekin izan bear dituztelako beren artu-eman geienak”<sup>31</sup>. Azkenean, hizkuntza soslaiaren eskakizuna bozketa bidez onartu zen.

---

<sup>26</sup> (Narbaiza, 2004: 15)

<sup>27</sup> (Rodriguez Ranz & Unanue, 1994: 144). Azalpen hau espezifikoki II. Errepublikako egoerari dagokio, baina berdin balio du Errestaurazio garairako ere.

<sup>28</sup> Dokumentua (1891.05.29an argitaratua) hemen kontsultatu dugu: <http://www.euskaraz.org/donostia/gorosti/testuak/00309.htm> [kontsulta data: 2009-02-12]. Hori baino lehen, 1886. urtean Itz-Jostaldien batzarrak Donostiako Udalerako idazkari plazarako euskaraz jakitea ezinbestekoa izateko eskaria egin zuen.

<sup>29</sup> (Narbaiza, 2004: 95)

<sup>30</sup> (Narbaiza, 2004: 15-16)

<sup>31</sup> (Kirikiño, 1984: 77)

Bizkaian berriz, *Ibaizabal* astekarian agertu zenez, Lekeitioko eskribau erdaldunak bere lanbidea egokitasunez bete ahalko zuen dudatzen zen<sup>32</sup>.

Aipatutako lanbideetan euskal hiztunak bazeuden ere, mediku, albaitari edo idazkari euskaldunek ez zuten normalean euskara erabiltzen beren arteko solasetan:

“En cuanto el pastor, el pescador, el labrador, el carbonero, vean que el médico, el abogado y el farmacéutico y el propietario y el que ejerce autoridad tienen á honra valerse del vascuence en sus conversaciones, y que propenden á hablarlo cada vez con mayor esmero, ya no se avergonzará de usar de la lengua que aprendió en la cuna.”<sup>33</sup>

Amaitzeko, kasu hauetan guztietan euskararen hizkuntza eskakizuna zerbitzu prestazioari lotuta dago. Ez zen eskatzen euskarazko formazio kualifikatua demostratzea, ezta euskaraz idazten jakitea ere, mintzatzeko gaitasuna edukitzea baizik. Euskara, *bezeroarekin* komunikatzeko tresna gisa hartzen zen, *bezeroa* eskola umea, fededuna, gaixoa, epaiketara joan behar den salatutakoa edo salatzailea izan zitekeen, beti ere euskaldun (ia) elebakarra<sup>34</sup>. Beraz, euskara ez zen lanbide bereko kideek beraien artean komunikatzeko tresna, ez zen medikuak medikuekin berba egiteko hizkuntza, ezta abokatuen arterakoa ere. Medikuei, esate baterako, ez zitzaien eskatzen Medikuntza arloko euskarazko hizkera espezializatua menperatzea.

Ikusi dugunez, oro har, XIX. mendearen azken laurdenera arte euskararen erabilerak testu berezietan asmo praktikoa zuen, eta euskaldunari mezu jakin bat (elizkoia, nekazaritzakoa, osasungintzakoa) helarazteko erabiltzen zen. Ez zegoen, salbuespenak salbuespen, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko proiekturik.

<sup>32</sup> “Orain denporachu danean etorri jaku eskribau barria erri onetara. Erdaldun utsa joan eta erdaldun barru-barrukoa etorri. Eta emen batek baiño gueiagok diño: ¿Zelan esango dau orrek leguez *doy fé*, euskerarik eztakiela, euskaldunen iratz-aguerkaiak edo eskritura-k eguiten dituanean? *Doy fé* ori zelangoa dan itandu gura badeutzazue, artezkari jauna, gure ekauta edo diputauari, jakin gura gagoz emendiko euskaldunok. Berak eztakian berbetan esanko gauzai *doy fé* emon lekiola iñok, ezta sinistekoa. Erdaldunaren eskubideak andiara Euskalerrian!” [etzanak ez dira gureak] cfr. “Asteko berriak: Lekeitiotik” *Ibaizabal*, 27 (1902).

<sup>33</sup> Ez du egilerik, “Por el vascuence” *Euskalduna*, 1897.10.10.

<sup>34</sup> Are gehiagorik, “Errepublikan J. A. Rodriguez Ranz eta J. Unanue aztertu dutenez, jendaurreko zerbitzuarekin lotu gabeko lanpostuen kasuan edo euskaldunen populazioa txikiagoa zen herrietan, hala nola, Eibar, Donostia eta Irunen, hizkuntza eskakizuna arintzen zen (Rodriguez Ranz & Unanue, 1994: 102)



Hori guztia aldatzen hasi zen XIX. mendearen azken laurdenean. Une horretan ikuspegi ekonomikotik Hegoaldeak, eta batez ere Bizkaiak, industrializazio prozesuarekin lotuta hazkundera bizi zuen. Industrializazio prozesuak, eragin ekonomikoaz gainera, eragin kultural eta linguistikoa izan zuen. Erdal herrietako biztanle ugari erakarri zituen, eta euskal eliteen erdalduntze prozesua indartu zuen. Sasoi honetan euskal elite elebidunak erabat erdaldun elebakar bihurtzen hasi ziren. Etenak XX. mendearen lehen erdialdera arte iraun zuen. Donostian, esate baterako, familia akomodatu bateko kidea zen Txillardegik (1929. urtean jaio zen), gurasoak euskaldunak zituen arren, ez zuen euskararik jaso etxean<sup>35</sup>. Euskaldun elebakarren kopurua eta proportzioa ere murriztuz joan zen, eta nekazarien artean bertan gero eta gutxiago ziren erdaraz ezer ulertzen ez zutenak.

Egoera berri honetan euskarak, galdu egin zuen ordura arteko funtzionalitatea eta beronen erabilerak behera egin zuen. Hala ere 1876ko foru abolizioarekin halako giro *euskaroa* piztu zen Euskal Herrian, euskal foru, ohitura zahar eta euskararen aldekoa<sup>36</sup>. Giro hartan joera berriak sortuko ziren, agerpen erradikalena euskal nazionalismoan izan zutenak. Abertzaleak euskararen erabilera behar praktikoa gisa planteatu ordez, bere baitako helburu gisa hartuko zuten.

#### **4. Euskara helburu: hizkuntza prestatzeko eta normalizatzeko proiektuak**

XIX. mendearen azken hamarkadetan euskararen aldeko mugimendu berriak sortu ziren. Foru abolizioak eraginda euskal nortasun politiko eta kulturala errebindikatzen zuten taldeak agertu ziren, adibidez *Nafarroako Asociación Euskara* (1877), Arturo Campion kide zuena. Giro hartan, euskara bere baitako balio gisa hasi ziren ikusten. Ez soilik nekazari elebakarrekin tratatzeko tresna praktikoa huts gisa. Giro foruzale horrek esplikatzen ditu XIX. mendearen azken laurdenean diputazioek euskararen inguruan martxan jarritako edota babestutako zenbait ekimen. Esate baterako, institutuetan euskara irakasteko katedrak sortzea (Bilboko Institutuko Euskara

---

<sup>35</sup> (Agirre, 1996)

<sup>36</sup> Iparraldean halako giro euskaroa bazen, baina ez zegoen hain lotuta gerrarekin, edo foruen galerarekin, eta beraz, ez zuen hain kutsu politikoa, izaera kulturalagoa zuen. Elite kulturaleko kideek parte hartzen zuten bertan eta beraiengandik sortu zen Baionako Euskal Museoa.

Katedra adibidez 1888. urtetik), aurreko atalean aipatutako liburu argitalpenak erraztea eta abar. Hala ere, giro *euskaroak* euskal hizkuntza eta kulturari gorazarre egiten zion arren, gehienetan nahiko hutsala eta folklorikoa izan zen, eta euskararen erabilera marjinala egiten zuen. Esate baterako Iruñean (*Revista Euskara*), Gasteizen (*Revista de las Provincias Eúskaras*), Donostian (*Euskal-Erria*) eta Bilbon (*Revista de Vizcaya*) sortutako aldizkari *euskarroetan* euskararen agerpena oso txikia zen, eta gehienetan konposizio poetikoetara mugatuta zegoen. Nolanahi ere, mugak muga, euskararekiko ikuspegi berri baten abiapuntua zen.

Ikuspegi berri hori modu erradikalagoan planteatu zuen Sabino Aranak. Beretzat euskara ez zen babestu beharreko ondare bat bakarrik, askozaz gehiago baizik. Beretzat euskara bere proiektu abertzalearen parte zen, etorkizuneko Euzkadi indepentearen hizkuntza nazionala.

Sabino Arana berak eta sortu zuen alderdiak (EAJ, 1895) nagusiki gaztelania erabili zuten ohiko hizkuntza gisa. Teoria mailan, ordea, euskarari aitortzen zioten nagusitasuna, eta potentzialki edozertarako gai izan zitekeela planteatu zuten, gai apalak zein jasoenak adierazteko. 1901eko hitzaldi batean Sabino Aranak argi adierazi zuen euskara normalizatzeko helburua:

“... hacedle capaz de llenar esas necesidades a que darle vida se le sujete, y apto para hablar, leer y escribir de geografía e historia, de sociología y de política, de moral y derecho, de filosofía y bellas artes, de industria y comercio, de economía y hacienda, de todo, en fin, cuanto en la sociedad humana sirve para el cultivo del espíritu y para procurarse recursos de vida y medios de progreso; y entonces tened por seguro que el euzkera vivirá vida propia, lozana y próspera...”<sup>37</sup>

Modu horretara Sabino Aranak berak euskaraz maila jasoko lanik idatzi ez bazuen ere, bide bat seinalatu zuen, hainbat euskaltzalek segituko zutena. Esan liteke, beraz, euskal abertzaletasunaren sorrerak inflexio puntu bat markatu zuela. Euskaraz maila jasoko zerbait egin nahi zutenek Sabino Aranaren ideologian aurki zezaketen halako ahalegina justifikatzeko oinarri teorikoa. Hala ere, gerta zitekeen euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi zuten guztiak ez etortzea osoki bat alderdi jeltzalearekin: politika auzietan, hauteskunde estrategietan, ortografia kontuetan eta abar. Baina ideologia

<sup>37</sup> Sabino Aranak 1901ko irailaren 16an Hendaiaiko Euskaltzaleen Biltzarrean emandako hitzalditik (in ZZEE, 2003: XXV)

abertzaleak, modu zabalean ulertuta, erreferente bat eskaintzen zuen, baita alderdi mailako militantzia saihesten zutenentzat ere. R. M. Azkue apaiz euskaltzalea, adibidez, alderdi mailako militantziazatik urrun ibili zen gehienetan, baina ideologikoki abertzaletzat zuen bere burua<sup>38</sup>. Era berean, euskal nazionalista ez ziren euskaltzaleek ere (karlistek, integristek eta abar) erreferente abertzalea aurrean izan zuten (euskara edozertarako erabil zitekeela esanez) eta, zuzenean edo zeharka, beren jardunean eragin zuen. Esan liteke beraz, maila jasoko euskarazko ekoizpen osoan eragin zuela abertzaletasun ideiak.

Ondorioz, euskal nazio kontzeptuaren sorrerarekin, molde berriko euskarazko kulturgintza bat agertu zen. Ordutik aurrera jite edo xede desberdineko kultur produkzio eta antolaketa bati hasiera eman zitzaion, non gakoa hizkuntza zen, beronen prestaketa eta zabalpena, eta ez hainbeste hiztuna. Beraz, XIX. mendearen amaieraz geroztik, euskarazko kulturgintzaren zati baten interesgunea hiztuna izatetik, hizkuntza izatera igaro zen. Hau da, hizkuntzaren beraren lanketa eta prestaketa proiektuak abian jarri ziren (hiztegiak, jardunaldi/hitzaldiak, akademia eta abar).

Hizkuntza bera xede zuen euskarazko kulturgintza jasoaren baitan, nagusiki bi motatako proiektuak garatu ziren:

- *Hizkuntzaren corpusarekin zerikusia zutenak*, hau da, euskara lantzeko, gaitzeko eta egokitzeko asmoa zuten proiektuak. Hiztegien prestaketa, hizkuntzaren batasuna edota sarri aipatutako euskararen “apaintzea” eta “garbitzea”, sartuko lirateke lehen atal honetan. Goi mailari dagokion euskarazko lanketaren adibide izan liteke R. Olabidek prestatutako *Giza-soña* (1917) hiztegia. R. Olabide ideologikoki jeltzalea zen eta euskara atondu eta prestatu nahi zuen esparru berrietara zabaltzeko. *Giza-soña* hiztegi berezitua argitaratu zuenean, bere asmoa zen euskara gaitzea Natur Zientzietan eta Osasun arloetan erabili ahal izateko. Hau da, euskara beste edozein hizkuntza moduan ezagutza transmititzeko prestatzea, nahiz eta oraindik jakintza-arlo horietan hiztun gutxi (edo bat ere ez) egon. Izan ere,

---

<sup>38</sup> (Kintana Goiriena, 2006)

euskara beste edozein hizkuntza moduan ezagutza transmititzeko baliogarria bazen ere, artean egokitu gabe zegoen. Horren ondorioz, jakintzaren arlo desberdinetan ari ziren euskaldunek ez zeukaten euskara erabiltzerik, eta beraz, euskara jakintzatik urrunduta zegoen.

“Izen-pillo au argitara yaurtitzen det aizkide askoren onuz. Euzkeltzaleak atsegiñez aítzen ba-dute, beste pillu batzuk daíayokete, bildu ditzakedan euzkel-itzak, yakingai bakoitzak daskanez, euzkel-idazleei dakafzkiedala, ayen arloa nolarebait arintzeko, ta beafa zaigun euzkel-idaztiyasa gertutzeko. **Euzkeldunik asko yakite-sail oroetan ikastunak ditugu;** dakitena euzkeraz idazteko gairikan ez. Eíderaz orok dakiguna ikasi ta irakasi oi ditugu. **Iñork ñoiz beí zerbait argitaldu nai ba-du, erderara yo, ta erderaz idatzi-beafez aurkitzen da; euzkel-itzak, of andik sakabanatuak, aren deyarekiko sof ta gof datzate, idazti yakintsuetarako bidetara ez ditualako ñork ere gaurdaño ekaí. Okulluetatik eta basefietatik, ordea, euzkeldunok gure ele edef mamitsu au ekerá erakafí beaf ta nai degu, yakingai guziak azaltzeko: beste edozein ele bezain adiñona bai-dalarik, (...).** Ez da, beraz, aítzeko, yakingai askotaz idatzi nairik guretaítean ainbeste lagun egon-afen, ipuin eta gozo-arazotzaz izan-ezik, idazti yakintsuren bat ere ezpa-du ñork egundaño atera.”<sup>39</sup> [beltzak gureak dira]

R. Olabidek hitzaurrean aitortzen zuenez, egoera aldatu nahian pertsonen gorputzari buruzko berbak bildu zituen hiztegi batean, jakintzaren maila jasoan, Biologian, Natur-Zientzietan edo Medikuntzan erabil zitezten. Hiztegi garbizalea prestatu zuen, nahiz berak *jator* deitu. Hitzen sarrerek gaztelaniaz jarri zituen, ondoren euskal ordaina emanez<sup>40</sup>

- *Hizkuntzaren estatusarekin lotutakoak*, hau da, euskararen zabalpenarekin eta gizarte erabilerarekin zerikusia duten proiektuak. Jarduera honetan bereziki nabarmendu ziren Euskal Esnalea eta Euskaltzaindia. Biak ala biak, hein handiz, aurrerago ikusiko dugunez, abertzaleen ekimenez sortu ziren. Martxan jarritako ekimen sozialen adibide moduan hizkuntzaren eta euskal kulturaren inguruan euskara hutsez burututako Donostiako hitzaldi zikloak (Euskal Esnalearenak) eta Euskalegunak (Euskaltzaindiarenak) aipa daitezke. Hitzaldi zikloari buruz aparteko atalean hitz egingo dugu<sup>41</sup>, Euskalegunei buruz, berriz, segidan ohar labur bat gehituko dugu,

<sup>39</sup> Olabideren *Giza-soña* obraren hitzaurretik (Olabide, 1917: orrialde zenbaki gabe)

<sup>40</sup> Adibide moduan zelula hitzari buruz hiztegian honakoa aurki daiteke: “célula= *soin-kizkin* (G-al-bid-iz-iz-zumaf) (propiamente *kizkin* es el grano de trigo que queda sin descascarillar en la trilla = *galtxizkin* (G-and) = *sointxizkin* (G-and)= *kizkin*= *xizkin* // membrana celular = *xizkin-azal* (c)/?” [etzanak ez dira gureak] (Olabide, 1917: 29)

<sup>41</sup> Ikus 4.1.1. *Euskal Esnalearen hitzaldi-zikloak* atala.

hizkuntzaren estatusa hobetzeko ekimenen adibide argigarria baita. Euskaltzaindiak bi Euskalegun antolatu zituen, bata Durangon (Bizkaia, 1921an) eta bestea Donezteben (Nafarroa, 1923an). Euskalegunetan mota askotako saioak izaten ziren, hala nola, hitzaldiak udaletxean, musika kontzertua, euskal dantzak, antzerkia, meza eta literatura lehiaketa<sup>42</sup>. Hitzaldietan, garaiko hainbat euskaltzale hizlari gisa aritzen ziren, gaietako asko hizkuntzaren erabilerari buruzkoak izanik. Esate baterako Julia Fernandez Zabaleta, Donezteben euskara ikastearen eta erabiltzearen alde mintzatu zen<sup>43</sup>. Federiko Belaustegigoitia berriz, euskarazko hezkuntzari buruz aritu zen, bereziki eskolako haurren euskarazko hezkuntzaren alde. K. Etxegarai “Euskera sendatu ta zabaltzeko, orainarte egin dana ta auferantzean egin leikena”-ri buruz eta abar. Beraz, Euskalegunek euskararen erabilera zabaltzeko helburu bikoitza betetzen zuten, batetik ekitaldiak euskara hutsez zirelako, eta bestetik bertan antolatutako saio batzuk euskararen aldekoa diskurtsoa zabaltzen zutelako. Ekitaldiak euskara hutsez izatea, euskal kulturgintzaren baitan fenomeno nahiko ez ohikoa zen, garaiko Euskal Herrian konferentziak erdaraz ematen baitziren eta ez euskaraz. Horregatik, Euskalegunen antolaketan ibilitako R. M. Azkue euskaltzainburuak J. M. Barandiarani Durangoko hitzaldia zela-eta, bidali zion kartan badaezpada gogorazten zion hitzaldia euskaraz eman behar zuela.

Era berean, hizkuntzaren estatusari lotuta, hizkuntzaren erakundetzea izango genuke. Gerraurrean lehen aldiz euskara erakunde baten parte bihurtu zen, Euskaltzaindiarena hain zuzen ere. Euskaltzaindia sortu baino lehen, baita ostean ere, zenbait kultur elkartetan, euskara, elkarteko barne zein kanpo komunikaziorako hizkuntzetako bat izan zen (adb. Euskal Esnalean, Euskaltzaleak elkartean), baina ez Euskaltzaindian bezain modu zentrolean.

---

<sup>42</sup> Durangoko Euskalegunetan esate baterako Luzio Arregiren Virgilioren *Bucolica* laneko ataltxo baten itzulpena saritu zen: *Melibeo ta Titioren arteko alkar-izketa*. Itzulpena 1923. urtean argitaratu zen lehen aldiz, eta gero 1925. urtean *Euskeran* buletinean kaleratu zen berriz (Arregi, 1923 eta 1925)

<sup>43</sup> Doneztebeko Euskalegunei buruz *Argian Garbi* ezizena zuen egileak J. Fernandez Zabaletaren eredu goraipatu zuen, bi urtetan Iruñeko Institutuko Euskara Katedrari esker euskaldundu zelako [cfr. Garbi “Doneztebe (Santesteban)” *Argia*, 1923.09.09]

Euskararen barne-lanketa eta erabilera soziala hedatzea bi prozesu desberdin izan arren, euskararen kasuan lotuta egon ziren. Are gehiago, XX. mende hasieran bi prozesuak nahastuak eta aldi berekoak izan ziren. Hau da, euskararen erabilera zabaldu nahi zen unean, hiztegiak adibidez, orduantxe prestatzen ari ziren. Horretaz guztiaz gain, euskaltzaleen artean ez zegoen corpus mailako adostasunik. Ikus adibide moduan Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldian Bonifazio Etxegarairen lekukotza:

“Befiro esango det oso zintzoak dirala euskera goizetik-gabera garbitu eta apaindu nai duten euskaltzaleak; baña ala ere, nere ustez, bide okefian dabiltz. Beren afitian, batek ontzat ematen duben gauza, bestiarentzat txafa da, eta onela ditugu, jaun onen euskera, beste jaun aren euskera, eta ala ezin liteke gauza onik egin. Efdalefiyan badakite au, eta euskaldunai esaten digute: «¿Zer zabilzate of euskera gora, euskera bera, oraindik ez badakizute euskera nola dan? Onek esaten du, au; arek esaten du, ori, eta danen afitian euskera befiya egiten ari zerate»<sup>44</sup>

Corpus mailako desadostasunak bi ondorio zuzen zituen. Bata hizkuntzaren batasunean, azken finean euskaltzaleen arteko adostasunik gabe, eta bereziki sabindarren hizkuntza jarrera hertsien ondorioz, euskararen batasuna gerraostera atzeratu behar izan zen<sup>45</sup>. Bigarren ondorioak, berriz, eragina izan zuen euskararen erabileran. Esate baterako, gerraurrean sortutako euskara sabindarra, purista eta neologismoz betea zen heinean, ulertzeko eta erabiltzeko, ikasi egin behar zen eta betiko euskaldunek ezin zuten ez erabili ez ulertu ere. Azkenean, euskaldun askori sabindar euskara, hitz egiteko zaila zitzaien, eta erdara erabiltzen amaitzen zuten, besteak beste, hizkuntza estandarizatua zelako<sup>46</sup>.

Hizkuntzaren prestaketa eta zabalpenarekin lotutako proiektu hauetan guztietan euskara zen lehentasuna, hizkuntza bera lantzea, jasotzea, erabiltzea, zabaltzea eta erakundetzea. Ondoko lerroetan euskara helburu izan zuten elkarte eta proiektuak aztertuko ditugu. Hau da, euskal hiztuna beharrean, euskararen lanketan eta zabalpenean murgildutako ekimenak. Ikusiko dugunez, segidan aipatutako proiektuetako batzuk,

<sup>44</sup> (B. Etxegarai, 1920: 84)

<sup>45</sup> (Kintana Goiriena, 2006)

<sup>46</sup> Horregatik Bonifazio Etxegarai Donostian euskararen erabileraren alde egin zuen: “Euskaltzale asko, euskaltzale zintzo askok, lan au lastef-lastef egin nai lukete; eta ez ori bakafik, euskera garbitu eta apaindu nai luteke goizetik-gabera. Bañka zaidatela jaun oek, baña nere ustez, lan au ez da ofen azkañ egin litekean lana. Gogora ekafi zagun gure izkuntza efdi ila iduki degula eunki askotan, eta ezin leike ofen ariñ piztu aifñ luzaro efdi-ilik egon dana. (...) Euskeraz itzegin zagun, ondo ala gaizki, obeto edo txafkiago; itzegin zagun beti, eta pixkanaka izkuntza bera garbituko da, apainduko da,...” (B. Etxegarai, 1920: 83)

proiektu abertzaleak izan ziren bete-betean. Beste batzuk berriz, abertzaletasunetik hurbil kokatu ziren, eta abertzaletasunak hizkuntzari irekitako aukera eta erronka berriak bereganatu zituzten, hau da, erabilera esparru berriak, hizkuntzaren batasuna, euskarazko irakaskuntza eta abar.

#### **4.1. Elkarte euskaltzaleak**

Atal honetan euskaltzaleen hiru topagune izango ditugu aipagai: Euskal Esnalea, Euzkeltzale Bazkuna eta Euskaltzaleak. Hirurak euskararen aldeko kultur elkarteak izan ziren. Bakoitzaren sorrera eta ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu lehenik, ondoren elkarrekin konparatu ahal izateko. Esan beharrik ez dago garai hartan elkarte euskaltzale gehiago ere izan zirela, adibidez, 1902an sortutako *Eskualzaleen Biltzarra*, batik bat Iparraldean izan zuena eragina; baina guk atal honetan hiru elkarte hautatu ditugu, hain zuzen euskarazko ekoizpen jasoarekin zerikusi handiena izan zutenak.

##### *Euskal Esnalea*

Hiruretatik aurrena sortzen, Euskal Esnalea izan zen. Gipuzkoa-Nafarroako ideologia desberdinetako euskaltzaleek 1907. urtean sortu zuten Zumarragan. Euskal Esnaleak euskara eta euskal kultura sustatzea zuen helburu. Euskal Esnalearen buru A. Campion izan zen (1906 urtera arte Eskualzaleen Biltzarreko buru lehena). Euskal Esnalera kide abertzaleak, karlistak eta integristak bildu ziren, denak euskararen inguruan. Elizgizonak zein laikoak<sup>47</sup>.

Euskal Esnalea, Eskualzaleen Biltzarraren parekoa zen, eta hein handiz haren inspirazioz sortu zen Hegoaldean. Horren erakusgarri da, bietan A. Campion izan zela burua. Euskal Esnalea, eta aurretik Eskualzaleen Biltzarra, euskararen aldeko elkarte kulturalak ziren, eta biak zehazki euskararen iraupen eta zabalpenean (“conservación y propagación”) zentratuta zeuden. Baina ez bata, ez besteak, hizkuntzaren batasunaren gaineko erabaki linguistikorik hartu zuen. Euskal Esnaleak gainera esplizituki adierazi zuen, estatutuetan bertan, euskararen hizkuntzalaritza arloko auzietan ez zela sartuko,

---

<sup>47</sup> (Aizpuru, 2000: 382-383)

auziok argitzea sortuko den Akademiaren ardura zela, eta euskara kontuetan haren esanetara jarriko zela<sup>48</sup>.

Euskal Esnalea euskaltzaleen topagunea zen, euskararen aldeko erdaldun zein euskaldunen batasunerako sortutako elkarte. Eta hain zuzen ere horregatik, erakundearen hizkuntza ez zen euskara, kide guztiek ez baitzekiten. Zumarragako bileraren gainean “X” letraren atzean ezkutatuak egileak honakoa zioen: “Bi itz gure aldetik. Gure iritziz Euskal Esnalea-ko lagunak lenengo egin bear deguna da, alkarren artean euskeraz mintzatu eta irakurgaitu. Alperrik izango da euskerazko liburuak argitaratzea, alperrik izango da batzarretan bilduta euskeraren alde itzaldiak egitea”<sup>49</sup>.

Elkarteak 1908 urtetik kultur aldizkari elebidun bat argitaratu zuen (*Euskal-Esnalea*) eta, besteak beste, euskarazko hitzaldi zikloak antolatu zituen 1918. urtetik aurrera. Elkarteak aldizkariarekin batera desagertu zen 1931. urtean.

Bestalde Euskal Esnalea euskaltzaleen topagunea bazen ere, euskaltzaleen baitako polarizazioagatik, ez zituen guztiak biltzen. Une hartan Hegoaldean, sabindar ideia politiko eta linguistikoek eraginda, sektore abertzale eta euskaltzale batek, batez ere Bizkaikoak, oso jarrera gotorrak zituen hizkuntza kontuetan. Euskal Esnaleak, garaiko euskaltzaleen arteko lehia gainditzea proposatu bazuen ere<sup>50</sup>, ez zuen guztiz lortu. Salbuespen batzuk kenduta, Bizkaiko abertzaleek ez zuten elkartean parte hartu.

---

<sup>48</sup> “Art. 1º Se constituye esta Sociedad con el exclusivo objeto de fomentar entre los vascos el amor al Euskera, procurando que se conserve y difunda el uso de esta lengua y se depure, hasta donde sea posible, de las formas incorrectas y de los vocablos extraños que actualmente la inficionan. / En esta labor de depuración la Sociedad se ajustará á las decisiones de la Academia de la lengua vascongada que ha de fundarse, y en su defecto á la práctica de los escritores más clásicos y de los tratadistas mejor reputados. / No cae dentro de la competencia de la Sociedad el planteamiento y resolución de problemas que la lingüística vasca estudia por lo que en su propaganda de depuración del idioma, se limitará á preferencias entre los hechos existentes, inspirándose siempre en un amplio criterio que mantenga la apetecida armonía entre los socios.” (*Euskal Esnalearen estatutuen laburpena hemen argitaratu zen: “A los amantes del euskera” Euskal-esnalea*, 1 (1908), 4-5)

<sup>49</sup> X. “Euskal Esnalea” *RIEV*, 1 (1907), 325.

<sup>50</sup> “EUSKAL-ESNALEA euskaldunekiko auzitara ez dator. Ez gatoz nasketa billa, ez gatoz ukabilmakilka ñori ekitera; ez gatoz euskaldun ari, edo euzkotar oni, eragozpen ta sarerik jartzera, ez gatoz aurura maseatzeko asmotan. Jakina da Euzkadi-Euskalerraren (bat eta beste berdin zaizkigu) aldeko guziyok ez degula neurri batez neurtuko guziya” (ikus “¿Zertara?” *Euskal-Esnalea*, 1 (1908), 1-2). Adibidea ez da doakoa, abertzaleak Aranaren *Euzkadi* hitzaren erabilera gartsuki defendatzen baitzuten edonon eta edonoiz, eta Campion, Azkue eta beste euskaltzale batzuk *Euskalerrria* hitzaren aldekoak ziren.



Aldiz gipuzkoar jeltzaleek bai. Beste batzuk, berriz, mesfidantza askorekin sartu ziren<sup>51</sup>. Bizkaikoek beraien neurriko erakundeak sortu zituzten abertzaletasuna eta euskara sabindarra ikasteko. Adibidez 1909an *Círculo de Estudios Vascos* inauguratu zen Bilbon<sup>52</sup>, Arana Goiriren “egiak” ikasteko eta zabaltzeko, eta bertan sortu zen urte batzuk beranduago Euzkeltzale Bazkuna.

### *Euzkeltzale Bazkuna*

Euzko Gaztedik, EAJko gazte taldeak, Bilbon *Círculo de Estudios Vascos* (CEV) sortu zuen 1909ko urrian. Jendaurreko ekitaldian *Abetxukok* adierazi zuen, CEV Euzkadiko gazteen formazio intelektualaz arduratuko zela, eta CEVetaz zera adierazi zuen: “espero que aquí están echadas las bases de la Universidad vasca”. Irekiera egunean CEVek 783 bolumenekin hornitutako liburutegia zuen, eta 264 ikasle, irakasgaika antolatuta (abertzaletasuna, Bizkaiko historia, Bizkaiko geografian, eta Arte ederrak). Ikasleen adinari dagokionez, ikasleen % 87a 30 urtetik beherakoa zen<sup>53</sup>. Eskolak gaztelaniaz eman ziren eta euskara aparteko irakasgaia zen. Baina euskarazko eskolak ez ziren CEVen ematen, Bilboko institutuko katedrari konkurrentziarik ez egiteko<sup>54</sup>.

Bilboko gazte abertzale erdaldunetako batzuk Bilboko Institutuko euskara katedran euskara ikasten ari zirela, klasetik kanpo euskaraz mintzatzeko geratzen hasi ziren, eta horrela sortu zuten 1910ean Euzkeltzale Bazkuna. Keperin Jemeinek, Bazkunako kide sortzailetakoa, honela gogoratu zituen sorrera oneak:

---

<sup>51</sup> Bestalde sektore abertzaleak kritika gogorak jaurtiki zituen Zumarragako bileraz. Ez zegoen prest euskarari dagokionez edozer onartzeko. Koldo Eleizalde jasoakoaren arabera: “Ahora bien, sépase también, y sépalo todo el mundo, que tampoco estamos dispuestos á tolerar las *erderacadas*; ni á apoyar el Euzkera-*mordollo*, y que por la pureza de nuestro idiomas estamos dispuestos á romper, en todas partes, infinidad de lanzas, bien convencidos de que esas lanzas, en último análisis, se habrán roto por la causa de la Patria. Sépase igualmente que no tiene para nosotros fuerza ninguna (¡cómo ha de tenerla!) el ejemplo de las *erderacadas* perpetradas, en los dos ó tres últimos siglos, por casi todos los euzkerágrafos...” [etzanak ez dira gureak] (ikus Koldo Eleizalde *Azkain*: “Euzkeraren Pizkundea: segunda asamblea – en Zumarraga” *Aberri*, 1907.04.06)

<sup>52</sup> Ikus “Círculo de estudios vascos” *Aberri*, 1907.09.28.

<sup>53</sup> Inaugurazio ekitaldiaren eta matrikula zein adinaren gaineko datuok *Bizkaitaían* kaleratutako artikulutik atera ditugu (cfr “Inauguración del Círculo de Estudios Vascos” *Bizkaitaía*, 1909.10.16.)

<sup>54</sup> “Tal vez se haya extrañado alguien al no ver entre las clases la de Lengua Vasca. Tuvimos el propósito de crearla y en nuestro proyecto entraba, pero por no restar alumnos á la clase sostenida por la Excelentísima Diputación de Bizcaya, desistimos de implantarla por ahora, estudiando la manera de poder llevar á la práctica más adelante.” (cfr. “Inauguración del Círculo de Estudios Vascos” *Bizkaitaía*, 1909.10.16)

“Gure “Euzkeltzale-Bazkuna” Bilbao’n jayo zan eta bere bazkide gustijak euzkel-ikasliak ixan ziren.

“Instituto Vizcaino” eritxon-Bizkai’ko Aldundijak irasitako Ikastetxe Nagusijan. (...)

Mutillen artian talde bat sortu zan, alkarrekin beti euzkeraz egiten ebenak, naiz-ta billin-boloka eginda be. (...)

Orduban baten bateri euzkeltzale-bazkun bat eratutia otu yakon. Eta danok ontzat artu eben.

Orretarako areto bat biar eben eta euzkeldun-barri arek “Bilbao’ko Euzko-Gastedi”ko bazkidiak ixanik. Batzoki areri eskatu eutsoen eta onek emon. Mai aundi bat, aulki batzuk eta arasa luzia bai-ebazan areto begiko arek. Eta geyagorik baga aizkidiak lanean asi ziran.”<sup>55</sup>

Euzkeltzale Bazkuna euskararen aldeko elkarte abertzalea zen. Funtsean Bilboko Institutuan euskara katedran euskara ikasi zuten ikasleek sortu zuten 1910. urtean Euzko Gaztediren egoitzan. Sorrera uneko albisteak hola zioen:

“En la Juventud Vasca.

Se ha fundado en esta floreciente Sociedad un grupo denominado Euzkeltzale-Bazkuna, cuyo objeto es laborar en pro de nuestra lengua, trabajando por su difusión y cultivo en los órdenes todos de la vida.

El plan de acción á que dicho grupo ha de sujetarse divide en dos principales partes: 1<sup>a</sup>, perfeccionamiento en el euzkera de los adheridos por medio de la práctica; y 2<sup>a</sup>, purificación y extensión de dicha lengua, para cuyo fin cuenta el grupo con el apoyo de las principales eminencias euzkeralógicas que hoy figuran en el Nacionalismo.

El Reglamento por el que ha de regirse este grupo se halla ya en poder de la Directiva de la Juventud, pudiendo inscribirse en la Conserjería, **siendo indispensable hallarse afiliado al Partido, comprometerse á estudiar el euzkera y trabajar por su difusión.**”<sup>56</sup> [beltzak gureak dira]

Euzkeltzale Bazkunak euskara eredu sabindarraren alde egin zuen eta hizkuntza jarrera suharra izan zuen. 1911. urtean *Euzkadi* kultur aldizkari jeltzaleak euskararen batasunaren inguruko galdera irekia planteatu zuenean, jeltzaleen iritziak honetara laburbildu ziren: alde batetik, Sabino Aranaren jarraitzaile ortodoxoenak zeuden, “maisuk” hasitako bidetik eta haren jarraitzaileek garatutakotik (E. Bustintza *Kirikiño* eta Arriandiaga batik bat), euskalki bakoitzaren batasuna nahi zutenak, baina ez hizkuntza osoarena; eta bestetik K. Eleizalde, E. Arantzadi *Kizkitza*, F. Belaustegigoitia bezalako jeltzaleak zeuden estandar bakarra sortzearen aldekoak<sup>57</sup>. Euzkeltzale Bazkunako kideek euskara katedrako irakasle izandako *Kirikiño*ekin bat egiten zuten. Are gehiago, Euzkeltzale Bazkunakoek *Euzko-Deya* hamabostekaria sortu zutenean 1916. urtean, aipatutako euskara eredu erabili zuten.

<sup>55</sup> Ikus Z. Jemeinek, *Belandia* ezizenarekin argitaratutako artikulua *Euzko-Gogoan* (Jemein, 1956: 41)

<sup>56</sup> “Cátedras de Euzkera” *Bizkaitarra*, 1910.09.24.

<sup>57</sup> (Kintana Goiriena, 2006: 648)

### *Euskaltzaleak*

Arrasaten 1927. urtean antolatuta I. Euskara Egunean Euskaltzaleak elkarteak sortu zen<sup>58</sup>. Elkartearen sustatzaile nagusiak *Lizardi* eta *Aitzol* izan ziren. L. Otaegiren arabera, taldeak bi epe, eta aldi berean bi norabide desberdin, izan zituen: lehena 1927tik 1930. urtera arte, eta bigarrena 1930 urtetik 1936ko gerra piztu arte. Lehenengo epean elkarteak *Lizardik* gidatu zuen, eta berak antolatu zuen elkarteak, baita zenbait proiektu abian jarri ere (adb. euskarazko egunkari saioa, Euskal Idazle Batza...)<sup>59</sup>. *Lizardiren* arabera, Euskaltzaleak elkarteko bilerak euskaraz ziren<sup>60</sup>.

Euskaltzaleek 1930. urtean liburuxka bat kaleratu zuten elebitan<sup>61</sup>, elkarteak ezagutarazteko. Bertan aipatzen zen Euskaltzaleak Eusko Ikaskuntzari lotutako elkarteak zela, apolitikoa eta katolikoa<sup>62</sup>. Elkartek mota guztietako euskaltzaleei dei egiten zien, gurasoei, idazle eta emakumei, denek euskararen aldeko ekintza herritarrean parte hartzeko. Soziologikoki, esan liteke, Euskal Esnalea taldearen lekua bete zuela (Gipuzkoan zentratua, kide jeltzale asko baina ez zuzenki alderdikoia...), baina belaunaldi gazteago baten eskutik.

Euskaltzaleak elkartek bi egiteko nagusi izan zituen: alde batetik kultur ekitaldiak antolatzea, eta beste alde batetik argitalpengintza. Argitalpengintza arloan arrakasta eta porrotak ezagutu zituen. Liburu argitalpena ondo joan zen, baita aldizkari proiektua ere, baina euskarazko egunkaria kaleratzeko ekimenak ez zuten aurrera egin<sup>63</sup>.

---

<sup>58</sup> Lourdes Otaegiren arabera 1927an sortu zen (Otaegi, 1996: 499) baina Jesus Mari Zalakainen arabera, Euskaltzaleak taldea 1926. urtean sortu zen Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan (Zalakain, 1993: 169).

<sup>59</sup> 1927-1930. urteen artean *Lizardik* Euskaltzaleak elkartearen baitan martxan jarritako egitasmoen berri zehatza ezagutzeko, jo *Lizardiren* 1930ko Zumaian emandako hitzaldiaren testura (Lizardi, 1995: 43-50).

<sup>60</sup> (Lizardi, 1995: 66)

<sup>61</sup> (Euskeltzaleak, 1930)

<sup>62</sup> “En toda su actuación la Acción Popular Vasca ha de ajustarse a las normas de la moral cristiana y a la más fiel obsevancia [sic] de la ortodoxia católica” (Euskeltzaleak, 1930: 7). Euskarazko bertsioan ez da horrelakorik aipatzen, agian hitzun komunitate bakoitzari argitu beharrekoak desberdinak zirelako: “Eginbear aundika, langille asko eskatzen ditu. Norberez ibiltzeak ez du geienean ezertarako balio izaten. Indar eta lan guziak, elkañekin lokairen bat, zer-ikusiren bat bear dute.” (Euskeltzaleak, 1930: 6)

<sup>63</sup> *Lizardik* euskarazko egunkaria kaleratzeko saiakera bat egin zuen, kanpaina oso bat martxan jarritz Euskaltzaleak elkartearen plataforma baliatuz. *Argiaren* babesean, izenburu gabeko euskarazko egunkariaren 0. zenbakia kaleratu zuen harpidedunak lortzeko. *Lizardiren* kalkuluen arabera 3.000 harpidedun behar ziren proiektuak aurrera egin zezan. Nonbait proiektuak ez zuten irakurlegoaren konplizetaterik izan, ezta erakundeena ere, eta bertan behera geratu zen. Gerraurrean euskarazko egunkari kaleratzeko *Lizardiren* saiakera hau J. M. Zalakainek aztertu du (Zalakain, 1993: 165-185) eta euskarazko egunkariaren gainean *Lizardik* idatzitako lanak Lourdes Otaegik bildu ditu (Lizardi, 1995)

Bestalde, Euskaltzaleek, *Aitzol* buru zela<sup>64</sup>, 1931. urtean *Orixeri* enkargatu zion euskal poema nazionala prestatzea<sup>65</sup>. *Orixek* enkargua 1935. urtean bukatu zuen, 14.000 bertsotako *Euskaldunak* poema taxutuz. *Orixeren* lana inprimatzen zegoela gerra piztu zen, eta gerraostera arte ezin izan zen kaleratu. Zarautzeko Itxaropenak argitaldaria 1950. urtean inprimatu zuen.

#### *Hiru elkarten arteko konparaketa*

Aipatutako hiru elkarteak, Euskal Esnalea, Euzkeltzale Bazkuna eta Euskaltzaleak abertzaletasunetik hurbil kokatuta zeuden. Izatez, batzuk abertzale aitortuak ziren (bereziki Euzkeltzale Bazkuna). Euskararen aldeko kultur elkarteok, euskarazko zientzia eta kulturaren esparruan ez zuten kultur produkzio jaso gehiegirik ekoitzi. Are gehiago, Euskaltzaleak taldearen ingurumarian ibilitako kide batzuk gerraostean, A. M. Labaien eta *Orixe* hain zuzen ere, euskararen batasunaren edota zientzia arloko goi erabileraren kontra azaldu ziren. P. Iztuetak kalkulatu duenez, Euskaltzaleak taldeko *Aitzolek*, euskaraz bere produkzioaren % 8,84a soilik ekoitzi zuen<sup>66</sup>. Hau da, Euskaltzaleak taldeko burua izandakoak, euskara oso gutxi erabili zuen erregistro idatzian, gaztelania hobetsiz. Dena den, ikus ditzagun, zeintzuk izan ziren aipatutako hiru elkarten kultur proiektu nagusiak. Funtsean hiru izan ziren: aldizkarien argitalpena, liburu argitalpena eta ekitaldi publikoak.

- Aldizkarien argitalpena. Hirurek euskara zein gaztelania onartzen zituzten aldizkariak argitaratu zituzten. Soilik Euzkeltzale Bazkuna ausartu zen hasieran, euskara hutezko aldizkaria kaleratzera: *Euzko-Deya* (1916-1923). Aldizkaria Primo de Riveraren diktadurak itxi zuen. Ondoren, Euzkeltzale Bazkunak *Euzkerea* (1929-1936) elebiduna kaleratu zuen 1936ko gerrak eten zuena. *Euzko Deyan* normalean euskaraz artikulua laburrak eta maila apalekoak argitaratu ziren. Hala ere, salbuespenik bada, bertan Koldo Eleizalde 1916. urtean dibulgazio zientifikoko artikulua argitaratu

---

<sup>64</sup> L. Otaegiren arabera, *Aitzolek* uste zuen literaturak herritar kontzientzia nazionala piztu zezakela, Finlandian “Kalebala” obrarekin gertatu moduan (Otaegi, 1996: 503)

<sup>65</sup> (Iztueta, 1987)

<sup>66</sup> (Iztueta, 1993: 127)

zituelako: “Jakín-gayak I: egutegia”<sup>67</sup>, eta hurrengo urtean ilargiaz<sup>68</sup> eta kometen<sup>69</sup> gainean. Dena den K. Eleizalderen artikuluoak *Euzko Deyan* argitaratutako lanen hizkuntza ereduaren, gaiaren eta trataeraren aldetik salbuespenak dira.

Euskal Esnaleak 1908. urtetik aurrera izen bereko aldizkaria kaleratu zuen. Aldizkariak bi aro izan zituen: 1908-1910 urteen artean Euskal Esnalearen organoa, eta 1911. urtetik aurrerakoa *Euskalerriaren alde* aldizkariaren eranskina zena. 1931. urtean Gregorio Muxika, aldizkarietako zuzendaria, hil zenean, aldizkariok patu bera jasan zuten.

1933. urtean, *Aitzol* zuzendari zela, Euskaltzaleak elkarteak, *Euskal Erria* (1880-1918) eta *Euskalerriaren alde* (1911-1931) aldizkariaren oinordeko gisa, *Yakintza* aldizkaria kaleratu zuen Donostian. 36ko Gerrarekin aldizkaria bertan behera geratu zen, eta gerraostean ez zen berriro piztu. Ofizialki filiazio politikorik ez zuen arren<sup>70</sup>, aldizkaria euskaltzalea eta abertzalea zen eta EAJrengandik hurbil zegoen, bai euskararen aldetik, bai idazleen aldetik ere. *Yakintzan* Euskal Herriarekin zer ikusia zuten gaiak landu ziren (Euskal Herriko historia, euskal etnografia eta abar<sup>71</sup>). Hala ere, aldizkariaren gehiena gaztelaniazko idazlanek osatu zuten, euskarazko testuak salbuespen izanik.

- Liburu argitalpena: Hiru elkartearen liburu produkzioa apala izan zen. Euzkeltzale Bazkunak euskaraz, euskal hizkuntza ikasteko liburuak eta umeentzako testuak atera zituen. Euskaltzaleak elkarteak berriz, obra batzuk bere kabuz publikatu zituen, baten bat I. Lopez-Mendizabalen inprentan,

---

<sup>67</sup> K. Eleizalde “Jakín-gayak I: egutegia” *Euzko Deya*, 1916.06.16.

<sup>68</sup> K. Eleizalde “Ortze-gayak: illargia” *Euzko Deya*, 1917.02.01.

<sup>69</sup> K. Eleizalde “Ortze-gayak: allizafak” *Euzko Deya*, 1917.03.16.

<sup>70</sup> Aldizkariaren aurkezpen testuan zera esaten zen: “YAKINTZA ez da, ezin diteke izan, alderdi aldizkingia. Gure yakinte asmoaren garbitasuna loitu ta orbantzea litzake bide ortatik jotzea” (Jakintza, 1977: 10)

<sup>71</sup> Aldizkaria honako sail hauetan antolatuta zegoen: “Abenda gogoari zuzen ta bereziki dagozkion adimen-agerpenak bakafik autatzen ditu, bederatzi sail oetan bilbanaturik: 1<sup>o</sup> go. Elertia, 2g. Antzertia, 3g. Irazkintza, 4g. Edestia, 5g. Legegintza, 6g. Abendelesti ta Efi-yakintza, 7g. Gizartiztia, 8g. Ertia, ta 9g. Eresertia” (Jakintza, 1977: 10)

baina asko Bernardo Estornesen Beñat Idaztiak argitaldarian plazaratu ziren. Azken bide horretatik ateratako liburuak “Euskaltzaleak’en ardurapean” oharra eramane zuten. Horrela publikatu ziren euskaraz jakintza dibulgaziozko hiru liburu: J. M. Barandiaranen lan ezagunaren itzulpena, *Euskaleñi’ko leen-gizona* (1934), A. Arzelusek euskaraturiko B. Estornesen *Euskal edestia* (1935) eta *Elerti-literatura I* (1935).

Euskal Esnalea izan zen esparru honetan ekarpenik handiena egin zuena. Izan ere, Donostian elkarteak antolatutako zientzia, kultura eta gizarte arloko maila jasoko euskarazko hitzaldiak argitaratutako zituen. Hitzaldiak bi modutara publikatu ziren: alde batetik, liburuxka solteetan, eta bestetik, testu bilduma liburuetan, Euskal-Esnaleak *salla* deitzen zuena. Guztira 28 hitzaldiren euskarazko testuak kaleratu ziren<sup>72</sup>. Beraz, gerraurreko euskarazko prosa zientifikoaren bildumarik zabalena eta anitzena osatu zuen: alde batetik 1.000 orrialdetik gora inprimatu zirelako, eta bestalde jakintzar- arlo askori egin zitzaizolako tartea (Osasuna, Literatura, Historia, Musika, Mitologia, Teknologia, Soziologia...) nahiz eta ordura arte halako gaiak euskaraz landu gabe zeuden.

- Ekitaldien antolaketa: Euzkeltzale Bazkuna kenduta, beste elkarte biek, hitzaldiak eta euskararen aldeko ekitaldiak antolatu zituzten. Aipatu dugunez, Euskal Esnaleak 1918-1928. urteen artean Donostiako Novedades antzokian jai egunez zientzia, kultura eta gizarte arloko maila jasoko hitzaldiak eskaini zituen. Aparteko kultur gertakari honi hurrengo atal osoa dedikatu diogu. Euskaltzaleak elkarteari dagokionez, euskararen egunak<sup>73</sup>, euskal antzerkiaren eguna, euskal poesiaren egunak<sup>74</sup> eta antzeko ekitaldiak antolatu zituen.

<sup>72</sup> Azken liburua (1930koan) ez da osorik gordetzen eta agian beste testuren batek osatu zuen VI. saila.

<sup>73</sup> Adb. 1928an Zumarragan, 1929an Andoainean eta 1930ean Bergaran.

<sup>74</sup> Adb. 1930an Errenterian, 1931an Tolosan, 1932an Hernanin, 1933an Urretxun, eta 1934an Zarautzen.

Laburbilduz, gerraurrean hiru elkarte aipagarri ari ziren Hegoaldean euskara gaitzen zein prestatzen, edota erabilera zabaltzeko ekimenak abian jartzen. Beraz euskarazko zientzia eta ezagutzaren esparruan kultur produkzio jasorik egotekotan, beraiek egina izan behar zuen. Baina, ikusi dugunez, kultur elkarte euskaltzaleak, oro har euskarazko kultur proiektu nahiko mugatuak gauzatu zituzten.

Gerraurreko goi-mailako elkarte eta proiektuek, hala nola, Eusko Ikaskuntzak edo RIEV aldizkariak, hizkuntzaren lanketa, prestaketa eta erabileraren gaineko kezka urria zutenez, bai ostera haren ikerketaren gainekoa, erdaraz funtzionatu zuten.

#### 4.1.1. Euskal-Esnalearen hitzaldi zikloak

Euskal-Esnalea 1918. urtetik aurrera Donostian hitzaldiak antolatzen hasi zen formatu jakin batekin: ordu betekoak, Novedades antzokian, jai egunetan eta zientzia, kultura eta gizarte arloko gaiak eta maila jasoan landuz. 1920. urtetik aurrera hitzaldietako testuak bildu eta argitara ematen hasi zen. Euskarazko hitzaldi kaletarrak izan ziren. Hizlariak argazkiez, irudiez eta bestelako materialez (adb. musikaz) baliatzen ziren berbalditan. Orain arte, zoritxarrez, hitzaldiok ez dute ikerkuntza lan sistematikorik merezi izan. Honen gainean sakonen aritu dena, Koldo Izagirre idazlea izan da, eta bere tesi nagusia zera da:

“Euskara prestijiatzeko asmoz publiko urbanora heldu nahirik, hitzaldiak antolatzea erabaki zuen Euskal-Esnaleak hainbat gairi buruz (...) Urrats garrantzitsua eman da izpirituan. Euskara ez da jadanik XX. mendearen aurka gorde behar den pitxia; modari eta tresneriari zabaldu behar du hizkuntzak, garatu behar du, txertatu egin behar du modernitatean”<sup>75</sup>.

K. Izagirrek bereziki bi hitzaldi aztertu ditu: I. M. Etxaide eta J. M. Mokoroarenak<sup>76</sup>. Hala ere, Euskal-Esnaleak 30 hitzaldi baino gehiago antolatu zituen, nahiz eta 28rekin bilduma osatu zuen. Testu bildumatik kanpo geratu ziren, esaterako

---

<sup>75</sup> (Izagirre, 1998: 169-170)

<sup>76</sup> K. Izagirrek I. M. Etxaideri egozten dio fonografoari buruzko hitzaldia, baina fonografoari buruz F. Muro mintzatu zen, beraz *Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998* liburuan jasotako aipua ez dagokio I. M. Etxaideri (Izagirre, 1998: 169). Hala ere, K. Izagirrek F. Muroren hitzaldiaren testutik ateratako ondorioa guztiz zuzena da.

Gotzon Bidaurrezagaren, Maria Etxaberen, Maddi Ariztiaren<sup>77</sup> edota Ixaka Lopez-Mendizabalen hitzaldiak (nahiz bildumatik kanpo, gero, bai argitaratu ziren). I. Lopez-Mendizabal adibidez, erleei buruz aritu zen (*Erleak. Beren bizitza eta oiturak*), eta hitzaldiaren argitalpenaren sarreran Euskal-Esnaleako hitzaldiak, bere irudiko, zer ziren aipatzen zuen:

“Beti izan da oitura Euskal-Esnalea ko itzaldietan al ziran gai geienak jotzea. Eta onela, batzuek alde batetik eta besteak bestetik, **guzien artean gerkeraz Enkiklopaideia deritzaiona egiten ari gera, agertuaz** gezuferko jakintsu batzuek bestera uste izanafen, **gure euskera maiteak edozer gai erabili ta azaldu dezakela.**”<sup>78</sup> [beltzak gureak dira]

Euskal-Esnaleak dibulgazioa jorratu zuen, eta horretarako bereziki Giza Zientzien arloko gaiak aukeratu zituen. Zehazki Giza Zientzietan, Historia eta Literatur Kritika landu ziren (14 hitzaldi), eta ondoren Osasun Gaiak (4), Musika (2), Teknologia (2), Gizarte Zientziak (5), eta azkenik, Zientzia Aplikatuak (1).

Hizlarietarako dagokionez, aipatu behar da, hizlariak euskaldun ikasiak eta euskaltzaleak zirela, euskal elite kulturalaren parte. Salbuespenak salbuespen, denak gizonak (soilik 3 emakume) eta Hegoaldekoak ziren (Iparraldetik soilik bi). Euskal Esnalearen bildumako 28 hitzaldien egileetara mugatuz, guztira, 23 hizlari izan ziren<sup>79</sup>. Hurrengo taulan biltzen dira haien ezaugarriak:

<sup>77</sup> M. Atxagaren emakume idazleen gaineko lanean honako andre hauek hitzaldia eman zutela jasotzen da: “Euskal-Esnalea aldizkariak antolatu zituen hitzaldietan, berriz, Maria Etxabe, Maddi Ariztia eta Julia Fernandez Zabaleta bakarrik azaltzen dira. Hain zuzen, Donostiako Novedades antzokian mintzatu zen Maria Etxabe 1930eko apirilaren 27an. "Zorionaren iturria gizonak non du?" argitu nahi izan zuen. "Emakumien Etorkizuna" aztertu zuen 1926an Julia Fernandez Zabaletak. Maddi Ariztiak, berriz, "Euskal Etxe Zaharrak", 1933an.” (Atxaga, 1997: 4). Atxagak txarto dioten arren, aldizkariak ez baitzuen hitzaldiok antolatu, izen bereko elkarteak baizik, datua interesgarria da.

<sup>78</sup> (Lopez-Mendizabal, 1933: 3-4)

<sup>79</sup> Hizlari batzuk birritan aritu ziren (K. Etxegarai, J. Zinkunegi, J. Olaizola eta I. Artetxe). Bestalde, luzeegiak ziren hiru hitzaldi bi saiotan eman ziren, B. Garitaonandiarena Usandizaga musikariaren gainean, J. Olaizolarena Bizente Goikoetxea abade organujoleari buruzkoa, eta P. Larrañagarenak Arrateko Amaren gainekoa.



Hizlaria <sup>80</sup>	Ideologia	Eliztarra	Euskaltzaindia
Aita Donostia (1886-1956)	abertzale	√	euskaltz. oso
Anabitarte, Augustin (1861-1941)	abertzalea		euskaltz. urgazle
Artetxe, Iñaki (?-?)	abertzalea		-
Azkue, Resurreccion M <sup>a</sup> (1864-1951)	abertzalea	√	euskaltzainburua
Barandiaran, Jose Migel (1889-1991)	Integrista/abertzalea	√	euskaltz. oso
Etxaide, Ignazio Maria (1884-1962)	integrista		euskaltzainburua
Etxegarai, Bonifazio (1878-1956)	foruzale katolikoa		euskaltz. oso
Etxegarai, Karmelo (1865-1925)	foruzale katolikoa		euskaltz. oso
Fernandez, Julia (1895 <sup>81</sup> -1961)	abertzalea		-
Garitaonandia, Bitor (1876-1929)	abertzalea	√	euskaltz. urgazle
Gerra, Juan Karlos (1860-1941)	foruzale katolikoa?		euskaltz. oso
Larrañaga, Polikarpo (1883-1956)	abertzalea	√	euskaltz. ohorezko
Larunbe, Rafael (?-1925)	?		-
Leizaola, Jesus M <sup>a</sup> (1869-1989)	abertzalea		euskaltz. ohorezko
Lhande, Pierre (1877-1957)	abertzalea	√	euskaltz. oso
Mokoroa, Justo M <sup>a</sup> (1901-1990)	abertzalea	√	euskaltz. ohorezko
Muro, F. (?-?)	?		-
Olaizola, Jose (1883-1969)	abertzalea		euskaltz. urgazle
Ormaetxea, Nicolas Orixé (1888-1961)	abertzalea	√	euskaltz. oso
Pagoaga, A. (?-?)	?		-
Urreta, Mikel (1881-1961)	abertzalea		-
Zinkunegi, Joseba (1886-1964)	abertzalea		euskaltz. urgazle

**I.1. Taula:** Euskal-Esnalean hitzaldia eman eta testua argitaratu zuten egileen zerrenda eta ezaugarri nagusiak. Iturria: elaborazio propioa.

Taulan ikustenenez, hizlari gehienak abertzaleak ziren, gure datuen arabera, 16 (23tik). Horietatik batzuk alderdi jeltzaleko kide ziren eta beste batzuk abertzaleak izanik ez zeuden partidu dinamikan sartuta (adb. R. M. Azkue<sup>82</sup>, J. M. Barandiaran edo J. M. Mokoroa<sup>83</sup>). Alderdiko kide ezagunak zirenak, alderdian kargua edota kargu publikoren bat izan zutenak honako hauek izan ziren: M. Urreta<sup>84</sup>, J. Fernandez<sup>85</sup>, J. Olaizola<sup>86</sup>, Joseba Zinkunegi<sup>87</sup> eta J. M. Leizaola<sup>88</sup>. Polikarpo Larrañaga abertzale

<sup>80</sup> Egileen izen deiturak, posible izan den guztietan ABKn finkatutako autoritatearen arabera agertzen dira, bestela hitzaldiko dokumentuan agertzen zena jaso dugu.

<sup>81</sup> J. Fernandez jaiotza urtea ABKren arabera 1895. urtea da, eta L. Urubururen arabera 1898 (Uruburu, 1997: 11)

<sup>82</sup> (Kintana Goiriena, 2006 eta 2009)

<sup>83</sup> J. M. Mokoroa ezerean gainera katolikoa zen, abertzaletasuna begi onez ikusten zuen baina ez zen politikazalea eta inoiz ez zen alderdian aritu (Kintana Urriaga, 2000)

<sup>84</sup> Mikel Urreta 1913an Donostiako Udaleko zinegotzi hautatu zuten, 1915an Gipuzkoako diputatu izan zen, eta Gipuzkoa Buru Batzarreko buru ere izan zen (Azurmendi Zabaleta, 2005: 2)

<sup>85</sup> Julia Fernandez Zabaleta 1930. urte inguruan sortu zen Nafarroako Emakume Abertzale Batzako (aurrerantzean EAB) sortzailea izan zen eta Iruñeko EABren lehen lehendakaria (Uruburu, 1997: 11)

<sup>86</sup> Jose Olaizola musika konpositorea zen, baina Donostiako udaleko zinegotzia izan zen zenbait aldiz (Arzelus, 2005: 4)

katolikoa zen, baina ez zen zuzen-zuzenean EAJn aritu, sindikalgintzara dedikatu eta ELAren bultzatzailetako bat izan zen. I. Artetxe abertzalea zela susmatzen dugu, baina ikerketa sakonagoak egin beharko lirateke.

Beste 7 hizlariren kasuan, denetarik dago: I. M. Etxaide integrista, donostiar integrismoaren liderra; Etxegaraitarrak euskaltzale-foruzaleak, baina ez abertzaleak; eta ildo berdinean J. K. Gerra koka daiteke<sup>89</sup>. A. Pagoagoa eta F. Murotaz ez dakigu ezer<sup>90</sup>.

Hizlarietatik 9 eliztarrak ziren –batzuk abade eta beste batzuk kongregazioren bateko kide, esaterako, jesuita edota kaputxino–. Eliztar guztiak gutxienez eliz-ikasketak zituzten. Askok musika ikasketak ere eginda zituzten (esaterako R. M. Azkuek, Aita Donostiak eta B. Garitaonandiak). Laikoek aldiz, goi mailako estudioak zituzten: A. Anabitartek merkataritza ikasketak zituen eta banketxean lan egiten zuen. Bestalde, gutxienez bi ingeniari zeuden M. Urreta<sup>91</sup> eta I. M. Etxaide<sup>92</sup>, eta pentsatzekoa da F. Muro ere ingeniaria zela, bere hitzaldia fonografoari buruzkoa izan baitzen. Medikuntza ikasketak eginda zituztenak hiru baziren (I. Artetxe, R. Larunbe eta J. Zinkunegi), zuzenbide ikasketak egindakoak B. Etxegarai<sup>93</sup> eta J. M. Leizaola ziren. Julia Fernandez-ek bere aldetik maistra ikasketak zituen eta, Jose Olaizolak musikakoak<sup>94</sup>.

<sup>87</sup> Joseba Zinkunegi Gipuzkoako lehen abertzaleetako bat izan zen, 1906an L. Eleizalde eta E. Arantzadirekin batera kartzelan egondakoa. 1921ean EAJ-Aberriko GBB zuzendaritzan aritu zen (Aizpuru, 2000: 316-318)

<sup>88</sup> Jesus M<sup>a</sup> Leizaola erbesteko lehendakaria izan zen 1960-1979 urteen artean, Jose Antonio Agirre hil ostean.

<sup>89</sup> Dena den J. K. Gerraren bizitza eta pentsamenduaz ez dagoenez ikerketarik, I.1. taulako Gerraren foruzaleetasuna katolikoa ustezkoa da.

<sup>90</sup> Bereziki lau hizlari dira guretzat guztiz ezezagunak: I. Artetxe, R. Larunbe, F. Muro eta A. Pagoaga. Joseba Zinkunegitaz zertxobait gehiago dakigun arren, oro har mediku euskaldunak (Artetxe, Larunbe eta Zinkunegi) erabat inkognitok dira.

<sup>91</sup> M. Urretak Deustun egin zituen ingeniarietza ikasketak.

<sup>92</sup> Bilboko Ingeniaritza Eskolan ikasi zuen bost urtez (Montejo, 2003: 32)

<sup>93</sup> Karmelo Etxegaraireren ikasketak famili gorabeherengatik etenda geratu ziren 18 urte zituela, eta orduan hasi zen Diputazioaren bibliotekan lanean (1884), eta lanbidearekin batera formatu zen artxibozaintzan eta historian. 1896an Hego Euskal Herriko hiru diputazioek probintzietako kronista izendatu zuten.

<sup>94</sup> “Gipuzkoako Foru Aldundiak beka edo diru-laguntza ere zion, Bellas Artes-eko Musika Akademian Donostian lau urtez ikasteko” (Arzelus, 2005: 11)

Beste datu nabarmen bat da Euskal Esnaleko 23 hizlarietatik 16k Euskaltzaindiarekin harreman zuzen-zuzena zutela (euskaltzain oso, urgazle edo ohorezko bezala). Hitzaldia ematen zutenetako batzuk momentu hartan bertan atxikita zeuden Euskaltzaindiari, eta beste batzuk aldiz beranduago atxiki ziren<sup>95</sup>. Euskaltzaindiarekin zeharreko harremana izan zuenik ere izan zen. Esate baterako M. Urreta, dakigula Euskaltzaindian ez zuen aipatutako izendapenik jaso, baina 1918ko Oñatiko Eusko Ikaskuntzen Kongresuan aritu zen Hizkuntza Sailean Euskal Akademia sortzeko bileretan<sup>96</sup>.

Beraz, euskararen beraren prestatze eta egokitzapen lanetan (Euskaltzaindian) murgilduta dauden ia berberak dira euskarazko prosa zientifikoaren aitzineko lanak (hitzaldi eta argitalpenak) prestatu zituztenak Hegoaldean. Hain zuzen ere, hizkuntzaren prestaketa lanak eta hizkuntza horren erregistro jasora eramateko saioak, lotuta dauden prozesuak direlako. Hau da, erregistro jaso sortzeko hizkuntzaren lanketa ezinbestekoa da.

Euskal Esnalearen hitzaldi zikloa beraz, gerraurrean euskaraz goi mailan egiten zenaren agerpen nabarmenenetakoa dugu, bere muga eta bertuteekin. Zikloan parte hartutako hizlariak ikusita, garaiko goi mailako euskal kulturgileen ezaugarri nagusiak agerian geratzen dira: gehienbat lanbide liberaletako abertzaleak, elizgizonen presentzia ugariarekin, eta gehienak, aldez edo moldez, Euskaltzaindiari lotuta.

Ohar egitekoa da ere Euskal Esnaleak ahalbidetzen zuela euskaldunentzako kultur plaza bat egituratzea, egile eta publiko (entzule/irakurle) euskaldunarentzat. Lehenik, hitzaldia ematen/entzuten zen euskaraz eta ondoren hitzaldi hori artikulatu zein liburuxka formatuan idazten/irakurtzen zen. Euskal Esnaleak antolatutako kultur plazak,

---

<sup>95</sup> Laburtzearren I.1. Taulan denak batera eman ditugu.

<sup>96</sup> Garaiko prentsa horren lekuko da: “La coincidencia y la armonía de que antes os hablo, bien claras se han visto hoy, por ejemplo, en la sección de Lengua, donde ayer parecía que apuntaban discrepancias de criterio acerca de lo que deberá ser la futura Academia de la Lengua vasca, quedando totalmente desvanecidos los fantasmas de fundamentales diferencias. / Bastaron unas palabras del diputado guipuzcoano señor Urreta para que todo quedase aclarado y se renovara el fervoso entusiasmo de todos para dar cima á la obra de creación de la Academia” (Cfr. “El proyecto de la Academia de la Lengua Vasca” *La Gaceta del Norte*, 1918.09.06)

hainbat aditu euskaldun, normalean gaztelaniaz lan egiten zutenak, euskaraz sortzera eramane zituen. Are gehiago, egile batzuen kasuan, Euskal Esnaleko lana izan zen goi mailan gerraurrean euskaraz idatzi zuten gauza bakarra edo bakarrenetakoa (adb. J. M. Barandiaran, Aita Donostia eta abar). Beraz, hitzaldi zikloa egon ezean, egile batzuk ez zuten euskaraz maila jasoko lanik ekoitziko.

Bestalde, aipatu behar da euskaraz prestatutako lanak bakarrak izan arren, hizlarien obraren baitan erabateko zentralitatea izan zutela. Hala, euskarazko hitzaldiak Aita Donostiaren erdarazko lanekin zer ikusirik ez duela pentsa liteke, hau da salbuespen produkzioa dela, baina ez da horrela. Aitzitik euskarazko berbaldiak Aita Donostiaren obraren baitan zentralitate osoa duela ikusi dugu. Hain zuzen ere, euskarazko 1919. urteko hitzaldiaren testua (*Euskalduna, abeslari*), bi urte beranduago Gasteizen erdaraz (*Cómo canta el vasco*) emandako hitzaldiaren testuarekin alderatuz gero<sup>97</sup>, argi ikusten da gaztelaniazkoak euskarazkotik hartzen duela: batzuetan itzulpen zuzena da, eta besteetan itzulpen libre eta osatua. Gaztelaniazkoa ez da guztiz euskarazkoaren morroi, bien artean aldeak badira, Aita Donostiak euskarazko testuaren pasarte batzuk ez zituen erdaraz eman, baina testu bietan agertzen diren abestiak berdin-berdinak dira, salbuespenen bat kenduta<sup>98</sup>. Honek erakusten du Euskal Esnaleko hitzaldien maila ez zela inondik ere ezdeusa izan.

Euskal Esnalean hitzaldiak eman zituzten gehien gehienak XX. mendeko 50 eta 60ko hamarkadan hil ziren, J. M. Barandiaran, J. M. Leizaola eta J. M. Mokoroa izan ezik, horiek 90ko hamarkadaren hasierara arte –edo pixka bat lehentxeagora arte– bizi izan zirelako. Beraz, hizlari gehienak gerraurrean egin zuten euskal kulturgintzan emaririk handiena, gerraostean diktaturak euskal kulturgintza debekatu baitzuen. Gerraostean bizirik eta euskal kulturgintzan lan egiteko moduan zeudenak, gutxi izan ziren, eta batzuk *Euzko Gogora* hurbilduko ziren, *Orix*e eta B. Larrakoetxea esaterako.

<sup>97</sup> Gasteizeko hitzaldiaren testua Aita Frantsizko Madinak argitaratu zuen Buenos Airesen (Madina, 1943: 11-37)

<sup>98</sup> Euskarazko testuak gaztelaniazko baino bizpahiru abesti gehiago ditu, baina bada abesti bat euskarazkoak ez dakarrena “Noe, lege zaharreko/ gizon famatuia,...” Alderatu euskarazkoa (Donostia, 1923: 10) eta gaztelaniazkoa (Madina, 1943: 14)

## **4.2. Argitalpenak: jakintzaren dibulgazio idatzia**

Puntu honetan jatorriz euskaraz prestatutako obra zein itzulpeni arreta eskainiko diegu. Ikusi dugunez, abertzaletasunarekin euskarazko produkzio berri bati hasiera eman zitzaion, non hizkuntza bera lehenesten zen testuaren ulergarritasun edo landutako gaiaren gainetik. Desoreka bereziki larria zen sabindar testuetan. Esate baterako XIX. mende bukaera eta XX. mendearen lehen hamarkadetan Osasun eta Medikuntza arloan euskaraz bi motatako lanak argitaratu ziren helburu eta hizkuntza moldearen arabera: batetik, euskal hiztunari zuzendutako lan praktikoak Osasun arloko aholkuekin, eta bestetik, Medikuntza euskaraz lantzeko saioak. Bi lan mota horiek hurrengo puntu batean aztertu ditugu. Horrez gain, beste gai batzuk ere landu ditugu, hala nola, prentsa eta aldizkarietako dibulgazio zientifikoa, literatura unibertsaleko obren euskaratzea, eta eskola mailako liburuetan antzematen den Matematika, Fisika eta bestelako jakintza-arloak euskaraz abiatzeko saioa.

### **4.2.1. Dibulgazio zientifikoa egunkari eta aldizkarietan**

Gerraurrean egunkari zein aldizkarietan euskaraz zientzia eta kultura gai jasoen gainean zenbait lan argitaratu ziren. Gai honek, berez, beste tesi baterako emango zukeen. Guk egindako bilaketa xumean, ikusi ahal izan dugu euskaraz Hegoaldean Fisikaz, Metafisikaz edota Natur Zientziei buruz aritu zirenak abertzale euskaltzaleak izan zirela, maiz sabindarrak. Egile horiengan, euskara zen kezka. Ez ziren kontziente egiten zuten hautu linguistikoak hiztunari (kasu honetan irakurle euskaldunari) ahalegin handiegia eskatzen ziola. Hau da, hiztunak gai horietan alfabetatzea edota testuaren ulergarritasuna bigarren mailan utzi zituzten. Euskaltzaleen asmo nagusia zen, euskara edozein gaiari buruz aritzeko balio zuela erakustea eta horretarako prestatzea. Horregatik dibulgazio zientifikoko sabindarren zenbait testu ez ziren irakurtzeko prestatu eta ariketa linguistikotzat har litezke (gai zientifiko edo tekniko bat euskaraz jartzeko saiotzat hain zuzen ere). Adibide gisa jar ditzakegu Agustin Anabitartek A. Einsteinari buruz *Euzkadi* egunkarian argitaratutako hiru testuak, berehala aztertuko ditugunak.

Gerraurreko dibulgazio zientifikoko testuen beste ezaugarri komun bat da testuon egileak normalean ez zirela adituak, eta artikuluak ez zituztela prestatu gai horietako aditu euskaldunentzat. Kontuan izan, adibidez fisikari euskaldunen kopurua Euskal Herrian 1936ko gerra baino lehen, hutsala izango zela. Euskal hiztunen populazioaren gehiengoa nekazariak, arrantzaleak eta eskulangileak osatzen zuten. Euskaldun horiek, alfabetatuak izanik ere, oinarriko ikasketak zituzten (eskola mailakoak alegia). Beraz zientziari buruz euskaraz idazten zutenak, oro har, ez ziren adituak, eta ez zuten irakurleko errealik. Hortik ere, halako testuen ariketa linguistiko izaera, hau da, euskara halako gaiak azaltzeko gai zela erakustea, nahiz eta gaiotan aditu euskaldunik ez izan.

Dena dela, izan zen zientziari buruz euskaldun errealei, bereziki nekazariak zuzendutako lanik. Kasu horretan euskara molde berriak erabili arren, euskara ez zen hiperpurista izaten, eta gaiak modu ahalik eta sinpleenean tratatzen ziren, gutxi eskolatutako irakurleak ulertzeko moduan. Hein handiz mota horretako zientzia dibulgazioa lehenago azaldu den planteamendu pragmatikoaren baitan sar zitekeen (*euskara tresna*), baina ez dugu atal hartan sartu, zientziaren dibulgazioak helburu praktikoa gainditzen zuelako eta bestelako edukiak bazituelako, bereziki hizkuntzaren arlokoak. Horrela gertatu zen behintzat, R. M. Azkueren *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan, Baionako *Eskualdunan* eta Donostiako *Argian*. Aipatutako aldizkari bakoitza euskara eredu jakin bana zabaltzeko plataformak izan ziren. Alde horretatik nekazariak zuzendutako zientzi dibulgaziozko lanak, *euskara tresna* eta *euskara helburu* zuten planteamenduen erdibidean kokatuko lirateke.

Ondoko lerroetan aipatutako bi joerak adibideekin azalduko ditugu, hau da, nekazarietarako zientzia dibulgazioaren adibideak ikusiko ditugu lehenik, eta saio linguistiko hutsa izan zen A. Einsteinini buruzko testua ondoren.

#### 4.2.1.1. Zientzia dibulgazioa nekazarientzat

Populazio euskaldun gutxi eskolatuarentzat gerraurrean gai tekniko edo zientifikotzat har daitezkeen zenbait artikulua argitaratu ziren egunkari eta aldizkarietan. Esan moduan testu ulergarri eta errazak ziren, nekazari euskaldunek segitzeko modukoak, ez saiakera linguistiko nabarmenak. Halako artikulua gehienak praktikoak baziren ere, noizean behin laborantza gaietatik haratago zihoazen auziak jorrotzen zituzten. Arlo honetan bereziki nabarmenak dira Baionako *Eskualduna* (1887-1944) eta Donostiako *Argia* (1921-1936). Aldizkari bakoitzak euskarazko prosa eredu bana sortu eta aplikatu zuen bere aldizkarian. Hiriart Urrutik finkatu zuen *Eskualdunako* baxenabartar-lapurta idatzia eta Iparralde osotik hedatu zen<sup>99</sup>. *Argiaren* inguruan berriz, beste prosa eredu bat sortu zen, oinarrian gipuzkera zuena, hein handiz garbizalea, baina ez sabindarra. Bietan nekazaritzari buruzko hainbat artikulua argitaratu ziren aipatutako hizkuntza ereduetan. Aldizkari hauetako testu zientifiko-teknikoen adibide bana aipatuko dugu.

Arnaud Abadia kalonjeak 1892-1916. urteen artean Iparraldeko *Eskualduna* aldizkarian “Laborarier” izeneko saila idatzi zuen astero. Sail hartan agertutako artikulua gehienak maila apalekoak eta osoki praktikoak baziren ere, noizean behin zientziaren dibulgazioa lantzen zuen<sup>100</sup>. Hala, aldika Biologia edo Botanika jakintza alorreko gaiak azaldu zituen. Adibidez 1895ean satorrari buruzko edota tximeleten zikloari buruzko artikulua euskaraz kaleratu zituen. Halakoetan, nekazariak ilustratu nahian, zientzia dibulgazioa egiten zuen. Ez goi mailakoa baina bai beharizan zuzenki praktikoa gainditzen zuena. Izatez garaiko nekazariak inoiz kexu ziren ez ziotelako ongi ulertzen. Alta, Kepa Altonaga ikertzaileak ondorioztatu duenez: “ez dut uste Arnaud Abadiaren idazkiak ulergaitzak direnik. [...] Mamiaren aldetik ez dago inolako oztoporik [...]; arazoa orduko baserritar irakurleen maila hori baino are beherago egotetik dator.”<sup>101</sup>. Horri lotuta aipatzekoa da, Abadiak maiz hitz teknikoak euskaratzen zituela, baina ez garbizaletasunagatik baizik nekazariak hobeto ulertu ahal izateko (adibidez “geofilo” hitzaren ordez, “lurpeko” erabiliz). Izatez alderantziz ere egin zezakeen: K. Altonagak

---

<sup>99</sup> *Eskualdunak* zabalduetako euskara ereduaz ikus J. Casenave-ren lana (Casenave, 2005)

<sup>100</sup> (Altonaga, 2004b)

<sup>101</sup> (Altonaga, 2004b: 130-132)

dioenez, “batzuetan ez ditu kontzeptuak itzuliko, adibidez, *sulfure de carbone*, itzulpenak ez dio-eta laborariari ezer argituko. Beste batzuetan perifrasi luzeez baliatuko da, eta esaterako, *bixta ainitz azkartzen duten berina batzu* erabiliko du mikroskopio (edo lupa?) adierazteko.”<sup>102</sup>

Antzeko bidea hartu zuen hogei urte geroago *Argia* aldizkariak. Ambrosio Zatarainek esate baterako, 250 bat artikulu argitaratu zituen *Argian* ezizen desberdinekin, gehienak “Nekazaritza” atalean<sup>103</sup>. A. Zatarain, besteak beste, ongarriei buruz aritu zen:

“FOSFATOAK

Orrela deritzaioten ongarri edo arri zimaurrek, lurak ontzen, aberasten ditue ta landareai on egiten die berekin daramaten izape edo substantzi bategatik: “azido fosforikoa” dalakoagatik. Lur karetsuetan zabaldu ezker, ez ditu asko indartzen, bai ordea berez kare asko ez duten lurak. “Fosfatoak” iru motatakoak izaten dira: 1.- Ezurretik ateratzen diranak. 2.- Jatorrizko edo naturalak. 3.- Eskorias de desfosforizazion deritzanak.”<sup>104</sup>

Ikusten denez, A. Zatarainek hitzak asmatu baino, nahiago zuen fosfato, eskoria eta bestelako erdal hitzak erabili. Testu labur honetan, islatuta agertzen da *Argiak* zerabilen euskarazko prosa erdua (gaur eguneko euskara estandarretik nahiko hurbila). Nabari da, nekazariei zuzendutako artikuluetan oreka bat dagoela, gaiaren trataera eta erabilitako hizkuntza moldearen artean.

A. Abadiaren edo A. Zatarainen artikuluek zientzia-dibulgazio pixka bat egiten zuten, nekazaritza aholku praktikoetatik gehiegi urrundu gabe. Garai hartan egon zen, ordea, maila zertxobait jasoagoko dibulgazioa egin nahi izan zuenik, beti ere irakurle errealek ulertzeko moduan, eta gaiaren trataera eta hizkuntza saioaren arteko orekari eutsi nahian. Iparraldeko mediku batzuen artikuluek aipa daitezke, bereziki Jean Etxeparerenak. Medikuek honek *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan idatzitako testuetan aldika Zientzia Gaiak, eta Literatur Kritikak landu zituen, beti euskaraz. J. Etxeparek euskara kultur hizkuntza bihurtzeko kezka berezia zuen. Ez zen euskal

<sup>102</sup> (Altonaga, 2006: 133)

<sup>103</sup> Ambrosio Zatarainen ezizena *Lugin zale* zen, baina modu desberdinetara idazten zuen *Lugin-zale* (20 artikulua) L. Z. (71 art.), baina gehienak *Lugin zale* moduan sinatzen zituen (157 artikulua). Gerta liteke beste ezizen batzuk ere erabiltzea, esate baterako lugin mutila, baina ez gaude seguru. Artikulu kopurua zenbatzeko erabilitako iturria: Hemeroketa [<http://hemeroketa.com/>] kontsulta-data: 2008-01-12]

<sup>104</sup> *Lugin-zale* [A. Zatarain]: “Arri zimaurrek” *Argia*, 1934.07.22.



nazionalista izan, baina asko hurbildu zitzaion nazionalismoari. *Eskualduna* aldizkariko prosa errazetik abiatzen bazen ere, Arnaud Abadiak baino maila jasoagoa zerabilen, bai gaietan zein hizkeran. J. Etxeparek nekazariak baztertu gabe, eskolatutako euskaldun irakurleengana heldu nahi zuen (apaizak, medikuak, lanbide liberalekoak), nahiz halakoek normalean kultur gaiak frantsesez irakurtzen zituzten. Hortik J. Etxepareren oihartzun urria, nekazari gutxiegia ikasi eta elite frantsesaren artean leku gabe geratu baitzen<sup>105</sup>.

Laburbilduz, ikusi ditugu, irakurle euskaldun erreala (eskola maila txikia, laboraria,...) aintzat hartzen zituzten testuak, non asmo praktikoa eta euskara kultur hizkuntza bihurtzeko asmoa tartekatzen den. Ondoren beste mota bateko testuak aztertuko dira, oroz gain saio linguistikoak zirenak, hain zuzen ere. A. Anabitartek A. Einstein-en teoriari buruz idatzitako hiru artikulua aipatuko ditugu, non gaiaren edo irakurlearen gainetik, hizkuntzak berak zuen garrantzia.

#### **4.2.1.2. Einstein Euzkadin**

*Euzkadi* 1913. urtean sortutako egunkari abertzalea izan zen. *Euzkadi* egunkariaren euskal atala *Kirikiñoren* ardurapean zegoen eta, zuzentzeaz gainera, berak idazten zituen bertako artikulua asko. Bertan, 1923. urteko urtarrilean Agustin Anabitartek, *Anabi ezeizenez*, *Einstein'en ustariak* (edo Einsteinen teoriak) izenburuko lana argitaratu zuen hiru egun jarraitan. Fisikari buruzko euskaraz idatzitako lehen testua hau izan zen.

Berriki UPV/EHUko Fisika irakaslea den Fernando Plazaolak *Ekaia* aldizkarian artikulua horren gaineko azterketa bat argitaratu du. F. Plazaolak egilearen bizitzaz eta obraz zenbait zertzelada ematen ditu, eta garrantzitsuena dena, Fisikaren ikuspegitik A. Anabitarteren ekarpena balioesteko ezinbesteko azalpena eskaintzen du. Irakasleak dioenez, A. Einsteinek erlatibitatearen teoria 1905. urtean plazaratu bazuen ere, 1915. urtera arte ez zuen erlatibitatearen teoria orokorra atera, eta 1919. urtean A. S. Eddington-ek eguzki eklipse oso bat behatzeko Brasilera egindako espediziora arte ez zen teoria frogatu. Brasilgo behaketek bat egin zuten erlatibitate orokorrak aurretan

---

<sup>105</sup> (Altonaga, 2006a)

zuenarekin<sup>106</sup>. A. Anabitartek, beraz, *Euzkadira* ekarri zuen zientzialarien komunitatean une hartan bertan eztabaidatzen ari zen erlatibitatearen teoria orokorra.

Arestian aipatu dugunez, lana atalka argitaratu zen, hiru egun jarraitan. Urtarrilaren 5ean kaleratutako lehen testuan ez zuen A. Einsteini buruz hitz egin, eta gaiaren sarrera gisa, Galileoren erlatibitate-printzipioa azaldu zuen<sup>107</sup>. Bigarren testuan Galileorekin erlatibitate printzipioaren azalpenarekin amaitu eta A. Einsteinekin hasi zen:

“Einstein´en ustariak orren ondotik dabilta. Igindar-gertagietan (fenómenos mecánicos) diran bezela, Einstein´ek izaki-gertagi (fenómenos físicos) guztietara zabaldu ditu adigai oiek, ta baita igitze guztietara.

Lengo era orretan, gu gabiltzala, asmatu liteken aldi-neurkuñarekin aldia (el tiempo en el espacio) arauzko dala ere egiztatu liteke, lengo baldintzean.

Beraz, Einstein´en ustez, zearorik ez da, guztia arauzkoa da. Bere ustariari “arauztasun ustariak” deitzen diete”<sup>108</sup>

Hirugarren testuan espazioari buruz aritu zen eta A. Einsteinen teoriak frogatu zituzten behaketa astronomikoen berri eman zuen.

F. Plazaolaren azalpena garrantzitsua da, orain arte euskarazko zientziaren aurre-historiari dagokion testua gutxi ezagutzeaz gainera, inork ez ziolako azterketa monografikorik eskaini<sup>109</sup>. Baina, gure ustez, badira F. Plazaolak aipatu gabe utzi dituen hiru aspektu garrantzitsu: alde batetik, egilea ez zela ez fisikaria ezta gai horretan zaletua ere; bestalde, *Euzkadiko* artikuluetan gaia baino, saio linguistikoa zela garrantzitsuagoa; eta azkenik, eguneroko prentsa ez zela lekurik egokiena hiru egun jarraitan fisikari buruzko artikulua argitaratzeko. Horregatik guztiagatik, A. Anabitartek hirugarren testuaren azken paragrafoan barkamena eskatu zion irakurleari: “Azken oarra. Ez gera gai-zailzaleak. Bein-bateko idazten dugula ta oraindi-oraingo arazo beria dalako, ausartu gara. Ala ere, barkatu”<sup>110</sup>.

<sup>106</sup> (Plazaola, 2005: 116)

<sup>107</sup> Agustin Anabitarte, *Anabi*: “Einstein´en ustariak I” *Euzkadi*, 1923.01.05 eta F. Plazaolaren lanean (Plazaola, 2005)

<sup>108</sup> Agustin Anabitarte, *Anabi*: “Einstein´en ustariak II” *Euzkadi*, 1923.01.06 eta F. Plazaolaren lanean (Plazaola, 2005)

<sup>109</sup> Hain ezezaguna ezen Gotzon Egiak Agustin Anabitarteren gainean Bidegileak bildumarako prestatutako liburuska monografikoan ez den aipatzen (Egia, 2006: 23)

<sup>110</sup> Agustin Anabitarte, *Anabi*: “Einstein´en ustariak III” *Euzkadi*, 1923.01.07 eta F. Plazaolaren lanean (Plazaola, 2005)

A. Anabitarte ez zen fisikaria, ez formazioz, ez profesioz, ez afizioz. Bere bizitzan ez zuen halako gaietan aparteko ikasketarik jaso, ezta ezer idatzi ere, honako hau bere obran salbuespena izanik. A. Anabitarrek eleberriak idatzi zituen, eta bestelako testu laburragoak, kazetaritzakoak. Beraz, *Euzkadin* fisikari buruz argitaratutako euskarazko lehen testua ez da zientzialari edo aditu batek zientzia gaiez idatzitako lana.

A. Anabitarte saiatu zen euskaraz inoiz erabili gabeko gai bati buruz jarduten, eta horretarako lexiko garbizalea aukeratu zuen. Baina egileak lexiko espezializatua euskara garbian jartzean, ezinbestean alboan erdarazko ordaina eman behar izan zuen. Beraz, euskara gaztelaniaren menean agertzen zen, edo alderantziz, erdara euskararen argigarri.

A. Anabitarteren erlatibitatearen teoriari buruzko artikuluak goi mailako dibulgaziora dedikatutako aldizkari batean argitaratzeko modukoak ziren, baina ez eguneko prentsa idatzian. Gainera A. Anabitarterena prentsan zein aldizkarietan kaleratutako euskarazko testuen artean, gaiaren aldetik, salbuespena izan zen. Gertaera harrigarri horren atzean dauden arrazoiak aztertuko ditugu. Aurrenik eta behin aipatu behar da zientziaren dibulgazioaren esparruko euskarazko aldizkaririk ez zela sortu XX. mendearen azken laurdenera arte. Eta bestetik, eta garrantzitsuago dena, A. Anabitarrek eta *Kirikiñok* demostratu nahi zuten euskarak goi jakintza transmitzeko balio zezakeela. Hau da, A. Anabitarteren eta *Kirikiñoren* asmoa ez zen euskara zientzian jarduteko prestatzea, baizik gehiago erakustaldi linguistiko bat egitea. Berez, helburu gisa, bai nahi zuten euskara zientziaren esparrura hedatzea, eta agian bidea irekitzen ari zirela pentsa zezaketen. Nolanahi ere, artikulua lehen-lehenik euskararen aldeko ariketa linguistiko eta intelektual gisa prestatu zuten. Ikus, horren adibide *Kirikiñok* A. Anabitarteren lehen testuari egindako sarrera biak: *Euzkereak dana dadirazoke* eta *Gai gatx bat euzkeraz* (izenburu biak erabat argigarriak). *Kirikiñoren* bigarren testua osorik dakargu hona, bertan azaltzen delako beraien lehen asmoa ez zela euskarazko zientzia dibulgazioa abian jartzea, beste bat baizik:

“Aspaldijon, illabete batzuk bai, daukogu emen iru ataleko idaz-lan bat, Donosti'ko euzkeltzale goralgarrija dan Anabi'rena. Gaur ipinten dogu lenengo atala.  
Ikusiko dozuen lez Einstein doixtar jakintsuaren oldospen barrijetzaz idazten dau Anabi'k.

**Batebatek esango dau, biarba, onelako lanak ezdirala egokijak eguneroko izparringi batentzako irakurlerik asko ezer aitu barik geratzen diralako; baña ori gora-bera, nik uste dot argitalzia ondo datoñela, erakustiarren gure euzkerak balijo daula orrelako gauza jakindarrak adirazoteko be.**

Aspaldiko urtietan yabilkuz **Unamuno (Mikel), Baroja, ta euren atzian** txakurra ugazabaren atzian lez dabiltzan beste asko, esan ta esaten, gure euzkera au ezjala bestelako ez-jakiñen oldospen apurrek adierazoteko baño; ta orregaitik laga biar dogula, beinbe ezjala ixango ikasteko elia, **beinbe ezin ixango dala adirazo euzkeraz jakintza-gauzarik**, gure ele onek azurkak gogortuta dauzalako, biguntasunik, bijortasunik bape eztaulako.

**Orrelakuai abua estaltzeko ondo datoz Anabi lako lanak euzkeraz**, ta eguneroko izparringijetan, ez eurrez, baña bai noz-edo-bein, argitaldu biar dira, jakin dayen danak euzkeraz edozer adierazo leikela.

Unamuno ´k eta orreek esango leuskigue, Anabi ´k idatzi dauna ezjala ulertzen.

Danak ez, eztabe ulertuko, baña bai askok. Eta erantzungo dautsegu orrei, Anabi ´k euzkeraz idatzi dauna españeraz idatziko balitz be, erdel-irakurlerik geyenak “in albis” geldituko litxakezala, eta biarba, Unamuno ta Baroja ta eurok be bai. Oneek be ¿Zer? ¿Erderazko dana aitzen ete-dabe ba? Jakindi askotako arazuak españeraz argi idatzi arren, Unamuno ´k eta Baroja ´k eta abar, oñak otz ta burua bero atarako leukiez.

Beraz, danak eztabela ulertzen ezta errazoya gauza bat txartzat botateko.

Dana dala, or yuatzue Anabi ´ren lan ori. **Astirik ezpa ´dozue, laga ta [ez] ezer galdu.** Baña bakit bat baño geyago ixango dirala ori irakurri ta ulertuko dabenak.

**Eta Anabi ´ri geure bostekua. Einstein ´en gauza zallok euzkeraz ipinteko kemena ta trebetasuna euki daulako**<sup>111</sup> [beltzak gureak dira]

*Kirikiñok* berak aitortzen digu artikuluan, beharbada A. Anabitarteren artikuluaen gaia ez zela egunkari batean argitaratzeko egokia, baina euskarak jakintza transmititzeko balio zezakeela frogatu nahi zuten. Euskararen aurkako garaiko diskurtsoaren arabera, M. Unamuno eta beste batzuk defendatzen zutena, euskarak ez zuen balio ezagutza transmititzeko, eta hiltzera kondenatuta zegoen<sup>112</sup>. A. Einsteinini buruzko artikuluekin diskurtso horren aurka egin nahi izan zuten, eta oihartzun handiagoa izateko eta euskara halako gaiez aritzeko gai zela frogatzeko, prentsa aukeratu zuten. Horregatik guztiagatik *Kirikiñok* baimena eman zien irakurle euskaldunei artikulua ez irakurtzeko “Astirik ezpa ´dozue, laga ta [ez] ezer galdu”.

A. Anabitartek egindako ariketa linguistikoaen antzeko kasu gehiago ere aurki daitezke garaiko aldizkarietan: Koldo Eleizalde 1916an *Euzko-Deyan* argitaratutako euskarazko Astronomia artikulua<sup>113</sup>, Jokin Zaitetik 1933an zelulari buruz idatzitakoa<sup>114</sup> eta abar. Halakoetan, egilea jeltzalea izaten zen, hizkera hiperpurista zerabilen, eta ulertua izatea baino gehiago bilatzen zuen euskararen balioa zientziarako

<sup>111</sup> (Kirikiño, 1984: 247-248)

<sup>112</sup> M. Unamunoren ikuspegia euskararekiko 5.1. *Hizkuntzalarrien jarrerak* atalean aztertzen da

<sup>113</sup> K. Eleizalde “Ortze-gayak” *Euzko Deya*, 1917.02.01 eta 1917.03.16.

<sup>114</sup> (Altonaga, 2006a: 169-171)

frogatzea. Testu hauek euskal irakurle errealetatik zein urrun zeuden argi ikusten da osasun gaiari buruzko euskarazko liburuetan, adibidez.

#### 4.2.2. Osasun zaintza euskaraz vs Medikuntza euskaraz

XX. mendearen hasieran osasun arloko euskarazko lehenengo testuak argitaratu ziren. Testuok euskaldun elebakarrentzat osasuna zaintzeko aholku orokorrak eskaintzen zituzten. Beraz ez ziren medikuntzako testuak. Higienismoaren garaian idatzita zeuden. Mota honetako liburu bat aztertuko dugu, M. Aranburu eta M. Bagok prestatutakoa, gaur egun ondoen ezagutzen den testua delako. Ondoren Medikuntza arloko 1927ko sabindar testu bat aipagai izango dugu, bi testuen arteko aldeak agertzeko.

Debako eta Itziarreko herriko medikuek, Martin Aranburu eta Manuel Bago Agirre medikuek, *Manual de higiene y medicina popular: dedicado a los habitantes del País Vascongado/ Erriko gendeentzat osasun legueac eta medicantzaco arguibideak Euskal-Erriarrai esqueñiac* (1899) inprimatu zuten Bergaran<sup>115</sup>. Manuel Bagori buruz ez dugu informazio gehiagorik, aldiz Martin Aranbururi buruz zertxobait gehiago dakigu Isabel Arrigaini esker. M. Aranburu, Deban herriko medikua izan zen 1883. urtetik eta 48 urtez aritu zen lan horretan.

Obraren izenburuan ageri denez, M. Aranburuk eta M. Bagok testu elebiduna prestatu zuten. Liburua gaztelaniaz idatzi zuten eta gero, euskarara itzuli. Euskarazkoa gaztelaniazkoaren itzulpena eta moldapena da, gehienetan moldapen laburtua, baina batzuetan azalpen batzuk zabaldu zituzten irakurleko euskaldunari argibide osagarriak emateko asmoz. Hala ere, erdarazko manualak 166 orrialde ditu, eta euskarazkoak 124. Gaztelaniazko parteak gainera, euskarazkoak ez dituen atalak ditu<sup>116</sup>. Euskarazko testua hamabi ataletan edo argibidetan antolatuta dago. Lehenengo hirurak nahiko orokorrak dira osasunaren eta gaixotasunen gainean. Ondoko atalak zehatzagoak dira: “tiputza”, azaleko gaixotasunak, arnas aparatua, odol zirkulazioa, traumatologia eta abar.

---

<sup>115</sup> Obra honen edizio gaurkotua Isabel Arrigainek prestatu zuen (Arrigain, 1994)

<sup>116</sup> “Comisión Médica de la Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País”-ek idatziriko txostena eta Karmelo Etxegaraik (gaztelaniaz) idatzitako hitzaurrea. Gaztelaniazko zein euskarazko eskuliburuak bi orrialdeko hitzaurre bana dute.

Liburuaren xedea herritarren osasuna zaintzea zen. Horretarako higiena eta garbitasunerako aholkuak ematen zituen gaixotasunak deskribatuz eta osasunbideak azalduz. Beraz, herritarren zerbitzura egindako idazlana zen. Testuan erabilitako euskarari dagokionez, Isabel Arrigainek zera dio:

“Beren helburua Euskal Herriko jende xeheak ahalik eta hobekien uler ditzan liburuan ematen diren argibide edo aholkuak izanik, ez dute erdaratiko hitzez hitzeko itzulpenik egiten, baizik eta gaztelaniazko testuaren nolabaiteko zientifismo-kutsuari ihes eginez, maila nabarmenki apalago batean kokatzen dute beren azalpena. Baina apaltasunez ari garenean, kontzeptuez eta gaien tajukeraz ari gara, eta ez inolaz ere darabilten euskara mailaz, idazti honen baliorik handiena baitatza, gure ustez, jatortasunari uko egin gabe, teknizismo askoren itzulpenari ematen dioten irtenbidean.”<sup>117</sup>

Testua gipuzkeraz idatzita dago, I. Arrigainek dionez, euskara herrikoa da, baina ez maila apalekoa. Beraz, erabilitako hizkera, lanaren xedea eta irakurlegoa, koherentzian zeuden.

Oso bestelakoa da hona dakargun bigarren testua. Gotzon Bidaurrezaga mediku bizkaitar abertzaleak prestatu zuen Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldiaren haritik. G. Bidaurrezaga mediku naturista zen eta oftalmologia kontsulta bat ireki zuen Bilbon 1918. urte inguruan. Urte batzuk beranduago iridiologiari buruzko lan bat prestatu zuen: *El diagnóstico por el iris* (1923)<sup>118</sup>. Urte bi beranduago Donostian euskaraz eman zuen hitzaldia, eta pentsa liteke hitzaldiaren testua dela 1927an argitaratutako *Argija kirijotz-alija*. Izenburuan bertan antzematen denez, G. Bidaurrezagak, euskarari dagokionez, bide hipergarbizalea hautatu zuen, bereziki lexikoari dagokionez, hainbestearaino ezen testuak ulergarritasun arazo gaindiezinak baititu. Ikus esate baterako ondoko adibidea:

“Ganera, lekoría ta soín-bañuba alkaítzeko bidiak **asmenak** eta soín-nañuba diranezkero, ixadiko indañak, be, argi, bero tximistindañ, t.a., gorputzari eragitteko beste biderik eztabe asmenak eta nañuba baño. Nañubak eta asmenak, bañiz, etofburu beraxe dabe: **kirijotza**, nañu-mintza, **estaleunak**, **zintz-eunak**, **betillaña-ta umeki-kormutzetik** datoz. Ofegattik, asmenak, baktotxak bere egikixun-arauzko **zozkua** ta **lekoreko** indañ berezijari dagokijon ixakerea dauzan-afen, orok etofburu berbera dabelako, alkaftasun aundija dabe.”<sup>119</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>117</sup> (Arrigain, 1994: 18)

<sup>118</sup> Datu hauek guztiak Angel Bidaurrezagaren lanari esker ezagutzen ditugu (Bidaurrezaga van Dierdonck, 2008)

<sup>119</sup> (Bidaurrezaga, 1927: 5)

Ulergarritasun arazoak ez dira testuaren gaineko lanketa faltagatik, baizik hautatutako hizkuntza moldeagatik (joskera eta lexikoarengatik). Izan ere, G. Bidaurrezagak ez zuen berak idatzi testua euskaraz, baizik gaztelaniaz egin eta laguntzaile bat hartu zuen itzulpena egiteko: Joseba Zabala-Arana *Nabarriztarra*, sabindar idazlea. *Nabarriztarrak* ordurako Geometria eta bestelako gaien gaineko beste testu batzuk idatzita zituen eta erregistro horretan bazuen esperientziarik, nahiz eta Medikuntzaren esparruan ez zen aditua. Beraz, egilearen eta zuzentzailearen artean Medikuntza arloko testu bat euskaraz prestatu zuten, osasuna zaintzeko ohiko lanetatik urrunduta. G. Bidaurrezagaren testua ez zen gaiaren aldetik, iridiologiari buruzkoa baitzen, ezta hizkuntza moldearen aldetik ere nekazari euskaldun elebakarrentzat.

G. Bidaurrezagaren hitzaldiak zein testuak entzule eta irakurle sabindar trebatuak behar zituen. Horren adibide da, Donostian irisaren gaineko hitzaldia eman zuenean, garaiko berrien arabera, hain arrakastatsua izan zela, ezen gaztelaniaz ere emateko eskatu zioten<sup>120</sup>. Pentsa liteke, gaztelaniaz ematea eskatu ziotela, euskara sabindarra ulergaitza egin zitzaielako donostiarrei.

Bestalde, azpimarratzekoa da Euskal Esnaleak bere hitzaldi gehienak argitaratu egiten zituela, baina G. Bidaurrezagarena ez zuela egin, ziurrenik euskara ulergaitzean idatzitako testurik ez zuelako argitaratzen, eta egileak beste editore bat bilatu behar izan zuen.

Laburbilduz, G. Bidaurrezagari eta J. Zabala-Aranari aitortu behar zaie Medikuntzarako euskara erregistro jaso prestatzeko saiakera bat egin zutela, nahiz eta saiakerarako hautatutako molde sabindarrak, ulergarritasun arazo larriak zituen. Konparazio baterako, M. Bago eta M. Aranburuk euskara osasunari buruzko mezu bat hiztunengana helarazteko erabili bazuten, G. Bidaurrezagak hizkuntza lehenetsi zuen, ez komunikazio tresna gisa, baizik hizkuntzaren lanketa eta prestaketarengatik. G. Bidaurrezagaren saioaren atzean arrazoi politikoak zeudenez, euskaraz jarritako

---

<sup>120</sup> *La Baskonia*, 1141. zkia 1925.06.10 (K. Altonagari zor diogu erreferentzia)

iridiologiari buruzko testua ariketa linguistiko hutsa izan zen, obraren dedikatorian antzematen den moduan:

“Zabala-Arana´tar Joseba,  
Miren-Biotz Semeari

Nire lan bafijau nori eskeñiko neuskijo zeuri, ene aba ta aizkide matte ofi, baño bidezago? Orain urte bi, Bestuniztija zala-ta, Donosti´n irakufi neban itxeikixuna euskeraz ipiñi zeustanean, benetan afitu nenduzun, **gure euzkera zafa alako gai bañijak erabilteko gauza zanik eneban susmetan-da**. Ofegattik, nire idazkun au, argijak gixa-soñean daun gafantzi aundi-aundija erakusteko, ludi osuan lenen ageftuko zan idazkuna ixango-edo zala-ta, lenengoz euzkeraz argittalduteko neban gogo bixija betetako, nogana joko neban laguntza-eske zeugana baño? Eta, benetan, nire gogua asebate dozula! **Oinguan, be, euzkera ondo dakijanarentzat gairik gatxenak euzkera utsez erabili eziñik ez dala erakutsi dozu, ta politto erakutsi be, gero!** Eskafik asko! Ta ez azpeftu geure euzkera kutunaren alde lanari ekitten. GOTZON”<sup>121</sup> [beltzak gureak dira]

G. Bidaurrezagaren lanarekin sabindar ereduaren baliagarritasuna frogatu nahi zuten. Baina ariketa politiko eta linguistikoa zen heinean, egileak saiakera honi ez zion inongo jarraipenik eman, azken finean bere asmoa ez zelako Medikuntzarako euskara molde bat abian jartzea.

#### 4.2.3. Literatur itzulpenak

XX. mendeko 20ko hamarkada baino lehen egindako euskarazko itzulpen gehienek irakurle euskaldun apalei, nekazaritzaz, emigrazioaren kalteez, edo beraien osasun zaintzaz aholkuak ematen zizkieten. Hau da, hiztunari begira diputazioek edo medikuek prestatutako itzulpenak ziren, eta ez literatura unibertsaleko testu euskaratuak. 20ko hamarkadatik aurrera, literatura unibertsaleko obrak euskaratzeko kezka agertu zen<sup>122</sup>. Honek garrantzia berezia du, zeren euskarari ate berriak irekitzeko asmoa agertzen zuen: itzulpena ez zen egiten eskola gutxiko euskaldun elebarrrek oinarritzko aholku praktikoak jaso zitzaten, baizik mundu mailako literatura ospetsuena euskaraz jartzeko eta irakurtzeko. Hau da, euskaraz prestigiozko edukiak egon zitezten. Bereziki nabarmena da asmo hori greziar zein latin-literaturako itzulpenetan. R.

<sup>121</sup> (Bidaurrezaga, 1927: 2)

<sup>122</sup> Horren adibide da Euskaltzaindiaren 1920ko estatutueta 6. puntuan esplizituki aipatzen dela Akademiaren helburuen artean literatura unibertsaleko lanen itzulpena sustatzeko asmoa: “Promoverá la traducción de los libros divinos y de los universalmente reconocidos como capitales en la literatura general”. Hala ere Akademiak literatura unibertsaleko lanen itzulpenerako proiekturik ez zuen abian jarri, seguru aski aurrekontu mugatua zuelako eta nahiko itota zebilelako urgentzia handiagoa zuten beste proiektu batzuk sustatzen, hiztegia esaterako. Dena den aipuak giro euskaltzalean bor-borrear zegoen asmo bat agerrarazten du.



Gonzalez Delgado ikertzaileak asturierara itzulitako literatura klasikoaren kasua aztertuta, azpimarratu du mota honetako itzulpenak fenomeno orokorra izan zirela penintsulan:

“En relación col castellán, la traducción de los clásicos greco-llatinos a otras lingües d’España (catalana, gallega, vasca, asturiana, aragonesa y valenciana) tuvo una menor pero valoratible repercusión. Estes «pequeñes» lliteratures, de la qu’entamen a salir alantre, miren p’ hacia la lliteratura grecollatina y quieren que los sos textos formen parte d’ella, **pa demostrar que la so llingua, averada polo xeneral al ámbito ruraliegu** –como la llatina nos sos entamos–, **sirve y ye capaz d’expresar lo mesmo que les modéliques llingües clásiques, prototipu de rexistru cultu.**”<sup>123</sup> [beltzak gureak dira]

Obra unibertsalen itzulpenen egileak abertzale euskaltzaleak izan ziren, maiz sabindarrak. XX. mendearen lehen laurdenean abiatutako saio honek 50eko hamarkadan jarraipena izan zuen, bereziki Jokin Zaitegik sustatutako *Euzko-Gogoa* kultur plataforman. J. Zaitegiren kasuan itzulpenak maiz obra klasikoenak izan ziren, bereziki grezieraz idatzitakoak (Platon, Sokrates, Sofokles eta abar).

Literatura latindarrari dagokionez, 20ko hamarkadan Luzio Arregik Virgilioren testu baten itzulpena aurkeztu zuen Euskaltzaindiak Durangon antolatutako Euskalegunetan: *Melibeo ta Titiroren arteko alkar-izketa* (1923).

Greziar eta latin-literaturatik kanpo ere, ospeko egile eta obra unibertsalen itzulpenak argitaratu ziren. Esate baterako Joseba Arregik Heinrich Heine-ren olerkiak euskaratu zituen (1927). Joseba Altuna sabindarrak Oscar Wilde (*Ipuñak*, 1927) eta Grim anaien ipuinak (*Ipuñak*, 1929). Ipolito Larrakoetxea abadeak ere *Grimm anayen berrogetamar ume-ipuin* kaleratu zituen (1929).

R. Olabide jesuita eta euskaltzainaren lana zabalagoa izan zen: *Itun Berria* euskaratu zuen 1931. urtean, Euskaltzaindiaren helburuetako bat erdietsiz. Lehenago *Kisto'ren antz-bidea* (1920) itzuli bazuen ere, duda gabe *Itun Berria* R. Olabideren itzulpenik sonatuena izan zen, batetik Bibliaren itzulpena zelako, eta bestetik aurrerago *Euzko-Gogoaren* inguruko euskaltzaleengan izan zuen eraginarengatik.

---

<sup>123</sup> (Gonzalez Delgado, 2008: 55)

Liburu formatuan ez ezik aldizkarietan ere plazaratu ziren itzulpenak, maiz zatika. Esate baterako *Orixek Jesus'en Biotzaren Deyan* zenbait itzulpen argitaratu zituen<sup>124</sup>. J. Altunak bere aldetik, literatura unibertsaleko obra batzuk euskaratu zituen eta Euzkeltzale Bazkunaren *Euzkerea* aldizkarian argitaratu, besteak beste, Alexander Nikolaievich Afanasiev-en zenbait ipuin<sup>125</sup>. Halaber Iñaki Goenaga jesuitak, alemanetik Friedrich Schiller-en *Wilhelm Tell* lana euskaratu eta *Yakintza* aldizkarian 1934 eta 1935. urteko zenbakietan zatika argitaratu zuen.

1929. urtean Cervantesek idatzitako Mantxako Kixoteren itzulpen saria zela-eta, *Orixek*, *Lizardik* eta beste euskal idazle batzuk espainiar obra klasikoaren atal bat euskaratu zuten. *Orixek* urte horretan beste espainiar obra klasiko eta ezagun bat itzuli zuen: *Tormes-ko itsu-mutilla* (1929). Hurrengo urtean Nobel saria irabazitako Frédéric Mistralek prestatutako *Mireio* lana euskaratu zuen. Gabirel Manterolak Christoph von Schmid-en ipuinak itzuli zituen (*Ipuintxoak*, 1929). Christoph von Schmid apaiza zen, alemana jatorriz, eta gazte literatura idazten zuen. Bere obrak 24 hizkuntzetara itzuliak izan dira. Gerraostean antzeko egile eta itzulpen lanetan Plazido Muxika aritu zen, Svenson islandiar idazlearen *Noni eta Mani: islandiar mutiko biren gertaldiak* (1952) lanarekin. Bestalde, Imanol Apalategi edo Bonifazio Ataungoak (1888-1961) Rathindranatha Tagore-ren lan bat itzuli zuen (*Amal*, 1934)<sup>126</sup>. *Lauaxeta* ere aipa daiteke literatura unibertsala euskaratzen ibili zirenen artean. Besteak beste J. Maragall, A. Tennyson, G. Carducci, M. Maeterlinck, C. Baudelaire eta P. Verlaine-ren poemak itzuli zituen 1929-1930. urteen artean<sup>127</sup>.

Literatura unibertsaleko obrak itzultzen ibili zirenak ideologikoki abertzaleak izan ziren. Itzulpenak euskara goi mailarako gaitzeko eta prestatzeko saiotzat har daitezke, bereziki literaturaren kasurako. Ezin esan daiteke egindako itzulpen kopurua izugarria izan zenik. Halaber, sistematikotasuna falta izan zen (erabilitako euskara eremuan, aukeratutako egileetan eta abar). Baina helburua argia zen, euskaraz kultura jaso egitea.

<sup>124</sup> Gidor Bilbaok bilduta ditu testuotako bi (Bilbao Telletxea, 2002: 122-123 eta 141-142)

<sup>125</sup> Ikus adibidez *Euzkerea* 1932ko ekaineko zenbakia.

<sup>126</sup> Gerraostean Balendin Aurre Apraiz poeta ajangiztarra ere, erbestean egondakoa eta *Euzko-gogoan* bere poesietako batzuk argitaratu zituena, R. Tagore itzultzen ibili zen, nahiz eta azkenean ez argitaratu.

<sup>127</sup> *Lauaxetaren* itzulpenez ikus Jon Kortazarren lana (Kortazar, 1995: 15-16)

#### 4.2.4. Eskola liburuak: jakintza-arloak euskaraz abiatzeko saiakerak

Gerraurrean sortu ziren auzo eskolak eta lehen ikastolak. Horietan euskarazko oinarritzko hezkuntza ematen zen. Horregatik eskola liburuen ekoizpena garai honetan nahiko handia izan zen eta askotarikoa: irakurtzen ikasteko<sup>128</sup>, euskara ikasteko, Eliztia edo kultura kristaua umeei irakasteko<sup>129</sup>, eskolako gaiak lantzeko testuliburuak<sup>130</sup> eta abar. Umeen euskarazko hezkuntzaren eta hezkuntzarako materialen beharra nabarmena zen eta kezka hori partitzen zuten bai euskaltzaleek (adb. R. M. Azkue, I. Lopez-Mendizabal, Mikel Altzo...) bai erakundeek ere, hala nola, Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak<sup>131</sup> eta Euskaltzaindiaren laguntzaileak elkarteak (Euskaltzaindiaren Jagon sailaren menpe 1931. urtean sortua umeen euskarazko irakaskuntzaz arduratzeko)<sup>132</sup>. Horren adibide da, bai euskaltzale zein erakundeek antolatutako ekimenak, Eusko Ikaskuntzen kongresu monografikoa, umeentzako lehiaketak, Euskalegunak eta abar.

Garai honetan, hau da, 1920tik aurrera, eskolako irakasgai jakin batzuei lotutako liburuak kaleratu ziren, esate baterako Matematika eta Geometriari buruzkoak. Lehena *Euskal-zenbakiztia: lenengo ikaste mallarako* (1920) “Bizkai-Aldundiaren Erri-Irakaskuntza-Batzordearen aginduz ta ordaiñez argitaldua” izan zen. Ondoren J. Zabala-Aranak eskolako umeentzat bi liburuxka hauek prestatu zituen: *Daneurtiztia: amabi ataltxotan* (1923) eta *Euzko-Ikastola Batzak argitaratutako Zenbakiztija* (1932)<sup>133</sup>.

---

<sup>128</sup> Bereziki ezaguna da Ixaka Lopez-Mendizabalek eta “Txiki”k prestatutako *Xabiartxo: umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia* (1925). Baina horren aurretik argitaratu zuen Tolosako bere inprentan: *Umearen laguna: irakurtzen ikasteko biderik errezena* (1920)

<sup>129</sup> Joseba Zabala-Arana zenbait material eliztar atondu zituen *Edesti Deuna: ume ikaslariyentzat edesti deuna* (1921), *Eliztia gipuzkeraz: I malla* (1924), eta Luis Ribera-ren *Jesuset, devocionario per a nois i noies* lana bizkaieraz eta gipuzkeraz eman zituen: *Josutxu: umientzako otoi-idaztiñua* (1931) eta *Josutxu: aurrentzako otoi-idaztiñoa* (1931). Bestalde Nazario Oleaga euskaltzainak euskaratu zuen G. Muxikaren *Zurtasun-gogoa: umeentzat oartxo egokiak* (1923), moral kristaua umeei azaltzen diena. Kristau ikasbidearen lehenengo mailako *Aurtxoen kristau ikastia* (1932)

<sup>130</sup> Esate batearako eskolan geografia irakasteko Fermin Iturriotzek *Lutelestia: iru mallatan: euskerazko lenengo malla* (1932) gipuzkeraz eta bizkaieraz kaleratu zuen. Joseba Lezokoak *Eiza-iztia edo Abere piztiak* (1929) plazaratu zuen eta abar.

<sup>131</sup> Euskaltzaindiaren 1920ko estatutuen 6. puntuan aipatzen da: “c) Prestará su concurso para la euskerización de los libros de texto, de los cuadros murales de enseñanza...”

<sup>132</sup> Eskola liburuen azterketa testuinguru historikoaz gehiago jakiteko jo Araka ikertaldeko (<http://www.vc.ehu.es/araka/>) kide den Karmele Perez Urrazaren lanera (Perez Urraza, 2004 eta 2005)

<sup>133</sup> J. Zabala-Aranak umeen euskarazko irakaskuntzari begira beste lan batzuk ere prestatu zituen: *Edesti Deuna: ume ikaslariyentzat* (1921), *Eliztia gipuzkeraz: I malla* (1924) eta *Josutxu: umientzako otoi-idaztiñua* (1931) itzuli zuen.

J. Zabala-Arana Donostiako Koruko Andre Mariaren Ikastetxean, Muñoak antolatutako ikastolan, irakasle gisa aritu zen, eta euskarazko irakaskuntzan zelako material beharrezana zegoen lehen eskutik ezagutu zuen.

Joseba Zabala-Arana hizkuntzaren prestaketa lanetan murgilduta zegoen, sabindarra zen eta Euskaltzale Bazkuntatik oso gertukoa. Donostiako ikastolako irakasle zela, J. Zabala-Aranak Euskaltzaindiak euskararen batasunaren inguruan 1920an antolatutako batzarrean parte hartu zuen txosten bat aurkeztuz. Bere proposamena zen euskara bakarra edo batua behar zela goi mailako irakaskuntzarako<sup>134</sup>, baina umeen irakaskuntza umeen euskalkian egin behar zela. Horregatik, lan jasoetan, hala nola Schuchardt sarietara aurkeztutako “Euskerazko zenbakera” lanean (gerora RIEVen argitaratutakoa), ez zen umeentzat prestatutako materialetan bezain dialektala izan. Hala, “Euskerazko zenbakera” lanean, zenbakerari buruz prestatutako idazlan jasoa zenez, erabiltzen zen euskara, gipuzkera osotua izan gabe, horrantza jotzen zuen<sup>135</sup>.

Gerraren atarian Gabirel Jauregik Fisikari buruz *Pisia* (1935) eta Kimikari buruz *Kimia* (1936) liburuak kaleratu zituen<sup>136</sup>. G. Jauregik *Pisia* liburuaren atarikoan aipatzen zuen liburua egiten zuela Fisika arloko fenomenoak azaltzeko, baina bereziki aipatzen zuen bere ekarpena zela Fisikarako euskarazko hiztegia prestatzea:

“Bai, mutil. Nik euskeraz yagidanean, euskera leun eta garbian egiten yoat. Gañera, esakuntza laburak erabilten yoadaz. Nik esan beaf yoadazan gauzak esateko, **itz-baři asko asmau beaf yoadaz**: baña irakuřten asi ezkeru, lastef aituteko lakoak asmau yoadaz. Eta iztegia bertan yarabillat. Eta adigarı asko ipiři yoadaz; irudi pilloari begiratuaz bakařik uleřteko lez yakarđaz gauzak.

**Euskeldunei euskeraz idazteko gatxen etořten yakuna, auxe dok: gauza guřtiak esateko itz zařik ez eukitea, eta dagozan guřtiak ez yakitea.** Baña, itxaron apur baten. Aldi gitxi bařu gure gaztediak erdera baño, euskera obeto irakuři, idatzi ta itz – egingo yok; eta orduan ikusiko dok, euskel-itz bariak atonduten ibilli gareanon aintza norañořkoa izango dan. Eta egun ori lastef yatofkuk.”<sup>137</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>134</sup> “eleřtiyarako ta ikastetxe nausiyetarako euzkera bakařa egokiya izango bide litzakela. Izan ere egokiya litzakela uste det, ikasketa nagusiyak euzkeraz egingo al daitezkenean, ikastetxe nausi baten eta euzkera bakařoi gertu eukitzia” (Zabala-Arana, 1922: 94)

<sup>135</sup> Ikus esaterako ondoko adibidean zenbakera nola definitzen zuen: “Zenbakera, zenbaki edo kopuru guřiak itz edo mařa gutxiren bidez, ittez ta idatziz, agertzeko era baizik besterik ez da: alegia, zenbatzeko era.” (Zabala-Arana, 1928: 584)

<sup>136</sup> Liburu hauen azterketa *Zientzia eta teknikarako Euskara* (Ensunza, Etxeberria & Iturbe, 2003) liburuan aurki daiteke.

<sup>137</sup> (Jauregi, 1935: 10)

Laburbilduz, eskola umeentzat gerraurrean hainbat liburu plazaratu ziren. Zerrenda osoa ez dugu jaso. Aipagarrienak agertu ditugu, gure asmoa ez delako exhaustiboak izatea, edo aipatutako obrak sakonki aztertzea<sup>138</sup>, baizik erakustea eskola liburuetan garatzen hasi zirela inoiz baino modu sistematikoagoan Matematika, Geometria, Fisika, Kimika moduko jakintza-arloak euskaraz. Oro har, liburu hauetan sabindar eredu nagusitu zen, hau da, euskara hipergarbizalea. Hala ere, kasu honetan ez zen ariketa linguistiko huts bat, baizik euskarazko hezkuntzarako oinarrizko materiala sortzea. Alde horretatik eskola liburuek praktiko izateko asmoa zuten, umeek haien bidez eduki batzuk ulertu eta ikasi behar baitzituzten. Baina aldi berean euskara prestatu nahi zen gai jasoez aritzeko, nahiz edukiak oinarrizko hezkuntza mailakoak izan. Etorkizunari begira euskara zientzian eta goi hezkuntzan baliatzeko abiapuntu bat zen edozein kasutan (asmoz behintzat).

## 5. Euskara objektu: hizkuntzaren gaineko ikerkuntza

Gerraurreko euskarazko kulturgintza jasoan euskara hiru modutan agertzen dela esan dugu. Lehenengo biak jada aztertu ditugu: batetik euskara tresna gisa zerabilen planteamendua genuke, non hiztunak duen lehentasuna, eta bestetik, abertzaletasunaren eraginez, euskara helburu gisa ezartzen duen planteamendua legoke. Atal honetan hirugarren planteamendua aztertuko dugu. Kasu honetan hizkuntzaren erabilerarik ia ez da egiten. Hizkuntza eta haren inguruko kultura objektibizatuta zegoelako, alegia ikergaia zelako. Eta ikergaia euskara edo euskal gai bat izateak, ez zuen inongo eraginik ikerketaren gaineko emaitzen argitalpenean. Hau da, euskara edo euskal kulturari buruzko gerraurreko goren mailako artikuluak, salbuespenak salbuespen, ez ziren euskaraz prestatu. Ondoko adibideen bitartez, zehatzago azalduko dugu gerraurrean euskara eta euskal kultura oro har ikerketa objektu gisa nortzuk eta nola erabili zuten.

---

<sup>138</sup> Gerraurreko Matematika, Geometria, Fisika eta Kimika arloko liburuak, *Zientzia eta Teknikarako euskara* liburuan aztertzen dira (Ensunza, Etxeberria & Iturbe, 2003). Bestalde Gabirel Jauregiri *Karmel* aldizkariak zenbaki monografiko bat eskaini zion (211. zkia, 1995. urtea)

## 5.1. Hizkuntzalarien jarrerak

Euskararen gaineko azterketa eta ikerketaren esparruan ikertzaile batzuk hizkuntza hiltzera kondenaturik zegoela defendatzen zuten, euskarak maila jasoko ideiak adierazteko baliorik ez omen zuelako. Beste euskalari batzuk berriz, euskaltzaletasunik ageri zuten eta euskararen bizirautearen alde zeuden, nahiz eta beraien kezka nagusia euskararen ikerketa izan. Segidan pare bat hizkuntzalariren adibideak emango ditugu.

M. Unamuno Bilbon jaio zen (1864), unibertsitateko karrera 1883. urtean bukatu zuen Madrilgo Unibertsitatean, eta 1884an tesia defendatu zuen *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*. Hurrengo urteetan irakasle gisa aritu zen, oposaketak prestatu, eta Bilboko Euskara katedrara aurkeztu zen, baina ez zuen lortu. 1891an Salamancako Unibertsitatean irakasle plaza eskuratu zuen. 1901. urtean, jadanik unibertsitateko errektorea zela, Bilbora etorri zen bertan antolatutako Lore Jokoetan hitzaldia ematera. Hitzaldian hainbat gai jorratu zituen, Bilboren aberastasun materiala, kulturala, espiritualitatea eta abar. Baina, gerora, euskararen gainean egindako diagnostikoa eta iragarritako heriotza gogoratu izan dira:

“... idioma rico en notaciones de lo cotidiano y práctico, pero pobre en matices de lo ideal y abstracto; corto en palabras, ...”<sup>139</sup>

“En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao, hablando vascuence, es un contrasentido.”<sup>140</sup>

“Nuestra alma es más grande ya que su vestido secular; el vascuence nos viene ya estrecho; y como su material y tejido no se prestan a ensancharse, rompámosle. Hay, además, una ley de economía, y es que **nos cuesta menos esfuerzo aprender el castellano que transformar el vascuence**, que es un instrumento sobrado complicado y muy lejos de la sencillez y sobriedad de medios de los idiomas analíticos”<sup>141</sup> [beltzak gureak dira]

M. Unamuno ulertzeko zenbait faktore izan behar dira kontuan: batetik intelektual bat zela, eta bestetik, hizkuntzalaritza arloko bere ideiak, eta horretan darwinismoak izandako eragina<sup>142</sup>.

<sup>139</sup> (Unamuno, 1958: 294)

<sup>140</sup> (Unamuno, 1958: 298-299)

<sup>141</sup> (Unamuno, 1958: 299-300)

<sup>142</sup> M. Unamunoren euskararen gaineko ideiak darwinismo sozialarekin duten zer ikusia J. Zulaikak aztertu du (1996: 67-70) baita X. Erizek eta Pruden Gartzia ere (2004: 335-336)

Hasteko, ezin da ahaztu M. Unamuno espainiar tradizioan errotutako intelektual bat zela, eta bere egitekoa, intelektual gisa, kritika suntsitzaileak egitea zela<sup>143</sup>. M. Unamunoren lehengusua zen Telesforo Aranzadi antropologoak aldiz, hau da, zientzialari zenak, bestelakoa egitekoa zuen, guztiz enpirikoa, datu bilketan oinarritutakoa. Beraz, biak akademiako kide kontsokratuak izan arren, batek eta besteak egiteko desberdinak zituzten.

Bestalde, sasoiko ideologia linguistikoa kontuan izan behar da, M. Unamunoren iritzia bere testuinguruan ulertzeko. Garai hartan uste zen hizkuntza eranskariak, euskara modukoak, hizkuntza zailak eta anabasak zirela, eta ideia abstraktuak adierazteko ez zutela balio. Hizkuntza analitikoek aldiz, gaztelania edo frantsesa modukoak, zehatzagoak izanik bizitza modernorako eta ideien transmisiorako balio zutela<sup>144</sup>. Egia esan, M. Unamunok ez zuen ezer asmatu, euskararen balio gabetasunaren inguruko iritzia XIX. mende bukaeran eta XX. mendean oso zabaldua zegoen ideia baitzen<sup>145</sup>.

Beraz, iritzi oso hedatua zen euskara gutxien zuena, nahiz eta onartu eguneroko euskaldun xumeen bizitzarako balio zezakeela. Edozein kasutan, hizkuntza garaikide gisa, euskara balio gabekotzat zuten, ustez bizitza modernorako edota komunikazio jasorako ahalmenik ez zuelako. Beraz jakintza edo ezagutza, abstrakzio ziren heinean, euskaraz ezin adieraz zitezkeen.

---

<sup>143</sup> (Zulaika, 1996: 55)

<sup>144</sup> Noski, ez dago esan beharrik, baina edozein hizkuntzak, behar bezalako lanketarekin, espresiorako ahalmen berdina du. Garaiko ideia linguistikoei buruz ikus X. Erize (1997: 398-408)

<sup>145</sup> Argentinan editatzen zen *La Vasconia* aldizkarian esaterako, M. Unamunok bere hitzaldia eman baino bi urte arinago, artikulua batean euskarari buruzko antzeko ideiak agertu ziren: “El estado de inmovilidad del vascuence, su falta de evolución en los sistemas de expresión ha hecho de él una lengua estática, en la cual no se puede traducir ninguna idea abstrata, ni concepto científico. Algunos modernos euskaréfilos han pretendido iniciar la evolución y enriquecimiento de las voces euskaras; pero al hacerlo, deben haber observado que al científicar el idioma, separábanle del dominio del pueblo montañés, único elemento social que actualmente lo sostiene. La evolución, en el sentido de dilatarlo, es por lo tanto, peligrosa á la existencia del vascuence como idioma vivo, puesto que solo tiene existencia real entre el elemento más inculto del pueblo” (cfr. Artola: “Rosario Artola” *La Vasconia*, 1899.9.10. Erreferentzia K. Altonagari zor diogu)

M. Unamunok, dena den, euskarari heriotza soziala iragarri arren, bizitza akademiko luzea opa zion, ez noski, hizkuntza akademiko edo akademikoek mintzatzeko hizkuntza gisa, ikertzaileen ikergai gisa baizik:

“¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia. Y para lograrlo, estudiémosle con espíritu científico a la vez que con amor, sin prejuicio, no atentos a tal o cual tesis previa, sino a indagar lo que haya, y estudiémosle con los más rigurosos métodos que la moderna ciencia lingüística prescribe”<sup>146</sup>

M. Unamunok, 1901ean esandakoak, behin eta berrero errepikatu zituen bere bizitzan zehar, hil arte. Euskaltzaleak ondoko urte luzeetan behin baino gehiagotan M. Unamunori eta, oro har, euskararen inguruko diskurtso horiei erantzunez aritu ziren. Horren lekuko sasoiko euskal eta erdal prentsan euskaraz zein erdaraz kaleratutako artikuluak<sup>147</sup>.

Oso bestelakoa zen, Julio Urkixo hizkuntzalari bilbotar karlista (1871-1950). Familia aberatseko semea, J. Urkixo, familiaren negozioetan aritu beharrean, hizkuntzalaritzara dedikatu zen. Unibertsitatean zuzenbidea ikasi bazuen ere, azkenean hizkuntzalaria, are euskalaria, egin zen. Garaiko Europako hizkuntzalaritza arloko teoriak aztertu zituen eta hizkuntzaren zientzialari kritiko eta zorrotza izan zen. Aberatsa izanik, bere ondasunekin finantzatu zituen bere ikerketak eta proiektuak (adb. RIEV aldizkaria). Zorroztasun zientifikoa ez zen izan bakarrik bere lanen ezaugarria, RIEV aldizkarian argitaratutako kolaboratzaileen lanen kalitatea ere zaintzen saiatu baitzen.

---

<sup>146</sup> (Unamuno, 1958: 300)

<sup>147</sup> M. Unamunori erantzutea, Hegoaldeko euskal prentsan ohiko gaia bihurtu zen. Erantzuten lehena 1901ean bertan Antonio Arzak izan zen, eta gerora beste asko aritu ziren (ikus Aizpuru, 2000: 92-95). Esate baterako *Kirikiñok* 1914. urtean *Euzkadin* ateratzen zuen euskarazko zutabean M. Unamunok euskaraz idatzitako testu bat kaleratu zuen, M. Unamunoren akatsak agerian uzteko: “Orain ogetaz urteak dira argitaldu zala urrengo doan euskal idazkun ori. Antza denez, orduan ez eban uste euskerea itxi bear zanik, berak erabillen ta. Geroago esan euskun geuk erail gengiala geure abenda elea, ta zegaitia zan, euskerea ez dala gauza oldozkun goikoak adieraazteko. Jakina! Unamuno larri ibilli zan euskera mordoillo ori idazteko (naikoa da berau irakurtea igarteko), ta uste izan eutsun: “Neuk ain nekez idatzi al izan dodanean, euskerea ez dok gauza jakitunentzat” (Kirikiño, 1984: 81 )



J. Urkixok, M. Unamunok ez bezala, hizkuntzaren iraupenaren alde lan egin zuen, euskaldunen hizkuntza zelako eta irauteko eskubidea zuelako. Halaxe aritu zen behintzat Bizkaiko *Junta de Cultura Vasca*k (Euskal Kultura Batzordeak) Bilbon antolatuta 1919an emandako hitzaldian:

“Un escritor vasco de talento [=Baroja], que, entre sus grandes *boutades*, ha combatido con fortuna algunos de nuestros prejuicios, incurre en uno, á mi ver, serio, cuando escribe, que el catalán, el valenciano, el gallego, el bable, el caló mismo, como idiomas de sintáxis latina, sirven como el castellano ó el francés: pero que el vascuence no sirve, porque representea una mentalidad tan arcaica, que es imposible amoldarlo á la vida actual”<sup>148</sup>

J. Urkixorentzat euskararen egoera tamalgarria ez zetorren hizkuntza egituratik, baizik bere egoera soziolinguistikotik:

“¡No! la dificultad no está propiamente en el carácter ó tipo de la lengua, sino en otras circunstancias, como el extraordinario fraccionamiento dialectal, el abandono del vascuence por las clases directoras, y el reducido número de vascos que existen”<sup>149</sup>

Horregatik, J. Urkixok euskararen lanketa ezinbestekotzat zuen hizkuntzaren bizi iraupenari begira.

“Aun dejada de lado toda razón de orden sentimental, la necesidad de convertir al vascuence en lengua de cultura, es consecuencia lógica del deseo de conservarlo: porque es un hecho admitido por todos los lingüistas, que allí donde lucha una lengua de civilización con otra reducida al uso vulgar y no se cultiva literariamente, la primera acaba por imponerse á la segunda”<sup>150</sup>

Beraz, hizkuntzalarien artean, ikerketa objektuarekiko, hau da, euskararen ikerketarekiko, oso sentsibilitate desberdinak zeuden. Batzuk, heriotza ebitaezina aurreikusten zioten bitartean, besteak euskararen iraupenaren eta erabileraren alde zeuden. Hala ere, batzuen eta besteen praxia erabat erdalduna zen. Bai M. Unamunok eta bai J. Urkixok gaztelania erabili zuten beren hizkuntzalaritza lanetako tresna gisa. Beraz euskaltzale izateak ez zuen besterik gabe bermatzen euskararen erabilera arlo jasoan. Hori argi ikusi zen Eusko Ikaskuntzaren kasuan.

---

<sup>148</sup> (Urkixo, 1919: 12)

<sup>149</sup> (Urkixo, 1919: 14)

<sup>150</sup> (Urkixo, 1919: 12)

## 5.2. Eusko Ikaskuntzen erdal praxia

Bizkaiko jeltzaleek 1917. urtean hauteskundeak irabazi zituzten eta Bizkaiko diputazioa bere menean hartu zuten. Beraiek sortu zuten diputazioaren baitan *Junta de Cultura Vasca* (Euskal Kultura Batzordea) euskal kultura bultzatzeko. Batzordeak Espainiako Gerra Zibilera arte iraun zuen. 1918 urte hasieran Euskal Kulturaren Batzordeak oihartzun handia izan zuen hitzaldi ziklo bat antolatu zuen. Bertan hizlari gisa aritu ziren: A. Apraiz (*Universidad Vasca*), Telesforo Aranzadi (*Los gentiles de Aralar* eta *Tipo y raza en los vascos*), Resurrecion M<sup>a</sup> Azkue (*Música popular vasca: su existencia*), Koldo Eleizalde (*La lucha por el idioma propio*), Karmelo Etxegarai (*La tradición artística del Pueblo Vasco*) eta abar. Hitzaldi guztiak gaztelaniaz izan ziren. Beraz nahiz eta berbaldiak euskararen eta euskal kulturaren ingurukoak izan, gaztelania izan zen komunikazio hizkuntza.

Batzordeak antolatutako lehen hitzaldia Salamancako Unibertsitateko katedraduna zen Angel Apraizek eman zuen (1918). A. Apraizek bere hitzaldian aztertu zituen AEBko unibertsitate eredu desberdinak, Euskal Herriko goi mailako irakaskuntzan aritutako erakundeen bilakaera historikoa, eta orduko Euskal Herriaren beharrak, behar kulturalak –euskal kultura ikertzeko eta lantzeko–, zein behar sozialak, batxilerren kopurua, tituludunen falta eta abar. Bere ondorio nagusia hauxe zen: Euskal Herriak Euskal Unibertsitate bat behar zuela. Baina hori lortze bidean Eusko Ikaskuntzen Kongresu bat egitea proposatu zuen. A. Apraizek hitzaldia eman zuenean, kongresuaren gaineko zenbait detaile oraindik guztiz argi ez zeuden arren, proiektuaren abiapuntuko eskema honela azaldu zien aretoko entzuleei:

“... pudiera desenvolverse durante varios días del verano, en una reunión o Congreso que concretase en un ambiente como el que las Universidades extranjeras disponen con el objeto mismo, (...). Sería una Universidad funcionando, aunque ello sólo durase ocho o diez días, y creo que Oñate constituiría un lugar insustituible para que en él se fundieran las tradiciones de nuestro pasado con nuestras ansias para el porvenir. Se encargaría de llevar a la práctica la idea un Consejo organizador, formado por personalidades prestigiosas en el campo de nuestra ciencia y pertenecientes a todos los partidos, juntamente con representantes de las Diputaciones que seguramente favorecerán la idea”<sup>151</sup>

---

<sup>151</sup> (Apraiz, 1919a: 23)

Ikusten denez, kongresuaren planteamendua zabala zen, esate baterako antolaketa batzordea, eremu desberdinetik etorritako kideekin osatzea aurreikusten zen. Proiektua pentsatu moduan gauzatu zen. Egia esan, horretan datza kongresuaren –eta handik sortutako elkartearen– arrakastaren oinarritako bat, hau da, euskal kulturaren aldeko ekimen batean inoiz ez bezalako babes politikoa (alderdi desberdinetako kideak), instituzionala (Hegoaldeko lau diputazioena) eta eliztarra (Gasteiz, Iruñea eta Baionako apezpikutzena) lortu zela.

Iraileko kongresuak, G. Muxikaren datuei jarraituz, 900 parte hartzaile izan zituen eta 50 hizlari<sup>152</sup>. A. Apraizek 1918an Bilbon emandako hitzaldian aurreikusi zuen moduan, kongresuko jarduera nagusiak hiru izan ziren: alde batetik ikastaroak, bestetik sailetako bilerak, eta azkenik konferentzia orokorrak. Zazpi sail definitu ziren: Gizarte Zientziak eta politika, Arraza, Hizkuntza, Historia, Artea, Irakaskuntza eta Eusko Ikaskuntzen gaineko elkarteak. Sail horietako biren bileratik, erakunde bana sortzeko abiapuntua jarri zen: alde batetik Eusko Ikaskuntza, eta bestalde, Hizkuntzatik, Euskaltzaindia. Beraz, Oñatin 1918ko irailean burututako Eusko Ikaskuntzen Kongresuan (*Congreso de Estudios Vascos*) sortu zen Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos (EI/SV) elkarteak<sup>153</sup>. Euskaltzaindia berriz, hurrengo urtean sortu zen, aurrerago azalduko dugun prozesu luzeago baten ostean.

Eusko Ikaskuntzak bi epe nagusi izan ditu<sup>154</sup>: lehena gerraurrekoa, 1918-1936. urteen artekoa, eta bigarrena 1978tik aurrerakoa. Lehenengo epean lehendakari bakarra izan zuen, Julian Elortza, karlista eta Gipuzkoako diputazioko burua<sup>155</sup>. Lehen garaian honen baitan beste hiru une bereiz daitezke: sorrera momentutik Primo de Riveraren diktadura arte (1918-1923), non elkartearen proiektu nagusiak abian jarri ziren (adb. hizkuntza katedrak, kongresuen antolaketa, J. M. Barandiaranen ikerkuntza lan batzuen

---

<sup>152</sup> (Muxika, 1919a: 100)

<sup>153</sup> G. Muxikak RIEVen argitaratutako artikuluan honela dio: “... á consecuencia del Congreso de Oñate se ha formado una Sociedad, que ha de dar permanencia á la labor del Congreso y ha de perdurar como unificadora y directriz del renacimiento de nuestra cultura” (Muxika, 1919b: 112). Elkarteak sortzeko kongresuko erabakia izan zen, eta bertan aukeratu ziren EI/SEVko ordezkariak: A. Campion, ohorezko zuzendaria, J. Elorza, Gipuzkoako Diputazio burua EI/SEVko zuzendaria, J. Urkixo eta P. Broussain, lehendakari orde, A. Apraiz, idazkaria, G. Muxika, idazkari orde. Halaber kongresuan bertan elkartearen izena elebitan ematea eta egoitza Gipuzkoako Diputazioaren jauregian kokatzea erabaki zen.

<sup>154</sup> (Estornes & Valverde, 1996)

<sup>155</sup> Idoia Estornesek bere doktorego-tesian EI/SEVren lehen garaia aztertu zuen: testuinguru historikoa, protagonistak, eta elkartearen proiektu nagusiak eta abar. (Estornes, 1983)

finantziarioa, aldizkari bi bere gain hartzea –J. Urkixoren *RIEV* eta J. M. Barandiaranen *Anuario de la Sociedad Eusko-Foklore...*); ondoko garaia, Primo de Riveraren agintaldia (1923-1930), non diktadurak mugatu zituen elkartearen proiektuak; eta azkenik 1930. urtetik 1936ko gerra arte, non EI/SEVek lehenengo uneko jarduerak berreskuratu zituen, eta esaterako Euskal Unibertsitatearen aldeko proiektua indarberritu zen (horren alde aritzeko *Comité Pro-Universidad Vasca* batzordea antolatu zuen). Noski lehen epea 1936ko Gerrak eten zuen.

Eusko Ikaskuntzaren leloa, “asmoz ta jakitez”, elkarteak aukeratu zuen 1919an, eta leloa Bizkaiko armari batetik atera zuten. Elkartearen leloa euskaraz egon arren, EI/SEVren hizkuntza nagusia, Oñatiko kongresutik bertatik, gaztelania izan zen. Honen gainean, 1930. urtean, garaiko prentsa lekuko dela, *Xabier Lizardi* eta Bonifazio Etxegaraireren artean piztutako eztabaida aipatu behar da. Ondoren EI/SEVn kongresu eta ikastaroetan euskarak izan zuen lekua azalduko da, eta azkenik Euskal Unibertsitate egitasmoan hizkuntza kontua nola planteatu zen.

### 5.2.1. *Lizardi* eta Etxegaraireren arteko eztabaida

Eusko Ikaskuntzak Donostian 1928. urtean antolatutako Udako Ikastaroetako solasaldietatik (*Conversacion sobre “Unión de las entidades euskeristas”*)<sup>156</sup> euskaltzaleen federazio bat sortu zen: *Federación de Acción Popular Euskerista/Euskal Elkarte Bazpatza* (aurrerantzean, FAPE)<sup>157</sup>. Irailean EI/SEVk FAPEren oinarriak onartu zituen, finantziarioa bere gain hartuz. FAPEko lehendakari EI/SEVeko Batzorde Iraunkorreko kideak izan behar zuen, eta Bonifazio Etxegarai izendatu zen. FAPEren baitan elkarerik aktiboena Euskaltzaleak elkarte<sup>158</sup> zen, eta une hartan *Xabier Lizardi* zen elkarteko buru.

<sup>156</sup> Idoia Estornesi jarraituz, Donostiako solasaldiak prozesu luzeago baten azken emaitza dira (Estornes, 1983: 181-183).

<sup>157</sup> FAPEn bildu ziren honako elkarte hauek: Iparraldeko *Euskaltzaleen Biltzarra*, Gipuzkoako *Euskal-Esnalea* eta *Euskaltzaleak*, Bizkaiko *Jaungoiko-Zale*, Nafarroako *Euskeraren Adiskideak*, eta Arabako *Baraibar taldea*.

<sup>158</sup> Euskaltzaleak, belaunaldi gazte euskaltzaleek EI/SEVren baitan sortutako elkarte jeltzale eta katolikoa zen. Idazle eta poeta euskaltzaleak erakarri zituen taldeak (*X. Lizardi*, A. M. Labaien...) euskararen aldeko argitalpenak, ekitaldiak eta literatur lehiaketak sustatzeko.

*Lizardi* Euskaltzaleak elkarteko buru izanik, *Eusko Ikaskuntzaren Deian* argitaratu zuen EI/SEVren Batzar Iraunkorrean proposatutakoa. *Lizardi* euskara maila jasoan erabiltzearen alde agertu zen, besteak beste, euskara noranahikoa egiteko, eta herri xeheari eredu emateko. Horregatik guztiagatik *Lizardik* EI/SEVri eskatu zion bere batzarretan euskara erabiltzeko<sup>159</sup>. Are gehiago, euskararentzat EI/SEVren baitan presentzia minimoa bermatzeko batzarrari bi proposamen zehatz egin zizkion:

“I. Iru illabetez beingo batzarre bakoitzean batzarkide euskeldun batek bederik, itzaldi labur bat euskeraz egin beza.

II. Batzarre oien berri, ez erdera utsez baizik euskeraz ere eman bitzaie izperringiei, ta bai euskerazkoan bai erderazkoan adirazi bedi olakok edo alakok bere gaia euskeraz azaldu zula.”<sup>160</sup>

Bonifazio Etxegaraik “El euskera en las empresas de cultura”<sup>161</sup> artikuluan, Zalakainek jasotzen duenez, “lasai egoteko eta pazientzia eskatua zien euskara gehiago nahi zutenei”<sup>162</sup>. B. Etxegarairen artikulua kariaz, *Lizardik* artikulua bat argitaratu zuen bi partetan *El Día* egunkarian: *Euskera aundiki-soñekoz I* eta *II*<sup>163</sup>. Bertan *Lizardiren* tesi nagusia zen, *handikiak* euskaraz arituko balira, eredu izango liratekeela herritarrentzat eta euskararen berreskurapena ziurtatuko litzatekeela. Baina *handikiak* Euskal Herrian erdaraz ari ziren:

“Alegia, zoritxarrez, are aundiki euskeltzaleenok ere gure jardunak euskeraz aritzea gaitz degula. Geren buruon jazte osoa erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea: nai-ta-naiez bear alegin zalla, geronen artean bederik gai biurri samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta, batetik erderaz aritzea errezago, bestetik erderaren bidez geren buruok ederrago erakusten aal, milla akiakula sumatzen ditugu egitezko erdeltzaletasun ori bidezkoetzeko.”<sup>164</sup>

Aipatutako artikuluan, *Lizardik* nabarmentzen zuen EI/SEVren baitako inkoherentzia, hau da, elkartearen baitan euskarak zuen aitortza eta euskarak elkartean zuen presentzia, ez zetozela bat. EI/SEVren batzarretan gaztelania erabiltzen zen eta euskararen presentzia idatzira “baztertuta” zegoen, hots, elkarteko hiru hilabetekarian lantxo bat eta zenbait berriren argitalpena. Horren aurrean *Lizardik* irtenbide erradikalak baztertu, eta proposamen egingarriak planteatu zituen:

---

<sup>159</sup> *Lizardi* zehazki honako hau eskatu zuen: “batzarre auetan euskeraren otsa entzutea biziki atsegin lutekela euskozale orok” (*Lizardi*, 1995: 61)

<sup>160</sup> (*Lizardi*, 1995: 62)

<sup>161</sup> *El Día*, 1930.09.21.

<sup>162</sup> (Zalakain, 1993: 182)

<sup>163</sup> *El Día*, 1930.09.25 eta *El Día*, 1930.09.27.

<sup>164</sup> (*Lizardi*, 1995: 63)

“Badakit nik, bat-batetan, euskera utsez, bere batzarrak egiten ezin asi ditekela «Eusko-Ikaskuntza». Baña, beintzat, izkera biak naasi lezazke, ta batzarrero ordu-laurdentxo batean euskeraz aritzeko oitura artu ere bai”<sup>165</sup>.

*Lizardiren* artikulu biek B. Etxegarai sutan jarri zuten eta B. Etxegaraik *Lizardiri* aurpegiratu zion bileretan euskaraz ez zela aritzen. *Lizardik* “Elkar bidean” artikuluan B. Etxegarairen kritika onartu, eta imajinazio ariketa bat proposatu zion:

“Begira. Egin zagon kontu sei illabete barruko izparringi bat eskuetan degula. «Eusko-Ikaskuntza»-ko Bazkintza-batzarren agiria dakar. Ta ona bertatik zer irakurtzen ari nazun: «Batzarre-azkeneruntz Lendakari jaunak, eguneko jardungaiak agortuak zirala esan ondorean, auxe otsegin zun: «Orain, jaun euskeldunek euskeraz». Ta gañeratu zun bereala: «Gaurkoa leenbizikoa dala-ta, **Euskeltzale-Batza dalakoaren Buru jaun Etxegaraiek** beza aldi». Ordun, Etxegarai jaunak, berebiziko euskera samurrez, **leen erderaz jardundako guztia labur-bildu zun**. Gañerako batzarkide euskeldunak, bat orain gero bestea, guziek sartu ziran tartean, elkar galdeka ta zirika. Batzarkide erdeldunetarik batek bederik etzun aldegin: guziek antxe aoa zabalik, euskeldunei begira txoraturik. **Jardun ortan ordu-laurdentxo bat egin ondoren**, Lendakariak batzarre-itxitzea jo zun.”<sup>166</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, eztabaida oso fokalizatuta zegoen B. Etxegarai eta *Lizardiren* artean. Eztabaidak FAPEn dinamizatzailaren eta zuzendariaren arteko tentsioak islatzeaz gain, euskararen normalizazioaren abiaduraren gaineko bi ideologia desberdinen arteko eztabaida izan zen. Izan ere, B. Etxegarai katoliko, euskaltzale, foruzale, independentea zen, eta *Lizardi* aldiz, abertzalea eta euskaltzalea. Horretaz aparte, eztabaidak euskaltzale belaunaldi zahar eta gaztearen arteki tentsioak ere islatzen zituen. Une hartan B. Etxegaraik 52 urte baitzituen eta *Lizardik* 34. *Lizardik* argi jaso zuen:

“Giza-asmo aundi guzietan gertatzen da. **Gizaldi gazteak zaarrari zirika, zaarrari bultza. Zaarra bere egonean goxo, ta aurrerago ez nai**. Gazteak: «Eup! Garaia da». Zaarrak: «Ago ixilik, lotsagabea!». Barkatu, ontan ere artobero-usaia badarigu, geren buruok gaztetzat jotzez. Nik eztakit guri zer gertatuko zaigun. **Gu ere, Jainkoak nai beza!, zaartuko al gera ta sutondo-zaletuko, ta uste izango al dezu ñor eztitekela gu baño areago**. Ta Jainko onari dakiola **ordurako beste gazte-sail bat agertu izatea, guri zirika, guri bultzaka, gu baño aurrerago-naiekoa**. Txakurrarenak esango dizkiotegu, bear bada. Aitatuko dizkiotegu «odolker», aundiustea, naastu-bearra, burgoikeria ta buru-arlotetza. **Baña, gure esanak gora-beera, gazteok bijoaz aurrera, gurekin naiz gure gañetik; bijoaz, ordun min emango badigu ere**.”<sup>167</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>165</sup> (Lizardi, 1995: 64)

<sup>166</sup> (Lizardi, 1995: 71)

<sup>167</sup> (Lizardi, 1995: 75)

Profetikoak izan ziren *Lizardiren* hitzak. Gerraostean, 50eko hamarkadan, gazte euskaltzale odolberoak, esate baterako *Txillardegik* eta *Jakin* aldizkariaren ingurukoek nolabait gerraurreko herentziarekin hautsi zuten, euskararentzat beste asmo eta proiektu berriak planteatuz.

### 5.2.2. Gerraurreko ekitaldiak: kongresuak eta udako ikastaroak

Aipatuenez, Eusko Ikaskuntza erakundea Oñatin sortu zen 1918. urtean burututako Eusko Ikaskuntzen Kongresuan. Kongresuari jarraipena emateko sortu zen eta kongresu berriak antolatu zituen. Eusko Ikaskuntzen kongresuak hiru garai nagusitan antola daitezke: lehenengo garaia, gerraurreko kongresuena (1920-1930); bigarren garaia, gerrostekoa, zeinetan Eusko Ikaskuntza erakunde gisa ia hiltzorian zegoen erbesteko erakundea bazen ere, bi kongresu antolatu zituen, biak Iparraldean (1948-1954); eta hirugarren eta azken garaia, Eusko Ikaskuntza J. M. Barandiaran buru zela erakunde gisa birsortu ondoren, 1983. urtetik aurrera antolatutakoak.

Gerraurreko kongresuak, lehenengoa izan ezik, gai monografiko banari buruzkoak izan ziren. Oñatiko kongresuaren ostekoa, Iruñekoa (1920), hizkuntza eta arazo ekonomiko-sozialei buruzkoa izan zen, eta Gernikakoa (1922) hizkuntza eta irakaskuntzari buruzkoa. Gernikako kongresuaz geroztik, hurrengo biak lau urterik behin antolatu ziren: lehena, Gasteizen (1926) lanbide heziketa eta irakaskuntzaren gainean, eta bigarrena, Bergaran (1930), euskal arte herrikoari buruz.

Gerraurreko bost kongresuetan euskaraz hiru hitzaldi baino ez ziren egin. Hala ere, izan zen kongresuak euskara hutsez egiteko halako azaleko proposamenik. Oñatiko Kongresuan (1918) Julian Elortzak, karlista euskaltzale, Gipuzkoako diputazioko Ahaldu Nagusi eta geroko EI/SEVren lehendakari zenak, Julio Urkixoren konferentziaren aurkezpenean hauxe esan zuen:

“Es nota altamente consoladora y que me ha parecido muy conveniente el señalar en este acto, el interés extraordinario que han despertado las secciones de la raza y lengua. Ello, a mi modo de ver, demuestra con toda elocuencia el interés que tenemos todos de que nuestra peculiar lengua salga de la postración y abatimiento en que la han colocado la apatía de muchos y hasta el odio que no pocos la profesan, y en que la fundamos, sin temor ni tibiezas por todos los ámbitos del pueblo vasco, a fin de que de esta manera **podamos celebrar, en fecha no muy lejana, un**

**Congreso en cuya convocatoria podamos decir lo que no hemos podido ahora: La lengua oficial de este Congreso será el Euskera. (Bravos y aplausos)**<sup>168</sup> [beltzak gureak dira]

J. Elortzak EI/SEVko lehendakari izanik, eskura zeukan kongresuetako hizkuntza ofiziala euskara jartzea. Baina asmo oneko hitz hutsetan geratzen zen kontua: bai kongresuan, eta oro har bai hizlari bai entzuleen artean, euskararen aldeko giroa bizi zen, baina ez besterik. Praxia bestelakoa baitzen, alegia erdarazkoa.

Gerraurreko kongresuetan euskarazko hiru hitzaldiak honako hauek izan ziren: Gernikako kongresuan (1922) Seber Altube eta Resurrecion M<sup>a</sup> Azkueren<sup>169</sup> hitzaldi bana, biak euskal hizkuntzalaritzari buruzkoak, eta hirugarrena R. M. Azkuek Bergaran (1930) emandakoa Etnografiaren gainean<sup>170</sup>. Hiru hitzaldi hauek nabarmentzekoak dira, euskara kongresu zientifikoetan erabiltzen zen lehen aldia zelako eta aldi berean fenomenoaren ezohikotasuna erakusten duelako. Gure gaiarekin zerikusia duenez, hitzaldiotatik bat azalduko dugu.

Seber Altube arrasatearrak, ordurako euskaltzain oso zenak, lexikografia arloko gai bat aukeratu zuen: “Euskel-itx bafijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen”. Bertan euskarak behar zituen hitz berriak sortzeko erdal jatorriko hitzak hartzeko proposamen zehatza egin zuen. Garaiko testuinguru hartan, non euskaltzale gehienak garbizaleak, edo hipergarbizaleak ziren, S. Altube ausarta izan zen, kasu batzuetan erdal maileguak hartzea komenigarria zatekeela proposatu baitzuen, bereziki erregistro jasoan edo jakintzaren esparruan. Bi kasu aipatu zituen, ingelesena eta alemanena. Ingelesek latinetik hitzak konplexurik gabe hartzen zituzten bitartean, alemanak beren hizkuntzaren erroko hitzak sortzen saiatzen ziren. S. Altubek, euskararen kasuan, alemanaren bidetik muturrera jo zela, eta nazioarteko erroekin inongo antzik ez zuten hitzak sortu zirela aipatzen zuen. Bere ustez horrek bi eragozpen nagusi zituen: alde batetik ez zeuden arloz-arloko hainbeste aditu hiztegiak sortzeko eta erabiltzeko<sup>171</sup>, eta bestetik,

<sup>168</sup> J. Elortzaren hitzak J. Urkixoren hitzaldiaren sarreran (Urkixo, 1919: 404).

<sup>169</sup> Euskaltzainburua Gernikan euskal semantikari buruz aritu zen euskaraz, nahiz eta bere hitzaldiaren izenburua gaztelaniaz egon (Azkue, 1923)

<sup>170</sup> (Azkue, 1934: 93)

<sup>171</sup> “gure jakitunak, bakafik, gitxi dira jakintza bakoitzean, euroi jagokoezan iztegi berarizkoak eraldu ta, batez ere, zustraitu erazoteko” (Altube, 1923: 89)



“Gure efijonek ezin argitaldu leikez, alemantafak bezela (4), munduko jakintza orori, euron auferakuntza guztijetan egunetik-egunera jafaitzeko bezeribat liburu, efebista ta abar; onexegaitik **euskaldun jakitun ta jakin-zaleak, euskerazko irakurgaijez gaiñera, beste izkera zabal aundikook ere safi izango ditue irakufi beaía; ta izkera oneek eta gureak, jakintza-itzak zustrai bardinezko ez izateak asko gaiztuko leuskijoe egin-bear ori**”<sup>172</sup>  
[beltzak gureak dira]

Beraz, S. Altubek nazioarteko hitzak hartzea proposatzen zuena. S. Altuberen bideari oso gutxik jarraitu zioten, eta oraindik gaur egun eztabaidak indarrean dirau<sup>173</sup>.

Eusko Ikaskuntzak kongresuez gain, Donostian 1927. urtetik aurrera udako ikastaroak antolatu zituen. Haietan hizkuntzaren praxia kongresuetakoaren antzekoa gertatu zen. Hau da, euskarari eta euskal kulturari buruzkoak ziren, baina euskararen erabilera oso txikia zen.

EI/SEVk udako ikastaroen berri emateko liburuxkan aipatzen zuen Donostiako ikastaroen oinarrian zegoen abiapuntu ideologikoa: Euskal Herria, eta bereziki, euskal kulturaren berezko elementuak, edo elementu bereizgarriak, aztertzea. 1927ko liburuxkaren sarreran bertan aitortzen zenez:

“La Sociedad de Estudios Vascos ha estimado que la organización de estos Cursos de Verano, constituye una de las obras más necesarias y oportunas a que pudiera llevar su acción. Aspirando siempre a la creación de la Universidad Vasca, puede y debe aprovechar la época de vacaciones en que los profesores y alumnos que habrían de formar aquélla no se encuentran retenidos por sus deberes académicos, para **cultivar con ellos los estudios peculiares de su país, que juntamente con los universales humanos habían de constituir el alma mater de la cultura vasca**”<sup>174</sup> [beltzak gureak dira]

Hala, udako ikastaroen lehen urtean landutako gai nagusiak Hizkuntzalaritza (euskal gramatika), Antropologia Fisikoa (euskal antropometria), Historia (euskal historiaren iturriak eta arazoak), Artea (Euskal Herriko artea), Folklore (euskal folklorea), Zuzenbidea (euskal zuzenbide tradizionala) eta Dokumentazioa (euskal hizkuntzaren eta kulturari buruzko bibliografia) izan ziren. Beraz, mende hasierako udako ikastaroetan, Euskal Herria eta euskara ikerketa objektuak ziren eta, jakintza-arlo desberdinetatik ikergai horietara hurbilketak egitea planteatzen zen. Noski ikergaiaren

---

<sup>172</sup> (Altube, 1923: 90)

<sup>173</sup> Ikus adibidez *karniboro* hitzaren inguruko eztabaida (Altonaga, 2001: 56-69 eta Altonaga, 2005)

<sup>174</sup> 1927ko Udako ikastaroen liburuskatik (cfr. *Cursos de Verano de la Sociedad de Estudios Vascos: (1 a 10 de julio de 1927)*)

gako nagusien izaera dela-eta, hau da, euskal kultura eta hizkuntza aztertzea, planteamendu horri ongien egokitzen ziren jakintza-arloak Giza eta Gizarte-Zientziak izan ziren, ikastaroetan gehien landutakoak hain zuzen ere. Hurrengo urteko udako ikastaroetan idearioa berretsi eta are sakondu egin zen hiru alderditan: lehena unibertsitate beharra, eta udako ikastaroen bokazio formatiboa unibertsitatea lortze bidean<sup>175</sup>; bigarrena, Euskal Herriaren berezitasunak<sup>176</sup> eta, hirugarren eta azkena, gaztelaniaren erabileraren baieztapen sendoa:

“Desde la iniciación de estos Cursos en el pasado verano, han tenido los mismos mucha aceptación entre los numerosos extranjeros que hoy estudian las modalidades de la vida de España y especialmente su lengua. El haber de darse la mayor parte de los Cursos en castellano, les permite la práctica en él que desean”<sup>177</sup>

Udako ikastaroen programa ofiziala, hitzaldiak zein saio osagarriak gaztelaniaz izan ziren, salbuespen birekin: euskarazko mintza praktika<sup>178</sup>, eta antzerki obra bat. Euskaraz egiten zirelako preseski adierazten zen “en euskera”.

1930. urtetik aurrera Donostian ez ezik, Eusko Ikaskuntza Udako Ikastaroak Euskal Herriko beste herri edo hiri batzuetan antolatzen hasi zen (Bergara, Bilbo, Iruñea...). Aipatutako urtean Bergara aukeratu zen Eusko Ikaskuntzen bosgarren kongresuarekin batera burutzeko.

1932. urtetik aurrera EI/SEVek udako ikastaroetan euskal hizkuntzaren ezagutzaren gaineko azterketa antolatzen zuen<sup>179</sup>. Azterketak FAPEk kudeatzen zituen, eta horregatik lehen urteetako azterketen epaimahai-burua Bonifazio Etxegarai izan zen, eta epaimahaietan Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskaltzaleak elkarteko ordezkariak parte hartzen zuten. Azterketak funtzionario eta maisu/maistrek egiten

<sup>175</sup> “La sociedad trata de perfeccionar con ello su acción respecto al presente y al porvenir de la cultura del País Vasco, que, privada de su órgano adecuado y rector por la falta de una Universidad permanente, necesita la formación de investigadores de las realidades de nuestro pueblo” (Cf. *Cursos de Verano de 1928 de la Sociedad de Estudios Vascos*)

<sup>176</sup> Udako Ikastaroen 1928ko liburuskatik jasota: “El conocimiento de la lengua peculiar, de la geografía, de la historia, de las tradiciones sociales, artísticas y jurídicas del País, de su material humano, de sus fuerzas naturales y de sus modalidades económicas”

<sup>177</sup> 1928ko Udako ikastaroen liburuskatik (cfr. *Cursos de Verano de 1928 de la Sociedad de Estudios Vascos*)

<sup>178</sup> Saio hauek urteen arabera pertsona desberdinek gidatu zituzten, hala nola, Gregorio Muxika, Ixaka Lopez-Mendizabal, *Xabier Lizardi*, Jose Eizagirre eta abar.

<sup>179</sup> I. Estornesen arabera, euskara azterketak 1931ko udan sortu ziren (Estornes, 1983: 179), guk 1931ko liburuskari horren berririk ez dugu aurkitu, 1932koan bai.

zituzten<sup>180</sup>, sasoi honetan udaletxe batzuk hasi baitziren euskararen gaineko ezagutza eskatzen<sup>181</sup>. Beraz, euskaldun (ia) elebkarrekin aritu behar zuten lanpostuetarako aurreikusitako azterketa bat zen.

Donostiako 1934ko udako ikastaroen baitan eman ziren 24 hitzaldietatik<sup>182</sup>, 4 euskaraz izan ziren. Beraz 1934an lehen aldiz udako ikastaroen programa nagusiko ponentzia batzuk euskaraz eman ziren. Aurreko urteekin konparatuta, hazkunde kualitatiboa eta kuantitatibo nabarmena izan zen. Hazkunde horren atzean elkarte berri baten sorrera zegoen: *Euskaltzaindiaren Laguntzaleak*. Laguntzaileak 1933ko irailean sortu ziren Donostian, Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren babespean. Bertako kideak izan ziren euskarari buruz euskaraz aritu ziren bakarrenetakoak udako ikastaroetan. Hurrengo urteetan, Laguntzaileek urtero bizpahiru hitzaldi antolatu zituzten.

### 5.2.3. Euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitate bat lortzea izan zen Eusko Ikaskuntzaren errebindikazio nagusietakoa, bere sorrera unetik bertatik. Hala ere, orokorrean gerraurreko Euskal Unibertsitatearen proiektua ez zegoen lotuta euskarazko irakaskuntzarekin. Mikel Aizpuruk laburbildu du gerraurreko Euskal Unibertsitatean zein toki aurreikusten zuten euskararentzat:

“Gerra aurrean, Euskal Unibertsitatearen aldeko gehienek ustez, unibertsitatearen zereginen artean, lehenengo mailako tokia izan behar zuten euskarak eta euskal kulturaren azterketak eta babesak. Lehenengo mailako irakaskuntza euskaraz azaldu behar zelakoan ere bazeuden. Baina, gutxi defendatu zuten unibertsitateko lan-hizkuntzetako bat euskara bera izan zitekeela.”<sup>183</sup>

Garaian bertan, 1922an, Jean Etxepare idazleak seinatu zuen arazoa: “Erran behar ote dut erakaspen gehienak espainolez litezkela emanak delako ikastetxean?”<sup>184</sup>.

---

<sup>180</sup> “De modo especial interesarán en relación con esta finalidad, a los Maestros y Maestras de Primera Enseñanza y a los demás funcionarios y profesionales que hayan de ejercer en el País Vasco y que si para ello necesitaran el conocimiento del euskera, hallarán en los Cursos modo de conseguirlo y en nuestros exámenes certificaciones para demostrarlo” (1932ko Udako ikastaroen liburuskatik).

<sup>181</sup> (Rodríguez Ranz & Unanue, 1994)

<sup>182</sup> Ez ditugu zenbatu hitzaldi gisa egun osoko txangoak, nahiz eta horietan ere hitzaldiak emango ziren, ezta saio ofizialak (bilera orokorrak, harrerak eta abar).

<sup>183</sup> (Aizpuru, 2003a: 20)

<sup>184</sup> Aipatua in (Altonaga, 2006a: 86)

30ko hamarkadan prentsan Euskal Unibertsitate edo “Euzko Irakastola Nagusija”ren<sup>185</sup> inguruan hainbat artikulu argitaratu ziren: berriak, iritzi artikuluak, matrikulatzeko oharra eta abar. Esate baterako *Lauaxetak Euzkadi* egunkarian euskal unibertsitatearen alde idatzi zuen artikulu bat<sup>186</sup>. Idazlana nahikoa ezaguna denez, ez dugu hemen aztertuko. Bestalde, Madrilen ikasten ari ziren euskal ikasleek Euskal unibertsitatearen alde eratu zuten Euzko Ikasbatza edo *Agrupación de Cultura Vasca* elkarte 1930 urtean<sup>187</sup>. Elkarte honen sorrera oso lotuta zegoen Eusko Ikaskuntzak Madrilen antolatutako euskara katedrarekin. Ikasbatzaren ekimenik interesgarriena 1932ko galdetegia izan zen. Galdetegiak euskal unibertsitatearen inguruko 5 itaun zituen eta egunkarietara bidali zuten iritziak biltzeko<sup>188</sup>. Prentsan zabaltzeaz gain, galdetegia euskal zein erdal jatorriko adituei eta ospeko pertsoneri bidali zieten. Erantzunekin liburu bat argitaratu zuten Ikasbatzakoek. Galdetegian euskararen inguruko galdera espliziturik ez zen. Hala ere, bakarren batek, eta zeharbidez gehienek, euskal unibertsitate horretan, beren ustez, euskararen presentziak nolakoa izan beharko zukeen aipatu zuten. Esate baterako Pantaleon Ramirez Olanok urrun ikusten zuen euskara unibertsitatean sartzea<sup>189</sup>, eta Miguel Unamunori aldiz ezinezkoa iruditzen zitzaion:

“El vascuence, en mi opinión, no llegará nunca a ser un instrumento de cultura. Turró, el insigne pensador y biólogo catalán, me decía en una ocasión que él, cuando se ponía a escribir sobre temas biológicos, tenía que hacerlo en castellano, que, aunque no lo usaba corrientemente, era la lengua en que había aprendido sus conocimientos. Sería difícil someter al euzkera muchas disciplinas científicas. La traducción en lengua tan primitiva, tan inflexible como la vasca, puede llegar hasta torcer el recto sentido de la frase”<sup>190</sup>

Gerraurrean beraz, Euzko Irakastola Nagusijaren aldeko mugimenduak erakunde unibertsitarioa eskatzen zuen, baina ez euskarazko irakaskuntzarik. Bakan batzuk Euzko Irakastola Nagusijan euskal hizkuntza ikasteko eskolak egon behar zirela aipatzen

<sup>185</sup> “Euzko Irakastola Nagusija” erabiltzen dugu sasoian unibertsitatea euskaraz aipatzeko egon ziren aldaera guztiak laburbilduz: Euzko/Eusko, Irakastola/Ikastetxe/Ikastola, Nagusija/Nagusia/Nausija.

<sup>186</sup> *Lauaxeta*: “Euzko-Irakastola Nausija” *Euzkadi*, 1932.02.10.

<sup>187</sup> Ikus Euzko Ikasbatzaren gainean, Utafak ikasbatzako kide zenak, argitaratutako *Euzkerea* aldizkarian: “Euskel-ikasleak, Madrid’en” *Euzkerea*, 1931ko maiatza.

<sup>188</sup> Galdetegia euskarara itzulita dago, baina jatorrian gaztelania prestatu zen. (Eusko Ikasbatza, 1932: 23). Galdetegiaren euskarazko bertsoia ikus Utara “Euzko Ikastola nagusi alde” *Argia*, 1932.02.17.

<sup>189</sup> Ramirez Olanok zehazki hauxe zioen: “Desgraciadamente, la euskerización completa de nuestra Universidad no pasa de ser un sueño, cuya realización, aun descontada la existencia del docente, había de tardar... No señalemos plazo. Había de tardar muchísimo tiempo.” (Eusko Ikasbatza, 1932: 98)

<sup>190</sup> (Eusko Ikasbatza, 1932: 22)

zuten. Testuinguru honetan unibertsitateko eskolak euskaraz emateko proposamenik ausartena Aita Mikel Altzok egin zuen 1934an *Argian* argitaratutako iritzi artikuluan. M. Altzok unibertsitate hizkuntzen bilakaera aztertu ostean, eta Belgika, Letonia eta Poloniako kasuak landu ondoren, unibertsitatean euskarazko irakaskuntza posible zela argi zuen: “Beraz Eusko-Ikastola Nagusiak ere alegiñak egin bear ditu euskeraz bere gaiak irakasten, batez gogo-gaiak, irudimen-gaiak, biotz-gaiak.”<sup>191</sup>

### 5.3. Goi-mailako aldizkariak

Ondoko atal honetan bi aldizkari aztertuko ditugu: Parisko RIEV eta Gasteizko *Anuario Eusko Folklore*. Biak euskararen eta euskal kulturari buruzko goi mailako aldizkariak ziren, baina, ikusiko dugunez, euskarazko artikulua gutxi argitaratu zituzten. Aipatutako horien bien aurretik, Berlinen *Euskara* aldizkaria kaleratu zen (1886-1896)<sup>192</sup>. Joxe Azurmendik zioen moduan, *Euskara* aldizkariari buruz ari zela, aldizkariotik euskara agertzen da “estudioaren edo estudiorako objeto bezala bakarrik erabilia; ez autoreon espresio medio bezala”<sup>193</sup>. Ez da harritzekoa, aldizkari proiektu hauen lehen helburua “zientzia” egitea baitzen, euskara aitzineratzeko asmoak oso bigarren planoan utziz. Guztiz disoziatuta zeuden ikerketa eta hizkuntzaren sustapena. Jarrera hori bera, zenbait urte geroago, euskaldun batzuk ere agertu zuten. J. M. Barandiaranentzat esate baterako, bazen garaia euskara eta euskal kulturaren gaineko ikerketari ekiteko, baina ikerketa lana euskaraz egitearen inguruan ez zuen ezer esan. Honelaxe mintzatu zen Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldian:

“Ingalateñan’, Alemania’n, Suiza’n, Polonia’n eta beste efi askotan guri, gai onetan, aúfea aftu digute. Ofetarako, lagunafte ugari eta aldizkingi asko dituzte. Beraz ez da afitzekoa aiek beren efiyakintza, guk gerena baño obeki jakitea. Bañan emendik aufera ez da ori esaten lanik izango, baldin Eusko-Ikaskuntza’k, Euskaltzaindia’k eta euskaldun jakintsuak eta gai oetako lagunafteak, gauzak itxura dutenez, lan oei afetaz ekiten badiete”<sup>194</sup>

---

<sup>191</sup> “Eusko-Ikastola Nagusia ta euskera” *Argia*, 1934.07.22.

<sup>192</sup> Berlineko *Euskara* giro eta helburu arras diferenteekin kaleratu zen. *Euskara* 1886. urtean sortutako “Baskische Gesellschaft” edo “Société Basque” elkarteak sortu zuen. *Euskara*, aldizkari zientifikoa eta aldi berean elkartearen organoa zen. Beraz, artikulua zein elkartearen gaineko berriak kaleratu ziren bertan. Aldizkaria Berlinen argitaratu zen 1886-1896. urteen artean. Tarte horretan, maiztasun finkorik izan ez zuten, 17 zenbaki eta 144. orrialde inprimatu ziren. Azurmendiren arabera: “Artikulu gehienak alemanez daude; ingelesa, frantsesa eta euskara dira beste hizkuntza erabilienak; apur bat gaztelania.” (Azurmendi, 1978: 110)

<sup>193</sup> (Azurmendi, 1978: 110)

<sup>194</sup> (Barandiaran, 1924: 38)

Aipatutako aldizkariak ez dira gerraurreko goi mailako aldizkari bakarrak, besteak beste Euskaltzaindiak *Euskera* buletina argitaratzen baitzuen. Baina, *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkaria zen heinean, eta aurreko hiruretan baino euskarazko lan gehiago argitaratu zituelako, hurrengo atalean aztertuko dugu.

### **5.3.1. RIEV, Urkixoren aldizkaria**

*Revista Internacional de los Estudios Vascos* (aurrerantzean, RIEV) aldizkariaren lehen zenbakia 1907. urtean plazaratu zen<sup>195</sup>. Julio Urkixo hizkuntzalariaren ekimenez sortu zen. Berak aldizkarirako testuak prestatu zein probak begiratzen zituen eta, aldi berean, aldizkariaren zuzendaria zen. Aldizkaria J. Urkixoren proiektu pertsonala izan zen, berak ekonomikoki eutsi zuen eta akademikoki aldizkariaren irizpideak ezarri zituen. G. Monrealek dioenez, RIEVen ernamuina J. Urkixok Parisen G. Lacomberekin izandako solasak izan ziren<sup>196</sup> (gerora G. Lacombe aldizkariaren idazkaria izan zen). Hasiera batean, aldizkaria bihilabetekaria zen, hala ere urteak aurrera egin ahala, eta seguru asko material falta tarteko, urteko zenbakiak gutxitu ziren.

RIEV bi erakunderen organoa izan zen: lehenik 1911. urtean Baionan sortutako *Cercle d'études euskariennes* (CEE), eta ondoren 1921. urtetik aurrera Eusko Ikaskuntzarena. CEEko burua J. Urkixo zen eta berak jarri zuen aldizkaria elkartearen eskura. Lehen mundu gerrak, biak, elkartea zein aldizkaria eten zituen lau urtez<sup>197</sup>. Gerra amaitzean, CEE ez zen berpiztu, bai ordea aldizkaria. 1918. urtean berriro argitaratzen hasi zen eta, 1921. urtean J. Urkixok K. Eleizalderekin negoziatu zuen aldizkariaren integrazioa Eusko Ikaskuntzan (J. M. Barandiaranek sortutako *Anuario de la Sociedad Eusko-folklore* ere une hartan igaro zen Eusko Ikaskuntzaren eskuetara).

<sup>195</sup> Baina aldizkariaren proiektua gutxienez aurreko urtetik ontzen ari zen, Azkuek 1906ko gabon egunean J. Urkixori bidalitako eskutitzean "Revista" zertan zen galdetzen zion, (R. M. Azkuek J. Urkixori bidalitako gutuna, 1906.12.24an, Azkueren gutuneria, ABA).

<sup>196</sup> (Monreal, 2001)

<sup>197</sup> R. M. Azkuek H. Schuchardt-i jakinarazten dio J. Urkixok gerrak dirauen bitartean ez duela RIEV argitaratzeko asmorik (R. M. Azkuek H. Schuchardt-i bidalitako gutuna 1914.10.21an, Azkueren gutuneria, ABA).

Hola RIEV Eusko ikaskuntzaren organoa bilakatu zen. Gerra Zibilarekin aldizkaria bertan behera geratu zen<sup>198</sup>.

Lehenengo zenbaitik RIEV, *euskal gaien* gaineko goi mailako aldizkaria izan zen, aldizkari zientifikoa, nazioarteko bokazioa zuena eta mundu osoko euskalarien topagune izateko sortua<sup>199</sup>. J. Urkixo pertsonalki arduratu zen oinarri zientifiko gabeko lanak aldizkarian ez argitaratzen. Beraz, Euskal Herrian errotutako gaiak, eta bereziki euskararen gaineko azterketa zientifikoak argitaratu zituen. Halaber, RIEVek euskararen, eta oro har *euskal gaien*, inguruko erreferentziazko aldizkaria izateko asmoa zuen Europa osoko hizkuntzalari eta bestelako ikertzaileentzat. Teorian nazioarteko bokazioa zuen arren, praxian hankamotz geratu zen. Aldizkarian argitaratutako ikerketa-lan gehienak gaztelaniaz eman ziren, baten batzuk frantsesez eta gutxi batzuk euskaraz, banakaren bat ingelesez (adb. E. S. Dogdson) eta alemanez (adb. H. Schuchardt). Hau da, nazioarteko zientziaren elkartruckerako hizkuntza frantsesa zenean, eta RIEV Parisen publikatzen zen arren, nazioarteko bokazioa zuen aldizkariak nagusiki gaztelaniazko artikulua publikatu zituen.

Euskara, lau motatako lanetan agertu zen: ikerketa lanetan, euskararen suspertze eta erakundetzearekin lotutako hitzaldi eta kroniketan<sup>200</sup>, testuen edizio filologikoan eta literatur irakurgaietan<sup>201</sup>. Aipatutako lau modalitateetatik euskara gehienetan edizio filologikoetan agertzen zen, egile klasikoen testuak euskaraz zeudelako (*Axular*, J. Etxeberri, J. Tartas eta abar). Baina edizioak berez, prestatzaileek erdaraz atontzen zituzten (adb. sarrera hitzak, oin-oharrak...). Beraz, euskara jakintza-arlo bateko komunikazio hizkuntza gisa oso gutxi erabili zen, eta euskaraz artikulua gutxi argitaratu ziren RIEVen. Lehen mundu gerra arte bakarrik 5 egilek erabili zuten: K. Etxegaraik, B. Joanategik, J. B. Daranatzek, M. Landerretzek eta J. B. Darricarrèrek. Horietako bat aztertuko dugu adibide gisa, B. Joanategiren testua hain zuzen ere. Bertan A.

---

<sup>198</sup> Ordura arte Julio Urkixo izan zen zuzendaria. 1983. urtean, Eusko Ikaskuntza berpiztu (1978) eta gero, aldizkaria berriz argitaratzen hasi zen, baina oraingoan Julio Caro Baroja zuzendaria zen eta lan horretan aritu zen hil zen arte 1995. urtean.

<sup>199</sup> Aldizkarian 1907-1936. urte tartean ia 200 bat egilek parte hartu zuen, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak eta atzerritarak (frantziar jatorrikoak egileak ugariak izan ziren, baina aleman, suitzar, holandar, errusia, ingelesak eta espainiarrak ere aritu ziren) (Monreal, 2001: 23)

<sup>200</sup> Adb. G. Muxikak euskararen alde emandako euskarazko hitzaldiak, Euskalzaleen biltzarraren bileraren kronika, ekitaldietako aktak...

<sup>201</sup> Adb. Agirreren *Garoa* atalez atal agertu zen.

Campioneek *Euskal-esnalean* argitaratutako Hizkuntzalaritza arloko artikulua bati erantzuten zion. A. Campioneek bere produkzio ia guztia erdaraz idatzi zuen, eta euskara ulertu, ikertu eta sustatu arren, ez zuen jende aurrean hitz egiten. B. Joanategik aldiz, gaztelania ulertu arren, ez zuen artikulua hizkuntza hartan idaztea erdietsi, edo ez zuelako nahikoa konpetentziarik, edo erdaraz idazteko prest ez zegoelako. Beraz, kasu honetan euskara agertzen zaigu Iparralde eta Hegoaldeko ikertzaileen arteko komunikazio-hizkuntza gisa. Ikus, B. Joanategiren testutik haututako pasartean nola oraindik euskarazko oinarrizko azalpen linguistikoa ez zegoen nahikoa garatuta, eta ez zenez autoaskia erdaraz errotu beharra zuen: “Deukanean artzalletzat (por regimen indirecto), izen bat, jartzen duela izen ura, jarri lezakean bezela adizkia, (el regimen directo); esan bearrean: Ematen dio Pedrori makilla, esaten duela: ematen du Pedrori makilla”<sup>202</sup>. Bistan da euskara RIEV aldizkarian ikergaia zela, ikerketen emaitzak agerrarazteko zientzia hizkuntza baino, hasteko eta behin horretarako prestatuta ere ez zegoelako.

Ondorioz RIEVek euskara eta euskal gaiak ikertzeko asmo irmoa bazuen ere, aldizkariak ez zuen egin euskara zientzia hizkuntza gaitzeko saiakerarik (ezta kontrakorik ere), eta dauden ekimen bakunak, arestian aipatukoak, Iparraldeko egileenak izan ziren, K. Etxegarairen lana salbuespena izanik.

J. Urkixoren ikerketa eta proiektuek gerraostean izan zuten segidarik. Hala Gipuzkoako diputazioaren babesarekin, eta J. Urkixoren omenez, *Seminario de Filología Julio Urkijo* (Urkixo Mintegia) ikerketa gunea sortu zen Donostian 1953an. Aurrerago ikusiko dugunez, Urkixo Mintegiak izen bereko urtekari bat argitaratu zuen (*Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo*, ASJU), zeina euskararen gaineko ikerketa zientifikoan espezializatua zegoen, baina nagusiki erdaraz kaleratu zen.

---

<sup>202</sup> (Joanategi, 1908: 584)



### 5.3.2. Eusko Ikaskuntzaren aldizkariak: RIEV eta *Anuario Eusko-Folklore*

Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen kongresuan sortutako izen bereko elkarteak aldizkari zientifiko bat behar zuen, eta aipatuenez K. Eleizalde, Eusko Ikaskuntzaren izenean, J. Urkixorekin negoziatu zuen RIEVen esku aldaketa<sup>203</sup>. Aldizkariak bere ordura arteko ibilbideari jarraitu zion, bai zuzendariaren aldetik bai edukien aldetik ere, baina geroztik RIEVen goiburuan Eusko Ikaskuntza agertu zen.

1918-1921. urteen artean RIEVen euskaraz artikulua bat argitaratu zen. Txomin Agirrek prestatu zuen Zumaia inguruko ohitura zahar baten berri emanez<sup>204</sup>. 1922. urtetik Gerra Zibilera arte, RIEVek 55 liburuki argitaratu zituen, eta euskarazko artikulua 6 izan ziren: J. B. Eguzkitzak hiru idatzi zituen<sup>205</sup>, eta R. Intzagarai<sup>206</sup>, J. Zabala-Aranak<sup>207</sup> eta J. Zaitegi<sup>208</sup> beste bana<sup>209</sup>. Proporzionaliki, aurreko epean (1907-1914) baino gutxiago. Artikuluez gain, euskaraz hilberri bat kaleratu zen Gregorio Muxika euskaltzale donostiarraren omenez, eta *Don Quijote de la Mancharen IX.* atalaren itzulpen bana kaleratu zuten *Orixek*<sup>210</sup> eta *Lizardik*<sup>211</sup>. Lehiaketa baterako prestatutako lanak izan ziren.

J. Urkixoren aldizkaria alde batera utzita, Jose Migel Barandiaranena aipatuko dugu: *Anuario de la Sociedad Eusko-folklore*. J. M. Barandiaran Gasteizko apaiztegia irakasle zegoela, apaiztegia bertan Sociedad Eusko-Folklore elkarte (1921) sortu zuen, Euskal Herriko Etnografiaren azterketarako. Elkartean J. M. Barandiaranen inguruko ikasleek parte hartu zuten. Elkartearen emaitza ezagutzera emateko J. M. Barandiaranek *Anuario de la Sociedad Eusko-folklore* eta *Eusko-folklore. Materiales y cuestionarios* argitalpenak sortu zituen. Urtekarian elkartearen ikerkuntza lanak

---

<sup>203</sup> (Monreal, 2001: 25)

<sup>204</sup> *Axularren Geroren* atal baten edizio faksimila ere kaleratu zen, baina hori ezin da artikulutzat hartu.

<sup>205</sup> (Eguzkitza, 1924, 1927 eta 1930)

<sup>206</sup> (Intzagarai, 1933)

<sup>207</sup> (Zabala-Arana, 1928)

<sup>208</sup> (Zaitegi, 1933)

<sup>209</sup> Artikuluez gain, eta aurreko garaian moduan, RIEVek *Axular*, J. Tartas eta beste idazle zein testu batzuren edizioa kaleratu zuen. Bestalde istorio batzuk kaleratu zituzten euskaraz R. Intzagarai, J. Barbier, E. Zubiri eta J. M. Larrasketek.

<sup>210</sup> (Ormaetxea, 1929)

<sup>211</sup> (Lizardi, 1929)

argitaratzen ziren, eta beste aldezkarian Euskal Herriko sineskeria, ohitura, tradizio, legenda eta bestelakoak biltzen ziren. Urtekaria laster Eusko Ikaskuntzaren eskuetara pasa zen RIEV moduan. Gerraurrean argitaraturiko 14. zenbakietan ez zen euskarazko artikulurik bat ere argitaratu<sup>212</sup>.

1936ko Gerrak Eusko Ikaskuntzaren jardura eten eta J. M. Barandiaranek Hegoaldetik alde egin behar izan zuen. Ondorioz urtekaria bertan behera geratu zen. 1935-1954. urteen artean ez zen zenbaki berririk argitaratu. Gutxi gora behera Jose Migel Barandiaran Iparraldean egon zen tartea izan zen. 1955. urtean urtekariaren 15. zenbakia kaleratu zen, hau da, gerraurreko zenbakitzearekin jarraitu zuen gerraostean. 1981. urtean Eusko Ikaskuntza berrantolatu zenean, berriz ere, aldizkaria editatzearen ardura Eusko Ikaskuntzak hartu zuen. Orduan argitaratu ziren lehen lanak euskaraz.

## **6. Euskaltzaindia: hizkuntzaren prestaketa eta ikerketaren artean**

Orain arte euskal kultur gintza jasoan euskararen erabileraren inguruan hiru planteamendu nagusi ikusi ditugu: euskara tresna gisa hartzen zuen erabilera (nekazari elebakarrentzako ekoizpena), euskara helburu zuena (batez ere abertzaleek bultzatua), eta euskara objektu gisa hartzen zuena. Euskaltzaindia planteamendu bikoitz batean kokatzen zen. Ikus dezagun.

Bizkaiko diputazioan 1918an, EAJk gehiengoa zuela, alderdiko bi kidek, Felix Landaburuk eta Kosme Elgezabalek, euskal akademia bat sortzeko proposamena aurkeztu zuten eta onartu egin zen. Hileak pasatu ziren, eta Bizkaiko diputazioaren ekimena paperean geratu zen, ez zuen aurrera egin. Irailean, Oñatiko Eusko Ikaskuntzen Kongresuan, euskal akademiaren inguruko ekimenak norabide berri bat hartu zuen. Kongresuko Hizkuntza Sailak, Bizkaiko diputazioak onartutakoa abiapuntutzat hartuta, akademiaren estatutuak eztabaidatu eta idatzi zituen. Halaber kongresuan aurreneko lau euskaltzainak aukeratu ziren: R. M. Azkue, A. Campion, K. Eleizalde eta J. Urkixo.

---

<sup>212</sup> RIEV aldizkarian argitaratutako *Anuario Eusko-Folklorearen aurkibideen arabera* (Arregi & Manterola, 1988). Eusko Ikaskuntzak urtekariaren azken zenbakia 1935. urtean kaleratu zuen.

Eusko Ikaskuntzen Kongresuaren ostean, zuzenketarako epe bat zabaldu zen akademiaren estatutuak definitiboki finkatu aurretik. Behin betiko estatutu finkatu zirenean, Eusko Ikaskuntzak lau diputazioei aurkeztu zien akademia sortzeko egitasmoa eta araudia. Diputazioek, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak onartu zuten araudia, baina prozesua urte bete luzatu zen.

1919ko irailean, Donostian Gipuzkoako diputazioaren jauregian bildu ziren, araudiak finkatu moduan, Oñatin aukeratutako euskaltzainak eta aldizkarietako ordezkariak beste zortzi akademiko aukeratzeko (T. Agirre, P. Broussain, P. Adéma<sup>213</sup>, R. Intzagarai, J. Agerre, J. B. Eguzkitza, R. Olabide eta P. Lhande izan ziren). Euskaltzaindiaren historian, hau izan zen lehenengo aldia –eta bakarra–, aldizkariak euskaltzainak aukeratu zituztena<sup>214</sup>. Batzar horretan bertan, halaber, akademiaren zuzendaritza karguak aukeratu ziren bi urterako: R. M. Azkue euskaltzainburu, altxorzaina J. Agerre, liburuzaina J. Urkixo, eta idazkaria K. Eleizalde<sup>215</sup>. Bestalde akademiak erabaki zuen EI/SEVren filiala izatea.

Hurrengo bileretan, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezkoak<sup>216</sup> eta urgazleak aukeratu zituen. Guztira 43 urgazle izendatu ziren. Euskal Herrian 32 urgazle izendatu ziren (Hegoaldekoak 21 eta Iparraldekoak 11) eta “han-hemenka” kategorian beste 11 urgazle<sup>217</sup>. Euskaltzain oso gehienak, Hegoaldean bizi ziren (denak salbu G. Lacombe, M. Landerretxe eta P. Landhe). Bestalde, nabarmena da eliztarren presentzia urgazleen zein osoen artean. Erdia baino gehiago apaiza zen edota ordenaren batean zegoen (jesuitak edota kaputxinoak ziren). Euskaltzain osoen kasuan, erdia baino gehiago

---

<sup>213</sup> P. Adémak ez zuen kargua onartu eta haren ordez, hurrengo bileran, urrikoan, M. Landerretxe apaiza aukeratu zuten.

<sup>214</sup> Aldizkariak honako hauek izan ziren: *Jaungoiko-Zale*, *Euzko-Deya*, *Jesusen-Biotzaren Deya*, *Euskal-Erria*, *Euskalerrriaren Alde*, *RIEV* eta *Eskualduna* (Kintana Goiriena, 2006: 777). Esate baterako *Eskualdunak* P. Broussain proposatu zuen eta denek onartu zuten.

<sup>215</sup> (Kintana Goiriena, 2006: 759-781)

<sup>216</sup> Donostiako 1919ko urriaren 1eko batzarrean, *Euskera* boletinaren arabera, euskaltzain ohorezko gisa honakoak aukeratu ziren: H. Schuchardt, J. Vinson eta C. C. Uhlenbeck (cfr. *Euskera*, 1 (1920). A. Apraizek beste izen bat ematen du euskaltzain ohorezkoen artean: P. A. Orkaiztegi (Apraiz, 1919b: 187)

<sup>217</sup> “Han-hemenka” kategorian 11 urgazlea zerrendatuta daude. Horietatik 6 atzerritarak ziren, eta unibertsitate, hizkuntza akademia, edo aldizkariaren bateko kide ziren: E. S. Dodgson (Oxfordeko Unibertsitatekoa), T. Linschmann (Berlineko unibertsitateko irakaslea?), R. Menendez Pidal (Espainiako Hizkuntzaren Erret Akademia), J. Saroihandi (Sorbona Unibertsitatekoa), H. Urtel (Hamburgo Unibertsitatea) eta Winkler (Breslauko unibertsitateko irakaslea?). Beste 4 urgazleak Euskal Herrian bizi ziren, baina han hemengo jatorria zuten (K. Etxegarai, J. B. Darricarrere, H. Gavel eta A. Leon) eta azken bat badago Madrilen bizi zena (M. Arriandiaga).

eliztarra zen (R. M. Azkue, J. B. Eguzkitza, D. Intza, R. Intzagarai, M. Landerretxe, P. Lhande eta R. Olabide) burua barne. Akademia bera erakunde gisa nahiko klerikala zen. Hola, Euskaltzaindiaren erritualetan erlijio katolikoak presentzia handia zuen, bereziki maila sinbolikoan. Esate baterako, ohiko batzarrak, barne araudiaren arabera, euskaltzainburuak honela hasi behar zituen:

“Euskaltzainburuak batzañaldiari onela emango dio atsañea: “Aita ta Seme ta Gogo guren Jainkoaren izenean, bere Ama Andre Mariaren magalpean eta Euskaleñiaren onerako as dezagun batzañaldi au”. Atsañitz au orok zutik bentzute.”<sup>218</sup>

Eta batzar amaieran ere: “Batzaldia amaitzeko, euskaltzainburuak “Gloria Patri...” esanda, besteak zutik erantzungo diote”<sup>219</sup>.

Euskaltzain urgazle laikoen artean, ikasketa unibertsitario ohikoena Medikuntza zen (bide hori hartu zuten: J. Zinkunegi, R. Intzagarai, J. Etxepare, P. Dourisboure eta F. Larrieuk). Aldiz, euskaltzain osoen artean mediku bakarra zegoen (P. Broussain). Zuzenbide ikasketekin aldiz, bestela gertatzen da, urgazle bi baino ez zeuden zuzenbide ikasketekin (N. Oleaga eta I. Lopez-Mendizabal) eta osoen artean beste bi (A. Campion eta J. Urkixo). Euskaltzain guztien artean –oso, ohorezko eta urgazleak aintzat hartuz– matematikari bakarra zegoen: Koldo Eleizalde.

1920. urteko urtarrilera arte Euskaltzaindiak ez zuen hizkuntzaren gaineko erabaki akademikorik hartu. Ordura arte egindako bilerak akademia antolatzeke izan ziren. Beraz, Euskaltzaindia 1920an akademia gisa funtzionatzen hasi zen.

Euskaltzaindikoko hileroko bilerak –1950. urtera arte– gaztelaniaz izan ziren. Horrek ez du esan nahi erakundearen hizkuntza gaztelania zenik. Egia esan, Euskaltzaindiaren baitan hizkuntzen erabilera nahiko bitxia zen. Akademiaren barne eta kanpo komunikazioan euskara modu batera edo bestera presente zegoen<sup>220</sup>. Ekitaldi publikoetan, Euskal Jaietan edota udaletxe bateko ekitaldietan ohikoa zen Euskaltzaindiak hitzaldiak euskaraz ematea. Erakundearen bizitza akademikoari

<sup>218</sup> Euskaltzaindiaren Barne'ko Araudia, 1920, 12. art.

<sup>219</sup> Euskaltzaindiaren Barne'ko Araudia, 1920, 14. art.

<sup>220</sup> Hori komunikazio formalari dagokionez, euskaltzain batzuren arteko solasaldi informalak euskaraz zirela baitakigu (Intza, 1968)

lotutako zeremoniak euskaraz izaten ziren, esate baterako kargu hartze ekitaldiak edo sarrera zein erantzun hitzaldiak. Akademiaren ohiko batzarren hasiera eta amaiera R. M. Azkuek euskaraz bedeinkatzen zituen. Batzarretan Iparraldeko zein Hegoaldeko euskaltzainek aurkeztutako txostenak maiz euskaraz irakurtzen ziren, eta pentsatzekoa da euskaraz aurkeztutako txostenen gaineko solasaldi akademikoak euskaraz izan zirela. Gainera, batzarrak oro har gaztelaniaz baziren ere, aktak euskaraz argitaratzen ziren *Euskera* buletinean<sup>221</sup>.

Euskaltzaindiko batzarrak gaztelaniaz ziren, besteak beste, euskaltzain batzuk euskaraz ahoz aritzeko trebeziarik ez zutelako, euskaraz irakurtzeko gai baziren ere. Damaso Intzari esker, gerraurreko batzarretan euskaltzainek erabilitako hizkuntzen gainean detaile ugari ezagutzen dira. Batzarretan R. M. Azkueren eskuinean jesarritako J. Urkixori buruz D. Intzak honakoa zioen: “aundiki ta jakintsu, lurbira guzian ezaguna ta aintzat artua zalako, itzal aundia egiten zion Euskaltzaindiari, naiz berak beti erderaz itzegin, eztakit, ba, euskaraz lau itz esan ote zizkigun”<sup>222</sup>, eta ezkerrean jesarritako A. Campioni buruz: “Gure kondairagille ta Naparroaren eskubideen eustzalle azkarren au ere, euskeraz nekez egiten zuana giñun, naiz berak alako Euskal-izkinde ederra egin izan”<sup>223</sup>. Beste batzuk aldiz, euskaraz ondo moldatu arren, gutxitan erabiltzen zuten. D. Intzak, Bonifazio Etxegarairi buruz hauxe zioen: “Onek ere erderari eltzen zion gure batzarretan, euskeraz ere ba-zekin, noski,”<sup>224</sup>. D. Intzak beste hau gaineratzen du R. Olabidetaz:

“Olabide Erramun Aita, Jesusen Lagundikoa. Euskeraz idazteko ain bikaña izanik, au genun beste bat izketarako bildurti zana ta lau itz euskeraz nekez josten zituena. Euskaltzaindian sartu nintzenez neri erantzunez egin zigun itzalditxoaz landara, eztaukat gogoan beste ezer ari entzunik. Baño bitartean, ixil-ixillik, Itun Zar-Berriak zegiskigun”<sup>225</sup>

---

<sup>221</sup> Horregatik guztiagatik *Lizardik*, arestian B. Etxegarairekin izandako aipatutako eztabaidan, Eusko Ikaskuntza zein Euskaltzaindiri euskararentzat batzarretan eskatutako ordu laurdena, Euskaltzaindiaren kasuan, ez zen beharrezkoa, akademiak betetzen baitzuen eta, barkamena eskatuz, atzera egin zuen: “Euskaltzaindikoa. Oso bide zuzenetik nekiala uste nun, ango berri. Ez ni sartu, noski, batzarre tartera, baña orren urrengo. Argatik, egia zalakoan nengoan. Ezpada, ni pozen. Barka bekidate irainduak, iñor bada.” (Lizardi, 1995: 71)

<sup>222</sup> (Intza, 1968: 271)

<sup>223</sup> (Intza, 1968: 272)

<sup>224</sup> (Intza, 1968: 272)

<sup>225</sup> (Intza, 1968: 272)

Beraz, euskaltzain osoen lautik batek euskaraz ez zuen hitz egiten. Horregatik ezin zuen euskarak batzarretako hizkuntza izan. 1950. urtean, J. Urkixo hil zenean (ordurako A. Campion eta R. Olabide hilak ziren), F. Krutwig gazteak Euskaltzaindiko bilerak euskaraz egitea proposatu zuen, eta onartu egin zen.

Euskaltzaindiak 1920. urtean erakundearen estatutu definitiboak eta barne araudia argitaratu zituen. Bertan erakundearen bizitza akademikoaren ildo nagusiak definitu ziren, egitura, helburuak, lan prozesuak, batzarren gai-ordena<sup>226</sup> eta abar. Estatutuetan erakundearen xedea euskara zela zehazten zen “atendiendo intensamente a su cultivo, tanto en el orden filológico como en el social”<sup>227</sup>. Hizkuntzaren inguruko fenomeno filologiko eta soziolinguistikoak lantzeko, bi sail bereiztu ziren: Iker Saila<sup>228</sup> eta Jagon Saila.

Iker Sailaren egitekoa hizkuntzaren ikerkuntza zientifikoa zen, bereziki hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, baita hizkuntza biziaren eta agiri idatzien bilketa ere “depurándolos e inventariándolos en un Diccionario racional”<sup>229</sup>. Bestalde, Jagon sailaren ardura zen: “la conservación, difusión y pureza de la lengua en todos los órdenes de la vida y de las relaciones sociales y formentar la literatura vasca”<sup>230</sup>. Zehazki, haren egitekoak honako hauek ziren:

- Literatur hizkuntzaren batasunaren alde lan egitea
- Hiztegiaren prestaketan Iker sailarekin lankidetzan aritzea
- Testuliburuak eta irakaskuntzarako bestelako materialak euskaratzen laguntzea, baita boletin ofizialak eta prentsako iragarkiak ere.

---

<sup>226</sup> Batzarren gai ordena, Euskaltzaindiaren barne araudiaren arabera, hauxe zen: aurreko aktaren onarpena (ondoren *Eusker*a buletinean argitaratzen zena), sailtako lanen edo proposamenen aurkezpena, akademiako kideren baten zein kanpotik igorritako lanen irakurketa, eta azkenik erakundearen kudeaketa eta administrazioarekin lotutako gaiak. Batzarrak, publikoa zein pribatua izan ahal ziren. Publikoak euskaltzain osoen sarrera ekitaldietan edota Euskaltzaindiaren antolatutako lehiaketen sari banaketetan kasuan egiten ziren.

<sup>227</sup> (Euskaltzaindiaren Soñtarauak, 1920, 1. art.)

<sup>228</sup> Barne araudiaren arabera, Iker saila beste bi atal nagusitan antolatuko zen: filologia eta lexikografia atalak. Lehenak 3 batzorde iraunkor izango zituen, fonetika, morfologia eta sintaxia. Lexikografia atalak berriz, 5 lantalde, horietako bat “de tecnicismo científico, artístico, agrícola, industrial, folklórico y profesional” (Euskaltzaindiaren Barneko Araudia, 1920, 2. art.)

<sup>229</sup> Euskaltzaindiaren Soñtarauak, 1920, 3. art.

<sup>230</sup> Euskaltzaindiaren Soñtarauak, 1920, 5. art

- Literatur lehiaketak antolatzea
- Liburu sakratu eta obra unibertsalen itzulpena sustatzea
- Euskarazko literatur lan zaharrak jaso eta argitaratzea.
- Euskal hizkuntza eta literatura katedrak sortzea

Laburbilduz, Euskaltzaindiak gerraurrean hiru lan ildo nagusi izan zituen: batetik ildo zientifikoa, edo ikerkuntzari lotutakoa; bestetik euskararen gizarte normalizazioa eta zabaltze lanak –adib. lehiaketak–; eta azkenik normatiboa edo arauemailea. Azken bi lan ildo hauek (gizarte normalizazioa eta araugintza) euskara helburu duen planteamenduari dagozkio eta Jagon Sailak burutzen zituen. Hain zuzen ere, Jagon eta Iker sailen buruak profil desberdineko pertsonak izan ziren: Jagoneko burua Koldo Eleizalde jeltzalea izan zen, eta Ikerrekoa Julio Urkixo karlista. Nolanahi ere, jarduera arauemailean eduki zuen Euskaltzaindiak arrakastarik txikiena, gerraurrean hizkuntza arautzeko oso erabaki gutxi onartu zituelako, sabindar oposizioaren ondorioz<sup>231</sup>. Beraz, besteetan aritu zen, hau da, ikerketan eta normalizazioan. Gerraurreko Euskaltzaindia bada, ez zen soilik aditu eta jakintsuen proiektu zientifiko hutsa, euskararen aitzineratze prozesuan errotutako erakundea baizik. Hurrengo puntuetan Euskaltzaindiak garatu zituen zenbait proiektu aztertuko dira: hizkuntzaren batasuna, Erizkizundi Irukoitza eta *Euskera* buletina.

### **6.1. Euskararen batasunaz batzarra**

Sortu eta berehala, Akademiak euskararen araugintza eta batasun gaiei oratu zien. Aipatu dugunez, Euskaltzaindiak euskararen gaineko lehen araua 1920ko urtarrilean hartu bazuen, abenduan, urtea bukatzeaz zela, euskararen batasunaren gainean batzar berezi bat antolatu zuen Bilbon. Batzarra baino lehen Euskaltzaindiak A. Campion eta P. Broussain euskaltzainen txostenaren (*Informe sobre la unificación del euskera*<sup>232</sup>) 6.000 kopia banatu zituen, euskararen batasunaren inguruan euskalari eta euskaltzaleen iritzia biltzeko. Ondoren Euskaltzaindiak euskararen batasunaz berba

---

<sup>231</sup> Sabindarrek Euskaltzaindiarekiko izandako jarrera erasokorraren gaineko sasoiko gertaera ugari Jurgi Kintanak biltzen ditu bere tesian (Kintana Goirieta, 2006)

<sup>232</sup> (Campion & Broussain, 1922)

egiteko, egun osoko jardunaldi bat antolatu zuen akademiako kide eta iritzi-emaileentzat.

Euskararen batasunaren inguruko batzarraren aurretxoan, Euskaltzaindiak linguistika jardunaldi bat antolatu zuen Bilbon. Bertan, besteak beste, R. Menendez Pidal espainiar hizkuntzalariak parte hartu zuen. R. Menendez Pidal euskaltzain urgazlea zen, eta bere eskuetara heldu zen A. Campion eta P. Broussainek euskararen batasunaz idatzitako txostena. Linguistika jardunaldian eman zuen hitzaldian, aipatutako txostenari erantzunez, euskararen batasun prozesuaren aurka agertu zen. Ez zen bakarria izan. M. Unamunok ere, txostenaren kontra idatzi zuen. Biek ala biek ez zuten parte hartu abenduaren 26ko batzarrean, baina beraien ekarpena publiko egin zuten. Batasuna hizkuntza bizirik mantentzeko asmoz egiten zenez, aipatutako hizkuntzalari bitxizaleentzat horrek ez zuen zentzurik<sup>233</sup>.

Euskaltzainekin batera Bilboko batzarrera bertaratu ziren idatziz euskararen batasunaren inguruan iritzia bidalita zutenak. Batzuk ez ziren joan baina haien lana irakurria izan zen<sup>234</sup>. Euskararen batasunaren inguruko iritzi bilketa ez zen Bilboko batzar berezian amaitu, eta hurrengo hileetan lan gehiago heldu ziren Euskaltzaindira. Horiek guztiak eta beste batzuk, Euskaltzaindiak, *Eusker*a buletinean biltzea eta argitaratzea erabaki zuen. Hala, 1922. urtean *Euskeraren* zenbaki monografikoa argitaratu zen: *Euskerearen batasunaz izan diran batzaldietan irakurritako txosten edo ikerpenak*. *Euskeran* agertzen diren txostengileekin ondoko taula prestatu dugu:

<sup>233</sup> R. Menendez Pidal eta M. Unamunoren jarreraz euskararen batasunaren aurka, ikus Pruden Gartziairen (2004: 388) eta Koldo Zuazoren (1988: 292-294) lanak.

<sup>234</sup> Adibidez Manuel Egileor sabindar gotorraren testua Euskaltzainburuak irakurri zuen.



Parte-hartzaileak	Eliztarra	Ideologia
Anabitarte, Augustin (1891-1981)		abertzalea
Aiengiz, Iñaki <sup>235</sup>	√	abertzalea?
Azkue, Resurreccion M <sup>a</sup> (1864-1951)	√	abertzalea
Belaustegigoitia, Federico (1876-1947)		abertzalea
Broussain, Pierre (1859-1920)		abertzalea
Campion, Arturo (1854-1937)		abertzalea
Cortes, Nicolas <sup>236</sup>		?
Egileor, Manuel (1884-1970)		abertzalea
Eguzkitza, Juan Bautista (1874-1939)		abertzalea
Garitaonandia, Bittor (1876-1929)	√	abertzalea
Gaubeka, Victor (1894-1979)		abertzalea
Goienetxe, Kruz (1857-1925)	√	?
Jauregi, Luis "Jaurtakol"(1896-1971)	√	abertzalea
Larraoetxea, Hipolito (1892-1976)	√	abertzalea?
Madariaga, Aingeru	√	?
Murua, Domenka		abertzalea
Ormaetxea, Nicolas Orixe (1888-1961)	√	abertzalea
Buenaventura Oieretikoa (1886-1956) <sup>237</sup>	√	?
Urrutia, Gotzon (1890-1975)	√	abertzalea?
Zabala-Arana, Joseba	√	abertzalea

**I.2. Taula:** Euskaltzaindiak bideratutako euskararen batasunaren gaineko iritzi bilketako parte-hartzaileak. Iturria: elaborazio propioa, *Euskera* III.1 (1922) buletinean argitaratutako izen deiturretatik abiatuta.

Taulan ikusten denez, Euskaltzaindiak euskararen batasunaren prozesuari ekin baino lehen, asmo zabaleko iritzi bilketa egin zuen. Iritzi-emaielen artean zenbait ezaugarri komun aurkitu ditugu:

- Denak Hegoaldekoak ziren. Iparraldetik ez zen iritzirik heldu<sup>238</sup>. Koldo Zuazoren ustez, Iparraldeak bere burua prozesu honetatik baztertu zuen<sup>239</sup>.

<sup>235</sup> Iñaki Aiengiz guztiz ezazeguna egiten zaigu, dakigun gauza bakarra da *Jaungoiko-zale* aldizkarian bertsoak argitaratu zituela.

<sup>236</sup> Nicolas Cortes Manterolak *Garriz* ezizena erabiltzen zuen, eta R. M. Azkueren idazkari modukoa izan zen, R. M. Azkue Toursen egon zenean. Bera arduratu zen Bilbon Ploermel anaiekin martxan jarri beharreko hezkuntza proiektuaren kudeaketaz. Nicolas Cortesek 1935. urtean *Metodo autodidactico para aprender el vascuence* argitaratu zuen Bilbon Ordorika Inprentan.

<sup>237</sup> Ordenean sartu aurreko izena: Joaquin Eugenio Plácido Senosiáin (Ondarra, 1987)

<sup>238</sup> Egia da P. Broussain-ek parte hartu zuela, baina A. Campionek eta biek iritzia baino jardunaldiko txosten nagusia idatzi zuten Euskaltzaindiaren aginduz. Bestalde Jean Etxepare idazleak, txostena jaso eta bere iritzia Iparraldeko aldizkari batean kaleratu zuen. J. Etxepareren ustez goizegi zen euskararen batasun prozesua abiatzeko.

<sup>239</sup> (Zuazo, 1988 eta 2005)

- Oro har, parte-hartzaileak ez zuten Euskaltzaindiarekin harreman zuzenik. Euskaltzain gutxik parte hartu zuen, ordurako bazeuden 55 euskaltzain oso eta urgazle izendatuta, baina salbuespen bakarren bat kenduta, ez zuten zuzenean parte hartu<sup>240</sup>.
- Gehienak abertzaleak ziren, jeltzale izan edo ez. Gerta liteke gainera ia ezezagun zaizkigunak ere (N. Cortes, K. Goienetxe, A. Madariaga eta B. Oieregi) abertzale izatea. Hala ere, abertzaleek hizkuntza batasunaren inguruan iritzi oso desberdinak zituzten. Batzuk hizkuntza arloan sabindar gotorrak ziren eta beraz, Euskaltzaindiari oposizioa egiten zioten (adb. M. Egileor), eta beste batzuk aldiz, esate baterako, F. Belaustegigoitiak, jeltzalea izanik, Euskaltzaindiarekin bat egin zezakeen. Ikusten denez, abertzaleek ez zuten talde monolitikoa osatzen.
- Erdia baino gehiago eliztarrak ziren. Eliztarren parte hartzea nabarmena izan zen, baina ez bereziki ordenaren batekoak, denetarik izan baitzen<sup>241</sup>.

Laburbilduz, euskararen batasunaren inguruan Euskaltzaindiak hizkuntzaren profesionalak baino (euskalariak, irakasleak<sup>242</sup> edo idazleak baino) hizkuntzarekin kezkatutako abertzaleak erakarri zituen. Euskaltzaleon artean ez zegoen oraindik euskal idazlerik<sup>243</sup>, *Orix*e, A. Anabitarte, *Lizardi*, *Lauaxeta* eta abar beranduxeago hasi zirelako literaturan. *Kirikiñok*, esate baterako, parte har zezakeen baina ez zuen egin, Akademiarekin eta R. M. Azkuerekin haserre zegoelako. Gainera *Kirikiñok* ez zuen arazorik euskaraz idazteko, ez zuen batasunik behar, bide sabindarra jarraitzen zuen, hutsuneak senarekin osatuz.

<sup>240</sup> Euskaltzain osoen artean iritzia zuzenean eman zutenak bi izan ziren: J. B. Eguzkitza eta R. M<sup>a</sup> Azkue (eta noski, txostengileak, A. Campion eta P. Broussain). Urgazleei dagokionez, Federiko Belaustegigoitia izan zen bakarra. Zerrendan agertzen diren A. Anabitarte, B. Garitaonandia, Buenaventura Oieregi edota *Orix*e, Bilboko batzarraren osteko urteetan izendatu zituzten urgazle (eta *Orixeren* kasuan, euskaltzain oso izendapena gerraostekoa izan zen).

<sup>241</sup> Karmeldarrak (I. Larrakoetxea), frantziskotarrik (A. Madariaga), jesuitak (*Orix*e), kaputxinoak (B. Oieregi) edota MBSak (G. Urrutia eta J. Zabala-Arana). Aparte apaizak (R. M. Azkue, J. B. Eguzkitza...)

<sup>242</sup> Manuel Lekuonak adibidez, jadanik Gasteizeko Apaiztegiaren euskara katedrako irakaslea zena, ez zuen parte hartu.

<sup>243</sup> Nahiz eta idazleak ez izan, garai honetan prentsan idazten zuten kazetariak baziren (adb. *Batxi*) eta idazleen bileretan parte hartzen zuten.

K. Zuazok aztertu duenez, batzuk euskararen batasunaren alde zeuden, beste batzuk ez. Alde zeudenen artean batasunerako euskalkia edo euskalkiak aukeratzeko proposamen desberdinak egon ziren: gipuzkera osotua (R. M. Azkue), gipuzkera lapurtera artekoa (A. Campion), bizkaiera (V. Gaubeka) eta abar. Proposamen hauetatik guztietatik garapen teoriko handiena R. M. Azkuerenak izango zuen. Bere ideia hizkuntza baturako oinarri gisa gipuzkera hartzea zen, eta berau beste euskalkietako hitz eta osagaiekin aberastea. Eredu garbizalea zen, neurri batean erdal jatorriko hitzak saihesten zituena, baina ez sabindar planteamenduak bezain hiperpurista. Nolanahi ere, R. M. Azkuek ez zuen lortu bere proposamena jende askok onartzerik eta bestelako proiektuak ere ez ziren nagusitu. Beraz, Euskaltzaindiak euskaltzaleen artean euskararen batasuna abiatzeko adostasun oso txikia aurkitu zuen, eta sabindarren etsaigo aitortua. Bestalde, Akademiak oraindik ez zuen presio sozialik, ez idazleen aldetik, ezta irakaskuntzaren aldetik ere, euskararen batasunaren inguruan erabaki sendoak hartu behar izateko. Honen guztiaren ondorioz, Euskaltzaindiak euskararen batasuna momentuz bere horretan utzi zuen. Hizkuntzaren prestaketa eta batasuna berehala egitea baztertu ondoren, beronen ikerketara bideratu zituen esfortzuak. Azken finean, hizkuntzaren ikerketa ez zen hain afera arazotsua, eta hizkuntza batua nola arautu erabakitzen laguntzeko, euskara bizia jasotzeko proiektua abiatu zuen: Erizkizundi Irukoitza.

## **6.2. Erizkizundi Irukoitza: euskarazko ikerkuntza proiektua**

1921. urtean zuzendaritza berria hautatu ostean, S. Altube euskaltzainak honako hau proposatu zuen:

“Altube jaunak, euskal-batasunaz, Euskalefian auxe zabaldu beaf dala, diyo:

“Orain afte euskal-batasunari dagokion gayez **euskaltzaindiratu diran idazki-lanak argitaratu ta** ikasiz gañera, **batasunezko ebatzi astun ori aflu bañon len**, Euskalefi osoan, **Euskerea beronen agerkera guztietan zelan bizi dan, ondo eta zeatz ezagutzea gauza beaf-beafekoa dabela** Euskaltzaindiak erabaki du; eta **ortarako idatz-itunketa eta beste bide egoki batzuk afluza** ere bai”

Euskaltzaindiak abo batez bayetz ta bayetz dio”<sup>244</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>244</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1921.7.28.

Euskaltzaindiak beraz, euskararen batasunari ekiteko bide berri bat aukeratu zuen, euskara biziaren ikerkuntzaren bidea. Euskaraz momentu hartan herriz-herri nola hitz egiten zen jasotzeko R. M. Azkuek 481 itaunekin osatutako galdetegi bat prestatu zuen (1921). Gertaera fonetikoak biltzeko 126 itaun zituen, morfologiakoetarako beste 255, eta azkenik, lexikografikoetarako 100. Datu bilketa 1921. urtetik 1925. urtera bitartean burutu zen, eta ondoren jasotako informazioa 1925etik 1930ra *Euskera* buletinean argitaratu zen.

Euskaltzaindiaren baitan proiektuaren gaineko ardura zuzena R. M. Azkuek zuen eta berak antolatu eta kudeatu zuen proiektua. Dirudenez, hasiera batean galdetegia herrietan banatu zen, baina 481 itaun zituenez, ez zuen inork erantzuten. Euskaltzaindiak datu-bilketarako bekadunak hartu behar izan zituen. R. M. Azkuek G. Bähr<sup>245</sup> bekadun gazteari proiektu hasiberriaz honela ziotson:

“erizkizundi ori Euskaltzaindiaren aginduz neronek egin nuen eta gero erri ta auzo guzietara batari eta besteari bidali dizkiegu baña batzuk zaletasunik ez tutelako, beste batzuk luze ta sailtxoa dalako, eta beste askok alperkeriz oso gutxik baizik ez tute erantzun eta lan bearbearrekoa izanik A. Polikarpo Iraizoz gure bekadun dan eta zure eskuetan eta ardurapean uztea erabaki degu”<sup>246</sup>

Erizkizundiaren bilketan 4 pertsona aritu ziren: Nicolas Ormaetxea *Orixe*, Gerthard Bähr, Odon Apraiz eta Polikarpo Iraizoz. *Orixe* Bizkaian ibili zen, G. Bähr Gipuzkoan, P. Iraizoz Nafarroan eta Iparraldean Odon Apraiz. Halaber, bekadunek laguntzaileak izan zituzten, inguruetako batzuk inkesta erantzuten laguntzen baitzieten. Horretaz guztiaz gainera, euskaltzain osoak (adb. R. M. Azkue, J. B. Eguzkitza, D. Intza) eta urgazleak (adb. N. Oleaga) bilketa lanean inplikatu ziren. Guztira 281 inkesta egin zituzten<sup>247</sup>.

Bilketa lan izugarria izan zen, eta gerora, bai Ana M<sup>a</sup> Etxaidek bai Koldo Mitxelenak Erizkizundi Irukoitzaren datuak zein balio dialektologikoa ezbaian jarri duten arren<sup>248</sup>, ezin da ukatu Erizkizundi Irukoitza ikerkuntza proiektua izan zenik. Xede zientifiko argia zuen: momentuko euskara bizia jasotzea, euskararen batasunean

<sup>245</sup> (Garmendia, 2000).

<sup>246</sup> (R. M. Azkue G. Bähr-i bidalitako gutuna, 1922.10.30, Azkueren gutuneria, ABA)

<sup>247</sup> Erizkizundi Irukoitzaren informanteak eta datu-bilketan aritutakoen izen deiturak *Euskeran* argitaratu ziren (Ormaetxea, 1930)

<sup>248</sup> (Erdozia, 2000)

laguntzeko. Xedea lortze bidean, metodologia bat aplikatu zen. Euskaltzaindiak finantzatu, kudeatu eta planifikatu zuen. R. M. Azkue, zuzendaria edo koordinatzaile nagusia izan zen. Proiektuak bekadunak, eta bestelako kolaboratzaileak izan zituen. Emaizak *Euskera* buletinean euskaraz argitaratu ziren prozesuaren amaieran. Egiazko ikerketa proiektu bat izan zen beraz, goi mailakoa, eta euskaraz egin zen lehena.

### **6.3. Euskera: Euskaltzaindiaren sozializatorako tresna**

Euskaltzaindiaren buletina *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* da<sup>249</sup> eta lehen zenbakia 1921. urtean kaleratu zen. Gerra Zibilarekin buletinaren argitalpena eten egin zen, eta 1956. urtera arte ez zen zenbaki berririk argitaratu. 1937-1955. urte tartean *Euskera* ez zen argitaratu, espainiar diktadurak aldizkaria argitaratzeko baimenik ez zuelako eman<sup>250</sup>. Geroztik, etenik gabe iraun du gaur egun arte.

*Euskera* ez zen goi mailako ohiko aldizkaria, Euskaltzaindiaren organoa zelako eta akademiaren jarduera zientifiko, kultural, sozial, arauemaile eta administratiboaren berri eman behar zuelako. Bertan mota oso desberdineko agiriak argitaratzen ziren: Euskararen inguruan Euskaltzaindiak emandako erabakiak, batzar-agiriak, berriak, pertsonen aurkitzea, ikerketen emaitza eta abar. Horregatik guztiagatik, *Euskera*, Euskaltzaindiaren oinarrizko ekoizpena da eta bere jardura ezagutarazteko oinarrizko tresna.

Euskaltzaindiaren barne araudiaren 33. artikuluan zehazten zen akademiak bi argitalpen izango zituela: bata urteko memoria, eta bestea aldizkaria. Aldizkariaren izena *Euskera* izango zela ez zen aipatzen bi arrazoiengatik: batetik, araudia idatzi zenean akademiaren oinarrizko egitura soilik definitu zelako, eta bestalde, araudia prestatu zenean, Euskaltzaindiak oraindik erabaki gabe zeukalako, hizkuntza nola izendatu behar zen (*euskera, euskara, euzkera...*). Izan ere, akademiak ez zuen 1920eko urtarrilaren 7ra arte *euskera* forma erabaki<sup>251</sup>. Ondoren erabaki zuen aldizkariaren izen

---

<sup>249</sup> Buletinaren izena hiru hizkuntzetan eman zen: *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak/ Trabajos y Actas de la Academia de la Lengua Vasca/ Travaux et actes de l'académie de la langue basque*.

<sup>250</sup> Dena den salbuespenik izan zen, eta 1953. urteko urrian *Euskeraren Cuaderno I* argitaratu zuen Akademiak, gerora inongo jarraipenik izan ez zuena.

<sup>251</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1920.1.7.

osoa: “Euskaltzaindiak argitaratu beaŕ duen *Euskera* daikeyon *Boletina*’ri zer izenpeko yaŕi beaŕ ote zayon-go autua yo da; ta auxe erabaki da: *Euskaltzaindiaren lan eta ageriak* [sic]”<sup>252</sup>.

Euskaltzaindiak Pierre Lhande izendatu zuen *Euskeraren* editorea izateko, hiru hizkuntzak (euskara, frantsesa eta gaztelania) ondo ezagutzen zituelako<sup>253</sup>. Bera arduratu zen lehen zenbakiko dokumentazioa biltzeaz eta atontzeaz. Hala ere, Akademiaren egoitza Bilbon egonik, eta P. Lhande Frantzian Toulouse-ko Unibertsitatean irakasle lanetan, laster, *Euskera* buletinaren edizio lanak Nazario Oleaga bilbotar euskaltzain urgazleak bere gain hartu zituen.

Lehen zenbakiaren prestaketa lanekin finkatu ziren aurrerantzeko buletinaren eduki eta lerro nagusiak:

“2<sup>a</sup> El boletín que hoy publicamos consta de dos partes. En la primera, después de exponer brevemente el origen y la creación de la Academia, insertamos, por orden de sesiones, los acuerdos tomados en nuestras asambleas. En la segunda reproducimos los trabajos leídos por los señores académicos para ilustrar los puntos debatidos en las juntas.

También en adelante esta revista tendrá dos partes distintas: la parte *oficial* reservada á los informes de sesiones y á los acuerdos, y la parte *facultativa* en la cual se publicarán estudios, vocabularios y demas trabajos aprobados por la Academia.”<sup>254</sup>

*Euskera* buletinak, Euskaltzaindiaren organo izanik, erakundearen bizitza akademikoarekin lotutako dokumentazioa (euskaltzainen zerrenda, batzarretako aktak, txostenak, sarrera-hitzaldiak...) argitaratu zuen, baita euskaltzainen lanak ere. *Euskeran* euskarazko eta gaztelaniazko testuak argitaratu ziren gehienbat, eta frantsesez gutxi batzuk.

Euskaltzaindiaren komunikazioa organoa *Euskera* aldizkaria bazen, Bilboko sabindar gotorrek, Euzkeltzale Bazkunako kideek, Euskaltzaindia eta haren euskara ereduaren aurka egonik<sup>255</sup>, 1929. urtean *Euzkerea* argitaratzeari ekin zioten. Euzkeltzale Bazkunakoak izen hori apropos aukeratu zuten, *Euskera* buletinaren homologoa zela

<sup>252</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1920.10.22.

<sup>253</sup> (Urkizu, 1998: 18)

<sup>254</sup> P. Lhandek *Euskeraren* lehen zenbakiaren hitzaurrea hiru hizkuntzetan prestatu zuen: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Guk erdara batean argitaratutako testua ekarri dugu, euskarazko bertsioa, ez delako zehatza (Lhande, 1921: 9)

<sup>255</sup> (Kintana Goiriena, 2006)

adierazteko. Euskara hitzaren garaiko bi aldaera horietan laburbiltzen ziren gerraurreko euskararen inguruko bi jarrera nagusi. *Eusker*a eta *Euzkerea* bi aldizkari, bi izen, bi eredu oso diferente. Sabindar aldizkariako lehen zenbakiko agurrean bertan honela aitortzen zen:

“A esto viene “Euzkerea”. A sostener la escuela euzkeralógica moderna, única e invulnerable, que Arana-Goiri, con el nombre de Renacimiento del idioma, firmísimamente estatuyó. “Euzkerea” hará labor euzkeralógica en euzkera y castellano; hará labor euzkeragráfica literaria intensa, escogida con el esmero mayor.”<sup>256</sup>

*Euzkerea* 1929. urtean plazaratu zen, eta 1936. urtean desagertu<sup>257</sup>. Sabindar eskolaren baitan aurrekari bat zuen: *Euzko Deya*. Aldizkariaren erdia baino gehiago gaztelaniazko testuek osatu zuten, eta beste testuak euskaraz zeuden. Bokazio zientifikoa zuen<sup>258</sup>. Joseba Arana-Zabalak, *Nabarriztarra* ezizenez, *Euzkerea*ren lehen alean bere poza agertu zuen *Euzkerea* aldizkariak euskara jakintzara jaso nahi zuelako:

“Etxian euzkeraz itz-egittia, txandonkixunetan –eleizkixunetan- euzkerea erabiltia, efiko izpafak izpafingira euzkeraz idatzitta bidaltzia, geure ele zafa bixirik indaf betia emoteko, bañiz, naiko eztira.

Bixi-indaf ori emoteko, **euzkerea jakintzearen jauregijetara sañtu biañ dogu, jakintza-gayak euzkeraz erabili ta azteñtu biañ doguz**. Jakintzerako gauza eztan elia aul eta erkin bixiko da, ta ele afozrak bazteñtuta eukiko dabe.

Jakintza-gayak euzkeraz erabilteko, bañiz, euzkel-irakastetxiak nai-ta-ezkuak doguz. Baña irakastetxe ofek etofiko diran-añtian be, euzkerea jakintzarako gertu ta gattuten lan andija egin geike. ¿Zelan? Jakintza-gairik jakingañijenak euzkeraz efijak uleñtuteko eraz idatziz atzaldurik”<sup>259</sup> [beltzak gureak dira]

*Euzkerea*k asmoz zientifikoa eta jaso izan nahi zuen arren, eta J. Arana-Zabalak horren alde egin arren, edukitan oso apala izan zen. Artikulu laburrak eta iritzi artikuluak nagusi izan ziren eta ez zen aparteko dibulgazio zientifikoko lanik kaleratu (Joseba Altunaren lanak kenduta), eta are gutxiago artikulu zientifikorik, nahiz eta baden euskararen hizkuntzalaritzaren inguruko eta asmo jasoko eztabaidarik, gehienak gaztelaniaz.

---

<sup>256</sup> “Agur” *Euzkerea*, 1, 1929ko Urtarrila.

<sup>257</sup> *Euzkerea*ren eduki eta eztabaida nagusiak Paulo Iztuetak aztertu ditu (Iztueta, 2003: 900-911)

<sup>258</sup> Aldizkariaren bokazio zientifikoa aldizkariaren agurrean aipatzen da: “Recoger estas palpitations, entrañablemente cálidas, en una Revista firmemente encauzada por los derroteros lingüísticos de la escuela clásica renacentista, nos ha parecido una labor, hoy más que nunca, necesaria, a fin de que pueda alcanzar su máximo rendimiento la acción múltiple actual. / ¿Necesitamos añadir algo más para descubrir claramente al lector la finalidad y orientación científicos de la publicación, cuyo primer número llega hoy a sus manos?” (“Agur” *Euzkerea*, 1, 1929ko Urtarrila).

<sup>259</sup> *Nabarriztarra* [Joseba Arana-Zabala]: “Euzkerea ta jakintzea” *Euzkerea*, 1, 1929ko urtarrila.

Beraz, *Euzkerek* bai euskarari buruzko zein euskarazko aldizkari zientifiko bihurtzeko saioan porrot egin zuen. Euskaltzaindiaren *Euskerak* berriz erdizka lortu zuen. Bertan hizkuntzalaritzari buruzko artikulu asko erdaraz argitaratu baziren ere, euskarazkoak ere nahiko ugariak izan ziren (RIEVEN edo *Euzkerean* baino ugariagoak). Izan ere Euskaltzaindiak euskararen ikerketa hutsaz gain, hizkuntzaren aitzinamendua ere bilatzen zuen. Eta hola euskara, hein batez, ikerketarako tresna bihurtu zen *Euskeran*, goi mailako funtzioa emanez hizkuntzari.

## 7. Gerraurrean irekitako aukerak

Frankismo garaian sartu aurretik kapitulu honetan zehar ikusitako laburbilduko dugu, balantze moduko bat eskainiz. Hola, gerraurreko euskarazko kulturgintza jasoan hiru planteamendu bereizi ditugu. Lehena, euskara tresna gisa hartzen zuena, ikasketa gutxi zuten euskaldun (ia) elebakarrei zuzendutakoa zen. Planteamendu honek Antzinako Erregimenean zuen jatorria eta erdararik (ia) ulertzen ez zuten herritar apalei oinarrizko jakintza tekniko batzuk transmititzeko asmoz landu zen. Helburu horrekin XVI. mendetik XX. mendera bitarte zenbait liburu, artikulu eta zerbitzu sortu ziren euskaraz: laborantza teknikez, osasun zaintzaz, eta antzeko gai espezializatu baina praktikoei buruz. Ekoizpen horien asmoa erdararik ez zekitenengana iristea zen. Beraz euskara errazean egindako liburu eta artikuluak ziren, oso dibulгатiboak, maiz erdaratik abiatuz egindako itzulpen sinplifikatuak. Planteamendu honen baitako euskarazko ekoizpenak muga argiak zituen, hiztun elebakarrak desagertu ahala agortzen baitzen, eta beharizan praktikotik haratago ez zuelako goranahi handiagorik.

Bigarren planteamendua euskara helburu zuena zen, hau da, xede gisa hizkuntzaren corpusa lantzea eta bere estatusa hobetzea zuena. Ikuspegi hau hein handiz euskal nazionalismoaren inguruan garatu zen. Izan ere, abertzaleen asmoa euskara goi mailako hizkuntza bihurtzea zen, erdaren pare jartzea, eta hori lortzeko euskara eremu berrietara jasotzeko zenbait ekimen garatu zituzten. Maiz ekimen horiek sinbolikoak izan ziren. Hola, adibidez, euskara kultur hizkuntza zela frogatu nahian A. Einsteinen teoriei buruzko testu bat idatzi zuen A. Anabitartek 1923an. Halako ahaleginetan



hizkera hiperpurista eta ulergaitza erabili zen, helburu nagusia euskararen zientziarako gaitasuna frogatzea baitzen, ez hainbeste euskaldun errealei eduki tekniko bat transmititzea. Tartean izan ziren zenbait ahalegin gai jasoak hizkera ulergarrian lantzeko, hala nola Euskal Esnaleak 1918-1928 artean antolatutako hitzaldi zikloan. Nolanahi ere, garaian, euskara estandarrik gabe, zaila zen hizkuntza eredu egokiena zein zen asmatzea. Bestalde zientziari buruz euskaraz ari ziren guztiak ez ziren beti gaian adituak, edota adituak izanik ere, gerta zitekeen halako gaiez interesa zuen publiko euskaldunik ez egotea. Horregatik saio asko borondate oneko baina segidarik gabeko probak izan ziren. Edozein kasutan, saioz saio, ibilbide xume bat hasi zen, euskara goi mailan erabiltzen zuen praxi zalantzatsu baina erreala.

Honi guztiari lotuta garai honetan sortu zen Euskaltzaindia (1918), euskara testuinguru akademiko batean kokatu zuena eta hizkuntza estandarra sortzeko lehen pausoak eman zituena. Gerraurrean Euskaltzaindiak ez zuen lortu ez euskara batu bat finkatzea, ezta jarduera akademiko osoa euskaraz egitea ere, hainbat kasutan bere kideek erdara erabiltzen baitzuten. Nolanahi ere, Akademiaren inguruan aditu euskaldun talde bat bildu zen, euskarazko ekoizpen jaso bat sortu zuten (artikuluak, hitzaldiak, ikerketak...) eta hizkuntza normatibizatzeke lehen saioak egin ziren. Beraz, euskara helburu zuen planteamenduak, gerraurrean emaitza handirik erdietsi ez arren, euskarazko kulturgintza jaso garatzeko bideak ireki eta seinlatu zituen.

Hirugarren planteamendua euskara ikerketarako objektu bezala hartzen zuena izan zen. Ikuspegi horretan, asmo nagusia zientzia egitea zen, ez euskararen egoera hobetzea, ezta euskaldun hiztunei zuzentzea ere. Horregatik, uneko testuinguru zientifikoan ohikoak ziren hizkuntzak baliatuz egiten ziren euskararen gaineko ikerketa gehienak (gaztelaniaz, frantsesez, alemanez...). Ikuspegi honen jarraitzaileak euskararen biziraupenaren kontrakoak (adibidez M. Unamuno) zein aldekoak (adibidez J. Urkixo) izan zitezkeen. Baina jarrera pertsonala zeinahi izanik ere, helburua zientzia egitea zenez, erdarazko praxia nagusitzen zen. Beraz, euskara ikergai gisa hartu zuen planteamendu honen baitan ia ez zen euskarazko kultura jasorik ekoitzi. Joera honen baitan koka daitezke gerraurrean sortutako RIEV aldizkaria eta Eusko Ikaskuntza erakundea.

Esan beharrik ez dago euskara eta kulturgintza jaso lotzeko hiru planteamenduen eskema hau teorikoa dela, eta erdibideko zenbait kasu seinala daitezkeela. Nolanahi ere uste dugu argigarria dela ikusteko Komunitate Zientifiko Euskalduna nolako ardatzen inguruan ari zen sortzen.

## **II. Frankismoaren lehen urteetako saio euskaltzaleak (1940-1953)**

## 1. Sarrera eta abagune historikoa

Atal honetan euskarazko kulturgintza jasoaren egoera aztertuko dugu lehen gerraostean (1939-1953). Bi gerrek markatzen dute epealdi honen hasiera: Hegoaldean Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939), eta Iparraldearen kasuan, Bigarren Mundu Gerrak (1939-1945). Hegoaldean gerra amaitzean, erregimen politiko berria ezarri zen: Francoren diktadura. Francok Euskal Herria, eta harekin lotutako euskal hizkuntza eta kultura jazarri zituen. Egoera ez zen aldatu, ezta Bigarren Mundu Gerra Alemania Naziak eta Italia faxistak galtzean ere. Hasieran askok espero zuten Estatu Batuek eta bere aliatuek Francoren diktadura eraitsiko zutela. Modu horretara espainiar errepublika zein Euskal gobernu autonomoa laster berrezarriko ziren itxaropena zegoen. Baina 1946an, AEBk, Britainia Handiak eta Frantziak publikoki jakinarazi zuten, frankismoa kondenatu arren ez zutela interbentzio zuzenik egingo diktadorea botatzeko. Izatez, urteekin francoren erregimena atzerriko herrialdeen aitortza eskuratuz joango zen. Hala, gerra tarteko exiliatu ziren hainbat euskaltzalek, uste baino denbora gehiago igaro beharko zuten erbestean.

Nazioarteko interbentzioen itxaropenak galdu baziren ere, barrualdean, astiro-astiro, ikur berriak sortu ziren. Adibidez 50eko hamarkadaren lehen erdialdean Arantzazuko Basilika berria eraiki zen. J. Intxaustik dionez, “Euskal Herriko proiektu artistiko handi bilakatu zen, garaiko nabarmenena; eztabaidatua zelako ere etorkizun berri baten ikurra izateraino. Esan dezagun, J. Oteiza zigortua kultur askatasunaren bandera ere bilakatu zela”<sup>1</sup>.

40ko hamarkadako gerraoste gordina gaindituta, 50eko hamarkadan Euskal Herrian bi dinamika politiko eta kultural desberdinu ziren: erbestekoa eta barrualdekkoa. Arlo politikoan, erbestean zeudenetako askok EAJren inguruko militantzia mantendu zuten. Barrualdean berriz, abertzaletasuna ulertzeko eta haren alde borrokatzeko molde berriak agertu ziren. 1953an Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasle batzuk Ekin sortu zuten, gerora ETA talde politiko-militarraren hazia izan zena.

---

<sup>1</sup> (Intxausti, 2007b: 65)

Euskarazko kulturgintza arloan ere, bi dinamika kultural diferente abian jarri ziren. Batetik erbestekoa, gerraurreko belaunaldien proiektuei lotuta, hala nola *Euzko-Gogoa* aldizkaria, argialetxeak eta abar. Eta bestetik barrualdekoa, ostantzeko asmoekin eta hizkuntza moldean ekoizitako kultur produktuekin, adibidez *Egan* aldizkaria (baita gerora sortutako *Jakin* aldizkaria ere, hurrengo kapituluan azalduko duguna). Hala, erbestean zeudenak oro har adinez nagusiagoak ziren barrualdekoak baino. Erbestekoak gerraurreko hizkuntza moldearen jarraitzaileak ziren bitartean, bertako euskaltzale gazteek euskara *mordoiloari* atea ireki zizkieten<sup>2</sup>. Dena den bien arteko etena ez zen 50eko hamarkadaren bigarren erdialdera arte gauzatu. Kapitulu honetan beraz, gerraostea eta aipatutako etena gertatu arteko tartea aztertu dugu.

Gerraosteko kapitulu honetan eta ondokoetan, euskarazko kulturgintza jasoaren egoera zein den azalduko dugu, gerraurrean erabilitako eskema jarraitu gabe. Era horretara zehatzago agertuko ditugu epe bakoitzean zeintzuk ziren goi mailako erakundeak, aldizkariak, argitalpenak edota euskarak hezkuntzan, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikasketa zentroetan izan zuen presentzia. Berez, kapitulu honetan, ez diogu hezkuntza arloari atalik eskaini. Izan ere, euskara Hegoaldeko hezkuntza sistematik guztiz at zegoen. Hala ere, sarrera honetan ohar batzuk egiten ditugu. Aldiz, atal banatan aztertu ditugu erakundeak, elkarteak, aldizkariak eta liburuak. Kapitulu honen amaieran, gerraurrean aipatutako eskemaren, hau da, euskarazko kulturgintza jasoan euskararen erabileraren gaineko iruzkin bat gehitu dugu.

Kulturgintza arloan, gerraurreko azpiegiturek eta formatutako pertsonak gerrarekin herio kolpea hartu zuten. Esate baterako gerraurreko erakundeetako asko hilik edo hiltorian geratu ziren. Euskaltzaindia izan zen gerraostean isilka misilka berpiztu zen bakarrenetakoa. Euskaltzale asko berriz, gerraurrean edo gerran bertan hil ziren (*Lauaxeta, Aitzol...*). Hala ere beste batzuk bizirik atera ziren (R. M. Azkue, J.

---

<sup>2</sup> Joseba Intxaustik, garaiko protagonista eta garai hau ikertu duenak honakoa dio: “1950eko hamarkada hartan Euskal Erbesteak bezala Barrualdeak lagundu zuten, euskarari bere kultur betekizun modernoak bilatzen (artean, Letra eta Humanitateetan ari zela). Baina Erbestea eta Barrualdea, artean, aldendurik ageri ziren, geografiaz urrun zeudenak belaunaldiz ere tartea eginez joango ziren, 1955-1960.etan etena gertatu zen arte. Hizkuntz eredua eta kultur modernitatea modu kontrajarrian definitu zirelako” (Intxausti, 2007b: 68)

Urkixo, *Orix*, L. Akesolo, J. Zaitegi, A. Ibiñagabeitia eta abar) eta 40-50eko hamarkadetan gerraurrean errotutako kultur proiektuak abian jartzen saiatu ziren.

Bestalde, gerran erbestera jo zutenetako batzuk urteekin itzuli egin ziren, adibidez J. M. Barandiaran. Ataundarrak 1936ean Hegoaldetik ihes egin zuen, eta Iparraldean babestu zen. Lehenengo Biarritzen bizi izan zen eta 1941ean Sarara lekualdatu. Han zegoela, zenbait proiektu hasi zituen (adb. Ikuska institutua eta aldizkaria). Antonio Tovar hizkuntzalari eta Salamancako errektorearen eta J. Ruiz-Giménez espainiar hezkuntza ministroaren bitartekaritzari esker, 1953. urtean Hegoaldera itzuli ahal izan zen. Sasoi horretan A. Tovar Salamancako Unibertsitateko errektorea izanik, euskal gaietarako “Larramendi” katedra sortu zuen. J. M. Barandiaran irakasle gisa gonbidatu zuen katedran hamar hitzaldi ematera. Gerora, katedra horretan beste hizkuntzalari batzuk aritu ziren, hala nola, Koldo Mitxelena. Salamancakoa ez zen izan gerra ostean sortutako katedra bakarra. Aurretik, 1948an Bordele 3 unibertsitatean Euskal Hizkuntza eta Literaturari buruzko katedra bat sortu zen, eta René Lafon izan zen bertako lehen katedraduna. R. Lafonek katedra 1969. urtera arte izan zuen<sup>3</sup>, ondoren J. Haritzelharrek hartu zuen<sup>4</sup>.

Laburbilduz, unibertsitate katedretan euskara ikas zitekeen arren (eskolak erdaraz jasoz), euskarazko irakaskuntzarik ez zegoen unibertsitatean, eta Iparralde zein Hegoaldeko hezkuntza sistematik ere kanpo zegoen. Hala ere, Donostia aldean, 1945ean gerraosteko lehen ikastola klandestinoan antolatu zuen Elbira Zipritiak bere etxean, eta 50eko hamarkadan Donostian beste bospasei ireki ziren. Ikastola hauetara ume txikiak zihoazen eta oinarrizko ikasketak egiten zituzten: irakurtzen ikasi, eragiketa matematikoak eta abar. Ondoren erdal sisteman jarraitu behar zituzten beren ikasketak.

---

<sup>3</sup> (Lafitte, 1974: 6)

<sup>4</sup> Bordele 3 unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Literatura katedraren arduradunak eta urteak honako hauek izan ziren: R. Lafon (1948-1969), J. Haritzelhar (1969-1990), J. B. Orpustan (1990-2000) eta Aurelia Arkotxa 2000. urtetik gaur egunera arte.

## 2. Goi mailako erakunde eta elkarteak

Aipatu denez, Espainiako 1936ko Gerra Zibilak euskal kulturarentzat jazarpen bortitza ekarri zuen, baita etena ere. Aurreko garaian ikusitako Hegoaldeko erakunde eta elkarten kasuan, batzuk betiko desagertu ziren (adibidez, Euskal Esnalea, Euzkeltzale Bazkuna, Euskaltzaleak...), beste batzuk hiltzorian (adb. Eusko Ikaskuntza) geratu ziren. Euskaltzaindiaren kasuan, gerrarekin, subentzio gabe eta kide gehienak erbestean, itxita geratu bazen ere, R. M. Azkue egunero joaten zen akademiaren egoitzara eta laster ofizialki irekitzea lortuko zuen.

### 2.1. Euskaltzaindia: euskaltzaleen topagune zatitua

R. M. Azkuek Akademia berpizteko bi saio egin zituen. Lehenengoan 1938. urtean frankistek sortutako *Instituto de Españaren* baitan Euskaltzaindia txertatzen saiatu zenean, ez zuen arrakastarik izan. Bigarreanean aldiz, 1940. urte inguruan, hau da, jadanik gerra amaituta zegoela, “Azkuek Bizkaiko Diputazioko politiko frankista batzuekin hitz egin zuen, beriziki José María Areiltzarekin. Euskaltzaindia berriro irekitzeko konbentzitu zituen, diputazioaren menpeko *Junta de Cultura de Vizcayaren* babespean”<sup>5</sup>. Frankistek gerraurreko Euskal Kultura Batzordea (*Junta de Cultura Vasca*) eraberritu egin zuten izena moldatuz (*Junta de Cultura de Vizcaya*). Batzordearen babespean Euskaltzaindia berpiztu zen, baina diru-laguntza urria eman zion. Beraz, 1941. urtetik berriro lanean, akademia izan zen gerraurreko erakundeetatik bizirik atera eta legezko bihurtzea lortu zuen erakunde bakarra. “Euskaltzaindiak garai honetan oso gauza gutxi egin bazitzakeen ere, gerraosteko euskaltzaleei bilgune bat eskaini zien”<sup>6</sup>. Hala ere, ikusiko dugunez, ez zen erabateko topagune, eta gerraurreko euskaltzale batzuk beste akademia bat sortzea planteatu zuten.

Gerraurretik bizirik eta Euskal Herrian hiru euskaltzain oso baino ez ziren geratzen: R. M. Azkue, J. Urkixo eta R. Intzagarai. Euskaltzain oso berriak izendatu ziren urte horretan bertan: Nazario Oleaga, Juan Karlos Gerra, Juan Irigoien eta Pablo Zamarripa. Bileretara laster hurbildu ziren Angel Irigarai eta Ignacio Maria Etxaide

---

<sup>5</sup> (Kintana Goiriena, 2006: 331)

<sup>6</sup> (Kintana Goiriena, 2006: 332)

ohikotasunez, eta Antonio Tovar noizean behin. Federiko Krutwig, jatorri alemaneko 21 urteko getxoztar gaztea ere, bertara joaten hasi zen, eta Euskaltzainburua eta biak lagun handiak egin ziren. 1942. urtean Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen.

Euskaltzaindiak kide gutxi batzuk eta diru-laguntza gutxi jasotzen zituen momentu horretan<sup>7</sup>. Frankismoak euskara eta euskal hiztuna zokoratuta, Euskaltzaindiaren egitekoa zein zen? “Euskaltzaindiak elkarte eruditu ilun bat bezala funtzionatu zuen, txosten partikularrak irakurtzeko bilgune gisa, hiztegi gintza lan isilean, garai hobeen zain”<sup>8</sup>. Beraz, ez zen ageriko bilkurarik egiten, ez sarrera-hitzaldirik ez bestelako ekitaldirik ere ez. Are gehiago, Euskaltzaindiaren baitan burutzen ziren txostenak ezin ziren plazaratu akademiaren organoan, frankismoak, euskarazko beste argitalpen ugari bezala, *Euskera* buletinaren argitaratzea eragotzi zuelako.

F. Krutwig-ek 1949an Euskaltzaindia indartzeko txosten bat prestatu zuen. Txostena euskaltzainburuaren (R. M. Azkue) eta Euskaltzaindiko idazkariaren (N. Oleaga) babesarekin aurrera atera zen. Txostenaren ildo nagusiak bi ziren: euskaltzainen kopurua handitzea (hamabitik hamazortzira igotzea) eta Iparraldeko euskaltzainak zein erbesterratuak Akademian berrintegratzea. Hala, urte horretan bertan euskaltzain berriak aukeratu ziren (M. Lekuona, P. Lafitte, R. Lafon...). Jurgi Kintanak dioenez, J. M. Seminario, nafar falangista euskaltzain izendatu zuten, agintari frankisten mesfidantzak uxatzeko. Garai honetan beste hiru gazte, Luis Villasante, gerora euskaltzainburua izango zena, Alfonso Irigoien eta Koldo Mitxelena Euskaltzaindiaren inguruan zebiltzan.

Euskaltzaindiak *Euskera* argitaratzeko baimenik ez zuela, Euskaltzaindiaren berriak sakabanatuta agertu ziren urte haietako prentsan, baina bereziki *Euzko-Gogoan*. Guatemalako aldizkariaren lehen zenbakian bertan Euskaltzaindiaren gaineko bi artikulua argitaratu ziren: “Euskaltzain berriak”<sup>9</sup> eta “Euskaltzaindi zorra eraberritzea”<sup>10</sup>,

<sup>7</sup> J. Kintanak dioenez, “Egia esan, Bizkaiko Diputazioaren diru-laguntzei, laster, 1943. urtetik, Gipuzkoako Aldundiarena gehitu zitzaion, baina sarrera guztiak ez ziren gerraurrekoen herenera ere iristen” (Kintana Goiriena, 2006: 332)

<sup>8</sup> (Kintana Goiriena, 2006: 332)

<sup>9</sup> Artikulua ez du inork sinatzen, baina seguru aski J. Zaitetik idatzi zuen (ikus *Euzko-Gogoan*, 7-8 (1950), 14-15. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo05/eugo0510.htm> [kontsulta data: 2009-06-01])

<sup>10</sup> (Orixe, 1950)



biak 1950. urtekoak. Lehenengoan, Euskaltzain oso eta urgazle izendatu berriak aipatzen ziren, eta bigarrenean *Orixek* Euskaltzaindia eraberritzeko F. Krutwig-ek prestatutako txostena kritikatzeko. Bereziki salatzen zen euskaltzain batzuk euskaraz ez zekitela, ez hitz egiten, ezta idazten ere. 1951. urtean *Euzko-Gogoan* beligerantzia handiko beste artikulua bat argitaratu zen Euzko-Gogoak sinatuta (seguru aski Jokin Zaitetik). Artikuluak, alde batetik, eraberritzea kritikatzeko zuten:

“GERTATU DANA. Iru edo lau adiskide vascuencista'k elkar arturik, egiazko Euskalerrinari (gure idazleeri ta yakuntsueri yaramonik egin gabe), Jauntxoaren menpean Euskaltzaindia eraberritu nai izan dute. Etitzaian aski iduritzen, aldegiñeri ta illeri ordezkioak ipintzea. Gauzak oker egiñik zeudela-ta, lengo Euskaltzaindia eraberritu bear zutela. Ori ere!

(...)

**Or datoz berriro baztarrak nastera, (erderaz mintzatuz, jakiña!), nolabaiteko vascuencista oiek. Euskeraz mintzatzen ez dakitenak ere ba-dira.**”<sup>11</sup> [beltzak gureak dira]

Eta, bestetik, Euskal Herrian eraberritutako Akademiaren aurka egonik, irtenbide moduan atzerriko Euskaltzaindi bat sortzea proposatzen zuten, gerraurrekoaren jarraitzailea izango zena:

“Atzerriko euskal-idazleen artean sortu ditekenez Euskaltzaindi onek, lengoaren iarraia dala iakinerazteko:

- 1.— Ez du Buruzagi berririk autatuko, Azkue iauna bizi dan arte. Ordezkioa, bai, ipiñiko du atzerrian.
- 2.— Lengo Ortografia artuko du ontzat eta eukiko du.
- 3.— Euskaltzaindi egiazko ta bakarraren erabakirik beiñenak bere egingo ditu.

Gurekin erara ba'zaudete, gero yarraituko dugu urgazle edo laguntzaile aukeran. Guk auek aukeratuko genituke, asteko beintzat: Arrugain, Ibinagabeitia, Jemein'dar Keperin Bizkaia aldetik; Zatarain, Etxaide, Ereño, Gipuzkoatik. Naparrik ez datorkigu burura. Gure idazleen artean, gaiñera: Iratzeder, Argarate, Monzon, Tauer txekoeslobarra, Mix polondarra euskeraz oso poliki idazten baitute.”<sup>12</sup>

Azkenean, saioak ez zuten aurrera egin, baina tarte batez gaia nahiko pil-pilean egon zen euskaltzaleen artean. Gerraurreko euskaltzaleek ez zituzten begi onez ikusten euskaltzale gazteek, bereziki F. Krutwig-ek proposatutako Akademiaren erreformak eta hizkuntzaren gaineko planteamendu berriak, batez ere, kultur lexikoaren esparruan bide garbizalea baztertzea. Ikusten denez, hizkuntza moldearen gaia eta belaunaldi arazoa batu ziren. Horrela, ziotson *Orixek* F. Krutwig euskaltzain gazteari gutun batean:

---

<sup>11</sup> (Euzko-Gogoa, 1951)

<sup>12</sup> (Euzko-Gogoa, 1951)

“Ustedes los jóvenes han aparecido disidentes e irrespetuosos contra los que peinamos canas. Esto es incontrovertible. No se extrañen de que se funde otra [academia] por los escritores en exilio”<sup>13</sup>

Akademia berria sortzeko asmotan zebiltzala, *Orixek* nahiago zuen Euskaltzaindiak ez izendatzea bera euskaltzain oso (ordurako urgazlea zen), aukera guztien arabera bera izango baitzen erbesteko akademia berriko burua. Aipatutako karta berean F. Krutwig-i honela komentatzen zion:

“En cuanto a mi candidatura, no hace falta que me nombren de Número, pues mientras no me dé baja como Correspondiente –y me tendré que dar si se funda otra, para ser neutral-, (...). Además, como la Academia disidente aludida querrá fundarse alrededor de mi persona y siendo yo Presidente...”<sup>14</sup>

Bestalde, sasoi honetan Euskaltzaindiak erabaki zuen batzarretako hizkuntza gisa euskara lehenestea (bere sorreratik batzarrak gaztelaniaz burutzen zituelako). J. Urkixo 1950. urtean hil zenean, F. Krutwig-ek Euskaltzaindiaren batzarretan euskaraz aritzeko proposamena aurkeztu eta onartu zen. Hala, 1951. urtetik aurrera, Euskaltzaindiaren batzarrak euskaraz izan ziren. R. M. Azkuek doi-doi ezagutu zituen Akademiaren batzarrak euskaraz, urte horretan bertan hil baitzen. Euskaltzaindiak 1952. urtean aukeratu zuen buru berria: Ignacio Maria Etxaide donostiar integrista. I. M. Etxaide euskaltzainburu gisa 10 urtez aritu zen. Bestalde, R. M. Azkueren aulkia betetzeko Koldo Mitxelena aukeratu zuten.

## **2.2. Euskara kultur hizkuntza bihurtzeko Krutwig-en saioa**

F. Krutwig gazteak Euskaltzaindian egin zuenaz gain, handik kanpo ere proiektu berria abiatu zuen: Mikeldi Institutua edo Urkixotar Jul Elkhargoa. Arrakasta txikia lortu arren, saiakera gisa oso interesgarria izan zen, hasteko eta behin elkartearen lan hizkuntza euskara izatea planteatzen zelako. Halaxe kontatu zuen proiektuarekin harremana izan zuen L. Villasantek, bere sarrera-hitzaldian (1952). Bertan zehazten zuen elkargoaren euskara moldea lapurtera klasikoa zela eta zeintzuk arau ortografiko, morfologiko, sintaktiko eta lexiko hobesten zituen. Proiektu honen berri F. Krutwigek

---

<sup>13</sup> (Orixek, 2006: 243)

<sup>14</sup> (Orixek, 2006: 243)

ere eman zuen bere memorietan eta bereziki bere memoria nobelatueta<sup>15</sup>. Azken horretan nahiko modu asistematiko eta zehaztugabeaz azaltzen zituen Mikeldi proiektuaren nondik norakoak. Beraz, sakonkiago aztertzea komeniko litzateke egiazki gertatu zena finkatzeko. Soilik gaineratuko dugu Koldo Zuazoren lanean institutuaren gainean jasotakoa:

“Euskaltzainditik kanpora, *Urkijotar Jul Elkhargoa* sortu zuen Bilbon, 1951n. Kultura gaiez euskara hutsez jardutea zen elkartearen helburua. Lino Akesolo, Mikel Arruza, Imanol Berriatua, Eusebio Erkiaga, Bernardo Garro “Otxolua”, Juan Gorostiaga eta Luis Villasante ziren bertako kideak; Krutwig bezala, denak bizkaitarrak”<sup>16</sup> [Kurtsibak jatorrizkoan]

L. Villasantek aipatzen zuenez, elkartean M. Arrutzak lapurtera irakasten zuen, eta elkartearen proiektuen artean honakoak zeuden:

“Gainera laphurtar idazlari hoberenen edizino berri-egokien ateratzeko asmoa hartu dute, gure gazteok literatur euskararen ereduak aisa erabil ahal detzaten. Euskara hunen Grammatika bat moldatzen ere hari dira auzolanean, lankide anhitzen artean. Gero, beharbada, hiztegi bat ere ilkhiren da. Eta liburu berri ta itzulpenak ere baita, Jainko lagun, denak euskara batu hunetan eginak”<sup>17</sup>

Institutu edo elkargo honek ez zuen aurrera egin, nahiz eta aipatutako asmoetako batzuk bertako kideak beren aldetik segitu zituzten (adibidez L. Villasantek *Axularren* hiztegia egin zuen). Proiektu honen aurretik, jada, F. Krutwig-ek bere sarrera-hitzaldian (1950) lapurtera klasikoaren aldeko proposamena egin zuen, hau da, lapurtera klasikoaren gainean euskararen batasuna eraikitzea. Lapurtera aukeratu zuen tradizio idatzi zabalena zuelako eta literatura zelako hizkuntzari prestigioa ematen ziona. Halaber, hizkuntzaren batasuna beharrezkoa zekusan, euskara prestigiatzeko. Batasunaz gain, hizkuntza prestigiatzeko besterik ere egin behar zen: euskara kultur hizkuntza bilakatu behar zen. F. Krutwigek kultur gaietarako gerraurrean errotutako kultur lexiko garbizaleari kritika egin zion, eta nazioarteko (erdal) kultur hitzak maileguan hartzearen alde egin zuen, kultur hitzok Europan orokorrak zirelako eta euskara mendebaldeko kulturaren parte zelako. Halaxe mintzatu zen getxoztarra Seminario euskaltzainaren erantzun hitzaldian:

---

<sup>15</sup> (Krutwig, 1979 eta 1991)

<sup>16</sup> (Zuazo, 2005: 125)

<sup>17</sup> (Villasante, 1952a: 105)

“**Termin teknikoak eztira ddostagailuak**, iakintsun beharrespena baizik. Euskarak beharrak dituen **termin teknikoak' guk ere bertze hizkuntzek bezala' latin eta gerkaratik harr ditzakegu** eta euskararen fonetikari dagozkion legeen biraldakuntza ttipi-ttipi batzuez eta batzuetan euskarazko gibeltekin termin teknikoaren lexikona eduk genezake. **Hola egin baldin ezpa geneza' euskara gure ikastuntzat eta eskolatuentzat behaztopo handia izaiten lizateke**. Nehork bere hizkuntzaz izkiriatu liburuak baizik huler ezpa litza' edozein euskaldunek' bertze erdaldu batek baino guttiago ikas lezake; euskara' gaztelara, prantzara eta bertze hizkuntzak baino tipiagoa' baita; hunetzaz gainera' erdara orok berdindu dute beren kulturlexikonak' hok diren ikasteko ta aditzeko bidea' hobea lizen; kultur hitzak poeten hornidurarik ezpaitira, gizonen beharra baizik; gizonak elkhari huler liezoten, eideak eta pentsamenduak elkhari gana litezen. Hizkuntza' gizonak darabilten erreminta praktikoa da; erreminta haur, bitxiren bitxiz ezertarako ezpa litzaio' edonork utziren luke. Hemengo gizonak ere atzerriko kultur bideak erabili behar ditutela' gomataratu behar dugu.”<sup>18</sup> [beltzak gureak dira]

Kultur lexikoa euskaraz ematean, jatorrizko grekolatindar ortografian ematearen aldekoa zen, adibidez *telephono* eta ez *telefono*. Krutwig-en proposamena beraz, erdal erroko hitzen eta ortografiaren aldekoa zen, eta kritika gogor eta esplizitua egiten zuen garbizaleen kontra, bere ustez, hizkuntza kontuetan ezjakinak eta bitxizaleak zirelako, eta beren erdua unibertsitaterako ez zelako baliagarria:

“Hizkara klasikoetatiko elheak nahiago ukhaitekotz bertze zio handi bat ere ba dugu. Herrien kultur bideak hizkuntzak dira, iakintsunek 'herriari demaioten kultura alde askoetatik harritzen dute, hizkararik askoz dathorrr eta itzultzekotz **kultur terminak' zigurrak izan behar dute. Hizkuntzaren garbitarazuna etzaie ezer balio sendagileari, legeginari, iakintsunari; hekiek zigurrarazuna dute nahi, argitarazuna ere; garbizalekeria heuroentzat muthilen iokuak eta baliogabeke zentzungabekeriak dira**. Sendagileak irakurten dituten liburuak' alemanaraz, angloaraz, latinez idatzita daude ta hizkuntza hauietan kultur terminak gerkara ta latinetik dathorrrtz. Kultur elheen zentzuak tinkhetz sendoa behar du izan, oroentzat bata eta berdina, edonungo iakintsunek erraz huler ditzan. Euskaldunek' baldin beren hizkuntza kultur bide izan dadin nahi ba dezate' euskarak kultur elhe bidezkoak harritu ditu, bertzenaz eginen genukeien lana alphera lizateke. Hunela bizi izanen da gure hizkuntza, euskaldunentzako kultur-bidea. **Zer iragan lekikeie euskaldunei kultur termin guztiak' euskarazko' erroetatik hitzak baizik izanen ezpa lira? Nola legoke Unibersitateetan iakintza, filosofiaren ikaspenak iakin nahi lituken euskalduna, ber hunek eskolan zegoelarik ikasi zituen elheak, hitzak eta terminak euskarazkoak baizen' ezpa lira? Orduan euskara behaztopobide handia lizateke**. Kultur hitzak' eztira ez baten ez' bertze hizkuntzaren berarizkoak' Okzidenteko herri guztien altxorra direla' burura dezagun.”<sup>19</sup> [beltzak gureak dira]

Azken finean, K. Zuazok bere tesian aipatzen zuenez, F. Krutwigek euskara erabilera esparru berrietara zabaldu nahi zuen, eta arlo berri horietan erabiltzeko euskara egokitze proposamena egin zuen<sup>20</sup>. Horren aurrean, eta aipatutako ikertzailearen lana jarraituz, baziren euskara garbia eta erabilera mugatuaren aldekoak. Gerraurrean

<sup>18</sup> (Krutwig, 1952b: 31)

<sup>19</sup> (Krutwig, 1952b: 31)

<sup>20</sup> (Zuazo, 1988: 363)

Euskaltzaleak elkartearen inguruan ibilitako Antonio Maria Labaien-ek 1949an honako iritzia zuen:

“Aiton batek illobak bezala, gure semeak euskaltasunean azi lezazke; ta **gure sinismen, oitura, jolas, dantza ta euskal gogoaren zaindári bikaiña izan diteke**. Onek euskeraz Fisika, Kimika ta Matematikak irakastea baño geiago balio du. Gai oiek eta beste goi jakituria erderari utzita ere euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrengo, erri artekoa, Errelijioaren magal gozoa.”<sup>21</sup> [beltzak gureak dira]

Iritzi hau handik bost urtera berretsi zuen *Euzko-Gogoan* argitaratutako beste artikulu batean:

“Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskera areago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein'en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingo urrutitxo joatea. Teoloji goitar, Kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba'genu ere pozik. **Gure literatura «quadrivium» otan sartuko nuke: 1º Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2º Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-berri). 3º Gauzen ikaskizunak. 4º Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia.**”<sup>22</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, 50eko hamarkadaren hasieran baziren gerraurreko tradizioaren jarraitzaileak, baita gerraurreko garbizaletasunaren mugak antzematen zituztenak ere. F. Krutwig horretan aitzindaria izan zen (gerraurrean Seber Altube izan zen moduan). F. Krutwig-en ideietara L. Villasante hurbildu zen. Izan ere, azken honek 1950. urtean, F. Krutwig-en sarrera-hitzaldiaren gaiaren berri izan zuenean egunkarian, hau da, kulturako hitzak nola erabili euskaraz, harengana aurkeztu zen. Artean L. Villasantek ez zuen Euskaltzaindiarekin harremanik, baina euskararen gaineko kezka bizia zuen, eta haren batasuna eta edozein gai lantzeko mintzabide bilakatzea nahi zuen. Biak lagun egin ziren, eta getxoztarrak L. Villasante hurbildu zuen lapurtera klasikora eta

---

<sup>21</sup> (Labaien, 1949) eta K. Zuazok aipatua (1988: 364 eta 2005: 123)

<sup>22</sup> (Labaien, 1954) baita Zuazok aipatua ere (1988: 364 eta 2005: 124). Labaien hala ere, ez zegoen guztiz itxita zenbait erdal hitz hartzeari. L. Villasanteren sarrera-hitzaldiaren haritik *Euzko-Gogoan* argitaratutako artikuluan honakoa zioen: “Bigarren, tenika-arazoetan, itz nagusienak beintzat, euskerak, izkera landu guzien antzera, griego-latiñetik artu bear dituala; noiz eta ingles edo beste jatorrikoak ez diran./ Ortan uste degu idazle geienok iritzi bateko gerala. Bidezko deritzaigu alegia: FILOSOFIA-PILOSOFI esatea; QUIMICA-KIMIKA; ALGEBRA-ALJEBRA; Termometro, Barometro abar eta abar. Jakintza bidean ez zaizkio euskerari bide ta ate guziak itxi bear itz berri edo erdi-berriak eratzeke duan gaitasunari. Etorri berezia du orretarako ta ongi sortutako neolojismoak erabilli ditezke arrotzekin batera. Esate baterako: *Urrutizkiña* ta teleponoa; *antzoki* ta teatro; *geltoki* ta estazio; *belbil* eta automobil: *egazkin* eta avion. Ongi egin ta zabalduak dauden itz orrek gure Akademia'k lenbaitlen aintzakotzat artu bear lituke” (Labaien, 1952)

Euskaltzaindira<sup>23</sup>. Laster, L. Villasante euskaltzain oso izendatua izan zen (1952). Bere sarrera-hitzaldian nagusiki euskararen batasunaz aritu zen, baina hasierako tartean kultur hitzen gainean bere iritzia eman zuen:

“Kultura-gaietan ere terminologi orokarr bat hedatu da Europako hizkuntza landu guztietan; nahiz indoeuropeotarr hizkuntzen enborreko izan, nahiz izan ez, kultur-terminologi greko-latindarra onetsi eta beretu dute hizkuntza guztiok.

(...) **Kultur-hitz hoik hartzeko ateak hertsiaz** euskarari eskutatik harmen edekitzea bertzerik egiten ezteraukogu, mila idea egoki ta tinko ezin expressatzeko herstatusunean uzten dugu, **bizidun bati bizigailua debekatuz hiltzera behartzen dugu.**”<sup>24</sup> [beltzak gureak dira]

Villasantek hitzaldia F. Krutwig-en proposamen ortografikoari jarraituta idatzi zuen, eta RSBA-Paren buletinean argitaratu zen, aldizkarian euskaraz argitaratutako lehenengo lana izanik. F. Krutwig-ek berak eman zuen erantzun hitzaldia. Bertan zeuden garaiko agintari zibil eta erlijiosoak. Krutwigek haien aurrean salatu zuen Elizaren praxi erdaltzalea, arau katolikoen aurkakoa zena. Horren ondorioz, F. Krutwig-ek alde egin behar izan zuen Hegoaldetik eta L. Villasantek F. Krutwigekiko lagun harremana eten zuen. Mikeldi Institutuko *alma materra* exiliaturik, elkarte bertan behera geratu zela dirudi.

F. Krutwig, 1961. urtean Lapurdi inguruan zegoela, P. Lafitte euskaltzainari eskutitz bat bidali zion. Lapurdin euskaraz funtzionatuko zuen ikerketa gune bat sortzeko asmoa azaltzen zion, Bizkaian aurretik egiten saiatu zenaren antzekoa.

“Kulturaren alde ekhitekotz Bilbaon Kultur Ikhertzeen Institutu bat fundatu nezan eta institutu huntan euskara hizkuntza ofizialea izan zedin, ezen euskararen Kulturaren alde ekhiteko ezta naikhoa baserritarren thematei buruz baizik ez mintzatzea, **gure bizi modernuaren konplexitate guztiari buruz hitz egin beharr baitugu euskaraz, bertzenaz euskara museuaren objektu bat bailizen bezala traktatzen baitugu.**

Orain hemen ere iomuga berdinez Kultur ikhertzeen Institutu bat fundatu nahi nuke, euskaltzale guztien kollaborazioaz.

Institutu huntan! berez interesante diren thematei buruz traktatu behar dugu, euskaldun diren ixtudianteak eta kulturduinak euskaragana lehorzen, euskara heien expresatzeko bidea ledin bilhaka. **Gizarteko Burua euskalduntzen iardets baldin ba geneza, gure hizkuntzaren ethorrkizuna salba izanen baita, ezen herriak Buruari, Aristokratiari, Burjesiari darraie.**”<sup>25</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>23</sup> (Perez Gaztelu, 2000)

<sup>24</sup> (Villasante, 1952a: 95)

<sup>25</sup> F. Krutwig-ek P. Lafitte-i bidalitako eskutitza 1961.01.16an (in Lafitte, 2006: 216). Aipua Pruden Gartzinari zor diogu.

Iparraldeak frankismorik ezagutu ez arren, F. Krutwig-en proiektua erretzeko nahikoa kultur dinamikarik ez zegoen. Han ere, ezin izan zuen getxoztar euskaltzainak euskarazko instituturik sortu. Nolanahi ere, argi geratzen da F. Krutwigek euskara biziberritzeko proiektua planteatu zuela, estandar literario gisa lapurtera klasikoa baliatuko zuena, eta hizkuntza zientzia eta jakintzen esparrura eramateko asmoa zeukana.

### 2.3. Urkixo Mintegia

*Seminario de Filología Julio Urkijo* edo “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegia (aurrerantzean, Urkixo Mintegia) 1953. urtean sortu zen Donostian. Urkixo Mintegia, Gipuzkoako Diputazioaren babesarekin sortu eta euskararen goi-mailako ikerketara bideratuta zegoen. Mintegiak 1950. urtean hil zen Julio Urkixoren omenezko izena hartu zuen<sup>26</sup>.

Mintegiaren araudia 1955. argitaratu zen, mintegiaren berri ematen zuen liburuxka batean. Bertan zehazten ziren zein zen bere misioa (euskararen ikerkuntza zientifikoa<sup>27</sup>), izaera (zentro unibertsitarioa<sup>28</sup>), egoitza (Donostian, Gipuzkoako diputazioaren Donostiako jauregian), baliabideak<sup>29</sup>, zuzendaritza eta abar. Patronatu berezi batek zuzenduko zuen mintegia<sup>30</sup>, eta batzorde batek mintegiaren jarduera zientifikoak egikarituko zituen<sup>31</sup>. Mintegia, Gipuzkoako Diputazioaren babesarekin

---

<sup>26</sup> Ikus “El Seminario de Filología Vasca `Julio de Urquijo”” *Boletín de la RSBAP*, 9 (1953), 125-126.

<sup>27</sup> Mintegiaren xede nagusia honako hau dela zehazten da: “El Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” es un centro docente y de investigación para la enseñanza de la lengua vasca, dentro de normas de rigor científico, dirección e impulso de sus estudios, e investigación de los problemas que entrañan tanto la lengua en sí como su historia o conexión con otras lenguas” (Urkixo Mintegia, 1955: 57)

<sup>28</sup> Urkixo Mintegia zentru unibertsitario gisa definitzen da: “Creado y sostenido por la Diputación Provincial de Guipúzcoa, el Seminario será de naturaleza provincial, pero estará incorporado, a todos los efectos académicos y docentes, a la Universidad de Valladolid, por lo que tendrá carácter de Centro Universitario.” (SJU, 1955: 57)

<sup>29</sup> Gipuzkoako Diputazioak finantzatu du mintegia halaber mintegiaren esku jarriko ditu bi liburutegi: Liburutegi Orokorra eta J. Urkixoren biblioteca (3 eta 5. artikulua) (Urkixo Mintegia, 1955: 57-58)

<sup>30</sup> Patronatu berezi horretan honako pertsona hauek parte hartuko zuten: Diputazioko presidentea, Valladolideko Unibertsitateko errektorea, Filosofia eta Letren fakultateko dekanoa, hezkuntza arloko zenbait kargu politiko, Euskaltzaindiko lehendakaria, RSBAP buletinaren zuzendaria, eta Gipuzkoako Artxibo eta Liburutegien saileko arduraduna. (7. artikulua) (Urkixo Mintegia, 1955: 58)

<sup>31</sup> Ikus araudiaren 9. artikulua (Urkixo Mintegia, 1955: 58)

sortu zen, eta urteetan erakunde horrek finantzatu zuen mintegiaren jardura<sup>32</sup>. G. Egiak dio, urte haietan Koldo Mitxelenak mintegiarekin bi modutara jokatu zuela: “alde batetik, Euskaltzaindiaren barruan ziren sektore integristak astintzeko gotorlekua izan zen (...) bestetik, euskal ikasketen garapena bultzatzeko tresna”<sup>33</sup>.

Urkixo Mintegiak sortu berritan egindako lanen artean garrantzi berezia izan zuten 1953-1955. urteen artean Euskaltzaindiarekin batera Donostian, Mintegiaren liburutegian, antolatutako euskarazko hogeit hamar hitzaldiek. Hitzaldion helburua euskal idazle klasikoak ezagutaraztea zen, eta esan moduan euskaraz ematen ziren. Hitzaldiak euskaltzale eta euskalarientzat ziren (“para iniciados en el cultivo literario del vascuence e interesados en el estudio de su literatura”<sup>34</sup>) eta ostean eztabaidarako tarte bat irekitzen zen<sup>35</sup>.

1953. urteko urrian argitaratutako *Euskeraren* koadernoaren arabera, ordurako gutxienez, 6 hitzaldi antolatu ziren baina Akademiak gehiago antolatzeko asmoa agertzen zuen. Lehena L. Villasantek eman zuen Joanes Etxeberriren ganean, bigarrena K. Mitxelenak Oihenarti buruz, hirugarrena A. Irigaraik *Axular* eta *Gero* lanaz, laugarrena A. Arruek eman zuen Asteasuko Juan Bautista Agirre eta bere Platikak aztertuz, bosgarrena J. M. Lojendiok Mogelen ganean, eta seigarrena A. M. Labaienek Elizanbururi buruz.

Euskaltzaindiak hitzaldietako testuak argitaratzeko asmoa zuen. Lehena RSBAPen buletinean, eta “las siguientes se publicarán igualmente, bien en estos Cuadernos o en el Boletín de la R. S. Vascongada, que tiene la gentileza de poner siempre a nuestra disposición algunas páginas, por lo que desde aquí queremos expresarle nuestro saludo de gracias.”<sup>36</sup>

---

<sup>32</sup> Hala ere, Gotzon Egiaren arabera, Diputazioaren babesa ahulduz joan zen, eta 1998. urtean Gipuzkoako Diputazioak Eusko Ikaskuntzarekin hitzartu zuen Urkixo Mintegia Eusko Ikaskuntzan sartzea (Egia, 1999)

<sup>33</sup> (Egia, 1999)

<sup>34</sup> “Actividades de Academia de la Lengua Vasca” *Boletín de la RSBAP*, 9 (1953), 130.

<sup>35</sup> “Euskaltzaindia-ren Euskal-batzarreak” *Boletín de la RSBAP*, 9 (1953), 229-230.

<sup>36</sup> “Actividades de la Academia” *Euskera, Cuaderno I* (1953), 46.  
[ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52958.pdf](http://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52958.pdf)



Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen buletina 1945. urtean argitaratzen hasi zen eta etenik gabe gaur arte iraun du. Euskarazko lehen lan argitaratua, arestian aipatu dugunez, L. Villasanteren sarrera-hitzaldia izan zen 1952. urtean<sup>37</sup>. Urte horretatik aurrera Adiskideen buletina Euskaltzaindiaren gaineko berriak argitaratzen hasi zen baita Donostiako hitzaldietako lehenengo bi berbaldiak ere. Hau da, L. Villasanteren Etxeberriren gainekoa<sup>38</sup> eta K. Mitxelenaren Oihenarti buruzkoa<sup>39</sup>. Beste lau hitzaldiak aldeaz edo moldez, argitaratuak izan ziren<sup>40</sup>, eta dakigula A. Arruerena izan zen argitaratu ez zen bakarra.

Urkixo Mintegiak eta Euskaltzaindiak Donostian antolatutako hitzaldi guztiak ez ziren euskal literaturaren historiari buruzkoak. Manuel Lekuona bi saiotan euskarazko bokatiboaren gainean aritu zen<sup>41</sup>. Saioak *Eusker*a buletinean argitaratu ziren. Hitzaldiaren hasieran M. Lekuonak berak honakoa aitortzen zuen:

“Jaun-Andreok: gutxi oitutako gai bat dakartzutet, gaur, nere entzuleoi: “Euskerazko vocativoa”; edo-ta “Vocativoa euskeraz”.

Gutxi oitua itzaldi oietan. Gramatikari dagokion gai bat.

Orain arte, beti ez bada ere ia beti, Literaturari dagokion gairen bat erabili izan da mai ontatik. Literaturari, Literaturaren Edestiari, Literaturaren Atzeari, gure Orixe 'k liokean bezela.”<sup>42</sup>

Juan Garmendiak eman zuen seguru aski hogeigarren eta azken hitzaldia: *Euskeraren iraupena eta Euskal-Literaturaren Aurrerapena*. Urkixo Mintegiak J. Garmendiaren hitzaldia liburuxka batean argitaratu zuen 1955. urtean, eta bertan zerrendatuta aurkitu ditugu Donostiako hitzaldi guztiak, arestian aipatutako seirak, gehi honako beste hauek ere:

---

<sup>37</sup> (Villasante, 1952a eta 1952b)

<sup>38</sup> Villasante, L. (1953): “Joanes Etxeberri (1668-1749)” *Boletín de la RSBAP*, 9 (1953), 231-243.

<sup>39</sup> Mitxelena, L. (1953): “Arnaut Oihenart” *Boletín de la RSBAP*, 8 (1952), 445-463.

<sup>40</sup> A. Irigaraik esaterako, *Axular*ri buruz eman zuen hitzaldiaren testua Euskaltzaindiak Itxaropenarekin argitaratu zuen *Geron* (1954) erabiliko zuelakoan gaude (A. Irigaraik bertan parte hartu baitzuen). Mogeli buruz J. M. Lojendiok emandako hitzaldia, seguru aski Euskaltzaindiak Eibarren 1959. urtean antolatutako Euskaltzaleen Biltzarrean egindako komunikazioaren abiapuntua izan zen (Lojendio, 1960). Eta azkenik, A. M. Labaienek Elisaburu olerkariaren gainean emandakoa Urkixo Mintegiak argitaratu zuen 1955. urtean liburuxka formatuan.

<sup>41</sup> Lehenengo hitzaldia 1954ko abenduan eman zuen, eta bigarrena 1955ko urtarrilean (ikus Lekuona, 1956a eta 1956b)

<sup>42</sup> (Lekuona, 1956b: 99)

“Zaspigarren: *Dunixi Azkue jauna*, BILINTX bertsolaritzaz  
Zortzigarren: *Onaindia Aita*, BARTOLOME ABA 'kiko.  
Bederatzi ta amargarren: *Zugasti apaiz jauna*, ITURRIAGA 'ri buruz.  
Amaikagarren: *Juan Jose Beloki jauna*, DECHEPARE 'tzaz.  
Amabigarren: *Gorostiaga apaiz jauna*, ANTXIÑAKO GUDU-KANTAK 'gaiean.  
Amairugarren: *Mitxelena Aita*, ARANTZAZU TA ORAINGO ERTILAN 'gaiean.  
Amalagarren, *Juan María Etxaide jauna*, EUSKERA 'REN BERRI LABUR BATZUK 'kiko.  
Amabostgarren: *Antonio Arrue jauna*, GERRIKO 'ren euskal-idazlan gaiean.  
Amaseigarren: *Jesus Elozegi jauna*, EUSKAL-IDAZLIAK IRAKURTZEN gaiean.  
Amazaspi ta emezortzigarren: *Lekuona apaiz jauna*, DIKIA IZENETAN ETA ADITZETAN 'gaiz.  
Emeretzigarren: *Villasante-Kortabitarte Aba*, AÑIBARRO 'ri buruz”<sup>43</sup>

Hitzaldiok han hemenka argitaratu ziren, idazlan labur gisa *Euzko-Gogoan*<sup>44</sup>, artikulu gisa *Euskera* buletinean edo *Egan* aldizkarian<sup>45</sup>. J. Garmendiaren hitzaldia aldiz, arestian aipatu dugunez, Urkixo Mintegiak argitaratu zuen. Bertan, besteak beste, euskaraz ordura arte argitaratu ziren liburu eta idazleen zerrenda zekarren. J. Garmendiak 1955. urtera arte 289 liburu euskaraz zenbatu zituen<sup>46</sup>.

Laburbilduz, Urkixo Mintegiak Euskaltzaindiarekin batera antolatu zituen hitzaldiak euskara maila jasoan erabiltzeko bide bat izan ziren. Gainera, gerra aurrean Euskal Esnalearen hitzaldiekin gertatu zen bezala, ahozko ekoizpenak ondoren idatzizko argitalpena erraztu zuen.

## 2.4. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak

Eusko Ikaskuntzak 1936ko gerrarekin herio kolpea hartu zuen. Beraz, 1936-1978. urteen artean ez zen elkarerik izan. Hala ere, gerraurrean bertan parte hartutako hainbat kidek, bereziki Lapurdin erbesteratutakoek, EI/SEV berpizteko saiakerak egin zituzten. Alde batetik J. M. Barandiaran izango genuke, eta, bestalde, EAJko jarraitzaile erbesteratuek, bereziki, Manu Sotak, antolatutako bi kongresuak. Izan ere, Eusko

<sup>43</sup> (Garmendia, 1955: 7)

<sup>44</sup> *Euzko-Gogoan* S. Mitxelenarena eta L. Villasanterena argitaratu ziren.

<sup>45</sup> Jesus Elosegiren hitzaldia *Egan* aldizkarian argitaratu zen (1957ko 1/2 zenbakian), baita separata gisa ere.

<sup>46</sup> (Garmendia, 1955: 24)

Ikaskuntzak bi kongresu egin zituen gerraostean Iparraldean: zazpigarrena 1948. urtean Biarritzen<sup>47</sup> eta zortzigarrena 1954. urtean Baionan eta Uztaritzen<sup>48</sup>.

Gerraosteko lehen kongresuan, hainbat komunikazio aurkeztu ziren, gehienak orrialde batekoak, oso laburrak, beraz. Biarritzeko kongresuan, erdia baino gehiago frantsesez izan zen, eta beste guztiak gaztelaniaz, euskarazko bi salbuespen kenduta<sup>49</sup>. Euzkeltzale Bazkunako kide izandako Keperin Jemeinek “Eusko, ala euzko?” aurkeztu zuen, eta Jean Oxibarrek “Uchkaldunak bazter orotan”. K. Jemein gerraurretik zetorren “eusko” hitzaren idazkera polemikoari buruz aritu zen sabindar bizkaieraz, eta bigarrena zubereraz aritu zen mundutik barreiatutako euskaldunen pasadizoak kontatzen.

Biarritzeko Nazioarteko Udako Unibertsitate proiektuaz, frantsesez aritu ziren H. Gavel eta J. Bilbao<sup>50</sup>. Proiektuak ez zuen aurrera egin, baina proposamena deigarria begitantzen zaigu.

Eusko Ikaskuntzaren zortzigarren kongresuan (1954) ere, erdara nagusi izan zen, baina bi egilek beren lanak euskaraz aurkeztu zituzten. Alde batetik Andima Ibiñagabeitiak (“Itun berriaren euskal itzulpenak eta J. Zaitegi Abaren “Bidalien egiñak”) eta bestalde Jon Balerdik (“Abaltzisketa´ko artzantza”). J. Balerdik Gipuzkoako Abaltzisketa inguruko artzainen komunitatea, inguru geografikoa eta bizimoldea aztertu zuen. A. Ibiñagabeitiak aldiz, itzulpengintza arloko gai bat jorratu zuen. Egileak artikuluan bertan zioen moduan:

“Lan au egokienik zedarritzeko, irakurleari ernegarri ta argiago gerta dakion itzulpen ta itzulariak, samaldan, ta noragabe artzeke, iru sail berezietan bildu ditut, sail-berean itzulpen guztiak bakoizka aipatu, ta ala izan ezkeru, ikertzeko: aurrenik LEIZARRAGA TA AREN IARRAILEEN SALDOA: urrenik LOUIS LUCIEN BONAPARTE PRINTZEARENA: azkenik HARANEDER ta katoliku itzularien taldea, talde izenik merezi ba-lu. Ondoren Zaitegi Abaren “BIDALIEN EGIÑAK”, itun berriaz euskaraz idatzi iruzkin bakarra, zar[r]atuko dut”<sup>51</sup>

---

<sup>47</sup> J. Diaz Nociren arabera, zazpigarren kongresua J. M. Barandiaranen Gernika taldeak antolatu zuen (Diaz Noci, 2001)

<sup>48</sup> Kongresuotan aurkeztutako lanak argitaratu gabe egon dira 2003. urtera arte, Eusko Ikaskuntzak berak edizioa prestatu duen arte.

<sup>49</sup> Testu elebidunik ere izan zen. Guk ezagutzen duguna hauxe da Jean-Raymond Larrouyet-en “La Section Parisienne de Euskaltzaleen Biltzarra”. Euskarazko atala dirudienez P. Lafittek prestatu zuen.

<sup>50</sup> (Gavel, 1948 eta Bilbao, 1948)

<sup>51</sup> (Ibiñagabeitia, 1954a: 224)

*Euzko-Gogoa* aldizkarian bigarren kongresu honen gainean lan pare bat argitaratu zen. Lehenengo editorial bat kongresua iragarri, eta bigarrena, kongresua burutu ostekoa, euskara hiltzorian zegoela eta euskararen alde egiteko 10 erremedio proposatuz<sup>52</sup>. Guri lehenengoa interesatzen zaigu, editoriala alegia. Bertan kongresua iragartzearekin batera, kritika gordina eta latza egiten zitzaion, Eusko Ikaskuntzen kongresuetako hizkuntza euskara ez izateari:

“Nola liteke Eusko-Ikaskuntza-Batzarrak antzu gertatzea? Itz gutxitan azalduko dizuegu gure erantzuna. Batzarre orietan, maizenik, gure izatearen erro ta gogo dan euskera, lotsagarriro baztertu oi izan dutelako. Eusko-filologiaz, euskal-edestiaz, euskal-folkloreaz, gure erriaren agerkari guztietaz ekin diete, bañan beti erderaz. **Euskerak ez du inoiz ere batzarre orietan bere arpegi ederra erakutsi; alderantziz, noragabe eta eskale ibilli izan da iakitun erdel-zaleen artean zapuztua ta baztertua.**

Zertako euskeratzaz erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta oraingo euskal-iakitun gazteek olakorik ezin dezakete egari. Ez dute nai euskeratzaz erderaz ari dan batzarrik, ikaskun-mota guztietaz euskeraz soilik ari diranak baizik. Betoz batzarretara iakitun arrotzak ere. Oriei ez diegu ukatzen beren izkeraz mintzatzeko eskubiderik; ez gera ain ergelak. **Bañan euskal-iakitunek, euskeraz mintzo bitez:** euskeraz ager bitzate euren txostenak, aukera bedi Ikaskuntza-Batzarretako izkera nagusia, beste izkera oro bere menpean dauzkan mintzo garai ta iakintsua. Ori iristen ez dugun artea, orain arte bezala, antzu gertatuko dira eusko ikaskuntza batzarrak oro, kaltegarri ta lotsagarri ez denean. **Erdal-ikaskuntza batzarrik ez dugu nai, gure euskera, illotz baten gisa, erdal-aizto ilgarritz moztu, inausi ta sarraskitzeko.**

Erotuta gaudela esango dute zenbait iakitun erdel-iarieok. Bai, euskerakin zoratuta gaude, ta euskerak beste euskotar guztiei burutik eragiten ez dieneño galdurik gaude. Ikusi dugu zuen gurbiltasunak, zuen zuhurtziak noradiño eraman dituen gure aberri-izkera eta gure erria. Aski zuurtasunik eta betorkigu euskal-eroaldi betea, gure izkera ederraren oiartzunez Euskadi'ko muga urrutienak ere beteko dituen euskal zoro-aldia.

Aurtengo VIII'gn. E.I. Batzarra urrengo gai onen baranoan bilduko da «EUSKAL IZKERA TA KULTURA:NOLA ZAITU TA AZKORTU». «Asmoz ta jakitez» erderaz ekiñalean ez noski, euskeraz baizik. «Eusko-Gogoa»k aspaldi ikasi zuen gure izkera ta kultura zaitu ta azkartzeko bidea. Zuek ere, euskera betiko eortzi nai ez baldin ba'duzue, gure bidetik ibilli bear duzue. Zuen zuhurtzia txurikeri utsal eta ilgarria baita, gure zortasuna berriz, euskera indarberrituko duen kemen ta oldarra.”<sup>53</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, Eusko Ikaskuntzaren kongresuetan, gerraurrean bezala, erdal praxia izan zen nagusi. Baina gerraostean ahots kritikoak ere ari ziren azaltzen, lehenago gertatzen ez zena.

<sup>52</sup> “Eusko-Ikaskuntza´ren deia” *Euzko-Gogoa*, 5-8 (1954), 98-100. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo22/eugo2219.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>53</sup> “VIII´gn. Eusko-Ikaskuntza-Batzararen inguruan. «Azmoz ta Jakitez» bai, bañan EUSKERAZ” *Euzko-Gogoa*, 3-4 (1954), 49. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo21/eugo2102.htm> [kontsulta data: 2009-04-21]

### 3. Aldizkariak

Gerraostean, euskarazko aldizkari jasorik ez zen 40ko hamarkadan, bai ordea 50eko hamarkadan: *Euzko-Gogoa* eta *Egan*<sup>54</sup>. Bi horiek aztertu aurretik, laburki bada ere garrantzia txikiagoko beste batzuk aipatuko ditugu. Euskarazko kulturgintzari dagokionez, 40ko hamarkada latzena izan zen, erabateko jazarpen pairatu baitzuen. Frankismoak ez zuen aldizkarietan euskarazko testuak argitaratzearen kontrako lege orokorrik kaleratu, baina maila apaleko aldizkarietan argitaratzen ziren euskarazko artikuluak gehienetan debekatu egiten zituen<sup>55</sup>. Hala ere, debeku orokorrik ez zenez, ordena erlijioso batzuk maila apaleko beraien aldizkarietan, euskarazko lanik argitaratu zuten, batzuetan are aldizkari elebakarrak kaleratuz<sup>56</sup>. Esate baterako, 1945. urtetik aurrera *Anaitasuna* argitaratzen hasi zen Tolosan. *Anaitasuna*, euskarazko aldizkari erlijioso elebakarra zen, eta gai erlijiosoak zein kulturalak lantzen zituen. 1953. urtetik aurrera Bizkaian ere editatzen hasi zen, bizkaieraz, eta Gipuzkoako *Anaitasunaren* gehigarri gisa. Gipuzkoako *Anaitasunaren* lehen zuzendaria Eugenio Agirretxe<sup>57</sup> izan zen eta Bizkaiko gehigarriarena Imanol Berriatua<sup>58</sup>. Gerora, Bizkaian *Anaitasunak* kutsu erlijiosoa galdu zuen, eta 70eko hamarkadan, Euskara Batuaren aldeko plataforma bat izan zen. Bizkaiko euskaltzale asko *Anaitasuna* irakurriz alfabetatu ziren.

Bestalde J. M. Barandiaranek martxan jarritako proiektuak eta beraiei lotutako argitalpenak aipatu behar dira. Gerra piztean, J. M. Barandiaranek Iparraldera alde egin zuen. Bertatik Europa osora bidaiak egin zituen kongresu eta jardunaldietan parte hartzeko (Londres, Oxford, Paris, Brusela...). 1946. urtean *Ikuska* (*Institut Basque de Recherches*) elkarteak sortu zuen, eta bertako ikerketen berri emateko izen bereko boletina argitaratu zuen. J. M. Barandiaranek 1948ko kongresuan Euskal Unibertsitatearen inguruan aurkeztutako planaren zirriborroan aipatzen zuen, *Ikuskak*,

---

<sup>54</sup> Joseba Intxaustirentzat bi aldizkari hauek erdi-goiko mailakoak dira (Intxausti, 2007b: 58). Noski ez dira zientifikoak, baina kultur aldizkari gisa, goi mailakotzat har litezkeela iruditzen zaigu, *Euzko-Gogoa*, *Egan* baino gehiago.

<sup>55</sup> Hori gertatu zitzaion zenbait aldizkari erlijiosori Joan Mari Torrealdai jasotzen duenez (Torrealdai, 1998: 163)

<sup>56</sup> J. Diaz Nocik egin du 40 eta 50eko hamarkadako euskal aldizkariaren azterketa (Diaz Noci, 2001). Berak aldizkariaren zerrenda, kronologia zehatza, izaera eta euskarazko testuen portzentajea ematen du.

<sup>57</sup> (Agirrebaltzategi, 2007b)

<sup>58</sup> (Kintana Urriaga 1982, 1994a eta 2006; Goikoetxeak & Bilbao, 2007)

bere apalean, Eusko Ikaskuntzaren egitekoen jarraipena bere gain hartzen zuela<sup>59</sup>. Hurrengo urtean *Eusko-Jakintza* aldizkariaren zuzendaria izendatu zuten. *Eusko-Jakintza*, gerrarekin bertan behera geratutako *Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)* aldizkariak utzitako hutsunea betetzeko asmoz sortu zen. Aipatutako *Ikuska* eta *Eusko-Jakintza* aldizkarietan euskararen presentzia oso txikia zen, J. Diaz Nociren datuen arabera, % 10ekoa edo gutxiago<sup>60</sup>.

Halaber, 40ko hamarkadan euskal Hizkuntzalaritza, Filologia eta Literaturaren inguruan bi aldizkari sortu ziren: lehena *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* (aurrerantzean, *Boletín de la RSBAP*), kultur aldizkaria, eta bigarrena, *Egan*, literatur aldizkaria, aipatutako buletinaren literatur eranskin gisa. Bai bata zein bestea gaur egunera arte modu jarraian argitaratu dira.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak 1945. urtean argitaratu zuen Donostian bere buletinaren lehen zenbakia. Buletinean Hizkuntzalaritza arloko lanak kaleratzen ziren, bereziki euskarari buruzkoak. Hala ere, aldizkariaren hizkuntza erdara zen, gaztelania, hain zuzen. Buletinak ideologia desberdineko lankideak erakarri zituen, bai erregimenaren aldekoak, bai tradizio abertzalekoak (K. Mitxelena, J. Galindez, A. M. Labaien, A. Irigarai, J. Garate, J. Artetxe eta abar) baita militantzia politiko markaturik ez zutenak ere (adb. J. Caro Baroja)<sup>61</sup>. Lankidetzaren hauen argitan, J. Intxaustiren hipotesia zera da, garaituetako batzuk, onartu egin zutela erakunde frankista batek sortutako aldizkari berriaren balio kulturala<sup>62</sup>. Hori horrela izanik ere, aitortu behar da, besterik ere ez zegoela. Auzia oso sinplea zen: buletina edo ezer ez. Azkenean, hautua buletinaren aldekoa izan zen 40ko hamarkadaren bigarren erdian, besterik ez zegoelako, eta besterik egiterik ezinezkoa zelako. Horren adibide da, aldizkariaren harpidedun kopurua. Aldizkariak bere lehen urtean 580 harpidedun bazituen, handik lau urtera, harpidedunen kopurua ia bikoiztu egin zen. Buletina beraz, “hutsarte kultural nabaria zerbait betetzera”<sup>63</sup> etorri zen.

<sup>59</sup> (Barandiaran, 1948: 866)

<sup>60</sup> (Diaz Noci, 2001)

<sup>61</sup> Egileen zerrenda zehatza J. Intxaustik eskaintzen du (Intxausti, 2007b: 55)

<sup>62</sup> (Intxausti, 2007b: 55)

<sup>63</sup> (Intxausti, 2007b: 55)

### 3.1. Egan

Arestian aipatu dugun moduan *Egan* aldizkaria, *Boletín de la RSBAP*en literatur eranskin gisa sortu zen 1948. urtean Donostian. Hasieran elebiduna zen, baina J. San Martinek dioen moduan, “gure historian inoiz gerta ez dena gertatu zen, zazpi [sic] urteren buruan euskara hutsezko aldizkari bihurtzea”<sup>64</sup>. Halaxe izan zen, *Egan* elebidun jaiotze baten ere, elebakartasunera aldatu zen euskal aldizkari bakarra izan baita. Alderantzizkoa inoiz gertatzen da, hau da, euskaraz elebakar sortu, baina denborarekin erdal artikuluren bat edo beste kaleratzea. *Egan* aldizkariak beraz, bi garai ditu: lehena, 1948-1952. urtera artekoa, non elebiduna zen, eta erdal zein euskal idazleen lanak kaleratzen zituen; eta bigarrena, 1953. urtetik aurrerakoa euskara hutsez kaleratzen zena. Hizkuntza aldaketa egiturazko aldaketa baten ondorio izan zen, 1953. urtean sortutako Urkixo Mintegiaren eraginez.

Urkixo Mintegiak *Egan* aldizkariaren zuzendaritza eta erredakzioa bere gain hartu zituen<sup>65</sup>. 1953. urtean Antonio Arrue, Angel Irigarai eta Koldo Mitxelena aldizkariaren zuzendariak zirela, *Egan*en euskara hutsezko lehen zenbakia kaleratu zuten. Euskaraz zegoenez, aldizkariaren gaineko susmorik ez sortzeko, Antonio Arrue, erregimen frankistarekin bat egiten zuena, zuzendaritza taldeko kide izendatu zuten. Hurrengo urteko bigarren zenbakian “Asmo berri” izenburuko editorialean aldaketa hauek guztiak azaldu zituzten hiru zuzendariek. Printzipioz, aldizkarian argitaratzeko muga bakarra zegoen: lanak euskaraz egon behar zuten, eta horretan ere nahiko malgu agertzen ziren: “Gaiñerakoan berdin zaigu izkera emengoa edo angoa izatea, euskera –izenez eta izanez euskera– baldinbada”<sup>66</sup>. Hala, *Egan*en Literatur sorkuntza eta kritika lanez gain, zinema kritikak, zein Filologia lanak kaleratu ziren, baita Fisikari<sup>67</sup> buruzkorik ere. Hain zuzen ere aldizkariak izaera hiritarra eduki nahi zuen: “Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño geiago. Eta, kalean gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat”<sup>68</sup>. Hala, *Egan*en ordura arte euskaraz landu gabeko gaiak argitaratu

---

<sup>64</sup> (San Martín, 1984b: 5)

<sup>65</sup> “Asmo berri” editorialean horrela aitortzen da: “Guipuzkoa’ko Diputazioak ain asmo txalogarriz Donostia’n sorturik daukan “Julio de Urkixo” Euskal-Filologi-Mintegiak artu du bere gain orain aldizkari au antolatzea, gure mintzabide biziaren alde lan egiteko, agindua daukan bezala” (ikus Arrue, Irigarai & Mitxelena, 1954: 1)

<sup>66</sup> (Arrue, Irigarai & Mitxelena, 1954: 2)

<sup>67</sup> (Krutwig, 1961)

<sup>68</sup> (Arrue, Irigarai & Mitxelena, 1954: 1)

ziren. *Eganera* egile gazteak hurbildu ziren, gai berriak erakarrira. K. Mitxelena esate baterako, zinemari buruz aritu zen *Eganen*<sup>69</sup>. Kasurako Hitchcock-en *Perfect crime* pelikulaz honela aritzen zen:

“Hitchcock zaarra, suspense-billa beti bezala (zalantza esan beariko dugu euskeraz), antzerki ezagun ontaz jabetu da gure txolarteak alaitzeko. Ezkontzak, estatu ederra izan arren, baditu bere atsekabe eta alde txarrak. Zinemak eta liburuek so batez erakusten digutenez, maiz arkitzen da senarra bere emaztea “akabatzeko” bear gorrian.”<sup>70</sup>

*Anaitasuna* irakurtzen zuen beste euskaldun sektoreak bestelako zine baten alde egiten zuen:

“Ziñegilleak, batez bere, alegin guztiak egin bear ditue, film ideala egiteko. (...) Distratziñoa, atsedena, irakaspena, alaitasuna ta emozioñoa: orixe gura izaten dabe ziñera joaten direanak. Film idealak orixe emongo deutse, baiña griña txarrerri eragin barik, eta espirituaren legeak gordetan dituala”<sup>71</sup>

Ikusten denez, aldizkari biak oso mezu desberdinak bidaltzen zituzten zinemaren gainean. K. Mitxelenari senar-emazte arteko krimen bati buruzko Hitchcock-en pelikulak “txolartea alaitzen” zion bitartean, *Anaitasunak* “griña txarrrik” gabeko filmen alde egiten zuen. Beraz, *Eganek* hein handiz, jarrera euskaltzale berri bat proposatzen zuen, idazle berrien eta irakurle gazteen konplizitatea aurkitu zuena.

### 3.2. Euzko-Gogoa: “euskal aldizkari bakarra”

*Euzko-Gogoa*<sup>72</sup> aldizkaria 1950. urtean sortu zen. Jokin Zaitegik (1906-1979) sortu eta zuzendu zuen. Proiektuaren diseinua, izena, idazlerik oparoena, aldizkariaren finantzazioa, leku aldaketak, lankideak... onerako zein txarrerako, gehien gehiena, J. Zaitegiren aukera eta mugen araberrakoak izan ziren. Garaiko testuinguruaren garrantzia ukatu gabe, *Euzko-Gogoak* egindako ibilbidea ulertzeko, ikusiko dugunez, J. Zaitegi beraren ibilbide pertsonala gakoetako bat izan zen.

<sup>69</sup> Gaur egun K. Mitxelenak *Eganen* argitaratutako zinema kritika lanak Alberdaniak bildu eta argitaratu ditu, euskarazko prosa dotore batez garai baten isla direlako (Mitxelena, 2006)

<sup>70</sup> (Mitxelena, 1955: 47)

<sup>71</sup> “Kristiñaua ta ziñea” *Anaitasuna*, 7-8 (1955).

<sup>72</sup> Aldizkaria, garaian ohi zen moduan, liburuxka formatua zuen eta paperean kaleratzen zen. Gaur egun aldizkariaren Ibiñagabeitia Proiektua: literatur aldizkariaren gordailua izeneko proiektuari esker, Internet bidez ere kontsulta daiteke: <http://andima.armiarma.com/> [kontsulta data: 2009-06-01]



*Euzko-Gogoa*, P. Iztuetak dioen moduan, “euskara hutsean argitaratutako lehen aldizkari kultu”-a izan zen. Aldizkariak ostera, bere burua horrela definitzen zuen: “Irakurri ta zabaldu “Euzko-Gogoa” euskal aldizkari bakarra”<sup>73</sup> eta beranduago letra larriz baieztapen borobilagoa egiten zuen: “EUSKAL ALDIZKARI BAKARRA. IRAKURRI TA ZABALDU `EUZKO GOGOIA`”<sup>74</sup>. Kontua da, aldizkarian aipuok agertu zirenerako *Egan* aldizkaria kalean eta osorik euskaraz argitaratzen zela. Horregatik zuzenagoa da P. Iztuetaren baieztapena, aldizkarian bertan aurkitutakoa baino.

*Euzko-Gogoa* goi mailako ezagutzaren transmisioan euskara erabiltzeko saio bat izan zen, euskara kultur hizkuntza bilakatzeko proiektua. *Euzko-Gogoa* Historia, Filosofia, Psikologia, Etnologia, Historia, Soziologia, Teologia eta beste hainbat gairen gainean euskaraz modu jasoan aritzeko egitasmoa zen. Zertarako? Euskal Unibertsitatea sor zedinean euskara (eta euskarazko materialak) prest edukitzeko. Esate baterako 1957. urteko editoriala honelaxe hasi zen: “Banako berezi au euskaltzaleok buru-biotzetan iosita daramagun etorkizuneko Euskal-Ikastetxe Nagusiari eskeintzen diogu biotz-biotzez, ots, euskerazko Ikastetxeari” eta honelaxe ixten zen: “Gure xedea auxe duzu: ederrez ta iakitez gure buruak iantzi, euskera geroago ta egokiagoa ta ederragoa erabil dezagun. Euskal-Ikastetxe Nagusia neurri, gu ibili”<sup>75</sup>.

*Euzko-Gogoaren* hizkuntza eredua gerraurrekoa zen, baina ez sabindar hertsien moldekoa, baizik Azkuek proposatutako gipuzkera osotuaren ildokoa (garbizalea baina ez hiperpurista). Aldizkariaren bidez euskal hizkuntzarentzat estatus berria aldarrikatzen zuen, baina ez erdararen bidetik, euskararenetik baizik, bidenabar euskararen corpusa osatuz.

---

<sup>73</sup> “Euzko Gogoa” *Euzko-Gogoa*, 3-4 (1954), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo21/eugo2101.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>74</sup> “Euzko Gogoa” *Euzko-Gogoa*, 9-10 (1954), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo23/eugo2328.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>75</sup> “Atariko” *Euzko-Gogoa*, 1957ko iraila-gabonila. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo38/eugo3801.htm> [Kontsulta data: 2008-03-03]

*Euzko-Gogoa* aldizkariaren gaineko lehen azterketa lana Joseba Intxaustik prestatu eta argitaratu zuen *Jakin* aldizkarian<sup>76</sup>. Bertan aldizkariaren proiektua aztertzen zen, baita lankideak ere. J. Intxaustiren lana aspaldikoa izan arren, *Euzko-Gogoa* ezagutzeko oinarrizko mugarrria izaten jarraitzen du. Gerora, *Euzko-Gogoa* edota bere zuzendaria aldez edo moldez aipatzen dituzten lanak kaleratu izan dituzte P. Sudupek, J. M. Velez de Mendizabalek eta J. Diaz Nocik<sup>77</sup>. Bereziki, aipatu behar da P. Iztuetak prestatutako liburua: *Erbesteko euskal pentsamendua* (2001)<sup>78</sup>. Bertan, atal oso bat eskaintzen dio *Euzko-Gogoari*, aldizkariaren hainbat gorabehera argituz eta bere garaian kokatuz. P. Iztuetak aldizkariaren helburuak honela definitzen ditu<sup>79</sup>:

- Idazle erbesteratuen topagunea
- Euskal nortasunaren berreskurapena
- Hizkuntz nazionalismoaren aldarrikapena
- Kultura landuaren bidetik Euskal Unibertsitatea

Helburu teoriko horietaz gain, gure ustez, euskarazko aldizkari jaso bat euskaraz kaleratzea bere baitako helburu ere bazen. Izan ere, orduan lehen aldiz halako kultur produktu bat ekoizten zenez, J. Zaitetik bazuen ere zerbait demostratzeko gogoia: posible zela goi asmoko euskara hutsezko aldizkaria kaleratzea eta, euskara, lanketaren bidez, kultur hizkuntza bihur zitekeela.

Bestalde, aldizkarian argitaratutako editorialetan oinarrituz, P. Iztuetak aldizkariaren tesiak honako hauek zirela aipatzen du<sup>80</sup>:

- Euskara gabe ez da Euskal Herririk
- Euskararik gabeko euskal kultura ez da benetakoa
- Euskal Herria euskarak salbatuko du
- Abertzaletasuna “euskaldun-fededun” esloganean mamitzen da.

<sup>76</sup> (Intxausti, 1979 eta 1980)

<sup>77</sup> (Sudupe, 2000a; Velez de Mendizabal, 2000a eta Diaz Noci, 2001)

<sup>78</sup> P. Iztuetaren ekarpenaren garrantzia ukatu gabe, ez gatoz guztiz bat haren lanarekin, eta atal honetan zehar gure desadostasunetako batzuk azalduko ditugu.

<sup>79</sup> (Iztueta, 2001: 59-79)

<sup>80</sup> (Iztueta, 2001: 81-98)

Aldizkariaren lehen zenbakia 1950. urtean argitaratu zen Guatemalan, baina asmoa lehenagokoa zen. J. Zaitegik Andima Ibiñagabeitiari 1947an idatzitako eskutitz batean, jada aipatzen zion aldizkari bat sortzeko zuen asmoa, eta 1949an aldizkariaren gaineko informazio orritxo bat zabaldu zen (“Asmoa” izenburua zuena). Orritxoa proiektu berriaren gaineko iritzi, erreakzioak eta lagunak biltzeko zabaldu zen<sup>81</sup>. J. Zaitegik berak aitortzen zuenez, informazio orriarekin ez zuen erantzun askorik jaso eta lehen zenbakia, bi lankidetzak salbu, berak idatzi zuen. Laster, beste idazle batzuk hurbildu zitzaizkion eta bigarren zenbakirako Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Andima Ibiñagabeitia, Gotzon Urrutia eta Norbert Tauer-en lanak heldu ziren. Aldizkariaren proiektua finkatzen zen heinean, *Euzko-Gogoak* gero eta lankide gehiago erakarri zituen. Azken zenbakietan 15-20 egile desberdinen lanak kaleratzen ziren.

Aldizkariak iraun zuen hamar urteetan 44 zenbaki kaleratu ziren, 3.658 orrialde, 100 egiletik gorak parte hartu zuen eta bi kontinente desberdinetan argitaratu zen: lehenik, Ameriketara, zehazki Guatemalako Hispania inprimategian, eta ondoren, Europan, Baionako Darracq-en<sup>82</sup>. Inprenta leku desberdin bi izan zituenez, P. Iztuetak zein Ibiñagabeitia Proiektuak, *Euzko-Gogoa* aldizkarian bi garai desberdintzen dituzte: Guatemalako aldia, 1950-1955 urteen artekoa, eta Biarritzeko aldia, 1956-1959 urteei dagokiona. Ados gaude, leku aldaketak aldizkariari zenbait aldaketa ekarri zizkiola, baina P. Iztuetak zein Ibiñagabeitia Proiektukoek aipatzen duten moduan, aldaketok formalak izan ziren, egitasmoak ez zuelako aldaketa aipagarrikerik jasan ez edukitan ezta helburutan ere<sup>83</sup>. Aroek aldizkariaren bilakaera fisikoa esplikatzeke balio dute baina ez besterik. Hau da, Biarritzen zein Guatemalan inprimatzen zen aldizkaria ulertzeko klabe nagusiak (hizkuntza ereduak, lerro editoriala, lankidetzak eta abar) berdinak ziren. Gure lanean aldizkariaren kokapen fisiko-kronologikoa egiteko Guatemalako aldia edo Biarritzeko aldia erabiliko dugu, bestelako asmorik gabe.

---

<sup>81</sup> “Euzko-Gogoa ta gu: 1949 garrenaren ondarrean agiri bat egin genuen euskeraz, euskal-aldizkaria sortzeko asmotan. Batek edo bestek erantzun zigun gure asmoa aizatu nairik. Norbaitek zorotzat jo giñuzan. Alare, esan eta egin, 1950 garren urtean asi giñan” (ikus “Ataurrekoa” *Euzko-Gogoa*, 1-2 (1954) <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo20/eugo2001.htm> [kontsulta data: 2009-06-01])

<sup>82</sup> (Intxausti, 1980: 105 eta Iztueta, 2001: 103)

<sup>83</sup> Egia da *Euzko-Gogoak* Biarritzen mantxeta berria estreinatu zuela, baita formatu berria ere, aurkibidea atal nagusitan antolatzea (*Itz neurtuz, itz lauz eta idatzi berriak*), eta zenbakiak homogeenak ziren orrialde kopuru dagokionez. Hortik kanpo aldizkariak ez zuen edukizko aldaketa esanguratsurik jasan.

Aldizkariaren lekualdaketa J. Zaitegirekin lotuta dago. Hasieran aldizkaria Guatemalan argitaratu zen, zuzendaria bertan zegoelako 1945. urtean Lagundia utzi zuenetik. Jesuiten ordena utzi arren, ez zion apaizgoari (sekularrari) uko egin. J. Zaitegik 1955. urte bukaeran Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen, Guatemalako bere ikastetxearen zein aldizkariaren azken kontuak kitatzeko ardura A. Ibiñagabeitiari utziz. Amarekin Gabonak igaro ondoren, Iparraldera bizitzera joan zen, Biarritzera, eta 1956. urtetik aurrera *Euzko-Gogoa* Biarritzen inprimatu zen. J. Zaitegi, beraz, ez zen errefuxiatu politiko bat, ez zuen A. Ibiñagabeitiaren erbesteratzea bizi, baina berak zuzentzen zuen aldizkaria erbesteko aldizkaria izan zen.

*Euzko-Gogoak* erbesteko aldizkariaren ezaugarriak zituen: idazleetako asko erbestekoak ziren, harpidedunen portzentaje handi bat –ezin zehaztuzkoa– erbesteratutakoa zen (asko EAJko militanteak), eta Hegoaldera heltzeko eta banatzeko arazoak zituen. Izan ere, “Donostiako prentsa-arduradunak ez baitzioten aldizkaria Hego Euskal Herrian banatu ahal izateko baimenik ematen. Horretarako ondoko baldintza biok betetzea eskatzen zioten: hots, bat, izenez aldatzea, eta bi, inprimategira eramane aurretik Madrilen testuen gaztelaniazko itzulpena aurkeztea”<sup>84</sup>. J. Zaitegik ez zituen baldintzok onartu eta *Euzko-Gogoa* mugaren alde batetik bestera eramateko, aparteko gastuak etorri zitzaizkion, gauez eta isilean egiten hasi zelako<sup>85</sup>. Halaber, zenbakien bahiketa ere pairatu zuen:

“Idazle, Arpidedun Eta Irakurleei

Banakako au erdi iasota geneukala berri samiñenak iritxi zaizkigu Donostia´tik.

*Uri artako zentzurak “Euzko-Gogoa”ren 5-8’gn. zenbakia gorde ta arpidedunei bat ere eman ez egin du.* Arrezkero beste banako bat igorri dugu 9-10’gna. Alegia. Oraindik ez dakigu zer gertatu zaion. Dana dala, gure aldizkaria Euskalerriko arpidedunen eskuetara irixten ezpada, erabaki garratzak artu bearrean arkitzen gera. GURE ASMOA TA BIOTZA EUSKALERRIAN DAUZKAGU ETA GURE LANA AN SARTUKO EZPADA alperrik ari gera aldizkaria ateratzeko lerrenak egiten. Beraz GERTURIK GAUDE EUZKO-GOGOAN bertanbera UZTEKO. Alare, ortara baiño len, gure idazle ta arpidedunen iritzia iakin nai genuke, *giputxena bereziki*, baita nola irakurleen artera iritxi gindezkeen ERREX, ZIUR eta iñor nekatzeke.

Erantzunik bialtzen ezpadiguzute EUZKO-GOGOAN REN ERIOTZA onartzen duzutela erabakiko dugu!

<sup>84</sup> (Iztueta, 2001: 54)

<sup>85</sup> (Iztueta, 2001: 146)

Erantzun len-bait-len zuen eritzia emanaz. BITARTEAN EZ DA EUZKO-GOGOIA AGERTUKO!”<sup>86</sup>

Nolanahi ere aldizkariak zenbait urtez eutsi zion. Hamar urteko tartean (1950-1959) *Euzko-Gogoia* aldizkariaren 44 zenbaki kaleratu ziren. Bihilabetekaria izanik, urtean sei zenbaki ateratzeko asmoz sortu zen. Baina argitalpena atzeratzen hasi ziren, alde batetik zenbaki bakoitza osatzea eta zuzentzea J. Zaitegirentzat bakarrik lan handia zelako, eta bestalde inprenta arazoengatik. Hala, 1954. urtean A. Ibiñagabeitia Guatemalara heldu zenean J. Zaitegiri laguntzera, 1952ko azken zenbakiak orduan kaleratu ziren, 1953. urtekorik ez zuten atera aldizkaria egunean jartzeko, eta 1954. urtean urte horri zegozkion zenbakiak argitaratu ziren<sup>87</sup>.

Aldizkaria ataletan antolatuta zegoen. Guatemalako aldian atalak ez ziren egonkorrak, P. Iztuetak aldizkako 14 sail desberdin dokumentatu ditu<sup>88</sup>. Biarritzeko aldian berriz, honako sei sailok nahiko egonkorrak izan ziren: *Atarikoa*, *Itz neurtuz*, *Itz lauz*, *Idazti berriak*, eta *Irakurlearen txokoa*. Hurrengo azpiataletan zehatzago aztertuko dira *Euzko-Gogoaren* edukiak, harpidedunak, finantziarioa, lankideak eta egindako zubi lana.

### 3.2.1. Aldizkariaren azterketa kuantitatiboa

*Euzko-Gogoan* argitaratutako gaien gaineko azterketarik sakonena P. Iztuetak egin du. Bere azterketa kuantitatiboaren arabera, aldizkariako edukien % 63a Literatura gaiari dagokio, % 12a Linguistikari, % 9a Jakintzari (Filosofia, Psikologia, Etnologia eta Natur Zientziak) eta % 16a besteri (Arte Ederrak, Historia, Soziologia, Erlijioa eta abar). Egia esan P. Iztuetak kuantifikaziorako darabilen metodologia eztabaidagarria iruditzen zaigu. Adibidez “Literatura” izenpean biltzen ditu bai sorkuntza lanak (poesia, antzerkia...) zein Literatur Kritika lanak. Bestalde, P. Iztuetak ez ditu gaien sailkapen

---

<sup>86</sup> in *Euzko-Gogoia*, 11-12 (1954), 211. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo24/eugo2439.htm> [kontsulta data: 2009-04-21]

<sup>87</sup> Biarritzeko aldian ere aldizkariak zenbaki atzeratuak ezagutu zituen, are gehiago 1959ko azken zenbakia, berez 1960ko uztaietan inprimatu zen. Ikus *Euzko-Gogoaren* inprimatze dataren gaineko atzerapenak Joseba Intxaustiren lanean (1980: 106)

<sup>88</sup> P. Iztuetak dokumentatu dituen 14 sailak honako hauek dira: *atarikoa*, *antzerti*, *ederti*, *edesti*, *elerti*, *ereserti*, *euskera*, *gizarte-gaiak*, *idazti-deunak*, *idazti berriak*, *irakurlearen txokoa*, *olerti*, *yakintza* eta *erderaz* (Iztueta, 2001: 100)

estandarrak erabili. Ondorioz, ezin aldera daitezke *Euzko-Gogoari* buruz atera dituen datuak garai bereko zein geroagoko aldizkariekin (*Egan, Jakin...*). Beraz, azterketa kuantitatiboek izan dezaketen erabilera interesgarriena, konparagarritasuna, galdu egiten da. Edozein kasutan, ez dugu arazo berezirik P. Iztuetaren ondorio nagusia ontzat emateko: *Euzko-Gogoak* jite nabarmen literarioa zuen.

Bestalde, eta J. Intxaustik berak aipatu moduan<sup>89</sup>, *Euzko-Gogoan* Historia edo Filosofia moduko gaiak jorratu arren, beste jakintza-arlo batzuk ez ziren bat ere landu, esaterako Ingeniaritza, Medikuntza, Arkitektura, Ekonomia, Zuzenbidea... Honetan eragindako faktoreak asko izan zitezkeen: jakintza-arlo guztietaz aritzeko aditu euskaldunik ez egotea<sup>90</sup>, edota aipatutako arloek irakurle gutxi edo bat ere ez edukitzea. Baina agian faktore garrantzitsuena, jakintza edo ezagutzaren gaineko eliz ideologiaren eragina izan zitekeen. Ikuspegi kristauan lehentasuna arimak zuen, eta arima prestatu behar zen hurrengo bizitzarako, benetan inportantea zen bizitzarako. Eliz pentsamendua hizkuntzari aplikatuz gero, euskara arima lantzen zuten gaietaz aritzeko erabili behar zen, esate baterako Filosofiaz aritzeko. Mundutiar gaiak deskribatzen zituzten jakintza-arloak, Fisika esaterako, agian ez zitzaizkien iruditzen benetan jakintza-arlo transzendentetarako.

Lagundian formatutakoentzat (J. Zaitegi barne), ezagutza jasoa, ezagutza klasikoa, filosofikoa eta teologikoa zen. Adibide paradigmaticoa *Orixek* eskaintzen zuen. *Orixerentzat*, goi mailako jakintza ez zen, ez kimikoa, ez Natur Zientzien arlokoa ere. *Orixek* F. Krutwig-i 1951. idatzitako eskutitzean adibidez argi adierazten zuen, euskara landu behar zela Filosofia edo Hizkuntzalaritza arloetan, baina ez zientzietan aritzeko. Jakintza horiek hizkuntza izorratzen zuten eta hobe zen, euskara ez beste hizkuntza bat erabiltzea:

“Como le he dicho, hay que estudiar el genio de nuestra lengua y agotar sus propios recursos primero. Hecho esto, el problema de los temas culturales se podrá plantear y resolver con más fundamento que hoy. Para hacerlo tan mal como lo han hecho españoles y franceses, mejor es que acudamos al latín, o al español y francés estropeados, y no estropear nuestro idioma. **Yo he**

<sup>89</sup> (Intxausti, 1980: 107)

<sup>90</sup> Dena den zuzenbidez aritzeko lankideen zerrendan Jesus Mari Leizaola zegoen.

escrito de Estética, Metafísica, Gramática (que no sé cuándo se publicarán) pero no he escrito de Física, Química, Matemáticas. Ni falta que hace.”<sup>91</sup> [beltzak gureak dira]

Esan eta egin, *Orixe* aipatutako arlo jaso horietaz aritu zen *Euzko-Gogoan*. Euskal hizkuntzaren gaineko hainbat artikulu argitaratu zituen, baita filosofikoak<sup>92</sup> zein estetikari buruzkoak<sup>93</sup> ere. Handik zortzi urtera, ezaguna denez, *Orixek* bere iritzia berretsi zuen *Jakin* aldizkarian, Joseba Intxausti gazteari antzeko erantzuna emanez:

“Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu inongo izkuntzarik”<sup>94</sup>.

Kultura jasoaren ikuskera horrek, klasiko greko-latindarren miresmenak eta letren gorentasunak, ekarri zuen *Euzko-Gogoak* gai jakin batzuetan euskarazko ekoizpena sustatzea, eta ez beste batzuetan, zientzietan adibidez.

### 3.2.2. Harpidedunak

*Euzko-Gogoak* Guatemalako aldian, P. Iztuetari jarraituz, 339 harpidedun izan zituen eta eta 500 aleko tirada, eta Biarritzen aldiz, 874 harpidedun eta 1000 aleko tirada.

	Guatemalako aldia (1950-1955)	Biarritzeko aldia (1956-1959)
Euskadi	180	554 <sup>95</sup>
Espainia	10	21
Europa	41	299
Amerika	108	
Guztira	339	874

II.1. Taula. *Euzko-Gogoa* aldizkariaren harpidedunak lurraldeka.  
Iturria: (Iztueta, 2001: 146)

<sup>91</sup> (Orixe, 2006: 244)

<sup>92</sup> Existenzialismoa kritikatzeko adibidez honako artikulua argitaratu zuen: “Izatena ta gertatzena: Sartre, Heidegger, Zubiri” *Euzko-Gogoa*, 3-4 (1954) <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo21/eugo2119.htm> [kontsulta data: 2009-06-01].

<sup>93</sup> Estatikari buruz zenbait artikulu argitaratu zituen *Euzko-Gogoa* “Antze ta eder” izenburupean.

<sup>94</sup> (Orixe, 1959: 92)

<sup>95</sup> P. Iztuetak Guatemalako aldirako Euskadiko harpidedunak aipatzen ditu eta Biarritzeko aldirako Iparraldeko eta Hegoaldeko harpidedunak.

*Euzko-Gogoaren* harpidedunen kopurua zein tiradak harrigarriak dira. Konparaketa baterako, *Uztaro* aldizkaria hartzen badugu, UEUK argitaratzen duen Giza eta Gizarte Zientzien arloko aldizkaria, gaur egun 300 bat harpidedun ditu eta 1000 aleko tirada. Hau da, euskararen normalizazio prozesuaren (linguistikoa, politiko eta kulturala) bidean gaudenean, eta euskara unibertsitatera heldu denean, gaur egungo goi mailako aldizkari baten harpidedunak *Euzko-Gogoak* zituenaren antzekoak dira –Guatemalako aldiarekin konparatuz gero–, edo nabarmen kaskarragoak –Biarritzekoarekin alderatuz gero–. Kopuruaren atzean zenbait fenomeno egon litezke: alde batetik, *Euzko-Gogoaren* harpidedunen kopurua, puztuta egotea, besteak beste, urteko saria ordaintzen ez zutenak ere harpidedunen zerrendan mantentzen zirelako<sup>96</sup>, eta bestalde, harpidedunak aldizkariaren irakurleak baino, aldizkariaren militanteak zirelako, eta ulertu ez arren, hartzen jarraitzen zutelako, edota lankideak zirenak harpidedun gisa kontabilizatu zirelako... Zernahi gisaz, hainbeste euskaldun alfabetatu/ikasi edo formatu zegoen *Euzko-Gogoa* irakurri eta ulertzeko moduan? Ezezkoan gaude, *Orixek* Telesforo Monzoni 1950. urtean bidalitako kartan kopuru baxuagoak aipatzen zituen: “Zenbat idazle gera. Ogeitamar? Eta beste eun irakurle?”<sup>97</sup>. *Orixek* hurrengo urtean kopuru altuagoak aipatzen zituen: 350 idazle (aldi berean irakurle) “(50 galtzadun, 100 apaiz eta 200 praile)”<sup>98</sup>.

P. Iztuetak bere liburuan ematen dituen harpidedunen gaineko datuak ezin izan ditugu konprobatu, egileak ez duelako zehazten non kontsultatu dituen, eta *Euzko-Gogoa* ez zirelako argitaratu. Hasiera bateko zenbakietan, 1950<sup>99</sup> eta 1951<sup>100</sup> urteetakoetan harpidedunen bi zerrenda aurkitu ditugu, ez besterik. Zerrendak aldizkaria prestigiatzeko argitaratu ziren duda gabe, zerrendatuta agertzen baitira, besteak beste, *Euskadi'ko Jaurlaritzaren ordezkariak*, EAJ eta Jose Antonio Agirre *Euskadi'ko*

<sup>96</sup> *Euzko-Gogoa* aldizkariako zenbait harpidedunek ez zuten aldizkariaren urteko saria ordaintzen, ez dakigu zehazki zergatik, banaketa arazoak tarteko ez zutelako aldizkaria jasotzen, ahaztu egiten zitzaielako, ez zutelako dirurik... Antza denez, honetan txarrenak EAJkoak omen ziren. Edozein kasutan ordainketa erreguak aldizkarian nahiko arruntak dira, ia ia lehen zenbakietatik, azkenetara arte.

<sup>97</sup> (Orixek, 2006: 206)

<sup>98</sup> (Orixek, 2006: 275)

<sup>99</sup> “Euzko Gogoa’ren arpidedunen zerrenda” *Euzko-Gogoa*, 7-8 (1950), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo05/eugo0522.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>100</sup> “Euzko Gogoa’ren arpidedun berriak” *Euzko-Gogoa*, 1-2 (1951), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo08/eugo0824.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]



*Lendakaria*, Jesus Galindez, Martin Ugalde, Manuel Irujo... Euskal idazleak ere (Yon Etxaide) eta adituak (Mikel Altzo, Nobert Tauer) edota ospeko erakunde akademikoak (*Harvard University*<sup>101</sup> eta *The National Library of New York*) eta abar. Beraz, harpidedunen zerrenda hain oparoa bazen, eta hasierako zenbakietan argitaratzen bazen, gerora zergatik ez? Harro egoteko modukoa zen 300 harpidedunetik goiti edukitzea eta zerrenda osoa argitaratu ez arren, gutxienez aldizkariaren editorialetan kopurua aipatzeak mereziko zuen<sup>102</sup>.

Dena den, ontzat emanez gero P. Iztuetaren datuak, kontrakoa ez baitago esaterik, ondorio honetara heltzea zilegi da: 50eko hamarkadaren lehenengo bost urteetan gutxienez bazeuden 339 euskaldun ikasi, euskara hutsezko aldizkari akademikoa irakurtzeko gai zirenak. Eta hori gutxi balitz, euskaldun irakurlego gaituaren kopurua hamarkadaren bigarren zatian hazi egin zen, 874 harpidedunetara helduz. Honek esan nahi du gero eta euskaldun ikasi gehiago zegoela, hau da, hazkunde prozesu bat inplikutzen du. P. Iztuetaren lanean ez dugu fenomenoaren gaineko azalpenik aurkitu, eta ez dakigu zer dagoen horren atzetik, agian harpidetza kanpaina bat...<sup>103</sup> ez dago esaterik. Horregatik guztiagatik, *Euzko-Gogoaren* harpidedunen kopurua zalantzazkoa iruditzen zaigu<sup>104</sup>.

*Euzko-Gogoa* aldizkariaren tiradak, harpidedunen kopurua kontuan hartuta, neurrikoa dirudi. Hala ere aldizkariak banaketa arazo handiak izan zituen, bai Guatemalan argitaratzen zenean, zein Biarritzen ere. Esaterako, J. Zaitegiren Biarritzeko etxean, hil zenean mila ale baino gehiago topatu zituzten<sup>105</sup>, eta Euskaltzaindiaren biltegian ehunka ale topatu dira.

---

<sup>101</sup> Harvard-eko unibertsitatearen liburutegiko katalogoan (*Hollis Catalog* izenekoa) *Euzko-Gogoa* aldizkaria dutela topatu dugu. <http://lms01.harvard.edu/> [kontsulta data: 2008-02-04]

<sup>102</sup> *Euzko-Gogoan* editorialak 1954. urtetik aurrera kaleratu ziren.

<sup>103</sup> J. Zaitegik bere aldizkarian behin eta berriro aipatzen du harpidedunen kopurua emendatu beharra, eta aldizkariaren lankideak (aldizkarian idazteaz gainera) horretan ere aurkitzen ditugu. Adibidez Andoni Urrestarazu Baiona inguruan harpidedunak lortzen ahalegintzen da.

<sup>104</sup> J. Diaz Nocik, J. M. Velez de Mendizabali jarraituz, *Euzko-Gogoak* harpidedun gutxi zituela aipatzen du baina zoritxarrez ez du ematen kopururik (Diaz Noci, 2001). Dena den J. M. Velez de Mendizabalek aditzera ematen du, zeharkako datuekin, harpidedun gutxi zituela aldizkariak, haren etxean *Euzko-Gogoaren* hainbat ale aurkitu zituztelako. Are gehiago, J. M. Velez de Mendizabalek dionez, 1960 urteko apirillean Arantzazukoek *Euzko-Gogoa* hilik zegoela pentsatuz, J. Zaitegiri harpidedunen zerrenda eskatu zioten eta arrasatearrak aldizkariaren azken zenbakia bidali zien (2000a: 105).

<sup>105</sup> “bera hil zenean, 1956, 1957 eta 1958 urteetako 1.034 ale aurkitu zituztela bere etxean alfer-alferrik pilatuta” (Iztueta, 2001: 145)

### 3.2.3. Finantziarioa

*Euzko-Gogoaren* finantzazio iturri nagusia bere zuzendaria izan zen: Jokin Zaitegi. Ekonomikoki lehenengo urtea latza izan zen. Jokinek *Instituto Américan* lan egiten zuen, baina ez zuen nahikoa ateratzen aldizkariaren gastuei eusteko. Aldizkariak, lehen urtea izanik, ez zuen nahikoa harpidedunik eta, iragarki zein “*Erdeldunak erosi orria*” orrietatik sarreraren bat edo beste etorri arren, ez zen nahikoa. Horri guztiari gehitu behar zaio, “ustezko lagun batek iruzur egiten omen”<sup>106</sup> ziola, eta maileguan utzitako dirua ez zuela errekuaritzen. Beraz, J. Zaitegiren egoera ekonomiko larriak, besteak beste, ekarri zuen aldizkari idazkariak, une hartan *Orixe* zenak, 6 hilabeteren buruan alde egin behar izatea.

Hurrengo urtean “Euzko-Gogoa aldizkariak zekartzan gastuei aurre egin ahal izateko, 1951n “Instituto América” utzi eta, diru aurreratua Rogelio Muyschondt de Langhe familiari eskatuz, “Liceo Landibar” izeneko ikastetxea erosiko du”<sup>107</sup>. Ikastetxearekin *Euzko-Gogoa* finantzatzea lortu zuen. Baina ikastetxeak lan handia ematen zion, eta *Euzko-Gogoaren* zenbakiak atzeratzen hasi ziren. 1951. urtearen bukaeran, seguru aski Landibar ikastetxearen finantziarioari esker, aldizkariak beste idazkari bat ekarri nahi izan zuen: Andima Ibiñagabeitia.

A. Ibiñagabeitia, 1954. urtera arte ez zen Guatemalara heldu, alde batetik baimenik ez zuelako lortzen, eta bestalde, Euskal Herritik hainbeste urrutzea ez zuelako antza oso gogoko. Azkenean, A. Ibiñagabeitia 1954ko martxoan heldu zen Guatemalara, eta aldizkarian lan egiteari ekin zion. Urte horretan *Euzko-Gogoaren* 11 zenbaki kaleratzea lortu zuen. P. Iztuetak honelaxe dio: “Andimaren etorrera erabakigarria gertatu zen, hainbestearino, ezen berari esker lortuko baita bi urteko atzerapena zekarten 1952ko sei zenbakiak –1953koak zuri utzita– eta 1954ko bostak garaiz argitaratzea”<sup>108</sup>. A. Ibiñagabeitiaren etorrerarekin, 1954. urteko lehen zenbakitik aurrera, *Euzko-Gogoa* zenbakiro editoriala ateratzen hasi zen.

<sup>106</sup> (Iztueta, 2001: 29)

<sup>107</sup> (Iztueta, 2001: 20)

<sup>108</sup> (Iztueta, 2001: 35). Aldizkariak irakurleari honela jakinarazi zion *Oartu ondo* artikuluan 1953. urteko zenbaki ezaz: “Zenbaki onekin 1952'gko urtea bukatzen dugu. Atzerapen aundia izan du gure aldizkariak eta aurrea nolabait artzeko, datorren zenbakia 1954'gko lenengoa izango da. Alare 1953'gko'aren

Biarritzeko aldiaren aldizkariaren finantzazio eredua berdintsua izan zen: J. Zaitegiren ondasun pertsonalen gain zegoen. Hala ere, oraingoan diru-laguntzaren bat jaso zuen Baionako Eusko Jaurlaritzatik: “Jose Antonio Agirre lehendakariak erdi-isilka agindu bezala, Eusko Jaurlaritzak hainbateko diru-kopurua luzatu zion, ez dakigu zenbaterainokoa, etxe-alokairua eta aldizkariaren zenbaki oso baten argitalpen-kostuak ordainduz”<sup>109</sup>. Badirudi, J. A. Agirre hiltzean, Jesus Mari Leizaola lehendakaria zela, Eusko Jaurlaritzak ez ziola laguntza gehiago eman.

Bietan, beraz, Guatemalan zein Biarritzen, aldizkariak antzeko arazoei aurre egin behar izan zion: batetik, harpidedunek urteko saria ez ordaintzea, bestalde banaketa eta salmenta arazoak zentsurarengatik, eta azkenik diru-laguntza falta. P. Iztueta tesietako bat da, J. Zaitegi jeltzalea izan arren, *Euzko-Gogoa* bai antolaketaren bai kudeaketaren aldetik, erabat autonomoa zela. “Horregatik, jeltzaleen erbesteko beste aldizkari politiko eta sindikalak ez ziren hil”<sup>110</sup>.

*Euzko-Gogoaren* azken zenbakia 1960. urtean argitaratu zen, nahiz eta zenbaki hartan ez zen aldizkariaren heriotza iragartzen. Noski aldizkariaren azkena zenbait faktorek eragin zuten, baina bereziki garrantzitsua izan zen aldizkariaren finantziario eredua eta azken urteetako egoera ekonomiko larria.

*Euzko-Gogoa* hilda, J. Zaitegi diru gabe zegoen, eta A. Ibiñagabeitiari dirua eskatu zion Guatemalara bueltatu ahal izateko. Baina A. Ibiñagabeitiak ez zuen alerik lortu. Hala ere, J. Zaitegik bere lagun baten bidez, 2.000 dolar eskuratu eta 1962. urtearen hasieran Guatemalara joan zen, pastoralgintza erlijiosoan jardutera, euskal kulturarekin lotutako proiektuak alde batera utziz. 1972. urtean Euskal Herrira itzuli zen, eta 1979an hil.

---

utsunea nolarebait beteko dugu. Dana dala, 1953'garreneko arpide-saria ordaindu dutenak, 1954'ko zenbakiak sari orren ordain iasoko ditute. Oraindik ordaindu gabe daudenak, geienak noski, saia bitez aurtengoa, ots 1954'gkoa, len-bai-len kitazera.” (ikus Banakolak “Oartu ondo” *Euzko-Gogoa*, 11-12 (1952), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo19/eugo1913.htm> [kontsulta data: 2009])

<sup>109</sup> (Iztueta, 2001: 54)

<sup>110</sup> (Iztueta, 2001: 147)

### 3.2.4. Aldizkariaren lankideak eta egileak

*Euzko-Gogoak* zuzendari bakarra ezagutu zuen, bi idazkari (*lankideen nagusi*), eta hainbat lankide, eta ehundik gora egile.

P. Zaitegik *Euzko-Gogoa* abian jarri zuenean, proiektua harpidedun eta lankidegabe abiatu zuen. Lankideen lehen zerrenda 1950eko 3-4. zenbakian kaleratu zen. Zenbaki horretan 20 lankideren izen deiturak agertu ziren. Bertan aipatzen ziren ez soilik jada zerbait argitaratu zuten egileak baita aldizkarian kolaboratzeko prest zeudenak ere, hala nola, Jose Migel Barandiaran<sup>111</sup>. J. M. Barandiaranek gaztelaniaz prestatu eta bidali zuen lan bat eta aldizkarikoek euskarara itzuli eta 1954an argitaratu zuten<sup>112</sup>.

*Euzko-Gogoaren* Guatemalako aldiari, lankideen kopurua urtez urte hazi egin zen<sup>113</sup>, Biarritzeko aldiari berriz ez dakigu, ez baitzen lankideen zerrendarik kaleratu. Zaitegik prestatutako aldizkariaren lehenengo lankideen zerrendan 14 atzerrian zeuden<sup>114</sup>, eta 6 Euskal Herrian. A. Ibiñagabeitia, J. Zaitegik deituta, Guatemalara heldu zuenean, *Euzko-Gogoa* prestatzen laguntzeko, lankideen zerrenda zabaldu zuen. P. Iztuetak dioenez: “Gerraurretik hasita, hainbeste urte atzerrian zeramatzan eta bertako euskaltzaleekin harreman zuzenik izan ez zuen Jokin Zaitegik, batez ere, zeharka *Orixeren* ospearen eta zuzenean A. Ibiñagabeitiak egindako proselitismoaren bidez bildu zituela lankide berriak bere aldizkarira...”<sup>115</sup>.

A. Ibiñagabeitiaren garaian gainera, lankideen zerrendan egileen izen deiturekin batera lanbidea edo kargua adierazten zen: euskaltzaina, unibertsitateko irakaslea,

<sup>111</sup> Ataundarrak aldizkariaren lehen zenbakiaren kariatz bidalitako kartan zera dio: “Atsegin aundia eman dit zuk darabilkizun asmo orrek, «Euzko-Gogoa» deritzan aldizkaria argitaratzea zoazala, alegia Pozik lantxo batzuek igorriko dizkizut” (ikus “Irakurlearen txokoa”, *Euzko-Gogoa*, 2 (1950). <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo02/eugo0216.htm> [kontsulta data: 2009-06-01])

<sup>112</sup> Izan zen hala ere aparteko kasurik. Aita Frantsizko Saroberen (“Amayur”-en) lana (*Euskalerrria Yesukristo'ren garaian Strabon'aren arauz*) bere baimenik gabe kaleratu zen *Euzko-Gogoa* eta gainera bere izena lankideen artean agertu zen. Honek erakusten du aldizkarian argitaratutako testuen egileak sistematikoki lankideen zerrendan agertzen zirela. Beraz, lankideak aldizkariko egileak dira.

<sup>113</sup> Lankideen kopurua 1950. urtean 20koa zen, hurrengo urtean ia 30era heldu zen, eta 1954an 55 lankide zituen. Guatemalako aldiaren amaieran aldizkariak 70 lankide zituen.

<sup>114</sup> Frantzia 6, Argentinan 2 eta Venezuela, Txina, San Salvador, Mexiko, Argentina, Txekia eta Ingalaterran bana.

<sup>115</sup> (Iztueta, 2001: 34-35)

ikasketak (Ph D)<sup>116</sup>... Ikusten denez, aldizkarian parte hartzen zutenak elite ikasia ziren. Hortaz, zerrendan islatzen zen elite ikasi euskaltzale batek sostengatzen zuela aldizkaria, eta beraz, proiektuari prestigioa emateko modu bat zen. Bestalde, aldizkariaren lankideak denetariakoak zirenez, formazio zein lanbide oso desberdinekoak, J. Zaitegik proiektuaren prestigioa bilatzeaz gain, zerrendarekin beste bi helburu izango zituen: proiektuaren sendotasuna adieraztea<sup>117</sup>, eta euskaltzaleen artean egon zitezkeen sentsibilitate ideologiko, linguistiko, erlijioso eta estetiko guztiak, edo gehienak, ordezkatzeara.

Lankideen aniztasunari dagokionez, guztiak euskaltzale ziren arren, pertsonen artean alde handiak zeuden militantzia politiko, ideologia linguistiko, sinesmen eta gustu estetikoetan. Hau da, denak ez ziren EAJko militanteak (adb. G. Aresti), denak ez ziren garbizaleak, “mordollozaleak” ere baziren, gehiengoa sinestuna izan arren<sup>118</sup>, heterodoxoak ere baziren (adb. J. Mirande), eta proposamen estetiko literario berriak zituztenak orobat (adb. *Txillardegi*). Dena den, ez dago jakiterik norarte bilatu zuen J. Zaitegik aniztasun hau, edo garaiaren ezaugarria zen. Hau da, euskaltzaleek oraindik bizi zuten konpaktazioaren seinale.

Argi dagoenez, lankideek ez zuten erredakzio kontseilu bat osatzen. Hasteko, aldizkaria Guatemalan editatzen zelako, eta bihilabetekaria ateratzeko ezinezkoa zelako hainbat herrialdetan barreiatutako idazleak biltzea. Bestalde lankide gehiegi ziren (batez ere 1954. urtetik aurrera) erredakzio taldea operatiboa izateko. Eta azkenik, gogoan izan behar da, *Euzko-Gogoa* ez zela proiektu kolektibo bat, J. Zaitegiren proiektu pertsonala baizik<sup>119</sup>, bertan hainbat pertsonaren lankidetzat biltzeko gai izan zena, baina ez besterik.

---

<sup>116</sup> Zuzendariaz gain, aldizkariak bazuen beste Ph. D. bat: “Mix eta Garai’tar Ion, Ph. D., The Public Library of New York, Chief of Oriental Section” (in “Euzko Gogoa” *Euzko-Gogoa*, 9-10 (1954), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo23/eugo2328.htm> [kontsulta data: 2009-06-01])

<sup>117</sup> Sendotasunari dagokionez, zerrendak pertsona askoren (70 bat) babesa modu esplizituan adierazten zuen. Baina gainera horietako batzuk, ez ziren edonor, Eusko Jaurlaritzako kideak ziren (adb. T. Monzon, J. M. Leizaola), idazle zein poeta ezagunak (adb. *Orixe*, S. Mitxelena...) eta abar.

<sup>118</sup> P. Iztueta datuen arabera, pixka bat nahastuta ematen dituen arren, baziren 58 lankide eliz ikasketak zituztenak (hau da, lankideen % 54,2), horietatik 17 sekularrak, 28 erlijioso, eta 13 apaizgai edo erlijiosogaiak ziren (Iztueta, 2001: 133-134).

<sup>119</sup> (Iztueta, 2001: 147)

Lankideak alde batera utzita, *Euzko-Gogoa* aldizkarian lan bat edo gehiago argitaratu zuten egileak aipatuko ditugu segidan. *Euzko-Gogoan* zenbat egilek parte hartu zuten ez dago zehatz mehatz esaterik, egileek izenordeak erruz erabili zituztelako. Izenordeen erabilerarako bi arrazoi nagusi zeuden. Alde batetik, bada leku guztietan eta garai guztietan ezagutu den erabilera, egilearen izena ezkutatzeari errateko askatasun handiago izateko. Gogoratu 50eko hamarkada, Hegoaldeko euskaldunentzat batez ere, ez zela preseski askatasun indibidual zein kolektiboak aldarrikatzeko garairik onena. Beraz, hainbatek izenordeak erabili zituzten beraien burua babesteko, eta askatasunez idatzi ahal izateko. Bestalde, pseudonimoen erabilera bazen ere, urritasun bat, idazle urritasuna, estaltzeko modu bat<sup>120</sup>.

Hamar urtetan, P. Iztuetaren arabera 160 egileren lanak argitaratu ziren<sup>121</sup>, eta Ibiñagabeitia Proiektuko datuen arabera, 209 egilek sinatutako lanak daude, “Horien artean 4 erakunde edo elkarteak dira (*Euzko-Gogoa* bera barne), eta 48 itzulitako egileak. Jatorriz euskaraz lanen bat idatzi edo itzuli dutenak, beraz, 157”<sup>122</sup>. Beraz, 150-160 egile euskaldun harilkatu zituen aldizkariak. P. Iztuetaren arabera, prosista oparoenak J. Zaitegi (denetan emankorrena), B. Larrakoetxea, A. Ibiñagabeitia, N. Ormaetxea *Orixe* eta Y. Etxaide izan ziren. Beraiek idatzi zuten aldizkariko testuen % 42a. Bostetatik Hegoaldea bizi zen bakarria Yon Etxaide zen. Halaber Y. Etxaide izan zen bostetatik seminariotik pasatu gabeko bakarria. Poeten artean Salvatore Mitxelena eta Nemesio Etxaniz izan ziren oparoenak, aldizkariko poesi lanen % 23a ekoitzi baitzuten<sup>123</sup>.

P. Iztuetak *Euzko-Gogoan* egile izandako 150-160 horietatik, 107 egileren formazioa aztertu du. Bere datuen arabera % 54,2a eliztarrak ziren, eta beraz apaiztegitik pasatutakoak. Beste egileek apaiztegitik igaro ez arren, % 33,64a goi eta erdi-mailako ikasketak zituzten<sup>124</sup>.

---

<sup>120</sup> *Euzko-Gogoaren* lehen zenbakian esaterako, honako egile hauek parte hartu zuten: *Euzko-Gogoa* (3 lanetan), *Etxetxo*, *Ibartzabal*, *Urizar*, *Udalaizpe* eta *Izuriza*. Denak Jokin Zaitegiren ezizenak, guztira 10 testu. Jokinek lehenengo zenbaki horretan bere izenarekin lan bakarria kaleratu zuen, hain zuzen ere itzulpen-lana zena: *Saul'en Onbideratzea*.

<sup>121</sup> (Iztueta, 2001: 229-234)

<sup>122</sup> Ibiñagabeitia Proiektua: <http://andima.armiarma.com/eugo/gehi01.htm> (kontsulta data: 2007-05-29)

<sup>123</sup> (Iztueta, 2001: 239-241)

<sup>124</sup> (Iztueta, 2001: 133-134)

Egile gehienak eliztarrak izan arren, aldizkarian gai erlijiosoek oso pisu txikia izan zuten, J. Intxaustiren arabera lanen % 4,71a baino ez da erlijioso, eta P. Iztuetaren arabera % 3,3<sup>125</sup>. Izan ere, *Euzko-Gogoak* prosa akademikoa bat bilatzen zuen unibertsitaterako (Ikastetxe Nagusirako) baliagarria izango zena, hau da, Elizatik kanpoko gaietaz aritzeko euskara prestatu nahi zuen.

### 3.2.5. Gogoak zubi

*Euzko-Gogoak* bai hizkuntza, bai egileen ikuspegitik, bai gaiei dagokionez, zubi lanak egin zituen, gerraurrea eta gerraosteko egile zahar eta gazteen artean, betiko gai eta gai berrien artean.

Hizkuntzari dagokionez, *Euzko-Gogoak* gerraurreko euskara moldean idatzi arren, onartu egin zuen egile gazte batzuk zerabilten hizkera berritzailea, bereziki F. Krutwig-ena. F. Krutwig gazteak bai poesia bai prosa ere lapurtera klasikoak idatzi eta argitaratu zuen *Euzko-Gogoan*<sup>126</sup>.

Aldizkariako lankideak eta egileetako batzuk gerraurrean hasi ziren euskaraz idazten (J. Zinkunegi, S. Altube, *Orix*e, J. Zaitegi eta abar); beste batzuk aldiz, gazteak, gerraostean hasi ziren (G. Aresti, *Txillardeg*i, J. San Martin, J. Altuna, F. Krutwig eta abar). Gazteetako batzuk gainera beste aldizkari batzuetan ere kolaboratzen zuten: *Eganen* (adb. G. Aresti, *Txillardeg*i eta J. San Martin) edota *Jakinen* (adb. Iru Garate ezizena erabiltzen zuten Garate anaiak). Gazteetako batzuk *Euzko-Gogoan* idatzi arren, aldizkariaren lankideen batezbesteko adina 46-51 urtekoa zen. Konparaziorako, eta J. Intxaustik ematen dituen datuak jarraituz, 1958. urtean *Euzko-Gogoan* aritzen ziren lankideen bataz besteko adina 51 urtekoa zen, baina urte bereko *Jakin* aldizkarian parte hartutako autoreen bataz bestekoa “ez zen 25etara iristen”<sup>127</sup>. Beraz, *Euzko-Gogoaren* idazleak XX. mendearen hasieran jaio ziren, askok gerraurrean lehen lantxo batzuk argitaratu zituzten, baina hain justu ere idazteko moduan egon zirenean, Hegoaldean

---

<sup>125</sup> (Intxausti, 1980: 107 eta Iztueta, 2001: 107)

<sup>126</sup> (Krutwig, 1952a eta 1952b)

<sup>127</sup> (Intxausti, 1979: 131)

Gerra hasi zen, eta ondoren gerraoste latza jasan zuten. Beraz, XX. mende hasieran jaiotako belaunaldiak bere produkzioa atzeratu behar izan zuen, 50eko hamarkadara arte, eta ordurako jada, belaunaldi gazteago baten garaia zeterren.

Gaiei dagokionez, *Euzko-Gogoan* gai berriei buruzko artikulak egile gazteek prestatu zituzten. Hala ere, izan ziren gai berriak landu zituzten egile nagusiak ere, adibidez Gotzon Urrutia. Urrutia, gizakiaren historiaz aritu zen zenbait aldiz (zazpi artikulua argitaratu zituen “Gixadijaren azikera-bidiak” izenburupean) eta, lehenengoan gizakiaren antzinatasunaz, aritu zen. Kristau batentzat Adanen aurreko giza aztarnak<sup>128</sup> ulertzeko saiakera bat eskaintzen zuen. Kepa Altonagak jasotzen duenez, G. Urrutiaren artikulak polemika txiki bat piztu zuen, G. Urrutia eta eboluzioaren erabat kontra zegoen *Orixeren* artean<sup>129</sup>.

Gai berriak jorratzen zituzten egile gazteen artean, J. Mirande, J. Beiztegi, B. Kapanaga eta *Txillardegia* ditugu. J. Mirande gazteak halako gai bereziki berri eta ezohiko baten gainean idatzi nahi izan zuen *Euzko-Gogoan*: parapsikologiaren gainean hain zuzen ere. Lau testu argitaratu zituen<sup>130</sup>. Hau da espiritismoaz, medium-etaz, geroa iragartzeaz, telekinesiaz, ektoplasmaz, lebitazioaz eta abarrez. Sentsazionalismorik gabe, aritu zen bertan. Hala ere, gaiok bereziki ernegagarriak izango ziren *Euzko-Gogoaren* inguruko kristau zintzoentzat.

<sup>128</sup> Horrela dio G. Urrutiak: “Gustiz gelgarrija da, baña, gaurko «jakintza»k lurpetik atara dauzan lenengo gixonak ain jakitun ez agertzia. Gaur egunetako ixakera-jakintzak gixon aen garazur, matralazur eta ankazurrak lurpetan aurkitu dauz eta dirudikanez Adan baño atzeratubaguak edo ziran. Java-aldian lurperatuta eguan «Pithekanthropos erectus» edo «matxango-gixona», Pechin'en illobiratuta eguana eta gure lurraldietan Doixterri'ko Mauer-matralazurra, Englanderri'ko Piltdown-gixona, Parantzaldeko Grimaldi ta Cro-Magnon-gixonak eta geure Euzkadi-aldietan Isturitz eta Basondo eta beste toki batzubetako erakuskiñak, Adan baño askoz atzeratubaguak dirudi.” (ikus Urrutia “Gixadijaren azikera-bidiak” *Euzko-Gogoa*, 3/4 (1950), 30. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo03/eugo0313.htm> [kontsulta data: 2008-03-10])

<sup>129</sup> (Altonaga, 2006a: 195-196)

<sup>130</sup> “Yakintza berri bat: psykologi-gaindikoa” *Euzko-Gogoa*, 11/12 (1951), 22-25 <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo13/eugo1318.htm> [kontsulta data: 2008-03-10]; “II.-Psychologi-gaindikoa gertariak” *Euzko-Gogoa*, 1/2 (1952), 40-43, <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo14/eugo1424.htm> [kontsulta data: 2008-03-10]; eta azkenik izenburu berarekin beste bi lan: “Psychologi-gaindikoa gertariak” *Euzko-Gogoa*, 3/4 (1952), 6-9 <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo15/eugo1511.htm> [kontsulta data: 2008-03-10] eta *Euzko-Gogoa*, 5/6 (1952), 9-11, <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo16/eugo1617.htm> [kontsulta data: 2008-03-10]



Astronomiaz J. Beiztegik artikulua kaleratu zuen: “Izarrerri begira”, izarren grabitazioaz eta bestelako gaiak jorratuz<sup>131</sup>. Bittor Kapanaga, zenbakera aritu zen<sup>132</sup>, zehazki, euskal zenbakera sistemaren alde: hogeikoaren alde, eta sistema hamartarraren kontra, zeren azken hau, frantziarrek zein espainiarrek erabiltzen zuten arren, Kapanagaren hitza erabiliz, *eraikatz*a (eraikitze gaitza) zen.

Azkenik Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik Euzko-Gogoan* argitaratutakoa aipatuko dugu. Berez *Txillardegiren* ekarpenak literatura arlokoak baziren ere, merezi du horiek aipatzea euskal letren munduan zekarten berritasun sakonagatik, zeharka goi mailako euskal prosa osoari eragiten baitzioten. *Txillardegik Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberria, liburu gisa inprimatu aurretik, *Euzko-Gogoan* aurreratu zuen obraren ataltxo bat, aldizkariaren sarrera honekin:

“Irakurri berria dizugu «Leturia'ren Egunkari ezkutua» deritzan eleberri gorengoa. Egilea Txillardegi, gezur-izenez. Orain-oraingo kezka blai-blai egindako eleberri gotorra dugu, ta oraingo gazteen biotzak zulatzen ditun minez iosia. Norberak aukera-bearra du gai ta ardatz. Azalez ta mamiz orrelakorik eztugu irakurri euskeraz lenago. Edonongo ele-ederrean pozarren atotsiko luketen eleberria, nik uste. Asikin bezala, ona emen «Negu» deritzan atalaren azken txatala, irakurlearen biotz-betegarri. Ilabete ontan, gutxi gora-bera, idazti bereizian argitarazia izango da osorik, edergarri, itzaurre ta guzti. Aldez-aurre zorionik kartsuenak Txillardegi gure adiskideari. EUZKO-GOGOAK.”<sup>133</sup>

*Txillardegik*, Galizian soldaduska egiten zegoela, idatzitako eleberria da, hirian kokatutako eleberri existentzialista. Eta halako euskara batu moduko batean idatzita, nahiz eta oraindik batasunik ez zen. Garaiko euskaltzaleentzat obrak hiru elementu nahiko deseroso zituen: hiria, existentzialismoa eta euskara ez garbia. Hala ere, *Euzko-Gogoak* ongi etorri beroa egin zion eta, gerora eleberria argitaratu zenean, Andima Ibiñagabeitiak eta Nemesio Etxanizek artikulua bana kaleratu zuten. A. Ibiñagabeitiak harrera ezin hobea egin zion lanari, gaiaren aldetik ausarta iruditzen zitzaion eta hizkuntzaren aldetik eragozpen handirik ez zion ikusi:

---

<sup>131</sup> Esate baterako, beste planeta batzuk ikertzeko zailtasuna: “Inoiz ludi barriren bat ikertzeko asmorik ba-letorkigu, gaur gurea dogun onen antzekoa izango da, bestelakoa ba-litz ezin izango ginakez sartu. Ekarmen aundiegiaren iabe ba-da, gure erroen indarra azpiraturik, lurrean luze-luze aurkituko ginakez; bere eguratsak be-gora luzeegia ba-leuka, aren azta aundiak ere lurreratuko ginukez, eta gure birrikak ez leukie naikoa indar izango arnasa botatzeko, aizez beterik itoko ginakez. Orretzaz gainera ba-dira beste galerazpenak ere: gelgai (N2) larregi, baita ikatzurte (CO2) ugaritsu ere, edo okerrago oindino ikatzordei (CO) edena, gero urik eza.” (Beiztegi, 1957)

<sup>132</sup> (Kapanaga, 1958)

<sup>133</sup> Txillardegi “Leturia'ren egunkari ezkutua” *Euzko-Gogoan*, 1956 (Uztaila-Daguenila), 3, <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo31/eugo3102.htm> [kontsulta data: 2008-03-10]

“Eta egia esan, etziran ustel atera eleberri onen inguruko berri onak. Liburu berria benetan gure elertian, **oraintasunez bete**a, idazle azkar baten arnaz beroaz oretua ta pizkortua. Bai, irakurle, oretua ta pizkortua. Idazlearen arnasa dariten liburu gutxi izan dugu orain arte gure artean: geienetan idazlea kanpoaldetik baizik ez zaigu agertzen, barnetik ez ordea.

(...)

Eta Txillardegik argi ta garbi erakusten digu bere novela ederrean euskaldunok ere badugula esatekorik gai orren inguruan, eta esateko iakingarriak.

Ez zaitut aspertuko, irakurle, liburu onek iradoki dizkidanak azalduz eta ainbeste bulko ta **ustekizun ernerazi dizkit nere baitan. Baten batzu idazle azkarrarekin bat ez datozenak, iakiña**. Zerbaiterako dugu bakoitzak gere burutxoa, pentzatzeko alegia, eta bat bederak geure pentsamenduak ditugu edo bear genituke beintzat. Unamuno'k ziñonez, benetako idazleak zerbait ernerazi ta iradoki bear du irakurlea baitan. Txillardegik, ala fede, ederki iritxi du elburu ori bere eleberri zoragarriarekin. Beste gorapenik egingo ezpaliote, auxe luke aski gure letretan lenengo errenkadan ezarteko.

**Izkerari buruz enoa ezertxo ere esaten. Ez naiz gramatikakeritan murgilduko** gure artean oi danez. **Novela au irakurtzean ez zait bururatu gramatika danik ere, ez itz-berririk ezta lapurtar klasikorik ere**. Auxe bai; darabilen euskerak gogo erabat iñarrosi dit, eta gogoak iñarrosteko gai dan izkera benetakoa ta egiña da.”<sup>134</sup> [beltzak gureak dira]

N. Etxanizek ere *Txillardegiri* ongi etorri beroa egin zion. Hala ere, A. Ibiñagabeitia baino ikuspegi orekatuago bat ematen saiatu zen, obraren gabeziak ere aipatuz<sup>135</sup>. N. Etxanizek eleberriaren aspektu bi azpimarratzen ditu: alde batetik gaia bera eta gaiaren gaurkotasuna<sup>136</sup>, eta bestalde, halako gai bati buruz euskaraz idatzi izana: “Euskeraz etzan onelako gairik aztartu egundaño. Au degu pozgarri. Gai berriak lantzea; kezka berriak arrotzea nai genduke gure izkuntzaren baratzan, ta auxe egiten digu txalagarriena Txillardegi gazteak.”<sup>137</sup>

*Txillardegik, Leturiaren egunkari ezkutua*ren aurrekaritxo bat *Euzko-Gogoan* argitaratzeaz gainera, 1957. urtean “*Taupadak*”<sup>138</sup> izenburuko testu labur sorta bat kaleratu zuen: futbola gaitzetsiz, ezkontza baterako Aita Santuaren bedeinkazioa erosi izana kritikatz, euskaltzaletasunaren alde eta filologokerien kontra, Zuberoara egindako bisitaz, eta azkenik, urte horretan Literaturako Nobel saria irabazitako Camusi buruz, eta bereziki Camus, Gide eta Sartrearen arteko aldeaz. Hirukote transgresorea

<sup>134</sup> (Ibiñagabeitia, 1957)

<sup>135</sup> “Liburuak goragarri asko ditun arren, ba-du alako gordin-antza ere. Bizi-bizi ta idazkera ebakia dakarkigu gazte onek; baña mirari zitekean euskaldun berri batek gure izkuntza zearo egosia agertzea. Ba-du, beraz, euskaldun berriaren usai pixka bat noizik bein.” (Etxaniz, 1957)

<sup>136</sup> “Dakarren gaia, gaur-gaurkoa degu gizaldi jorratu onen buruetan. Gizadia gudu-aizez astindua ikusi diguten gazteok, lengo bizieraren berri ezta kite. Guzia erortzen ikusi dute, gizonen erakutsiak auen egiteetan urratuak ikusi dituzte. Ta gaztediaren galdera au da: Al-da ezer egirik? Al-da egia ezagutzeko bide ziurrik?” (Etxaniz, 1957)

<sup>137</sup> (Etxaniz, 1957)

<sup>138</sup> (Txillardegi, 1957)

benetan: Camus, giza kondizioaren absurdoaz aritu zen, Sartre existentzialista, eta André Gide, homosexualen aldeko eskubideen defendatzailea. Azken hau hil zenean, Elizak bere obrak liburu debekatuen zerrendan (*Index Librorum Prohibitorum et Expurgatorum*) sartu zituen. Horietaz guztietaz, laburki bada ere, aritu zen *Txillardegi Euzko-Gogoan*.

Laburbilduz, *Euzko-Gogoak* bereziki sustatu ez arren, egile gazte eta gai berriei ez zien muzin egin, euskaraz idazten zutelako. Hala euskarak oinarrizko balore gisa funtzionatu zuen, biltzaile gisa, jatorri kultural, politiko eta erlijiosoen gaintik. Horren adibide da *Txillardegiren* eleberriaren gainean *Euzko-Gogoak* bi liburu aipamen argitaratu zituela, batekin nahikoa izango zenean. Halaber, *Euzko-Gogoak* N. Etxanizen artikuluari ohar bat erantsi zion, aldizkariaren euskaltzaletasuna berretsiz, baita argitaratu berri zen eleberri existentzial eta hiritarrari ongi etorria egiten zion bigarren iruzkin bat ere<sup>139</sup>.

Nola da posible egile, gai eta hizkuntza eredu hain berritzaileak onartzea *Euzko-Gogoak*? Garai honetan 50eko hamarkadan euskaltzaleen artean konpaktazio handia zegoelako nahiz eta euskaltzaleak joera politiko, kultura eta erlijioso desberdinen aldekoak izan.

### 3.2.6. Ondorioa *Euzko-Gogoaz*

*Euzko-Gogoa* trantsizioko aldizkari bat izan zen, gerraurreko eta gerraosteko euskal kulturgintza jasoaren zubi-lana bideratu zuen proiektua. *Euzko-Gogoak* izan zituen molde berriko ezaugarriak, batez ere gaietan eta egileetan antzematen direnak. Bazituen halaber gerraurreko beste proiektu batzurekin antzekotasunak. Are XIX. mende akabuko proiektu batzurekin parekotasunak, esate baterako, R. M. Azkueren *Euskaltzale* aldizkariarekin: bi aldizkariak osorik euskaraz argitaratu ziren, eta abade euskaltzale banaren proiektu, zuzendaritza, eta ondasun pertsonaletan eutsi ziren. Bestalde ez dago dudarik, *Euzko-Gogoan* gerraurreko euskara eta euskal kulturaren

---

<sup>139</sup> *Euzko-Gogoaren* oharra honela zioen: “*Oarra*: Euskaltzale itsu-itsuak gaituzu, ala ere, euskera'kikoak oro egiaz ta begiaz ikusi nai genituke. Ori dala-ta, idazti baten beraren bi iritzi pozarren ematen ditugu, egiairen muina atzeman nairik” (Etxaniz, 1957)

dinamikak indarrean zeudela, lankideetako gehienak gerraurrean bertan argitaratu zituztelako beraien lehen lanak.

Gaur egungo euskarazko goi mailako aldizkariak *Euzko-Gogoarekin* alderatuz gero, desberdintasunak nabarmenak dira:

- Egungo aldizkari unibertsitarioak ez dira proiektu eta ondasun pertsonaletan eusten, baizik euskal kulturgintzak edota unibertsitateak babestu eta finantzatzen dituzte.
- Oraingo aldizkarietako zuzendariak, ez dira abade, eta normalean zuzendariak idatzitako testuak tarte txikia du aldizkariaren baitan<sup>140</sup>. Ikusi dugunez, *Euzko-Gogoaren* egilerik emankorrena J. Zaitegi bera zen.
- Egileekin antzera gertatzen da. *Euzko-Gogoaren* egileetako asko abade ziren, edo behintzat apaiztegian formatutakoak. Horren ondorioz, emakume euskaltzale ikasi gutxi egon zitekeen *Euzko-Gogoan* idazteko moduan<sup>141</sup>. Aldagai biak, egilearen formazioa zein egilearen generoa, azken hamarkadetan asko aldatu dira. Gaur egun goi mailako aldizkarietan idazten duten egile gehien gehienak laikoak dira<sup>142</sup>, eta portzentaje handi batean, emakumeak (hala ere erdia baino gutxiago).
- Halaber, izenordeen erabilera ia-ia desagertu egin da azken urteotan, *Euzko-Gogoan* ohiturarik hedatuena izenordea erabiltzea zenean. Gaur egun euskaldunen artean curriculum behar berriak sortu dira, eta artikuluak egileek bere izen deiturekin izenpetzen dituzte.

<sup>140</sup> Salbuespenak badira, adibidez, Joan Mari Torreldaik *Jakinek* argitaratzen ditu urtero euskal liburugintzari buruzko balantze mardulak.

<sup>141</sup> *Euzko-Gogoa* aldizkariko egileak nagusiki gizonek ziren, eta emakume bakanen bat baino ez dago. Adibidez, *Euzko-Gogoaren* 1954 eta 1955ko lankideen zerrendetan Karnele Errazti, gerraurrean Euskaltzale Bazkunako kide zena, agertzen zen.

<sup>142</sup> Egia da hala ere, egungo egileetako asko apaiztegian ikasi zutela.

Gure ustez, *Euzko-Gogoaren* ekarpen nagusiak bi izan ziren: batetik euskaltzaleen artean euskara kultur balore nagusi gisa aldarrikatzea (baita euskarazko elebakartasuna ere), eta bestetik kultur esparrua euskararena ere bazela erakustea. P. Sudupek dioenez, *Euzko-Gogoa* “lehen ahalegin baliozkoa izan zen frogatzeko hain zuzen euskal kultura nazionala egingarria zela, eta euskaraz landutako kulturak ez zuela zertan herri-kulturara mugatu”<sup>143</sup>.

J. Zaitegiren aldizkaria gerora etorri ziren *Egan*, *Euskera* eta *Jakinentzat*, bereziki *Jakinentzat*, aintzindari izan zen, eta maiz eredu, bi alorretan: batetik, euskararen erabilera esparruari zegokionez, *Euzko-Gogoa* maila jasoko euskara hutsezko lehen aldizkaria izan baitzen; eta bestetik, hizkuntza ereduari zegokionez, *Jakinekoak Euzko-Gogoa* aldizkariaren esperientziatik asko ikasi ahal izan zutelako. *Jakinekoentzat* oso baliagarria izan zen *Euzko-Gogoaren* saioa, baita gerraurreko hizkuntza moldeak maila jasoan erabiltzean zein mugapen zituen ikusteko ere. Euskara kultur hizkuntza izateko prestatu nahi zutenenez, gerraurreko ereduaren mugak ikusi ondoren, hura baztertu eta “mordoilorantz” lerratu ziren.

Jakin taldean ibilitako Joseba Intxaustik aipatzen du *Euzko-Gogoa* eta *Eganen* argitalpena berritasun bat izan zela euskal kulturaren, bi esperientzia horiekin baieztatu zutelako kultura jaso eta eskolatua euskaraz ere egin zitekeela<sup>144</sup>. Are gehiago, giro arras interesgarria sortu zuten *Euzko-Gogoa* eta *Eganekin*: “Garaiko gazte euskaltzaleok adi-adi geunden *Euzko-Gogoa*-ri zein *Egan*-i, aldizkari bakoitzak baitzituen bere xarma eta erakarmena, elkarren osagarri edo kontrajarriak zirenak”<sup>145</sup>.

## 4. Liburuak eta argitaletxeak

Sasoi honetan euskaraz ziharduten bi inprenta edo argitaletxe nagusi zeuden. Bata, Arantzazuko frantsizkotarren EFA, eta bestea, Itxaropena, eta bereziki Itxaropenak argitaratutako “Kuliska sorta” liburu bilduma. Lehenak liburu erlijiosoak euskaraz argitaratu zituen batik bat. Itxaropenak, berriz, obra literarioagoak (antzerki

---

<sup>143</sup> (Sudupe, 2000b: 50)

<sup>144</sup> (Intxausti, 2007b: 58)

<sup>145</sup> (Intxausti, 2007b: 59)

obrak, eleberriak zein poesia) eta laikoagoak, nahiz eta eliz liburuak ere izan ziren, eta egileetako batzuk abade (N. Etxaniz, M. Lekuona eta abar).

Bestalde diasporako euskal jatorriko herritarrek egindako argitalpen lana ere aintzat hartzeko da. Erbesteratuek talde heterogeneoa osatu zuten<sup>146</sup> eta arrakasta desberdineko azpiegitura kulturalak sortu zituzten Ameriketako herrialdeetan. Argentinan esaterako bertako euskal kolektibitateak, besteak beste, Ekin argitaletxea sortu zuen 1942. urtean. Ekinek euskarazko liburu gutxi batzuk baino ez zituen argitaratu<sup>147</sup> eta horregatik ez dugu hemen aztertuko, bertako argitalpenen % 85a gaztelaniazkoak izan baitziren. Nolanahi ere, bai Buenos Aireseko, bai Mexikoko bai Guatemalako inprentetan ospe handiko obren itzulpenak argitaratu ziren, baina horretaz aurrerago mintzatuko gara.

Gerraosteko lehen urteetako argitalpengintzaren egoeraz hauek ziren S. Onaindia Karmeldarraren hitzak, Kuliska sortan argitaratutako *Kresalaren* hitzaurrean:

**“Bai dogu, ostera, baikor izateko ziorik naiko be, urteotan iñoizkorik liburu geien eta mamintsuenak argitara emonak baitira: Orixe’ren *Urte guziko Meza-bezperak* eta *Euskaldunak*; Axular’en *Gero*; Ametzaga’k euskeraldutako *Hamlet*; Zaitegi’ren *Bidalien Egiñak* eta *Sopokel’en Antzerkiak*; Irigoien jaunaren *Bizi*; Manzisidor josulagaunaren *Jesukristo’ren Bizitza*; Iraizoz Aitaren *Arimaren Zuzenbidea*; *Milla Euskal Olerki eder*, neuk batuak; ta orain esku artean daukazun *Kresala*, Txomin Agirre apaizaren irakurgai ederra. Ezta sail makala.”<sup>148</sup>**  
[beltzak gureak dira]

Ez zen asko, baina bai gerraostean euskarazko kulturgintza abian jartzeko lehen ahalegin zabalak.

#### **4.1. EFA: Arantzazuko Frantziskotarren Argitaletxea**

Arantzazuko Frantziskotarren argitaletxeak, *Editorial Franciscana de Aranzazu* (aurrerantzean, EFA), ordena erlijioso baten editoriala izanik liburu erlijiosoak publikatu zituen, bai gerraurrean, bai gerraostean ere, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Gerraurrean euskaraz kaleratutako otoitz liburuen artean bat aipatzea ezinbestekoa da,

<sup>146</sup> Batzuk euskaldunak ziren, besteak ez; batzuk erbestera joan ziren, eta beste batzuk aberastera; batzuk abade ziren, besteak ez eta abar.

<sup>147</sup> Epe honetan Ekinek 3 obra argitaratu zituen, Jon Andoni Irazustaren bi (1946ko *Joañixio* eta 1950eko *Bizia garratza da*), Jose Eizagirrearen *Ekaitzpean* (1948).

<sup>148</sup> (Onaindia, 1954: VII)

1936 urtea baino lehen 3 argitalpen izan zituelako eta gerraostean beste hainbeste: *Arantzazu'ko Ama Birjinaren kondaira ta bederatziurrena*<sup>149</sup>. Hain zuzen ere, Arantzazuko Andra Mariari buruzko otoitz eta debozio liburu hori da EFAk gerra pasatu ostean euskaraz argitaratu zuen lehen liburua.

EFAk 1954. urtera arte, elizako eta bereziki Arantzazuri lotutako eliz gaien gaineko liburuak publikatu zituen. Beraz, EFaren produkzioaren gehiena euskaldun fededunentzako liburuak izan ziren. Hala ere, euskarari buruzko lanak zein euskal literaturako obrak gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu zituen orobat<sup>150</sup>.

*Jakin* aldizkaria sortu arte (1956), Arantzazuko frantziskotarrek euskaraz eliz liburuak argitaratzen zituzten nagusiki. Jakin inguruko pertsona taldeak beste bide bat, bide berri bat, ireki zuen, euskarazko kultur aldizkariena hain zuzen ere. *Jakinekoak* 1962. urtetik aurrera, aldizkariak gain, liburu argitalpenak egiten hasi ziren, Jakin (EFA) gisa. Zehazki Jakin (EFA)-k 1962-1985 urte artean kaleratu zituen euskarazko liburuak<sup>151</sup>.

#### **4.2. Itxaropena argitaldaria eta “Kuliska sorta” bilduma**

Itxaropena, Patxi Unzurrunzagaren (1906-1984) inprenta eta argitaletxea zen. Berak sortu, kudeatu eta sustatu zuen. Itxaropena argitaldaria, gerraurreko azken urteetan lanik kaleratu bazuen ere, bere produkzioaren gehien-gehiena gerraostekoa da. Itxaropena hasiera batean inprenta bat zen, eta gerora, gerraostean inprenta propioa zuen argitaletxe gisa funtzionatu zuen. Itxaropena, 1968tik aurrera sortutako Gordailu, Lur, Etor, Jakin, Iker, Gero eta Elkar argitaletxeekin alderatuz gero, azpiegitura eta kontzeptuaren aldetik erabat desberdina zen, “funtsean argitaletxe hauek denek dute kultur talde bat, joera bat, pentsamendu bat oinarri eta helburu”<sup>152</sup>, hau da, kultur plataformak ziren. Itxaropena aldiz, P. Unzurrunzaga zen.

---

<sup>149</sup> 1921, 1923, 1931, 1946, 1950 eta 1955. urteetan

<sup>150</sup> Adibidez, Luis Villasante eta Karmelo Iturriak prestatutako *Paradigmas de la conjugación vasca* (1955), T. Agirrerren *Garoa* (1956) eta abar.

<sup>151</sup> 1985. urtetik aurrera Jakin baino ez zen, eta gaur egun 1999. urtetik Jakinkizunak SL da.

<sup>152</sup> (Unzurrunzaga, 1999: 23).

Itxaropena Zarautzen errotu zen gerraurrean. P. Unzurrunzaga, Donostian jaio eta bertan aritu zen inprenta lanetan, diputazioko inprentan hain zuzen ere. Gero Zarautzera joan zen, *Editorial Vascan* lan egitera, eta Zarautzen zegoela 1932an beste hiru lagunekin batera Itxaropena sortu zuen, baina laster geratu zen bere esku. Gerra baino urte batzuk lehenago sortua, epe hartan euskarazko liburu argitaratu zituen<sup>153</sup>.

P. Unzurrunzagak Gerra Zarautzen pasa zuen, erbesteko bidea hartu gabe. Gerraosteko lehenengo urteetan euskarazko libururik inprimatzeko baimenik ez zuen lortzen. Debekatuta zegoen aldizkariak euskaraz publikatzea, baita erlijiosoak ere. Hala, euskarazko katekesia emateko liburuak, argitalpen baimena faltsuekin eta klandestinoki inprimatuta gauez banatzen ziren. P. Unzurrunzagak euskarazko liburuak argitaratzeko asmoan ez zuen etsi, bertako probintziako agintariengandik baimenik lortu ez arren.

1947ko irailean, P. Rocamora Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorra Zarautzera oporrak igarotzera joan zela aprobetxatuz, Jose Artetxe eta biak harekin bildu ziren “poema erlijioso eta folkloriko batzuen argitalpen-lizentzia eske”, baita lortu ere<sup>154</sup>. Beraz, ordutik Itxaropenak euskarazko liburuak argitaratzeko garai berri bati ekin zion<sup>155</sup>. 1948. urtetik aurrera Salvatore Mitxelenaren lanak, *Basarrirenak* eta *Orixeren Euskaldunak* (1950) poesia lanak argitaratu zituen, baita prosa lanak ere, Y. Etxaideren *Alos-torrea* eta abar. Beraz, gerraosteko euskarazko liburugintzaren lehenengo urratsak Itxaropenan eman ziren eta P. Unzurrunzagak sustatu zituen. Baina P. Unzurrunzaga harago joan zen eta “Kuliska sorta” liburu bilduma sortu zuen 1952. urtean. Bildumak 1973. urtera arte iraun zuen, eta bertan euskarazko 50 liburu baino

<sup>153</sup> Itxaropenak gaztelaniazko libururik ere inprimatu zuen, hala ere obra horiek ez dira gure ikergaian sartzen eta ez ditugu aztertuko. Itxaropenaren gerraurreko euskal literatur argitalpenak: prosa (T. Agirreren *Garoa*), poesia (*Orixeren Barne-muinetan*), literatur lanen itzulpena (Arturo Campionen Sancho Garcés-en gaineko poemaren itzulpena *Elerti-literatura*), Historia lanen itzulpenak (adb. J. M. Barandiaranen *Euskalerriko leen gizona* edo B. Estornesen *euskal-edesti*). *Orixerena* izan ezik, aipatutako guztiak Donostiako “Euskaltzaleak’en ardurapean” argitaratu zituen Beñat(-)idaztiak editoreak, Estornesen familiarena zena, eta Itxaropenak inprenta lana egin zuen. Itxaropenak bere aldetik, *Orixeren* olerkiak eta Argiaren Batzaldian saritutako *Argi-donea* argitaratu zituen.

<sup>154</sup> Baina “Ez zen abertzale guztien gustoko bisita izan, eta traidoretzat salatuak izan ziren Artetxe eta Unzurrunzaga” (Zubimendi & Atxaga, 2001: 18)

<sup>155</sup> P. Rocamorak zehazki zein liburu argitaratzeko baimena ematen duen ez dakigu, honen gainean idatzi duten ikertzaileak obrak desberdinak aipatzen dituztelako (San Martín, 1984a: 6 eta Unzurrunzaga, 1999: 9)



gehiago argitaratu ziren<sup>156</sup>. Gehienak jatorriz euskaraz ekoizitako lanak izan ziren, itzulpenen bat edo beste badago, baita liburu pare bat elebitan ere<sup>157</sup>. Imanol Unzurrunzagaren datuen arabera, bilduma 200 bat harpidedunekin hasi zen, eta 500 edukitzerara heldu zen<sup>158</sup>.

Euskarazko lanak Kuliskan bertan zein bildumatik kanpo argitaratu zituen Itxaropenak, adibidez A. Anabitarteren *Poli* (1958) eleberria Kuliskakoa zen, aldiz *Axularren Gero* (1954) edo *Txillardegiren Peru Leartza* (1960) bildumatik kanpo zeuden. Dirudenez, euskal literaturako obrak Kuliska bilduman zein kanpo kaleratzen ziren, baina euskarazko eliz liburuak Kuliskatik kanpo beti (adb. *Argi bidea*). Dena den, zehatzago aztertzeke gaia litzateke zer zen Kuliskarako eta zer ez, eta zergatik.

Itxaropena etxeak, ekoizle gisa, lau une ezagutu zituen: lehena, gerraurrea, inprenta zenekoa; bigarrena, gerraosteko lehen urteetako erabateko klandestinitatea; hirugarrena Rocamorarekin izandako bileratik abiatzen den gerraosteko euskarazko lehen liburugintza ofizialaren garaia; eta laugarren bat, 1952. urtetik aurrera Kuliska sorta bildumaren sorrerarekin hasi zena. Itxaropena 50eko hamarkadako euskarazko liburuen (liburu erlijioso zein literatura-lanen) ekoizle nagusia izan zen.

Kuliska sorta ireki zuen obra *Nonni eta Manni* izan zen, 1952. argitaratutakoa, J. S. Sveinsson islandiar jatorriko jesuitaren izenburu berdineko eleberriaren euskarazko itzulpena. Euskaratzailea beste jesuita bat izan zen, Plazido Muxika<sup>159</sup>. Biek elkar ezagutu zuten P. Muxikak Teologia ikasketak European egin zituelako, eta sasoi batean elkarrekin bizi izan zirelako Valkenburg-en (Belgika). Sveinsson-en *Nonni eta Manni* obra, sasoi hartan arrakastatsua eta hainbat hizkuntzetara itzulia izan zen. Bi umezurtzen istorioa kontatzen zuen eleberritxoak. Jose Antonio Muxikak, P. Muxikaren itzulpenaren azken edizioan zera dio: “kontakizun jainkozalea da liburu honetan

---

<sup>156</sup> ABKn egindako bilaketaren arabera euskaraz 54 liburu argitaratu ziren Kuliska sortan [<http://www.euskaltzaindia.net/azkue> kontsulta-data: 2007/10/08]. Imanol Unzurrunzagak bere aldetik 76 liburu aipatzen ditu (Unzurrunzaga, 1999: 11)

<sup>157</sup> Gaztelaniaz lan bakarra dago bilduma honetan: J. Artetxeren *La paz de mi lámpara* (1957) (Iturria: ABK <http://www.euskaltzaindia.net/azkue> [kontsulta-data: 2007/10/08])

<sup>158</sup> (Unzurrunzaga, 1999)

<sup>159</sup> Plazido Muxikaren (1906-1982) bizitza eta ibilbidearen gainean ikus J. A. Muxika Casares-en lanak (Muxika Casares, 1998 eta 2006a), baita Patxi Altunaren hilberri txostena ere (Altuna, 1983).

eskaintzen zaiguna, gazteak onbidera erakartzeko egokia”<sup>160</sup>. Beraz, Kuliska sorta estreinatu zen jesuita baten obra ezagun (ordurako hainbat hizkuntzetara itzulia<sup>161</sup>) eta doatsuaren itzulpenarekin, hain zuzen ere ordena bereko beste kide batek egina. Hau da, frankismoak onartzeko modukoa zen obra, euskaraz argitaratu “arren”.

*Nonni eta Manni* obra gerraostean kaleratu arren, itzulpena gerraurrean mamitu zen. Horregatik J. M. Barandiaranen 1934ko *Euskaleñi'ko leen-gizona* liburuan iragartzen ziren liburuen artean ageri zen<sup>162</sup>. A. Ibiñagabeitiak, *Nonni eta Manni* argitaratu zenean, liburuaren iruzkina *Euzko-Gogoan* argitaratu zuen. Bertan aipatzen zuen: “Aunitz urte zakar igaro ditugu bai, Muxika'tar Palgida Aitak itzulpen ori burutu zUNETIK! Aitzol'ek “YAKINTZA” aldizkarian 1935'grn. liburutxo ori irarriko zuela irarri zigun”<sup>163</sup>. Beraz, esan liteke, gerraosteko Kuliska sorta liburu bilduma hein handiz, eta batez ere hasieran, gerraurreko euskaltzaletasunean sustraituta zegoela bai obretan, bai gaietan, bai egiletan ere.

Kuliska sortan gerraurreko egileen literatur lanak argitaratu ziren, adibidez T. Agirrerren *Kresala*<sup>164</sup>, edo *Xabier Lizardiren Biotz-begietan* olerki bilduma<sup>165</sup>. Baita gerraurrea baino askoz lehenagokoak ere<sup>166</sup>. Bestalde badaude ere gerraurreko egileak izanik, gerraosteko produkzioa zuten egileen lanak. Esate baterako Augustin Anabitarterenak<sup>167</sup>, edota antzerki lanak idatzi zituzten Antonio Maria Labaien eta Manuel Lekuonarenak<sup>168</sup>.

<sup>160</sup> (Muxika Casares, 2006b: 5)

<sup>161</sup> Imanol Unzurrunzagak dio 50 hizkuntzetara itzulia izan dela J. S. Sveinsson eleberria (Unzurrunzaga, 1999: 11)

<sup>162</sup> “*Nonni eta Manni*. Islandiar mutiko biren gertaldiak. Doitxeratik euskeratutako irakurgaia. Muxika'tar Palgida S. I. euskeratzallea. Jon Stewenson S. I. egilea.” (Barandiaran, 1934: 5)

<sup>163</sup> (Ibiñagabeitia, 1952: 28)

<sup>164</sup> T. Agirrerren *Kresala* 1906an argitaratu zen, eta 1954. urtera arte ez zuen edizio berririk izan, hain zuzen ere kuliska sortan kaleratu zen arte.

<sup>165</sup> *Lizardiren* olerki liburua gerraurretik argitaratua (1932an), Kuliska sortan agertu arte ez zuen edizio berririk izan.

<sup>166</sup> Esate baterako J. A. Mogelen *Peru Abarka*, 1802. urtean amaituta, 1881. urtera arte ez zen osorik argitaratu, eta 1899an Azkueren *Euskalzale* aldizkariaren inprentak edizio berria atera zuena, *Euskalzalzen* erabiltzen zen garaiko ortografiarekin (ts, f...). 1956ean A. Arruek Peru Abarkaren ortografia bere sasoirako eguneratuz edizio berri bat argitaratu zuen Kuliska Sortan (Zelaieta, 1981)

<sup>167</sup> A. Anabitartek, gerraurrean saiakera lanetan aritu zen, gerraostean literaturan murgildu zen eta bi eleberri argitaratu zituen: *Poli: mutil umezurtz baten ibillaldiak: (irakurgaia)* 1958. urtean eta *Aprika-ko basamortuan* 1961. urtean, biak Kuliska sortan.

<sup>168</sup> A. M. Labaienek bere aldetik, 6 antzerki lan prestatu zituen gerraurrean, horietako bat *Lizardirekin* (“*Laño*” ta “*Izar*”), eta beste euskaratu zuen. Gerraostean Kuliska sortan, 60ko hamarkadan 3 antzerki

Gerraurrean ezer ekoitzi ez zuten egileak ere izan ziren, hala nola, Yon Etxaide. Etxaidek, gerraondoko euskal idazleen aitzindari, bere produkzio guztia, eleberriak zein antzerki lanak, Itxaropenan argitaratu zituen<sup>169</sup>. 60-70eko hamarkadetan egile gazte eta berriek (G. Aresti, T. Peillen, J. San Martin<sup>170</sup> ...), eta beraiekin zekartzaten gai berriek, Kuliska sortan tokia izan zuten. G. Arestik, hitoa eta mitoa den *Harri eta herri* obra, bertan kaleratu zuen 1964an.

Gaietan ere, arestian aipatu dugunez, gerraurreko gai batzuren jarraipena antzematen da, adibidez ipuinetan. Gerraurrea euskal folklore bilketa lan erraldoien garaia izan zen. Bi folkloristek, biak abade, R. M. Azkue eta Aita Donostia, herri tradizioko ipuinak, kontakizunak, legendak, esaerak, kantak zein bertsoak jaso zituzten. R. M. Azkue gerraurrean hasi zen *Euskalerrriaren Yakintza* argitaratzen eta gerraostean bukatu zuen<sup>171</sup>. Bada gerraostean ere, Euskaltzaindia izan zen herri kulturatik sortatuko ipuinen emaile nagusia. Hala, 1957an Euskaltzaindiak *Euskalerrriko ipuiñak*<sup>172</sup> sustatu zuen, Kuliska sortan argitaratu zena. Urte batzuk beranduago L. Villasante euskaltzainak, Oñatiko Gesaltza auzoko Graziano Anduagaren kontakizun eta bertsoekin osaturiko bilduma bat ere bertan kaleratu zuen: *Aitonaren uzta: Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin* (1961).

Itzulpengintzak ere bere tokia izan zuen Kuliska sortan. *Nonni eta Manni* lanaz gain, badaude ere, beste egile batzuren itzulpenak: Hugo Wast-en *Bide izkutua* (Itunbek euskaratua 1956an), Pio Barojaren *Pio Baroja'ren itxasoa laño dago: Xanti Andia itxasgizonaren bizitza ta kezka* (Yon Etxaidek euskaratuta, eta 1959an argitaratuta), Ernest Hemingway-ren *Agurea eta itxasoa* (R. P. Goenagak euskaratuta 1963), Rathindranatha

---

kaleratu zituen. Halaber, M. Lekuonak gerraurrean antzerkirako zenbait obra idatzi zituen, baita erdaraz saiakera lanak ere. Kuliskan, *Bi antzerki ta itzaldi bat lana* argitaratu zuen 1963. urtean.

<sup>169</sup> (Unzurrunzaga, 1999: 13)

<sup>170</sup> J. San Martinek barrea eragitea helburua duten bi lan kaleratu zituen: *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965). Tartean, Euskaltzaleen Biltzarrean humorea euskal literaturan gaia jorratu zuen, gerora Euskaltzaindiaren buletinean argitaratu zena. J. San Martin da humorearen eta barrearen gaia lehen aldiz lantzen duen lehen euskal egilea, hau da, dela saiakera bidez (San Martin, 1962), dela propio horretara bideratutako obrak idatziz.

<sup>171</sup> 1935 urtean lehen tomoa argitaratu zuen (*Oitura ta sineskeriak*), bigarrena gerra amaitzean 1942an (*ipuin ta irakurgaiak*), hirugarrena 1945ean (atsotitzak, esakerak, haurren izkuntza, aho-korapiloak, goitzenak eta igarkizunak) eta laugarrena eta azkena 1947an.

<sup>172</sup> Bilduma elebitan argitaratu zen. Ipuinak A. Irigarai euskaltzainak berrikusi eta bere aitzinsolas batekin kaleratu ziren (Ikus *Euskera*, 2 (1957), 408)

Tagore-ren *Iru poema* (Aita S. Onaindiak itzulita, 1963an) eta Camilo Jose Celaren *Paskual Duarte' ren sendia* (Luis Jauregiren itzulpena, 1967).

Beraz, bai itzulpengintzan, bai egileen kasuan, Kuliska sortan 60ko hamarkadatik aurrera, gero eta obra ausartagoak kaleratu ziren, jadanik euskarazko liburuak ez zirelako hain markatuak (hasierakoak berriz “susmorik txipiena ere sortarazi behar ez zuena, inor minduko ez zuena”<sup>173</sup>). Erregimenarentzat susmo handirik ez zuten eragiten, eta euskaldunen artean oihartzun handiko obrak ziren Itxaropenarenak, baita Kuliskakoak ere. A. Ibiñagabeitiak harrera ezin hobea egin zion Kuliskari *Euzko-Gogoan*<sup>174</sup>.

Artikulu berean aipatutako egileak kritikatzan zuen Francok, baina bereziki Jesusen Lagundiak euskara eta Euskal Herria jazartzea. Are gehiago, bere ustez, Lagundiaren kontrakotasuna hain zen handia, ezen *Nonni eta Manniren* itzulpenak hitzaurrerik ez edukitzea eragingo baitzuen:

“Itzulariak ez dio itzaurrerik ez ataririk bere itzul-lanari ezarri. Ez du nunbait, ortarako adorerik izan, edota izan ba' du, eskuak uko egin dio, lotsaz, alkez, yaulki-bearrak gogorregiak, gordinegiak [sic] zitezkelako, bear bezala, liburutxoaren baranoan gertatuak kontatuko ba' zitun. Gañera, bere nagusiek etzioten noski, orlako [hit]zaurrea argitaratzerik laketuko”<sup>175</sup>.

Ordurako A. Ibiñagabeitiak Jesusen Lagundiaren kontra lasai asko hitz egin zezakeen, alde batetik Lagundia utzia zuelako gerra aurretxoan, eta bestalde iruzkina ez ziolako inork enkargatu: “Orain arte argitara ditugun iritziak oldez idatzi ditugu, ez noski idazle edo argitaltzalleak ortarako libururik bidali digutelako. Gere diruz erosi ditugu. Beraz iritziak ere, guk uste bezela antolatzen ditugu, askatasun osoarekin, iñori zorrik ezpaitiogu”<sup>176</sup>.

---

<sup>173</sup> (Unzurrunzaga, 1999: 10)

<sup>174</sup> “Aurtengo udaberria ere irriparez etorri zait leiora bere esku argitsuan euskal liburutxo bat ekarki. Bakanka, bañan euskal-baratza lorez estaltzen ari zaigu; lore bakoitzak, ermetzean, biotza pozten digu gure baratza landu, garbitu eta yorratzen ari geranoi. / «Itxaropena-Argitaldaria»k euskal liburu egindako sorta berri bat antola gogo dizu, «Kulixka Sorta» alegia, eta Sorta orren aurreneko lilitzat «NONI eta MANI», Svensson yesuita zanaren gertari-eleberritua, Muxika'tar Palgida Aita yesulagunak alemaneratik ipin-apain itzulia, aukera dizu. «Kulixka Sorta»k yaio bear izan dizu «NONI eta MANI»k euskeraz argia ikusteko.” (Ibiñagabeitia, 1952: 28)

<sup>175</sup> (Ibiñagabeitia, 1952: 28)

<sup>176</sup> (Ibiñagabeitia, 1952: 30)

### 4.3. Itzulpen lanak

Gerraurrean literatura klasiko eta unibertsaleko zenbait obra itzuli zirela aipatu dugu. Gerraoste latzean, euskarazko ekoizpenek jaso zuten etenarekin, itzulpengintzak ere atzera egin zuen. Lehen garaian bi euskaratzaile aipagarri baino ez ditugu: Bingen Ametzaga eta Jokin Zaitegi. Hala ere, nolabait gaur egun, 40 eta 50eko hamarkadan argitaratutako itzulpen lanak garaiaren ikonotzat ditugu. Zernahi gisaz, sasoi honetako itzulpen lan guztiak Euskal Herritik kanpo argitaratu ziren.

B. Ametzagak<sup>177</sup> W. Shakespearen obra ospetsu bat euskaratu zuen: *Hamlet: Danemark'eko erregegaia*, eta Buenos Airesen argitaratu Ekin argitaletxearekin 1952. urtean. Ekinek, euskal argitaletxea izan arren, euskaraz hiru lan baino ez zituen argitaratu, M. Iruxok 1954an Eusko Ikaskuntzaren erbesteko zortzigarren kongresuan aitortu zuenez: “La obra en euskera que ha tenido más trascendencia ha sido la traducción del Hamlet de William Shakespeare por Vicente Ametzaga que ha llegado a muchísimas universidades, filólogos y estudiosos del mundo. De ella se hicieron 1.000 ejemplares”<sup>178</sup>.

J. Zaitegik gerraurrean Sofoklesen *Antigona* itzuli zuen eta Tolosako Ixaka Lopez Mendizabalen inprentan argitaratu zen (*Antigone*, 1933). Gerraostean Guatemalan Henry Wadsworth Longfellow-en *Ebangelina* euskaratu zuen (1945). Hurrengo urtean Mexikon *Sopokel'en antzerkiak* lanaren lehen liburukia kaleratu zuen<sup>179</sup>.

Andima Ibiñagabeitiak, J. Zaitegiren lagun zenak, *Euzko-Gogoaren* bigarren zenbakian, J. Zaitegiren gerraosteko produkzioaren iruzkina argitaratu zuen (*Goldaketan* poesia lanaz eta *Ebangelina* zein *Sopokel'en antzerkiak* itzulpenei buruz). A. Ibiñagabeitiaren lanean ikusten denez, J. Zaitegiren itzulpenak programatikoak ziren, hau da, euskara altxatzeko programaren baitan egin beharrekoak.

---

<sup>177</sup> Bingen Ametzagaren bizitza eta obraz gehiago jo X. Irujoren doktorego-tesira (2005)

<sup>178</sup> (Iruxo, 1954: 115)

<sup>179</sup> Bigarren liburukia zatika *Euzko-Gogoa* aldizkariaren 1956 eta 1957. urteetako zenbakietan atera zen, eta ondoren lan guztiak bilduz aparteko argitalpena egin zuen.

**“Itzul-lana, edozein izkuntzaz, lan gogorra, lan zaila duzu. Euskeraz, berriz, benetan malkartsu ta arantzez yosia. Ez, noski, euskera edozein izkuntza bezin gai ez dalako, euskaldunak bear bezin gaiturik ez gaudelako baizik.**

Alaz ere, lan ederrik argitaratu da euskeraz, erdel-izkuntzetatik biurtuta. Erlisone gaietaz, batez ere, amaseigarren gizaldia ezgero, Itun Zarra ere, zatika ta osorik itzulia izan da. Bañan lanik ederrena sail onetan, Olabide'k egin diguna, Itun Zar-Berrietan Yaunaren itza euskeraz zintzoki ta goxoki gatzaturik emanaz. (...)

**Bainan bestelako idazleen lanetan iñor gutxi murgildu da ayen asmakizunak euskel soinekoz apaintzeko. Lan bearrezkoa izan ordea, orixe, iñoiz euskerak burua yasoko ba'du.**

Ontara yo dugun ezkeru, ezin itzulpen batzu aipatubage utzi: «Mireio» eta «Tormes'ko Itsumutilla» (Orixe'k), «Heine'ren Olerkiak» (Arregi'tar Yoseba'k) «Irizpidea» (Balmes-Zinkunegi'k), «Wilhelm Tell» (Goenaga'tar Iñaki adiskide maiteak), «Bertolda eta Bertoldin» (Garro'tar Bernarta'k), «Oskar Wilde'n Ipuñak» (Altuna'k), «Grim'en Ipuñak (Larrakoetxea Ipolita'k) eta abar. Barkatuko al didate izendatzen ez ditudan euskeratzaleak, buruz ari bai naiz,...”<sup>180</sup> [beltzak gureak dira]

Halaber, Sofoklesen itzulpenaren harira, A. Ibiñagabeitiak praxi erdaltzalea zuten euskaltzaleak kritikatu zituen. Izan ere, euskara ezagutzaren transmisiorako hizkuntza gisa ikusteko gogoz zegoen:

**“Benetako euskeltzaleak, izkera arrotzik ugari ezagutuarren, euskera bakarrik erabilliz burutu dezakena. Erderaz idazten duten euskeltzale arroak, ez dute olakorik iñoiz ere burutuko. ¿Zergatik? ¡Kemenik, adorerik ez dutelako, ezta euskerarenganako maítasunik ere, naiz besterik aitortu!**

Olabide Aitak euskeraz idatzitako Pisia irakurtzean poz-malkoak omen zitun Eleizalde euskaltzale yakintsuak. Egitan diotzut irakurle, **Sopokel'en antzerkiak irakurtzean usu neri ere, begi-xokoetaratu zaizkit. ¿Eta nori ez, euskera izkuntza yakitunen einera yaso ta ayen arrandiz inguratuta ikusi ezkeru?”**<sup>181</sup> [beltzak gureak dira]

A. Ibiñagabeitiak aipatzen duen R. Olabideren *Pisia* obra, erabat ezezaguna da, inoiz ez zen argitaratu, eta ez dakigu gaur egun nonbaiten gordetzen ote den<sup>182</sup>.

Hurrengo urteetan J. Zaitetik bide bertsutik jarraitu zuen, eta bai berak, eta bai *Euzko-Gogoan* idazle gisa aritu zirenak, literatura klasiko eta unibertsaleko lanak itzuli zituzten. Itzulpen luzeak, askotan lehenik *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratu ziren, eta

<sup>180</sup> (Ibiñagabeitia, 1950: 10)

<sup>181</sup> (Ibiñagabeitia, 1950: 12)

<sup>182</sup> R. Olabideren *Pisia* lanaz daukagun beste berri bakarra Ibiñagabeitiarena da. 50eko hamarkadan A. Ibiñagabeitiak Parisko euskal ikasleei R. Olabide euskaltzainari buruz emandako hitzaldiaren testuan agertzen da: “Recuerdo que cuando la creación de las escuelas de barriada (Auzo-ikastolak) por la diputación de Bizcaya, y que presuponía la fundación de una escuela normal para maestros exclusivamente euskérica, y para la que se habían adquirido terrenos en Amorebieta, el entonces director de Enseñanza de Bizcaya D. Luis de Eleizalde, le encargó la redacción euskérica de un texto de física para maestros. En poco tiempo Olabide cumplió con su cometido tan admirablemente que Eleizalde lloró lágrimas de alegría al leer un texto tan perfecto, el primero escrito en nuestra lengua patria sobre materia tan árida y difícil.” Hitzaldiaren testuaren data zehaztu gabe dagoen arren Andima Parisen zegoeneko da (1950-1954). Dokumentua (“Andima Ibinagabeitiaren hitzaldia. “Olabide”), ABAn. Dena den ez ote zen Ibiñagabeitia egilez nahastu eta Gabirel Jauregiren *Pisia* R. Olabideri esleitu?

gero aparteko lan edo separata gisa (adb. Bedita Larrakoetxearen Shakespeare-ren *Lear Erregearen* itzulpena).

#### 4.3.1. Sofoklesen itzultzaile bi: Zaitegi vs. Errandonea

J. Zaitegi eta I. Errandonea, biak izan ziren jesuitak, baina biek oso ibilbide desberdinak egin zituzten. Jokin Zaitegi<sup>183</sup>, 1906an Arrasaten jaio zen. Durangoko jesuitekin egin zituen bere lehen ikasketak eta 1921. urtean Loiolara joan zen. Loiolan urte gutxi egon arren (1921-1923) bere bizitzan transzendentzia erabatekoa izan zuten zenbait gauza gertatu zitzaizkion: A. Ibiñagabeitia ezagutzea, *Ami vasco* irakurtzea eta horren eraginez euskaltzaleak eta abertzaleak, eta 1922. urtean Euskal Elerti Bazkuna edo Euskal Akademia sortzea Loiolan bertan. Bazkunaren buru J. Zaitegi zen eta bertan honakoek parte hartzen zuten: A. Ibiñagabeitia, E. Urkiaga *Lauaxeta*, I. Goenaga, F. Sarobe, R. Argarate, P. Mujika eta abar. Aipatutakoek, J. M. Velez de Mendizabalen hitzak erabiliz *Loiolako zina* egin zuten, hau da, “euskararen bidez euskal kulturaren alde arituko zirelako agindu zioten elkarri”<sup>184</sup>. Bazkunaren helburuak bi ziren: kideak trebatzea predikuak eta sermoiak euskaraz egiteko, eta literatura euskaratzea, bereziki greziarra eta latindarra, bai euskara gertatzeko bai unibertsitate mailako materiala prestatzeko.

J. Zaitegi Loiolatik Burgoseko Oñara joan zen, eta bertan Filosofia ikasi ondoren, doktore egin zen. Horregatik J. Zaitegik *Euzko-Gogoaren* zuzendaria izan zenean, eta bestelako lan batzuetan ere, bere izen deituraren ondoan Ph. D. eransten zuen.

Jesusen Lagundiak 1929. urtean Loiolako euskal akademiako kideak Ameriketako herrialdeetara (Kolonbia, El Salvador, Guatemala, Venezuela...) bidali zituen, elkarrekin zituzten harremanak eta proiektuak eteteko. Lagundiko agintariak ez zuten onartzen J. Zaitegi eta besteen abertzaletasuna, eta beraz, ordenak ezarritako zigorra izan zen.

---

<sup>183</sup> J. Zaitegiren bizitzaren gainean P. Suduperen (2000a) eta P. Iztuetaren (2001) lanak kontsulta daitezke.

<sup>184</sup> (Velez de Mendizabal, 2000a: 116)

Hala ere, 1932. urtean Belgikako Marneffe-n Teologia ikasteko berriro elkarrekin topo egin zuten, eta berriz abiatu zuten akademia, J. Zaitegi buru zela. Dela Loiolan, dela Marneffe-n, bazkunaren lehen emaitzak gerraurrean bertan ezagutzera eman zituzten. Adibidez Iñaki Goenagak *Wilhelm Tell* lana euskaratu eta *Yakintzan* aldizkarian argitaratu zuen, eta J. Zaitegik *Antigone* kaleratu zuen<sup>185</sup>.

Lagundiak beraien proiektuak, akademia, aipatutako argitalpenak eta ideiak, abertzaletasun zein euskaltzaletasunaren ingurukoak, txarto ikusi eta batzuetan zigortu zituenez, akademiako kideetako batzuk ordenarekin hautsi zuten. A. Ibiñagabeitiak 1935. urtean utzi zion jesuita izateari eta Bilbora joan zen lan egitera. J. Zaitegi 1944. urtean apaiz sekular bihurtu zen. Marneffe-tik Lagundia utzi arteko tartean, Belgikako Morialme (1936), Pananan (1937) eta azkenik El Salvadorren (1938-1944) egon zen, hein handiz ordenak “erbesteratuta”. El Salvadorren zegoela irakasle lanetan, *Ebangeline* eta *Bidalien Egiñak* liburuak prestatu zituen.

Ignacio Errandonea Beran jaio zen 1886. urtean. 1903. Lagundian sartu zen eta eliz ikasketak egin zituen Oñan. Bogotan (Kolonbia) irakasle gisa aritu zen, eta 1920. urtetik aurrera Oxforden ikasi zuen, literaturako gradua lortuz. 1923. urtean *Coro de las tragedias de Sófocles* (1923) doktorego-tesia egin zuen. 1923-1930. urteen artean Loiolan irakasle izan zen<sup>186</sup>, eta 1930. urtetik aurrera Erromako Georgiar Unibertsitatean greziera biblikoa irakatsi zuen. Gerra Zibilaren garaian Donostia Irratian Francoren eta Nazionalkatolizismoaren aldeko homiliak bota zituen. 1947. urtean Oñako goi mailako eliz ikasketeko errektorea izan zen, eta 1949-1955. urteen artean Loiolako Humanitate ikastetxekoa. 1955. urtean Donostian Gipuzkoako Ikasketa Unibertsitario eta Teknikoko Ikasketen (*Estudios Universitarios y Técnicos de Guipuzcoa*) fundatzailea izan zen. Halaber Donostiako Enpresa ikasketen Goi Eskola Teknikoko (*Escuela Superior Técnica Empresarial de San Sebastián*) lehenengo zuzendaria ere. Beraz, Errandonea geroko EUTGren muinean kokatuta egon zen.

<sup>185</sup> Seguru aski argitaratu gabe beste lan batzuk ere prestatu zituzten, P. Sodupe jasota dakarrenez: “Dirudienez, Marneffe-n eta bestetan egindako euskal idatzien gordetze-lana Andima Ibiñagabeitiaren ardurapekoa zen, baina 1936ko gerraondan, hau Deustuan bizi izan zen etxean izandako sutea zela bide, direlako idatziak, tamalez, suak erraustu zituen” (Sodupe, 2000b: 52)

<sup>186</sup> Sasoi honetan Errandonea Zaitetegiren irakaslea izan zen eta ikasketa klasikoak erakutsi zizkion (Velez de Mendizabal, 2000a: 116)



J. Zaitegi eta I. Errandonea, biak euskaldunak, biak eliz ikasketak egin zituztenak, Jesusen Lagundian sartu eta biak helenistak izan ziren. Biek Sofoklesen tragedien itzulpenak prestatu zituzten: I. Errandoneak 1942. urtean *Sofócles y su teatro* argitaratu zuen, eta J. Zaitegik 1946. urtean *Sopokel'en antzerkiak*. 50eko hamarkadan biak ala biak Sofoklesen antzerki obra gehiago itzuli eta argitaratu zituzten. Biak irakasle gisa aritu ziren leku desberdinetan, are unibertsitateko irakasle izan ziren, eta beraz, pedagogia zein irakaskuntzaren gaineko kezka izan zuten. Biek unibertsitate proiektuen alde egin zuten, baina proiektu desberdinen alde. I. Errandonea Deustuko Unibertsitatearen gaur eguneko Donostiako kanpusaren abiapuntuan egon zen, eta J. Zaitegik oraindik Euskal Herrian inoiz existitu ez den Euskal Unibertsitatearen alde ekin zuen. J. Zaitegi abertzalea zen eta I. Errandoneak diktadura frankistarekin bat egin zuen. Horren ondorioz Lagundiak J. Zaitegi “erbesteratu” egin zuen, eta azkenean ordenatik atera zen. I. Errandoneak aldiz, ez zuen erbesterik bizi izan, eta Lagundiko unibertsitate proiektuetan zuzenean parte hartzeko aukera izan zuen. Arrakasta profesional osoa beraz.

Ikusten denez, J. Zaitegiren eta I. Errandonearen ibilbideak berdintsuak izanik ere, ez zen aski pertsona prestatu eta gogotsuak egotea proiektu batek aurrera egin zezan. Erdarazko unibertsitatearen aldeko ekinak sistema osoak babesten eta laguntzen zituen. Aldiz euskarazko unibertsitatearen egitasmoak eliz hierarkiaren bazterketa, eta diktadura militarren jazarpena pairatu zituen.

## **5. Hizkuntzaren prestaketa eta erabilera: nahi eta ezinaren artean**

Gerraurreari buruzko kapituluan aipatu dugunez, kulturgintza jasoan euskararen erabilerak hiru planteamendu desberdin zituen: batetik, *euskara tresna*, hau da, planteamendu pragmatikoa edo hiztunari begirakoa, bestetik, *euskara helburu*, hots, hizkuntzaren prestaketa eta normalizazioan zentratutakoa, eta azkenik *euskara objektu*, hau da, hizkuntzaren ikerketarena.

Frankismoarekin, euskal hiztuna “desagertu” egin zen, diktadurak gaztelaniaren elebakartasuna ezarri zuelako estatu osoan. Ofizialki euskal hiztunik ez zen existitzen, are jazarria zegoen. Beraz, hari begirako proiekturik nekez egin zitekeen euskal kulturgintzan. Salbuespen bakarra aipa daiteke, argitalpen erlijiosoak. Hau da, Arantzazuko eta bestelako ordenek euskarazko argitalpen eliztarrak kaleratu zituzten maila apaleko euskaldun fededunentzat (adb. Arantzazukoek egutegi bat kaleratu zuten euskaraz 1947an). Noski gerraoste hasierako urteetan, latzenak eta gordinenak, euskaraz ezer lantzekotan susmorik gutxieneko gaiak landu zitezkeen, alegia gai erlijiosoak. Oro har, mota honetako euskarazko argitalpenak oso apalak izan ziren, eta horregatik berriro diogu, euskarazko kulturgintzan proiektu jaso edo erdi-jasorik ez zen sortu planteamendu honetatik.

Halaber euskal hizkuntza eta kulturaren ikerketa, erdaraz egitea onartu zen, bai Hegoaldean, diktadurapean, bai Iparraldean ere. Hegoaldean, frankisten pean egonik, gaztelaniaren erabilera estatuak ezartzen zuen eta ez zegoen beste aukerarik. Adibidez, hori gertatu zuen RSBAPen buletinarekin. Joseba Intxaustik aztertu duenez, garaituetako euskaltzale batzuk onartu egin zuten buletinaren balio kultural posiblea, hutsarte bat betetzen zuelako (nahiz gaztelaniaz kaleratu). Iparraldean berriz, frankismoaren eremutik kanpo, bertan antolatutako kongresu eta kultur proiektuak, hala nola, Eusko Ikaskuntzaren gerraosteko bi kongresuak eta Jose Migel Barandiaran abadeak sortutako institutu eta aldizkariak, nagusiki elebakarrak izan ziren, gaztelaniaz. Azken finean, euskal hizkuntza eta kulturaren ikerketaren erdal praxia gerraurrean errotuta zegoen, Franco heldu aurretik.

Hegoaldeko abagune politiko eta kulturalean Euskaltzaindia eta Urkixo Mintegia nagusiki hizkuntzaren ikerketarako erakunde gisa aritu ziren, susmo politiko gutxien eragin zezakeen lan esparrua zelako. Hala ere, euskararen sustapenerako halako ekimen batzuk abian jarri zituzten, asmo zientifiko hutsa gainditzen zutenak. Hala aipa daitezke Donostian euskaraz emandako hitzaldiak euskal hizkuntza eta literaturaren inguruan. Nahiko hitzaldi eruditak suertatu ziren, eta seguru aski publiko askorik ez zuten erakarri, euskaltzain eta mintegiko kideetatik aparte.

Hirugarren eta azken planteamenduan, euskara bera da kultur proiektuen gakoa, beronen prestaketa edota gizarte normalizazioa. Prestaketaren esparruan ezer gutxi aurreratatu zen. Hiztegi berririk ez zen egin eta hizkuntzaren batasunaren inguruan ere ez zen aurrerapauso esanguratsurik eman. Batasuna gerraurrean amaitu gabeko prozesua izan zen, gerraostean segida izan zuena. Horren lekuko sasoiko euskal aldizkariak ditugu (*Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Gernika*...). Gerraurrean batasunerako hainbat proposamen zeuden (R. M. Azkueren gipuzkera osotua, sabindar puristen proposamena eta abar) baina bat bera ere ez zen guztiz gailendu. Gerraostean euskararen batasunaren gaineko eztabaidak elementu eta interlokutore berriak izan zituen, adibidez F. Krutwig eta kultur lexikorako nazioarteko maileguak hartzeko proposamena. Gero eta nabariagoa zen euskararen batasunerako joera berri bat abian zela, euskara “mordoiloarena”, hurrengo kapituluan aztertuko duguna (50eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera zabaldu zelako).

Euskarazko kulturgintza zulo beltzanean zegoela, pertsona gutxi batzuk, egoera horretatik irteteko zenbait proiektu martxan jarri zituzten. Interesgarrienak honako hauek izan ziren: J. Zaitegiren *Euzko-Gogoa* aldizkaria, Urkixo Mintegiaren *Egan* aldizkaria eta P. Unzurrunzagaren Itxaropena argitaldaria. *Euzko-Gogoa* eta Itxaropena ez-girorik handienean, gerraurrea eta gerraosteko euskal kulturgintza lotzeko zubiak izan ziren, bai egileetan bai gaietan ere. *Egan* aldizkaria berriz, gerraosteko kultur aldizkari berri bat izan zen, proiektu hiritarra bai gaietan bai hizkuntza moldean ere. Osorik euskaraz argitaratzen bazen ere, ez zuen *Euzko-Gogoaren* ideariorik. Horregatik, *Euzko-Gogoa* aldizkaria izan zen euskara helburu zuten proiektuen artean garrantzitsuenak: euskara kultur hizkuntza bilakatzeko saio bat egin zuelako eta Euskal Unibertsitatearekin lotutako proiektua zelako, hau da, euskarazko unibertsitate baten oinarriak jarri nahi zituelako. Nolanahi ere, J. Zaitegiren saio honek agerian utzi zituen gerraurreko euskararen inguruko irizpideek zituzten mugak kultura eta jakintza-arloko gaiak lantzeko orduan. Hala ere, proiektuak aurrera egin ez bazuen, ez zen izan hizkuntza moldeagatik, bestelako faktore batzuk, politikoak eta ekonomikoak eraginda baizik.

### **III. Hizkuntza estandarren bidean (1954-1968)**

## 1. Sarrera eta abagune historikoa

Gerraoste luze eta latzaren ostean, euskal kulturgintza pixkanaka berpizten hasi zen. Berpizte hori 50eko hamarkadan gertatzen da. Gerraosteko lehen kultur dinamikak, gerraurrekoetan oso errotuta daudenak, hein handiz 1953-1956. urteetatik aurrera eteten hasten dira, eta paradigma berrietan oinarritutako kultur proiektu berriak sortzen dira, gazte euskaltzaleen eskutik. Horren guztiaren adibide dira, 50eko hamarkadan xede berdinarekin (euskara eta kultura uztartzea) sortutako bi proiektu, *Euzko-Gogoa* eta *Jakin*, hain desberdinak izatea. Izan ere, *Jakinen* euskararen inguruko paradigma aldaketa zertan zetzan ezin hobeto ikusten da.

Gure kasuan, aurreko garaiaren amaiera gisa 1953. urtea aukeratu dugu eta 1954. urtea, oraingo honen hasiera moduan, 1953. urtean esparru politiko eta kulturallean zenbait aldaketa gertatu zirelako. Hasteko eta behin 1953. urtea frankismoaren erabateko finkapen urtea izan zen. Gerra Zibila amaitzean ezarri zen erregimen politikoa, Francoren diktadura, zenbait urtez nazioarteko mailan isolatuta egon ostean, 1953an estatubatuarrek onartu egin zuten. Urte horretan Eisenhower-ek Franco besarkatu zuen Madrilen, eta EAJk AEBren babesa galdu zuen. Urte berean Francok Erromako Elizarekin konkordatua sinatu zuen, eta erregimenak Elizaren erabateko babesa eskuratu. Era berean, Elizak Espainian hainbat prerrogatiba lortu zituen. Bereziki garrantzitsua izan zen hezkuntza arloan lortu zuen autonomia, ikastetxe erlijiosoaren kurrikulua markatzeko. Diktaduraren onarpen ofiziala zela-eta, erbesteko J. A. Agirre lehendakariak kongresu egiteko bat asmoa agertu zuen 1954an. Kongresua azkenean Parisen egin zen 1956an, Orsay jauregian. J. A. Agirrek bertan ordura arteko ibilbide politikoaren gaineko estrategiari buruzko hausnarketa, are kritika egiteko hitzordu gisa irudikatu zuen, baina azkenean halakorik ez zen izan eta ordura arteko erbesteko euskal gobernuaren estrategia ontzat eman zen. Handik urte gutxira J. A. Agirre hil (1960) eta bere lehendakariordea, J. M. Leizaola, lehendakari izendatu zen.

Bestalde, Euskal Herrian 1953an Bilbon Ingeniaritza ikasitako gazte abertzale batzuk Ekin sortu zuten, 1959an sortuko zen ETArek abiapuntua izango zena. Ekinen sortzaileetako bat, *Txillardegia*, borroka politikoaz gain, hizkuntzaren aldeko borrokan

buru belarri murgilduta egon zen. Halaber, Hegoaldetik ihes egin behar izan zuenean 60ko hamarkadaren hasieran, Iparraldeko abertzale euskaltzaleekin harremanetan egon zen eta, Enbataren ingurukoekin zein jeltzaleekin Euskal Idazkaritzaren sorreran eta antolaketan parte hartu zuen. Idazkaritzak Baionan, 1964an, euskararen batasunaren inguruan gerraostean antolatutako lehen biltzarra egin zuen, erabateko arrakastarekin, bai parte hartzaileen aldetik, bai hizkuntzaren gainean adostutako oinarriengatik.

Garai honetan Baionan eta bere inguruetan gerra garaian heldutako jeltzaleekide militanteak eta erbesteko euskal gobernua zeuden. Iparraldeko abertzaleak 1962. urtera arte ez ziren antolatu. Orduan sortu zen Enbata mugimendu politikoa, eta izena hartu zuen 1960. urtetik argitaratzen zen *Enbata* aldizkaritik.

Gerra hotzaren garaia da, munduko estatuen arteko harremanak lerratuta daude blokeetan, hau da, blokeen buruak AEB eta SESB dira. Batak eta besteak zuzenean ez zuten elkarren aurkako gerrarik izan, baina zeharka beste herrialde batzuetan borrokatu ziren (adb. Vietnam-eko gerra).

Epe honen amaierako urte gisa 1968. urtea hartu dugu. Urte horretan eta eskala desberdinetan bada ere, bi gertaera garrantzitsu izan zirelako: lehena, Pariseko 68ko maiatza, mendebalde mailan eragin izan zuena eta bigarrena, Arantzazuko biltzarra, euskal kulturaren arloan garrantzi handikoa. Pariseko 68ko maiatza, ikasle unibertsitarioek protagonizatutako protesta izan zen, ongizate estatu aurreratu bateko egonezina adierazten zuen eta eragina izan zuen maila politikoan (ezkerreko diskurtsoa berrituz, gazteen protagonismo politikoa aitortuz...) eta kulturaren, eta Europako gizarte mugimenduetan<sup>1</sup>. Bestalde Euskaltzaindiak Arantzazun euskararen batasunari begira oinarritzko arau ortografiko-gramatikalak hartu zituen, eta bertan sortu zen Euskara Batua. Honek eragin sakona izango zuen maila jasoko euskal kulturaren bilakaeran.

---

<sup>1</sup> 1968ko maiatza aipatzen dugu ikasle unibertsitarioen protesta izan zelako, ez hainbeste Euskal Herrian izandako eraginengatik. Izan ere garaiko protagonista baten lekukotzaren arabera, ez dirudi 68ko maiatzak eragin berezirik izan zuenik: “1968ko denboretan hain hartuta ginen bor-bor zegoen sozietatean, hain lotuta frankismoaren erorketa seguruak irekizen zituen itxaropen subertsiboari, non beldur naizen ez ginela batere konturatu gertatzen ari zenaz. Pariseko gertakariak eragin txikia izan zuten Hegoaldean; leninismoaren erorketaz, eredu iraultzaileen krisiaz, militantismoaren zaharkitzeaz, berantarekin ohartu ginen.” (Lopez Adan, 1997: 62)

## **Historiografia sendorik gabeko epea**

Azken urteotan epe honetako euskal kulturari buruzko historia lanak argitaratu diren arren, oraindik ez dago tradizio historiografiko sendorik, eta ondorioz aztertutako epe honen mugarri kronologikoak oraindik finkatu gabe daude. P. Sudupek esate baterako gerraosteko euskal kulturgintza aztertzeko erabiltzen duen urte tarte 1939/1945-1960. urteen artekoa da. Hau da, Iparraldeak zein Hegoaldeak bizi izandako bi gerren amaierarekin hasi, eta Jose Antonio Agirre lehendakaria hiltzean amaituko zena. Garai horri P. Sudupek *gerraondo mina* deitzen dio<sup>2</sup>. Beste ikertzaile batzuk hamarkada bakoitza ikerketarako unitate gisa hartzen dute. J. Diaz Nocik adibidez, 50eko hamarkadako aldizkariak aztertu ditu<sup>3</sup>, eta J. L. Lizundiak, bere Euskaltzaindiko Sarrera-hitzaldirako 60ko hamarkadako euskal kulturgintza aukeratu zuen<sup>4</sup>. Berriki, *Jakin* aldizkariaren 50. urteurrenaren ospakizunaren inguruan, enkarguz aldizkariaren sorrerako hamarkada ikergaitzat hartu dute zenbait historialari eta adituk Euskal Herrian 50eko hamarkadari buruzko zenbaki monografikoan<sup>5</sup>. Monografikoa baino lehen, Joseba Intxaustik 50eko hamarkadako euskal kulturgintzari buruzko artikulua argitaratu zuen *Jakin* aldizkaria ardatz harturik<sup>6</sup>.

Beraz, gure epeketak ez dauka zer ikusirik azkenaldian garai honen inguruan argitaratu diren zenbait lan historiografikorekin, baina agian zertxobait Kepa Larreak proposatutakoarekin. K. Larreak helduen euskalduntze-alfabetatzeari egokitutako beste periodizazio bat proposatu zuen: lehena (1956-1971) *motibazio* unea edo euskalduntasunaren aldarrikapenaren garaia, bigarrena (1971-1981) *ezagutza* unea, hau da, ahalegin guztiak euskararen irakaskuntzara bideratu zirenekoa, eta hirugarrena eta azkena (1981-1986), *inplementazio* unea edo erabilera sasoia<sup>7</sup>. Hala ere, K. Larreak euskal kulturgintzaren fenomeno konkretu bati egokitutako epeketa planteatzen du eta

<sup>2</sup> (Sudupe, 2000b: 40)

<sup>3</sup> (Diaz Noci, 2001)

<sup>4</sup> J. L. Lizundiak 1961-1970. urte tarteaz aztertu zuen (Lizundia, 2004b), Euskaltzaindiaren historiari lotutako datak zirelako: 1961ko Donostiako Biltzarra eta L. Villasantek euskaltzainburu kargua hartzea (1970).

<sup>5</sup> *Jakin* aldizkariaren 159. zenbakia (2007) 50eko hamarkadari buruzko monografikoa da. Bertan honako gaien gaineko artikulua argitaratu ziren: abertzaletasuna (Aizpuru, 2007), erregimen politikoa (E. Lopez Adan), Gerra Hotza (M. Aramendi), eliz mugimenduak (X. Itzaina), Ekonomia (B. Bakaikoa), migrazioak (X. Aierdi) eta langileria (E. Majuelo).

<sup>6</sup> (Intxausti, 2007b)

<sup>7</sup> (Larrea, 2005: 12)

ez da guztiz egokitzen gurera. Gure proposamenera hurbiltzen den beste ikertzaile bat *Txillardegi* da. *Txillardegik* duela bi hamarkada baino gehiago: *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* lana argitaratu zuen<sup>8</sup>. Obraren karga ideologikoa alde batera utzita (ez baita erabateko ikerketa lan bat), interesgarria da 1956-1981. urteen arteko euskal kulturgintza aztertzeko planteatutako hiru epeak: lehena, 1956-1968. urteen artekoa, non eta plazaratu berri zen belaunaldi euskaltzaleak euskararen inguruan asmo eta planteamendu berriak zituen; bigarrena, 1968-1975. urteen artekoa, hau da, euskal kulturaren loraldiarena, eta hirugarren eta azken epea, 1975-1981. urteen artekoa, non arlo instituzionalean egondako aldaketen ondorioz, kultur giroa erabat aldatu eta laxatzen den, euskara eta euskal kulturaren kaltetan. Azken bi epeak nahiko zalantzarriak iruditzen zaizkigun arren, lehena, hau da, 1956-1968. urtekoa, *Txillardegik* nahiko ondo biribiltzen duela iruditzen zaigu. *Txillardegirentzat* epe honen hasiera 1956ko bi bilera giltzarrik, Parisekoak eta Arantzazukoak, irekiko zuket<sup>9</sup>.

### ***Euskararen egoera***

Euskarak 50eko hamarkadan, K. Mitxelenaren kalkuluen arabera, miloi erdi euskal hiztun inguru zituen. Euskararen ahozko transmisioa hainbat tokitan etenda zegoen, eta batek baino gehiagok hizkuntzaren heriotza iragartzen zuen. Baina ez halabeharrez euskararen erabileraren aurka zeudenak, euskaltzaleek ere, etsipenez, euskara hiltzear zela pentsatzen zuten.

Euskaldun gehien gehienak beren jatorrizko hizkuntzan alfabetatu gabe zeuden, Elizak jada ez zituen alfabetatzen, hizkuntza estandarrik ez zen eta erregimen politiko berriak euskara jazarri egiten zuen maila guztietan<sup>10</sup>. Salbuespenak salbuespen, Eliz erakundeak euskararekin ez zuen abegikortasun berezirik izan. Esate baterako Kontzilioak herri-hizkuntzak liturgiarako (1963ko abendua) onartu zituenean, ordutik

---

<sup>8</sup> (Txillardegi, 1984)

<sup>9</sup> *Txillardegi* ez da bakarra 1956. urtea garai berri baten abiapuntu gisa hartzen. *Jakin* aldizkariak bere 25. urteurrenaren kariatz, zenbaki berezian argitaratutako egile gabeko lan batean, XX. mendearen bigarren erdialdeko euskal kulturgintzako epe nagusien proposamen bat argitaratu zuen. Bertan 1956. urtea, euskal kulturgintzan garai berri bat hasi zela defendatzen zen. Noski, kasu honetan, 1956. urtea, *Jakin* beraren sorrera urtearekin koinziditzen du, baita osteko periodidazio proposamen osoak, euskal kulturgintzan *Jakinen* protagonismoa goratuz. (ikus “Jakín urtez urte: historia” *Jakin*, 21 (1982), 75-122).

<sup>10</sup> Erregimen frankistak euskarari ezarritako debeku, zigor eta abarrak, besteak beste, J. M. Torrealdai jasotzen ditu (Torrealdai, 1998, 2000 eta 2003)



aurrera teorian posible zen meza euskaraz ematea, hala ere Hegoaldean erabaki hori ez zen berehala aplikatu. Eliz hierarkia euskararekin txeratsua izan ez bazen ere, eliztar batzuk euskaltzale sutsuak izan ziren, eta euskararen aldeko ekimenak piztu ziren bai Elizaren barnean zein kanpoan ere. Adibidez, euskarazko lehen meza Vatikanoko erabakiaren ostean, Jose Antonio Retolazak antolatu zuen 1965. urte inguruan: Bilboko San Antongo elizan izan zen, eta euskarazko meza Klaudio Gallastegirekin batera eman zuen<sup>11</sup>. Sasoiko Bilboko euskaltzaleak, elizkoiak izan ala ez, euskarazko mezetara joaten ziren. Baina horrelako euskarazko mezak araua baino, salbuespena ziren, eta oro har euskal hiztunak ez zuen inongo errekonozimendurik ez elizan ez administrazioan ere, gutxietsita zegoen. *Txillardegik* 1956ko Arantzazuko Biltzarrerara bidalitako lanean euskaldunen konplexuaz eta haren ondorioetaz hauxe zioen:

“Euskerak ezertarako balio ez duela ainbestetan entzunik, konplejua jarri zaigu. Edozein gauzatarako gai dela adierazi nai dugu, eta asieran beiak eta baserriak ba-ziran euskeraren gainbakarra, **Mekanika Ondulatorioa ta Filosofia´ren aldera jo dugu gaur.** **Gure orekaren falta agertzen du onek,** eta ziturik ez dakarten alegiñetan galtzen ari gera gaur denbora.”<sup>12</sup> [beltzak gureak dira]

Hain zuzen ere, garai honetan argitaratu ziren Fisika eta Natur Zientzien arloko zenbait artikulu literatura eta kultura orokorreko euskal aldizkarietan, *Egan* eta *Jakinen* esate baterako. Euskararen batasunik ez zen baina bai hizkuntzaren inguruko muturreko agerpenak: jazarpena zein gutxiespena alde batean, eta bestean euskararen gaineko ikuspegi hiper ideologizatuak, bai erlijioarengatik<sup>13</sup> bai politikarengatik (sabindar euskara adibidez). Euskararen gaineko diskurtsook orekatuz joan ziren euskararen batasunaren inguruko prozesuak aurrera egin ahala.

<sup>11</sup> Dirudienez, aurretik, A. Astigarragak jasotzen duenez, Arrazolan 1959. urtean munduko euskarazko lehen meza eman zen, Jose Antonio Retolaza eta beste abade batzuk antolaturik (Astigarraga, 2003: 6 eta 8-9)

<sup>12</sup> (Txillardegi, 1956b: 247-248 edo Txillardegi, 2004: 22)

<sup>13</sup> Adibidez, N. Tauer txekiar hizkuntzalariaren honako oharra argitaratu zen *Zeruko Argian*: “Euskera.../ Euskaldunak izkillu aundi bat daukate, beren fedea zaitzeko: EUSKERA./ Guziok badakigu euskaldunak dirala Europa´ko katoliko onenak. Euskera galtzorian arkitzen dan errietan, euskeraren baltean, fedea eta fedetik darioten bizi-bide zuzena eta oitura onak ere galtzen dijoaz./ Orregatik Euskalerriko katoliko zintzoen eginbearrik nagusiena euskera bizkortzeko lan egin eta erri-izkuntza beti eta toki guzietan, batez ere beren sendietan (pamilietan) itzez eta idatzi erabiltzen da./ Gora euskera.” (Iturria: Gure Mendea (Argia), <http://www.argia.com/mendea/hemero/55heme.htm> [kontsulta data: 2009-05-31])

## Batasunaren bidean

F. Krutwig eta L. Villasantek 50eko hamarkadaren hasieran euskararen batasun prozesuaren gaineko kezka agertu zuten. Baina bigarren epe honetan jarri zen martxan euskararen batasun prozesua modu formalago batean, *Txillardegik* eta G. Arestik batik bat gidatuko zutena, eta 1968ko Arantzazuko biltzarrean eklosionatuko duena K. Mitxelenaren txostenarekin. Arantzazuko biltzarrean euskararen batasun prozesuan Akademiaren parte hartzea finkatu eta baieztatu zen. Horregatik, epe honi *Hizkuntza estandarren bidean* izenburua jarri diogu, prozesu honen garrantziarengatik eta oinarriak jarri zirelako.

Seguru aski gaur egun ezagutzen dugun Euskara Batua ez zen existituko, Arantzazu aurreko lanik gabe, eta 68ko Euskaltzaindiaren esku hartze gabe. Hizkuntzaren batasuna hamarkada gutxitan egin ahal izateko biderik zuzenena hori baita. Halaber, Euskaltzaindiak, frankismoa bete betean zela, ez zuen bere gain hartuko halako proiekturik, aurretik lan batzuk eginda egon izan ez balira: Baionako 64ko biltzarrean hartutako erabakiak eta gizartearen sektore batzuen eskaririk gabe (adb. ikastolak, idazleak...) edota zenbait pertsonaren presioa<sup>14</sup>.

Euskararen batasunaren inguruan garai honetan hiru proposamen nagusi zeuden: gerraurretik zetorren gipuzkera osatuaren ingurukoa, gerraurrean bereziki R. M. Azkuek defendatutakoa, eta 60ko hamarkadan Jose Basterretxea *Oskillasok* eta beste batzuk proposatzen jarraitzen zutena; 50eko hamarkadaren hasieran F. Krutwig-ek lapurtera klasikoaren inguruan ardazturiko proposamena, L. Villasante erakarriko zuena; eta azkenik, gaur egun ezagutzen dugun Euskara Batuaren ingurukoa, *Txillardegi* eta beste idazle gazte batzurekin abiatzen zena, baina laster hainbat idazle eta proiektu barneratu zituen. Proposamen honen indarguneak honako hauek izan ziren: Gipuzkoa aldeko *Jakin* aldizkaria, Bizkaia aldeko *Anaitasuna* aldizkaria eta Iparraldeko Euskal Idazkaritza. Euskal Idazkaritza Iparraldeko abertzale eta Hegoaldetik ihesi joandako zenbait euskaltzaleren bilgunea izan zen, eta erakundearen bizi laburrean, garrantzi handiko kultur ekimen bat sustatu zuen: hizkuntzaren batasuna, 1964ko Baionako

---

<sup>14</sup> Ezagunena dudarik gabe, *Txillardegiren* euskaltzain urgazleak Euskaltzaindian aurkeztutako dimisioa da 1962an.

Biltzarrean laburbildu eta mamituko zena. Noski, hauek guztiak modu batera edo bestera, euskararen batasunaren alde zeuden, baina baziren ere, hizkuntzaren batasunaren aurka zeudenak edota lehentasunezkoa jotzen ez zutenak, oro har euskalkien aldekoak zirenak.

Hizkuntzaren batasunaren inguruko eztabaida, proposamen eta iritzi desberdinak Koldo Zuazok aztertu zituen bere doktorego-tesian<sup>15</sup>, eta duela urte batzuk gai berdinen gainean halako errebisio bat aurkeztu du<sup>16</sup>. K. Zuazok batasun prozesuaren iritzi eta protagonista nagusiak ikertzen dituen bitartean, guk kapitulu honetan eztabaida horren plazak (edo azpiegitura kulturalak) aztertu ditugu, hau da, biltzarrak eta elkarte desberdinak, euskarazko erregistro jasoaren lehen finkatzea ekarri zutelako eta biltzar akademikoak euskaraz funtzionatu zuten aditu euskaldunen topaguneak izan zirelako. Beraz, euskararen inguruko eztabaidak, elkarteak, eta ekimenak, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen nukleoa osatu eta finkatu zuten. Horregatik hizkuntzaren batasun prozesua, gure ikergaia ez den arren, aztertu egingo dugu haren inguruan eta ez beste ikergune batzuetan hasi baitzen artikulatzen euskaraz komunikatzen zen aditu talde bat.

### ***Euskararen egoera hezkuntzan: ikastolak eta katedrak***

Gerraosteko lehen ikastola Donostiako pisu batean antolatu zuen E. Zipitriak 1945ean. Gerora 50eko hamarkadan ikastola gehiago (garai hartan etxe eskola zirenak) sortu ziren Donostian<sup>17</sup>, eta 60ko hamarkadan beste lurraldeetan ere ikastolak ireki ziren, lehenik Bizkaian, eta gero Araba, Nafarroa eta Iparraldean. Dena den lehen ikastola legala 1966. urtean inauguratu zen Bilbon<sup>18</sup>, Euskaltzaindiaren babesarekin eta A. Irigoienek kudeaketa lanari esker. Ikastetxeari lehen euskaltzainburuaren izena jarri zitzaion eta zuzendaria Julita Berrojalbiz izan zen<sup>19</sup>. Aurretik, Donostian, zenbait euskaltzalek Santo Tomas Lizeoa ireki zuten. Ordura arte ikastoletan euskaraz irakurtzen, idazten eta oinarrizko eragiketa matematikoak ikasten zituzten umeek, baina

<sup>15</sup> K. Zuazok tesia 1987an aurkeztu zuen eta hurrengo urtean argitaratu (Zuazo, 1988)

<sup>16</sup> (Zuazo, 2005)

<sup>17</sup> Donostiako ikastolen eta oro har ikastolen mugimenduaren historia Idoia Fernandez-ek aztertu du (Fernandez Fernandez, 1994)

<sup>18</sup> (Lizundia, 2004b: 624)

<sup>19</sup> Euskaltzaindiaren sasoiko Batzar-agirietan proiektuaren gauzatzearen gaineko detaileak bileraz bilera aipatzen dira.

ikasten jarraitzen zutenek erdaraz egiten zituzten goragoko mailak. Lizeoaren sustatzaileek euskaraz hezten hasitako umeei hurrengo mailetan ere euskaraz ikasten jarraitzeko aukera eman nahi zieten. Lorea Agirrek Joxemi Zumalaberen biografian aipatzen du, Joxemik lehen urteak (3tik 5era bitartekoak) Karmele Esnalekin eman eta gero, Elbira Zipitriarekin ikasketak jarraitu zituela, eta

“Elbira Zipitriaren ikastolan ibili eta gero, halabeharrez gaztelaniazko eskolara joan behar izan zuen Joxemik, Sagrado Corazon ikastetxe erlijiosora. Urtebete baino ez, hala ere. Aitak ezin eraman zuen heziketa haren gogortasuna eta gaztelania hutsez izatea. Hori konpondu aldera, hurrengo ikasturterako berak eta Karlos Santamariak Santo Tomas lizeoa sortu zuten, jendearen artean bonuak salduta lortutako diruarekin. 1960. urtea zen. Joxemik hamar urte betetzear zituen. Batxilergoko lehen maila dozena bat haurrek hasi zuten. Bigarrena, Santamariaren seme gazteena, Antton, sartzeko propio sortu zuten, laupabost ume ez bazeuden ere.”<sup>20</sup>

Donostiako Sagrado Corazón ikastetxe erlijiosoan euskara irakasten 1959 aldera hasi ziren<sup>21</sup>. Dirudienez Sagrado Corazón ikastetxeko emaitza ez zen nahikoa asegarria izan, eta Santo Tomas Lizeoa sortu zuten 1960an.

Unibertsitate mailan, euskarak ez zuen tokirik, Filologiako katedretatik harago. Aipatu behar ditugun katedrak lau dira: lehena, Bordeleko 3 unibertsitatekoa, bigarrena, Salamancako Unibertsitatekoa, hirugarrena, Nafarroako Unibertsitatekoa, eta laugarrena, Deustuko Unibertsitatekoa. Lehenengo biak aurreko garaian sortu ziren. Bordelekoan R. Lafon izan zen lehen katedraduna, eta 21 urteren ostean, J. Haritxelharrek ordeztu zuen (1969), J. B. Orpustanek 1990. urtean katedraren ardura hartu zuen arte. Salamancakoa aurreko garaian sortu zuen A. Tovarrek, 1953. urtean. Katedrak Larramendi izena zuen, eta Iparraldean bizi zen J. M. Barandiarani hegoaldera arazo politikorik gabe bueltatzeko modua eman zion. Gerora, 1955. urtean Salamancako unibertsitateko Larramendi Katedrara K. Mitxelena gonbidatu zuten eta 1958. urtean katedrako arduradun izendatu zuten. P. Altunak kontatzen duenez, katedrara euskaldun gutxi hurbildu zen, nahiz eta Salamancan ehunka euskaldun zegoen<sup>22</sup>.

---

<sup>20</sup> (Agirre, 2002: 21)

<sup>21</sup> Nemesio Etxanizek Eibarko 1959ko biltzarrean aipatzen duenaren arabera: “Billatu ia zer lege bide ditugun eskoletan euskera sartzeko. Zerbait egin da Donostian, “Sagrado Corazón” kolegio ortan. Bertako zuzendariak dabilta or. Gurasoai galdera bat zuzendu die paperetan, esanaz ia nai duten beren aurrei, beren semei euskeraz irakastea. Eta berrogeita amarretik gora izan dira guraso baietz erantzun dutenak. Eta ala asi dira, asi berri dira ortan.” (Euskaltzaindia, 1960: 3). Pentsatzekoa da ekimen horren atzean A. Zumalabe zegoela, agian K. Santamaria ere bai.

<sup>22</sup> “Astean bein izan oi da Salamanka’ko Ikastetxean euskal-irakastaldia. Axular ta Lizarraga ta Orixe... ta beste zenbait ere irakurri izan ditugu. Eskolara zenbat lagun biltzen geran ba’zeneki...! Ez esatea obe. Ta

Hirugarren katedra ere, Nafarroakoa, J. M. Barandiaranekin lotuta egon zen. 1963an Nafarroako Unibertsitatean Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra sortu zen, eta J. M. Barandiarani eskaini zioten. Nafarroako Unibertsitatearen abiapuntua 1952. urtean kokatzen da. Urte horretan Opus Deik sortu zuen Iruñean *Estudio General de Navarra*, bertako Zuzenbide Eskola Zaragozako Unibertsitatearen menpe egonik. Elizak erregimenarekin sinatutako konkordatuari esker, 1960an Eliz-unibertsitate izendapena jaso zuen. Berehala zabaldu zen eta irakaskuntza eskaintza zabala antolatu zuen: Medikuntza, Filosofia eta Letrak, Kazetaritza, Arkitektura, Zientziak, Farmazia eta beste fakultate batzuk irekiz. 1961. urtean Nafarroako Unibertsitateak bi zentro ireki zituen Donostian: bata, Ingeniaritza Industrialeko Goi Eskola Teknikoa, eta bestea, Zientzia Fakultatea (Fisika Atala)<sup>23</sup>.

Nafarroako Unibertsitateko Katedra, Nafarroako diputazioaren Vianako Printzearen erakundearen ekimena izan zen. Diputazioak bere gain hartu zituen katedrako gastuak eta Vianako Printzearen baitan zegoen Euskararen Aldeko Sailak eskolen jardura kontrolatu zuen. Hasieran katedra Koldo Mitxelenari eskaintzea pentsatu bazen ere, azkenean J. M. Barandiarani eskaini zioten<sup>24</sup>. J. M. Barandiaran 1964an hasi zen Etnografia eskolak (gaztelaniaz) ematen<sup>25</sup> eta hurrengo ikasturtean, unibertsitateak Ana M<sup>a</sup> Etxaide, Ignacio M<sup>a</sup> Etxaide euskaltzainburuaren alaba, irakasle laguntzaile gisa hartu zuen, katedraren baitan euskara irakasteko klaseak emateko<sup>26</sup>. A. M. Etxaideren arabera, katedra bera, eta baita haren baitan ematen ziren euskara ikasteko eskolak, ez zeuden unibertsitateko ikasketa planen baitan, ezinezkoa baitzen,

---

joaten ez diran oiek ere, euskaldunak noski. Bere gisako euskaldunak ordea. Muiña ta mamia alde batera utzi, ta euskal-itxura ta azala besterik ez duten euskaldunak. Irurehun ta geiagotik, nola diteke bakar batzuk soillik euskera ikastera joan?" (Altuna, 1957: 68)

<sup>23</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 44)

<sup>24</sup> (Lopez Goñi, 2002: 95)

<sup>25</sup> J. M. Barandiaran katedran aritu zen 1977. urtera arte. Urte horietan, katedraren ardatz biak jorratu zituen: aipatutako dozentzia eta ikerketa. Ikerkuntzari dagokionez, J. M. Barandiaranek Nafarroako Unibertsitatean ikerkuntza etnologikoa egin zuen. Euskal Etnologia ikastarora hurbildutako ikasleekin Etniker taldea sortu zuen.

<sup>26</sup> A. M. Etxaidek euskara klaseak eman zituen bi epetan: lehena, 1964-1970. urte artean eta bigarrena, 1975. urtetik jubilatuta arte. Lehenengo urteetan *Umandiren* metodoa erabili zuen. 1970-1975. urteen artean Santiago de Compostelako unibertsitatean aritu zen irakasle gisa, eta bere ordean Jose Basterretxea *Oskillaso* sartu zen (Etxaide, 2006)

eta beraz ez ziren ofizialak<sup>27</sup>. A. M. Etxaidez gain, Koldo Mitxelena bera, 1963-1964. urteetan euskal hizkuntzalaritzako irakasle izan zen.

Laugarren eta azken katedra Deustuan sortu zen. Euskaltzaindiaren akten arabera, 1966an Bizkaiko diputazioak sustatuta Euskal Hizkuntzalaritzako katedra bat sortu zen “Deustu-ko Unibersitateko letra Fakultatearen barruan”<sup>28</sup>. Katedra kudeatzeko patronatu bat eratu zen, patronatuan parte hartzeko Euskaltzaindiak izendapena jaso zuen.

Deustuko Unibertsitatea XIX. mende bukaeran jesuitek sortu zuten, baina 1963ra arte ez zuen unibertsitate izendapena lortu. Tartean itxita ere egon zen, Errepublikara garaietan hain zuzen (1932) eta 1940. urtean berriz ireki. Frankismoak eta Elizak sinatutako konkordatuari esker, Elizak unibertsitateak sortzeko aukera zuen, eta Deustuk 1963an izendapena lortu zuen. Donostiako jesuiten ikastetxeak ez ziren Bizkaiko Deusturekin lotu 1979. urtera arte, eta 1963-1979. urte tartean Donostiako ikastetxe unibertsitarioen multzoak EUTG (*Estudios Universitarios y Técnicos de Guipúzcoa*) izena zuen. Donostiako jesuiten lehen ikastetxea 1956an sortu zen: ESTE (*Escuela Superior de Técnica Empresarial*)<sup>29</sup>.

Euskal Herriko beste goi mailako hezkuntza zentroetan (irakasle eskolak, ingeniarietza eskolak eta merkataritza eskolak), Bilboko Unibertsitatean edota geroko UPV/EHUn integratuko zirenak, ez zuten euskara katedrarik, ezta euskarazko irakaskuntzarik ere. Hala ere, aipatu behar da Bilboko Unibertsitatearen lehen ikasturtean (1968/69an), unibertsitatea sortu berri zela eta Zientzia Fakultatearen eskolak Botica Viejan ematen zirenean, Euskerazaleak elkarrekin unibertsitateko ikasleentzat euskara ikasteko ikastaroak antolatu zituela.

---

<sup>27</sup> “No eran, por supuesto, cursos reglados, ya que en aquel momento había un plan de estudios para las Facultades de Filosofía y Letras de todas las Universidades sin flexibilidad alguna para la introducción de materias alternativas; en ese momento era impensable la inclusión de materias de cultura vasca en la Licenciatura de Filosofía y Letras” (Etxaide, 2006: 14)

<sup>28</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.12.30)

<sup>29</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 43-44)

Laburbiduz, aipatu ditugun unibertsitateko euskara katedrak aditu euskaldunen esku egon ziren (R. Lafon, K. Mitxelena eta abar), baina beraien inguruan ez zen propioki Komunitate Zientifiko Euskaldunik egituratu, katedretan euskara irakasten zelako edota euskararen gaineko ikerkuntza (erdaraz) egiten zelako.

## **Euskal kulturgintza**

Ezinbestean, euskal kulturgintzan masa fenomenoak izatera heldu ziren prozesu sozial bi aipatu behar ditugu: bata, helduen euskalduntze-alfabetatzea, eta bestea, gizartearen sekularizazioa. Biek ala biek euskal kulturaren aitzineratzean berebiziko garrantzia izan zuten.

Masa fenomenorik hedatuena eta iraunkorra erdaldunen euskalduntzea eta euskaldunen alfabetatzea izan da, 60ko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte luzatzen delako. Kepa Larreak helduen euskalduntze-alfabetatzearen bilakaera eta sorrera ikertu ditu<sup>30</sup>, hau da, faktore eragileak, prozesuen ezaugarriak, eta parte hartzaileak: erakundeak/taldeak zein protagonistak, irakasle/ikasleak. Ezbairik gabe fenomeno sozial garrantzitsua izan zen eta, gure ustez, Komunitate Zientifiko Euskaldunean zeharkako eragina eduki zuen.

Mendebalde osoan ezagututako erlijiosoen sekularizazioak, euskal kulturgintzaren kasuan, garrantzi berezia izan zuen. Abade eta fraide euskaltzaleak 50eko hamarkadatik aurrera, eliz ikastetxeetan formatu ziren, are euskaraz alfabetatu ziren. Elizako euskaltzale talde horren eskutik bazirudien halako kultur loraldi bat abiatzeko zegoela. Baina 60ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, Europa osoan aldaketa soziologiko, kultural eta politikoak gertatu ziren, eta apaizak sekularizatu ziren, apaiztegi eta komentuetxeak hustuz edo itxiz<sup>31</sup>. Eliz erakundeen hustuketa horren ondorioz, gazte/heldu euskaltzale eskolatu eta alfabetatuak gizarteko hainbat esparru klabetan, unibertsitateetan, komunikabideetan... barreiatu ziren<sup>32</sup>.

<sup>30</sup> Kepa Larreak doktorego-tesia prestatu zuen gai horren gainean (Larrea, 2005)

<sup>31</sup> Paulo Iztuetak bere doktorego-tesian gai hau (Iztueta, 1981: 127 eta 240-242) eta elizjendearekin lotutako beste batzuk aztertzen ditu.

<sup>32</sup> (Intxausti, 2007b: 66)

Abertzale eta euskaltzale asko mendi taldeetan biltzen ziren. Garai horretan Francoren erregimenean askatasun zibil guztiak debekatuta eta jazarriak zeuden, eta elkarteak sortzeko aukera legalak oso mugatua ziren. Horregatik, mendi taldeen garaia izan zen. Mendi taldeak mendira joateaz gainera, ikastaroak eta mendiarekin zer ikusirik ez zuten bestelako ekintzak antolatu zituzten. Hala ere, izan zen elkarte euskaltzalerik mendi taldea izan ez zena, adibidez Gerediaga Elkartea. Gerediaga elkarteak 1965. urtean Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen, eta 1968ko Ermuko bilera antolatu zuen, urte bereko Arantzazuko bileraren aurrekari garrantzitsuenetako bat.

Komunikabideen arloan, euskarazko aldizkariet gain, euskara irratian ere entzuten hasi zen. Gipuzkoarrek 60ko hamarkadatik aurrera euskarazko irratsaioak izan zituzten<sup>33</sup>.

Musika eta arte eszenikoei dagokionez, 60ko hamarkadan euskal musika eta antzerkigintzak bultzada izugarria bizi izan zuen. Antzerki talde ugari sortu ziren hiriburu zein herrietan euskarazko antzespenak taularatzen zituztenak. Antzerki taldeak euskaltzaletasunaren sustapenean izan zuten eragina eta garrantzia oso handia izan zen, baina ez daukagu kuantifikatzerik, gai hori oraindik ikertu gabe dagoelako. Izan ere 50-70eko hamarkadetako antzerkigintza prozesu historiko gisa aztertu barik dago<sup>34</sup>.

Hernanin 1966. urtean aurkeztu zen *Ez dok amairu* musika taldea<sup>35</sup>. Bertan bildu ziren Gipuzkoako kantariak, ordurako batzuk jada ezagun zirenak: Lourdes Iriondo, Joxean Artze, Joxemari Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Julen Lekuona, Joxe Angel eta Juan Migel Irigarai, Imanol Urbieta eta abar luzea. Taldearen sorreran izan ziren beren babesa modu batera edo bestera eman zieten artistak: Nemesio

---

<sup>33</sup> A. Irigarai honela mintzatu zen hartaz: “Gipuzkoako 3-4 Radio-emaileen euskal eleketak berriz, 25 mila baiño euskaldun geiagok entzuten dituztela nago, astean bizpairu aldiz. Bistan da bada Radiotarako *guion* direlako horietako bear ditugula euskaraz, nobelak baiño premia geiagorekin” (Irigarai, 1960: 120).

<sup>34</sup> Hau da, garaiko taldeak, egileak, ekintzak eta ezaugarriak oraindik aztertu gabe daude. Antzerkigintzari buruz dauden lanak bestelako ikuspegiak dituzte, adibidez literarioak, antrologikoak eta abar.

<sup>35</sup> Pako Aristik aztertu du Euskal kantagintza berria (Aristi, 2002). Ximun Haran pilotariak 50eko hamarkadan Zuberoa eta beste lurralde batzuetako euskal abestiak grabatu zituen, grabaketa horiekin 6 disko (LP) atera zituen eta *Club de Disque Basque (Musée Basque)* izeneko bildumaren barruan atera zen (1961). Grabaketa eta bilduma honek eragina izan zuen geroko *Ez dok amairu* taldean, inspirazioa izan zen beraientzat.



Etxaniz, Jorge Oteiza, Koldo Romero, Jose Luis Zumeta, Nestor Basterretxea, Fernando Larrukert eta abar. Taldeak arrakasta handiko jaialdiak antolatu zituen, Euskal Herriko hiri eta herri desberdinetan, baita baten batzuk Espainian ere. Taldea Hegoaldean sortu zen, Francoren diktadura garaian, eta 1972an desegin zen, barne arazoak eta arazo ekonomikoak tarteko.

## 2. Biltzarrak: euskararen batasuna ontzeko bilguneak

Lehenago aipatu denez, hizkuntzaren batasun prozesuaren bilguneetan, Komunitate Zientifiko Euskalduna eratuz joan zen, eta horixe aztertuko da atal honetan. Arreta berezia jarriko dugu Euskaltzaindiak antolatutako biltzarretan, baina hala ere ez ditugu ahaztuko bestelako hitzordu batzuk, hala nola, Jakinlarien bilerak, Baionako Biltzarra eta Ermuako Bilera.

Erbesteko Eusko Jaurlaritzak 1956ko irailean Parisen Euskal Batzar Orokorra (*Congreso Mundial Vasco*) antolatu zuen, Jose Antonio Agirre beraren ekimenez. Kongresuak izan behar zuen erbesteko gobernuaren ibilbidearen gaineko azterketa eta hausnarketarako. Azkenean, horrelakorik egin ez zenez, ezta autokritika ñimiñoena ere, batzarrak ez zuen erbesteko Eusko Jaurlaritzarentzat planteamendu politiko berririk ekarri.

Pariseko Batzarrak zenbait sail nagusi izan zituen, eta horietako bat kultura izan zen, eta horren baitan euskara kokatuta zegoen. Euskararen azpisailaren ardura Jokin Zaitegik hartu zuen, J. A. Agirre lehendakariak eskatuta. J. Zaitegi 1955. urtetik Biarritzen bizi zen eta bertatik zuzentzen zuen *Euzko-Gogoa* aldizkaria. P. Iztuetaren arabera, “54 txostenetatik, 29 hizkuntza eta literaturari buruzkoak”<sup>36</sup> izan ziren. Euskaltzale batzuk aukera izan zuten lehenik Euskaltzaindiak 1956ean Arantzazun antolatutako lehenengo Euskaltzaleen Biltzarrerara joateko (irailaren 14-16 bitartean) eta ondoren Parisera, euskarari buruzko eztabaidetan parte hartzera, Pariseko biltzarra irailaren azken astean burutu baitzen. “Dena den, Paris urrun zegoen, artean, Hegoaldean bizi ginen gazteontzat”<sup>37</sup>. J. Intxaustik azpimarratzen duenez, Paris eta

<sup>36</sup> Datua Paulo Iztuetaren lanetik atera dugu (1991: 976)

<sup>37</sup> (Intxausti, 2007: 63)

Arantzazuko bilguneak izaera desberdina izan zuten, Arantzazukoa “irekia eta baimendua zenez, normahik izan zuen hara joateko egokiera, eta gero, bertan esan eta gertatutakoen berri jakiterik ere egon zen, Pariseko hura erdi isilduta eta urrun geratu zitzaigun bitartean”<sup>38</sup>. Gogoan izan behar da Arantzazukoa urte bereko *Euskera* buletinean argitaratu zela, ordea Euskal Mundu Biltzarrean aurkeztutako txostenak ez ziren 1981. urtera arte argitaratu<sup>39</sup>.

## 2.1. Euskaltzaleen I. Biltzarra (Arantzazu, 1956)

Euskaltzaindiak 1956. urtetik aurrera biltzarrak antolatzeari ekin zion. Biltzarrok gaur egunera arte iraun dute<sup>40</sup>. Biltzarretako hizkuntza erabiliena euskara izan da hasieratik, eta gai nagusia euskal hizkuntza, modu zabalean hartuta (Hizkuntzalaritza gaiak, Literatura, Filologia zein Folkloreari buruzko hitzaldiak eta abar). Ikusiko dugunez, biltzarrok ez dira soilik izan erudito euskaldunen topaguneak, aitzitik berebiziko garrantzia izan dute euskararen batasun prozesuan.

Biltzarretan bi epe bereizten dira: lehena 1956-1968. urteen artekoa, eta bigarrena –hamar urteko eten baten ostean– 1978tik gaur egunera artekoa. Lehen epean 7 biltzar antolatu ziren, Hegoaldean guztiak, eta *Euskaltzaleen biltzarra* izena zuten<sup>41</sup>. 1978. urtetik aurrera antolatutako biltzarretan berriz, ez da berriro erabili *Euskaltzaleen biltzarra* izena. Beraz, 1968ko Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarra mugarriz izan zen bai hizkuntzaren aldetik, baina baita Euskaltzaindiaren biltzarretan inflexio puntu bat markatu zuelako ere.

---

<sup>38</sup> (Intxausti, 2007: 63)

<sup>39</sup> Txostenak eta osteko eztabaidak argitaratuta daude eta kontsulta daitezke Euskal Mundu Biltzarrari buruzko argitalpenean (ZZEE, 1981)

<sup>40</sup> Euskaltzaindiak guztira 15 biltzar antolatu ditu, lehena Arantzazun (1956) eta azkena Bilbon eta Baiona (2001).

<sup>41</sup> Harremana badute ere, Hego Euskal Herriko biltzarrak ez dira nahastu behar izen berdintsuko Iparraldeko Eskualzaleen Biltzarra erakundearekin. Biltzarrak erakundetik argiago bereizteko, Iparraldeko erakundeari *Eskualzaleen Biltzarra* deitzea erabaki dugu (nahiz eta *Euskaltzaleen/Euskaltzaleen* aldaerak guztiz onargarriak diren).

Euskaltzaindiaren itzalpean, eta frantziskotarren Arantzazuko egoitzan, 1956ko irailean 3 egunez bildu ziren euskaltzaleak<sup>42</sup>. L. Villasantek eman zion hasiera iraileko biltzarrari (eta ez Euskaltzainburuak). Euskaltzaindiaren eta Arantzazuko frantziskotarren izenean hitz egin zuen, eta ongi etorria eman zien parte hartzaile guztiei. Baina ohiko hitz protokolarioez gain, biltzarraren testuinguruaz, asmoaz eta programaren gaineko detaileak azaldu zituen. 50eko hamarkadan euskararen bizi iraupena kolokan zegoen, euskaldunek gero eta gutxiago erabiltzen zuten, eta leku askotan transmisioan etena zegoen. Bazirudien hizkuntza hila bihurtzeko bidean zegoela. Euskara kinka horretan egonik, L. Villasante itxaropentsu agertu zen. Motiboak bazituen, kalean goi mailako lau euskal aldizkari zeudelako (*Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Jakin* eta *Euskera*), eta bestelako aldizkari apalagoak ere bazirelako (adb. *Anaitasuna*). Horretaz guztiaz gainera, Zarauzko Itxaropena argitaldariak euskarazko liburuak argitaratzen zituen baita frantziskotarren argitaletxeak ere. Ikus dezagun zer zioen L. Villasantek:

“Azken urte auetan euskal liburu ta aldizkari mordo polita sortu zaigu, eta gure izkuntzaren alde lan egin nai dutenak ugaritzen dijoztela dirudi. Zorionez, ba-dira gaur eguneon [sic] ere euskaltzaleak, euskal idazleak, euskeraren adiskideak. Eta saiatzen dira, bakoitzak al duena egiñaz, bakoitza bere saillean gogotik ekiñaz. Baiña agi danez, saiaketa guzti oiek ba-dute utsune agiri bat, gaitz ezagun bat: bakoitza bere aldetik ibiltzea, alegia. Bakoitza, bizi dan txokoan sarturik ari da lanean, albokoaren berri jakin gabe.”<sup>43</sup>

Ikusten denez, biltzarraren helburu nagusietako bat euskaltzaleak biltzea zen, eta bere sarrerako saioan behin baino gehiago errepikatu zuen biltzarraren bilgune izaera<sup>44</sup>. Era berean, nabarmendu zuen euskararen inguruko egitekoen, lehentasunen zein bideen gainean, oso iritzi desberdinak zeudela:

“Denok degu xede berdiña, baiño xede ori lortzeko ibilli bear den bidez edo egin bear diren egikizunezaz, danok ez gera iritzi bateko. Batek euskera garbia bear degula, besteak berriz uste du, gaurko egokera ontan, euskera ulerterreza ta erritarra zaigula bearrezko; urliak, euskera kultur-tresna bear degula biurtu, eta orretarako idea goratuetarako mintzabide egin; onek, gizon eskolatuen eta ikasien maillako liburuak falta zaizkigula esango dizu; ark, berriz, erri xearen maillako lanak baizik eztitu ondo ikusten.”<sup>45</sup>

<sup>42</sup> Arantzazuko biltzarraren lehen berria Euskaltzaindiaren martxoko batzarraren aktan aurkitu dugu: “Aita Villasante-k Arantzazuko jubileo urtea dela ta, ia Euskaltzaindiak batzar moduko bat egin dezaken jai bat antolatuz eskatzen du. Aztertuko da asmo au” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1956.03.23)

<sup>43</sup> (Villasante, 1956: 166)

<sup>44</sup> “Orregatik bear zan onelako billera bat euskaltzaleen artean egin, elkar ezagutzeko, elkar berotzeko, asmoz ta jakitez jarraitzeko.” (Villasante, 1956: 166)

<sup>45</sup> (Villasante, 1956: 166)

Programari<sup>46</sup> dagokionez, L. Villasantek argitu zuen Euskaltzaindiaren barne-egiturari zegozkion irizpideak aplikatu zirela egitaraua diseinatzeko orduan<sup>47</sup>. Euskaltzaindiak bi xede eta bi sail nagusi zituen heinean, Iker eta Jagon, (hau da, batetik hizkuntzaren ikerketa zientifikoa, eta bestetik hizkuntza biziaren estatusari zegozkionak), biltzarreko programan ere, Iker eta Jagon arloak bereiztu ziren<sup>48</sup>. Ikerren beraz, Hizkuntzalaritza eta Filologia arloko lanak zeuden, Jagon Sailean aldiz, hizkuntzaren normalizaziorako proposamen zehatzek zuten tokia:

“Iker-saillaz gaiñera, ba-du Programak jagon-saillari dagokion zatia ere. Zati onetan, euskeraren bizitzarekin urbildik zerikusi [sic] duan puntu bat edo beste sartu da. Esate baterako, Elizak eta eliz-gizonak euskerari eusteko zer dezaketen. (...) Jakintza-zeregiñetan euskerak duen utsunea, utsune orren sustraiatz eta gaitz ori erremediatzeko egin ditekenaz, mintzoko da beste bat. Izan ere, askotan esate degu euskaldunak: Ai, euskal ikastola balego! Baiña bein baiño geiagotan pentsatu izan det: euskerazko eskola balego, zer egingo genuke? Oraindik *Geografia* adierazteko erabili bear den itzaz ez gera bat etorri, gramatika-arazoetan denok onarturiko terminologia bat eztaukagu, eta kultur alorreko sail guztietan beste ainbeste gertatzen zaigu.”<sup>49</sup>

Iker sailean 6 hitzaldi izan ziren<sup>50</sup>. Jagon sailean beste 6<sup>51</sup>. Hizlarietatik 9 eliztarrak izan ziren eta beste hirurak laikoak<sup>52</sup>. Kasualitatez, edo ez hain kasualitatez, laiko bakanek Jagon sailean parte hartu zuten. Hau da, hizkuntzaren normalizazioaren inguruan ekarpenak egin zituztenak sekularrak izan ziren. Jagon saileko 5 hitzaldietatik hiru hizlariaren lana nabarmendu nahi genuke: *Txillardegia*, L. Villasante eta A. Urrestarazuren testuak. Bakoitzak euskararen beharren gainean lehentasun desberdinak

---

<sup>46</sup> Biltzarraren programa iragarri zen adibidez *Anaitasuna* aldizkarian [ikus “ Euskaltzaleen Bilkura Arantzazun Euskaltzaindiaren itzalpean (1956-ko iraillaren 14-tik 16-ra), *Anaitasuna*, 33 (1956)]

<sup>47</sup> Arantzazuko 1956ko Euskaltzaleen Biltzarraren programa *Fontes Lingua Vasconum* aldizkarian argitaratuta dago (Mitxelena, 1998: 472-473)

<sup>48</sup> “Iker-saillaren gaitzat onako au jarri degu: toki jakin bakoitzeko mintzoaz monographi bereziak egiteak nolako garrantzia [sic] duen eta monographi oiek nola edo zer moduz egin. Itzak, aditza, leku-izenak, folklore-gaiak, fonetika eta gramatika-legeak, orra or toki jakin bateko mintzoak eskeintzen digun alor zabala” (Villasante, 1956a: 167)

<sup>49</sup> (Villasante, 1956a: 168)

<sup>50</sup> Iker Saileko hizlariak eta gaiak honakoak izan ziren: P. Altuna (*Azpeitiko euskerea aztertuz*), K. Izagirre (*Oñatiko liñagin-iztegitxo*), F. Mendizabal (*Lardizabal'en euskeraz zertxobait*), B. Gandiaga (*Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz*), A. Zabala (*Bertso berri billa euskalerrria zear*) eta J. M. Barandiaran (*Axularren eginkizunak eta Axularren izena*).

<sup>51</sup> Jagon Saileko hizlariak eta gaiak honakoak izan ziren: *Txillardegia* (*Karta idigia*), Lojendio (*Kristau ikasbidea ta eliz-itzaldiak*), L. Villasante (*Gure eginberrak*), J. M. Mokoroa (*De vida o muerte*), Alustiza (*Sermoia*) eta A. Urrestarazu (*Euskera ta euskal-kulturari buruz* (*karta idigia*)).

<sup>52</sup> Eliztar gehienak frantziskotarrak ziren (J. Alustiza, B. Gandiaga, K. Izagirre, F. Mendizabal, eta L. Villasante), baina bazeuden jesuita bi (P. Altuna eta A. Zabala), kalasanzdar bat (J. Mokoroa “Ibar”) eta abade bat (J. M. Barandiaran). Laikoak hiru izan ziren: A. Urrestarazu, J. M. Lojendio eta J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegia*. *Txillardegia* dena den, ez zen biltzarrera joan, baina bere karta bertan irakurri egin zen.

markatu arren, eta interesgune desberdinak izan arren, hirurek euskararen batasuna eskatzen zuten<sup>53</sup>, eta kultur hizkuntzaren beharra azpimarratzen zuten. Esate baterako, L. Villasantek atal oso bat dedikatu zion kontu honi<sup>54</sup> eta A. Urrestarazuk bere sei helburuen artean, boskarranean “euskera kulturazko-izkuntza biurtzea”<sup>55</sup> aipatu zuen.

Laburbilduz, Jagon sailekoek, bostek, euskararen erabileraren hedapena eskatu zuten, bakoitzak proposamen desberdinak planteatu zituen, baina gehienek esplizituki, hizkuntza batasuna eskatu zuten. Hala, Arantzazuko lehen biltzar honetatik abiatzen da biltzarren eta euskararen batasun prozesuaren arteko lotura estua.

### 2.1.1. Mitxelenaren interbentzio inprobisatua

Aldez aurretik banatutako programaren arabera, K. Mitxelenak hizkuntzaren ikerkuntzaren gainean hitz egin behar zuen (*Izkuntza-monografiak nola egin*). Azkenean ez zuen programatutako hitzaldia eman. Horren ordez, euskalariaren lanbidearen eta hizkuntzalaritza arloko ikerketen beharraren defentsa egin zuen. Dirudienez biltzarrean bertan hartutako erabakia izan zen. Eta biltzarrean bertan eskuko programaren atzean idatzi zuen momentuan inprobisatutako interbentzioa<sup>56</sup>. Antza denez, Iker Sailaren lehen interbentzioekin (Patxi Altunaren saioarekin) desgiro apur bat sortu zen euskalarien eta –euskalari ez ziren– euskaltzaleen artean. Egia esan, *Euskeran* argitaratutako aktetan garraztasunik edo hikamikaririk ez da ia antzematen, baina bai *Egan* aldizkarian argitaratutako kronikan. *Eganeko* kronikan aipatzen denaren arabera, biltzarrean batzuren artean honako iritzia zebilen:

“Ez digula bat ere mesederik egiten, Unibersidadeetako jakintsuak Euskerari ematen dioten itzal eta prestigioak’.

**Jakinduriaren itzala bearrezkoa degula, batzuek: eta jakintsuen itzalak ez digula bat ere mesederik egiten, besteak.** Linguisten itzalak, alegia. Izenez, ez bide-ziran aipatu Batzarretan.

<sup>53</sup> *Txillardegik* batetik aipatzen du “Euskera gaitu, batu ta osatu” behar dela, eta Euskaltzaindiari diotso: “2.<sup>a</sup>) Bere aipu guziarekin, eta, ofizialki, euskeraren batasuna zeaztu, ta euskera “personala” ta euskal berrikeri guztiak ezetsi ta kondenatu” (*Txillardegi*, 1956: 249); L. Villasante bere aldetik, “Burnibide estua dialektuak dira, burnibide zabala, aldiz, literatur-izkuntza (la lengua literaria). Literatur-izkuntza normalizatua, unifikatua, tink ezarria eta aldakaitz biurtua. Au bear dugu euskaldunak” (*Villasante*, 1956b: 267); azkenik A. Urrestarazuk “Ba-dugu guzti onen alboan dagoen beste auzi aundi bat: Euskeraren batasuna” (*Urrestarazu*, 1956b: 295)

<sup>54</sup> (*Villasante*, 1956b)

<sup>55</sup> (*Urrestarazu*, 1956: 298)

<sup>56</sup> Testu idatzia J. M. Satrustegik argitaratu zuen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian (*Mitxelena*, 1998)

**Baina norbaitek jaso bear izan zuan, zenbaitzuen aopean-edo zebillen aien aurkako mar-marra.**

Azpeitiko ta Oñatiko euskera nolako dan ikasteak Euskeraren batasunari kalterik egiten ez dion bezela, jakintsuak beren Katedretan eta Unibersidadeetan egiten dituzten Euskerari buruzko azterketak ere, ez diote kalterik egiten Euskeraren bizitzari, mesede baizik,...<sup>57</sup> [beltzak gureak dira]

Kontua da, Patxi Altunak Azpeitiko euskararen berezitasun eta ezaugarriak eman ostean, K. Mitxelenak zenbait akats topatu eta aipatu zizkiola. E. Agirretxek, *Euskerako akten arabera*, honela erantzun zion K. Mitxelenari: “Aita Agirretxek adierazten du askotan poztu egiten garela bereizkuntza ta pitxiakatik eta poztu bearrean zergatik ez garen tamaltzen”<sup>58</sup>. K. Mitxelenak ihardetsi zion, medikuak “geixoak osatzeko lan egiten duela eta eztela poztutzen, erremedioak billatu baizik, baiña orretarako medikuak geixoa ezagutu egin bear du”<sup>59</sup>. Antza denez, eztabaida mahaigainean zegoen eta ez zen inolaz ere ebatzi. Horregatik K. Mitxelenak programatutako hitzaldiaren gaia aldatzea erabaki zuen. Aktetan jasotakoaren arabera: “Gero Luis Mitxelena jaunak itz egin du. Ezagutuerazita zegoan gaia utzi ta beste gai bat arturik jardun du. / Jakintzaren ta estudien alde mintzatu da. / Badirudi zenbaitek uste dutenez euskerak etsai bat duela: linguista”<sup>60</sup>. K. Mitxelenak Iker Sailaren baitan euskararen gaineko ikerketak nola egin hitzaldia eman behar zuen. Kontua da, nola esplikatuko zuen hizkuntzaren gaineko ikerketak zelan egin behar ziren, baldin eta batzuk kolokan jartzen bazuten halako lanen ekarpena eta baliogarritasuna? Beraz, K. Mitxelenari euskalariaren eta hizkuntzaren ikerketaren alde hitz egitea premiazkoagoa zela iruditu zitzaion azken orduan. Euskalariaren egitekoaz honela mintzatu zen:

“Nik esan nai dudana da au: Gu gauza batekin ari gera, guk jakin nai dugu nun itz egiten zan eta galdu dan eta non ari dan urritzen, ori jakin nai dugu. Nik uste dut jakiteak, bear bada, gizon banaka bati iñoiz edo bein kalte egin diola, baño gizonei erabat edo erri bateri, jakiteak ezti beñere kalterik egin. Gauzak ezpadaude biar [sic] dan bezela, lenbiziko lana da gauzak nola dauden jakitea. Alper alperrik da guk gerok gere buruak, gere begiak itxutzea eta ez ikusi nai izatea gauzak nola dauden. Gauzak sendatu bear baldin baditugu, lenbizi jakin bear dugu nola dauden gauzak. Beraz, jakiteak eztingu kalterik ekarriko.”<sup>61</sup>

---

<sup>57</sup> B. “Arantzazu´ko Batzarrak: iritzi ta aburu” *Egan*, 5/6 (1956), 126. <http://andima.armiarma.com/egan/egan29/iruegan290127.htm> [kontsulta data: 2009-06-02]

<sup>58</sup> (Euskaltzaindia, 1956: 173)

<sup>59</sup> (Euskaltzaindia, 1956: 173-174)

<sup>60</sup> (Euskaltzaindia, 1956: 205)

<sup>61</sup> (Mitxelena, 1998: 470)

Eta euskalari eta euskaltzalearen arteko aldeaz hauxe esan zuen:

“Bestea. Badirudi zenbaitek uste duela linguistika izkuntza batuten [sic], aztertzea edo estudiatzea alde batetik eta bestetik izkuntza baten alde jokatzeko itzez edo iskribuz, badirudi alde izugarria dagoela, eta bi bide oiek, bi lanbide oiek elkarren etsai edo kontrakoak dirala; nik ez dut ala uste. Nik aitortzen dut bi lanbide oiek zearo bereziak dirala, ez ditugula beñere elkarrekin naastu bear, ori bai, baiña nik ez dut uste elkarren etsai direnik”<sup>62</sup>

Antzeko eztabaida bat gertatu zen *Euzko-Gogoa* eta *Euskera* aldizkariaren artean 1956. urte inguruan, tartean A. Urrestarazu, K. Mitxelena eta J. Zaitegi zeudela<sup>63</sup>.

K. Mitxelenaren eta beste hitzaldietako testu guztiak eta biltzarreko aktak Akademiaren buletinean (*Euskeran*) argitaratu ziren<sup>64</sup>. *Euskera* buletinean argitaratutako akten arabera, guztira 12 berbaldi izan ziren<sup>65</sup>. Hizlarietako bi gerraurrean Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldi zikloetan aritu ziren (J. M. Mokoroa eta J. M. Barandiaran)<sup>66</sup>. Biltzarrean parte hartutako beste hizlari batzuk aldiz, gerraosteko aldizkari proiektuetan kolaboratzen ari ziren. Esate baterako *Egan* aldizkariako zuzendaritzako hirukoteak (A. Arrue, A. Irigarai eta K. Mitxelenak) Arantzazuko biltzarrean parte hartu zuen, eta *Euzko-Gogoa* aldizkariaren inguruan (gehiago edo gutxiago) J. M. Barandiaran, J. M. Mokoroa, L. Villasante, A. Urrestarazu, B. Gandiaga eta P. Altuna ibiltzen ziren.

Hizlarien aldetik damu handiarekin, hitzaldietako bi gaztelaniaz izan ziren: A. Zabala eta J. M. Mokoroarenak, hain zuzen ere. A. Zabalaren hitzaldiaren izenburua euskaraz argitaratu arren, jesuitak lana gaztelaniaz prestatu zuen. Hitzaldiaren gaiari oratu aurretik hizkuntzaren gorabehera honen gainean honelaxe zuritu zuen bere burua:

<sup>62</sup> (Mitxelena, 1998: 470)

<sup>63</sup> Ikus 4.1.1. *Euzko-Gogoa eta Euskeraren arteko eztabaida* atala.

<sup>64</sup> Arantzazuko biltzarri buruz, *Euskeran* buletineko agiri ofizialez gain, jardunaldiaren gaineko kronika pertsonalago bat argitaratu zen *Egan* aldizkarian (ikus B. “Arantzazu’ko Batzarrak: iritzi ta aburu” *Egan*, 5/6 (1956), 123-127. <http://andima.armiarma.com/egan/egan29/iruegan290127.htm> [kontsulta data: 2009-06-02])

<sup>65</sup> Ez dugu aintzat hartu A. Arrueren orrialde erdiko interbentzioa, ezta K. Mitxelenarena ere, K. Mitxelenaren interbentzioa ez zelako kongresuetako ohiko hitzaldi bat izan, eta ez zelako argitaratu *Euskeran*.

<sup>66</sup> Gerraurreko kideen artean aipagarria da Julian Elortzaren parte hartzea Euskaltzaleen biltzarrean. Elortza gerraurrean Gipuzkoako Aldundiko burua eta Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria izan zen. Biltzarra irekitzeko mahaian parte hartu zuen, eta L. Villasanteren sarrera hitzaldiaren ostean, K. Mitxelenaren eskabidez, “Julian Elorza jauna ohorezko maipuru izendatu da, txalo franko entzun delarik” (Euskaltzaindia, 1956: 169)

“Etzidaten neri esan aldezaurretik euskeraz ala erderaz nere itzaldi au paratu bear ote nuan. Astirik ez galdutzearren asi nintzan emen esan bearrekoak moldatutzen, euskeraz egon bear izatekotan euskeratuko nitualakoan. Bañan euskeraz bear lukeala abisua etorri zitzaidanean astirik gabe arkitu nintzan, ta nik paperean jarritako makiña bat arrazoi euskeraz adierazteko biurri xamarrak zirala, nik beintzat argi ta garbi euskeraz adierazi ez nintzazkenak.”<sup>67</sup>

J. M. Mokoroak berriz, gerra aurretxoan argitaratutako *Genio y lengua* obraren egileak, bestelako arrazoiengatik egin zuen erdaraz. Antolatzaileek J. M. Mokoroari eskari berezia egin ziotelako, uztailean Arantzazuko fraide gazteei emandako hitzaldia errepikatzeko hain zuzen<sup>68</sup>.

Bai biltzar tokia (frantziskotarren Arantzazuko egoitza) bai hizlarien ezaugarriak kontuan hartuta (gehienak eliztarrak, horietako asko gazteak), argi dago biltzarra zein giro politikotan antolatu zen: frankismoaren diktadura indarrean zegoela. Euskaltzaleek frantziskotar ordenean babesa bilatu zuten, eta, oro har, eliztarrak ziren garaiko Euskal Herri hartan susmo politiko gutxien erakartzen zituztenak. Halaber, ezin da ahaztu, frankismoan eliztarrak zirela biltzeko aukera zuten bakarrak. Euskaltzale eliztar gazteek, Arantzazuko biltzar honetatik atera zituzten ikaspenik handienak ez ziren euskarari buruzko txostenak izan, baizik eta biltzarretik ateratako esperientzia bitala, euskarari eta euskaltzaletasunari lotutako esperientzia bital bizia, ordura arte imajinatu gabekoa:

“Arantzazuko fraide gazteek garbi ikusi zuten bazegoela gizartean lagunarte euskaltzale bat, euskal idazlanak jasotzeko prest zegoena, prest eta irrikatzen. Inoiz ez bezala, euskaltzale haien artean ibiltzeko egokiera izan zuten Batzar horretan.”<sup>69</sup>

---

<sup>67</sup> (Zabala, 1956: 233)

<sup>68</sup> “Joan dan asteazken eguerdian, Arantzazu-tik deia: “emengo fraile gazteai uztailean irakurritako lan hura [sic], arren-da-arren, ekar nezala bere-artantxe: ----? Jaun-andreak pere pozetan entzungo zutela, eta askorentzat izan zitekela argigarri ta bide-erakusle”. Ez neukan euskaraz antolatzeko ez eperik, ez langirorik Bilbao-ko nere eginkizunen artean; eta orain urte bete idatzi bezela dakart, batere gozatu gabe, bere orre [sic] gordiñean. / Ez dezatela pentsa Bilbao-ko mutil gartsu oriek euskera berez gauza eztanik gai au ta au baiño goak aisa adierazteko: ala bear izan-ezkerro, pozik artuko nuke nere gain euskeraz ematea ere, bere ordurako.” (Mokoroa, 1956: 273-274)

<sup>69</sup> (Intxausti, 2007b: 63)



Euskaltzaindiak batzarrean bertan hartutako erabakiak irakurriz amaitu zen Euskaltzaleen lehen biltzarra. Hala, Euskaltzaindiak erabaki zuen, besteak beste, lanak *Euskera* buletinean argitaratzea, ikerkuntza sustatzea, eta kultur lexiko garbizalearen alde egitea, orduan oraindik ez zegoelako euskarazko kultur lexikoko corpus sendorik, eta beraz, euskarazko kultur lexiko bakarra, lexiko garbizalea zen:

“5. Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaian, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, **euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe**, naiz ta nekagarriago izan”<sup>70</sup> [beltzak gureak dira]

Hala ere Euskaltzaindiak aitortzen zuen, baina ez jadanik arau mailan, hobe zela euskara *mordoiloa* erabiltzea, euskara ulergaitza baino: “Obe dugu euskera mordoilloan jardun burutaziñoak adierazi gabe ta ulergaitz utzi baiño, edo zeatz adierazi gabe”<sup>71</sup>.

## 2.2. Euskaltzaleen II. Biltzarra (Bilbo, 1958)

Euskaltzaleen bigarren biltzarra Bilbon egin zen. Azpimarratu behar da euskaltzaleen biltzar guztietatik Bizkaian burutu zen bakarra izan zela, eta hasierako asmoa Donostian egitekoa zela. Euskaraz hitz egiteko hiriburu erdaldun bat aukeratu zuten<sup>72</sup>, baina bertan aurkitu zituztelako erraztasun handienak biltzarra antolatzeko<sup>73</sup>.

<sup>70</sup> (Euskaltzaindia, 1956: 298-299)

<sup>71</sup> (Euskaltzaindia, 1956: 299)

<sup>72</sup> Alfonso Irigoienek, une hartan Euskaltzaindiko idazkaria, sarrerako hitzetan dioen moduan: “Orain urte bi Arantzazu-n izan genduzan batzar bizi eta eragille areik gogoan arturik Euskaltzaindiak barriro be egitea erabagi dau euskal estudioen onerako izango direlakoan eta euskal soloa geroago eta argi andiagogaz landuteko balioko dabelakoan. Eta orretarako Bilbo uri andi au aukeratu dau, espirituko gaietan abiada andi baten bearrean dagoen uri andi au” (Euskaltzaindia, 1959: 95)

<sup>73</sup> Euskaltzaindiko 1958ko iraileko batzarreko aktaren arabera: “Donostian egitekoa zan izkuntzalarien batzar nagusia azkenez aurten egingo ezta ezkerro Irigoyen-ek adierazoten dau aurten bere igaz legez utsunea geldituten dala eta zelanbait betetatako gauza txikiago bat egin bear litzakeala, orain urte bi Arantzazun egin zan antzekoa, eta tokia Bilbo izan leitekeala, zemendi inguruan adibidez. Diño Bizkaiko Diputaziñoako Bibliotekako saloia lortzea ere ustez elitzakeala gatxa izango. Gaia: lexikografia, lexikologia eta euskarazko literatura mueten legerik nagusienak izan leiteke. Beste lan batzuek ere onartu leitekez Euskaltzaindiak ondo baderitzo. Datorren batzarreko ekarri beiz zeaztasun guztiak eta asko komeni litzake berba egingo dabenak laburpen bat bialdu daien, aurretik jakiteko gaiak eta eretxiak eta maipuruak bear dan moduan zuzendu aal izan batzarra” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1958.9.25)

Biltzarrerako gai monografikoa lexikografia, lexikologia eta literatura izan ziren, eta azkenean diputazioaren bibliotekako gelan burutu zen<sup>74</sup>. Oraingoan Iker edo Jagon araberako sailkapena ez zen aurrekoan bezain zehazki aplikatu, antolaketa ere halakoxea izan baitzen. Gai nagusiak lexikoa eta literatura izan ziren. Hizlarietako batzuk beraien ikerketak aurkeztu zituzten<sup>75</sup>, eta beste batzuk aldiz hizkuntzaren egoeraren gainekoak, hau da, corpus zein estatusari buruzkoak<sup>76</sup>. Oraingoan ez zen erdaraz lanik aurkeztu<sup>77</sup>.

Jagon saileko jitea zuten hitzaldietan hizkuntzaren batasuna, bereziki literatur hizkuntzaren batasun premia, eta lexikoaren gaineko eztabaidak izan zuten erabateko zentralitatea. J. Gorostiaga izan ezik<sup>78</sup>, L. Villasantek, *Txillardegik*, A. Irigoienek eta K. Mitxelenak, bakoitzak bere argudioekin, euskal lexikotik hitz *garbiak* eta asmatuak bazter zitezen eskatu zuten<sup>79</sup>, joera garbizalearen kalteak agerraraziz, eta erdal jatorriko berbak euskarazkoak ere bazirela aldarrikatuz. Are gehiago esparru zientifiko-teknikoan, euskal tradizioz gabe erdarazkoak hartu behar zirela:

“Teknika gaietan –euskeraz idatzi be ezta egiten, baiña nozbait idatziko balitz- itz nazio-arteoak erabiliko litzakez. Ori izkuntza guztietan gertetan da. Izan be teknika gaietan espezialistetatik kanpo jente arruntak eztaukaz zetan jakin bear itzak, oso ezagunak eta zabalduak ezpaldin badira arrazoien bategaitik”<sup>80</sup>

---

<sup>74</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1958.12.13/14)

<sup>75</sup> Ikerreko joera agertzen dute: A. Irigarainen (*Lizarraga Elkanokoa*), J. San Martinen (*Eibarren teknika gaietan egin dan eboluzinoari buruz*), G. Arestiren (*Gabonetako ikuskizuna*) eta A. Zabalaren (*Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914)*) lanak.

<sup>76</sup> Jagonekoak aldiz: J. Gorostiagaren (*Euskera bat edo unificación del euskera*), L. Villasanteren (*Bizitzatik urbil*), *Txillardegiren (batasunaren bidea)*, K. Mitxelenaren (ez du izenbururik) eta A. Irigoienek (*Berbak eta izkuntza*) lanak. *Euskeran* argitaratu zen K. Mitxelenak esandakoak, baina ez K. Mitxelenaren testua. Kasu bakarra izan zen.

<sup>77</sup> Hala ere, aipatu behar da, L. Villasante bere hitzaldiaren laburpen bat egin zuela gaztelaniaz.

<sup>78</sup> J. Gorostiaga hizkuntzaren batasunaz aritu zen gehien bat, eta lexikoari buruz esan zuen gauza bakarra zera zen, batasuna morfologiaren normalizazioan oinarritu behar zela, sintaxi eta lexiko arloa oraingoz lasai utziz.

<sup>79</sup> L. Villasantek bere hitzaldiaren erdarazko laburpenean argiro esaten zien erdaldunei euskaldunei gertatzen zitzaiena: “El escritor vasco siente un horror instintivo –yo diría que es una especie de tabú, aunque gracias a Dios parece que se va superando–, horror a no proferir una palabra que guarde parecido e identidad con las palabras castellanas” (Villasante, 1959: 114)

<sup>80</sup> (Irigoien, 1959: 178)

Gerraurrean lexikoaren gaineko eztabaidarik bazen ere, gerraurrean ez zuen gerraosteko zalapartarik sortu, oro har denak garbizaleak edo hiper garbizaleak zirelako. Gerraostean, purismoak oraindik ibilbidetxoak egin bazuen ere, esate baterako *Euzko-Gogoa* aldizkarian, euskaltzale eta euskalari belaunaldi gazteak euskara mordoiloaren alde egin zuen (F. Krutwig, G. Aresti, *Txillardegia*, K. Mitxelena, L. Villasante, A. Irigoien...). Seber Altube izan zen gerraurrean erdal jatorriko lexikoa onartzearen aldeko proposamen esplizitua egin zuen bakarrenetakoa (Eusko Ikaskuntzaren 1922ko kongresuan)<sup>81</sup>, eta 1958ko biltzarrean parte hartu zuelarik, aipatutako gazteekin bat etorri zen.

Bilbon guztira, 9 lan aurkeztu ziren<sup>82</sup>. Hala ere, bada detaile bat ihes ezin diguna egin, eta da, Arantzazun ez bezala, Bilbon hizlari gehienak laikoak izan zirela, salbu hizlari bi (L. Villasante eta A. Zabala). Horretan berebiziko garrantzia izan zuten, gure ustez, bi faktorek: alde batetik biltzarra hiri batean antolatu izanak eta ez komentu batean, eta bestetik, oraingo honetan batzarrak nola halako babes instituzionala izateak. Horren erakusle da, Bizkaiko aldundiak, biltzar amaieran eskaini zien mokadutxoak:

“Eta itzaldiak bukatuta Bibliotekako beste saloi batera joanik Bizkaiko Diputaziñoak ardo eta janari zenbait eskeiñi zien batzarkideai bazkal-aurrean. Hilario Bilbao jaunak Diputaziñoaren izenean itz sutsu eta eder batzuek esan zituen. Zion nola Diputaziñoak Euskaltzaindiari giltzak eman ziozkan etxean bezala egon zedin eta eztela Euskaltzaindia Diputaziñoari eskerrak eman bear diozkana, ezpada Diputaziñoa dela benetako eskerrak Euskaltzaindiari eman bearrean dagonea [sic] egiten ari den lan indarrez beteagatik [sic]”<sup>83</sup>

Euskaltzaindia ordeneko erakundea zen, baita erlijiosoki ere. Erakunde konfesionala izan gabe, kideetako asko eliztarrak ziren, eta bere praktika sinboliko ugarik izaera erlijiosoa zuten, esate baterako batzarrak bedeinkatzeak. Esparru politikoari dagokionez, baziren kide batzuk erregimenaren lagunak zirenak, urrunago joan gabe, I. Etxaide Euskaltzainburua.

Arantzazun gertatu zen moduan, hitzaldien ostean solasaldi edo eztabaidarako tarterik izan zen. *Euskeran* argitaratutako akten arabera, eztabaidan 15 pertsonak parte

<sup>81</sup> (Altube, 1923). Seber Altuberen jarreraz hiztegi arloan ikus Villasanteren lana (Villasante, 1979)

<sup>82</sup> A. Irigaraik ezin izan zuen Bilbora hurbildu eta bere lana irakurri egin zen.

<sup>83</sup> (Euskaltzaindia, 1959: 214)

hartu zuen<sup>84</sup>. Lehen aldiz, bi emakumek: M. Jauregiberri eta M. Barriola<sup>85</sup>. Biltzarraren gainean L. Villasantek *Anaitasuna* aldizkarian argitaratutako kronikatxoari esker badakigu eztabaidan parte hartu ez zuten beste 11 pertsona izan zirela Bilbon (gehiago ere izango ziren baina L. Villasante buruz dabil izenak ematen). Harrigarria da eztabaidetan parte hartu ez zuten gehienak ordena erlijiosoetakoak kideak izatea<sup>86</sup>.

Ekitaldion antolatzailea Euskaltzaindia zen heinean, parte hartzaileetako asko euskaltzain, oso edo urgazleak ziren. Hala ere erabat susmagarria gertatzen da Euskaltzainburua (I. Etxaide) ez zela ia inon ageri. Eztabaida saio batean ekarpen laburtxo bat egitera mugatu zen.

Edozein kasutan, Bilboko biltzarrean, lexikoaren inguruan hain lortu zen erabateko adostasuna, ezen, nire ustez, Euskaltzaindiak behartuta ikusi zuela bere burua gai honen gainean zerbait esatera. Izan ere, biltzarrean aritutako K. Mitxelena, L. Villasante, A. Irigoien eta *Txillardegi*, hau da, erakundearen indar biziak, argiro lerratuta zeuden, eta Euskaltzaindiak batzarrean bertan erabakirik hartu ez bazuen ere, handik hiru hilabetera euskal hitzen gainean agiri erabakigarria argitaratu zuen, euskal hitz asmatuak erabat baztertuz, eta beraz purismoaren kontrako lehen erabaki sendo eta akademikoa hartuz. Gerraurretik zetorren tradizio garbizalearekin erabat hautsiz. Are gehiago, erabaki agiriaren amaieran, esparru jasoren inguruan honakoa zekarren:

“Berebat, izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez; politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar”<sup>87</sup>

Behingoz baztertzen has zitekeen *elerti*, *uzkurtza* eta horren tankerako lexikoa, nahiz eta oraindik batzuk erabiltzen jarraitu zuten.

---

<sup>84</sup> Pertsona gehiagok parte hartu zuen, baina aktetan maiz ez dira identifikatzen hizlariak: “norbaitek dio”... eta abar.

<sup>85</sup> Beste 13 gizonak hauek dira: E. Agirretxe, S. Altube, M. Arrutza, E. Erkiaga, I. Etxaide, N. Etxaniz, Kerexeta, M. Mujika, N. Oleaga, S. Onaindia, Seiyo, K. Zubia eta A. Zugasti.

<sup>86</sup> A. Zumalabe, B. Garro eta Jausoro izan ezik beste guztiak ordena erlijiosoetakoak dira: Aita Marzel (pasionista), Aita Goiria (karmelita), Aita Endeiza eta Aita Kortabitarte (jesuitak biak), Iturria eta Sorarrain (frantziskotarrak biak), Anai Olabeaga (eskola kristaukoa) eta Aita Mokoroa (eskolapioa) (Villasante, 1958)

<sup>87</sup> (Euskaltzaindia, 1959: 215)

### 2.3. Euskaltzaleen III. Biltzarra: Mogelen gorazarrez (Eibar, 1959)

Euskaltzaindiak antolatutako hirugarren Euskaltzaleen Biltzarra Eibarren burutu zen, eta Juan Antonio Mogel eibartar idazleari gorazarre egin zion. Batzarrarekin batera, bestelako jarduerak izan ziren: pintura erakusketak, bertso txapelketa, haurren azterketak eta abar. Jardunaldia 1959ko azaroaren 6an hasi zen, eta hiru egun iraun zituen. Sarrera hitzak herriko alkateak (J. Eguren) eta Euskaltzaindiko idazkariak (A. Irigoien) egin zituzten eta ondoren ponentzia nagusiak aurkeztu ziren. Biltzarrean izaera eta luzera desberdineko 14 lan aurkeztu ziren. Testu guztiak *Euskera* buletinaren argitaratu ziren, P. Lafitterena izan ezik. P. Lafittek Iparraldeko eskoletan frantsesarekin batera euskara sartzeko ematen ari ziren pausuez berba egin zuen.

Batzarrean Mogel edota Eibarrekin zer ikusia zuten zenbait ikerkuntza lan irakurri zituzten<sup>88</sup>. Hizkuntzaren normalizazioarekin lotuta 6 lan aurkeztu ziren, horietatik 3 hizkuntza batasunari buruzkoak: bi, Mogel eta hizkuntza batasunaren gainean<sup>89</sup>, eta bestea Yon Etxaiderena Euskaltzaindiari eskatzen ziona zenbait hizkuntza auziren gainean erabakiren bat hartzeko<sup>90</sup>. Beste hiru lanetatik, bi euskarazko hezkuntza aitzineratu beharri buruzkoak izan ziren<sup>91</sup>, eta azkenean, euskararen zabalpenerako Bilbo alderako egitasmo bat aurkeztu zen<sup>92</sup>.

Harrigarria da Etxaidetarrek biltzarrean izan zuten parte hartzea. Alde batetik Ignazio M<sup>a</sup> Etxaidek, une hartan euskaltzainburu zenak, biltzarrean ez zuelako erakundearen izenean hitzik esan, baina Mogelen aditzaren gainean lana gaztelaniaz aurkeztu zuelako (nahiz eta azkenean ez zen irakurri)<sup>93</sup>. Beste alde batetik, Yon

<sup>88</sup> J. San Martinek (*Juan Antonio Mogel eta Urkitza*), L. Villasantek (*Juan Antonio Mogel, berri jakingarri batzuk*), S. Altubek (*Eibartarrak eta euskara (hiztegi kontuak)*), J. Zubiaurrek (*Mogel eta burdingintza eta Burdin-langintzako itz batzuek*), I. M. Etxaidek (*Las flexiones verbales contenidas en Peru Abarka de Mogel*), A. Arruek (*Mogelez zetzobait* (sic) eta J. Gorostiagak (*Juan Antonio Mogel ta historia aurreko Espainia*). Guztira 7 hizlarik, 8 ikerkuntza lan aurkeztu zituzten.

<sup>89</sup> A. Irigarai (*Mogel eta literatur-euskara*) eta Lojendio (*Euskeraren batasuna ta Mogel*)

<sup>90</sup> Y. Etxaide: *Euskaltzaindia mintza bekigu "Itxasoa lainoa dago"-ren zuzenbidea*.

<sup>91</sup> P. Lafitteren izenburu gabeko hitzaldia, eta EKA elkartearen *Euskaltzaindiak Eibar'en atondutako batzarrari. Euskerari buruzko asmoak*.

<sup>92</sup> M. Arrutza: *Bilboko euskaltzaleen agurra*.

<sup>93</sup> A. Irigoienek honela aurkeztu zuen Euskaltzainburuaren lana: "Esan bear dizuet, Ignazio Maria Etxaide jaunak, Euskaltzaindiko buruzagiak, lan bat bialdu duela Mogel-en verbo guztia ala jarririk. Eztegu irakurriko, irakurtzeko eztaiko, argitaratzeko baizik, eta emengo itzaldi guztiekin batera emango degu Euskera-n." (*Euskaltzaindia*, 1960: 122)

Etxaidek, euskaltzainburuaren semeak, aitzaki ordezkatzan zuten erakundeari, euskararen gaineko erabakiak har zitzan eskatu zion.

Eibarren Mogel gai nagusia bazen ere, aitzaki bat baino ez zen izan, benetan jorratu nahi zen gaia lantzeko: hizkuntzaren batasuna. Eta hori bereziki nabarmena da ponentzia nagusien osteko eztabaidetan. Hizlari guztien artean adostasuna antzematen delako eta denak hizkuntza batasunaren alde zeudelako<sup>94</sup>, baina zalantza antzematen da prozesua materializatzeko orduan, nondik hasi? Nola egin? Gipuzkera, bizkaiera ala beste zerbait? Idatzizko batasuna, ala ahozkoa ere?... K. Mitxelenak zioen moduan: “batentzat euskararik onena Ondarribikoa da, San Martiñentzat Eibarkoa ta beste batentzat bere alderdikoa”<sup>95</sup>.

Batasun bidean, proposamen eta eskari desberdinak plazaratu zituzten parte hartzaileek Eibarreko batzarrean. Arestian aipatutako lan batean, Y. Etxaidek bere kezka agertu zituen. A. Irigarai bere aldetik batasunerako proposamen zehatz bat aurkeztu zuen: “gure uste apalean, 3 mailletan egin bear litake autsi-mautsi akordio ori; *idazteko moldean, graphian eta iztegian*”<sup>96</sup>. K. Mitxelenak berriz, argi ilunak ikusten zituen (“Atzo emen esan genduen bezela, uste dut batasun kontu ontan, badirala gauzak gaitz eta zail eta eragozpen askorekin baizik lortuko eztitugunak”<sup>97</sup>). Fernando Artola *Bordarik* Euskaltzaindiaren babesean batzorde bat sortzea proposatu zuen. Batzordearen egiteko nagusia “aldizkari bat arteka argitaratu ta izkuntz berri orrekin euskaldun guztion esperanto modura izan ditekean gauz bat egin”<sup>98</sup>. A. Irigoienek, batasun prozesua hizkuntzaren tradizio eta historiarekin lotuta egin behar zela azpimarratu zuen:

“Bear bada eztegu izan aukerarik ortarako, baiña lenbailen egin bear degun gauza da, eta albait sakonen ezagutu izkuntza, autore zaarrak ere bai, batasunak ezpaitu izan bear oraingo eremukoa bakarrik. Batasunak izan bear du askozaz ere sakonagoa, sustraituagoa, denboraren lerroa ere gogoan izan bear degu eta or ere batasun muga batzuetatik atera gabe aritu, esi sendo batzuek jarririk”<sup>99</sup>

---

<sup>94</sup> Esate baterako K. Mitxelenak Y. Etxaideren hitzaldiaren ostean zera esan zuen: “Nere ustez lenbiziko oiñarria au da: Gu –Euskaltzaindia eta danok– euskeraren batasunaren alde gabilta. Ori da gure gogoa” (Euskaltzaindia, 1960: 89-90)

<sup>95</sup> (Euskaltzaindia, 1960: 161)

<sup>96</sup> (Irigarai, 1960: 115)

<sup>97</sup> (Euskaltzaindia, 1960: 121)

<sup>98</sup> (Euskaltzaindia, 1960: 159)

<sup>99</sup> (Euskaltzaindia, 1960: 162-163)

Ikusten denez, denak batasunaren alde egonik ere, batasuna egiteko proposamen gehiegi zegoen, bide nagusi eta argirik ez zegoen, bideak baizik, intentsitate, asmo eta helburu desberdineko bideak.

#### **2.4. Euskaltzaleen IV. Biltzarra (Donostia, 1961)**

Hasiera batean Euskaltzaindiak 1961eko biltzarra Irunen pedagogiari buruz egiteko asmoa bazuen ere<sup>100</sup>, azkenean, Donostian antolatu zuen, eta ez zen monografikoa izan, zenbait gai jorratu baitziren (euskal teatroa, irakaskuntza, umorea eta abar).

Donostiako ekitaldiari hasiera Antonio Arruek eman zion<sup>101</sup>. Bereziki azpimagarria da, ekitaldi honetan ere, euskaltzainburuaren parte hartze urria. Inazio Larrañaga apezpikuak, solasaldi-eztabaidetan noizbehinka ekarpenen bat egiten zuen bitartean, I. M. Etxaidek behin ere ez zuen parte hartu.

Euskal teatroaz 3 hizlari aritu ziren, gerraurrean Euskaltzaleak taldeko kide izandako Antonio Maria Labaien<sup>102</sup>, Augustin Zubikarai eta Gabriel Aresti poeta bilbotarra. Sasoi honetan euskal teatroa euskara zabaltzeko bidetzat hartzen zen. Hiru interbentzioek euskal teatroa normalizatzeko proposamenak (adb. lehiaketak, batzordeak sortzea, molde berrietara egokitzea...) jaso zituzten. G. Aresti bereziki kritikoa agertu zen euskal teatroarekin, teatro berria egitearen alde zegoen, T. Altzaga eta M. Soroa “guztiak alde batera utzirik”<sup>103</sup>:

“Eta gertatzen da gaurko euskal teatroa ez dela gaurkoa, joan den mendekoa baizik. Horretarako bildu gara hemen, zahartasun zipriztin hori gure artetik behin eta betiko aldarazitzeko. Gure teatroa moralista da, badirudi sermoi edo prediku bat entzuten dugula, euskal komedia bat ikusten dugunean”<sup>104</sup>

<sup>100</sup> (Euskaltzaindia, 1960: 436)

<sup>101</sup> Sarrera ekitaldiko mahaian honakoak zeudela: I. M<sup>a</sup> Etxaide, euskaltzainburua, Inazio Larrañaga, apezpikua, Antonio Arrue, *Egan* aldizkari zuzendarietako bat, Manuel Lekuona, Gasteizeko apaiztegiko euskara irakaslea, eta Biltzarretan falta gabe beti parte hartzen zuten hiru euskaltzainek: K. Mitxelena, L. Villasante eta A. Irigoien.

<sup>102</sup> Hitzaldi bat eman zuen, baina ez modu kanonikoan, euskal teatroaz berbetan hasi zen, “paperik gabe” (Euskaltzaindia, 1962: 273), eta *Euskera* buletinean bere hitzak jasota daude.

<sup>103</sup> (Aresti, 1962: 286)

<sup>104</sup> (Aresti, 1962: 285)

Euskal teatroaren ostean, haur eta gazteen irakaskuntzari buruzko saio bi izan ziren: lehena Julene Azpeitiak<sup>105</sup> eman zuen, eta bigarrena Anai Berriotxoak<sup>106</sup>. J. Azpeitia dugu Euskaltzaleen Biltzarretan hitzaldi bat eman zuen lehen emakumea. Gerraurrean haurrentzat euskarazko liburuak plazaratu bazituen ere, gerraostean kaleratu zituen bere lan gehienak. Julenek Donostian *Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi* izenburuko hitzaldi eman zuen<sup>107</sup>.

Irakaskuntzaren ostean, Antonio Arruek eta Juan San Martinek saio bana eman zuten umorea euskal literaturan zertan zen azalduz. Azken hiru hitzaldiak solteak izan ziren, gaiaren aldetik elkarrekin harremanik gabeak: *Euskararen kultura bide bat* (J. Intxausti), *Bilintxi buruz* (A. Zabala) eta *Illen izenak* (L. Villasante). Segidan J. Intxausti eta L. Villasanteren hitzaldiak komentatuko ditugu biziki interesgarriak direlako.

#### 2.4.1. Intxausti eta kulturaren bidea euskararentzat

J. Intxaustik, Donostiako biltzarrean euskararentzat kultura bidea eskatu zuen. Funtsean, bi urte lehenago *Jakinen* argitaratutako *Illobira bultzaka* (1959) artikuluan plazaratu zuenaren bidetik<sup>108</sup>. Donostian, *Jakineko* artikuluan baino jarrera leunagoarekin, euskararentzat kulturaren bidea eskatu zuen berriro.

J. Intxaustik bere hitzaldian Euskaltzaleen biltzarrean parte hartzen zuten bi hizlari mota bereiztu zituen: alde batetik euskalariak, eta bestetik, euskaltzaleak, bakoitzak gai desberdinetaz aritzen zirenak. Euskararen inguruko gaiak euskalarienak ziren, beraiek zirelako adituak, eta ez euskaltzaleak<sup>109</sup>. Frantziskotar gaztearen aburuz,

---

<sup>105</sup> Julene Azpeitiaren ganean liburuxka monografiko bat argitaratu zen Bidegileak bilduman (Mintegi, 1987)

<sup>106</sup> Anai Berriotxoak ezin izan zuen biltzarrera joan, eta A. Irigoienek irakurri zuen bere lana.

<sup>107</sup> Funtsean berak Delcroly mediku belgikarrak garatutako metodoa erabiltzen zuela azaldu zuen, hau da, irudi bidezko ikaskuntza. Horretarako berak egindako liburuxka bat zuen (*Dibujoaren eta idaztearen bitartez irakurtzen erakustea*). Azpeitia, gerraurrean maistra izandakoa zenez, eta urte askotako esperientzia zuen umeen irakaskuntzan.

<sup>108</sup> Artikulu hau *Jakin* aldizkariari dedikatutako atalean aztertuko da zehatzago (ikus 4.3.3. *Euskararen hilobitik tiraka* atala).

<sup>109</sup> “Euskaltzaleon billera auetan bi izlari-mota izan ditezke. Gaia euskera bera baldin bada, biltzar auetan irakatsi ta itz egiteko eskubidea euskalarietara dagokie. (...) Ta euskerari buruz mintza bear bada, dakienak



euskaltzaleak honelako biltzarretan beste arlo bati buruz aritu behar ziren: “Ala ere ez dut ukatuko biltzar auetan itz egiteko euskaltzaleek duten eskubidea, baiña ez euskeraren gainean, gure izkuntza nola zabaldu diteken, t. a. baiño”<sup>110</sup>. Hortaz, J. Intxausti, K. Mitxelenaren aipamen esplizitua egin gabe, K. Mitxelenaren irizkidea zen, euskaltzale eta euskalarien bereizketa egitean<sup>111</sup>.

J. Intxaustik bere burua, euskaltzaletzat zuenez, euskara zabaltzeko proposamen zehatz bat plazaratu zuen Donostiako biltzarrean: euskarari kulturaren esparrua zabaltzea. “Gogo-giroa ta jakintza-aurrerapena, orra kultura bidea. Derrior-derriorez artuko du Euskalerririk bide au, ta guk euskeraz ematen ez badiogu, Europa guztia gure izkuntzaren etsai izango da”<sup>112</sup>. J. Intxaustirentzat ordura arteko eredia, euskaraz euskarari buruz hausnartzea, antzua zen. Bere ustez, euskaltzaleentzat bide berri bat, kulturaren bidea, irekitzea beharrezkoa zen<sup>113</sup>.

“Ez il bai il gaudela, kultura, berebizikoa dugu salbabidetzat. Gure izkribuak txatala-patxalazkoak ditugu ta etorkizuneko Euskalerrria kulturaduna izango da edo ez da izango. Ongi bearrean, geienik literaturari begira gaude, ta kultura (ots, bizitz-problematika ta jakintza) aztuxeak dauzkagu”<sup>114</sup>.

J. Intxaustik kritika gogorra egin zion garaiko euskarazko liburugintzari, eskastzat hartuz, eta gauzak hala erdarazko obretara jotzea proposatzen zuen<sup>115</sup>. Erdarara jo behar ez izateko, J. Intxaustik planteatu zuen arloz arlo euskaldun espezialistak behar zirela, baita horietara egokitutako biltzarrak ere:

“Gaurko mundua geretu bear dugu: gogoak ernai ditugula, asko lor dezakegu ta noranai joan gaitzke. Euskalariak izkuntza-tresnak presta dezaizkigutela, berak bakarrik ez bada ere ta euskaltzale bakoitzak bere lantegian buru ditzala bere lanak. **Sor ditzagun euskaldun kultura-emailleak.** Europa-ko mundu onetan jaiotzen den mogimendu bakoitza euskeraz emateko espezialista bat bear litzake gutxienik. Eliza-barnean or dauzkagu, adibidez, Mundu Obeagoaren

---

du bakarrik eskubide. Ez da aski apurtxo bat idazten jakitea. (...) Izlariak gaia sakonki ezagutu bear du ta euskera euskalariak soillik ezagutzen dute bear den neurrian.” (Intxausti, 1962: 310)

<sup>110</sup> (Intxausti, 1962: 310)

<sup>111</sup> Ikus 2.1.1. *Mitxelenaren interbentzio inprobisatua* atala.

<sup>112</sup> (Intxausti, 1962: 312)

<sup>113</sup> Are gehiago euskararen baratzera euskaldunak erakarri behar baziren, gaien interesgarritasunagatik izango zen, adibidez Fidel Castrori buruzko hitzaldia antolatzea hitzaldia antolatuz.

<sup>114</sup> (Intxausti, 1962: 312)

<sup>115</sup> “Adibidez, zer egin bear lukete euskaltzale askok: gure artean argitaratu oi ditugun liburu oietako bati eldu ala Zubiri-ren “Naturaleza, Dios, Historia” deritzana irakurri? Aut-aut bat jartzekotan, nik ez nuke zalantzarik, bigarrenari elduko nioke, euskera berarentzat ere onuragarriago litzake-eta. (...) / Nik dakidanez, gure gaurko idazleetan nekez aurki liteke jakintza-idazle bikain bat” (Intxausti, 1962: 313)

Mogimendua, Kristandade-Kursilluak, ta Eliza-kanpokoetatik **nork eman lezazke Astronautika, Nuklear Fisika, Zinema-Klub oiek, Erlatibidade-teoria ta beste ainbat gauza.** (...) Ez gaitzela, Jainkoarren, izkuntzaren golde, aitzur eta igitagiei lustrea ateratzen luzarogian jardun.

Beraz, euskeraz erabil ditezken eta bear ditugun gaiek ere biltzar edo zerbeit berririk eskatzen dute.”<sup>116</sup> [beltzak gureak dira]

Horrenbestez, J. Intxaustik hitzaldia amaitu zuen proposatuz, Euskaltzaindiaren ardurapean hizlari talde bat sor zitekeela, edozein jakintza-arloko adituekin, kultura hitzaldiak emateko Euskal Herriko herri eta hirietan. Halaber aparteko aipamen bat egiten zuen unibertsitatearen gainean, askok nahi zutela, baina egonda ere, arazo latz biri aurre egin beharko ziola seinalatuz: “batetik euskalzale jakintsu gutxi ditugulako ta bestetik izkuntza bera oraindik eskas samar daukagulako”<sup>117</sup>. Ikusten denez, J. Intxaustik aipatzen zuen “euskaltzale jakintsuen” beharra, zeren jakintza euskaraz emateko ez zen nahikoa gai batean aditu eta euskalduna izatea, euskaltzalea izan behar zen. Izan ere, aditu euskaldunak baziren (adb. J. M. Barandiaran), baina ezagutza euskaraz ekoizten zutenak oso gutxi ziren. Beraz, J. Intxaustik ondorioztatu zuen euskal hitzuna izatea ez zela nahikoa euskarazko produkzioarako, edo alderantziz, euskaltzaletasunik gabe euskarazko kultur produkzioarik ezinezkoa zela.

J. Intxaustiren ostean, solasaldi mamitsua ireki zen. K. Mitxelenaren interbentzioa bereziki interesgarria izan zen. Euskalaria ados zegoen J. Intxaustirekin euskal letren pobrezia azpimarratzean<sup>118</sup>. Bestalde, K. Mitxelenaren ustez, bereiztu behar zen Euskal Herriko kultura eta euskal kultura,

“... eta euskal kultura esaten dudanean esan nai dut bakar bakarrik euskeraren bidez adierazten den kultura. Eztut esan nai orrekin euskal kulturak, esate baterako, fisikan ezer gauza berezirik izango lukean, bestetan ez bezelakoa izango litzakenak, baizik eta esan nai dut euskeraren bidez adierazten den gauza izango litzakeala. Eta jakaña, Euskalerriko istillua gai ontan euskeraren gaiñetik dago.”<sup>119</sup>

---

<sup>116</sup> (Intxausti, 1962: 313)

<sup>117</sup> (Intxausti, 1962: 314)

<sup>118</sup> K. Mitxelenak zehazki honela dio: “ni zearo bat nator Intxausti-kin mamia azala baiño ajola geiagokoa dala eta esate baterako, Zubiri-ren liburu baten artean edo erderaz egindako liburu baten artean eta euskeraz egindako askoren artean askotan obe litzakeala erderazkoa artu euskerazkoa baino” (Euskaltzaindia, 1962: 315)

<sup>119</sup> (Euskaltzaindia, 1962: 315)

Bidenabar, errenteriarrek Komunitate Zientifiko Euskaldunik ez zegoela argi zeukan, ezta aditu horiek entzuteko prest zegoen publikorik ere: “Eman dezagun, eta ezta egia, baditugula gai eta sail guztietan bear aiña euskaltzale eta euskaldun garbi gai oriek menderatzen dituztenak (...), geien geienetan gai oiek ezlukete entzulerik arkituko”<sup>120</sup>.

J. Intxaustiren hitzaldia eta osteko solasaldia alde batera utzita, L. Villasanteren hitzaldiaren gainean zertzelada pare bat eman nahi ditugu. Frantziskotar euskaltzainak hileen izenen gainean hitz egitea deliberatu zuen, Jose Luis Lizundiak Euskaltzaindira bidalitako karta baten haritik. Euskaraz argitaratzen ziren egutegiekin hileak modu desberdinean aipatzen zirela eta J. L. Lizundiak zera zioen: “Baiña au tamalgarria!, danak desberdiñak, eta desberdintasun au arritzekoa da arrotz batentzat eta lotsatzekoa euskaldunentzat”<sup>121</sup>. Sasoi hartan, hileak aipatzeko modu bateraturarik ez zegoen, nola lor zitekeen adostasuna hizkuntza batasunean? L. Villasantek egoera anarkiko hori arteztu guran, proposamen zehatz batzuk egin zituen baina proposamenok ez ziren biltzarreko entzuleen gustukoak izan, eta hitzaldiaren ostean eztabaida luzea izan zen. Bakoitzak bere iritzia azaldu zuen, baina guztietatik gure ustez interesgarriena K. Mitxelenarena da. Bere ustez, Euskaltzaindiak une hartan ez zuen nahikoa autoritaterik hileen izenen gainean erabakiren bat hartzeko, eta zalaparta sortu zen:

“Norbaitek: Euskaltzaindiak badu naiko indarra?

L. Mitxelena: eztu

Beste batek: Nik uste dut baietz. (Jenteak batera itz egiten du).

L. Mitxelena: Jaunak, mesedez. (Jenteak batera itz egiten segitzen du).

L. Mitxelena: Au jentearen arteko batzar bat da eta ezta alkarren artean eztabaidak izateko”<sup>122</sup>

Ikusten denez, Euskaltzaindia, euskararen Akademia bazen ere, hainbat arazoirengatik, erakunde ahula zen. Biltzarrak antolatu zitzakeen, baina ez oraingoz erabakirik hartu.

<sup>120</sup> (Euskaltzaindia, 1962: 316)

<sup>121</sup> (Lizundia, 1962: 327)

<sup>122</sup> (Euskaltzaindia, 1962: 335)

Laburbilduz, Donostian ez zen euskararen batasunaren inguruan aparteko saio edo eztabaidarik izan, baina euskara eta euskal kulturaren gaineko ezagutzan sakontzeko ikerketak eta erabilera sustatzeko proposamen desberdinak plazaratu ziren. Guztira 11 lan aurkeztu ziren, eta biltzar hiritarra izanik, abade eta eliztarren kopurua, Arantzazu edo Loiolan baino txikiago izan zen<sup>123</sup>.

## **2.5. Euskaltzaleen V. Biltzarra (Arantzazu, 1963)**

Euskaltzaleen Biltzarra hiru aldiz antolatu zen Arantzazun: lehenengoan 1956. urtean, bigarreanean 1963an, eta hirugarren, eta azkena, 1968. urtean. Arantzazuko bigarren batzarra besteetatik apur bat desberdina izan zen. Alde batetik, hitzaldirik gehien izan zituen batzarra izan zelako, eta beste aldetik eztabaida saioak izan arren, *Euskera* buletinean argitaratu ez zirelako.

Aurreko urtetik aukeratutako Euskaltzainburu berria, Jose Maria Lojendio, lehen egunean egon zen, eta gero Koldo Mitxelenari utzi zion biltzarra zuzentzeko ardura<sup>124</sup>. Garaian bertan Joxe Azurmendik zioenez, K. Mitxelenak ondo bete zuen bere lana. Entzulegoaren jarrera berriz, ezin nardagarriagoa izan zen: “Entzuleen artean (edo aien lekua ta itxura egiten zutenen artean, beiñepein) eten gabe marmarrean ari ziren azpiko zomorroak, berriz, ez ain ederki. Belarriak entzuteko dauzkanak, tapatu bitza.”<sup>125</sup> Agian, biltzarreko desgiro hartan, hitzaldien osteko eztabaidak garratzak izan ziren, eta horren lekukotza ez argitaratzea deliberatu zen. Zeren, J. Azurmendiri jarraituz, eztabaidak egon, egon ziren eta K. Mitxelenak “ederki manejatut zituen”<sup>126</sup>.

---

<sup>123</sup> Hizlarietatik 4 (Anai Berriotxoa, J. Intxausti, L. Villasante eta A. Zabala) eta parte hartzaileetatik 6 (Isidoro Baztarrika, Nemesio Etxaniz, Inazio Larrañaga, Manuel Lekuona, Aita Martzel eta Anizeto Zugasti).

<sup>124</sup> (Euskaltzaindia, 1963-1964: 292)

<sup>125</sup> (Azurmendi, 1963: 187)

<sup>126</sup> Aipuaren esaldi osoak honela dio: “Lan bakoitza irakurtzearen osteko eztabaidak ederki manejatut zituen Luis Mitxelena-k. Diot, Mitxelena: epiteto gabe, adjetibo askoren artean aukeratu nai ez dut-eta.” (Azurmendi, 1963: 187)

*Euskeran* argitaratutako oharraren arabera, guztira 25 lan aurkeztu ziren bi egunetan, baina gerora hainbat testu ez ziren kaleratu<sup>127</sup>. Buletinean 12 hizlariren lanak argitaratu ziren. Horretaz gainera, 10 hizlari ez ziren Arantzazura hurbildu eta bere lanak biltzarreko beste kideren batek irakurri zituen<sup>128</sup>. Hizlarietatik 11 abade edo fraide<sup>129</sup> izan ziren, eta beraz, nabarmena da biltzarraren kokalekuak eliztarren parte hartzean izan zuen eragina.

J. Azurmendiren arabera biltzarreko gaiak bi ziren: “‘Euskal iztegiaren iturburuak’ eta ‘kultur itzak euskaraz’”<sup>130</sup>. Beraz, gai nagusia hiztegia izan zen. Modu batera edo bestera hartaz aritu ziren: L. Villasante (*Sebero Altube iztegi arazoetan maisu*), J. M. Aspiroz (*Azkue jaunaren hiztegia osatzeko Naparroako Leitze-n bildutako itz-bilduma*), J. Azurmendi (*Jakin euskal kulturaren bideak lantzen*), G. Barandiaran (*Euskera iztegia, nola litzakeen*), J. Basterretxea (*Batasunerako urrhatsak, euskal analphabetismua ta kultur-hiztegia*), I. Berriatua (*Bermeoko arraintzaleen leksikua*) eta Anai Berriotxo (*Euskal-itzen maiztasuna*). Arrazoi desberdinengatik aipamen berezia merezi dute J. Azurmendi, J. Basterretxea *Oskillaso* eta Anai Berriotxoaren lanek.

J. Azurmendiren lanak bi parte zituen, lehenengoan *Jakin* aldizkariaren baitako eztabaiden berri ematen zuen, eta bigarrenean *Jakin* aldizkariaren lehen 15 zenbakietan egileek erabilitako kultur hitzak biltzen zituen. Lehenengo atala luzeagoa zen bigarrena baino, eta bertan aztertzen zen *Jakin* aldizkariaren abiapuntua, hizkuntzaren aldetik garbizalea, eta ondoko eboluzioa, zenbait eztabaiden ostean, euskara mordoilora. Horretarako eztabaidan protagonista nagusiek (*Txillardegi*, I. Bastarrika eta J. Intxausti) erabilitako argudioak jasotzen ziren<sup>131</sup>.

<sup>127</sup> Azkenean honako egile hauen lanak ez ziren argitaratu: G. Aresti, S. Arrillaga, M. Arrutza, F. Artola, E. Erkiaga, J. M. Etxaburu, J. Goikoetxea, Ibarrola andrea, A. Irigarai, K. Izagirre, Sor Maria Milagrosa, X. Tolaretxipi eta P. Zabala.

<sup>128</sup> K. Mitxelena irakurri zituen txosten gehienak (M. Arrutza, E. Erkiaga, J. M. Etxaburu, G. Barandiaran, V. Berriotxo, J. Haritxehar eta A. Urrestarazu), eta lan bana irakurri zuten: F. Mendizabalek (S. Arrillagarena), L. Villasantek (E. Agirretxerena) eta J. V. Gallastegik (J. Azpeitiarena).

<sup>129</sup> Eliztarrak honako hauek dira: J. Goikoetxea, K. Izagirre, Sor Maria Milagrosa, P. Zabala, E. Agirretxe, J. Azurmendi, G. Barandiaran, I. Berriatua, V. Berriotxo, J. Intxausti eta L. Villasante.

<sup>130</sup> (Azurmendi, 1963: 187)

<sup>131</sup> (Azurmendi, 1963-1964)

*Oskillasok* euskaldunen analfabetismoari aurre egiteko zenbait proposamen egin zituen. Esate baterako 100.000 hitz inguru izango zuen kultur hiztegia egitea planteatu zuen. Baina berak G. Barandiaranek ez bezala, bide garbizalea ez zuen egoki ikusten, ulergaitza zelako, euskara errazaren alde eginez. Berezi jakintzaren esparruan, “asko komeni baita hitz jakitun guztiak mundu guztian berdinak izatea, jakintzazko liburuak edozein hizkuntz batean irakurteko erreztasuna ez galtzeko” eta aurrerago “Errezago da kimikaki [sic] hiztegia, batez ere kimika organicurena. *Propil-2-butanu*, *etanol* eta abar hizkuntz guztientzat asmatuak diran ezker, euskarazkoak dira, euskera be hizkuntz bat baita”<sup>132</sup>.

Anai Berriotxoak, gaixo zegoelako, ezin izan zuen biltzarrera joan. Bere lana L. Villasantek irakurri zuen. Anai Berriotxoak, L. Villasantek berak idatzitako *Nere izena zan Plorentxi* liburuaren hitzaurretik hitzen maiztasunen azterketa bat egin zuen. Anai Berriotxoaren hasierako asmoa zabalagoa zen, baina maiztasunen azterketak egitea oso neketsua zenez, eta holako lanak egitea funtsezkoa zenez, zera proposatu zuen:

“Lan auek egiteko, apaizgaien artean eta fraidegaien artean ekipoan artu bear da lana, bestela denpora asko galtzen da batek bakarrik egiteko. Or erabakiko dezue zeintzuk (liburuak) artu leitekezan oiñarriztat lan au egiteko; esate baterako, Arantzazukoek zein liburu; Seminaristek beste bat eta zein; Loiolakoek, eta abar.”<sup>133</sup>

Ikusten denez, euskaltzale talde egituratu gisa agertzen da Elizaren ingurua, abade, apaizgai eta fraideekin. Oraindik beraien parte hartzea euskararen aitzineratze prozesuan segurtatuta bazegoen ere, laster, horietako asko sekularizatu ziren.

Hiztegia alde batera utzi eta bestelako gaiak jorratu zituzten hitzaldiak aipatuko ditugu segidan, hau da, euskara zabaltzeko proposamenak, eta horien baitan euskarazko irakaskuntzaren inguruko lanak. J. Azpeitia ikastolako andereñoak ume eta familien baitan euskara aitzineratzeko zenbait proposamen zehatz egin zituen<sup>134</sup>. J. Haritzelharrek euskarak Iparraldean bizi zuen egoera kaskarra, eta hortik ateratzeko

---

<sup>132</sup> (Basterretxea, 1963-1964: 385)

<sup>133</sup> (Berriotxo, 1963-1964: 393)

<sup>134</sup> J. Azpeitiak bere lanean euskal jatortasunaren alde egindako defentsarekin J. Azurmendi ez zegoen ados, eta *Egan* aldizkarian argitaratu zuen Biltzarrean Azpeitiak aurkeztutako lanaren kritika zorrotz bat (Azurmendi, 1963).

irtenbideak planteatu zituen. E. Agirretxek bere aldetik, *Gaurko izlariak eta euskera* izenburuko txostenarekin, euskaldun elizgizon gutxi zegoela eta euskarazko sermoiak gutxi egiten zirela kritikatu zuen. Hitzaldia honela hasi zuen: “Euskeraren bizia elizgizonen eskuetatik zintzilika dagola, esango nuke”<sup>135</sup>. Funtsean E. Agirretxek, Eliza, elizgizonen eta komunitate kristauaren konpromisoa eskatzen zuen euskararen bizi iraupena bermatzeko.

Euskarazko irakaskuntzari dagokionez, A. Urrestarazuk eta J. Intxaustik lan bana aurkeztu zuten. Lehenak, EKAREN ordezkari gisa<sup>136</sup>, euskararen alde egiteko, lehentasunezkoa jotzen zuen euskarazko irakaskuntza abian jartzea. Horregatik elkarrekin bi helburuak zituen: ikasliburuak egitea eta irakasle euskaldunak prestatzea. Bigarrenak, batxilerra ikasten ari diren mutilei euskara irakasteko poesia beharrezkoa zela aldarrikatu zuen. Horretarako hainbat argudio eman zituen, baita ikasleei poesia irakasteko zeuden metodo desberdinak aipatu ere. J. Intxaustik beraz, aurreko Euskaltzaleen Biltzarrean aldarrikatutako bidetik jotzen zuen bi zentzutan, alde batetik, Arantzazuko bere hitzaldirako kultur gai bat aukeratu zuelako, eta bestalde, erakutsiz euskara transmititzeko modurik onena kulturaren bidea zela, kasu honetan poesiaren bidea defendatuz.

Ikusten denez, oso barneratuta zegoen, hizlari askoren testuetan euskara kultura-hizkuntza bihurtzeko beharra. Ez bakarrik gazteen artean (J. Intxausti, *Txillardegi*, J. Azurmendi eta abarren artean) baita aurreko belaunaldietako kide askoren artean ere. Esate baterako EKAK ez zuen horretan dudarik:

“Euskeraren alde egiten dan guzia ona da, txiki naiz aundia izan. **Baña euskera bizi dedin, kultura-izkuntza biurtu bear danezkero –orixe ezinbesteko ta eraginkorrena dan bidea, nagusiena beraz–** eta kulturaren oñari bearrezkoa irakaskintza izanik, bearrezkoa zaigu euskal-irakaskintza euskeraren aldeko lan guztien erdiko ta mami bezela artzea,”<sup>137</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>135</sup> (Agirretxe, 1963-1964: 443)

<sup>136</sup> Ikus aurrerago 3.1. *Euskal Kulturaren Alde (EKA)* atala.

<sup>137</sup> (Urrestarazu, 1963-1964: 404)

Bestalde, hizkuntza batasunaren prozesuaren gaineko eztabaidak biltzarretik biltzarrera gutxitu ziren, nahiz eta batasunaren aldeko jarrera orokorra antzematen zen. Balantze gisara esan daiteke, biltzar honekin euskaltzale gazteek (adb. *Jakin* ingurukoak) ez zutela ikusten euskararen inguruan ezer aurreratu edo erabakitzen zenik. J. Azurmendiren balantzea behinik behin hori zen:

“... emen **Arantzazu-n erabaki ta asmo pratiko gutxitxo ikusi nuen**. Ori ez dela batzarre oen eginkizuna, esango zait. Ez dakit. Ez dut esaten gaizki zegoenik. Ez nuela ikusi, esan dut. Badakidana da atsegiñago dela istudioaren, teoriaren plaia gozoan igari egitea, ez obratzearen arrokarteko ur latzetan egitea baiño. Ustegabeko olatu azpiko arkaitzen baten ortz zakarrak tripa barruak urratzea, guziz kontuan eukitzekoa da gero!... Ta olagarroak ere, pulpoak, atrapa gintzazkete... Lanegitea gustatuko litzaiguke, frutu eskasei bildur ez bagenie. Bildur, bildur ikara ezur mamietaraño. Egiten denaren eta zergatikoaren segurantziazirik ez dagoenean, noski.”<sup>138</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, biltzarrean ez zen euskararen inguruan inongo erabakirik hartu, guztiz teorikoa izan zen. Halaber, ohargarria da nola deskribatzen zuen J. Azurmendik garai hartako giroan euskararen [batasunaren] inguruan zegoen immobilismoa. Ezin zen ezer egin.

## **2.6. Euskaltzaleen VI. Biltzara (Loiola, 1964)**

Euskaltzaleentzat 1964ko abuztua intentsua izan zen. Abuztuaren 22tik 24ra bitartean Euskaltzaindiak Loiolan jesuiten egoitza nagusian, Euskaltzaleen VI. Biltzara antolatu zuen eta Euskal Idazkaritzak Baionako biltzara abuztuaren 29 eta 30ean. Segidan ikusiko dugunez, Loiolakoak euskararen batasun prozesuan ez dirudi ekarpen berezirik egin zuenik, Baionakoa aldiz, hizkuntzaren batasunerako ezinbesteko hitzordua izan zen.

Loiolako jesuitek bere etxea eskaini zioten Akademiari Euskaltzaleen VI. biltzara burutzeko. Batzarreko argitalpenik ez dago, *Euskeran* argitaratutako 2 orriko

---

<sup>138</sup> (Azurmendi, 1963: 188)



laburpena izan ezik. Irakurle euskaldunen kopurua gehitzeko bideak biltzarreko gai nagusia izan zen<sup>139</sup>.

Ekitaldi hasierako ongi etorriko sarrera hitzak Antonio Arana, jesuiten nagusia, eta Koldo Mitxelenaen ardura izan ziren. Ondoren, 12 hitzaldi eta mahai-inguru antzeko bat izan zen, “Gabriel Aresti eta Aita Jose María Altuna-k alkarrizketa bat egin zuten euskal ortografiaren”<sup>140</sup>. G. Aresti eta J. M. Altunaren arteko solasaldia kenduta, ez dirudi hizkuntzaren batasunaren gainean berba egin zenik<sup>141</sup>. Nolabait, baztertu zen hizkuntzaren batasunaz berba egitea, agian ordurako bazirelako beste foro batzuk, Baionakoa adibidez.

Zernahi gisaz, eskola umeen gaineko irakaskuntzarekin lotutako hitzaldiak nagusi izan zirenak: Anai Berriotxoak, G. Barandiaran eta M. Lekuona. L. Villasantek Pedagogia aukeratu zuen. Teatroaz Piarres Larzabalek eta Antonio M<sup>a</sup> Labaienek hitzaldi bana eman zuten. Antonio Zabalak Auspoa liburu sorta aukeratu zuen, Juan Goikoetxeak Azpeitiko gazteen ekimenak, Isidoro Bastarririkak liturgia berria eta Angel Goenagak bere lehen tesia azaldu zuen<sup>142</sup>.

*Euskeran* biltzarraren gainean argitaratutako artikuluen arabera, handik ibili ziren Jose Mari Iriondo, irratiko esataria, eta Alfonso Irigoien, Euskaltzaindiko Idazkaria. Bestalde, Ibarrola deiturako andre batek ipuinak kontatu zituen. Guztira, beraz, Loiolan gutxienez 19 pertsonak parte hartu zuten. Azpimarratzekoa da, eliztarren kopuru altua, Bilbon, Eibarren edo Donostian burutu ziren biltzarretan antzematen ez zena. Loiolan, 12 hitzaldietatik 8 eliztarrak ziren hizlariak eman zituzten<sup>143</sup>. Horri

<sup>139</sup> “Euskal irakurleak geitzeko bideak, a) Euskera etxean; b) euskera eskolan; d) euskera radioan; e) euskera aldizkarietan; f) euskera gaurko liturjia berrian; g) euskera teatroan; h) irakurtzen asi berriak diranentzat literatura” (Euskaltzaindia, 1963-1964: 496)

<sup>140</sup> (Euskaltzaindia, 1963-1964: 497)

<sup>141</sup> Dena den, J. M. Lojendio eta A. Irigaraik zeri buruz hitz egin zuten ez dago zehaztuta, eta beraz, gerta liteke euskararen batasunaren gainean ekarpenen bat egitea, aurreko biltzarretan egin zuten moduan.

<sup>142</sup> A. Goenaga jesuita zen, bi tesi egin zituen bere bizitzaren luze zabalean. Lehena gaztelaniaz, hizkuntzaren filosofiaren ingurukoa eta 1966. urtean Madrilen aurkeztu zuen: “epai-mahaiean Zaragüeta, Adrados eta Lapesa zituelarik, bere HUTS hitzari buruzko tesisa” (Altuna, 1974: 439), eta bigarrena euskaraz *Sikologi hitzen euskal hiztegia* Deustuko Unibertsitatean aurkeztu zuena.

<sup>143</sup> Hau da, P. Larzabal L. Villasante, V. Berriotxoak, G. Barandiaran, A. Zavala, J. Goikoetxea, A. Goenaga, I. Bastarrika eta M. Lekuona.

guztiari gehitu behar zaio Loiolako jesuiten nagusia, A. Arana eta mahai-inguruan parte hartu zuen J. M. Altunaren izenak.

Beraz, dela gaiagatik, dela antolaketagatik, dela Baionako Biltzarrak erakarritako arretarengatik, Loiolako biltzarrak arrakasta oso txikia izan zuen. Eta horren froga dira, lanik ez zela heldu<sup>144</sup> eta parte hartzaileen kopurua oso txikia izan zela.

## **2.7. Euskal Idazkaritza eta Baionako Biltzarra (1964)**

Euskal Idazkaritza Baionan Iparraldeko “abertzale batzuek, hegoaldetik ihes etorri berriekin, kultura lanetarako”<sup>145</sup> sortu zuten 1963. urtean. Euskal Idazkaritzak bi helburu nagusi izan zituen, alde batetik euskararen batasuna Iparraldetik bideratzea eta bestalde, euskal kazetaritza eta liburugintza sustatzea. Idazkaritzako sortzaile eta kideak abertzaleak ziren jeltxak, ETAkide edo Enbatakoak. Ez da kasualitatea beraz, Idazkaritzaren Baionako egoitza Enbataren egoitzaren alboan egotea. Idazkaritzako lehendakaria Michel Labéguerie zen. Politikaria, diputatu kristau demokrata, ospetsua egin zen, besteak beste, Goiztiri etxearen bitartez argitaratutako euskal kantuen diskoekin. Beraz, abertzaleen artean ondo ikusia eta “abertzale guztien lider bihurtu zen”<sup>146</sup>.

Sasoi hartan Iparraldean ziren zenbait iheslari, besteak beste, Benito del Valle, J. Madariaga eta *Txillardegik*. *Txillardegik* 1961. urtean Donostiatik ihes egin zuen, eta 1962. urtean Baionara heldu zen Parisetik. 1964/65. ikasturtean Laborantza Eskolan matematika irakasle gisa aritu zen, 1965. urtean prefetaren aginduz, alde egin behar izan zuen arte. Euskaltzaindiak 1956. urtean euskaltzain urgazle diploma eman zion, eta Hegoaldean egon zen urte tartean Euskaltzaindiaren ohiko bileretara joan zen. Urte horietan *Txillardegik Egan* aldizkarian eta *Euskerak* buletinean euskararen inguruan bizpahiru artikulua argitaratu zituen, Euskaltzaindiari euskararen batasuna abian jar

---

<sup>144</sup> A. Irigoien, Euskaltzaindikoko idazkariak akademiaren uztailaren 26ko batzarrean bere kezka agertu zuen abuztuko biltzarrerako oraindik ez zelako lanik aurkeztu (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1964.07.26)

<sup>145</sup> (Davant, 2005: 208)

<sup>146</sup> (Txillardegik, 1994: 159)

zezan eskatuz, are hartarako proposamen zehatzak eginez<sup>147</sup>. Euskaltzaindiak, ez bere ohiko jardueretan (hileko batzarrak eta abar), ezta antolatutako euskaltzaleen biltzarretan ere, ez zuen euskararen batasuna bultzatzen. Are gehiago, Akademiaren ekitaldi publikoetako hizkuntza jarrera ikusita, eta bereziki J. Haritxelharren sarrera-hitzaldian (Baigorri, 1963) gertatutakoa eta gero, *Txillardegik* dimisioa aurkeztu zuen. J. M. Lojendiori bidali zion dimisio gutunean euskaltzain urgazle diploma bueltatu zion, Baigorri ikusitakoa deitoratuz:

“Orain arte Euskaltzaindiak ez du egiazki ezer egin batasun hunen alde: Baigorri’n bertan, batasun hau nahi ez duela agertzeko-edo, Haritxelhar jauna baxenabartarrez mintzatu da, Lafon jauna zuberotarrez, eta Lojendio jauna gipuzkoarrez. Batasunaren eragile izan nahi denean ez da jarraipide ahalkegarri hori ematen”<sup>148</sup>

*Txillardegik* salatzen zuen Akademiaren jarrera bitxizalea hizkuntza kontuetan<sup>149</sup>, baita jarrera politikoa kritikatu<sup>150</sup> ere. Dimisioaz gain, *Txillardegik*, eskari jakin bat egiten zion Akademiari, Biltzar Nagusi bat antolatzea eta bertan euskararen eta Akademiaren gaineko zortzi auziren gainean erabaki zehatzak hartzea: ortografia, euskara osotuaren oinarriak erabakitzea, aditza eta deklinazioa gutxienez, Jagon Sailaren berpiztea eta hornitzea, diru-eskea antolatuz, euskarazko irakaskuntza eskolan jartzeko eskaria prestatzea, eskoletarako liburuak gertatzeko sarien antolaketa, Elizari dei bat egitea apaizak euskaraz aritu daitezen eta azkenik aipatutako biltzarra Iparraldean antolatzea. Biltzar Nagusia eginez gero, Euskaltzaindiari barkamena eskatu eta bertara bueltatzeko arazorik ez zuela izango aipatzen zuen. J. M. Lojendiok ez zuen dimisioa onartu, diploma bueltatu eta euskararen batasuna abian jarriko zuela agindu zion.

J. M. Lojendioren hitza noiz eta nola gauzatuko zen itxaron gabe, *Txillardegi* Baionan euskal kultura sustatzeko sortutako Euskal Idazkaritzan euskararen batasunerako oinarriak lantzen hasi zen. Beraz, Euskal Idazkaritzaren esparrua

<sup>147</sup> (Txillardegi, 1956a, 1956b eta 1959)

<sup>148</sup> Dimisioa 1963an *Enbata* astekariak argitaratu zuen, baina *Txillardegiren* idazkien bilduman eskaintzen da (Txillardegi, 2004: 48-49)

<sup>149</sup> “Errazago zaio Euskaltzaindiari euskeraren BITXITASUNAZ ari izatea, euskeraren BIZITASUNAZ baiño. Bitxitasunari so egiñik, ordea, bere xedea nahasten du eta lana lardaskatzen.” (Txillardegi, 2004: 50)

<sup>150</sup> “Politikaririk egin nahi ez duela aitzakia, frankismo hutsa baizik ez du egiten Euskaltzaindiak, eta euskeraren borroeroen laguntzaille billakatzen.” (Txillardegi, 2004: 50)

kulturgintza bazen ere, azkenean bere egiteko nagusia euskararen batasunaren inguruan ardazu zen, *Txillardegiren* gidaritzapean. Gerora, Euskara Batu gisa ezagutu den euskara estandarren lehen oinarri sendoak Idazkaritzak Baionan 1964. urtean antolatutako biltzarrean eman ziren.

Baionako Biltzarra egun bikoia izan zen (abuztuaren 29-30), P. Lafitteren babespean burutu zen, eta ongi etorria eta sarrera hitzak J. L. Davant zuberotar abertzale gazteak egin zituen<sup>151</sup>. Biltzarrean Hegoaldetik joandako idazle gazteak<sup>152</sup>, Iparraldean zeuden Hegoaldeko abertzale batzuk (adb. T. Monzón), eta noski, Idazkaritzako kideek (*Txillardegi*, J. L. Davant...) parte hartu zuten.

Biltzarrean euskararen batasunerako erabaki linguistiko zenbait hartu ziren, bai ortografia, sintaxi, deklinazio eta aditzaren inguruan. Ez ziren unean bertan inprobisatutako proposamenak izan, baizik, berehala azalduko denez, urtebeteko lanaren emaitza. Erabakiok liburuxka gisa argitaratu ziren ohar xume honekin lagunduta:

“Baiona´ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak.

Batasunari buruz, euskaltzale guzietan erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.

IDAZKARITZA HIZKUNTZA SAILLAK”<sup>153</sup>

Hortxe zegoen gakoa, Baionako Biltzarrean euskararen batasunerako erabaki batzuk hartu ziren arren, erabaki horiek ez ziren arau, betetzea ala ez euskaltzale bakoitzaren esku zegoen. Horregatik, Idazkaritzak Euskaltzaindiari dei berezia egin zion, Baionako erabakiak onar zitzaizkien. Baionako erabakiok formalki P. Lartzabal eta P. Lafitte euskaltzainek aurkeztu zituzten Euskaltzaindian<sup>154</sup>. Baionako erabakien berri Euskaltzaindiak 1964ko urriko bileran izan zuen<sup>155</sup>. Bertan, batzorde bat izendatu zen

---

<sup>151</sup> (Davant, 2005)

<sup>152</sup> Hala ere, *Txillardegik* jasotzen duenez, Hegoaldeko euskaltzaleak ezin izan zuten joan Frankismoa zela-eta: “Hegoaldeko euskaltzaleei (eta gure zerrendak jasotzen zituztenei bereziki) etortzeko deia bidali zitzaizkien (Mitxelena, Intxausti, Berriatua, Garmendia, Aresti, Rikardo Arregi...); batzu heltzeko aukerarik izango ez bazuten ere (frankismoan geunden).” (*Txillardegi*, 1992: 19)

<sup>153</sup> (Euskal Idazkaritza Elkarte, 1964: 1)

<sup>154</sup> (*Txillardegi*, 1968: 70)

<sup>155</sup> (Euskaltzaindiaren batzar-agiriak, 1964.10.30)

erabakiak aztertzeko eta hurrengo hileko bileran batzordeko kideek beraien iritzia eman zuten:

“Baioa’ko [sic] erabakien inguruan, iru iritzi irakurri dira: Aita Fernando Mendizabal’ena ez txit aldekoa eta Aita Villasante eta Mitxelena’rena, elkarren antzekoak eta, erabat esateko, erabaki oriek ontzat artzen dituztenak. Onenaz [sic] garbiago mintzatu bearko du Euskaltzaindiak urrengo batean”<sup>156</sup>

Euskaltzaindiak gai honetaz mintzatzen jarraitu beharra aktan jaso arren, hurrengo bileretan ez zen berriz aipatu, eta 1968. urtera arte Arantzazuko biltzarraren prestaketa arte ez zituen Baionako erabakiak berriro ukitu.

Baionako Biltzarrean hartutako erabakien atzean Idazkaritzaren urte beteko lana zegoen. Epe horretan, astero astero, Idazkaritzaren egoitzan bildu ziren euskararen batasunerako auzi linguistikoak lantzeko. Bertara hurbiltzen ziren, J. L. Davanten arabera<sup>157</sup>, J. Solaun, T. Monzon, *Txillardegik*, E. Irigarai, P. Andiazabal, R. Idiart, eta noiz edo behin J. Madariaga, J. Hiriart-Urruty eta P. Lafitte<sup>158</sup>. Hizkuntzaren gaineko txostenak prestatzen zituzten eta bidaltzen zizkieten Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltzaleei beraien iritzia jakiteko. *Txillardegik* dioenez “Ortografia eta Deklinabidea aztertu zituzten; eta, talde gisa prestatu zituzten txostenak oro, Iparraldeko eta Hegoaldeko 150 bat euskaltzaleri banatu zitzaizkien; beren irizpideak, Baionara bidaltzeko eskatuz. (Erantzun asko jaso zen, Mitxelenaren batzu barne)”<sup>159</sup>. Biltzarrean beraz, urte osoan landutako adostasun horiek guztiak sistematizatu eta aurkeztu ziren. Horretan datza, gure ustez, Baionako Biltzarraren arrakastetako bat, erabaki akademikoak hartu ez ziren arren, erabaki horiek euskaltzale indar bizien adostasun zabalarekin eraiki zirela. Izan ere, Idazkaritzan eta bai biltzarrean ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunek, eta militantzia politiko desberdineko kideek parte hartu zuten. Are gehiago, arestian aipatu dugunez, Euskaltzaindiak 1968. urtean Arantzazun euskararen batasunaren inguruan antolatutako biltzar monografikoan, funtsean

<sup>156</sup> (Euskaltzaindiaren batzar-agiriak, 1964.11.27)

<sup>157</sup> (Davant, 2005: 208)

<sup>158</sup> *Txillardegik* Jexux Mari Bilbao ere aipatzen du (Txillardegik, 1992: 19).

<sup>159</sup> (Txillardegik, 1984: 52). Beranduago idatzitako beste artikuluko batean *Txillardegik* aipatzen du txostena Hegoaldeko 80 euskaltzaleri bidaltzen zitzaizela (Txillardegik, 1992). Horrek esan nahi du Iparraldean 70 bat euskaltzale edota aditu zirela? Datua agian puztuta egon liteke.

Baionako erabakiak ontzat eman zituen K. Mitxelenaren txostena onartzean. Izan ere, K. Mitxelenaren txostenak, Baionako erabakiak jasotzen eta osatzen zituen.

Biltzarraz geroztik, Euskal Idazkaritzak ez zuen luzaroan jarraitu<sup>160</sup>. *Txillardegi* laster kanporatua izan zen, eta Iparraldean zeuden abertzaleen artean, biltzarreko erabakiak zirela-eta, desgiroa sortu zen. *Txillardegik* dionez, “oinarrian hizkuntza-arazo zena, erabat politizatu zen”<sup>161</sup>. Azken finean, Euskal Idazkaritzako zuzendaritzako kide batzuk ETAkoak eta beste batzuk Enbatakoak, besteak beste, H-aren erabileran alde egin zuten, eta aldiz jeltokideek H-aren kontra.

Euskal Idazkaritza desagertu bazen ere, Baionako erabakiak *Jakin* aldizkariak eta zenbait idazlek (adb. G. Aresti) aintzat hartu eta aplikatu zituzten<sup>162</sup>.

## 2.8. *Jakinlarien bilerak*

Baionako biltzarrekin bat egin zuen 1964ko Jakinlarien bilerak. “Ikasleen artean Arantzazun landutako proposamenak hara eramateko eta Baionako erabakiak alde zuzentzek ere onartutzat emanez”<sup>163</sup>. Joseba Intxausti joan zen Baionara taldearen izenean.

*Jakin* aldizkariaren ingurumarian, 1957-1967. urteen artean, Jakinlarien bilerak antolatzen ziren<sup>164</sup>. Bilerok aldizkariaren beraren historiari lotuta daude, baita euskara ereduaren garaiko eztabaidei. Bilerei buruz Joxe Azurmendik artikulu bat prestatu eta argitaratu zuen aldizkariaren 2007ko ospakizunaren kariaz, eta bertan bileretan

---

<sup>160</sup> Hala ere J. L. Davant-en arabera Idazkaritzak jarraitu zuen 1965. urtera arte, eta 1964ko biltzarra antolatzeaz gainera Lauaxeta Sariak sortu zituen. Lehen saria 1964an bertan Juan San Martini eman zioten eta hurrengo urteko saria Rikardo Arregiri (Davant, 2004: 637)

<sup>161</sup> (Txillardegi, 1992: 20)

<sup>162</sup> Jose Antonio Letamendiak 1968ko Ermuko bileran aurkeztutako txostenean zioenez: “Baiona’ko Biltzarra oso urrats inportante izan zen. Askok, gazteek batez ere, jarraitu dute bide hori” (Letamendia, 1968: 27)

<sup>163</sup> (Intxausti, 2007b: 67)

<sup>164</sup> Bileretan hitz egindakoa aldizkarian argitaratu zen laburbilduta (Mendizabal, 1957 eta 1958; Enbeita, 1959 eta Azurmendi, 1960)

eztabaidatutako gaiak, hizlariak, parte hartzaileak eta bestelako hainbat datu ematen ditu<sup>165</sup>. Hein handiz guk hemen J. Azurmendiri jarraitzen diogu.

Lehen bilera Arantzazun egin zen (1957) aldizkariko lankideak elkar ezagutzeko, eta aldizkariaren gainean hausnartzeko. *Jakinen* apaiztegi desberdinetan ikasten ari ziren ikasle euskaltzaleek parte hartzen zuten, eta “ez dute elkar ezagutzen, aldizkaria sortzeko asmotan trukatu dituzten gutunen bitartez baino”<sup>166</sup>. Hala ere, Jakinlarien bilerek ez zituzten erakarri nahi bezainbat apaiztegi-tako ikasle euskaltzale, horrek beren karreretan izan zezakeen eraginaren beldur zirelako. J. Azurmendik jasotzen duen lekukotzak argi aitortzen du: “langintza orretan ari gerala balekitez, irakasleek agian fitxatu egingo ginduzkete” (1960-10-08)”<sup>167</sup>. Euskaltzaletasunagatik fitxaketak ikaslearen karrera erabat baldintza zezakeen: “Eta ordena erlijioso batean euskaltzale bezala fitxatua egoteak esan gura zuen, karrera amaitu eta Cochamban misiolari buka zenezakeela batere bokaziorik gabe”<sup>168</sup>.

Bestalde, aldizkariaren gaineko hausnarketa, funtsean aldizkariaren hizkuntza ereduaren eztabaidan zentratu zen: euskara garbia edo euskara mordoiloaren gaineko auzian, bereziki lehenengo hiru urteetako bileretan (1957-1959). Eztabaidak garrantzak ziren, eta irtenbide argirik ez zuten ateratzen, 1959ko batzarrean hiru puntu onartu ziren: alde batetik *Jakintxo* agerkari txikia sortzea “aldizkaria arintzeko hizkuntzaren inguruko eztabaidak hara bideratuz”<sup>169</sup>, bestetik, Jakinlarien hurrengo bilerak alde aurretik erabakitako gai batzuen inguruan egitea, eta hizkuntza ereduaren eztabaida gainditzea, eta azkenik irakurleen artean inkesta bat egitea lexiko berezituaren gainean. Hurrengo urteko bileran beraz, zenbait hitzaldi izan ziren, euskara eta euskal kulturaren gainekoak, baina hizkuntzaren auzia ez zuen inork aipatu, eta hurrengo urteko bilerako gaia finkatu zen, filosofiaren historiari buruzkoa izango zen. Horretaz guztiaz gain, 1960ko bileran Jakinlarien bileran laikoak onartzea erabaki zen.

---

<sup>165</sup> (Azurmendi, 2007a)

<sup>166</sup> (Azurmendi, 2007a: 77)

<sup>167</sup> (Azurmendi, 2007a: 109)

<sup>168</sup> (Azurmendi, 2007a: 109)

<sup>169</sup> (Azurmendi, 2007a: 106)

*Jakin* aldizkariak 60ko hamarkadaren hasieran teologi jardunak apur bat baztertu eta kultur aldizkari modernoa izan nahi zuen. Horregatik 1961. urtean aldizkaria inprentan egitea erabaki zuten, produktuaren kalitate materiala hobetzeko<sup>170</sup>. Baina modernizatzen ari zen unean, debekua jausi zitzaion. Aldizkaria ez zen 1964. urtera arte berriz kaleratu baina, *Jakin*larien bilerak etenik gabe antolatu ziren. Bileretarako aukeratutako gaietan ere aldizkarian antzemandako modernizazio gogo nabarmena da: iraultza (1962)<sup>171</sup>, Europa (1963), “Pacem in Terris”, edo 1963ko Erromako Entziklikaren gainean (1964), eta gobernua (1965). 1966. urtean ez zen bilerarik egin eta hurrengo urtekoan aldizkariaren zuzendaritzaren gaineko eztabaida nagusi izan zen.

Bilerako hitzaldietako txostenak apaiztegitik kanpoko adituek zein ikasleek prestatu zituzten. J. Azurmendik dioenez, apaiztegitako ikasle gazteei erreferentzia eginez, txostenok gogo handiarekin egiten ziren, boluntarismoan oinarritzen ziren, eta oztopoak borondatearekin gainditzen saiatzen ziren. Oztopo nagusiak bi ziren: bata hizkuntza, eta bestea, gaia. Hau da, txostenak euskarazko erregistro jasoan idatzi eta ahoz azaldu behar ziren. Beraz, egileak gutxienez alfabetatuta egon behar zuen. Euskarazko alfabetatzearen historia egiteko dugun arren<sup>172</sup>, garai honetan pentsatzekoa da euskaldunak euskaraz idazteko autoalfabetatzen zirela. Arantzazun bertan hori gertatu zen<sup>173</sup>. Gaiari dagokionez, oztopo nagusiak era bitakoak ziren: alde batetik egileak oraindik ikasleak zirela, formatzen ari zirela, eta oraindik nahikoa prestakuntza teorikorik ez zutela; eta bestetik bileretarako aukeratutako gaiak gaurkotasun handikoak zirenez, ikastetxeetako liburutegietan ez zuten informaziorik gaiok lantzeko. Horren ondorioz, gomendio hau egiten zuten antolatzaileek: “komeni litzake lanari azken ikutua eman aurretik, erderaratu ta espezialista on bati erakustea, bere eritzia eman dezan”<sup>174</sup>. Edozein kasutan, bileretatik sortutako materiala ondoko urteetan *Jakinek* argitaratutako zenbait libururen abiapuntu izan zen: *Filosofiaren kondaira I* (1965), *Europa* (1965)...

---

<sup>170</sup> P. Agirrebaltzategiren arabera, ordura arte jakin litografiaz botatzen zen, eta azala eta aurkibidea tipografiaz. (Agirrebaltzategi, 2007a: 72)

<sup>171</sup> 1961ko bileran landutako gaia ezezaguna da, bilerako agiririk ez dagoelako.

<sup>172</sup> (Intxausti, 2007b: 68)

<sup>173</sup> J. Azurmendik berak horrela aitortzen du, bera autoalfabetatu zela (2007a: 103)

<sup>174</sup> (Azurmendi, 2007a: 109)



Balantze modura, eta J. Intxaustiren aitortza hona lekualdatuz, bilerek bi funtzio bete zituzten: lehena euskaltzaleen topagune izatea, euskaltzaleek elkar ezagutzeko balio izan baitzuten, eta bigarrena, euskara idatziaren batasuna sustatzea<sup>175</sup>. Hasieran, batasun horren gainean bide teorikotik abiatuz, hizkuntzaren ereduaren gaineko eztabaiden bidez, eta ondoren askozaz ere bide praktikoagoetatik, alor bateko gai zehatzak euskaraz landuz.

## 2.9. Idazleen Ermuko Bilera

Euskaltzaindiak 1968ko irailean Oñatin euskararen batasuna lantzeko antolatu behar zuen biltzarren kariaz, idazleak Euskaltzaindia presionatzeko eta literatura hizkuntzaren batasuna urratzeko, Bizkaiko Ermua herrian 3 egunetako bilera bat antolatu zuten ekainean. Batzarra Gerediaga elkarte bizkaitarrak antolatu zuen.

Biltzarrean 5 txosten aurkeztu ziren. Jose Antonio Letamendiak euskararen batasunaren inguruko iritziak bildu zituen, XX. mende hasieratik abiatuz. Salvador Garmendiak euskararen batasunaren inguruan zenbait proposamen egin zituen<sup>176</sup>. Imanol Laspiur euskal joskeraren gainean aritu zen eta, Aingeru Irigaraik literatur euskararen batasunerako proposamen batzuk aurkeztu zituen. Azken orduan P. Lafitte euskaltzainak batasunaren bideak izeneko txostena aurkeztu zuen. Errefuxiatu zegoen *Txillardegik*, Ermuko Bileran ezin izan zuen parte hartu, baina txostena bidali zuen. Bertan, 1964ko Baionako biltzarrean hartutako erabakien nondik norakoak azaltzen zituen, Ermuan bildutako idazleei aintzat hartzeko eskatuz<sup>177</sup>.

Idazleek onartutako bilera agiriak (*Ermua'ko Euskal Idazleen Jardunaldien erabakiak* izenekoa), eduki desberdineko 9 puntu zituen: arestian aipatutako 3 txostenen (J. A. Letamendia, S. Garmendia eta I. Laspiurrek prestatutakoak) onarpena; euskal

<sup>175</sup> (Intxausti, 2007b: 66)

<sup>176</sup> "... eta hitzaldiaren ondoren, S. Garmendiak proposaturiko 8 puntuok banan banan aztertu dira, boto-bide erabakiaz zein onartu ta zein baztertu" (Garmendia, 1968: 36). S. Garmendiaren 8 puntuetatik 6 onartu ziren.

<sup>177</sup> "Lan hartako guztien izenean ausartzen naiz ni gure azterketak kontuan hartzeko eskatzera. Gure erabakiak ez ziran arinki hartuak izan, nahiz zenbaitek beharbada hori pentsatu badute ere. 1964-ko Baiona'ko Erabakien defentsa egitea bidezkoa iruditzen zait, lan-bilkura askoren ondorio izan baitziran" (Txillardegi, 1968: 70)

idazleen elkarte bat sortzeko proposamena; *Jakin* eta *Anaitasuna* aldizkariak, modu diferentean bada ere, euskara literarioaren alde jartzea; aditzaren batasuna abiatzeko Euskaltzaindiari batzorde bat eratzeko proposamena –baita hartarako izenak eman ere–; Euskal Herriko egunkariei euskarazko sail bat sortzeko eskaera; H-aren inguruan Baionan hartutako erabakiak ontzat ematea; Euskaltzaindiaren Oñatiko biltzarren erabakiak “al danik eta azkarren “EUSKERA” bere aldizkariaren separata batean ateratzeko, herriaren eta idazleen jakinbiderako”<sup>178</sup> eskatzea; A. Irigarairen eskariz, Karmelo Etxenagusiaren idazleen antologi biak argitaratzeko proposamena; eta azkenik “Ikastoletako andereño ta zuzendariei laguntza eskeiñi, euskera literario batuari buruz: hitzaldiak, ikasleak, arrazoiak eta abar”<sup>179</sup>.

Txostenok, baita idazleek hartutako erabakien agiria ere, *Jakin* aldizkarian argitaratu ziren (31/32. zkiak). Izan ere, *Jakin* aldizkariak bileran bertan agertu zuen bere atxikimendua, eta “oraindik lotzen da Oñati’n Iraillean Euskaltziandiak (sic) artuko dituen erabakietara”<sup>180</sup>. Beraz, Baionako 1964ko biltzarraz geroztik, *Jakin* aldizkariak euskararen batasunproiektuekin bat egiten zuen. *Anaitasuna* aldizkaria Bizkaiko euskaraz argitaratu arren, “baiñan orrialde bat aterako du euskera literario batuan, Bizkai’ko herrialdea gertutzen joateko. Fonetismoak eta baztertuko ditu zearo, aditzean ezingo du oraindik bizkaiera utzi”<sup>181</sup>. Proposamen berdina egin zuen P. Lafitte euskaltzain kalonjeak, *Herria* astekariarentzat<sup>182</sup>. Egia esan, Bizkaiko euskaltzale asko horrela alfabetatu ziren 70eko hamarkadaren hasieran.

Ermuko bileran idazleek zin bat egin zuten (“Ermuko zina”): literatur euskararen gainean hartutako erabakiak, eta Euskaltzaindiak Oñatiko bileran erabakiko

---

<sup>178</sup> (ZZEE, 1968: 74)

<sup>179</sup> (ZZEE, 1968: 74)

<sup>180</sup> (ZZEE, 1968: 73)

<sup>181</sup> (ZZEE, 1968: 73)

<sup>182</sup> P. Lafitteren txosteneko proposamena *Anaitasunaren* inguruan: “Erran duzue ANAITASUNA’k idatziko duela Bizkaiko eskuaran, eta nik erraiten dut ontsa dela, eta hala egin behar dela, eta guk ere HERRIA’n gauza bera egingen dugula, gure eskuara erabilliko dugula. Baiñan aste guzietz artikulu bat, eta eman dezagun lehenbiziko artikulu hura, behar dena eta serioseña, gure delako hizkuntza batatu hortan egingen dugula beti. Uste dut hori denek egin behar dugula.” (Lafitte, 1968: 64)

zituenak errespetatu eta jarraituko zituztela. *Txillardegik* bilerara joaterik izan ez zuen arren, bere txostenean esplizituki adierazita utzi zuen bere zina<sup>183</sup>.

*Txillardegik* Ermuan, aurretik Euskaltzaindiaren maiatzeko bileran egindako zina berretsi zuen. Bertan adierazten zuen Euskaltzaindiaren biltzarrean hartutako erabakiak jarraituko zituela, Baionako biltzarreko erabakien kontrakoak baziren ere, euskararen batasunak aurrera egin zezan<sup>184</sup>.

*Txillardegiren* eta geroko Ermuko zina bi modutara uler daiteke: batetik Euskaltzaindia presionatzeko modu gisa Arantzazun literatur batasunaren inguruan erabakiak har zituan, eta bestetik Euskaltzaindia babesteko gisa ere, erabakiek oinarri eta babes soziala izango zutela adieraziz eta autoritatea aitortuz. Idazleak Euskaltzaindiak erabakiak har zituan gogoz zeuden, Akademiak zer erabakiko zuen jakin gabe ere, aldez aurretik beraien onespina ematen zioten, batasunaren alde bazen. Imanol Laspiurren txostenaren amaieran agertzen da oso ondo idazleen batasunaren aldeko eskari gogotsua:

“Euskaltzaindia’k erabakiak artu bitza; zein zokoratu, zein on-artu. Araudi bat argitara eman dezala eta errebista, aldizkari, irrati, ikastola ta bestelako zuzendari ta erresponsibleek gogoz artu dezatela araudi ori, izlari ta idazle guztiak bat etorri ditezen.

Euskaltzaindia’k zelako erabakiak artuko dituen zai naiz; bere araudia jakiteko irrikitzen nago. Asko ikasi bearra dugu ta, baita ere, buru makurtu bearra sendo. Htxea (sic) dalako orretaz bakarrik naikoa burrukaldi izango da; baiña burruka zintzo baten ondoren benetako arrazoiak ikusi ditzagun eta bat etorri gaitezen, bestela, alkarri ez-ezik, euskerari berari adar-jotzen ari izango gera. Ez dut iñoiz hatxez idatzi. Ala ere Euskaltzaindia’k nai ta nai-ez artu bear dugula esaten digunean, ni hatxez idazten asiko naiz eta ez dut utziko.”<sup>185</sup>

Ikusten denez, 1968. urterako euskararen batasunaren eskaria handia zen: G. Aresti moduko idazleak, *Txillardegi* erako euskalari eta euskaltzaleak, ikastoletako irakasleak, euskal aldizkarien arduradunak (J. Intxausti, I. Berriatua eta abar)... denek

<sup>183</sup> “Gauzak horrela, bidezkoa iruditzen zait Euskaltzaindia’ren azken hitzari DENOK menegitea. Zein erakunde hoberik Euskaltzaindia baiño, eta nor jantziagorik Mitxelena baiño? Nik neuk bederen hala egingo dut: Euskaltzaindia’ren erabakizunak aldez aurretik onartzen ditut; eta nere izkribuetan Euskaltzaindia’ren erabakien arabera idaztea agintzen dut gaurdanik” (*Txillardegi*, 1968: 70)

<sup>184</sup> Euskaltzaindiaren aktan honakoa jasotzen da: “*Txillardegi* euskaltzain laguntzailearen karta baten berri eman da. Literatura euskeraren batasun (sic) alderako gogoia adierazten du, esanaz, leenago eurak *Baionako Biltzarren erabakiak*, 1964-an *Euskal Idazkaritza*-ren ardurapean artu zituzten erabaki aiek ontzat artzen ez badira ere, artzen dan erabakia artzen dala, bera gertu dagoala jarraitzeko, baiña arren, batasun ori egin dezagula bein betiko” (ikus Euskaltzaindiaren batzar-agiriak, 1968.5.31)

<sup>185</sup> (Laspiur, 1968: 57)

euskararen batasuna eskatzen zuten, eta eskari gero eta antolatuago horrek, Euskaltzaindiari gero eta presio handiago egiten zion literatur euskararen batasunaren gainean<sup>186</sup>.

Euskaltzaindiak, berriz, bestela bizi zuen egoera. Ermuko idazleen bilerara ez zen joan “idazle bakoitzaren iritzia librea izan dedin, biltzar oietan Euskaltzaindia ez naastatzea obe dela esan da”<sup>187</sup>, hau da, Euskaltzaindiak ez omen zituen idazleak presionatu nahi.

## **2.10. “Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak” edo Euskaltzaleen VII. Biltzarra (Arantzazu, 1968)**

Euskararen batasunaren erronka Euskaltzaindiaren biltzarretik biltzarrera epelduz zihoala arestian ikusi dugu. Urteekin euskararen batasunari buruzko eztabaida Euskaltzainditik kanpoko foro batzuetan kokatu zen. Horren adibide dira Baionako biltzarra eta Ermuko Bilera. Itxura guztien arabera, 1968ko biltzarra ere, hasieran behintzat, ez zirudien hizkuntzaren batasunaren gaia errotik lantzeko zenik. L. Villasantek Akademiaren 1967ko urtarrileko bileran proposatu zuen 1968ko biltzarra akademiaren 50. urre ezteiak ospatzeko erabil zitekeela<sup>188</sup>, besterik zehaztu gabe. Urtebete beranduagoko bileran aipatzen da “Oñatin egin ditekian biltzar nagusian iztegi gaia erabili ditekela esan da”<sup>189</sup>. Harik eta euskaltzain urgazle batek, G. Arestik hain zuzen, biltzarra batasunari dedikatzea eskatu zuen arte<sup>190</sup>. Euskaltzaindiaren urtarrileko batzarrean gaia irten eta eztabaidatu zen, eta otsailean akademiak 1968ko biltzarra euskararen batasunari dedikatzea erabaki zuen<sup>191</sup>.

---

<sup>186</sup> “Baiña batasuna behar dugu berealatik. Gure ikastoletan zai ditugu hurrak (sic), ehunka; gure ikasguetan zai ditugu euskaldun ikasleak, ehunka ere, euskal literatura irakurtzeko hirrikan; gure irakasleak zai daude. Literaturazko euskeraren batasunaren zai daude, hain zuzen” (Txillardegia, 1968: 70)

<sup>187</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.4.26)

<sup>188</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.1.27)

<sup>189</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.1.26)

<sup>190</sup> “Aresti’k dio ordua dela euskeraren batasuna seriozki artzeko eta biltzar nagusi orretarako gairik bearrezkoena euskeraren batasuna dala” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.1.26)

<sup>191</sup> “Oñatiko biltzar nagusirako literatura euskeraren batasuna erabagi da gaitzat, eta oiek izendatu dira erabagi edo asmo bideratzea beren gain artuko dutenak: Lekuona euskaltzainburua, Mitxelena, Villasante, Basterretxea “Oskillaso”, Lafitte, Akesolo, Salvador Garmendia eta Larzabal jaunak” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.2.23)

Azkenean L. Villasanteren proposamena, erakundearen urre-ezteiak ospatzea, eta G. Arestirena, literatur euskararen batasunari buruz aritzea, biak Oñatin 1968ko irailean uztartzea erabaki zen. Eta beraz, Oñatin jaialdi bat eta biltzar akademiko bat egiteko deliberoa hartu zen, bata bestearen jarraian. Hasierako asmoa hori bazen ere, diktadurak ospakizuna zein biltzarra mugatu eta baldintzatu zituen.

Oñati eta iraila aukeratzeko arrazoiak sinbolikoak eta aldi berean historikoak ziren. 1918ko Oñatiko kongresuan eman zen Akademia sortzeko lehen pausu sendoa. Beraz, Euskaltzaindiaren asmoa zen sorburu sinbolikora itzultzea eta erakundearen urre ezteiak edo 50. urteurrena ospatzea. Oñatiko mende hasierako kongresua irailean izan zenez, 1968koa ere irailean egitea aurreikusi zen<sup>192</sup>. Baina Gipuzkoan salbuespen egoera ezarri zuten, Akademiak Oñatiko alkatearekin batera, jaialdia eta biltzarra elkarrengandik bereiztea adostu zuen<sup>193</sup>. Azkenean, jaialdia azaroan egin zen, eta biltzarra urriaren lehenengo egunetan. J. M. Satrustegiren arabera alkateak proposatu zion Akademiari biltzarra Oñatin egin beharrean Arantzazun egitea, frantziskotarren egoitzan. Frantziskotarren baieztekoarekin, eta gobernuaren baimenarekin, azkenean Euskaltzaleen VII. Biltzarra literatur euskararen batasuna lantzeko Arantzazun, atzerapen apur batekin, urriaren 3tik 5era bitartean burutu zen<sup>194</sup>.

Tartean, J. M. Satrustegik jasota dakarrenez, Euskaltzaindiko kide batzuk (M. Lekuona euskaltzainburua, K. Mitxelena eta J. M. Satrustegi) Espainiako Serra Estruchekin, Ministerio de Educacion y Ciencia-ko funtzionarioarekin bildu ziren Euskal Herrian Arantzazuko biltzarra baino lehen. Euskaltzainen harridurarako jatorri katalaneko espainiar funtzionarioak euskararen batasun beharraz mintzatu zitzaizkien: “y subrayó con énfasis la necesidad urgente de un idioma unificado para poder responder con garantía a los retos de futuro”<sup>195</sup>. Dirudienez, bultzada honekin M. Lekuonak prozesuarekin aurrera egiteko aukera ikusi zuen. Batasunaren gainean jarduteko

<sup>192</sup> (Satrustegi, 1999b: 326)

<sup>193</sup> “Gipuzkoak une honetan duan egoera ikusirik, il onen azkenengo aste osoan egiteko ziran billera nagusiak eta jaialdiak alkarretarik banantzea pentsatu da: lehen partean literatura batasunari buruzko billerak eta bigarren partean urre-ezteiak ospatzeko jaialdiak” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiria, 1968.8.30)

<sup>194</sup> (Satrustegi, 1999b: 326)

<sup>195</sup> (Satrustegi, 1999b: 326)

Euskaltzaindiak batzorde bat izendatu zuen, eta batzorde buru gisa K. Mitxelena<sup>196</sup>. K. Mitxelenak, euskaltzain eta Salamancako Unibertsitateko *Lingüística Indoeuropeako* katedraduna, hartu zuen txosten nagusia prestatzeko enkargua, baita prozesua bideratzeko ardura ere. Horrela bihurtu zen K. Mitxelena batasun prozesuaren egokitzailerik, bai hizkuntzalaritzaren aldetik, bai hizkuntzaren oinarri sozialaren aldetik, gazte euskaltzaleen batasun eskaria eta Akademiaren gogo eta gaitasunen araberako oreka bat bilatuz.

Biltzar akademikoaren antolaketa bi alderdi izan zituen, alde batetik edukizkoa, eztabaidarako txostenak prestatzea, horretarako batzorde bat izendatuz, eta bestaldetik kudeaketa arrunteko kontuak<sup>197</sup>. Esate baterako Euskaltzaindiak *Sociedad Internacional de Azafatas, SA* enpresaren karta bat jaso zuen biltzarkideen harrerarako eta hartu emanetarako eskaintza batekin. Euskaltzaindiaren erantzuna honakoa izan zen: “eginkizun hauek gure artekoekin betetzen dugularik eta gainera gure artean euskeraz izan behar dalako, ezezkoa ematen zaie”<sup>198</sup>.

Arantzazun 1968. urtean lehen aldiz, Akademiak antolatutako Euskaltzaleen biltzarraren sarrera hitzak Euskaltzainburuak eman zituen, hau da, Manuel Lekuonak (*Batasunaren bearra zergaitik eta zertarako*). Nolabait, erakutsiz erakundearen erabateko inplikazioa gaian, agian ordura arte euskararen batasunaren inguruan erakundeak emandako irudi epela gainditu guran. M. Lekuonaren lehen hitzak oso argiak ziren eta auzia zuzenean aurkezten zuten: “Jaun eta andreak: / Euskaltzaindiari, aurten bere 50’gn. urte-betetzearen arlo ta zeregin berezi bezela, Euskeraren Batasuna eratu dezala eskatu zaio.”<sup>199</sup> M. Lekuonak dio *Akademiari eskatu zaio* eta ez *Akademiak erabaki du*, hau da, Euskaltzaindiak euskararen batasun prozesua abian jartzen zuen euskaltzaleen sektore batzuetatik jasotako presioarengatik<sup>200</sup>. Halaber, M. Lekuonak

---

<sup>196</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.4.26)

<sup>197</sup> Biltzarkideen 50 pezeta ordaindu behar zuten parte hartzeko, baina prezio horretan sartzen zen multikopiaz egindako txostenen kopia jasotzeko eskubideak. Bestalde K. Santamariak proposatu zuen ikasleak diren euskaltzain urgazleak ziren ikasleei akademiak ordaintzea Arantzazuko egonaldia. Euskaltzaindiak onartu egin zuen proposamena, eta A. Zatarainek, semea, 1.000 pezeta eman zituen horretarako (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968-9-27)

<sup>198</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.9.27)

<sup>199</sup> (Lekuona, 1968a: 139)

<sup>200</sup> “Aizkenik (sic), Uzta-illean, euskal-idazleen batzar bat egin da Ermua’n, batasunari dagokion zenbait gauza erabakitzeko; eta, an batzartu diran idazleak ere –geienak bederenik- eskabide bera egin-edo diote

aipatu zuen Euskaltzaindiak batasuna hiru esparru hauetarako aproposa zela: aldizkarietzat, ikastolentzat eta Elizarentzat<sup>201</sup>. Beraz, M. Lekuonak biltzarraren sarrera hitzaldian batasunaren alde egin zuen, nahiz eta prozesuari mugak ikusten zizkion, batasunak euskararen arazo guztiak ez zituelako konponduko. Zernahi gisaz, amaieran inondik inora bete ez zen konkordia eskabidea egin zuen<sup>202</sup>. Eztabaida gorria izan zen bai biltzarrean<sup>203</sup> bai osteko urteetan ere, H-aren inguruan polarizatu zirelarik batasunaren aldeko eta kontrako jarrerak.

K. Mitxelena eta bere batzordeak biltzarreko ponentzia nagusiak aurkeztu zituen euskararen batasunerako ortografiaraz, lexikoaz eta deklinabidez. Gehiago edo gutxiago, ponentziok 1964ko Baionako bileraren zordun agertzen ziren. K. Mitxelena berak aitortzen zuen ortografiari buruzko bere txostenean, oinarrian Baionako erabakiak hartzen zituela<sup>204</sup>. Era horretara bide ez ofizial batetik euskararen batasunaren inguruan hartutako erabakiak ofizialdu eta instituzionalizatu ziren. *Txillardegiren* tesiaren arabera “bai Arantzazuko Bilera, bai Euskaltzaindiak prestatutako txostenak, Euskaltzaindiatik at mamitutako gizarte-mugimendu hazkor bati nolazpait erantzuna ematekoan moldatu ziren”<sup>205</sup>.

Ekitaldi akademikoa beraz, M. Lekuonaren sarrera hitzekin abiatu zen. Biltzarrean Euskaltzaindiak 5 ponentzia nagusi aurkeztu zituen<sup>206</sup>, eta beste 12

---

gure Euskaltzaindiari: batasuna eratu dezagula, alegia, batasuna eratzekeo zer-egina gure gain artu dezagula” (Lekuona, 1968a: 139)

<sup>201</sup> “Itz bitan: batasuna bi (sic) gauza oietan: a) aldizkarietan (“Zeruko Argian”, “Anaitasunean”, “Yakin’en”, “Jaunaren deian”, “Laiaketan” etab. etab.; eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab.; d) Liturgiaren zenbait zatitan...” (Lekuona, 1968a: 139-140)

<sup>202</sup> “Oñati’n gaude: oñeztar eta ganboarren lur jatorrean... Ez gatzazkiela, gure arbaso makur aien urratsai jarrai inolaz ere. Ez gatzazkiela Arantzazu’ra, batzuek oñeztar eta besteak ganboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, beste iritzikoen aurka gudatzeko prest. Dezagula pake, dezagula batasun –biotzeko batasun– gure BATASUNARI BURUZKO eztabaidak asterakoan. Eta pake ortan jarrai dezagula, eztabaidak dirauten arte guztian. Eta berdin gero ta gero ere” (Lekuona, 1968a: 141)

<sup>203</sup> Ikus J. M. Satrustegiren kronika (Satrustegi, 1999b)

<sup>204</sup> “1964-ean Baiona’n egin zen biltzarraren erabakiak hartzen ditut oinarritzat, punturik gehienak astiroago ukituaz” (Mitxelena, 1968: 205)

<sup>205</sup> (Txillardegi, 1992: 15)

<sup>206</sup> Ponentzia nagusien egileak eta gaiak honakoak izan ziren: L. Villasante (*Batasunari buruz bibliografia* eta *Antziñako euskal hitzen formaz*), S. Garmendia (*Deklinazioa*), A. Zatarain (*Euskerazko itz berriak*) eta K. Mitxelena (*Ortografia*). Beraz 4 hizlari aritu ziren, 5 ponentzia aurkeztuz.

pertsonak txostenak bidali zituzten. Araudiak zehazten zuen “txosten auek euskeraz izan bearko dira”<sup>207</sup>.

“Amabi dira, guztira, artutako txostenak. Oietatik lau (Txillardegi, X. Gereño, J. M. Lojendio eta Iratzeder), batasunaz ari dira. Beste iruk bai batasunaren auzia eta bai “h” letrarena ere aipatzen dute (J. Mokoroa, Aita Onaindia eta Kamiñazpi). Beste iruk “h” letraren auzia astintzen dut (J. Etxaide, R. Murua, F. Krutwig). Euskera batuaren itzen auzia ikutzen du batek (Carlos Santamaría). Eta deklinazioaren auzia beste batek (Kerexeta)”<sup>208</sup>

Jasotako lanak ez ziren osorik argitaratu, ideia nagusiak baizik, eta atal honi izenburu argigarria jarri zitzaion: “Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka”. Hain zuzen ere, txostengileetako batzuk euskara idatziaren batasunaren guztiz aurka zeudelako eta beste batzuk hil ala bizikoa ikusten zutelako. *Txillardegi*, X. Gereño eta *Iratzeder* batasunaren alde agertu ziren, J. M. Lojendiok berriz, euskalki bat, gipuzkera, eta ez gipuzkera osatua, erregistro idatzian erabiltzea proposatu zuen. J. M. Mokoroak, ez zuen batasunaren beharrik ikusten, eta H-aren aurka egin zuen, Aita Onaindiak antzeko jarrera agertu zuen, eta *Kamiñazpi* lapidarioa izan zen: “Euskeraren batasuna euskalkien eriotza da” eta “H ezelan be ez genduke erabilli biar”<sup>209</sup>. R. Murua ere H-aren kontra agertu bazen, I. M. Etxaide eta F. Krutwig alde zeuden. Azkenean H-a garai honetako euskararen batasunaren inguruko eztabaidaren ikurra bihurtu zen, eta oro har H-aren alde egotea euskararen batasunaren alde egotea zen, Hegoaldean batez ere<sup>210</sup>, eta H-aren kontra batasunaren aurka.

Solasaldi-eztabaidetan gutxienez 24 pertsonaren izen deiturak jaso ditugu *Euskeratik*<sup>211</sup>. 1968ko Arantzazuko biltzarreko argazkitik<sup>212</sup> solasaldietan parte hartu ez zuten beste 16 euskaltzalaren izenak bildu ditugu. Horri hizlari eta mahaiburu gisa

---

<sup>207</sup> (Euskaltzaindia, 1968: 143)

<sup>208</sup> (Euskaltzaindia, 1968: 221)

<sup>209</sup> (Euskaltzaindia, 1968: 226)

<sup>210</sup> Iparraldean H-aren erabilerak ez zuen zertan adierazi euskararen batasunaren alde egotea, bertan H-a erabiltzen baitzen.

<sup>211</sup> *Euskeran* honakoak aipatuta aurkitu ditugu: P. Altuna, A. Amutxategi, J. A. Arkotxa, F. Artola *Bordari*, N. Barrenetxea Aita Julen Igorrekoa *Julian de Yurre*, J. Basterretxea *Oskillaso*, I. Baztarrika, I. Berriatua, Etxan (K. Etxenagusia?), D. Intza, J. A. Irigarai, A. Irigoien, A. M. Labaien, P. Lafitte, Lasa, Loidi, P. Mujika, J. Oregi, J. San Martin, J. M. Satrustegi, P. Xarritton, Zubia eta J. Fernandez Setien.

<sup>212</sup> 1968ko Arantzazuko biltzarreko argazkia, eta bertan agertzen diren pertsonen izen-deiturak E. Perez Gazteluk ematen ditu L. Villasanteren Bidegileak bildurako egindako liburuxkan (Perez Gaztelu, 2000: 17)



aritutakoak gehituz gero<sup>213</sup>, Arantzazuko biltzarrean gutxienez 60 euskaldunek parte hartu zutela esan daiteke. Horietatik gutxienez, 20 eliztarrak ziren<sup>214</sup>. Beraz, ikusten denez, biltzarra frantziskotarren egoitzan izan arren, (hirietako) laikoen parte hartzea nabarmen gailendu zen.

Arantzazukoa izan zen Euskaltzaindiak antolatutako Euskaltzaleen biltzar guztietatik garrantzitsuena, eta euskararentzat erabakigarriena. Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an euskararen batasuna erabaki zuen<sup>215</sup>, baita Euskara Batuaren oinarriak ezarri ere. Arantzazuko biltzarrean bertan, azken egunean, Euskaltzaindiak euskararen oinarrizko arau ortografiko-gramatikalak erabaki zituen<sup>216</sup>. Ortografia arloan K. Mitxelenaren txosteneko gehiena onartu zen, hau da, hein handiz Baionakoa onartua zen, eta aditzaren gaineko erabakiak beste aldi baterako utzi ziren. Bestalde, euskal hitz zahar zein berrien formak hobeto lantzeko geratu ziren. Izenen kasuan, oro har, batzordearen proposamena onartu zen. Ez ditugu aztertuko Baiona (1964) eta Arantzazuko (1968) erabakien arteko aldeak zeintzuk izan ziren, ez baita gure ikergaia. Hala ere, H-aren inguruko afera, euskararen batasun prozesuan izan zuen eraginarengatik, laburki bada ere komentatuko dugu.

Baionan H-a onartu zen, bai bokal bikoitzen artean jartzea, baita bokalez hasitako hitz batzuetan ere<sup>217</sup>. Arantzazun, H-a onartu zen, baina bokalen artean,

<sup>213</sup> Mahai buru gisa aritutakoak eta komunikazio edo eztabaidetan parte hartu ez zutenen artean honakoak ditugu: J. Haritxelhar, E. Erkiaga eta P. Larzabal.

<sup>214</sup> Gure datuen arabera gutxienez hizlarietatik bost (M. Lekuona, L. Villasante, *Iratzeder*, J. M. Mokoroa eta S. Onaindia) eliztarrak ziren, baita solasaldietan parte hartu zuten beste zortzi ere (P. Altuna, N. Barrenetxea, I. Baztarrika, I. Berriatua, J. Fernandez Setien, D. Intza, P. Lafitte, P. Mujika, J. M. Satrustegi, eta P. Xarritton). Eta 1968ko biltzarreko argazkian (Perez Gaztelu, 2000: 17) azaltzen diren: E. Agirre, M. Zarate, B. Gandiaga, E. Larre eta P. Berrondo.

<sup>215</sup> “Lehenik ikusi duguna da, guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik” (Ikus *Euskera* buletinean argitaratuta agiria: “Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria” *Euskera*, 13, 250)

<sup>216</sup> Ikus *Euskera* buletinean argitaratutako agiria: “Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria” *Euskera*, 13, 250.

<sup>217</sup> Halaber Baionan H-aren ezarpenaren gainean ohar hau egiten zen: “Euskaldun askok ‘H’ hori nun dagoen ez dakielako, epeka joatea erabakitzen da”. Beraz, bi momentu bereizten dira, lehenengo epe batean bokal berdinen artean H jartzea, baita hitzen adiera bereizteko ere (adb. haur-ahur kasua). Beraz, Baionako erabakiak ausartak izan arren, emeki ezartzeko ziren.

bokalez hasitako hitzei buruz ez zen ezer esaten, nahiz eta “honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango”<sup>218</sup>. Egia esan, Euskaltzaindiak osatutako hitz zerrendan bokalez hasitako hitzetako batzuk H-arekin agertzen dira (*har, haran, harrapatu* eta abar)<sup>219</sup>. Hala ere, Euskaltzaindiak arau mailan onartu zuen bakarria bokal arteko H-a zenez, M. Lekuonak, orduko euskaltzainburuak, horixe bete zuen hertsiki: Euskaltzainburuak 1968an Arantzazun biltzarra ixteko eman zuen agur hitzaldiko testuan<sup>220</sup> H-a bokalen artean bakarrik agertzen da baina ez hitz hasieran, nahiz eta M. Lekuonaren testuko berbeetako batzuk 1968ko Arantzazuko hitzen zerrendan H-arekin agertu (adibidez, *hasi, hautsi* eta abar). Beraz, H-ari dagokionez, Arantzazun Baionan baino erabaki mugatuagoak hartu ziren eta euskaltzainburuak minimoak baizik ez zituen babesten.

Euskaltzaindiaren erabakiok *Eusker*a buletinean argitaratu ziren 1968an eta liburu aparteko batean 1969an (*Euskeraren batasuna: azken erabakiak*). Erabakiak erabaki eta agiriak agiri, batasunaren erabakia ez zen hain erabatekoa izan. Manuel Lekuonak euskaltzainburuak berak, esate baterako Akademiak formalki H-aren inguruan hartutako erabakiari biltzar egunean bertan indarra kendu zion, esanez ez zirela derrigor betetzekoak baizik nahi zuenak segitzekoak. Horri gehitzen bazaio Arantzazuko erabakiak 10 urte barru hartarako antolatutako biltzar berri batean berrikusiko zirela, Arantzazuko biltzarraren emaitza gazi-gozoa izan zen askorentzat. Euskararen batasunaren aurka zeudenentzat Akademiak hartutako erabakiak gehiegikeria ziren, eta batasunaren aldekoek hizkuntzaren Akademia batasun prozesuaz, hein batez, desenkusutzen ari zela ikusten zuten, are atzera egiten. Baina hori guztia ondoko garaian zehatzago aztertuko dugu.

---

<sup>218</sup> “Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria” *Eusker*a, 13 (1968), 250. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/eusker/51291.pdf> [kontsulta data: 2009-06-02]

<sup>219</sup> “Batasunerako hiztegia” *Eusker*a, 13 (1968), 252-265. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/eusker/51292.pdf> [kontsulta data: 2009-06-02]

<sup>220</sup> (Lekuona, 1968b)

## 2.11. Biltzarren balantze gisakoa

Atal honetan aurkeztutako 10 biltzarren balantze modura, lehenik eta behin azpimarratu behar da, Euskaltzaindiak antolatutako biltzarren garrantzi kuantitatiboa eta kualitatiboa. Guztira 7 antolatu zituen eta euskaraz antolatutako lehen biltzar akademikoak izan ziren. Euskaltzaindiaren biltzarretan guztira 100 txosten<sup>221</sup> baino gehiago aurkeztu ziren, eta bi izan ezik, beste guztiak euskaraz aurkeztu ziren<sup>222</sup>. Bestalde, gerraurrean Euskal Esnalearen hitzaldiekin gertatzen zen bezala, biltzar hauetan ere ahozko aurkezpen asko ondoren publikatu egiten ziren. Alde horretatik Akademiak goi mailako euskarazko ekoizpen idatzi zabala bideratu zuen. Hala ere, Euskaltzaindiaren antolaketa eta parte hartzea kontraesankorra izan zen, euskaltzainburuen parte hartzetik hasita. I. M. Etxaidek ez zuen inoiz sarrerako hitzik eman, eta M. Lekuonak 1968an jarrera arras ulergaitza izan zuen bereziki amaieran.

Beste bi topaguneak (Baionakoa eta Ermukoa) ezinbestekoak izan ziren, 60ko hamarkadan euskararen batasunaren prozesua dezeleratzen hasi zenean, prozesua aktibatzeko eta aurre lan batzuk prestatuz Euskaltzaindiari presioa egiteko.

Goi mailako biltzarrok, euskararen batasunik ez zen unean, euskal hizkuntzari buruzkoak ziren eta ez beste edozein gairi buruzkoak, batetik hizkuntzaren akademiak antolatu zituelako, baina baita euskara oraindik prestatu gabe zegoelako edozein gairi buruz erregistro jasoan aritzeko ere. Hala ere Jakinlarien bilerak salbuespena dira. Urteko topagune horietan apaizgaiak, eta gero baita laikoak ere, saiatu ziren euskara kultur hizkuntza gisa erabiltzen Giza eta Gizarte Zientzien arloko gaiak lantzeko.

Biltzarrok, denak, Euskaltzaindiak antolatutakoak zein besteak, zuzenean (adb. Baionako bilera) edo zeharka (adb. Jakinlarien 60 hamarkadako bilerak), hizkuntzaren batasun prozesuan berebiziko garrantzia izan zuten. Hala ere, hizkuntzaren batasun prozesu akademikoa (eta ofiziala) ez zen 1968. urtera arte hasi, orduan sortu baitzen

<sup>221</sup> Ikus aurrerago III.1 Taula. Bertan agertzen denaren arabera, Euskaltzaindiak antolatutako biltzarretan 101 txostengile edo ponente izan ziren, eta horietako batzuk, bi txosten aurkeztu zituzten (adb. 1959ko Eibarreko biltzarrean J. Zubiaurrek bi txosten aurkeztu zituen).

<sup>222</sup> 1956ko Arantzazuko lehenengo biltzarrean A. Zabalak eta J. M. Mokoroak aurkeztutakoak hain zuzen ere.

Euskara Batua, nahiz eta orduan oinarrizko arau ortografiko gramatikalak baino ez ziren hartu. Alde horretatik, Euskara Batua 1968tik aurrera Akademiak eraikitako estandarri jarritako izena da<sup>223</sup>, eta beraz, ez da zuzena 1968. urtea baino lehen Euskara Batuari buruz hitz egitea (ikertzaile askoren lanetan ikusi dugunez), hots, Euskara Batua, euskararen gainean eraikitako estandar baten izen propioa delako. Urte horren aurretik euskaltzaleak *euskararen batasunaz* mintzatzen ziren, baina ez *Euskara Batuaz*.

Bestalde, gerraostean, 50 eta 60ko hamarkadetan, gerraurrean ez bezala, hizkuntzaren batasunari buruzko eztabaida eta haren inguruan martxan jarritako prozesuak, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen nukleoaren finkatzea ekarri zuen. Hau da, hizkuntzaren batasunaren gaineko eztabaidak, eztabaida jaso zen heinean, adituak behar zituen. Baina ez hori bakarrik. Gerraostean, gerraurrean ez bezala, hizkuntzaren batasunaren gaineko eztabaidarako aukeratutako kodea euskara izan zen<sup>224</sup>, eta beraz, horren ondorioz adituak euskaldunak behar zuten izan.

Ondoko taulan (ikus III.1. Taula) Euskaltzaleen Biltzarretako txostengile eta gutxieneko<sup>225</sup> parte hartzaileen kopuruak eskaintzen dira. Bertan bereiztu ditugu batetik txostengileak<sup>226</sup> eta txostenen osteko solasaldi zein eztabaidetan parte hartu zutenak<sup>227</sup>. Bietan laikoak eta eliztarrak<sup>228</sup> bereiztu dira.

---

<sup>223</sup> Txillardegik ere horrela ikusten du: “Pero es en 1968, cinco años después de los trabajos realizados en Bayona por ‘Euskal Idazkaritza’ y sus conclusiones provisionales, cuando se inició en Arantzazu el movimiento que había de llevar, bajo la dirección de Euskaltzaindia, al actual proceso de unificación y normalización, denominado ‘Euskara Batua’.” (Txillardegi, 2004: 213)

<sup>224</sup> Gerraurrean berriz, hizkuntzaren gaineko eztabaida eta txosten nagusia, P. Broussain eta A. Campionek prestatutakoa, erdaraz zeuden.

<sup>225</sup> Gutxieneko parte hartzaileak diogu, parte hartzaile guztiak ez zutelako solasaldietan parte hartu eta beraz, beraien izen deiturak ez dira *Eusker*a buletinaren aktetan agertu. Kasu batzuetan posible izan da informazio-iturri osagarriekin aktetan agertutako euskaltzaleen zerrenda osatzea (adb. 1956ko Arantzazuko biltzarren kasuan).

<sup>226</sup> Txostengileak biltzarretan txostena aurkeztu zuten egileak dira. Horretaz guztiaz gainera txostengiletzat honako hauek ere kontatu ditugu: txostena aurkeztu arren biltzarrera joaterik izan ez zutenak (hori gertatzen da adibidez, Txillardegirekin 1956ko Arantzazuko kongresuarekin); edo txostena *Eusker*a buletinean argitaratu ez arren txostena aurkeztu zutenak (adibidez, 1959ko Eibarko bileran P. Lafitte); edo, mahai-inguruetan parte hartutakoak (adb. 1964ko Loiolako biltzarrean biltzarrean teatroari buruzko mahai-inguruan G. Aresti eta J. M. Altuna egon ziren).

<sup>227</sup> Parte-hartzaile gisa aintzat hartu ditugu zenbait informazio iturrietatik jasotako datuak: batetik, *Eusker*a buletinaren eztabaiden aktetan jasotzen diren pertsonen izen-deiturak, eta bestetik sasoiko prentsan bitartez, edo argazkietan agertzen diren pertsonak, hau da, biltzarretara bertaratu arren eztabaidetan parte hartu ez zutelako beraien izena-deiturak ez zirenak *Eusker*an agertzen. Arantzazuko lehenengo eta azken biltzarretan adibidez, hori gertatu zen.

<sup>228</sup> Eliztar kopurua gutxienekoa da, parte hartzaile batzuk guztiz ezezagunak zaizkigulako eta ez dugulako jakiterik izan eliztarrak ziren ala ez.

Euskaltzaleen Biltzarra	Txostengileak		Parte-hartzaileak (gutxienez)		Guztira (gutxienez)
	Laikoak	Eliztarrak	Laikoak	eliztarrak	
I. Arantzazu, 1956	5	7	12	10	<b>34</b>
II. Bilbo, 1958	7	2	13	13	<b>35</b>
III. Eibar, 1959	11	2	5	2	<b>21</b>
IV. Donostia, 1961	7	4	10	6	<b>27</b>
V. Arantzazu, 1963	14	11	3	1	<b>29</b>
VI. Loiola, 1964	6	8	3	1	<b>18</b>
VII. Arantzazu, 1968	12	5	27	16	<b>60</b>

**III.1. Taula:** Euskaltzaindiak antolatutako Euskaltzaleen Biltzarretako parte hartzaileak (1956-1968).  
Iturria: elaborazio propioa *Euskera* buletinetik abiatuta.

Taulan ikusten denez, txostengile zein parte-hartzaileen artean laikoak nagusi ziren, eta eliztarrak gehiengoa ziren biltzarrak beraien egoitzetan (Arantzazun edo Loiolan) burutzen zirenean. Aipatu dugunez, euskararen batasunaren aldetik, biltzarrik garrantzitsuena 1968koa izan zen. Bada, garrantzia hori parte-hartzaile kopuruan ere ikusten da, Arantzazukoak beste biltzarrek baino jende gehiago erakarri zituelako.

### 3. Goi mailako elkarte eta erakundeak

Atal honetan euskal kulturgintzan garai honetan jardun zuten elkarte eta erakundeak aipatuko ditugu, horiek izan zirelako esparru jasoan ekimen desberdinak garatu nahi izan zituztenak, nahiz eta gehienetan arrakasta gutxi izan zuten. Euskal kulturgintzatik kanpo ez dago maila jasoan euskarazko inongo ekimen aipagarriarik. Beraz, segidan kulturgintzan parte hartzen zuten erakunderik aipagarrienak puntuz puntu zedarrituko ditugu. Hala ere, aurretik Seminario de Filología Julio Urkijo edo “Julio Urkixo” Euskal Filología Mintegiari, arinki begiradatxo bat emango diogu<sup>229</sup>.

Aurreko kapituluan aipatu dugunez, Urkixo Mintegia Donostian 1953. urtean sortu zen eta 1954. urtean mintegiaren aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zen:

<sup>229</sup> Euskal Idazleen Elkarte sortzeko lehen saiakera Ermuko Bileran (1968) eman zen. Beraz, elkarte sortzeko ekimena euskararen batasun prozesuarekin lotuta agertzen da. Hala ere ez dugu idazleen elkarteari buruz besterik jasoko, lehen saiakera honek ez zuelako arrakastarik eta bestalde gaia berez doktorego-tesi honen mugetatik kanpo dagoelako.

*Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”* (aurrerantzean, ASJU). Mintegiaren aldizkarian erdarazko idazlanak argitaratu ziren, euskarazkoak salbuespenak izanik. Izatez euskarazko lanak beste aldizkari batera bideratzen ziren, *Eganera* hain zuzen ere. Mintegiko hiru kideek (A. Arrue, A. Irigarai eta K. Mitxelena) *Egan* aldizkariaren zuzendaritza eta erredakzioa bere gain hartu zutenean (1953ean), *Egan* euskarazko aldizkari elebakar bihurtu zuten.

Dena den, Mintegiaren egitekoa ez zen mugatzen euskara eta edota euskal literaturari buruzko aldizkarigintzara, bestelako proiektuak ere bazituen. Esate baterako, K. Mitxelenak 1956an, Urkixo Mintegiaren izenean, *Orixeri* proposatu zion euskal literaturaren historia bat atontzea 300 bat orrialdetan, elebitan argitaratzeko<sup>230</sup>. P. Iztuetak argitaratu du K. Mitxelenak *Orixeri* enkargua egiten zion eskutitza:

“Mintegi onetako buruzagien izenean idazten dizut. Asmo bat darabilgu aspaldian: lotsagarria dela euskal literaturaren kondaira liburutxo batean ez izatea, ez euskaldunontzat bakarrik, baita ere erdaldunei bagerala behintzat [sic] adierazteko, eta olakoren bat behar [sic]gendukeela aalik eta lasterren.

Asmo ori onela tajutu dugu, gutxi gora-beera: liburuak bi izkuntzetan agertu bear luke, euskaldunontzat eta batez ere euskaltzaleentzat euskeraz, eta gazteleraz gaiñerako guztientzat. Bi izkuntzak parez-pare joan ditezke.”<sup>231</sup>

*Orixek* ez zuen proposamena onartu eta azkenean hori izan zen K. Mitxelenak prestatutako *Historia de la literatura vasca* (1960) ezagunaren abiapuntua<sup>232</sup>. K. Mitxelenaren obra gaztelaniaz baino ez zen kaleratu.

---

<sup>230</sup> Urkixo Mintegiak Euskal literaturaren historia egiteko egitasmoa *Orixeri* proposatu zion berak gerraurrean euskaraz *Euskal Literatura'ren atze edo edesti laburra* prestatu zuelako, hau da, euskaraz euskal literaturaren gaineko lehen lana. Testua laburra da, eta ez du bibliografiarik (*Orixek* berak zuzenean ezagutu edota irakurri zuenaren gainean eraikita dago). Hala ere euskarazko literaturaren ikuspegi osoa emateko ahalegina egiten du. Ikuspegi bateratua eta euskaraz prestatuta, horra bere bi indarguneak. Euskaraz egindako literaturaren gainean hizkuntza ber-ber horretan azaltzea. Lan honek Euskal-Esnalearen 1927ko V. lehiaketan lehen saria jaso zuen. Saritutako lana zatika Euskal-Esnalearen izen bereko aldizkarian argitaratu zen. Egia esan lehiaketaren sail horretara ez zen beste lanik aurkeztu. Lana ona zenez, bakarra izan arren, epaimahiko kideak, *Orixeri* saria eman zioten. Hala ere lanak hutsuneak zituela argudiatuz (M. Soroa ez zela aipatzen) zigortu zuten eta ordain sariaren herena kendu zioten (Iztueta, 2002a: 128). Afera horregatik Euskal-Esnalea eta *Orixeren* artean zenbait urtetako gorabeherak izan ziren. Paulo Iztuetaren arabera, gerraurreko esperientzia garrantza izan zen *Orixeren* arrazoi nagusia Urkixo Mintegiaren enkargua ez onartzeko.

<sup>231</sup> (Iztueta, 2002a: 11)

<sup>232</sup> (Iztueta, 2002a: 10-14)

### 3.1. Euskal Kulturaren Alde (EKA)

Erbesteko Euskadiko Gobernuak 1956. urteko irailaren 23tik 29ra bitartean Pariseko Orsay jauregian *Euskal Batzar Orokorra* antolatu zuen<sup>233</sup>. Batzar horretako gai nagusietako bat kultura izan zen eta horren baitan euskara kokatu zen. Jokin Zaitegi izendatu zuten euskararen atalaren arduraduna. Azpisail honetan hainbat hizlarik parte hartu zuten, eta zenbait gai jorratu ziren: euskal unibertsitatea, euskarazko irakaskuntza eta ikastolak, euskararen batasuna eta abar. Kongresutik sortu zen azaroaren 30ean Euskal Kulturaren Alde (EKA) taldea. EKAk 20 bat urtez funtzionatu zuen. Lehen hamarkada, bigarrena baino intentsuagoa izan zen EKarentzat<sup>234</sup>. Lehen hamarkadan hainbat ekimen egin zituen: ipuin lehiaketa bat, Baionan irakasleentzat udako ikastaroak antolatu, Euskaltzaindiak Arantzazun 1963an antolatutako biltzarrera txostena igorri, Agirre literatura saria martxan jarri, euskararako gramatika liburua saritzeko lehiaketa edota *Irazkintza* aldizkaria argitaratu (1966-1967).

Lehen zuzendaritza taldea honakoek osatu zuten: Jokin Zaitegi zuzendari, Gonzalo Nardiz diruzain, Andoni Urrestarazu idazkari, eta J. M. Barandiaran, J. M. Leizaola, J. Solaun, M. Sota eta J. Rezola bokal<sup>235</sup>. Hala ere, EKAREN *alma materra* Andoni Urrestarazu *Umandi*, elkarteko idazkaria, izan zen: batetik, EKA sortzeko proposamena A. Urrestarazuk prestatu eta Pariseko kongresuan aurkeztu zuelako; eta bestetik EKAREN helburu nagusiak, ia erabat A. Urrestarazurenak zirelako, aurreko urteetan A. Urrestarazuk landutakoak eta argitaratutakoak *Euzko-Gogoa* aldizkarian<sup>236</sup>.

Andoni Urrestarazu 1902an Asparren herrian (Arabian) jaio zen. Gaztea zela, Maristetan ikasketak amaitu zituenean Gasteizen, euskara ikasten hasi zen. Soldaduska Afrikan egin eta bertan gerra pasatu ostean, bankuko oposaketak atera zituen, eta Madrilen banku batean lan egin zuen. Han jarraitu zuen euskara ikasten Eusko

<sup>233</sup> Pariseko 1956ko Kongresuko aktak 1981. urtean argitaratu ziren: *Euskal Batzar Orokorra/ Congreso Mundial Vasco: 25 aniversario*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

<sup>234</sup> Egia esan ematen du 1967. urtetik aurrera EKA hil egiten dela. Hain zuzen ere, *Irazkintza* aldizkariak urte horretan atera zuen bere 6. eta azken zenbakia inolako abisurik gabe. Baina bestalde hiltzorian bazen ere, EKAK bizirik egon behar zuen 1973an Jesus Mari Leizaola erbesteko lehendariaren lantxo bat argitaratu baitzuen ("*Jainkoaren billa*" gutuna zer da?, 1973)

<sup>235</sup> (Velez de Mendizabal, 2000: 106)

<sup>236</sup> (Urrestarazu, 1952; 1954 eta 1956a)

Ikasbatzak antolatutako euskara klaseetan. Madrilen 10 urte eman eta gero, Donostiara destinatu zuten. 1936ko gerra etorri zenean, gudari egin zen eta zenbait gora behera tarteko preso hartu, preso arrunt gisa tratatu, eta bi urte eman eta gero askatu egin zuten. Irten zenean, Gasteizen jarri zen bizitzen. Orduan hasi zen *Umandi* euskara irakasten. Hain zuzen ere, euskararen irakaskuntza izan zen bere bizitza osoko ardatza. Frankismoarekin arazoak izan zituen eta 1953. urtean isilka muga pasatu zuen. Erbestean emandako 26 urte horietan erbesteko Eusko Jaurlaritzan administrari lanak egin zituen eta 1979an Hegoaldera itzuli zen, zehazki Gasteizera.

Erbeste horretan hasi zen euskal kulturaren alde *Euzko-Gogoa* aldizkarian artikuluak argitaratzen. Funtsean, bere ideia nagusiak honako hauek ziren: euskal kultura euskaraz eginiko kultura da, eta beraz euskal kulturaren alde egitea bereziki euskararen alde egitea da. Euskal kultura egiteko euskaraz pentsatuko duten pertsonak behar dira, eta beraz Euskal Herriko biztanleak batetik euskaldundu behar dira eta bestetik euskara kulturadun hizkuntza bihurtu behar da. Horretarako klabea irakaskuntza da, maila guztietan euskararen irakaskuntza txertatzea. Hala ere, helburu hori ezin da bat batean egin, mailaz maila egin behar da, umeen eskoletatik hasi eta pausuz pausu goi-mailako irakaskuntzara heldu. Euskararen irakaskuntza eskolan umearen euskalkiaren araberakoa izan behar da, herri erdaldunetan hurbileko euskalkira joz. Eskoletan euskararen irakaskuntza sartzeko bi gauza nagusi behar dira: alde batetik irakasleak gertatzea, eta bestetik, liburuak. Liburuak irakasgai guztietarako behar dira, hala ere, lehentasunezkoa da umei begira egindako euskararen gramatika (*eliztia*) prestatzea. Halako material bat lortzeko modurik errazena, lehiaketa bat antolatzea da.

A. Urrestarazu euskararen batasunaren alde zegoen, baina batasun horrek gerraurreko proposamenak hurbilago zituen, 1968tik aurrera eraikitako Euskara Batua baino. Bere ustez, irakaskuntza euskalkian egin behar zen. Euskal gramatika irakatsiz, denborarekin euskalkien arteko diferentziak leunduz joango ziren, eta batasuna pixkanaka-pixkana lortuko zen, nahiko modu naturalean euskalkiak hurbilduko zirelako. Horregatik 1968. urtea baino lehenagoko argitalpenetan, *Euzko-Gogoako* artikuluetan, eta Euskaltzaindiak 1956an Arantzazun egindako Euskaltzaleen biltzarrean, euskararen batasunaren alde agertzen zen, are Euskaltzaindiaren alde. 1968. urteaz geroztik



batasunaren alde jarraitu arren, Euskara Batuaren eredua gaitzetsi zuen, Euskaltzaindiaren 1978ko Bergarako biltzarrean adierazi zuen moduan. Horregatik, B. Urgellen arabera, Euskaltzaindiak ohorezko izendatu nahi izan zuenean (1993an), ezezkoa eman zuen. Are gehiago, “Umandi Gasteizko ikastolak Lakuako etxe berria zabaldu zuenean, ez zuen jairako deia onartu, eta izena aldatzeko ere eskatu zuen”<sup>237</sup>. Onartu zuena zera izan zen, 1992. urtean Euskerazaintza herri akademiak euskerazain oso egitea.

Ikusiko dugunez, EKA hein handiz *Umandi* bezalakoxea izan zen.

Pariseko 1956ko kongresuan A. Urrestarazuk txosten luze bat aurkeztu zuen arestian aipatutako ideietan sakonduz<sup>238</sup>, eta erakunde berri baten sorrera proposatuz:

“3) Elburu oien buruz «Euskal-Batzar Orokar»'ak Eusko Jaurlaritzari eskari auek gartsuki egitea:

a) Esandako asmo ta elburuak ontzat arturik, naiz lendik bizirik dagoen «Eusko-Ikaskuntza» naiz eratu diteken **beste kulturazko bazkun berezi ta berri bat**, agertutako elburuak betetzeko lanak egin eta zuzendu ditzan, izendatzea.

b) Onen ondorioz, naiz «Eusko-Ikaskuntza»'ri naiz eratu liteken beste kulturazko bazkunari, **euskal-irakaskintza ta kultura guziraiko egitarau orokar bat egin dezala agintzea.**

d) **Izendatu diteken bazkunari, kulturazko gaietan erabakitzeke, almen eta azkatasun aundienak ematea.**

e) Azkatasunezko bizia emanarren kultura-bazkun ori **Eusko-Jaurlaritzak diruz laguntzea**, ta bien artean beti ar-emanetan egotea.”<sup>239</sup> [beltzak gureak dira]

Eusko Ikaskuntza 1936ko gerraz geroztik etenda, gerraostean ez zen berpizteko modurik egon nahiz eta Ipar Euskal Herrian bi kongresu antolatu ziren. A. Urrestarazuk argi zuen, Eusko Ikaskuntza berpiztu ezean, elkarte berri bat sortu behar zela. Horrela

<sup>237</sup> (Urgell, 1996: 7)

<sup>238</sup> Besteak beste, euskararen irakaskuntzaren inplementazioaren inguruan euskara mailaz maila sartzeko egitasmo bat aurkeztu zuen. Bere 1956ko planaren arabera euskara unibertsitate mailan 2000. urte inguruan sartu ahal izango zen. Kurioso iruditu zaigulako hona aldatu dugu: “Goazen orain goieneko mailara: Euskal-Irakastola-Nagusia. Lenengo irakaskintzaz asi ta bigarreneraño eltzeke, len esan dugun bezela, 15 edo 20 urte gutxi gorabera igaro bearr izango baldin badira, beste ainbeste epe luze bat artzekoa noraezean, azkenengo mailara eltzeke. Beraz berrogei urteko lana gutxienez (2.000'garren urterako, agian?) gure euskera irakaskintza mota guzietarako gai izan dedin. Askorentzat epe luzeegi edo; ala ere urte oien buruan gure asmoa egitan bihurturik izango balitz, gurenda ederra Euskal Herri'arentzat eta bere kulturarako.” (Urrestarazu, 1956a: 89). 2000. urtean euskal unibertsitarik egon ez arren, eta seguru aski A. Urrestarazuk imajinatzen ez zuen bidetik, euskara unibertsitatean zen. Dena den euskarazko eta euskararen irakaskuntza unibertsitatean txertatzeko lehen saioak hamarkada batzuk arinago eman zirelako, 70eko hamarkadan alegia, heldu zen euskara unibertsitatera.

<sup>239</sup> (Urrestarazu, 1956a: 98)

jaio zen, 1956ko Parisko kongresuaren ostean, Euskal Kulturaren Alde (EKA) elkartea, A. Urrestarazuk ereindako hazitik.

EKA sorturik, elkartearen hasierako egoitza Parisen kokatuta zegoen, eta bertan biltzen ziren kideak. Bileren akten laburpena (euskaraz idatzita) Amerikan erbesteratuta zeudenei bidaltzen zitzaien<sup>240</sup>. Bileretan euskal kulturgintzaren esparruko gora beherak aipatzen ziren. Esate baterako *Jakin* aldizkariak hartutako bide desegokia hizkuntzaren aldetik:

“Lendakari jaunak, “Yakin” aldizkariaren azken zenbakia aipatu zuen; eta bere ustez, aldizkari ori gero ta txartoago datofela esan ere. Ormaetxea jauna bere aburukide agertu zan ortaz. Mordolokeri asko datozelako ta ofela idaztea ontzat artzen bide dutelako”<sup>241</sup>

EKAko lehendakaria J. Zaitegi zen, euskara garbian inprimatzen zen *Euzko-Gogoa* aldizkariaren zuzendaria. Kontua da, hasierako *Jakinek*, *Orixe* maisu harturik, *Euzko-Gogoaren* eredu jarraitu zuela; baina 1959. urte inguruan euskara ereduaren gaineko eztabaidetan erabat murgilduta, *Txillardegiren Leturiaren egunkaria ezkuaren* haritik, I. Bastarrika eta *Txillardegiren* artean sortutako eztabaidatik (gerora J. Intxaustik ebatzi zuena), aldizkariak “erabateko mordoilorarako” hautua egin zuela. A. Urrestarazu J. Zaitegiren irizkidea zen auzi honetan<sup>242</sup>.

EKAk Iparraldeko Eskualzaleen Biltzarrekin batera Baionako Euskal Erakustokian irakasleentzat antolatutako udako ikastaroan parte hartu zuen (1959)<sup>243</sup>. Ikastaroa hiru egunekoa izan zen. Lehen egun bietan hizlariak frantsesez mintzatu ziren eta hirugarrena osorik euskaraz izan zen. Hirugarren eguneko hitzaldien enkargua EKAk zuen eta Euskaltzaindira jo zuen hizlari bila. Dirudienez, arrakastatsua izan zen,

---

<sup>240</sup> Euskaltzaindiko artxiboan gordetzen dira A. Urrestarazu EKAko idazkari izanik, Bingen Ametzagari 1959. urte inguruan bidalitako bi akten laburpenak gutun banarekin.

<sup>241</sup> EKAREN 1959.6.1ko bileraren akta, A. Urrestarazuk B. Ametzagari bidalitako gutuna, 1959.7.10an (ABA, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria).

<sup>242</sup> A. Urrestarazuk *Jakin* aldizkariaren gainean zuen iritzia *Jakinen* bertan argitaratu zen: “Ez dut uste berriro esan bear dizuedala, euskeraz idazteko artu duzuten bideari buruz nire iritzia; lendik ere ezagutzen duzute, ta gero ta geyago gai orrezaz oldoztu ta gero ta okerrago deritzait zuen bide ori. Ziur nago gogo onez ari zeratela, baña nire buru kaxkar onek bide ori nola ar diteken ezin ulertu; ene iduriko, gure izkuntza au zearo ondatzeko beste egokiagorik, erdal-eskolarenaren urrengo, ez eta euskararen arerio zitelenak ezin asma lezake. Orrengatik auxe uste bear dut: Gure Erri’an barna itsutasun izugarria zabaldu dala ta bertan murgildurik ari zeratela zuek ere. Guzi ori dela kari zuen aldizkaria laguntzen ez jarraitzeko erabaki dut barka dizaidazutela eskatzen dizuet” (Urrestarazu, 1968: 60)

<sup>243</sup> EKAREN kontaktua Euskalzaleen Biltzarrekin M. Sota zen.

eta 1959ko azaroan egindako bileran ikastaroak antolatzen jarraitzeko asmoa berretsi zuen EKAK:

“Euskal-irakasleak atontzeko, beste ikastaroak antolatzearen beaia; bat edo bi urtearen zear eta bakoitza astebetekoa izateko: euskerari toki geyago emateko, batez ere egoaldeko ikasle eta irakasle ager ditezken. Guzia ontzat arturik, izenpetua izan eta La Sota ta Monzon jaunak gutun ori jaso zuten “Eskualtzaleen Biltzaia”ren lenengo bilkuran aurkezteko”<sup>244</sup>

Lehen udako ikastaro horien arrakasta ikusita, 1961. urtean antzeko ikastaro bat antolatu zen. Oraingoan EKAK Ikasekin, Eskualzaleen Biltzarraren babespeko elkartearekin batera antolatu zuen. Bi egunetakoa zen eta “Bayona-ko irakas-solasak” delako haietan euskaraz hitzaldi bi (K. Mitxelena eta L. Villasanterena) baino ez ziren egon<sup>245</sup>.

Urte intentsoa izan zen EKArenezat 1959. urtea. Euskaltzaindiak Eibarren antolatutako III. biltzarrera txostena bidali zuelako elkarrekin euskararen inguruan zituen asmoak agertzeko. Bertan, Euskal Herriaren hizkuntza eta kultura zaindu eta indartzeko irakaskuntza oinarrizkoa zela aipatzen zen. Euskal irakaskuntza antolatzeko eta eskoletako irakasleak trebatzeko EKAK zenbait proposamen egin zituen: liburuen prestaketa, irakasleen gertatzea ikastaroen bidez, baita elkarte berezi bat sortzea beraientzat, Euskal-irakasleen Alkartasuna. Halaber, euskal irakaskuntza aitzineratzeko Erregimen frankistak Erromako Elizarekin sinatutako Konkordatuaren bidetik gauza asko egin zitezkeela aipatzen zen. Izan ere, Konkordatuan Elizak Espainian hezkuntzarako eskuduntza ugari jaso zituen<sup>246</sup>.

Urte horretako abenduaren 3an amaitu zen EKAK antolatutako ipuin sarietara aurkezteko epea. Lehiaketarekin EKAK sustatu nahi zuen umeentzako euskarazko

---

<sup>244</sup> EKAREN 1959.11.2ko bilearen akta, A. Urrestarazuk B. Ametzagari bidalitako gutuna, 1959.12.10an (ABA, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria).

<sup>245</sup> “Aurrerago “Euskal kulturaren Alde” eta “Ikas”-ekoak prestatuta egindako itzaldiai jarraiturik Luis Michelena jaunak irakastearen gaiñean berba egin dau eta erderatiko euskal-itzak be ontzat artu bear doguzala izkuntzea eskastu eta indarga itxi gura badogu oinarritzat artu dau. / Ostean Aita Villasante-k egin dau itzaldia: “Euskal eskola nola ematen dedan”. Eta berak aurkitu dituen ostopoak eta artu dauen bidea azaldu ditu” (ikus *Euskera*, 6 (1961), 367)

<sup>246</sup> (EKA, 1960)

materialen ekoizpena<sup>247</sup>. Ebazpena 1960ko otsailean jakinarazi zen eta lehen saria Jean Etxepare *Gazteak* jaso zuen<sup>248</sup>. Ez zen izan EKAK antolatutako lehiaketa bakarra, euskarazko obrak sustatzeko beste bi deialdi gehiago atera baitzituen: Agirre sariak<sup>249</sup> eta Eliztia (gramatika) egiteko batzaldia (baina azken honetaz aurrerago mintzatuko gara).

Euskaltzaindiaren V. Biltzarrean (Arantzazu, 1963) EKAK beste txosten bat aurkeztu zuen: “Euskeraren aldeko lan orokor baten egitaraua”<sup>250</sup>. Bertan berriro ere irakaskuntza lehenesten zen euskal kulturaren oinarri gisa:

“Baña euskera bizi dedin, kultura-izkuntza biurtu bear danezkero –orixe ezinbesteko ta eraginkorra dan bidea, nagusia beraz- eta kulturaren oñari bearrezkoa irakaskintza izanik, bearrezkoa zaizu euskal-irakaskintza euskeraren aldeko lan guztien erdiko ta mami bezela artzea”<sup>251</sup>

Euskararen batasunaren alde agertzen zen, nahiz eta hori lortze bidean hasieran euskal irakaskuntza euskalki bakoitzean antolatu. Euskal irakaskuntza abian jartzeko bi norabidetan lan egitea beharrezko ikusten zuten: lehena, ikas liburuak prestatzea, eta bigarrena, euskal irakasleak formatzea. Liburuen kasuan bereizten zuten testua eta terminologiaren artean, lan biak egiteko lehiaketa bana egitea aurreikusiz. Orotara 1963ko biltzarrean aurkeztutako asmoak honetara laburbildu zituzten:

- “1) Gaur euskera ikasten eta irakasten ari diran guziengan arloaren garrantzia sarrerazi, ikasle oien artean euskal-irakaskintzarako zaletasun sor dedin.
- 2) Len aipatu ditugun ikas-liburuak egitea, bide ona izan baititeke irakaslegai guzientzat.
- 3) Aldizkarietan arazoari buruz idazlanak argitaratu.
- 4) Nunbait, Bayona n edo, ikastaro bereziak edo bilkura berezi batzuk gutxienez antolatu; **uda-ikastaroak** bezela.
- 5) Erdal irakasleen artean euskal-irakaskintzaren asmoa zabaldu
- 6) **Euskal-pedagojiari buruz aldizkari** berezi bat argitaratu; ortarako, orain agertzen dan *Ikas'ena*, artaz biur liteke.”<sup>252</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>247</sup> Lehiaketaren helburu eta baldintzen gaineko zehaztasuna *Euzko-Gogoan* argitaratu ziren (*Euzko-Gogoa*, iraila-gabonila (1958), 707-708, <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo42/eugo4228.htm> [kontsulta data: 2008-08-19])

<sup>248</sup> Banatutako sari guztien gaineko berri zehatza *Jakin* aldizkarian argitaratu zen (*Jakin*, 11 (1960), 92-93)

<sup>249</sup> Lehen Agirre Saria 1964an eman zioten B. Gandiagari *Elorri* poesi obrarengatik, eta bigarren sariaren 1967. urtean eman zioten Aita Onaindiari eta, 1970eko saria Liturgia Batzordeak jaso zuen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.5.26 eta 1970.6.26)

<sup>250</sup> (Urrestarazu, 1963-1964)

<sup>251</sup> (Urrestarazu, 1963-1964: 404)

<sup>252</sup> (Urrestarazu, 1963-1964: 407-408)

Txostenean aipatzen den pedagogia aldizkariaren lehen zenbakia 1966. urteko azaroan plazaratu zuten: *Irakintza: "euskaldunok bat": euskal-irakintzari buruzko aldizkaria*. Bihilabetekaria Baionan inprimatu zen 1966-1967. urteetan, eta guztira 6 zenbaki kaleratu zituen. Aldizkariaren lerro editoriala hirueleduna zen, eta beraz euskarazko, frantsesezko eta gaztelaniazko testuak publikatu ziren. Zuzendaria *Karmel Urtubia* zen, Andoni Urrestarazuren ezizena<sup>253</sup>. Litekeena da, aldizkaria, zabalpen arazoengatik, baina bereziki, eta horrekin lotuta, arazo ekonomikoengatik hiltzea, harpidetza bidez sostengatu behar baitzen. Aldizkaria zabaltzekotan nagusiki Iparraldean zabalduko zen. Hegoaldera euskarazko edukiak eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko aldizkariaren alerik eramatea frankismo garaian, zaila izan behar zuen, klandestinoa. Zabalpenerako aukera gutxiarekin, harpidetza gutxi egingo ziren, eta beraz, proiektua ekonomikoki eutsi ezina izango zen<sup>254</sup>.

A. Urrestarazuk 1966an A. Ibiñagabeitiari Caracasera EKAre bi jardueren berri eman zion: lehena, urte hasieran EKAk prestatutako eta euskaltzaleen artean banatzen ari zen itaunketa edo inkestaren berri<sup>255</sup>; eta bigarrena, urte amaieran, EKAre bi proiektuetarako harpidetzak lortzeko, aldizkaria ateratzeko eta eskolarako liburu lehiaketak egiteko<sup>256</sup>. Ez dirudi A. Ibiñagabeitiak harpidetza horiek lortu zituenik

<sup>253</sup> Arrazoi politikoak tarteko A. Urrestarazuk nahiago zuen ezizena erabili eta horrela aitortu zion Andima Ibiñagabeitiari eskutitz batean: "Izenorde bateaz idatziko dut ortan; ez dut nire izena eman nai, Gasteiz'en euskal-aldizkari bat nik zuzenduta agertu ezkerro, ango ertzañek bereala salatuko luketela uste dudalako, ta aitzaki ori naikoa izango litzake guzia bera botatzeko. Alan eta guztiz be, ene aldetik itzekin eta beste kontuz ibilliafen, ikusiko dugu igarotzen uzten ote duten" (A. Urrestarazuk A. Ibiñagabeitiari bidalitako gutuna, 1966.12.17an, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria, ABA)

<sup>254</sup> *Irakintza* iragarri EKAk 1966. urtean informazio orritxo bat elebitan zabaldu zuen eta bertan agertzen dira aldizkariarentzat zer nolako zabalpena egitea aurreikusten zuten: "Bearrezkoa dan zabalkundea, aldizkararen zenbaki bakoitzeko berreun edo irureun igeiki, doarik bialtzean egingo da; bialtze ori, Errialde'an barna, beste ainbeste lenengo irakaskintzako eskoletara ta beste goi-mailetako ikastetxe ta ikas-tokietara egiteko. Orrela , urtebete barru, aldizkaria, ia bi milla irakasle ta irakaslarienganaño elduko da;" (*Irakintza: euskal-irakintzari buruzko aldizkaria/ revista de pedagogia vasca* izenburuko agiritik, ABA). Kalkulu erabat okerrak ziren, garaiko testuinguru eta mugapen politiko eta zibilak aintzat hartzen ez zituena.

<sup>255</sup> ikus *Itaunketa* A. Ibiñagabeitiaren gutunerian (ABA). Itaunketa izena duen dokumentuak 1966ko urtarrileko data du. Dokumentu honekin batera EKAre beste itaunketa bat dago ABAn, "Lan-gaia" izeneko 33 galderekin. Bigarren dokumentuak ez du datarik, baina pentsatzekoa da 1966ko itaunketa baino lehenagokoa dela.

<sup>256</sup> A. Urrestarazuk A. Ibiñagabeitiari bidalitako gutuna, 1966.12.17an (ABA, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria).

Caracasen emandako hitzaldian<sup>257</sup>, ezta azkenean elizti batzaldiak aurrera egin zuenik ere<sup>258</sup>. *Irazkintza* aldizkariak ere laster bazterra jo zuen.

Itaunketarekin EKAK asmoa zuen euskal kultura aitzinarazteko plan bat diseinatzea, Euskal Herria laster aske izango zelako eta “unealdi artan bear izango dana antolatzen oraindixe asi bear” zelako. Itaunketak 12 galdera zituen eta euskal hizkuntza zein kulturari buruzko itaunak planteatzen zituen. Besteak beste, unibertsitatean euskarazko irakaskuntzaren gainean galdetzen zen<sup>259</sup>.

Andoni Urrestarazu jeltzalea, euskaltzale sutsua izan zen. Euskarazko kulturgintza sustatu nahi zuen, baita euskara kultur hizkuntza gisa garatu ere, asmo horiek lortzeko erakunde bat (EKA) eta haren inguruan hainbat proiektu prestatu zituen. Bereziki hezkuntzaren esparruko proiektuak izan ziren. Erbestean, eta oinarri sozialik gabe, proiektu asko zituen baina garaiko baldintzapenetara egokitu gabe, lorpenak oso txikiak izan ziren (adibidez, aldizkariaren aurreikuspenak ez ziren errealistak izan). Euskaltzaindiak 1968an euskararen batasun prozesua abian jarri zuenetik, A. Urrestarazu, eta beste jeltzale euskaltzale batzuk, euskal kulturgintzaren dinamiketarik gero eta baztertuago geratu ziren. Ordutik aurrera Euskara Batuaren dinamika hegemonikoa izan zen, eta garapen aukera gutxi utzi zien Euskara Batuaren aurka zeudenei, nahiz eta, berez, ez zeuden euskararen batasunaren aurka. Horrela, 1956ko Arantzazuko biltzarrean euskara kultur hizkuntza bihurtzea eskatzen zuten bi txostengile, *Txillardegi* eta A. Urrestarazu, biak abertzale, biak euskaltzale, 1968an banatu egin ziren (1978ko Bergarako biltzarrean banaketa berretsiz). *Txillardegi* eta A. Urrestarazu beraz, 1954-1968. urteen artean euskara ereduan eta euskal kulturgintzan

---

<sup>257</sup> A. Ibiñagabeitiak 1966ko abenduan Caracasen emandako hitzaldian bi sariren gainean berba egin zuen, batetik A. Urrestarazuk proposatutako sariaz labur labur, eta bestetik bere sari proposamena egin zuen, baita sarirako dirua lortzeko bidea ere “Ba “laguntzalle talde bat sortu” euskeraren laguntzalleak alegia, eta laguntzale orien artean dirua bildu” (ikus A. Urrestarazuk A. Ibiñagabeitiari bidalitako gutuna, 1966.12.17an, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria, ABA). Talde hau sortzeko proposamena benetan gauzatu zen Andima hil zenean eta bere omenez sari bat sortu zuten: Andima Sariak (ikus IV. Kapituluaren 6.4. *Euskarazko goi mailako idazlanen saritzea* atala).

<sup>258</sup> Azkenean lehiaketaren deialdi publikorik egin zenik ez dugu uste, nahiz eta oinarriak idatzita dauden. Baina zenbait urteko atzerapenarekin, euskal elizti bat argitaratu zen, A. Urrestarazuk berak egin: “*Euzkal-eliztiaren betebidea*”: galartzu txikien bitartez: norabidea/“*Complemento de la gramática vasca*”: por medio de “cassettes”: guía (1977).

<sup>259</sup> “Nola eratuko zenduke, bigaŕen maillean eta Ikastola Nagusian, euskal-irakaskintza ta euskal kulturarena? Noiz asi bearko litzake irakaskintza euskeraz egiten, bigaŕen maillean eta Ikastola Nagusian?” (ikus *Itaunketa* A. Ibiñagabeitiaren gutunerian, ABA)

egon ziren dinamika nagusi biren ordezkari dira. Euskararen batasuna zenbat eta gehiago lerratu gaur egun ezagutzen dugun Euskara Batuaren ingurura, orduan eta gehiago elkarrengandik banatu ziren kultur dinamika biok. Hala ere, segidan ikusiko dugunez, 60ko hamarkadaren hasieran oraindik elkarri lagundu ziezaioketen.

### 3.1.1. Euskaltzale Alkartasuna: Euskal Idazkaritzaren aurrekaria

*Txillardegik*, erbestera jo berritan, 1961. urtearen inguruan, udaberri bueltan, Euskaltzale Alkartasuna izeneko ekimena, bakarrik edo Paris inguruko beste euskaltzale batzurekin batera, abian jarri nahi izan zuen. Elkarrearen helburuak eta kideen egitekoak finkatzen zituen data gabeko agiria *Txillardegiren* idazmakinan prestatu zen<sup>260</sup>. Aipatutako agiriaren arabera, Euskaltzale Alkartasuna Euskal Herrian zeuden bi erdare borroka gogorra egiteko sortu zen, baita abertzaletasuna euskalduntzeko ekimen gisa ere.

Elkarteko kideek zin egin behar zuten euskara, elkarrearen araututakoaren arabera erabiliko zutela. Euskara idatziaren esparruan honakoak ziren kideek zin egin beharreko puntuak:

- 1/ Euskeraz idatziko dut beti abertzale aldizkarietan. Sekulan ez erderaz.
- 2/ Abertzaletasunetik pasatzen da euskararen bizi. Abertzale ez diran “sasi-euskaltzaleak” gure etsaiak dira. Beraz, abertzale ez diran aldizkarietan ez dugu sekulan idatziko.
- 3/ Euskaldun-españolez eta euskaldun-frantsesez egiten diran aldizkariak, berez, eta besterik gabe, gure etsaiak dira. Berdin ere horrelakoai, beraz, bokoita egiten diegu. Aberriaren kontrakotzat dauzkagu edo-ta euskeraz bakarrik, edo-ta frantsesez-españolez-euskeraz (hiruetan) agertzen diran aldizkariak oro.
- 4/ Euskal “zoko” bat duten sasi-abertzale aldizkariak gure etsaiak dira. Erdia baiño gehiago euskeraz erabiltzen ez duten aldizkariak, gure etsaiak dira, eta ez diegu laguntzarik emango, ez idatziz, ez zabalduz. (Euskadi'tik at argitaratzen diranetan 33 %raño jeisten dugu euskeraren partea)
- 5/ Abertzaletasun [sic] izanda gure eginkizunik premiatsuena, ontzat ematen dugu erderazko abertzale-aldizkari [sic] egitea. Baina, hauetan, ez dugu idatziko, “ARTICULO EN ESPAÑOL” edo “ARTICLE X FRANÇAIS” hitzak idazpuruan ondo agirian jartzen ez ba da. Eta, dana dala, hauetan euskal “zoko” eskasen bat baldin ba dago, ukatu egingo dugu gure laguntza.
- 6/ Hori guzia berdin da liburuai buruz, edo nolana hiko inprimatutako paperai buruz.
- 7/ Eskutitzak, abertzale diran guziakin, euskeraz egingo dugu, beti; eta, noiz edo behin, erderaz egitera, “ESCRITO EN ESPAÑOL” edo “REDIGE EN FRANÇAIS” jarriko dugu ondo agirian.”<sup>261</sup>

<sup>260</sup> Baina *Txillardegi* dokumentu honetaz ez da gogoratzen (*Txillardegiren* lekukotza, 2007.06.20an Donostian egindako elkarrizketa).

<sup>261</sup> J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* A. Ibiñagabeitiari bidalitako gutuna, data zehaztu gabe (ABA, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria).

Ikusten denez, *Txillardegirengan* euskara idatziaren aldeko militantzia estuki lotuta dago abertzaletasunarekin. Esan beharra dago motibazio ideologiko hau ez zela inondik salbuespenezkoa izan: euskara kultur hizkuntza gisa bultzatu zuten gehienen eragile nagusienetako bat abertzaletasuna izan baitzen, nahiz *Txillardegik* beste batzuk baino agerikiago adierazi.

Ahozko euskararen erabileraren esparruan *Txillardegiren* proiektuko zinak beste 5 puntu zituen, besteak beste, hitzaldiak euskaraz egiteko beharra, (ez bazen abertzaletasunari buruzkoa, orduan posible zelako erdarara jotzea), edota euskaldunekin, abertzale izan edo ez, euskaraz egiteko beharra. Ikusten denez, 60. hamarkada hasierako *Txillardegirentzat* abertzaletasuna ezinbestekoa zen euskararentzat, baina hala ere, abertzaletasuna euskaldundu eta euskaltzaletu behar zen. Hori lortze bidean, *Txillardegik*, arrakasta oso gutxi izan zuen ekimena abian jarri zuen: Euskaltzale Alkartasuna. Ez da harritzekoa Parisen egon eta gero *Txillardegik* Baionara joan zenean, Euskal Idazkaritzan, hau da, Iparraldeko zein Hegoaldeko abertzaleak biltzen zituen elkarte euskaltzalean parte hartzea.

Dokumentu berdinean Euskaltzale Alkartasunak EKARI proposatzen zion biltzar bat antolatzea euskararen batasunari ekiteko:

“E.K.A.koak berak onhestekoa, noski.

1/ Euskeraren batasuna. Ortografia eta hiztegi-kontu-tan. Alkartu behar gorria dago. Batasun hau idazleen eskuetan dagoen ezkerro, biltzar nagusi bat eratu beharko litzake, E.K.A.k zuzenduta; eta, sakon estabaida (sic) egin ondoren, alkar-artuta atera, aurrerakoan idazle guziok hildo beretik joan gaitezen.

2/ Euskal eskolarako liburuak. Azkatasuna etorriko zaigu eta libururik gabe arrapatuko gaituzte.

3/ Irakasleak, euskal-irakasleak, alegia, eratu eta eskolatu.

4/ Europa'ko hizkuntza-arazoak ikasteko, liburutegi on bat bildu, eta hartaz baliatu gure auziak argitzeko”<sup>262</sup>

EKAk onesteko moduko asmoak ziren aipatutako laurak. EKA, eta A. Urrestarazu bera, euskararen batasunaren alde zeuden, baina ez zuten presarik hori lortzeko, lehen mailako irakaskuntza euskalkietan egin behar zenez, oraingoz batasuna ez zen lehentasuna. Edozein kasutan, dakigunez, *Txillardegik* eta EKAREN arteko lotura

---

<sup>262</sup> J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* A. Ibiñagabeitiari bidalitako gutuna, data zehaztu gabe (ABA, A. Ibiñagabeitiaren gutuneria).



ez zen urrunagora heldu. Eta *Txillardegik* proposatzen zuen biltzarra Euskal Idazkaritzak antolatu zuen 1964. urtean Baionan.

### **3.2. Eskualzaleen Biltzarra: “Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa”**

Eskualzaleen Biltzarra 1902. urtean sortu zen euskal ortografia bateratzeko Hondarribian burututako kongresuan eta gaur egunera arte iraun du. Elkartearen ekintza nagusia urteko bilera eta bazkaria ziren, hortik kanpo ezer gutxi egiten zuen. Beraz, Eskualzaleen Biltzarraren ekarpen nagusienetako bat zen Iparraldeko euskaltzaleen topagunea izatea. Urte hauetan guztietan dena den, Eskualzale Biltzarraren ohiko jarduna bi unetan etenda geratu zen munduko bi gerrengatik.

Elkarteak gerraurrean zenbait buruzagi izan zituen. Louis Dassance geroztik, buruek urte luzez gorde dute kargua. L. Dassancek oso gazterik hartu zuen Eskualzaleen Biltzarraren buruzagitza, 1927an, eta 1959. urtera arte bera izan zen biltzarreko buru. Halaber berak lekukoa Michel Labéguerie-ri pasa zion (1960-1980).

Dagokigun garaian, Eskualzaleen Biltzarrak antolatutako jarduerarik garrantzitsuenak, euskal irakaskuntzaren gainean *Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa* (1959) izan zen<sup>263</sup>. Jardunaldia 3 egunekoa izan zen, abuztuaren 27tik 29ra bitartekoa, eta Baionako Euskal Museoan burutu zen. Antolaketa lanetan EKAREN laguntza izan zuten. Lehenengo bi egunetako saioak frantsesez izan ziren<sup>264</sup>, eta azken egunekoa, euskaraz, EKAK sustatuta eta Euskaltzaindiko kideek emanda. Goizean lau hitzaldi izan

<sup>263</sup> Idoia Fernandezek ikastaro honen eta Ikasen sorrerako testuinguruaren berri ematen du ikastolen historiari buruzko bere lanean (Fernandez Fernandez, 1994: 95 eta hurrengoak)

<sup>264</sup> Lehenengo bi egunetako hitzaldiak (frantsesez) honakoak izan ziren: Euskal Museoko zuzendariaren, Ithurriagueren, ongi etorri hitzak, ostean, Dassance-k, Euskaltzaleen Biltzarreko buruzagiak, jardunaldia antolatzeko arrazoiak eman zituen (“irakasleei erakusteko biderik egokienak zeintzu lirakean aurrei euskeraz ta euskeraz irakats zitzaieten” ikus *Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa*, 1959). Ondoren, P. Lafittek euskararen aldeko 1951ko Deixonne legea azaldu zuen, baita oro har euskarazko irakaskuntza zertan zen. M. Jauregiberri andreak Zuberoan euskararen alde egiten zena azaldu zuen, baita euskaraz irakurtzen eta idazten nola irakasten zuten ere. Historia eta Geografia eskolako umei nola irakatsi behar zitzairen (Martine?) Lambert-ek, Sorbonako irakasleak, eta Eugene Gohienetxek azaldu zuten. Halaber Michel Labéguerie eta Malharin jaun-andreak euskalduneiei euskaraz egiteko behararen gainean aritu ziren. Lehenak medikua zen aldetik, euskara bizibide arteza jarraitzeko berme gisa ikusten zuen, eta bigarrenak, andereñoa zen aldetik, umei eskolan euskaraz irakasteko beharra “aurren gogo-biotzak irikiteko” azaldu zuen. Azkenik Sauveur Narbaitzek euskara eskoletan txertatzeko zenbait bide erakutsi zituen.

ziren: lehena P. Lafitterena 1880. urtetik aurrerako euskal literaturaz, A. Irigarairena euskararen batasunaz, eta, azkenik, P. Lartzabal eta T. Monzonenak euskal teatroaz. Arratsaldean Euskaltzaindiak G. Epherre euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldiaren ekitaldia antolatu zuen<sup>265</sup>.

Baionako udako ikastaroetan ohiko hitzaldiez gain, bestelako emaitzarik ere izan zen: alde batetik 200 bat irakaslek, laikoak zein eliz eskoletakoak, aho batez onartutako erabakien agiria, eta bestalde, Ikas elkartearen sorrera. Irakasleek onartutako agiriak 9 puntu zituen eta funtsean euskara, eta Frantziako beste eskualdetako hizkuntza txiki eta baztertuak, eskoletan txertatzeko neurriak eskatu edota proposatzen zituen. Agiri horrek ez zuen gerora ondorio berezirik izan, nahiz eta maila sinbolikoan garrantzi handia zuen, euskararen irakaskuntzaren aldeko ekimen gisa. Ikasen sorrerak ordea, sinbolikotasunetik haratagoko garrantzia izan zuen. Ikasek antolatu zuen 70eko hamarkadan Baionako Euskal Astea, Udako Euskal Unibertsitatearen hazia izango zena, baita UEUren lehen urteetako udako ikastaroak ere. Baina horretaz guztiaz ondoko epean arituko gara. Beraz, 1959an Irakasleen Udako Euskal Ikastaroetan sortu zen *Ikas: Euskal-Irakasleen Elkartasuna*, euskararen irakaskuntza eskoletan (herrikoetan zein elizakoetan) sartzeko xede zuena. Ikastaro ostean kaleratutako lau orrikoan honela agertzen da:

“Etxeberri-Ainchart Aolkulari Nagusi ta Baigorriko baratari iaunak adierazi zuen “IKAS” izeneko ekartasuna sortu bear zala, eskoletan aurrei euskera irakasteko. Elkartasun ortako arauak aurkeztu zizkiela Prefeta iaunari, gobernuko inspektor iaunari. Guzian baimenaz egin zan, beraz, “IKAS” elkartasuna, laiko ta eliz-irakaslemeeek osotua. Irakurri elkartasunaren arau guztiak eta guziek onartu zituzten ao batez, eta berealakoan sortu zan elkartasun berria, ta aukeratu Batzordea:

BURU, Dassance iauna; BURU-LAGUN, Salaberry irakasle iauna eta Malharin irakasleme andereinoa.

IDAZKARI, Sauveur Narbaitz irakasle iauna eta P. Lafitte apaiz iauna.

DIRUZAIN, Ithurriague iauna.

BATZORDE-LAGUN, Jauregiberri anderea, Etchandy irakasle iauna, Michel Labegerie sendatzaile iauna<sup>266</sup>

Ikusten denez, Ikas Eskualzaleen Biltzarraren babespean sortu zen. Are gehiago Eskualzaleen burua zen L. Dassance euskaltzaina, Ikaseko burua ere izendatu zuten. J.

---

<sup>265</sup> (Euskaltzaindiaren Bazar-agiriak, 1959.8.29) eta “Bayonako Bazarreak”, *Euskera*, 4 (1959), 255. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52326.pdf> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>266</sup> (Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa, 1959)

Haritzelharren arabera, L. Dassanceren kezkarik handiena euskararen irakaskuntza zen, eta horretarako sortu zuen Ikas, eskolan euskararen irakaskuntzan sartzeko<sup>267</sup>.

Ikasek bere bideari ekin zion, eta 1961ean irakaskuntzari buruzko bi egunetako jardunaldia antolatu zuen, EKArekin laguntzarekin<sup>268</sup>. P. Lafitte euskaltzainak Euskaltzaindiari proposatu zion jardunaldien baitan Akademiaren hileroko batzarra bertan egitea are gehiago jakinik K. Mitxelenak hitzaldia emango zuela EKAk eta Ikasek eskatuta<sup>269</sup>. Egia esan, Baionako jardunaldiaren arratsaldeko saioa Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen. Lehenik K. Mitxelenak berba egin zuen euskal lexikoaz eta ondoren, L. Villasante aritu zen bere irakaskuntza esperientziaren gainean. J. Zaitegik, une hartan Baionan bizi zenak, biak aurkeztu zituen.

Ikas elkarteari buruz ez daukagu berri gehiago 70eko hamarkadara arte. Ikasen historia ikertzeke dagoen arren, ez du ematen beste jardunaldi pedagogikorik antolatu zuenik 60ko hamarkadan. Baionako Euskal Asteekin Ikas berpiztuz joan zen, eta Mikel Aizpuruk dioenez, 1972. urtean berregituratu zen, “kide berri eta gazteak sartu ziren, 1968ko maiatzeko giroan, hezi eta iratzartzen ari zen euskal kultura berriaren partaideak, hain zuzen”<sup>270</sup>. Gazte horiek izan ziren Udako Euskal Unibertsitatearen lehen urteetako sustatzaileak.

### 3.3. Euskaltzaindia

50ko hamarkadan, Euskaltzaindira kide berri eta gazteak hurbildu ziren eta bereziki hamarkadaren bigarren erditik aurrera, Akademiaren jardueraren agerikotasuna eta maiztasuna asko hazi zen. Ekitaldi akademikoak antolatzeaz gain (adb. Sarrera-hitzaldiak), biltzarrak antolatu zituen (Euskaltzaleen Biltzarraren izenean), argitalpen proiektuak bultzatu (Zarauzko Itxaropena argitaldarekin bereziki<sup>271</sup>) eta sarien bitartez euskal letrak sustatu zituen, eta 1956. urtetik aurrera *Euskera* buletina argitaratzeko baimena eskuratu zuen.

<sup>267</sup> (Haritzelhar, 1989: 363)

<sup>268</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1961.09.01)

<sup>269</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1961.08.23)

<sup>270</sup> (Aizpuru, 2003a: 29)

<sup>271</sup> Adibidez *Geroren* edizio berriaren ardura Euskaltzaindiak hartu zuen.

Garai honetan, 1954-1968. urteen artean, Euskaltzaindiak hiru euskaltzainburu izan zituen: I. M. Etxaide (1952-1962), J. M. Lojendio (1963-1964), biak donostiar integristak, eta M. Lekuona apaiz abertzalea (1966-1970). Arrazoi desberdinengatik hiruretatik batek ere ez zuen hartu beregain euskararen batasunaren erronka. Akademiaren hileroko bilera akademiko gehienak Donostian egiten ziren, Diputazioaren jauregian<sup>272</sup>. Halaber, Euskaltzaleen Biltzar guztiak Gipuzkoan antolatu ziren, 1958ko Bilboko izan ezik. Garai honetako hiru euskaltzainburuak sortzez gipuzkoarrak ziren. Beraz, Euskaltzaindia garai honetan Gipuzkoan errotuta dagoela esan daiteke.

Euskaltzaindia, hizkuntzaren akademia izanik, goi mailako euskal erakundea zen, eta euskaraz funtzionatzen zuen. *Euskera* buletinean argitaratutako hileroko bileretako aktak eta Euskaltzaleen Biltzarretako txostenak, salbuespenak salbuespen, euskaraz daude<sup>273</sup>.

Euskaltzaindiaren inguruan harilkatzen zen, batzuetan hurbilago, besteetan urrunago, garaiko Hegoaldeko euskalgintza gehien-gehiena. Are gehiago, batzuetan Akademia baten ohiko jardueratik kanpo zeuden ekimenetan parte hartu zuen Euskaltzaindiak. Adibidez, 1956an jaialdia antolatu zuen Bilboko Arriaga Antzokian, eta 1959an Euskaltzaindiak AEBtik *Western Basque Festival*aren antolatzaileengandik honako eskaria jaso zuen: “zinta magnetofoniko batean bertsolarien agur bat eta beste euskal-kanta batzuk batu” eta AEBra bidaltzeko<sup>274</sup>. Euskalgintzan erabateko zentralitatea zuen erakundea izanik, euskalgintzaren inguruan ari ziren taldeen asmoen berri jasotzen zuen eta gehienetan ekimen desberdinak babesten zituen (euskara ikastaroak<sup>275</sup>, antzerki-taldeak, bertsolaritza txapelketak eta abar..). Bereziki aipagarria

---

<sup>272</sup> Urtean behin, Bilbon egiten bazen ere, izan zen urterik hileroko batzarrik egin ez zena Bilbon. Are maiztasun gutxiagorekin Euskaltzaindia Baionan bildu zen, edota herriren batean (Oñati, Loiola, Mañarian...).

<sup>273</sup> Akten kasuan, euskaraz ez dauden bakarrak 1954ko urtariletik urrira bitartekoak dira, eta biltzarren kasuan, aurkeztutako 100 txosten baino gora, gaztelaniaz 2 aurkeztu ziren, 1956ko Arantzazuko biltzarrean hain zuzen.

<sup>274</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1959.5.27)

<sup>275</sup> Euskara irakasteko ikastaroak babesteko hainbat eskari jasotzen zituen Euskaltzaindiak. Adibide moduan 1959. urteko kasu bat ekarri dugu: “Eduardo Elizondo jaunak Neguri-tik karta bat zuzendu dau esanik Romo-ko parrokiako eskolan (Guecho) euskerazko eskola bat zabaldu gura dabela eta

da Alfabetatze Batzordea. Rikardo Arregiren lidergoan Euskaltzaindiaren batzorde hau helduen euskalduntze eta alfabetatzera zuzenduta zegoen eta esparru horretan sortzen ziren ekimen desberdinak koordinatzen zituen. Bestalde Euskaltzaindiaren babespean euskaltzale gazteek (adb. *Txillardegi*), aurreko belaunaldietako euskaltzale nagusien laguntzarekin (adb. M. Arrutza, B. Garro...), elkarte bat sortu zuten: Euskaltzaindiaren laguntzaileak.

Euskaltzaindiak, Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izenarekin elkarte desberdin bi ezagutu zituen: lehena gerraurrean, *Euskaltzaindiaren laguntzaileak*<sup>276</sup>, eta bigarrena, gerraostean<sup>277</sup>. Biak ala biak Jagon Sailaren menpe egon ziren. Baina izenez aparte, ez zuten harremanik, bai protagonistak (adb. *Txillardegi*, J. M. Satrustegi...), bai xedeak, bai testuinguru historikoa ere, erabat desberdinak baitziren.

## 4. Aldizkariak

Kapitulu honen azken atal bietan euskarazko argitalpenak aztertuko ditugu, bai aldizkako argitalpenak, bai obra monografikoak. Garai honetan argitaratutako euskarazko aldizkari eta liburuak gutxi baziren ere, aurreko hamarkada mortuarekin konparatuta euskaltzale batzuk itxaropentsu zeuden. J. Garmendiak adibidez honelaxe deskribatu zituen 1955ean bere garaiko argitalpenak:

“Aurrera goaz. Poztu gaitezen! uskal-idazti-bikain eta ugariz gaiñera, EUSKAL-ALDIZKARIAK ere ba’ditugu, egoki, txukun eta dotore antolatuak eta garbi irarkituak. Ara: Iruñe’ko Aita Kaputxinoen “ZERUKO ARGIA”, Urkixo-Mintegia’ren “EGAN”, Euskaltzaindia’ren “EUSKERA”. “T.B.O.” antzeko “ANAITASUNA”, eta Salle’ko Anayen “NORA?” illerokoa.

Euskeraz eta erderaz argitaltzen direnak:

Arantzazu’ko Aita Prantziskotarren “ARANZAZU” eta Nekazarien “LUBERRI”.

Mugaz-andik argitaltzen diranak, bete bi euskal-aldizkari eder:

Lapurdi-Benafarroa-Zuberoa’ko Euskaltzalien “GURE HERRIA” eta Zaitegi Aba’ren “EUSKOGOGOA”. Eta denen gaiñetik, zaarrena, Baionako “HERRIA” astekaria.

Baita Ikastola’etarako bearrezko diran aukerako Ikasgai’dun liburuak ere, ba’ditugu:

“MARTIN TXILIBITU”, “XABIERTXO”, “EUSKERA IRUDIBIDEZ”, (Método básico) eta “NOLA IDATZI EUSKERAZ”.

Egutegi euskerazkoak ere, ba’ditugu:

---

Euskaltzaindiaren babesa eskatuten dau. Erantzun bekio so [sic] ondo ikusten dauela Euskaltzaindiak eta prest dagoala euskereari jagokozan gauza guztietan laguntasuna emoteko” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1959.9.25)

<sup>276</sup> (Lekuona, 1991)

<sup>277</sup> (Satrustegi, 1992)

Arantzasu'ko Aita Prantziskotarren "ANDRA MARIA'REN EGUTEGIA", ormarako; eta Aita Karmeldarren "KARMEN'GO AMA'REN EGUTEGIA", sakelerako... Zer geiago bear du ELERTIAK, (literaturak), bizitzeko?"<sup>278</sup>

Atal honetan goi mailako euskarazko aldizkariak zeintzuk ziren eta ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu. Batzuk aurreko garaietan sortu ziren (adb. *Egan*, *Euzko-Gogoa*) eta aurreko kapituluan aztertu ditugu; beste batzuk aldiz, oraintxe sortzen dira gazte euskaltzaleen eskutik: *Jakin* eta *Karmel* aldizkariak adibidez.

Segidan euskal hizkuntzari buruzko garaiko aldizkari biri atal bana eskainiko diogu (*Euskera* eta ASJUri), bi aldizkari eredu oso diferenteak zirelako. Ondoren *Jakin* kultur aldizkaria aztertuko da. *Jakinen* gertatutakoak oso modu argigarrian erakusten du euskaltzaleen artean, bereziki gazteen artean, garai honetan emandako paradigma aldaketa euskara eta kultura ulertzeko orduan. Azkenik, aldizkariaren atal hau *Branka* aldizkaria aztertuz amaituko da. Horietan guztietan sartu aurretik, baina, beste aldizkariak gainbegiratuko ditugu.

Karmeldarrak euskarazko kultur aldizkari bat sortu zuten gerraurrean: *Karmengo Argia*. Lehen zenbakia 1931. urtean atera zen, eta 4.000 harpidedun edukizera heldu zen, baina Gerra Zibilak eten zuen proiektu hau. Ondoren gerraosteko lehen urteak igarota, aldizkariak bere bigarren aroari ekin zion. Bigarren aro honetan bi epe egon ziren: lehena 1951-1956. urteen artekoa, zeinetan egutegi bat atera baitzen (*Karmengo Amaren Egutegia*), eta bigarrena, 1957-1961. urteetako. Bigarren epe honetan karmeldarrek egutegiaren izena eta zenbakera mantendu zuten, baina aldizkari bat atera zuten, beti ere bere aurrekaria zen egutegiaren eduki batzuk mantenduz. 1957an atera zenean, Biarritzen inprimatzen zen *Euzko-Gogoak* 1958ko zenbakian ongi etorria egin zion<sup>279</sup>. Urte gutxi egon zen kalean, laster erregimenak debekatu baitzuen. Hala 1962-1969. urteetan aldizkaria debekatuta egon zen, eta tarte horretan euskarazko liburuak argitaratzen ibili ziren karmeldar euskaltzaleak. 1970. urtean karmeldarrek baimena eskuratu zuten, eta aldizkariaren 3. aroari ekin zioten, oraingoan aldizkariari *Karmel*

---

<sup>278</sup> (Garmendia, 1955: 29)

<sup>279</sup> «KARMEL». — Itxuraz, egituraz eta idazkeraz, goi-mallako euskal-aldizkaria degu Karmeldar lekaide guztiz agurgarriak Zornotza'ko Larrea'n argitaltzen duten bi-illero 38 orrialde ditun «KARMEL» aldizkaria.» (ikus *Euzko-Gogoa*, 1958 (orrilla-daguenilla), <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo41/eugo4118.htm> [kontsulta data: 2008-06-26])

izena jarri<sup>280</sup>. Aldizkariak gaur egunera arte iraun du<sup>281</sup>. *Karmel* aldizkariak, euskal kulturgintzan *Jakin* aldizkariak baino erreferentzialtasun gutxiago izan zuelako (eta duelako)<sup>282</sup>, ez diogu aparteko atalik eskaini.

*Egan* aldizkariak, Urkixo Mintegiko kideen ardurapean, hainbat artikulu argitaratu zituen literatura, sorkuntza zein Kritika Literarioa, zinema (oso ezagunak dira K. Mitxelenak argitaratutako artikuluak), euskara (Filologia eta hizkuntzaren batasunari buruzkoak) eta garaiko kulturgintzari buruz. Euskararen gaineko sasoiko eztabaiden berri edukitzeko funtsezko iturria da. Hala ere, aldizkarian aipaturako gaietatik kanpo, F. Krutwig-ek fisikari buruzko artikulu bat argitaratu zuen: “Physika Berriaren problemat batzuei buruz” (1961). Aztertzea litzateke getxotarraren eszentritatea hutsa ote zen, ala euskararekin ahalik eta gairik urrunena azaltzeko saiakera bat izan ote zen. Edozein kasutan hemen ez dugu aztertuko.

Euskarazko aldizkarien artean badira, maila apalagokoak. A. Zuberogoiaren arabera, garai honetan Hegoaldean hiru aldizkari nagusi zeuden: *Anaitasuna* (1953, Bizkaian), *Zeruko Argia* (1954, Gipuzkoan) eta *Goiz-Argi* (1958, Gipuzkoan)<sup>283</sup>. Hasieran bakoitza bere lurraldeko hizkeretan kaleratzen zen. Baina *Anaitasunak*, beste biak ez bezala, 70eko hamarkadan Euskara Batuaren alde egin zuen. Batua erabiltzen hasi zen eta batasunaren bultzatzailea garrantzitsua bihurtu zen. “Hiruren artean, hizkuntza-eredua zela-eta, zatiketa suma daiteke: *Goiz-Argi* batuaren kontra eta *erribidekoaren* alde, *Anaitasuna* batuaren alde erabat eta, azkenik, *Zeruko Argia* ere batuaren alde baina kolaboratzaileen hizkuntza-hautuak errespetatuta”<sup>284</sup>. Aipaturako hiru aldizkariak ordena erlijiosoei lotuta sortu ziren, lehen biak frantziskotarrei, eta hirugarrena, kaputxinoei. *Goiz-Argi* “hasieran *Aranzazu* hilabetekariaren

<sup>280</sup> Atal honetan *Karmel* aldizkariari buruz dioguna Lino Akesolo, Santi Onaindia eta Gotzon Loberak sinaturako artikuluari zor diogu (Lobera eta beste, 1994a)

<sup>281</sup> Nahiz eta 1973. urtean ez zen zenbakirik atera (Lobera eta beste, 1994a: 29)

<sup>282</sup> Hala ere, aitortu behar da, *Karmel* aldizkaria ez dela aldizkari erlijioso bat, jatorrian bai, baina 3. aroko *Karmel* ordea, ez dela erlijiosoa, nahiz eta karmeldarrek kaleratu eta aldizkarian eduki erlijiosoko artikuluak argitaratzen diren. Zuzenagoa da esatea literatura eta kultura orokorreko aldizkaria dela. Hain zuzen ere hori aldarrikatu zuen aldizkariak bere 3. aroko 25. urteurrena ospatzean (ikus “*Karmel* 3. aroko 25. urtea: euskal kultura eta hizkuntzaren zerbitzuan” *Karmel*, 210 (1994), 3-5)

<sup>283</sup> Beraz, aipatu gabe utziko ditugu garrantzi gutxiagoko euskarazko beste aldizkari aldizkari erlijioso elebakarrak (adb. *Othozlari* (1954-1988)...)

<sup>284</sup> (Zuberogoitia, 2003: 160)

nekazarietzako eranskin gisa atera zen”<sup>285</sup>. *Anaitasuna* Foruan sortu eta Imanol Berriatua abade frantziskotarrak zuzendu zuen<sup>286</sup>. Gipuzkoako frantziskotarren *Anaitasunaren* eranskin gisa sortu zen. Bizkaikoak bi garai nagusi izan zituen hil baino lehen. Lehena 1953-1968. urteen artean<sup>287</sup> eta bigarrena 1969-1982<sup>288</sup>. Hala ere, bietan aldizkariaren *alma materra* Imanol Berriatua izan zen. Bigarren garaian, honetan aldizkarian sartutako gazte euskaltzaleen eskutik, *Anaitasuna* Euskara Batua zabaltzeko kultur plataforma garrantzitsuenetarikoa bihurtu zen Bizkaian bereziki, eta haren bidez, eta modu autodidaktan orduko euskaldun asko alfabetatu ziren, euskaldun unibertsitariak barne<sup>289</sup>.

Zientziaren dibulgazioaren ikuspegitik, aldizkariotan argitaratutako idazlanen azterketa egiteke dago. Esate baterako *Anaitasuna* aldizkarian 1953-1966 urteen artean egindako zundaketa batean<sup>290</sup> zientzia arloko idazlan dibulgatibo batzuk aurkitu genituen: lehenengoa astronomiari buruz, eta zehazki eguzki sistemaren gainekoa<sup>291</sup>, bigarrena lurraren kimikari buruzkoa nekazaritza ustiakuntzaren ikuspegitik<sup>292</sup>, hirugarren eta azkena<sup>293</sup> astronautikaren gainean<sup>294</sup>.

---

<sup>285</sup> (Zuberogoitia, 2003: 156)

<sup>286</sup> Imanol Berriatuaren biografia X. Kintanak prestatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Bidegileak bildumarako (Kintana Urriaga, 1994a), azken urteotan Mendebalde Kultura Alkarteko kide bik J. L. Goikoetxea eta B. Bilbao liburu batean bildu dituzte zenbait artikulu Berriatuari eta 70eko hamarkadako euskalduntze fenomenoari buruz (Goikoetxea & Bilbao, 2007)

<sup>287</sup> Lehenengo garaian aldizkariak zenbait zuzendari izan zituen: A. Irigoien (1955-1957), ondoren Jakin taldeak aldizkaria Arantzazura eraman zuen (1957-1966), Joxe Azurmendirekin aldizkaria Bizkaira bueltatu zuen (1967-1968).

<sup>288</sup> Bigarrenean zuzendari bakarra izan zen: Anjel Zelaieta.

<sup>289</sup> Adibidez Jose Ramon Etxebarria fisikaria horrela euskaldundu zen, horrela aitortzen du I. Berriatuari Mendebalde Kultura Alkartean dedikatutako liburuan: “Nola ezagutu nuen zuzenean? Ba, patuaren misterioa. Urteak ziren nire kontura alfabetatzen ari nintzela, euskara idatzia lantzen, “gidaliburu” gisa *Anaitasuna* erabiliz. Horixe zen nire erreferentzia nagusia, liburu egokirik ez bainuen (ba ote zegoen?), eta aldizkariaren barruan lehen aipaturiko azkenaurreko orrialdea aztertzen nuen, bereziki, bertan Imanolek euskara egokirako azalpenak ematen baitzituen, alerik ale, hitzen adierak argitzeko eta esplikatzeko berariaz jarritako hiztegiarekin batera. Funtsezkoa nuen orrialde hori aldizkari barruko artikuluak ondo ulertzeko, baita euskararen batasunerako egokienak ziren hitzak aintzatesteko ere. Nire “biblia” txikia zen, beste liburu guztien gainetik” (Etxebarria, 2007: 93)

<sup>290</sup> *Anaitasunaren* 1953-1966. urteen arteko zenbakiak arakatu genituen.

<sup>291</sup> Aingeru “Beste mundu batzuk, beste gizon batzuk?” *Anaitasuna*, 44 (1958)

<sup>292</sup> “Lurra analizatu” *Anaitasuna*, 50 (1958).

<sup>293</sup> Han hemenka badira artikuluak non aipu solteak agertzen diren, adibidez kometa (ikus “Zeruan kometa bi dagoz” *Anaitasuna*, 129 (1965) edo Gerra Hotzaren gainean (ikus “Mundua beti mundu” *Anaitasuna*, 57 (1959).

<sup>294</sup> Ikus Kepa “Astronautika dala-ta” *Anaitasuna*, 57 (1959). Artikulu hau *Jakin* aldizkarian argitaratu zen lehenik eta *Anaitasunak* bizkaierara moldatuta berriz atera zuen (Saizar, 1958)



Garai berean, ezin dugu aipatu gabe utzi Bilbon Eusebio Erkiaga euskaltzainaren proiektua: *Boletín informativo del Banco de Vizcaya* (1964-1970). Banco de Vizcaya-k *Revista Financiera* aldizkaria argitaratzen zuen. Haren eranskin edo gehigarri gisa, aipatutako buletina kaleratu zen E. Erkiagaren ardurapean. Guztira 28 zenbaki publikatu ziren. Izenburua gaztelaniaz eduki arren, testu gehiena euskaraz idatzita dago, molde herrikoian, nahiz eta ingelesezko artikululu luzeak ere bazituen. Aldizkariak diktadura betean Hegoaldean euskaraz ekoizteko baimena nola eskuratu zuen aztertu du J. Larrañagak<sup>295</sup>. Buletina “Ameriketara bizi direan euskaldunentzako egiña da batez be”<sup>296</sup>, hau da, Ipar Ameriketara joandako euskaldunentzat ateratzen zuen bankuak, bankuko bezeroak izaten jarrai zezaten, bertan jasoz Euskal Herriko berriak<sup>297</sup> zein gertaera kuriosoak, baita diru trukearen gaineko garaiko kotizazioak ere. Ameriketara joandako euskaldun gehienak euskaraz alfabetatu gabeak zirenez, euskara herrikoian argitaratzen zen buletina eta gaietan apala zen<sup>298</sup>.

Maila jasoko erdal aldizkarietara dagokionez, badira zenbait argitalpen euskarazko lan bakanen bat edo beste kaleratu zituztenak, adibidez RSBAPen buletinak edo ASJUK. Oro har aldizkarietara euskarazko komunikazio jasoan eragin txikia izan zutelako ez ditugu aztertuko. Hala ere ASJUri atal bat dedikatu diogu, aldizkaria euskarari buruzkoa delako.

#### **4.1. Euskera buletinaren berragerpena**

Euskaltzaindiak gerraostean erakundea pizteko baimena izan bazuen ere, gerraurrean kaleratzen zuen erakundearen organoa, *Euskera* buletina alegia, ezin izan zuen 1956. urtera arte berriz argitaratu. Urte horretatik aurrera, *Euskera* buletinaren bigarren garaia abiatu zen. Bigarren garai honetan, oro har, buletinaren gerraurreko formatuari eutsi zitzaion, bai mantxetan, bai aldizkariaren tamainan.

<sup>295</sup> (Larrañaga, 2004)

<sup>296</sup> N.A.G. “Boletín informativo del Banco de Vizcaya” *Egan*, 1/6 (1967), 128. <http://andima.armiarma.com/egan/egan48/iruegan480130.htm> [kontsulta data: 2009-06-03]

<sup>297</sup> Euskal Herriari buruzko berriak nahiko baserri girokoak dira (aberei buruz, kirolak eta abar). Aldiz, AEBri buruz agertzen diren askosaz ere izaera hiritarragoa dute.

<sup>298</sup> Horregatik ez da harrizko buletinean Ekonomia, Matematika, Finantza eta abarri buruzko artikulurik ez argitaratzea.

Akademiak hainbat gestio egin behar izan zituen baimena eskuratzeko<sup>299</sup>. 1953. urtean buletinaren koaderno bat atera zuen, baina saiakera horrek ez zuen segidarik izan. 1956. urtean Akademiak baimena lortu zuenerako, *Euskerak* bazituen 300 bat harpidedun<sup>300</sup>, eta dirudienez horiek guztiak hein handiz lortu ziren Euskaltzaindiak han hemenka zabalduko informazio orrien bitartez<sup>301</sup>. Bigarren garai honetan, *Euskera* atzerrira bidaltzen zen bi modutara: harpidetza bidez, arrazoi politiko edo ekonomikoengatik atzerrian zeuden euskaldunek eskatuta<sup>302</sup>, edota elkartrukearen bidez, *Euskera* buletinak beste erakunde batzuetako aldizkariekin trukatea onartzea baitzuen<sup>303</sup>. Zernahi gisaz, *Euskera* 1956an 300 bat harpidedun bazituen, 1968an harpide kopuruak gora egin zuela ematen du, tirada 1.134 alekoa zelako<sup>304</sup>.

*Euskera* buletina garai honetako Euskaltzaindia eta garaiko euskalgintza ikertzeko garrantzi bereziko iturria da. Bertan argitaratu ziren Euskaltzaleen Biltzarretan aurkeztutako txostenak, eztabaiden aktak, erakundearen agiriak (adb. 1959ko *Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz*), bilera akademikoen aktak<sup>305</sup>, txostenak, eta erakundeak jasotako eskari eta kudeatutako hainbat konturen gaineko berriak ere. *Euskerak* buletinaren 1956ko lehen zenbakiko testu gehienak gaztelaniaz egon arren, ondoko urteetan euskara nagusitu zen. Tartean garrantzia handia izan zuen *Euzko-Gogoarekin* izandako eztabaidak.

---

<sup>299</sup> Bereziki 1954-1955. urteetan eta horren lekuko dira akademiaren hileroko Batzar-agiriak, bertan baimena eskuratzeko kudeaketa-lanen detaileak jasota daude.

<sup>300</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1956.3.23)

<sup>301</sup> Informazio orri batzuk Ameriketara heldu ziren, horren lekuko 1956ko martxoko bileraren akta: “Caracas-tik Librería Izarra-ko Eduardo de Nafarrete jaunak idatzi duen karta irakurri da. Euskera aldirokoa aterako dela jakin du, Euskaltzaindiak jakinerazteko egin dituen orrien bidez eta an zabaltzeko eskabidea egiten du eta baita arako salneurria” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1956.3.23)

<sup>302</sup> Adibidez, Kolonbiako Mario Lizarazu (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak: 1960.6.24)

<sup>303</sup> Adibidez, Finlandiako Uppsala liburutegiak *Euskera* buletina beraien *Studia neophilologica*rekin trukatzeko eskaria egin zuen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1961.1.26). Ez zen truke bakarra izan, buletina trukatzeko eskariak Montevideo, Alemania, Filipinak eta bestelako lekuetatik heldu ziren.

<sup>304</sup> “Azkenengo EUSKERA urte biri dagokiona argitaratu izan da. Ordaindurik dago = 162.797 peseta, 1.134 alegatik (Ellacuria, Bilbao).” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.3.25)

<sup>305</sup> Garai honetako Euskaltzaindiaren Batzar-agiri gehienak euskaraz argitaratu ziren, nahiz eta urteren batekoak gaztelaniaz dauden.

#### 4.1.1. *Euzko-Gogoa* eta *Euskeraren* arteko eztabaida

J. Zaitetik Guatemalan sortutako *Euzko-Gogoa* aldizkariak, ez zuen lortu *Euskerarekin* eta *Eganekin* harreman txeratsurik. Izatez, Donostian argitaratzen zen *Eganekin* eta Bilboko *Euskera* buletinarekin momentu jakin batetik aurrera harremana eten zuen. Aldiz, dakigunez, ordena erlijiosoan baitan sortutako aldizkari proiektuekin ez zuen aparteko gorabeherarik izan (adb. *Anaitasuna*, *Karmel*, *Jakin*...).

Hasiera batean, *Egan* aldizkari elebiduna zenean, *Euzko-Gogoa* *Eganen* zenbaki batzuen berri eman zuen, eta donostiar aldizkari elebiduna euskaraz elebakar egin zenean, *Euzko-Gogoa* ongi etorri beroa egin zion, editorial oso bat aldizkariari eskainiz:

“**Eztitan gaude anai berri bat Donosti aldean sortu zaigulako.** Eta nolako anaia, alajaña! Badugu zertaz poztu **erakutsi ditugun bideak** alperreko gertatu ez diralako. «**Euzko-Gogoa**» **ren elburua euskera izan da sortu zan ezkeroztik, euskera mailla guzietarako, euskera literatura alor guzietarako, eta euskera soilik.** Literatura esatean, idaz-mota oro artu nai ditugu itz orren barnean. Eta Donostiako anai berri au gu bezin euskalzale sortu zaigu, bai orixe! **Au ere, gu bezela, ikasi ta erdi-ikasien artera datorkigu, euskera apain eta kantariz elerti sail guztiak bilbatuz. Badakarzki guk ez ditugun saillak ere, Kinema-sailla esaterako.** Eta «Euzko-Gogoa»k gertari ezoitu onek eman dion barne-poza ezin du lakaripean estali. Beraz poz betea Donostiako anai berri oni erakutsi nai diogu.”<sup>306</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, *Euzko-Gogoa*, *Egan* aldizkariaren maisu edo bide erakusle gisa agertzen zen. Biek euskaldun ikasientzat jardungo zutenez, horren inguruko hausnarketa bat gehitzen zen editorialean, garai hartan euskaltzaleen artean iritzia nagusia ez zen euskaldun ikasientzat aritzea, herriarentzat baizik:

“Gure artean **maizegi esaten digute erriarentzat, ERRI-ERRIARENTZAT alegia, idatzi bear dala**; ortan ari ez geranok izkera ondatzen ari gerala ere entzun dugu bein baiño sarriago. Gure elerti-arloan idazleen eginkizun eta asmoak extutu ta ersteko oitura betikoa izan da. Beti izan ditugu maisu azkarrak nondik eta nola ibilli irakatsi digutenak, naizta berak, euskeraz tautik idazteke xeru gozoenean bizi izan. **Ikasiok ere, euskaldun geranez, gere lan eta gogobearkizunetan euskera erabiltzera bearturik gaude. Ez du deus kaltegarriagorik izan gure izkuntzak erri xoilari beti-begiratze ori baiño; orretzek antzutu, elkortu digu geienbat euskal-elerti baratza,** oparo zitekena gabe biurturik, mendi-gallurretik erorita zelaian kokatzen dan arri aundiak azpiko ernemiñak oro itotzen ditun bezela. Uste zitalenaren iturria izan da gaiñera, beste izkerarik ez zekiten euskaldunentzat bakarrik euskeraz idatzi bear zala, alegia.”<sup>307</sup> [beltzak gureak dira]

<sup>306</sup> (Euzko Gogoa, 1955: 33)

<sup>307</sup> (Euzko Gogoa, 1955: 33)

Aipu honen argitan, *Euzko-Gogoa* sasoiko euskaltzale heldu eta zaharren artean berritzailea izan zen. Kontua da, euskaldun ikasiak 50eko hamarkadan gutxi zirela, eta beraz, euskaldun ikasientzat aritzea, elite kultural batentzat aritzea zen. Baina *Euzko-Gogoak* elitista izateko arazorik ez zuen. Hain zuzen ere, aldizkarian modu batera edo bestera zutarri izandako hiru euskaltzaleak, J. Zaitegi, *Orixek* eta A. Ibiñagabeitia, hirurak formazioz jesuita izanik, balore horretan ohituta zeuden. *Orixek* idatzitako artikulu batean aitortza esplizitua aurkitu dugu: “Amar yakintsuk Olabide irakurtzea geiago da berreun erritarrek Kirikiño’ren Abarrak baño”<sup>308</sup>.

Edozein modutan, aldizkari biak euskaraz, aldizkari biak euskaldun ikasientzat, nahita edo nahigabe, lehiakide ziren. Eta berehala sortu zen hika-mika bien artean<sup>309</sup>.

*Euzko-Gogoa* eta *Euskeraren* arteko hika-mika ez zetorren konkurrentziagatik, arrazoiak bestelakoak ziren. *Euzko-Gogoa* sortu zenean 1950. urtean, Euskaltzaindiak ez zuen bere buletina argitaratzeko baimenik. *Euzko-Gogoak*, *Euskerarik* ez zegoenean, Euskaltzaindiaren hainbat berri argitaratu zituen: euskaltzainen izendapena<sup>310</sup>, sarrera-hitzaldiak<sup>311</sup>, erantzun-hitzaldia<sup>312</sup>, erakunde bizitzaren gorabeherak<sup>313</sup>, eta antolatutako jardueren berri euskal eskolak zein lehiaketak<sup>314</sup>.

Are gehiago, aldizkariaren bigarren urtean, Euskaltzaindiaren eraberritzearen testuinguruan, eta eraberritzea kritikatu, *Euzko-Gogoaren* irakurleentzat 5 itauneko galdetegi bat argitaratu zen, non argiro planteatzen zen *Euzko-Gogoa* Euskaltzaindiaren aldizkaria izatea: “4) Orain batzarrerik egin ez ditekela, bein-beingoiz ontzat artuko al

---

<sup>308</sup> (Orixek, 1951)

<sup>309</sup> Ikus K. Mitxelenaen *Eganeko* artikulua (Mitxelena, 1956a) eta J. Zaitegiren *Euzko-Gogoako* editoriala (Zaitegi, 1956)

<sup>310</sup> Ikus “Euskaltzain berriak” *Euzko-Gogoa*, 7-8 (1950), 14-15. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo05/eugo0510.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]

<sup>311</sup> Ikus L. Villasanteren sarrera-hitzaldiaren laburpena *Euzko-Gogoan* argitaratu zen (Ibiñagabeitia, 1954b)

<sup>312</sup> Ikus adibidez F. Krutwig-en bi erantzun hitzaldiak (Krutwig, 1952a eta 1952b)

<sup>313</sup> Ikus *Orixek* idatzitako artikulua F. Krutwig-ek Euskaltzaindia eraberritzeko prestatutako txostenaren gainean (Orixek, 1950)

<sup>314</sup> “Berriak” *Euzko-Gogoa*, 11-12 (1954), 207. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo24/eugo2434.htm> [kontsulta data: 2008-08-20]

duzute EUZKO-GOGOIA Euskaltzaindiaren Aldizkari bezala?”<sup>315</sup>. Hori gutxi balitz, artikulu honetan *Euzko-Gogoak* atzerriko Euskaltzaindi bat sortzea proposatu zuen.

*Euzko-Gogoak* beraz, bazuen Euskaltzaindiaren berri jasotzeko –edo ordezkatzeko– gogoia. Euskaltzaindiak aldiz, ez dirudi *Euzko-Gogoarekin* kolaboratzen zuenik. Horrela, aitortzen zuen Guatemalako aldizkariak 1954. urtean: “Guk ere aldizkarian iragarri genuen sariketa au, baiña ukan dituen ondoreetaz ez digu Euskaltzaindiak ezer ere adierazi, beraz zearka iaso ditugun berriok iaso bezela ematen ditugu”<sup>316</sup>.

*Euskera* ohikotasunez argitaratzen hasi zenean (1956an), *Euzko-Gogoak* Euskaltzaindiaren gaineko berri laburrak jaso zituen<sup>317</sup>. Salbuespen birekin: lehena, *Euskera* buletinaren lehen zenbakiari eskainitako tarte eta Andoni Urrestarazuren kritika, eta bigarrena, *Orixeren* sarrera-hitzaldia eta K. Mitxelenaren erantzun hitzaldiaren gainean egindako kronika. *Orixek Euzko-Gogoan* lan egin zuen 6 hilabetez, beraz aldizkariarekin harreman estua zuen, eta horregatik *Euzko-Gogoak* jaso zuen gertakaria<sup>318</sup>.

Euskaltzaindiak *Euskera* buletina 1956. urtean berrargitaratzean, *Euzko-Gogoan* Andoni Urrestarazuk, “U.” ezizena erabilia, artikulu bat argitaratu zuen, erdararen gehiegizko presentzia kritikatu:

“Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindiaren aldizkaria. Ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudinez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea bide da. Nik, beintzat, ez tut aien begietatik argia ikusten, ala bearrik. Bazterretan ugari ditugu ainitz ta agitz euskeraz dakitenek: euskeraz, ordea, urri itz egin ta idatzi oi dute-ta, iakintzaren sail geientsuenetan euskera larru gorritan ageri zaigu.”<sup>319</sup>

<sup>315</sup> (*Euzko-Gogoia*, 1951: 13)

<sup>316</sup> “Berriak” *Euzko-Gogoia*, 11-12 (1954), 207. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo24/eugo2434.htm> [kontsulta data: 2008-08-20]

<sup>317</sup> Ikus adibidez 1958. urtean Euskaltzaindiak Euskara Batuaren inguruan antolatutako batzarraren gainean egindako kronikatxoak (cfr. “Irakurlearen txokoa” *Euzko-Gogoia*, 5-6 (1958), 705. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo42/eugo4227.htm> [kontsulta data: 2009-06-01])

<sup>318</sup> Juan San Martinek dakarrenez, *Orixek* euskaltzain kargua onartzeko Euskaltzaindiari baldintza jarri zion, Isak Lopez Mendizabal Euskaltzaindian sartzea. 1957. urtean Euskaltzaindiak tolosarra euskaltzain ohorezko izendatu zuen, eta *Orixek* euskaltzain oso (San Martin, 1979: 67)

<sup>319</sup> (Urrestarazu, 1956c)

A. Urrestarazuk Euskaltzaindiari kritika egin eta koherentzia eskatzen zion bere jardun esparru eta hizkuntzaren erabileraren artean. Are gehiago, euskara ezagutza jasoaren transmisio hizkuntza izatea eskatzen zion. Horregatik guztiagatik A. Urrestarazuk gehitu zuen: “Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu”<sup>320</sup>.

Kritikok ez ziren Koldo Mitxelenaren gustukoak izan eta, *Egan* aldizkarian erantzun zituen modu zorrotzean. K. Mitxelenarentzat funtsezkoa zen bereiztea euskaltzalea eta euskalaria: euskalaria lanbidea zelako, eta euskaltzalea ez (“euskalaria naiz, edo obeto esan euskera batez ere gogoan duen linguista. Ori da nere lanbidea eta ori nere irabazpidea. Dakidanez, eztiote iñori soldatarik ematen ez euskaldun delako ez euskaltzale”<sup>321</sup>). Beraz, euskalariak, K. Mitxelenaren ustez, euskaltzaleak izan zitezkeen edo ez<sup>322</sup> –euskararen etsaiak izatera heldu gabe—<sup>323</sup>.

Halaber, K. Mitxelenak, jarduera esparruaren arabera, beste bereizketa bat egitea proposatu zuen, irakaskuntza eta ikerkuntzaren artean,

“Baiña bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurreraztea, edo aurrerazi-naiean ibiltzea, gizon ikasi asko-jakiña eta billatzaillea zearo ezberdiñak diren antzera. Munduan barrena dabiltzan esku-liburuak, **euskaldunen ikasbiderako, itzultzeari eta aien gisakoak antolatzeari ezin obeki derizkiot. Baiña jakintza-arloan billa ari denak ezer berririk euskeraz adierazi? Zertako? Kontatzen dakienak eztu orrelakorik egingo**”<sup>324</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, K. Mitxelenarentzat ikerkuntzako emaitzak euskaraz emateak ez zuen zentzurik, edo adibide batekin esanda:

“Egin dezagun euskaldunen batek asmatzen edo aurkitzen duela egun edo biar Einstein’ek fisikan edo Fleming’ek medikuntzan asmatu edo aurkitu dutenen pareko zerbait. Eztugu berealakoan ikusiko, **izpiritu-gaietan saiatzen diren euskaldunek maiz aldegiten baitute guregandik** (...). Zein izkuntzatan emango luke berria? Euskeraz ematea, ez ote litzake mutua artzea oiulari?

---

<sup>320</sup> (Urrestarazu, 1956c)

<sup>321</sup> (Mitxelena, 1956a: 159)

<sup>322</sup> “... gauza ageri xamarra da zapatariak euskaltzaleak direla batzuetan, eta besteetan ez. Orobat apaizak, medikuak eta euskalariak” (Mitxelena, 1956a: 159)

<sup>323</sup> K. Mitxelenak ironikoki honela dio: “Nortzuk dira euskeraren etsai? Euskalariak. Nortzuk laguntzaille? Euskaldun-euskaltzaleak. Akaba ditzagun, beraz, leen baino leen euskalariak pake ederrean biziko gera aurrerantzean euskaldun-euskaltzaleok” (Mitxelena, 1956a: 159)

<sup>324</sup> (Mitxelena, 1956a: 160-161)

Euskeraz mintzatuko balitz, kaltea besterik, eluke egingo: bere buruari aurrenik, jakintzari gero, munduko eri guztiei sendagairen bat asmatu badu, eta abar. Onik elioke iñori egingo, ezta euskerari ere. Ezpailuke iñork euskeraz ikasiko bere lanak irakurtzearren. **Zer erakutsiko luke, gaiñera, euskeraz idatziaz? Gauza dela euskera, alegia, orrelako gaiak adierazteko?**<sup>325</sup>  
[beltzak gureak dira]

Interes orokorreko aurkikuntzen berri euskaraz ematea zentzugabekoa zen, publikorik ez zutelako, ez atzerrian, ez Euskal Herrian bertan. K. Mitxelenak zioen moduan, euskaldun ikasi gehienak izpiritu-gaietan aritzen zirelako (“izpiritu-gaietan saiatzen diren euskaldunek maiz aldegiten baitute guregandik”), eta ikerkuntza enpirikoen gainean ez zutelako interesik. Hortaz, zientzialari euskaldun batek bere aurkikuntzaren berri euskaraz emango balu, K. Mitxelenaren ustez, ez litzateke bere ikerketaren emaitza ematen arituko, baizik ariketa linguistiko bat izango zen, demostratzeko euskal hizkuntza gai dela edozein gaitaz aritzeko.

Beraz, K. Mitxelenaren aburuz, bi arloak bereiztu behar dira: batetik, irakaskuntza edota barne kontsumoa, eta bestetik, ikerkuntza edota kanpokoentzat zein barrukoentzat ekoizten zena. Are gehiago, K. Mitxelenak honakoa gehitzen zuen,

“Sueziako ‘Studia Linguistica’ aldizkariaren azalean irakur ditezkean itz auek eskeintzen dizkiot U. jaunari: “alemanez, ingelesez, españolez eta frantsesezko idazlanak bakarrik jasoko dira”. Beren izkuntzak eztu, beraz, lekurik or.”<sup>326</sup>

Ondorioa argia da, *Euskerak*, Euskaltzaindiaren aldizkariak, hizkuntzalaritza arloko aldizkaria izanik, eta egileak euskalariak izanik (hau da, euskaltzaleak zertan izan behar ez duten ikertzaileak), ez zuen halabeharrez euskarazko lanik argitaratu behar. Gainera: “‘Euskera’, Euskaltzaindiaren aldizkaria, ezta iñoiz euskera utsez agertu”<sup>327</sup>.

K. Mitxelenak *Eganeko* artikulua bukatu zuen hizkuntzaren gaineko gehiegizko kezka kritikatu eta edukiari arreta gehiago eskatuz:

<sup>325</sup> (Mitxelena, 1956a: 160)

<sup>326</sup> (Mitxelena, 1956a: 161)

<sup>327</sup> (Mitxelena, 1956a: 158)

“Utzi ditzagun quijotekeriak, zentzatzeko ordua badugu-ta. Utzi dizaiogun, gere buruak edertzeko edo, akullu-bearrik eztutenak akuillatzeari. Ken dezagun, arren, burutik euskera. Mintza gaitzen ontaz edo artaz –euskeraz, bai, orduak, eta gaiak eskatzen duten guztietan-, baiña gaiari begira eta ez izkerari bakarrik”<sup>328</sup>

J. Zaitegik *Euzko-Gogoaren* maiatz-ekaineko zenbakiko editorialean, K. Mitxelenari honela erantzun zion:

“Bigarren agerraldiko «Euskera»ren lenengo banakoari buruz bere iritzia eman zun U.'k. Okerrean ezpagaude, bere lantxoan auxe adierazi nai zien Euskaltzaindi'ari ta bertako euskalariei, beren lanak euskeraz emateko beraren aldizkarian, alegia. Euskaltzaindi'ari ta zenbait euskalariei ori eskatzea, ordea, ONU'ri ta Einstein edo Fleming'i beren erabaki ta asmakizunak euskeraz emateko eskatzea bide da: zentzugabekeri ta quijotekeri utsa, alegia. Ori dala-ta, U. ori astinduka darabil Mitxelena iaunak, eta iseka ta ista onik egiten du bere buruaren pozetarako ta irakurlearen saminetarako.”<sup>329</sup>

J. Zaitegik editorial honetan berretsi zuen A. Urrestarazuren eskaria, hau da, “Ta «Euskera»k dakartzin kultura-apurrak euskeraz irakurri nai genituzke: orixe eskatzen dugu begirunerik itzalenaz”<sup>330</sup>.

Dela *Euzko-Gogoako* iritziak eraginda, dela bestelako arrazoiengatik, laster *Euskera* buletinean euskara nagusitu zen, nahiz eta gaztelaniaren presentzia nabarmena zen. Frantsesez artikuluren bat edo beste aurki zitekeen, eta ingelesez ezer ez. Alde horretatik nabarmentzekoa da *Euskera* buletinak hizkuntza hautu bat egin zuela, euskara ikergai ez ezik, lan tresna nagusi bihurtuz. Euskaltzaindiaren buletina, beraz, euskarazko aurreneko aldizkari argiro akademikoa bihurtu zen: goi mailakoa baina ez komunitate zientifiko abstraktu bati zuzendua, baizik berariaz euskal irakurleei zuzendua, filologoei zein euskaltzale publiko zabalagoari. Aldiz, Urkixo Mintegiaren urtekaria (ASJU) hobeto egokitzen da K. Mitxelenak buruan duen euskal hizkuntzalaritza arloko aldizkari zientifiko “normal” baten eredura.

---

<sup>328</sup> (Mitxelena, 1956a: 163)

<sup>329</sup> (Zaitegi, 1956: 1)

<sup>330</sup> (Zaitegi, 1956: 1)



## 4.2. ASJU: euskal hizkuntzalaritzaren internazionalizazioa

Urkixo Mintegiaren aldizkariak (*Anuario del Seminario de Filología Vasca* “*Julio de Urquijo*” aurrerantzean ASJU) urtekari formatua zuen, eta 1954. urtean sortu zuen mintegiak gehien bat bere inguruan ikertzen zeuden ikertzaileen lanak ezagutarazteko. Urtekaria 1954 eta 1955. urteetan kaleratu zen eta ondoko urteetan ASJUrik ez zen kaleratu 1967. urtera arte. Lehen bi zenbaki horietan euskaraz bi liburu aipamen argitaratu ziren.

ASJUrik ez zen argitaratu 1956-1966. urteen artean. Horretan eragina izan zezakeen Urkixo Mintegiak bere gain hartu zuela *Egan* aldizkariaren erredakzio eta zuzendaritza. Horregatik agian, 1956. urtean, mintegiak urtekaririk atera ez zuen lehen urtean *Egan* aldizkariaren 4 zenbaki berri atera ziren, aurreko urtean baino zenbaki bat gehiago. Hala ere, Urkixo mintegiak *Eganen* ardura hartzeak ez du dena esplikatzen ondoko urteetan *Eganen* urteko zenbakiak bizpahirura jaitsi zirelako. Are gehiago, urte batzuetan zenbaki bakarra atera zen (adibidez 1966. urtean). Beraz, badirudi, mintegia sasoi honetan ahuldu zela.

1967 urtean urtekariak zenbakitze berria hasi zuen. Ordutik gorabehera txiki batzuekin, mintegiak gaur egunera arte argitaratzen jarraitu du urtekaria. Aipatutako 1967ko zenbakian euskarazko artikulua bat argitaratu zuen Kandido Izagirre frantziskotarrak Altsasuko euskarari buruz<sup>331</sup>. ASJUUn euskaraz prestatutako beste artikulurik ez zen kaleratu 1973. urtera arte<sup>332</sup>. 1967an *Eganek* honela egin zion urtekariari ongi-etorria:

“Goimaillako aldizkari barri bat argitaratzen asi jaku orain, Mitxelena eta Agud irakasle ezagutuen zuzenbide ta ardurapean.

Gitxienez irureun orrialdeko tomu bat ateratzeko asmoa dauke, urtean urtean. Ale bat edo bi tomo bakoitzak. Aurtengo tomu osoa da lenengo ale lodi au.

Jakintza-bidez gure euskerearen aztarnak artzeko gaiak argitaratuko dira bertan. Izketa-jakintza onetan, beste berbakuntzakin daukozan zer-ikusiak be ikertuko dira, orrek direalako gaurko izkuntzalarien lanbideak izkuntzaen iturriak eta jatorriak jakiteko. Bide orretatik jo bear da gaur, euskerearen ezkutuko asierak nun dagozan jakiteko.

(...)

<sup>331</sup> Izagirre, K.: “Altsasuko euskeraren gai batzuk” ASJU, 1 (1967), 45-97.

<sup>332</sup> Urkizu, P.: “Aldabak, xikitoak eta erran zaharrak” ASJU, 7 (1973), 104-116.

Urte onuratsu eta luzeak opa deusguz, **mundu guztiko izkuntzalarien eta euskaltzale askoren artean** irakurriko dan Urteroko aldizkari barri oni<sup>333</sup> [beltzak gureak dira]

Urkixo mintegia euskal hizkuntzaren ikerketarako goi-mailako zentro gisa sortu zen, eta euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiaren arloko ikerkuntzon emaitzak ezagutzera emateko maila bereko aldizkaria sortu zuen. Beraz, ASJU urtekaria ez zen hizkuntzan zaletuentzat egindako aldizkaria, ikertzaileentzat egindakoa baizik. Hau da, aldizkaria ez zen euskaltzaleentzat, hizkuntzalarientzat baizik, bertako zein nazioarteko euskalari zein erromanistentzat. Hortaz, aldizkariaren begirada kanpora zuzenduta zegoen eta ez barrura, nazioarteko hizkuntzalaritza arloko zirkuitura, hain zuzen. Horregatik artikulua gehienak erdaraz, bereziki gaztelaniaz, argitaratzen ziren. Gotzon Egiaren dionez: “Julio de Urquijo Mintegiaren lanak hizkuntzalaritza alorreko nazioarteko komunitate zientifikoa Euskal Herrira begira jarri zuela esan daiteke”<sup>334</sup>. Noski, ordurako nazioarteko komunikazio hizkuntza ingelesa zen, eta gaztelania aukeratzea nazioarteko oihartzuna edukitzeko ez zen agian estrategiarik eraginkorra. Hala ere, euskal hizkuntzan interesatutako nazioarteko ikertzaileak askotan erromanistak ziren, eta beraz gaztelaniaz moldatzen ziren.

Bestalde, ASJU euskal hizkuntzari buruzko aldizkaria izan arren, Fisikari buruzkoa izan zitekeen, eta ez zuen zertan bat egin hizkuntzaren egoera gutxitu eta diglosikoarekin, helburua beste bat zelako, ikergaiaren gaineko ezagutza zientifikoa, eta bere jomuga nazioarteko komunitate zientifikoa. Aldiz, arlo bertsuan zebilen Euskaltzaindiaren buletinak, *Euskerak*, beste hizkuntza batzuk onartu arren, testu gehienak euskaraz argitaratzen zituen. Hortaz *Euskerak* barrura begira orientatuta zegoen, euskal hiztun komunitateari begira, bereziki euskaltzaleei eta aditu euskaldunei. Horrek ez du esan nahi, *Euskerak* goi mailako aldizkari akademikoa ez zenik, aitzitik euskalariarentzat, eta oro har hizkuntzalarientzat idazlan interesgarriak argitaratu zituen euskaraz, baita gaztelaniaz zein frantsesez ere. Beraz, alde horretatik esan liteke *Euskerak* euskara aitzinarazteko saioa egiten zuela, ASJUren urtekarian hain nabarmena ez zena.

---

<sup>333</sup> (Altzola, 1967a: 119-120)

<sup>334</sup> (Egia, 1999)

Laburbilduz, garai honetako euskal hizkuntzaren inguruko goi-mailako aldizkari nagusiak *ASJU* eta *Euskera*, komunikazio zientifikoaren ikuspegitik, bi eredu oso diferenteren erakusgarri dira. ASJU nazioarteko arean bere lekua egiten saiatu zen bitartean, *Euskera* aldiz bereziki euskal hiztun komunitateari zuzendatutako proiektua izan zen, euskararen aurrerabidean inplikaturako zegoena, edukien egokitasunean amore eman gabe.

### 4.3. Yakinetik Jakinera: garbizaletik mordoilora

Eliz ikastetxeetako ikasle gazteek aldizkaritxoak argitaratzen zituzten, eta gehien bat ordena barruan kontsumitzen ziren, hau da, zirkuitu txikia zuten. Asko jota beste ordenetako ikasleen eskuetara heltzen ziren. 50eko hamarkadara arte aldizkaritxo horiek erdaraz egiten ziren, baina hamarkadaren erdialdetik aurrera osorik euskaraz argitaratzen ziren aldizkariak sortu ziren<sup>335</sup>. Esate baterako 1955. urtean Irungo Lasalletarrak *Nora? Irun'go Salletarren Nobiziaduko illeroko aldizkaria*<sup>336</sup> atera zuten, eta denbora gutxian beste batzuk etorri ziren: *Jakin* (1956), *Arnas* (1959), *Laiaketan* (1959), *Erein* (1960)<sup>337</sup>... Aipatutako euskarazko aldizkari horietatik guztietatik gaur egunera arte heldu den bakarra *Jakin* da.

Sasoi hartan *Jakin* ez zen euskarazko lehen aldizkaria, ezta gutxiago ere. *Jakin* sortu zenean, euskarazko beste bi aldizkari garrantzitsu baziren: *Euzko-Gogoa*, Iparraldean inprimatzen zena eta *Jokin Zaitetik* zuzentzen zuena, eta *Egan*, Donostian

<sup>335</sup> Hegoaldean Frankismo betean dagoen une horretan, 50eko hamarkadaren erdialdean apaiztegi barruko ikasleek zergatik hasi ziren euskarazko aldizkariak argitaratzen aurrerago ikertzeke uzten dugu.

<sup>336</sup> *Nora?* 1955-1960. urteen artean argitaratu zen (1-17. zkiak). *Euzko-Gogoa* eta *Egan* aldizkarian antzeko ohar laburrak argitaratu ziren 1956. urtean, aldizkariren hirugarren zenbakiaren kariaz: *Euzko-Gogoak* honako ohar txiki hau argitaratu zuen: "Iaso berri dugu NORA? Irun'go Salletarren ikastetxeeko aldizkaria: irugarren urtean doaz ta XI'garren zenbakia da azkena. Aldizkari apala axalez, txukuna, ordea, ta mami aundikoa, bai orixe. Zorionak zuei ere Anai Agurgarrioi, euskeraren aldeko zuen lan ederra dalata. Jaungoikoaren morroi ta euskaltzale sutsu izan daitekela batera, aditzera ematen baituzue" (ikus "Irakurlearen Txokoa" *Euzko-Gogoa*, 1956 (orrilla-garagarrila), 120. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo30/irueugo30122.htm> [kontsulta data: 2009-06-03])

*Eganen* berriz, Koldo Mitxelenak hartu zuen oharra idazteko ardura: "Bigarren urtea. Irugarren zenbakia... Bai al-zenekian zuk, irakurle?... Orra ba. Irun'en euskerazko Aldizkari Revista bat, orain iru urte asia. / Eta nolakoa? Ez orri-askoduna; ez bear ere Nobiziadu bateko berriak-eta emateko. Bañan polita, bai. Tximeleta, pinpiriña, pinpilinpauxa iduri. Orri bi, Egan egiteko naikoak, eta egoki-egoki. Ondo betetzen jakin bear, ezik. Eta orixe du, ain xuxen, gure iritziz bere egokitasunik ederrena gure NORA?k. Ondotxo betea. Danetik pixkat, berak dion bezela. / Urte askorako" (Mitxelena, 1956c: 58-59)

<sup>337</sup> (Intxausti, 1980: 104)

kaleratzen zena Urkixo Mintegiaren ardurapean. Aipatutako bi proiektu horien arrakasta eta porrotak *Jakin* aldizkariarentzat helduleku izan ziren, bereziki hizkuntza ereduari dagokionez. *Euzko-Gogoaren* euskara eredia *Jakineko* batzuentzat (adibidez, J. Intxaustirentzat) absurdua eta suizida zen. *Jakin* aldizkariarentzat beste bide bat landu zuten (euskara mordoiloarena). Hala 50eko hamarkadaren amaieran Euskal Herrian euskarazko kultur aldizkarietan eredu bi zeuden: *Euzko-Gogoarena* eta *Jakinena*. Baina ikusiko dugunez, J. Intxaustik desegin zuen kultura aldizkarietan zegoen (hizkuntza) eredu bikoitza, eta *Jakineko* esperientziarekin “Euzko-Gogoa-ko eredia aurrerabiderik eta jarraipenik gabe utzi”<sup>338</sup> zuen.

*Jakin* eta aurretik sortutako bi aldizkarien (*Egan* eta *Euzko-Gogoa*) arteko desberdintasun garrantzitsu bat lan moldean datza. *Jakin*, beste biak ez bezala, talde lanean egiten zen. *Euzko-Gogoa* Jokin Zaitegiren proiektu pertsonala zen, haren bizitzaren gorabehereri lotutakoa. *Egan*, proiektu pertsonala ez bazen ere, ez zuen taldean funtzionatzen ezta taldeak eusten ere. Aldiz, “*Jakin* seminario ezberdinetako filosofia eta teologiako euskal ikasle”<sup>339</sup> batzuk egin zuten<sup>340</sup>. Beraz ez da aldizkari frantziskotarra, nahiz eta proiektuko kide gehienak ordena horretakoak izan<sup>341</sup>. Aldizkaria taldean sortu zen, taldean erabaki zuten aldizkariaren norabidea (adib. *Jakin*larien bileretan), eta zuzendaritza ez zen finkoa, taldekoak txandatzen baitziren karguan. Laburbilduz *Jakinen* inguruan lantalde bat eratu zen, eliz ikasle euskaltzaleak biltzen zituena<sup>342</sup>, hasieran aldizkaria kaleratzeko, eta handik denbora gutxira *Jakin*larien bilerak antolatzeke, baita beste ekimen editorial batzuk abian jartzeko ere:

---

<sup>338</sup> (Azurmendi, 2007a: 102)

<sup>339</sup> (Azurmendi, 2007a: 158)

<sup>340</sup> Eta garaian bertan horrela ikusten zen. Esate baterako Andima Ibiñagabeitiak honakoa idatzi zuen *Jakin* aldizkaria sortu berritan: “Besterik da YAKIN'eko gazteen kontua! Pozez gaiñezka ikusten ditugu auzo-lanik ederrenean prantziskotar, beneditar, karmeldar, sallear, pasiotar, sakramentar, apaizgai ta abar, gazteak danak, dagokien saillean iakituri-legamiz euskera arrotzen, guk ere iakintza-ogiz gure gogoak ase ditzagun.” (Ibiñagabeitia, 1958: 219)

<sup>341</sup> Ikus *Jakin* aldizkariaren 10. zenbakiaren kariaz, aldizkariak berak prestatutako estatistikak. Bertan agertzen denez, lanak argitaratu dituzten 53 egileetatik, 17 frantziskotarrak dira (eta horietako 16 Arantzazukoak), baina baziren ere sakramentinoak (10), beneditiarrak (8, Lazkao eta Belokekoak gehituta), jesuitak (4), pasiotarrak (4), karmeldarrak (3), laterandar eta lasailletar egile bana, eta azkenik bazire ere apaizgaiak (5). (ikus “Yakingarri bat” *Jakin*, 10 (1959), 89-90. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59\\_10/Jakin59\\_10.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59_10/Jakin59_10.html) [kontsulta data: 2009-06-03])

<sup>342</sup> Garaiko protagonista batek dioenez: “Denon ahuldadeari aurre egiteko premiazkotzat geneukan lagunarte-batasuna indartzea, komentu-etxe bakoitzeko ikaslegoaren barruan eta Probintzi erlijiosoetako Nagusien aurrean.” (Intxausti, 2007b: 66)

*Jakintxo*, *Jakin* Sorta eta abar. *Jakineko* lantaldeak euskarazko kultur plataforma bat eraiki zuen, eta hortik euskarazko jakintza jasoko erreferentzialtasuna eskuratu ere, bai hizkuntza ereduaren aldetik zein jakintzaren esparrutik.

*Jakin* aldizkariaren historia luzea da, bost hamarkada baino gehiagokoa, eta behin baino gehiagotan *Jakinek* begirada atzera bota du, proiektuaren jatorria eta bilakaera azaltzeko. Gehienetan, urteurren ospakizunen kariaz argitaratu dira *Jakini* buruzko artikulak. *Jakinen* 25. urteurrena ospatu zenean, hainbat ikerketa eta datu argitaratu ziren<sup>343</sup>. Aldizkariaren omenez egindako azken ekitaldiak 2006ko urtean izan ziren (mahai-inguruak, DVD aurkezpena, Miramarreko ekitaldi soziala Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin...). 50. urteurrenaren kariaz, *Jakinek* bere historia<sup>344</sup> eta sorrerako testuinguruari<sup>345</sup> buruzko zenbait artikulua interesgarri kaleratu zituen 2006 eta 2007ko zenbakietan.

Aldizkariak bere burua omentzeko asmotan egindako lanak izan direnez, barne begirada gailendu da. Izan ere, oraindik *Jakinen* historia *Jakinetik* kanpo egiteke dago. Aldizkariari buruz argitaratu diren lanak *Jakineko* kideek (zuzendari edo erredakzio taldeko kide izandakoek) prestatu dituzte: Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealdei, Paulo Agirrebaltzategi... Egiteke dagoen kanpo lan hori heldu bitartean, puntu honetan *Jakinen* ingurukoek egindako ikerketak erabili ditugu aldizkaria eta haren kultur proiektuaren gako nagusiak azaltzeko. Beraz, lan horietatik ateratako datu eta azalpenen sintesi moduko bat aurkezten dugu segidan. Izan ere, *Jakin* da, euskarazko aldizkariaren artean, gehien ikertutako aldizkaria.

---

<sup>343</sup> Ikus *Jakin*, 21 (1981).

<sup>344</sup> *Jakin* Kultur Taldeari buruz (Agirrebaltzategi, 2006), *Jakinen* debeku eta oztopo administratiboei buruz (Agirrebaltzategi, 2007a), aldizkariaren baitan hizkuntz ereduaren gaineko eztabaidari buruz (Azurmendi, 2007a) eta abar.

<sup>345</sup> *Jakin* 50eko hamarkadan sortzen da eta 159. zenbakia 50eko hamarkada Euskal Herrian gaiaren inguruan monografikoa izan zen. Aurreko zenbakian, Joseba Intxaustik, *Jakinen* aurreko eta berehalako testuinguru historikoa azaldu zuen (Intxausti, 2007b)

### 4.3.1. Aldizkariaren epealdiak

*Jakin* 1956. urtean kaleratu zen (lehen urteetan *Jakin* grafiarekin). Bost hamarkada hauetan aldizkariak izaera desberdineko hainbat gorabehera bizi izan ditu. Batzuk politiko eta administratiboak, eta beste batzuk, aldizkari proiektuari berari zegozkionak. J. Azurmendik dionez, “aldizkariak bere historia gorabeheratsuan fundazio eta fundatzaile bat baino gehiago izan duela, aitortu behar da”<sup>346</sup>. Hau da, gaur egun izen berarekin aldizkari proiektu desberdinak izendatzen dira. Beraz, *Jakin* aldizkariaren periodizazioak bi modutara egin daitezke, ikuspegi politiko eta administratibotik, hau da, bere egoera juridiko desberdinak bereiztuz (legala, alegala eta ilegala), edo proiektuaren edukiaren ikuspegitik. Segidan biak aztertuko ditugu. Lehenengo marko juridikorekin hasiko gara, ostean aldizkariaren edukien azterketan zentratzeko.

*Jakin* aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zenetik gaur egun arte, Espainiako erregimen frankistak birritan itxi zuen (1962-1964 eta 1969-1976. urteen artean), eta beraz, aldizkariak ikuspegi politiko eta administratibotik hiru etapa nagusi izan ditu: lehena 1956-1961 urteen artekoa, bigarrena 1964-1969. urteen artekoa, eta hirugarren eta azkena, 1977tik gaur egunera heltzen dena. Paulo Agirrebaltzategik zehatz mehatz azaltzen ditu 60 eta 70 hamarkadetan aldizkariak sufritutako debeku eta oztopo administratiboak. Segidan aipatutako epe bakoitza pixka bat zehatzago azalduko dugu.

Hasteko, Hegoaldean Frankismoa bete-betean zenean, euskara hutsezko aldizkari nola argitaratzen zen azaltzea komeniko litzateke. Erantzuna argia da, aldizkariak argitaratzeko baimenik eskatu ez zuelako. Beraz, *Jakin* legez kanpo atera zen, baina ez legearen aurka<sup>347</sup>. Lehen zenbaki horiek *Pro manuscripto* moduan argitaratu ziren. Hau da, zenbakiak ez ziren inprimategian egiten, eta beraz baimenik ez zuten eskatu behar kaleratzeko. Are gehiago, 1961. urtean 14. zenbaki osoa lehen aldiz Bilboko inprentan bota zenean, *Pro manuscripto* formula erabiltzen jarraitu zuten.

---

<sup>346</sup> (Azurmendi, 2007a: 120)

<sup>347</sup> P. Agirrebaltzategik azaltzen du zein izan zen aldizkaria kaleratzeko estrategia: “Elizaren eta Frantziskotar nagusien baimenik gabe, eta horiek ezjakinean zeudela, atera zuten; baina aldizkariak izan zuen arrakastaren ondoren, berehala konpondu ahal izan zuten anomalia hura, eta nagusien baimena eduki zuten aurrera jarraitzeko, beti ere kontuz eta zuhurtziaz jokatzeko aholkuarekin.” (Agirrebaltzategi, 2007a: 88)

Hurrengo zenbakia ateratzeko bide berdina jarraitu zuten, eta orduan *Ministerio de Información y Turismok* baimenik gabeko aldizkaria argitaratzeko bidea moztu zuen. Beraz lehen urte hauetan (1956-1961) *Jakinek* bere historiako 15 zenbaki erditu zituen.

Baimena lortzeko gestioetan urteak joan ziren, eta 1964. urtean Madriletik baimena heldu zen. Baimena behin behinekoa zen eta Lege Gordailu zenbakia eta zenbait baldintza bete behar zituzten. Horiek guztiak asetzean, etenik gabe argitaratu zen aldizkaria 1969. urtera arte. Urte horretan berriz legez kanpo utzi zuten. Agirrebaltzategik dioenez, prentsa askatasunerako mesedegarria izan behar zuen 1966ko Espainiako *Ley de Prensa e Imprenta*, *Jakinentzat* kaltegarria izan zen<sup>348</sup>. Hala, lege berria indarrean zela, Arantzazuko nagusiak komentuko aldizkariak erregistratu nahi izan zituenean<sup>349</sup>, *Jakin* kanpo geratu zen aparteko espedientea ireki ziotelako. Ministerioak zera argudiatzen zuen, aldizkariak baimena eskatu zuela apaiztegi-tako ikasleak trebatzeko euskararen ikerkuntza filosofiko, teologiko eta kulturalean<sup>350</sup>, eta azken zenbakietan ez zela aipatutako baldintza betetzen. Ministerioaren aldizkariaren kontrako borondate politikoa ukatu gabe, egia da urteekin *Jakin* aldizkariak apaiztegi-tako ikasleen aldizkaria izateari utzi ziola eta, bilakatu eta zabaldu egin zela, bai gaietan eta bai lankideetan ere, aldizkari-ko zuzendaritzak berak sustatuta. Aldizkaria legez-tatua egon zen garaian (1964-1969) 20 zenbaki berri kaleratu ziren (16. zenbakitik 35.enera). Legez kanpoko urte horietan *Jakin* inguruko lan taldeak beste argitalpen proiektu bati ekin zion: *Jakin* Sortari hain zuzen ere.

Zenbait urteko gestio eta harremanen ostean, *Jakinek* baimena lortu zuen berriz (1977). Hirugarren eta azken epe honetan, gaur egunera arte luzatzen dena, *Jakin* aldizkariaren zenbakitze berria hasten da<sup>351</sup>.

<sup>348</sup> (Agirrebaltzategi, 2007a: 78)

<sup>349</sup> Une hartan Arantzazuk frantziskotarrek 5 aldizkari zituzten: *San Antonio de Padua*, *Arantzazu*, *Misiones Franciscanas*, *Goiz Argi* eta *Jakin* (Agirrebaltzategi, 2007a: 79)

<sup>350</sup> "... iniciar a los estudiantes teólogos y filósofos, de las diversas casas franciscanas, en investigaciones filosófico-teológicas y estudios culturales en vasconia" (Agirrebaltzategi, 2007a: 77)

<sup>351</sup> Azken garai honetan aldizkariak ISSN zenbakia (1981) lortu zuen.

#### 4.3.2. Aldizkari proiektuaren bilakaera

*Jakin* aldizkaria gaur egunera arte argitaratu arren, atal honetan 1968. urtera artekoa aztertuko dugu, aldizkariaren beraren bizitzara nahiko asko ajustatzen dena, 1966. urtean halako krisi bat gainditu ostean, etapa berri bat hasi zuelako. Aipatutako urte tartean (1956-1968), hiru epe bereizten dira:

- Lehena, sorrerako urteetako, *Jakin* apaiztegiko aldizkaria da eta aldizkariaren joera nagusiak bi dira: garbizaletasuna (hizkuntzaren aldetik) eta teologia (gaiaren aldetik);
- Bigarren epea, 1959. urtetik aurrerakoa, non aldizkariaren zuzendaritza apaiztegiko ikasle gazteekin berritzen den, *Jakineko* hasierako sortzaileak badoazelako, eta euskara mordoiloaren eta kultura modernoaren aldeko apustua egiten den. J. Azurmendik aipatzen duenez, 1959. urtean aldizkariaren ia bigarren fundazio bat egin zen<sup>352</sup>. Horren guztiaren adibide da 1956. urtean *Jakin* aldizkariaren azpтитulua *Teologilarien Yardunak* zela, tartean *Kultura Yardunak* (1960), eta 1961. urtean *Jakin: Euskal Gaztedia kultura bideetan*. Beraz, aldizkariak bere buruari jarritako izena bi modutan eraldatu zen: hizkuntzaren aldetik (bereziki ortografiaren ikuspegitik), eta bestetik gaiaren aldetik. Hots, *Yakinetik Jakinera* egindako jauziaz ari gara, eta teologiatik kulturara egindakoaz. Hasierako *Jakineko* sortzaileek filosofia eta oro har kultur lanak argitaratu arren, aldizkariaren alor lehenetsia teologia zen. Urte gutxira, kultura lehenetsi zuten.
- Hirugarren eta azken epea, 1966. urtearekin hasten da, apaiztegiko ikasleek aldizkaria utzi eta haren zuzendaritza eskaintzen dutenean editorial batean. Ordurako, *Jakin*, kultur aldizkaria modernoa da, laikoen presentzia asko hazi da, eta apaiztegietako ikasleen euskarazko lanen probaleku izateko funtzioa galdua du. Halaber *Jakin*larien bilerak urteekin dinamika galdu dute, eta 1967. urtean likidatzen dira. Beraz, hirugarren garaian *Jakin*, plataforma kultural gisa hartuta, eraldatu eta erabat laikitzen da. Karlos Santamariak

---

<sup>352</sup> (Azurmendi, 2007a: 81)



egindako proposamenetik abiatuz, zuzendaritza asanblarioa irteten da, ez oso praktikoa, laster hirukote batean laburbilduko dena: Karlos Santamaria, Joan Mari Torrealdai eta Rikardo Arregi. *Jakinen* egoitza berria Arantzazun beharrean Donostian kokatuta egongo da, hirira jaitsiz eta, euskal kulturgintzako kideak idatziko dute bertan (eta ez apaiztegiko ikasleek), eta zuzendari liberatua izango du<sup>353</sup>.

Laburbilduz, lehenengo garai honetan *Jakin* izenarekin hiru bat proiektu mamitzen dira. Lehenengo biek elkarrekin antzekotasun handiak dituzte, eta hizkuntzaren erregistro jasoarekin lotura handiagoa dute hirugarrenak baino. Bigarrenean ebatzen da aldizkariaren hizkuntza eredua, eta oinarrizko printzipio horiek gaur eguneko *Jakinera* arte iraun dute. Hasieran euskara erraza eta mordoiloaren alde eginez, eta beranduago euskal kulturgintzako euskararen batasun ekimenekin bat eginez, esate baterako 1964ko Baionako Biltzarrarekin, euskara estandarra edo Euskara Batua sortu arte. Hirugarrenak aldiz, bat egiten du euskal gizartearen prozesu historiko eta soziologikoekin, eta aldizkari barruan hizkuntzaren gaineko auzi aipagarririk ez zen izan, *Jakinek* aspaldi ebatzita utzi zuelako bere norabidea. Beraz, euskararen erregistro eta kultur molde jasoen historiaren ikuspegitik, *Jakin* aldizkariaren historiaren lehenengo bi epeak interesatzen zaizkigu, eta segidan horietaz sakonago arituko gara.

Lehenengo bi epeen arteko inflexio urtea 1959a da, eta aldaketaren liderra Joseba Intxausti. Urte horretan nolabait aldizkaria birfundatu zen. Aipatutako urtean J. Intxaustik aldizkariaren zuzendaritzaren ardura hartu zuen Kepa Enbeitiarekin batera, eta saiatu zen aldizkaria bere ideietara ekartzen. Hori lortzeko funtsezkoa izan zen “Illobira bultzaka” artikulua argitalpena.

Lehenengo garaian (1956-1958) *Jakin* eliz ikastetxean zeuden ikasleek ateratzen zuten Teologia eta Filosofiari buruzko aldizkaria zen. Hasieran *Teologia Yardunak* izan

---

<sup>353</sup> (Azurmendi, 2007a)

arren, bere bokazioa kultur aldizkaria izatea zen. *Jakinen* sortzaileak<sup>354</sup> garbizaleak zirenez, aldizkari garbizalea egin zuten<sup>355</sup>. J. Zaitegi, eta bereziki *Orixé* maisu gisa hartzen zuten eta haren euskara, eredu. Hala ere, eta ereduak eredu, garai hartan oraindik euskararen batasuna egin gabe zegoen, eta aldizkariak hizkuntzaren gaineko kezka bizi zuen: aldizkarian nola idatzi euskaraz? Beraz, Jakinlarien hasierako urteetako bilerak (1957-1959), *Jakin* aldizkariaren norabidea definitzeko urteko topaguneak, derrigor hizkuntzaren ingurukoak behar zuten izan aldizkarian argitaratuko ziren idazlanen ortografia eta idazkera batzeko. Jakinlarien lehen bileran bertan (1957) aldizkariaren funtzioa zein zen definitu zen: euskararen batasuna eta normalizazioa kultura arloan<sup>356</sup>. Hau da, lehen lehen momentutik, aldizkariaren kezkatik abiatuta, hizkuntzaren batasunaren auzira pausua eman zuen *Jakinek*.

Bestalde hizkuntzari lotutako beste kontu bat bazen, gaiarena. Kultur gaiak lantzeko, kultur lexikoa beharko zen, eta nola eman kultur hitzak euskaraz? Neologismoak asmatuz ala kultur lexikoa erdaratik mailegatuz? Hau da, euskara garbia ala mordoiloa? J. Azurmendik aitortzen duenez “jakinlarion artean ere arazo nagusia euskara garbi ala mordoiloarena da”<sup>357</sup>. Ikusten denez, aldizkariaren tematikaren aldetik ere, hizkuntzaren gaineko auzia nolabait ebatzi behar zen.

Hizkuntza ereduaren auzia berehala agertu zen aldizkarian I. Bastarrika eta *Txillardegiren* arteko eztabaidarekin. I. Bastarrikak, *Jakin* aldizkariaren sortzaileetako, *Txillardegiren* lehen eleberriaren (*Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957) gaineko iruzkin negatiboa –ez oso gogorra, baina negatiboa– argitaratu zuen *Jakinen*<sup>358</sup>. I. Bastarrikak bere lanean eleberriaren gaia eta hizkuntza eredu, euskara mordoiloa, kritikatzeko zituen. *Txillardegiren* erantzuna<sup>359</sup> zakarra eta gogorra izan zen<sup>360</sup>, hainbestearinokoa

---

<sup>354</sup> *Jakinen* sortzaileak 6 fraide dira. Horietako hiru zuzendariak (Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua eta Fernando Mendizabal) eta beste hiru aldizkari taldekoak (Imanol Urbieta, Joxe Mari Osa eta Sabin Berasaluze).

<sup>355</sup> Egia esan *Jakinek* hasieratik bide biak landu zituen, hau da, euskara garbiarena eta mordoiloarena (Azurmendi, 2007a: 81), adibidez, *Jakin* aldizkari lantaldean zegoen S. Berasaluzek artikulatu bat idazteko behar zuen kultur lexiko guztia erdaratik maileguan hartzen zuen. Hala ere *Jakinek* lankide gehienak puristak izanik, aldizkaria garbizalea zen.

<sup>356</sup> (Azurmendi, 2007a: 79)

<sup>357</sup> (Azurmendi, 2007a: 78)

<sup>358</sup> (Bastarrika, 1957)

<sup>359</sup> (Txillardegi, 1958)

ezen zeharka aldizkariaren euskara eredu ezbaian jarri zuen. Erantzuna hain izan zen bortitza, ezen jakinlariak I. Bastarrikaren alde jarri zirela, eta beraz, *Txillardegiren* hizkuntzaren ereduaren gaineko ideia interesgarriari entzungor egin zieten (gainera *Txillardegi* ez zen aldizkari taldekoa). Joseba Intxausti izan zen *Txillardegirekin* lehertutako hizkuntzaren auzia bururaino eraman zuena aldizkarian.

Euskararen egoera 50eko hamarkadan erabat tamalgarria zen. Euskaltzale askok uste zuen hizkuntza desagertuko zela<sup>361</sup>. J. Intxaustik, eta bere inguruko beste euskaltzale ikasi eta alfabetatuek, zera uste zuten: euskarak bizi behar bazuen kulturarekin lotu beharra zegoela. Hau da, kulturak euskara salbatuko zuela. Hain zuzen ere, haien ustez ordura arte euskara eta kulturarekin ez zelako inoiz lotu, euskararen egoera hain etsigarria zen<sup>362</sup>. *Jakin* aldizkaria beraz, kultura eta euskara elkarrekin lotzeko proiektua zen.

Kulturari buruzko idazlanak prestatzeko, idazleek euskaraz kultur lexikoa behar zuten, baina euskara oraindik kultur hiztegi jasorik gabe zegoen artean. Horrela, kultur lexikoaren gaineko kezka, *Jakinen* sorreran eta ondoko urteetan ere, kezka nagusietakoa bilakatu zen. Horren adibide da, Jakinlarien lehen bileran (1957) onartutako proposamena kultur lexikoaren gainean. Hau da, idazle bakoitzari eskatzea bere idazlanetan erabilitako kultur hitzak biltzea eta aldizkariaren zuzendaritzara bidaltzea eta gero “itz-pilla oriek bildu, eta *Yakin*-en argitaratuko genituzke kultur-iztegi bezela”<sup>363</sup>. Hitzak fitxetan biltzea deliberatu zuten eta gerora UZEI sortu zenean, lan metodoa eta egindako fitxak UZEIra pasa ziren. Lexikoaren gaineko kezkak eta arretak ondoko hamarkadetan jarraitu zuen, eta esate baterako J. Azurmendik Euskaltzaindiak

---

<sup>360</sup> Joxe Azurmendik eztabaida horren gaineko kronika zehatza aurkeztu zuen Euskaltzaindiak Arantzazun 1963an antolatutako biltzarrean, beraz ez gara hemen luzatuko afera hori azaltzen (Azurmendi, 1963-1964)

<sup>361</sup> Euskaltzaindiak antolatutako Euskaltzaleen Biltzarretan etengabe aipatzen da ideia hori.

<sup>362</sup> J. Azurmendik 1963an Euskaltzaindian Arantzazun antolatutako biltzarrean aurkeztutako txostenean honela zioen: “gure kulturak eta euskerak ez dute sekula santa elkar saldatu...” (Azurmendi, 1963-1964: 345).

<sup>363</sup> (Azurmendi, 2007a: 79)

1963. urtean Arantzazun antolatutako Euskaltzaleen Biltzarrean *Jakineko* kultur lexikoaren gaineko ponentzia bat aurkeztu zuen<sup>364</sup>.

Kultur lexikoaren inguruko kezkek hainbat arlotan eragina izan zuen, nagusiki honako bi hauetan: batetik, aldizkariaren hizkuntza ereduaren finkapenean, eta bestetik hiztegi produkzioan, *Jakin* aldizkaria legez kanpo geratu zenean (1969tik aurrera), *Jakin* Kultur Taldeak jakintza-arloz arloko hiztegi berezituak egiteari ekin ziolako<sup>365</sup>. Urte gutxiren buruan, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Institutua (aurrerantzean, UZEI) sortu zen (1977) eta hiztegi berezituaren proiektuari segida eman zion.

Baina bueltatu gaitzen lehen ondoriora, hau da, kultur lexikoak nola markatu zuen aldizkariaren hizkuntza eredia azaltzera. *Jakinek* kultur aldizkari jaso izan nahi bazuen, kultura hiztegia beharko zuen. Euskarak kultur lexikorik ez zuenez, sortu beharra zegoen. Beraz, auzia hortxe sortzen zen: zein hautatu euskal neologismo jatorra ala erdal hitz mailegua? Hortxe sartzen zen, halaber, hizkuntza ereduaren auzia: euskara mordoiloa ala garbia? Eztabaidaren puntu honetan Joseba Intxaustiren ideiak klabeak izan ziren. J. Intxaustik bide garbizalea (edo “Orixekeria”) euskararentzat suizida eta absurdua zela defendatzen zuen, hizkuntza hiltzera kondenatzen zuelako, eta beraz, irtenbidea mordoiloa zen. J. Intxaustik *Txillardegiri* bidalitako eskutitzean honela ziotson:

“Leenik, erruz erabili bear genuke latera eta gerkeratik datorren kultur-terminologia. Oneri onela erantzun oi zaio: ba ederki; baiña euskal-itz jator ta eder bat atera dezakegunean, ez. Nire ustez, ain egoki ta jatorki sortu ditzazkegunak oso gutxi dira. Terminologia au dena euskeratik sortzen badugu, iztegi berri oni bizitza ematen urteak joango zaizkigu, eta aur iristen dugunerako, euskera gajoaren illetak kantatu bearrean gatzazkizu. Gaiñera, gure izkuntza kultura-iztegi berri bat, beste izkuntza kulturadunengandik bereizitutako bat, sortzen badugu, gure jende ikasiak ez du iñoiz terminologia berria ikasiko. Jende ikasiak [sic] euskeraz bere kultura erabiltzeko gauza ez bada, berriz, kitto, gureak egin du: erri arrunta atzetik joango zaizkio eta orduan euskerak bere semeak galdu ditu.”<sup>366</sup>

---

<sup>364</sup> J. Azurmendiren txostenaren ardatzak bi izan ziren: alde batetik kultura lexikoaren -edo hizkuntza ereduaren- gainean *Jakin* aldizkariko eztabaida eta protagonistak zeintzuk izan ziren azaltzea; eta bestetik, *Jakin* aldizkarian erabilitako kultur hitzen bilduma aurkeztea (Azurmendi, 1963-1964)

<sup>365</sup> (Agirrebaltzategi, 2006)

<sup>366</sup> (Azurmendi, 2007a: 90)

### 4.3.3. Euskararen hilobitik tiraka

Berez, J. Intxaustik iragan garbizalea izan zuen, baina ikusten ari garenez, laster mordoiloizale bilakatu zen<sup>367</sup> eta bere hizkuntz delibero pertsonala harago eraman nahi izan zuen. Hola, 1959. urtean, artean *Jakineko* zuzendaria zela, “Illobira bultzaka” artikulua argitaratu zuen. Bertan euskara garbia euskara hiltzeko biderik zuzena zela defendatzen zuen:

**“Euskera illobira bultzatzen ari zaizkigu zenbait euskal-idazle, nai dan borondate onenarekin bada ere. (...) Euskera-jauregian ez dugu antxiñako irudi, arri, ezur eta abarrentzako ikusleku txukunik bear, ez; jauregi-kolkoa bizitzaz, lantegiz, laboratorioz, jakintzaz bete bear dugu: bizitza, bizitza bear da”**<sup>368</sup> [beltzak gureak dira]

Eta euskarak salbatzeko kultur hizkuntza bilakatu behar zuela:

“Onela, bada, kulturagabeko izkera illobira doa bear-bearrez: kultura sendo bat daukana, berriz, beti jeikiko da arro. (...) Kultura jori bat sortzen ez badugu, erri-literatura aberatsa izanarren, **euskera il egingo zaigu.**”<sup>369</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, J. Intxaustik euskararen egoera agonikoak eraginda idatzi zuen artikulua. Bide garbizalea euskararen heriotz bidea zela, seguru aski *Txillardegirengandik* jaso zuen, bi modutan: batetik *Txillardegik* I. Bastarrikari idatzitako erantzun artikulutik<sup>370</sup>, eta bestetik, J. Intxaustik *Txillardegirekin* izan zuen harreman pertsonaletik, bien arteko gutuneria horren lekuko izanik<sup>371</sup>.

<sup>367</sup> J. Intxausti urte gutxiren buruan bilakatu zen mordoiloizale: alde batetik garbizaletasunarekin eskarmentua hartu zuelako. Azurmendik kontatzen duenez, “Erriberrin Josebak sekulako ahalegina egin du euskara ikasten (eta beste batzueoi irakasten). Eta erdaraz ikasirikoa euskara garbian eman nahizko “indar neurketan”, esperientzia etsigarria egin du, egundoko ahalegina kostatzen zela, eta azkenean inoiz ez zela adierazi beharrekoa doi-doi adieraztera iristen (...). “Maisuen” euskara garbia irakurriz esperientzia egin du, halaber, edo ez zuela ulertzen; edo inoiz ez zegoela seguru, zuzen ulertu ote zuen; edo ulertzen bazuen, erdarari eskerrak ulertzen zuela...” (Azurmendi, 2007a: 103); eta bestalde, K. Mitxelenak G. Barandiaranen eta *Orixeren* obrei egindako kritikak irakurtzean, zein *Txillardegi*, L. Villasante eta A. Irigoienek argumentuen berri edukitzean, euskara mordoiloaren bide hartu zuen.

<sup>368</sup> (Intxausti, 1959a: 83)

<sup>369</sup> (Intxausti, 1959a: 85)

<sup>370</sup> Bide hau Joxe Azurmendik aipatzen du (1963-1964: 349-350)

<sup>371</sup> Joseba Intxausti eta *Txillardegiren* arteko gutuneriako pasarteak J. Azurmendik hautatu eta *Jakin* aldizkarian argitaratu ditu (Azurmendi, 2007a)

J. Intxaustiren abiapuntuko axioma zen: euskara kulturaz bakarrik salba zitekeela. Hau da, erregistro idatzian (*Jakin* aldizkarian) gaurko gaien gaineko idazlanak argitaratuz, euskara errazean idatzita<sup>372</sup>. Beste modu batera esanda, gaurkotasuneko kultur gaiak landu, hau da, mundutarrak, eta euskaldunek ulertzeko moduko hizkuntza ereduan prestatuta<sup>373</sup>.

Beste bideak, garbizaleak, *Orixeren* lerrokoak, euskara hiltzera kondenatzen zuen J. Intxaustiren hitzetan<sup>374</sup>, eta ordura arte *Jakinek* jarraitutako bidea kritikatu zuen. J. Intxaustik euskara garbia kritikatzean, eztabaida ezinak ziren zenbait erreferente (Sabino Arana<sup>375</sup>, jesuiten eskolakoak: *Orixek*, J. Zaitegi, R. Olabide<sup>376</sup>...) zalantzan jarri zituen, besteak beste, garbizaleok, hizkuntza, balio absolututzat hartzen zutelako. J. Intxaustirentzat, hizkuntza, esperimendu linguistikoa baino zerbait gehiago zen, hots, hizkuntzak hizkuntzarengatik ez zuen zentzurik, eta hiztunak kontuan hartu behar ziren, ulergarria izan behar zuen, eta gaiaren aldetik ere interesa eduki behar zuen. Zalantza gabe, J. Intxaustirentzat *Orixek* –eta haren antzera beste batzuk– euskara bultzaka-bultzaka hilobira zeramaten.

Hizkuntza hautuak, garbia edo mordoiloa, tematikan eragina zuen. Oro har, garbizaleak gai zerutiarrak edo espiritualak (Filosofia, Teologia...) jorratzen zituzten

---

<sup>372</sup> Joseba Intxaustik Arantzazutik Erriberriko apaiztegira Joxe Azurmendiri idatzitako gutunean bertako filosofiako ikasleen artikulua eskatzen zizkion *Jakin* aldizkarian argitaratzeko. Eskutitzean bi baldintza jartzen zizkion: “[Artikulu horiek] bi nota aukeratu, aski da: gaia GAURKOA ta euskera ERREXA” (Azurmendi, 2007a: 85)

<sup>373</sup> Horixe bera esan zion *Txillardegik* J. Intxaustiri 1959-01-04ko eskutitzean: “Beraz, bi gauza bear ditugu derrigor: 1) *ZERBAIT esan bearra* [dena azpimarratua, “bearra” hiru azpimarratuz!], zerbait *unibersalik* alegia, arimari edo gizonari dagokion zerbait egiazkorik eta mamitsurik; eta 2) *EUSKERAZ* [letra larriz eta azpimarratua] esan, eta ez guk asmatutako sasi-izkuntza zoro batez. Orra, nere ustez, bi baldintzak.” (Azurmendi, 2007a: 84)

<sup>374</sup> Joseba Intxaustik Joxe Azurmendiri idatzitako gutunean aitortzen zuen artikulua “*Orixek*’ren kontrakoa ere ba-da, nik bertan aitatzten ez badet ere, ez bainaiz gizonak kritikatzten ari, giza-jokaerak baizik” (Azurmendi, 2007a: 92)

<sup>375</sup> J. Intxaustik Joxe Azurmendiri idatzitako gutunean honela trufatzen zen sabindar euskaraz: “orregatik ez dago “euSkera” idazterik, orrek “euZkera” izan bear du, ta arrezkerotik (ja, ja, ja!!!) asko dituzu filologiko problema ori politika-bidez erabaki dutenak: Maixuak esan baitzuen, ta orain beti “euZkera idazten dute)” (Azurmendi, 2007a: 93)

<sup>376</sup> J. Intxaustiren gutunerian R. Olabideren gaineko zenbait aipu badira, R. Olabideren saioa euskara hiltzeko saio gisa agertuz: “Ezagutu dedan geometriarik bulartsuena da Olabide. (...) Ez aal duzu iñoiz Olabide’ren Itun Zarra irakurri? Ez? Orduan ez dakizu oraindik Olabide’ren geometria jatorra zer dan” (Azurmendi, 2007: 93), “Olabide’k, ta beste askok, ez digute “benetako euskerarik” eman. “Apropos” jardun zan “saio-euskera” egiten” (Azurmendi, 2007a: 96)

bitartean, euskara erraza edo mordoiloaren aldekoak, gaurko gaiak, mundutarrak ziren horiek landu nahi zituzten. Horren adibiderik onena, *Orixek* eskaintzen du *Jakin* aldizkarian J. Intxausti kritikatu argitaratutako eskutitzean:

“Ba-dira gazte bakar batzu, gizaldi berri ontan, euskerari lotsarik ematen ez diotenak; baiña kuku beste lardaskazale oriek! (1)

Abismua, firmamentua, reptila, realidadea, aktibidadea, positibua, negatibua... zer da ori? Euskeraz ederki esan ditezken gauzak. Lehenik ikasi bearra daukagu filosofia, gero erdera, gero euskera, gauza oriek daukagu izkuntzara egokitzeko. Ez da aski au esatea: “Euskeraz ez ditezke esan yakite-gauza asko ta asko!; obe lizake ez au esatea: “Nik ez dakit gauza asko euskeraz esaten”. **Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu:** ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. **Utzi detzagun (sic) kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik.**”<sup>377</sup> [beltzak gureak dira]

Hurrengo zenbakian J. Intxaustik *Orixeri* erantzunez, gai interesgarriak (gaurko gaiak) euskara errazean idatzita, irakurle euskaldunak (gehienetan alfabetatu gabeak) erakartzearen aldeko jarrera berretsi zuen<sup>378</sup>. Eztabaida horren markoan ulertu behar dira *Jakin* aldizkariak ondoko urteetan Astronautika<sup>379</sup>, Fisika<sup>380</sup>, Natur-Zientzia<sup>381</sup>, Aljebra<sup>382</sup>, eta bestelako gaien gainean argitaratutako lanak<sup>383</sup>. Artikuluok berez, aldizkariak bere buruari definitutako muga tematikoetatik kanpo kokatzen ziren, hala ere bertan plazaratu ziren.

J. Intxausti eta *Orixek* ordezkatzeko dituzten aipatutako bi ikuskera horiek, oso lotuta daude hizkuntzaren, erlijioaren eta politikaren gaineko ideologiarekin. Jarrera bakoitzak hizkuntzaren funtzio eta esparruen gaineko ikuskera desberdina baitu, kristautasuna eta abertzaletasuna ulertzeko modu desberdina, hurrengo eskutitzetan antzematen denez.

<sup>377</sup> (Orixe, 1959: 92)

<sup>378</sup> (Intxausti, 1959b)

<sup>379</sup> Astronautikari buruz artikulua bakarrik argitaratu zen *Jakinen* eta gero *Anaitasunak* bizkaiera moldatuta, berriz argitaratu zuen (Saizar, 1958)

<sup>380</sup> Fisikari buruz *Jakin* aldizkarian honako artikulua argitaratu ziren: Iturriotz, I. “Atomuaren etxe-barnea” *Jakin*, 16 (1964), 11-15; Otamendi, J. “Legeak pisika jakintzan” *Jakin*, 17, 87-89; Osiranzu “Fisikaz eta...” *Jakin* 18 (1965), 78-82.

<sup>381</sup> Natur-Zientzia eta Biologiaren arloan honako artikulua argitaratu ziren: P. Mendizabal “Mundua nola sortu zan” *Jakin*, 8 (1958), 73-84; Zubizarreta, I. M. “Zelula, bizitzak lenen laztandu duana?” *Jakin*, 22 (1966), 83-86; Kintana, X. “Bizitzaren hasikera”, *Jakin*, 24 (1967), 27-35.

<sup>382</sup> ikus K. Santamaria: “Aljebra berria” *Jakin*, 29 (1968), 30-40.

<sup>383</sup> Ezin ditugu idazlanok banan banan aztertu, gure ikerketa proiektuaren mugak gainditzen dituelako.

*Txillardegik* J. Intxaustiri idatzitako eskutitzean agertzen denez, erlijioak erabateko eragina du hizkuntzaren auzian bai eta tematikan ere:

“Kristauak beti izan dute buruan eta biotzean erejia bat: munduari utzi, eta mundu ontan berean ere “zeruan” bizitzeko tentazioa. Oientzako, kristaua “garbia” da, eta eluke munduan nahasi bear. Guk ere, berdintsu, “garbitasuna” aipatzen dugu bein eta berriz: euskera “garbia”, mendia, baserria. Ez bide dugu mundu nazkagarrian “nahastu” ta “zikindu” nai. Eta erejia deritzat oni ere. Kristauak MUNDUAN sarturik, gaia jaso ta goratu egin bear dugun bezelaxe, euskaltzaleak ere euskera MUNDUAN sartu bear dugula iruditzen zait. Mendi tontorrera eraman ez, baña kalera, “jalgi adi plazara”<sup>384</sup>.

Beraz, kristauen artean bi joera zeuden, bata, tradizionala, munduari ihes egiten ziona, eta bestea, munduan sartzekoa eta Eliza gaurkotzeko proposamena egiten zuena (*aggiornamento*), hain justu ere Vatikanoko II. Kontzilioan nagusituko zen ildokoa. Politikarekin antzera gertatzen zen, abertzaletasun tradizionalan euskara garbiak baino ez zuen tokirik. Adibide moduan J. Intxaustik Joxe Azurmendiri idatzitako gutuneko honako pasarteak dakargu:

“Batzuek uste dutenez, abertzale garbi ta zintzoak ezin ditezke inola ere mordoillo (barkatu, ez da itz egokia baiño) tankerako izan, aberri aurkakoa baita jora (sic) au: Aberriak garbia izan bear du, bai odolez bai izkuntzaz. Gu konturatu gabe, m...tu egin gera; ta au ez da nik esana, entzuna baiño. Egia esan, nazka ematen dit onelako mentalidade itxiak”<sup>385</sup>

Hortaz, erlijioak eta politikak markatzen zuten euskaltzale askoren euskara eredua, baita *Jakin* aldizkarian ere. Beraz, euskara garbi/mordoiloaren eztabaida ez zen eztabaida linguistikoa hutsa. J. Azurmendik dioenez:

“polemikaren transzendentziak, Intxaustik planteatu duen eran, filosofia eta teologiako estudianteen aldizkari baten barne muga apalak, eta azkenean *Jakin*-en historia ere, askogatik gairatzen zituela, eta hala ulertu dutela partaide guztiek. Bataila gurutzeala izan da gerraosteko norabideentzat. Ez baitzen eztabaida linguistikoa bakarrik. Ideal tradizional ala modernoagoak, mentalitateak, atxikimendu politikoen moduak, abertzaletasunaren zentzua oro har eta kulturaren kontzeptu osoa besarkatzen eta konprometitzen zituen nolabait”<sup>386</sup>.

Euskaltzale batzuen ideia politiko eta erlijiosoek euskarari kultura modernoa ukatzen zioten. *Jakin* inguruko apaiztegiko ikasle gazte euskaltzaleek ez zuten onartzen ukapena eta kultura modernorako aproposa zatekeen euskara modernoa eraikitzeko proiektua gorpuztu zuten, aldizkaria baino zerbait gehiago zen *Jakin* kultur

---

<sup>384</sup> (Azurmendi, 2007a: 84)

<sup>385</sup> (Azurmendi, 2007a: 97)

<sup>386</sup> (Azurmendi, 2007a: 101)



plataformaren inguruan. Ondorioz, bigarren garaian J. Intxaustiren euskara eredua eta politika zein erlijioari eragiten zion ikuskera berria nagusitu zen aldizkarian, *Orixerenaren* kaltetan<sup>387</sup>. Hala mordoilotik Euskara Batura igarotzea aldizkari honentzat pausu naturala izan zen. Are gehiago, *Jakin* euskal kulturgintzaren baitan euskararen batasunaren sustatzaile nagusietakoa izan da.

#### 4.3.4. Eliztar lankideetatik, lankide laikoetara

1956ko *Jakin* ordena desberdinetako apaiztegietako ikasleek egin zuten, gehien bat teologiaz aritzeko. Beraz, teologia gaiak lantzeko apaiztegiko aldizkaria izanik, ez da harriztekoa lehenengo zenbaki hartan laikoek ez parte hartzea. Garaian bertan *Jakin* eliztarren aldizkari gisa ikusten zen, eta esate baterako A. Ibiñagabeitiak zera proposatzen zuen, laikoak jakintzaren arlo desberdinetan antzeko proiektuak sortzea<sup>388</sup>. Aldizkariak kultur aldizkaria izateko bidea hartu zuenean, teologia gero eta gehiago alboratuz, bai gaien aldetik bai lankideen aldetik ireki behar izan zuen, kultur gaiak lantzen zituzten laikoak onartuz. J. Intxaustik *Txillardegiri* 1959. urte inguruan idatzitako gutunean zera aitortzen zion “Gure errebista onek ez ote du praille-kume arpegi argiegi? Ni baietzean nago. Ia pixka bat “laizizatzen” dugun”<sup>389</sup>. Hala, 1961. urtean beste erabaki sintomatikoa hartu zen, Jakinlarien bileretan laikoak onartzea adostu zen.

*Jakin* aldizkariaren lehen garaian, hau da, debekatu aurreko urteetan, egileen % 89a elizgizonak ziren, baina urteekin aldizkariko lankide laikoak gero eta gehiago ziren, eta hirugarren garaian (1969-1975. urteetan), apaizak % 31a baino ez ziren (1977-1981 aldiz, are gutxiago % 16,5a)<sup>390</sup>. Lankideen izaeraren bilakaeran eragindako faktoreak zenbait dira, batzuk aldizkari proiektuari dagozkio, hau da, aldizkariaren

<sup>387</sup> Urte batzuk beranduago, Joxe Azurmendik, *Jakin* taldeko euskaltzale ezagunak, *Zer dugu Orixeren kontra* (1976) argitaratu zuen, belaunaldi gazteak *Orixeren* pentsakera eta euskara ereduaren kontra zituztenak sistematizatuz. Hurrengo urtean Azurmendik *Zer dugu Orixeren alde* (1977) kaleratu zuen, *Orixeren* ekarpenak aitortuz.

<sup>388</sup> “Noiz ikusiko ote ditugu gazte-erritar ikasiak ere, gazte-eliztarrak bezelako auzo-lan batean dagozkien ikas-saillak euskeraz lantzen? Legeak, edestia, osakuntza, etxegintza e.a. Ba dute gazteok zeri eldu. Gaiñera euskerak beren ikasketak sakon ta osoago borobiltzeko laguntasun aundia emango liekete, geiegizko ioalaskak baiñon areago” (Ibiñagabeitia, 1958: 220)

<sup>389</sup> (Azurmendi, 2007a: 91)

<sup>390</sup> Ikus *Jakin*, 21 (1981), 251.

gaiaren eta esparruaren definizioari, eta beste batzuk aldiz euskal jendarteari dagozkio. Izan ere, 60ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, Euskal Herrian, beste hainbat herrialdeetan bezala, sekularizazio handia eman zen. Apaizek sotanak erantzi zituzten eta apaiztegiak hustu ziren. *Jakineko* lankide eta zuzendari izandako asko, laiko egin ziren. Beraz 50 hamarkadaren amaieran apaiztegiko ikasle zirenak, apaiz edo fraide egin ostean, 70eko hamarkadaren hasieran sekularrak bihurtuta zeuden.

*Jakinekin* ordena desberdinetako eliz ikastetxeetako euskaltzaleek elkar ezagutzeko eta harremana edukitzeko aukera izan zuten, eta horri esker elkarri lagundu zieten euskarazko kultur idazlanak prestatzen. Horrela, onduz joan zen euskaltzale eta euskaraz alfabetatutako talde eder bat, eta aldi berean euskaltzale horiek beste euskal aldizkari batzuk sortu zituzten (*Arnas, Erein, Gogoz...*). Beraz, elizako euskaltzale talde horien eskutik bazirudien halako kultur loraldi bat abiatzeko zegoela. 1968. urteak bide hori eten zuen. Urte horren bueltan Europa osoan aldaketa soziologiko, kultural eta politikoak egon ziren, eta horrek besteak beste, gizartearen sekularizazio sakona ekarri zuen. Apaizak sekularizatu eta apaiztegi zein komentuek hustu eta askok itxi behar izan zuten. Txanponaren alde bat hustu bazen, bestea euskaltzale eskolatu eta alfabetatuekin bete zen. Hortaz apaiztegietak kultur loraldia kamustu zen, baina gizarteko esparru giltzarrietan (komunikabideak, politikagintza, irakaskuntza...) euskaltzale formatuak barreiatu ziren eta gerora, euskararentzat askozaz ere loraldi zabalagoa ahalbidetu zuten Elizatik kanpo. Joseba Intxausti izan da fenomeno soziologiko horrek euskarari eta euskal kulturgintzari egindako ekarria aipatzen lehena, baina oraindik sakonki aztertu gabe dago<sup>391</sup>. Agian, ondoko urteotan euskara, eta oro har euskal kulturgintzaren bizkortzea esplikatzeke klabea izan daiteke.

#### 4.3.5. Aldizkariaren filologizazioa

Aldizkariako hizkuntza ereduaren, eta bereziki lexiko garbi/mordoiloaren gaineko eztabaida, aldizkariaren markotik harago zihoan, euskaltzaleen artean bolo-bolo zebilen euskararen gaineko eztabaidan txertatuta zegoen. Bertatik edaten zuen, eta aldi berean eztabaida hori elikatzen zuen. Horren adibide da Euskaltzaindiak antolatutako

---

<sup>391</sup> Paragrafo honetan landutako ideia Joseba Intxaustiren lanetik hartu dugu (2007b: 66). Ez dago oraindik aski aztertuta baina lan hipotesi interesgarria iruditu zaigu.

Euskaltzaleen Biltzarretan gaia behin baino gehiagotan irten zela hitzaldi zein eztabaidetan eta, 1959ko biltzarrean Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz kaleratutako agiria, sabindar purismoa erabat baztertuz.

*Jakin* kultura aldizkaria bazen ere, kultura beharrean, hizkuntzaren auzia gailendu zen bereziki hasierako urteetan. J. Intxaustik 1960. urte inguruan hauxe aitortzen zion *Txillardegiri*:

“Eta noan **Yakin’ek duen problemarik gogorrenera: bere euskera. Ba-dakit, ez luke orrela izan bear, Yakin’en leenengo buru-austea bere gaia, mamia, izan bear luke**; baiña lankide askoren “orixekeriak” (ixo!, gero, entzuten badigute, kopeta zimurtuak ikusi bearrean gaude-eta!) jeroglifiko biurtu digute ia euskera, eta emen dago orain koxka: euskera-jeroglifiko ori euskera-euskera (beste zerbait esango nik baiño... geroxeagorako uzten dizut) egiten ez badugu Yakin’ek ez dauka zer egiñik, irakurlerik ez baitu izango”<sup>392</sup> [beltzak gureak dira]

Izan ere, hizkuntza denen axolakoa zen, aldizkariaren erredakzio taldearena, jakinlarien bileretakoa, egileena eta irakurleena. Irakurleen kasuan esate baterako, *Jakinen* gaineko iritzia galdetuz gero, P. Mendizabalek egin zuen bezala<sup>393</sup>, irakurleengandik heldutako kritikak maiz garratzak izateaz gainera, “dena ahaztu ta aren euskera gora eta behera jarduten zaizkizu”<sup>394</sup>. Hau da, aldizkariaren gaineko iritzia emateko orduan hizkuntza moldeari eta lexiko ereduari erreparatzen zitzaion, beste guztiaz, are edukiaz ahaztuz.

P. Mendizabalen saiakeraren ostean, bi urte beranduago hain zuzen, *Jakinek* irakurleen aldizkariaren gaineko iritzia modu ponderatu eta sistematikoagoan biltzeko asmoz, 11 galderekin osatutako inkesta bat prestatu zuen<sup>395</sup>. Horietako bat hizkuntzari zegokion: “6) Zer diozu teknika ta kultura itzei buruz: euskeraz bear al ditugu, edo kanpokoak ere onartu?”<sup>396</sup>. Inkestaren emaitzak lantxo batean bildu eta aldizkarian bertan argitaratu ziren<sup>397</sup>. Galdetegia 400 pertsonari banatu zitzaion, eta 98k erantzun zuten (alegia, % 24,5ak). Inkestako daturik adierazgarrienak bi dira: lehena, aldizkaritik

<sup>392</sup> (Azurmendi, 2007a: 89)

<sup>393</sup> *Jakineko* zuzendaria zen P. Mendizabal eta 1958ko Jakinlarien bileraren kronikan bertan *Jakin* aldizkariaren irakurleei eskatu zien aldizkariaren gaineko iritzia. Galdera irekia zen, eta ez zion hizkuntzari erreferentziarik egiten (Mendizabal, 1958: 107)

<sup>394</sup> (Azurmendi, 1963-1964: 343)

<sup>395</sup> Inkestako galderak *Jakinen* gehiagarriaren (*Jakintxo*) lehen zenbakian argitaratu ziren (1960).

<sup>396</sup> *Jakintxo*, 1 (1960)

<sup>397</sup> (Enbeita, 1960)

irakurleek gutxien atsegin zuten saila Teologia eta Filosofiakoa izatea<sup>398</sup>, eta bigarrena, aldizkariaren hizkuntzari buruzko galdera galdetegiko arrakastatsuen izan zela. K. Enbeitaren hitzetan, “93 dira galdera oni erantzun diotenak, denak izan dute zer esana. Luze erantzun du jendeak. Barkatuko digute guzien iritziak ez argitaratzea; bear ere errebista osoa bear genuke ortarako-eta.”<sup>399</sup>. Ikusten denez, hizkuntzak erabateko arreta bereganatzen zuen aldizkariaren hasierako urteetan.

Hizkuntzak gehiegizko pisua zuelako –seguru aski bere sustatzaileen gogoz kontra<sup>400</sup>–, esan daiteke *Jakin* filologizazioak bizi zuela. Kontzeptu hau Jon Kortazarren liburutik hartu dugu<sup>401</sup>, eta beronek Antón Figueroa galiziarren lanetik. A. Figueroak eta J. Kortazarrek filologizazioa erabiltzen dute hizkuntza diglosikoen literaturan hizkuntzak larregizko pisua duenean. Batak galegoz egindako literaturan antzeman du aipatutako fenomenoak, eta besteak euskaraz egindakoan. Beraz, filologizazioaren kontzeptua orain arte literatur kritikaren esparruan baino ez da erabili, baina guretzat kontzeptu horrek oso ondo esplikatzen du beste esparru honetan, euskarazko kultur aldizkari jasoetan, zer gertatzen den.

Hau da, *Jakineko* kideak hizkuntza eta gaia uztartu nahi izan zituzten arren, hots, lanen ulergarritasuna eta interesgarritasuna, azkenean hizkuntza moldearen gaineko kezka larregizko pisua hartu zuen. Beste era batera esanda, *Jakin* ez zen sortu *Euskera* eta ASJU urtekariaren eran hizkuntzari edo hizkuntzalaritzari buruzko aldizkaria izateko, kultura jasoaz aritzeko baizik<sup>402</sup>. Hala ere, oraindik erregistro hartarako prestatu gabeko hizkuntza erabili behar zuenez, hizkuntzaren egoerak mediatizatu zuen proiektu osoa. Hala, kultur hiztegiaren gaineko eztabaidek, euskara garbiaren bazterketa, mordoiloaren gailentzea ekarri zuten, baita euskararen batasunaren alde jartzea ere, eta 1968tik aurrera euskal kulturgintzaren baitan Euskara Batuaren aldeko bozgorailu

---

<sup>398</sup> Galdera honi erantzuten diotenak 41 dira, eta horietatik 14k (hau da, % 34ak) ez dute aipatutako saila gustuko (Enbeita, 1960: 80)

<sup>399</sup> (Enbeita, 1960: 81)

<sup>400</sup> Jakinlarien 1958ko bileran *Jakin* aldizkariaren jomugak bi zirela adostu zen: alde batetik “jakintzarako bidean euskerari laguntzea; eta euskera atsegin baten bidez irakurleak ugaritzea” eta bestetik gai erakargarriak aukeratzea (Mendizabal, 1958: 107)

<sup>401</sup> (Kortazar, 2002)

<sup>402</sup> Nahiz eta *Euskeraren* antzera, euskarari buruz artikuluren bat edo beste argitaratu zen *Jakinen*. Ikus adibidez T. Amasorrain “Euskal-Aditza neuk ikusten dudanez” *Jakin*, 24 (1967), 59-64.

garrantzitsuenetako bat bihurtzea. Beraz, *Jakin* aldizkaria euskararen normalizazio prozesuaren historiaren parte da.

Laburbilduz, hasieran euskara mordoiloaren alde, ondoren euskararen batasuna bilatuz eta azkenik Euskara Batuaren bozgorailu eta motoreetako bat izanez, *Jakinek* erreferentzialtasun kultural izugarria eskuratu zuen. Eta euskararen batasun prozesuak aurrera egiten zuen heinean (eta aldizkaria debekatuta egon ez zen garaietan), proiektua haziz joan zen bai kolaboratzaileei dagokionez, bai harpidedunei dagokionez ere<sup>403</sup>. Halaber, euskararen normalizazio prozesuarekin hizkuntza estandarra bai gizartean bai esparru unibertsitarioan ere, finkatu den heinean, *Jakinek* erreferentzialtasun hura galdu du, apalduz joan da.

Gaur egun *Jakinek* Euskara Batuaren sustapen eta garapenean goi mailako beste edozein euskarazko aldizkarien adinako ekarpena egiten du. Une honetan *Jakin*, erabat irauli den euskal testuinguru unibertsitarioaren baitan, euskarazko kultur aldizkari jasoia “baino” ez da. Izan ere, gaur eguneko testuinguruan jakintzaren espezializazioa nagusi da, eta oro har, kultur aldizkari jasoek –edozein hizkuntzatan egonik ere–, ez dute espazio propio argirik. Hau da, interesgarriak dira, baina egiteko txikia dute. Erreferentzialtasuna badute, bereziki arrazoi historikoengatik, baina lehen zuten rol aktiboa kultur gintzaren baitan, itzaltzen doa pixkanaka.

#### **4.4. Branka: euskaldun sozialista aldizkaria**

Aztertuko dugun hurrengo aldizkaria, kultur aldizkari politikoa zen. Lotura zuzena du ondoko hamarkadan sortuko diren euskarazko beste kultur aldizkari batzuekin, eta horregatik aztertuko dugu.

*Branka* 1966-1971. urteen artean kaleratu zen. Distribuzio eskasa izan zuen Euskal Herrian, eta horregatik nahiko ezezaguna izan zen bere garaian. Azken zenbakia

<sup>403</sup> *Jakin* sortu eta hurrengo urtean 375 bat harpidedun zituen (1957); 1962ko debekuaren bezperetan 500 harpidedun baino gehiago zituen, eta bigarren debekuaren urtean (1968an) ia-ia 1.000 harpidedun. Aldizkariaren hirugarren garaian (1976. urtetik aurrerakoa) *Jakinen* harpidedunen kopurua urtez urtez hazi zen: 1.000 harpidedun inguru 1976an, 1.800 bat harpidedun 1979an eta 2.300 harpidedun 1981an. (Iturria: “2.300 harpidedun” *Jakin*, 21 (1981), 253-257).

atera eta urte gutxira, 1979an hain zuzen, Ediciones Vascas argialetxeak aldizkariaren facsimile-edizioa atera zuen, eta orduan ezagutu ahal izan zen proiektuaren nondik norakoa zehatzago.

*Branka* aldizkaria erbesteko aldizkaria da, Belgikan sortu zen abertzale eta ETako kide izandako batzuk erbesteko bidea hartu zutenean. Hala ere, eta arazoak ekiditeko, zuzendaritza Argentina kokatu eta bertako Mikel Ezkerro zuzendari izendatu zuten. Aldizkariaren lehen zenbakia 1966. urtean atera zen, erdarazko (gaztelaniazko edo frantseseko) zein euskarazkoa testuekin. Aldizkariaren lehen zenbakiko hitzaurrean aldizkariaren hizkuntza hautua honela azalduta zetorren:

“Gure herriaren hizkuntza euskera da. Alde hortatik euskera hutsez idatzi beharko litzake BRANKA. Baina atzerritar zapaltzearen ondorioak hor ditugu ere: eta, Euskal Herri’ko seme batzuk gaurkoz arrotzurik dauden ezker, erderaz argitaratuko dugu zenbait artikulu. (...) Euskeraz agertuko dugun parte, ahalean bederen, **euskera osotuan** idatziko dugu: **euskal “literatura-aurre” ari eta folklore-arolari amaia behin eta betirako eman nahiz**”<sup>404</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, euskara osatua aipatzen da eta ez Euskara Batua, oraindik Euskara Baturik ez zelako, nahiz eta 1964an Baionan hizkuntza batasunaren inguruan hartutako zenbait oinarritzko erabaki idazle eta aldizkari batzuk jarraitu.

*Brankak* intelektuaren aldizkari zientifiko izan nahi zuen<sup>405</sup>. Aldizkariaren ustez, intelektualek egiaren bilaketa horretan zientziara jo behar zuten, arrazonamendu eta ikerketarako bide segurua zientziak ematen zuelako<sup>406</sup>. Zientziaren bidea hartuz gero, beste bide batzuk, elizkeria adibidez, esplizituki baztertzen ziren<sup>407</sup>. Halaber *Brankak* aldizkari abertzalea zela aitortzen zuen:

“Askatasunerako burruka latz eta gogorrean abiatu, BRANKA’k bere abertzaletasuna oihukatu nahi du arrenik (sic). BRANKA abertzalea da osoki; hau da: Euzkadi’ko erresuma libro eta euskaldun bat nahi du Euskal Herriarentzat. BRANKA’k ez du beste salbiderik ikusten gure herriarentzat.”<sup>408</sup>

---

<sup>404</sup> (Ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 5)

<sup>405</sup> “BRANKA’k egia billatu eta euskaldun intelektuaren aldizkari izan nahi” du (Ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 3)

<sup>406</sup> “zientziak ematen digu alde horretatik jarrapiderik bidezkoena” (ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 4)

<sup>407</sup> “... hasieratik, elizkeria eta ideien geldikeria gauzien etsai aitortu nahi du BRANKA’k bere burua” (ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 4)

<sup>408</sup> (Ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 3)

Euskal Herria askatzen zenerako sozialismoa eskatu arren<sup>409</sup>, *Branka* ez zen berez aldizkari sozialista, ezeren gainetik abertzalea zen, nahiz eta aldizkariaren azpi izenburuan ez den gehiegi antzematen: *Branka: euskaldun sozialista aldizkaria*. P. Iztuetaren arabera, *Brankaren* tesiak honetara ekar daitezke: “a) sozialismo humanista, pluralista eta autogestionarioa, eta b) fronte abertzale sozialista, EGI-Batasunarekin”<sup>410</sup>.

*Branka*, aldizkari intelektuala zenez, Giza eta Gizarte zientzien arloko maila jasoko artikuluak kaleratu zituen. Euskaraz argitaratutako lanak nagusiki politikari buruzkoak izan ziren, komunismoa eta erlijioaren arteko harremanaz, abertzaletasunaz eta abar. *Brankako* egileen artean aipa daitezke: *Txillardegi*, J. L. Davant, J. Azurmendi, J. Apalategi *Txurdintxo... Txillardegik* soziolinguistika lantzat har daitezkeen hizkuntzei buruzko zenbait artikulu kaleratu zituen. Lehenaren, “Izkuntza eta pentsakera”<sup>411</sup>, kritika gogorra M. Ereñok argitaratu zuen gaztelaniaz komunistek argitaratzen zuten *Arragoa* izeneko kultur aldizkarian<sup>412</sup>. Urte batzuk beranduago, ezkerreko beste aldizkari batean, *Saioak* aldizkariak, *Txillardegiren Brankako* artikulua eta Ereñoren kritika *Arragoan* hitzez hitz berriz eman zuen.

*Txillardegi*/M. Ereño afera honen inguruko iruzkin luze eta zehatza Joxe Azurmendik eskaintzen du Humboldt-en hizkuntza eta pentsamenduari buruzko lanean<sup>413</sup>. J. Azurmendik baino arinago, Emilio Lopez Adanek garaiko Euskal Herriko abagune politiko eta kulturalaren inguruko azterketan, *Arragoa* eta *Brankaren* arteko harremanaz eta Ereñoren kritikaz honakoa zioen:

<sup>409</sup> Sozialismoaz honakoa dio aldizkariak: “Euskal Herri’ko seme guzietan aukera berberak izan ditzaten nahi dugu: eta, hori dala-ta, Euzkadi sozialista bat nahi dugu. Gure ustez sozialismorik gabe ez litzake egiazko berdintasunik izango euskaldunen artean” (ikus “Hitzaurre”, *Branka*, 1 (1966), 4)

<sup>410</sup> (Iztueta, 2001: 201). Ondoko orrietan P. Iztuetak tesi horien eduki nagusiak eta garaiko testuinguru historikoa azaltzen ditu (Iztueta, 2001: 202-206)

<sup>411</sup> (Txillardegi, 1966)

<sup>412</sup> *Arragoa: revista vasca de cultura y política* aldizkaria 1964-1967. urteen artean argitaratu zen. Aldizkariak gehien bat erdarazko testuak argitaratu zituen. Euskarazko idazlanak erdarazkoak baino apalagoak ziren eta gaztelaniazkoak ez bezala “euzkeraz” etiketarekin sailkatuta daude. Hori da behintzat Azkue Bibliotekan gordetzen den ale bakarrean (1967ko 6/7 zenbaki bikoitzean) ikusi duguna.

<sup>413</sup> (Azurmendi, 2007b: 284-299). J. Azurmendik ondo ezagutzen du *Branka* aldizkaria, berak ere bertan zenbait lan argitaratu zituelako. (Ikus J. Azurmendi, “Katoliko eta komunisten arteko elkarriketaz” *Branka* aldizkaren 6 eta 7 zenbakiak (1968) eta “Produktzio-interesak eta klase burruka gaurko gizartean sozialismoa” *Branka*, 8 (1968).

“Komunisten *Arragoa* aldizkariak ere bere burua “desmitifikatzailetzat” zeukan, baina harentzat zaharrak edo berriak, abertzale guztiak burges-txikiak! Mila buelta eman zion arrazaren ordezkari hizkuntza jartzeko ikuspegiari. “Esentzialismo linguistikoaz” eta “solipismoaz” mintzatu zen. Eztabaiden funtsean sartu gabe, esan dezadan PCEk berdin kondenatu zituela aranisten arrazismoa eta ETAzaleen hizkuntzarako grina. Bietan ikusi zuen Euskadiko biztanleen batasuna ukatzeko entsegua, entsegu nazionalista; nazionalistek, zioen, zinezko euskaldun bakarrak direla uste dute, eta besteei, bereziki langile etorkinei, ukatzen diete euskalduntasuna”<sup>414</sup>

Aipatutako artikuluan E. Lopez Adanek bereizten zituen, abertzaletasun zaharra, jelkideena, XX. mende hasieratik zetorrena, eta abertzaletasun berria, 50eko hamarkadan abiatu zena, ordura arteko estrategia jelkidearekin hausten zuena, hau da, estrategia geldikoi eta bakezalearen mugak kritikatu, borroka armatua onartzen zuena. Belaunaldi abertzale berria laster sozialista bilakatu zen. Ondoren, 60ko hamarkadaren bigarren erdialdean, *Brankaren* inguruan eszenifikatu zen, ETAREN inguruan bildutako abertzaleen artean, hirugarren haustura bat. Haustura horretan aldagaia marxismoa izan zen. Abertzale batzuk, *Txillardeg*i eta *Brankaren* inguruko kolaboratzaileek, “marxismoa eta espainolismoa uztarturik ikusten zituzten. *Arragoa* zen froga aitortuta eta ETAREN Bulego Politikoan Felipeen [=komunisten] presentzia arrisku nagusia”<sup>415</sup>. Beste abertzale batzuk aldiz, demokrazia burgesa zein kolonialismoa salatzeke eta oro har, eskuma kritikatzeko, marxismora jo zuten: “aski bide naturala zen marxismoa, modernitatearen ildotik eta optimismo historikoaren mitoan genbiltzalako”<sup>416</sup>.

Beraz, *Brankaren* inguruan bildu zirenak sozialismo humanistaren aldekoak ziren, “espainolismoa marxismo-leninismoarekin identifikatu, abertzaletasuna oroz gaineratik emanez”<sup>417</sup>. Horregatik, *Branka* aldizkariaren 1979ko berrargitalpenaren hitzaurrean *Txillardeg*i garaiko giroaz eta aldizkaria sortzeko arrazoiez honela mintzatu zen:

“Branka nacia además, de forma apenas velada (basta leer el prólogo del número 1), para luchar ante todo y sobre todo contra las tesis SOCIAL-IMPERIALISTAS, entonces en pleno auge. Dado que la dirección de ETA, a principios de 1966, estaba prácticamente en manos de lo que sería después “Komunistak” y M.C.E., la revista BRANKA nacia en clandestinidad doble: contra la represión franquista, por supuesto; pero también al margen, e incluso en contra, de la dirección, desviacionista entonces, del propio ETA.”<sup>418</sup>

---

<sup>414</sup> (Lopez Adan, 1997: 59)

<sup>415</sup> (Lopez Adan, 1997: 59)

<sup>416</sup> (Lopez Adan, 1997: 60)

<sup>417</sup> (Lopez Adan, 1997: 61)

<sup>418</sup> (Txillardeg, 1979a: 2)



Aldizkaria sortu eta gutxira, 1967. urtean ETako kide erbesteratuak ziren *Txillardegi*, Benito del Valle eta beste, ETak V. asanbladan hartutako bidearekin erabat kontra zeuden, eta dimititu egin zuten. Horregatik, bihurtu zen *Branka* ETatik alde egindako abertzale erbesteratuen aldizkaria. Horren adibide da, F. Krutwig-en kasua. Lehenengo urteko zenbakietan kolaboratu zuen aldizkarian zenbait idazlan kaleratuz, baina ETako V. asanbladaz geroztik, ETAn sartu zenez, *Brankan* kolaboratzeari utzi zion.

Egia esan, aldizkariaren eta ETaren arteko harremana oso gatazkatsua izan zen hasieratik. *Txillardegiren* arabera, eta oraindik V. asanblada gertatu baino lehen, ETak eskatu zien aldizkaria zentsuratzeko ahalmena, *Brankak* ETA laburdura eramango bazuen. Zentsuraren filtro horretatik ez pasatzeko eta ETako lerro bati kritika egin nahi ziotelako, *Brankari* taldearen laburdura ez jartzea erabaki zuten. Horren ondorioz, aldizkariaren lehenengo zenbakia erabat “galdu” zen<sup>419</sup>. Hurrengo zenbakiak EGI-Batasunak banatu zituen. Baina 1972. urtean talde honek erabaki zuenean ETAn sartzea, aldizkaria bertan behera uztea erabaki zuten.

Beraz, *Branka* aldizkaria, garaiko abagune historiko eta politikoan erabat txertatutako aldizkaria izan zen. Maila jasoko kultur aldizkaria izan arren, osagi politiko izugarria zuen proiektua izan zen. Beste aldizkari proiektu batzuetan hainbeste antzematen ez dena. *Jakin* aldizkarian esate baterako, ifrentzu politikoak (ez bazen erregimen frankista bera) ez zuen proiektuaren definizioan hainbesteko garrantzirik.

Aldizkaria desagertu baino lehen bi aldaketa garrantzitsu izan ziren: lehena, *Brankak* euskarazko aldizkaria izateko hautua egin zuen eta 1971. urteko azken zenbakian (14. zkia) horrelaxe jakinarazten zien irakurleei:

“Orain arte BRANKA agerkari hau eskuratu duten irakurle guziek ikusi dute nola hiru mintzairetan egina zegoen. Beharbada jokabide hori irakurle aintzek ongi ikusten ere zuten. Zergatik alda beraz, orain arte jarraitu den bidetik? Bai, zertako hamalagarren zenbaki hunetarik harat agerkari hau dena euskaraz idatzi?”

<sup>419</sup> *Txillardegiren* arabera: “el nº 1, que iba a ser distribuido por vía “oficial”, fue arrojado al mar en su totalidad” (Txillardegi, 1979a: 2)

Lehenik esan behar duguna da aspalditik asmo hori gogoan ginabilala Branka-ko idazle eta laguntzaileen artean. Orain arte hiru mintzairetan, euskaraz, frantsesez eta espanyolez, idatzi baldin badugu, huna hitz batez esateko zergatik izan den: gure ideien eta asmoen gehiago zabaltzeko eta ezagutarazteko. Gaurko egunean ba dugu ustea, alde batetik orain duela bost urte bano gehiago euskaraz irakurtzen dela eta bestetik berriz gure ideia eta asmakizun guziak baitezpadatuki behar ditugula euskara geure mintzairaren eiheran idatzi. Oraingo uste berri hunek ez du esan nahi euskaraz beste mintzairarik ez dugula onartzen gure artean eta Euzkadin. Baina bai Euskaldunak girenaz gain euskara behar dugula baliatu eta baliarazi.

Bixtan den gauza beste mintzaierak ere baliatuko ditugula orain arte bezala gero ere, baina ez molde berean. Hemendik goiti euskara dugu itzuliko bai espanyolera bai eta frantsesera. Hala nola idazgai bat garrantzi haundikoa gertatzen bazaigu. **Branka-n idatziko dugu euskaraz eta gero orrialde bereiz batzuetan erdaraz itzuliko.**

Jokabide berri hunekin **bi helburu ditugu** segitzen. **Lehena euskara baliatu eta baliatuz landu, berritu eta azkartu. Bigarrena euskaratik erdarara itzulpenak eginez abertzalego sozialistaren bideak ahalik eta gehienik ezagutarazi** eta egiazko abertzalegoaren kontra ateratzen diren indar eta jokabide arrotzak, bai eta euskaldunak, gure Euzkadi-n bizi diren guzien jakinean ezarri. Ageri den gauza da aipatu ditugun indar hauek nahiago luketela euskaraz idaz bageneza bakar-bakarrik. Zergatik? Orduan euskara ulertzen ez duten guztiek ez baitezakete gure ideien berri jakin! Euzkadi-ren azkatasunaren eta euskalduntzearen kontra ari diren indarren jokoa ez baigenezake euskara aditzen ez duten herritarrei entzun araz! Horra zergatik eginen dugun erdaraz ere.

Indar berezi bat eskatuko dugu beraz gure irakurle guzien agerkari hunen bururen buru irakurtzeko.<sup>420</sup> [beltzak gureak dira]

Aldaketa honek bat egiten du Iparraldean ematen ari den fronte sozialista abertzaleen berrantolaketarekin, Enbataren antolaketarekin hain zuzen. Horren isla da, *Brankako* zuzendariaren aldaketa. Aurreko zenbaki guztietan zuzendari izandako Mikel Ezkeroren orde, J. L. Davant sartu zen. Prozesu honen azken emaitza gisa, *Zuzen* aldizkaria sortu zen, aipatutako abertzaleen organo izateko, baina funtsean, *Txillardegiren* arabera, *Branka* berriaren izena zena. *Zuzenek Brankaren* 14. zenbakian ezarritako hizkuntza eredua jarraitu zuen, euskarazko aldizkari bat zen, testu nagusien laburpenak erdaraz ere eskaintzen zituena. *Zuzen* aldizkariak ordea, oso ibilbide txikia egin zuen, zenbaki bakarra kaleratu baitzen (1972an).

Beraz, *Brankak*, *Egan* aldizkariak 1954an egindako hizkuntza hautu berdintsua egin zuen 1971an, baina *Egan* ez bezala, erabaki horrek oso eragin txikia izan zuen, arrazoi politikoak tarteko, aldizkari proiektua desagertu zelako.

Nolanahi ere, *Branka* eta *Zuzen* aldizkariaren kasua aipagarria da, bertan, ikuspegi militante batekin izan arren, soziologia, zientzia politiko eta filosofia arloko maila jasoko artikuluak argitaratu zirelako euskaraz, eta hurrengo atalean ikusiko dugunez,

---

<sup>420</sup> Ikus “Hemendik aurrera Branka euskaraz izanen da”, *Branka*, 14 (1971).

hein handiz gerora Giza eta Gizarte Zientzien esparruan sortutako euskarazko aldizkarien aurrekari izan zirelako.

## 5. Liburu ekoizpena

Aldizkariak eta liburu argitalpenak garaiko euskarazko argitalpengintzaren zutabe biak dira. Aldizkarietan elkarrekin berbetan, are eztabaidan, ikusi ditugu aditu euskaltzaleak. Gai berriak jorratzen, elkarri irakurtzen eta idazten, euskara eredu berriak lardaskatuz bide batez. Orain liburugintzarekin sasoi honetan gertatzen dena aztertzea dagokigu. Liburuak tradizionalki, ezagutzaren transmisioaren ikuspegitik, argitalpen formaturik garrantzitsuenak dira, gai baten inguruko informazioa lortzeko, prosa zientifikoa edo prosa jasoaren moldeak hartzeko, irakurle zein idazle euskaldun multzo txiki bat trebatzeko eta abar. Horregatik guztiagatik euskarazko liburu argitalpen jasoak aztertzea da atal honen asmoa. Argitalpenak jakintza-arloaren arabera zedarritzen ahalegindu gara, eta gerta liteke baten bat ahaztu izana, baina gure xede nagusia ondoko lerroetan zera da, goi mailako euskarazko argitalpengintzan jakintza multzo nagusia bereiztea.

Garai honetan euskarazko argitalpengintzaren arloan bi ekoizpen nagusi daude: batetik, jatorriz euskaraz ekoiztako lanak, eta bestetik, itzulpenak. Jatorriz euskaraz ekoiztako lanak euskal liburugintzaren gehiena izan arren, euskaratutakoak multzo handi eta heterogeneoa osatzen dute. Beraz, atal honetan lehenik euskaraz prestatutako lanak eta ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu, eta ondoren itzulpen-lanei atal berezitua eskainiko diogu.

Epe honetan euskarazko liburuak kaleratzen zituzten argitaletxeak ugaritu ziren. Aurreko garaian aipatutako Itxaropena argitaldaria, jadanik ez zegoen bakarrik, beste batzuk ere bazirelako. Horietako batzuk ohiko argitaletxeak dira (adb. Kriselu, Auspoa, Añamendi...) eta beste batzuk inprentak edo grafikak dira (Izarra, Bilbao, Ellacuria, Ordorica...). Badira ere, argitaletxe gisa funtzionatzen duten elkarte eta erakundeak (Euskerazaleak, Euskaltzaindia...) eta beraiek dira euskarazko libururik garrantzitsuenetarikoa publikatzen dituztenak edo publika arazten dituztenak.

Halaber, ordena erlijiosoek (frantziskotarrek, pasiotarrek...) euskarazko eliz obrak argitaratu zituzten sinestun euskaldunentzat. Bestalde talde erlijioso euskaltzale batzuk euskarazko obra laikoak (edo ez bereziki eliztarrak, nahiz eta moralitate kristau nabarmenarekin) ekoitzi zituzten, adibidez Jakin (EFA) eta Bilboko San Antongo katekesia. Arantzazuko frantziskotar euskaltzale gazteek, *Jakin* aldizkaria argitaratzen zuten 1956. urtetik. Baina, arestian aipatu dugunez 1962-1964. urteen artean, ezin izan zuten aldizkaria argitaratu baimenik ez zutelako. Baimena eskuratu bitartean, liburuak argitaratu zituzten Jakin (EFA) gisa, hau da, Arantzazuko frantziskotarren argitaletxea (*Editorial Franciscana de Aranzazu*, EFA) erabiliz.

Klaudio Gallastegik Bilboko San Antongo elizaren baitan, katekesi talde bat antolatu zuen. Taldeak “S. Anton'go Katekesia” izena zuen, eta talde katoliko euskaltzalea zen. Talde honek, besteak beste, euskarazko hainbat argitalpen sustatu zituen 60ko hamarkadaren bigarren erdialdean. Esate baterako, taldekide baten, Jose Antonio Retolazaren *Kili-kili* aldizkariaren lehen garaia (1966-1969) katekesiak babestu zuen<sup>421</sup> eta euskarazko beste hainbat liburu argitaratu zituen: umeentzako ipuinak<sup>422</sup>, helduentzat euskarazko<sup>423</sup> edo euskarari buruzkoak lanak<sup>424</sup>, klasikoen itzulpena<sup>425</sup>, elizaren dokumentu ofizial asko euskaratu<sup>426</sup>, elizkizunetarako materialak<sup>427</sup>, irakurketa eliztarrak<sup>428</sup>... Gehien-gehienak J. A. Etxebarriaren<sup>429</sup> lanak dira, salbuespen bakan batzurekin<sup>430</sup>.

---

<sup>421</sup> Bigarren garaian Euskerazaleak taldearen babesean kaleratu zen. *Kili-kili* aldizkaria umeak beren euskalkian alfabetzeko J. A. Retolazaren proiektua izan zen (Retolaza, 1977).

<sup>422</sup> J. A. Etxebarriak umeentzako ipuin klasiko batzuk itzuli zituen: *Charles Perrault'en ipuiñak* (1965 eta 1968. urteetan).

<sup>423</sup> J. A. Etxebarriak euskaraz idatzitako poesia lan ugari: *Maitale galdua: (olerkiak)*, (1966) *Basoko loreak* (1967), *Lo ta amets* (1967)... edo hautatutako poesiak: *Catalunya'ko olerkariak* (1966).

<sup>424</sup> J. A. Etxebarriak prestatutako: *Euskal iztegi laburra* (1966); eta Etxebarriak antolatutako *Mendiburu'tar Sebastian, S.J. (1708-1782): euskal idazleak* (1968).

<sup>425</sup> J. A. Etxebarriak hainbat testu klasiko itzuli zituen eta San Antongo katekesiak argitaratu zizkion: *Phedro'ren alegiak* (1965-1966), *Martial'en ziri-bertsoak* (1965), *Esopo'ren alegiak* (1967)

<sup>426</sup> Esate baterako *Batikano II-garren Batzarra'ren Agiriak* (1966-1967), *Humanae vitae: jaiotzen neurtzea dala-ta giza-bizitza* (1968)...

<sup>427</sup> Latinetik J. A. Etxebarriak itzulitako *Liturji-goratarreak* (1966).

<sup>428</sup> Adibidez, *Agustin Deunaren eskutitzak* (1966); *Fatima'ko Ama Birjina ta umeak* (1966); *Gurutz-bidea* (1966).

<sup>429</sup> (Zelaieta, 2005)

<sup>430</sup> Orixek idatzitako *Lati-izkuntzaren joskera* (1966), Jose Antonio Retolazaren *Ipuñak* (1967), Klaudio Gallastegiren *Galburutan* (1968)...

### 5.1. Literatura, Didaktika eta eliz lanak nagusi

Euskarazko obrak nagusiki honako hiru arloetan prestatu eta argitaratu ziren: literatura arloan, euskararen irakaskuntza edota ikaskuntzaren esparruan eta Elizaren inguruan. Hau da, garai honetan argitaratu zen euskal liburugintza gehien gehiena aipatutako hiru esparru horietakoren bati zegokion. Arlo horiek ez dira propioki prosa zientifikoaren arlokoak. Hala ere, lotura dute gure gaiarekin. Batetik, gerora aipatutako jakintza gaietan erabili ahalko zen euskara eredu, prosa jaso eta irakurlegoa prestatuz joan zirelako, eta, bestetik, arlo horien inguruan, jakintza-arloak garatuko zirelako: Literaturarekin batera euskarazko Literatur Kritika sortuz joan zen, irakaskuntzaren inguruan Pedagogia eta Glotodidaktika, eta testu erlijiosoetatik Teologia eta Filosofiaren historiari buruzko lanak. Horregatik aztertuko ditugu garai honetako Literatura, Didaktika eta eliz lanak.

Segidan banan-banan aipatuko dugu bakoitza. Hiru eremuak mugatzeko erabilitako irizpideak zabalak izan dira. Esate baterako, euskal idazle klasikoen berrargitalpenak, euskarazko obra literarioak prestatu zituztenez, literaturatzat hartu ditugu, baina zehazki filologi-lanak lirarteke. Bestalde, bereiztu ditugun hiru esparruak ez dira itxiak, eta beraien artean hartu eman handiak dituzte. Adibide bat jartzearren, eliz liburu asko didaktikoak dira (adb. ikasbideak), eta euskara idatziaren ikaskuntzan prozesuarekin lotura dute.

Literatura arloko lanen multzoa ez da homogeneoa, eta izaera desberdineko obrak bereizten dira: alde batetik sortze lanak, eta bestetik, literatur lanen berrargitalpenak. Literatur sormenaren esparruan antzerkia, poesia eta narrazioa landu ziren. Kuantitatiboki antzerki lan gehiago argitaratu zen, baina kualitatiboki, hau da, obraren balio literarioari begiratuta, poesiaren eta nobelaren esparruan obra garrantzitsuagoak kaleratu ziren. Literatur Kritika, liburugintzari dagokionez, praktikoki hutsala zen<sup>431</sup>, Literatur Kritika garai honetan aldizkarietan kokatuta zegoelako. Literatur Kritikari buruzko idazlanak jadanik aipatu ditugun goi mailako aldizkarietan kaleratu ziren (*Euzko-Gogoa*, *Eusker*a, *Jakin...*), eta horietatik guztietatik garrantzitsuena *Egan* aldizkaria izan zen.

<sup>431</sup> Lan bakarra aipa daiteke: A. Lertxundiren *Gaurko literatura* (1968).

Antzerki arloan hainbat lan argitaratu ziren, euskarazko antzerkigintza borborrean zegoen-eta. Garai honetan hainbat antzerki talde sortzen ziren, herri, auzo, erakunde eta elkarten inguruan. Hainbeste pertsona biltzen zuen kulturagintza honek tularatzeko lanak eskatzen zituen. Euskarazko antzerki obren egileen artean aipatu behar dira: A. M. Labaien<sup>432</sup>, gerraurrean Euskaltzaleak elkarteko kidea, M. Lekuona<sup>433</sup>, N. Etxaniz,<sup>434</sup> edo X. Gereño<sup>435</sup>. Askotan, antzerki lanak helburu didaktikoa zuten: euskara irakastea<sup>436</sup>. Bestalde garai honetan hainbat antzerki lan euskaratu<sup>437</sup> ziren, eta horien baitan sartzen dira euskarazko eliz antzerkiak<sup>438</sup>.

Poesia eta nobelan, gerora begira garrantzi handia izan zuten obrak argitaratu ziren. Poeten artean, besteak beste, X. Diharce *Iratzeder*, B. Gandiaga eta G. Aresti ditugu aipagai<sup>439</sup>, eta eleberrigintzan, Y. Etxaide<sup>440</sup>, *Txillardegi*<sup>441</sup>, E. Erkiaga<sup>442</sup> eta gerraurreko A. Anabitarte<sup>443</sup> izango genituzke.

Bestalde prosaren esparruan izan ziren bestelako lanak ere. Ipuin ugari argitaratu ziren, baina ez hainbeste krazio literarioari lotuta, euskararen ikaskuntzari lotuta

---

<sup>432</sup> A. M. Labaienek honako antzerki lanak prestatu zituen: *Muga: irri-antzerkia ekitaldi bitan* (1954), *Jokua ez da errenta: komeria iru ekitalditan* (1960), *Malentxo, alargun!: komeria iru ekitalditan* (1962), eta *Domenjon de Andia: Gipuzkoa'ko erregia: kondaira-dramakizuna: iru ekitaldi* (1965).

<sup>433</sup> M. Lekuonarena da *Bi antzerki ta itzaldi bat* (1963-1965).

<sup>434</sup> N. Etxanizek *Euskal antzerkiak; Kontu-kontari* (1958) prestatu zuen.

<sup>435</sup> X. Gereñorena dugu *Nobi bat bear dogu: iru ekitalditako euskal antzerkia* (1965).

<sup>436</sup> Era horretakoak dira adibidez X. Gereñoren obrak edo Euskerazaleak elkarteak ekoiztiko obrak. Euskerazaleak elkarteak bereziki 1968. urtean euskara irakasteko hainbat antzerki lan labur prestatu zituen: *Euskerea erabilteko irakurgai errez politikak (iru antzerki labur)* (1968), *Euskerea erabilteko irakurgai errez politikak (lau antzerki labur)* (1968), *Irakurgai errezak: textos con vocabulario reducido para principiantes. I.go* (1968) *PITXI gorria* (1968), *ZENBAT urte?* (1968)...

<sup>437</sup> Euskarara itzulitako antzerki lanen artean: Lope Agirreren ibilerak kontatzen dituen *Asarre bidetan: Agirre'tar Lope'ren jokaldia azaltzen duan antzerkia* (1967).

<sup>438</sup> Adibidez, Gabriel Manterolak euskaratutako *Yesu-Kristo'ren nekaldia: (berrogei antzerkitan)* (1964)

<sup>439</sup> X. Diharce *Iratzeder (Zeru menditik: (1941-1946)*, 1959), B. Gandiaga (*Elorri*, 1962) eta G. Aresti (*Harri eta herri*, 1964 eta *Euskal harria*, 1967).

<sup>440</sup> Yon Etxaidek zenbait elaberri idatzi zituen: *Joanak-joan: Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblariari buruz egin eleberria* (1955), *Gorrotoa lege: (Oñaz-Ganboatarren gudueta girotutako eleberria)* (1964)...

<sup>441</sup> J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegik bi elaberri kaleratu zituen: Leturia-ren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartza'ko* (1960).

<sup>442</sup> E. Erkiagak idatzi eta Euskaltzaindiak saritutakoak dira: *Araibar Zalduna* (1962) eta *Batetik bestera: galdu-gordeko ibillerak* (1962).

<sup>443</sup> A. Anabitarterenak dira *Poli* (1958) eta *Aprikako basamortuan* (1961).

baizik. Ipuinok gehienak euskarazko irakurgai gisa, hots ikasketa material gisa, taxutu ziren.

Ezin da ahaztu, garai honetan euskal letretan tematika berri baten sarrera, umorearena hain zuzen ere. Une honetan argitaratzen dira hiru lan jomuga argi hori dutenak: Felix Bilbao Arantzazuko fraideak egindako *Ipuin-barreka* (1959), eta Juan San Martinen *Zirikadak: (ipuin barregarri-dun liburua)* (1960) eta *Eztenkadak: (gertaera barregarri-dun liburua)* (1965)<sup>444</sup>. Beraz, 50eko amaiera eta 60aren hasieran umorea euskal letretara ekartzeko saio antzematen da<sup>445</sup>. Hala, Donostiako 1961eko Euskaltzaleen biltzarrean bi lan aurkeztu zituzten A. Arrue eta J. San Martinek gaiaren inguruan<sup>446</sup>.

Garai honetan bestalde, bai euskal idazleei begira, bai hizkuntzaren ikertzaile, eta euskaltzaleentzat oro har, euskal idazle klasikoaren inoiz baino obra gehiago berrargitaratu ziren<sup>447</sup>. Euskara beraren baitako historia ezagutzeko edota ezagutarazteko gogoia antzematen da. Ikus adibidez A. Arruek dioena Euskaltzaindiaren 1959ko Eibarko biltzarrean:

“Gogoratuko zerate noski, nola orain iru urte Zarauz’ko Itxaropena’k argitaratu zuan, nere itzaurretxo batekin “Peru Abarka”-ren moldaldi berri bat. Edizio ura, 1.500 alekoa izan zan, ta eranegun (sic) Itxaropena’ko nagusi Unzurrunzaga jaunak esan zidanez, ale aietatik orain arte gutxi gora-beera 1.130 saldu dira. Asko? Gutxi? Iruzkiñak, zeuen gain uzten ditut”<sup>448</sup>

Gure ustez, eta hipotesi moduan planteatzen dugu, euskal obra klasikoaren berrargitalpenaren atzean ez dago euskal Filologiaren aitzineratze nabarmen bat, baizik

<sup>444</sup> Azpimultzo honetan sartu beharko litzateke J. San Martinek prestatutako beste lan bat ere: *Pernando plaentxiatarra: (Plaentxia-Eibarretan bildutako ipui sorta)* (1957).

<sup>445</sup> Ez zen dena den lehen saioa, gerraurrean G. Muxikak *Pernando Amezketarra* eta P. Zamarripak zenbait barre ipuin argitaratu baizituen: *Zaparradak eta euskaltzaleen atsegiñerako Zamarripa abadeak egindako lan alayak* (1926), *Kili-kili: barre-ipuiñak* (1930), *Firi-firi: (ipuin ta naste)* (1935) eta abar.

<sup>446</sup> (Arrue, 1962 eta San Martin, 1962)

<sup>447</sup> T. Agirrerren *Kresala* (1954), *Auñamendiko lorea* (1966) eta *Garoa* (1966), *Axularren Geroren* bi edizio (1954 eta 1964. urteetan), J. A. Mogelen *Peru Abarkaren* bi edizio (1956 eta 1966. urteetan), A. Iturrigaren *Ipuiak* (1967), Bizenta Mogelen *Ipui onak* (1963), edota B. Etxepareren 1545ko euskarazko lehen liburua *edizio berri* bi (1966 eta 1968. urteetan). Hain literario izan gabe, baina euskararen lekuko gisa, beste euskal klasiko batzuk ere berriz editatzen dira: F. I. Lardizabalen *Testamentu Berriko kondaira edo historia* (1957), A. Kardaberaz *Euskeraren berri onak* (1964), A. Iturriagaren *Jolasak* (1963) eta J. I. Iztuetaren *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak* (1968).

<sup>448</sup> (Arrue, 1960: 167)

eta gehiago da ekimen editorial bat. Inprenta edo argitaletxe batzuk sustatutako argitalpenak dira. Horren adibide da, esate baterako, garai honetako *Peru Abarkaren* edizio biak R. M. Azkuek Euskalzalaren inprentan kaleratutako edizioaren berrargitalpenak izatea eta ez garaian bertan egindako edizio filologiko berriak.

Literatura alde batera utzita, euskararen irakaskuntzaren/ikaskuntzaren esparruan argitaratutako materialetaz arituko gara. Garai honetan ume zein helduentzat izaera desberdineko testu didaktiko ugari prestatu ziren. Oraindik, ez ikastolen ez euskalduntze eta alfabetatze mugimenduak Hegoaldean masiboa ez ziren arren, gerora gertatu moduan, jadanik prozesuok abian ziren. Hala, helduentzat zein umeentzat euskara ikasteko, irakurtzeko edota idazteko materialak argitaratu ziren. Helduen kasuan, oso ezagunak egin ziren X. Peñaren<sup>449</sup> eta P. Altunaren lanak. Euskerazaleak taldeak antolatutako euskara ikastaroetan esate baterako, X. Peñaren materialak erabiltzen ziren. Baina horretaz gain, Euskerazaleak elkarteak berak 60ko hamarkadan beste materialik ekoitzi zuen, arestian aipatutako antzerki lan laburrak (aldi berean irakurgai zein antzezteko erabiliko zirenak) edo *Aditz-jokoa* ariketa liburua. Halaber, hamarkada horretan Jon Oñatibiak helduen alfabetatze eta euskalduntzeari begira zenbait lan atera zituen<sup>450</sup>. Baina askozaz ere eragin eta zabalpen handiago izan zuen Patxi Altunaren lanak: *Euskera ire laguna: Lenengo liburua* (1967), *Ariketak: euskera, ire laguna!* (1968), eta hirugarren eta azken liburukia *Euskera hire laguna: bigarren liburua* (1969), H letra izenburuan erabiliz.

Garai honetan umeentzat, helduentzat baino euskarazko material gehiago argitaratu zen. Haurrentzat irakurgaiak, bereziki ipuinak (batzuk jatorriz euskaraz prestatu ziren<sup>451</sup>, eta beste zenbait itzuli eta moldatu ziren<sup>452</sup>) ekoitzi ziren, baita

---

<sup>449</sup> Xabier Peñaren lanak *Euskal-ikasbide laburra* (1957) *Euskal-irakasbide laburra* (1958) *Euskal-irakasbide laburra: (lenengo mailla)* (1960) eta horren berrargitalpena 1963. urtean.

<sup>450</sup> *Método de euskera radiofónico/ Euskera irrati bidez: bizkaiera* (1965) eta *Euskera artez: erakuslearen liburua: I ikastaroa* (argitalpen datarik gabe) kaleratu zituen.

<sup>451</sup> Julene Azpeitiak, ikastola andereñoak, 1961. urtean *Amandriaren altzoan* eta *Umien adizkidia. I idaztija* kaleratu zituen. Karmeldarrak 60ko hamarkadan *AZERI jauna* kaleratu zuten, eta Aita Onaindiak *Jolasketa: bildumaren muiña: jolasak, abestiak, ipuiñak, irakurgaiak* (1965), edo M. Ugalderekin *Sorgiñaren urrea: umeentzako kontuak* (1966).

<sup>452</sup> Bilboko Ordorika inprenta 50eko hamarkadaren bigarren erdialdean “Umetxoan ipuiak” izeneko bilduma atera zuen, Karlos Bernalek untxi baten ipuin seriea euskaraz emanaz (*Pipo: konejutxu arrosa* (1957), *Nini: konejutxu argia* (1957?) eta abar) eta 60 hamarkadan C. Perrault-en ipuinak (*Errauskiñe (La cenicienta): gipuzkoeraz* (1964), *Charles Perrault'en ipuiñak* (1965 eta 1968. urtean), *Loakartutako*



ikasgairan bati lotutako ikaslibururen bat edo beste ere<sup>453</sup>. Ikusten denez, irakurgaiak bai, baina ikasgaietarako ikaslibururik ia ez zegoen, gerraurrean kaleratutako materialekin alderatuz gero, aldea izugarria da. Are gehiago, ikasliburuei dagokionez, gure ustez, 1968. urtean eta hainbat arrazoi tarteko, gerraurreko gailurra oraindik gainditu gabe zegoen, eta horren adibide da I. Lopez-Mendizabalen *Xabiartxok* bi edizio izan zituela (lehena 1959an eta bigarrena 1965an). Halaber, gerraurreko F. Iturriotzen *Txomiñ-ikasle* ezagunaren segida gisa S. Alonsok *Txomin'en nekaldiak* (1966?) argitaratu zuen.

Jose Antonio Retolazak, ume euskaldunen alfabetatzeari begira, eta Madrilen psikopedagogia ikasketak amaitu ondoren, 60ko hamarkadaren bigarren erdialdean zenbait proiektu jarri zituen abian. Esate baterako 1966. urtean *Kili-kili* aldizkaria martxan jarri zuen. Aldizkariaren lehen garaiko bosgarren –eta azken zenbakia– 1969. urtean atera zen<sup>454</sup>. A. Retolazak dioenez, “aldizkaria ez zan ezkutukoa. Bilbo’ko San Anton parroko Euskal-Katekesia agertzen zan beraren jabe. Baiña ez egoan lege barruan. Baimena eskatzeko bildur nintzan”<sup>455</sup>. Abade bati irekitako sumarioan ikusi zuenean *Kili-kili* aldizkaria aldizkari klandestino gisa sailkatuta, beldurtu egin zen, eta horrela bukatu zen aldizkariaren lehen garaia. Proiektuari jarraipena emateko Euskerazaleak elkartera jo zuen babes bila. Ordutik aurrera *Kili-kili* aldizkariaren bigarren garaia, sariketa, materialak... Euskerazaleak elkartearen baitan gauzatu ziren.

Elizak katolizismoaren oinarritzko ideiak irakasteko euskarazko testu didaktiko ugari argitaratu zituen, dotrina, ikasbide zein katiximak<sup>456</sup>, tradiziozkoa zuen bere bideari jarraituz. Hala, Elizak eliz dotrinaren ikaskuntza euskaldunen alfabetatzearekin

---

*printzesatxua* (1968)) zein Grimm anaien ipuinak (*Aatetxo itsusia (El patito feo): gipuzkoeraz* (1964); *IPOTX triskaria (El enano saltarín): gipuzkoeraz* (1964); *Larrosazuri ta larrosagorri* (1968).

<sup>453</sup> Itziar Muñoak umeei gramatika irakasteko *Aurtxoa: izkindegi: lenengo malla* atera zuen 1965. urtean eta 1968an *Aurtxoa: izkindegi*.

<sup>454</sup> Aldizkariaren tirada handia zen, J. A. Retolazaren hitzetan: “Lenengo zenbakian 80 bat ale bakarrik atara nebazan. Baiña andik lasterrera 2.000 inguru zabaltzen nebazan Bizkai-alderdi guztietan” (Retolaza, 1977: 287).

<sup>455</sup> (Retolaza, 1977: 287)

<sup>456</sup> Ikasbideak: *Bilbo-Eleizbarrutirako Kristiñau-ikasbidea: 1'go ta 2'go mallak* (1954); *Kristiñau ikasbidea: lenengo mallea: Bizkaiko euskeraz* (1957) *Bilbo-Elizbarrutirako kristiñau-ikasbidea: Bizkai'ko euskeraz: iru mallatan* (1957. urtekoa 3 edizioa zen), *Kristau ikasbidea: bigarren malla: Gipuzkoako euskeraz* (1958); *Kristau Ikasbide: lenengo malla: [Gipuzkoa'ko euskeraz]* (1958); *Kristiñau-ikasbidea: bigarren mallea* (1958)... Katiximak euskeraz: *Nere lehen katichima* (1954), *Haurren lehen katichima* (1956?), *Kristiñau katezismoa* (1956)...

uztatu zuen (garaiko eskoletan ez baitzegoen euskaraz ikasterik). Ume<sup>457</sup>, gazte<sup>458</sup> eta heldu euskaldunei begira prestatu, egokitu edota itzuli zituen hainbat argitalpen. Helduei zein abadeei begira, eliz historia zein santuen bizitzak argitaratu ziren<sup>459</sup>.

Horretaz guztiaz gainera, abadeen eliz ofizioa laguntzeko euskaraz zenbait obra kaleratu ziren, mezetarako<sup>460</sup>, liturgiarako<sup>461</sup>, aldarerako<sup>462</sup> eta abar. Horri gehitu behar zaio Teologiaren esparruko zenbait lan: J. Zaitegiren *Bidalien egiñak* (1955), J. Kerexetaren *Apostoluen egiñak* (1961), L. Villasantek Jakin taldearen ardurapean prestatutako *Kristau fedearen sustraiak* (1962-1984), M. Lekuonak Balaguer-en itzulpena (*Bidea*, 1964)... eta eliz ikasketak egiten zituztenei begira argitaratutako *Salbamen kondaira: filosofiko bigarrenengo ikaslanak* (1968).

Laburbilduz, Elizako kongregazio, ordena, talde desberdinek euskaraz hainbat liburu eta material (kantak eta abar) argitaratu zituzten. Batetik, fedea zabaltzeko, baina bestetik, baita abade eta fraide asko oso euskaltzaleak zirelako. Gerora, 70eko hamarkadan, hainbat faktore tarteko (apaiztegien hustuketarekin, euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduaren antolaketarekin, eskola mailako euskarazko irakaskuntza antolaketarekin...) mota honetako argitalpenak zeharo gutxitu ziren. Eliz liburuek euskarazko liburugintzaren baitan protagonismoa galdu zuten. Beraz, esan liteke 50 eta 60ko hamarkadak euskarazko eliz liburuaren edo liburu erlijiosoaren azken garai loretsuak zirela, eta ordutik gainbeheran datorrela. Gaur egun urtean euskarazko eliz liburu gutxi argitaratzen dira.

---

<sup>457</sup> Esate baterako A. Zugastik moldatutako. *Argi-bide txikia: (neska-mutikoentzat Eliz-liburua)* (1957)

<sup>458</sup> A. Zugastik Friedrich Hoffmann-en *Gazteen Biblia* (1968) itzuli zuen.

<sup>459</sup> N. Etxanizek euskaratutako *Itun zarreko kondaira* (1955-1956), J. Basurkoren *Arantzazu'ko Amaren edestitxo* (1961), B. Iraola pasiotarrak prestatutako *Elurra ta sua: Santa Jema'ren bizitza* (1960), G. Arruek euskaratutako *Brabante'ko Genoveva-ren bizitza arrigarri miragarria* (1960), J. B. Etxeberriren *Mixel Garicoitz sainduaren bizia eta bertuteak* (1962)...

<sup>460</sup> Meza ugari argitaratu ziren: L. León apaizaren *Meza saindua* (1956?) lanaren 4. argitalpena, *Lagunarteko meza* (1956), *Lagunarteko mezak eta eleiz-abestiak* (1957?), *Eguneroko mezak: ilbeltza, otsailla* (60ko hamarkadakoa), M. Zarete euskaratutako *Gure meza deuna* (1960), J. Kerexetaren ardurapean atondutako *Eguneroko Meza* (1963) eta abar.

<sup>461</sup> Latinetik J. A. Etxebarriak itzulitako *Liturji-goratarreak* (1966).

<sup>462</sup> Adb. *Aldareko liburua* (1965).

## 5.2. Beste jakintza esparruak

Musika arloan ere, Elizak material asko argitaratu zuen<sup>463</sup>. Hala ere, badira bestelako kanta bildumak sustatu zituzten erakundeak. Euskaltzaindiak esate baterako *Euskal-kantak* (1959 eta 1960) argitaratu zuen. Herri kanten garaia zen eta herri kanta ugari bildu eta liburuxketan kaleratu ziren<sup>464</sup>. Euskal kantez garaiko euskaltzaleentzat balio sinboliko izugarria zuten.

Bestalde, 50 eta 60ko hamarkadetan formatu jasoko musika lan gutxi dago euskaraz. Izan ere, opera bakarra kaleratu zen euskaraz: *Zigor: euskal-opera*. Libretoa Campionek gerraurrean idatzitako narrazio batean oinarritzen zen, Joseba Zinkunegi medikuak euskaratu zuena, baina gerraostera arte argitaratu ez zena<sup>465</sup>. Ikusten denez, euskarazko opera, zarzuela eta bestelako formatuetan emandako musika ia ez zegoen, salbuespenen bat kenduta. Alde horretatik XX. mende hasiera oparoagoa izan zen<sup>466</sup>. Egia esan gerraosteko hamarkadetan, frankisten legezpean, hiriburuetako antzokietako taulagainera ezin eramango zatekeen lanik, zertarako sortu?

Aipatu dugunez, herri kanten garaia da. Herri kantetako batzuk garaian bertan bildu ziren, baina asko aurretik bilduta zeuden, adibidez R. M. Azkueren *Cancionero Vascon*. Halaber egile horren *Euskalerrriaren yakintza* folklore bildumaren lehen edizioa (1935-1947) agortuta zegoenez, Espasa Calpé madrildar argitaletxeak 1959an edizio berria atera zuen<sup>467</sup>.

<sup>463</sup> Elizak musika inprimatua (*Ogei kanta Arantzazuko* (1955), *Meza deuna: erriarentzat* (1957), *Meza santurako abestiak* (1958), *Elizako euskal-abestiak* (1962), *Meza sainduko kantak* (1963), *Arantzazumeza [Musika inprimatua]: gipuzkeraz eta bizkaieraz: erriak abots bakarrean: koruak lautan* (1966), *Igandetako bezperak* (1967)... eta kanta erlijiosoak eta eliz kantak argitaratu zituen: *Abestu errosarioa* (1956), *Eliz-kanta xortatxoa* (1956?), *Misiñoetako kantak* (1958?), *Eleiz-kanta xorta: Donostia'ko Jesulagunen eleizan abesteko* (196-?)... Elizak gainera elkarte katolikoek kanta bildumak prestatu zituzten, adibidez Ondarru'ko Acción Católica'ko emakumeek *Ondarru'ko kantak* (1963) atera zuten.

<sup>464</sup> Esate baterako *Boga-boga: (erri abesti xorta)* (1959), *Euskal abestiak* (1965)...

<sup>465</sup> Lehenik Itxaropenak argitaratu zuen 1963an Kuliska bilduman eta bi urte beranduago Bilboko Ordorika inprintak.

<sup>466</sup> Euskal musikaren gorabeheraz ikus (Arana-Martija, 1987)

<sup>467</sup> Euskaltzaindiak 1960ko martxoko batzarreko aktak horren gaineko berria jaso zuen: “Espasa Calpe, S.A.-ren idazki bat irakurri da. Diño bertan *Euskalerrriaren Yakintza* liburuari jagokozan egile-eskubideen garbikuntzeak Euskaltzaindiarentzat itxi dituala 238,85 peseta. Baita lenengo tomoa barrira ta bigarrenez argitaratu dabela 2.822 ijeki egiñik, eta liburu barri onein irabazien barri urrengo garbikuntzean emongo dabela bere badiño” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1960.3.25)

Herri jakintzarekin lotuta garai honetan ez zen liburu gisa beste ezer argitaratu. Folkloreari buruzko lan laburren bat edo beste, sasoiko aldizkarietan plazaratu zen<sup>468</sup>. Bestelako obrarik gabe, R. M. Azkueren *Euskalerraren yakintza* beste lan batzuren abiapuntua izan zen. Esate baterako J. A. Retolazak prestatutako ipuin liburuan zera aitortzen zuen: “Lenengo ipuiña izan ezik besteok Azkue abade agurgarriak ortik emendik batukoak dozuz”<sup>469</sup>. Halaber, Euskaltzaindiak bere urre ezteietan R. M. Azkueren *Aintziñako ipuiñak: (Euskalerraren yakintza'tik autatuak)* (1968) lana kaleratu zuen Kuliska sortan.

Gerraurrean oso tradizionala zen gai bat, laborantzarena, garai honetan ia ahaztuta dago. Euskaraz ezer gutxi argitaratzen da nekazari euskaldunen laborantza eta bizimodua hobetzearen inguruan. Egia esan, biztanleria gehiena hirietan kontzentratuz doa, industriak lan eskua erakartzen du eta nekazarien kopurua asko gutxitu zen: ordurako Euskal Herriak ikuspuntu ekonomikotik nekazaria izateari utzi zion eta industrialala zen. Hala ere, laborantzaren inguruan lanen bat edo beste argitaratu zen euskaraz<sup>470</sup>.

Politikaren esparruan ezer gutxi argitaratu zen (zitekeen). Politika arloan bi motatako liburuak bereiztu behar dira: ofizialak edo instituzionalak (modu zabalean ulertuta) eta lan politikoak. Lehenengo atalean erbesteko euskal gobernuaren mezu ofizial elebidunak leudeke, J. A. Agirrerrenak zein J. M. Leizaolarenak. Bigarrenean berriz, Jakin taldearen ardurapean argitaratutako *Europa* (1965), A. M. Labaienek “Pernando Etxekorena” ezizenarekin ateratako *Tajuz eta zentzuz: euskal-politikaz* (1967) eta Mao Zedong-en *Liberalkeriari aitzi* (1968) itzulpen lana<sup>471</sup>. Beraz, testu politikoak gutxi zeuden, eta gutxi horiek 60 hamarkadan, erregimenaren halako irekitze aldi batean (aurreko hamarkadekin alderatuz gero) kaleratu ziren.

---

<sup>468</sup> Adibidez N. Altzolaren “Bidasoa-aldeko erri-jakintzatik ale batzuk” *Muniberen zientzia eranskinean* atera zen.

<sup>469</sup> ABKtik hartutako erreferentzia.

<sup>470</sup> Esate baterako M. Oñatibiaren *Baserrira diru-bidean: baserriko gora-berak aurrera nola eraman* (1957), edo A. Gatzitegiren *Laborantza: laborantza'tik hobeki bizitzeko* (1963).

<sup>471</sup> ABK jasota dagoenez, Txema Larrea historialariaren iritziz, itzultzailea F. Krutwig daiteke.

Hamarkada berean saiakeraren bidetik, Pentsamenduaren Historiatzat har daitekeen Salvatore Mitxelenaren *Unamuno ta Abendats: bilbo'tar filosofuaren eta euskal-anima'ren jokerei antzemate batzuk* (1960) eta *Txillardegiren Huntaz eta hartaz* (1965) publikatu ziren. Biak ala biak Baionan inprimatuta. Lan biak oso ezagunak dira, eta ez ditugu aztertuko. Historiaren esparruan euskaraz ezer gutxi publikatu zen. Adibidez, Filosofiaren Historia Jakin taldeak landu zuen: *Filosofiaren kondaira. I: Sokrate aurea, len eskolastika, Espinoza, Bergson* (1965) eta Filosofiari buruzko artikuluak nonbaiten argitaratzekotan aldizkarietan kaleratu ziren, bereziki *Jakin* aldizkarian, nahiz eta beste zenbaitetan ere aurki daitezkeen, *Euzko-Gogoan*<sup>472</sup> zein *Eganen*<sup>473</sup>. Baina, Historia arloa modu hertsia goan ulertuta, egia esan arlo ia mortua zen, biografiaren bat edo beste kenduta<sup>474</sup>. Kasu honetan ere, historiari buruz dauden euskarazko lan apurrak sasoiko aldizkarietan kaleratu ziren<sup>475</sup>.

Garai honetan hizkuntzalaritza arloan ekoizten da produkzio zientifiko gehien. Baina ez halaberharrez euskaraz. Euskal hizkuntzalaritzaren esparruan gailur diren zenbait obra, K. Mitxelenarenak esate baterako, gaztelaniaz argitaratu ziren<sup>476</sup>. Beraz, Hizkuntzalaritzaren arloan euskaraz ezer gutxi argitaratu zen; 50eko hamarkadan L. Villasantek *Euskal gramatika llabur eta idazleen pusketa autatuak* (1956) kaleratu zuen, 60ko hamarkadan *Orixeren Lati-izkuntzaren joskera* (1966) argitaratu zen eta B. Estornesek *Erronkari'ko uskara* (1968) atera zuen. Bestalde J. A. Etxebarriak Bilboko San Antongo Katekesian lau liburukitan *Euskal iztegi laburra* (1966) argitaratu zuen. Beraz, *Orixeren* lana kenduta, beste lanetan euskara, euskarazko hizkuntzalaritzari buruz jarduteko erabiltzen da, eta euskarazko idazlan bakanak sasoiko aldizkarietan artikulu formatuan argitaratzen dira (ikus *Euskera*, *Egan*...).

Historia, Filosofia, Literatur Kritika, Hizkuntzalaritza eta beste jakintza-arloei buruzko euskarazko liburu monografikoak ez egotea bi modutara interpreta daiteke: batetik ahuldade gisa, eta bestetik, gaur eguneko komunikazio zientifikoaren oinarrizko

<sup>472</sup> Adibidez *Euzko-Gogoan* argitaratu ziren G. Barandiaranen “Izatasun filosofia” (1956 eta 1957an) *Aitzarte* ezizenarekin eta “Gaurko filosofiaren asmakizunak” (1958) *Aranargi* ezizenarekin eta abar.

<sup>473</sup> *Egan* aldizkarian Pello Zabaletak esate baterako zenbait artikulu argitaratu zituen: “Eritasuna sistema filosofikuetan” (1963), “Izpi batzuek esistentzialismuaz” (1963)...

<sup>474</sup> Adibidez, Yon Etxaideren *Amasei seme Euskalerrri'ko* (1958).

<sup>475</sup> Adibidez, Isidoro Fagoagaren *Agotak, herri madarikatu bat* (1968) *Egan* aldizkarian kaleratu zen

<sup>476</sup> Adibidez, K. Mitxelenaren *Fonética histórica Vasca* (1961).

ezaugarrien hastapen gisa. Ahuldade diogu, ez egilerik ez irakurlerik ez zegoelako euskaraz Historia edo Literatur Kritikari buruz aritzeko, edo egonda ere, liburuak baino formatu arinagoak nahiago zituztela. Izan ere, bai idazlearentzat, bai irakurlearentzat errazago izango zen ordura arte euskaraz ia inoiz landu gabeko gai espezializatu bat artikulu labur batean jasotzea, eta ez liburu oso batean. Erabilera aldetik ere, euskarazko unibertsitate mailako ikasketen faltan praktikotasun gutxi eduki zezakeen euskarazko produkzio zientifiko batek.

Bestetik pentsa liteke, une honetan gaur eguneko komunikazio zientifikoaren ezaugarri nagusiak agertzen hasi zirela, hau da, aldizkarietan oinarritutako komunikazioa, talde lan eta ikerketa proiektuen baitan burututako artikulu zehatz, labur eta espezializatuekin. Hots, ezagutza jasoaren euskarazko transmisioan aldaketaren lehen zantzuak agertzen hasi zirela bai formatuetan (liburutik artikulura jauziz), bai azterketa moldeetan (ikerketa indibidualetik gero eta gehiago talde lanetara joz, adb. *Jakinen* ingurunea), bai irakurketa moduetan (intereseko gaien gaineko irakurketetan idazlan zehatzak eta espezializatuak lehenetsiz).

Zientziaren dibulgazioari dagokionez, garai honen amaieran gazteentzat material gutxi batzuk inprimatu ziren. Aipagarria da, 1968ko *Giza-bizia* egile ezagunik gabea. Baina esparru honetan bereziki garrantzitsuak izan ziren liburu bilduma bi: *Margo ederdun entziklopedia* eta *Gauza harrigarriak*. Bietan lanak euskaratutakoak ziren, eta hurrengo atalean aztertuko ditugu.

Bestalde, Natur Zientzien arloan *Biologia* (1968), Donostiako Apaiztegian “*Eliz-Atarian*” Idazkaritzak prestatutako 195 orrialdeko lana aipagai dugu. Lana *Zientzi Euskal Idazlanak* bildumaren baitan multikopiatu zen 1968ko urriaren 31an, beraz ikasturtea hastearekin batera. Hortaz, lana aurreko ikasturtean (1967/68) prestatu zen Jesus Altunaren ikasleen artean. Liburuaren lehen orriari latinez lanaren zabalpena zein den adierazten da: *ad usum privatum*, hau da, seguru aski apaiztegiko ikasleentzat bakarrik. Obraren aitzin-solasean azaltzen da lanaren iturriak zeintzuk diren<sup>477</sup>,

---

<sup>477</sup> Hitzaurrean azaltzen denez, liburuaren iturriak hiru dira. a) J. Altunaren klasean ikasleek hartutako apunteak, b) J. Altunak berak prestatu eta banatutako apunteak, eta c) zenbait liburutan egindako

erabilitako lan metodologia<sup>478</sup>, gaiaren aurrekariak<sup>479</sup>, eta erabilitako euskararen gaineko hainbat argibide:

“Euskera jatorki ta sakonki oraindik menderatzen ez dugun zenbait gazte ausartu gera hain garrantzi andiko zientzi-alor huntan sartzen. Gure ausarkeri hunek euskal-kulturari, apur bat bederen, laguntzen badio, gurenko-izardiak ongi ordainduak dagozke.

Orrialde hauetan barna, zenbait segurtasun-eza ta zenbait aldaketa sumatuko duzute hiztegiari dagokion zeran. Esate baterako, “embrión” adierazteko, batzutan “umeki”, beste batzuetan “ernamin” jartzen dugu. Aurreneko ikaskaletan erabilitako zenbait izen gerora, garbizaleegi edo ez egoki iruditu zaigulako, baztertu egin dugu. Hiztegiari buruz, gure aportazioa holako xehetasunetan baiño, lanaren ikuspegi orokor bat egin ondoren jalkitako konstanteetan juzgatuko duzute.

Ortographiari buruz, nahiko ezberdintasunetaz ere ohartuko zerate. “H” onhartua dugu, Baionako erabakiak eskatu bezela, baiñan inñundik ere uts asko izango ditugu egiñak, beraren erabiltzea ez baidugu ongi menderatzen. Erderazko “x” hotsa euskeraz idazteko “ks” jartzen dugu azken partean. Baita ere esperimentu gisan, gure lanaren azken partean, “ph” elkarte-hizkia ipintzen dugu gaztelerazko “f” adierazteko. “Th” ta “y” ere sartzen dugu noizbehinka. Gerkerazko “gamma” hizkiaren hotsa sartzen dan hitzetan, euskal “g” hotsa adierazten dugu jatorrizko hizkuntzarenaren berdiña hau baida. Beraz: Zoologia, Geokronologia... ta ez Zoolojia, Jeokronolojia... ta abar. Ez dugu hau gure kolkoz egiten, ez baigera gu nor philologi-alor huntan. Baiñan entzuna dugu gazteleran ez- eta Sartalde-Europako beste hizkuntza danetan (frantseran geronek ere ikusten dugu) era huntara adierazten direlako gerkeratik jasotako hots hauek.

Ortographiaz eta “dut” phormaz aparte, gure euskera gipuzkera da gehienbat. Muxikaren hiztegiari hitzen baten billa jotzen genduanean, (c) jartzen zuen hitza aukeratzeko genduan; bestela euskalki ezberdiñetako hitzen artean, gipuzkerakoa autatzen genduen.”<sup>480</sup>

Hizkuntzaren gaineko hainbeste azalpen ematea Biologiari buruzko testuliburua izan nahi zuen obra batean, oso sintomatikoa da. Kasu honetan, beste askotan bezala, egileen hizkuntza ereduaren gaineko kezka handiagoa zen edukiena baino.

Zoritxarrez, lanaren ontzaileei buruz ez dakigu ia deus, aitzin solasean aipatzen dena baino ez<sup>481</sup>. Izan ere, ikasle gazte eliztar batzuren lanaren aurrean gaude.

---

kontsultak. Halaber J. M. Barandiaranen lana *Euskalerriko leen gizona* erabili dutela aitortzen dute, baina J. M. Barandiaranek erabilitako hiztegia ez, hiztegia bitxia delako.

<sup>478</sup> Lehenengo 12 gaiak beren irakasleari, J. Altunari, pasatu zizkioten eduki zientifikoa gainbegira zezan. Hortik aurrerakoak beren kabuz prestatu zituzten.

<sup>479</sup> Aurrekariaren artean bi pertsona aipatzen dituzte, batetik J. M. Barandiaran, eta bestetik X. Kintana, nahiz eta haren lanak gehiegi ez dituzten ezagutzen: “Gure egunotan Xabier Kintana ari zaigu zientzi-alor hau lantzen. Gure hizkuntzaren “aggiornamentoan” gogotsu ari direnetakoa dugu Xabier. Ezagunak dire ZERUKO ARGIAN bolada luze batean berak idatzitako “Euskalerriko abereak” sekzio hura. Guk ez dugu hau aztertzeke astirik izan. Baiñan 24 eta 25'gn JAKIN'ETAN azaldutako bere bi artikulua hauetaz baliatu gara zenbait gauzetarako (aberediaren talde nagusiaren izenak berandik artuak ditugu, ta abar).” (Eliz-Atarian Idazkaritza, 1968).

<sup>480</sup> (Eliz-Atarian Idazkaritza, 1968).

<sup>481</sup> Egileak gazte abertzaleak zirela eta ideologia horrek motibatuta menturatu zirela Biologia lan bat euskeraz idaztera aipatzen zuten: “Lanari bere konjuntuan begiratuta, zera diogu guk: ez geniokela – honoko balio hau besterik emango: euskeraz eskolatu gabeko zenbait gazteek \_\_\_ (?) lehendik irikin zedukan zirrikitua –Biologi-alorraren atoañ– apur bat zabalagotzeko egin duten ahalegin bat. / Ondorengo gizaldiek, gure Herria berpiztu ondoren eta Euskera azi eta ozi baten jabe izanik, gerla-aurreko ta gerla-

*Egan* aldizkarian aurkitutako erreseinari esker, Donostiako apaiztegia 1967. urtean antzeko modu batean argitaratutako (“Aldagailluz irartua”) beste material baten berri izan dugu: *Antropolojia. Filosofiko Bigarren Urteko Ikas-lanak. Eganeko aipamenaren arabera* liburua:

“Filosofiko ikasleen oar-lanak dira. Kanporako baiño Abadegaitetxe barrukoentzako egiñak, **baiña garrantzi (sic) aundia dauke euskaljakintzarako, euskeraz darabiliezalako Antropoloji-gaiak.**

(...)

Ale au antolatu dabeen ikasle-izenik ez da agertzen”<sup>482</sup> [beltzak gureak dira]

Berriro ere, aurreko lanean ikusi moduan, material honen egileen izenik ez da agertzen. Beraz, 60ko hamarkadaren bigarren erdialdean, aipatutako bi kasuon argitan, Donostiako apaiztegia ikasmaterialak sortzeko pertsona taldetxo bat bazela dirudi<sup>483</sup>, baina zoritxarrez oraindik ezer gutxi dakigu hartaz, oraindik ikertzeke baitago apaiztegiako kultur giroa, eta bereziki giro euskaltzalea.

Laburbilduz, 50eko eta 60ko hamarkadetan euskarazko aldizkari zein liburu argitalpenak nagusiki Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak ziren. Beste arloak, Natur Zientziak, Zientzia Hutsak, Ingeniaritza edota Teknika, marjinalak ziren. Alde horretatik gerraurrea oparoa eta aberatsagoa izan zen. Noski, gerraurreko egoera politiko kulturala eta gerraostekoa erabat desberdinak ziren, eta bien artean konparatzerik ez dago. Bestalde, garai honetan aldizkariak argitaratu zituzten euskaraz prestatutako lan espezializatuenak, adibidez Hizkuntzalaritza eta Literatura arloan *Euskera* edota *Egan* aldizkariak. Era berean, garai honetan Fisika eta Natur Zientziei buruz euskaraz idatzitako idazlanak Giza eta Gizarte Zientzien aldizkarietan argitaratu ziren, *Egan*<sup>484</sup> eta *Jakin*<sup>485</sup> aldizkarietan, hurrenez hurren. Dena den, euskarazko lan

---

osteko gizaldiok ekindako bideari jarraituko dioten esperantzan gelditzen gera.” (Eliz-Atarian Idazkaritza, 1968)

<sup>482</sup> (Altzola, 1967b: 129)

<sup>483</sup> J. M. Torrealdai ematen dituen datuen arabera, 1968an Donostiako apaizgaiak beste zenbait lan kaleratu zituzten multikopiaz: *Salbamen kondira I (asieratik Pazko jaialdirarte)* (1967), *Teodizea* (1967), *Idazteunak: sarrera* (1968) eta azkenik *Kristau antropologia II. Kristoren Grazia* (Torrealdai, 1977a: 594-596). Zoritxarrez aipatutako erreferentzia ez dugu beste datu gehiagorik.

<sup>484</sup> (Krutwig, 1961)

<sup>485</sup> Ikus Iturriotz, I. “Atomuaren etxe-barnea” *Jakin*, 16 (1964), 11-15; Otamendi, J. “Legeak pisika jakintzan” *Jakin*, 17, 87-89; Osiranzu “Fisikaz eta...” *Jakin* 18 (1965), 78-82.



espezializatuak ez ziren bakarrik euskarazko aldizkarietan ateratzen. Nagusiki erdaraz argitaratutako goi mailako aldizkarietan ere euskarazko lan espezializaturen bat edo beste kaleratu zen (*Munibe*<sup>486</sup>, *Boletín de la RSBAP*<sup>487</sup>...). Beraz garai honetan aldizkariak goi-mailako euskarazko ezagutzaren emari gisa garrantzia hartuz doaz.

### 5.3. Itzulpen-lanak

Itzulpengintzak garai honetan ordura arte ezagutu gabeko ekoizpena ezagutu zuen. Itzulpena diogunean, erdaratik euskararako itzulpena esan nahi dugu zehazki, alderantzizkorik ez baitago.

Garai honetan asko eta izaera oso desberdineko liburuak euskaratu ziren. Honako azpimultzo nagusiak bereiztu ditugu: 1) literatura unibertsaleko obren euskaratzea, 2) garaiko lan literarioen itzulpena, 3) ume literaturari dagozkion lanak (batzuetan literatura unibertsaleko obren euskaratzea, eta beste batzuk obra arruntagoen itzulpen direnak), 4) Elizako testuak edota obra erlijiosoak, eta azkenik, 5) Elizatik kanpoko eta literatura ez diren itzulpenak leudeke, bereziki arestian aipatutako bi liburu bilduma: *Margo ederdun entziklopedia* eta *Gauza harrigarriak*.

1) Literatura unibertsaleko, eta bereziki greko-latindarreko obra ezagunak euskaratzea ez zen berria, baina oraingoan urrezko garai bat bizi izan zuen<sup>488</sup>. Gerraurrean zenbait saio izan ziren, eta gerraostean bide horretan sakondu zuten, J. Zaitegiren *Euzko-Gogoa* plataforman. Beraz, testu greko-latindar askoren itzulpena *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratu zen, eta maiz aldizkaritik kanpo ere, liburu formatuan, lanari zabalpen handiagoa emateko gogoz. Adibidez, J. Zaitegik euskaratutako Sofoklesen hiru antzerkiak *Piloktete*, *Aiatz* eta *Tarakin'go emaztekiak*, 1957. urtean *Euzko-Gogoa* zenbaki desberdinetan argitaratu ostean, hirurak separata

<sup>486</sup> *Muniberen* Natur Zientzien eranskinean N. Altzolak “Bidasoa-aldeko erri-jakintzatik ale batzuk” argitaratu zuen (1962). N. Altzolak gainera beste aldizkari batean *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* arlo bereko beste lan bat kaleratu zuen: “Personen bizitzari buruz ale batzuk Irun'en” (1966).

<sup>487</sup> Kandido Izagirrek “Ultzamako euskeraren gai batzuk” (1966) lana kaleratu zuen.

<sup>488</sup> Garai honetako literatura latindar testu euskaratuen bilduma osatuena G. Bilbaok eskaintzen du (Bilbao Telletxea, 2002)

batean bildu eta aparteko argitalpena eduki zuten<sup>489</sup>. Horretan ez zen *Euzko-Gogoa* bakarra izan, *Egan* aldizkariak ere itzulpen batzuk separata eran ere atera baitzituen. Esate baterako J. Zaitegiren *Euripide'ren Medeie* 1963an *Eganen* kaleratu zen, eta ostean aparte ere.

Literatura unibertsaleko itzulpen gehienak *Euzko-Gogoa* inguruan argitaratu baziren 50eko hamarkadan, hurrengo hamarkadan literatura lan ugari Juan Angel Etxebarriak itzuli eta argitara eman zituen Bilboko San Antongo Katekesiaren bitartez<sup>490</sup>.

Aipatutako bi guneetatik kanpo bestelako itzulpen garrantzitsu batzuk kaleratu ziren: Gaizka Barandiaran jesuitak *Iliasena* (1956), eta J. Zaitegik, oraingoan *Euzko-Gogoa* aldizkari proiektua hilik zela, *Platon'eneko atarian* (1962), P. Lafitteren hitzaurre batekin. Bestalde, Virgilioren idazlan guztiak (*Bergili'ren Idazlanak osorik*) latinetik euskaratuta eman zituzten A. Ibiñagabeitia eta S. Onaindiak 1966. urtean<sup>491</sup>.

Homeroren obra ezagunaren G. Barandiaranen itzulpenak hautsak harrotu zituen. J. M. Velez de Mendizabalen arabera, Gaizka Barandiaranek *Iliadaren* itzulpena 1936/37. ikasturtean abiatu zuen, Belgikan ikasten zegoela. Antza denez, greziera ikastean G. Barandiaranek euskararentzat zera nahi zuen: “larre hizkuntza izatetik kultura-hizkuntza”<sup>492</sup> izatea. Egitasmo horren parte zen Homeroren *Iliada* itzultzea. Aldi berean, Belgikako Tournain-en, Marneffe-n zeuden beste jesuita euskaltzaleekin harremana izan zuen, bereziki J. Zaitegirekin. Zernahi gisaz, 1936an hasitako itzulpena 1956an argitaratu zen. G. Barandiaranen itzulpena K. Mitxelenak *Egan* aldizkarian gogor kritikatu zuen. Testua ulergaitza zen, larregizko purismoagatik eta euskararen ezagutza eskasarengatik:

---

<sup>489</sup> Modu bertsuan 1958an B. Larrakoetxeak itzulitako W. Shakespearen *King Lear*, lehenik *Euzko-Gogoa* aldizkarian kaleratu zen eta laster separata gisa ere atera zen, akatsen zerrenda bat gehitzen zuela.

<sup>490</sup> Adibidez, *Phedro'ren alegiak* (1965-1966), *Esopo'ren alegiak* (1967).

<sup>491</sup> Dena den, kasu honetan ere Ibiñagabeitiak argitaratutako *Unai-Kantak* eta *Alor kantak*, publikatuta zituen *Euzko-Gogoa*an.

<sup>492</sup> (Velez de Mendizabal, 2007)

“Enaiz asiko erakusgarri billa: *sexcenta proferre possim*. Ezta bear ere. Irakurle euskaldunak eztu liburu au ireki besterik, nai duen lekuan. Zenbat ere euskaldunago, eramangaitzago eta gogaikarriago izango zaio irakurtzen duena. Itzulpen onetako izkerak leku malkarretan barrena, katazka (sic) bizian, dabillen gurdi zaar negartiak baiño kurrinka eta karranka geiago dario.”<sup>493</sup>

Kritikaren jo muga itzultzailearen hizkera izan zen, eta zenbat-nahi adibide eman zituen bere artikuluan. Honenbestez, K. Mitxelenaren ondorioa argia zen: Homeroren *Iliada* “oraindik itzultzeko daukagu”.

2) Literatura unibertsaleko obra handiak itzultzeko saiakeraz gain, badira garaiko<sup>494</sup> literaturarekin bat egiten duten bestelako itzulpen lanak: Wast-en *Bide izkutua* (1956) Itunbek<sup>495</sup> euskaratutakoa, Barojaren *Pio Baroja'ren itxasoa laño dago: Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezka* (1959) Yon Etxaidek itzulita, R. Tagore-ren *Iru poema* (1963) S. Onaindiak euskaraz jarria, Hemingway-ren *Agurea eta itxasoa/El viejo y el mar* (1963) Gotzon Goenagak itzulita, Celaren *Paskual Duarte'ren sendia* (1967) Luis Jauregik euskaratutakoa... Denak Zarauzko Itxaropena argitaletxean argitaratutakoak, batzuk Kuliska bilduman. Halaber, Plazido Muxikak, J. S. Svensson islandiar jesuitaren *Noni eta Maniren* (1952) itzulpenaren egileak, oraingoan Mensajerorekin islandiarraren obraren bigarren argitalpena (1968) atera zuen, eta F. Weiser-en *Mendiko argia* (1968) itzulpena ere egin zuen

3) Umeen literaturari dagokionez, denetariko itzulpenak aurkitzen ditugu, bai literatura unibertsaleko ipuinen itzulpenak, Hans Christian Andersen<sup>496</sup>, Perrault<sup>497</sup>, Grimm anaiak<sup>498</sup> ... bai ipuin arruntagoen euskaratzeak, umeen irakurgai izateko.

4) Azterketa kuantitatibo zehatzik egin ez dugun arren, seguru aski garai honetan inoizko testu erlijioso gehien euskaratu zen. Alde batetik obra erlijioso garrantzitsuak

<sup>493</sup> (Mitxelena, 1956b: 103)

<sup>494</sup> Garaiko literatura esatean, XX. mendean bertan argitaratutako lanetaz ari gara.

<sup>495</sup> ABKren arabera Itunbe “ Jose Iturria, Imanol Untzurruntzaga eta Sabin Berasaluzeren talde-izengoitia da”.

<sup>496</sup> Adb. *Aatetxo itsusia/(El patito feo): gipuzkoeraz* (1964).

<sup>497</sup> Adb. *Errauskiñe/(La cenicienta): gipuzkoeraz* (1964), *Charles Perrault'en ipuiñak* (1965), *Loakartutako printzesatxua* (1968).

<sup>498</sup> Adb. *Larrosazuri ta larrosagorri* (1968).

itzuli ziren (Biblia<sup>499</sup>, Ebangelioak<sup>500</sup>, Salmoak<sup>501</sup> eta abar) eta bestetik, Vatikanoko II.aren Kontzilioaren (1962-1965) haritik, eliz agiri ugari euskaratu ziren. Esate baterako, kontzilioko agiriaren euskarazko bi bertsiok egin ziren: bata Yulen A. Yurrek prestatutako eta Itxaropenarekin argitaratutakoa (*II-garren Batikano Batzarra*, 1965-1967), eta bestea, Juan Angel Etxebarriak San Antongo Katekesiarekin ateratakoa (*Batikano II-garren Batzarra-ren Agiriak*, 1966-1967). Edozein kasutan Eliz produkzioaren atal bat jasoa bazen ere, ez dugu aztertuko, zientzia eta jakintzaren esparruan euskaraz ekoizten zena aztertzea interesatzen zaigulako.

5) Garai honen amaieran arestian aipatutako bi liburu bilduma kaleratu ziren bata bestearen aurrez aurre: *Margo ederdun entziklopedia*<sup>502</sup>, Timus Mas argitaletxeak Bartzelonan inprimatzen zuena, eta bestea, *Gauza harrigarriak*<sup>503</sup>, Valentzian kaleratzen zena. Lehena, ez zegoen Euskara Batuan, nahiz eta bildumaren arduraduna Manuel Lekuona euskaltzainburua izan<sup>504</sup>, bigarrena aldiz bai (izenbururako aukeratutako hitza ikustea baino ez dago, “harrigarriak”). Are gehiago *Gauza harrigarriak* bildumako itzultzaileetako bat *Txillardegi* izan zen, Euskara Batuaren eragile nagusietako bat. Liburu biak gazte euskaldun belaunaldi baten eskura egon ziren<sup>505</sup>.

---

<sup>499</sup> R. Olabideren *Itun Zâr eta Berria* (1958) eta *Orixe*, J. Kerexeta, A. Zugastiren *Itun berria* (1967).

<sup>500</sup> I. Arrandiagaren *Goizparraik [sic] eta Beldubaik egiña* (1959), Jesu-kristo gure jaunaren barri ona: lau ebanjelioetatik itzez-itzez atera ta laurak alkartuta (1960), Fernando Mendizalek itzulita eta Joseba Goitik gainbegitutako *Lau ebanjelioak* (1961?), J. Kerexetaren *Jesu-kristo'ren barri ona: (Jerusalen'go Biblia'tik euskeratuta)* (1966), etab.

<sup>501</sup> *Iratzederren Salmoak* (1963), gerora Lino Akesosok bizkaiera jarri zuen *Iratzederren lana: Salmoak* (1964), etab.

<sup>502</sup> Bilduma honetan argitaratutako titulu batzuk: *Izadiaren mundua* (1966), *Afrika* (1968), *Landareen-mundua* (1968), *Abereen Munduan* (1968), *Egaztien Munduan* (1970), *Xomorroen Mundua...* (Iturria: ABK eta Zalbide, 1975)

<sup>503</sup> *Gauza harrigarriak* bilduman honelako tituluak argitaratuta ziren: *Jendeak eta bizilekuak* (1967), *Izadiaren gauza harrigarriak* (1967), *Ohianeko gauza harrigarriak* (1967), *Itsasoko gauza harrigarriak* (1968), *Animalien bizitza izkutua* (1968), *Mundu berdearen gauza harrigarriak* (1972), *Txorien gauza harrigarriak* (1972)... (Iturria: ABK eta Zalbide, 1975)

<sup>504</sup> (Aizpuru, 2005: 429)

<sup>505</sup> Iñaki Camino hizkuntzalariak beste gai bati buruz ari dela, bide batez aipatzen du: “Haur ginelarik, taxonomiaren estrategia goiztiarra nondinahi zetorkigun: ornodunak, ugaztunak, hegaztiak, narrastiak edo arrainak agertzen ziren edozein ezezagunek atez ate saltzen eta borondate euskaltzale hoberenarekin gurasoek erosten zuten orduko *Margo Ederdun Enziklopedia*-n. Gaude, egungo gure gaztetxoek, guk orduan “narrastariei” edo “ur-lurtarrei” ematen genien eginantzekotasun psikologiko bera ematen ahal dietela hitzetik hortzera entzuten dituzketen “bizkaiera”, “goi-nafarrera” edo “gipuzkera” horiei;...” (Camino, 1998: 111)

*Margo Ederdun Enziklopedian* 15 bat liburu argitaratu ziren, *Zeruko Argian* Timus Mas argialetxearen arduradunari, Juliá i Toda-ri egindako elkarrizketan honela zioen:

“-Bai. MARGO EDERDUN ENZIKLOPEDIA izendatu dugun kolerio [sic] onek 15 liburu izango ditu, denak margo ederrenarekin apainduak eta liburu bakoitzean gai batez sakonduaz.  
-Ze gai ikutzen dira?  
-Aurrak maite dituzten danak: egazti,txori, abere, Apirikako [sic] oitura ta errialdeak, izadi, olagintzak, denak dute sarrera liburu auetan.  
-Pentsatzen dut ondo burututako liburuak izango dirala?  
-Bai orixe. Aski duzu jakitea, liburu auek oraindik ez dirala urte asko HACHETE Paris'ko argitaldariak ezagun arazi zituala, ta dagoaneko ingeles, italitar, jermandar eta aspaindar [sic] izkuntzetara itzuliak izan dirala. Ez alperrik Hachete etxe au da, denok dakigun bezela, pedagogo sail eder baten lanak izatean, prantzi guziko aur liburu ederrenak argitaratzen dituen. Liburu auek, neska-mutillen jakin egarria asetzeko egiñak daude, margo askorekin eta berak maite dituzten gaiak kontu aundiakin erabilliaz.”<sup>506</sup>

Hala ere, *Margo Ederdun Entziklopedian* Natur Zientzien arloa ez ezik, bestelako gaiek ere tokia izan zuten. Hala bildumaren lehen zenbakia zeraman lanak<sup>507</sup>, *Biblia guztioi esana: Jaungoikoaren erria, Jesukristo gure jaunaren bizitza* (1968), ez zen preseski zientziaren dibulgazioaren esparrukoa. Ezin ukatuzkoa da bildumaren lehen zenbakirako aukeratutako obraren sinbolikotasuna, bildumaren izaera katolikoa eta publiko euskaltzale eta sinestunaren harrerarako egina izan zela.

#### **5.4. Liburugintzaren filologizazioa**

Euskararen egoera gutxitu eta diglosikoak halabeharrez liburugintzan (eta oro har, hizkuntzaren ekoizpen idatzian) eragina izan behar zuen. Bai egilearentzat bai irakurlearentzat, liburua euskaraz idaztea/irakurtzea ez zen detaile hutsa. Bai batak eta bai besteak gutxieneko baldintza bat bete behar zuten; euskaldun alfabetatuak behar zuten izan.

Idazlearen kasuan, alfabetatuaz gain, ia-ia filologoa edota hizkuntzan aditua izan behar zuen, euskarazko literatur prosa sortzeko. Horregatik, idazle euskaldun gehienak, euskaltzain oso edo urgazle izatera heldu ziren (eta heldu dira, gaur egun), Txomin

<sup>506</sup> Joseba (1968): “Margo ederdun enziklopedia” *Zeruko Argia*, 265 zkia. <http://www.argia.com/argia-astekaria/265/margo-ederdun-enziklopedia> [kontsulta data: 2008-08-22]

<sup>507</sup> Lehen zenbakia izateak ez du esan nahi inprentatik lehena ateratzen izan zenik, 1968. urtean argitaratu baitzen eta horren aurretik gutxienez bat, *Izadiaren mundua* argitaratuta zegoen jadanik.

Agirretik hasi eta, *Bernardo Atxagara* arte. Alderantziz ere gertatzen zen, hizkuntzan adituek euskara aitzineratzeko, literatur lanak idazten zituzten, gehienetan literatur sorkuntzaren lanen kaltetan. Joseba Intxaustik fenomeno honi *formalismoa* deitzen zion<sup>508</sup>. Beste batzuetan, hizkuntzan adituak ziren horiek, ospe bereziko obra literarioak itzultzen zituzten beraiek eredugarritzat jotzen zuten euskara molde baten alde egiteko (adibidez, Gaizka Barandiaranen *Iliadaren* itzulpena). Saiakerok asmo aldetik txalogarriak izan zitezkeen arren, hizkuntzaren aitzinerazteari begira, emaitza oro har kaskarra edo oso kaskarra izaten zuten, eta irakurlearen gogoia asebetetzerik ez zuten lortzen.

Zernahi gisaz, garai honetan idazle eta irakurle euskaldun alfabetatuak bazeuden. Baina beraien egoera hain zen diglosikoa, ezen euskarazko liburugintza gertaera erabat ez ohikoa baitzen, eta haren sortze eta harrera erabat baldintzatuta zegoen. Hizkuntzak mediatizatzen zuen. Horren ondorioz, euskarazko liburugintzak, filologizazio zantzu nabariak zituen bai sormenari dagokionez, bai obraren hartzaile edo irakurleei dagokionez. L. Villasantek berak honela zioen Euskaltzaindiak Arantzazun 1956. urtean antolatutako Euskaltzaleen lehen Biltzarrean:

“izkuntza izkuntza danez, orrek ematen digu guri ajola guztia. Euskal liburu bat ateratzen dan bakoitzean, or gabiltza ea nolako euskera duen: izkera duela olako edo alako, orrek ematen digu kezka guztia, ez barruan daukanak. Erderaz etzaigu ala gertatzen. Erderazko liburu bat irakurtzen dutanean, barruan daukanak ematen dit neri zer guztia, bost inporta dit izkuntzak, izkuntza, gaiñeko azala baizik ezpaita; egilleak barruan daukan esangoa adierazteko bide bat besterik ez. (...) Joan gaitezen, bada, euskeraz ere liburu baliotsuak egitera, mamitsuak, barruan funtsezko zerbait dakartenak. Barruko giar orrek emango dio euskal liburuari bere zera, bere balioa, bere pisua, ez izkuntza utsak. Ez dezagun izkuntza bere jatorrizko funtzionetik, berezko eginkizunetik atera”<sup>509</sup>

L. Villasantek –eta beste batzuk, esate baterako, K. Mitxelenak, J. Intxaustik edo *Txillardegik*–, edukiaren gaineko aldarrikapena egiten zuten, hizkuntzari gutxiago erreparatzeko eskatuz. Hala ere, izan zen libururik bai hizkuntzaren aldetik, bai gaiaren aldetik, alde bietatik erreparatuta, kritika asko jaso zituenik. *Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) esate baterako, gai existentzialista bat lantzen zuelako,

---

<sup>508</sup> J. Intxaustik “Illobira bultzaka” artikulua ezagunean honela zioen: “Zenbait idazleok euskera puxka bat ikasi eta idazteko prest geundela uste izan dugu. Zer idatzi, ordea? Euskera? Onatx izkuntza-formalismua deitu izan dana. Formalismua, berriz, literaturan egin ditekkeen pekatuak astunenetakoa da: euskera euskeragatik erabili; izkuntza absolututasunez jantzi dugu orrela.” (Intxausti, 1959a: 86)

<sup>509</sup> (Villasante, 1956b: 264)

euskaltzale –bereziki fededunen– kritiken jopuntua izan zen, eta euskara mordoiloaren erabilerarengatik garbizale askorenak ere. K. Mitxelenak berak *Txillardegiren* lehen eleberriari egindako hitzaurrean, irakurleak idazlearen obra uler zezan, testuingurua eta hizkuntzaren gaineko zenbait ohar eman zituen:

“Txillardegi eta *Leturia’ren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit. Eztut uste oker nagoenik eta enuke iñolaz ere oker egon nai. Ate-joka dagoeneko deus gutxi ezagutzen ditugun ondorengoak.

Gizaldien arteko borroka etengabea bein ta berriro kontatua izan da. Eztute iñoiz zaaragoek oso begi onez ikusten gazteagoen etorrera. Gezurra nioke, neronek, baldin banio eztudala alako erresumin ixil baiño bizi bat sumatzen. Begiak zabal-zabalik izaten dituzte gazteek zaaragoen alde txarrak –utsak, txorakeriak, itxurakeria batez ere- ikusteko. Badakite gaiñera bere dute gazteek, zuzen ala oker, azken itza.

(...)

Gizaldi berria –Txillardegi eta bere seme Leturia artzen ditut egia orren lekuko- gurea baiño ohea, jatorragoa, iruditzen zait zenbait aldetatik. (...) Gure artean dabilzan ideiak eta balioak erroetaraiño ikusmiratu nai dituzte. Kritika eta eraberritzea geron kaltean izango badira ere, oriexen bearrean gaude.

Ezta leku txarra *Egunkari* onen izkeraz mintzatzeko. Izkeran nabaritu baita, bestean baiño leenago, gazteen etorrera, axal-axalean ageri delako edo.”<sup>510</sup>

Beraz, kasu honetan gaztea, belaunaldi berria, eta hizkuntzaren gaineko proposamen berriak bat egiten zutela ikusten da. Izan ere, hizkuntzak erabateko zentralitatea zuen belaunaldi literario berriaren jarrera literarioan. Hau da, belaunaldi berriak hizkuntza planteamendu berriak zekartzan, bai ikuspegi linguistikotik, bai soziolinguistikatik ere. Aurreko adibidearekin jarraituz K. Mitxelenak *Txillardegiren* hizkuntzari buruz zera zioen:

“Baliteke izkera oso garbia ez izatea. Bizia ta adierazkorra baldin bada, zertarako bear du garbia izan? Euskerarekiko kontuak ere garbiro egin bearrean arkitzen gera. Zertarako nai eta bear dugu euskera? Gure mundukoa ezten oroigarri xaar kuttun bat iduki genezakeen moduan idukitzeko? Zikintzeko beldurrez iñor ukitzera ausartzen ezten zenbait liburutegitako azal ederreko liburuak bezala gordetzeko?”<sup>511</sup>

Harrigarria bada ere, *Txillardegiren* eleberriari *Euzko-Gogoa* aldizkariak ongi etorria egin zion<sup>512</sup>. Nahiz eta aldizkariaren lerro editoriala garbizalea eta katolikoa izan, argi dago une hartan proiektu euskaltzalea garrantzitsuagoa zela ideologia baino (euskaltzaleen arteko egoera magmatiko hori laster desagertuko zen arren). Aldiz, *Jakin* aldizkarian polemika bizia piztu zen Iñaki Bastarrika eta *Txillardegiren* artean. I.

<sup>510</sup> (Mitxelena, 1995 [1957]: 16-17)

<sup>511</sup> (Mitxelena, 1995 [1957]: 17)

<sup>512</sup> Ikus II. Kapituluko 3.2.5. *Gogoa zubi* atala.

Bastarrika Arantzazuko fraidea zen eta *Leturiaren egunkari ezkutua*ren gaineko liburu iruzkin gisakoa argitaratu zuen aldizkari gaztean. Iruzkina ez ziren bereziki gogorrak izan, *Txillardegiren* erantzuna ordea, ezin bortitzagoa izan zen jada aipatu denez. Hainbestera inokoa ezen *Txillardegiri* egin zion erantzunaren amaieran zera zioen: “Nere karta oiñarriz baiño aitzakiz artu duzunik enuke nai pentsa”<sup>513</sup>. Hain zuzen ere, J. Azurmendik dioenez<sup>514</sup>, garaian horrela ulertu zen *Txillardegiren* erantzuna. *Txillardegik*, zuzenean I. Bastarrikari erantzunez, zeharka ezbaian jarri zuen Arantzazun kaleratzen zen *Jakin* aldizkariaren euskara eredu. *Txillardegiren tirotea*, J. Azurmendik berak dioenez, J. Intxaustik berbideratu eta bururaino eraman zuen, aldizkariaren euskara eredu goitik behera irauliz<sup>515</sup>.

I. Bastarrikaren iruzkinera bueltatuz, fraideak *Txillardegiri* egiten zizkion ohar kritikoen artean, gure intereseko bi, hona aldatuko ditugu. Lehena, hizkuntza ereduari dagokio, eta bigarrena, gaiari. Hizkuntzari dagokionez I. Bastarrikak, Arantzazuko beste fraide euskaltzaleen modura, XX. mende hasierako euskal idazleak eredu gisa zituen, “Iakintza-arloan ari naizenean garakoeri jarraitzen diet, beste biderik ezagutzen ez dutalako”<sup>516</sup> eta zeharka, *Txillardegiri* aurpegiratzen zion euskal idazle horien gaineko ezezagutza, nolabait aditzera emanez, erabili zuen euskara eredu kaskarra zela. *Txillardegik* honela ihardetsi zion:

“Zure ustez, konparazio batera, zoragarriak dira 1900 ezkeroko “garako” idazleak, eta beraiei zarrizkiete duarik gabe.

Eta onelakoak entzuteko nazkatuik nagoen ezker, enaiz gaur ontatik pasako.

Zu –eta zu bezelako guziak– euskera il nai duzute, zuen laguntzarik gabe ere arriskuan ez ba lego bezela; (...)

Zuk ez dakizu oraindik, gezurra badirudi ere, izkuntza bat ez dela jeometria. Gañera, egia esan, ez dakizu jeometria egiten. (...)

Zure “damaigu” (59), “dagerki” (60), “dagerkigu” (57), eta beste asko ere, jeometria dira, bañan ez euskera.

Orrenbestetan aipatzen duzun Orixe’k egoki erabili du beti ikakoa. Zuk berriz zearo gaizki. Zuk ez duzu Orixe maixutat, zeure burua baizik.”<sup>517</sup>

Horregatik, aurrerago zioen: “Iru gauza bear dira euskera salbatzeko: ikasi, ikasi eta ikasi. Eta beste iru baztertu bear: asmatu, asmatu eta asmatu”<sup>518</sup>. Ikusten denez,

---

<sup>513</sup> (Bastarrika, 1958: 98)

<sup>514</sup> “Txillardegik-asi zuen *Jakin*-en tirotea” (Azurmendi, 1963-1964: 351)

<sup>515</sup> Ikus 4.3.2. *Aldizkari proiektuaren bilakaera* atala.

<sup>516</sup> (Bastarrika, 1958: 96)

<sup>517</sup> (Txillardegik, 1958: 89)



*Txillardegik* eleberri hau idazten ari zela, obraz gain, hizkuntza bera helburu zuen. Baina ez idazle arrunt baten ikuspegitik, ez estetika soil batengatik, modu existentzial batean baizik, ia hiltorian zen hizkuntza salbatzeko.

I. Bastarririkak bestetik, *Txillardegik* eleberrirako hautatutako gaiaren gainean honakoa kritikatzeko zion:

“Bazegok gure errian bertan ikutugabeko naiko eleberri-gai ederrik asko. Nork bildu ta eleberrituko zizkiguk? Murgil adi gure erriren barne-arazoetan. Ez dituk nolanaikoak. Buru-argitasna, biotz-unkitasuna, maitasun-garra, kultur-iakintza sakona, zer geiago erri baten problematika ulertzeko? Gure euskera err-errian [sic] sartuko baduk ere, bearrezko zaiguk bide oek ere urratzea noizpait...”<sup>519</sup>

Hona hemen, sorkuntzaren filologizazio fenomenoaren muturrera eramanda lortutako emaitza: “endotematika”. *Txillardegik* ez zuen onartzen holakorik:

“Zure ustez “Euskalerriko gaiak” ukitu bear dira bakarrik. (...) Zure ustez, oker ez banago, ezpaitzera zu leenengo [sic] xinglekeri oietan, euskeraz idazteko “emengo” zerbaitez egin bear da. Zertara joko “kanpora”? Baña, zer da “emen”? Zer da Euskalerrria zure ustez? Badakit. Diferente dena: izkuntza dena, lamiñen ipuiak, basojauna, baserria, korrika-apostuak, aitonen semeen istorioak, eta abar.”<sup>520</sup>

Funtsean, *Txillardegik* kritikatzeko zuena zera zen:

“Zuk opa duzun literatura ori ez litzake euskaldun presunena izango, Euskalerriko tipismoarena baizik. Etzera bakarra iritzi ontan. Baña zuri kasorik egingo bagenizu, etxetiar literatura egingo genuke, etxekoentzako literatura utsa, ots, literatura motxa. Edo hobeto esan, sasi-literatura.”<sup>521</sup>

Laburbilduz, I. Bastarririka eta beste askoren axioma bada hizkuntza eremuak tematika mugatzen duela, hizkuntza txiki eta gutxituen garapena erabat mugatuta egongo da. Hizkuntza txiki horiek oso espazio geografiko txikia eta hiztun komunitate txikia dutelako, eta beraz, gaien aniztasunaren aldetik mugapenak dituzte. Gainera axioma hori onartuz gero, erdaren apriorismoa indartzen da, hau da, erdarek edozein gairi buruz aritzeko balio dutela. Hain zuzen ere erdara normalizatuak, bereziki estatu hizkuntza direnek, hiztun komunitate handiagoa dute, baita eremu zabalago eta

<sup>518</sup> (Txillardegik, 1958: 92)

<sup>519</sup> (Bastarririka, 1957: 100)

<sup>520</sup> (Txillardegik, 1958: 87)

<sup>521</sup> (Txillardegik, 1958: 87)

anitzagoak ere, hau da, tematikoki oparoagoak dira. Horri aurre egiteko formula argi zuen *Txillardegik*, hizkuntzari baino, edukiari erreparatzea: “Askoren ustez, euskeraz izkiriaterakoan, izkuntza landutzeko idatzi bear omen da. Alderantziz diot nik: zerbait esateko idatzi bear dela. Eta zerbait esan BEAR duten idazleak ez dute beti bere etxeaz itzegiten.”<sup>522</sup>

*Txillardegiren* lehen eleberraren inguruko aferak alde batera utziz, 60ko hamarkadan sorkuntza literaturaren filologizazioak bere horretan jarraitu zuen. Euskaraz idatzitako liburuak asaldagarriak ziren garaiko euskaltzaleentzat bai edukiz bai hizkuntzaz. Liburu batzuen izenburuak euskara eredu baten edo bestearen proklama gisa baliatu ziren. Bereziki nabarmena da H-aren inguruan garaiko euskaltzaleen artean zegoen eztabaida giroan G. Arestik eta *Txillardegik* beren lanei jarritako izenburuak. G. Arestik *Harri eta herri* (1964) eta *Euskal harria* (1967) izenburuekin H-a aldarrikatzen zuen argiro. Halaber, *Txillardegik Huntaz eta hartaz* (1965) saiakerarekin helburu bera zuen<sup>523</sup>.

Beraz, garaiko idazleak obraren trama literarioa ardazteaz gainera, hizkuntzaren gainean hausnartu behar zuen, euskaraz idaztea ez baitzen gauza “normala” edo “naturala”. Euskaraz idaztean, halabeharrez hizkuntzaren gaineko garaian garaiko eztabaidetan posizionatu behar zuen, adibidez H-aren alde edo kontra, mordoiloaren alde edo kontra.

Euskarazko liburugintzak bizi zuen filologizazioa edota hizkuntza mediatizazioa ez zen euskarazko liburugintzaren eskusiboa, beste ekoizpen esparru batzuetara ere heltzen zen, hala nola aldizkarietara, *Jakin* aztertzean ikusi dugun bezala<sup>524</sup>.

---

<sup>522</sup> (Txillardegi, 1958: 88)

<sup>523</sup> *Txillardegik* arinagotik erabiltzen zuen H-a, hau da, *Peru Leartzako* (1960) elaberria kaleratu zuenetik (Aurrekoetxea, 2004)

<sup>524</sup> Ikus *Jakin* aldizkariaren atalean 4.3.5. *Aldizkariaren filologazioa* deritzon puntua. Joseba Intxaustik bestalde aldizkarian euskarak gehiegizko pisua zuela jadanik 1959. urtean adierazi zuen “Illobira bultzaka” artikuluan: “Okerrena dana, irakurleek ere berdintsu pentsatzen dute: euskeraz irakurtzean, ez ditekela euskera ikasteko baiño izan, alegia. Aurreko batean ezagun batekin topo egin nuen, eta ni YAKIN’etzaz mintzatzean, onela galdetu zidan: “Ta zuen errebista ori EUSKERA IKASTEKO aal da?” Etzitzaion nunbait euskal-errebista batek bestetarako balio zuenik buruan sartzen” (Intxausti, 1959a: 86)

## 6. Hizkuntza batasunean murgildutako komunitatea

Kapitulu honetan zehar, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen oinarriak 50 eta 60ko hamarkadetan ezarri zirela ikusi dugu. Izan ere, hamarkada bi hauetan komunitate zientifiko baten oinarrizko osagaiak agertzen hasi ziren: aditu euskaldunak, norbanako horiek trinkotzeko topaguneak (elkarte, erakundeak eta biltzarrak), kultur produkzio jasoak ekoizteko azpiegiturak (aldizkariak eta argitaletxeak) eta komunikazio zientifikoa ahalbidetzeko hizkuntza estandarra (Euskara Batua). Oinarri hauetatik hurrengo urteetan Komunitate Zientifiko Euskalduna garatu ahalko zen.

Euskara estandarrik gabe, lexikoaren aldetik garaiko molde nagusiak bi ziren: *euskara garbia*, euskal jatorriko hitzak hobesten zituena, nahiz eta asmatuak izan, sabindarra ez zena, eta gerraurreko R. M. Azkue eta beste euskaltzainek bultzatutakoaren ondorengo zuzena zena, hau da, gipuzkera osotutik hurbil zegoena; eta *euskara mordoiloa*, erdal jatorriko hitzak mailegatzeko arazorik ez zuena, euskara errazte aldera. Bai bide batetik, zein bestetik, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko saioak izan ziren. Hala, jesuita jatorriko euskaltzale eta abertzale (J. Zaitegi, *Orix*, R. Olabide, G. Barandiaran...) bakoitzak bere proiektuaren bidez (*Euzko-Gogoa* aldizkaria sortuz, Bibliaren edo *Iliadaren* itzulpenarekin) euskara garbia maila jasorako prestatzeko ahalegina egin zuen. 50eko hamarkadan erreferentzialak izan baziren ere, arrazoi desberdinengatik arrakasta txikia izan zuten. G. Barandiaranen itzulpena esate baterako, irakurtezina zen, eta hitz asmatu gehiegi zituen ulergarria izateko. R. Olabideren Bibliarekin antzera gertatzen zen. Laster etorri ziren gazteak. Gazteek ez zuten ikusten *Orix*eren bidea euskara eta literatura aitzinarazteko aproposa zenik, eta hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera euskara mordoiloaren alde jarri ziren. Horien artean aipatu behar dira *Txillardeg*i, G. Aresti eta *Jakin* aldizkariaren inguruan zebiltzan apaizgai euskaltzaleak. *Jakin* aldizkariak euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi zuen eta aldi berean euskara erraztu, ordura arteko euskara garbi bezain ulergaitzak euskaldun arruntak izutzen zituelako. Beraz, euskaldunak euskal kulturara erakartzeko *Jakinek* 1959. urtetik aurrera planteatutako alternatiba hauze izan zen: euskara errazean, hau da, euskara mordoiloan, kultur edukiak transmititzea.

Honek guztiak, euskara garbi/mordoiloaren auziak, noski, eragin zuzen-zuzena zuen komunikazio zientifikoan erabili beharreko hizkuntzari zegokionean. Salvador Garmendiaren garaiko hitzek ederto agertzen dute adierazi nahi duguna:

“... euskal hiztegiak hitzik ez balu, orduan, konposizioaren bidez, edo, hitz berriren bat edo beste sor(tu) diteke noski. Baiñan, kontuz! Nehurri bat behar dugu. **Izan ere, Fisica, Quimica, Aritmetika eta Filosofia eta Teologia eta abar euskeraz ipiñi nahi bagenitu, eta jakintza sail horietan diran hitz guztiak euskera “garbian” ematen has bagintez, gaixo euskera, eta gaixo euskaldun matematikoak eta fisikoak eta kimikoak eta filosofoak!** Filosofia ederrik ikasiko dute! Aragizko eta hezurrezko euskaldunetz ari naiz, ez gure hasmenean sor genitzakean amatezko euskaldun iratxo horietaz! Oraingo euskaldunetz ari naiz, hogeit eta bost urteren buruan sortuko diran euskaldunetz”<sup>525</sup> [beltzak gureak dira]

Euskara mordoiloaren proposamena eta euskararen batasunak aurrera egiteak, funtsezkoak izan ziren esparru zientifiko-teknikoko, eta oro har, kultur erregistro jasorako hizkera eraikitzeke. Euskara garbiarekin ere, egin ahalko zen, baina astiroago. Mordoiloarena zuzenagoa zen, eta beste hizkuntzetako hizkera zientifikoekin homologagarriagoa.

Hizkuntza eredu baten alde edo kontra egoteak, auzi linguistikoaren mugak gainditzen zituen, fenomeno zabalago baten parte zen, politika, kultura eta moralarekin estuki lotuta zegoena. Esate baterako, euskara garbiarekin lotutako moralak ezin zuen onartu Jon Miranderen *Haur besoetakoa*. J. Miranderen obra 1971. urtera arte ez zen argitaratu, nahiz eta 1959an amaituta zegoen<sup>526</sup>. J. Miranderen obrak 30 urteko gizon eta 11 urteko neskatu baten arteko maitasun harremana kontatzen zuen. Azkenean, *Haur besoetakoa* ezkerreko gazte abertzale eta euskaltzale belaunaldi berriak (I. Sarasola, R. Arregi, R. Saizarbitoria, A. Urretabizkaia...) sortutako Lur argitaletxeak kaleratu zuen. *Txillardegik* berriz, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) idatzi eta berehala argitaratu zuen, nahiz eta eleberri existentziala zen. Beraz, baziren eskandaluzko lanak, *Txillardegirena* esate baterako, eta baziren ere inondik inora onartu ezin zitezkeenak (J. Miranderena kasu).

---

<sup>525</sup> (Garmendia, 1968: 32)

<sup>526</sup> (Otaegi, 2000: 22)

Literaturan egon zitekeen mugapen tematikoak jakintza-arloei ere eragiten zion. Euskara garbiaren aldekoak batzuetan txokokeria tematikoetan jausten ziren, eta besteetan, *Orixek* adibidez, euskara Giza Zientzietatik kanpo erabiltzeko beharrik ez zuten ikusten, hizkuntza ez itsusitzeko, eta Zientzia eta Teknologia moduko gaiak baztertuz. Ikuspegi horretatik da garrantzitsua *Txillardegik*, G. Arestik, J. Intxaustik, J. Azurmendik... ekarri zuten aldaketa ezagutzea. Giro berri hartan sortu ziren goi mailako euskarazko zenbait lan aitzindari eta, garrantzitsuagoa dena, euskaraz edozein gaiez aritzeko jarrera bat, garaiko proiektuetan antzeman daitekeena (adb. *Jakin* aldizkarian).

Laburbilduz, euskara ereduaren gaineko auziak, nahiz eta bereziki literaturari eragin, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren garapen aukerei ere eragiten zion, bereziki lexiko berezituari eta jakintza-arloei. Halaber, euskararen batasun ezak, garbi/mordoilo auziak eta hizkuntzaren egoera diglosikoak, kultur produkzio jasoan, aldizkari zein liburuetan, itzelezko eragina zuen, batzuetan hizkuntzak mediatizatu egiten zuen argitalpena. Zientziari buruzko artikuluetan, ikusi dugunez, hizkuntzak gehiegizko pisua zeukan, edukien kaltetan. Gehiago zen ariketa linguistikoa edukiak transmititzeko baino. Hau da, mezuaren kodea garrantzitsuago zen mezua bera baino.

Goi mailako aldizkariari dagokionez, garai honetan bi eredu nagusi zeuden: batetik euskarazko aldizkariak (*Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Jakin*...) edota nagusiki euskaraz ziharduten goi mailako aldizkariak (*Eusker*...); eta bestetik, Euskal Herrian, nagusiki erdaraz ekoizten ziren aldizkari zientifikoak, adb. ASJU. ASJUk, euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzaren esparrukoa zenez, noizik behin euskaraz prestatutako artikuluren bat kaleratu zuen. ASJUk ez zuen euskararen batasunaren eztabaidaren gaineko testurik publikatu, eta beraz hizkuntzaren gaineko garaiko eztabaida nagusian ez zuen parte hartu. Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzan espezializatutako aldizkari akademiko gisa (eta horretan diziplina hertsia aplikatu zuen), horrelako eztabaidei ez zien tarterik utzi. Goi mailako euskarazko aldizkariak, euskararen batasun prozesuan bete-betean sartuta zeuden. Hain zuzen ere, euskara hutsezko aldizkariak zirelako eta euskararen batasunik ez zegoen garai batean, hizkuntzaren gaineko auziak aldizkari hauentzat erabateko zentralitatea zuelako. Are gehiago, *Jakin* proiektuaren baitan hasierako

urteetan eman ziren eztabaidek argi erakusten dute euskarazko kultur produkzio jasoak eta hizkuntzaren batasunaren historiak bat egin zutela.

Aditu euskaldunen garaiko beste topagune garrantzitsu bat biltzarrak izan ziren. Biltzarretan, Euskaltzaindiak antolatuetaoetan zein besteetan, euskararen batasun prozesua onduz joan zen, eta Euskara Batuak sortze-agiria eskuratu zuen Euskaltzaindiak Arantzazun 1968. urtean antolatutako Euskaltzaleen VII. Biltzarrean. Hortaz, formatu akademikotan hezurmamitu zen formalki hizkuntzaren batasuna.

Osorik euskaraz antolatutako lehen biltzarrotan zenbait prozesu uztartu ziren: (1) hizkuntzaren gaineko ezagutza sakontzea, (2) euskararen batasuna bideratzea, eta (3) gaur egungo euskarazko erregistro jaso<sup>527</sup> finkatzen hastea. Hala, biltzarrak Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen agerpenak izan ziren, aditu euskaldunak komunikazio jasoan eta plaza publiko batean euskara erabiltzen hasi zirelako.

---

<sup>527</sup> Diskurtsu zientifikoa esatea agian gehiegi delako, nahiago izan dugu erregistro jaso erabili.

#### **IV. Komunitate Zientifiko Euskalduna unibertsitatera bidean (1969-1978)**

## 1. Sarrera eta abagune historikoa

Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko biltzarretik 1978ko Bergarako biltzarrerako urte tartea aztertzen da atal honetan. Hau da, Euskara Batuaren oinarrizko erabaki ortografiko-gramatikalak hartu zirenetik, Akademiak 10 urteren buruan erabakiok berretsi zituenera arteko epea. Hala ere, aipatutako muga kronologikoak ez ditugu hertsiki jarraitu, epe honetan abiatutako proiektu zein prozesu batzuk hurrengo urteetan jarraipen zuzena izan zutelako. Esate baterako, UZEI 1977. urtean sortu zen, baina lehen hiztegia 1979. urtean argitaratu zuen, eta K. Mitxelenaren polemika ez zen 1980ko abendura arte plazaratu. Beraz, epe honetan sortzen den UZEIren hasiera-hasierako urteak ulertzeko, azalpena ondoko urteetara luzatzea erabaki dugu.

Arantzazu-Bergarako epea euskarazko kulturgintzaren ikuspuntutik oso garai konpaktua izan zen, politikoki ez hainbeste agian. Hizkuntzaren batasunarena euskal kulturgintzaren auzirik garrantzitsuena izan zen. Hala, esplizituki edo inplizituki kultur proiektu guztiak Euskaltzaindiak onartutako batasun ereduaren alde edo kontra jarri ziren. Bergaran Euskara Batua berretsi zen heinean, alde zeuden talde eta proiektuek arrakasta izan zuten (eta alderantziz, kontra zeudenak, goiz edo berandu, bazterra jo zuten).

Neurri batean epe honen hasiera, gutxi gora behera, bat dator Jose Ramon Etxebarriak euskarazko prosa zientifikorako proposatutako periodizazioarekin<sup>1</sup>. J. R. Etxebarriak 1970. urte ingurua hartzen du euskarazko prosa zientifikoaren *historiaurrea* eta *historia* bereiztu zireneko unetzat. Lehenengo epean, *historiaurrean* alegia, euskarazko prosa zientifikoa lantzeko eta garatzeko saiakerak izan arren (adb. J. Etxepare, J. Zaitegi, G. Jauregi eta abar), ekimen horiek norbanakoek gauzatzen zituzten eta ez zuten jarraipenik izan. 70eko hamarkadatik aurrera, J. R. Etxebarriaren ustez, euskal prosa zientifikoa ahalegin kolektibo kontzientea izan zen, hau da, zenbait ekimen eta pertsona abiatu ziren une bertsuan gai zientifikoak euskaraz ematen eta lantzen: Bilboko *Anaitasuna*, unibertsitatetako kultur elkarteak (EKT, EKM, Z-EKT eta abar),

---

<sup>1</sup> (Etxebarria, 2002)



UEU, Elhuyar eta abar. Aipatutako guztiak Euskara Batuaren alde zeuden, baina beraien berezko esparrua izan zen euskara egokitzea zientzia eta teknika arloko gaiak lantzeko. J. R. Etxebarriaren proposamena oso iradokigarria den arren, 1970. urtea baino lehen euskara kultur hizkuntza gisa balioesteko ekimen kolektiborik izan zela ikusi dugu, hala nola, Jakin taldearena. Zernahi gisaz, egia da, 70eko hamarkadan inoiz baino talde gehiago sortu zirela prosa zientifikoa xede zutenak, eta gainera alde aurretik izandako proiektuek ezagutu ez zuten arrakasta izan zutela, hainbat faktorek bat egin zutelako: hizkuntzaren batasun prozesua, euskara unibertsitatean sartzea, goi mailako elkarteen sorrera, Hego Euskal Herrian diktaduraren amaiera eta abar.

Garai honetan, euskara unibertsitatean lehen aldiz euskara katedretatik harago agertzen hasten da, batik bat, unibertsitateetako kultur taldeei esker. Noski, oraindik irakaskuntza ez ofizialari lotuta. Euskal Herriko unibertsitateen bilakaerari eta bertako euskal kultur mugimenduei atal osoa eskaini diegu.

Unibertsitatean euskararen presentzia oso urria izan arren, euskarazko goi mailako produkzioerik (aldizkariak, liburuak, ikastaroak eta abar) bazen, baina euskal kultur gintzak ekoitzia (eta ez erakunde publikoek, administrazioek edo unibertsitateek). Hau da, Udako Euskal Unibertsitateak, Jakinek, UZEIk, Elhuyarrek eta beste batzuk bideratutako proiektuak. Aipatutako erakundeei dedikatu diegu kapitulu honetan atal oso bat, euskarazko maila jasoan izan zuten garrantziarengatik. Hortik kanpo erregistro jasoan ezer gutxi zegoen, eta egotekotan, modu asistematikoa eta epe ertain/luzeko proiekturik gabekoa zen.

Dudarik gabe, hein handiz, egoera berria esplikatzen duten faktore garrantzitsuenetakoak politikoak dira, nahiz eta ez diren faktore bakarrak. Izan ere, Hegoaldean Iparraldean bizi ez zuten diktadura bat indarrean egon zen Franco hil zen arte (1975). Urte horietan askatasun politiko, zibil, kultural eta erlijiosorik ez zegoen, edo beste modu batera esanda, euskara jazarrita zegoen, alderdi politikorik ez, kredo katolikotik kanpo beste sinesmen guztiak baztertuak eta abar. Egoera horretan erregimenaren aurkako ekintza politiko eta militarrek gogorki zigortuak ziren. Horren adibide da, Burgosko prozesua (1970). Burgosen ETAn kide izatea eta 3 pertsonen

erailketa egotzi zietenak heriotz zigorrera kondenatu zituzten. Euskal Herrian, bai nazioartean ere, izugarritzko oihartzuna izan zuen auziak, eta hainbat protesta, greba eta mobilizazio antolatu ziren epaituen alde.

Frankismo garaian elizaren babespean zeuden ikastolek, zailtasunak zailtasun aurrera egin zuten. Gero eta ikastola gehiago irekitzen ziren eta gero eta haur gehiago matrikulatzen zen. 1969an Iparraldeko lehen ikastola ireki zuen Argitxu Nobliak Arrangoitzen<sup>2</sup>. 1975. urtean Euskal Herrian 160 ikastola zeuden, eta 33.851 ikasle matrikulatuta<sup>3</sup>. Euskarazko irakaskuntzatik zetorren hizkuntzaren estandarizazio eskaria handia zen, ikasle eta irakasleena erabiltzaile eta kontsumitzaile sektore handiena baitzen. Ikusiko dugunez, bai Euskaltzaindia eta bai beste kultur elkarte batzuk ere euskarazko irakaskuntzaren gertakuntza horretan buru belarria sartuta egon ziren (hiztegiak sortzen, testuliburuak prestatzen eta abar).

Francoren heriotzak gizarte mugimendu zabalak eta 1976ko erreforma politikoak ahalbidetu zuen, erregimenaren irekitze progresiboa: alderdi politikoen legeztatzea, hauteskundeak (1977), trantsizioko gobernua Espainian, konstituzioaren eraketa eta onarpena erreferendum bidez (1978) eta abar. Estatu mailako eraldaketa politikoek Hegoaldean ere eragina zuten. Hala mendebaldeko hiru probintzietan Legebiltzarkideen Batzarra (*Asamblea de Parlamentarios Vascos*) osatu zen (1977). Batzarrak Eusko Kontseilu Nagusiaren (*Consejo General Vasco*) oinarriak prestatu zituen.

Abagune berri horretan alderdi politiko ugari legeztatu ziren. Hainbeste urtetako errepresio politikoak eragindako uzkurdura, egoera berrian, lehertu egin zen, eta joera eta sentsibiltate politiko desberdinak azaleratzen hasi ziren, ez jada soilik Francoren aurka, baizik elkarren aurkakoak zirenak ere. Eta bor-borreean zegoen bizitza politikoak eragin zuzen zuzena izan zuen kulturgintzan, eta euskararen ere. Kepa Larreak dioenez,

---

<sup>2</sup> (Ornoz, 1995: 69)

<sup>3</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 68)

“Euskal Herrian gertatzen ziren gatazka ideologiko guztiak politika arloan ez ezik kultur arloan ere bizi-bizi islatzen ziren: ikastolak, gau-eskolak, aldizkariak, kantagintza eta Euskaltzaindia izan dira, besteak beste, borroka horien guda-zelaiak. Gatazka horiek, oro har, norabide bi hartzen zituzten: bata, aldameneko estatuen aurkakoa eta, bestea, euskal kulturaren baitan.”<sup>4</sup>

Eusko Kontseilu Nagusia 1978-1980. urteen artean aritu zen, lehen Eusko Legebiltzarra hauteskunde bidez aukeratu zen arte, hau da, Carlos Garaikoetxea lehendakaria zuen EAJko gobernua osatu zen arte. Kontseiluko buruak, lehenik, PSOEko Ramon Rubial eta ondoren C. Garaikoetxea izan ziren. Estatutua onartu ondoren, J. M. Leizaola erbestetik Euskal Herrira itzuli zen (1979), eta orduan desegin zen erbesteko Eusko Jaurlaritza, botere errealik gabea, baina gerraurreko legitimitate politikoa, sinbolikoki bazen ere, zaintzen zuena. Kontseiluak prestatu zuen 1979an erreferendum bidez onartu zen Autonomi Estatutua (Gernikako Estatutua) baita lehen euskal gobernua aukeratzeko hauteskundeak ere.

Kontseiluko Hezkuntza sailburua Karlos Santamaria izan zen. Santamariaren egitekoa irakaskuntza ez unibertsitarioarekin lotuta egon bazen ere<sup>5</sup>, berak Bilboko Unibertsitatearen Planifikazio-Batzordea eratu zuen<sup>6</sup>. K. Santamaria euskaltzain urgazlea zen, *Elhuyar aldizkarian* kolaboratu zuen, baita UZEIn ere. Ez da beraz kasualitatea, Eusko Kontseilu Nagusiak bere babes osoa ematea Euskaltzaindiari osatu eta gutxira (1978ko martxoan)<sup>7</sup>. Horri esker, Kontseiluak Akademiari eta euskararen batasunari zinezko bultzada eman zion. Izan ere, Eusko Kontseilu Nagusiak Euskara Batua administrazio hizkuntza gisa erabiltzen hasteko lehen pausuak eman zituen, sortu eta lehenengoetariko akordioa izan zelako Eusko Kontseilu Nagusiaren aldizkari ofiziala elebitan argitaratzea. Euskarazkoa itzulpena bazen ere, euskararen estatus ofizialean aurrerapausua izan zen.

---

<sup>4</sup> (Larrea, 2005: 14)

<sup>5</sup> Eusko Kontseilu Nagusiak arautu zuen euskararen sarrera irakaskuntzan. Bestalde institutuetan euskararen irakaskuntza bideratzeko euskara katedrak sortu ziren. Irakaskuntzan euskararen sarrera Espainiako Errege Agindu batek ezarri zuen (BOE, 112. zkia, 1979ko apirilaren 20ko 1049/1979 Errege Agindua), eta ondoren Eusko Kontseilu Nagusiak Errege Agindua zehaztu eta arautu zuen 1979ko abuztuaren 3ko Agindu bitartez (Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala, 31. zkia) Institutuko lehen euskara katedra Xabier Kintanak eskuratu zuen 1980an eta Gabriel Aresti Institutuan aritu zen eskolak ematen. Plaza eskuratzeko garaiko beste sei euskaltzale ezagun aritu ziren (X. Olarra, X. Altzibar, P. Urkizu, M. Egaña, A. Irigoien eta M. Arregi).

<sup>6</sup> Ikus V. Kapituluako 2.1. *Euskal Unibertsitaterako Planifikazio-Batzordea* atala.

<sup>7</sup> Ikus Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala 1978ko maiatzaren 15koan argitaratutako akordioa: “Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia”.

Hegoaldearen autogobernuaren bilakaera eta unibertsitate publikoaren garapena erabat loturik egon ziren. Adibidez, Legebiltzarkideen Batzarrak, barruti bakarraren aldeko ekimena babestu zuen. Beraz, gorabehera politikoek eragin handia izan zuten unibertsitatean, bai giroan, bai unibertsitatearen bilakaeran. Ez da kasualitatea Nafarroa euskal unibertsitate barrutian sartu ez izana, bertan agintzen zuen UCDk Nafarroa Zaragozako Unibertsitatearen barrutian geratzeko eskaria egin zuelako.

## 2. Euskal Herriko paisaia unibertsitaria

Euskal Herriko goi mailako hezkuntza zentroyen mapa gainetik irudikatuko dugu<sup>8</sup>, paisaia unibertsitario horretan euskararen eta euskarazko irakaskuntza zertan zen argitzeko. Beraz, atal honetan lehenik Euskal Herriko unibertsitateen sorrera eta bilakaera aipatuko dugu, ondoren unibertsitatean euskarak zein toki zuen argitzeko, hau da, euskarazko lehen tesi eta tesinak noiz eta non aurkeztu ziren, Euskal Filologia noiz ezarri zen, EKT/EKMek zer nolako ekintzak antolatzen zituzten unibertsitateetan eta abar.

Hurrengo atalean (3. *Goi mailako elkarte eta erakundeak*), Euskal Unibertsitatearen aldarriaren inguruan sortu eta lan egiten zuten elkarte kulturalak aztertuko ditugu: EKT/EKMTik hasi, Elhuyar eta UEUtik pasa, eta Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Institutura (UZEI) bitarte. Aipatutako elkarte guztiak bai unibertsitate publiko zein profesionaletan, bai handik kanpo ere, modu batera edo bestera Euskal Unibertsitatearen alde lan egin zuten. Esate baterako unibertsitateetan eskola orduetatik kanpo euskara klaseak antolatu zituzten, edota udan, udako ikastaroak. Beraz, kapitulu honetan unibertsitate mailako euskarazko jardueretara hurbiltzeko bi bide planteatzen ditugu: bata unibertsitateena, segidan aipatuko duguna, eta bestea, kultur elkarteena, ondoko atalean.

---

<sup>8</sup> Euskal Herriko unibertsitate zentroyen bilakaera historikoa zehatz mehatz azaltzea ezinezkoa zaigu, gehiegi luzatuko ginatekeelako. Beraz, zehatzago ezagutzeko unibertsitateen sorrerako testuinguruak, bilakaerak, agenteak, datak eta abar Euskal Herriko unibertsitate desberdinei buruz argitaratuta dauden ikerketa lan monografikoak kontsultatzea gomendatzen dugu: UPV/EHUren kasuan (Flores, 1997; De Pablo & Rubio, 2006), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Felones, 1998) Deustuko Unibertsitatea (Saenz de Santa Maria, 1978), Nafarroako Unibertsitatea (Requena & Diaz, 2002) eta fakultatei buruzko lanak (Arana & Espí, 2000) edo Gipuzkoar unibertsitatea sortzeko ekimena (Barriola, 1985)

Hasteko eta behin, aipatu behar da Hegoaldean, Francoren diktadura garaiko 1943ko Espainiar Unibertsitatearen antolaketarako Legea indarrean zegoela. Legearen arabera, Espainian 12 unibertsitate zeuden (Bartzelonakoa, Madrilekoa, Salamancakoa eta abar), eta bakoitzak barruti bat zuen, probintziaren eremua gainditzen zuena. Horrela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeak Valladolideko Unibertsitateari zegozkion, eta Nafarroa Zaragozako Unibertsitateari. Euskal Herrian ez zen unibertsitate publikorik kokatu 1968an Bilboko Unibertsitate Autonomoa sortu arte, baina baziren elizaren unibertsitateak, pribatuak eta konfesionalak. Hiru faktorek eragin zuten Hegoaldean errotutako unibertsitate publikorik ez egotea: “Espainiako gobernuak emaniko ezezko sistematikoa, Unibertsitate pribatuen presioa eta euskal gizarte-sektore handi baten kezkarik eza gai horren inguruan”<sup>9</sup>.

Francoren diktaduran Euskal Herriko ekimen pribatuko unibertsitate konfesionalek babes eta arrakasta instituzional handiago izan zuten unibertsitate publikoa sortzeko ekimenek baino. Kontuan izan behar da, Francoren diktaduran unibertsitateak erregimenaren aurkako erresistentzia edo subertsio gune potentzial gisa kontsideratzen zirela eta beraz, erregimenak nahiago zituen estatuaren ideologiari atxikitako bokazio erlijiosoko unibertsitateak, erregimena ezbaian jar zezaketen ikasketa zentroak baino.

Hegoaldea oro har eremu fidagaitza zen erregimenarentzat, eta bereziki Bizkaia eta Gipuzkoa, probintzia traidoreak zirelako. Horrela, ezinezkoa zen Euskal Herrian unibertsitate publikorik sortzeko ekimenek aurrera egitea (ez behintzat hasierako urteetan). Bai, ordea, eliz kongregazioek sustatutako unibertsitateak, horiek erregimenak unibertsitatearentzat diseinatutako ideario erlijiosoarekin bat egiteaz gainera, Mugimendu Nazionalari atxikiak zirelako. Hala, 1953an Franco eta Erromaren artean sinatutako konkordatoari esker, Elizak Espainian unibertsitate pribatuak sortzeko aukera izan zuen, eta goi mailako zenbait ikastetxe erlijiosok unibertsitate izendapena jaso zuten. Euskal Herriaren kasuan Jesusen Lagundiak eta Opus Dei-koak, bai Deustun eta bai Iruñean, eliz-unibertsitate izendapena jaso zuten. Biek ala biek garapen eta zabalpen

---

<sup>9</sup> (Aizpuru & Roldan, 2002: 25)

handia izan zuten Frankismoan, urte horietan hainbat fakultate sortu, ikastetxe integratu eta campus berriak zabaldu zituzten. Nafarroako Unibertsitatea esate baterako, Iruñetik Donostiara zabaldu zen.

Segidan banan banan bakoitza aztertu baino lehen, azpimarratu nahi dugu Frankismoan ekimen pribatuko unibertsitate konfesionalak arrakasta izan bazuten ere, diktadura amaitu osteko urteetan, unibertsitate publikoak izan zutela Hegoaldean garapenik handiena. Horren adibide da UPV/EHU. Erregimenaren halako irekitze batean frankismoan bertan sortutako Bilboko Unibertsitate Autonomoaren (1968) ondorengoa bada ere, zinezko garapena eta bilakaera diktadura ostean izan zuen. Eta gaur egun Euskal Herriko unibertsitate guztietan handiena da.

## **2.1. Unibertsitate konfesionalak**

Jesusen Lagundiak Deustuko Unibertsitatea 1886an sortu zuen, Bizkaiak XIX. mendearen azken laurdenean bizi zuen industrializazio giro hartan. Hain zuzen ere, Deustuko Unibertsitatearen fundatzailetako batzuk Bizkaiko industrializazioaren protagonista ziren (Ibarra, Sota, Txabarri eta abar). Unibertsitateak lau fakultate zituen: Zuzenbidea, Filosofia eta Letrak, Ingeniaritza eta Arkitektura. Beranduago Merkataraitza Saila ere ezarri zen (1916). Errepublikara garaietan, jesuitak Espainiatik botatzean, unibertsitatea itxi egin zen (1932an). Dena den, gerraostean, 1940. urtean, berriz ireki zen eta Deustuko eraikina berreskuratu zuten. 1945ean Zuzenbide fakultatean, gaur egunera arte iraun duen Ekonomia-Zuzenbidea espezialitatea ezarri zen, eta 1953ean, Francok eta Elizak sinatutako konkordatoari esker, Deustuko Unibertsitateak ematen zituen tituluak estatuaren balio ofiziala lortu zuten. Deustuko Unibertsitateak 1963an jaso zuen eliz-unibertsitate izendapena.

Nafarroako Unibertsitatearen sorrerako abiapuntuan *Escuela General de Navarra* (Nafarroako Eskola Orokorra) dago, Opus Dei-ko fundatzaileak, José María Escrivá de Balaguer-ek 1952an sortua. Jatorrian, eskolak Zuzenbide Eskola bat baino ez zuten, Zaragozako Unibertsitatearen titulupekoa zena. Laster Nafarroako Eskola Orokorrek ikasketen eskaintza zabaldu zuen: Medikuntzara (1954), Filosofia eta

Letretara (1955), Kazetaritzara (1956), Zuzenbide Kanonikora (1959),... Gerora horiek guztiak fakultate bihurtu ziren, Erromak 1960an *Nafarroako Eskola Orokorra* eliz-unibertsitate izendatu zuenean. Horrela sortu zen: *Universidad de Navarra* (aurrerantzean guretzat, Nafarroako Unibertsitatea).

Nafarroako Unibertsitatea 1961. urtean Donostiara zabaldu zen, eta bi ikastetxe ireki zituen, bata Industri Ingeniarren Goi Eskola Teknikoa (*Escuela Técnica de Ingenieros Industriales*) eta bestea, Zientzia Fakultatea (Fisika Saila) hurrengo urtean.

Nafarroako Unibertsitatea Donostian agertzea Jesusen Lagundiaren Donostiako ikastetxeentzat lehia zen. Hasiera batean, Nafarroan bi zentro unibertsitario baino ez zituen ireki baina, gehiago ere zabaldu zitzakeen. Testuinguru honetan Lagundiak Donostian bere eskaintza akademikoa trinkotzeko goi mailako ikastetxeak bildu zituen eta horrela sortu zen EUTG (*Estudios Universitarios y Técnicos de Guipúzcoa*) 1963an. Jesusen Lagundiak Donostian sortu zuen lehen ikastetxea ESTE izan zen 1956an (gaur Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea dena). EUTGk 1979. urtean bat egin zuen Deustuko Unibertsitatearekin eta ordutik aurrera Bilboko eta Donostiako zentro guztiak Deustuko Unibertsitatearen parte dira. Beraz, geroztik unibertsitateak bi campus ditu: bata Bilbokoa, eta bestea, Donostiakoa.

## **2.2. Bilboko Unibertsitatearen sorrera**

Hegoaldean baziren goi mailako ikasketen zentro ez konfesionalak: Magisteritza edo Irakasle Eskolak, Ingeniari Eskolak eta Merkataritza zein Komertzio Eskolak. Izatez, ez ziren unibertsitate, baina goi mailako ikasketak eskaintzen zituzten, eta kasu batzuetan, Espainiako unibertsitatearen bateko titulua ematen zuten.

Irakasle Eskolak XIX. mendean sortu ziren Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean, eta *Escuela Normal* izena zuten. Etenekin eta moldaketekin ikastetxe hauek gaur egunera arte iraun dute.

Ingeniari Eskolei dagokionez, bereiztu beharra dago, alde batetik, Goi Mailako Eskola Teknikoak, Bilbon bazen bat 1897an sortua, eta bestetik, Peritu Industrialen Eskolak edo Industri Ingeniaritza Teknikoak. Bigarren mota honetako ikastetxeak Euskal Herrian nahiko berandu sortu ziren: Bilbokoa (1942an), Donostikoa (1952an) eta Gasteizekoa (1959an)<sup>10</sup>. Lehenengoa, berriz, Bilboko Industria Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa (*Escuela Técnica Superior de Ingenieros Industriales*) askoz lehenago sortu zen. Bizkaiko Diputazioak eta Bilboko Udalak sustatuta 1897an sortu zen Bizkaiko XIX. mende bukaerako industrializazio prozesuari lotuta<sup>11</sup>.

Donostian<sup>12</sup> eta Bilbon<sup>13</sup> Merkataritza eta Komertzio Eskola bana zegoen. 1955ean dekretu bidez, Bilbon Zientzia Politiko, Ekonomia eta Komertzial Fakultatea abian jarri zen, Valladolideko Unibertsitatearen barrutikoa. Fakultate honek lizentziatu gradua emateko ahalmena zuen (*Grado de Intendente Mercantil*). Fakultate berriak 1964. urtera arte, eskolaren egoitzan ematen ziren zituen klaseak, eta urte horretan Sarrikoko eraikinera (gaur eguneko eraikinera) lekualdatu zen fakultatea.

Sarrikoren sorrerak ekarri zuen 60ko hamarkadan Bilborako Unibertsitate publiko baten eskakizuna, eta beste horrenbeste gertatu zen Donostian. Donostiaren kasuan batzorde bat eratu zen 1963an (I. Barriola, F. Yarza, M. Agud, K. Santamaria,...) Gipuzkoarako unibertsitate publikoa eskatzeko. Proiektu hau bertan behera geratu zen UPV/EHU sortu zenean. 1963-1979. urteen artean Donostiarako unibertsitatea lortzeko bai hasierako batzordeak, bai 1967an formatututako patronatuak (*Patronato Pro Estudios Superiores Oficiales de Guipúzcoa*) egindako eskariak, bilerak, eta bestelako hainbat detaile bildu zituen I. Barriolak liburu batean<sup>14</sup>. Bilboko proiektuak zorte hobea izan zuen.

<sup>10</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 45)

<sup>11</sup> (Aizpuru & Roldan, 2002: 23)

<sup>12</sup> Donostiakoa 1915an sortu zen Peritu Eskola gisa, baina 1923an Komertzio Eskola Profesionala izendatua izan zen. Bertan merkataritza irakasle izateko ikasketak egin zitezkeen. 1972an Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bihurtu zen, eta Valladolid-eko unibertsitatearen menpera pasatu zen.

<sup>13</sup> Bilboko eskola berriz, Bilboko Kontsulatuak sustatuta sortu zen 1818an. Bilboko eskolak 1851. urtean lortu zuen errekonozimendu ofiziala. Urteen poderioz, eskola honek izen aldaketa ugari jaso zituen.

<sup>14</sup> Ikus I. Barriolaren lana (Barriola, 1985). I. Barriolaren bizitza eta ekinari buruz Eusko Jaurlaritzaren Bidegileak bilduman liburuxka bat hari eskainita dago (Otaño, 2003)



Bilboko Unibertsitatea 1968an sortu zen. Sorrerako detaile guztiak Santiago de Pablok eta Coro Rubiok ematen dituzte UPV/EHUREN 25. urteurrenaren kariaz prestatu zuten liburuan<sup>15</sup>. Funtsean, hauxe gertatu zen: Sarrikoko irakasle batzuk Hezkuntza ministroari Medikuntza Fakultate (publiko) bat sortzeko eskatu zioten<sup>16</sup>, Jesusen Lagundiak Medikuntza Fakultate (pribatu) bat sortu ez zezan Basurtuko Ospitaleak utzitako bere jabegoko orubean. Lagundiak Medikuntza Fakultatea sortuz gero, oso zaila izango zatekeen Medikuntza Fakultate publikorik sortzea, garai honetan hiri berdinean fakultateak ez bikoizteko akordioa hartua zutelako estatuak eta elizak<sup>17</sup>. Eta noski Lagundiak Medikuntza Fakultatea sortuz gero, are zailagoa izango zen Bilborako unibertsitate publiko bat eskatzea. Azkenean, dekretu bidez, 1968ko ekainean Medikuntza Fakultate publiko bat sortu zen, baita Bilboko Unibertsitatea ere. Ekaineko dekretuan aipatzen da Bilboko Unibertsitateak bi fakultate izango zituela: Sarrikoa (Zientzia Politiko, Ekonomia eta Komertzio fakultatea) eta Medikuntza Fakultatea<sup>18</sup>. Hala ere laster, uztailean bertan, beste dekretu baten bidez, Bilboko Unibertsitateak Kimikan espezializatutako Zientzia Fakultate bat izango zuela jaso zen<sup>19</sup>. Hasieran, Bilbokoak ez zirudien barruti propiorik izango zuenik, baina 1969ko abenduko dekretu batek Bilboko Unibertsitateari Bizkaiko probintziara hedatzen zen barrutia aitortu zion<sup>20</sup>. Beste probintziak berdin geratzen ziren, Araba eta Gipuzkoa Valladoliden menpe, eta Nafarroa Zaragozaren menpe.

Bilboko Unibertsitatea 1968/69. ikasturtean abiatu zen, aipatutako hiru fakultateekin. Sarrikok bere eraikina bazuen, baina beste biek ez. Medikuntza eta Zientzia Fakultatearen eskolak hasiera batean Botica Viejan ematen ziren. Botica Viejako eraikina hutsik zegoen, Nautika Eskola Portugaletera lekualdatu zuten ezker. Dena den, laster pasatu ziren Leioara Botica Viejako eskolak. Campusa Leioako orube isolatu batean 1970.ean eraikitzen hasi zen. 1971. urtearen amaieran fakultate guztiak

---

<sup>15</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 46 eta hurrengoak)

<sup>16</sup> Eskariaren faksimila Teodoro Flores Sarrikoko irakaslearen liburuan argitaratuta dago (Flores, 1997: 17-22)

<sup>17</sup> (Flores, 1997: 15)

<sup>18</sup> BOE, 137. zkia, ekainaren 6ko 5/1968 Dekretu-legea.

<sup>19</sup> BOEko dekretuaren arabera: "La Universidad de Bilbao, creada por el artículo primero, números tres, constará de las Facultades de Ciencias Políticas, Económicas y Comerciales (Sección Económicas); Medicina y Ciencias (Sección de Químicas)" (BOE, 182. zkia, Uztailaren 27ko 1774/1968ko Dekretua).

<sup>20</sup> BOE, 307. zkia, abenduaren 18ko 3266/1969 Dekretua.

Leioara eraman zituzten, baina lehen ikasturtean Medikuntza Fakultatean ematen ziren fakultate desberdinetako klaseak.

Bilboko Unibertsitatearen estatutuak 1970. urtean onartu ziren eta indarrean iraun zuten 1985. urtera arte, UPV/EHUren estatutu berriak onartu ziren arte. Beraz, probisionalki bazen ere, UPV/EHU Bilboko Unibertsitatearen estatutuen arabera gobernatu zen hasierako urteetan. Bilboko Unibertsitatearen lehen errektorea Juan Etxebarria izan zen.

1969an sortutako Bilboko Arte Ederren Goi Mailako Eskola (*Escuela Superior de Bellas Artes de Bilbao*) Bilboko Unibertsitatera pasatu zen 1975. urtean, eta 1978. urtean fakultate izatera pasa zen.

Bien bitartean, Gipuzkoak eta Arabak, Valladolideko Unibertsitate-barrutikoak, ikasketa eskaintza zabaldu eta sendotu zuten astiro-astiro bazen ere. Donostian, Zuzenbide Fakultatea<sup>21</sup> (1969), Kimika Zientzien Fakultateak (1973) eta Informatika Fakultateak (1976) sortu ziren.

Gipuzkoarako Unibertsitatearen aldeko patronatuak, bertako kide izan zen I. Barriolaren lanaren argitan, ez zuen begi onez ikusten Bilboko Unibertsitatearen hazkundera, ez Leioan 1970ean abiatutako obrak, ezta Zuzenbide Fakultatea Bilbokoaren barrutian sartzeko aukera ere. Nahiago izan zuten Valladoliden menpe jarraitu. Bilbon integratuz gero, zailago ikusten zutelako Donostian unibertsitate propio bat ezartzea.

Gasteizen 1970ean, dekretu bidez, eta Arabako Diputazioaren laguntzarekin, sortu zen Arabako Unibertsitate Ikastetxea (*Colegio Universitario Alavés*)

---

<sup>21</sup> Bilboko Unibertsitatea eta Medikuntza Fakultatea sortu zirenean, Espainiako Ministroen Kontseiluak onartu zuen zehaztu gabeko fakultate berri bat Donostian irekitzea. Patronatua saiatu zen Filosofia eta Letren fakultatea sortzea, baina ez zuen lortu eta azkenean Zuzenbide fakultatea ezarri zen. Zuzenbide Fakultatearen dekanok gisa Gabriel García Cantero donostiarra izendatua izan zen, eta horren kariaz *Zeruko Argiak* elkarrizketatu zuen (Iparragirre, 2001: 153-156). Fakultate honen eskolak 1969ko urrian abiatu ziren hasieran Mirakontxan, eta ondoren Ibaetara eramateko asmoa erakutsi zuen dekanok aipatutako elkarrizketan.

Valladolideko Unibertsitate-barruti barruan. Bertan ikas zitekeen Filosofia eta Letrak, Zientziak eta 1971tik Medikuntzan sartzeko ikasketak<sup>22</sup>.

Bestalde, UNED (*Universidad Nacional Española a Distancia*) 1972an sortu zen unibertsitate publiko gisa urrutiko irakaskuntza eskaintzeko. Egoitza nagusia Madrilen kokatu zen, zentro asoziatuen bidez Espainiako lurralde osora hedatuz. Zentro horietan UNEDek bere ikasleei eskaintzen zien tutoretza zerbitzua<sup>23</sup>. Euskal Herrian lehen delegazioa Gasteizen ireki zuen 1975ean eta hurrengo urtean Bergaran (Gipuzkoa) beste bat kokatu zen. Bizkaira ez zen 1990. urtera arte heldu<sup>24</sup>.

Iparraldean egoera atsekabegarriagoa zen. 70eko hamarkadara arte ez zegoen unibertsitate mailako ikasketarik. “1974an sortu zen Zuzenbide- eta Ekonomia-Institutua eta urtebete beranduago Teknologiaren Unibertsitate-Institutua. Biak kanpoko unibertsitateen menpe, Paue eta Bordele III unibertsitateen menpe, hain zuzen.”<sup>25</sup>

### **2.3. Unibertsitate barruti bakarraren eskaria**

Francoren heriotzarekin Hegoaldean hainbat aldarrikapen, halaberrez isilduta lehen lerrora pasa ziren. Horien artean unibertsitatearekin zerikusia zuten bi aipatu behar dira: Euskal Unibertsitatea eta Euskal Barruti unibertsitarioa. Biak ala biak, lelo argikoak izan arren, bataren eta bestearen gaineko definizio eta proiektuen inguruan ez zegoen ideia bateraturik. Hala, batzuk, Euskal Barruti Bakarra, Euskal Unibertsitatearen aldarrikapenaren parte gisa ikusten zuten, eta beste batzuk berriz, bi eskari diferente gisa. Halaber, Euskal Unibertsitatearen definizioen inguruan ez zegoen bateratasunik, are gutxiago euskarak Euskal Unibertsitate horretan eduki behar zuen presentziaren gainean<sup>26</sup>. Guztiz definitu gabe zegoen Euskal Unibertsitatearen aldeko giroaren testuinguruan, 1977an eskari berri bat agertu zen: unibertsitate barruti bakarrarena. Hegoaldeko ikastetxe unibertsitarioak zenbait barrutietan sakabanatuta zeuden: Bizkaia

---

<sup>22</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 57)

<sup>23</sup> (García Aretio, 2006)

<sup>24</sup> Kasu honetan ere Santiago de Pablo eta Coro Rubiok UNEDen Euskal Herriko ezarpenari buruz diotenari jarraitu diogu (De Pablo & Rubio, 2006: 57), baina ez Nafarroari buruz ematen duten datua, UNED 1972an sortu zelako, eta ezinezkoa delako Iruñean 1971an zentro bat zabaltzea.

<sup>25</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 25)

<sup>26</sup> Ikus aurrerago 3.3. *Euskal Unibertsitate bidean* atala

Bilboko Unibertsiteari zegokion, Gipuzkoa eta Arabakoa Valladolidi, eta Nafarroakoa Zaragozari. Hegoaldeko Euskal Barruti Bakarraren inguruan planteamendu desberdinak zeuden: batzurenzat lau probintzietarako barruti bakar horretan unibertsitate bakarrak egon behar zuen, eta beste batzurenzat, Karlos Santamariarentzat adibidez, barruti bakarrean unibertsitate bat baino gehigo egon zitekeen.

Lau lurraldeentzat unibertsitate barruti bakarra sortzearen aldeko eskaria modu ofizialean egin zuen lehena Euskaltzaindia izan zen. Akademiak 1977ko uztailean Hezkuntza ministroari eskatu zion Hegoaldeko probintzientzat unibertsitate barruti bakarra, unibertsitate zentro desberdinak, eta bereziki Irakasle-Eskoletako euskal irakaskuntzarekin loturiko ekimenak koordinatu, planifikatu eta antolatu ahal izateko<sup>27</sup>.

Egun gutxiren buruan, Euskaltzaindiaren eskari honi, Gasteizen eraturako Barruti Bakarraren Aldeko Batzordea (*Comisión Pro Distrito Universitario Común Vasco*) gehitu zitzaion, eta horrela jakinarazi zioten hezkuntza ministroari. Batzordea EKT edo unibertsitateko kultur taldeen ordezkariak eta unibertsitateko irakasle batzuk osatu zuten. Santiago de Pablo eta Coro Rubioren liburuan aipatzen da, EKTak “grupos pro distrito de las distintos centros universitarios vascos”<sup>28</sup> zirela. Baina EKTak 70eko hamarkadaren lehen erdialdetik aurrera sortu ziren fakultate eta unibertsitate eskoletan euskal hizkuntza eta kultura sustatzeko unibertsitatean. Noski Euskal Unibertsitatearen kanpaina edo Barruti bakarraren eskarien garaian, beronen alde jarri ziren, baina talde hauek sortzeko arrazoia ez zen barrutiarena izan<sup>29</sup>.

Valladolideko Unibertsitatearen errektorea, Bilboko Unibertsitatea eta Legebiltzarkideen Batzarrak barrutiaren alde jarri ziren. Nafarroako UCDk berriz, ez zuen nahi Nafarroa barrutian sar zedin, nahiz eta beste alderdi politikoek barrutiaren aldeko dokumentu bat kaleratu zuten. Azkenean, 1977ko irailean dekretu bidez, Bilboko Unibertsitatearen barrutia Araba eta Gipuzkoara zabaldu zen, EAerako unibertsitate

---

<sup>27</sup> Ikus 3.2.4.1. *Irakasle Eskolak Euskaltzaindiaren jomuga* dagokion atal. Bertan azaldu dugu Euskaltzaindiaren eskariaren nondik norakoak zehatzago.

<sup>28</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 76)

<sup>29</sup> EKTei buruz jo aurrerago 2.5. *Unibertsitateetako euskal kultur mugimenduak* atalera.

publiko bakarra ezarri<sup>30</sup>. Nafarroa kanpo geratu zen eta ondoko hileetan protestak izan ziren. EAEko fakultateetako eta unibertsitate eskoletako dekanok edota zuzendariak automatikoki integratuta geratu ziren Bilboko Unibertsitatearen Gobernu Juntan. Bilboko Unibertsitatearen errektoreak integrazioa gertatu eta ia berehala Bilboko Unibertsitatearen izena aldatu beharra adierazi zuen, baina 1978ko apirilera arte Gobernu Juntak ez zuen izen berria onartu, eta Ministerioak izen berria 1980ko otsailean ofiziala egin zuen: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea. Ofizialki orduan sortu zen UPV/EHU. Ikusten denez, unibertsitate hitzaren euskarazko aldaera *t* letra gabe onartu zen:

“En base a tal autorización la Junta de gobierno de la Universidad de Bilbao, tras consulta llevada a cabo con la Real Academia de la Lengua Vasca y con diversos Organismos de significación social y política del País Vasco, incluida la Consejería de Educación del Consejo General Vasco, eleva propuesta de cambio de denominación por el de **Universidad del País Vasco (Euskal Herriko Unibersitatea)**”<sup>31</sup> [beltzak gureak dira]

Antza denez, Santiago de Pablo eta Coro Rubiok diotenez, *Unibersitatea* proposamena bidali zen ministeriora, eta ez *Unibertsitatea*<sup>32</sup>. Euskaltzaindiak hitz honetan *t* letraren erabilera hobesten bazuen ere, arazoren bat gertatu zen tartean, eta UPV/EHUren izena, hasiera batean *t* letra gabea zen.

Baina izan zen barrutira integratu behar izan ez zuen fakultaterik, ondoren sortu zelako. Zorroaga auzoan 1978an sortutako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari hori gertatu zitzaion hain zuzen ere, EAEko barruti bakarra indarren zela sortu zelako.

---

<sup>30</sup> BOEaren arabera honako zentroak eransten ziren Bilboko Unibertsitateari: “Primero.- Quedan incorporados al distrito de la Universidad de Bilbao, junto a los Centros universitarios de la provincia de Vizcaya actualmente dependientes de aquélla, los siguientes: / Integrados: Facultad de Derecho de San Sebastián, Facultad de Ciencias Químicas de San Sebastián, Facultad de Informática de San Sebastián, Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de San Sebastián, Escuelas Universitarias de Profesorado de Educación General Básica de San Sebastián y Vitoria, Escuelas Universitarias de Ingeniería Técnica Industrial de San Sebastián y Vitoria. / Adscritos: Colegio Universitario de Alava, Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Oñate, Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Mondragón, Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de la Universidad Laboral de Eibar.” (BOE, 271. zkia, Urriaren 6ko 26973 Agindua).

<sup>31</sup> BOE, 54. zkia, otsailaren 25ko 4896 Agindua.

<sup>32</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 98-100)

Bestalde, 1979ko martxoan, Eusko Kontseilu Nagusiko ordezkariak, Karlos Santamaria hezkuntza sailburuak, eta unibertsitateko ordezkariak, Martin Mateo buru zela, Oñatin bildu ziren unibertsitatea planifikatzeko. Bilera hartatik sortu zen *Unibertsitaterako Planifikazio-Batzordea*. Batzordea zenbait lantaldetan antolatu zen. Horietako lantalde batek, *Euskal Kulturaren Beharrian Unibertsitarioetarako Lantaldeak*, euskarazko irakaskuntza unibertsitatean antolatzeko ardura hartu zuen. Horretarako txosten bat prestatu behar zuen euskararen irakaskuntza unibertsitatean planifikatzeko. Lantaldearen buru Mikel Zalbide zen eta hile gutxiren buruan *Premia larriko neurrien txostena* aurkeztu zuen (1979). Baina horretaz guztiaz hurrengo kapituluan mintzatuko gara.

Laburbilduz, 1969an sortutako Bilboko Unibertsitatea, gerora sortutako Euskal Herriko Unibertsitatearen ernamuina izan zen. Oso urte gutxiren buruan Bilbokoak hazkunde prozesu itzelak bizi izan zituen, barrutiaren zabalpena, ikasle kopuruaren hazkundera baita aurrekontuaren igoera ere. Izan ere, 1969/70. ikasturtean Bilboko Unibertsitateak bere 3 fakultateetan 3.400 ikasle zituen eta 75 milioi pezetatako aurrekontua. Hamar urte geroago, hau da, 1979/80. ikasturtean 3 probintzietan sakabanatutako hainbat unibertsitate zentroetan matrikulatutako 24.751 ikasle zituen eta 1.212 milioi pezetako aurrekontua<sup>33</sup>.

## **2.4. Euskara unibertsitateetan**

Euskal Herrirako irudikatu dugun paisaia unibertsitarioan eta beronen bilakaeraren lerroan, euskarak zein presentzia zuen argitu gura genuke. Horretarako zenbait ikastetxeren egoera azalduko dugu eskuartean ditugun datuen argitan<sup>34</sup>. Arreta berezia jarriko dugu Bilboko Irakasle Eskolan eta Leioako Zientzia Fakultatean, ondoen ezagutzen ditugun ikastetxeak direlako. Ikusiko dugunez, bataren eta bestearen arteko aldeak nabarmenak dira, bereziki eragile desberdinak aritu zirelako euskara ikastetxean sustatzen.

---

<sup>33</sup> Paragrafo honetako datu guztiak T. Floresen lanetik atera ditugu (Flores, 1997: 153)

<sup>34</sup> Garaiko dokumentazioa oso urria da eta gerta liteke hutsuneak izatea. Beraz, ondoko urteotan ikerketa lan sakonagoek atal honetan jasotako informazioa osatzea espero dugu.

Hasteko eta behin, Euskal Herriko goi mailako hezkuntza zentro publikoetan (fakultate, goi mailako eskola edo unibertsitate eskola, magisteritza eskola), Bilboko Unibertsitatean, edota geroko UPV/EHU integratu zirenetan, ez zen, ez euskal hizkuntza irakasten, ezta euskarazko irakasgaiarik ematen ere. Beraz, unibertsitateak eta euskarak ez zuten harremanik (behinik behin hasieran), eta ez zegoen euskarazko irakaskuntzarik. Hala ere, salbuespen batzuk izan ziren, saioak ere bai, eta arrakastaren bat edo beste.

Oro har, Hego Euskal Herrirako esan daiteke, hasiera batean unibertsitate zentrootan euskarazko irakaskuntzarik ez zela, baina ikastetxe batzuetan euskara ikas zitekeela. Beti ere, eskola orduetatik kanpo eta modu ez ofizialean, hau da, curriculumetik kanpo. Eskola horiek gehienetan fakultateko edo unibertsitate eskolako euskal kultur elkarteak (EKT, EIT, EKM,...) antolatzen zituen. 70eko hamarkadako bigarren erdialdetik aurrera euskara, unibertsitateko irakaskuntza ofizialean txertatzeko lehen eskari<sup>35</sup>, saio eta emaitzak gauzatzen hasi ziren. Dirudenez Iparraldean antzera gertatu zen. Baionan esate baterako *Institut Universitaire du Technicien* (Teknologiaren Unibertsitate-Institutuan) euskara ikasteko klaseak zeuden (astean 3 ordu)<sup>36</sup>. Garai horretan, “Bilboko Escuela de Idiomas-en frantsesa edo inglesa bezala jartzen da euskararen irakaskintza”<sup>37</sup>. Eta 70eko hamarkadaren amaieran, ikastetxe batzuetan, esate baterako Bilboko Irakasle Eskolan eta Zientzia Fakultatean, lehenengo euskarazko eskolak ematen hasi ziren karrera barruan eta modu ofizialean. Leku hauetan hamarkada berean euskararen irakaskuntza ez ofizialeatik, urte gutxiren buruan euskarazko irakaskuntzara igaro ziren, hau da, karrerako irakasgaiak euskaraz ematera. Alta, progresio hori ikastetxe batzuetan baino ez zen egin, hein handiz, salbuespentzat hartu behar da.

Bestalde, Iparraldean bertan ez zegoen unibertsitaterik, baina Paueko eta Bordeleko unibertsitateek bazituzten Ekonomia, Zuzenbide eta Teknologia institutuak Baionan 1974tik. 70eko hamarkadan unibertsitateko eskaintza frantsesez zen. Hala ere,

---

<sup>35</sup> Jesus Uribe-Etxebarria irakasleak esate baterako, Nautika Eskolan euskararen irakaskuntza jartzeko eskaria egin zuen 1976an (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.2.6)

<sup>36</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.2.6)

<sup>37</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.2.6)

Frantziako unibertsitate bakan batzuetan posible zen euskara ikastea, unibertsitateko euskal hizkuntzaren katedrak eskainita. Adibidez Bordele 3-n hamarkadaren hasieran euskara ikasteko hiru maila zeuden eta literaturako bi irakasgai. Egoera hori izanik, Iparraldean saiakerak izan ziren euskarazko irakaskuntza unibertsitarioa emendatzeko. Txomin Peillenek kontatzen duenez<sup>38</sup>, Jean Haritxelhar Bordele 3 Unibertsitateko katedraduna zenean, euskarazko lizentziatura bat lortzen saiatu zen, nahiz eta ez zuen arrakastarik izan. Karrera oso bat antolatzerik ez zegoela ikusita, Iparraldeko zenbait euskaltzalek (J. Ajuriagerrak, P. Xarritton, P. Lafitte, E. Goihenetxe, K. Harluxet, J. Haritxelhar, M. Lafourcade eta abar) ACIEB (*Association pour la création d'un Institut d'Etudes Basques*) elkarte sortu zuten, eta horri esker Baionan 1979an *Institut d'Etudes Basques/Euskal Ikasketen Institutua* sortu zen<sup>39</sup>.

#### 2.4.1. Unibertsitate konfesioaletan euskara zantzuak

Aurreko kapituluan azaldu dugunez, Deustuko Unibertsitateak 1966an Bizkaiko diputazioak sustatuta Euskal Hizkuntzalaritzako katedra bat sortu zuen “Deustu-ko Unibersidadeko letra Fakultatearen barruan”<sup>40</sup>. Diputazioak 1974. urtean katedra horren egokiera berformulatu zuen, sail berri oso bat sortuz (*Departamento de Estudios Vizcainos/ Bizkaitar Ikasketa Departamentua*<sup>41</sup>), eta horren baitan euskal hizkuntzalaritza katedra kokatuz<sup>42</sup>. Katedraren ardura Alfonso Irigoien euskaltzainak hartu zuen<sup>43</sup>.

<sup>38</sup> (Peillen, 1995)

<sup>39</sup> Txomin Peillenek ematen du 1979ko urtea (Peillen, 1995: 543), baina Rafael Lopez Atxurrak 1978a aipatzen du (Lopez Atxurra, 1995: 70). Institutuaren zuzendaria J. Ajuriagerra izan zen. Urte batzuk beranduago, 1985ean Euskal Ikasketen Departamentua sortu zen (Bidegain, 2004: 79) eta 1989an Euskal Filologiaren antzeko lizentzia ikasketak martxan jarri ziren (Peillen, 1995: 543), hau da, 4 urteko ikasketak eta tesina edo “maîtrise” gainditu ostean Hegoaldeko lizentziaturen baliokidea den titulua. Geroztik euskal ikasketak egiteko aukera dago, bai filologia bai irakaskuntzaren ikuspegitik.

<sup>40</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.12.30)

<sup>41</sup> Dionisio Aranzadiren itzulpena (Aranzadi, 1995)

<sup>42</sup> Rafael Lopez Atxurraren arabera beste katedra biak Foru Zuzenbidea eta Bizkaiko Historia ziren, eta Adrian Zelaia eta Andres Mañarikuari egokitu zitzaizkien hurrenez hurren (Lopez Atxurra, 1995: 68)

<sup>43</sup> Honen berri Euskaltzaindiaren Batzar-agirian aurkitu dugu “Bizkaiko Diputazioak Departamento de Estudios Vizcainos sortzea erabaki duela, Deustuko Unibertsitateari erantsirik, aditzera eman da. Bertan izango diren ikasgoak. Euskal linguistika, Bizkaiko historia eta Bizkaiko Foruak izango dira. Gai honi buruz, A. Irigoyen jaunak zenbait xehetasun eman ditu. Bizkaiko Diputazioari erabaki honegatik, Euskaltzaindiak zorionak bidaltzea erabaki da.” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1974.2.22)



Aipatutako departamentuaren egiteko nagusia Bizkaiko mapa linguistikoa prestatzea zen. Helburua lortze bidean gaiaren inguruko liburuak eta materialak biltzen hasi zen, bereziki unibertsitateko beste departamentuetan sakabanatutako obrak, eta horrek laster ekarri zuen Euskal Herriko gaietan espezializatutako bibliotekaren sorrera: *Biblioteca de Estudios Vizcaínos* (Bizkaitar Ikasketen Biblioteka)<sup>44</sup>. 1979. urtean aipatutako bizkaitar gaien departamentua bilakatu eta institutua izatera pasa zen: Euskal Ikaskuntzen Institutua, baita liburutegia ere, Euskal Ikaskuntzen Biblioteka/*Biblioteca de Estudios Vascos*. Beraz, ordura arteko Bizkaiko eremura mugatu beharrean, Euskal Herri osora zabaldu zen. Institutuak gaur egunera arte iraun du, eta Deustuko Unibertsitatearen euskal gaiekin lotutako irakaskuntza eta ikerkuntza eremuei laguntza ematen die<sup>45</sup>.

Horretaz guztiaz gain, Deustuko Unibertsitatean 1967an Euskal Kultur Mintegia/*Seminario de Cultura Vasca* (aurrerantzean EKM) sortu zen. EKMk euskara eta euskal kultura unibertsitatean suspertzea zuen helburu. Hala, mintegiaren zeregin nagusia euskara ikasteko ikastaroak antolatzea izan zen. 1978an sortutako Euskal Irakaslegoa institutuak bere gain hartu zuen aipatutako euskara eskolak, eta “ordurararte Euskal Kultur Mintegiaren bitartez bertoko ikasle unibertsitariarentzat antolatzen ziren euskara ikastaroen ardura bereganatzen du”<sup>46</sup>. 1978/79. ikasturtean 1.561 ikasle institutuko euskalduntze-alfabetatze klaseetan matrikulatu ziren<sup>47</sup>.

Deustuko Unibertsitateak 1976an Euskal Filologia lizentziatura jarri zuen bai Bilbon eta bai Donostian ere. Gotzon Garatek kontatzen duenez, Euskal Filologia ez zen abiatu errektoretza taldearen ekimenez, baizik bertan irakasle baten estrategiari esker, hau da, Gotzon Garate berari esker:

**“Istilu gorriak igaro behar izan ziren karrera hori sortzeko.** Irakasle bat aspalditik ari zen esaten, ez zela bidezkoa Deustuko Unibertsitatean Ingeles Filologia egotea, Espainol Filologia, Frantses Filologia, Aleman Filologia eta Euskal Filologiarik ez. Geure etxean geure hizkuntza baztertzea lotsagarria zela.

---

<sup>44</sup> Bibliotekaren zuzendaria Andres Mañarikua izendatu zen (Santa María, 1992: 346-347)

<sup>45</sup> (Pagola, 1995: 562). Oinarri lan horren ondorio gisa, Institutuak *Euskaldok, Euskal Dokumentazio Zentroa* martxan jarri zuen 1994/95. ikasturtean (Santa María, 2006)

<sup>46</sup> (Aranzadi, 1995: 529)

<sup>47</sup> (Aranzadi, 1995: 530)

Unibertsitateko zuzendaritzaren aldetik, ordea, hitz goxoak eta luzapenak ematen ziren. Besterik ez. Azkenean irakasle hori aspertu egin zen eta apirila aldian Euskal Herriko kazetetara ohar bat igorri zuen: «Datorren ikastaroan Euskal Filologia hasiko da Deustuko Unibertsitatean». Huraxe izan zen hangoa! Erretoreak deitu egin zuen irakasle hori eta aurpegira egotzi zion: «¡Eres un chantajista!». **Eta unibertsitateko zuzendaritzan eskutitz asko jaso zituzten asmo horren kontra.** Euskal Filologia sortzea separatismo hutsa zela, ETArri laguntzeko ekintza zela eta horrelakoak.<sup>48</sup> [beltzak gureak dira]

Gotzon Garate, Alfonso Irigoien, Patxi Altuna<sup>49</sup>, eta Anton Artamendi aritu ziren Euskal Filologia karrera hasiberria antolatzen eta bertan irakasten. Gasteizen lau urte beranduago, 1980an Euskal Filologia karrera abiatu zen Filosofia eta Letren fakultatean. Dirudienez, P. Altuna Euskal Filologian eskolak ematen hasi zenetik, EUTGn euskara ikasteko klaseak pixka bat desantolatu ziren: “Ikastetxean euskarazko klaseak ematen ba ziren ere, jendea ez omen zen klase horietara joaten, ez bait zen nonbait pulamentu handirik ikusten. Hau zela eta, bai ikastetxeak, bai euskarazko irakasle taldeak, egin omen zituzten beren zuzenketak eta ba dirudi klase horiek zuzen doazela”<sup>50</sup>. Halaber, *Zehatz* aldizkarian topatutako garaiko lekuko anonimo honek erakusten du EUTGko ikasleek presioa egiten zutela unibertsitatea euskalduntzeko. Adibidez, aipatzen da Historia karrerako 4. mailako ikasleak proposatu zutela azterketa guztiak euskaraz egitea<sup>51</sup>.

Nafarroako Unibertsitatean euskarak campusaren arabera, egoera oso desberdinak bizi zituen. Iruñean, J. M. Barandiaranen katedra, Euskal Hizkuntza eta Kulturako katedra zegoen, 1963an sortu eta Nafarroako diputazioak diruz eusten zuena

<sup>48</sup> (Garate, 2006)

<sup>49</sup> P. Altunak honela gogoratzen zituen Deustuko Euskal Filologiaren hasierako urte haiek: “Ez genuen testurik Morfologia, Sintaxia zein Hizkuntzaritza eskolak emateko. Dena guk sortu behar izan genuen. Urte ederrak izan ziren, ilusioz beterikoa, baina era berean, urte latzak” (Josune Etxeberriaren lanetik (Etxeberria, 2003), *Euskal Filologiaren sorrera (1976)* kapitulutik). P. Altuna jesulaguna zen, formazio zabala zuen, eliz ikastetxeetan eta Salamancan ikasi zuen Filologia klasikoa, eta Ignacio Errandoneak, EUTGra erakarri zuen. Bere gain egon zen hasiera batean Hizkuntza Eskola. Bertan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak ematen ziren. P. Altunak Eskolan euskara metodo modernoekin ikas zedin nahi zuen eta AEBtik ikusentzunezko tresnak ekarri zituen, eta ingelesa ikasteko metodo bat euskararako egokitu zuen (adb. E. Frank Cadlin-en *Present day English for foreign students*). Hala 1967an argitaratu zuen *Euskera, ire laguna*, eta ondoren etorri ziren *Ariketak, euskera ire laguna* (1968) eta 1968ko Arantzazuko Biltzarraz geroztik, metodoaren edizio berriak, H letrarekin inprimatu ziren. Itzelezko arrakasta izan zuten bere liburuek. Askok erabili zituzten, bai beren buruak janzteko eta alfabetatzeko, bai ematen zituzten euskara eskoletan. Ondoren, Euskal Filologia karrera sortu zenean 1976an, karrera berriko irakaslea izan zen, eta irakasgai bi hutsetik sortu zituen Euskal Hizkuntzaren Historia eta Euskal testuak (XVI-XVIII. mendeak). Patxi Altunari buruzko informazio hau guztia Elixabete Perez Gaztelu, Ana Toledo eta Esther Zulaikak prestatutako lanetik atera dugu (Perez Gaztelu eta beste, 2005), baita Josune Etxeberriaren lanetik (Etxeberria, 2003)

<sup>50</sup> (Ikasle bat, 1978: 107)

<sup>51</sup> (Ikasle bat, 1978: 108)

Filosofia eta Letren Fakultatean. Katedrak bi alderdi zituen, bata dozentzia eta bestea ikerketa. Irakaskuntzak bi adar zituen, euskal Etnologia ikastaroak eta Historiaurreari buruzko mintegiak, biak gaztelaniaz eskaintzen ziren eta J. M. Barandiaranen ardura ziren, eta bestea, euskara (ikasteko) klaseak. Ez bata, ez bestea ziren ikaskuntza ofizialak, nahiz eta unibertsitateak eskaini<sup>52</sup>. J. M. Barandiaranek bere klaseak 1964. urtearen hasieran abiatu zituen. Saio horietatik sortu zen Etniker taldea Nafarroan, euskal Etnologiaren ikerkuntzara bideratutako taldea, J. M. Barandiaranen inkesta etnografikoa egikaritzeko ardura hartu zuena. Urte gutxira Etniker talde gehiago sortu zen Euskal Herriko beste probintzia batzuetan<sup>53</sup>. J. M. Barandiaranek katedra utzi zuenean 1978an, unibertsitatea Euskal Kultura ikastaroak antolatzen hasi zen historia, hizkuntzalaritza, literatura eta bestelako gaien gainean, eta hortik eratorri zen 1994. urtetik aurrera Euskal Ikasketen Diploma.

J. M. Barandiaran klaseak ematen hasi eta lasterrera, 1964/65. ikasturterako unibertsitateak Ana Maria Etxaide hartu zuen euskara irakasteko (katedrari lotuta). Lehen ikasturte horretan A. M. Etxaidek 4 ikasle baino ez zituen. Ondoko urteetan ikasle kopurua emendatu zen, eta 1977an 200era iritsi zen<sup>54</sup>. Beraz, hasieran euskara eskolen inguruan girorik ez bazen ere, urteekin ikastaroetara jende gero eta gehiago hurbildu zen. Ezin da ahaztu, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, euskararen inguruko giroa asko hobetu zela Franco hil eta gero eta Euskaltzaindiak B eta D mailako euskara tituluen azterketak UEUren Iruñeko Udako Ikastaroetan antolatu zituelako. Horri esker euskarara jende asko hurbildu zen.

Bestalde, 1976/77. ikasturtetik aurrera Nafarroako Unibertsitatea Filologia Hispaniko karreraren baitan eskaintzen hasi zen euskara irakasgaia. Urte horretan eman zuen Nafarroako Unibertsitateak lehen aldiz irakasgai ofizial bat euskaraz. Irakaslea A. M. Etxaide bera zen, baina ordurako A. M. Etxaidek tesia egina zuen eta Santiago Unibertsitatean irakasle gisa aritu ostean (1970-1975), 1975an Iruñera bueltatu eta aipatutako karreraren klaseak ematen hasi zen. Beraz, une horretatik aurrera batetik euskara irakasgai ofizial bat zegoen Filologia Hispanikoan, eta bestetik, katedrari

---

<sup>52</sup> (Etxaide, 2006: 14)

<sup>53</sup> Ikus aurrerago Bizkaiko Etniker Taldeari buruz 3.1. *Labayru Ikastegia eta Eusko Ikaskuntza* atala.

<sup>54</sup> (Etxaide, 2006: 10)

lotutako euskara klaseak zeuden. A. M. Etxaide Santiagora joan zenean, katedrako euskara ikastaroak Kimika Fakultateko Jose M<sup>a</sup> Basterretxea *Oskillaso* irakasleak eta euskaltzale ezagunak eman zituen. Urte horietan ikasle kopurua hazi egin zen eta taldea bitan banatu behar izan zen. Irakasle berri bat kontratatu zen: Pilar Gorostiaga. Euskara eskoletara joaten ziren ikasleak ez zuten matrikularik ordaintzen, eta unibertsitateko kanpoko ikasleak ere onartzen ziren. Iruñean euskaltegiak sortu arte, euskara ikasi nahi zuenak katedrako euskara ikastaroetara joateko aukera zuen.

Beraz unibertsitatearen Iruñeko campuseko euskara ikasteko eskaintza txikia eta mugatua zen, hizkuntzaren irakaskuntzara mugatzen zelako. Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako zentroetan egoera pixka bat hobea zen, campusaren ingurunea ere euskaldunagoa zelako. Industri Ingeniaritza eta Fisika ikasketetan ari ziren zenbait ikasle euskaldunek elkarteak sortu zuten: Euskal Kultur Taldea (EKT). Beraiek antolatu zituzten eskola orduetatik kanpoko euskara ikasteko eskolak, euskararen aldeko jaialdiak eta abar. EKT honek laster izen propio bat hartu zuen, Elhuyar Taldea.

Bestalde, Donostian, Jon Nazabalek 1979an bere doktorego-tesia euskaraz eta gaztelaniaz defenditu zuen: *Zenbait mekanizapen errazeko altzairuren berotako erresistentzia mekanikoa eta duktibilitatea*. Gipuzkoako Diputazioak, euskaraz aurkeztutako lehen tesia izateagatik, 500.000 pezetatako saria eman zion egileari<sup>55</sup>. Bestalde, Deustuko Unibertsitatean euskaraz prestatutako lehen doktorego-tesia 80ko hamarkadaren bukaeran aurkeztu zen<sup>56</sup>.

Laburbilduz, Euskal Herriko unibertsitate pribatu eta konfesionaletan, salbuespenen batzuk kenduta, euskararen presentzia lotuta egon zen euskara berarekin, hau da, Hizkuntzalaritza eta Filologiarekin edota euskalduntze-alfabetatzearekin. Salbuespen bakarra Bilboko Elizbarrutiko Irakaslea Eskola (1973) eta Donostiako

---

<sup>55</sup> Datua Jose María Basteroren lanetik atera dugu (Bastero, 1995: 548). Hala ere ez da zuzena euskaraz aurkeztutako lehen tesia izan zenik, 1976an Bilboko Unibertsitatearen Medikuntza Fakultatean R. Arruek bere tesia aurkeztu baitzuen. Egia da bestalde, J. Nazabalena izan zela Gipuzkoan eta ingeniaritza arloan euskaraz prestatutako lehena.

<sup>56</sup> Itziar Basterretxeak aurkeztu zuen: *Eskolatik euskara?: euskararekiko jarrerak Bizkaiko O.H.O.ko 8. mailakoen artean* (1987).

Gotzaindegiaren Irakaslea Eskola (1977) izan ziren, bertan irakasle euskaldun tituludunak prestatzen zirelako, hau da, euskarazko ikasketa eskaintza zegoelako<sup>57</sup>.

### 2.4.2. Euskara unibertsitate publikoan

Unibertsitate publikoan, hau da, Bilboko Unibertsitatean, lerro nagusitan esan daiteke 70eko hamarkadaren lehen erdialdean fakultate eta eskola batzuetan euskara ikasteko eskolak bazirela, baina eskola-orduetatik kanpo eta modu ez ofizial batean, eta gehienetan zentroko euskal kultur elkarteak antolatzen zituen. 1976. urtetik aurrera zentroetako kultur elkarteak legezko izaera hartzean, hau da, elkarte kultural gisa legezko izaera hartzean, beraiek antolatutako jarduerak, euskara eskolak barne, unibertsitatearen (diru)laguntza jaso zuten.

Bilboko Unibertsitatea, arestian aipatu dugunez, 1968an sortu zen eta hiru fakultate zituen. Unibertsitatearen lehen eskolak 1968/69an ikasturtean abiatu ziren, Ekonomiakoak Sarrikon, eta Medikuntza eta Kimika ikasketak Botica Viejan. Lehen ikasturte horretan Euskerazaleak elkarteak unibertsitateko ikasleentzat euskara ikasteko ikastaroa antolatu zuen<sup>58</sup>. Garai hartan Euskerazaleak elkarteak Bilbon euskara ikastaroak eskaintzen zituen. Beraz, Medikuntza eta Zientzien fakultatearen lehenengo maila Bilbon abiatu zenean, bertara beraien eskaintza hedatzen saiatu ziren. Botican bi talde zeuden, bata maila baxukoa, eta bestea, maila ertainekoentzat. Erabiltzen zuten liburua Xabier Peñak prestatu eta Coca-Colak babestutako euskara ikasteko metodo bat zen. Euskerazaleak elkarteak bi ikasturtetan antolatu zituen euskara ikastaroak unibertsitatean, gero “ordutegi arazoengatik”<sup>59</sup> bertan behera geratu ziren.

Euskerazaleak elkarteko kide zen Josu Arenazak, medikua, euskaltzain urgazlea eta “*h*-aren etsai borrokatua”<sup>60</sup>, Euskaltzaindiko bileran jakinarazi zuen, Sarrikon “euskerazko klaseeri laguntza emateko eskaria egitekoak direla Diputazioko

---

<sup>57</sup> Honen gainean ikus aurrerago 2.6. *Irakasle Eskolak: irakasle euskaldunak sortzen atala*.

<sup>58</sup> Honen berri izan dugu Jacinto Iturberi esker, berak ikastaroan izena eman baitzuen. J. Iturbek dionez, 3 irakasle aritu ziren bertan, bi gizon eta emakume bat.

<sup>59</sup> Jacinto Iturberen hitzak dira eta Beñardo Kortabariak jasotakoak Zientzia Fakultateak 25. urteurrenaren kariaz *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkarian egindako erreportaian (Kortabaria, 1998)

<sup>60</sup> Juan San Martinen elkarrizketatik aterata (Murua, 1998: 104)

presidentari”<sup>61</sup>. Pentsatzekoa da, eskari horren emaitzaren parte direla Botica Viejan Euskerazaleak elkarteak antotatutako ikastaroak.

Laster batean, Leioan, unibertsitatearen orubean, fakultateak eraiki, eta Medikuntza eta Zientzien fakultateak bertara eraman ziren. Zientzia Fakultatean eskaintza akademiko osoa gaztelaniaz zen. Hala ere 1974. urtean, Jacinto Iturbek tesina euskaraz irakurri zuen. 1973/74. ikasturtean antolatu zen Zientzia Fakultateko Euskal Kultur Taldea (aurrerantzean, Z-EKT). Talde horrek kultur jarduerak eta euskara ikasteko eskolak antolatu zituen.

1976ko ekainean *Anaitasuna* aldizkarian euskararen ezagutza neurtzeko Zientzia Fakultateko ikasle eta irakasleek erantzundako inkestaren emaitzak argitaratu ziren. Datu horien arabera, bai ikasleen artean, bai irakasleen artean, euskararen ezagutza oso apala zen:

“... ikasleen % 4,88k zekien euskaraz irakurtzen eta idazten eta beste % 5,66k zekien euskaraz mintzatzen; % 13,72k aitortzen zuen euskara apur bat bazekiela eta % 17 ari zen euskara ikasten. Irakasleen artean, % 6,4 baino ez zen euskaraz zekiena eta % 5,5ek erdizka egiten zuen, % 9 ikasten ari zen eta % 88k ez zekien. Ikasleen % 70ek euskararen presentzia unibertsitatean beharrezkotzat zuen; irakasleen artean, ordea, % 54,1 baino ez zen horren aldekoa. Are gehiago, irakasleen % 30ek ez zuen euskara ikasi nahi, nahiz eta lan orduetan aritzeko aukera eduki. Jacinto Iturbek, bertako irakasle eta UEUko kideak, hiru ondorio garrantzitsu atera zituen inkestaren emaitzetatik: bat euskararen aldeko giro nabarmena fakultatean; bigarrena, euskaldunen urritasuna eta euskalduntzearen beharra eta hirugarrena, garai hartako eztabaidetan arreta gutxi eskaini zitzaion puntu bat, «euskarazko Unibertsitatearen etorkizuna eskailera luze baten buruan dagoela, eta bertara heltzeko aurreko mailetatik ere pasatu behar dela»<sup>62</sup>

1979/80. ikasturtean unibertsitate irakasle batzuk (Jacinto Iturbe, Jose Ramon Etxebarria, Itziar Urretxa, Jesus Mari Txurruka, Jesus Mari Arregi, Mari Jose Zarate eta Iñaki Garcia Gurtubai) modu ofizial batean Biologia karrerako lehenengo maila osoa euskaraz ematen hasi ziren. 1977/78. ikasturtetik irakasle horietako batzuk (J. R. Etxebarria, J. Iturbe, J. M. Txurruka, I. Garcia Gurtubai eta J. M. Arregi) mintegi bidez, esperimientua egin zuten. Hau da, eskoletan gaztelaniaz azaldutakoa, mintegietan euskaraz berriz lantzen zuten karrerako ikasleekin. Zientzi Fakultateko irakasle aitzindari hauek Z-EKTko kide ziren edota UEUn ibiltzen ziren. Beraiek prestatu

<sup>61</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.1.27)

<sup>62</sup> (Aizpuru, 2003a: 51-52)

zituzten karrerako lehen mailetarako euskarazko testuliburuak, eta UEUK argitaratu zituen<sup>63</sup>.

Medikuntza Fakultatean ere eskaintza akademiko osoa gaztelaniaz zen, baina han ez zuten euskarazko irakaskuntzara saltorik egin (Zientzitan gertatu bezala), nahiz eta, Medikuntza Fakultatean aurkeztu zen Euskal Herrian<sup>64</sup> euskaraz prestatutako lehenengo doktorego tesia. Rikardo Arrue kardiologoak aurkeztu zuen 1976an Bilboko Unibertsitatean: *His sortaren ezkerreko adarraren erabateko hersturaren eta zaingorrigrafiaren arteko koerlazioa* doktorego-tesia<sup>65</sup>.

Medikuntza fakultateko euskarazko eskaintza bakarra euskara ikasteko eskolak ziren. Gure datuen arabera 1978/79. ikasturtean 30 bat irakasle aritu ziren eskola horietan euskara irakasten bai Medikuntza zein Erizaintzako ikasleei. Horrek esan nahi du ikasle taldea handia zela, 600 bat ikasle inguru egongo zelako (30 irakasle x 20 ikasleko taldeak). Eskola horiek antolatzeko 1978ko azaroaren 18an bildu ziren fakultateko euskara irakasleak euskara ikastaroen aurrekontua prestatzeko eta errektorearekin zer negoziatu adosteko. Aurreko urtean hainbat arazo izan zituzten irakasleen ordainketekin, eta hori zela eta 1978/79. ikasturtea ondo antolatu nahi zuten. Euskara irakasleek orduka kobratzen zuten, eta euskara tituludunek normalean gehiago titulugabeek baino. Irakasleek emandako orduen arabera hileroko soldatak kobratu nahi zituzten, eta ez noiz behinkako ordainketa handiak, sarri asko atzeratzen zirenak. Bilerak, aurrekontua prestatzeko, urritik maiatzera bitarteko eskolen egutegia ezartzeko, ikastaroen ordu kopurua finkatzeko, baita eskola orduen tarifa ere (orduko 400-350 pezeta) ezartzeko balio izan zuen. Hala, 1978/79. ikasturteko euskara eskolen aurrekontua Medikuntza Fakultatean 1.260.000 pezetetakoia izan zen. Hein batez,

---

<sup>63</sup> Ikus aurrerago 6.3.2. *Planifikatu gabeko jarduera arrakastatsua* atala.

<sup>64</sup> “Euskal Herrian euskaraz prestatutakoa” diogu, zeren euskaraz aurkeztutako lehen ez zen hori izanik, baizik Madrilen defenditu zen bat: Gotzon edo Angel Goenagak jesuslagunak prestatu zuen, nahiz eta beronen defentsa gaztelaniaz egin behar izango zuen, epaimahaiko kideak ez baitzekieten euskararik: “1966an aldeztu zen Madrilen, epai-mahaiean Zaragüeta, Adrados eta Lapesa zituelarik, bere HUTS hitzari buruzko tesia. E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekano zen urte haietan” (Altuna, 1974: 439)

<sup>65</sup> Hiru urte beranduago tesia argitaratu zuen elebitan, horrela aurkeztuko baitzuen epaimahaian beronen defentsa egin ahal izateko. Epaimahaiko kideak ez ziren izango euskaldunak, eta izatekotan, ez ziren alfabetatuta egongo, eta beraz erabat ezinezkoa izango zen garai hartan alfabetatutako mediku euskaldunak aurkitzea tesi baten epaimahai baterako. Horregatik euskarazko doktorego-tesiak, birritan egiten ziren garai hartan (are hurrengo urteetan ere).

jarduera autofinantzatua zen, ikasleen matrikulekin unibertsitateak 300.000 pezeta jasoko baitzuen (hau da, ikasle bakoitzak 500 bat pezeta ordaintzen zuen)<sup>66</sup>.

Ostera, Donostiako Kimika Fakultatean, Luis Mari Bandres eta Antxon Santamaria 1976/77. ikasturtean hasi ziren euskaraz lehen klase ofizialak ematen<sup>67</sup>. L. M. Bandresek Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako campusean ikasi zuen Ingeniaritza, Elhuyar taldearen sortzaileetako bat izanik, eta 1974. urtetik plazaratzen zen euskarazko zientzia eta teknologia aldizkariaren zuzendaria zen: *Elhuyar aldizkariarena* hain zuzen. Bestalde Antxon Santamariak etxetik jaso zuen euskaltzaleasuna eta euskal unibertsitatearen aldeko jarrera. Bere aita Karlos Santamaria zen, euskal (euskarazko) unibertsitatearen aldeko ekintzaile sutsua. Aurreko atalean aipatu dugun moduan, Karlos Santamariak beste euskaltzale batzuekin batera 1960an Donostian Santo Tomas Lizeoa sortu zuten euskaraz ikasten hasitako umeez, unibertsitatera arteko hezkuntza euskaraz jaso zezaten. Antxon Santmariak bertan ikasi zuen, ondoren karrera gaztelaniaz ikasi zuen, baina irakasle euskaldun gisa aritu zen Donostiako Kimika Fakultatean sartu eta batera. Beraz, euskaraz emandako lehenengo irakasgai haiek unibertsitatean, ez ziren berezko zerbaite izan. Euskal munduarekin harreman estua zuten bi pertsonak eman zituzten. Donostiakoa gainera, beste unibertsitate esperientziatik oso desberdina izan zen, fakultateak berak sustatu edota babestu zituelako, hau da, fakultateko EKT edo ikasleen presiorik gabe antolatu ziren, beste zentroetan gertatu zen moduan. Izatez L. M. Bandres bera fakultateko zuzendaritzan zegoen eta horrek ere lagundu zuen euskarazko eskaintza sortu eta antolatzeko orduan.

Gasteizen 1970ean sortutako Arabako Unibertsitate Ikastetxeren baitan (*Colegio Universitario Alavés*), bertako diputazioaren laguntzarekin 1977an Euskara Katedra eratu zen, eta bertako buru Koldo Mitxelena izan zen (jadanik Salamancako Unibertsitateko Indoeuropear Hizkuntzalaritzako katedraduna zena), eta Henrike Knörr laguntzaile.

<sup>66</sup> Ikus Euskarazko irakasleen bilera, 1978.11.18ko agiria (JMTA)

<sup>67</sup> Batzuetan aipatuta aurkitu dugu 1976/77. ikasturtean hasi zirela (Aizpuru & Jimeno, 2002: 36 eta Flores, 1997: 121) eta besteetan 1977/78 (Aizpuru, 2003a: 102)



UNEDeko Bergarako zentroa 1976an sortu zen, eta hasieratik lotura estua izan zuen euskararekin. Euskarazko lehen hitzaldia Jose Mari Aranaldek eman zuen “Xalbador” bertsolari hil berriaren gainean (1977) eta hurrengo urteko Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra, euskararen batasun prozesuaren gainean, bertan, UNEDen egoitzan burutu zen. 1977/78. ikasturtean Euskal Kultura Departamentua (EKD) sortu zen. Departamentuak Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu zuen Euskaltzaindiaren B eta D mailako tituluaren ikastaroak emateko eta zentroan bertan azterketak jarri eta zuzentzeko. “400-500 ikasle matrikulatu ohi zen urtean “D” mailan eta 200 inguru “B” maila. Izan zen mila ikasletik gora matrikulatutako urterik ere”<sup>68</sup>. 1981. urtean euskara tituluaren kudeaketa Euskaltzainditik Eusko Jaurlaritzaren eskutara aldatu zen, eta B eta D mailako tituluak desagertu ziren. Titulu berriaren izena *Euskararen Gaitasun Agiria* (EGA) izan zen<sup>69</sup>. EGA nolabait desagertu berria zen D mailako tituluaren parekoa zen, eta B mailakoa ondorengorik utzi gabe desagertu zen<sup>70</sup>. UNEDek hitzarmen berria sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin EGA ikastaroak emateko eta azterketak ikastegian bertan egin eta zuzendu zitezen.

Bestalde, Bergarako UNEDek, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean, ikastoletan titulurik gabe ari ziren maisu-maistrek titulua eskura zezaten ikastaldiak antolatu zituen (1978/79-1983/84. ikasturteetan<sup>71</sup>). Titulurik gabeko irakasleen lehen promozioak 1981an lortu zuen diploma<sup>72</sup>, guztira 147 irakaslek. Azkenean, orotara ikastolan ari ziren 723 irakaslek eskuratu zuten titulua<sup>73</sup>.

---

<sup>68</sup> (Madariaga, 1995: 565)

<sup>69</sup> Ikus aurrerago 3.2.2. *Euskara irakasle tituluak* atala.

<sup>70</sup> Hala ere UNEDek B mailako tituluaren parekoa zen ikastaroa sortu zuen: Sakontze Maila, B mailako tituluaren eduki berdintsuekin (Madariaga, 1995: 565)

<sup>71</sup> Hiruren artean martxan jarri zuten Ikastoleko Irakaslearen Plan Berezia (*Plan especial para profesorado de ikastolas*) (Lopez Atxurra, 1995: 69)

<sup>72</sup> Diploma edo Agiria (Ikastola-irakasleentzako Euskolaurreko Euskarazko Irakaskuntza-Laguntzaile Agiria) Eusko Jaurlaritzaren 1981ko ekainaren 22koa Aginduak arautzen zuen (ikus EHAA/BOPV, 41 zkia)

<sup>73</sup> (Madariaga, 1995: 566)

## 2.5. Unibertsitateetako euskal kultur mugimendua

Unibertsitatea 70eko hamarkadan tentsio ugariaren lekukoa izan zen. Unibertsitateko protestak eta istiluak, hiru multzotan sailka daitezke: lehena, politikoak (protesta antifrankistak, abertzaleak, eta gizarte-berdinatasunaren aldekoak), bigarrena, “unibertsitateen antolaketa akademiko autoritario eta azpiegituren gabeziekin lotutakoak”<sup>74</sup>, eta hirugarren, euskara eta euskal kulturaren aldarrikapenari dagozkionak. Atal honetan azken honi buruz arituko gara, Komunitate Zientifiko Euskalduna bete-betean ukitzen duen gaia delako.

Oro har, unibertsitatean 70eko hamarkadan sortutako euskal kultur taldeak oso ezezagunak dira, nahiz eta eragile funtsezkoak izan ziren euskara unibertsitatean sartzeko. Kultur taldeak ezezagunak dira, oraindik ez direlako ikertu<sup>75</sup> eta garaiko dokumentazio askorik ez delako gordetzen<sup>76</sup>, taldeek unibertsitateen topagune izaera zutelako, eta ez zutelako erakunde bizitza burokratizaturik, ez aldizkaririk, ez jarduera programa trinkorik ere.

Fakultate edo unibertsitate eskolen arabera, ikasleek bakarrik parte hartzen zuten, edo ikasle eta irakasleek. Elkarreok euskara eta euskal kulturaren gaineko interesa zuten unibertsitariak biltzen zituzten, baina kide guztiek ez zuten zertan euskaldunak izan, eta beraz, bilerak erdaraz ere izan zitezkeen. Hain zuzen ere, elkarteetako asko, hasieran unibertsitateen antolatutako kultur talde gisa sortu ziren, baina barne hausnarketa bidez, euskal kulturaren zentratu ziren, eta azkenean euskara sustatzera eta zentroko euskararen irakaskuntzaren antolaketara dedikatu ziren. Bilboko Irakasle Eskolako elkarteak adibidez, ibilbide hori egin zuen:

“Majisterioko eskolan, 1974-1975 ikastaroan, lagun batzu bildu ziren kultur talde bat egiteko asmoz. Batzuek euskararako mintegi bat jarri nahi zuten elkarte barruan. Baina beste batzuk pentsatzen zuten, Euskal Herrian bizi zirenez gero, euskal kultura zaindu behar zutela eta, horretarako, euskara potentziatzen hasi. Honela sortu zen E.K.A. (Euskal Kultur Alkartea). Nahiz eta ofizialki onartuak izan, oztopo asko eduki ditugu orain arte: ez genuen bulegorik, ez euskarazko klaseetarako lokalik; zuzendariak ez zigun baimenik ematen hitzaldi aretoa irekitzeko edo jaialdiak eta hitzaldiak antolatzeko klase orduetan. (...)

<sup>74</sup> (Aizpuru & Roldan, 2002: 32)

<sup>75</sup> Hala ere salbuespenak badira, bai Mikel Aizpuruk (2002 eta 2003a) bai Rafael Lopez Atxurak (1995) zeharka landu dituzte, baita beraien gaineko berriak bildu ere.

<sup>76</sup> Beraz, beraiek ezagutzeko ahozko historiara jo beharko litzateke.

Aurten (1976) Erretore berria eta, Majisterion, zuzendari berria izan dira ezarriak. Hauekin, eskatzen genituen gauza batzu azkenik lortuak ditugu:

1.-Nahiz eta oraindik probisionala, badugu bulegoa.

2.- Euskarazko klaseak ofizialki ezarriko dira: E.K.A.k antolatu ditu Euskaltzaindiaren laguntzaz, eta Erretoreak ordainduko ditu. Hala ere, ordu libreetan ematen dira.

Hurrengo urterako, euskara klase orduetan jartzen eta, beste Euskal Herriko eskoletan bezala, euskararen katedra bat lortzen saiatuko gara.”<sup>77</sup>

EKAk beraz, hiru estadioak iragan zituen, kultur elkarte gisako sorrera, euskal kulturaren zentratzea, eta azkenean euskara lehenestea. Beste batzuk berriz, sorreratik bertatik euskal kulturara bideratuta jaio ziren. Hala, euskal kultur gaiak euskaraz zein gaztelaniaz landu zituzten. Esate baterako Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Ingeniaritza Eskolako EKTak (*Euskal Kultura Taldea-Comisión de Cultura Vasca*) *Historia del Pueblo Vasco* bi tomotan argitaratu zuen (1970). Halaber Sarrrikoko Euskal Ikaskuntzen Taldeak adibidez foru, estatutu eta kontzertuen gaineko aste kulturara antolatu zuen<sup>78</sup>.

Kultur taldeak Euskal Herriko zein kanpoko unibertsitateetan sortu ziren. Kanpoko horietan Euskal Herritik joandako ikasleak biltzen ziren. Adibidez, Valladolideko Unibertsitatean halako bat bazen eta bertan Anjeles Iztuetak parte hartzen zuen (2001-2005 urte artean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua izan zena). Gerraurretik dokumentuta daude euskal jatorriko ikasle unibertsitarioen elkarteak Madril, Valladolid, edo bestelako unibertsitateetan egon zirela jada<sup>79</sup>.

Zernahi gisaz, segidan euskara eta kulturaren inguruan Euskal Herriko unibertsitateetan 70eko hamarkadan sortu ziren elkarte kulturalak aztertuko ditugu. Elkarteok izen desberdinak hartu zituzten: Euskal Kultur Taldea (EKT), Euskal Kultur Mintegia (EKM), Euskal Kultur Alkartea (EKA), Euskal Ikaskuntz Taldea (EIT),... Unibertsitatean sortutako kultur elkarte hauek hamarkada batean bete zuten beraien ziklo osoa: sortu, hazi eta krisian sartu. Oro har, elkarteok eskola orduetatik kanpoko euskara klaseak antolatu zituzten unibertsitatean, eta batzuetan, elkartearen ibilbidea eta indarraren arabera, bestelako jardueretara zabaldu ziren: EKMk liburutegi bat sortu zuen, Elhuyarren eta Z-EKTren kasuan, hizkuntzaren erregistro zientifiko teknikoaren

---

<sup>77</sup> (Hainbat egile, 1977: 133-134)

<sup>78</sup> (Hainbat egile, 1977: 132)

<sup>79</sup> Ikus I. Kapituluaren 5.2.3. *Euskal Unibertsitatea* atala.

finkapena landu zuten, argitalpenetan kolaboratu eta abar. Segidan, elkarte garrantzitsuenak eta garatu zituzten proiektu nagusiak aipatuko ditugu.

### 2.5.1. Euskal kultur elkarteak (EKM, EKT, EIT,...)

Lehen euskal kultur elkarteak Deustuko Unibertsitatean sortu zen 1967/68. ikasturtean. Euskal Kultur Mintegia izena eman zioten, eta bai Donostiako bai Bilboko bai Iruñeko fakultate zein unibertsitate eskoletan 1970. urtetik aurrera sortu ziren beste kultur taldeen aurrekaria izan zen. Gasteizen ez zen euskal kultur talderik sortu, ez zegoelako egitura unibertsitario sendorik. 1970etik Arabako Unibertsitate Ikastetxea (*Colegio Universitario Alavés*) bazegoen, baina ikasketa gutxi batzuk baino ez zituen goi mailako ikastetxea zen (Filosofia eta Letrak, eta gerora Medikuntza eskaintza txiki bat). Iparraldeak Arabak baino egitura unibertsitario sendoagoa zuen, hala ere euskal kultur talderik ez zen sortu, unibertsitateko euskal hizkuntza eta kultura elkarteak Hego Euskal Herriko fenomenoak izan zirelako. Hau da, Espainiako testuinguru unibertsitarioan sortu ziren euskal kultur taldeak, Espainiako giro unibertsitario, erregimen politiko, eta kulturean.

Euskal kultur elkarteek unibertsitateko ikasle edota irakasle euskaltzaleen bilgune izaera zuten. Topagune horien egitekoak nagusiki hiru ziren<sup>80</sup>:

- Lehena, zentroko euskararen irakaskuntzaren antolaketa, nahiz eta ohartzen ziren “Euskara irakastea Unibertsitate mailako lana ez dela”<sup>81</sup> baina ezinbestean hari eman zioten lehentasuna, klaseak erdi inprobisatuz. Gerora, unibertsitateek bere gain hartu zituztenean euskara eskolen antolaketa, euskal kultur taldeek egindako aurrelanean oinarritu ziren.
- Bigarren egitekoa, euskal kulturaren zabalkundea izan zen, liburutegia bat bilduz EKMren kasuan, edota euskal giroa sortuz unibertsitatean (adb. jaialdiak antolatuz).

<sup>80</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 33)

<sup>81</sup> (Hainbat egile, 1977: 131)

- Hirugarren eta azkena, euskararen egokitzapena hizkuntza zientifiko moduan. Nahiz eta azken egiteko honetan modu trinkoan bakarra aritu zen: Leioako Zientzia Fakultateko EKTa (Z-EKT).

Oro har, euskara eta kultura elkarteak UEUekin kolaboratu zuten, ikastaroak antolatuz edota ikastaroetan parte hartuz. *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikuluan honakoa zioten elkarteon egitekoaz eta UEUrekiko harremanaz:

“Hala ere, gure helburu bakarra ez da euskara irakastea; aitzitik beste zerbaitetarako medio gisa dakusagu, hau da, euskara unibertsitate mailan erabil ahal izateko. Baldin **Udako Euskal Unibertsitatea, fakultate bakoitzean kurtso osoa zehar egiten den ikerkuntza lanaren agerpena bada**, oso argi ikusten dugu alde horretatik EKT guztiek bete behar duten zuloa.”<sup>82</sup>  
[beltzak gureak dira]

EKTak UEUren proiektu sortu berriari ekarpen garrantzitsu bi egin zizkioten: bata orokorra, eta bestea oso zehatza. Izan ere, EKTko kideek UEUri Udako Ikastaroen antolakuntza orokorrean lagundu zioten, eta bestalde EKTek Udako Ikastaroen unibertsitate mailako espezializazioa ekarri zuten. Ordurarte UEUK Ipar Euskal Herrian antolatzen zituen saioak kultur aste intentsiboen kutsua zuten, unibertsitate jarduerena baino. Aldaketa laster etorri zen: Elhuyar eta Z-EKTko kideak arratsaldeetan, espezializatutako mintegiak eskaintzen hasi ziren UEU baitan, ordurarteko hitzaldi orokorren formatua goizetara mugatu zelarik<sup>83</sup>.

UEUn gordetzen den dokumentazioaren arabera 1977an 16 euskal kultur elkarte zeuden unibertsitateetan (ikus IV.1. Taula). Pentsatzekoa da UEUK zerrenda hori prestatu zuela urte horretan bertan Iruñean uztailean antolatuko ziren Udako Ikastaroen berri emateko, EKTko kideek UEUren sare naturala osatzen baitzuten (unibertsitariak, euskaldunak eta euskaltzaleak). Horrela balitz, zerrenda uda baino lehen prestatu zen, hots, uztaile baino lehen, eta beraz hiru probintzietan unibertsitate barruti bakarra ezarri baino lehen.

---

<sup>82</sup> (Hainbat egile, 1977: 131)

<sup>83</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 26)

Probintzia	Fakultate edo Unibertsitate Eskola	Kultur elkartearen laburdura:	Kultur elkartearen izena	Kultur elkartearen sorrerako ikasturtea <sup>84</sup>	Arduraduna (1977. urtean)
Bizkaia	Deustuko Unibertsitatea (Bilbo)	EKM	Euskal Kultur Mintegia	1967/68 <sup>85</sup>	Ruper Ordorika
	Ingeniarien Eskola (Bilbo, Bilboko Unib.)	IEKT	Ingeniarien Euskal Kultur Taldea	1970/71	Xabier Landa
	Zientzia Politiko, Ekonomia eta komertzial fakultatea (Sarriko) (Bilbo, Bilboko Unib.)	EIT	Euskal Ikaskuntz Taldea	1973/74	J. M. Mendizabal/ Jesu M <sup>a</sup> Eizmendi
	Zientzia Fak. (Leioa, Bilboko Unib.)	Z-EKT	Zientzia Euskal Kultur Taldea	1973/74 <sup>86</sup>	Miel Loinaz
	Irakasle Eskola (Bilbo, Bilboko Unib.)	EKA	Euskal Kultur Alkartea	1974/75	Xabier Zubieta
	Medikuntza Fak. (Leioa, Bilboko Unib.)	LEKT	Lejoako Euskal Kultur Taldea	1974/75	Miren Izagirre
	Enpresa edo komertzio ikasketen UE (Bilbo, Bilboko Unib.)	EKT	Euskal Kultur Taldea	1974/75	Iñaki Udaondo
	Arte Ederren Eskola (Leioa, Bilboko Unib.)	ENBOR	Ederti Eskolako Kultur Taldea	1975/76	Roberto Zabarte
	Zientzia Fak. (Leioa, Bilboko Unib.)	UKT <sup>87</sup>	Unibertsitateko Kultur Taldea		Aitor Larrañaga
	Irakasle Eskola (Derio, Gotzaindegia)	EKT	Euskal Kultur Taldea		Jose Luis Etxebarria
	Peritoen Eskola (Bilbo, Bilboko Unib.)	EKT	Euskal Kultur Taldea		zehaztu gabe
Gipuzkoa	EUTG (Donostia, Deustuko Unib.)	EKT	Euskal Kultur Taldea	1967/68	Xabier Eloseggi
	Zuzenbide Fakultatea (Donostia, Valladolideko Unib.)	EKM	Euskal Kultur Mintegia		Jose M <sup>a</sup> Zinkunegi
	Eskola Politeknikoa (Arrasate, Valladolideko Unib.)	EKT*	Euskal Kultur Taldea		Joxe Ramon Erkiaga
	Ingeniari Teknikoen Eskola (Donostia, Valladolideko Unib.)	EKT*	Euskal Kultur Taldea		Martin Aierbe
Nafarroa	Enpresa ikasketen Unib. Eskola (Iruñea, Zaragozako Unib.)	EKT	Euskal Kultur Taldea		Jose Miguel Barberena

**IV.1. Taula:** Unibertsitateko euskal hizkuntza eta kultura elkarteak. Iturria: 1977ko EKTen zerrenda (UEUko artxiboa) eta elaborazio propioa<sup>88</sup>. Oharra: (\*) kultura elkarte legalak ez zirenak.

<sup>84</sup> Zutabe honetako datuak 1977ko Jakineko artikulutik atera ditugu, Gipuzkoako EUTGko EKTaren gainekoa izan ezik (Hainbat egile, 1977: 135)

<sup>85</sup> (Lopez Atxurra, 1995 eta Santa María, 1992)

<sup>86</sup> Agian Z-EKT arinagokoa da, baina estatutuak 1974/75. ikasturtean onartu ziren (ikus Hainbat egile, 1977: 134)

<sup>87</sup> UKTa ez dakigu zehazki zein motatako EKTa zen. Agian Zientzia Fakultatean zeuden bi EKTri egiten dio erreferentzia edota UKTa Medikuntza eta Zientzia Fakultateetako EKTak koordinatzeko gunea ote zen.

Taulan ikustenenez, euskara eta kultura elkarteak bereziki Bizkaian sortu ziren. Nahiz eta lehenengoa Deustuko Unibertsitatean sortutakoa izan, aipatutako elkarteak bereziki erroto ziren Bilboko Unibertsitatearen inguruan. *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikulu baten arabera, Bilbo inguruko elkarteak koordinatuta zeuden 1977an<sup>89</sup>.

Taulan agertzen diren elkarte gehienak (13) legalak ziren<sup>90</sup>, hau da, unibertsitateak onartutako estatutuak zituzten. Hiru ez ziren elkarte legalak: gipuzkoar bi (Donostiako Ingeniari Teknikoen Eskola, eta Arrasateko Eskola Politeknikoa) eta Iruñeko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola. Nafarroaren kasuan, EKT bakarra zegoen, eta goi mailako irakaskuntza eskaintzen zuten beste lau zentroetan, baziren euskal taldeak: Nafarroako Unibertsitatean (Jose Antonio Intxauspe arduraduna) Nekazaritza Eskolan (Jesus Eskisabel), Irakasle Eskolan (Idoia Astiz), Ingeniari Teknikoen Eskolan (Jose Jabier Aleman)<sup>91</sup>.

Kultur elkarte hauen gorengo unea 1977. urtea izan zen. Ordurarte egiten zutenari, bereziki zentroko euskararen irakaskuntzaren antolaketari, egiteko berri bat gehitu zitzaion: Euskal Unibertsitate Barruti Bakarraren eskaria bultzatzea. Hala, Bilbo inguruko euskal kultur elkarteek honako helburuak adostu zituzten 1977. urtean:

“Aurtengo kurtsoaren hasieran, Bilbo inguruko koordinaketak lau puntutan agertu ditu epe labur batetarako erreibindikapenak. Bizkaiatik kanpo dauden beste EKTetara zabaldu dira, diskuti ditzaten. Puntuak hautatzean erabili dugun kriterioa, pragmatikoa izan da: horik lortzeko posibilitatearena.

1. Hego Euskal Herriko lau probintzietarako Distrito bakarra.
2. Distrito hori osatzeko behar diren fakultate berriak
3. Euskal Departamentu bat fakultate bakoitzean.
4. Euskararen ofizialtasuna<sup>92</sup>

---

<sup>88</sup> Taulako eremu batzuk osatzeko *Jakin* aldizkariaren Euskal Unibertsitateari buruzko zenbaki monografikoan (1977) unibertsitateko bizkaiko kultur elkarten gaineko artikulua erabili dugu.

<sup>89</sup> “Nahiz eta EKT bakoitza bere gisara sortua izan, berehala nabaritu zen haien arteko harreman baten premia. Sortu zen koordinaketa, elkarren berri jakiteko eta ekintzak ez nahasteko izan zen gehienbat” (Hainbat egile, 1977: 131)

<sup>90</sup> Mikel Aizpuruk eta Roldan Jimenok aipatzen duten erakunde hauek 1976tik legezkoak zirela unibertsitate-arloan (Aizpuru & Jimeno, 2002: 33)

<sup>91</sup> Ez dakigu ikastetxe bakoitzaren arduradunaren atzean talde sendorik dagoen, edo elkarte bizitarik bazuten, edo talde handiak edo txikiak ziren,... Ikertzeke geratuko litzateke euskara eta kultura taldeak Nafarroan zer nolako dinamika izan zuten argitzea.

<sup>92</sup> (Hainbat egile, 1977: 131)

EKM, EKTak, eta EITak eta beste, Euskal Unibertsitatearen alde lerratu ziren 1977an, eta unibertsitate barrutiaren eskaria aipatutako helburua lortzeko bide bat zen. Hala, Euskaltzaindiak, 1977ko uztailean, Hezkuntza Ministerioari helarazi zion Hegoaldeko lau probintzietarako unibertsitate barruti bakarraren eskaria, unibertsitateetako kultur taldeek babestu zutena<sup>93</sup>. Euskal gizarteko hainbat alderdi politiko eta gizarte eragile bildu ziren eskari hartara, eta berehala, urte bereko irailean atera zen barrutiaren dekretua.

EAEko unibertsitate barrutia lortu eta gutxira, EKTak krisian murgildu ziren. Ikertzaileek krisia 1977/78. ikasturtean kokatzen dute<sup>94</sup>. Baina, gure ustez, bada beste faktore garrantzitsu bat kultur elkarteon krisia areagotu eta laster desagertzerara eraman zituen: ordurako EKTen egiteko nagusia zen euskarazko klaseen antolaketa, unibertsitateak beregain hartzen hasi ziren. Beraz, beraien ordurarteko egiteko nagusia eskuz aldatu zenean, ez zuten ahalmenik izan elkarteon egitekoak garai berrietara egokitzeko. Kide eta baliabide gutxiko taldeak izanik, laster urtu ziren beste proiektu batzuetan, UEUn adibidez. EKTko ordezkariak UEUekin bildu ziren azken aldia 1978ko Udako Ikastaroen antolaketan izan zen. Orduan UEU Udako Ikastaroak antolatzeko kultur elkarteetako 18 ordezkariarekin bildu zen<sup>95</sup>.

Ondoren, hiru EKT garrantzitsuenak ikusiko ditugu: lehenengo, Euskal Kultur Mintegia (EKM), ondoren, Donostiako EKT, Elhuyar Taldearen aurrekaria, eta, azkenik, Zientzia Fakultateko Z-EKT.

### 2.5.2. Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegia (EKM)

Destuko Unibertsitatean 1967/68. ikasturtean sortu zen *Euskal Kultur Mintegia/Seminario de Cultura Vasca*. Dirudienez, ideia Zuzenbidea ikasten ari zen Gonzalo Duorena izan zen. Bertan, unibertsitateko irakasleak eta ikasleak parte hartu zuten:

<sup>93</sup> Ikus atzerago 3.2.4.1. *Irakasle Eskolak Euskaltzaindiaren jomuga* atala.

<sup>94</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 33)

<sup>95</sup> (Aizpuru, 2003a: 112)



Xabier Arzalluz, Gotzon Garate, Roman Garate, Gregorio Monreal, Karmele Rotaetxe, Elixabete Bizkarralegorra, Isabel Lertxundi eta beste<sup>96</sup>.

Bestalde, eta arestian aipatu dugunez, EKMk euskal kulturaren azterketan berebiziko interesa izan zuen eta gaiaren gaineko biblioteka txiki bat osatu zuen. Gerora mintegiaren bilduma Euskal Ikaskuntzen Bibliotekara pasa zen<sup>97</sup>.

Mintegiko kide batzuk, esate baterako K. Rotaetxe, Deustuko Unibertsitateak ikasketa araututik kanpo eskaintzen zituen euskara eskoletako irakasleak izan ziren. Aipatutako eskolekin hartueman estua zuten, eta, hein handiz, elkarteak antolatzen zituen. Euskaltzaindiaren 1971ko abuztuko batzar-agiriaren arabera, EKMk jakinarazi zion Euskaltzaindiari euskara eskoletako irakaslegaei Euskaltzaindiaren karneta edukitzea eskatuko zitzaizela (oraindik ez baitziren sortu D eta B mailako irakasle tituluak)<sup>98</sup>.

EKMk 1973-1975. urteetan euskara ikasteko Udako Euskal Ikastaroak Deustuko Unibertsitatean antolatzen lagundu zuen. Urte horietako udetan Deustuko Unibertsitatera 100 ikasletik gora hurbildu zen euskara ikastera<sup>99</sup>.

Mintegiak, hizkuntzaren irakaskuntzaren esparruaz gainera, bestelako jarduerak antolatu zituen: batzuk ludikoak, eta besteak izaera akademikoa zutenak. Hau da, kontzertuak eta jaialdiak gertatu zituen, baita hitzaldi, mintegi eta aurkezpenak ere, esate baterako, udako ikastaroak (Udako Unibertsitari Ikastaroa) 1972-1974. urteen artean. 1972koak Loiolan antolatu zituzten, bigarrenak antolatzeko (Oñati, 1973) zenbait erakunderen babesa izan zuten, eta Giza eta Gizarte Zientziei buruzko berbaldiak izan ziren. Ikasle gutxi matrikulatu zen. 1974. urtekoa Azkoitian antolatu zen eta porrot ekonomikoa izan zenez, bertan behera geratu ziren EKMren ekimenezko

---

<sup>96</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 65)

<sup>97</sup> (Santa María, 1992: 346)

<sup>98</sup> Euskaltzaindiak bere aldetik, karneta ez zutenek nola lor zezaketen aipatu zien: batetik, jadanik irakasle gisa ari zirenak *curriculum vitae*a bidali beharko zuten, eta besteak Patxi Altunak Bilbon eman zuen ikastarora joan eta azterketa egin beharko zuten (Euskaltzaindiaren Batzar-agiria, 1971.8.4)

<sup>99</sup> (Zearreta, 1975)

udako ikastaroak<sup>100</sup>. Hala, hurrengo urtean EKMk antolatutako jardunaldia, Deustuko Unibertsitatean bertan antolatu zuen: *Euskal Philologiaren lehen astea* (1975)<sup>101</sup>.

Sorburuan, nahiz eta EKM ez zen Euskal Unibertsitatearen aldeko elkarte, euskal hizkuntza eta kulturaren aldeko elkarte baizik, Euskal Unibertsitatearen aldeko mugimendura lerratu zen, beste kultur taldeen modura. Hala, 1977an Euskal Unibertsitatearen eta unibertsitate barruti bakarraren aldeko kanpainarekin bat egin zuen<sup>102</sup>. Halaber, EKM, Euskal Unibertsitatearen aldeko ekitaldirik antolatzen saiatu zen. *Zehatz* aldizkarian jasotako berriaren arabera, Deustuko Unibertsitatearen errektoreordeak mintegiari ukatu egin zion *Zehatz* aldizkariaren aurkezpena egiteko baimena. Ukoaren berri emanez, ohar labur bat argitaratu zuen EKMk *Zehatzen*<sup>103</sup>.

EKMk 1976/77. ikasturtetik aurrera kanpaina bat antolatu zuen Deustuko Unibertsitatearen euskal hizkuntzaren irakaskuntza ikasketa ofizialean sartzeko eta unibertsitate paisaiaren errotuluak euskaratzeko. EKMk, kanpaina eta negoziaketen bidez, Euskal Irakasletoa izeneko zentroa sortzea (1978) lortu zuen. Departamentuko lehen burua Pello Salaburu izan zen<sup>104</sup>, gerora UPV/EHUko errektore izan zena. Euskal Irakasletoak bereganatu zuen ordura arte EKMren egitekoa zen euskara eskolen antolaketa<sup>105</sup>, “borondate zehatz batekin: ikasletoak erakusten zuen euskalduntzeko eta alfabetatzeko gogoari eta beharrari unibertsitateko esparruan modu akademiko eta emankorrean”<sup>106</sup> erantzutea. 1978/79. ikasturtean 1.561 ikasle matrikulatu zen bertan<sup>107</sup>. Orduz geroztik euskara unibertsitatearen ordu lektiboetan ikasten zen.

<sup>100</sup> (Aizpuru, 2003a: 25-26)

<sup>101</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 68)

<sup>102</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 69)

<sup>103</sup>“Ongi portatu zaizkigu Deustuko Unibertsitateko jesuitak! ZEHATZ gure aldizkari honen aurkezpenik egiten ez digute utzi. Baina, hori bai, Euskal Unibertsitatearen alde omen daude. Edo, guttienez, horrelako “zerbaiten” alde, apirilaren 29an ez baitzuten paraninfoa alferrik betearazi. “Euskal Unibertsitatea” mahai ingururako gai bezala hartuz. (Badakigu zein gutti nekatu ziren Udako Euskal Unibertsitateko bat bera ere mahaira deitzen)./ Deustuko jesuiten Euskal Unibertsitatean ez dugu sobera sinesten, Euskal unibertsitate horren aldeko lehen urrats batzu eman nahi dituen kazeta bati ateak ixten dizkionean” (ikus “Deustun ezin presentatu” *Zehatz*, 2 (1977), 155)

<sup>104</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 70)

<sup>105</sup> Antolaketaren aldetik seguru aski EKMk antolatutako euskara ikasteko eskolak hala holakoak ziren. *Zehatz* aldizkarian behintzat “ikasle bat” izeneko egileak honakoa zioen: “Ikastetxean euskarazko klaseak ematen baziren ere, jendea ez omen zen klase horietara joaten, ez bait zen nonbait pulamentu handirik ikusten.” (Ikus “E.U.T.G.n euskara zertan den” *Zehatz*, 3-4 (1978), 107)

<sup>106</sup> (Aranzadi, 1995: 529)

<sup>107</sup> (Aranzadi, 1995: 530)

### 2.5.3. Donostiako EKTtik Elhuyar Talderako ibilbidea

Deustuko Unibertsitateko EKM sortu ostean, hamarkada berrian sortutako lehenengoetariko kultur taldea Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Goi-Mailako Ingeniari Eskolakoa izan zen, (gerora bertatik sortu zen Elhuyar taldea). EKTaren izen osoa, EKMrena modura, elebitan zen: Euskal Kultura Taldea/ *Comisión de Cultura Vasca*, eta 1969/70. ikasturtean sortu zen. EKTa fakultateko ikasleen elkartearen parte zen<sup>108</sup>, eta erdaraz zein euskarazko jarduerak antolatu zituen. EKTren egiteko nagusiak hiru izan ziren: eskola-ordutegitik kanpoko euskararen irakaskuntzaren antolaketa fakultatean, ekitaldien antolaketa eta argitalpenen sustapena.

Nafarroako Unibertsitatean Donostiako campusean euskara ikasteko eskaria zegoen, eta EKTak euskara klaseak antolatu zituen. Euskararen irakaskuntzan fakultate bertako ikasleak irakasle lanean jarri ziren. Horretan aritu ziren besteak beste, Mikel Zalbide, etxetik euskalduna eta karrera hastean alfabetatu zena<sup>109</sup>, edota Pedro Miguel Etxenike heldutan euskara ikasia. Klaseak goizeko edo bazkalorduko atsedendietan ematen ziren Unibertsitatearen eraikinaren ganbaran, talde txikitik eta doan ziren, nahiz eta unibertsitateak irakasleei ez zien ezer ordaintzen<sup>110</sup>. Ganbara prestatuta zegoen marrazketa teknikorako, leku handia zen, eta aldi berean 4 edo 5 talde ari ziren euskara ikasten, bakoitza txoko batean.

Era berean, EKTak euskal kultur ekitaldiak antolatu zituen unibertsitatean, esate baterako, musika jaialdiak. Jarduera arrakastatsuak izan ohi ziren, eta ehun ikasletik gora erakar zezaketen.

EKTak 1970. urtean bi liburu argitaratu zituen, bata erdaraz, *Historia del Pueblo Vasco*, eta bestea euskaraz, *Fisika gaiak. I. Mekanika*. Euskal Herriko historiari buruzkoa bi tomotan kaleratu zuen EKTak, lehena Federiko Zabala Villabonako abokatuak emandako ikastaro baten apunteetan oinarritu zen, eta 800 aleko tirada

---

<sup>108</sup> Ikus *Historia del Pueblo Vasco* (1970) liburuko hitzaurrea.

<sup>109</sup> M. Zalbidek Patxi Altunaren *Euskara! Hire laguna* (1972) liburua erabiltzen zuen bere ikaskideei euskara irakasteko (Zalbide, 2007: 62)

<sup>110</sup> Unibertsitateko errektoretzak jakin bazekien euskara klaseak ematen zirela, eta Mikel Zalbidek gogoratzen duenez, inoiz ez zituen txarto ikusi edo iritzi. Klaseek beraz, inoiz ez zuten inongo eragozpenik izan (Mikel Zalbideren lekukotza, 2007.08.23an Zerainen egindako elkarrizketa).

berehala amaitu zen. Bigarrenean, Jose Antonio Aiestaran donostiar medikua aritu zen baita EKTko kideak ere<sup>111</sup>. Hurrengo urterako, erdarazko liburuon arrakasta ikusita, EKTko kideak obra euskaratu zuten, eta horrela argitaratu zen: *Euskal-Herriko historiaren laburpena* (1971).

Aipatutako historia liburuokin EKTak Euskal Herriko historia ezaguratzeko asmoa zuen, Fisikari buruzko liburuan, berriz, helburua beste bat zen, euskara zientzia arlorako prestatzea alegia. EKT gisa sinatutako hitzaurrean halaxe esaten zen:

“Gaurko kulturaren atal garrantzizko bat, ezpairik gabe, zientzia dugu.

Urria da benetan euskarak gaurdaino alor honetan jasotako uzta. Fisikari gagozkiolarik, hain zuzen, ez dugu lan bat besterik ezagutzen: aita Jauregik, garbizaletasun nabarmenez, gerla aurretik prestatutako liburuak.

Egoera honetaz jabeturik, bada, ikaslez eta lizentziatu berriz osatutako gazte talde batek lanari ekin diogu, hutsune hau nolarebait bete asmoz. Nonbaitetik hasi behar eta, Fisikatik hasi gara.

Lan honen helburua, ikastola maila konkretu batetarako testu liburu bat egitea baino areago, zera izan da: zientzia adaska hau maila desberdinetara egokitzeko beharrezko diren oinarriak finkatzea.”<sup>112</sup>

Aipuan ageri denez, fakultateko ikasle elkartearen baitan zegoen EKTan jada baziren pertsona batzuk euskara eta zientziaren uztarketarekin kezkatuta, gerora sortutako Elhuyar taldearen lehen iragarpena zen.

Donostiako EKTak, Gordailu proiektuaren eskariz<sup>113</sup>, ikastolarako Natur Zientziei buruzko liburuxkatxo bat kaleratu zuen: *Haizeak, euria eta klima* (1972). Liburuxka honen prestakuntzan Donostiako EKTarekin batera beste ingeniari batek parte hartu zuen, Jose Ramon Etxebarria bizkaitarrak (gerora Zientzi Fakultateko EKTko kide aktiboenetarikoa). EKTaren beste argitalpen honetan ere, geroko Elhuyar taldearen beste kezka bat agertzen zen: eskola mailarako materialen prestaketa.

---

<sup>111</sup> Hurrengo urtean, Jakin eta Etor argitaletxeek obra euskaraz argitaratu zuten (Zabala, 1971a eta 1971b). Itzulpen lanaz Jakin arduratu zen, eta zenbait itzultzaile aritu baziren ere, burua Joseba Intxausti izan zen. Etor inprimaketaz arduratu zen. Urte horretan bertan Auñamendik erdaraz atera zuen Zabalaren liburuaren edizio berri bat gaztelaniaz. Horretaz guztiaz gainera, F. Zabalaren obraren beste edizio bat atera zen euskaraz, baina oraingoan obraren laburpen gisa aurkeztu zen (*Euskal-Herriko historiaren laburpena*, 1971). Eta nolabait, euskal liburuaren merkatuan Euskal Herriko historiaren saturazio bat gertatu zela ematen duen arren, ez zen horrela gertatu, bertako historiaren eskaria handia zegoelako.

<sup>112</sup> EKTk argitaratutako *Fisika gaiak. I. mekanika* liburuaren hitzaurretik (EKT, 1970b)

<sup>113</sup> Gordailu eskola mailako euskarazko irakaskuntzarako materialak sortzeko proiektua zen eta 1968/69. ikasturtean sortu zuen ikastoletako zenbait irakaslek.

Gauzak horrela, EKTan zeuden unibertsitateko ikasle batzuk, zientzia arloko euskararen gaineko kezka zutenak eta karrera amaituta zuten beste ikasle batzuk, kezka berdintsua zuten, hots, euskara zientzia eta teknikarako egokitzea. Ikasle horiek ziren: Luis Mari Bandres, Juanjo Gabiña, Jesus Mari Goñi, Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide. Aipatutakoak biltzen hasi ziren euskaraz gai teknikoak lantzeko. Horrela sortu zen 1973. urte inguruan Elhuyar taldea<sup>114</sup>. Beraz, une horretatik aurrera unibertsitateko EKTa eta Elhuyar banatu egin ziren. EKTak unibertsitateko elkarte izaten jarraitu zuen eta Elhuyar berriz handik kanpo kokatu zen, bilerak jesuiten Donostiako egoitzan ziren. EKTak ez zuen luzaroan iraun, Elhuyar, berriz, zenbait eraldaketen ostean, oraindik bizirik dago.

#### **2.5.4. Bilboko Unibertsitateko euskal kultur elkarteak**

Bizkaiko kultur elkarteek, Donostiako EKTarekin antzekotasunik izan arren, ez zuten Elhuyar moduko proiekturik abiatu. Hala ere, Zientzia Fakultateko EKTa (Z-EKT) oso garrantzitsua izan zen, bai euskararen eta bai euskararazko irakaskuntzaren garapenerako Zientzia Fakultatean, eta zientziarako euskararen eredia eta terminologia espezializatua lantzeko. Beraz, biak ala biak jardun esparru berdintsua izan zuten, baina Z-EKT, Elhuyar ez bezala, unibertsitatean kokatuta zegoen. Segidan Bizkaiko kultur elkarteei begirada orokor bat emango diegu, garaiko kultur elkarteen giroa ezagutzeko eta Z-EKTaren emaitza bere testuinguruan kokatzeko.

*Jakin* aldizkariak Euskal Unibertsitateari dedikatutako lehen zenbakiko monografikoan (1977) Bizkaiko unibertsitateetan zeuden euskal kultur elkarteen gaineko artikulua labur bat argitaratu zuen. Bertan elkarteok aldizkarira helarazitako testua argitaratu zen. Oharrotan elkarte bakoitzak bere sorrera urtea, ibilbidea eta proiektu nagusiak aipatu zituen. Horregatik, hain zuzen ere, urte gorria balio du *Jakin* aldizkariako artikulua, lehen eskuko informazioa ematen duelako unibertsitateetako kultur elkarteen gainean. Hala badakigu Sarrikoko Euskal Ikaskuntza Taldeak (EIT) hasiera batean euskara klaseak antolatu zituela, baina 1974/75. legalki funtzionatzen hasi zenean, bestelako ekintzak ere gertatu zituela, hala nola, mintegiak eta jaialdiak

---

<sup>114</sup> Mikel Aizpuruk aipatzen du 1972an sortu zela Elhuyar taldea (Aizpuru, 2003a: 24). Seguru aski Elhuyar Taldea 1972/73. ikasturtean sortu zen.

(noski, euskara klaseez gain), eta 1975/76. ikasturtean foruei buruzko aste kultural bat antolatu zuela erdaraz (*Fueros, Estatutos, Conciertos*<sup>115</sup>).

Beste batzuk, berriz, Arte Ederren Eskolako Enbor elkarteak, euskara eskolak antolatu eta elkarte legeztazetik haragoko ekintzarik ez zuen bideratu. Elkarte gisa legeztazea izan zen kultur talde askorentzat mugarri, lehenengo fakultatean edo eskolan, eta gero handik kanpo<sup>116</sup>. Bilboko Elkanoko EKTak, sortu eta berehala, egin zuen lehenengo gauza, legeztazea izan zen, eta dirudienez, elkarte oztupo barik legezta zuen (1975an). Kasu honetan ere, EKTaren egiteko nagusia euskara eskolen antolaketa izan zen.

Legeztazea, edo gutxienez, elkartearen ikasgunean errekonozimendu ofiziala edukitzea oso garrantzitsua zen diru-laguntzak eskuratzeari begira eta euskara eskolen antolaketari begira. Elkarteek ez zuten diru sarrera propiorik, eta batzuk fakultateko dirulaguntzak jaso zituzten (adibidez, Medikuntza Fakultateko LEKTak)<sup>117</sup>, atzerapenez izan bazen ere.

#### **2.5.4.1. Zientzia Fakultateko EKTa**

Zientzia Fakultateko elkarteak (Z-EKT) antzeko kezka eta arazoak izan zituen, legeztazea, diru-laguntzen beharra, euskara eskolen antolaketa, euskal kulturaren zabalpena zentroan eta abar. Baina Z-EKT haratago heldu zen, euskara zientifiko teknikoaren prestakuntza eta fakultatean karrera euskaraz ikasteko oinarriak jarri baitzituen.

---

<sup>115</sup> (Hainbat egile, 1977: 132)

<sup>116</sup> Ingeniaritza Eskolako Kultur Elkarteak (IEKT) esate baterako *Jakin* aldizkarian honakoa zioen: “Eskolako egoera oso tamalgarria zen, ez bait zegoen euskal kultur mugimendurik. Euskaldun gazte batzuk, honen premia ikusirik, talde ttipi eta itxi bat osatu zuten orain dela zazpi urte. Bost urtez iraun zuen egoera honek, gehiago zabaldu arte. Nahiz eta lanean ihardun, ez dugu egun arte ofizialtasunik lortu. Ikastaro honen haseran, zuzendariarengandik baimena lortzea dugu helburua. Nahiz eta baimenik lortu ez, lan batzu hasi ditugu, euskarazko eskolak garrantzitsuenak izanik. Eta gure asmoa, hitz teknikoei buruzko mintegi bat finkatzea da.” (Hainbat egile, 1977: 135)

<sup>117</sup> (Hainbat egile, 1977: 132). Halaber antzerakoa aitortzen zuen Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako EKTak: “Gure problematika: gehienbat ekonomikoa, noski” (Hainbat egile, 1977: 133)

Z-EKT 1974 udan sortu zen, UEUren Udako Ikastaroetan hain zuzen<sup>118</sup>, eta estatutuak 1974/75.ean onartu ziren<sup>119</sup>. Estatutuetan agertzen denez<sup>120</sup>, elkartearen izena honako hau zen: Zientzi Fakultateko Euskal Kultur Taldea eta beronen helburuak bi ziren: unibertsitateko kideen formakuntza eta euskal kulturaren ezagutza zabaltzea unibertsitatean, mota desberdinetako ekitaldian antolatuz<sup>121</sup>.

Z-EKTK 1974/75. ikasturtetik euskara ikasteko eskolak antolatu zituen, ez ziren ofizialak eta eskola orduetatik kanpo eskaintzen ziren. 1975/76. ikasturtean euskararen irakaskuntza erabat finkatu zen, euskalduntzeko maila desberdinak bereiztu ziren eta alfabetatzea ere bazegoen. Hurrengo ikasturtean, Errektoreak eskatuta, Euskaltzaindiak Patxi Uribarren eta Agustin Ozamiz aukeratu zituen Bilboko Unibertsitateko euskara eskoletaz arduratzeko. P. Uribarrenek dioenez, fakultate eta unibertsitate eskola desberdinetako euskara eskolak antolatzeko EKTK egindako lana abiapuntu gisa hartu zuen<sup>122</sup>. Izan ere, 1976/77an Zientzia Fakultatean 400 ikasle zeuden euskara ikasten<sup>123</sup>. Bestalde, fakultateetako eskaria asetzeko, orduka ordaintzen zitzairen irakasle monitoreak hartu zituen. Zientzia Fakultateko euskara eskolak unibertsitateak ordaintzen zituen<sup>124</sup>, harik eta errektoregoak diru kopuru hori, Zientzi Fakultateko

---

<sup>118</sup> “Udako Euskal Unibertsitatearen bigarren ekitaldian, hau da 1974. urtearen udan, izan ziren elkarrizketa eta bileren ondorio bezala sortu zen Lejoako Zientzia Fakultatean Euskal Kultur Taldea eratzeke asmoa, euskara bera eta euskal kulturarekin zerikusirik zeuzkaten ekintzak, Lejoako Zientzia Fakultatean antolatzea eta aurrera ateratzea zirela talde honen helburu nagusienak” ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

<sup>119</sup> (Hainbat egile, 1977: 134)

<sup>120</sup> Ikus *Estatutos de la Asociación Cultural Vasca de Ciencias-Zientzi Fakultateko Euskal Kultur Taldea* agiria (JMTA)

<sup>121</sup> “Art. 2. – La Asociación tiene como fines % [sic]:/ -el fomentar actividades encaminadas a perfeccionar la formación universitarias y profesional./ -facilitar y colaborar en la realización de seminarios, trabajos, investigaciones, estudios, publicaciones de revistas y difusión, conocimiento e investigación de la cultura vasca en general y de su implicaciones universitarias”. Eta elkarteak antolatutako zituen ekitaldien artean estatutuetan honako hauek aipatzen ziren: “Art. 3 – Las actividades que fomentará la Asociación abarcaran los siguientes campos: / a) Científico / b) Económico/ c) Sociológico/ d) Ecológico/ e) Etnográfico/ f) Pedagógico (sobre todo, enseñanza [sic] del euskera) / g) Y aquellos temas relacionados con la cultura vasca que ayuden a una mejor formación universitaria y humana. / Art. 4 – La realización de estas actividades será a través de: a) Seminarios / b) Estudios / c) Investigaciones/ d) Conferencias / e) Festivales / f) Cursos / g) y otros medios de formación cultural” Ikus *Estatutos de la Asociación Cultural Vasca de Ciencias-Zientzi Fakultateko Euskal Kultur Taldea* agiria, data zehaztu gabe (ca. 1974/75. ikasturtea) (JMTA)

<sup>122</sup> (Uribarren, 2007: 62)

<sup>123</sup> Ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

<sup>124</sup> Nahiz eta unibertsitatea ordainketekin ez zen oso puntuala. Antza denez 1979/80. ikasturtean oraindik aurreko ikasturteko euskarazko irakasleen soldaten ordainketa egin gabe zegoen (ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

karrerako laugarren eta bostgarren mailetan sortu behar zen euskara zientifiko-teknikoko irakasgaiaren irakasleen soldatetara berbideratu zuen, *Euskal Kulturaren Beharrian Unibertsitarioetarako Lantaldearen* txostenak gomendatzen zuenari jarraituz<sup>125</sup>.

Eskola orduetatik kanpoko euskara ikasteko eskolak finantzazio gabe gelditu arren, ez ziren bertan behera gelditu ikasleen eskaria handia zelako. Hala, Z-EKTK, errektoregoaren diru-laguntzarik gabe, 1979/80an euskara ikastaroak antolatu zituen, baina ikasleek ordaindu behar zituzten (500 pezeta hilero). Ikasturte horretan 16 taldetan banatutako 186 ikasle matrikulatu ziren. Jarduera autofinantziatua izanik ere, Z-EKT saiatu zen diru-laguntzarik eskatzen, ikasleentzat klaseak oso garestiak zirelako. Dirulaguntzak lortzeko prestatutako txostenari esker, badakigu 1979/80. ikasturtean Z-EKTren egitasmoa zein zen baita aurrekontua ere. Z-EKTK, mintegiak antolatzeko, Biologiako euskara zientifikoari buruzko ikastarorako, euskarazko klaseetarako, hitzaldi sorta bat antolatzeko eta liburutegia atontzeko 806.000 pezetatako aurrekontua prestatu zuen. Ezbairik gabe, kultur taldearen egitasmoa handia zen, baina taldea ere indartsua zen, 12 irakaslek eta 50 ikasletik gora parte hartzen baitzuen.

Dekanoari baimena eskatuta, Z-EKTK fakultateko “Seminario” motako gela bat lortu zuen, baita harbel zahar bat ere. Bertan biltzen ziren eta mintegiak antolatzen zituzten. Mintegietan euskara teknikoak zientzi gaiak lantzeko zituen eragozpenak eta bideak aztertzen ziren. *Jakin* aldizkariko artikuluan agertzen denez, Bizkaiko EKTEk mintegien aldeko apustua egiten zuten:

“Fakultate bakoitzean, bertan irakasten diren espezialitateak euskaraz lantzea, euskara tekniko bat elaboratuz joatea, biharko irakasle koadroak hornitzea. Mintegiak dira, bereziki, honetarako ditugun lanabesak. Euskaraz lana sortzen duten mintegiok finkatzea dateke gaurregun gure ekintzarik nagusienetako bat”<sup>126</sup>

Mintegiak beraz, EKTEn egiteko propio ziren, baina hartara sistematikoki dedikatu zena, Z-EKT izan zen<sup>127</sup>. 1979/80. ikasturtean esate baterako<sup>128</sup>, Biologia,

<sup>125</sup> Ikus honen gainean V. kapituluaren dioguna 2.2. *Beharrianen Lantaldea* atalean.

<sup>126</sup> (Hainbat egile, 1977: 131)

<sup>127</sup> (Hainbat egile, 1977: 134)



Fisika eta Geologiakoak izan ziren. Biologiari bi mintegi antolatu ziren, lehena Zoologiari buruzkoa, eta bigarrena Biologiaren Filosofiari buruzkoa. Zoologiakoan “datorren urteko Udako Euskal Unibertsitaterako Zoologi apunteak prestatzerakoan sortzen diren arazoak konpontzeko antolatu zen”<sup>129</sup>. Bertatik irten zen UEUK argitaratutako J. M. Txurrukaren eta I. Goirienaren *Ornogabeen zoologia I: animalien ezaugarri orokorrak* (1980).

Fisikan berriz, lau mintegi antolatu ziren: Konmutazioari, Fisikako problemei, Fisikaren Historiari eta Astrofisikari buruzkoak.

“2.1.2.1.- Konmutazioari buruzko mintegia

Espezialitateko gai hau hartuz, oinarritzko materialea prestatzen ari dira, konmutazio-arloak sortzen dituen hizkuntz-problemak landuz.

2.1.2.2.- Fisikazko problemak

Mintegi honen helburua, lehen mailako ikasleentzako problema liburu bat prestatzen ari gara euskaraz, bestela ez baitute materiale nahikorik hizkuntz horretan.

2.1.2.3.- Fisikaren historiari buruzko mintegia

Asmoa Udako Euskal Unibertsitaterako ikastaro monografiko bat prestatzea da. Horretarako, Fisikaren historiako aldaketa-haroak hartu dira.

2.1.2.4.- Astrofisikari buruzko mintegia

Aurreko kasuan bezala, hemen ere ikastaro monografiko bat prestatu nahi da, U.E.U.n aurkezteko”<sup>130</sup>

Ikusten denez, lau mintegiak modu batera edo bestera, UEUekin lotuta zeuden. Konmutazioa eta Fisika problemei buruzko mintegietatik liburu bana kaleratu zen<sup>131</sup>, Fisikaren historiatik eta Astrofisikatik beste Udako Ikastaro bana<sup>132</sup>. Hala ere, mintegion xedea ez zen UEUren ikastaro eskaintza eta liburugintza indartzea, baizik euskara zientifikoaren prestatzea eta irakaskuntza unibertsitario egoki baterako bai irakasleak eta bai ikasmaterialak prestatzea. Helburu horietan, Z-EKTK UEU bidelagun izan zuen, bai euskarazko materialak argitaratzeko (orduko unibertsitateak ez zuena

---

<sup>128</sup> 1976/77. ikasturtean Natur Zientziak, Fisika eta Kimikari buruzko mintegiak burutu ziren bertan. Ez dugu informaziori topatu 1978/79. ikasturteko mintegien gainean.

<sup>129</sup> Ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

<sup>130</sup> Ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

<sup>131</sup> Fisika problemei buruzko liburua Jose Ramon Etxebarriak eta Patxi Ugaldek prestatu zuten, eta edizio berrien egokitzapenarekin, erabateko erabilera izan du liburu honek Zientzia Fakultatean gaur egun arte. Lehen edizioa 1980an kaleratu zen (*Fisika Orokorra (I). Problemak eta ariketak*) hurrengo urtean bigarren parte atera zen.

<sup>132</sup> Ikastaroez *Fisikaren historia* eta *Astronomia* izenburua izan zuten. Beraz, Astrofisika mintegitik azkenean Astronomia ikastaroa atera zen, eta beronen materiala: *Astronomiaren oinarriak I* (1980).

egiten) bai irakasleen ahozko erregistro espezializatua Udako Ikastaroen bidez trebatu eta finkatzeko.

Geologia mintegian berriz, fakultateko Geologia saileko 4 irakasle ibili ziren lehen mailako apunteak prestatzen. Geologia mintegi honetik atera zen I. Antigüedad eta beste batzuk prestatutako *Geologia orokorra: petrologia, kristalografia* (1980) liburua, UEUK argitaratu zuena. Kontuan izan behar da 1979/80. ikasturtean hasi zela karrerako lehen maila osoa euskaraz, eta irakasgaietarako ikasmaterialak behar zirela. Lehenengo maila fakultateko zenbait irakasleren ekimenez abiatu zen. Irakasle horiek 1977/78. ikasturtetik modu ez ofizial batean, irakasgaiak euskaraz ematen ari ziren fakultatean, eskola orduetatik kanpo. Hau da, erdaraz eta ohiko eskola orduetan azaldutakoa, J. M. Txurruka, I. Garcia Gurtubai, J. R. Etxebarria, J. M. Arregi eta beste irakasle batzuk eskola orduetatik kanpo berriz azaltzen zieten ikasleei euskaraz inongo errekonozimendurik ez zuten mintegietan bilduta. Mintegi horien arrakasta ikusita, bai irakasleen parte hartzearengatik, bai irakasleen trebakuntzaren aldetik, karrera euskaraz ematea posible zela esperimintatu zuten.

Mintegien ekarpena oso garrantzitsua izan zen bertan zientziarako euskara prestatu, materialak ekoitzi, euskarazko irakaskuntza abiatu eta irakasleak formatu zirelako. Baina kontuta izan behar da, mintegiek ez zutela inongo errekonozimendurik, lan zama bat gehiago zirela, are diru gastu bat ere, mintegirako materiala, fotokopiak esate baterako, partaideek finantzatzen baitzituzten<sup>133</sup>. Baina, une hartan, hori zen aukera bakarra euskarazko irakaskuntza unibertsitariora Bilboko Unibertsitatean eta hasierako Euskal Herriko Unibertsitatean izan ahal izateko.

Mintegi hauen osagarri modura, 1979/80. ikasturtean *Biologiazko Euskara Zientifikoari buruzko ikastaroa* antolatu zen Zientzia Fakultatean. UZEIren Donostiako

---

<sup>133</sup> Z-EKTK 1979/80. ikasturteetarako diru-laguntzak zituen mintegietako gastuak estaltzeko. Diru-laguntzen eskarian honakoa aipatzen zen: “Mintegietan gastatzen den diruaren gehiengoa, fotokopietan gastatzen da. / Idazten diren txostenak, mintegietako partaideen artean banatu egiten dira eta nahiz eta lotsagarria izan, kobratu ere.” (Ikus Z-EKTK prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA)

egoitzatik etortzen zen irakaslea (Martxel Aizpurua) larunbatetan, hamabostean behin. Bertan parte hartu zuten zenbait irakaslek eta ikasleetako batzuk<sup>134</sup>.

Bestalde, arestian aipatutako Z-EKTren 1979/80 ikasturterako egitasmoan aipatzen zen ikastaro zein ikasmaterialen prestakuntzari begira oinarritzko liburutegia antolatzeko proiektua. Liburutegia bi bilduma mota nagusitan banatzen zen: alde batetik produkzio argitaratua, gehienbat hizkuntzari zegozkion argitalpenak, euskarazko hiztegiak, gramatikak eta abar, baita goi mailako euskarazko zein erdarazko aldizkariak ere<sup>135</sup>. Eta bestetik, euskaraz aurkeztutako tesinen bilduma<sup>136</sup>. Lehena, Zientzia Fakultatean 1974an Jacinto Iturbek aurkeztu zuen<sup>137</sup>, eta laster beste batzuk ere horrela aurkeztu ziren.<sup>138</sup> Baina orduan bakarrik aipatzen ziren tesinak, oraindik nahiko urrun ikusten zelako doktorego-tesiak euskaraz aurkeztu ahal izatea. Egia esan, laster etorri zen lehen tesi hori Zientzia Fakultatera Juan Mari Agirregabiriaren eskutik: *Tetramomentu lineala eta angeluarra ingurune jarraien eta interakzionatzen ari diren partikulen sistemen mekanika erlatibistan* (1981).

Gregorio Monrealek 1981. urtean sortu zuen Euskararako Kabinete Teknikoaren laburdura EKT zen. Laburdura hori bilatua izan zen, Z-EKTko kideek eragindakoa,

---

<sup>134</sup> Esate baterako Jesus Mari Txurruka, etxetik euskalduna, 1977an irakasle laguntzaile gisa kontratatua izan zenean Zientzia Fakultatean, aldi berean alfabetatze orokorra egin zuen Z-EKTak antolatutako euskara klaseetan eta alfabetatze zientifikoa M. Loinazekin (une hartan Z-EKTko arduraduna zena).

<sup>135</sup> “Z.E.K.T.-ko mintegiak prestatzeko, batez ere, erabili behar den oinarritzko bibliografiaren faltan daude; hizkuntzarekin zerikusirik daukaten liburuen arloan dago gure urritasun handiena eta nabariena. Hiztegia, eta Euskal Gramatikari, Euskal Linguistikari, Euskal Sintaxiari, Euskara Zientifikoari buruzko liburuak eta apunteak, pertsonalki eta banan-banan lortu behar ditugu, gerotxoago laguneren artean erabiltzeko. / Bestalde, euskal aldizkariak ere irakurri egin behar dira, batez ere zientziarekin zerikusirik daukatenak: JAKIN eta ELHUYAR, halegia.” Ikus Z-EKTk prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA).

<sup>136</sup> “Are gehiago, Zientzi Fakultatean euskaraz idatzi eta irakurri diren, eta egunetik egunera sarriago irakurriko diren tesinak lortzeko, gordetzeko eta kontsultatzeko aukera, denok eduki beharko genuke” (Ikus Z-EKTk prestatutako dokumentua diru-laguntzak eskatzeko, data zehaztu gabe (ca. 1979/80. ikasturtea) (JMTA).

<sup>137</sup> J. Iturbek bere tesina Bilboko Unibertsitatearen Zientzia Fakultateko Kimika Fisikoa Sailean aurkeztu zuen: *Hartree-Fock-en methodoaren hurbiketa erdienpirikoak* (1974).

<sup>138</sup> 70eko hamarkadan euskaraz aurkeztutako tesina askotan Jose Ramon Etxebarriak parte hartu zuen testua idazten laguntzen eta zuzentzen. Etxebarria honakoetan parte hartu zuen: *Ur disoluziotan koloratzaileek duten espektroskopik konportamoldea* (Itziar Urretxa, 1975); *Euskarri geldoa / polimero grabimetrik erlazioaren influentzia kromatografik prezipitazioaren frakzionamenduan* (Mertxe Renovales, 1975); *Errotatze higiduran dagoen disko baten problemari buruz* (Begoña Zurimendi, 1978); *Formalketa eta errigorearen sarrera Analisisian* (Maria Jesus Esteban, 1978); *Kontrolako sistema ogiko programagarri baten analisisa eta eraiketa* (Luis Emaldi, 1978); *Koltxizinarene efektuak Triticale primarioen produkzioan* (Sira Aiertza, 1979); eta *Euskararen entropia* (Edurne Biritxinaga, 1979)

Kabineteak EKTen lekukotza hartzea nahi zutelako. Izatez, hasierako urteetan Kabinetearen egitekoa unibertsitateko euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren kudeaketa izan zen (ordurarte EKTek egindakoa).

## **2.6. Irakasle Eskolak: irakasle euskaldunak sortzen**

Ikastola eta eskola publikoetan irakasle euskaldun tituludunak behar ziren 70eko hamarkadan. Euskal Herrian zeregin horretan aritutako bi motatako irakasle eskolak bereizi behar dira: ekimen pribatuko Irakasle Eskolak eta Irakasle Eskola publikoak. Hegoaldean iniziatiba pribatuko hiru Irakasle Eskola sortu ziren 70eko hamarkadan: Bilboko Elizbarrutikoa (1973)<sup>139</sup>, Donostiako Gotzaindegiarena (1977)<sup>140</sup> eta Eskoriatzakoa (1978). “Hiruren xedea euskarazko irakaskuntza eskaintzea zen, nahiz eta kasu batzuetan ikasle erdi-euskaldunak onartu edo talde erdaldunak eduki”<sup>141</sup>. Publikoetan berriz, ikusiko dugunez, irakasle euskaldunen formazioa urte batzuetako prozesu baten ondorioz, eta, beti ere, erdal lerroa arriskuan jarri gabe, posible izan zen. Ekimen pribatukoetan berriz, erdal lerroa desagertu egin zen.

Eskoriatzako Irakasle Eskola, esate baterako, Debagoieneko hezkuntza kooperatibak batzen zituen Hezibide elkarteak (1976) sortu zuen euskal maisu-maistrak prestatzeko. Laster lerratu zen ikastoletarako irakasle euskaldun titulu gabeen titulu eskaria asetzera. Hasieran, eskolak ez zuen ofizialtasunik eta Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren gela moduan hasi zen eskolak ematen. 1978an Bilboko Unibertsitatean sartu zen eta ofiziala bihurtu zen<sup>142</sup>. Hala, 1979an Eskoriatzako Eskolaren lehen irakasle diplomatuen promozioa irten zen (39 irakasle guztira). Ikusten denez, Irakasle Eskola pribatuetan taldeak txikiak ziren, publikoetan, berriz, taldeak askosaz handiagoak ziren.

---

<sup>139</sup> Bilboko Elizbarrutiko Irakasle Eskola 1975an Derioko Apaiztegira lekualdatu zen (Lopez Atxurra, 1995: 69)

<sup>140</sup> “Se crea la Escuela Diocesana de Magisterio de San Sebastián con objeto de atender a la demanda de maestros formados en la cultura vasca y en su dimensión cristiana de la educación” (Lopez Atxurra, 1995: 69)

<sup>141</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 35)

<sup>142</sup> Iturria. Wikipedia (“Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea” artikulua <http://eu.wikipedia.org/wiki/Huhezi> [kontsulta data: 2008-12-15])

Bilboko Irakasle Eskola, oso aspaldikoa da. Gaur eguneko eskolaren aurrekaria *Escuela Normal de Maestras de Vizcaya* 1902an sortu zen<sup>143</sup>. Orduz geroztik egoitza desberdinak izan zituen, baina 1962an gaur eguneko kokalekuan, Deustuan ezarri zen. Eskola ez zen Bilboko Unibertsitatean integratu 1972. urtera arte<sup>144</sup>. Eskolaren eskaintza gaztelaniaz zen Franco hil arte. Urte horretan, Bilboko Unibertsitatearen errektoreak, Euskaltzaindiari Bilboko Irakasle Eskolan euskara ikasteko eskolak abiatzeko proposamena egin zion<sup>145</sup>. Euskaltzaindiak Irakasle Eskolan euskara ikasteko klaseen arduradun Patxi Uribarren izendatu zuen. P. Uribarren 1976/77. ikasturtean hasi zen eskolak ematen Bilbon<sup>146</sup>, Agustín Ozamizekin batera.

Bilbokoa martxan jarri zen urte berean abiatu ziren euskara ikasteko klaseak Donostiako Irakasle Eskolan, baina bertakoak Gipuzkoako diputazioaren ekimenez abiatu ziren. Diputazioak Donostiako Irakasle Eskolan euskara eskoletaz arduratuko zen euskara katedra bat finantzatu zuen, eta Euskaltzaindiak bertako burua aukeratu zuen<sup>147</sup>. Juan Antonio Letamendia idazlea eta euskaltzain urgazlea izendatu zuen Akademiak. Baina diputazioak emandako diru partidarekin bigarren pertsona bat izendatzea posible izan zen, eta Euskaltzaindiak Jose Antonio Mujika Casares aukeratu zuen<sup>148</sup>. Euskaltzaindiarentzat gai hau ez zen berria, zeren jada urte batzuk lehenago, 1966an, Irakasle Eskoletan Euskal Filologia katedra bat sortzeko komenientzia aipatu zuen Xabier Gereñok<sup>149</sup>.

---

<sup>143</sup> Beronen aurrekaria *Escuela Normal de Maestros* izan zen eta 1868-1901. urteen artean funtzionatu zuen (Davila, 1995a: 206)

<sup>144</sup> Ikus BOE, 106. zkia, 1972ko maiatzaren 25eko Dekretua.

<sup>145</sup> (Uribarren, 2007: 61)

<sup>146</sup> Patxi Uribarrenek dio 1975/76an hasi zela Bilboko Irakasle Eskolan (Uribarren, 2007: 62), eta ordurako Donostiako Irakasle Eskolan J.A. Letamendia eta J. A. Mujika hasita zeudela (Uribarren, 2007: 61). Baina Euskaltzaindiaren Batzar-agiriaren arabera, J. A. Mujika 1976ko abenduan aukeratua izan zen, Hortaz, P. Uribarren 1976/77. ikasturtean hasi zen.

<sup>147</sup> “Diputazioaren gutuna irakurri da, Gipuzkoako Escuela Universitaria del Profesorado de Enseñanza General Básica delako eskola honetan Euskal Hizkuntzaren katedra sortzeaz, probintziako eskoletarako irakasleak gertatzeko. Irakaskintza hau 1976-77 kursoan hasiko da. Euskaltzaindiaren laguntzaz eraturik. Lehen kurso honetarako 250.000.- pezetako laguntza eskainiaz. Eskerrak ematea erabaki da.” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.10.29)

<sup>148</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.12.27)

<sup>149</sup> “Gereño-ren karta bat irakurri da. Dio Euskaltzaindiak eskabide bat egin behar liokeala “Ministerio de Educación y Ciencia”-ri Euskalerriko Majisterio Eskoletan euskeraren katedrak ipiñi ditzaten edo behintzat kurso batzuk bertan ikasten duten maisu-maistrentzat. Estudiatu bedi zeatz gauza au. Lojendiori eskatu zaio arakatu ondoren iritzi bat ekar dezan. Esan da, gaiñera, Majisterio Eskoletan bertan ere komeni litzakeala nolako giro dagoen ikustea.” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.7.24). Hurrengo hilean Xabier Gereñok proposamen anbiziosoa egin zion Euskaltzaindiari: “Gero Gereño-ren karta bat irakurri da. Urrengo proposamendu au egiten du: Euskaltzaindiak “Educación y Ciencia”-ko

Horrela abiatu ziren, Bilboko eta Donostiako Irakasle Eskoletan euskara ikasteko klaseak. Lehen urteetan euskara ikasteko eskolak ez ziren ikasketa ofizialen parte, eta ordutegi txarrenetan ematen ziren, baina urte gutxiren buruan egoera hobetu zen. Bilboko Irakasle Eskolan, esate baterako, honakoa gertatu zen: hasieran, Irakasle Eskolarako irakasle bat kontratatu zen eskolak emateko eta taldeak koordinatzeko (P. Uribarren), hala ere, eskolak ez ziren ofizialak eta ordutegirik txarrenak zituzten (1976/77). Lehen ikasturte honen balantzea ez zen bat ere ona izan. P. Uribarren eta J. A. Letamendiak horixe jakinarazi zioten Euskaltzaindiari<sup>150</sup>. Ondoren, 1978/79. ikasturtean, euskara ikasteko eskolak ez ofizialak izaten jarraitu arren, Bilboko Irakasle Eskolan –baita beste zentro eta fakultateetan ere– ohiko ordutegien barruan txertatu ziren<sup>151</sup>. Bestalde, ikasturte horretan Euskal Filologia espezialitatea abian jarri zen (eta horiek euskarazko lehen ikasketa ofizialak izan ziren aipatutako Irakasle Eskolan). Azkenik, 80ko hamarkadaren lehen erdialdean eskolaren edozein espezialitateko irakasgaia euskaraz ikas zitekeen. Segidan prozesu osoa zelan gauzatu zen azalduko dugu.

### 2.6.1. Bilboko Irakasle Eskola

P. Uribarrenek eta A. Ozamizek, Bilboko Unibertsitatearen ikastetxeak elkarren artean banatu zituzten. P. Uribarrenek Bilbon kokatutako zentroak hartu zituen, eta A. Ozamizek Leioakoak. Biek ala biek ikastetxe unibertsitario bakoitzeko euskal kultur taldeek bai Leioan eta bai Bilbon ordura arte antolatutako euskara eskolak aurkitu zituzten, eta aurre lan horri jarraipena ematen saiatu ziren. P. Uribarrenek kontatzen duenez, Bilboko Irakasle Eskolan bere egitekoak hiru izan ziren: lehena, euskara

---

Ministroari eskabide bat egitea. 7. Urtero bost milloi pezeta guri ematea Euskaltzaindiaren lanetarako. 2. Euskera sar dezatela Euskalerrian dauden Magisterio Eskoletan ikasi beharreko izkuntza bezala. 3. Euskera izan dedilla karreratan ikas ditekian izkuntza bat, frantsesa, inglesa eta kanpoko beste izkuntzen parean. 4. Lenengo maillako eskoletan, euskeraz egiten dan errietan, bilinguismoa sar dezatela” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.7.29). X. Gereñoren eskaria ez zen makala, eta Euskaltzaindiak X. Gereñoren proposamena onartu, eta ministeriora bidali aurretik lege gizonen eskutik pasatzea erabaki zuen.

<sup>150</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.6.24)

<sup>151</sup> Juan Luis Goikoetxeak errektorearentzat prestatutako txostenean aipatzen da (“Con las circulares del Sr. Rector a los Decanos de las diversas Facultades acerca de las cuatro horas semanales y la concreción material del Centro de Euskara, empezaban a realizarse las decisiones tomadas en la Junta de Gobierno”) (Ikus “Informe del centro de euskara de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales” 1978ko abenduaren 14ko data du txostenak, JMTA)

eskolak antolatzea, ordurartekoak hala-hola antolatzen baitziren; bigarren, Irakasle Eskolan Euskal Filologiako espezialitatea prestatzea; eta hirugarren eta azkenik, Euskal Filologiako espezializazioetatik kanpo euskara ikasgaia sartzeari<sup>152</sup>.

Lehenengo egitekoa euskara eskola antolatzea zen, eta horri ekin zion. Hasteko, irakasle laguntzaileak topatu behar izan zituen. Hainbat ikasle zegoen Irakasle Eskolan euskalduntzeko edo alfabetatzeko prest. P. Uribarrenek, irakasle laguntzaileak hartu zituen, eta euskara talde txikitik ematen saiatu zen. Beraz, P. Uribarrenek klaseak ematen zituen eta aldi berean, taldeen koordinatzailea ere bazen. Arazorik handienetakoa euskara klaseak emateko irakasle gaituak aurkitzea izan zen. Batetik, aurreko urteetan Bilboko Irakasle Eskolan borondate hutsez eta modu ez ofizial eta ordutegietatik kanpo euskara ikasten ibilitakoak bildu zituen, egoera azaldu, eta euskara klaseetan beraiek irakasle izateko aukera eman zien. Lana orduka ordainduko zen, baina orduak noiz kobratuko ziren ez zegoen argi, ezta azkenean kobratuko zuten ere. Bide honetatik P. Uribarrenek irakasle batzuk lortu zituen. Gueskoletatik irakasle gehiago lortu zituen, bere irakasle taldea osatu arte. Lehenengo ikasturtean honela moldatu bazen ere, bigarreneko unibertsitateak kontratazio berriak egin zituen. Unibertsitateak lau irakasle-postu ofizial sortu zituen eta merezimenduzko deialdi bidez, lau pertsona aukeratu: lehendik zeuden P. Uribarren eta A. Ozamiz, eta beste berri bi, Juan Luis Goikoetxea eta Karmele Rotaetxe. Epaimahaiko kideak hiru pertsona izan ziren: Koldo Mitxelena, Alfonso Irigoien eta Jose Ramon Etxebarria (EKTren izenean). Oro har, J. L. Goikoetxeak Uribarrenekin lan egin zuen Bilbon eta K. Rotaetxek A. Ozamizekin Leioan<sup>153</sup>. Aipatutako lau irakasleek, irakasle laguntzaileak hartzen zituzten talde guztietara heltzeko. Esate baterako 1977/78. ikasturtean Sarrikon, Bilboko Irakasle Eskolan eta Arte Ederretan 27 talde egon ziren euskara ikasten<sup>154</sup>. Ikusten denez,

---

<sup>152</sup> “Bertara joan nintzenez hiru alorretan jardutea eskatu zidaten, euskarari Irakasle Eskolan leku ofiziala egitea lortzeko. Lehen eta behin, ordura arte ikasleek hala-hola antolatzen zituzten eskolak nire gain hartu eta ahalik eta erarik egokienean bideratzekoa. Ordura arte eskola orduetatik kanpo ematen ziren eta pixkanaka eskola orduetan ematea lortu behar nuen. Horrekin batera, irakaskuntza-munduan euskal irakasleak behar zirenez, horretarako bide sendoak ezartzeko euskal filologiako plana prestatu beharra zegoen. Hori zen urte horretan zehar egin behar nuen bigarren egitekoa. Azkenik, euskara beste adar guztietan ere ikasgai modura ematea lortu behar zen ofizialtasuna lortzeko urratsak emanez” (Uribarren, 2007: 62)

<sup>153</sup> (Uribarren, 2007: 64)

<sup>154</sup> Talde ez ziren oso handiak 21 ikasle baino gutxiago zituzten. Datua J. L. Goikoetxeak prestatutako dokumentu honetatik atera ditugu: “Informe del centro de euskara de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales” 1978ko abenduaren 14ko data du txostenak (JMTA)

euskara eskolen eskaria handia zen. Baina irakasle prestatuak topatzea ez zen erraza, eta normalean irakasle koordinatzaileek (P. Uribarrenek, J. L. Goikoetxeak,...) goiko mailetan eta alfabetatzean ematen zuten klase.

Bilboko Irakasle Eskolan P. Uribarrenen bigarren egitekoa Euskal Filologia antolatzea izan zen. Donostiako eta Bizkaiko Irakasle Eskoletako euskara irakasleak Euskal Filologiarako plana prestatu eta errektoreari aurkeztu zioten. Honek K. Mitxelenarekin landu zuen plana eta ondoren P. Uribarren eta L. Villasante euskaltzainburuarekin bildu zen hartaz guztiaz berba egiteko. Azkenean, errektoreak erabaki zuen 1978/79. ikasturtetik aurrera Euskal Filologia abiatzea, baina aurretik klaustroaren onarpena lortu behar zuen eta aurrekontuak prestatu behar ziren<sup>155</sup>. Euskaltzaindiak presioa egiteko 1978ko irailean Bergarako biltzarrean gai hau eztabaidatzeaz gainera<sup>156</sup>, biltzarraren amaierako adierazpen akademikoan, euskararen batasuna berrestez gainera, irakasle euskaldunen prestakuntzaren gainean honako eskaria egin zuen:

“Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, “Ministerio de Educación y Ciencia” eta “Ministère de l’Éducation” direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalena eman ditzaten, beharrezko baita:

- a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta,
- b) Euskal Herriko eskola horietan guztietan sor dadin Filologia Euskal saila”<sup>157</sup>

Ikusten denez, Euskaltzaindiak lehentasunezkoa jo zuen unibertsitateak irakasle euskaldunak formatzea, eta ez zuen beste ezer aipatu, unibertsitateko beste irakaskuntzen euskarazko eskaintzaren gainean.

Azkenean, Bilboko Irakasle Eskolan Euskal Filologia 1978/79. ikasturtean abiatu zen. “Horrela, gaztelania izan ezik, gai guztiak euskaraz izango zituzten euskal filologiakoek”<sup>158</sup>. Aldi berean, euskara ikasteko eskolak ematen ziren (Euskal Filologia egiten ez zutenentzat). Unibertsitateak irakasle euskaldunak kontratatzeke deialdia atera

---

<sup>155</sup> (Uribarren, 2007: 63)

<sup>156</sup> Ikus eztabaidaren gainean aurrerago 3.2.4.1. *Irakasle Eskola Euskaltzaindiaren jomuga* atala.

<sup>157</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 866)

<sup>158</sup> (Uribarren, 2007: 64)



zuen. Bertan lizentziatura titulua eskatzen zen eta Euskaltzaindiko D mailako titulua<sup>159</sup>. Kontratazioak kontratazio, lan handia zegoen garai hartan, eta lehendik zeuden irakasleen lan zama areagotu egin zen. Juan Luis Goikoetxea esate baterako, euskara eskolak emateaz gainera, Euskal Filologian ere aritzen zen, eta errektorearentzat prestatutako txostenean honakoa zioen:

“Para concluir con ésta breve exposición, debo reconocer las limitaciones con las que me encuentro en la realización, de mi cometido. Fui designado para coordinar las clases de las Facultades de Bellas Artes y Económicas, además de las de la Escuela del Profesorado de E.G.B. En la citada escuela amén de la coordinación de las (sic) clases de euskera en el horario de la tarde, debo impartir cinco horas de clase en la recién creada Filología Vasca. Imparto cursos \_\_\_\_ [?] horas de clase a los alumnos de alfabetización, a la vez que estoy designado para supervisar las prácticas de los alumnos de magisterio que hablan euskara. Todo ello, unido a las reuniones ordinarias con el profesorado y representantes de alumnos, sin olvidar las numerosas sesiones de trabajo motivadas por la adaptación de un método nuevo, hace que difícilmente pueda acudir a los claustros, garantizar mi presencia en los centros de euskara y mantener el nivel de calidad mínimamente exigible en mi puesto de trabajo”<sup>160</sup>

Horregatik guztiagatik, euskara eskolen koordinazioaz hobeto arduratzeko J. L. Goikoetxeak eskatu zuen hurrengo ikasturtean (1979/80) Euskal Filologia koordinatzeko ardura eta bigarren mailara pasako zirenen materialen beharrezana planifikatzeko ardura biak kentzea. Euskara eskoletaz arduratzea ez zen makala, 1978/79. ikasturtean 21 ikaslez osatutako 21 talde zituen Sarrikon (guztira, 446 ikasle), eta hurrengo ikasturtean ere beste hainbeste talde izango ziren.

Ikusten denez, unibertsitateko euskara irakasle izatea ez zen lanpostu erakargarria, ordu asko eta txarto ordainduta zegoen. Horri guztiari gehitu behar zaio, J. L. Goikoetxeak kontatzen duenez, giro politikoa oso nahasia zela, estatuak zer egingo zuen ez zegoen argi, alderdi politikoak sortu eta desagertzen ziren eta abar. Unibertsitateko giroa ere nahasia zen, irakasle ez numeroak (PNN) mobilizatzen ziren, ikasleak ere (itxialdiak egiten zituzten, grebak eta abar), unibertsitatea bera egonkortu gabe zegoen, estatutuak berri behar zituen (Bilboko Unibertsitatearenak, hau da, 1970ekoak), ez zegoen argi euskararen ofizialtasuna unibertsitatera helduko zen... Hala, 1979tik aurrera institutuetan euskara katedrak sortu zirenean, unibertsitatean euskara

---

<sup>159</sup> Patxi Uribarrenek kontatzen du hautaketa prozesua nola izan zen, eta sortutako zailtasuna euskara tituluarekin, askok ez zutelako (Uribarren, 2007: 65)

<sup>160</sup> J. L. Goikoetxeak prestatutako dokumentu honetatik: “Informe del centro de euskara de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales” 1978ko abenduaren 14ko data du txostenak (JMTA)

irakasle gisa ari ziren askok eta euskara/euskaraz irakasten jarraitu nahi zutenek, institutuetera jo zuten. Bertan segurtatuta zegoen, unibertsitatean ez bezala, bai lanpostua bai euskararen irakaskuntza. Unibertsitatean euskara irakasteko giroa ez zen batere egokia, ikasle asko ez zen klasera joaten, grebak deialdiengatik edo deialdirik gabe, eta inoiz mobizilizazioek eragin zuzena izaten zuten euskara eskoletan. Behin, esate baterako, ikasleen itxialdi batean euskara irakasleak gau osoa pasatu behar izan zuten Irakasle Eskolako itxialdikoekin. Giroa unibertsitatean beraz, ezbairik gabe euskararen aldekoa zen, baina ez zen, hala ere, oso aproposa euskara irakasteko, horregatik irakasle askok institutuetera jo zuten, oposaketetara, agregaduria eta katedrak eskuratzeko. P. Uribarrenek kontatzen duenez, “hasierako hainbat irakaslek halakoetara jo zuten, unibertsitateko postuak ez baitziren bat ere finkoak. Ordaindu ere askoz gutxiago ordaintzen zen. Hori zartada handia izan zen, baina, berriro ere finkatuz joan zen euskarako irakasle taldea eta urte gutxiren buruan zeharo normalizatu zen euskararen egoera”<sup>161</sup>. Izan ere, 1980/81. ikasturtean Bilboko Irakasle Eskolan zenbait espezialitatetako lehenengo mailako irakasgaiak euskaraz ikas zitezkeen, eta 1982/83tik aurrera Irakasle Eskolako espezialitate guztiak eta karrerako irakasgai guztiak euskaraz egiteko aukera egon zen<sup>162</sup>. P. Uribarrenek burutu zituen beraz, 1976an Irakasle Eskolan sartu zenean ezarrita zituen hiru egitekoak.

Laburbilduz, Bilboko Irakasle Eskolan, 70eko hamarkadaren lehen erdialdean eskaintza akademikoa absolutuki gaztelaniaz zen, baina aipatutako hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera euskara sartzen hasi zen. Hasiera batean euskal hizkuntzaren irakaskuntza zen, euskalduntze edo alfabetatzea. Ikasle ugari parte hartzen zuten, baita irakasle batzuk ere, baina ordutegiak oso txarrak ziren. Klase horiek ematen zituzten irakasle laguntzaileen egoera laborala eskasa zen, orduka kobratzen zuten eta ez ziren unibertsitateko irakasleak, euskalduntze alfabetatzean ari ziren pertsonak baizik. Hau da, euskaltegian klaseak eman beharrean unibertsitatean ematen zutenak. Ondoren, Euskal Filologia abiatu zen 1978. urtean eta ordurako euskara irakaskuntza ofizial eta arautuan parte hartzen hasi zen. Lau urte beranduago euskal lerroak antolatu ziren espezialitate guztietan. Beraz, euskararen irakaskuntza euskarazko irakaskuntzaren bezpera izan zen.

---

<sup>161</sup> (Uribarren, 2007: 79)

<sup>162</sup> (Lopez Atxurra, 1995: 71)

Ikusi dugunez, Bilboko Irakasle Eskolak oso urte gutxitan euskara txertatu zuen ikastegiaren eskaintza ofizialean. Beste fakultate batzuetan, adibidez Medikuntza Fakultatean, oraindik orain (2009an) ezin da karrera osoa euskaraz ikasi. Medikuntza zein Bilboko Irakasle Eskolak abiapuntu berdinak zituzten:

- Eskola orduetatik kanpo eta ofizialak ez ziren euskara eskolak.
- Euskararen eskari handia. Unibertsitatean euskara ikasi nahi zuten pertsonen taldea oso handia zen (1978/79. ikasturtean Medikuntza Fakultatean 30 euskara talde zeuden).
- Ikastegiko irakasle askoren kontrako jarrera. Irakasle asko garai frankistan sartutakoak ziren, eta euskararen sarrera begi txarrez ikusten zuten<sup>163</sup>.
- Bilboko Unibertsitateko errektorearen babes. Une hartan Martin Mateo zen errektore, eta berak argi zuen euskarak ere etorkizuna eduki behar zuela, euskara eskolak unibertsitatean ere antolatu behar zirela. Izan ere, euskara irakasleak, berarekin noiznahi bildu zitezkeen bere bulegoan, eta zuzenean berarekin tratatzen ziren euskara klaseen gaineko kontuak<sup>164</sup>.

Baina irakasle eskoletan zenbait faktorek bat egin zuten, eta horri esker eskaintza akademikoaren euskalduntzea azkar azkar eman zen:

- Irakasle eskola publikoek aurre egin nahi zioten ekimen pribatuko irakasle eskolek ezartzen zieten lehiari. Pribatuko eskaintza euskarazkoa zen, eta

---

<sup>163</sup> P. Uribarrenek Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzarrean bere ikastegiko irakasleei buruz honakoa esan zuen: "... eta nik uste dut, gaur egunez, Magisterioko eskoletan, euskararik ez badago, eta euskarak behar duen tokirik ez badago, arrazoi batengatik bakarrik dela: Francoren denboran aukeratutako irakasleak daude, eta ahalegin guztiak egiten dituzte euskara sar ez dadin" (Euskaltzaindia, 1978: 544). Antzera mintzatu zen J. A. Letamendia Donostiako Irakasle Eskolako klaustroetaz, bertako giroa ez zelako gozoa: "Dena dela, borroka hauek oso zailak dira klaustro hoietan. Uribarren Patxik esan duen bezala, askotan jendea lehendik jarria delako eta ez edozein arrazoiengatik jarria, pertsona bereziak zirelako eta askotan hoiien aurka borrokatu behar" (Euskaltzaindia, 1978: 547)

<sup>164</sup> Juan Luis Goikoetxearen lekukotza, 2007.06.18an Derion egindako elkarrizketa.

ikasle asko galtzeko arriskua zegoen. Hain zuzen ere argumentu hori erabili izan zuten irakasle euskaldunek, Bilboko Irakasle Eskolan euskara txertatzearen kontra zeudenen aurrean. Hala irakasleak “beren gogoen kontra izan arren, euskarari ateak zabaltzea onartu zuten”<sup>165</sup>.

- Bestalde unibertsitateko euskaltzaleek eta haren inguruan zebiltzan erakundeak, Euskaltzaindiak edota Eusko Kontseilu Nagusiak esate baterako, unibertsitateko beste ikastegiekin alderatuz, irakasle eskolak estrategikotzat jo zituzten. Bertan irakasleak formatzen zirelako, Pedagogian eta Didaktikan irakasle euskaldunak, hain zuzen ere, bai ikastoletarako, bai eskola publikoetarako, bai helduen euskalduntze-alfabetatzean aritzeko. Garaian irakasle euskaldunen eskaria oso handia zen, hizkuntzaren normalizazioa hezkuntzaren bidetik planteatu zelako gehien bat, eta horretarako irakasle euskaldun asko behar ziren, bai umeekin aritzeko ikastola eta eskoletan, bai helduen euskalduntze-alfabetatzean. Hala, planteamendua honakoa zen: irakasle euskaldun batek pertsona gehiago euskaldundu zitzakeela, mediku euskaldun batek baino.

Aipatutako bi faktoreek berebiziko eragina izan zuten euskarazko eskaintza Irakasle Eskoletan unibertsitateko beste ikastegietan baino arinago inplementatu zedin. Beste fakultate eta unibertsitate eskoletan euskararen sarrera, bilakaera, erritmo, botere oreka eta faktore eragileak oso desberdinak izan ziren. Beraz, ikastetxeen arabera hainbat egoera bizi izan ziren. Laburbilduz, Irakasle Eskolan ikusi dugun bilakaera ez zen ohikoa izan, eta zentro unibertsitario bakoitzean euskararen historia zein zen aztertu beharko litzateke, tokian toki euskararen sarrera desberdin orekatu eta bilakatu zelako. Hain zuzen ere, prozesu ugari horiek ezagutzeak asko lagunduko luke Komunitate Zientifiko Euskaldunaren gaur eguneko zenbait ezaugarri azaltzen. Adibidez, litekeena da euskaraz gutxi garatutako jakintza-arloak euskararen unibertsitateko sarrera berantiarraren isla izatea.

---

<sup>165</sup> (Uribarren, 2007: 66)

Amaitzeko argitu behar da, UPV/EHUko Irakasle Eskoletan euskararen sarrera goiztiarra izan zen arren, horrek ez duela esan nahi ezein kasutan ikastegiaren euskalduntzea, baizik ikastegiko eskaintzaren euskaratzea gertatu zela, gerora noski zentroaren euskalduntzea erraztuko duena. Hau da, unibertsitatean euskaraz egiten zena, ez zegoen unibertsitatera bideratuta, ez zen unibertsitaterako, handik kanpora aplikatzeko baizik, umeen irakaskuntza eta helduen euskalduntze-alfabetatzerako. Horregatik euskara irakasleak, ez ziren unibertsitateko irakasleak, baizik unibertsitateak orduka ordaintzen zituen euskaltegi edota gaueskoletako irakasleak. Kasu honetan irakasle hauek euskaltegian klaseak eman beharrean, unibertsitatean ematen zituzten, baina ez zen beste diferentziarik. Juan Luis Goikoetxeak aipatzen du, berau ibilia zela euskaltegietan klaseak ematen, D mailako titulua eskuratzeko kurtsoak ematen, testugintza prestatzen, metodoak egokitzen, hiztegiak egiten, alfabetatze kanpainetan, hitzaldiak ematen herrietan eta abar. Beraz, haren hitzak erabilia “mugimendu oso bat martxan jarri zen unibertsitatean, unibertsitateagaz, baina ez unibertsitaterako”<sup>166</sup>. Eta ikuskera hori nagusi zen, errektoretik hasi eta Euskaltzaindiraino.

## **2.7. Euskal Herriko eta AEBko euskal ikasketen arteko aldeak**

Euskal Herriko ikasketa zentro unibertsitarioetan euskararen presentzia zein zen ikusi dugu. Segidan Euskal Herriko eskola horiek AEBn gertatzen zenarekin konparatuko ditugu, bien arteko aldea agerrarazteko asmoz.

Nevadako Unibertsitatean 1967an hasi zen Euskal Ikasketen programa (*Basque Studies Program*). Programa honen lehen egitekoa euskal ikasketak AEBn egin ahal izateko liburuak eta materialak biltzea izan zen. Horrela sortu zen *Basque Studies Library*. Programak kontratatutako lehen ikertzailea William Douglass izan zen, eta hurrengo urtean Jon Bilbao euskal bibliografo ezaguna sartu zen. Programa honek 1969tik aurrera AEBko ikasle ingeles hiztunei eskaini zizkien euskal hizkuntza

---

<sup>166</sup> Juan Luis Goikoetxearen lekukotza, 2007.06.18an Derion egindako elkarrizketa.

eskolak<sup>167</sup>. Ikusi dugunez, Euskal Herrian 1969an unibertsitatean euskara eskolak baziren, Euskerazaleak elkarrekin antolatuta, baina modu ez ofizial batean ematen ziren. Ofizialtasunik gabe jarraitu zuten Hego Euskal Herrian 70eko hamarkadaren bigarren erdialdera arte. Noski, AEBren egoera politikoa eta Euskal Herrikoa ez ziren berdinak, bata *askatasunaren* lurraldea zen, eta Hegoaldea behintzat, diktadura politiko baten menpean zegoen. Bestalde AEBko euskara eskolak ofizialak baziren ere, eta Hegoaldeko fakultate eta unibertsitate eskoletan ematen zirenak ofizialtasunik gabeak, (ordutegi txarretan, eta curriculumetik kanpokoak orobat), potentzialki eragin handiagoa zuten, hizkuntzaren normalizazioan eta gizarte antolaketaren erresistentzia zibikoaren aldetik, estatu frankista uniformizatzaileak ezartzen zuen eredu nazional-katolikoari aurre egiteko.

Urte batzuk beranduago *Basque Studies Programek* ingeles hiztunentzat Euskal Herrian antolatu zituen euskal hizkuntza, literatura eta kultura ikastaroak. Lehenengoa Uztaritzen antolatu zen 1970ean eta 6 asteko iraupena izan zuen. Gertaera honen ez ohikotasunagatik Euskaltzaindiaren 1970eko otsaileko batzarrean, ikasle estatubatuarren etorrera aipatu zen<sup>168</sup>. Carmelo Urzaren arabera, antzeko ikastaroak antolatu ziren 1972, 1975 eta 1978. urteetan<sup>169</sup>. Boiseko unibertsitateko irakaslea eta 1972ko ikastaroan parte hartutako Patrick Bieter-ek, Oñatin 1974-1975. ikasturtean programa akademiko bat martxan jarri zuen, sei hilabeteetan antolatuta, eta estubatuar ikasleentzat zena. Hamarkada horretan bertan Bieter-ek beste bizpahiru aldiz antolatu zuen kurtso akademikoa Oñatin. Oñati moduko herri txiki eta euskaldunean, estabatuar jendearen bisita txundigarria izan zen. Ohitura, janzkera eta hizkuntza desberdinak zituzten atzerritarrek. Esate baterako, korrika (*footing*) egiten zuten. 70eko hamarkadako Euskal Herri hartan oraindik erabat ez ohikoa zen korrika egitera irtetzea eta oñatiarrei ohitura hura ezin harrigarriagoa suertatu zitzaien<sup>170</sup>. Hortik haragoko eraginik, bereziki euskal esparru unibertsitarioan ez zuten izan Oñatiko ikasketek.

<sup>167</sup> (Urza, 1995: 554)

<sup>168</sup> “Aditzera eman da Ipar-Ameriketatik etorriak direla gure Hizkuntza eta kultura estudi[a]tzera, gero han irakaskintza sortzeko asmoz” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.2.28)

<sup>169</sup> Paragrafo honetako datuak C. Urzaren lanetik atera ditugu (Urza, 1995: 555)

<sup>170</sup> Pruden Gartziak emandako informazioa.

### 3. Goi mailako elkarte eta erakundeak

Euskaltzaindiaren Arantzazuko 1968ko biltzarraren ostean, euskararen batasunari emandako 10 urteko epean, Euskal Herrian goi mailan, zientzian eta kulturgintzan, aritu ziren bi erakunde mota ditugu: batetik, euskal erakunde edo elkarteak, hots, euskaraz elebakarrak zirenak, eta bestetik, erakundeko hizkuntza gisa euskara zein erdara erabiltzen zutenak. Azken mota honetakoek ez zuten hizkuntzaren batasun prozesuarekin lotura berezirik, ez ziren kontra jartzen, ezta alde ere, eztabaidatik urrunduta zeuden. Euskaraz osorik funtzionatzen zuten erakundeak berriz, batasunaren inguruko eztabaidan murgilduta zeuden (adb. Euskaltzaindia), edota erabat kontra, (adibidez Euskerazaleak elkarte), eta azkenik, baziren erakunde batzuk, Euskara Batua ontzat eman zutenak, aipatutako eztabaidan Batuaren alde eginez eta berau indartuz (adb. Elhuyar Taldea).

Euskaraz funtzionatzen ez zuten erakundeen adibide gisa, Labayru eta Eusko Ikaskuntza aipa litezke. Biei berariazko atal bat eskaini diegu. Hala ere, ezin ahantz daitezke beste topagune aipagarri batzuk. Nafarroan bi ditugu: *Real Sociedad de Amigos del País de Pamplona (Iruña'ko Euskalerrriaren Adiskideak)* elkarte (1960) eta Nafarroako diputazioaren Vianako Printzearen baitan zegoen *Fomento del Vascuence* edo *Euskararen Aldeko Saila* (1957)<sup>171</sup>. Aurreko garaian sortu zirelako ez diegu atalik eskaini, dena den Iruñeko RSBAPi buruz ohar labur bat egin nahi dugu, garai honetan elkarte zertan ari zen argigarria suerta daitekeelakoan.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte (Real Sociedad de Amigos del País, RSBAP) XVIII. mendean sortu eta XIX. mendetik hilik zen baina 1943an martxan jarri

---

<sup>171</sup> Euskararen Aldeko Sailari buruz ikus Irene López Goñiren lana (Lopez Goñi, 2002). Ikertzaile honek bertan azaltzen duenez, Saila sortu zen Nafarroako zenbait euskaltzalek, diputazioa barne, Nafarroako lurraldean euskara galtzerik ez zutelako nahi. Lehen zuzendaria Pedro Diez Ulzurrun sendagilea izan zen. Irene Lopezek dio Euskararen aldeko Saila gerraurreko proiektu euskaltzaleekin bat egiten zuela bai pertsonetan, bai proiektuetan ere. Eskola umeentzat antolatutako euskara azterketak izan ziren Sailaren jardueraren nagusia. Horretaz gain Sailak diruz-lagundu zituen umeentzako kaputxinoek egindako bi aldizkari (*Pan-pin* eta *Umeen Deia*), Vianako Printzea aldizkariaren *Euskera gehigarria* aldizkaria sortu zuen (honetaz ikus aurrerago 5.2. *Nafarroako Gobernuaren aldizkariak* atala), *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria babestu, Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra finantziatu, Euskaltzaindia diruz-lagundu, bertsolaritza txapelketak antolatu, baita euskararen inguruko jaialdiak ere, euskarazko zenbait libururen edizioa diruz-lagundu, ikastolen sorrera sustatu eta babestu eta abar.

zen berriz. Nafarroan ordea, Iruñeko RSBAPa ez zen 1960. urtera arte abiatu<sup>172</sup>. 1963an Iruñeko RSBAParen baitan, *Academia de Cultura Vasca* edo *Euskal Ikasgaien Akademia* sortu zen, euskal eremuko gaiak ikertzeko eta ezagutarazteko. Akademiak 28 kide oso eta mugatu gabeko kide urgazleak izendatu zitzakeen. Elkartek 1965ean, 1960ko estatutuak berri zuten, orduan onartu zen elkartearen euskarazko izena, baita unibertsitateko ikasleak bazkide gisa sartzea, eta *Ikaslariak* izeneko taldea osatzea. Hala ere, Ikaslariak taldearen ibilbidea ez zen oso luzea izan, eta berehala bazterra jo zuen. Urte horretan bertan Iruñeko lehen ikastola martxan jarri zuen RSBAPak.

A. Peñuela Martinez ikertzaileak dionez, Iruñeko RSBAPa, elkarte apolitiko eta kultural gisa definitu arren bere burua, Nafarroako EAJtik oso hurbil kokatzen zen, eta bere aburuz, legez kanpo zegoen Nafarroako EAJren ekintzarako bidea zen<sup>173</sup>, ekintza abertzale kulturalerako bidea. Horren adibidea da, Iruñeko Batzokia zabaldu baino lehen, EAJren egoitza RSBAPen bulegoetan zegoela. 1967an RSBAPen baitan “Eusko Basterra” taldea sortu zen, politikoki oso markatua zena eta RSBAPtik egotzia izan zena hurrengo urtean<sup>174</sup>.

Giro honetan ibili zen, esate baterako, Xabier Kintana gaztea, oraindik euskalgintzan ezezaguna, urgazle 1966an izendatua, eta gerora Euskara Batuaren sustatzaile ezaguna. X. Kintana Nafarroako Unibertsitatean karrerako lehenengo maila egiten ari zen 1966an, eta RSBAPera hurbildu zen giro euskaltzalearen bila. Bertan euskarazko klaseak ematen zituen gaur egun EHNEko kide den Paul Nicholson-ekin batera, Iruñetik propaganda banatzen zuen eta bestelako jarduera kulturalak antolatzen ibili zen (adb. Santa Agedako korua). Antza denez, koruaren antolaketak ekarri zizkion elkarteari zenbait arazo politiko, baina ez gara horiek azaltzen luzatuko<sup>175</sup>.

---

<sup>172</sup> Beronen azterketa Araceli Martinezek egin du (Martinez Peñuela, 1986)

<sup>173</sup> (Martinez Peñuela, 1986: 173)

<sup>174</sup> Eusko Basterrari buruz A. Martinez Peñuelak dionez, “pretendía agrupar y formar a los jóvenes en los fines de dicha Sociedad. Pronto se hizo evidente que la juventud vasca se había radicalizado, ante esa realidad, en 1968, los dirigentes de Amigos de País decidieron disolver dicha Sección. En sus dos escasos años de vida, “Eusko Basterra” alcanzó los doscientos afiliados, desarrollando una labor de formación cultural vasquista y de actividad política camuflada. Estuvo dirigida por Juan Mari Feliu. Algunos de los jóvenes de “Eusko Basterra” al ser expulsados de Amigos del País, pasaron a integrarse en EGI (Eusko Gastegi Indarra)” (Martinez Peñuela, 1986: 174)

<sup>175</sup> Xabier Kintanaren lekukotza, 2007.09.23an Erandion egindako elkarrizketa.



Euskal elkarte eta erakundeei dagokionez, atal honetan bi motakoak berezi ditugu: alde batetik hizkuntzarekin lotutakoak, eta bestetik Euskal Unibertsitatearen aldarrikapenarekin zer ikusia dutenak edota euskarazko irakaskuntza unibertsitarioaren prestaketa-lanen ardura hartu zutenak (UEU, Elhuyar eta UZEI). Planteatutako banaketa ez da guztiz biribila, Euskaltzaindiak, esate baterako, euskal unibertsitate barruti bakarraren alde ekimen bat aurrera eramanez 1977an. Dena den Akademiaren kasuan, erakundearen izaera definitzen duena hizkuntza da, Kardaberaz Bazkuna, Euskerazaleak elkarte eta Euskerazaintza akademiarekin gertatzen den moduan. Kasu honetan, aipatutako 4 elkarteetatik, ezbairik gabe garrantzitsuena Euskaltzaindia da, hizkuntzaren batasun prozesua gidatu zuelako, eta euskalgintzan erabateko zentralitatea izan zuelako. Zentralitate horren erakusgarri da, 70ko hamarkadan zuzenean edo zeharka sustatu, parte hartu edo babestutako ekimenek (adb. Alfabetatze Batzordea, euskara titulua ematea, Udako Euskal Unibertsitatea babestea...). Horregatik guztiagatik Euskaltzaindiari atal oso bat eskaini diogu.

Euskal irakaskuntza unibertsitarioaren prestaketa-lanetan ziharduten erakundeei dagokionez, UEUekin hasiko gara, eta K. Mitxelena eta UZEIren artean sortutako aferan amaituko dugu (1981). Polemika horrek markatzen baitu, gure ustez, 70eko hamarkadan hasitako goi mailako euskal kulturgintzaren ziklo baten amaiera.

### **3.1. Labayru Ikastegia eta Eusko Ikaskuntza**

Dagokigun Arantzazu-Bergara (1968-1978) urte tartetan sortutako elkartearen artean bi nabarmenduko ditugu: Labayru Ikastegia (*Instituto Labayru*) eta Eusko Ikaskuntza (*Sociedad de Estudios Vascos/Societe d'Etudes Basques*, aurrerantzean EI/SEV). Ez bata, ez bestea, ez ziren euskara elkarteak, baina biak euskal eremuarekin, hizkuntza eta kulturarekin lotutako gaiak lantzeko sortu ziren. Bietan moduren batera edo bestera, Jose Migel Barandiaranek parte hartu zuen. Erakunde eleanitzak ziren eta euskara erakundearen hizkuntzetako bat zen. Halaber, biak oso berandu sortu ziren, Labayru 1977an eta Eusko Ikaskuntza 1978an. Urteekin hazi, eraldatu eta gaur egunera arte heldu dira.

Kasu bietan, elkarteon aldizkariak ez ziren 80ko hamarkadara arte kalera irten<sup>176</sup>. Labayruk *Litterae Vasconiae. Euskararen Iker Atalak* (1982) eta *Idatz & Mintz, literatur atalen sorta* (1983) argitaratu zituen, Eusko Ikaskuntzak berriz, sailetako koadernoak (*Cuadernos de Sección*) 80ko hamarkadaren lehen erdialdean. Labayruren euskara hutsezko aldizkaria Literaturari buruzkoa da (*Idatz & Mintz*, 1983) eta Eusko Ikaskuntzaren kasuan, Zuzenbideari buruzkoa (*Eleria*, 1996).

Labayru Ikastegia 1977an sortu zen, Derioko Apaiztegian abian zeuden ekimen guztiak bateratzeko, hau da, Euskal Biblioteka, Derioko Udako Euskal Ikastaroak, eta Etniker Bizkaia taldea. Ikastegiaren erakunde sortzailea Bizkaiko Elizbarrutia izan zen eta Bilboko apezpikuak dekretatu zuen bere sorrera, baita estatutuak sinatu ere<sup>177</sup>. Hortaz erakunde sortu berria bizkaiko elizarena zen. Ikastegiak 1978an argitaratutako liburuxkan honela definitzen zuen bere burua:

“¿Qué es y para qué ha nacido?

El Instituto Diocesano ESTANISLAO J. DE LABAYRU ha sido erigido como persona jurídica en la Diócesis de Bilbao, en respuesta de la Iglesia de Vizcaya a las necesidades de desarrollo y actuación de los valores culturales del Pueblo Vasco, y con conciencia clara de que acción evangelizadora y promoción cultural son elementos inseparables.”<sup>178</sup>

Euskal hizkuntza, kultura eta literaturaren ikerketa eta irakaskuntzara dedikatu arren, ezin liteke esan hasieran Labayru euskara elkarte zenik. Gerora, hizkuntza saila eta itzulpengintza zerbitzua zabaldu zituen, eta horren haritik euskarak gero eta presentzia handiagoa hartu zuen Institutuan.

Etniker Bizkaia taldea, formalki 1973an sortu zen, hazia aurreko urtean erein bazen ere, 1972an Jose Migel Barandiaranek, Ander Manterolaren eskariz, Derion (Bizkaia) emandako bi egunetako Etnografia ikastaroan. Beraz, Etniker J. M. Barandiaranen ikerketa lerroa segituz ikerketa etnografikora dedikatutako zen elkarte gisa sortu zen. Berez, lehen Etniker taldea, arestian aipatu dugun moduan, Nafarroan sortu zen J. M. Barandiaranek Nafarroako Unibertsitatean zuen katedraren inguruan.

<sup>176</sup> Labayru Ikastegiaren kasuan dena den zehaztapen bat egin behar da, gaur egun Labayruren den *Etniker Bizkaia* aldizkaria 1975an sortu zelako. Baina aldizkaria ez zuen Labayruk plazaratu, izen bereko taldeak baizik, hau da, Etniker Bizkaiak.

<sup>177</sup> (Bilboko Gotzaitegia, 1977)

<sup>178</sup> *Instituto Labayru Ikastegia*, Bilbo: Labayru (1978).

Ondoko urteetan J. M. Barandiaranen ikerketa etnografikoko moldea beste lurraldeetara zabaldu zen, tartean Bizkaira. 1976an Euskal Herriko Etniker talde guztiak federazio batean bildu ziren: Etniker Euskalerria. Federazioak 1987az geroztik Euskal Herriko Atlas Etnografikoa egiteko ardura bere gain hartu zuen, eta 90eko hamarkadatik aurrera Atlasaren zenbait ikerketa monografiko kaleratu ditu: elikadura, ume jolas, hileta eta bizi erritu, abeltzaintza, medikuntza eta abarren inguruan. Orain arte argitaratutako obra guztiak gaztelaniaz daude.

Eusko Ikaskuntzaren gerraurreko azken batzorde iraunkorretik bizirik zeuden kideek (J. M. Barandiaran, J. Garate, M. Lekuona, A. Irigarai, J. Yrizar eta M. Iruxo) elkarte berpizteko asmoz 1978ko abuztuan dei egin zieten EI/SEVren kide izandakoei Oñatiko Batzar Orokor batera. Oñatiko 1978ko Batzar Orokorra baino lehen, zenbait bilera egon ziren Aingeru Irigarai eta Imanol Olaizola, Gipuzkoako Aldundiko diputatuaren artean. I. Olaizolak diputazioak erakarri zituen EI/SEV berpizteko asmora eta, gerraurrean EI/SEVeko kide izandako batzurekin bildu zen proiektua berriz martxan jartzeko. Bilera horietan honakoek parte hartu zuten: A. Irigarai, M. Lekuona, J. Yrizar, J. M. Barandiaran, A. Zumalabe eta B. Estornes<sup>179</sup>.

1978ko Oñatiko Batzar Orokorrean EI/SEVen ordezkariak aukeratu ziren: Jose Migel Barandiaran lehendakari eta Agustin Zumalabe idazkari. Hil arte, J. M. Barandiaran EI/SEVeko lehendakaria izan zen<sup>180</sup>. EI/SEVeko lehen zuzendaritza batzordean beraz, aipatutako J. M. Barandiaran eta A. Zumalabe zeuden, baita Ander Manterola ere, Labayru Ikastegiko burua eta Etniker Taldeko zuzendaria, EI/SEVeko Bizkaiko lehendakariorde gisa<sup>181</sup>.

Orain arte aipatu ditugun EI/SEVen inguruko eragileak jeltzaleak ziren, edo inguru hurbilekoak. Batzuk gainera euskaltzainak ziren, osoak (J. M. Barandiaran eta A.

---

<sup>179</sup> Iturria: Euskomedia (“Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos” <http://www.euskomedia.org/aunamendi/40053/34009?idi=eu#34009> [kontsulta data: 2009-06-06])

<sup>180</sup> Gerraostean berpiztutako EI/SEVko lehendakariak honako hauek izan dira: J. M. Barandiaran (1978-1992), G. Monreal (1992-1996), J. J. Goirierna (1996-2002), X. Retegi (2002-2008) eta Jose Maria Muñoa (2008tik). Beraz, EI/SEVko UPV/EHuko errektore ohi bi izan ditu lehendakari, Monreal eta Goirierna hurrenez hurren.

<sup>181</sup> Beste lurraldeetako lehendakariordeak honako hauek izan ziren: A. Llanos (Arabatik), I. Olaizola (Gipuzkoatik) eta I. Ardaiz (Nafarroatik).

Irigarai), edo urgazleak (B. Estornes), eta M. Lekuona, euskaltzainburu izandakoa zen (1966-1970). Baina M. Lekuonak, aurrerago aipatzen dugunez, Arantzazun abiatutako batasun prozesua gidatzeko indarrik ez zuenez jarri, Euskaltzaindiaren 1970eko bozketetan euskaltzainburu postua galdu zuen. J. M. Barandiaran berriz, euskaltzaina izan arren, ez zen Euskaltzaindiaren bileretara joaten, eta euskaraz oso gutxi idatzi zuen, eta idatzitako apur horretan ez zituen Euskara Batuaren arauak jarraitu<sup>182</sup>. Horretan J. M. Barandiaran eta M. Lekuona antzera ibili ziren, eta B. Estornesk euskaraz oso lan gutxi argitaratu zuen eta gerraostean euskaraz ateratako apurra erronkarieraz idatzi zuen eta ez Euskara Batuan. A. Irigararentzat berriz, Euskara Batua arinegi egiten ari zen<sup>183</sup>.

Ikusten denez, Eusko Ikaskuntzaren sortzaileak, oro har abertzaleak ziren, baita euskaltzale deklaratuak ere. Baina euskaltzale batzuk euskaltzainak ziren bitartean, beste batzuk euskararik ere ez zekiten. Euskaltzainak zirenak, 1968an hasitako euskararen batasun prozesutik aldentutakoak ziren. Datu hauek guztiak kontuan hartuta, pentsa liteke, baina oraindik aztertu gabe dago, Eusko Ikaskuntzaren proiektuan bildu zirela abertzaleen baitan zeuden bi tradizio oso desberdin: batetik, euskararik ez zekitenak baina euskal gaiekiko interesa zutenak, (EAJn ohikoa zen, abertzalea izanik ere, kulturalki euskal gaiekiko praktika erdalzalea izatea), eta bestetik, abertzale, euskaldun eta euskaltzaleak zirenak. EAJk bazuen ere bere historian euskaltzale amorratuen tradizio bat (adib. *Lizardi*, J. Zaitegi, A. Ibiñagabeitia,...) eta handik edaten zuten euskaltzaleak baziren. Euskaltzale hauek, euskararen batasun prozesuan albo batera geratu ziren uneren batean, edota bertan ez zuten parte hartu nahi izan. Guztien artean EI/SEV proiektua martxan jarri zuten. Elkarte zientifiko honek ez zuen euskararen batasun prozesuarekin loturarik izan. Azken finean EI/SEVk, euskal eremuko gaien ikerketa planteatzen zuen elkarte zientifikoa izanik, ez zeukan zertan batasun prozesuan parte hartu.

---

<sup>182</sup> Adibidez, 1985an, Euskara Batua berretsita urteak pasatu eta gero, J. M. Barandiaranek "Agamundako izkutuki izugarriak" artikulua argitaratu zuen EI/SEVren *Cuadernos de Sección de Lengua y Literatura*. Testua H gabeko halako gipuzkera osotu batean idatzita dago (Barandiaran, 1985). Egia da bestalde, hurrengo urtean RIEVen argitaratutako beste artikuluko batean, J. M. Barandiaranek bestelako idazkera agertzen duela, baina seguru aski, aldizkariak berak aldatuko zuen artikuluen idazkera, RIEVen euskaraz argitaratzen diren artikuluek Euskaltzaindiaren arauak jarraitzen dituztelako.

<sup>183</sup> 1978ko Bergarako Biltzarrean bertan aurkeztu zuen txosten bat J. A. Loidirekin batera, zera eskatuz, eskualdeko hizkerak errespetatu zitezela, eta euskara idatzian, zaharra zein batua onartzea, eta batuan Arantzazuko erabakietatik baino harago joan gabe (Irigarai & Loidi, 1978). A. Irigarairen Euskara Batuarekiko jarrera B. Latiegik ere jasotzen du (Latiegi & Oñatibia, 1982: 85-87)

Amaitzeko, ez bata ez bestea, ez Labayru ez Eusko Ikaskuntza, ez ziren euskararen batasun prozesuaren alde ez kontra argiro agertu, eta inplikatu ez ziren neurrian, eta beren argitalpenetan idazkera biak onartu zituzten heinean, ez ziren batasunaren alde jarri. Halaber, bietan ikerkuntza zientifikoaren emaitzaren zabalpenerako (dela etnografikoa Etnikerren kasuan, dela beste edozein jakintza-arlokoa, Eusko Ikaskuntzaren kasuan), liburu eta aldizkarietan, gehien erabilitako hizkuntza gaztelania izan zen. Hortaz, indartu egin zuten euskal gaiei buruzko komunikazio zientifiko erdalduna, eta beraz elkarte zientifiko izaera zuten Euskal Herriko erakunde bi hauek, ez zuten elikatu euskaraz funtzionatuko zuen maila zientifikoko komunikaziorik edo euskarazko komunikazio jasorik. Hori, ikusiko dugunez, euskal kulturgintzako erakundeek sortu, eraiki eta trinkotu zuten.

### **3.2. Euskaltzaindia normalizazio lanetan murgilduta**

Euskaltzaindiak, hizkuntzaren akademia izanik, baditu ohiko edozein hizkuntza akademien ezaugarriak, baina besterik ere badu. Hain zuzen ere euskara hizkuntza gutxitua izanik, bere egoerak, eta garaiko testuinguru politikoak, bereziki Hegoaldekoak, baldintzatzen zuen Akademiaren ohiko jarduna. Euskaltzainburuak berak aitortu zuen Bergarako biltzarrean Euskaltzaindiak akademia baten ohiko zereginetatik harago ere jotzen zuela:

“ Gure akademiak, esate baterako, **Irakasle tituluak** ematen ditu, **bertsolarien txapelketak** ere eratu izan ditu. **Alfabetatze eta Euskalduntze kanpainak** babesten ditu, euskararen batasunaz arduratzen da, etab **Zeregin hoietako batzuk hartu beharrik ez luke, euskal gauzak egoera normal batean baleude, baina ez daude, eta orduan hoietaz denetaz arduratu beharra dauka**”<sup>184</sup> [beltzak gureak dira]

Akademiak, beraz, garai honetan hiru esparrutan egiten zuen lan: batetik akademikoa edo zientifikoa, bestetik kulturgintzakoa, eta azkenik agente normalizatzaile gisa. Lehen biak hizkuntza akademien ohiko esparruak dira. Lehen, euskararen afera linguistikoei lotuta dago, teknikotzat har liteke; bigarrena berriz, kulturgintzakoa, horretan ere ez zen berezia hizkuntzen akademiak hizkuntzaren

---

<sup>184</sup> (Villasante, 1978: 456)

kulturgintzan parte hartzen baitute. Hala, Euskaltzaindia euskal kulturgintzan diharduen eragileetako bat da (adb. liburuak argitaratuz). Hirugarren eta azken esparruak berriz, agente normalizatzailerari dagokionak, hizkuntza handi eta nagusituen akademia askorengandik bereizten zuen. Izan ere Euskaltzaindiak, aurreko garaietan bezala, baina areago 70eko hamarkadan, hizkuntzaren normalizazio ekimen ugari bere gain hartu zituen, adb. helduen euskalduntze-alfabetatzea edo euskara irakasle tituluen kudeaketa. Hain zuzen ere, 70eko hamarkadan euskal gizarteak eskari berriak plazaratu zituen euskalduntzearen zein irakaskuntzaren inguruan. Eusko Kontseilu Nagusia sortu arte (1978) bertako administrazioak ez zegoen horren guztiaren ardura hartzen hasteko, eta Euskaltzaindia bere baliabide eta ahalmenen arabera erantzuten saiatu zen. Eusko Kontseilu Nagusiarekin Hezkuntza Saila antolatzen hasi zen, baina lehen Eusko Jauriaritza eratu ez zen arte (1980) administrazioak ez zuen euskara tituluen ardura eta kudeaketa bere gain hartu, ezta helduen euskalduntzerako erakunderik sortu ere (HABE adibidez 1983 urtean sortu zen).

Hala, Euskaltzaindia, urteotan, honako ekimen hauetan murgilduta egon zen: hizkuntzaren batasunean, hiztegegintzan, argitalpengintzan, jardunaldi eta biltzarren antolaketan (adb. Bergarako biltzarra) edota babesten (adb. Elebitasun jardunaldia, UEUren Udako Ikastaroak, kazetarien jardunaldiak eta abar), euskararen sarrera irakaskuntzan bai eskolan, bai institutuan, bai unibertsitatean (adb. unibertsitate barruti bakarraren eskaria), baita hizkuntzaren normalizaziorako bestelako ekimenetan ere, hala nola, helduen euskalduntze-alfabetatzerako Alfabetatze Batzorde bat bazuen. Bestalde Hegoaldean zein Iparraldean<sup>185</sup> antolatutako udako zein urtean zeharreko euskara ikasteko ikastaroak babestu zituen, euskara irakasteko tituluak eman, hizkuntzaren egoeraren gaineko azterketak enkargatu zituen<sup>186</sup> eta abar. Paragrafo honetan aipatutako ekimenak berariazko ataletan edo zeharka beste atal batzuetan aipagai izango ditugu.

<sup>185</sup> Adibidez, Mende Berrik euskara ikasteko antolatutako ikastaroak babestu zituen (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1975.3.26). Mende Berriri buruz ikus (Zabala eta beste, 2005: 155-156)

<sup>186</sup> Euskararen egoera soziala aztertzeko Euskaltzaindiak Gaur SCiri txotena enkargatu zion (ikus 1969-1971. urteetako Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak) eta ondoko urteetan Siadecori azterketa soziolinguistikoa eskatu zion. Siadecoko Iñaki Larrañagak aurkeztu zuen Euskararen normalizapenerako plangintza baten oinarriak txostena 1978ko urriko batzarrean (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.10.27)

Hortaz, Euskaltzaindiak, berari zuzenean ez zegozkion hainbat ekimen kudeatu eta antolatu behar zituen (adb. Euskal Unibertsitatea, euskalduntze-alfabetatzearen koordinazioa, euskara tituluen kudeaketa...), 70eko hamarkadan ez zegoelako beste erakunde konpetenterik hartarako. 80ko hamarkadaren lehen erdialdean horietako asko eskualdatu egin zituen.

### 3.2.1. Euskararen batasuna gidatzeko euskaltzainburu berria

Arestian esan moduan, Euskaltzaindiak Arantzazuko biltzarrean (1968) euskararen batasun prozesua abian jartzea erabaki zuen, baita hartarako oinarrizko zenbait erabaki ortografiko-gramatikal hartu ere. Ondoko urteetan, biltzarrean hartutako erabakiek gatazka piztu zuten euskaltzale eta euskalarien artean, bai Euskaltzaindian bertan, bai handik kanpo ere, eta, oro har, euskal kulturgintza osoari gehiago edo gutxiago eragin zion. Atal honetan urteotan Euskaltzaindian zer gertatu zen gainetik azalduko dugu, eta horretarako ezinbestekoa da lehenik hizkuntza batasunaren aferak suposatu zuena esplikatzea, erakundearen kanpo zein barne harremanak eta proiektuak erabat baldintzatu zituelako.

Arantzazuko biltzarrean hartutako erabakiak hizkuntzaren batasunerako oinarrizkoak izan ziren, baina ez ziren horrela hartu eta, askorentzat muturrekoak ziren, eta beraz erabat gaitzetsi zituzten. Euskaltzaindiak eztabaida handia piztu zuen H letraren inguruan hartutako erabakiarekin, erdibideko erabakia bazen ere<sup>187</sup>. Parisetik K. Mitxelenak L. Villasanteri idatzitako gutunean zenbait puntutan laburbiltzen zion Arantzazuko biltzarra eta euskararen batasunaren egoeraren gaineko bere iritzia. K. Mitxelenak H letraren inguruan piztutako auziri buruz honakoa ziotson L. Villasanteri: “... Arantzazuko lanen eremua eta mugak [h]ertsiegi hartu ditu zenbaitek. Han ez zen *h* horren gora-beheraz mintzatu, Euskararen batasunerako beharrezko ziruditen zenbait aitzin-urratsez baizik, horien artean *h* ere zegoela.”<sup>188</sup> Agi denez, Arantzazuko bileraz

---

<sup>187</sup> Aurreko atalean azaldu dugun moduan Euskaltzaindiak H letraren inguruan hartutako erabakia erdibidekoa zen, 1964ko Baionako Biltzarreko proposamena baino apalagoa. Baionan H-a onartu baitzen, bai bokal bikoitzen artean, baita bokalez hasitako hitz batzuetan ere. Arantzazun, H-a onartu zen, baina bokalen artean, bokalez hasitako hitzei buruz ez zen ezer esaten, nahiz eta aipatzen zen H-aren erabilera zabalagoak ondo ikusiak izango zirela.

<sup>188</sup> Koldo Mitxelenak Luis Villasanteri bidalitako gutuna 1970.2.2an (Satrustegi, 1999b: 329)

geroztik hizkuntzaren batasuna eztabaidatzeko eta adosteko giroa, erabat garrastu zen. Euskaltzaindiko kide batzuk euskararen batasuna nahi zuten, beste batzuk berriz, ez zeuden Arantzazun planteatutako batasun ereduaren alde, eta are gehiago, baziren batasunik ez zutenak nahi. Berriro ere K. Mitxelenak L. Villasanteri bidalitako gutuna aipagai dugu garaiko lekukotza gisa:

“7. Penagarriena, neure ustez, hauxe duzu: **ez gerala gauza, a(i)denez, hauzi hau zentzuz eta buru hotzez erabiltzeko, batak bestea berera erakartzeko nahiago izan duela indar-bidez jokatu arrazoi-bidez baino**. Badirudi, izan ere, nor geure buruaren alde ari gerala guztion den hizkuntzaren alde baino areago. **Batzuei eta besteei bake-deia egingo nieke**, bihotzez, sesioan ari bagera ez bait dugu deus aurreratuko.”<sup>189</sup> [beltzak gureak dira]

K. Mitxelenak “indar-bidez” aipatzen duenean, buruan zituen, eztabaidak, euskaltzainek, urgazle<sup>190</sup> zein euskaltzainburuak<sup>191</sup> jasotako anonimoak<sup>192</sup>, aldizkarietan argitaratzen ziren irain artikuluak eta abar. Esate baterako, *Agur* aldizkariak, Euskaltzaindia eta Euskaltzaindiko idazkaria ere iraintzen zuen artikulua argitaratu zuen 1970ean<sup>193</sup>. *Agur* ez zen bakarria izan eta K. Mitxelenak Euskaltzaindiko 1970eko uztailleko bileran, hain zuzen ere, Euskaltzaindiko zuzendaritza karguen bozketa egin aurretikoan, aldizkariari ohar bat bidaltzea eskatu zuen, Arantzazuko erabakiak zelan hartu ziren argitzeko<sup>194</sup>. K. Mitxelenaren proposamenari eztabaida luze batek jarraitu zion eta azkenean errenteriarraren proposamena onartu zen. Hala ere, M. Lekuonak ohar bat gehitu zuen: “Arantzazuko erabakia kontseilu erakoa zela eta ez agindu erakoa”<sup>195</sup>.

<sup>189</sup> Koldo Mitxelenak Luis Villasanteri bidalitako gutuna 1970.2.2an (Satrustegi, 1999b: 329)

<sup>190</sup> Euskaltzaindiaren 1970eko otsaileko Batzar-agirian hauxe agertzen da: “Idazkariak aditzera ematen du, euskaltzain laguntz[a]jile baten denuntzia bat dagoela. Euskaltzaindiko artean zabaltzen ari diren zenbait “anonimo”ri buruz. Baina euskaltzainburuak nahiago du isilik utzi, eskandaluak sortuko diren beldurrez. Idazkariak dio, besterik ezik, euskaltzainak bakarrik bildurik, baina gauza hau ondo aztertu beharrezkoa dala, batez ere sospetxaz Euskaltzaindiko batzuen izenak ahotan erabili diranez gero.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiria, 1970.2.28)

<sup>191</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.11.27)

<sup>192</sup> Antza denez, anonimoak euskaltzainek idatzi zituzten. J. M. Satrustegik dio, Jose Artetxek bera salatu zuela anonimoen egile gisa, baina berak ukatu egiten du (Satrustegi, 1999b: 328). Dena den Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan anonimoak gainera aipatzen dira eta ez daukagu informazio larregirik honen gainean.

<sup>193</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.9.27)

<sup>194</sup> “Auteskundean hastera doaz, baina Mitxelena jaunak eskatzen du aurretik gauza batzuk argi utzi beharra dagoela, zenbait aldizkari eta tokitan auzitan eta dudan jartzen bai dira Arantzazuko erabakiak. Proposatzen du euskal aldizkari guztietara ohar bat bidaltzea puntu batzuk argituaz: a) Arantzazuko batzar hura, Euskaltzaindiarena zela eta ez zenbait idazlerena; b) Han irakurri ziren lanak, Euskaltzaindiak Euskaltzaindikoei eskatuak zirela; d) Han irakurritako agiria, bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean hartuko erabakia zela.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.7.29)

<sup>195</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.7.29)



Ikusten denez, euskaltzainburua batasun prozesua moteltzen saiatzen ari zen. Egia esan, M. Lekuonak, Arantzazuko Biltzarra amaitu eta berehala, baita ondoko urte bietan, euskararen batasun prozesua lideratzeko erakutsitako jarrera epela eta biguna zen. M. Lekuonak ez zuen ematen batasun prozesuarekin oso konbentziturik, eta zenbait euskaltzain horretaz ohartuta zeuden. Hala, 1970. urtean, Euskaltzaindiko zuzendaritza karguak bozketa bidez aukeratzeko unea heldu zenean, batzuk aurreikusi ez zutena gertatu zen, euskaltzainburu berri bat aukeratu zela: Luis Villasante frantziskotarra. Halaber, bigarren mailako karguak ere berritu ziren: euskaltzainburu orde gisa Jean Haritxelhar eta idazkari gisa, Juan San Martin<sup>196</sup> aukeratu ziren. Hirurak 20ko hamarkadaren lehen erdialdean jaiotakoak ziren, gehienez 50 urte zituzten.

Ondoko urteetan L. Villasantek gidatu zuen Arantzazun 1968an hasitako euskararen batasun prozesua. Euskaltzaindiak erabaki berriak hartu zituen<sup>197</sup>. Horretaz guztiaz gainera, L. Villasanteri egokitu zitzaion 1978ko Euskaltzaindiaren biltzarra antolatzea, 1968ko Arantzazuko biltzarraren segida zena, Arantzazun hartutako erabakiak berrikusteko. Euskaltzaindiak 10 urteko epea eman zion bere buruari Arantzazuko Biltzarreko erabakiak berresteko edo erabat gaitzesteko. Tarte horretan Euskara Batua errotzen zen ala ez ikusiko zen. Azkenean, euskararen batasunaren berrikuspen biltzarra Bergaran burutu zen 1978an, Koldo Eleizalderen mendeurrenaren ospakizunarekin batera<sup>198</sup>. L. Villasantek Bergarako biltzarraren sarrera ekitaldian zera aitortu zuen:

**“Bitartean zenbat irain, mehatxu eta eraso ez ditugu irentsi behar izan!** Gezurra ere badirudi hunelako gauzak era hortaraino bere onetik eta tentutik atera nahi izatea! Baina Euskaltzaindiak bere betebeharrari ez dio uko egin, eta ez du amorerik eman. Jarritako epea bete arte ez zen arau haiek aldatzeko edo bir-ikusteko ordua”<sup>199</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>196</sup> Bozketetako emaitzak Batzar-agirian jasotako daude (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.7.29)

<sup>197</sup> Adibidez, garrantzitsuenetako bat izan zen Aditz Laguntzailearen gainekoa. Horretarako 1971an batzorde bat eratu zen, hurrengo urtean akademiaren Arantzazuko bilkura berezi batean txostena aurkeztu zuena. Arantzazun ez zen erabateko adostasunik lortu eta 1973ra arte ez zen Aditz Laguntzailearen gaineko Euskaltzaindiaren erabakia argitaratu (Ikus “Aditz laguntzaile batua” *Euskera*, 18 (1973), 5-74. <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/11616.pdf> [kontsulta data: 2008-09-23])

<sup>198</sup> Bergarako 1978ko Euskaltzaindiaren biltzarrari atal oso bat dedikatu diogu aurrerago (ikus 4.1. *Euskara Batuaren berrikusteko unea (Bergara, 1978)* atala).

<sup>199</sup> (Villasante, 1978: 442)

L. Villasantek, euskararen batasun prozesua urratzeaz gainera, Euskaltzaindian zenbait erreforma egin zituen. Erakundearen egitura sendotzeko eta eraginkortasuna areagotzeko proposamenak izan ziren. Euskaltzainburu gisa 1970eko uztailan aukeratu zen, eta urrian Maulen ekitaldi publikoan kargu aldatzeak ofizialki gauzatu ziren<sup>200</sup>. Maulen emandako diskurtsoan kargudun berrien lan programa aurkeztu zuen: hizkuntzaren batasunean sakontzea eta erakundearen sendotzea, arautegiaren erreformaren bitartez, bileren eraginkortasunerako formulak bilatuz eta abar. Hurrengo hileko batzarrean L. Villasantek Euskaltzaindiaren egitura berritzeko proposamena aurkeztu<sup>201</sup> eta onartua izan zen. Horrek ekarri zuen Akademiaren arautegiaren berritzea<sup>202</sup>, 1954. urtetik ukitzen ez zena<sup>203</sup>. 1970eko abenduan Akademiak prentsa bulegoaren beharra zuela azaldu zuen. Alde batetik, Francoren erregimena indarrean zegoen Hegoaldean, eta batzuetan egunkari eta aldizkarietara filtratutako informazio okerren ondorioz, polizia galdeketa egiten zituelako<sup>204</sup>; beste alde batetik, Euskaltzaindiari buruz informazio oker ugari kaleratzen zelako komunikabideetan. Horrek guztiak, L. Villasantek aipatzen duenez, ez zion mesederik egiten Akademiaren irudiari. “Beraz, hemendik aurrera gure batzarreen eta gauzen berri ematea Euskaltzainburugoak beregain hartuko du”<sup>205</sup>. Erreformak ez ziren horretan geratu, eta hurrengo urtean euskaltzainburuak *Euskeraren* eraberritzea proposatu zuen<sup>206</sup>, baita hileroko bilerak eraginkorrak izateko plan bat aurkeztu ere<sup>207</sup>, hau da, goizetan batzordeak biltzea eta arratsaldean, osoko bilkurak egitea (ordura arte goizetan egiten zirenak). Proposamena proba gisa hurrengo batzarretik aurrera hastea erabaki zen<sup>208</sup>.

<sup>200</sup> Ikus “Maulen, kargu aldatzeak zirela eta egindako hitzaldiak” *Euskera*, 16 (1971), 113-123. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51944.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>201</sup> L. Villasantek aurkeztu zuen erreforma, baina Jose Luis Lizundiaren, Euskaltzaindiko idazkari-ordearen ekarpena erabakiorra izan zen. (Ikus “Euskaltzaindiaren egituraz” *Euskera*, 16 (1971), 123-127. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52011.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08])

<sup>202</sup> Ikus “Arautegia”, *Euskera*, 17 (1972), 190-214. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49187.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>203</sup> 70eko hamarkadan Euskaltzaindiaren estatutuak zenbait aldiz berritu eta egokitu ziren. Lehenik 1972an L. Villasanteren proposamenari jarraiki. Ondoren Espainiako Erregearen 1976ko dekretuak Euskaltzaindia Erret Akademia izendapena eman zion, eta arautegia horri egokitu behar izan zitzaion. (Euskaltzaindia, 1982b)

<sup>204</sup> “Mauleko batzarre ondoren ere polizia galdezka ibilli omen zan Bilboko egunkari batetan agertutako albiste okerren bat oinarri hartuta” (Villasante, 1971b: 131)

<sup>205</sup> (Villasante, 1971b: 132)

<sup>206</sup> (Villasante, 1971a)

<sup>207</sup> Ikus “Hileroko batzar eguna hobekiago aprobeztatzeaz” *Euskera*, 16 (1971), 139-141. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52021.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>208</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.4.20)

### 3.2.2. Euskara irakasle tituluak

Euskaltzaindia 70eko hamarkadan euskara irakasle tituluak ematen hasi zen. Titulu ofizialak emateko eskumena Euskaltzaindiak zuen, nahiz eta ez zen bakarra euskara tituluak ematen. 1978ko Bergarako Biltzarrean aipatzen denez, Euskaltzaindia ez ezik, beste elkarte eta erakunde batzuk ere euskara tituluak ematen ari ziren, hala nola, Euskerazaleak elkarteak, Derioko Udako Euskal Ikastaroak eta ordurako, alegia 1978. urterako, Hizkuntza Eskolek ere bai. Hala ere, Euskaltzaindikoak bi bereizgarri zituen: ofiziala zela eta irakasle titulu bat zela, euskara irakasle gisa aritzeko gaitzen zuelako. Hizkuntza Eskolako titulua berriz, zertifikatu erakoa zen, J. San Martinen hitzak erabiliz “Certificado de Aptitud”<sup>209</sup>.

Euskaltzaindiak tituluak emateko eskumena eduki arren, euskaltzain desberdinek argiro adierazi zuten Bergarako biltzarrean, bai aurreko urteetan ere, nahiago zutela administrazio edo unibertsitateren baten esku utzi tituluak emateko zama eta ardura. L. Villasante euskaltzainburuak berak, Bergaran honakoa adierazi zuen: “Gure Akademia ez da frantsesa edo espainola bezalakoa, egoera ere ez da berdina; guk ez dugu “Ministerio de Educación” eta horrelako gauzarik. Ezer ez daukagu. Zerbait egin behar zen”<sup>210</sup>. Beraz, Euskaltzaindiak, beharrak aginduta, tituluak kudeatzen zituen. Hain zuzen, garai honetan, irakasle euskaldunen eskaria oso handia zen: batetik, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduak irakasle euskaldun prestatuen beharra zuen. Bestetik, irakaskuntzan ere, bereziki ikastolen mugimenduak (eskola publikoetan, gehienik ere parte bat egin baitzitekeen euskaraz), irakasle euskaldunen premia oso handia zuen<sup>211</sup>.

---

<sup>209</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 548)

<sup>210</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 552). J. San Martinek ere, Bergaran antzeko adierazpenak egin zituen Euskaltzaindiak titulua ematearen ganean: “Euskaltzaindiak bere eginkizun hau, euskararen bizitzagatik bere borroka hainbeste urtetan eramanez, ahaleginak egin ditu alde guztietatik eta zama hori ere bere lepoan hartua du. Baina Euskaltzaindiak bere lepotik utziko du zama hori, hain zuzen fakultate bat – euskal hizkuntzaren fakultate bat sortzen denean- Mitxelenak esan duen bezala, hori izango baita iturria ondorengoena” (Euskaltzaindia, 1978: 548)

<sup>211</sup> Euskaltzaindiak 1978ko Bergarako Biltzarrean aztertu zuen umeen irakaskuntzan eta helduen euskalduntze alfabetatzean ari ziren irakasleen ezaugarriak zeintzuk ziren. Xabier Mendiguren eta Andoni Sagarnak txosten bana aurkeztu zuten, inkesta bidez bildutako datuen emaitzak agertuz. X. Mendigurenen txostenaren arabera, inkestatutako 570 irakasleetatik % 46ak euskara titulua zuen (Mendiguren, 1978a: 523), eta A. Sagarnak berriz zera zioen, helduen bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan ari zen irakasleen % 35,7ak (Sagarna, 1978: 537) Euskaltzaindiaren titulua zuela.

Beraz, bi sektore horietatik, euskalduntze-alfabetatzea eta ikastolen mugimenduen premiari erantzuteko Euskaltzaindia euskara irakasle tituluak ematen hasi zen. Titulu hauen abiapuntua, hala ere, ez zegoen 1970etan, gerraurrean baizik. Beraz, lehenik gerraurreko aurrekari hori azalduko da, ondoren Euskaltzaindiaren B eta D mailako tituluaren bilakaera ikusteko, beti ere, Komunitate Zientifiko Euskaldunarekin erlazioan.

XXI. mendera heldu den euskara titulu honen erroak oso luzeak dira, eta gerraurrean sustraituta daude. Gerraurrean diputazioek jendaurreko lanpostuetarako (mediku, maisu eta abar) euskararen gaineko ezagutza eskatzen zuten. Eusko Ikaskuntzak 1932. urtetik aurrera Donostian antolatuta Udako Ikastaroetan euskal hizkuntzaren ezagutzaren gaineko azterketak egin zituen. Azterketa gainditzeko, Idoia Estornesen arabera, gomendatzen zen udako ikastaroetan eskaintzen zen doaneko ikastaroan izena ematea. Titulua ematen zuen epaimahaiaren Euskaltzaindiaren ordezkari bat egoten zen. Horregatik-edo, gerraostean, tituludunetako batzuk, gerraurreko titulua balioztatzeko Euskaltzaindira jo zuten. Esate baterako, Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan aurkitu dugu Miguel Anabitartek 1959an Euskaltzaindiari eskatu ziola gerraurrean lortutako titulua berritzeko<sup>212</sup>. Beste batzuk berriz, gerraurreko titulurik ez zutenek, gerraurreko inertzia honengatik-edo, titulu eske jo zuten Euskaltzaindiarengana<sup>213</sup>.

Gerraostean Euskaltzaindiak euskara titulu bat sortzearen komenientziaz hitz egin zuen lehena Anai Berriotxo (edo Nicolas Altzola) izan zen 1961. urtean<sup>214</sup>. Baina proposamena ez zen haratago joan, horretan geratu zen. Urte batzuk beranduago,

<sup>212</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan honakoa jasota dator: “Migel Anabitarte jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Gerra aurrean Euskaltzaindiak emoneko titulu bat euskala diño, euskerearen jaube dala adierazoten dauena eta eskatuten dau ia barriztau leion. Erantzun bekio Donostiako euskaltzaiñen bategaz egon daitela eta emon bekio eskatuten dauena” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1959.1.29)

<sup>213</sup> A. Irigoienek 1978ko Bergarako Biltzarrean azaldu zuenez: “... nik esan behar dut, gerra ondoren ere Bizkaiko Diputazioak puntu bat edo, ez dakit zenbat, ematen zituela euskaraz zekitenentzat. Eta, orduan, Euskaltzaindira etortzen ziren gerra aurreko ohitura jarraiturik. Gero, Euskaltzaindia tituluak ematen ari izan da. Eta dirudienez, halako beharizana zegoen eta Euskaltzaindiaren titulu horri balio bat eman zaio.” (Euskaltzaindia, 1978: 554)

<sup>214</sup> “Anai Berriotxo-k asmo bat bialdu dau lan labur batean: diño egokia izango litzakeala Euskaltzaindiak titulu bat sortzea euskal-izkuntz estudio batzuk egindakoentzat. Esamiña batzuk egin bear izango litzakez iru urtetan-edo gai jakin batzuen gaiñean, eta azkenez titulua emon. Asmo au Irun-go Euskaltzaleen Biltzarrean agertzeko gogoia eukan.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1961.10.28)

Bizkaiko diputazioak 1964an eskatu zion Euskaltzaindiari erabaki zezan, M<sup>a</sup> Jesus Abasolo irakasleak Gernika-Lumo herriko baserri-eskolan euskaraz irakasteko adina euskararik bazekien<sup>215</sup>. Euskaltzaindiak azterketa egitea deliberatu zuen, eta A. Irigoien izendatu zen hartarako<sup>216</sup>. Hala ere, eztabaida piztu zen:

“Eztabaida sortu da puntutan. Jakin nai litzake, aurrenik, ea zenbateraiñoko babes eman dezakean Euskaltzaindiak euskal-eskola eta ikastaldietarako. Zadorlariak dio eztagoela, dirudienez, lege jakinik orretarako eta Euskaltzaindiak, legearen aurrean eskubiderik ez tuen ezker, ezin dezakeala baimenik eman, itzala eta laguntza baizik, eskatu zaion aldi oro egin duen bezala. Gero, **komeni litzake zenbaitek dionez, Euskaltzaindiak gaitasun-agiriak ematea**, era jakin batean. Orretarako, **Anaia Berriotxoak eta zadorlariak presta bezate egin ditezkean azterketen era ta tajua.**”<sup>217</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, berriro ere Anai Berriotxoak agertzen da euskara azterketan parte hartuz. N. Altzolaren proposamena ez dugu topatu, horretan geratu zen.

Hiru urte beranduago, 1967an Yon Oñatibiak Euskaltzaindiari honakoa proposatu zion 1967an: “irakasle izan nai dutenentzat ikastaroak eratu dituztela udara onetarako, ta ongi litzakeala baten ondorean Euskaltzaindiak irakasletzarako agiriak ematea.”<sup>218</sup> Hau da, Y. Oñatibiak eskatzen zuen euskara irakasle tituluak ematea<sup>219</sup>.

Bestalde, Euskaltzaindian 1966an sortutako Alfabetatze batzordeak, euskaldunen alfabetatze kanpainaren baitan, alfabetatzeko irakasle izateko ikastaroa antolatu zuen Donostian 1967an<sup>220</sup>. Alfabetatzeko ohiko eskolaz gainera, euskal literaturari buruzko hitzaldi batzuk eman zituzten euskaltzainek<sup>221</sup>. Ikastaro amaieran irakasle izango zirenei

---

<sup>215</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1964.7.26). Oharra: batzar-agiriaren data txarto agertzen da, eta data zuzena 1964.6.26 da.

<sup>216</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1964.7.24)

<sup>217</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1964.7.26). Oharra: batzar-agiriaren data txarto agertzen da, eta data zuzena 1964.6.26 da.

<sup>218</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.6.30)

<sup>219</sup> Eta ez zen bilera horretako eskari bakarra izan. Zumarragako Aierbe deiturako gizon batek, euskara klaseak ematen zituela, eta Euskaltzaindiak agiriren bat emateko eskaria egin zuen (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.6.30)

<sup>220</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.8.25)

<sup>221</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.8.28)

karneta eman zitzaien<sup>222</sup>. Laster beste ikastaro batzuk antolatu zituen Alfabetatze batzordeak, Bergaran adibidez<sup>223</sup>.

Alfabetatze kanpainetako irakasleen karneta alde batera utzita, Euskaltzaindiak euskararen ezagutza ziurtatuko zuen agiriak emateko eskari desberdinak jaso zituen. Esate baterako, 1968ko martxoko batzarrean Julita Berrojalbizek Euskaltzaindiari eskatu zion irakasle lanetan zihardutenentzat diploma bat sortzea. Euskaltzaindiak diploma hori emateko azterketa gainditu beharra adierazi zuen, honakoa gehituz: “lehenago ere inoiz erabilitako gaia danez, beste gabe, batzorde bat izendatzea erabaki da esamiñaren programa bat eta izango dan agiri ematea zelan egin estudiatzeko. Auek izendatu dira batzordeko: Patxi Altuna, Yon Oñatibia eta Nemesio Etxaniz”<sup>224</sup>. Une honetatik aurrera, bi motatako irakasleak bereiztu ziren: alde batetik, euskaraz irakasten zuten irakasleak (eta horientzat azterketa eta diploma edo karneten bat sortu behar zen); eta bestetik, alfabetatze irakasleak, hau da, euskara irakasten zutenak (hauek alfabetatze batzordearen ikastaroetan karneta eskuratzen zuten). Alfabetatze batzordeak, R. Arregi erbestetik itzuli arte, karnet, diploma edo agirien gaineko kontuak finkatzeke utzi zituen<sup>225</sup>.

Tartean, eskari berriak heltzen ziren. Esate baterako Pakita Arregik, J. Berrojalbizen antzera, Euskaltzaindiak ikastolako andereñoen agiriren bat ematea eskatu

---

<sup>222</sup> Lehenengo ikastaro honetako gastuak Euskaltzaindiak bere gain hartu zituen. Baina hurrengo ikastaroak autofinantziatuak izan beharko zirela erabaki zuen Euskaltzaindiak, eta beraz ikasleek matrikula ordaindu beharko zutela (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.1.26)

<sup>223</sup> “... Bergarako kursilloan izan ziran akats batzuek salatu ditu Oregi jaunak, esanaz, aditz eta atzizkiak zelan erabili bear diran ez dakitenean artean zabaldu dirala irakasle karnetak. Euskaltzaindiaren ortografiatik kanpo dabillen liburu baten aleak zabaldu zirala. Are gehiago, *z* eta *s* bereizten etzekitela an karneta artu zuten gehienak, eta bearrezkoa dela, urrengoan, maiburu baten esamiñetatik pasatu bearra.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.2.23). Antza denez, hori guztia gertatu zen, Rikardo Arregi, erbestean zegoelako. Aipuan azterketak jartzeko aukera aipatzen den arren, ez dirudi azterketarik jarri zenik hurrengo ikastaroetan. Beraz alfabetatze kanpainetan aritzeko irakasle karneta lortzeko ez zen azterketarik gainditu behar. Hurrengo urteetan ere Euskaltzaindiak karnet hau banatu zuen, harik eta 1972an berritzea erabaki zuen arte. Orduan Euskaltzaindiak lehengo karnetaren testua aldatu beharra lantzeaz gainera, ordura arte antolatu ez ziren “esaminak ere antolatu beharra” aipatu zuen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.10.27)

<sup>224</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.3.29)

<sup>225</sup> (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.4.26). Tartean Eibarren beste alfabetatze ikastaro bat antolatu zen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.5.31)

zuen<sup>226</sup>. Euskaltzaindiak abuztuan ontzat eman zuen azterketa gainditzen zuten ikastola andereñoi holako agiri bat ematea<sup>227</sup>.

### 3.2.2.1. D eta B mailako euskal irakasle titulua

Euskaltzaindiak, 1971. urtean, tituluak emateko prozedura finkatu zuen. Prozesuak bi fase izango zituen: hasiera batean, azterketarik egin gabe, euskara irakasten ari zirenek *curriculum vitae*a aurkeztu eta euskara irakasteko erabiltzen zuten metodoaren gaineko xehetasunak eman behar zituzten karneta eskuratzeko eta, ondoko deialdietan, *curriculum*az gainera, azterketa gainditu behar zen<sup>228</sup>.

Mota bakoitzeko irakasle tituluaren azterketaren oinarriak finkatzeko proposamena P. Altunak eta X. Kintanak prestatu zituzten. P. Altunak euskara irakasteko irakasleen karneta eskuratzeko bere proposamenean, azterketaren edukiak azaltzeaz gainera, bi maila egotea proposatu zuen<sup>229</sup>. X. Kintanak berriz, eskola eta ikastoletan klaseak euskaraz ematen zituzten irakasleentzat euskal kulturari buruzko azterketen edukiak proposatu zituen<sup>230</sup>. Bigarren titulu honen antolaketa albo batera geratu zen, berau antolatzeko premia ez zelako hain larria<sup>231</sup>. Beraz, hori alde batera utziko dugu eta aurrekoan zentratuko gara, euskara irakasteko karnetean alegia.

---

<sup>226</sup> “Pakita Arregi’k ikastoletarako andereño ta andereño laguntzaileendako agiriak gertatzea komeni dala dio. Euskaltzaindiari derizkion muga batzuek jarriaz euskeraz erakusteko gauza dala adieraziko duena. Era orretan eskari bat gertatzea, bearko diran baldintzak adieraziz, andereño beraien esku uzten da.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.6.28)

<sup>227</sup> “Pakita Arregi mintzatu da andereñoentzat izan dan esamiñari buruz, zelan eraman diran agerreraiaz, eta agiri baten eskaria egiñaz. Ontzat artu da: “Euskaltzaindiak... andereñoa, bere ikas-saioak egin ondorean, aur txikiari euskal ikasketak erakusteko gai dala agertzen du” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.8.30)

<sup>228</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.2.26)

<sup>229</sup> Bi maila bereizteko proposamena P. Altunak Euskaltzaindiaren iraileko batzarrean aurkeztu zuen, baina proposamen zehatza ez zuen urrira arte argitu. Urriko proposamenean honakoa zioen: “Euskal kulturaren jakinduriaz jarriko diren bi mailak hau bete beharra: I. mailan, Euskal Herriari buruzko kultura orokorra, Literatura, Historia, Geografia, Euskara; II. Mailan, Literatura, Historia, Euskara, eta Hiztegi teknikoak. Lehendik dituen estudioez gainera hornitzeko da hau” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.10.29)

<sup>230</sup> “Kintana jaunak, bere aldetik, euskal kulturaren horniduraren esamiña programa adierazten du bere txostenean, Euskal Herriaren geografia eta historia oinharrizkoaren eskema bat presentatuaz, gure herriaren kulturaz hornidurik dagoenaren agiritzat. Kultura honen premia ikastoletako andereñoetan nabari denez gero, beren maestra-pedagojia jakintzaz aparte (zeren Magisterioko euskal jakintza oso kaxkarra denez gero), hobeto esan, jakintza honez gainera beharra duten tokian agertu ahal izateko. Hemen ere, esamiña ondorean agiri bat emango litzake.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.9.24)

<sup>231</sup> Euskal kulturari buruzko titulu hau 1974an oraindik ez zegoen antolatuta eta Kintanak proposamen bat aurkeztu zion Euskaltzaindiari: “Xabier Kintana mintzatu da gai honetan premia larriaz. Euskal Kultura

Karnetak banatzeko, Euskaltzaindiak batzordea izendatu zuen<sup>232</sup>. Irakasle batzorde honek P. Altunaren proposamena berregokitu zuen, azterketako edukiak birdefinituz, berau prestatzeko bibliografia emanaz eta hiru maila bereiztuz<sup>233</sup>. Horrela sortu zen 3 mailako titulua: D mailakoa, mailarik apalena, B mailakoa eta, gorengo mailako A titulua. Euskaltzaindiak D mailako lehen tituluak 1972. urtean eman zituen, B mailakoak 1975an, eta dakigula, A mailakorik ez zuen eman<sup>234</sup>.

Behin titulua emateko eta eskuratzeko oinarriak finkatuta, batzordeak deialdia prestatu zuen. Lehen deialdia, eta arestian aipatu dugunez, ordura arte euskara irakasten ari zirenentzat zen, eta curriculumak bidaltzarekin nahikoa zuten. Batzordeak, aurkeztutako curriculumen argitan, erabaki zuen nori titulua eman eta nori ez<sup>235</sup>. Lehen deialdian batzordeak berak aitortu zuenez: “ez zaigu bidezko iduritu esku zabalegiz jokatzeari”<sup>236</sup> eta bakar batzuri, 11 pertsonari hain zuzen ere, eman zitzaion D mailako titulua, beste guztiak azterketara bidaliz<sup>237</sup>. D mailako tituluaren azterketa egiteko leku bi finkatu ziren: Bilbon Euskaltzaindiaren egoitzan eta Donostian EUTGn<sup>238</sup>. Azkenean, lehen urte hartan, 1972an, D mailako euskal irakasle titulua, –hau da, diploma eta karneta–, 113 pertsonak eskuratu zuen<sup>239</sup>, besteak beste, P. Goenaga, A. Eguzkitza, J. Iturbe, J. M. Odriozola, J. R. Etxebarria, L. Azkune, J. Urrujulegi, A. Sarriegi, G. Kortabarria, J. J. Zearreta, M. Zalbide, J. L. Goikoetxea, M. K. Garmendia, R. Badiola

---

gaiak inongo ikastetxetan erakusten ez direnez, andereño, maisu eta gainerakoentzat irakasketak bideratzeko, euskarazko irakasleekin egin den bezalatsu zerbait egin beharra dagoela. Baina gure bete beharra hizkuntzaren ingurukoa soilik denez gero, beste instituzio, mintegi edo elkarte batzuekin kontaktu beharko ginuke, edo behar bada Udako Euskal Unibertsitatearen ardurapean utzi. Gai hau programatzea X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. San Martinen esku ustean da, gaiak mugatzeko eta irakasle izenen hornitzeko, gero antolakizuna onduen bete lezakeanari eskaintzeko”. (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1973.9.28)

<sup>232</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.12.30)

<sup>233</sup> (Irakasle Batzordea, 1972)

<sup>234</sup> Ez dugu guk behintzat A mailako tituludunen zerrendarik topatu *Euskera* buletinean.

<sup>235</sup> 1972ko martxoan jakinarazi zuen, curriculumak aztertuko zirela hilabete batean (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.3.28)

<sup>236</sup> (Irakasle Batzordea, 1972: 223)

<sup>237</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.4.28)

<sup>238</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.9.10 eta 1972.9.29). Azterketetara zenbat aurkezten diren eta nortzuk gaituzten duten *Euskeran* bertan argitaratu zen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.10.27). J. Haritxelharrek bestalde iraileko batzarrean azterketok Baionan ere egitea eskatu zuen eta onartu zen. Hala euskara irakasleen lehen azterketak Donibane Lohitzunen egin ziren (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1973.5.25)

<sup>239</sup> Ikus zerrenda hemen: “D mailako irakasle tituludunak” *Euskera*, 18 (1973), 244-247. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50531.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]



eta beste. Ondoren Eibarren<sup>240</sup>, Arrasaten, Donibane-Lohitzunen,... egin ziren azterketak. Hartara, Euskaltzaindiak 1974ko abenduan jada 284 irakasle titulu emanda zituen<sup>241</sup>. Normalean, Euskaltzaindiak urte osoko tituluak ekitaldi publiko batean banatzen zituen<sup>242</sup>.

Azterketara aurkezteko komeni zen alde zaurretik ikastaro bat egitea. Ikastaroak elkarte edo talde desberdinek prestatu zituzten. UEUK esate baterako 1977-1981. urteen artean, D eta B mailako tituluak eskuratzeko ikastaroak antolatu zituen Iruñean. 1977ko ikastarorik arrakastatsuenak hain zuzen D eta B mailako tituluei buruzkoak izan ziren. Lehenengoan, 139 ikasle matrikulatu ziren, eta bigarrenean berriz, 68<sup>243</sup>. Gainera, UEUK ikastaroetako materiala ere argitaratu zuen: D mailako 3 liburuxka eta beste bat B mailakoa<sup>244</sup>. Euskaltzaindiak, 1977. urtean, eta ostean ere, UEUK Udako Ikastaroak Iruñean antolatu zituela aprobetxatuz, nafarrentzat eta UEUKo ikastaroko ikasleentzat azterketa deialdia egin zuen. 1978an “350 lagunek egin zuten Euskaltzaindiaren B eta D tituluak lortzeko azterketak”<sup>245</sup>. Hurrengo urte bitan ez zen halako ikastarorik antolatu, 1978ko UEUKo Batzar Nagusiak erabaki zuelako UEUren zeregina ez zela tituluak ematea. Horren ondorioz, urte horietako Udako Ikastaroetako parte-hartzaile kopurua asko jaitsi zen<sup>246</sup>.

Euskaltzaindiak EAEn antolatutako azken azterketa 1981ean izan zen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartu zuen, eta gaur egun Sail honek kudeatzen du titulua. Hezkuntza Sailak, hala ere, tituluaren ezaugarriak berregokitu zituen, euskara irakasle titulua izateari utzi zion, eta 1982. urtean euskararen ezagutza ziurtatzen duen agiria edo *Euskararen Gaitasun Agiria*

---

<sup>240</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.11.24)

<sup>241</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1974.12.27)

<sup>242</sup> Esate baterako lehen urtean Elgoibarren eman zituen Urruzuno idazlearen omenezko ekitaldian, bigarrena Lekeition Eusebio Azkueren mendeurrenaren kariaz Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldian, hirugarrena Azkoitian, RSBAP eta Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldian eta abar.

<sup>243</sup> (Aizpuru, 2003a: 91)

<sup>244</sup> Aipatutako liburuak honako hauek dira: *D mailako ikastaroa*, *D Mailarako analisi adibide batzu*, *D Mailarako testu azterketa* eta *B mailako ikastaroa*.

<sup>245</sup> (Aizpuru, 2003a: 117)

<sup>246</sup> Hala ere gero berriz antolatu ziren, UEUn antolatutako D mailako azken ikastaroa 1981koa izan zen eta 11 ikaslek parte hartu zuen (Aizpuru, 2003a: 153)

(EGA) sortu zuen<sup>247</sup>. Agiri honek, dela irakaskuntzarako, dela beste edozein lanbidetarako euskararen gaineko ezagutza ziurtatzen du. Nolabait esateko EGA, D mailako tituluaren baliokidea litzateke. B mailako tituluaren erabat desagertu zen.

Nafarroa eta Iparraldeari dagokionez, tituluaren egoera arras desberdina izan da. Iparraldean oraintsu arte Euskaltzaindiak urtero deialdia egiten jarraitu du<sup>248</sup>. Nafarroaren kasuan ordea, tituluaren 1985. urtetik aurrera, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen<sup>249</sup>. Hala ere, lehen urte horretan, Euskaltzaindiak ezin izan zuen Nafarroako erakundearen esku utzi<sup>250</sup> eta bere gain hartu behar izan zituen deialdi eta azterketari zegozkion kontu guztiak<sup>251</sup>.

1972. urtetik EAEn, Nafarroan zein Iparraldean Euskaltzaindiaren hizkuntza agiria lortu zutenen izen deiturak *Euskera* buletinean argitaratu ziren. Horri esker badakigu Euskaltzaindiak 1972-2006. urteen artean D mailako 6.994 titulu banatu zituela, gehienak (% 80a) 1972-1981. urteen artean eman baziren ere.

Euskaltzaindiak B mailako euskal irakasle tituluaren lehen aldiz 1975ean eman zuen. Titulu hau lan bat aurkeztuz eskuratzen zen<sup>252</sup>. Hala, aipatutako urtean, B mailako 29 titulu eman zituen Euskaltzaindiak<sup>253</sup>. Lanen izenburuen argitan, lanak, oro har, euskal hizkuntza eta literaturari buruzkoak ziren. Baina baziren euskal hizkuntzari buruzkoak ez zirenak edo hizkuntzalaritzari hertsiki lotu gabeko lanak, adibidez euskal hizkuntzaren irakaskuntzari edo euskara zientifikoari, edo bestelako gairen bati buruzko

<sup>247</sup> Ikus Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1982eko apirilaren 22ko Agindua (EHAA/BOPV, 54. zkia)

<sup>248</sup> Esate baterako 2006. urtean Euskaltzaindiak 74 titulu eman zituen (ikus *Euskera*, 51 (2006) <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50531.pdf> [kontsulta data: 2009]). Gaur egun Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) EGAKo azterketa egiten du Ipar Euskal Herrian.

<sup>249</sup> (Irigoiñ & Zearreta, 1986)

<sup>250</sup> Euskaltzaindiaren *Euskera* buletinean agertzen denez, “Hizkuntz Eskolakoekin harremanetan jarri ondoren konturatu ginen aurtengoz esku aldaketa hori ezinezkoa gertatuko zitzagukeela, beraiek matrikulaldia itxia baitzuten. / Honen ondorioz berriro arduratu behar izan du Euskaltzaindiak matrikula, azterketa eta zuzenketaz” (ikus “Nafarroako D-mailako azterketak” *Euskera*, 30 (1985), 675. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50637.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08])

<sup>251</sup> Dirudienez, 1986. urtean Nafarroako Hizkuntza Eskolak bere gain hartu zuen euskararen ezagutza edo gaitasun agiri hauek kudeatzea.

<sup>252</sup> Euskaltzaindiaren B mailako euskal irakasle tituluaren eskuratzeko aurkeztutako lan asko Azkue Bibliotekan gordetzen dira.

<sup>253</sup> Ikus zerrenda “B mailako irakasle tituludunak (1975 urtekoak)” *Euskera*, 20 (1975), 475-476. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50926.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

lanak. Esate baterako 1975ean J. R. Etxebarriak “Euskara Teknikoari buruzko eritzi batzu”<sup>254</sup> lana aurkeztu zuen, K. Izagirrek “Zenbait ohar Gabriel Arestiren lan literarioaz”, A. Eguzkitzak “Haur Besoetakoa egilearen inguruan”<sup>255</sup>, J. L. Goikoetxeak “Haurrek euskaraz gurasoekin. Euskarazko Taldeak, 1976-1977” eta abar. Lan horietako batzuk ondoren argitaratu egin ziren, euskaraz egindako maila jasoko ekarpenak izanik.

1977an B mailako 66 titulu banatu ziren. Titulua eskuratu zutenetako asko gaur egun oso ezagunak dira euskal kulturgintzan: M. K. Garmendia, P. Urkizu, J. M. Apalategi, P. Goenaga, J. K. Igerabide, M. Loinaz, K. Perez Urraza, J. M. Olaizola, A. Sarriegi, M. Egaña, H. Etxebarria, J. J. Gonzalez de Txabarri, T. Larrea, J. A. Mujika, K. Zuazo...

B mailan aurkeztutako lan gehienak euskal hizkuntza eta literaturari buruzkoak ziren, hain zuzen ere, aurkeztu ziren pertsona gehienak euskara irakasleak, idazle eta abar zirelako. Hala ere, egon ziren lan espezifikoagoak aurkeztu zituenak ere, adibidez Iñaki Azkunek “Teknologia mekanikoaren hastapenak” lana aurkeztu zuen, eta M. Haranburuk “Hypophysia” lanarekin lortu zuen titulua. Beraz, B mailako titulua lortu zutenak euskararen gaineko ezagutza zabala eta beraien gaia euskaraz emateko gaitasuna zuten.

Euskaltzaindiak 1975ean, lehenago sortutako Irakaslego Batzordea (1972) eta aldi berean azterketen tribunala ere bazena, berritzea eta zabaltzea onartu zuen, tituluen premiari hobeto erantzuteko:

“Euskaltzaindiak gaur dituen arazo eta zereginik premiatsuenetako bat da, besteak beste, euskal-irakasle tituluak ematea. Gaur diot. Bihar-etzi ez dakit.

(...)

Azken urteotan, guztiok dakizuten bezala, eta zorionean, hagitx **ugaritu dira ikastolak eta modu batera nahiz bestera euskara irakatsi nahi duten lekuak**. Eta hortik etorri da **euskal-irakasleen arrakasta eta premia gaur** aparteko modu batean eta sekula ez bezala nabaritzea.

---

<sup>254</sup> Etxebarriak gerora lan hau *Elhuyar* aldizkarian argitaratu zuen bi zatitan 1975. urtean bertan.

<sup>255</sup> Eguzkitzak titulua eskuratzeko J. Miranderen gainean egindako lana, hurrengo urteetako beste zenbait lanen abiapuntua izan zen: 1979ko udako ikastaroetako ikastaro batena, eta *Saioak* aldizkarian argitaratutako zenbait artikulua.

Premia honi erantzuteko Euskaltzaindiak Euskal-Irakasle Titulua sortu zuen (...). Eta geroztik makina bat **jaun eta andre, batez ere gazte jendea, etorri da** guregana titulu horren eske, eta anitzek lortu ere du.”<sup>256</sup> [beltzak gureak dira]

Titulu eskari etengabe eta jarraituari erantzuteko L. Villasantek “tituluak seriotasun pixka batekin”<sup>257</sup> egitea proposatu zuen, hau da, edozeini ez ematea, eta tribunalerako kide aproposak aukeratzea, hau da, Filosofia eta Letretan lizentziadunak.

L. Villasanteren erreformak ez ziren nahikoa izan, eta hiru urtera Irakaslego batzorderako kide berriak izendatu behar izan ziren (1978), gero eta pertsona gehiago aurkezten zelako azterketara<sup>258</sup>. Halaber, urte horretan bertan batzordeko kide batek, Xabier Mendigurenek proposamen berri bat aurkeztu zion Euskaltzaindiari tituluaren gainean. Bere, eta batzordearen ustez, Euskaltzaindiak ordura arte banatutako irakasle tituluak ez ziren benetako irakasle tituluak, hizkuntzaren gaineko ezagutzaren agiriak baizik, azterketetan ez baitzen eskatzen hizkuntzaren irakaskuntzarako trebetasun edota ezagutzarik. Horregatik batzordeak Euskaltzaindiaren D eta B mailako tituluaren izendapena eta edukiak zehazteko gomendio egiten zuen. X. Mendigurenentzat, D mailakoa hizkuntzaren “ezagupen eta trebetasun mailako izango litzateke” eta B mailakoa titulua,

“birmoldaketa baten ondoren, egiazko “irakasle titulu” bihur liteke, baina hortarako espezializapen mailako ezagupen eta trebetasunak garantizatu beharko litzuzke: hots, hizkuntza mintzatua eta literarioa ez ezik, berau irakasteko beharrezkoa den didaktikazko prestakuntza egokia.”<sup>259</sup>

X. Mendigurenen ekarpenaren gainean Euskaltzaindiak ez zuen hileko batzarrean erabakirik hartu. Agian egoerak gainezka egiten zion. Kontuan izan behar da, Euskaltzaindiak 1978. urtetik aurrera, urtero D mailako 1.000 titulutik gora banatzen zituela, hainbat tokitan egindako azterketetan. Ondoko grafikoan ikus daitekeenez (IV.1. Grafikoa), Eusko Jaurlaritzak 1982. urtean EGA eman arte, Euskaltzaindiak


<sup>256</sup> (Villasante, 1976b: 284)

<sup>257</sup> (Villasante, 1976b: 284)

<sup>258</sup> “Bestalde, azken azterketetan irakaslegaien kopurua gehituz doala ikusirik, Irakaslego Batzordea ugaritu beharra ikusten da. Hau dela eta Batzordea jaun hauek osatuko dute: E. Knörr, A. Irigoien, X. Kintana, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, P. Uribarren, I. Laspiur, *Txillardegi*, J. Atxa, P. Zabaleta, P. Xarriton euskaltzain eta laguntzaile, eta J. L. Goikoetxea, J. M. Mujika eta A. Ozamiz Unibertsitateko irakasleak. Batzordeko idazkaria J. J. Zearreta izango da.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.3.31)

<sup>259</sup> (Mendiguren, 1978b: 291)

azken urteetan 1.000 titulutik gora kudeatzen zituen. Horregatik agian, 1978ko Bergarako Biltzarrean euskaltzainak gai honetaz mintzatu zirenean adierazi zuten Euskaltzaindiaren deserosotasuna tituluei zegokionez<sup>260</sup>.



**IV.1. Grafikoa:** Euskaltzaindiak emandako D mailako irakasle tituluak (1972-1983).

Iturria: *Euskera* buletinean argitaratutako D mailako tituludunen zerrendak.

Laburbilduz, Euskaltzaindiak erantzun zion ikastolen zein alfabetatze-euskalduntze mugimenduetatik zetorren tituludun irakasle euskaldunen premiari eta eskariari. Alde batetik, tituluak sortuz, eta bestetik, titulu horiek “irakasle titulu” gisa definituz. Horregatik, garaiko behar izanak behartuta, EGA aurreko tituluak, irakasle tituluak izan ziren. Titulu horiek lortzeko normalean azterketa gainditu behar zenez, jende askok euskara idatzian trebatu behar izan zuen bere burua, alde horretatik euskarazko alfabetatzean lagundu zuten tituluak.

Euskaltzaindiak euskara irakasle tituluak sortu zituela baino, agian egokiagoa da esatea, tituluak inprobisatu zituela, edota hartutako unean uneko erabakien ondorioz forma hartuz joan zela, Euskaltzaindiak ez baitzuen ia esperientziarik tituluen diseinu eta kudeaketan, ezta erakunde egitura aproposik ere tituluak kudeatzeko. Hau da, hizkuntzaren akademia izaki, bazuen hizkuntzaren afera honetan eskua sartzerik, baina Akademia zen heinean, hau da, goi mailako erakunde zientifiko-akademikoa, eta ez Hizkuntza Eskola bat, ez zuen esperientziarik, ezta nahikoa egitura instituzional malgurik ere, euskara tituluak eskatzen zuten alde aurreko hausnarketa, diseinu, planifikazio eta antolaketa bideratzeko. Azkenean, zetorrenari erantzunez, bidea eginez

<sup>260</sup> Ikus atal honen hasieran (3.2.2. *Euskara irakasle tituluak*) J. San Martin eta L. Villasanteren aipuak.

joan zen. Ezbairik gabe, beraz, Euskaltzaindiak euskara irakasle tituluekin garaiko eskari eta premiei erantzun zien, alde zureko esperientziarik gabe eta erakundearen egitura zein izaera aproposenak ez ziren arren.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak, eta beronen aurrekaria izan zen Eusko Kontseilu Nagusiak euskara tituluaren gaineko zenbait Agindu kaleratu zituen 1979-1982. urteen artean, antzeko inprobisazioa erakusten dutenak. Aginduok, banan banan eta labur aipatuko ditugu, ikusteko zer gertatu zen, eta nola sortu zen EGA. Lehenengo Aginduak (1979ko apirilaren 20koa) euskararen sarrera irakaskuntza ez unibertsitarioan arautzen zuen (hau da, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean (OHO), Batxilerrean eta Lanbide Heziketan). Euskara hezkuntzan sartzea agintzen zenez, irakasle euskaldunak behar ziren. Aginduak irakasle euskaldunek *Euskararen Irakasle Diploma* izan beharko zutela ezarri zuen<sup>261</sup>. Hurrengo Agindu batean (1980ko otsailaren 26koa) Eusko Kontseilu Nagusiak arautu zuen aipatutako diploma zertan zetzan. Agiria lortzeko titulugaiak irakasle diploma edo lizentzia titulu bat eduki behar zuten, eta mota desberdineko bi ezagutza frogatu behar zituen: lehena, euskal hizkuntzaren gainekoa, eta bigarrena, hizkuntzaren didaktikari zegokiona. Titulugaiak lehena frogatzeko Euskaltzaindiaren agiria eskuratu behar zuen. Bigarreneko ikastaro bat egin eta azterketa gainditu behar zuen.

*Euskararen Irakasle Diploma* indarrean oso denbora gutxi egon zen, handik bi urtera Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindu bidez *Euskararen Gaitasun Agiria* (EGA) sortu baitzuen<sup>262</sup>. Une honetatik aurrera irakaskuntzarekin lotutako tituluak desagertu ziren, eta EGA edozein lanbiderako

---

<sup>261</sup> Aginduak zehazki honakoa jaso du (gaztelaniazko bertsioa dakargu zehatzagoa iruditzen zaigulako euskarazkoa baino): “20.1. Para impartir enseñanzas de Lengua Vasca durante el curso 1979/80 en todos los niveles académicos que dependen del Ministerio de Educación, se exigirá, además del título académico correspondiente a cada nivel, el diploma de Profesor de Lengua Vasca (Euskararen Irakaslea). Este diploma será expedido por el Consejo General del País Vasco, a propuesta de la Comisión mixta, que podrá aceptar los títulos, diplomas o referencias académicas que presente cada aspirante o exigir a éstos, en su caso, la superación de determinadas pruebas” (EHAA/BOPV, 1979ko apirilaren 20ko Agindua, 31. zkia)

<sup>262</sup> EHAA/BOPV, 54. zkia, 1982ko apirilaren 22ko Agindua.

euskararen gaineko ezagutza ziurtatzen zuen titulua bihurtu zen<sup>263</sup>. Azken finean, irakaskuntza ez zen euskaldun trebatuak behar zituen esparru bakarra.

### 3.2.3. Akademiaren hiztegi-gintza jarduna

Euskaltzaindiaren 70eko hamarkadako argitalpengintzak, Akademiaren ohiko bideari jarraitzen dio, hau da, aldizkako argitalpen bat, *Eusker*a buletina, eta bestetik liburu argitalpenak eta berrargitalpenak. Berrargitalpenak eta zehazki R. M. Azkueren obren gaineko egile eskubideak *Euskalerr*aren *Yakintza* zein hiztegiaren gainekoak kudeatzeak burukomin bat baino gehiago eragin zizkioten Euskaltzaindiari, Akademiarenak zirelako R. M. Azkueren lanen egile eskubideak. Hiztegiaren gainean *La Gran Enciclopedia Vasca*rekin ezin konpondua hainbesteraino heldu zen, non Euskaltzaindiak auzitegira jotzeaz gain, honakoa erabaki baitzuen: “Euskaltzaindikoeri dei-egitea erabagi da hauziak konpontzen ez diran arten behinpehin, “La Gran Enciclopedia Vasca”-n inork ez dezan kolaboratu: eta bertan lankide egiten duenari boto-zensura jarriko zaiola”<sup>264</sup>. Arazoa urte amaierarako konpondu zen, eta Euskaltzaindiak argitaletxeari ezarritako “betoa” altxatu zion<sup>265</sup>.

Bestelako liburu argitalpenekin berriz, Euskaltzaindiak ez zuen kudeaketa arazo berezirik izan, baina oso liburu gutxi argitaratu zituen, dozena bat inguru. Hala ere, argitalpen proiektu interesgarriak gauzatu zituen, esate baterako Siadecoren laguntzaz prestatutako *Euskararen liburu zuria* (1978)<sup>266</sup>, edo *Hitz egin!* (1978) euskara ikasteko metodoa, eta bestelako argitalpen proiektuei bere babesa eman zien, adibidez *Ipurbeltz* komikiari<sup>267</sup>.

---

<sup>263</sup> Eusko Jaurlaritzaren erabakiak honela dio: “1. Hainbat ikasketa, lanbide eta gizarte-zereginetarako euskara-ezaguera eta erabilera neurtu eta segurtatuko duen frogabide amankomun eta zehatz baten beharraz jabeturik, EUSKARAREN GAITASUN-AGIRIA eratzea. / 2. Gaitasun-agiri honen bidez zera adieraziko da: kasuan kasuko agiridunak euskara behar adinbateko trebetasunez erabiltzen dakiela, ahoz eta idatziz” (EHAA/BOPV, 54. zkia, 1982eko apirilaren 22ko Agindua)

<sup>264</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.3.31)

<sup>265</sup> *La Gran Enciclopedia Vasca*koak onartu zuten Euskaltzaindiari 200.000 pezetatoko ordainketa egitea Azkueren hiztegiaren egile eskubideengatik (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.11.27)

<sup>266</sup> Euskaltzaindiak liburu honen argitalpenari begira liburu bilduma bat sortzea erabakitzen du: Euskaltzaindiaren liburu saila (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.4.30)

<sup>267</sup> “Ipurbeltz deritzan komika, haurren aldizkariaren premia gorri ikusiz, baimen kontuak lortzeko babestea erabaki da” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.2.26)

Euskaltzaindiak garai honetan, arreta berezia jarri zuen hiztegegintzan. Alde batetik, hizkuntzaren akademia zelako, eta bestetik, 1968an Arantzazun abian jarritako euskararen batasun prozesuaren osagarri ezin hobe zelako. Euskaltzaindiak hiztegegintzaren esparruan egindako lan mardula *Eusker*a buletinean argitaratu zen eta ez liburu gisa. Hiztegegintza lanean, aurrerago ikusiko dugunez, Euskaltzaindiaz gain, beste talde batzuk ere aritu ziren. Horien artean, ezinbestekoa da aipatzea Jakin Kultur Taldea, hiztegegintzaren eremuan egindako lanarengatik, bereziki UZEIren sorrera ekarri zuelako. Hiztegegintza lan hauek bereziki interesatzen zaizkigu zeren euskarazko ekoizpen zientifikoa gerta dadin (artikuluak, liburuak zein unibertsitate mailako irakaskuntza) ezinbestekoa baita hizkuntza estandar sendoa izatea eta lexiko berezitua garatzea.

Euskaltzaindiaren hiztegegintzak hiru ardatz zituen: lehena, euskararen batasun prozesuarekin lotutako hiztegegintza, bigarrena eskola mailakoa, eta azkenik, gai jakin bati lotutako lexiko berezitua. Hiruretatik gehien bat lehenengo bietan jardun zuen Akademiak. Azkenetik hasiko gara epe honetan aipatutako arlo bakoitzean Euskaltzaindiak zer egin zuen azaltzeko.

### **3.2.3.1. Hiztegi espezializatuak**

Euskaltzaindia jakintza-arloen araberako hiztegi berezietan gehiegi murgildu ez zen arren, esparru edo gai jakin baten gaineko hiztegi espezializatuak prestatu beharraz behin baino gehiagotan aritu zen, baita batzuk prestatu ere. Ondorengo lerroetan proiektu adierazgarrienak aipatuko ditugu.

L. Villasantek 1972an “Lege gizonek behar duten hiztegi berezia” izenburuko txostena aurkeztu zuen Akademian. Euskaltzainburuak kontatzen zuenez, Antonio Arruek helarazi zion zuzenbide pribatuko erdal hitz zerrenda bat, Euskaltzaindiak hitz horien euskal ordaina eman zezan. L. Villasanterentzat lan zailtxoa zen, ezin zen nolana egin, ezta edozeinek ere “alde batetik, euskeraz ongi jakin behar da, eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon”<sup>268</sup> behar zen. Baina zaila izan arren,

---

<sup>268</sup> (Villasante, 1973: 203)



Euskaltzaindiak ezin ziren halako eskabideei muzinik egin eta erantzuten ahalegindu behar zen. Horretarako beraz, honako prozedura hau planteatu zuen: lehenik zuzenbide arloko adituei<sup>269</sup> galdetuko zitzairen hitzen euskarazko ordaina, ondoren, erantzunak K. Mitxelenari pasatu, berak bere iritzia eman zezan, eta azkenik batzorde txikiago batean, ekarpen guztiekin hitzen forma definitiboa aukeratuko zen. Antzeko prozedura jarraitu zen X. Gereño proposatutako filateli hiztegian. Proposamena 1971an egin zuen X. Gereñok (“Filateliarako hiztegi tekniko baten eskea”<sup>270</sup>), gaian adituak ziren pertsonekin batzordea eratu zen<sup>271</sup> eta hurrengo urterako Euskaltzaindiak filateliarekin lotutako hitz zerrenda labur bat onartu zuen<sup>272</sup>.

Euskaltzainditik kanpo ere hiztegi berezituen proposamenik heldu zen, adibidez Etxegintza eta Arkitekturako hiztegia. Hasiera batean, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako atalak abian jarritako lantalderako pertsona bat izendatu eta proiektua babestu behar zuen, besterik ez<sup>273</sup>. Euskaltzaindiak hiztegian laguntzeko pertsonak izendatu zituen<sup>274</sup> eta egikaritzeko aholkuak eman ere. Azkenean, hiztegia, arkitektuen elkargoak egin beharrean, Euskaltzaindiak izendatutako batzordeak prestatu zuen<sup>275</sup>. Hiztegiako fitxak A. Zumalabek, aparejadorea eta urgazleak, prestatu eta Akademian aurkeztu zituen<sup>276</sup>. Akademiak A. Zumalaberen hiztegia argitaratzea erabaki zuen 1976. urtean, eta hiztegia orrazteko batzorde berri bat izendatu zuen, Elhuyar eta Arkitektuen Elkargoa izendatuz<sup>277</sup>. Elhuyarrekoak hiztegia orrazteaz gainera, hiztegia gaurkotu behar zela adierazi zuten eta horretara jarri ziren. Hala, hiztegiaren prestaketa oraindik zenbait urtez luzatu zen. Elhuyarren arabera, A. Zumalabek erabilitako iturriengatik (adb. R. M. Azkueren hiztegia), industrializazio

---

<sup>269</sup> Honako hauei galdetzea aurreikusi zen: A. Arrue, J. M. Lojendio, J. Oleaga, G. Monreal, J. Caro Baroja, K. Santamaria, A. Muniategi eta P. Zabaleta (Villasante, 1973: 204)

<sup>270</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.9.5)

<sup>271</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.10.29)

<sup>272</sup> Ikus erabakia Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.1.31an eta zerrenda hemen: “Filateli hiztegia” *Euskera*, 18, 205-206. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51889.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>273</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.9.25)

<sup>274</sup> “Etxegintza hiztegia prestatzeko batzordea, Euskaltzaindiari egin zaion eskariari jaramon eginaz, izendapen hauek egiten dira: Atal Eragilerako: J. M. Barandiaran, J. San Martin, J. Elozegi. Barandiaran buru eta Jesus Elozegi idazkari direla. Kontseilari Atalerako: Jose Miguel Zumalabe “aparejadorea”. A. Zatarain euskaltzaindikoa eta ingenierru dena, Castor Uriarte arkitektoa eta P. Lafitte euskaltzaina.” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.11.27)

<sup>275</sup> Euskaltzaindiak Elkargora bidaltzen zuen hiztegiaren gaineko lanen berri.

<sup>276</sup> (Zumalabe, 1974)

<sup>277</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.9.24)

aurreko garaiko hitz teknikoak biltzen zituen, baina ez “gurko Arkitekturak behar duen hiztegi erabilkorra”<sup>278</sup>. Batzordearen lana 1978an amaitu zen Euskaltzaindiaren onespenerekin<sup>279</sup>.

Halaber, banka hiztegiarekin antzeko zerbait gertatu zen, proposamena ez zen Akademian bertan sortu, J. M. Iriondok egin zuen<sup>280</sup>, eta proposamenaren parte zen proiektua besteren baten esku uztea erabaki zen<sup>281</sup>. Zernahi gisaz, Euskaltzaindiak ekimena babestu zuen, eta batzorde bat izendatu ostean<sup>282</sup>, batzordeak landutako hitzen gehienak ontzat eman zituen<sup>283</sup>.

Ikusten denez, Euskaltzaindiaren hiztegi gintza berezitua kanpotik zetorren eskariak asetzea zetzan. Ez zen barne dinamikaren ondorioa. Izan ere, Euskaltzaindia urte hauetan euskararen batasunerako oinarriak finkatzen ari zen, eta nahikoa lan zuen euskara idatziaren oinarritzko arau ortografiko gramatikalak bideratzearekin. Beraz, alde horretatik beste hiztegi gintza biek, eskola mailakoak eta hiztegi batuarekin lotutakoak garrantzi handiago izan zuten. Eskola mailakoa esate baterako, erakundearen barne kezka batetik eratorri zen, eta euskararen batasunarekin lotutako hiztegi gintza, oinarritzko euskara estandarra finkatzeko beharretik.

### 3.2.3.2. *Eskola mailako testugintzaren kezkatik eratorritako hiztegi gintza*

Epe honetako Euskaltzaindiaren hiztegi gintza, ez zen sortu euskarazko kultur lexikoaren gaineko kezkatik, *Jakinen* gertatu zen moduan, baizik eta Akademiaren eskola mailako euskarazko irakaskuntzaren gaineko kezkatik. Euskaltzaindiak gerraurretik interes berezia zuen euskararen inguruko proiektu pedagogiko orotan, eskolarako euskarazko ikasmaterialetan barne. Baina gerraostean 1966. urtera arte

<sup>278</sup> Ikus “Arkitektur hiztegi” *Elhuyar*, 12 (1977), 2. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-12-01.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-12-01.pdf) [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>279</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.11.24). Lantalde berri honek landutako hitz zerrenda *Euskera* buletinean argitaratu zen (ikus adibidez, “Arkitektur hiztegia” *Euskera*, 24 (1979), 307-327. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51199.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08])

<sup>280</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.11.26)

<sup>281</sup> “Hontaz, Aurrezki Kutxa, Elhuyar taldea eta inguru horietan kezkaturik dabiltzanei eskaintzearen iritzia agertu da” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.11.26)

<sup>282</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.2.26)

<sup>283</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.10.28)

Euskaltzaindiak ez zuen benetan eskua sartu kontu honetan. Urte horretan alde batetik, Nikolas Altzolaren ekimenez, eskoletako liburuen batzorde bat sortu zen<sup>284</sup>. Batzorde honek aztertu behar zuen eskola testu liburuen egoera zein zen<sup>285</sup>, zein testu behar ziren eta abar. Laster hasi zen Euskaltzaindia materiala prestatzen. Bi modutan: alde batetik, irakurgaiak prestatzen, eta bestalde, eskola mailako hiztegia prestatzen. Euskaltzaindiak Donostian Nekane Apaolaza (ikastolako) andereñoa lanean jarri zuen “ikastoletarako irakurgaiak gertatzen”<sup>286</sup>.

Bestalde, eskola liburuen batzordeak 1967an eskolarako erabilgarri izango zen hiztegitintzan murgiltzea erabaki zuen, eta urte horretan bertan J. A. Loidiren ardurapean, aritmetika hiztegia prestatzen hasi zen hartarako aukeratutako batzordetxo<sup>287</sup>. Hile gutxiren buruan, hiztegia prest zegoen eta J. A. Loidik Akademiaren hileko batzarrean aurkeztu zuen. Tartean, hasita zeuden Geometria eta Geografia hiztegiak<sup>288</sup>, ondoren beste batzuk prestatu ziren. Beraz, jakintza-arloz arlo zerrenda laburrak prestatu ziren, eta 1972-1975. urteen artean Akademiaren hileko batzarretan euskaltzainek zerrendok banan banan arakatu zituzten ekarpenak, zuzenketak eta moldaketak eginez<sup>289</sup>. Euskaltzaindiak azkenean, arloz arloko hiztegitxoak bildu eta *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* (1975) argitaratu zuen<sup>290</sup>.

---

<sup>284</sup> Bertako kide honako pertsona hauek izendatu ziren: N. Altzola, K. Santamaria, A. Zatarain, J. Oregi, S. Garmendia, X. Peña, J. M. Mokoroa, Anai Olabeaga, J. Azpeitia eta buru, A. Irigarai (izendapenak ikus hemen: Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.1.28 eta 1966.2.25). Hala ere ez dirudi izendatutako kide guztiak batzordean modu aktiboan aritzen zirenik, 1967an batzordeko kide gisa honakoak soilik aipatzen dira: A. Irigarai, K. Santamaria eta A. Zatarain. Eta horri gehitzen zaizkio “Euskaltzaindiko izendatu beri diran andereñoak ezartzea erabaki da, eta baita ere Xabier Peña”, nahiz eta Peña jada 1966tik bertako kide gisa izendatuta zegoen (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.9.29)

<sup>285</sup> Horretaz aritu ziren esate baterako 1966ko uztaileko batzarrean (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.7.29)

<sup>286</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.7.28)

<sup>287</sup> “Loidi jaunak, eskola testoak antolatzen ari dan batzordearen berriak eman ditu: Aritmetika iztegiaren zeaztasunak adierazi ditu” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.11.24).

<sup>288</sup> “Loidi jaunak Aritmetika iztegia bukatua ekarri du ortarako izendatua zen batzordearen lendabiziko lana bezala. Ta, Geometria ta Geografia iztegiak ere aurreratuak direla, ta Labayen jaunak bukatu duela teatru iztegia ere” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.1.26)

<sup>289</sup> Eztabaidarik handiena gizakion gorputzaren hiztegiarekin sortu zen, eta bereziki *gorputz* edo *soin* hitzaren erabilerarekin. Zenbait txosten eta eztabaida tarteko (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.1.29, 1971.2.26, 1971.5.28 eta 1974.7.26) azkenean *soin* hitza nagusitu zen.

<sup>290</sup> Euskaltzaindiak 1975eko uztaileko batzarrean hartu zuen hiztegia argitaratzeko erabakia (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1975.7.30), baina 1976. urtera arte ez zen argitaratu *Euskera* buletinaren (eta haren separata gisa).

Hiztegiak 20 eremu semantiko desberdinetan antolatutako 1.784 hitz zituen. Hitzaurrean bertan, euskaltzainburuak aipatzen zuenez, hitzak ez ziren asko, eta hiztegia zabalik geratzen zen ondoren zetozenak osatzeko, edota beste forma batzuk hautatzeko. “badakigu hiztegi hunek badituela bere itzalak eta hitz diskutigarriak”<sup>291</sup>. Halaber, bertan azaltzen zuen hiztegia egiteko jarraitutako prozedura: izendatutako batzordea<sup>292</sup>, adituei egindako kontsultak, hitz zerrenden bilketa eta kudeaketa, azken erabakien arduraduna eta abar.

Ikastola hiztegiaren ostean, Elhuyar taldearen ekimenez, Matematika hiztegiaren prestaketa etorri zen. Elhuyarrek prestatu zuen halako hitz zerrenda bat 1976. urterako eta Euskaltzaindiari eskaini zion<sup>293</sup>. M. Zalbidek Akademiaren hileko batzarrean aurkeztutako txostenaren arabera, euskarazko Matematika hizkuntza osoa aztertu beharrean, eskola mailari zegokionera mugatu ziren, “oraingoz ikastolatako irakaskuntz mailaren premiak direlako arreta handiena eskatzen dutenak”<sup>294</sup>, nahiz eta eskola mailako hiztegiaren finkatzea lehen pausu gisa ikusten zuen, Matematikarako zientzi euskara lortze bidean. Hiztegia egiteko prozedura eta iturrei buruz ez dugu detailerik emango, baina bai aipatu nahi genuke datu bat<sup>295</sup>. Matematika hiztegia prestatzeko ordenagailuak erabili zirela. Klaudio Harluxeti esker, SETISA enpresako ordenagailuak erabili zituzten, gauetan, libre zeudenean. Hala, Euskaltzaindiari hitzen zerrenda “ordenadorearen inprimagailuak eman dituen bezala azaldu”<sup>296</sup> zioten. Ezbairik gabe, euskarazko hiztegi gintzan ordenagailuaren erabilera dokumentatzen den lehen aldia izan zen.

Beraz, *Ikastola hiztegia* argitaratu eta urtebetera, Elhuyar taldeak Euskaltzaindiari aditzera ematen zion *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia ez zela nahikoa*, eta: “Gure hizkuntzak, gure ikastolek duten premia larri horri erantzun egokiena eman ahal izan diezaiozun, behar diren batzordeak edo lan sailak izenda

<sup>291</sup> (Euskaltzaindia, 1976: 8)

<sup>292</sup> Hiztegiaren batzordean honako hauek zeuden: A. Irigarai, K. Santamaria, J. M. Zumalabe, S. Garmendia.

<sup>293</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.1.2)

<sup>294</sup> (Elhuyar, 1977: 101)

<sup>295</sup> Hiztegia prestatzeko erabilitako iturri eta prozedurak Mikel Zalbidek aurkeztutako txostenean jasota daude (Elhuyar, 1977)

<sup>296</sup> (Elhuyar, 1977: 102)

ditzala eskatu nahi genioke, gaiaren eta hizkuntzaren aldetik prestatuenik dauden espezialistei dei eginez”<sup>297</sup>. Egia esan, Euskaltzaindiaren *Ikastola hiztegiak* jakintza-arlo bakoitzerako hitz zerrenda oso laburra zekarren. Esate baterako, Matematikaren arloan soilik 156 hitz biltzen zituen, eta beronen ekarpena ukatu gabe, eskola mailako Matematikaren irakaskuntzarako zerrenda murriztegia zen. Elhuyarrek prestatutako eskola mailako Matematika hiztegiak berriz, 1.900 euskal hitz zituen.

### 3.2.3.3. *Euskararen batasunarekin lotutako hiztegi gintza*

Euskaltzaindiak ez zuen hiztegi argitaratu epe honetan, baina Akademiaren baitan zenbait hiztegi proiektu abian jarri ziren. Hala ere 1968ko Arantzazuko eta 1978ko Bergarako biltzarretan erabakitakoaren haritik H letraren inguruan hitz zerrendak kaleratu ziren. Hitz zerrendak izan ziren heinean, eta ez hiztegi, ez ditugu atal honetan zerrendok aipatuko<sup>298</sup>.

Euskaltzaindiak euskararen batasuna egiteko, bai euskal lexikoa finkatzeko, etengabeko eskariak jaso zituen garai honetan, bai ikastoletatik, bai euskalduntze alfabetatzetik, bai euskal gizartetik, oro har. Ikus, esate baterako, 1967an Euskaltzaindira heldutako eskaria Nafarroatik: “Iruñeko ikasle andana batek Irigaray jaunaren bidez Euskaltzaindiari egiten dien gutuna irakurri da, iztegi modernu baten eskea egiñaz, egunoro kalean bear diran itzekin ta itz tekniku-zientifiku arruntenez orniturik”<sup>299</sup>. Garaiko gizartean euskaraz bizitzeko behar-beharrezkoa zen hiztegi moderno bat eskatzea normala zen. Hala ere *Hiztegi Modernoa* zentzu hertsian ez zen 1977. urtera arte kaleratu.

*Hiztegi Modernoaren* aurrekaria, G. Aresti eta X. Kintana euskaltzain urgazleek Lur argitaletxearekin argitaratutako *Batasunaren Kutxa* (1970) hiztegia izan zen. *Batasunaren Kutxaren* eragina erabatekoa izan zen bere garaian, Euskara Batuaren lexikoa eta ortografia finkatzeko eta, oro har, Arantzazun hartutako erabakiak nolabait sozializatzeko. Hain zuzen ere, liburuaren azpititulua honako hau da: *Euskal Idazleen*

---

<sup>297</sup> (Elhuyar, 1977: 106)

<sup>298</sup> Ikus adibidez “Batasunerako hiztegia” *Euskera*, 13 (1968), 251-265. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51292.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]

<sup>299</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967.6.30)

*Elkarteak Luis Mitxelenaren agintaritzapean hartutako erabakien gainean Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak moldatutako liburua*. Erabateko arrakasta eta eragina izan zuen obrak honek.

Aipatu dugunez, *Batasunaren Kutxaren* ostean, eta nolabait haren segida gisa *Hiztegi modernoa* etorri zen. Batari eta besteari segida eman ziona X. Kintana izan zen (G. Aresti 1975ean hil zen). Dena den, kasu honetan Bilboko CINSAk argialetxeak kaleratu zuen *Moderno*a, ordurako jada Lur argialetxearen sortzaileak (R. Saizarbitoria, G. Aresti, A. Urretabizkaia, I. Sarasola, R. Arregi,...) argialetxea utzi baitzuten, Lurren proiektu editoriala birmoldatu zelako<sup>300</sup>. Hiztegiaren hitzaurrearen arabera, beronen prestaketa oso gorabeheratsua izan zen. Hasteko prestaketaren eskaria Euskaltzaindiaren Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak egin zion X. Kintanari. Hasierako asmoa zen *Batasunaren Kutxako* hiztegia pixka bat zabaltzea, baina “Xabier lanean hasi ondoren, ordea, laster konturatu ginen, ikastola, irakasle, itzultzaile ta idazleen beharrian gero eta haundiagoak kontuan harturik, nahiz [sic] eta nahiezkoa zela hiztegi mardulago edo osoago bat eratzea”<sup>301</sup>. Joseba Tobar hasi zen orduan X. Kintanari laguntzen. Hasiera batean, Euskaltzaindiaren Bizkaiko alfabetatze batzordeak egindako enkargua zenez, hiztegia Akademiaren Bilboko egoitzan prestatzen hasi zen. Baina, nonbait, Akademiaren egoitzak lasaitasunik ez eta hiztegi gileek lan lekua aldatu zuten CINSAk Bilboko Zazpi Kaleetan utzitako bulego batera. Hiztegiaren prestatzaileak bi une desberdinetan CINSAREN bulegoa utzi eta fraideen babes bilatu zuten, garai hartan euskal kutsuko denda eta bulegoak metrailatzen zituztelako<sup>302</sup>. Hala, batean frantziskotarrenean babestu zuten hiztegia, eta bestean, klaretiarrenean.

*Hiztegi Modernoa, Batasunaren kutxarekin* alderatuta, beste mota bateko mugarrria izan zen. Batetik, mugarrria izan zen bertan erabilitako eredu ortografikoaren mugak ikusteko, hau da, jatorri greko-latindarreko hitzak F. Krutwig-engan inspiratutako ortografia klasizistaren mugak ikusteko, eta handik denbora gutxira,

<sup>300</sup> A. Urretabizkaia dionez, Lur argialetxearen sortzaileek ez dute argitu zer gertatu zen argialetxearekin eta zergatik desagertu zen (Urkiza, 2006: 28)

<sup>301</sup> “Hitzaurrea” *Hiztegi Modernoa* (1977), 9.

<sup>302</sup> “... Bilbon, Euskal Herri osoan bezalaxe, eskuin puntako terrorista trebe bezain harrapagaitz horiek beren atentatuak egiten hasi ziren euskal kutsuko erakunde eta denden kontra” (ikus “Hitzaurrea” *Hiztegi Modernoa* (1977), 10)

Euskara Batutik baztertzeko. Bestetik, mugarría izan zen edukitan, *Modernoak* euskara-gaztelania (eta alderantzizko) baliokideez gain, hitzen jatorri eta bilakaeraren gaineko informazio osagarria ematen zuelako, eta alde horretatik oso erabilgarria –eta entrenegarria suertatzen zen<sup>303</sup>–. Gainera, izenburuak zioen moduan bizitza modernoan erabiltzeko hiztegia izan nahi zuen eta ordura arte euskaraz erabili gabeko arloetarako hainbat hitz proposatzen zituen. Tabu izandako hitzak ere agertzen ziren hiztegian, eta ondokoa jakinarazten zen:

“Orain arteko tabu izandako hitz asko (**alu, larrua jo, puta, atzelari, popatik hartu...**) inolako lotsarik gabe sartu ditugu hiztegian, horrela geure hizkuntza sail horietan gaiago, aberatsago beraz, egiten dugulako segurantzaz. Ba liteke, ikastolaz den bezainbatean, batzuzentzat eskandalagarri gertatzea, baina ez gaitu horrek batere kezkatzen, ponteko igelak ez izanki.”<sup>304</sup>  
[beltzak ez dira gureak]

Baita komentario ozipinduak.

“Hiztegi honetan, bestalde, zenbait definizio eta esenplu xeble aurkituko ditu irakurleak. Holakoak honelako lan batetan egon daitezkeen gogo, ideia eta humore ezberdinen ondorioak dirateke. Batzuri, agian, ez zaie gustatuko hiztegi bat **cum mica salis** irakurtzea, are gutiago gatz garauak larritxoak direnean.”<sup>305</sup> [beltzak ez dira gureak]

*Hiztegi Modernoa*, hiztegi heretiko gisa jaio zen. Ortografiaren aldetik esperimentalak, Akademiaren erabakiak onartzen zituena, eta urrunago eramaten zituena. Lexikoa eta edukiaren aldetik eskandaluzkoa, *minigona* eta bestelako hitzak jasotzen zituelako. Eta hizkuntza ereduaren aldetik, Euskara Batuaren aldekoa. Funtsean, unean borborrean zegoen hizkuntza ereduaren eztabaidaren alde batean egindako hiztegia izan zen, muturreko saiakera bat, erabat kontrajartzen zena, euskalkiak defendatzen zituztenei.

*Hiztegi Modernoaren* ostean, *Hiztegia 80* kaleratu zuen X. Kintanak, beste kide batzurekin batera. Ordurako jada albo batera geratu zen *Hiztegi Modernoko* ortografia esperimentalak eta, euskara-gaztelaniarako oinarritzko hiztegia bilakatu zen. X. Kintanak aipatzen duenez, 1990. urterako hiztegi honek 100.000 ale baino gehiago salduak

---

<sup>303</sup> Ikus, adibidez, *Euskalduna, Basko* edo *Euskadi* sarrerak.

<sup>304</sup> “Hitzaurrea” *Hiztegi Modernoa* (1977), 15.

<sup>305</sup> “Hitzaurrea” *Hiztegi Modernoa* (1977), 15.

zituen<sup>306</sup>. 90eko hamarkadan, hein handiz *Hiztegia 80a* osatu eta zabaltzeko, *Hiztegia 2000* etorri zen.

Baliokideen hiztegiak alde batera utziz, beste mota bateko hiztegiei buruz arituko gara: hiztegi arauemaileez hain zuzen. Hizkuntzaren batasun prozesua bururaino eramateko, Ibon Sarasola euskaltzain gazteak Euskaltzaindian euskal hiztegi arauemailea proiektua aurkeztu zuen 1976an<sup>307</sup>. Hiztegi honek euskarazko ondare lexikala, iraganeko zein egungo euskarazko hiztegia eta literatur-lanetako lexikoa biltzeko asmoa zuen, xede nagusi batekin “kultur hizkuntza bati dagokion hiztegia prestatzea”<sup>308</sup>. Euskaltzaindiak ontzat eman zuen proiektua, eta I. Sarasolak aurkeztutako lan plangintza. Hala, 1977-79 urteetan argitaratua *Euskal Hiztegi Arauemailea* kaleratu zen (4 liburukitan). Lan hau Gerora I. Sarasolak kaleratutako *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegiaren* (1982) oinarria izan zen.

I. Sarasolak prestatutako hiztegiek batez ere hizkuntzalarientzat izan zuten garrantzia. Aldiz erabiltzaile mailan, euskaraz idatzi nahi zuten irakasle, idazle, euskalduntzen eta alfabetatzen ari zirenenen artean X. Kintanaren hiztegiek izan zuten eragin handiena.

### 3.2.4. Akademiaren jardun unibertsitarioa

Euskal Herrian eraikiz zihoan ehundura unibertsitarioan, Euskaltzaindiak ahal zuen neurrian eta euskararen irakaskuntza sustatzeko maila unibertsitarioan, zenbait eskari bideratu edo proiektu babestu zituen esparru horretan. 1969an esate baterako, Zuzenbide Fakultatea Donostian ezarri berritan, Euskaltzaindiak, gutun bat igorri zion fakultateko buruari “euskararen irakaskintza eskatuaz”<sup>309</sup>.

<sup>306</sup> Ikus “Xabier Kintanarekin elkarrizketa” *Ikasbil*, 226 (1993). <http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/user/anon/page/artikulua?gid=124780> [kontsulta data: 2008-10-13]

<sup>307</sup> Nahiz eta lehen pausuak aurreko urtean eman ziren, erabat ezezaguna zaigun Ager elkartearen eraginez: “Duela urte bete baino gehiago Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, Ager elkartearen eraginez, euskal Hiztegi Arauemaile Entziklopediko baten moldaketa gomendatu zigun” (Sarasola, 1977: 125).

<sup>308</sup> (Sarasola, 1977: 125)

<sup>309</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.10.31)



Bestalde, saiatu zen euskal ikasketa unibertsitarioen eskaintzaren gaineko berri zehatza edukitzen. Gehienetan informazio hori euskaltzainen bitartez heltzen zen. Esate baterako, Donostian, Mundaizen, Filologia erromanikoetan bi urte euskaraz jarri behar zirelako notizia P. Altunak eraman zuen<sup>310</sup>, edo Bordeleko euskara katedran lektoretza plaza bat zabalduko zela J. Haritzelharrek<sup>311</sup>, baita Frantziako unibertsitate desberdinetako euskara katedrak koordinatzeko elkartearen sorreraren albistea ere<sup>312</sup>.

Halaber, Euskaltzaindiak babestu egin zituen 1968-1975 urteetan unibertsitateko ikasleentzat antolatutako euskara ikasteko Udako Euskal Ikastaroak<sup>313</sup>. Lehen urteko ikastaroan (Gabiria, 1968), ikastaroetako irakasle eta arduradun zirenei, Xabier Mendiguren eta Gonzalez San Pedrori, A. Arrue euskaltzainak lortu zien gobernadorearen baimena Gabiriara joateko. Ikastaro horietan Israelen hebreera irakasteko erabiltzen zuten metodo aplikatu nahi zuten<sup>314</sup>. Israelen aplikatzen zen metodoaren berri Imanol Berriatuaren bidez heldu zen Euskal Herrira. Imanol Berriatuak berak probatu zuen Israelen, eta gerora hizkuntza horren irakaskuntza esplikatzen zuen liburua idatzi zuen euskaraz, euskalduntzen ari zirenentzat<sup>315</sup>. Edozein kasutan, metodo hau, talde txikiak eta irakasle laguntzaileen bitartez mintza praktika bideratzea, fakultateko eta irakasle eskoletan ere euskara irakasteko lehen urteetako eskoletan aplikatu zen.

---

<sup>310</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.7.10)

<sup>311</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.10.31)

<sup>312</sup> “J. Haritschelhar, euskaltzain buruordeak, atzo 24ean, Baionan egindako bileraren berri eman du. Asmoa “Association pour la création d’un Institut d’Etudes Basques a Bayonne” delakoa sortzea da. Kontseilua eratu da, Julian Ajuriagerra, buru eta Hartischelhar [sic] buruorde direlarik. Elkarte honen xedea: Bordele, Pabe eta Toulouseko Unibertsitateen babespean, euskal alorreko ikerkuntzatan saiatzea da.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.8.25)

<sup>313</sup> Udako Euskal Ikastaroen berri Juan Jose Zearretak ematen du *Euskera* buletinean argitaratutako bi artikuluetan (Zearreta, 1975 eta 2000)

<sup>314</sup> “Mendiguren-ek, zeatz adierazi du asmoa, Israeldarrak beren izkuntza irakasteko erak estudiatu ondorean, talde txikietan eraturik, irakasle ta irakasle-laguntzaileekin zelan izaten dituzten ikaskaiak (sic) eta egun osoko bearkizunak euskera utsarekin baliaturik, zer irakaspen eta zer eragozpen arkitu izan dituzten ta abar. Eragozpenetako bat, ikasle guziak erderaz (gazteleraz) jakitea. Batzuek bestelako izkuntzaren bat mintzatuko balira (Israel-en gertatzen dan bezala, adibidez) ikasleak beartuagoak aurkituko lirakeala, ta orregaitik, bear bada, urrango urterako komeniko litzakeala mugazandiko euskaldun estudianteeekin nahasturik egitea.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.7.26). Halaber Euskaltzaindiak, hurrengo urteko Udako Ikastaroak antolatzeke batzorde bat izendatu zuen: “Pozik entzun dira Mendiguren-ek agertu dituan euskera ikasteko esperientzia berriak eta euskaltzain buruaren eskariz datorren urtean obeto eratzeko batzorde bat izendatzea erabagi da. Beraz, udarako euskera ikastaroetarako batzordeko izendatu dira: X. Mendiguren bera, González San Pedro, J. San Martín, Fernández Setien, ta oiekin batean mugazandiko bat” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.7.26)

<sup>315</sup> (Berriatua, 1982)

Hurrengo urteko Udako Euskal Ikastaroetan Euskaltzaindia are gehiago inplikatu zen, diru laguntzak emanez eta irakasleak lortuz<sup>316</sup>. Berrikuntza gisa Madrileko ikasleek planteatu zuten, euskara ikasteaz gainera, euskal kulturari buruzko hitzaldiak jasotzea<sup>317</sup>. Urte horretako ikastaroak Bizkaiko Markina herrian, Gipuzkoako Urretxun eta Nafarroako Leitzan egitekoak ziren<sup>318</sup>, baina gobernadoreak baimenik ematen ez zuenez, azkenean Urretxun eta Euban baino ez ziren egin<sup>319</sup>. Hurrengo urteetan oztopoak ez ziren falta izan, azken finean Hegoaldeko erregimen politikoak oso zail eta batzuetan ezinezkoa egiten baitzuen euskarazko proiektuak aurrera ateratzea.

Hegoaldeko testuingurua hau izanik, ez da harritzekoa, hurrengo urteko 1970eko uztailan Eskualzaleen Biltzarrak eta Ikasek, Fededunak taldearen laguntzarekin Euskal Asteak edo Kultur Asteak Baionan antolatzea. Euskal Asteak 1970-1972. urteen artean antolatu zituzten P. Xarritonek eta J. Haritzelharrek eta, 1973an sortutako Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) aurrekari zuzenak izan ziren. UEUren 70eko hamarkadako Udako Ikastaroak Euskaltzaindiak babestu zituen.

UEU, Euskaltzaindiaren babespean sortu zen eta Akademiako kideak bertan parte hartu zuten. Hala UEUren lehen hitzaldia euskaltzainburuak, L. Villasantek, eman zuten Donibane Lohitzunen 1973an<sup>320</sup>. Urteekin, dena den, Alfabetatze Batzordearekin

---

<sup>316</sup> “Ondorean Mendiguren-ek eman ditu kursillo hoiek nola izango diranen zehaztasunak, estudianteen artean egin dituzten deien orria irakurri du eta gure aldetik zer laguntza behar duten agerrera: irakasle laguntzaileak eta diru laguntza. Diru laguntza hau, batez ere, gure babesean bereziki hortarako dirua biltzeko, ikasleen gastuak zerbait arintzeko. Irakasle laguntzailetarako alfabetatze kanpainetan ari diranen artean deia egingo da (hau R. Arregi-ren esku gelditzen da) eta diru eskarien laguntza Euskaltzaindian hortarako izendatu diren batzordekoen laguntzaz egin.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.3.28)

<sup>317</sup> “Idazkariak Madrilgo estudianteen berri eman du, udarako euskera ikastaroei buruz. Haiek, beren aldetik, gurekiko har-emanetarako Manuel Ruiz Urrestarazu Mendi ingineroa izendatzen dute. Ikastaro hoietan euskal kulturaren hitzaldiak antola nahi dituzte eta hortarako dei egiten zaie zenbait Euskaltzaindikori laguntza eske” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.4.25). Hurrengo hilean hitzaldiak emateko honakoak prest agertu ziren: M. Lekuona, A. Arrue, J. M. Barandiaran, J. M. Satrustegi, A. Zabala, R. Arregi, Beobide eta J. L. Lizundia. (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.5.30)

<sup>318</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.7.10)

<sup>319</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.8.8)

<sup>320</sup> L. Villasanteren hitzaldiaren izenburua honako hau izan zen: “XVII. mendeko literatura: Donibane Lohitzuneko idazleen eskola”

gertatu bezala, UEU bide propioa egiten hasi zen eta erakunde biak elkarrengandik urrunduz ziren<sup>321</sup>.

### **3.2.4.1. Irakasle Eskolak Euskaltzaindiaren jomuga**

Jada ikusi dugunez, Euskal Herrian fakultateak zabaldu zirenean, euskarazko irakaskuntzarik ez zen, baina bai euskal hizkuntzarena, beti ere, eskola orduetatik kanpo eta modu ez ofizial batean. Fakultateotan antolatutako euskara ikasteko klaseak ikastetxeko kultur taldeak antolatzen zituen. 70eko hamarkadako bigarren erdialdetik aurrera euskara, unibertsitateko irakaskuntza ofizialean txertatzeko lehen saio eta emaitzak gauzatu ziren. Hegoaldean<sup>322</sup> lehen saio horiek esate baterako Irakasle Eskolan eman ziren, Bilbokoan eta Donostiakoan. Hasiera batean, zentro bietan tartean Euskaltzaindia egon zen. Euskaltzaindiak eskola bateko zein besteko lehen euskara irakasleak aukeratu zituen. Donostiako Irakasle Eskola diputazioak sortu zuen. Euskaltzaindiak katedraren zuzendari Juan Antonio Letamendia euskaltzain urgazlea eta Jose Antonio Mujika Casares izendatu zituen<sup>323</sup>. Bilboko Unibertsitatearen errektorearen eskariz, bizkaitar hiriburuan kokatutako eskolarako akademiak Patxi Uribarren izendatu zuen. Biak ala biak 1976/77. ikasturtean hasi ziren klaseak ematen.

J. A. Mujikak eta P. Uribarrenek, ikasturtearen amaieran, egindako lana eta emaitzak aurkeztu zituzten Euskaltzaindiaren 1977ko ekaineko hileko batzarrean. Bata, Gipuzkoan eta bestea Bizkaian ari ziren, koordinatu gabe eta bakoitza bere eskola zurrumbiloan sartuta, hau da, klaseak ematen, eta aldi berean beraien kargura zeuden irakasle laguntzaileak koordinatzen. Zehazki, zer esan zuten ez dakigu, baina imajinatzen dugu ikasle kopurua eta eskolen antolaketa eta kudeaketaren gaineko arazoez mintzatuko zirela, zeren Euskaltzaindiak beraiek emandako informazio entzun ondoren, erabaki zuen Espainiako ministerioari eskari bat egitea. Euskaltzaindiaren Batzar-agirian agertzen denez, “Informaketa hori entzun ondoan Euskaltzaindiak Heziera eta Jakintzako Ministeriora jotzea erabaki du unibertsital barruti bakarra

---

<sup>321</sup> Mikel Aizpuruk aipatzen ditu zeintzuk izan ziren UEU eta Euskaltzaindiaren arteko harremanen gorabeherak eta aldentzeko arrazoiak (Aizpuru, 2003a: 171-172)

<sup>322</sup> Baionan esate baterako *Institut Universitaire du Technicien* (IUT) euskara ikasteko klaseak jarri zituzten (astean 3 ordu) (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.2.6)

<sup>323</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.12.27)

eskatuz, lau probintzietako eskolen artean behar den normaleztapena eta koordinaketa lor dadin”<sup>324</sup>. Unibertsitate barruti bakarra sortzeko eskaria L. Villasante euskaltzainburuak sinatu zuen UEUren 1977ko uztaileko Udako Ikastaroen ekitaldien baitan eta, Akademiak esparru unibertsitarioan euskara sustatzeko zuen interesa argi erakusten du. Eskariaren interesgarritasunarengatik testua ia osorik hona lekualdatu dugu:

“Numerosos son los argumentos que pueden esgrimirse en favor de esta medida, por otra parte ansiada por nuestro Pueblo y reivindicada por profesores y estudiantes universitarios, personalidades y grupos culturales o políticos. Esta Real Academia se basa sin embargo preferentemente en razones que le atañen directamente, es decir, en la política de la lengua, y por poner un caso concreto, ahí están la[s] **Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de E.G.B. de las cuatro provincias; en ninguna de las cuales existe una mínima institucionalización de las cátedras de lengua y literatura vascas**. Tampoco puede haber un Instituto de Ciencias de la Educación que complete el trabajo de dichas escuelas. Asimismo **no se puede llevar una coordinación interprovincial de los planes y programas respecto de la Lengua Vasca y de su cooficialidad si la[s] Escuelas y Facultades sitas en las cuatro provincias, no tienen vínculo distrital que las una**.

Todo ello, de la única manera que puede adquirir una **mínima normalización académico-administrativa es a través de un Distrito Universitario único** y común para la[s] Facultades, Escuelas e Institutos universitarios de las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Esta **Real Academia de la Lengua Vasca colaboraría en cuantos aspectos se considerasen necesarios para la singularidad de este Distrito Universitario (Euskal Unibersital Barrutia), y especialmente en todo aquello que atañe directa o indirectamente a la organización y programación de la docencia e investigación de la Lengua Vasca, y a su coordinación interprovincial. Como única institución oficial que abarca a las cuatro provincias** y por haber sido fundada por la[s] cuatro diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya está obligada a ello.

Finalmente, al formalizarse este escrito hoy, lo hace con ocasión de los Cursos Universitarios de Verano (Udako Euskal Unibertsitatea). La Real Academia de la Lengua Vasca ha querido estar presente, y no solamente como patrocinadora, en esta importante actividad universitaria, celebrando, confundiéndose con profesores y alumnos, su sesión académica mensual, en esta ciudad de Pamplona, sede de los Cursos de este año.

Por todo lo expuesto, SOLICITA de V.E. acuerdo. Mediante la oportuna orden ministerial, la creación de un Distrito Universitario que abarque a las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya a la mayor brevedad posible, a poder ser antes del comienzo del próximo curso académico.”<sup>325</sup> [beltzak gureak dira]

Eskarian argi ikusten da Euskaltzaindiak ezinbestekotzat jotzen zuela unibertsitate barruti bakarra, euskara unibertsitatean sartzeko, eta bere burua eskaintzen zuen unibertsitate barrutian euskararen gaineko ekintzak koordinatzeko.

<sup>324</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.6.24)

<sup>325</sup> Dokumentuaren izenburua honako hau da: “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca, “Euskaltzaindia”, al Ministro de Educación y Ciencia en petición de Distrito Universitario Común Vasco con fecha 30 de Julio de 1977” (MZA)

Akademiak eskariari eranskin bat gehitu zion zehatzago eta zabalago azalduz barrutiaren eskariaren gaineko bere aldeko jarrera. Funtsean, Euskaltzaindiak barrutia hizkuntzarekin lotzen zuen, bai irakaskuntzaren bitartez bideratutako hizkuntzaren normalizazio prozesuarekin, bai euskal eremuko ikasketa eta ikerkuntzarekin ere. Lehenengoari dagokionez, Euskaltzaindiak argi zekusan, Valladolid edo Zaragozako unibertsitateei lotutako Euskal Herriko ikastetxe unibertsitarioetan oso zaila zela, irakasle euskaldunak formatzea<sup>326</sup> edo euskal hizkuntzaren Pedagogia eta Didaktika garatzea<sup>327</sup>, euskararen eremu linguistikoa ez zelako heltzen Gaztela edota Aragoira. Irakasle euskaldunak formatzea eta euskal hizkuntzaren irakaskuntzaren oinarri pedagogiko sendoak garatzea funtsezkoa zen, hizkuntzaren gizarte normalizatorako. Bigarrengoari dagokionez, Euskaltzaindiaren arabera, euskararen eremuko lurraldeetan egiten ziren ikasketa eta ikerkuntzetan, modu batera edo bestera, euskara ezagutu behar zen:

“Si para la formación de Profesorado es vital disponer de un Distrito Universitario Común, otro tanto cabría decir respecto de la Facultades de Filosofía y Letras y de otros Institutos y Facultades. **Siempre que se estudie el presente o el pasado de cualquiera de las cuatro provincias, sus Fueros, su Geografía, su Historia etc., la lengua vasca se hará presente de una forma u otra.** Esto lo estamos viendo constatemente en las **consultas** que universitarios de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya dirigen a esta **Academia para preparación de sus tesis, tesinas o trabajos y en los que la lengua autóctona aflora siempre** aunque la carrera del universitario no tenga directamente que [sic] con el euskara. Estudiantes de Derecho que en la terminología del Derecho Civil Foral de Navarra, Vizcaya o Alava se encuentran en numerosas expresiones euskéricas; muchos más abundantes todavía en los Fueros Municipales y en el Derecho Consuetudinario; de **Medicina en la que se han preparado ya tesis doctorales en lengua vasca**; de Ciencias donde hay profesores en la Universidad de Lejona (Bilbao) que preparan clases de euskara, aunque luego impartan en castellano; (...) lo mismo podría decirse de profesores y estudiantes de las facultades de Ciencias de la Información, pues asistimos a un

---

<sup>326</sup> “Las clases de lengua vasca que se imparten en la[s] Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de Educación general básica en Pamplona, Vitoria, y San Sebastián [sic] no están reconocidas, y por lo tanto no entran en los planes académicos de los rectorados de Zaragoza y Valladolid, centros de los que dependen esas tres provincias. Esto resulta comprensible desde dichas provincias, ya que en Aragón o Castilla la lengua vasca no tiene territorio lingüístico, ni hay el menor movimiento a favor de la enseñanza o promoción del euskara, de creación de Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya. Consecuentemente el profesorado necesario para una política de bilingüismo no se puede preparar debidamente en estas Escuelas Universitarias, ni tampoco puede relacionarse correctamente con la de Bilbao, cuanto esta institucionalice la Cátedra de Lengua y Literatura Vascas a la sección euskérica.” (ikus “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca...” (MZA)

<sup>327</sup> “Es obvio que no puede pensarse en unos Institutos de Ciencias de la Educación de Valladolid o Zaragoza que programe un tratamiento adecuado a la pedagogía o didáctica de la lengua vasca, por idénticas razones a las apuntadas anteriormente. Esto sólo puede hacerlo un I.C.E. que esté al servicio de las cuatro provincias que poseen la lengua vasca, como ya lo han iniciado los de Santiago de Compostela, Barcelona y Valencia en sus respectivos Distritos Universitarios, atendiendo a sus singularidades lingüísticas.” (ikus “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca...” (MZA)

renacimiento de los medio de comunicación euskéricos o bilingües y de otras Facultades o Escuelas.”<sup>328</sup> [beltzak gureak dira]

Euskaltzaindiaren unibertsitate barrutiaren eskaria beraz, unibertsitate mailako ikasketak hizkuntza irizpidearen arabera antolatzeko proposamen bat zen, hizkuntzaren normalizazio eta goi mailako garapenarekin lotuta zegoena. Funtsean, Euskaltzaindiak euskararen presentzia unibertsitate esparruan areagotu nahi zuen, horrek epe laburrean gizartean hizkuntza aitzineratuko zuelakoan.

Euskaltzaindiak baino lehen, Karlos Santamariak prentsan egina zuen barrutiaren aldeko eskaria. Baina modu ofizial batean eta erakunde mailan, barrutia eskatu zuen lehena Euskaltzaindia izan zen. Ondoren, Euskaltzaindiaren eskarira EKT edo unibertsitate kultur talde desberdinetako kideak eta unibertsitateko irakasleak atxiki ziren abuztuan<sup>329</sup>. Bilera Gasteizen egin zuten abuztuan eta Euskal Unibertsitate barruti bakarren aldeko batzorde (*Comisión Pro-Distrito Común para la Enseñanza en el País Vasco*) gisa eratzea erabaki zuten. Batzordearen asmo eta helburuen gainean dokumentu edo akta bat prestatu zuten, eta bertan aipatzen dira: barrutia eskatzeko arrazoiak<sup>330</sup>, barrutia hartuko zituen probintziak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), aipatutako lurraldeetako unibertsitate ikastegiak bereiztea Valladolid edo Zaragozako unibertsitateetatik, barrutiaren antolaketaerako errektoretza talde bat osatzea, eta aurrekontuen gaineko transferentzia eta baliabide horien gaineko kontrola.

Euskaltzaindiaren uztailleko eskaria eta EKTko kideen abuztuko atxikimenduaren ostean, irailean Bilboko Unibertsitatearen Gobernu Batzordeak barruti bakarra eskatu zuen. Era berean irailean, euskal Legebiltzarkideen Batzarrak Espainiako ministroari eskatu zion Bilboko Unibertsitateari atxikiriko euskal barruti bakarra. Dokumentua M. Castells eta G. Monrealek prestatu zuten. Azken eskari honi

---

<sup>328</sup> (ikus “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca...” (MZA)

<sup>329</sup> Atxiki ziren unibertsitateko irakasleak honako hauek izan ziren (deiturak ematen ditugu dokumentuan aipatzen diren moduan): J. Palacios, L. M. Bandrés, J. M. Castells, J. Leguina, Elizalde, J. L. Goikoetxea, K. Larunbe, J. M. Txurruka, J. R. Etxebarria, Galarraga eta Irakasle eskoletako irakasleak (J. A. Letamendia, A. Ozamiz eta P. Uribarren). (Ikus “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca...” (MZA)

<sup>330</sup> “Considerar que para una ordenación mínimamente eficaz y razonable de los estudios universitarios y de la Enseñanza en general en el País Vasco, con sus provincias ineficaz y fatídicamente fraccionadas en lo que respecta a la ordenación académica, se hace indispensable la transformación de la ordenación vigente” (Ikus “Escrito enviado por la Real Academia de la Lengua Vasca...” (MZA)

erantzunez, UCDko ministroa zen Iñigo Cavero-k, lege-dekretu proiektu bat prestatu zuen euskal unibertsitate barruti bakarria izendatzeko Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeak. Nafarroako azken hauteskundeak irabazitako UCDkoek ez zuten barrutian parte hartu nahi, eta eskaria egin zuten barrutian Nafarroa sartu ez zedin. Nafarroako beste alderdi politiko ia guztiak barrutiaren aldekoak ziren, eta denen artean sinatu zuten barrutiaren aldeko eskari bat. Azkenean 1977ko irailaren 23ko dataz, BOEn argitaratu zen Bilboko Unibertsitatearen barrutia Araba eta Gipuzkoara heltzen zela. Urrirako Bilboko Unibertsitatearen barruti zabaldu berrian integratzen hasi ziren Arabako eta Gipuzkoako fakultate eta unibertsitate Eskolak.

Euskaltzaindiak 1978ko irailean Bergaran antolatutako biltzarrean, berriro ere agertu zen Akademiaren kezka Irakasleen Eskoletan irakasle euskaldunak formatzeko ezintasunaz. Kontu honen inguruan ez zen txostenik aurkeztu, baina bai eztabaida piztu, Andoni Sagarnaren txostenaren haritik. Bergaran A. Sagarnak euskalduntze alfabetatze mugimenduko irakasleak aztertu zituen, eta horren haritik K. Mitxelenak planteatu zuen Irakasle Eskoletan presioa egin behar zela, Euskal Filologia espezialitatea sortzeko unibertsitatean ondo formatutako irakasleak lortzeko. K. Mitxelenari, P. Uribarrenek honela erantzun zion:

“Nik K. Mitxelenaren erantzunari erantzungo diot eta nik uste dut, gaur egunez, Magisterioko eskoletan, euskararik euskal filologiarik ez badago, eta euskarak behar duen tokirik ez badago, arrazoi batengatik bakarrik dela: Francoren denboran aukeratutako irakasleak daude, eta ahalegin guztiak egiten dituzte euskara sar ez dadin. Hori argi dago. Legez posibilitate guztiak, behar bada, daude, baina ahalegin guztiak ordu desegokia jarriz eta ordurik ez utziz. Beste asignaturarekin, plangintza barruan, euskararentzat ordurik ez utziz. Orduan, arazo haundi bat hori da, baina nik uste dut, horren aurrean gogor burrुकatu behar den zerbait dela. Plangintza berria egiteko izan zen ihaz eta boikot egin zuten plangintza hori aurrera ez ateratzeko, batez ere, euskarari behar zitzaion tokia ematen ez zitzaiolako”<sup>331</sup>

Ondoren J. A. Letamendiak bere iritzia eta esperientziak agertu zituen eztabaida berdinean:

“Uribarren Patxik esan dituenak gehiago borobildu nahi nituzke. Magisterio eskoletan aurkitzen dugun giro txarra goikoen aldetik. Adibidez, niri, ihaz, **debekatu zidaten alfabetatzea ematea**. Nik pentsatu nuen askoz praktikoagoa zela euskaldun asko zirenez gero, hobe zela hoik lantzea eta irakasleak hortik aterako zirela. Eta galerazi egin zidaten. Eta orduan, **behartu ninduten**

---

<sup>331</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 544). Oharra: biltzarreko aktetan txostenen osteko eztabaida saioak, ahozkoak ziren neurrian, ez daude guztiz egoki jasota.

**hizkuntza, atzerriko balitz bezala, hutsetik ematera.** “Tú enseñas un poco para que puedan hablar en la plaza, para cuando van a comprar algo...”. **Ez zidaten esan, alegia, fisika irakasteko edo jendea prestatzeko.** Orduan, konparatzen zuten ingelesarekin, frantsesarekin edo musikarekin eta ez bertoko hizkuntza bezala. Ez jarri, adibidez, erdararen mailan. Alde hortatik, nahiko gogorra da.”<sup>332</sup> [beltzak gureak dira]

J. A. Letamendiak gainera aipatu zuen, Eskolak hasieran ez ziela utzi irakasle laguntzaile edo monitoreen bidez talde txikiagoak antolatzen euskara ikasteko. Beraz, taldeak oso handiak ziren, horrela, oso zaila zen hizkuntza irakastea. Hurrengo ikasturtean (1977/78), giroa hobetu zen, Bilboko errektorearen Martin Mateoren laguntza izan zuten, eta horri esker modu ez ofizial batean alfabetatzea eman zuten, eta euskara hautazko irakasgai gisa eskaini zen. Irakasgai berria errektoreak 1978ko urtarrilean baimendu arren, arestiko P. Uribarrenen aipuan ikusi dugunez, irakasle-eskoletan, eta unibertsitatean oro har, frankismo garaian sartutako irakasle ugarik trabak jartzen zizkioten. Irakasle horiek aurreko erregimen politikoan ezarritako unibertsitate eredu eta ezaugarrien jarraipena bermatzen zituzten ahal zuten guztietan. Presio handiak egin behar izan ziren euskara unibertsitatean sartzeko, eta errektorearen agindua ere ez zen nahikoa irmoa berehala aplikatu ahal izateko. J. A. Letamendiak Bergaran honakoa kontatu zuen:

“Beste gauza bat, ihaz lortu ziren gauza guztiak, adibidez, batetik optatibo sartzea. Erretoreak Urtarrilerako eman zuen baimena, eta oraindik, Maiatzean eztabaidatzen ari ziren. Eta maiatzean esan zuten oso berandu zela sartzeko. Era berean, lortu zen adibidez hemen uzten ez zutelako. Donostian, ikastoletan praktikak egitea. Eta praktikari gabe ezin gertatu irakasle bilingüerik. **Bi gauza hoiek, bai praktikak ikastoletan egitea eta bai emana zegoen baimena optatibo bezala sartzeko, presiori eskerrak lortu ziren. Azken urtean, guztiau ikusita, lortu ziren: eta ez, adibidez, herrian behar batzu ikusten zirelako, baizik eta beldurrez.** Gu ere horrela sartu gintuzten, aurretik piska bat giro nahasi izen zelako eta Euskaltzaindiari izen batzu eskatuta; gauzak ez dira onean lortu. Hori egia da.”<sup>333</sup> [beltzak gureak dira]

Irakasle eskoletan euskara sartzeko presioa Euskaltzaindiak ere egin nahi izan zuen. Izan ere, Euskaltzaindiaren 1978ko Bergarako biltzarraren amaierako adierazpen akademikoan, hizkuntzaren batasun linguistikoari buruz aritzeaz gainera, adierazpenaren azken bi puntuetan hizkuntzaren normalizazioaren gaineko kezka jaso zen. Bertan, batetik aipatzen zen, batasun prozesuarekin bat egiten zuten erakunde eta elkarteekin bat egitea (ikus adierazpenaren 7. puntua), eta bestetik, unibertsitateak irakasle euskaldunak sortzea. Euskaltzaindiak estatu bietako hezkuntza ministerioei

<sup>332</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 546)

<sup>333</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 547)



eskatu zien, irakasle eskoletako maila eta espezialitate guztietako irakasgaiak euskaraz ere eskaintzea, eta Euskal Filologia Saila sortzea<sup>334</sup>. Seguru aski adierazpen irmo honekin Euskaltzaindiak presioa egin nahi zuen unibertsitate publikoko Irakasle Eskoletan ezbaian zegoen euskarazko adarraren eta Euskal Filologiako espezialitatearen sorrera sustatzeko. Hain zuzen ere, Bergarako biltzarraren aurretikoan L. Oihartzabalek, Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolan ari zenak, aipatu zuen unerik egokiena zela akademiak Irakasle Eskoletan indar egiteko<sup>335</sup>.

### **3.3. Euskal Unibertsitate bidean**

Francoren heriotzarekin 70eko hamarkadan gordetako hainbat aldarrikapen, ozenki entzuten hasi ziren, besteak beste, Euskal Unibertsitatearena. Euskal Unibertsitatearen aldarrikapena Euskal Herrian gerraurretik bazegoen ere, 70eko hamarkadan indarra hartu zuen. Horren erakusgarri da 1973an Euskal Unibertsitatea helburu zuen elkarte bat sortu zela: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).

Hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, Euskal Unibertsitatearen aldeko kanpaina zabal bat garatu zen. Txillidak “Euskal Unibertsitatea bai” kanpainaren ikurra diseinatu zuen (gaur egun UPV/EHUrena dena). Dena den, Euskal Unibertsitatearen leloaren azpiko definizioa ez zegoen argi zehaztuta, eta gauza desberdinak ulertzen ziren: Euskarazko unibertsitatea? Euskal Herri osorako unibertsitate publikoa? Jose Lasa Apalategik eta Jose Luis Orellak liburu bana argitaratu zuten euskal unibertsitatearen inguruko iritzi eta datu desberdinak aditzera emanez. J. Lasak, esate baterako, ospeko zenbait aditu elkarrizketatu zituen (J. M. Barandiaran, P. Lafitte, J. Caro Baroja, K. Mitxelena, J. Goenaga, J. Bilbao eta A. Tovar). J. Lasaren liburuan argi ikusten da oinarrizko iritzi bateraturik ez zegoela Euskal Unibertsitatearen inguruan.

---

<sup>334</sup> Ikus Euskaltzaindiak 1978.9.8ko datuz onartutako adierazpena (Euskaltzaindia, 1978: 866)

<sup>335</sup> L. Oihartzabalek honako aipatu zuen Bergarako Biltzarrean: “Donostiako Elizbarrutiko irakasle ikastetxe berriak eskatu duela euskal filologia emateko baimena. Ezezkorik ez da etorri eta behar bada orain da unerik egokiena ez ikastetxe hauek bakarrik hori eskatu eta hor gera ditezen, baizik eta Euskaltzaindiak eta beste euskal erakundeek ere indarra egin dezaten, zeren ikasleek, hemendik beranduenez bi urtetara irakasle izango direna, eskatu dute espezialitate hori. Bi espezialitate eskatu dira –eskolaurrekoa eta euskal filologia- euskal aurrekoari baiezkoa, hitzez, eman zaio, oraindik idatzirik ez dago, eta euskal filologiari ez zaio ezezkorik eman eta, Letamendiak esan bezala, orain ari dira hori eztabaidatzen, behar bada, unerik egokiena oraintxe da indar piska bat egiteko eta baiezko hori nolabait eskuratzeko” (Euskaltzaindia, 1978: 547-548)

Adibide moduan balizko Euskal Unibertsitatean euskarak eduki beharko lukeen tokiari buruzko hiru iritzi ekarriko ditugu. Lehena, J. Caro Baroja ikertzailearena:

“*¿La lengua vasca sería la lengua de la universidad?*

Existe el hablar popular, dice, y el idioma del cultivo. No hay que confundir el campo y la ciudad. Es preciso respetar la fluidez del folklore. La diversidad hay que mantenerla a toda costa. El habla culta influirá más tarde.”<sup>336</sup> [Kurtsibak elkarrizketatzailearen galdera adierazten du]

Bigarrena, Salamancako katedradun zen K. Mitxelenaarena:

“*¿La lengua de la Universidad?*

Hoy por hoy, de momento no veo otra posibilidad que su lengua de expresión sea el castellano. Eso sí, habría que hacer un lugar para la lengua vasca. Como en la Universidad de Dublín, ambos a una evocamos el caso [=elkarrizketatuak, K. Mitxelena, eta elkarrizketatzaileak, J. Lasa], existe un Departamento de Cultura y Lenguas Célticas. En el estado actual de las cosas, ésta sería la solución viable”<sup>337</sup> [Kurtsibak elkarrizketatzailearen galdera adierazten du]

Azkenik, A. Tovarrena, Salamancako errektore eta diktaduraren hasierako urteetan ministro izandako falangista hizkuntzalaria:

“*¿Qué función asignaría a la lengua vasca?*

La lengua vasca podría servir como lengua de exposición en una Universidad Vasca. Pero la creación de lenguajes científicos en vascuence no es cosa de un día para otro. Habrían de desarrollarse y eso sería beneficioso, más aún, necesario para el mantenimiento de la lengua”<sup>338</sup> [Kurtsibak elkarrizketatzailearen galdera adierazten du]

Ikusten denez, euskal hizkuntzaren eta kulturaren elite akademikoak ez zuen Euskal Unibertsitatearen aldeko lelotik harago, sakoneko ikuspegi bateraturik. Oro har, euskararen presentziaren alde zeuden, baina

“desberdintasun nabarmenak ziren erritmoari eta kantitateari dagokionez. Horrela, batzuek ezinbestekotzat ikusten zuten unibertsitate berriak euskaraz funtzionatzea: beste askok, ordea, mailakatu egiten zuten hizkuntza horren beharra, edota kritikatu euskarari emandako gehiegizko pisua Euskal Unibertsitatearen definizioan”<sup>339</sup>

Euskaldunen artean ere, ez zegoen Euskal Unibertsitatearen gaineko iritzi bateraturik. Ikusi besterik ez dago, *Jakin* aldizkariak Euskal Unibertsitatearen gaiari eskainitako zenbaki monografikoa. Zenbaki monografikoa oso berezia izan zen, *Jakin*

<sup>336</sup> (Lasa, 1976: 93)

<sup>337</sup> (Lasa, 1976: 101)

<sup>338</sup> (Lasa, 1976: 121)

<sup>339</sup> (Aizpuru & Roldan, 2002: 28)

aldizkariaren bigarren debekuaren osteko lehen zenbakia zelako. Beraz, aldizkariak hirugarren garaian plazaratzeko, bere proiektuarekin bat egiten zuen gaia aukeratzeaz gainera, bero-bero zegoen gaia hautatu zuen. Monografikoan unibertsitatean edota inguruan kokatutako irakasle, ikasle, ikertzaile zein profesionalen ekarpena argitaratu zen. Artikuluak irakurriz gero, nabarmena da Euskal Unibertsitatearen definizio eta helburu zehatzetan egileek zein desberdin pentsatzen zuten. Koldo Mitxelenak distrituaren beharra azpimarratzen zuen<sup>340</sup>, Karlos Santamariak euskaraz jardungo zuen unibertsitatea nahi zuen<sup>341</sup>, J. M. Larrazabalek Euskal Unibertsitate abertzale eta sozialista nahi zuen, eta bere muinean UEU ikusten zuen<sup>342</sup>, J. M. Torrealdaik berriz hizkuntza gutxituen udako ikastaroak, UEUrenak barne, nazionalista edo abertzale bai, baina sozialismorik ez zuen inon ikusten<sup>343</sup> eta abar. Izan ere, *Jakin* aldizkari horren lehen zenbakiaren hitzaurrean honakoa aitortzen da:

“Ez da aspaldikoa, K. Mitxelenak gai honetaz nork bere eritzia eta jokabidea argi eta garbi –eta idatziz-argitu beharra azaldu zueneko, akordio tikienera iristeko: “a un acuerdo sobre nuestro desacuerdo”. Honetatik hasiko gara gure eritzien ezberdintasuna leuntzen eta beharbada batasunera bideratzen.”<sup>344</sup>

Euskal Unibertsitatearen aldarria borborrean zela, jada esan denez Euskal Unibertsitate-Barrutiaren aldeko kanpaina sortu zen 1977an. Ofizialki barrutia eskatzen lehena Euskaltzaindia izan zen, eskari horri beste eragile politiko eta sozial batzuk erantsi zitzaizkion. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lurraldeentzat unibertsitate barruti bakarra dekretu bidez ezarri zen 1977ko irailean<sup>345</sup>. Behin barrutia sortuta, Euskal Unibertsitatearen aldeko mobilizazioak beherantz egin zuen. Horren erakusgarri xume bat da *Jakin* aldizkariak hurrengo urteetan Euskal Unibertsitateari eskaini zion tarte txikia. Monografikoki gaia beste bitan baino ez du tratatu azken hogeita hamar urte baino gehiago hauetan<sup>346</sup>. Horietan ere, gabezia berdina antzematen da: Euskal Unibertsitatearen aldeko adostasuna eta proiektu bateratu baten falta.

---

<sup>340</sup> (Mitxelena, 1977)

<sup>341</sup> (Santamaria, 1977)

<sup>342</sup> “Ez da dudarik, UEUtik Euskal Unibertsitateara pasa behar da” (Larrazabal, 1977)

<sup>343</sup> (Torrealda, 1977c)

<sup>344</sup> (*Jakin*, 1977: 10)

<sup>345</sup> Ikus 2.3. *Unibertsitate Barruti bakarraren eskaria* atala.

<sup>346</sup> Euskal Unibertsitateari *Jakin* aldizkariak eskaini dizkion zenbaki monografikoak honako hauek izan dira: 1 (1977), 100 (1997) eta 130/131 (2002)

Euskal Unibertsitatearen aldarria alde batera utzita, ikus dezagun zeintzuk ziren unibertsitate publikoan euskarak eduki behar zuen presentziaren inguruan zeuden hiru jarrera nagusiak: lehenak euskarari ez zion aitortzen unibertsitatean tokirik, eta unibertsitatearen zuzendaritzako kide zein irakasle gehienen jarrera zen; bigarren jarrerarentzat, euskara unibertsitatean sartzeari ez zen lehentasuna, baina aurreikusten zuen euskara Irakaslego-Eskoletan sartzeari oinarrizko irakaskuntzarako irakasle euskaldunak formatzeko, baita Euskal Filologia moduko karreraren bat sortzea ere. Bigarren jarrera honen defendatzailea Koldo Mitxelena izan zen, Euskara Katedraren arduraduna Gasteizeko *Colegio Universitario Alavésen* eta 1979-1980. urteetan UPV/EHUko errektoreordea. K. Mitxelenak “euskara unibertsitate-hizkuntza nagusi bilakatzea, «ghetto-aren infernua» sartzeari izango zela”<sup>347</sup> uste zuen. Are gehiago euskararen sarrera bermekin egin behar zen, eta irakasle berrien kontratazioan, euskara baloratu arren, hizkuntzaren gaineko ezagutzak ezin zituen bestelako gabeziak estali. Hirugarren eta azken jarreraren arabera, euskararen presentzia unibertsitatean ezinbestekoa zen. Horrela pentsatzen zuten UEU, Elhuyar, UZEI eta euskal kulturgintzako beste elkarte batzuetako kideek. Azken jarrera hau eta bertako irizkideak ziren elkarteak, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren formazioan eta komunitatearen baitako hizkuntza moldearen finkapenean izan zuten garrantziarengatik ataltxo bana dedikatu diegu, elkarteon proiektua, xedeak eta emaitzak agertzeko asmoz.

Ondorenean, beraz, hiru erakunde aztertuko ditugu: UEU, Elhuyar, eta UZEI. Hirurak berebiziko garrantzia izan zuten euskara eta jardun unibertsitarioa uztartzen: bai irakasle euskaldunak trebatuz, bai hizkuntza prestatuz, elkarteak eta beraiek antolatutako jarduerak unibertsitateko irakaskuntzarako euskara ereduaren probaleku izan baitziren, euskara zientifiko-teknikoa garatzen lagunduz. Hain zuzen ere beraiek izan ziren eredu estandarra eta erregistro jasoaren arteko uztarketa prestatu eta egin zutenak. Uztarketa horren ondorio, hirurek hizkuntzaren modernizazioan ezinbesteko ekarpena egin zuten.

Laburbilduz, gaur egun zientzia eta jakintza-arlo bakoitzean erabiltzen den hiztegia eta hizkuntza moldea 70eko hamarkadan aipatutako erakundeetan sortu,

---

<sup>347</sup> (Aizpuru, 2003a: 98)

zabaldu eta finkatu zen. Nahiz eta gaur egunera arte aldaketekin heldu zen, oinarriak 70eko hamarkadan aipatutako erakunde hauek finkatu zituzten.

### 3.3.1. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Udako Euskal Unibertsitatea 1973ko udan Donibane Lohitzunen sortutako erakundea da. Baionan Euskal Eraskustokian Ikasek ereindako Euskal Asteen hazitik sortu zen. UEUren helburua euskara eta unibertsitatea uztartzea izan da, osorik euskaraz funtzionatuko zuen Euskal Unibertsitatearen alde. UEU sortu zenean 70eko hamarkadaren lehen erdialdean, Euskal Herria unibertsitate barruti desberdinetan sakabanatuta egoteaz gainera, euskararen presentzia, arestian aipatu dugunez, hutsala zen, ez zuen unibertsitate bizitzan inongo entitate ofizialik.

UEUren historia eta ibilbideari buruz, Elhuyar edo UZEIri buruz baino lan gehiago argitaratu da. UEUko zuzendariak, Talde Eragileko kideek edo lantaldeko kideek kaleratu izan dituzte UEUri buruzko artikuluak eta liburuak<sup>348</sup>. Baina UEUri buruz argitaratuta dauden lanek nahiko izaera instituzionala izan ohi dute, hau da, UEUren jarduera, funtzionamendua eta egitasmoak azaldu ohi dituzte, testuinguruaren gaineko bestelako irakurketa historiko edo politikorik gabe. Hala ere, badira salbuespen bi: lehena, Iñaki Irazabalbeitiak eta Alfontso Mujikak<sup>349</sup> argitaratutako artikulua *Jakin* aldizkarian, UEUren historiari buruzko lehen sintesi lan sakontzat har daitekeena. Eta bigarrena, Mikel Aizpuruk, historialari eta UEUko zuzendari-ohi denak, idatzitako liburua UEUren hasierako urteei buruz (*Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturagintzan. Hasierako urteak 1973-1984*). Lan horien guztien ekarpenak laburbildu eta interpretazio propio batekin osatu ditugu hemen. Horregatik UEUri eskainitako tarteak luzera mugatua du, baina horrek ez du esan nahi UEU Euskal Komunitate Zientifikoaren eraketan garrantzitsua ez denik izan. Hain zuzen ere, gure ustez, UEU, Komunitate Zientifiko Euskaldunean erakunde giltzarria izan da. Zientzialari eta ikerle euskaldunen bilgunea izan delako, hau da, komunitate zientifikoaren praktika bat

---

<sup>348</sup> (Aizpuru eta Menika, 1998), (Bakaikoa, 1984), (Erriondo, 2006), (Etxebarria, 1975), (Gartzia, 1994), (Haritzelhar, 1974), (Irazabalbeitia eta Mujika, 1990), (Irazabalbeitia, 1991), (Irazabalbeitia eta Barrenetxea, 1983), (Isasi, 2002), (Menika, 1997), (Torregarai, 2004) eta abar.

<sup>349</sup> Une hartan Iñaki Irazabalbeitia UEUko zuzendaria zen eta Alfontso Mujika zuzendaritza taldeko kidea.

ahalbidetu duelako bai Udako Ikastaroetan (eta bestelako ikastaroetan) bai argitalpenen bidez. Halaber, UEU unibertsitatean jarduten duten irakasle eta ikertzaile euskaldun askoren gertalekua izan da, bai ahoz, bai idatziz ere. Ikusiko dugunez, UEUK euskarazko goi mailako komunikazioa esparrua trinkotzen eta finkatzen, ekarpen oso garrantzitsua egin zuen.

Sorburuan, UEU Iparraldeko erakundea da, bai bere aurrekari zuzena diren Euskal Asteak Baionan egiten zirelako, bai UEUren erakunde eta eragile nagusiak Iparraldekoak zirelako. Izan ere, 1970-1972. urteen artean, Baionako Euskal Erakustokian (Euskal Museoan) antolatutako Euskal Asteak erakundeen aldetik, Ikasek (euskararen irakaskuntza ardatz zuen elkarteak) eta Fededunak (sare erlijiosoko ikastetxeak biltzen zituen elkarteak), antolatu zituzten; eta eragileen aldetik, Piarres Xarritton eta Jean Haritxelhar (Euskal Erakustokiko zuzendari, Euskaltzaindiko buruordea eta Bordeleko Unibertsitateko irakaslea) aritu ziren.

Euskal Asteak funtsean, euskara hutsezko hitzaldi sorta bat ziren. Asteen ardatz tematikoak hiru ziren: “euskal kultura eta irakaskuntza; egoera eta ideologia politikoak; eta erlijioa”<sup>350</sup>. Hitzaldietan, Iparraldeko zein Hegoaldeko hizlariak aritu ziren, Ekonomiaz, Politikaz, Hezkuntzaz, Kulturaz, Erlijioaz eta abarri buruz. Karlos Santamariak proposatu zuen 1972ko Euskal Astearen amaieran Katalanen *Universitat d’Estiu* (udako unibertsitate) ereduari jarraitzea eta udako unibertsitatearen formatua hartzea. Hala, ordura arte Baionan antolatutako Euskal Asteak, 1973an Donibane Lohitzunen burututako Udako Ikastaroak bihurtu ziren. Berauen antolatzaile Manex Goihenetxe izan zen, historialaria eta Ikaseko idazkaria. Bera izan zen Udako Ikastaroen antolatzailea 1976. urtera arte (urte horretakoak barne). 1976ko Udako Ikastaroetan dimisio aurkeztu zuen azken eguneko bileran. Bilera horretan hiru erabaki garrantzitsu hartu ziren: lehena, Martin Orbe, abadea, UEUren hurrengo zuzendaria izatea, UEUren idazkaritza Hegoaldera eramatea, eta bertan antolatzea hurrengo urteko Udako Ikastaroak. Kontuan izan behar da, Udako Ikastaroak Iparraldean antolatu arren,

---

<sup>350</sup> (Aizpuru, 2003a: 30)

partaide gehienak (maiz hiru laurdenak), Hegoaldetik zihoazela, eta dirua ere Hegoaldetik eramaten zela<sup>351</sup>.

Martin Orbek Bilbon zabaldu zuen UEUren idazkaritza eta bertatik antolatu ziren Iruñean burutu ziren Udako Ikastaroak<sup>352</sup>. Beraz, 1977. urtetik aurrera UEUK idazkaritza propioa eskuratu zuen, ordura arte M. Goihenetxeren lantokia, alegia Ikas, erabiltzen baitzen horretarako. Bilboko bulego propioari esker, UEUK erakunde gisa gorputza hartu zuen. Ordura arte, garaiko dokumentazioaren argitan, UEUtaz baino, Udako Ikastaroaren I, II, III edo IV. ekitaldietaz edo Udako Euskal Unibertsitateaz hitz egiten zen<sup>353</sup>, hau da, udako ziklo edo jardunaldi luze gisa, eta ez hainbeste erakunde gisa. Horrela mintzatu zen esate baterako Jose Ramon Etxebarria *Elhuyar aldizkarian* 1974ko Udako Ikastaroen gainean argitaratutako artikuluan:

“Ikastetxe nagusietan (Unibertsitateko fakultateetan, Inginadore Eskoletan eta abar), **Euskal Kultur Taldeak sortzen, bizkortzen eta indartzen ari dira**. Berauetan, hainbat gazte sutsu dago, lan egiteko asmoz. Euskaltzaletasunean irauten badute, urte batzuk barru, hainbat zientziagizon eta teknikari egonen da, euskaraz lan egiteko prest.

Espero ditzakegun fruituen iragarle bezala, lehen euskal zientzi aldizkaria sortua da. Denon artean eduki eta haziko dugulako esperantzan, bertan edonolako zientzi lanak euskaraz irakurri ahal ukanen ditugula esan dezakegu.

Izatez, jadanik zenbait lan egin izan da zientzi arloan. Eta bestelako lanetarako interesgarri izan daitekeelakoan, Donostiako EKT taldekoek eginiko hitz teknikoek bilduma aipatu behar dugu. Dudarik gabe, aurretik eginak diren lanetan oinharritu behar ditugu geure lanak: eta horretarako, lan hori guztiz lagungarri da, zeren zientzi alorrean euskaraz eginiko lanetatik hitz gehienak agertzen baitira bertan.

**Ekintza** hauen guztien artean, besteen katalizatzaile izan daitekeen bat dugu: **Udako Euskal Unibertsitatea. Ihazkoa bigarren urtea izan delarik**, eman diren pausoen azterketa egitea komeni da,...”<sup>354</sup> [beltzak gureak dira]

Aipu luzetxoa ekarri dugu, zenbait arrazoiengatik: batetik ikusteko Udako Euskal Unibertsitatea, 1977. urtea baino lehen, hau da, Martin Orbek zuzendaritza hartu baino lehen, udako ziklo bat zela, eta ez egitura propio sendorik zuen erakundea. Eta

---

<sup>351</sup> Iñaki Irazabalbeitiak horrela gogoratzen du nola egiten zuten: “Gogoan dut Manex Goihenetxe, orduko zuzendaria, ezagutu nuen eguna. Hegoaldetik abiatu ginen bina autotan lau lagun, ni baten gidari. UEUrentzat Hegoaldean bildutako milaka pezeta batzuk generamatzen ezkutaturik. A zer dardarizoa Hendaiaiko muga! Manexi dirua eman arte ez nintzen lasaitu. Sekulako balentria iruditu zitzaidan, nire hemezortzitan, dibisa-trafiko txiki hura.” (Irazabalbeitia, 1997: 24)

<sup>352</sup> Udako Ikastaroak 1977an Hegoaldean antolatu ahal izan ziren lehen aldiz. Iruñean burutu ziren, eta baimena Iruñeko alkate eta Nafarroa Diputatua izandako M. J. Urmenetaren bitartekaritzari esker lortu zen.

<sup>353</sup> *Elhuyar* aldizkariaren 4. zenbakiko editoriala honela zioen: “Aurtengo Udako Euskal Unibertsitatea amaitu berria dugularik, gertakari horrek iruzkin berezia [merezi] duela uste dugu” (Elhuyar Taldea, 1975b: 1)

<sup>354</sup> (Etxebarria, 1975: 3)

bestetik, erakusteko Udako Euskal Unibertsitatearen antolatzailea Iparraldean Manex Goihenetxe izan bazen ere, eta bertako elkarte edo aldizkari batzuren laguntza jaso arren (hala nola, Mende Berri, *Zabal* aldizkaria...), gehien bat Hegoaldeko euskal kulturgintzako elkarteek laguntzen zutela Udako Ikastaroen antolaketan, eta bereziki egitarauaren antolaketan: unibertsitateetako euskal kultur elkarteak (EKT, EKM eta abar), kulturgintzako elkarteek (adb. Elhuyar) eta aldizkariak (*Jakin*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*,...).

Beraz UEUren hasierako urteetako historian bi epe nabarmen bereiztu behar dira: lehena 1973-1976. urteen artekoa, non Udako Euskal Unibertsitatea, euskara hutsez antolatutako hitzaldi eta mintegien zikloa baitzen. Urte horietan Manex Goihenetxek antolatzen zituen Udako Ikastaroak, elikatzen zirenak batik bat Hegoaldean zeuden zenbait elkarte eta proiekturen urte osoko lanetik. Bigarren epea, 1977. urtetik aurrerakoa da, Martin Orbek UEUren zuzendaritza eta Udako Ikastaroen kudeatzailearen ardura hartu zuenean. M. Orberekin Udako Ikastaroak antolatzeko idazkaritza iraunkor bat finkatu zen, eta unibertsitateko kultur taldeek parte hartzen bazuten ere, UEU barne egitura propio bat edukitzen hasi zen. Hau da, sailetan antolatu eta sailburuak izendatu ziren<sup>355</sup>. Horri esker, 1979. urterako EKTen zikloa bete zenean (unibertsitateko euskal kulturgintzaren aldeko aktibismo gisa), UEUK bere barne egitura propioarekin eutsi zion Udako Ikastaro eta bestelako jardueren antolaketari. Egia esan, EKTn ibilitako askok, fakultateko eta unibertsitate eskolako kultur elkarten dinamika ahitu zenean, UEUra jo zuten, ordura arte kultur elkartearen bidez egindako lanari, UEUn jarraipena emanez. Era horretan, unibertsitario euskaltzaleak zuzen zuzenean parte hartzen hasi ziren UEUn<sup>356</sup>.

Bestalde, M. Orbek antolatutako lehen Udako Ikastaroek (Iruñea, 1977) berrikuntza bi izan zituzten: sailetan antolatu ziren eta ikastaro arduradun eta hizlariak Udako Ikastaroetan erabili beharreko materialak argitaratu zituzten. UEUK materialok Banco de Vizcaya-ri esker argitaratu zituen, eta Udako Ikastaroetan saldu zituen. Horrela eman zion hasiera UEUK bere edizio lanari, eta laster Udako Ikastaroetako

<sup>355</sup> (Gartzia, 1994: 309)

<sup>356</sup> Salbuespenak badira, Elhuyar adibidez. Elhuyar desagertu ez zen heinean, bertako kideak UEUn parte hartzen zuten Elhuyarreko kide gisa.



materialak argitaratzeaz gain, unibertsitate mailako bestelako materialak (testuliburuak, saiakerak,...) kaleratzen hasi zen, argitaletxe gisako jardunari hasiera emanez<sup>357</sup>.

### 3.3.1.1. Udako Ikastaroak

Manex Goihenetzek, Ikaseko idazkariak, antolatu zituen 1973ko lehen Udako Ikastaroak, nahiz Euskaltzaindiak babestu zituen<sup>358</sup>. L. Villasantek ireki zituen lehen Udako Ikastaroak *XVII. mendeko literatura: Donibane Lohitzuneko idazleen eskola* izenburuko hitzaldiarekin. Halaber, Frantziako hezkuntza ministerioaren baimenarekin eta Iparraldeko zenbait agintari politikoren babesarekin abiatu ziren lehen Udako Ikastaroak<sup>359</sup>. Bien bitartean, Hegoaldean euskarazko ahozko jardun publikoak zein idatzizkoak jazarriak zeuden. Beraz, ezinbestean horrelako proiektu bat Iparraldean sortu eta burutu behar zen. Ondoko taulan Udako Ikastaroen kokalekua, hitzaldi zein ikastaro kopurua, eta irakasle zein ikasle gisa parte hartukoaren gaineko datuak bildu ditugu (IV.2. Taula):

Urtea	Non	Hitzaldi kop.	Ikastaro kop.	Partaide kop.
1973	Donibane-Lohitzune	28	0	90
1974	Donibane-Lohitzune	14	1	120
1975	Uztaritze	8	5	200
1976	Uztaritze	113	1	332
1977	Iruñea	225	25	552
1978	Iruñea	166	16	545
1979	Iruñea	134	22	348
1980	Iruñea	79	34	440
1981	Iruñea	86	36	400
1982	Iruñea	102	35	467
1983	Iruñea	59	32	513
1984	Iruñea	123	45	679

**IV.2. Taula:** UEUren Udako Ikastaroen gaineko datuak (1973-1984).

Iturria: hitzaldi eta ikastaro kopurua Inguma datu-basetik, eta partaide kopurua Mikel Aizpururen lanetik (Aizpuru, 2003a)<sup>360</sup>.

<sup>357</sup> Ikus aurrerago 6.3. UEU: argitaletxe unibertsitarioa atala.

<sup>358</sup> Inoiz aipatu den arren Euskaltzaindiak antolatu zituela Udako Ikastaroak, Mikel Aizpuruk argitzen duenez, Udako Ikastaroak Ikasek antolatu zituen. Nahasketa pertsonetatik dator, Jean Haritxelhar, Ikaseko presidentea, euskaltzainburuordea ere bazelako (Aizpuru, 2003a: 34)

<sup>359</sup> Jasotako baimen eta babesak Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan aipatuta aurkitu ditugu (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1973.5.23)

<sup>360</sup> Mikel Aizpuruk ematen dituen partaide kopuruak (Aizpuru, 2003a) eta Iñaki Irabazalbeitiak eta Alfontso Mujikak ematen dituztenak, oso antzekoak dira, nahiz eta guztiz bat ez datozen (Irabazalbeitia & Mujika, 1990: 107)

Lehen Udako Ikastaroek hasierako kultur aste trinkoaren izaera zuten. 1970-1972ko Euskal Kultur Asteetatik zetorren joera zen. Hala ere, 1973ko Udako Ikastaroetan, herentziaz jasotako hitzaldi orokorrez gain, gai zehatzen gaineko mintegiak eskaini ziren. Mintegiak oraindik ez ziren ikastaroak, baina bai beste zerbaiten lehen seinaleak, espezializazioaren seinale. Urteekin hitzaldi orokorrak desagertuz joan ziren, eta mintegien trinkotzearekin, ikastaro formatua nagusitzen hasi zen<sup>361</sup>. M. Aizpuruk aitortzen duenez, 1973an “UEUk gehiago zuen kultura-aste intentsibo baten tankera (hitzaldi bat bestearen atzetik, inongo espezializaziorik gabe), unibertsitate-jarduerarena baino”<sup>362</sup>. Dena den, lehen Udako Ikastaroetako hitzaldiak emateko ekarritako hizlariak Salamanca, Bilbo, Iruñea, Donostia, Bordele, Paris, Münster eta Friburgotik gonbidatu ziren, irakasle ospetsu eta euskaldunak bazirela erakutsi nahian. Hala ere bertan aritutako beste irakasle askok ez zuen inongo unibertsitatearekin harreman zuzenik. Lau urte beranduago, egoera antzekoa zen: UEUn aritutako 101 irakasleetatik 16 unibertsitateko irakasle ziren eta beste 27 unibertsitateko ikasleak, “horietatik asko Leioako Zientzia Fakultatekoak, Jose Ramon Etxebarria eta Jacinto Iturberen ereintza-lanaren fruitua”<sup>363</sup>. Konprobatu ahal izan dugunez, UEUn irakasle gisa aritutako unibertsitateko ikasleetako asko, egun unibertsitateko irakasleak dira. Beraz, UEUn formatu ziren Euskal Herriko unibertsitateetan aritzen diren hainbat irakasle euskaldun.

Sarrera-hitzaldia, Udako Ikastaroetarako hasiera ematen dion ekitaldia da. Lehena 1976. urtean izan zen. Sarrera-hitzaldiak Udako Ikastaroak akademikotasunez janzteko sortu ziren, hein handiz Akademiak egiten zuena imitatuz. Kontuan izan behar da, Euskal Herriko kultura akademiko propioa bakarrik Euskaltzaindiak eskaintzen zuela, eta Euskaltzaindiak Udako Euskal Unibertsitatea babesten zuela. Agian, horregatik hasierako urteetan sarrera-hitzaldiak emateko Euskaltzaindiko kideak aukeratu ziren (euskaltzain oso, urgazle edo euskaltzainburu-orde edo euskaltzainburu ohiak)<sup>364</sup>. Are gehiago lehen sarrera-hitzaldia antolatu zeneko urtean, alegia 1976an, Udako Ikastaroak

<sup>361</sup> Gaur egun Udako Ikastaroetan Sarrera-hitzalditik harago, ez dago hitzaldi orokorrik.


<sup>362</sup> (Aizpuru, 2003a: 34)

<sup>363</sup> (Aizpuru, 2003a: 91)

<sup>364</sup> Sarrera-hitzaldiak honako hauek eman zituzten: Jean Haritxelhar (1976), Jose M. Satrustegi(1977), Jean Haritxelhar (1978), Piarres Xarritton (1979), Karlos Santamaria (1980), Txomin Peillen (1981), Martin Orbe –Manex Goienetxe ematekoa zen baina istripua izan zuen– (1982), Manuel Lekuona (1982), Klaudio Harluxet (1983)...

bi aste irauten zutenez, tarteko igandean, UEUko kide ugari Maulera joan ziren, Jean Louis Davanten Euskaltzaindiko Sarrera-hitzaldira<sup>365</sup>. Beraz, UEUko partaideek naturaltasunez bizi eta parte hartzen zuten erabat akademikoa kontsidera daitekeen ekitaldian.

Euskaltzaindiak UEUri babes instituzionala emateaz gainera, euskaltzain askok UEUn parte hartu zuten hizlari edo entzule gisa. Ondoko grafikoan Udako Ikastaroetan hizlari gisa aritutako euskaltzainen bilakaera kuantitatiboa adierazten da:



**IV.2. Grafikoa:** UEUn hizlari gisa aritutako guztiak (marra grisa) eta horietatik euskaltzainak zirenak (marra beltza) (1973-1981). Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, hasieran UEUko hizlari gehienak euskaltzainak (oso, urgazle edo ohorezko) ziren, baina gerora, urte gutxiren buruan, unibertsitario euskaldunak nagusitzen hasi ziren, tradiziozko euskal kulturgileak (hots, Euskaltzaindikoak) proportzioan erabat gutxitu zirelarik. Eta fenomeno hori, hots, unibertsitario euskaldunen agerpen gero eta handiagoa, estuki lotuta dago unibertsitateko euskal kultur elkartean (EKT, EKM,...) parte hartze gero eta handiagoarekin. Bestalde, gure ustez, Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen parte hartzea UEUn, erlatiboki, txikia, faktore garrantzitsua izan zen bi erakundeen arteko harremana hozteko, eta bi erakundeen arteko konfiantza giroa apaltzeko. Nahiz eta, urruntzearen ageriko arrazoien artean beste arrazoi batzuk aipatu ziren.

<sup>365</sup> (Aizpuru, 2003a: 56)

### 3.3.1.2. Hizkuntza hautua

UEUk bere sorreratik hizkuntza hautu argia egin zuen: euskara hutsez antolatzea jarduera guztiak (nahiz eta, noizik behin bileretan eztabaidatu zen erdara sartzearen aukera<sup>366</sup>, bistan denez, arrakastarik izan ez zuena). UEUren elebakartasunaren hautua ez zen ohikoa garai haietan, elebitasunaren aldeko jarrerak nagusi zirelako. Are gehiago, UEUren antzera sortutako beste proiektu batzuk, hala nola, Rekaldeko Herri Unibertsitateak eta IPES taldeak (*Instituto para la Promoción de Estudios Sociales*), bat egin arren Euskal Unibertsitatearen beharrarekin, gaztelania zuten lanerako hizkuntza nagusia.

Elebakartasunaren aldeko hautua, ez zen horretan geratu eta harago joan zen, UEUk, sorrera unetik bertatik Euskara Batuaren aldeko apustu irmoa egin baitzuen. Baina apustua egin arren, euskararen batasuna oraindik finkatzeke zegoen, eta 1978. urtera arte ez zen eredia guztiz berretsi. UEUk beraz, euskararen batasunarekin bat egitean, prozesua bultzatu eta haren garapenean lagundu zuen.

Finkatzeke zegoen euskararen batasun horri gehitu behar zaio, zientzia eta jakintzaren hainbat arlotan euskarak ez zuela tradiziorik, edo oso tradizio txikia, eta maiz garbizaleegia eta esperimentalegia zela erabilgarria izateko. UEUren ekarpena arlo honetan izan zen hizkuntza prestatzea unibertsitate-ideiak ahoz zein idatziz adierazteko<sup>367</sup>. Garaian bertan ere, Udako Ikastaroak horretarako zirela ulertzen zuen askok, hala nola Elhuyar Taldeak:

“Ikastaroak prestatu beharra dago, gai batzuk euskaraz erabiltzeko ez bait dugu ohiturarik; pentsa dezagun, esate baterako, terminologiaz, fotosintesia, mugimendu uniformeki azeleratuaz edo aplikazio elkar-bakunez mintzatzeko ez dela aski gaia bera menderatzea; hiztegi standard batzuek jabetu beharra ez da etzirako utz dezakegun eginkizunak, ahalik azkarren egitekoa baizik (1) / (...)

---

(1) Gaur gaurkoz Udako Euskal Unibertsitateak eskain dezake honelako ikastarorik, jadanik hasia duen bideari jarraituz.”<sup>368</sup>

<sup>366</sup> Adibidez 1975eko Uztaritzeko Udako Ikastaroen antolaketan gai hau eztabaidatu zen (Aizpuru, 2003a: 45)

<sup>367</sup> (Irazabalbeitia eta Mujika, 1990: 118).

<sup>368</sup> (Elhuyar Taldea, 1976a: 2-3)

Batasunaren alde jartzea UEUren kasuan nahiko naturala izan zen, eta ez zen barne hausnarketaren ondorioa izan. Oro har, UEUren proiektua sustatzen zuten euskaltzaleak eta beraien erakundeak (Euskaltzaindia, Jakin, Elhuyar, Z-EKT, *Zabal*, *Zehatz*,...), hizkuntzaren batasunaren eta modernizazioaren alde zeuden, goi mailako jardun unibertsitariorako eredurik aproposena zelakoan, bai zientzian bai kulturean. Hala, UEUK euskara modernoaren garapenean, eta bereziki euskara zientifiko-teknikoaren finkapenaren inguruan, ekarpen garrantzitsua egin zuen, bereziki beronen dibulgazioan. Hala, Udako Ikastaroetan matrikulatzen zirenak, ikasten zuten, adibidez, Matematikazko eragiketak euskaraz ahoz nola adierazi. Dena den, esamolde horiek normalean ez ziren UEUn bertan lantzen, baizik UEUren inguruan zeuden topaguneetan, hala nola, Elhuyarren, Leioako Zientzia Fakultateko irakasle-taldean, edota UZEIn<sup>369</sup>.

UEUK hizkuntzaren esparruan egin zuen beste ekarpen garrantzitsua, euskaraz landu zitezkeen gaiei buruzkoa izan zen:

“UEUK bultzatzen duen euskalduntasunak elementu berria sartzen du euskal kulturean, euskara kultura unibertsalaren edozein gai tratatzeko erreminta moduan erabiltzea alegia. **Euskara etxe-zulotik atera eta ezagutza unibertsalaren plazara eramatea.** Dena den, euskara eguneroko bizitza modernorako erreminta bihurtzearen gogo ez da UEUrena bakarrik eta ez da hori esan nahi izan. (...) UEUren lorpena ideia hori unibertsitate-giroan txertatu ahal izatea izan zen”<sup>370</sup>  
[beltzak gureak dira]

Gerraurretik zetorren sakoneko ideia zen: euskara goi mailako erregistroan erabiltzekotan, Euskal Herriari eta euskarari buruzko gaietara mugatu behar zela. Nonbait, ezinbesteko elementuak ziren, eta bata bestea inplikatzeko zuten. Hala, gerraurrean nola gerraostean ere, euskaraz idatzitako literatur lanak, Euskal Herrian kokatuta egon behar zuten, halabeharrez. Gogoan izan, aurreiritzi hori *Txillardegik* 1959an jada erabat kritikatzeko zuela<sup>371</sup>. Literaturaren esparruan batzuk hizkuntzaren

---

<sup>369</sup> Gure abiapuntua Iñaki Irazabalbeitia eta Alfontso Mujikaren lana da (1990: 118), bertan aipatzen da euskara zientifiko-teknikoa finkatzen UEUK bidelagun izan zituela Elhuyar, UZEI eta Leioako irakasleak. Baina gure ustez, UEU, aipatutako hiru topagune horietan egindakoaren plaza zen, bereziki udako ikastaroak.

<sup>370</sup> (Irazabalbeitia & Mujika, 1990: 118)

<sup>371</sup> Hauxe esan zion *Txillardegik* J. Intxaustiri 1959-01-04ko eskutitzean: “Beraz, bi gauza bear ditugu derrigor: 1) *ZERBAIT esan bearra* [dena azpimarratua, “bearra” hiru azpimarratuz!], zerbait *unibersalik* alegia, arimari edo gizonari dagokion zerbait egiazkorik eta mamitsurik; eta 2) *EUSKERAZ* [letra larriz

gaineko ideia mugatu horrekin nahiko goiz eten bazuten ere, zientzia eta teknologiaren esparruan, etena askozaz ere beranduago egin zen, eta UEUren eta bertan parte hartzen zuten pertsona eta taldeen kasuan argi ikus daiteke. Berez, aurreko ataletan ikusi denez, 1960etan eta are 1936 aurretik egin ziren saio eta lehen hurbilpen batzuk euskaraz zientzia eta teknologia gai unibertsalak lantzeko, baina oso saio dibulгатibo eta mugatuak izan ziren. 1970etan UEUren inguruan askoz dinamika sendoagoa hasi zen. Hau da, UEUn euskaraz lantzen ziren Euskal Herriaren kultura, lurraldea edota hizkuntzarekin zerikusirik ez zuten gaiak (adb. 1974ko Udako Ikastaroetan Jacinto Iturbe *Kimika kuantikoari* buruz aritu zen, eta Jose Ramon Etxebarria *Mekanika teorikoaren* gainean).

Noski, hizkuntzaren ideologia hertsiki lotuta zegoen unibertsitate proiektuarekin. Hala, euskal unibertsitate (*universidad vasca*) baten alde zeudenak bai gerraurrean bai gerraostean, unibertsitate proiektua zenbat eta gehiago lotu unibertsaltasunarekin eta ezagutza abstraktuarekin orduan eta hizkuntza jarrera erdaltzaleagoa izaten zuten. Zentzu honetan, UEUren ekarpena izan zen unibertsaltasunik galtzen ez zuen euskarazko unibertsitate proiektua prestatzea eta Udako Ikastaroetan proiektuaren egingarritasuna erakustea. Noski, ideia honen taxuketan berebiziko eragina izan zuten garaiko zenbait zientzialari, ingeniari eta letretako euskaldunek, hala nola, Karlos Santamariak (Matematika katedraduna), *Txillardegik* (ingeniaria), Jose Ramon Etxebarriak (fisikaria), Jacinto Iturbek (kimikaria), Luis Mari Bandresek (ingeniaria) eta beste hainbatek.

Amaitzeko, eta hausnarketa gisa planteatu nahi dugu UEUren garaiko lorpenen eta UEUri buruzko historia lan batzuetan ematen den irudiaren arteko aldea. Izan ere, Udako Ikastaroen berotan prestatutako UEUren hiru agiriak (hau da, 1975eko eta 1976ko Uztaritzekoak eta 1977ko Iruñekoak), UEUren 70eko hamarkadako kokapen ideologikoa egiteko ezin ahantz badaitezke ere, hau da, ezkerrean eta abertzaletasun bete betean, agiriok ez dira UEUren ekarria ulertzeko funtsezkoak. Hau da, UEUren testugintzaren garrantzia ulertzeko, edota erakundeak zergatik erakarri zituen ehunka

---

eta azpimarratua] esan, eta ez guk asmatutako sasi-izkuntza zoro batez. Orra, nere ustez, bi baldintzak.” (Azurmendi, 2007a: 84)

pertsona. Hala ere, historialari batzuk, garrantzi handiagoa eman izan diete agirioi, UEUren egitekoak eta ekarpenak aipatu gabe utziz<sup>372</sup>.

### 3.3.2. Elhuyar: taldetik, kultur elkartera

Arestian aipatu dugunez, Elhuyar Taldea 1973. urtean sortu zen. Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Goi-Mailako Ingeniari Eskolaren EKTan ibilitako ikasle batzuk, euskara zientzia eta teknikarako egokitze asmoz Elhuyar Taldea sortu zuten. Izena Elhuyar anaiengandik jarri zioten taldeari, anaia biek 1783. urtean Bergarako egonaldian Wolframioa bereiztu zutelako.

Elhuyar taldearen abiapuntuko kide horiek Luis Mari Bandres, Juanjo Gabiña, Jesus Mari Goñi, Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide izan ziren. Aipatutako lagunak larunbat arratsaldetan biltzen hasi ziren euskaraz gai teknikoak lantzeko. Donostiako Arrasate kalean, jesuitek zuten egoitzan egiten zituzten bilerak. Jesuiten lokal horretan era guztietako taldeek izan zuten biltzeko tokia: legalizatu gabeko alderdi politikoek, sekta erlijiosoek (Hare Krishna) eta abar. Elhuyarrek bertan egiten zituen bilerak eta lokal txiki-txiki bat zuen gauzak bertan gordetzeko.

Aipatutako bileretan zientziarako erabilgarri izango zen euskara eredu eta terminologia lantzen zuten, hots, prosa eta lexiko zientifikoa. Kideek larunbateko mintegietarako prestatzen zituzten lanak zabaltzeko zein beraien artean adostutakoaren probaleku gisa *Elhuyar aldizkaria* sortu zuten. Lehen zenbakia 1974ko irailean atera zen. Aldizkaria RSBAPen legezko babesari esker kaleratu zen, eta RSBAPen babesa izan zuen harik eta Elhuyar taldeak 1981. urtean legezko izaera izan zuen arte, hau da, kultur elkartearen estatutuak onartu ziren arte. Ondoko lerroetan, Elhuyar Taldea sortu zenetik (1973), Kultur Elkarte gisa bere burua legalki definitu arteko urte tarte (1973-1981) azalduko dugu.

---

<sup>372</sup> Hori ikusi dugu Santiago de Pablo eta Coro Rubiok UPV/EHUren azken 25 urteko historiari buruz prestatutako liburuan (De Pablo & Rubio, 2006: 72-73)

Elhuyar taldearen helburua euskara zientzia arlorako egokitzea eta prestatzea izanik, taldeak 70eko hamarkadan zientzia eta teknologiaren esparruan hiru lan ardatz nagusi zituen<sup>373</sup>:

- Euskarazko goi mailako dibulgaziora zuzendutako aldizkariaren argitalpena.
- Euskarazko irakaskuntzaren oinarriko beharrianak asetzea.
- Hiztegitza.

*Elhuyar aldizkaria* zientzia eta teknika arloko euskarazko goi mailako lehen aldizkaria espezializatua izan zen. Hain zuzen ere, espezializazio horrek eraginda, proiektu horrek bazterra jo eta formula dibulгатiboa zuen beste aldizkari bati tokia utzi zion 1996. urtetik aurrera. Horretaz guztiaz gain, aldizkaria Elhuyar taldearen nolabaiteko organoa ere izan zen, bertan taldearen asmoak, proiektuak edo gogoetak argitaratu zirelako<sup>374</sup>.

Zientzia eta teknologia arloko euskarazko irakaskuntza asetzeko, taldea bi ildotan aritu zen: batetik, ikasmaterialgintzaren prestakuntzan, eta bestetik, irakasleen formazioan. Aldizkaria argitaratzen hasi eta gutxira, Elhuyar taldea eskola mailako testuliburu eta materialak itzultzen eta prestatzen hasi zen ikastolen eskariz. Lehen enkargua 1975ean heldu zen, Anaya argitaletxearen 7. mailako Natur Zientziak liburuaren itzulpena. Ondoren, beste jakintza-arlo batzuetako testuliburuak prestatu zituzten. 1980. urterako Elhuyar Taldearen testugintza Lanbide Heziketa, BBB eta Irakasle Eskoletara zabaldua zegoen. Maila horretako ikasmaterialgintzari *Elhuyar aldizkariaren* 25. zenbakiko editoriala eskaini zioten. Bertan egiten zen analisiaren arabera, maila horretarako testuliburuak egitea ez zen errentagarria, hau da, ikasliburuen salmentatik ez ziren estaltzen liburuaren edizioak eragindako gastuak<sup>375</sup>. Hala ere,

<sup>373</sup> Lan ardatzak finkatzeko *Elhuyar* aldizkarian 1974-1981. urteetan argitaratutako editorialak erabili ditugu (Elhuyar Taldea, 1975a, 1975b, 1976a, 1976b, 1976c, 1977a, 1980, 1981a, 1982 eta 1983)

<sup>374</sup> Ikus aurrerago 5.2. *Elhuyar aldizkaria* atala, bertan zehatzago lantzen da taldearen aldizkari proiektua.

<sup>375</sup> "...orain arte euskarako ikastextuak zergatik prestatu ez diren nahiko argi dago: dagoen ikasle-kopurua urriegia da oraingoz (...) zentzu komertzial arruntarekin jokatuz inolako liburu-produkzionik aurrera atera ahal izateko. Edozein tiradak komertziala izateko 5.000 ale ingurukoa izan behar badu, eta dagoen bezeriak urtero 500 ale inguru iresten ditu, bistan dago jokabide komertzial hutsez ari den inork ezin dituela hainbat urtetarako liburu-stock horiek beregain hartu" (Elhuyar Taldea, 1980: 1-2)



liburuak beharrezkoak zirenez, arazo ekonomikoa gainditzeko Eusko Ikaskuntzari diru mailegua eskatu zioten.

Elhuyar, euskarazko testugintza ez unibertsitarioaren esparruan aritu zen, zenbait arrazoirengatik: beharrianik handiena une hartan eskola, ikastola, institutu eta lanbide heziketak zutelako, eta bertan, unibertsitatean ez bezala, jada euskarazko irakaskuntza indarrean zegoelako. Beraz, Elhuyarrek erronka horri aurre egitea deliberatu zuen. Gainera, laster unibertsitate esparruko euskarazko ikasmaterialen prestakuntzan UEU buru belarri sartu zen, eta nolabait bakoitza esparru batean espezializatu zela esan daiteke. Nahiz eta Elhuyarreko kideak UEUK argitaratutako liburu askotan kolaboratu zuten, Elhuyar taldearen argitalpen proiektua ez zen unibertsitateko testugintzan espezializatua (*Elhuyar aldizkariaren* salbuespenarekin), UEUrena, berriz, bai<sup>376</sup>.

Bestalde, Elhuyar Taldeak irakasle euskaldunen alfabetatze zientifikorako ikastaroak eta mintegiak antolatu zituen. UEU aukeratu zuten horretarako plaza gisa. Horri esker, UEUK zientzia eta teknologia arloko ikastaro espezializatuak eskaini zituen. Hala UEUren sorreran parte hartutako pertsona eta erakundeak (Ikas, Euskaltzaindia,...) orokorrean, Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak izanik, Elhuyarren ekarpena, baita EKTena ere, funtsezkoa izan zen UEUren Euskal Unibertsitate proiektua osatzeko, hots, Natur Zientzia eta Zientzia Hutsen esparrura zabaltzeko. Udako ikastaroen eskaintza zabalpen horren isla da. Halaber, Elhuyar taldeko beste kide batzuk (M. Zalbide, L. M. Bandres,...), erabateko garrantzia izan zuten UEUren hasierako Udako Ikastaroen antolaketa orokorrean, ez bakarrik ikastaro jakinetan.

Elhuyar taldearen hirugarren eta azken lan esparrua hiztegi gintzarena izan zen. Taldeak euskara zientziaren eta teknikaren arlora egokitzea helburu zuen, eta hori lortzeko terminologia berezitua garatu beharra zeukan. Euskarazko terminologia espezializatuak aurreko lan esparruekin lotura estua zuen, modu batera edo bestera denak ukitzen baitzituen: aldizkarian erabilitako terminologia, testugintza ez

---

<sup>376</sup> Elhuyarrek horrela aitortu zuen *Elhuyar* aldizkarian 1976an kaleratutako editorialean: “Oinarrizko Irakaskuntza Orokorrerako (E.G.B.) textugintzan dihardugu, B.U.P. eta Irakaskuntza Profesionalekoak ere lehenbait lehen hasi nahi ditugu eta Euskal Unibertsitate baten oinarriak ipintzeko ere hortxe dugu aurtengo Udako Euskal Unibertsitatea” (Elhuyar Taldea, 1976b: 2)

unibertsitarioko hiztegia eta irakasle euskaldunen alfabetatze zientifikoa. Hala, Elhuyarrek bai bere kabuz, bai beste erakunde batzurekin, hala nola, Euskaltzaindia, Jakin, UZEI eta abarrekin, hiztegi proiektuetan parte hartu zuen. Hala, oraindik UZEI sortuta ez zegoenean, Elhuyar Fisika eta Kimika hiztegieta Jakinekin kolaboratzen hasi zen<sup>377</sup>, eta UZEI sortzean, kolaborazio horri eutsi zion, honako hauetan parte hartuz: Teknologia hiztegia, Arkitektura hiztegia<sup>378</sup> eta Matematika hiztegia<sup>379</sup>.

Bestalde, Elhuyarrek Euskaltzaindiarekin bi hiztegi proiektutan kolaboratu zuen, bata, Matematika hiztegia, eta bestea, Arkitekturari buruzkoa<sup>380</sup>. Matematika hiztegia berez, Elhuyarren proiektu izan zen hasiera batean<sup>381</sup>, baina eskola mailako Matematika hitz zerrenda prestatzen amaitu zuenean<sup>382</sup>, Euskaltzaindiari eskaini zion (1976)<sup>383</sup>. Horren ondorioz, Euskaltzaindiak Matematika arloko hiztegia lantzeko Matematika azpibatzaordea sortu zuen. Bertan parte hartzen zuten Karlos Santamariak eta Jose Miguel Zumalabek, Euskaltzainditik, eta Elhuyarretik Jesus Mari Goñik eta Mikel Zalbidetik (azken bi hauek osatzen zuten Matematika Elhuyar Taldea<sup>384</sup>). Matematika hiztegia prestatzeko Klaudio Harluxeten laguntzari esker ordenagailuak erabili zituzten, gauetan, libre zeudenean. K. Harluxet garai honetan bai UEUko bai Elhuyarreko kide aktiboa zen, Parisen Ingeniaritza ikasi zuen eta Bordeleko Unibertsitatean Informatika irakaslea izan zen.

Beraz, Ingeniaritzako bost ikasleak (nahiz batzuk jada titulua izan) abiatutako proiektua, zientzia eta teknologia arloko euskara prestatu eta egokitzeko, hizkuntzaren erabilera goi mailara igotzeko eta bere erabilera esparrua zabaltzeko, urte gutxiren buruan asko hazi zen. Erakunde oso dinamikoa izan zen, bolumen handiko proiektuetan sartu zena, eta unibertsitario euskaldun euskaltzaleak erakartzen jakin zuena. Hala sortu eta bizpahiru urtera, jatorrizko taldeari kide berriak erantsi zitzaizkion: Iñaki Azkune,

<sup>377</sup> (Elhuyar Taldea, 1975a eta 1975b)

<sup>378</sup> Azkenean hiztegi hau ez zen argitaratu, beste biak bai.

<sup>379</sup> (Elhuyar Taldea, 1982)

<sup>380</sup> (Elhuyar Taldea, 1977b)

<sup>381</sup> (Elhuyar Taldea, 1975c)

<sup>382</sup> (Elhuyar, 1977a)

<sup>383</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.1.2)

<sup>384</sup> Elhuyar Matematika Taldearen egitasmoa *Elhuyar* aldizkariaren 10. zenbakiaren editorialean azaldu zen (Elhuyar Taldea, 1977a)

Iñaki Irazabalbeitiak, Kepa Zalbide, Imanol Tapia eta beste<sup>385</sup>. Lagun berriek taldeari bizitasuna eman zioten, eta taldearen biziberritzea ekarri zuten. Halaber, aldizkarira firma berriak gehitu ziren. Hala, Kultur Elkarte gisa legezatu zenerako (1981) Elhuyarrek lankide sare zabala eta anitza zuen.

“Hasieran Injineru ikasle talde batek sortu bazuen ELHUYAR, denboran zehar jende berriak indartu du hasierako talde hura eta honela gaur egun, injinerutzan Doktore eta lizentziatu askoren ondoan, Kimikari, Fisikari, Matematikari, Ekonomilari, Abogatu eta abar luze batek osatzen dute taldea. Hauekin ezin ahaztu ditugu, taldekoak izan gabe, laguntzaile gisa gurekin lan egiten duten hainbat pertsona”<sup>386</sup>

### 3.3.3. Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Institutua (UZEI)

Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Institutuak (UZEI) 1977ko uztailean aurkeztu zuen jendaurrean bere burua. UZEIren abiapuntuko helburuak bi ziren: alde batetik unibertsitate-egitasmo bat prestatzea, eta bestetik, unibertsitate kultura euskalduntzea, bai lexikogintzan arituz, euskararen lexikoa bilduz eta eraberrituz, bai irakaskuntzarako materialak prestatuz. Lehenengo helburuak ez zuen arrakastarik izan eta urte gutxiren buruan, bertan behera geratu zen. Geroztik UZEI lexikogintzara dedikatu da ia eskusiboki.

UZEI, UEUn aurkeztu zen, eta “aurkeztu zutenean, bazirudien UEUren tokia beteko zuela”<sup>387</sup>. Are gehiago, bere lehen zuzendaria, Joseba Intxausti, zein parte hartzaileak, UEUn ibilitakoak ziren. Beraz, nolabait bikoizten ari ziren euskarazko unibertsitate baten alde lan egiteko bideak. Bikoizketa bilatua izan zen? Konfiantzarik bazen, UEUk Euskal Unibertsitatea abian jarriko zuela? Agian bikoizketa apur bat egon zen, baita konfiantza gutxi ere, batzuetan hala nola antolatzen baitziren Udako Ikastaroak. Baina bestalde, baliteke, ezezagutza nagusi izatea, UZEIren sortzaileek, J. Intxaustik esate baterako, 1973ko Udako Ikastaroetan baino ez zutelako parte hartu. Ondorioz, UEUk ondoko urteetan emandako espezializazioa eta unibertsitario euskaldunen parte hartzea baliteke UZEIkoek ez ezagutzea. Halaber, baliteke eragina edukitzea une hartan UEUk ez zuela ez erakunde nortasunik, ez erakunde irudirik

---

<sup>385</sup> Tarte horretan J. J. Gabiñak Elhuyar taldea utzi zuen.

<sup>386</sup> (Elhuyar Taldea, 1982: 213)

<sup>387</sup> (Aizpuru, 2003a: 97)

proiektatzen. Arestian aipatu dugunez, Martin Orbe sartu arte, Udako Euskal Unibertsitatea, udako hitzaldien ziklo bat baizik ez zen, hots, ez zen erabateko erakundea, egoitzarik ez zuelako, ezta inolako egitura instituzionalik ere, eta hasieran behintzat, “Udako Euskal Unibertsitatea” Udako Ikastaroen izen propioa baino ez zen. M. Orberen garaian berriz (1977tik aurrera), UEUk Bilbon bulegoa ireki zuen, idazkaritza iraunkorra jarritz, eta zuzendariarekin batera UEUren lanak bideratzeko zuzendaritza talde bat finkatuz. Beraz, posible da garaian ez ikustea bi erakundeen arteko konkurrentziarik, bikoizketarik edo UZEIk UEUren tokia beteko zuenik.

Euskal unibertsitatearen alde zeuden taldeen laguntzarekin, hasierako UZEIk egingarritzat zuen bospasei urtera “euskarazko unibertsitatea indarrean egotea. Horretarako plangintza zabala burutzea pentsatzen zuen UZEIk, «aurreunibertsitatea sortuz». Bilboko Unibertsitatearekin harremanak izan arren, proposamen hori ez zen gauzatu, eta ez zen lankidetzara eraginkorrik egon erakunde horrekin”<sup>388</sup>.

UZEIk euskarazko unibertsitatearen aldeko asmoan ez zuen arrakastarik izan, eta laster, sortu eta hiru urtera UZEIk bere ibilbideari buruzko hausnarketarako txosten bat prestatu zuen bere burua eta egitekoak birdefinitzeko. Txostenean aipatzen denez, UZEI, unibertsitate mailan ari zen euskararen normalizaziorako kultur instituzioa izanik, unibertsitate euskaldunaren azpiegitura (bibliografikoa, hizkuntzazkoa eta pertsonena) landuko zuen<sup>389</sup>. Hau da, BBB eta UBIrako testuliburuak prestatu, hiztegiak egin eta ikastaroak antolatuko zituen. Ikastaroak, batik bat irakasle euskaldun alfabetatuentzat ziren, jakintza alorreko euskara teknikoan formatzeko, J. Intxaustiren hitzak erabilia, “goi-alfabetakuntzarako”<sup>390</sup>. Esate baterako Martxel Aizpuruak horrelako ikastaro bat eman zuen 1979/80. ikasturtean Leioako Zientzia Fakultatean (*Biologiako Euskara Zientifikoari buruzko ikastaroa*). Hala ere, funtsean UZEIk normalizazio lexikalaren esparruan kokatu zuen bere burua<sup>391</sup>, eta beraz hiztegiak bihurtu zen erakundearen jardura nagusia. Aipatutako hausnarketa txostena agertu

<sup>388</sup> Aipua Mikel Aizpuren lanetik (2003a: 97). Aurreunibertsitatearen proiektua zehatzago azaltzen du Joseba Intxaustik (1977b)

<sup>389</sup> (UZEI, 1981: 226)

<sup>390</sup> (Intxausti, 1977a: 68)

<sup>391</sup> (UZEI, 1981: 15)

zenerako UZEIk argitaratuta zituen zenbait hiztegi berezitu: Fisika, Kimika, Psikologia, Politika, Ekonomia eta Enpresa hiztegiak<sup>392</sup>.

Hiztegiak prestatzeko UZEIk bi lankide mota zituen: bata, langilea, nominan<sup>393</sup> edo orduka kobratzen zuena<sup>394</sup>, hiztegiaren gaian aditu zena eta hiztegiaren kudeaketaz arduratzen zena, eta bestea, lankidea, jakintza-arlo batean edo gehiagotan aditua zena, eta hiztegiko aholkularitza lana egiteaz gainera, hiztegiko artikulua labur batzuk idazten zituena<sup>395</sup>. Hiztegi berezituetakoa lankideen zerrenda luzea izan ohi zen. Esate baterako Kimika hiztegiak 18 lankide izan zituen. Horietako asko Elhuyar taldeko kide ziren (A. Sagarna, L. M. Bandres,...) eta Leioako Zientzia Fakultatekoak (J. R. Etxebarria, J. Iturbe, I. Urretxa...), eta beste batzuk Udako Ikastaroetan parte hartzen zuten<sup>396</sup>.

Hiztegi gintza jarduna UZEIren sorrerarekin lotutako jardura da. Paulo Agirrebaltzategik berriki *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikulua batean Jakinetik UZEIrako prozesu osoa pausuz pausu azaltzen du. Ondoren, laburbilduta jasoko dugu. *Jakin* aldizkaria legez kanpo geratu zenean 1969an, artikulua aldizkari batean argitaratu beharrean, liburu gisa atera ziren, eta horrela abiatu zen *Jakin* Sorta bilduma, *Jakin* aldizkariaren ordezkia eta harpidetza bidez banatzen zena.

Joseba Intxaustik, legez kanpoko aldizkariaren zuzendariak, 1971an *Jakin Taldeari buruz konfiantzazko txostena* prestatu zuen. Bertan *Jakin* Taldea definitzeaz gain<sup>397</sup>, eta beronen helburuak finkatzeaz gain<sup>398</sup>, ondoko urteetarako plangintza zabala

---

<sup>392</sup> Ondoren honako hauek etorri ziren: Matematika, Filosofia, Kirola, Hizkuntzalaritza, Arteak, Biologia, Teknologia, Musika, Medikuntza, Zuzenbidea, Glotodidaktika, Erlijioa, Meteorologia eta abar.

<sup>393</sup> UZEIk nominan 12 langile zituen 1981ean. zerrenda ikusteko jo UZEIren txostenera (UZEI, 1981: 182)

<sup>394</sup> UZEIk orduka kobratzen zuten 19 langile zituen 1981ean, zerrenda ikusteko jo UZEIren txostenera (UZEI, 1981: 184)

<sup>395</sup> UZEIk 1981. urtera argitaratutako hiztegietan lankide gisa aritutako pertsonen zerrenda prestatu zuen (UZEI, 1981: 186-211)

<sup>396</sup> Gaur egun UZEIk argitaratutako hiztegi berezitu guztiak Internet bidez kontsulta daitezke *Euskalterm, Terminologia Banku Publikoan*. UZEIk sortu zuen Euskalterm, eta gaur egun web zerbitzua Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du. Hemen kontsulta daiteke: <http://www1.euskadi.net/euskalterm/> [kontsulta data: 2008-11-26]

<sup>397</sup> Paulo Agirrebaltzategik jasota dakarrenez, J. Intxaustik honela definitu zuen *Jakin* taldea: “aldizkariaren inguruan 1956tik aurrera Arantzazuko eta erlijioso-etxe eta seminariotako ikasle gazteen artean eraturiko lankidetzak” (Agirrebaltzategi, 2006: 15)

<sup>398</sup> “Bitariko kezka eta helburuak gidatu duela dirudi *Jakin* Taldearen kultur lana: gaurko euskaldun kulturaz jantziari dagozkion euskarazko irakurgai duinak eskaintzea, batetik, eta, aldi berean eta horrekin

proposatzen zen. Besteak beste, Jakin liburu Sorta poltsiko bilduma sortzea aipatzen zuen,

“Gure egitarau honek [*Jakin sorta*-renak] beharrezko ditugun kultur-arlo asko ikutu gabe uzten duela esan behar. Hau dela-ta, patrikako liburuxka-sorta bat sortzeko asmo ideiatu da. Ideia berri honek, batez ere, eragin digu *Jakinez* ematen ari gatzaizkizun txostena azaltzera. Liburutegi tipi honek serioki autatua eta landua izan behar du, intelektual-sakontasunari ahalik gehien begiratuaz, goi-dibulgazioko mailan argitaratu dadin”<sup>399</sup>.

P. Agirrebaltzategik dionez, J. Intxaustik bilduma honekin Frantziako *Que-sais-je* liburu bilduma zuen gogotan, “nolabaiteko euskarazko entziklopedia unibertsal eta orokorra, jakintza modernoetako alor eta gai guztiak hartuko zituen, eta liburuxka monografikotan banatua”<sup>400</sup>. Aipatutako bilduman Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Historiari buruzko lanak argitaratzea aurreikusi zen. Hala, hiru sail sortu ziren: Gizartea, Pentsamendua eta Historia, baita sail bakoitzeko arduradunak izendatu ere<sup>401</sup>. Sail bakoitzean zein liburu argitaratu erabakitzeke inkesta bat zabaldu zuten, baita bilerak antolatu ere. Bide honetatik eta 1971-1981. urteen artean Jakin Taldeak 30 bat liburu argitaratu zituen aipatutako Jakin Liburu Sorta bilduman (nahiz eta 75 proiektatuta zeuden).

Beranduago definitu zen, Jakin Liburu Sortako liburuak irakurgai arinak eta garaikoak izango zirela eta, sakonak, mardulak eta alorreko hizkera zientifikoa sortzen laguntzen zuten lanekin beste bilduma bat osatuko zela: *Jakin Bide* (hasieran *Jakin/handi* izena zuena). Bilduma honetako lehen liburua L. Villasanteren *Axular-en hiztegia* izan zen (1973). Nahiz eta ondoko biak ez ziren hiztegiak izan, Jakin Bideren jomuga hiztegien prestakuntza izango zela erabaki zuten. Izatez, *Jakin* aldizkariaren inguruan ibilitako taldeak, hasieratik, sorrera unetik bertatik, kultur hiztegiaren gaineko kezka izan zuen<sup>402</sup>. Horregatik, ez da harritzeko garai honetan, eta aldizkaria legez kanpo egonda, Jakin Taldea zenbait hiztegi berezitu prestatzen hastea: Pedagogia,

---

batera, euskara bera kultura eta jakintza modernoak esperesatzeko gaitzea, kultur hizkuntza bihurtuz. Bi helburuak bata besteari guztiz lotuta ikusi izan ditu Jakinek. Eta lan hori dena helmuga bati begira egin duela esan daiteke: *Euskal Unibertsitatea*” (Agirrebaltzategi, 2006: 16)

<sup>399</sup> Aipatua in (Agirrebaltzategi, 2006: 20)

<sup>400</sup> (Agirrebaltzategi, 2006: 20)

<sup>401</sup> Historia saileko arduradunak Joseba Intxausti eta Koldo Larrañaga izan ziren, Gizarte arloan Joan Mari Torrealdai eta Andoni Sagarna, eta azkenik Gogoeta edo Pentsamendu sailean Paulo Agirrebaltzategi eta Henrike Knörr (Agirrebaltzategi, 2006: 22)

<sup>402</sup> Ikus III. Kapituluko 4.3.2. *Aldizkari proiektuaren bilakaera* atala.

Psikologia, Ekonomia, Soziologia, Filosofia, Teologia, Historia eta Natur Zientziak. Taldeak erabaki zuen hiztegiak ez zirela izango arloz arloko adituentzat, euskaldun ikasientzat baizik, baina arloetako adituek eginak (ez hizkuntzalari edo filologoek eginak). Jakinek argitaratu zuen lehen hiztegi berezitua *Natur Zientziak Hiztegia* izan zen (1976)<sup>403</sup>, besteak beranduago kaleratu ziren. Beste hiztegi berezituak plazaratu zirenerako, Jakinek UZEI sortua zuen, eta bertara lekualdatuta zituen jadanik martxan zeuden jarritako hiztegi proiektuak. Beraz, azkenean, UZEI izan zen, Jakin Taldeak abiatutako hiztegi proiektuak bukatu eta kaleratu zituen.

### 3.3.1.1. Mitxelena-UZEI afera

UZEIk hiztegi gintza berezitua lantzen zuen, hau da, Euskaltzaindiak landutako lexiko orokorretik kanpo kokatutako lexikogintza. Hiztegiok hizkuntzaren akademiak prestatzen ez zituen heinean, proposamenezkoak ziren, eta P. Agirrebaltzategik aitortzen duenez, “Horregatik dira behin behinekoak...”<sup>404</sup>. Hala ere, K. Mitxelenak 1981. urtean *Muga* aldizkarian oso artikulua gogorra argitaratu zuen, besteak beste, UZEIren kontra<sup>405</sup>. K. Mitxelenarentzat UZEIk Euskaltzaindiari konkurrentzia egiten zion lexikogintzan, eta bere ustez bietako batentzat baino ez zegoen tokia<sup>406</sup>. K. Mitxelenak UZEIren hiztegi gintzako hitzen erdal kutsua eta proposamen “estetizistak” kritikatzeko zituen. Hiztegi berezituak egiteko bide filologikoa proposatzen zuen, hau da, euskal testuetatik hitzak biltzea, eta ez adituek egindako hitz aukeraketak. Adituen hautu horiek bere ustez honako oinarri eskasak zituen: “recuerdo casual y, más que nada, a la ocurrencia del momento, de fondo diremos «esteticista»”<sup>407</sup>. K. Mitxelenaren *Mugako*

---

<sup>403</sup> Natur Zientziak hiztegia, hiztegi berezitua zen heinean, euskal liburugintzan obra erabat ez ohikoa zen, eta garaian bertan ere horrela hartua izan zen. Ikus Joxe Azurmendi eta Jose Ramon Etxebarriaren iruzkinak Mikel Aizpururen lanean (Aizpuru, 2003a: 84-85)

<sup>404</sup> (Agirrebaltzategi, 1985)

<sup>405</sup> “4. Por lo que ha llegado a mis oídos, una de las graves quiebras del sistema de mercado libre es que éste puede ser libre sólo de nombre, porque lo que domina de hecho tiende a ser una situación de monopolio (privado, añadido por si acaso) y a lo sumo de oligopolio muy restringido. Pues bien, entre nosotros, como una de las últimas pruebas de nuestro (antes) celebrado sentido empresarial, con una envidiable comprensión de las posibilidades futuras de expansión del mercado, se creó una empresa, basada en condiciones económicas excepcionales, que es de lo más parecido, a pesar de tratarse de un campo inédito para los economistas, a *Western Electric* o a *General Motors*. Se llama, por si alguien no la ha adivinado, UZEI, y, aunque esté asociada con otras, se lleva, como es de ley, la parte del león” (Mitxelena, 1981: 17)

<sup>406</sup> K. Mitxelenak bere artikuluan azken paragrafoan bi erakundeen patua ebazteko desafioa planteatzen du: “Que haya, pues, más de uno y que gane el mejor...” (Mitxelena, 1981: 19)

<sup>407</sup> (Mitxelena, 1981: 18)

artikuluaren kontra hainbat artikulu argitaratu ziren<sup>408</sup>. Esate baterako, Jesus Mari Txurruka eta Jose Ramon Etxebarría Zientzia Fakultateko irakasleek, Z-EKTko kide eta UZEIko hiztegi-tako lankideak izandakoek, K. Mitxelenaren aurka iritzi artikuluak argitaratu zituzten. Aipatutako bi irakasleek beren artikuluetan, besteak beste, komunitate zientifikoak (euskaldunak) bere arloko hiztegia adosteko ahalmena defendatzen zuten:

“Mitxelena jauna, arlo bakoitzeko komunitate zientifikoak, berak, erabaki behar du zeintzu hitz erabiliko dituen eta bakoitzarekin zer adierazi nahi duen –horretarako askatasuna eduki beharko luke bederen- eta arlo horretan hizkuntza ondo edo txarto erabiltzea beraren erantzunkizun historikoa izango da.”<sup>409</sup>

*Mugako* artikulu luzean, K. Mitxelenak ez zuen UZEI, eta bere hiztegiak soilik kritikatu, urrunago heldu zen. Bere ustez, gehiegikeria izugarriak egiten ari ziren euskararekin zientziaren esparruan. Esate baterako, euskara Fisika nuklearrean erabiltzeko saiakerak nahiko absurdutzat zituen<sup>410</sup>. Are gehiago, bere ustez, euskara eta zientzia lotzeko ahaleginak alferrikakoak ziren, ezinezkoa baitzen euskaldun zientzialariren bat Einsteinen mailara heltzea<sup>411</sup>.

Ikertzaile askok adierazi dutenez, K. Mitxelenak *Mugako* artikulua euskararen normalizazio prozesuaren abiadurari egindako kritika bat izan zen, K. Mitxelenarentzat gehiegizko abiadura zeramalako. Esparru zientifikoan euskara erabiltzea, eta erabilera horren ondorioz eratorrita sortutako hiztegi eta testu espezializatuak horren adibide ziren.

<sup>408</sup> *Jakin* aldizkariak iritzi artikulu guztien zerrenda prestatu zuten (Idazkaritza, 1982)

<sup>409</sup> J. M. Txurruka “Mitxelena jaunak idatzitakoari n-garren kritika” *Egin*, 1982.2.28

<sup>410</sup> “Ahora, en cambio, estamos emperrados, según las ap[a]riencias, en responder al desafío de cierto director general y ex rector de una Universidad castellana (creo) que hace años puso en duda la capacidad del catalán para que en esta lengua se pudiera tratar de física nuclear. Y, como salta a la vista que lo que en este orden de cosas vale para el catalán vale *a potiori* [sic] para el vasco, se ha debido de imaginar que, si se logra desmentirle, se ha conjurado sin más el maleficio que pesaba sobre la lengua” (Mitxelena, 1981: 15)

<sup>411</sup> “En cambio, de puro improbable es imposible que de un vasco de más de 15 años vaya a salir nada comparable no ya a *Mysterium cosmographicum*, sino a un simple artículo como el que apareció en 1905 en *Annalen der Physik* (y, bueno, que iba firmado Albert Einstein)



Ezin da ukatu polemikaren atzean hizkuntzaren normalizazioaren gidaritza politikoa eztabaidatzen ari zela, hau da, hizkuntzaren gaineko eztabaida politikoa ere bazela. J. Azurmendik 1982an zioenez, “Gustatzen ez bazaigu ere, hemen, arrazoi linguistikoak, indar kultural-sozialak eta proportzio politikoak, nahastu egiten zaizkigu”. Izan ere, “Egoera hau problematiko bihurtzen zuena eta duena, zera da: blokeon artean, kulturalki duten proportzioaren aldean, politikoki dagoen desproporzioa. Izan ere, ez daukat esan beharrik, joera biok nola daude banaturik politikoki”<sup>412</sup>. UZEI, UEU<sup>413</sup> eta bestelako euskal elkarte kulturalak, hein handiz, ezker abertzale inguruan kokatuta zeuden, eta beraiek ari ziren euskararen normalizazioa arinago moldatzen gobernuan zegoen EAJ baino. Egia esan, EAJren gobernuak 1981. urte inguruan oraindik ez zuen normalizazio plangintzarik diseinatu, eta, beraz, erraza zen euskal kulturgintzatik aterako ekimenek gobernuaren ekimen txikiari aurrea ateratzea. Abagune horretan kokatu behar da Jaurlaritzaren aurrekontuak hazi ahala, euskararen alde lan egiten zuten elkarteentzako diru laguntzak ez zirela erritmo berean igo.

K. Mitxelenaren afera honek ez zion UZEIri soilik eragin. Hala ere, “ez zuen ondorio nabarmenik izan unibertsitatean lantzen ziren hizkuntza-ereduetan”<sup>414</sup>. Izan ere Fisika edo Biologia bezalako ikasgaiak ematen zituzten unibertsitateko irakasleek beren ordura arteko ereduarekin segitu zuten, hau da, UEUn, Elhuyarren edo UZEIn proposaturiko bidetik. Edozein modutan 1981.ean piztutako eztabaidak inflexio puntu bat markatu zuen zientzialari euskaldunen eta hizkuntzalarien sektore baten artean, zientzia arloko euskararen normalizazioari dagokionez, hau da, bai prosa zientifiko bai terminologia berezituari dagokionez. Nork erabaki behar du zientzietako euskararen eredia: zientzialari euskaldun beraiek ala filologoen? Horra eztabaida. Bide biak 1981. urtetik bereiztuta jarraitzen dute, hurbildu ezinean<sup>415</sup>. Halaber K. Mitxelenaren kritikek beste ondorio bat izan zuten: UZEIren hiztegi gintzaren abiadura moteltzea<sup>416</sup>.

---

<sup>412</sup> (Azurmendi, 1982: 93)

<sup>413</sup> K. Mitxelena UZEIri kritika publikoaren garai bertsean, UEUrekin sesioan aritua zen. K. Mitxelenak *Deian* argitaratutako artikuluan UEUn pertsona *non grata* zela adierazi zuen (Aizpuru, 2003a: 171)

<sup>414</sup> (Aizpuru, 2003a: 150)

<sup>415</sup> Horren froga dira esaterako, Kepa Altonagaren lanak (2005 eta 2008)

<sup>416</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 35)

## 4. Biltzarrak eta udako ikastaroak

70eko hamarkadan euskarazko hitzaldi, ikastaro, biltzar, jardunaldi, eta bestelako ekitaldiak gero eta ohikoagoak bilakatu ziren. Segidan unibertsitateen edo unibertsitate proiektuen inguruan antolatutako ahozko jardun batzuk aipatuko ditugu, baina ezin ditzakegu denak xeheki aztertu. Bestalde, hizkuntzaren batasun prozesuan izan zuen eraginarengatik Euskaltzaindiaren Bergarako 1978ko biltzarra zehatzago azaltzea erabaki dugu.

Francoren garaian euskarazko ahozko jardun publikoa jazarrita egonik, Hegoaldean 1976. urtea baino lehen antolatutako jardunaldietan euskararik ez zen, edo bere presentzia oso txikia zen. Esate baterako Deustuko Unibertsitatean 1970-1973. urteetan antolatutako Euskal Antropologiako euskal asteetan, euskara oso gutxi entzun zen, nahiz eta bertan euskaldun asko aritu<sup>417</sup>. Hala 1970ekoan aurkeztutako 24 txostenetatik bat bera ere ez zen euskaraz izan, nahiz Jose Miguel Barandiaran, Jose Luis Goti<sup>418</sup>, Alfonso Irigoien eta beste euskaltzale batzuk berba egin zuten. Bigarren Euskal Antropologia astean berriz (1971. urtekoa), 38 lan aurkeztu ziren<sup>419</sup>, horietako bat euskaraz<sup>420</sup>, eta beste bi elebitan argitaratu ziren<sup>421</sup>. Hirugarren eta azken Euskal Antropologia jardunaldia 1973. urtean antolatu zen, eta 29 lan argitaratu ziren bi tomotan. Hala ere bakarra prestatu zen euskaraz, eta Antropologiari buruzkoa baino, lexikografikoa zen<sup>422</sup>.

Hegoaldean ezin egin zitekeena Iparraldean berriz, posible zen. Hala 1970-1972. urteen artean Baionako Euskal Museoan Euskal Asteak antolatu ziren. Euskal hizkuntza eta kulturari buruzko hitzaldi ziklo trinkoak izan ziren. Gorago azaldu denez, Euskal

---

<sup>417</sup> Antropologia asteetan aurkeztutako lanak argitaratuta daude: *Primera Semana Internacional de Antropología Vasca* (1971); *Segunda Semana Internacional de Antropología Vasca* (1973) eta *III Semana Internacional de Antropología Vasca* (1976).

<sup>418</sup> (Egibar, 2004)

<sup>419</sup> Batzuk konferentziak izan ziren, beste batzuk berriz komunikazioak.

<sup>420</sup> Manuel Lekuona euskaltzainburu ohiak eman zuen eta Julio Urkixo euskaltzaleari buruzkoa izan zen.

<sup>421</sup> Josu Arenazak eman zituen eta euskararen batasunari buruz aritu zen.

<sup>422</sup> Xabier Kintanak honako lan hau aurkeztu zuen: "Itsasoko nabigazioko liburuaren hiztegi teknikoaz zerbait".

Astea, katalanen ereduari jarraituz eta Karlos Santamariak proposatuta, Udako Euskal Unibertsitatea bihurtu zen (1973)<sup>423</sup>.

Bestalde, Hegoaldean ikasle unibertsitarioentzat euskara ikasteko udako ikastaroak antolatu ziren. Arestian aipatu dugunez, lehena 1968an antolatu zen Gabiriako Aita Pasiotarren etxean. Hurrengo urteko udako ikastaroak leku gehiagotan antolatu ziren, baina baimenak eskuratzeko hainbat arazo izan zituzten antolatzaileek. Udako ikastaroak 1968-1975. urteen artean antolatu ziren, eta barnetegi eran planteatu baziren ere, urteekin barnetegia aukerakoa zen. Udako ikastaroak euskalduntze alfabetatzearen mugimenduaren parte ziren, eta antolatzaileentzat euskalduntze alfabetatzearen inguruan urte osoko lanaren parte ziren. Hau da, urtean zehar euskaltegietan eta eskoletan emandako klase, euskara irakasteko prestatutako metodo zein hiztegien parte ziren<sup>424</sup>. Lehenengo udako ikastaroan 45 ikasle parte hartu zuen, eta 1972. urtean 166 ikasle hurbildu ziren. Hasierako ikastaroak Euskaltzaindiaren babesean antolatu ziren (1968-1972. urteen artekoak), baina ondoko urtekoak (1973-1975) Euskaltzaindiarekin harreman zuzena zuen Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak eta Deustuko Unibertsitateko EKMk antolatu zituzten<sup>425</sup>.

Urte tarte horretan EKM euskara ikasteko aipatutako udako ikastaroez gain, Udako Unibertsitari Ikastaroa antolatzen hasi zen 1972an. Ikastaroetan Giza eta Gizarte Zientziei buruzko gaiak lantzen ziren. Lehenengoa, Loiolan egin zen, hurrengo urtekoa Oñatin, eta 1974koa berriro Loiolan. Ikasle gutxi matrikulatzea eta porrot ekonomikoak eragin zuten EKMk ikastaroak bertan behera uztea<sup>426</sup>.

Bestalde, Ipar Euskal Herrian ere, euskara ikasteko udako ikastaldiak antolatu ziren. *Zabal* aldizkarian argitaratutako berrien argitan<sup>427</sup>: Baionan (1972 eta 1973.

---

<sup>423</sup> Ikus Udako Euskal Unibertsitateari buruz arestian aipatutakoa (3.3.1. *Udako Euskal Unibertsitatea* atala).

<sup>424</sup> Juan Luis Goikoetxearen lekukotza, 2007.06.18an Derion egindako elkarrizketa.

<sup>425</sup> 1968-1974. urteen arteko Udako Euskal Ikastaroen gainean, Juan Jose Zearretak, ikastaroen antolatzaile lanetan ibilitakoak, artikulu bi argitaratu ditu *Euskera* buletinean (Zearreta, 1975 eta 2000).

<sup>426</sup> (Aizpuru, 2003a: 25-26)

<sup>427</sup> *Zabal* aldizkariaren bi artikulu argitaratu ziren beronen gainean (Mendibehere, 1973 eta Z, 1975)

urteetan), Mendikotan (1974an) eta Donaixtin (1975ean)<sup>428</sup>. Iparraldean udako ikastaroak antolatzeke arazo politikorik egon ez zen arren, bestelako arazo larriak baziren (tokia, prezioa, irakasleak,...). Horregatik, 1975ean ikastaroak Udako Euskal Unibertsitatearekin uztartzeko proposamena argitaratu zen *Zabal* aldizkarian:

“Bestalde, ez litzateke gaizki izanen ikastaldiak udako Unibertsitatearekin nolabait uztar ahal balitez. Egia bada Unibertsitatean ipar aldeko gutti egoten dela, ber denboran beste toki batetan ikastaldi baten egoteak ez bide ditu gauzak errazten alde horretarik. Ezer gertatzen den Unibertsitatera joan litezkeen jende batzuk hautu baten aitzinean aurkitzen direla: Unibertsitatea ala ikastaldia, biotan parte hartze ez baitzaie posible. Euskaltzaletasuna aski indartsu balitz ipar aldean, ez legoke hor inolako buruhausterik. Baina oraingoz besterik da, eta zinez damugarria da horrela gertatzea. Agian, datorren urtean beste molde batez antolatuko dira biak, denen onetan noski<sup>429</sup>”

Laburbilduz, 70eko hamarkadan hainbat erakunde udako ikastaroen formatua erabiltzen hasi ziren. Gaur egunera arte iraun duten udako ikastaro bakarrak bi izan dira: UEUren Udako Ikastaroak eta Derioko Udako Euskal Ikastaroak. Lehenengoak edozein zientzia eta jakintza-alorri buruzko ikastaroak dira, bigarrenak, berriz, euskara ikasteko, alfabetatzeko eta Euskal Literatura eta Filologiari buruzkoak. Derioko ikastaroak 1970. urtean antolatu ziren lehen aldiz, Derioko Apaiztegian eta Bilboko Elizbarrutiaren babesean. Lehenengo urteko ikasleak abadeak eta mojak ziren. Izan ere, udako ikastaroa antolatu zen herri txikietan liturgia euskaraz emateko abade asko ez zelako gai. Horiek formatzea zen asmoa<sup>430</sup>. Hala ere, bigarren urtetik aurrera, ikastaroak eliztarrak ez zirenei ere zabaldu zen. Labayru Ikastegia sortu zenetik, Derioko udako ikastaroak Labayruk antolatu ditu.

70eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, eta bereziki Franco hiltzean, Hegoaldean euskaraz antolatutako jardunaldiak ugartu ziren. Adibidez UEUren Udako Ikastaroak Iruñera eramateaz gain (1977), Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzak, Euskaltzaindiaren babesean, elebitasunari buruzko jardunaldia (*Igo Simposium elebitasunaz*) antolatu zuen 1976an<sup>431</sup>. Jardunaldiaren helburua elebitasuna eta beste gutxiengo batzuen kasuak ezagutzea eta aztertzea zen, irakaskuntza elebiduna, eta

<sup>428</sup> Agian euskara irakasteko udako ikastaro gehiago antolatu ziren, baina ez dugu berri gehiago aurkitu, besteak beste, *Zabal* aldizkariaren azken zenbakia 1976ko zelako.

<sup>429</sup> (*Z*, 1975: 32)

<sup>430</sup> (Bijuesca, 1997: 17)

<sup>431</sup> Jardunaldiaren berri *Gaiak* aldizkariari esker izan dugu. Aldizkariaren lehenengo zenbakian argitaratu baitzen jardunaldiaren kronika oso bat (ikus “Igo symposium elebitasunaz” *Gaiak*, 1 (1976), 158-160).

bereziki ikastoletako irakaskuntza hobetzeko. Beraz, ikastolen inguruan zebilen jendea deitua izan zen, eta horrek esplikatzen du parte hartzaileak 300era heltzea. Sinposiumean 13 hizlari aritu ziren<sup>432</sup> eta sarrera-hitzaldia Koldo Mitxelenaren esku egon zen. Programaren argitan, biltzarreko lan hizkuntza euskara izan zen, salbuespen batekin, Israelgo Arieh Shoval<sup>433</sup>.

#### **4.1. Euskara Batua berrikusteko unea (Bergara, 1978)**

Euskaltzaindiak euskararen batasunerako 1968ko Arantzazuko biltzarrean hartutako oinarritzko erabakiak, gomendio mailakoak ziren. Hau da, Euskaltzaindiak gomendatzen zuen euskaraz idaztean Arantzazuko erabakiak jarraitzeko. Halaber, Akademiak konpromisoa hartu zuen, aipatutako erabakiak 10 urterako izatea eta epe hori pasatzean, 1968ko erabakien balantzea egitea. L. Villasante euskaltzainburuak 1977ko uztailleko batzarrean, Arantzazuko berrikuspena egiteko bere plangintza aurkeztu zuen<sup>434</sup>. Hitzordua ere proposatu zuen: 1978ko iraila eta Bergaran. Horrela ospatu ahal izango zen Koldo Eleizalde gerraurreko jeltkide eta euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena bere jaioterrian. Horretaz gain, L. Villasantek, hurrengo urtean Seber Altube euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko, Arrasaten beste biltzar

---

<sup>432</sup> *Gaiak* aldizkarian argitaratu zen kronikaren arabera honako hizlari hauek aritu ziren: J. Intxausti (*Hizkuntzaren politik perpektiba*), I. Larrañaga (*Euskararen sozio-linguistik azterketaren azalpena*), M. Lasa (*Ikastolen elebidun tipologia*), F. Eletebarria (*Hizkuntz didaktikaren zailtasunen azterketa praktikoko bat*), J. L. Pérez (*Hizkuntzaren irakaspena Donostiako S. Jorge Ingles Ikastetxean*), K. Atutxa (*Elebidun haurren problema psikologikoak*), J. Urrutia (*Euskararen histori prozesuan ze lege-faktorek jo dioten*), Arieh Shoval (*Israelgo esperientzia*), X. Mendiguren (*Euskararen programakuntzaren problematika*), A. Otermin (*Interferentzia edo hizkuntzen (sic) nahasketa arazoa aztertzeari buruz lehen hurbilpena*), Higa Psikologo Taldea (*Ikastoletako haur eta erdaldun erkoletakoen (sic) artean egin diern konparaketa zenbait*), eta J. A. Obieta (*Hizkuntza minoritarioak eta zuzena*). Txillardegik ezin izan zuen joan bere txostena bidali egin zuen (*Hizkuntza minoritarioen konparaketa*). (ikus “1go symposium elebitasunaz” *Gaiak*, 1 (1976), 159)

<sup>433</sup> Arieh Shoval-ek gaztelaniaz ondo zekien, Argentinan enbaxadore gisa aritu baitzen urte batzuetan, eta beraz jardunaldian gaztelaniaz mintzatuko zen. *Gaiak* aldizkarian argitaratutako kronikaren arabera une horretan Israelgo Hezkuntza Ministeritzako Zuzendari ordezkaria zen. Arieh, Imanol Berriatua eta Xabier Kintanaren laguna izan zen. Bi euskaltzaleek interes handia izan zuten Israelen hebraiera helduei irakasteko esperientzia bertatik bertara ezagutzeko, eta Israelen egonaldiak egin zituzten. Are gehiago I. Berriatuak hebraiera ikasteko bere esperientzia liburu batean jaso zuen (Berriatua, 1982). Arieh-ren gurasoak Ukrainiar jatorriko juduak ziren, baina Arieh Israelen jaio zen, eta haurra zenean, hebraierazko eskola batera joan zen (Kintana Urriaga, 2007: 51)

<sup>434</sup> Euskaltzaindiaren uztailleko bileran L. Villasantek honela azaldu zien beste euskaltzainei biltzarra egiteko beharra: “Euskaltzaindiko jaunak: / Arantzazuko batzarrea, euskararen batasunari buruzkoa, 1968an egin zen. Hango erabakiak hartu zirenean esan zen hamar urtetako epe bat behar zela eman esperimantu gisa, eta hamar urte hoiak igarotakoan beharko zela beste batzarre bat egin esperientzia hunen balantzea egiteko, eta balantze horren arabera euskararen etorkizunerako on irudituko dena erabakitzeko” (Villasante, 1977: 851).

bat egitea proposatu zuen euskal gramatikaren gainean. Beraz, Bergaran euskararen batasunarekin zer ikusia zuten gaiak landuko ziren, estandarizazioa, eta Arrasaten corpusari eta, joskerari buruzkoak.

Halaber Euskaltzainburuak Bergarako biltzarreko hizkuntza ofiziala euskara izan behar zela finkatu zuen (“Batzarrearen hizkuntza ofiziala euskera soil-soilik izango da”<sup>435</sup>). Noski, ordura arte Euskaltzaindiaren biltzarrak, salbuespen txikiren batekin, osoki euskaraz ziren. Baina, gure ustez, L. Villasantek hori finkatu nahi zuen, beste arrazoi batzurengatik. Azken finean, Hendaia-Hondarribiko bileretan (1901-1902) gertatu zena, ez zuen berriro errepikatzerik nahi. Mende hasierako bilera horietan Iparraldeko zein Hegoaldeko zenbait euskaltzale eta euskalari bildu ziren euskararen ortografiaren batasuna adosteko. Baina ez Hendaian, ez Hondarribian, ez zen euskal ortografiaren batasunerako erabakirik hartu, ezta bateratze prozesua abiatu ere. Izatez, eztabaida latzak gertatu ziren, bileren arauak argi geratu ez zirelako. Modu horretara Sabino Aranak bere 320 jarraitzaile mobilizatu zituen bere ortografia boto bidez nagusitu zedin, eta azkenean denak porrot egin zuen<sup>436</sup>. Euskara ez zen izan euskaltzaleen arteko komunikazio hizkuntza, ez debekatzen zelako, erdara erabiltzen zelako baizik. Euskarak oraindik ez zuen biltzarrean aritzeko nahikoa estatusik, eta batzuk, Sabino Aranak esaterako, hitz egiteko lain ez zekiten<sup>437</sup>. J. B. Daranatzek kongresuotako aktak frantsesez jaso zituen.

Hori da oso labur esanda, gerraurreko ortografiaren batasun saio kamutsaren historia. Aurrekari hori gogoan L. Villasantek plangintza oso eta zehatz bat aurkeztu zuen Bergarako biltzarraren arrakasta ziurtatzeko eta Hendaia-Hondarribikoa ez gertatzeko. Hain zuzen ere, Bergaran, Hondarribiko akats guztiak ekidin nahi zituen L. Villasanteren plangintzak.

---

<sup>435</sup> (Villasante, 1977: 852)

<sup>436</sup> Auziaren detaileak zein kongresuotako gora beherak Mikel Zalbidetik (2003) eta Jurgi Kintanak (2006 eta 2008) xeheki aztertu dituzte, nahiz eta bakoitzak irakurketa desberdina eskaintzen duen.

<sup>437</sup> Ikus Sabino Aranaren aitortza Hendaian emandako hitzaldian jasotakoa, mendeurrena ospatzeko Eskualzaleen Biltzarrak berrargitaratutakoa.

- Biltzarreko hizkuntza: euskara. Horren alde honakoa zioen:

“Sarri gertatu da gure artean erdera besterik erabiltzen ez dutenek euskal gauzetan epaia eman nahi izatea. Hori ez da bidezkoa. Gainera jaun hoiek gehienetan euskerari kanpotik xoilki begiratzen diote, eta euskeraren barneko gauzak euskeraren barnean dagoenak bakarrik ikusten ditu ongi. Hori kontuan hartu ez delako zenbat problema, sasi problema eta oker-aditu ez zaizkigu sortu euskeraren alorrean! Ordua da hunako huntaz kontura gaitzen: euskeraren gauzetan –barneko gauzetan esan nahi dut- euskeraren semeek bakarrik dutela hitza.”<sup>438</sup>

- Gure ustez, L. Villasantek alde batetik ekidin nahi zuen Euskara Batuaren aurka zegoen hainbat jeltxide erdaldunen parte hartzea, mende hasierako Hondarribiko bileran gertatu zena ez errepikatzeko. Hain zuzen ere, garai honetako jeltxideetako askok Euskara Batuaren aurka nagusiki erdaraz idazten zutelako. Bizente Latiegi izan zen bakarrenetakoa, Euskara Batuaren aurka euskaraz sistematikoki eta ageriki aritu zena.
- Formatua: biltzarra. Bergarako kongresu erakoa izango zen, hau da, ponentzia nagusiak edo hitzaldiak izango ziren, Euskaltzaindiak hartarako izendatutako batzordeak prestatutakoak, eta ondoren, hitzaldien ostean, alde aurretik normahik bidalitako komunikazioek (edo txostenek) tarte bat izango zuten. Eztabaidarako aukera egongo zen, baina zuzendaritzak aukeratutako unean. Laburbiltzeko jardunaldi akademikoaren formatua hobetsi zen, formala, eta parte hartzea erregulatua izango zuena.
- Antolakuntza: Euskaltzaindiaren esku, batzordeen bitartez. L. Villasantek kongresuaren esparru desberdinetaz arduratzeko lau batzorde sortzea proposatu zuen, orotara, 26 pertsona izendatuz.
- Biltzarra bideratzeko: barne-araudia. L. Villasantek biltzarreko kontu guztiak erregulatzeko araudi bat finkatzea proposatzen zuen. Oinarrizko Barne Araudia 1978ko maiatzean onartu zen<sup>439</sup>, eta biltzar egunean J. M. Satrustegik irakurri zuen. Bertan argi eta garbi finkatzen zen biltzarraren gaia

---

<sup>438</sup> (Villasante, 1977: 852)

<sup>439</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.5.26)

zein zen: “2. biltzarraren gai nagusi eta orokorra, hamar urte hontan euskararen arloan emandako arau eta abiada azter eta sakontzea izango da, eta finkatzeke daudenak aztertzea”<sup>440</sup>

Esaldi batean esateko, Bergarakoa, euskararen batasunari buruz euskaraz aritzeko xeheki antolatutako biltzarra izan zen. Gerraurreko porrotaren mamutik ihes egin nahi zuena.

Halaxe, biltzarraren eguna heldu zen, eta ohiko sarrerako hitzen ostean, batzordeek beraiek prestatutako ponentziak aurkeztu zituzten Euskaltzaindiko kide eta bertaratutako txostengile eta bestelako parte hartzaileen aurrean. Ponentzia nagusiak prestatu zituzten batzordeak bi ziren: bata Hizkuntza Batzordea, eta bestea, Soziologia eta Estatistika Batzordea<sup>441</sup>. Lehenak, 1968-1978. urteen artean Euskaltzaindiak emandako arauak bildu, berrikusi eta osatzeko ardura zuen, eta bertako burua Koldo Mitxelena izan zen, Arantzazuko txosten nagusiaren egilea. Bigarren batzordeak, berriz, enpirikoki neurtu behar zuen batasunak egindako ibilbidea azken 10 urteetan. Hizkuntza Batzordearen lana oso garrantzitsua izanik ere, eta bertan eztabaidatu ziren arren hizkuntzaren batasunerako funtsezko auziak, guretzat interesgarriagoak dira estatistika batzordeak prestatutako lanak, garaiari buruzko hainbat datu ez linguistiko jasotzen direlako bertan. Gainera, estatistika batzordearen errola erabakigarria izan zen biltzarrean, hizkuntzaren batasuna linguistikaren logikatik harago eramateko. Batzorde honek datuekin demostratu zuen euskararen batasunerako Arantzazun hartutako erabakiek erabateko oinarri soziala zutela, eta gizarteak barneratuta zituela, erabakiok ontzat emanez eta erabiliz. Horregatik guztiagatik, Soziologi eta Estatistika Batzordeak aurkeztutako txostenen eduki nagusiak aipatuko ditugu segidan.

---

<sup>440</sup> (Satrustegi, 1978: 464)

<sup>441</sup> Guztira lau batzorde ziren, aipatutako biak, hau da, tematikoak zirenak, eta beste bi, biltzarraren antolaketa, kudeaketa eta koordinazioaz arduratzen zirenak. Batzorde bakoitza osatzen zuten partaideak zeintzuk ziren jakiteko, ikus Villasante (1978) edo Bergarako kongresua biltzen duen *Euskera* buletinaren zenbaki monografikoa (24.2 zkia, 1978)



#### 4.1.1. Soziologi eta Estatistika Batzordearen hitzaldiak

Euskararen batasuna irakaskuntza eta idatzizko zereginetarako planteatzen zen, ez zuen beste asmorik<sup>442</sup>. L. Villasantek euskararen batasuna beharrezko zekusan lehenengo eta behin euskara bera ez desagertzeko eta bestetik gaur eguneko gizartean txertatzeko:

“Batasun hori gabe euskarak ez du behar bezalako gaitasunik eskolan mintzabide bezala erabilia izateko, irakatsia eta zabaldu izateko, komunikapen, liburu eta abarretan erabilia izateko. (...) Denak elkar jota ere euskaldunak guti gara, eta oraino lau hizkera modutan bananduan baldin bagabiltza, irakaskintza, editorial eta irakurlego problementzat ez da irtenbiderik ikusten”<sup>443</sup>

Batasuna irakasle eta idazleentzat bazen, beraien Euskara Batuaren gaineko iritzia eta praktika ezagutzea komeni zen. Hala, Soziologi eta Estatistika Batzordeak idazleen, eskola mailako irakasleen eta alfabetatze-euskalduntzean ari ziren irakasleen iritzia galde-sorta bitartez bildu eta aurkeztu zituen Bergaran, baita euskarazko argitalpenetan erabilitako euskarari buruzko azterketa estatistikoa ere. Orotara, batzorde honek 4 ponentzia prestatu zituen, zein baino zein interesgarriagoa, eta zein baino zein Euskara Batuaren aldekoagoa.

Lehen mintzaldia Martin Ugaldek prestatu zuen idazle euskaldunek euskararen batasunaz zein iritzi eta jokabidea zuten aditzera emanez. Horretarako alde zuzen aurretik berariaz prestatutako galde-sorta bat bidali zitzaion 260 idazleri.

Galde-sortaren emaitzak harrigarriak izan ziren. Hasteko eta behin, erantzun maila altua azpimarratu behar da, idazleen % 75ak erantzun ziolako korreoz jasotako galde-sorta honi. M. Ugaldek berak esaten duenez “bilketa hau, oso ona da; kasu hoietan normala den baino haundiagoa. Honek adierazten duena da, jendea oso motibatuta eta zirikatua dagoela”<sup>444</sup>. Idazleen gehienak Euskara Batuan idazten zuen

---

<sup>442</sup> L. Villasantek berak horrela adierazi zuen biltzarren bere sarrerako hitzaldian: “Hizkera standard eta arrunt bat, akordioz eta konbentzioz bateratua eta berdina bihurtua, batez ere irakaskuntzan eta idatzizko zereginetan erabiltzeko; horra zer nahi dugun. Euskara hizkuntzak, alegia, eduki dezala forma bat bateratua, irakaskuntza eta idatzizko zereginetan batez ere erabilia izateko.” (Villasante, 1978: 444)

<sup>443</sup> (Villasante, 1978: 447)

<sup>444</sup> (Ugalde, 1978: 482)

(% 61,3ak), nahiz eta batzuk euskalkiren batean idazten zuten batua ikasteko aukerarik izan ez zutelako<sup>445</sup>.

Idazleek, Batuan edo euskalkian idazteko arrazoen gainean galdetuta, hainbat erantzun eman zituzten, baina, funtsean, bi ikuspegi nagusitu ziren. Aukera bakoitzaren atzean euskararentzat kultur proiektua zeharo desberdinak planteatzen ziren. Hala euskalkian idazten zutenak, herriarentzat idazten zutela, eta Euskara Batua alde horretatik zaila, artifiziala eta kaltegarri suertatzen zitzaieela aipatzen zuten. Euskara Batuan idazten zutenen kasuan berriz, berau erabiltzeko aipatzen zituzten arrazoi nagusiak hauek izan ziren: batetik euskararen normalizazioa, eta bestetik, euskara kultur tresna bihurtzea.

M. Ugaldek idazleen zerrenda osatzeko batzordekide biren laguntza izan zuen J. M. Torrealdai, eta J. San Martin (batzordeburua). J. M. Torrealdai oso aproposa zen halako lan batean laguntzeko, baita batzordeko estatistika lanak diseinatzeko ere, 1977an bi lan paradigmatico argitaratu zituelako: batetik, *Jakin* aldizkarian 1976ko liburugintzari buruzko artikulua<sup>446</sup>, eta bestetik, *Euskal Idazleak, gaur* obra mardula<sup>447</sup>. Lehenengoarekin, J. M. Torrealdai hasiera eman zion *Jakin* aldizkarian sail finko bati: euskal liburugintzari buruzko urteko produkzioaren azterketari, hain zuzen ere. Hala geroztik urtero argitaratu ditu urteko liburugintzaren gaineko artikulua, eta 2007an, liburugintzari buruzko 30. urteurrenaren kariatz, monografia bat prestatu zuen<sup>448</sup>. Tartean, *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa* prestatu du bai paperean<sup>449</sup> bai Internet bidez kontsulta daitekeena<sup>450</sup>.

<sup>445</sup> Dena den batasunaren gaineko prozesua % 66,8ak ondo edo oso ondo baloratzen zuen. Talde txiki batek prozesuari gaizki zeritzon (% 5,6) eta galde honi eranzunik eman ez zion multzo bat ere bazen (% 21,4a) (Ugalde, 1978: 486)

<sup>446</sup> (Torrealdai, 1977b)

<sup>447</sup> (Torrealdai, 1977a)

<sup>448</sup> (Torrealdai, 2007)

<sup>449</sup> (Torrealdai, 1993). J. M. Torrealdai 1993an argitaratutako *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoan* 1900-1992. urteen artean argitaratutako euskal liburuak bildu zituen, eta ondoren bi urterik behin eranskin gisakoak kaleratu zituen aipatutako katalogoa egunean mantentzeko. Hau da, 1995an *XX. Mendeko Euskal Liburuen Katalogoa II. 1993-1994*, eta 1997an *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa III. 1995-1996* eta abar.

<sup>450</sup> Ikus *XX. mendeko euskal liburuen katalogoaren* web gunea: <http://www.jakingunea.com/grafikoak/bibliografia/> [kontsulta data: 2008-09-30]

J. M. Torrealdai Bergarako biltzarrean, idazleek beren lanetan Euskara Batuan arauak betetzen zituzten ala ez ikertu zuen. Horretarako liburu zein aldizkarietako euskararen ezaugarriak aztertu zituen. Guztira, 1967-1977 urteen artean argitaratutako 431<sup>451</sup> liburu<sup>452</sup> eta 1977an argitaratutako 36 aldizkarietan kaleratutako lanak arakatu zituen. Bere datuen arabera, 1967an argitalpenen % 3,2a baino ez zegoen Euskara Batuan, hamar urte beranduago ordea, testuen % 68,4a. Beraz, Arantzazuko erabakien inplementazioa arin-arin egiten ari ziren idazleak<sup>453</sup>.

Ondorio nagusi horretaz gain, J. M. Torrealdai beste hainbat datu eskaini zituen. Esate baterako aztertutako urte tartean (1967-1977) zeintzuk ziren euskarazko testuetan jakintza-arlorik erabilienak. Literatura nagusi zen, testuen % 31,2a hartaz baitzen, ondoren, Hizkuntzalaritza eta euskal hizkuntza ( % 11a), Erljioa (% 10,5) eta azkenik Irakaskuntza eta Hezkuntza (% 8,8a)<sup>454</sup> zetozen. Baina denboraren lerroan kokatuta, Erljioari buruzko produkzioak azken 10 urteetan jaitsiera nabarmena izan zuen, 1967an euskarazko testuen % 19,4a holakoa bazen, 1977an testuen % 4,3a baino ez zen. Halaber, 1967an jakintza-arlorik erabilienak Literatura (% 54,8arekin) eta Erljioa (% 19,4arekin) baziren, hamar urte beranduago, gizartean ezagututako laiotze prozesu zabalarekin, Literatura (% 24,8arekin) eta Hizkuntzalaritza (% 16,2arekin) nagusi ziren, Erljioaren kaltetan. Baina, Literatura eta Hizkuntzalaritza nagusi baziren ere, ez zuten euskal testugintzaren monopoliorik, argitalpen gaien dibertsifikazio bat bazelako, eta ordura arte gutxi landutako arloen gaineko idazlanak agertzen hasi zirelako (adb. Irakaskuntza, Natur Zientziak, Ekonomia eta abar).

---

<sup>451</sup> 1967-1977. urteen artean 431 liburu baino gehiago argitaratu ziren, baina J. M. Torrealdai ez zituen guztiak aztertu, urte batzuk lagin gisa hartu zituelako (1967, 1972 eta 1977)

<sup>452</sup> Liburutzat hartu zituen honakoak: jatorriz euskaraz ekoiztutako lanak zein itzulpenak, berrargitalpenak baztertuz (Torrealdai, 1978: 504)

<sup>453</sup> Honetaz guztiaz Euskaltzaindia aspalditik konturatuta zegoen, Euskara Batua argitalpenetan nagusi zela. 1973an Jose Estornes Lasak zenbait argitaldarien izenean, Euskaltzaindiari H letraren gaineko erabakiak baztertzeko egindako eskariaren kariaz, Euskaltzaindiak liburuen azaleko azterketa bat egin zuen, H letraren erabilera neurtzeko. Azterketak argi erakusten zuen Arantzazun onartutako H letraren erabilera, erabat zabaldua zegoela argitalpenetan (Ikus "H letra dela eta" *Euskera*, 19 (1974), 389-395. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51843.pdf> [kontsulta data: 2009-06-08]). Izan ere, 1968an argitaratutako 40 liburuetatik 6tan soilik agertzen zen H letra, eta 1972. urtean berriz, euskaraz kaleratutako 56 liburuetatik 39k H letra zuten.

<sup>454</sup> Beste jakintza-arloen presentzia % 8tik beherakoa da (Torrealdai, 1978: 506)

M. Ugaldere eta J. M. Torrealdairen idazle eta testu azterketaren ostean, irakaskuntzako datuak aurkeztu zituzten Xabier Mendigurenek eta Andoni Sagarnak. X. Mendigurenek ikastetxeetan ari ziren irakasleei egin zien inkesta Euskara Batuari buruz, eta A. Sagarnak euskara irakasten ari zirenei. Ikusiko dugunez, irakaskuntzaren esparruan, idazleen munduan bezalatsu, Euskara Batuaren aldeko iritzia eta praktika nagusi zen.

Ikastetxeetako irakasleen % 90,9ak eskoletan Euskara Batua erabiltzen zuela aitortzen zuen. Eztaba daezina zen beraz, irakaskuntza arloan Euskara Batuaren nagusigoa<sup>455</sup>.

Azkenik, A. Sagarnak aurkeztu zuen alfabetatze-euskalduntze irakasleei egindako galde-sortaren datuak. Irakasleen gehien-gehienak Euskara Batua behar beharrezkoa zela irizten zuen (% 83,6ak), % 91ak Euskara Batua euskararen iraupenerako beharrezkotzat zuen edo “euskara kultura moderno baten tresna bihurtzea”<sup>456</sup> (edo biak). Ikusten denez, Euskara Batuaren alde zegoen segmenturik monolitikoena irakasleena zen.

Laburbilduz, Soziologi eta Estatistika Batzordearen lanari esker argi geratu zen irakaskuntza eta idazketarako Arantzazun abiatutako batasunak, emaitza ezin hobekak lortu zituela hamar urteen buruan. Halaber, argi geratu zen, batasuna, afera linguistikoa bat baino gehiago zela, eta Euskara Batuaren alde edo kontra egoteak, hizkuntzarentzat aurreikusitako kultur proiektuarekin zer ikusia zuela. Beste modu batera esanda, Euskara Batuaren alde zeudenak hizkuntzaren modernizazio eta kultur transmisiorako tresna bihurtzearen alde zeuden. Hizkuntzarekin lotutako ideia hauek berebiziko garrantzia zuten euskararen goi mailako erabileran, zientzia zein jakintzaren esparruan euskararen erabilera aurreikusten zutelako, eta beraz funtsezkoak izan ziren Komunitate Zientifiko Euskalduna eratzeko. Horregatik, euskararen batasuna eta komunitate zientifikoaren sorrera elkarri lotzen zaizkio.

---

<sup>455</sup> (Mendiguren, 1978b)

<sup>456</sup> (Sagarna, 1978: 541)

#### 4.1.2. Eztabaiden gaintik, Euskara Batuaren berrespena

Soziologi eta Estatistika Batzordeko txostenak aurkeztu ostean, eztabaidarako aukera izan zen. Eztabaidatutakoak gai bi izan ziren: batetik, irakasle euskaldunen formazioa<sup>457</sup> eta bestetik, euskarazko tituluen gainekoa. Bigarren honetan eztabaida garrantza piztu zen. Datuak eztabaidaezinak ziren, baina erabilitako irizpideak berriz, eztabaidagarriak. A. Sagarnak euskalduntze-alfabetatzean ari ziren irakasleen euskara tituluen artean, Euskaltzaindikoa soilik aintzat hartu zuen, ofiziala hori zelako. Martin Olazarrek, irizpidea ezbaian jarri zuen, beste erakunde batzuk, hala nola, Hizkuntza Eskolak, edota Euskerazaleak elkarteak ere ematen zituztelako. Are gehiago, ofiziala eta onartzen den bakarra Euskaltzaindikoa izatea “fatxismoa” zela esan zuen<sup>458</sup>. Honek guztiak giroa bero-bero jarri zuen.

Nabarmena zen batzuk Euskara Batuaren alde zeudela, eta besteak, berriz, guztiz aurka. Eta hori hitzaldien osteko eztabaidetan antzeman zen, baita berariazko eskabideetan ere. Eskabideak elkarteak eta norbanakoak bidali zituzten. Aldekorik ez zen egon, baina bai aurkako eskariak. Euskerazaleak elkartearen zein Kardaberaz Bazkunak Bergarako biltzarrerera eskabide bana bidali zuten batasuna bertan behera uzteko eskatuz.

Euskerazaleak elkartearen 1968. urte inguruan sortu zen, edo behintzat urte horretako urtarrilean onartu ziren elkartearen estatutuak. Nazario Oleaga euskaltzainak elkartearen berriaren berri Euskaltzaindiari eman zion hileko batzarrean:

“Oleaga jaunak adierazi du, zelan aurreko egun batean, igaro dan asteartea, “Euskerazaleak” bazkuna batu dan bere legezko autueran. Eta egin zan batzar nagusian erabagi zala **Euskaltzaindiaren ondoan ibiliko dala** euskera-ren alde al dan guztia egiteko asmuz. “Euskerazaleak” alkartearen buru bera, Oleaga jauna dugu, ta abegi ona izan du bere eskeintzak”<sup>459</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>457</sup> K. Mitxelenak eskatu zuen Magisterio edo Irakasle Eskoletan Filologiako espezializazioan Euskal Filologia sortzea, irakasle euskaldunak presta zitezten. Unibertsitatean, bai irakasle eskoletan, bai fakultateetan, euskara irakasten zuten irakasleek ados egonik ere, beren egoeraren kaskarra azaldu zuten, hau da, euskara klaseak curriculumetik kanpokoak zirela, ez ofizialak eta masifikatuak (Euskaltzaindia, 1978: 543-544).

<sup>458</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 543)

<sup>459</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.1.26)

Hamar urte beranduago, Euskerazaleak elkarteak Euskaltzaindiaren Arantzazuko batasun saioak kaltegarriak izan zirela irizten zion, eta hizkuntzaren batasun asmoa baztertu gabe, gerraurrean R. M. Azkue euskaltzainburuak prestatutako gipuzkera osotua erabiltzea proposatu zuen<sup>460</sup>. Orduz geroztik, akademia eta elkarteak elkarrengandik guztiz aldendu ziren.

Kardaberaz Bazkunak antzera, batasunerako “h’rik gabeko gipuzkoera osotua” erabiltzea eskatzen zuen, eskola mailan lurraldeko hizkera, eta “ortik gorako ikasketamailletan, gipuzkoera [sic] osotua erabilli naiez [sic] dutenak beste edozein euskera erabilli dezaketela”<sup>461</sup>. Beraz, gipuzkera osotua benetan ez zuten planteatzen batasunerako aukera erreal gisa, euskalkien alde baitzeuden.

Euskaltzaindiak argi zuen, Arantzazun hartutako erabakiak euskararen batasunerako erabateko arrakasta izan zutela, horren froga ziren Estatistika eta Soziologia batzordeak prestatutako azterketak<sup>462</sup>. Bestalde Euskara Batuaren aurka zeudenak ez ziren numerikoki asko eta adinez nahiko nagusiak ziren. Eusko Kontseilu Nagusiak gainera, administrazio hizkuntza gisa, Euskara Batua hartua zuen. Beraz, Euskaltzaindiak euskararen batasunerako Arantzazun abiatutako prozesua Bergaran berretsi zuen osoki, eta horretan jarraitzeko asmoa agertu zuen (ikus *Euskaltzaindiaren Bergarako adierazpena*). Orduz geroztik, Euskara Batuak, eta bere babesten zuten talde eta elkarteek (Jakín, Elhuyar,..), erabateko zentralitatea hartu zuten euskal kulturaren baitan. Halaber, gipuzkera osotu eta euskalkien aldekoak, euskal kulturgintzaren baitan erabat periferiko bihurtu ziren. Beraien hizkuntza proiektua baztertuta, kultur sistema paraleloa antolatzen hasi ziren. Bergarakoa amaitu eta berehala Euskerazaintza sortu zuten.

---

<sup>460</sup> (Euskerazaleak, 1978)

<sup>461</sup> (Euskaltzaindia, 1978: 795)

<sup>462</sup> Bergarako biltzarreko adierazpenean Euskaltzaindiak honetaz hauxe zioen: “1. Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du, duela hamar urte, Arantzazun eskainitako batasun asmoa eta arauak izan duten baietza eta eragina” (Euskaltzaindia, 1978: 866)

*Euskerazaintza Euskeraren Erri Akademia* 1978an sortu zen. Euskerazaintzaren abiapuntuko erakundea Kardaberaz Bazkuna zen eta sortzeko motiboa, Bergaran Euskaltzaindiak Euskara Batua berretsi izana. Bixente Latiegik, garaiko lekukoak, Bergarako biltzarra burutu eta gutxira zer gertatu zen honela kontatzen du:

“1978’garren urtea zan.

Amaitu-berria zuan EUSKALTZAINDIK Bergara’ko Biltzarra, eta Biltzar artako erabakiak aztertzeko, Tolosa’ko Iparragirre Antzokian bildurik zeuden KARDABERAZ Bazkuneko bazkideak.

Aundia zan billera aren altzoan asarrea: Euskaltzaindiak azkeneko amar urteetan erabillitako jokaerak sortarazten zuan asarrea! Euskeraren Akademi berri baten bearraz ari ziran Kardaberaztarrek mintzatzen. “Aurretik, ordea, **‘Expediente’ bat egin bear diogu Euskaltzaindiari**”, oles egin zuan billera artako jaunik ospetsuenetako batek”<sup>463</sup> [beltzak gureak dira]

Espedientea B. Latiegik prestatu zuen, euskaraz eta gaztelaniaz, Y. Oñatibiak bildutako materialekin. Eta dirudienez, Euskaltzaindiari espedientea irekitzea proposatu zuena Manuel Lekuona, euskaltzainburu ohia, izan zen. Beraz, Kardaberazek deituta biltzar hartan, honakoa erabaki zen:

“Bi gauzak artu zituan ontzat, Batzar Orokor artan, Kardaberaz Bazkunak: Euskeraren Akademi berri bat sortzea, eta Euskaltzaindiari ‘Expendiente’ bat egitea. Akademi berria bizira erakartzeko BAZKUN ERATZALLE bat autatu zuan antxe bertan, (...)

Billera ospetsu artan artu ziran erabakietatik jaiotako Akademia, EUSKERAZAINTZA da, Erriaren Euskal-Akademia.”<sup>464</sup>

Beraz, Euskerazaintza, Euskara Batua inpugnatu nahi zuen euskara elkarte gisa sortu zen. Bere helburu nagusia euskalkiak (*erri-euskerak* deitzen dituenak) lantzea eta sendotzea da. Elkartea Hegoaldeko lau herrialdeetan hedatu zen eta izen bereko aldizkaria argitaratzen du 1987. urtetik<sup>465</sup>, baina ez du liburu argitalpenik. Hala ere, gaur egun Euskerazaintzak bere gain hartu ditu Kardaberaz Bazkunak argitaratutako 35 liburuk osatutako bilduma<sup>466</sup>. Euskerazaintzaren lehen presidentea Lino Akesolo izan zen eta zuzendaria Augustin Zubikarai. 2008. urtera arte erakundearen lehendakaria

---

<sup>463</sup> (Latiegi & Oñatibia, 1982: 13)

<sup>464</sup> (Latiegi & Oñatibia, 1982: 13-14)

<sup>465</sup> *Euskerazaintza* aldizkaria paperean argitaratuta dago eta gaur egun digitalizatuta eta Internet bidez kontsulta daiteke elkartearen web gunean: <http://www.euskerazaintza.org/?module=AldizkariZerrenda> [kontsulta data: 2008-09-30]

<sup>466</sup> Euskerazaintzak bere web gunean eskaintzen ditu Kardaberaz Bazkunak argitaratutako obrak PDF formatuan: <http://www.euskerazaintza.org/?module=Liburuak> [kontsulta data: 2008-10-02]

Martin Olazar izan da, aldi berean Euskerazaleak elkarteko lehendakari ordea ere bazena. Gaur egun ezin esan daiteke, oinarri sozial handiko elkarte denik. Hala ere bizirik dirau. Bizkaiko Foru Aldundiak babesten du elkarte hau, baita Euskerazaleak elkarte ere. Egia esan, bai Kardaberaz, Euskerazaleak zein Euskerazaintzako kideak jeltzale ezagunak ziren, eta B. Latiegik berak Euskaltzaindiari idatzitako espedientearen dedikatoria ezin esplizituagoa zen: “Liburutxo onen argiltapen au, Eusko Alderdi Jeltzaleko abertzale euskaldunei eskeintzen diegu bereiziki”<sup>467</sup>.

## 5. Aldizkariak

Euskal aldizkariari dagokionez, oso garrantzitsua da bereiztea, goi-mailakoak eta aldizkari apalagoak edo berri-emaileak, batak eta besteak kezka, auzi eta arazo desberdinak izan baitzituzten. Esate baterako, euskararen batasun prozesuari dagokionez, oro har, esan daiteke goi-mailako aldizkariak, Euskara Batuaren alde jarri zirela, nahiko modu lasaian, batzuetan ia axolagabean, eta berri emaileak berriz, euskararen batasun prozesuan suharki aritu zirela alde edo kontra. *Agur*, *Goiz-Argi* eta beste batzuk Euskara Batuaren aurkako artikuluak argitaratu zituzten, *Anaitasuna* berriz erabat alde.

Aldizkari berri-emaileek Euskaltzaindia asaldatu egiten zuten. Akademiaren biltzar agirietan agertzen denez, askotan aldizkari batzuk artikulu gogorrek, iraingarriak argitaratzen zituzten<sup>468</sup>, edota informazio okerra<sup>469</sup>. Beste batzuetan, aldizkariak ez zituzten Euskaltzaindiak bidalitako berriak kaleratzen (adb. *Agur*<sup>470</sup>). Aldizkariotan

---

<sup>467</sup> (Latiegik & Oñatibia, 1982)

<sup>468</sup> Adibidez, *Agur* aldizkariak Euskaltzaindia eta Akademiako idazkaria iraintzen zuen artikulua argitaratu zuenez, Euskaltzaindiak artikuluari erantzuna ematea erabaki zuen (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.10.27)

<sup>469</sup> Adibidez *Boletín de Estudios Vascos* edo *Goiz-Argi* aldizkariak. *Goiz-Argi* Euskaltzaindiaren Batzar-agirien arabera honako informazio oker hau eman zuen: “Satrustegi euskaltzainaren gutuna irakurri da. “Goiz-Argi” aldizkariak Gaztañaga jaunak izenpeturiko lan batean, egiaren aurkako giro bat sortzen duela bere izena eta Euskaltzaindiarena zalantzan utziaz ad[i]jeraziz. Lehen ere, Gaztañaga jauna zenbait aldiz sartua dela Euskaltzaindiaren kontra, eta egiaren alde eta irakuleen jakingarri erantzuna ematea erabaki da. Satrustegi jauna, Arantzazuko bileretan, moderatzaile gisa izan zela, han ziren euskaltzainen eta euskaltzain-buruaren onespenez izendaturik. Beraz, ez zela gidari izan, ez eta ere berak bere burua izendatu neurri-emaile kargurako. Gainerakoan, Gaztañaga jaunari EUSKERA hobeto irakurtzea gomendatzen zaio.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.5.28)

<sup>470</sup> Euskaltzaindiko bileren berriak aldizkari guztiei bidaltzen zaie, baina *Agur* aldizkariak ez zituen argitaratzen (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.4.20)



agertzen ziren espekulazio eta gehiegikeriak hainbestekoak ziren, ezen K. Mitxelenak eskatu baitzuen 1970ean aldizkarietara ohar bat bidaltzeko Arantzazuko erabakien gaineko detaile guztiak behingoz argituta uzteko:

“... Mitxelena jaunak eskatzen du aurretik gauza batzuk argi utzi beharra dagoela, zenbait aldizkari eta tokitan auzitan eta dudan jartzen bai dira Arantzazuko erabakiak. Proposatzen du euskal aldizkari guztietara ohar bat bidaltzea puntu batzuk argituaz: a) Arantzazuko batzar hura, Euskaltzaindiarena zela eta ez zenbait idazleena; b) Han irakurri ziren lanak, Euskaltzaindiak Euskaltzaindikoei eskatuak zirela; d) Han irakurritako agiria, bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean hartutako erabakia zela.”<sup>471</sup>

Egoera horretan L. Villasantek asaldura horri aurre egiteko bi neurri proposatu zituen 1971. urtean: *Euskera* buletinaren eraberritzea eta prentsa bulegoa sortzea. *Euskeraren* eraberritzea premiazkoa zen Arantzazuko 1968ko bileraz geroztik Euskaltzaindia batasunaren alde eta kontra zeudenen begiradapean zegoelako, eta buletinak ez ziolako aski modu eraginkorrean erantzuten arreta sozial horri.

“Gure agerkari hau behar bezalako egoeran ez eukitzetik halako ondoez eta minberatasun bat sortzen da bazterretan. Ondoez horren zantzu bat edo beste aipatuko dut soilki. Kamaraka jaunak idatzi du Alderdi-n: “se hace difícil, por no decir imposible, seguir la reorganización y actividad interna de la Academia”. Eta Agur-ek oraintsu (1971, urtarrila 30) galdetzen du ia Aita Villasante zenbat euskaltzainen iritzia eskatu zuen hilabeteen izenen aukeratzea egiteko. Horrelako gauzen argitasunak ematen ibili beharrik ez legoke, eman ziren pausuak, eskatu ziren iritzia eta egin ziren txostenak gure agerkarian agertuko balira.”<sup>472</sup>

Euskaltzaindiak inoiz baino gehiago bere jardueren berri eman behar zuen, hizkuntzaren batasunerako hartutako erabaki eta neurriak ulertuak eta onartuak izan zitezten. Horretarako, funtsezkoa da *Euskera* sendotzea eta bertan erakundean egindako txosten, lan eta agiriak argitaratzea (“ikus dezala herriak ez gabiltzala gauzak arbitrarioki egiten. Argi bila gabiltza eta ez dugu argiaren bildurrik”<sup>473</sup>). Hala, L. Villasantek proposatu zuen aldizkariaren maiztasuna handitzea, lan batzuk profesionalizatzea, aldizkariaren arduradunak berritzea eta erredakzio taldea sortzea, aldizkarian argitaratutako datu eta edukien zientifikotasuna eta zehaztasuna bermatzeko. Beraz, eraginkortasun eta zientifikotasunaren aldeko proposamena egin zuen.

---

<sup>471</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.7.29)

<sup>472</sup> (Villasante, 1971a: 137)

<sup>473</sup> (Villasante, 1971a: 137)

Prentsa bulegoak berriz, Euskaltzaindiari buruz komunikabideetan ematen zen informazioaren gaineko kontrol minimoa edukitzeko sortzea proposatzen zen<sup>474</sup>. Horretaz gain, Euskaltzaindia aldizkari berri-emaileetan euskararen zuzentasuna bermatzen saiatu zen eta, J. M. Etxabururen proposamenari jarraiki, batzorde bat izendatu zuen aldizkarietako akatsak zuzentzeko<sup>475</sup>. Euskaltzaindiak esate baterako *Zeruko Argiari* honako mezua helarazi zion: “‘Zeruko Argia’ aldizkariaren zuzendaritzari beren argitalpenari zuzentzailea jartzearen eskaria egitea erabaki da, euskeraren aldetik ekartzen dituan hutsak zuzendu ahal izateko. Eskari bera egina bait dute Alfabetatze taldekoak.”<sup>476</sup>

Goi-mailako aldizkarietan Euskara Batuaren aldeko jarrera esplizitua izan zitekeen, *Jakinen* kasuan bezala, edo inplizitua, *Elhuyar aldizkarian* bezala, non ontzat ematen zen Euskara Batua, nahiz eta ez zuen aldeko kanpaina berezirik egiten. Bestalde, baziren beste aldizkari batzuk, bereziki, osorik euskaraz ez zirenak, hala nola, Nafarroako Gobernuak argitaratzen zuen *Fontes Linguae Vasconum*, non aldizkariak ia-ia jarrera axolagabea agertzen zuen unean borborrean zegoen auzi honekiko. Oro har, esan daiteke, aldizkari eleanitzetan, zientifikoetan zein kultura orokorrekoetan<sup>477</sup>, euskararen batasunaren auzian ez zirela sartzen: Arantzazuko erabakien arabera idatzitako artikuluak argitara zitzaketen, baita erabakiok jarraitzen ez zituztenak ere. Euskarazko aldizkarietan berriz, hori ez zen gertatzen, edo aldizkaria osorik Arantzazuko erabakiak jarraitzen zituen edo ez zituen jarraitzen.

Edozein kasutan, Hegoaldeko aldizkari denek, garai honetan arazo komun bat zuten: zentsura, Francoren erregimenak argitalpenen gainean ezartzen zuen zentsura. J. M. Torrealdaik euskarazko argitalpenen gainekoa aztertu izan du<sup>478</sup>. Aipatutako zentsura goi mailako Euskal Herriko aldizkarietara ere heltzen zen, nahiz eta gaztelaniaz

<sup>474</sup> (Villasante, 1971b)

<sup>475</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.4.25)

<sup>476</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.9.21)

<sup>477</sup> Esate baterako Leopoldo Zugazagaren zuzendaritzapean argitaratutako *Gaiak: revista de ciencia y cultura* (1976-1977) aldizkaria.

<sup>478</sup> J. M. Torrealdaik lehenik argitaratu zuen *El libro negro del euskera* (1998) eta bertan euskararen kontrako Francoren gaineko zenbait testu biltzen ditu, baina bereziki Francoren diktaturako zentsurak euskarari ezarritako muga eta debekuak *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983* (2000) obran bildu ditu.

argitaratu. Ikus K. Mitxelenak Nils M. Holmer hizkuntzalariari idatzitako eskutitzean zentsurari buruz zer zioen:

“No sé lo que pasa exactamente con el núm. 2 del *Anuario* de nuestro Seminario, cuyas últimas pruebas corregí hace ya bastante tiempo: en él va buena parte del estudio preliminar de Vds. sobre el vizcaíno. Temo que el retraso se deba a razones de censura –le supongo mejor informado, en principio, sobre lo que aquí sucede de lo que lo estoy yo mismo, aunque no en lo que toca a ciertos detalles–, porque *Egan*, que también estaba preparado hace tiempo, ha salido ahora mismo con una serie de detalles pintorescos, al parecer de inserción obligada, sobre dirección y presupuesto; y la salida de *Fontes*, como publicación nueva, se ha retrasado también mucho: yo había corregido las últimas pruebas a fines de año. En todo caso, supongo que ya no tardará en aparecer y le enviaremos enseguida el número y 50 separatas.”<sup>479</sup>

Zentsuraz gainera, Hegoaldeko aldizkariak maiz debekuak jasan zituzten. *Jakin* aldizkaria 1969. legez kanpo geratu zen, eta 1977. urtera arte ez zuen baimena berriz lortu<sup>480</sup>.

### 5.1. Nafarroako Gobernuaren aldizkariak

Vianako Printzearen erakundea 1940an sortu zen, aurretik zegoen beste erakunde bat ordeztuz: *Comisión de Monumentos Artísticos de Navarra* (aurrerantzean, CMAN)<sup>481</sup>. CMANren ondorengo gisa, Vianako Printzearen jomugak iraganaren berreskurapena eta zaintza ziren<sup>482</sup>. Sortu berritan 3 sail zituen (argitalpenak eta kultura herrikoia; museoak, artxiiboak eta liburutegiak, eta azkenik, artisautza). Urte batzuk beranduago erakundea sail berrietara zabaldu zen: Zuzenbidea, Musika, Etnologia eta Folklorea, eta Euskara. Frankismoaren ostean, Nafarroako lehen gobernua osatu zenean 1984an, Vianako Printzea gobernura pasa zen, eta kultura atalaren ardura hartu zuen<sup>483</sup>.

---

<sup>479</sup> Koldo Mitxelenak Nils M. Holmer-i bidalitako eskutitza 1969.III.2an. K. Mitxelenaren gutuneriaren zati bat J. M. Satrustegik argitaratu zuen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariako artikulutik (Satrustegi, 1999: 335)

<sup>480</sup> Baimena eskuratzeko *Jakinekoen* gestio administratiboen gaineko azalpena Paulo Agirrebaltzategik eskaintzen du (Agirrebaltzategi, 2007a). Tarte horretan *Jakin* Kultur Taldea gorpuztu zen eta liburuak argitaratzeari ekin zion (Agirrebaltzategi, 2006). *Jakin* Sorta aldizkariaren ordezkotako gisa sortu zen liburu bilduma izan zen, eta Arantzazun inprimatzen zen. *Jakin* Sortan agertutako obrak zenbatuta zeuden eta guztira 10 zenbaki kaleratu ziren, azkena 1975. urtean. Liburu bakoitzak gai monografiko bat lantzen zuen, eta askoren artean prestatzen ziren. Salbuespen batekin Jose Luis Alvarez Enparantza *Larresorok* prestatutako *Euskara Batua zertan den* (1974) lana izan ezik. *Karmel* aldizkaria berriz, 1962-1969. urteen artean debekatuta egon zen, eta baimena 1970. urtean eskuratu zuen.

<sup>481</sup> Elkarre honak 1895. urtetik argitaratzen zuen: *Boletín de la Comisión de Monumentos Artísticos de Navarra*, eta 1936an hil zen.

<sup>482</sup> (Jusue, 1993: 514).

<sup>483</sup> Gaur egun berriz, banatuta daude kultura departamentua eta Vianako Printzearen erakundea.

Vianako Printzeak, sortu eta berehala, bere izena zeraman aldizkaria *Príncipe de Viana* argitaratu zuen 1940an. Nafarroako historia, ondarea eta kulturari buruzko goi mailako aldizkaria da eta gaur egun ere kaleratzen da, lauhilabeteko maiztasunarekin. Euskarazko artikulurik ez duenez kaleratu, ez dago Inguma datu-basean<sup>484</sup>.

60ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera egoera politikoa apur bat aldatu zen Nafarroan, eta horrek eragin zuzen zuzena izan zuen aldizkarietan eta euskararen presentzian. Miguel Javier Urmeneta 1957-1964. urteen artean Iruñeko alkatea izandakoa, 1964an Nafarroako diputatu forala izan zen. M. J. Urmenetak Nafarroa industrializatu eta modernizatzen saiatu zen eta euskarari bere babes politikoa eman nahi izan zion. Bere babespean bi aldizkari martxan jarri ziren: lehena, *Príncipe de Viana. Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence* (1966an) Vianako Printzearen aldizkariaren gehigarria, eta bigarrena, *Fontes Linguae Vasconum* (1969). Segidan bata eta bestea aipatuko ditugu.

*Fomento del Vascuence* gehigarria ez zen goi-mailakoa, hilabetekaria zen, tamaina handiko 4 orrialde zituen<sup>485</sup>, eta 7.000 aleko tirada edukitzera heldu zen<sup>486</sup>. Euskarazko eta gaztelaniazko testuekin kaleratzen zen, Euskal Herria eta kulturaren gaineko mota desberdineko berri eta iritzi artikuluekin: hizkuntzaren batasuna, herri kirolak, ekitaldiak, historia,... Gehigarriaren zuzendari gisa Jose Esteban Uranga<sup>487</sup> nafarra agertzen zen, Vianako Printzearen aldizkariaren zuzendaria zelako, eta euskararen gehigarria haren menpean zegoelako. Hala ere aldizkaria Vianako Printzearen Euskararen Aldeko Sailak sortu zuenez, aldizkariaren zuzendaria, Sailaren zuzendaria zen: P. Diez de Ulzurrun hasierako urteetan<sup>488</sup> eta gero Marcelino Garde.

---

<sup>484</sup> Gerta liteke, ohar edo lan laburren bat euskaraz argitaratu izana, baina oro har aldizkarian ez da euskaraz lanik argitaratu (ez behintzat sistematikoki aztertutako 1991-2002. urteen artean). Horregatik aldizkari hau, Nafarroan ekoizten den goi-mailako aldizkaria izan arren, ez dago Inguma datu-basean.

<sup>485</sup> Orrialde bakoitzak 42 cm-ko luzera zuen.

<sup>486</sup> Datua J. M. Satrustegik eskaintzen du (Satrustegi, 1988: 489), baina Irene Lopez Goñik tiraden bilakaera hobeto zehazten du (Lopez Goñi, 2002: 92)

<sup>487</sup> Jose Esteban Uranga (1898-1978), 1949an Vianako Printzea erakundearen idazkaria izan zen, eta Vianako Printzea aldizkariaren zuzendaria, Eladio Esparzak ordeztu zuen 1961an.

<sup>488</sup> Nahiz eta, agian aipatzen den “ixil zuzendaria” Jose Mari Satrustegi apaiza zen. “Horain (sic) lau urte baditu “Euskeran Aldeko Saila” euskal errebista hau argitaratzen asi zala, “Príncipe de Viana” izeneko erederazko errebista ren (sic) gehigarri (suplementu) bezala eta hara nola Don Jose Esteban, gure euskal “príncipe de Viana”ren beste ixil zuzendaria izaten bada ere, legezko zuzendaria da.” (Ikus “José Esteban

Lopez Goñik dioenez, zuzendari bakoitzak hizkuntzaren batasunaren auzian oso jarrera desberdinak izan zituzten:

“Gure ustez, aldizkariaren ibilbidean, bi zuzendari ezberdinek bialdi ezberdin eman zizkioten hilabetekariari: bata, P. Diez de Ulzurrun sendagilearena, 1966-1973 bitarteko garaia; hasierako aldia, beraz. Bestea, M. Garde apaizarena, 1973-1985 bitartekoa, bigarrena. Bata batuaren aldekoa, bestea “h”ren kontrakoa; lehena sekularra, bigarrena erlijiosoa”<sup>489</sup>

Aldizkariaren legezko zuzendaria (Esteban) aldizkariaren goiburuaren eskuman agertzen zen, eta ezkerrean, Miguel Javier Urmeneta diputatua. Ikusten denez, aldizkaria politikoki “blindatuta” zegoen. M. J. Urmeneta (1915-1988), jatorriz familia jeltxer batean sortu zen. Salamancan Zuzenbidea ikasi zuen, baita AEBn ere. Salamancan zegoela Salamancako euskal ikasleen elkartearen sortzaileetako bat izan zen (1935). Gerrarekin erreketea egin zen eta karrera militar arrakastatsua egin ostean, Nafarroara itzuli zen. Iruñeko Kutxako (*Caja de Ahorros Municipal de Pamplona*) zuzendaria izan zen, Iruñeko alkatea eta diputatu karlista. Iruñeko alkate zenean, Opus Dei-ak Iruñean Nafarroako Unibertsitatea eraikitzekeo lurrak eman zituen. M. J. Urmeneta euskaltzain urgazlea izan zen (1966), gaztetan euskara ikasi zuen, baina ez zuen erraztasunik<sup>490</sup>. Hala ere, euskara sustatzen ahalegindu zen. Euskararen iraupenarekin oso kezkatuta zegoen, horren erakusgarri da aipatutako gehigarri argitaratutako artikulua: “Navarra y el vascuence”<sup>491</sup>. M. J. Urmenetak euskararekin lotutako hainbat proiekturi bere laguntza eta babesia eman zien, hala nola, UEUren Iruñeko Udako Ikastaroei, ikastolei eta abar. Hala euskararen ikerkuntzara bideratutako aldizkaria *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria sortzeko proposamena babestu eta bultzatu zuen, eta aldizkariaren lehen zenbakia bere aurkezpen testu batekin argitaratu zen<sup>492</sup>.

*Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra* izan ziren Vianako Printzeak 1969. urtean kaleratu zituen goi mailako ikerkuntzara bideratutako aldizkari biak. Ikusiko dugunez, *Fontes* J. M. Satrustegiren eta J. E.

---

Uranga Jauna” *Príncipe de Viana. Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence*, 1970eko apirila)

<sup>489</sup> (Lopez Goñi, 2002: 92)

<sup>490</sup> (Satrustegi, 1988: 489)

<sup>491</sup> (Urmeneta, 1970)

<sup>492</sup> (Urmeneta, 1967)

Urangaren ideia izan zen, koadernoena aldiz, ez dago hain argi. C. Jusuek dio J. Caro Baroja eta J. M. Barandiaranena izan zela ideia<sup>493</sup>, eta J. M. Satrustegik berriz, ideia berea izan zela dio:

“La revista *FLV* nació con ocasión de una visita de don José Esteban Uranga a Urdiáin el día de San Fermín de 1968. El motivo era la creación del grupo ETNIKER que el día anterior tuvo lugar en la Universidad de Navarra, bajo la dirección de don José Miguel Barandiarán. Al Director de la Institución Príncipe de Viana le cogió por sorpresa mi petición de crear dos nuevas revistas –*Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* era la segunda baza- pero asintió, y optó por la fórmula expeditiva de catalogarlas como suplementos de la revista *Príncipe de Viana*, de larga tradición, para obviar los permisos en Madrid. Por eso figuraba el propio José Esteban Uranga como director de las dos nuevas publicaciones.”<sup>494</sup> [etzanak jatorrizkoan]

Zernahi gisaz, aldizkari biak 1969an sortu ziren, baina ez ziren izan Vianako Printzearen azken aldizkariak. Beranduago, Trantsizio ostean, erakundeak goi mailako beste hiru aldizkari argitaratu baitzituen<sup>495</sup>, baina horietan euskarak oso presentzia txikia izan zuen (ikus aurrerago IV.3. Taula), eta ez ditugu aztertuko.

### 5.1.1. Fontes Linguae Vasconum

Aurreko aipuan ikusi dugunez, *Fontes* aldizkariaren ideia, 1968ko San Fermin egunean sortu zen Urdainen J. E. Urangak J. M. Satrustegiri egindako bisitan. Aldizkariaren izena J. E. Uranga beraren ideia izan zen, baina ez zuen susmatzen euskararen ikerketan espezializatutako aldizkariak bizitza luzerik izan zezakeenik<sup>496</sup>. Andres Iñigoren arabera<sup>497</sup>, aldizkariaren esparrua zabaltzeko, J. M. Satrustegik proposatu zion aldizkariari honako azpititulua gehitzea: *studia et documenta*, hau da, euskararen ikerkuntza eta agiri, gehienetan ezezagunak, kaleratzeko. Jose Artetxek Vianako Printzearen euskararen gehigarrian honela eman zion ongi etorria aldizkariari:

<sup>493</sup> “En 1969, bajo la dirección de José Esteban Uranga y el mandato del diputado foral Miguel Javier Urmeneta, se creó la revista *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, por recomendación de Julio Caro Baroja y el ofrecimiento de colaboración de José Miguel de Barandiarán y sus discípulos, a través del grupo “Etniker”, recién formado en torno a la Cátedra de Lengua y Cultura Vasca, creada por la Universidad de Navarra en 1963”(Jusue, 1993: 522)

<sup>494</sup> (Satrustegi, 1999: 335)

<sup>495</sup> Aipatutako hiru aldizkariak honako hauek dira: *Príncipe de Viana. Suplemento de Ciencias* (1981-1999); *Príncipe de Viana. Suplemento de ciencias sociales* (1997-1999) eta *Trabajos de arqueología de Navarra* (1982-...).

<sup>496</sup> J. M. Satrustegik berak jasota dakarrenez, J. E. Urangak honakoa ihardetsi zion: “¿Cuántos números se podrían publicar en un campo tan reducido como el vasco? ¿Dos? ¿Quizá tres?” (Satrustegi, 1999a: 7)

<sup>497</sup> (Iñigo, 2004: 378)

“Euskera buruz orain arte agertutako erreibistetan goi-goieneko mallan jarri bearreko errebista.  
(...)

Jakintsu errebista. Mundu guziko Unibersidadetan izkuntz-jakintsuak egarri biziz aztertuko duten errebista.

Zabal bedi *Fontes Linguae Vasconum* mundu guziko Unibersidadetan, bañan zabaldu dedilla baita ere gure arteko ikastunetan ere”<sup>498</sup>

M. J. Urmenetak, J. Artetxeren moduan, *Fontes* euskararen ikerkuntzarako goi mailako aldizkari gisa zekusan eta aldizkarian argitaratutako bere hitzaurrean aipatzen zuen aurreikusten zuela aldizkaria Harvard eta Tokioko unibertsitateetara helduko zela<sup>499</sup>. Beraz, aldizkariak nazioarteko hizkuntzalarien komunitate zientifikoa zuen jomuga. Hala ere aldizkariaren gehiena, lehen zenbakitik hasita, gaztelaniaz argitaratu zen, nahiz eta aleman, frantsesezko eta ingelesezko artikuluren bat edo beste ere kaleratu. Euskarazko lehen artikulua *Fontesen* bosgarren zenbakian kaleratu zuen Iparraldeko euskaltzain batek, P. Lafitte kalonjeak (hau da, frantziar estatuko abade batek). Ondoko zenbakietan Xabier Kintana gazteak eta Josu Oregik argitaratu zituzten zenbait idazlan euskaraz.

*Fontes* aldizkariaren lehen zenbakia, zenbaki blindatua izan zen, bai politikoki, M. J. Urmenetaren hitzaurrearekin, bai akademikoki ere. Lehen zenbakiaren blindatzea ezin akademikoagoa izan zen, ez hainbeste kanpora begira, baizik Espainiako erregimenari begira, garaiko ikertzaile ezagunen artikulua argitaratu baitziren: K. Mitxelena, J. Caro Baroja eta A. García Bellido, hurrenez hurren. Blindatzea izan zela ez dago dudarik, J. Caro Barojak eta García Bellidok ez baitzuten beste artikulurik argitaratu *Fontesen*. Hala bigarren zenbakitik aurrera, gerora *Fonteseko* ohiko egileak izango zirenak agertu ziren, hau da, bertako euskalariak (J. M. Satrustegi, A. Irigarai, J. M. Jimeno Jurio...) zein atzerrikoak (K. Bouda, R. Rijk,...). Koldo Mitxelena hizkuntzalari katedraduna *Fontes* aldizkariaren proiektuarekin erabat inplikatu zen, N. Holmer hizkuntzalariari gutun batean honela esplikatzen zion zertan zetzan bere interesa:

“Puedo explicarle en dos palabras mi vivísimo interés por el porvenir de la nueva publicación: por razones económico-administrativas, es en Navarra donde tiene el porvenir asegurado y, por otras, interesa que una revista de esa clase salga precisamente en Navarra”<sup>500</sup>

---

<sup>498</sup> (Artetxe, 1969)

<sup>499</sup> (Urmeneta, 1969: 5)

<sup>500</sup> Koldo Mitxelenak Nils M. Holmer-i bidalitako gutuna 1969.7.26an (Satrustegi, 1999b: 338)

Ikusten denez, aldizkari proiektu honek K. Mitxelenarentzat babes instituzionala zuen, eta kokapen geografiko ezin interesgarriagoa. K. Mitxelenak berak *Fontes* aldizkariaren zenbaki batzuk banatu egiten zituen eta atzerriko hizkuntzalarien lanak *Fontesera* erakartzen ahalegindu zen. Azken finean, atzerriko hizkuntzalarien parte hartzeak, aldizkari proiektua sendotu egiten zuen, bai akademikoki, bai politikoki ere, Espainiako erregimenaren aurrean. Esate baterako N. Holmer-i honela ireki zion aldizkariaren atea:

“Quiero recordarle que, si tiene V. alguna vez un trabajo aunque sea largo, **sobre cosas vascas o relacionadas con ellas de alguna manera por vaga que sea**, esta nueva publicación de Pamplona, *Fontes Linguae Vasconum*, sería un lugar muy apropiado, en el que sin duda estarán encantados de contar con V.”<sup>501</sup> [beltzak gureak dira]

*Fontesen* lehen zuzendaria Nafarroako Gobernuko Vianako Printzearen arduraduna, J. E. Uranga izan zen. Ondoren, kargu hori hartu zuten beste batzuk (Vicente Galbete, Jose María Yarnoz, Julio Caro Baroja), nahiz eta aldizkariaren isileko sustatzailea hemen ere, aurreko gehigarriaren kasuan bezala, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina zen.

“Me encargaba yo del trabajo material de seleccionar los artículos y enviar los originales a la Editorial Aranzadi. [José Esteban Uranga] Dio orden de que toda la correspondencia relacionada con esas publicaciones se me pasara directamente y es así como funcionó, incluso, con sus inmediatos sucesores.”<sup>502</sup>

J. Caro Barojaren ostean<sup>503</sup>, 1998an, J. M. Satrustegik hartu zuen *Fontesen* ardura ofiziala (isilpekoa 1969tik baitzuen) hil zen arte (2003). J. M. Satrustegi izan zen aldizkariaren lehen zuzendari euskalduna eta aldizkariak izan zuen berariazko lehen zuzendaria. Gaur egun *Fontesen* zuzendaria Patxi Salaberri euskaltzaina da. Beraz, hasierako urteetan ere aldizkaria blindatu egin zen euskaldunegia eman ez zezan, ofizialki euskaldunak ez ziren zuzendarien kargura jarriz, eta euskaraz artikulua banaka batzuk argitaratuz.

<sup>501</sup> Koldo Mitxelenak Nils M. Holmer-i bidalitako gutuna 1969.6.14an (Satrustegi, 1999b: 337)

<sup>502</sup> (Satrustegi, 1999b: 335)

<sup>503</sup> J. Caro Baroja 1980. sartu zen Vianako Printzeak argitaratzen zituen beste aldizkari guztien gainbegiratzailer gisa.



Hasiera batean, aldizkariaren hizkuntza nagusia gaztelania bazen ere, gaur egun aldizkariko artikuluen erdia pasatxo euskaraz argitaratzen da<sup>504</sup>. Beraz, une honetan *Fontesen* gehien erabiltzen den hizkuntza euskara da, eta ondoren gaztelania. Ingelesez lanik ez da argitaratu 2003. urtetik. Horregatik ez da guztiz zehatza J. Elortzak esaten duena: “hasierako urteetan gaztelaniaz taxututako idazkiak nagusi baldin baziren ere, gerora euskarazkoak eta ingelesezkoak nabarmen ugaltu dira”<sup>505</sup>. Gure ustez, euskara, aldizkariaren hizkuntza nagusia bihurtu da, eta ingelesak aldiz, salbuespenezkoa izaten jarraitzen du. Euskara orain nagusi bada ere, *Fontesen* ibilbide osoan euskaraz argitaratutako lanak laurden pasatxo baino ez dira izan<sup>506</sup>.

Aldizkariaren 100. zenbakiaren kariaz, 2005. urtean aldizkariak bere ibilbide eta argitaratutako lanen gaineko zenbait artikulua plazaratu zituen bai *Fontesen*<sup>507</sup> bai RIEVen<sup>508</sup>. Aipatutako lanetan aldizkariaren joera, egile, eta ekarpen nagusiak aipatzen dira, baina ez dugu aurkitu aldizkariaren azterketa bibliometrikorik edo aldizkariaren hizkuntza hautuaren gaineko hausnarketarik. Hala ere, C. Jusuek 1993. urtean *Príncipe de Viana* aldizkariaren 200. zenbakiaren kariaz, *Fontesen* gaineko azterketa kuantitatibo<sup>509</sup> eta hizkuntzen erabileraren gaineko datu batzuk ematen zituen. Hizkuntzari dagokionez, C. Jusuek zera dio:

“Cuestión interesante en toda publicación científica es la admisión de originales en varias lenguas, dado que la internacionalidad y aceptación en el ámbito científico es tanto mayor cuanto más posibilidades de lectura existan. En este sentido es destacable la presencia de resúmenes de

---

<sup>504</sup> *Fontesen* 2007. urtean 18 artikulua argitaratu ziren, horietatik 10 euskaraz.

<sup>505</sup> (Elortza, 2005: 624)

<sup>506</sup> J. Elortzaren arabera *Fontesen* lehen 101 zenbakietan (hau da, 1968-2006, urte artean) 800 bat lan argitaratu ziren (Elortza, 2005: 624), eta horietatik euskaraz, gure datuen arabera, 221 kaleratu ziren, hau da, % 27,6a. Euskarazko artikuluen kopurua kalkulatzeko gehitu ditugu alde batetik 1980-2006. urtean artean Inguma datu-basean erregistratutako artikulua ([www.inguma.org](http://www.inguma.org)), eta bestalde 1969-1979. urteetako zenbakietan euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua guk geuk bilatu ditugu Dialneten ([www.dialnet.unirioja.es](http://www.dialnet.unirioja.es)).

<sup>507</sup> (Zubiri, 2005; Jimeno, 2005 eta Camino, 2005)

<sup>508</sup> (Elortza, 2005)

<sup>509</sup> C. Jusuek lan horretan *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariari dedikatutako ataltxoan artikuluen jakintza-arloen azterketa kuantitatibo txiki bat aurkeztu zuen. Ikertzaileak aldizkariko lanen jakintza-arloa deskribatzeko bi taula aurkeztu zituen. Lehenengo taulan honako jakintza-arloak bereizten zituen: Hizkuntza eta Hizkuntzalaritza, Literatura, Euskal Gaiak, Onomastika, Toponimia eta beste batzuk. C. Jusueren datuen arabera, jakintza alorrik oparoena *Fontesen* “Temas Vascos” ziren. Bigarren taulan berriz, Euskal Gaiak multzoaren baitan zeuden jakintza-arloak bereiztu zituen (Toponimia, Onomastika, Literatura, Hizkuntza eta Hizkuntzalaritza eta beste batzuk). Noski C. Jusueren sailkapenarekin ez gatoz bat, ezin uler dezakegulako zer den “euskal gaia” kategoria, eta ez zaizkigulako iruditzen pareko unitateak direnik C. Jusuek lehenengo taulan darabiltzan Literatura, Euskal Gaiak, Onomastika, Toponimia eta beste batzuk.

los artículos en diferentes lenguas, pues el lector monolingüe difícilmente llega a comprender los títulos y el contenido de los artículos si no conoce el idioma en que se publica. **No obstante, casi el 70 % de los artículos se ha publicado en español, lo que, sin duda, repercutió en la mayor difusión de la revista.**<sup>510</sup> [beltzak gureak dira]

C. Jusuek gaztelaniaren erabilera aldizkariaren hedapenerako faktore gisa ikusten zuen, nahiz eta ikerkuntza arloan 90eko hamarkadan jada, nazioarteko eragin handi eta erreala edukitzeko ingelesa erabili behar zen. Dena den, harrigarria da C. Jusuek artikulu honetan aztertu zituen Vianako Printzearen goi mailako 5 aldizkarietatik, soilik *Fontesen* kasuan aztertu zuela aldizkarietako artikuluen hizkuntza, beste 4 aldizkarien hizkuntzaz ezer esan gabe. Hain zuzen ere, beste 4 aldizkarietan defektuzko hizkuntza gaztelania zelako, hau da, C. Jusueren ustez, eragin handiko hizkuntza. Ikus ondoko taulan argiago gaztelaniaren erabateko nagusigoa Vianako Printzearen aldizkarietan:

Aldizkariaren izena (urteak)	Arakatutako urteak	Euskarazko artikulu kopurua
Príncipe de Viana (1940-...)	1991-2007	0
Fontes Linguae Vasconum (1969-...)	1969-2007	241
Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra (1969-...)	1969-2007	25
Príncipe de Viana. Suplemento de Ciencias (1981-1999)	1981-1999	1
Príncipe de Viana. Suplemento de ciencias sociales (1997-1999)	1997-1999	0
Trabajos de arqueología de Navarra (1982-...)	1982-2006	1

**IV.3. Taula:** Vianako Printzearen goi mailako aldizkarietan euskaraz argitaratutako artikulu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea eta Dialnet.

Taulan ikusten denez (IV.3. Taula), *Fontes* da euskarazko artikulu gehien argitaratu dituen aldizkaria, eta ondoren Etnografiari buruzko koadernoak, horiek biak baitira aldizkariaren tematikarengatik hizkuntzarekin lotura handiena duten aldizkariak.

*Fontes* aldizkariaren gaineko azterketa berriagoetara etorritz, J. Elortza, J. J. Zubiri, I. Camino eta R. Jimenoren lanetan ez dugu aurkitu azterketa kuantitatibo sakonik. Hala ere, guztiek analisi kualitatibo oso zorrotzak eskaini dituzte *Fontes* aldizkariaren 100 zenbakien ekarriaren gainean. Esate baterako, I. Caminok *Fontesek* euskal dialektologiari egindako ekarria aztertu zuen berariaz prestatutako artikuluan. Oso interesgarria da I. Caminok egiten duen hausnarketa *Fontesen* gainean. Bere ustez,

<sup>510</sup> (Jusue, 1993: 525)

*Fontes* aldizkariak oinarri sendorik ez du izan Nafarroan, euskal hizkuntzaren unibertsitate ikasketarik ez zelako ezarri, ez Euskal Filologiakoak, ez euskal hizkuntzalaritzakoak<sup>511</sup>. Ondorioz, *Fontesen* irakurle gehienak handik kanpo daude. Andres Iñigok ondorio hori baieztatzen du, gaur eguneko *Fontes* aldizkariaren banaketa sarea honela deskribatzen baitu:

“*Fontes*, de edición cuatrimestral y con unas 200 páginas, tiene una tirada de 700 ejemplares. Su distribución es aproximadamente la siguiente: Unas cincuenta suscripciones en Navarra. Más de un centenar en el Estado, la mayoría de las cuales tiene su destino en la Comunidad Autónoma Vasca, y el resto en universidades como Salamanca, Madrid, Huelva, La Rioja, Oviedo, Zaragoza, Barcelona... y en diversas instituciones y bibliotecas. En lo referente a su distribución internacional, unas veinte van a Francia y el resto a universidades de otros países europeos, como Alemania, Bélgica, Finlandia, Noruega, Italia, Portugal, Armenia..., a dos universidades norteamericanas y a una de Tokio. Cuenta, además, con otros 50 números que tienen su destino en los intercambios o convenios con diversas universidades y centros de investigación y cultura.”<sup>512</sup>

## 5.2. Elhuyar aldizkaria

*Elhuyar aldizkariaren* lehen zenbakia 1974ko uda amaieran argitaratu zuen Elhuyar Taldeak<sup>513</sup>. RSBAPen<sup>514</sup> babesean eta bere buletinaren *zientzi eraskin* gisa kaleratu zen. Aldizkariak lehenengo zenbakian bertan, Euskaltzaindiaren babesa jaso zuen<sup>515</sup>. Aldizkariaren hurrengo zenbakia, bigarrena, hurrengo urtean argitaratu zen. Bigarren zenbaki horretan bertan esaten denez, atzerapena “harpidedun multzoa biltzeak eskatzen duen denboragatik”<sup>516</sup> izan zen. Lehenengo zenbakia euskaltzaleen artean doan banatu zen harpidedun horiek erakartzeko asmoz. Antza denez, aldizkariak lortu zuen

---

<sup>511</sup> (Camino, 2005: 525)

<sup>512</sup> (Iñigo, 2004: 379)

<sup>513</sup> *Elhuyar* aldizkariaren gainean 1995. urtean *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariak bere 100. zenbakiaren ateratzen zela, hasierako *Elhuyar* aldizkariari buruzko dossierra argitaratu zuen: “100 ale bizkar gainean” *Elhuyar Zientzia eta teknika*, 100, 25-26 ([http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik\\_kod=4466](http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=4466) [kontsulta data: 2009-06-09]). Bertatik zenbait datu eta aipu atera ditugu.

<sup>514</sup> Berez, *Elhuyar* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zenean, RSBAP beharrean, RSVAP zen. Gaur egun erakunde horrek bere burua RSBAP (Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais/ Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte) gisa izendatzen duelako, guk hemen forma hori hobetsi dugu.

<sup>515</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan honakoa agertzen da: “Donostian beren ikasketak egiten ari diren gazte talde batek, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais elkargoaren Boletinaren eraskin bezala “Elhuyar” [sic] izeneko teknika aldizkari bat argitaratzeko asmoa dute eta Euskaltzaindiari bere babeseren [sic] eskaria egiten diote. Ontzat hartu da.” (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1974.2.22)

<sup>516</sup> (Elhuyar Taldea, 1975a: 1)

“gure eta lagun askoren ahaleginei esker badugu guttienez behar genuen irakurle multzo hori”<sup>517</sup>.

Luis Mari Bandres izan zen lehenengo zuzendaria eta idazkaria Andoni Sagarna. Azken zenbakia 1996. urtean kaleratu zen. Tarte horretan aldizkariak lau zuzendari ezagutu zituen: L. M. Bandres (1974-1984), A. Sagarna (1985-1988)<sup>518</sup>, I. Irazabalbeitia (1989) eta E. Arrojeria (1991-1996). Gaur egun aipatutako zuzendarietatik, bi euskaltzain oso edo urgazle dira (A. Sagarna eta I. Irazabalbeitia, hurrenez hurren). Ikusiko dugunez, aldizkariaren filologizazioa oso handia izan da, ez da harritzekoa, beraz, aldizkariko zuzendariak hizkuntzan ere aditu bihurtzea.

*Elhuyar aldizkariaren* proiektua, garaietara eta bere erakunde argitaratzaileara egokituz joan zen, eta hasierako *Elhuyar RSBAPen zientzi eranskina* hamabi urte beranduago desagertu zen. Kontua da, Elhuyar Taldearen aldizkaria zenean, *Elhuyar RSBAPen zientzi eranskina* izan zela<sup>519</sup>, Elhuyar Taldeak ez zuelako izaera juridikorik eta behar zuen babes legala RSBAPek ematen ziolako. Hala, Taldea Elhuyar kultur elkarte (1981) bihurtu eta gutxira, aldizkariari *Elhuyar Zientzi-Tekniketako aldizkaria*<sup>520</sup> azpi izena jarri zioten<sup>521</sup>.

Hasi eta ondorengo urteetan ere, aldizkariaren izena zenbait aldiz aldatu eta berregokitu zen<sup>522</sup>. Aldizkariak bere hamabi urteko historian maiztasun aldakorra izan

<sup>517</sup> (Elhuyar Taldea, 1975a: 1). Zenbat izan ziren ez dakigu, aldizkarian inoiz ez delako argitaratuko harpidedunen zerrendarik.

<sup>518</sup> Salbuespen batekin, 1985ko 44. zenbakiaren zuzendari gisa I. Irazabalbeitia agertzen baita.

<sup>519</sup> RSBAPen zientzi eranskin gisa *Elhuyar*ren azken zenbakia 31a (1982) izan zen.

<sup>520</sup> Izen hori erabili zuen lehen aldiz 32. zenbakian (1982), Elhuyar Kultur Elkartearen estatutuak onartu eta hurrengo urtera. 38. zenbakitik aurrera.

<sup>521</sup> Aldizkariak irakurleei honela jakinarazi zien aldaketa: “Orain arte, legalki, ELHUYAR aldizkaria “Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais” delakoaren zientzi eranskina izan da, gaurtik aurrera berezko nortasuneko aldizkaria izango da ELHUYAR. Aldizkaria sortu zenean, beharrezko babes legala jadedetako RSVAP-engana jo zuen ELHUYAR taldeak, honen atea zabalik aurkituz eta honen laguntza estimaezina lortuz./ ELHUYAR taldeak izaera legala lortu duen une honetan, bihotzez eskertu nahi dio RSVAP-i urte luze hauetan emandako laguntza eta babesa.” in *Elhuyar*, 32 (1982), 339. <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-32.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>522</sup> Hala 1984. urtean azpi izenburua osatu zuen, aldizkariaren maiztasunari eta funtzioari dagozkion ezaugarri berri bi gehituz: *Zientzi Tekniketako Aldizkaria. Lau hilabetero argitaratzen den Elhuyar Kultur Elkartearen bozemailea*. Urteekin maiztasunaren erreferentzia aldatu zuten (lau hilabeterotik, hiru hilabetero eta urtean bitan), eta azkenerako kendu. Azken urteotan, 1993. urtetik aldizkaria hil zen arte, honako izen hau izan zuen: *Elhuyar Zientzi eta Teknika Aldizkaria. Elhuyar Kultur Elkartearen*

zuen, eta azken urteetan Elhuyar elkarteak aldizkari honi esplizituki aitortu zion elkartearen organoa izatea.

*Elhuyar aldizkariak* ezaugarri bereizgarriak dituzten hiru epe nagusi izan zituen (baina izenaren aldaerak hiru baino gehiago izan ziren). Segidan epe bakoitzaren muga kronologikoak eta ezaugarriak aipatuko ditugu.

#### *I. Epea: aldizkari filologizatua, 1-25. zkiak (1974-1980)*

*Elhuyar* zientzia eta teknika arloko aldizkari filologizatua zen. Hau da, aldizkaria zientzia eta teknika arlokoa izanik ere, bere xede nagusia hizkuntza zen, hots, arlo zientifiko-teknikorako euskara trebatzea. Tarte honetan aldizkariaren sortzaileak baieztatu nahi zuten euskara landuz gero, gai zientifiko-teknikoetaz aritzeko balio zuela. Aldizkariak balorazio hau egin zuten:

“Editorial honek Elhuyar aldizkariaren hogeitabost ale uzten ditu bere bizkarrean; eta gauden toki honetatik gure buruari egin genion apostua irabazi dugula baieztatu daiteke. Egin diren hogeitabost ale horiek gauza bat **baieztatzen dute gutxienez: zientzi gaiak euskaraz idaztea posible da.**”<sup>523</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, hasierako sei urteetan *Elhuyar* aldizkariak enpirikoki frogatu zuen euskarak balio zuela arlo berezitu honetan aritzeko. Aldizkaria, sortzaileen esperimentera zen.

Bestalde, lehen epe honetan bigarren eta hirugarren zenbakietako aitzin-solasetan definitu ziren aldizkariaren kanpo<sup>524</sup> eta barne erronka nagusiak. Barrura begira, honako lan ardatzak finkatu zituzten:

“Ikastoletan dago noski gure etorkizunaren giltzarria, eta horregatixe zaindu behar da asko arlo hau, baina irakasleentzat, maila xehe xehekoak ez diren beste gauza batzuk ere behar dira. **Ikastoletatik landa ere bada zientzi gaiak euskaraz landu nahi lituzkeenik: dela unibertsitateko euskal gazteria, dela teknika gauzatan dabilen jendea, t.a.**

---

*bozemailea*<sup>522</sup> in *Elhuyar*, 56 (1993). <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-56.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>523</sup> (*Elhuyar Taldea*, 1981a: 5)

<sup>524</sup> Bigarren zenbakian definitzen dira erronka horiek. 1975. urtean ia dena egiteke zegoen artean, *Elhuyar* argitaratzen zuen taldeak, aldizkaria kaleratzeaz gain, bere jarduera esparrua hedatzeko asmoa agertzen du (UEUko ikastaroa antolatzea, lantegiak euskaldundu, eta Jakin taldeari lagundu “Fisika eta Kimika” hiztegia argitaratzen)

Haatik, egin ahala ez ditzakegu lanak argitara; hautapena egin behar dugu, lan mota bakoitzari bere garrantziaren arauerako lekua eman.

Hemendik aurrera horrela zatitu nahi genuke Elhuyar:

-Ikastola begira eginiko lanak: erdia inguru.

-Zientzi hedapen lanak eta monografiak: laurden bat.

-Bibliografia, hiztegia, irakurleekin harremanak eta beste: laurden bat.<sup>525</sup> [beltzak gureak dira]

Aipu horretatik, aldizkariaren hiru esparruak interesatzen zaizkigu (eta ez hainbeste bete ez ziren proportzioak): lehena, zientziaren irakaskuntza eskola mailan, bigarrena, ikerkuntza zientifikoaren hedapena, eta, azkenik, aipatutako esparru bakoitzerako hizkuntza baliabideak (adb. liburu zerrendak) eta adituen hausnarketa zein proposamenak. Adibidez, M. Zalbidek “Zientzi eta teknikarako hizkuntzaz”<sup>526</sup> kaleratu zuen, eta J. R. Etxebarriak “Euskara teknikoari buruzko eritzi batzu”<sup>527</sup>. Hasiera batean, Elhuyar Taldea liburugintza arloan ikastoletarako materiala sortzen zentratu bazen ere, aldizkarian hiru esparruak jorratzen ahalegindu zen.

## *II. epea: aldizkari interesgarria eta dibulgaziozkoa, 26-44. zkiak (1981-1985)*

*Elhuyar aldizkariaren* xedea 1981.ean birdefinitu zen. Urte horretan argitaratu zen lehen editorialean hausnarketa horren berri eman zuten:

“Ez dugu, dagoeneko, zientzi gaiak euskaraz ere idatz daitezkeenaz inor asko konbentzitu behar, ez euskaldunak bederen; hortaz gaur eguneko egitekoa beste hau da: **euskaraz ere gauza interesgarriak esan daitezkeela frogatzea eta gainera modu atsegin batez adierazteko gai garela erakustea.** (...) jendeak ez ditu euskarazko aldizkariak erosiko euskaraz idatzirik daudelako, bertan esaten dena interesgarria delako baizik.”<sup>528</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, bigarren epe honetan hizkuntza eta edukiaren arteko oreka bat bilatzen zen. Euskarak protagonismoa galtzen zuen, zientzia eta teknika gaien mesedetan. Hizkuntzak protagonismoa galdu arren, hizkuntzaren transmisio gaitasuna areagotzen zen.

*Elhuyar aldizkariaren* xedea birdefinitzearekin batera, aldizkaria ikuspegi formaletik ere eraberritu zen. Berrikuntza nabarmenenak hiru ziren: batetik, zenbaketa modu berria, eta bestetik aurkibidea atalka aurkeztea, eta azkenik, aldizkariaren

<sup>525</sup> (Elhuyar Taldea, 1975d: 1)

<sup>526</sup> (Zalbide, 1975)

<sup>527</sup> J. R. Etxebarriak hiru zatitan argitaratu zuen bere lana *Elhuyarren* (*Elhuyar*, 4-6 (1975-1976). Abiapuntuan, J. R. Etxebarriak Euskaltzaindiaren B mailako titulua eskuratzeko aurkeztutako lana zen.

<sup>528</sup> (Elhuyar Taldea, 1981a: 5)

erredakzio kontseilua indartzea. Proiektuaren eta formaren eraberritzeak bat datoz Elhuyar taldearen baitan emandako aldaketekin. Urte horretan taldea, kultur elkarteak bihurtu zelako, eta, ondorioz, aldizkariak RSBA Peko zientzia eranskina izateari utzi ziolako.

Aipatutako zenbaketa berriak ez zuen aurrekoa guztiz baztertzen, aldizkaria zenbakitzeko modua zen aldatzen zena<sup>529</sup>. Aldizkariak honela ohartarazi zituen irakurleak:

“Ikusi duzue aldizkariaren zenbakera-sistema aldatu dugu. Urteko lau aleek tomo bat osatzen dute. Elhuyar zazpi urtetan zehar argitaratu denez, aurtengoa 7. tomoa izango da. Urte oso batetan zehar orrialdeak jarraiki zenbatuko dira, hau da, lehen aleko lehenengo orrialdeak 1 zenbakia izango du eta laugarren aleko azkenekoak, ale bakoitzak lauogei orrialde baditu, 320 zenbakia”<sup>530</sup>

Garai honetan, hau da, 26. zenbakitik aurrera (1981) aurkibidea atalka antolatu zen, honako lau atalak bereiztuz: “Oinarrizko irakaskuntzarako materiala”<sup>531</sup>, “Zientzi gai orokorrak”, “teknika eta teknologia” eta “Unibertsitatea”. Atalak ordena honetan eman ziren ondoko zenbakietan ere. Bakoitzean izaera desberdineko artikulak sartzen ziren: “Zientzi gai orokorrak” delakoan interes orokorreko gai zientifiko lantzen ziren, hau da, gizartearekin lotura estua zutenak<sup>532</sup> (adb. “Nuklearraren poluzioari buruz”<sup>533</sup>) edo kultura zientifikoari zegozkion oinarrizko gaiak (adb. “Einstein-en kuantu-

---

<sup>529</sup> Aldizkariak zenbatzeko modua aldatu arren, aldizkaria zenbakitzeko bi modu desberdin ez erabiltzearen, guk hemen lehen garaiko zenbaketa jarraitu izan dugu, baita zenbakietan berrietan ere. Hala guretzat zenbaketa berriko 7.2.a, 27. zenbakia da. Halaber gaur egun *Elhuyar* aldizkariaren web gunean ([http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/)) hasierako zenbakitzea erabiltzen da, 1981. urtetik aurrerako zenbakitzea baztertuz.

<sup>530</sup> *Elhuyar*, 26 (1981), 2. <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-26.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>531</sup> Aldizkariak 1984an argitaratutako “Idazleentzako informazioa” honela definitzen zen atal hau: “Sail honen helburua eskola eta ikastoletan iharduten duten irakasleei bere gela eta laborategian erabil lezaketan material osagarria eta orientabide pedagogikoa eskaintzea da. Hontaz, atal honetan, laborategi praktikaz edota zientziaren didaktikaz mintzatzen diren originalak argitaratuko dira” (*Elhuyar Taldea*, 1984: 114)

<sup>532</sup> Aldizkariaren arabera sail honen ezaugarriak honako hauek ziren: “Sail honen jomuga irakurleari zientzi gaiak era arin eta ulergarri batean ematea da. Bertan Kimika, Fisika, Matematika, Natur Zientziak, Informatika, Teknologia eta abarrezko arazoak, egiteak eta berriak azalduko dira zientzi arazotan oinarri minimoa izan dezakeen edonork uler dezan moduan.” (*Elhuyar Taldea*, 1984: 114)

<sup>533</sup> P. Madin, *Elhuyar*, 26 (1981), 31-40. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-26-05.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-26-05.pdf) [kontsulta data: 2009-06-09]

ekarpenak<sup>534</sup>). Teknika eta Teknologia<sup>535</sup> zein unibertsitatea ataletan gai zehatzagoak lantzen ziren, espezializatuagoak. “Unibertsitatea” delakoan, ikertzaile euskaldunek goi mailako ikerkuntzaren emaitzak plazaratzen zituzten.

*Elhuyar aldizkariaren* 26. zenbakiko berrikuntza bakarra ez zen izan aldizkariaren edukiak atalka antolatzea, besterik ere izan bazegoen: aldizkariaren egitura sendotu zen eta egileek lanak bidaltzeko zeintzuk baldintza bete behar zituzten jakinarazten zen lehen aldiz. Ordura arte, aldizkariaren ardura bi pertsonen bano ez zuten hartzen: L. M. Bandresek (zuzendaria) eta A. Sagarnak (idazkaria). Aipatutako zenbakitik aurrera, aldizkarian bi figura berri agertu ziren: “Hizkuntz zuzentzailea” (kasu honetan, A. Sagarna eta M. Zalbideren ardurapean) eta “Erredakzio-kontseilua” (Elhuyar taldea, beste izenik eman gabe). Beraz, nahiz eta *Elhuyar aldizkariaren* lehen zenbakitik artikuluak euskararen aldetik zuzendu behar ziren eta zuzentzen ziren, 1981. urtera arte ez zen figura hori “ofizialki” sortu. Hau da, aldizkaria, arlo zientifiko teknikorako euskara prestatzeko sortu bazen ere, zuzentzailearen figura oraindik heldu gabe zegoen, errola sortu gabe. Beste modu batera esateko, testu zuzenketa ordura arte egin egiten zen, baina errekonozimendurik gabe, maiz lagun edo lankideren batek egindako mesede gisa. Baina urte gutxiren buruan, zuzenketa lana hizkera zientifiko teknikoan, hartan aditua zen batek egin behar zuelaren ideia errotu zen. Kuriosoki, urte horren amaieran kontratatu zituen UPV/EHUK euskara zientifikoko irakasgaia Zientzia Fakultatean emateko lehen irakasleak (M. Ensunza, K. Altonaga,...).

### *III. epea: aldizkari espezializatua, 45-56. zkiak (1986-1996)*

Elhuyar kultura elkarteak 1985ean *Elhuyar Zientzia eta Teknika* sortu zuen, eta bertara bideratu zituen ordura arte *Elhuyarren* argitaratzen ziren zientziaren dibulgazioari buruzko idazlanak. Orduan bihurtu zen *Elhuyar aldizkaria*, ikerkuntza zientifikoaren emaitzak zabaltzeko euskarazko aldizkari espezializatua. Aldizkariaren maiztasuna zein orrialde kopurua gutxitu ziren eta, azkenean, 1996. urtean desagertu egin zen.

<sup>534</sup> P. M. Etxenike, *Elhuyar*, 27 (1981), 159-170. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-27-05.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-27-05.pdf) [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>535</sup> Aldizkariaren “Idazleentzako informazioa” delakoan honela agertzen da sail hau: “Sail honetan teknikak eta teknologiak planteatzen dituzten arazoak ikuspuntu tekniko eta profesional batetik azalduko dira” (Elhuyar Taldea, 1984: 114)



Segidan aldizkari proiektuaren ezaugarri nagusiak xeheki aztertuko ditugu, hau da, lehenik aldizkariaren hasierako filologiazioa, eta ondoren euskaraz egindako ikerkuntzari zer nolako trataera eman zitzaion, ingelesaren sarrera aztertuz, eta azken urteetan ikerkuntzak izandako eragina aldizkariaren desagerpenean

### 5.2.1. Zientzia eta teknika arloko aldizkari filologizatua

Lehen zenbakian luzera desberdineko 5 artikulua<sup>536</sup> eta aldizkariaren aurkezpen bat argitaratu ziren. Lehen zenbaki horren sarreran aipatzen dira zeintzuk diren aldizkariaren esparrua (euskara eta zientzia) eta asmoa (normalizazioa), hau da, euskara zientifikoaren normalizazioa:

“Euskal kulturgintzan ia dena egiteko dadukagula gauza jakina eta tamalgarria da. Sukaldeko girotik eta lagunartetik irtetzen garen bezain laster bi ilunetik abiatzen gara, euskara lotsagarri geratzen zaigu batzutan. Are gehiago hizkera zehatz, garden zorrotz bat behar den gaitan. (...)

**Zientzi-euskara bat eraikiko badugu, piskana denok ados egon behar dugu, gaiak erabiltzeko ohitura bat hartuz, ohitura hori duen jende multzo ugari bat sortuz, edozein lekutako zientzilarik erabiltzen duen formulazioa eta euskara, batek bestea bortxatu gabe, uztartuz, e.a.**

Hori dena nekez lortuko genuke hitz zerrenda luzeak asmatuz bakarrik; gehiago behar dugu.

**Euskarari, zientzien plazara jaldi dadin, agerlekuak prestatu behar dizkiogu** bere sortzaileek nolakoa den erakus diezaguten eta denon artean haiei lagun diezaiegun gero eta helduagoa, egokiagoa, apainagoa sortzen.

Asmo hauk denak hartzen ditugu gogoan ELHUYAR-en lehen zenbaki hau argitaratzean. (...)

Denon laguntzarekin eta kritika zorrotz bat dela medio **zientzi euskarari arnasa pixka bat eman** diezaiokegula uste dugu.”<sup>537</sup> [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, aldizkaria euskara zientzia eta teknikan trebatzeko plaza gisa sortu zen, eta ez hainbeste besterik gabe zientzia eta teknikari buruz jarduteko, ezta aditu euskaldunen arteko zientziari buruzko eztabaidetarako ere. Beraz, hizkuntza edukien transmisiorako instrumentu soila izan beharrean, hizkuntza bera zen lehen helburu, edukiaren aurretik.

---

<sup>536</sup> Lehen artikulua, aldizkaria izenez Elhuyar zenez, Elhuyar anaiei buruzkoa izan zen, hau da, Elhuyar anaiek Euskal Herrian zeudela egin zuten aurkikuntzari buruzkoa, beraz euskal zientziaren historiaren ingurukoa. Ondoko artikuluetan euskal dimentsio berezirik gabeko zientzia arloko beste gai batzuri buruzko idazlanak kaleratu ziren, Matematika, Fisika eta Elektronikari buruzkoak.

<sup>537</sup> “Bergaran egon ziren denboran ordea, Elhuyar anaiek Euskal Herrian lortu den zientzi-aurkikuntzarik haundiena lortu zuten: wolfram delakoa ordurarte ezagutzen ez zen kimika elementu berri bat zela aditzera ematea eta wolframita deritzan mineraletik bereiztea” (ikus Elhuyar “Sarrera”, *Elhuyar aldizkaria*, 1 (1974), 1-2. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-01-01.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-01-01.pdf) [kontsulta data: 2009-06-09])

Hola bada, euskara arlo zientifiko teknikorako landu, zorroztu eta egokitzeko asmoa zuten aldizkariaren sortzaileek. Jada aipatu denez, L. M. Bandres, A. Sagarna, M. Zalbide, J. M. Goñi, J. J. Gabiña eta I. Azkune, 1972. urtetik Donostiako lokal batean biltzen ziren larunbat arratsaldetan, zientzia eta teknika arloan euskaraz idazten ikasteko. Larunbateko saioetan prestatutako idazlanak elkartrukatu, eta lana egitean hizkuntzaren inguruan sortutako kezkak eta arazoak komentatzeko eta bildutakoen artean apur bat ebazteko aukera izaten zuten. Beraz, arlo zientifiko-teknikoan talde lanaren bitartez alfabetatu ziren. L. M. Bandresek aitortzen duenez, “izerdi bidez lortutakoa pipi-jan bihur ez zedin, kanpora atera behar genuen eta horretarako ageripide bat beharrezkoa zen, hots, aldizkari bat”<sup>538</sup>. Horrela sortu zen *Elhuyar aldizkaria*. Sorrera honek esplikatzeko du 1974an agertutako aldizkariaren jite linguistikoa.

*Elhuyar aldizkaria* agertu baino lehen, euskarazko beste aldizkarietan argitaratu ziren zientzia eta teknika arloko euskarazko artikuluren bat edo beste, bereziki *Jakin* aldizkarian<sup>539</sup>. *Elhuyar* plazaratu zenean, *Jakin* ez zen kaleratzen 1968az geroztik (legez kanpo zegoelako), eta beraz, *Elhuyarrek* zientzia eta teknikarako euskararen erreferentzialtasun osoa eskuratu zuen, alde batetik, zientziari buruz aritzeko propio sortutako aldizkaria zelako, (eta *Jakin* aldiz, kultur aldizkaria zen) eta, bestetik, beste inongo aldizkarik konkurrentziarik egiten ez ziolako.

Bestalde, *Elhuyar aldizkaria* argitaratzeko unea ezin aproposagoa izan zen, garaiko egoeran bizirauteko konkurrentziarik gabeko espazioa aurkitzeaz gainera, bere zeregin propioa aurkitu zuelako: batetik, Euskara Batuaren prozesua indartzea, eta, bestetik, haren inguruko eskaria asetzea, bereziki (ikastoletako) irakasle euskaldunen hizkuntza beharrak asetzea. Aldizkariak bat egin zuen Euskara Batuarekin, hau da, Euskaltzaindiak 1968tik aurrera hasitako hizkuntzaren batasun prozesuarekin. Gaur

<sup>538</sup> (Bandres, 1995: 26-27)

<sup>539</sup> *Egan* aldizkarian baten bat kaleratu arren, bereziki *Jakinen* kaleratu ziren zientzia eta teknika arloko euskarazko lanak: Saizar, P. “Astronautika dala-ta...”, *Jakin*, 8 (1958), 43-47; Iturriotz, I. “Atomuaren etxe-barnea” *Jakin*, 16 (1964), 11-15; Otamendi, J. “Legeak pisika jakintzan” *Jakin*, 17, 87-89; Osiranzu “Fisikaz eta...” *Jakin* 18 (1965), 78-82; Mendizabal, P. “Mundua nola sortu zan” *Jakin*, 8 (1958), 73-84; Zubizarreta, I. M. “Zelula, bizitzak lenen laztandu duana?” *Jakin*, 22 (1966), 83-86; Kintana, X. “Bizitzaren hasikera”, *Jakin*, 24 (1967), 27-35; Santamaria, K. “Aljebra berria” *Jakin*, 29 (1968), 30-40. Artikulu guztiak [www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com) web gunean kontsultagai [kontsulta data: 2008-08-04]

egun *Elhuyarrek* hartutako bidea “normala” edo “logikoa” iruditu arren, garaikoez auzia ez zuten hain argi, ezta Euskaltzaindiak ere. Eta horren adibide da Euskaltzaindiak 1978. urtera arte ez zuela Euskara Batuaren alde erabaki finkoa eta irmoa hartu. Beraz, 1968-1978. urte tartean Euskara Batua ikusmiran zegoen, eta haren inguruan hartutako erabaki gehienak oso eztabaidatuak ziren (H-aren inguruko eztabaidak gogoratzea baino ez dago). Abagune honetan, *Elhuyarrek* aldizkari proiektuak, Euskara Batua ontzat emateaz gainera (era berean Euskara Batuaren prozesua indartzeaz gainera), estandar harentzako prosa zientifiko-teknikoaren oinarriak ezartzen saiatu zen. Halaber 1968-1978. urte tartean, baita 1978tik aurrera ere, hizkuntza harekin lan egin behar zuten irakasleak eta bestelako profesionalek, *Elhuyarren* aurkitu zuten asetzen hasteko moduko euskara eredua.

### 5.2.2. Euskaratik ingelesera salto egiteko lehen saiakerak

*Elhuyar aldizkariak* 1981. urtean argitaratu zituen lehen aldiz egileentzako oharra zeintzuk ziren. Honako hau zioen egileei zuzendutako ohar laburrak:

“**Euskara batuaz** idatzitako idazlanak onartuko dira bakarrik. Berrikusketa- eta ikerketa-idazlanek derrigorrezkoa dute **ingelesezko laburpena**. Idazlanak makinaz eta bi lerrotan idatzita bidaltzea gomendatzen da. Marrazkiak tipula paperean marrazturik eta 5x4 cm-tako neurri minimoa eta 16x21 cm-tako maximoa izanik bidaltzea gomendatzen da. Idazlanen onarketa *Elhuyar* taldearen eskutan dago.”<sup>540</sup> [beltzak gureak dira]

Ordutik aurrera, “unibertsitate” saileko artikuluek, lanaren hasieran 5 bat lerrotako ingelesezko itzulpena zuten. Hiru urte beranduago, aldizkariak egileei zuzendutako ohar laburra zabaldu guran, 4 orri zituen “Idazleentzako informazioa”<sup>541</sup> argitaratu zen. Bertan, zehatzago azaltzen ziren orijinalak aurkezteko baldintzak zeintzuk ziren. Oharrean *Elhuyarrek* berriro berresten zuen “unibertsitate” saileko artikuluek derrigorrez ingelesezko laburpena eduki behar zutela<sup>542</sup>.

---

<sup>540</sup> *Elhuyar*, 26 (1981), orrialde zki gabe. <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-26.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>541</sup> (*Elhuyar Taldea*, 1984)

<sup>542</sup> Dokumentuaren E atalaren 3. puntuak horrela zehazten du: “Artikuluok ingelesezko laburpena derrigorrezkoa dute” (*Elhuyar Taldea*, 1984: 114)

Ikusten denez, *Elhuyar* izan zen lehen aldizkaria nazioarteko zirkuituetan tokitxoa egin guran, euskaratik zuzenean ingelesera pasa zena, tartean gaztelaniaren edo frantsesaren bidesaririk ordaindu gabe. Garaiko elebitasunaren aldeko giroa kontuan hartuta, “normalagoa” izango zen laburpenak gaztelaniaz eta frantsesez eskatzea. Hala ere, Elhuyar Taldeak hautua egin zuen: ikerkuntzaren emaitzei euskal zirkuitutik kanpoko oihartzuna eman nahi izanez gero, ingelesa erabiliko zela. Azken finean, 80ko hamarkadan Espainiaren zientzia eta teknologia sistema eta unibertsitateko ikerkuntza azpigaratuta zeuden, aurreko urteetako frankismoak eragindako atzerapenaren ondorioz, eta oraindik esparru honetan nahiko diru inbertsio egiten ez zirelako. Zientzia eta ikerkuntzaren ikuspuntutik Espainian eragina edukitzea, nonbait, ez zen oso erakargarria.

*Elhuyarrek* 1981ean ingelesezko laburpenak eskatu zituenean, seguru aski buruan zeukan nazioarteko mailako erreferentzia bibliografikoen aldizkarietan sartzea. Horren adibide da 1982. urteko 29. zenbakian agertutako oharra:

“1981. urtetik aurrera ELHUYAR aldizkarian argitaratzen diren Kimikazko artikulua “AMERICAN CHEMICAL SOCIETY” delakoko [sic] “CHEMICAL ABSTRACTS” izeneko aldizkarian jasoko direlaren berri pozgarria adierazi nahi dizuegu irakurle guztioi”<sup>543</sup>

Azkenean, guk dakigula, *Elhuyar*ko artikulua ez ziren jaso *Chemical Abstracts*en. Zernahi gisaz, *Elhuyar* izan zen lehen euskal aldizkaria euskaratik ingelesera saltoa egiteko saiakera egin zuena, tartean gaztelania eta frantsesean geratu gabe. Hala ere, proposamena lehenagotik zetorren, Martxel Aizpuruak eginda baitzuen 1977. urtean *Jakinen*. M. Aizpuruak artikuluan aipatzen zuen lau hizkuntza maila zeudela: ikerkuntza, unibertsitate, eskola eta herri maila. Guri lehenengo bien gainean esan zuena interesgarri iruditu zaigu.

Egile honen arabera unibertsitatean euskararen erabilera erabatekoa behar zuen, hau da, irakaskuntzan, testuliburuetan, eta baita tesi eta tesinetan. Punta puntako ikerkuntzaren emaitzei dagokionez, auzia bestela ikusten zuen:

<sup>543</sup> *Elhuyar*, 29 (1982), 2. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-29.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-29.pdf) [kontsulta data: 2009-06-09]

“Euskaldunok ere, beste nazioetakoek bezala, aukera bat egin behar dugu: “euskaraz ala ingelesez” labur daitekeena, erdibideko aukerak alde batetara utziz. Zein bata zein bestea hautatzeak, zer pentsa gogorra ezartzen digu. Ingelesez idaztea onartzeak, gure hizkuntz irakaskuntzaren aldaketa batetara bultzatzen gaitu; aurrez, maila honetan ingelesa erabiltzeak beste mailetan ukan dezakeen eragina aztertuta gero. Euskararen aldekoa onartzeak, berriz, larriagoak dakartzala iruditzen zait. Eskubideen arazoan sartzen ez naizelarik, nongo ikertzailek irakurri behar ditu euskaraz idatzitako lanak?”<sup>544</sup> [beltzak gureak dira]

Horretaz gain, M. Aizpuruak bere artikuluan goi mailako komunikazio zientifikoaren esparruan frantses eta katalan hizkuntzen egoera aipatzen zuen. Alde batetik, M. Aizpuruak jasotzen zuenez, frantses hiztunen komunitate zientifikoa ohartzen zen frantsesa jada ez zela zientziarako hizkuntza, eta bestetik katalanen kasuan, 200 bat katalan zientzialarik 1973an irakurritako manifestuaren berri ematen zuen. Manifestuan katalana zientzia arlorako hizkuntza zela aldarrikatzen zen, bereziki Kataluniako eremuarekin lotutako gaietan, Kataluniatik kanpoko ikerkuntzetan, ingelesa edo alorrean gehien erabiltzen zen hizkuntza erabiliz. Milioika hiztun eta nazioarteko prestigioa zuen hizkuntza normalizatuaren arazoak ikusita (frantsesena), eta hizkuntza gutxitu batek zientziaren jardueretan egiten zuen proposamena aztertuta (katalanena), M. Aizpuruaren proposamena honako hau izan zen:

“-**Ikertzapen lanak, ingelesez** edo alor bakoitzean hedaturarik zabalena duen hizkuntzan argitara.  
-**Laburpen zabal batzu eman euskaraz**, lan bakoitzaren ondoren. Zabal esatean, hamarretik bat bezala esan nahi da.  
-Osagarri beharrezko bezala, maila guztietako **dibulgazio aldizkari euskarazkoen** oinarriak jartzten hasi behar genuke.”<sup>545</sup> [beltzak gureak dira]

Hala ere, M. Aizpuruaren arabera, auzi larriena ez zen goi mailako ikerkuntza euskaraz eman ala ez, baizik ikerkuntzarik egiten ez zela. Beraz, ikerkuntza modu honetara sustatzea proposatu zuen:

“*Euskal Herrian* eginez; hortik Unibertsitate eta Ikertzapen laborategien beharra.  
*Euskal Herriaz* ihardunez, inguru geografikoari loturiko alorretan.  
*Euskaldunok* izanik ekile eta finantziatzaile edo, behintzat, kontrolatzaile.  
*Euskaraz* eginez laborategietan.”<sup>546</sup> [kurtsibak jatorrizkoan]

M. Aizpuruaren proposamena kalean egon arren, haren eragina seguru ez zen oso zabala izan. *Jakineko* bere artikulua *Elhuyar aldizkarian* norarteko eragina izan

---

<sup>544</sup> (Aizpuru, 1977: 89)

<sup>545</sup> (Aizpuru, 1977: 92)

<sup>546</sup> (Aizpuru, 1977: 92)

zuen, ez dugu zehazterik. Dena den, oso probablea da biak ondorio berdinerara heltzea bide desberdinetik. Hau da, biek goi mailako euskarazko dibulgazioa zekusaten, eta ikerkuntza zientifiko baten emaitza jakinarazteko ingelesa. Hala ere, bata, besteak baino garrantzia handiago eskaintzen zion ingelesari. *Elhuyar* goi mailako ikerkuntzaren emaitza ingelesezko laburpen batekin emateko prest zegoen, eta M. Aizpuruak aldiz, ingelesez osorik ematea proposatzen zuen euskarazko laburpen zabal batekin.

M. Aizpuruak 1984. urtean *Jakinen* argitaratu zuen 1977ko artikulua berriuspen bat, zehatzago azalduz euskaldunek ikerkuntza lanak zergatik ingelesez eman behar zituzten eta ez gaztelaniaz edo frantsesez:

“Lehenik eta hasteko, argi dago, bada, ez diola inori kalterik egiten ingelesez argitaratzeak, ez ikertzaile euskaldunari, ez erdaldunari.

Hemen, planteatzen dena da: batetik, zeinek egiten dio kalte handiagoa euskarari: espainieraz edo frantsesez argitaratzeak, ala ingelesez egiteak? Eta bestetik, onik egiten al dio euskarari ingelesez argitaratzeak? Azkenean, bi galderak bat bera dira, baina bi aldetatik begiratuta.

Ingelesez argitaratzean (benetan hizkuntza hori da gaurko ikerketa-*hizkuntza*), Espainierak eta Frantsesak gure artean dituzten *Ohore*, *Aintza*, *Ospe* eta *Ahalguztiduntasuna* eztabaidaturik geratuko lirarteke.

(...) Gure lehiakide diren bi hizkuntzei oinarria kendu behar zaie ahal denean, ez gezurraz baliatuz, baizik eta alor bakoitzean gertatzen denaren berri emanaz. Eta, egiatan, ikerketa-mailan ez dira ezer asko bi hizkuntzok ingelesaren ondoan.”<sup>547</sup> [kurtsibak jatorrizkoan]

### 5.2.3. Ikerkuntza euskaraz

*Elhuyar aldizkaria* euskaldun zientzialarien ikerkuntzaren emaitzak argitaratzeko plaza zen. Lehenengo zenbakietan zientziaren historia eta kulturarekin lotutako idazlan orokorrak argitaratu ziren, aldizkariaren asmo nagusia euskara zientzia eta teknikarako trebatzea zelako. Hala ere 1979. urtetik aurrera, *Elhuyar* ikerkuntzatik eratorritako artikulua zientifiko originalak argitaratzen hasi zen. Mugarria ezarri zuena Pedro Miguel Etxenike izan zen (“Ioi lasterren Wake-potentziala egoera solidoan”<sup>548</sup> lanarekin). P. M. Etxenikek, AEBko R. H. Ritchie<sup>549</sup> ikertzailearekin prestatu zuen artikulua eta bertan beraien ikerkuntza lanen emaitza aurkezten zuten. Artikuluaren

<sup>547</sup> (Aizpuru, 1984: 135)

<sup>548</sup> *Elhuyar*, 17 (1979), 1-49. <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-17.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]

<sup>549</sup> Fisikari ospetsua da, bere karreraren hasieran plasmaren gainazala deskubritu zuen.

abiapuntuan, dena den, komunikazio zientifikoaren ikuspuntutik ez zegoen ikerkuntza baten emaitzaren ezagutarazpen soila. Bestelako asmo politikorik bazuen:

“Garai horretan gaur egun gaintututa dagoen eztabaida pil-pilean zegoen. Garai horretantxe Adolfo Suarezek esana omen zuen ezin zitekeela euskara erabili kimika nuklearrari buruz hitz egiteko edota erakusteko. (...)  
Eztabaida horrek bultzatu ninduen EEBBetan Ritchie irakaslearekin batera egindako ikerketaren emaitzetaz artikulu bat euskaraz idaztera.”<sup>550</sup>

Beraz, artikulua Fisikari buruzkoa izan arren, lanaren asmoa Fisikaren esparrutik haratago zegoen. Egia esan, A. Suarezekin, Espainiako presidentea (1977-1980. urteen artean), XX. mende hasieran M. Unamunorekin gertatu zenaren antzeko zerbait gertatu zen 70eko hamarkadaren amaieran. Hau da, euskaldun askorentzat pizgarria izan zen, eta halako erantzun kolektibo, baina alde zuzenetik antolatuta gabea, ekarri zuen. Erantzunezko erreakzioaren alderdirik positiboena izan zen euskaldun askok euskarazko lanak prestatuz erantzun nahi izan ziotela. P. M. Etxenike horretan ez zen bakarra izan, baina bai nazioarteko ospea zuen ikertzaile baten itzala erabili zuen bakarra euskararen alde egiteko. Artikuluak, euskaraz idatzita egon arren, nazioarte mailako eragina lortu zuen, Fisikaren esparruko ekarpen garrantzitsu bat egiten zuelako. P. M. Etxenikek UEUko zuzendaria zen Martin Orberi 1979an idatzitako kartan honela ziotson *Elhuyarreko* artikulua gainean:

“Bidaltzen dizut ere “Physical Review” delakoan agertu den artikulu bat, 2679. orrialdean ikus dezakezu ... “is written in Basque”. Hori beharbada izango da fisika ikerketaz Euskal artikulu bat agertzen den lehen aldiz. Nahiko gende [sic] eskatu dizkidate aleak”<sup>551</sup>

Urte batzuk beranduago, 1995. urtean, P. M. Etxenikek artikulua gainean egindako balorazioan honela zioen:

“Elhuyarreko artikuluan irekitako bidetik ikerlari asko joan da. Pozgarria izan da benetan munduko aldizkari askotan Elhuyarreko artikuluari aipamen egin zaiola ikustea. Guk teoria linealean egindako lanari Pitarke jaunak jarraitu dio, teoria ezlinealean emaitza aipagarriak lortuz. Lan horrek Eusko Ikaskuntzaren Zumalabe saria lortu zuen eta aurtan Physical Review delako aldizkari ospetsuan azalduko da. Horrek ere biziki pozten nau”<sup>552</sup>

---

<sup>550</sup> (Etxenike, 1995)

<sup>551</sup> P. M. Etxenikek M. Orberi idatzi eta bidalitako gutuna 1979.?.16an (UEUA).

<sup>552</sup> (Etxenike, 1995)

P. M. Etxenikek *Elhuyar*reko artikulua idatzi zuenean, 29 urte zituen eta Bartzelonako Unibertsitateko Egoera Solidoko Fisikan katedraduna zen<sup>553</sup>. Eusko Jaurlaritzan zenbait kargu bete zituen 1980-1984. urteen artean (Hezkuntza Sailburua, Kultura sailburua eta bozeramailea), 1986tik UPV/EHUko Materia Kondentsatuaren Fisikako Katedraduna da eta, gaur egun *Donostia International Physics Center*eko zuzendaria.

P. M. Etxenike Izaban jaio zen eta gaztetan euskara ikasi zuen. Udan Azpeitian euskara ikasteko egonaldiak egin zituen, eta unibertsitate ikasketak Donostian egiten egon zenean, klase orduetatik kanpo baina unibertsitatearen eraikinean, ikasleek beraiek antolatutako euskara ikasteko ikastaroetan irakasle gisa aritu zen. Hala ere, *Elhuyar*rerako artikulua prestatzeko euskararen aldetik laguntza behar izan zuen:

“Lehen eta orain, **fisikaz euskaraz ongi aritzeko bi gauza ongi jakin eta menperatu behar dira: fisika eta euskara**. Horixe da beharrezko eta nahikoa den baldintza. Nire euskara ideiak beharrezkoa zen zehaztasunez azaltzeko gauza ez zenez gero, adiskide batengana jo nuen. **Ibon Sarasolak esku zabalez, lagundu zidan.**”<sup>554</sup> [beltzak gureak dira]

Hortaz, P. M. Etxenikerentzat, eta beste askorentzat, bere ikerkuntzaren emaitzak euskaraz ematea ez zen gauza “naturala”, atzean eragile politikoak zeuden, baita baldintzapen linguistikoak ere. Beraz, euskaraz goi mailan aritzea, bereziki 70 eta 80ko hamarkadan zientziaren esparrutik haragoko dimentsioa zuen jarduera aktibista zen.

P. M. Etxenike eta R. H. Ritchie-ren lanaz geroztik, *Elhuyar aldizkaria* ikerkuntza zientifikoaren emaitzei buruzko lan orijinalak argitaratzen hasi zen, eta laster, urte biren buruan, aldizkariak mota honetako lanentzat sail espezifikoa bat sortu zuen: “Unibertsitatea”. Arestian aipatu dugunez, 1981. urtean aldizkariaren aurkibidea atalka antolatu zen. Lau atal nagusi definitu ziren (“Oinarrizko irakaskuntzarako materiala”, “Zientzi gai orokorrak” eta “teknika eta teknologia”) horietako bat “Unibertsitatea” izanik. Sail honek berezitasun batzuk zituen, eta aldizkariaren “Idazleentzako informazioa” delakoan honela definitu zen:

---

<sup>553</sup> (Etxenike, 1979: 51)

<sup>554</sup> (Etxenike, 1995)



- “1.- Sail honetan ikerketa- eta berrikusketa-artikuluak soilik argitaratuko dira.  
2.- Artikuluak, originalak eta beste inon argitaratu gabeak izan behar dute. Gainera, Elhuyar aldizkarira artikulurik bidalita badu egileak artikulua berori beste inongo aldizkaritara ez bidaltzeko konpromezua hartuko du.”<sup>555</sup>

Urte gutxiren buruan, “unibertsitate” saila izan ezik, beste guztiak desagertu ziren, eta *Elhuyar* komunikazio zientifikoaren ikuspegitik, ikerkuntzaren emaitzak plazaratzeko euskarazko aldizkari espezializatua bilakatu zen. Prozesua eta Elhuyar Kultur Elkartearen baitan emandako eztabaidak ez ditugu ezagutzen, baina bai gertakari nagusiak. Elhuyar elkarteak 1985.ean *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkaria sortu zuen, euskarazko dibulgazio zientifikorako. Beraz, ordura arte *Elhuyar* aldizkariko sail bi (“Oinarrizko irakaskuntzarako materiala” eta “Zientzi gai orokorrak”), plaza sortuberrira birbideratu zituen. Horren adibide da *Elhuyar aldizkarian* ordura arte argitaratzen ziren atal batzuk, adibidez *Zientzi berriak laburzki* edo *Jolas matematikoak*, aldizkari berrian (*Elhuyar Zientzia eta Teknika*) agertzen hasi zirela, *Elhuyar*retik guztiz desagertuz. Horregatik, 1986. urtetik aurrera *Elhuyar aldizkariaren* aurkibidea ez zen atalka aurkezten, argitaratutako artikulua guztiak ikerketa lanetik eratorritako artikulua espezializatuak zirelako. Ondoko urteetan aldizkariak bide hori urratzen jarraitu zuen. Egileek bidaltzen zituzten artikuluez gain, zientzialari euskaldunen jardunaldietako txostenak argitaratzen hasi zen. Adibidez, 1986. urtetik aurrera antolatutako kimikari euskaldunen jardunaldietako txostenak<sup>556</sup> eta 1992ko fisikariena<sup>557</sup>.


*Elhuyar aldizkariaren* edukizko iraultza txiki horrek, aldizkariaren dimentsio fisikoan eragina izan zuen, eta 1986tik aurrera *Elhuyar aldizkariak* orrialde inprimatuen kopurua arras gutxitu zuen (ikus IV.3. Grafikoa).

---

<sup>555</sup> (Elhuyar Taldea, 1984: 114)

<sup>556</sup> 1986ko *Euskal Kimikari Ikerlarien I. Bileran/ Proceedings of the 1st Congress of Basque Chemists* UEUko Iruñeko Udako Ikastaroen baitan burutu zen eta bertan aurkeztutako txostenak *Elhuyar*ren argitaratu ziren (ikus “Euskal Kimikari Ikerlarien I. Bileran” in *Elhuyar*, 46 (1986). Era berean bigarren bilera Iruñean eta UEUren udako ekitaldien baitan antolatu zen (in *Elhuyar*, 47 (1987). Ezagutzen dugun laugarren eta azken kimikari euskaldunen topaketak 1992an UPV/EHUren Donostiako Kimika Fakultatean antolatu ziren (*Elhuyar*, 55 (1992). Tarteko hirugarren topaketak noiz eta non antolatu ziren ez dakigu.

<sup>557</sup> Ikus “Fisikarien Topaketak UEU 1991. Iruñea” *Elhuyar*, 55 (1992). <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf> [kontsulta data: 2009-06-09]



IV.3. Grafikoa: *Elhuyar* aldizkariaren orrialde inprimatuen bilakaera (1974-1996).  
Iturria: elaborazio propioa *Elhuyar* aldizkaritik abiatuta.

*Elhuyar*, zientzia eta teknologia arloko euskarazko ikerkuntzaren emaitzak ezagutzera emateko aldizkari espezializatua bihurturik, proiektuaren eutsigarritasun eza laster geratu zen agerian. Artikuluak prestatzeko ikerlari euskaldunak egonik ere, irakurle masa oso txikia zuen. Proiektua, beraz, ezin zen harpidetzetatik bizi. *Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkaria* aldiz, dibulgazio orokorra jorratuz publiko euskaldun zabalago batera heltzen zen eta harpidedun ugari izan zitzakeen. Bestalde, UPV/EHUK 1989. urtean euskarazko goi mailako dibulgaziora zuzendutako aldizkaria, *Ekai*, *Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologik aldizkaria* atera zuen. *Ekai*ak UPV/EHUKo finantzabidea zuen, eta *Elhuyar Zientzia eta Teknikak* publiko zabala. *Elhuyar* aldizkariak zelan iraun zezakeen euskarazko ikerkuntza hutsera dedikatuz? Bada, bide bakarretik: administrazioaren diru-laguntzetatik. Nonbait, horiek ere urriak ziren, eta 1995. urtean Iñaki Irazabalbeitiak, *Elhuyar Zientzia eta Teknikako* zuzendariak, honako agerraldia egin zuen:

“*Elhuyar* Kultur Elkartea ahalegin oso handia egiten ari da *Elhuyar* eta *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* aldizkariak argitaratzeko eta ahaleginak goia jo du. Gure indarrak ez dira aski. Estandarizazioaren bidean aurrerago egin nahi bada, euskal administrazioen laguntza ekonomikoa ezinbestekoa da. Zeinek helduko dio adarretatik zezenari?”<sup>558</sup>

<sup>558</sup> (Irazabalbeitia, 1995: 31)

Hurrengo urteko aleak izan ziren aldizkariaren azkenak. *Elhuyar aldizkariak* ez zuen aterabiderik izan. Beraz, euskara arlo zientifiko-teknikoan gaitzeko 1974. urtean jaiotako aldizkaria, 1996. urtean, aldez aurreko abisurik gabe, bertan behera geratu zen. Bere bizitzaren luze zabalean 56 zenbaki ezagutu zituen, eta zientzia eta teknologiari buruzko milaka orrialde inprimatu euskaraz. Inguma datu-basearen arabera *Elhuyar aldizkarian* 532 artikulua argitaratu ziren eta 339 egilek parte hartu zuen.

Egileei dagokionez, aipatu behar da aldizkaria eraldatu zen heinean, egileen profila ere aldatu zela. Izatez, aldizkariaren bi epe nagusiak egileengan ere isla izan zuten. Aldizkariaren lehen 11 urteetan euskarazko dibulgazioa eta ikerkuntza uztartzen zirenean, gaur egungo elite kultural eta intelektualeko kide direnek parte hartu zuten : euskaltzain osoak edo urgazleak (M. Zalbide, A. Sagarna, T. Peillen, X. Kintana, J. Iturbe, I. Irazabalbeitia, A. Eguzkitza, I. Sarasola,...), unibertsitateko irakasleak eta gerora unibertsitateko kargudunak (J. Iturbe euskararako lehenengo errektoreordea izan zen UPV/EHUn), militantzia politiko ezagunekoak (L. M. Bandres, J. R. Etxebarria,...) edota kargu politikoak (K. Santamaria, A. Iztueta, P. M. Etxenike...). Baina 1986. urtetik aurrera, *Elhuyar aldizkaria* goi mailako ikerkuntzaren zabalpenean espezializatu zenean, aldizkarian parte hartu zutenak gehien bat unibertsitateko ikertzaile zein irakasle euskaldunak izan ziren, hau da, elite akademikoa, unibertsitate eta ikerkuntzaren zirkuituetan ibiltzen zirenak, eta handik kanpo, gizartean, praktikoki ezezagunak zirenak.

### **5.3. Kultur aldizkari politikoak: Zabal eta Zehatz**

Ondoren aztertuko ditugun bi aldizkariak, *Zabal* (1973-1976) eta *Zehatz* (1977-1980), osorik euskaraz kaleratu ziren kultur aldizkari politikoak izan ziren. *Zehatz*, hein handiz *Zabal* aldizkariaren jarraitzailea izan zen. Aldizkarion militantzia politikoa sozialismoaren eta abertzaletasunaren ardatzetan mugitzen zen, eta proiektuetan parte hartu zuten pertsona asko ezkerreko alderdikoak edo ingurumariakoak ziren (EHAS, LAIA, HASI,...). Nolanahi ere, guri aldizkari hauek interesatzen zaizkigu ez beren jarrera ideologikoagatik baizik, batez ere, euskarazko unibertsitate proiektuarekin izan zuten loturagatik.

Aldizkariok ezker muturreko intelektual euskaldunen proiektuak izan ziren, eta beraien asmoa zen kultura eta ezagutza zabaltzea euskal herritarren artean. Baina Emilio Lopez Adan *Beltzak* dioenez, “urte haietan sobera ikerlan gutxi zegoen euskal sozietateaz eta, horiek horrela, egiten dut ideologiak leku sobera hartu zuela gure formakuntzan eta, erreferaz, politikan; oinarri soziala behar bezala ezagutzeko gaien eskasian, urruneko erreferentziek ez zeukaten kontrapunturik”<sup>559</sup>. Ikusiko dugunez, halaxe izan zen: *Zabal* eta *Zehatzen* “ideologiak leku sobera hartu zuen”. Atal honen amaieran kultur aldizkari politikoen arteko jarraikortasunak eta aldeak aztergai izango ditugu.

Aipatutako ezkerreko aldizkarietaz gain, atal honetan ez dugu bistatik galduko Belgikan inprimatutako *Branka* (1966-1971), aipatutako aldizkari horien artean badirelako jarraikortasun handiak. Bi adibide emango ditugu:

- UEUren Udako Ikastaroetan aldizkariak erakusten zuten interesa. Udako Ikastaroen aurrekari izan ziren Baionako Euskal Asteetan emandako hitzaldi batzuk *Branka* aldizkarian kaleratu ziren. Gerora, Udako Euskal Unibertsitatea antolatu zenean 1973tik aurrera, ekitaldion berri *Zabal* eta *Zehatz* aldizkarietan eman zen.
- Aldizkariotan *Txillardegiren Hizkuntza eta pentsakera* artikuluari buruzko ideiak jasotzea, alde nahiz kontra egiteko. *Brankak* argitaratu zuen lehen aldiz *Txillardegiren hizkuntza eta pentsaerari buruzko lehen lana*<sup>560</sup>, (lan honen kritika M. Ereñok prestatu eta *Arragoa* izeneko komunisten aldizkariak argitaratu zuen). Gerora *Txillardegik* artikulua horri forma eman zion eta liburu gisa argitaratu zuen (1972). *Zabalen* argitalpen berriaren gaineko kritika bat kaleratu zuen *Begikok*, Jokin Apalategiren ezizena *Zabalen, Txillardegiren liburuaren inguruan*<sup>561</sup>. Eta urte batzuk beranduago,

---

<sup>559</sup> (Lopez Adan, 1997: 58)

<sup>560</sup> (Txillardegi, 1966)

<sup>561</sup> (Apalategi, 1973)

*Saioak* aldizkariak *Branka* eta *Arragoa* aldizkarietako *Txillardegia* eta M. Ereñoren artikuluak bere hartan berriz argitaratu zituen.

Ikusten denez, ezkerreko aldizkari politikoaren artean, *Branka*, *Zabal*, *Zehatz* eta *Saioak* aldizkariaren artean loturak izan ziren –tematikoak baino ez badira ere–.

### 5.3.1. *Zabal*, erbesteko aldizkaria

*Zabal* aldizkaria 1973an Baionan kaleratzen hasi zen, eta lau urteren buruan hil zen. Paulo Iztuetak, egin du *Zabal* aldizkariaren testuinguru historikoaren eta proiektuaren beraren azterketa. Hortaz guk hemen, *Zabal* aldizkariaren gaineko oinarritzko klabeak emango ditugu, P. Iztuetaren lanean oinarrituz<sup>562</sup>.

*Zabal* erbesteko aldizkaria izan zen, *Zabalen* ideia erbestean sortu zelako. Parisen ikasten zegoela P. Iztuetari bururatu zitzaion kultur aldizkari bat sortzea. Iparraldera joan zenean, bertako abertzaleak erakarri zituen (horietako batzuk alde aurretik Parisen ezagutu zituen). Hona hemen bere lekukotza:

“Honela, 1972-73ko ikasturtearen hasieran bertan, aldizkari baten plangintza maila pertsonalean landu nuen, hurbilekoenak zitzaizkidanekin aurrez aurre hitz eginez eta zer nahi nuen adieraziz. Hasteko, oroimenak huts egiten ez badit, J-L. Davantekin, Battita Larzabal eta Kattalin Idiartekin mintzatu nintzen eta gero handik Baiona aldera zabaldu nuen zirkuluaren orubea, Beñat Oihartzabal, Mattin Larzabal, Gexan Lantziri, Manex Pagola eta beste batzuegana.”<sup>563</sup>

P. Iztuetaren arabera, proiektuaren sorrera bi faktorek eragin zuten. Alde batetik ezker abertzaleak bere pentsamendua sortzeko eta zabaltzeko ez zuen euskarazko kultur plataformarik. Euskarazko aldizkariak baziren, esate baterako *Jakin* edo *Egan* aldizkariak, baina horiek ez zuten ETA erakundearekin zer ikusirik, eta ETAk bazituen argitalpen organoak, “baina horiek, besteak beste, muga handi hauek zituzten: elebidunak izanik ere, gehienak gaztelaniaz eginak zirela, edukiaren aldetik hertsiki politikoak eta militantziari zuzenduta zeudenak”<sup>564</sup>. Bestalde, proiektuaren sorreran eragin zuen bigarren faktorea, zera zen, atzerriko unibertsitateetan ikasten ibilitako

---

<sup>562</sup> (Iztueta, 2001)

<sup>563</sup> (Iztueta, 2001: 183)

<sup>564</sup> (Iztueta, 2001: 177)

gazteak, berak barne, “euskal kulturaz, irakaskuntzaz eta nazio-arazoaz egindako apunte gisako lan batzuk”<sup>565</sup> eginda zituztela, baina aipatu dugunez, ezker abertzaleak ez zuen halako lanetarako plazarik.

Pariseko ikasketa unibertsitarioak 1972an amaitzean, P. Iztueta Hazparneko eskola batera joan zen lan egitera, eta bertan harremanak egin zituen bai Parisen ezagututako kide batzuekin zein bertako abertzale batzuekin, batez ere Enbatan ibilitakoekin. Horiek guztiek bilera bat egin zuten eta *Zabal* aldizkaria sortzea deliberatu zuten. P. Iztuetak dionez, lehen erabakia aldizkaria sortzea izan zen, baina laster etorri ziren, aldizkaria argitaratuko zuen elkartearen sorrera, *Zabal* Elkartea alegia, eta, 1974an Baionan irekitako liburu-denda. Elkartea 1973an bertan legeztatu zen, lehendakaria Kattalin Idiart eta idazkaria Beñat Oihartzabal izanik. Liburu-dendaren kudeaketa Jokin Apalategi eta Joseba Jakaren esku geratu zen. Aldizkariari dagokionez, lehen sei zenbakien zuzendaria Beñat Oihartzabal izan zen, eta ondoko zenbakietan (6-16. zkiak) K. Idiartek hartu zuen beronen ardura, eta azken zenbakietan Gexan Alfarok (17. zkia) eta B. Larzabalek (18-19. zkiak).

Aldizkaria Iparraldean egiten zen, baina Euskal Herri osokoa zen. Euskal Herriko zein munduko denetariko gaiak, baina bereziki Giza eta Gizarte Zientzien ildokoak landu zituen kultur aldizkaria izan zen: abertzaletasuna, langile mugimendua, atzerriko gertakari politikoak (Txile, Vietnam, Bangladesh eta bestelako kasuak aipatuz), Ekonomia, emakumearen egoera, UEU, euskararen batasuna eta abar. Aipatutako gaien gaineko ezkerreko gogoeta kritikorako aldizkaria izan zen. Horregatik, argitaratutako artikuluetan ideologiak pisu handia zuen. Ondoko pasartean ikusten denez, *Zabaleko* idazlanek oro har, kazetaritza maila baino ikuspegi jasoagoa izan zuten.

“... Richard Leakey giza-ikerle jakintsunak bere lagunekin, joan den udaran aurkitu zuen buru-hezurrak zortzirehun zentimetro kubiko barne neurria zuela. Zergatik zen bada, aurkiten hori harrigarria? Arrazoin ximple baten gatik eta huna zein. Aurkitze hori egin aintzin, giza-ikerlen ustea zen egungo gizonaren arbaso urrunena eta idurikoena, latinez bataiatu “homo erectus” delakoa zela, bortzirehun zentimetro kubikoko buru-barnea zuena eta duela miliun bat urte bizi zena. Homo erectus horrek erran nahi du zutik doan gizona. Eta uste zuten ere, duela bi miliun ta erdi-hiru miliun urte bizi izan zen “austrolopithecus” izeneko zimino kasik zutik zebilanaren

<sup>565</sup> (Iztueta, 2001: 164)

denboran, ez zitekeela izan zutik zebilan eta 500 ZM3-z goiti zuen buru-barne neurriko gizonik.”<sup>566</sup>

*Zabal* ideologiaren aldetik sozialista eta abertzale zen, are independentista, euskalduna, eta “funtzionamenduaren aldetik erakunde politikoekiko autonomoa”<sup>567</sup>, hau da, ezker abertzalearen pentsamendua askatasunez lantzeko plaza. Ikusten denez, halako aldizkari bat ezinezkoa zen Hegoaldean egitea, indarrean zegoen diktadurak eta zentsurak ez zutelako ahalbidetzen.

Aldizkari militantea ez ezik, *Zabal* aldizkari euskalduna ere bazen, hau da, euskaraz soilik argitaratzen zen. Garai hartan gertaera hori ez zenez *normala*, bestek beste, euskara batua finkaturik ez zegoelako eta horrek idazketari zein irakurketa prozesuei eragiten zien. Hala ere, *Zabalek* Euskara Batuarekin, edo aldizkariaren hitzak erabiltzearen, euskara idatziaren batasun prozesuarekin bat egin zuen<sup>568</sup>, nahiz eta Euskaltzaindia ez zuen inon aipatzen. Hasteko, eta aldizkariaren irakurketa errazte aldera, artikulu gehienen bukaeran testuko hitz arraro, ezezagun edo zailen zerrenda eransten zen. Bestalde, *Zabalek* bere irakurle, eta bereziki idazleentzat aldizkariak onartutako hitz zerrendak argitaratu zituen<sup>569</sup>. Dena den, *Zabalen* asmoa ez zen zerrenda *ad hoc* edo aldizkarian bakarrik erabiliko zen hitzen zerrenda bat proposatzea, eta *Zabalek* bere zerrenda beste euskal aldizkari eta argitalpenetara hedatzeko asmoa zuen. Horretarako Ikasek antolatutako Udako Ikastaroak bozgorailu aproposak ziren<sup>570</sup>. Ez zen aldi bakarra izan *Zabalek* Udako Ikastaroak aipatu zituena. Hain zuzen ere, *Zabalen* argitalpen taldeak eta egileek Udako Ikastaroetan parte hartzen zuten, eta beraz ikastaroek estaldura handia izan zuten *Zabalen*. Udako Ikastaroen lehen urteetako saioen gorabeherak ezagutzeko Baionako aldizkarian argitaratutako artikuluak oso interesgarriak dira, artikuluetako asko kritikazkoak izan zirelako<sup>571</sup>.

---

<sup>566</sup> G. L. “Duela bi miliun urte Afrikan lurperatu 800 ZM3-ko buru hezur bat...” *Zabal*, 2 (1973), 41.

<sup>567</sup> (Iztueta, 2001: 189)

<sup>568</sup> *Zabal* “Euskara idatziaren batasunari buruz...” *Zabal*, 9 (1974), 50.

<sup>569</sup> Gutxienez zerrenda bi argitaratu zituen aldizkariak.

<sup>570</sup> “Hemen argitaratuko dugun hitz zerrenda berdindu hau aitzakitza hartuz, beharrezkotzat jotzen dugu, Udako bigarren Unibertsitatea baliatuz, euskal astekari, hamaboskari eta aldizkarietan idazten duten gehienek elkar ikus dezaten, oren batez edo biez, elkarrekin hitz zerrenda gutien bat hautatzeko eta gero behin aukera eginez gero, beti berdind idazteko ordezkatzan dituzten kazeta eta agerkarietan!” (ikus *Zabal* “Euskara idatziaren batasunari buruz...” *Zabal*, 9 (1974), 50)

<sup>571</sup> Kritika artikuluak *Zabalek* zein norbanakoek idatzi zituzten, ikus adibidez: “Unibertsitateaz *Zabalen* oharrak” *Zabal*, 4 (1973), 5-6 edo G. Bidart “Udako Euskal Unibertsitateaz” *Zabal*, 4 (1973), 7-9.

*Zabal* inguruko sektore honek, Hegoaldeko marxista iraultzaile eta ezkerreko gazte abertzaleekin batera, UEUren lerratze politikoa behin eta berriro eskatu eta sustatu zuen. Hona hemen G. Bidartek 1973ko lehen Udako Ikastaroei egiten zien kritika, jardunaldiaren apolitizismoa zela-eta:

“Buruzagiak entsaiatu dira, unibertsitate hori ahal bezain apolitikoki apailatzera. Holako unibertsitate baten asmatzea eta egitea, ekintza politikoa ez balite bezala! Batzuk apolitismo hori surituz [sic], diruzko laguntzaren beharrez, bestek jakitate zientifikoa politikatik urundu bear dela erranez”<sup>572</sup>

Sektore honek beraz, UEUK harago joatea nahi zuen, baita lortu ere, maila teorikoan behintzat. Horren isla da UEUren 1975 eta 1976ko Uztaritzeko agiriak eta 1977ko Iruñeko agiria. Uztaritzeko agiriok *Zabalen* argitaratu ziren, baita Jesus Mari Larrazabalen kritikak ere<sup>573</sup>. Aurrerago ikusiko dugunez, *Zehatz* aldizkarian agiriok berriz kaleratu ziren. Agiriek praktikan ez zuten berebiziko eraginik izan UEUren ohiko antolaketa lanetan eta jardueretan.

*Zabal* sortu eta lau urtera, 1976an, aldizkariaren 19. eta azken zenbakia kaleratu zen. Desagertzeko aldagai erabakigarriak zeintzuk izan ziren P. Iztuetak ez ditu guztiz argi. Aldizkaria desagertu zenean, 500 aleko tirada omen zuen<sup>574</sup>, Iparralde osoan banatzen zen, eta Hegoaldera ezkutuan heltzen zen. Hala ere, P. Iztuetak aipatzen duenez, dinamika politikoa aldatu zen, Francoren heriotzarekin erbesteko euskaltzaleak Hegoaldera begira jarri ziren, eta batzuk itzuli egin ziren.

---

<sup>572</sup> G. Bidart “Udako Euskal Unibertsitateaz” *Zabal*, 4 (1973), 9.

<sup>573</sup> J. M. Larrazabalek UEUren 1975eko Ustaritzeko agiriaren gaineko kritika bien erreferentziak hauek dira: “Ustaritzeko agerpena dela eta (I)” *Zabal*, 16 (1976), 42-43 eta “Ustaritzeko agerpena dela eta...” *Zabal*, 17 (1976), 1-4.

<sup>574</sup> (Iztueta, 2001: 215). *Jakinek* urte horietan 900-1000 harpidedun zituen (ikus: “2.300 harpidedun” *Jakin*, 21 (1981), 254)



### 5.3.2. Zehatz, Zabalen jarraitzailea

*Zehatz* aldizkariak *Zabalen* jarraitzailetzat aurkeztu zuen bere burua 1977an<sup>575</sup>. Izan ere, *Zabalen* azken urteotan egile gisa aritutako batzuk, (esate baterako J. M. Larrazabal, J. M. Odriozola,...), *Zehatz* aldizkaria sortu nahi izan zuten *Zabal* proiektuari Hegoaldean segida emateko. Hain zuzen ere, horregatik *Zehatz* aldizkaria Donostian atera zen, (eta *Zabal* berriz, Baionan).

*Zabalen* inguruan ibilitako batzuk, *Zehatz* aldizkaria sortzean, edizio kontseiluan parte hartu zuten (J. Apalategi, G. Alfaro, P. Iztueta eta J. L. Davant). Hala ere, Beñat Oihartzabal, aurreko proiektuaren eragile eta zuzendarietako bat, *Zehatzen* ez zen ageri. Beraz, jarraikortasunak eta etenak izan ziren *Zabal* eta *Zehatzen* artean.

*Zehatz* aldizkariaren zuzendaria, Antton Ibareguren<sup>576</sup> izan zen. Aldizkariak bi kontseilu zituen: erredakzio kontseilua eta edizio kontseilua. Erredakzio kontseilua 7 pertsonek<sup>577</sup> osatzen zuten. Horietako batzuk aurretik *Zabalen* egile gisa aritu ziren (J. M. Larrazabal, K. Arroiabe, J. M. Odriozola, B. Bakaikoa, eta J. Sudupe). Aipatutakoak, Baionako *Zabalen* egile gisa aritu ziren aldiari aldizkariaren joera politikoan eragin handia izan zuten, *Zabalek* orduan hartu zuelako “marxismo-kutsurik gehien, marxista leninisten harira”<sup>578</sup>. Edizio kontseilua berriz, 12 lagunek<sup>579</sup> osatzen zuten, eta kontseilu honetan integratu ziren Baionako aldizkariaren sortzaileak.

Orotara, aldizkariaren inguruan, modu batera edo bestera 20 pertsona zeuden. Denen gaineko informaziorik ez dugu aurkitu, baina 11 kideren jaiotegun eta jaioterria

---

<sup>575</sup> Aldizkariaren aurkezpen testua honela hasi zen: “ZABAL, zabaltzen, bidea irekitzen, bide bat irekitzen saiatu gara Baionatik hiruzpalau urte hauetan. / ZEHATZ, zehazten, bidea zabaldu ahala zehazten saiaturako gara aurretik Donostiatik.” (ikus “Aurkezpena”, *Zehatz*, 1 (1977))

<sup>576</sup> Antton Ibareguren (1949-1989) abokatu eta Herri Batasunako diputatua (1980-1982).

<sup>577</sup> Erredakzio Kontseilua osatzen zuten honako hauek: J. A. Agirre, P. Apalategi, B. Bakaikoa, J. M. Larrazabal, J. M. Odriozola, J. Sudupe eta K. Arroiabe (idazkari lanetan). Erredakzio kontseilua 1977-1980. urteen artean gorabeherarik gabe aritu zen aldizkarian.

<sup>578</sup> (Iztueta, 2001: 218)

<sup>579</sup> Edizio Kontseilua berriz, besteak beste, *Zabal* aldizkariaren sortzaileak zeuden: J. Apalategi, A. Arrazola, J. D. Barandiaran, J. L. Davant, K. Elizegi, A. Figeroa, P. Iztueta, G. Alfaro (Lantziri), P. Lizardi, J. Urrujulegi, I. Usabiaga eta I. Usandizaga. Bigarren zenbakitik aurrera beste pertsona bat sartu zen taldera: K. Larrañaga.

ezagutu ahal izan dugu<sup>580</sup>. Hala, 11 lagunetatik 10, 40ko hamarkadan jaio ziren (1940-1949. urteen artean)<sup>581</sup>, hau da, *Zehatzen* ibili ziren garaian 29-40 urte zituzten. Alde horretatik *Zehatz* eta *Zabal* oso antzekoak dira, *Zabaleko* egileak 25-40 urte zituztelako<sup>582</sup>.

Bestalde, aipatutako 11 lagunetatik 9, Gipuzkoan jaio ziren<sup>583</sup>. Gehienak ikasketa unibertsitarioak zituzten, Zuzenbidea, Filosofia edo Soziologia ikasi zuten, eta batzuk Parisen (adb. J. Apalategi, P. Iztueta, J. M. Larrazabal, J. A. Agirre) edo Erroman (adb. K. Larrañaga, P. Iztueta) egin zituzten ikasketak. Alde honetatik ere *Zehatz* eta *Zabal* oso antzekoak ageri dira, *Zabaleko* lankide gehienak unibertsitate graduatuak zirelako<sup>584</sup>.

Donostiako aldizkarian argitaratutako editorial, artikulua eta arduradunen joera politikoen argitan, *Zehatz* aldizkari militantea zen. Hau da, marxismoan militatzen zuen aldizkari politikoa: “Euskal populuaren eta, bereziki, proletalgoaren aldeko burruka teorikoan interbentzio tresnatzat hartzen du ZEHATZek bere burua”<sup>585</sup>. Marxista izateaz gainera, abertzalea eta euskaltzalea zen. Hain zuzen ere, aldizkarian parte hartu zutenak EHAS, LAIA eta HASI ingurukoak ziren. Militantzia politiko hori artikulua batzuetan besteetan baino gehiago antzematen zen, bai erredakzio kontseiluko kideen lanetan, zein kanpoko kolaborazioetan.

*Zehatzen* azpiztitulua *Zientzia Sozialen Euskal aldizkaria* zen, eta beraz Giza eta Gizarte Zientzien arloko lanak argitaratu zituen, bai Ekonomia, Politika, Soziologia, Zuzenbidea, Hezkuntza, baita Literatur kritikari edota Psikiatriari buruzkoak ere. Aldizkariaren mailari dagokionez, *Zehatzen* bertan 1977ko aurkezpenean agertutakoa hona ekarri dugu:

<sup>580</sup> *Zehatz* aldizkariko 11 pertsona horiek honako hauek dira: J. A. Agirre, G. Alfaro (Lantziri), J. Apalategi, B. Bakaikoa, J. L. Davant, A. Iburguren, P. Iztueta, J. M. Larrazabal, J. M. Odriozola, J. Sudupe eta J. Urrujulegi.

<sup>581</sup> J. L. Davant zuberoarra 1935an jaio zen.

<sup>582</sup> (Iztueta, 2001: 213)

<sup>583</sup> Beste biak (J. L. Davant eta G. Alfaro) Iparraldean jaio ziren, bata Behe Nafarroan eta bestea Zuberoan.

<sup>584</sup> (Iztueta, 2001: 213)

<sup>585</sup> “Aurkezpena”, *Zehatz*, 1 (1977)

“... maila bat baino gehiagotan mugituko dena. Gaien tratamendu erraz eta zailagoa, simple eta konplexuagoak..., denetik argitaratuko da. Hori bai, **unibertsitate mailako ikerketa nahiz zabalketari aparteko garrantzia emanaz. Euskal Unibertsitateari bidea gertatuz.**”<sup>586</sup>  
[beltzak gureak dira]

*Zehatz* beraz, Euskal Unibertsitatea prestatze lanetan parte hartu nahi zuen aldizkaria izan zen, eta horregatik unibertsitate mailako aldizkaria izateko bokazioarekin sortu zen. Aldizkaria Euskal Unibertsitatearen aldeko lanetan kokatzen zelako, 1978ko 3. zenbakian<sup>587</sup> Euskal Unibertsitateari, eta une horretan lan horren alde gehien egiten ziharduen erakundeetako bati, UEUri, zenbaki monografikoa eskaini zion. Aipatutako zenbakian, J. M. Larrazabalen Euskal Unibertsitate eta UEUri buruzko artikulu bat, eta 1977ko UEUko Udako Ikastaroetan aurkeztutako zenbait lan argitaratu ziren, baita UEUko azken hiru urteotako agiriak ere (Uztaritzeko 1975 eta 1976. urtekoak, eta Iruñeko 1977koa). Euskal Unibertsitatearen gaiari zenbaki monografikoa eskaintzea ez zen harritzekoa, J. M. Larrazabalek berak aitortzen zuenez, “zeharo jakina da, bestalde, Euskal Unibertsitatea “modako” gaia bihurtu zaigula, bihurtu dugula”<sup>588</sup>. *Jakin* aldizkarian ere (hirugarren garaiko) lehen zenbakia Euskal Unibertsitatearen inguruko monografikoa izan zen. Kontua da *Jakineko* monografikoa, oro har, Euskal Unibertsitateari buruzkoa zela eta, *Zehatzekoa* guztiz lotuta zegoela UEUekin. Editorialean bertan Euskal Unibertsitatearen aldeko aldarria berretsi zuen *Zehatz* aldizkariak, eta alde horretatik UEUk egindako lanarekin bat egin zuen osoro:

“Hildo honetan Udako Euskal Unibertsitateak (U.E.U.) buruturiko lan benetan seinalagarri eta txalogarria da. Euskal Unibertsitateari markatu dizkion ezaugarri nagusiak (unibertsitate nazionala, herritarra, euskalduna) zeharo zuzenak direla pentsatzen dugu. (...)

**Ez dago esan beharrik ZEHATZ U.E.U.kin dagoela, ZEHATZ bere eremuko indar apal guztiekin U.E.U.n dagoela.** (...)

Euskal Unibertsitateak ez dugu, baina bai –eta hargatixe, hain zuzen ere– Udako Euskal Unibertsitatea. Ihaz, bere boskarren urtean, Iruinean bildu zen lehen aldiz. Orduko istudio eta dokumentu batzu dituzu zenbaki honetan bildurik, zientzia sozialen arloan han aurkeztu eta eztabaidatu ziren gehientsuenak. Ea, bada, aurtan berriro Iruinean elkartzuz lanotan beste urrats bat aurrera egiten dugun.”<sup>589</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>586</sup> “Aurkezpena”, *Zehatz*, 1 (1977)

<sup>587</sup> Aldizkariak ez du zenbaketa zehatz bat jarraitzen, batetik zenbaki arabiar jarraiak erabiltzen ditu aldizkariaren zenbakiak desberdintzeko (1, 2, 3,...), eta bestetik urteka erromatar zenbakietan jarraian urteko zenbagarren alea den (I.1, I.2, II.1 eta abar). *Zehatzek* sistema biak erabili arren, guk bakarrik erabili dugu, hain zuzen ere lehena, zenbaki jarraiena. Beraz, *Zehatz* aldizkariaren 3. zenbakia edo II.1 gauza berdina dira.

<sup>588</sup> (Larrazabal, 1978: 7)

<sup>589</sup> “Aurkezpena” *Zehatz*, 3 (1978)

Egia esan, *Zehatz* aldizkariaren zuzendaria zein kontseiluetan ibilitakoak, UEUko Udako Ikastaroetan parte hartzen zuten, bai antolaketa lanetan, bai hizlari gisa, bai UEUren agiriak idazten. Inguma datu-basearen arabera, *Zehatz* aldizkariko taldea osatzen zuten 20 kideetatik 11k, aldizkariaren argitalpen urteetan (1977-1980) UEUn parte hartu zuten<sup>590</sup>. Adibidez, erredakzio kontseiluko Baleren Bakaikoak, 1975-1980. urteen artean urtero Udako Ikastaroetan hitzaldi edo ikastaroren bat eman zuen eta 1983-1987 urteen artean UEUko zuzendaria izan zen. Halaber, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean Jesus Mari Larrazabalek UEUn oso aktiboki parte hartu zuen, bai hitzaldiak zein ikastaroak emanez, bai antolaketa lanetan, bai elkartearen lerro ideologikoa definitzen. Esate baterako, UEUk 1977an Iruñean onartutako agiria, Jesus Mari Larrazabalek aurkeztu zuen urte horretan UEUren Udako Ikastaroen azken egunean egindako batzarrean<sup>591</sup>.

### 5.3.3. Aldizkarien arteko jarraikortasunak eta aldeak

Belgikan argitaratzen zen *Branka* aldizkaritik Baionako *Zehatz* aldizkarira, proiektuetan ez bada ere, pertsonetan jarraikortasunak izan ziren. Izan ere, *Branka* aldizkariaren inguruan pertsona asko ibili ez baziren ere, gehienez dozena bat pertsona, horietako bik, Jean Louis Davant eta Jokin Apalategik, *Zabal* eta *Zehatzen* aktiboki parte hartu zuten. *Branka* ezker abertzaleko kultur aldizkaria izan zen, Giza eta Gizarte Zientzien arloko idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzen zituen. *Branka* aldizkariaren azken zenbakia osorik euskaraz argitaratu zen (nahiz eta ondoren aldizkaria hil egin zen). *Zabal* edo *Zehatz* berriz, osorik euskaraz argitaratutako aldizkari sozialista eta abertzaleak izan ziren, unibertsitate mailakoak eta Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak.

Aldizkariotako euskaltzaleok, egoera politikoaren normalizazioarekin eta bizitzaren joanarekin, muturreko jarrera politikoak apaldu dituzte (batzuk ezkerrean

<sup>590</sup> UEUn 1977-1980 urteen artean parte hartutako 11 kideak honako hauek dira: G. Alfaro (Lantziri) (1980), J. Apalategi (1977, baita aurretik ere), K. Arroiabe (1977), B. Bakaikoa (1977, 1979-1980, baita aurretik ere), J. L. Davant (1977, baita aurretik ere), A. Iburguren (1977, 1979), P. Iztueta (1977-1978), K. Larrañaga (1978), J. M. Larrazabal (1977-1980, baita aurretik ere), J. M. Odriozola (1977) eta J. Sudupe (1977-1979, baita aurretik ere). Iturria: [www.inguma.org](http://www.inguma.org) [kontsulta data: 2008-08-28]

<sup>591</sup> J. M. Larrazabalek batzarrean aurkeztutako testua aldaketa batzurrekin onartu zen (Aizpuru, 2003a: 93)

mantenduz, eta beste batzuk sozialdemokraziara edo eskumarago joz), eta militantzia politikoa eta jardun akademikoa bereizi dituzte. Hala, gaur egun, goi mailako euskarazko aldizkarietan parte hartzen dutenek ez dituzte *Zehatzen* moduan “proletargoaren aldeko burruka teorikoan interbentzio”<sup>592</sup> tresnatzat erabiltzen. Alde horretatik, bilakaera bat izan da euskarazko goi mailako produkzioaren normalizazio eta egokitasunerako beharrezkoa zena.

*Branka*, *Zabal*, *Zehatz* hirukotearekin kontrastean, laugarren aldizkari bat aipatuko da: PCEn ildokoa izandako *Saioak* aldizkaria. Izan ere, euskal unibertsitate proiektuaren inguruko ikuspegi desberdina eskaintzen zuen.

Ondoko lerroetan *Zehatz* eta *Saioak* aldizkarien arteko komunitasunak eta desberdintasunak aztertuko dira. Biak 1977an sortu ziren, baina *Zehatz*, *Saioak* baino arinago desagertu zen. Biak ala biak, Euskal Unibertsitatearen alde zeuden proiektuak ziren. Proiektuotan Euskal Herriko gazte ikertzaileek parte hartu zuten eta asko kanpoan formatutakoak ziren. Parisen ikasten ibili ziren *Zehatzeko* Jokin Apalategi eta Paulo Iztueta eta *Saioak* aldizkarian ibilitako Emiliano Fernandez de Pinedo. Aldizkari proiektu bietan ibilitako asko, salbuespenak salbuespen (adb. Julio Caro Baroja), ezkertiarak ziren. *Saioak* aldizkariaren gehiena gaztelaniaz argitaratzen zen, eta zenbaki bakoitzean artikulu bat edo bi euskaraz publikatzen ziren. *Saioak* aldizkarian euskarazko artikuluak 5 egilek<sup>593</sup> argitaratu zituzten, horietatik 2k, Emilio Lopez Adanek eta Andolin Eguzkitzak hain zuzen ere, *Zehatzerako* ere prestatu zituzten artikuluak.

*Saioak* aldizkaria 1977-1983. urteen artean kaleratu zuen Donostian egoitza zuen Precisa-k (*Promoción de Estudios Científicos de Investigación, S.A.*). Juan Carlos Jimenez de Aberasturi zen aldizkariaren zuzendaria<sup>594</sup> eta 21 erredaktore eta kolaboratzaile zituen aldizkariak<sup>595</sup>. Horietako asko gaur egun Espainia mailan

---

<sup>592</sup> “Aurkezpena”, *Zehatz*, 1 (1977)

<sup>593</sup> *Saioak* aldizkarian euskarazko lanak honakoek argitaratu zituzten: I. Sarasola, E. Lopez Adan *Beltza*, F. M. Ugarte, A. Eguzkitza eta J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegi*.

<sup>594</sup> J. C. Jimenez de Aberasturi gerora sortutako Errenteriako *Bilduma* aldizkariaren zuzendaria izan zen.

<sup>595</sup> Idazkari gisa, Miguel Sagües, eta erradaktore zein kolaboratzaile gisa: J. A. Agirre Elustondo, J. Arpal, L. M. Bilbao, M. Bizcarrondo, L. C. Nuñez, J. Corcuera, A. Eguzkitza, A. Elorza, P. Fernández

historialari ezagunak dira, hala nola, Antonio Elorza, Marta Bizcarrondo, Pablo Fernández Albadalejo, José Angel García de Córdazar, Javier Corcuera eta beste. Gehienak aro garaikidean espezializatuak, eta laster bertako zein Espainiako unibertsitateetako irakasle gisa ospea lortuko zutenak.

Aipatutako 21 kide horietatik 7 Inguma datu-basean daude, *Saioak* aldizkarian bertan argitaratutako artikuluetatik (A. Eguzkitza, E. Lopez Adan, L. C. Nuñez eta I. Sarasola) zein gerora ekoizitako lanetatik (J. A. Agirre, J. I. Paul eta L. Valverde). L. Valverde eta J. I. Paul izan ezik, Inguma-ko beste egile euskaldunak ez dira historialariak. Izan ere, erdaldunen taldea, jakintza-arloari dagokionez, nahiko homogeneoa bazen ere, hau da, historia garaikidearen inguruan harilkatuta, euskaldunena heterogeneoa zen.

*Saioak* aldizkariaren lehen zenbakian argitaratutako elebitako aurkezpenean agertzen denez, aldizkariak bere burua honela definitzen zuen: aldizkari intelektual gisa, Euskal Herriari buruzko lanak argitaratu nahi zituenak, “gure izaera nazionalen murgilduz, kultura unibertsalaren korrante berrietara bultzatuko duten emaitzetaz”<sup>596</sup> aritzeko. Aldizkaria Euskal Unibertsitatearen inguruko aldarrikapenera eransten zen, eta Euskal Herrian bertan zein atzerrian barreiatutako herritarren topagunea izan nahi zuen:

“Ez dago Euskal Unibertsitaterik, eta ez da berau gure kulturaren gaitzik ttikiena. Egiatzko Unibertsitate batek bete behar lukeen eginkizuna gure Herriaren kultura egarriak asetzen, ez du inork betetzen. Askotxo dira Euskal Herritik kanpo joan behar izaten dutenak beren iharduketa kultural eta profesionalari ekin ahal izateko. Eta hemen aurkitzen direnak, ez dute inguru egokirik aurkitzen beren ahalmenak herriaren zerbitzutan ipintzeko.

Batzuk eta besteak elkartuz, bertan egon edo kanpoan izan, ekintza intelektuala gure herrian finkatzen duteneri gure horriak eskainiz, egoera hau, apalki bederen, gozatzen ahalegin guztiak egin nahi genituzke.”<sup>597</sup>

Ikusi dugunez, *Saioak* aldizkariak, *Zehatz* aldizkariaren gisara, Euskal Unibertsitate ezarekin lotzen zuen bere sorrera. Baina bien arteko aldeak oso handiak ziren. Batetik aldizkariaren hizkuntza ereduari dagokionez, *Saioak* aldizkaria nagusiki

---

Albaladejo, E. Fernández de Pinedo, J. A. García de Cortázar, M. González Portilla, J. J. Laborda, E. Lopez Adan *Beltza*, J. I. Paúl, R. Rubio, I. Salasola, J. J. Solozábal, M. D. Valverde eta M. J. Valverde. *Saioak* aldizkariaren hurrengo zenbakietan beste bi hauek gehitu ziren: J. Caro Baroja, A. Moya eta F. J. Gómez Piñeiro.

<sup>596</sup> “Aurkezpena” *Saioak*, 1 (1977).

<sup>597</sup> “Aurkezpena” *Saioak*, 1 (1977).

erdaraz argitaratzen zen, artikulua bat izan ezik<sup>598</sup>, *Zehatz*, aldiz, osorik euskaraz; bestalde, artikuluen jiteari dagokionez, biak Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak baziren ere, *Zehatzekoak* doktrinarioak ziren, marxistagoak nahi bada, *Saioak* aldizkariak baino. Beraz, oro har gaztelaniaz ekoiztako *Saioak* aldizkaria ikerkuntzari lotuago zegoen, eta osorik euskaraz kaleratzen zen *Zehatz* marxismoaren doktrina politikoari.

Kuriosoa bada ere, urteekin *Zehatz*en aritutakoak ikerkuntza eta jardun intelektuala euskaraz egiten jarraitu dute, askok gaur egunera arte, eta urteekin beraien idazlanetan bereiztuz joan dira ikerkuntza lana eta militantzia politikoa. *Saioak* aldizkariak batzuk ordea, bi esparruen arteko bereizketa lausotu dute, eta batzuk erabat intelektual mediatikoak bihurtu dira, analisisa eta diskurtso politikoak asko hurbilduz (adb. A. Elorza).

Beraz, aldizkari politikoaren artean izan zen harremanik, batzuetan jarraikorrak eta besteetan urruntzekoak.

## 6. Euskal liburugintza 70eko hamarkadan

Euskal liburugintzaren hazkundea 70eko hamarkadan nabarmena izan zen. 1969. inguruan, urtean 50 liburu argitaratzen ziren, 1974. urtetik aurrera 100 bat liburu eta 1979tik aurrera urtean 200 bat liburu kaleratzen ziren<sup>599</sup>. Horregatik atal honetan, ezin dezakegu hamarkada osoko euskal liburugintza xeheki aztertu eta deskribatu, aurreko kapituluetan egin izan dugun moduan, honezkero euskarazko liburuen produkzioa zabalegia baitzen (hizkuntza handietan egindako produkzioarekin alderatuta, urriegia bazen ere). Beraz segidan goi mailako euskarazko liburugintza zertzelada lodi bidez agertuko dugu, eta ondoren euskarazko lehen argitaletxe unibertsitarioan zentratuko gara: Udako Euskal Unibertsitatean, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren eraketan garrantzia handia izan zuen proiektu editorialari heldu ziolako. Azkenik, atal honen amaieran, saiakera eta zientzia eta teknologia idazlanen sariak aztergai izango ditugu euskarazko goi mailako produkzio idatziaren sustatzaileak izan ziren heinean.

---

<sup>598</sup> Inguma datu-basearen arabera *Saioak* aldizkariak euskaraz 8 artikulua argitaratu zituen, 5 zenbakitan (1977-1983).

<sup>599</sup> (Torrealdai, 1983: 54)

Zertzelada lodiz segidan zirriborratuko dugun panoramak, hurbilketa xumeagoak posible ditu. Izan ere, Joan Mari Torreal dai *Jakin* aldizkarian hasi zen urteko euskal liburugintzaren gaineko azterketak argitaratzen. Lehena 1977an argitaratu zuen<sup>600</sup> eta geroztik gaur egunera arte lan horretan darrai<sup>601</sup>. Bere ustez, gerraosteko liburugintza, 1969. urtera arte luzatzen da<sup>602</sup>. Periodizazioa egiteko erabiltzen duen irizpidea liburu-politika da. Hain zuzen ere, 1969an lehen aldiz planteatzen baita, euskarazko liburugintzaren sustapenerako liburugintza-politika baten beharra. Proposamenaren egilea Rikardo Arregi izan zen. R. Arregi gazterik hil bazen ere (auto istripuz 26 urterekin), denbora izan zuen zenbait proiektutan parte hartzeko, besteak beste Jakinen, Lurren eta Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordean.

### **6.1. Arregi eta euskal liburugintzaren planifikazioa**

R. Arregi izan zen, euskal liburuarentzat liburu-politika eskatzen lehena. Horren gainean bi testu idatzi zituen: lehena *Jakin* aldizkariaren 34. zenbakiko editoriala<sup>603</sup>, eta bigarrena, *Politikaren atarian* bere obra postumoan argitaratu zen *Euskal liburugintzaren problematika*. Biak ala biak 1969an argitaratutakoak. *Jakinekoan* R. Arregik euskara salbatzeko bide aproposena euskal kulturaren planifikazioa zela defendatzen zuen. Planifikazioa, ordura arte funtzionatutako espontaneismoaren kontra planteatzen zuen. Planifikazioak kulturaren hainbat esparru ukitzen zituen, besteak beste, idazleak, unibertsitario euskaldunak, argitaletxe, aldizkariak eta abar. R. Arregik idazle zein unibertsitario euskaldunen batasuna eskatzen zuen, arrazoi desberdinengatik sakabanatuta zeudelako, idazleak muturka zeudelako eta unibertsitarioak, ikasketa desberdinengatik, unibertsitateetan sakabanatuta<sup>604</sup>. Argitaletxeetaz, berriz, euskal liburuaren politikarik ez zutela salatzen zuen:

---

<sup>600</sup> (Torreal dai, 1977b). Lehenengo honetan jakintza-arloen araberako kontaktak baino ez dira, baina gerora azterketa kuantitatibo sakonagoak egiten hasi zen.

<sup>601</sup> Artikulu horien 30. urteurrena ospatzeko J. M. Torreal daik, egindako lanaren berrikuspena izan nahiko lukeen *30 urte liburugintzan* liburua argitaratu zuen 2007an.

<sup>602</sup> (Torreal dai, 1983: 51)

<sup>603</sup> Editoriala *Jakin*-ek sinatzen du, baina Joan Mari Torreal dai zehazten du editorial honen egilea Rikardo Arregi dela (Torreal dai, 1983: 51)

<sup>604</sup> “Unibertsitatearekin sartu geranez gero, kulturaren planifikazio hontan, unibertsitarioak ere kontuan – ondo kontuan!- euki behar ditugu. Anitz euskaldun dago Unibertsitateetan. Mugaz handik ere bai.



“Ba da kultura baten ondorio sakonak dituan arazo tekniko bat: argitaldaria. Ez daukagu euskerarekin soilik lan egiten duan argitaldaria bat bakarra. Eta euskeraz ezer argitaratu ohi duten **editorialek ez dute euskal liburuaren politikarik**. Eta baldin badute, penagarria da. Editorial denek erderara jotzen dute, euskal gaiak erabiliz, nahi bada. Baina erderaz. Joera zabaldua da. Hedatua bezin okerra, guretzat. **Erderaz idatzitako liburu hauei atergabeko gerla egin behar diegu.**”<sup>605</sup> [beltzak gureak dira]

Hartara, euskarazko produkzioa inon izatekotan aldizkarietan zela aipatzen zuen R. Arregik:

“Azken urteotan, euskeraz egiten dan nagusia –ta gehiena- aldizkarien bidez eginga da. Baina aldizkariak, betiere, zatika egin behar dute, ez sistema eta planifikazio oso baten barruan. Hoienek lana bai, baina gehiago egin behar da. **Kulturazko gai guztiak, sakonki, euskeraz ematen hasteko ordua da.**”<sup>606</sup> [beltzak gureak dira]

Hala ere, aldizkariena ez zenez nahikoa, euskarazko liburuen beharrezko asetzeko, liburuak “probokatzea” proposatu zuen:

“**Liburuak probokatu, egitarau baten barruan noski, eta ez berekasa sor ditezten zai egonaz.** Liburuak probokatu, ikastolari, alfabetatzeari eta euskal unibertsitatei begiratu. Eta hau, euskeratu eta sortu, bietara. Beti bezala, kreaio-lanari eta literatura hutsari autonomia handia uzten zaie”<sup>607</sup> [beltzak gureak dira]

Bigarren testuan berriz, hau da, *Politikaren atarian* argitaratutakoa, R. Arregik euskal liburugintzaren egoeraren gaineko arazo larrienak aipatu ostean, liburugintza hobetzeko zenbait irtenbide proposatu zituen. Arazoen artean aipatzen zituen: argitaletxeen espontaneismoa euskarazko liburuak argitaratzean, argitaletxeen kontserbadurismoa argitalpen proiektuetan, literatura gazteari bizkarra ematen ziona (adb. G. Arestiren lanei bizkarra ematen ziona), liburu erosleen militantziaren mugak<sup>608</sup> (publiko konformatua zelako, euskararekin konformatzen zena eta obrak irakurtzen ez zituena), merkatuaren saturazioa betiko idazleak betiko gaietaz aritzen zirelako<sup>609</sup>,

---

Taldetxo bat edo beste kendu, eta beste denak sanabanaturik daude. Ez dakigu nola, baina bai zergatik, unibertsitatei hoiek elkartu egin behar dira” (Arregi 1969a: 7)

<sup>605</sup> (Arregi, 1969a: 7-8)

<sup>606</sup> (Arregi, 1969a: 8)

<sup>607</sup> (Arregi, 1969a: 8)

<sup>608</sup> “Gehienetan euskal liburuaren erostuna lehenengo abertzale zaharra da, liburua, euskaltzaletasunak eraginda eta ez irakurtzeko asmoz erosten duena.” (Arregi, 1969b: 7)

<sup>609</sup> “...betiko behi sakratuek eskribatzen dute. Horregatik tematika ukituegi bat dago gailen: Paisajea, sasi-historia meharra, personaiaxkak, lur-arraseko kostunbrismoa, eta abar.” (Arregi, 1969b: 8)

liburuak argitaratzeko inongo planifikaziorik ez egotea, ezta liburuaren politika argirik ere eta abar. Euskal liburugintzaren sasoiko problematika hori izanik, R. Arregiren proposamenak honako hiru atalak planteatzen zituen:

“Euskal liburuaren programazio batek oinarrizko hiru sail hauekin kontaktu behar du, espezializazioak geroko utzi beharko direla. Hiru sailok hauk izanen lirake:  
I).- KULTURAREN DIBULGAZIOZKO OINARRIZKO LIBURUAK:  
Zientziaren eta kulturaren gai guztiei buruzko liburu-sorta informe-ekarle bat behar litzake. Euskerazko kulturaren egoera kontuan hartuta, kulturazko gai gehienetan gabezia izugarrian bait dago, premi-premiazoak dira liburuok. (...)  
II).- ITZULPEN ETA SAIAERA LABURRAK  
(...)  
III).- LITERATUR-KREAZIO HUTSEZKO OBRAK.”<sup>610</sup>

Arestian aipatu moduan, bigarren testua bera hil osteko *Politikaren atarian* liburuan argitaratu zen, eta bertan jasota datorrenez, R. Arregik berak irakurri zuen 1969ko uztailean Urnietako taberna batean bere editorialeko taldekideei. Izan ere, R. Arregi euskal liburugintzaren planteamendu teorikoetatik harago joan zen, eta beste zenbait kiderekin batera Lur argitaletxea sortu zuen 1969an<sup>611</sup>. Lurrek euskarazko liburuak argitaratu zituen. Paulo Iztuetak dioenez, Lur argitaletxearen proiektuak liburugintzaren esparruko amateurismoa gainditu nahi zuen argitaletxea izan zen<sup>612</sup>. Lurreko liburuak bi jomuga izan zituzten: dibulgazioa, goi-dibulgazioa, eta euskaldunen alfabetatzerako testu egokiak publikatzea, hala nola, *Politikaren atarian* (1969), *Mendebaleko ekonomiaren historia: merkantilismotik 1914-era arte* (1970), *Marx-en Lan alokatua eta kapitala: alokairua prezioa eta irabazia* (1970), *Soziologiaren hastapenak* (1970), *Afrikan iraultzaren alde* (1970) eta abar. Goi dibulgaziora bideratutako obren tituluetan argi antzematen da ezkerreko politika egiten zuen argitaletxea zela. Horretaz gain, Lurrek argitaletxe laiko gisa definitzen zuen bere burua. Hala, argitaletxearen aldarrikapen laiko gisa ulertu behar da euskal protestantismoari buruz X. Kintanak idatzitako *Euskal protestantismoa zer zen* (1970) argitaratzea. Halaber, Lurrek euskararen egoerari eta batasunari buruzko zenbait obra kaleratu zituen (adb. *Euskara gaur*, 1971).

<sup>610</sup> (Arregi, 1969b: 10-12)

<sup>611</sup> R. Arregi Lur argitaletxearen sortzaileetako bat dugu, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia, Mario Onaindia eta beste batzuekin batera.

<sup>612</sup> (Iztueta, 2001: 161)

Lurrek Euskara Batuaren alde bi modutan egin zuen: batetik liburuen eskuizkribuak Euskara Batuan eskatuz, eta bestetik, euskararen batasunaren gaineko liburu garrantzitsuak argitaratuz (adb. G. Arestiren *Batasunaren kutxa*, 1970). Horretaz guztiaz gain, ezin da aipatu gabe utzi, euskarazko literaturaren zenbait harribitxi Lurrek kaleratu zituela, adibidez, J. Mirandek 50eko hamarkadatik idatzita utzi zuen *Haur besoetako* (1970) eta inongo argitaletzek publikatzen ez zuena.

Lur ez zen izan 70eko hamarkadan sortutako argitaletxe bakarra, gaur egun ezagunak diren beste batzuk ere, orduan sortu ziren: Etor (1970), Iker (1972), Elkar (1972), Gero (1973) eta abar<sup>613</sup>. Argitaletxeen gorakada Paulo Iztuetaren ustez,

“Arregi hil eta *Jakin* aldizkaria debekatu eta gero ematen da. Une honetan kulturgintzak giro arras politizatua bizi du. Talde politiko bakoitzak bere plataformak sortzera jotzen du edota, jadanik, daudenetan beren eragina izaten ahaleginduko dira. Polarizazioak gertatuko dira argitaletxeen artean, Lur eta Irakur Sail-en artean bezala, arrazoi ideologikoengatik, edota zatiketak, familia politiko berekoen arteko Etor eta Gero-ren kasuan bezala, euskara-ereduari buruzko borrokarengatik”<sup>614</sup>.

Giroa beraz, oso politizatuta zegoen, talde bakoitzak bere kultur plataforma eraiki zuen. Iparraldean esate baterako ezkerreko zenbait gazte euskaltzalek *Zabal* aldizkaria sortu zuten, eta ondoren lantaldeak Elkar argitaletxea antolatu zuen, baita liburu denda ere. Orduan finkatu ziren gaur eguneko Elkar Fundazioaren oinarriak.

Halaber, garai honetan euskarazko proiektu editorial sendoak gorpuztu ziren, bereziki ikastoletako edo eskola mailako euskarazko irakaskuntzarako materialak sortzeko proiektuak. Bi aipatuko ditugu: Gordailu eta Saioka. Gordailu 1968/69. ikasturtean sortu zuten ikastoletako irakasle talde batek, ikastolako umeentzako gai monografikoen gaineko liburuxkak prestatzeko. Saioka urte batzuk beranduago sortu zen, eta publiko berdinerara bideratuta egon arren, proiektua nahiko bestelakoa zen, alde batetik klasean erabiltzeko testuliburuak edo ikasmaterialak zirelako, eta bestetik oinarri didaktikoaren aldetik, berritzailea zelako, proiektuetan oinarrituta zegoelako, ez edukietan, ikaslearen parte hartze aktiboa eskatuz<sup>615</sup>. Gordailu eta Saiokatik kanpo,

---

<sup>613</sup> Argitaletxe zerrenda P. Iztuetaren lanetik atera dugu (Iztueta, 2001: 159-160)

<sup>614</sup> (Iztueta, 2001: 160)

<sup>615</sup> Jose Ramon Etxebarriak Natura-arloko ikasmateriala prestatu zuen. Esperientzia haren gainean idatzitako artikulutik atera dugu ondokoa: “proiektuen bidezko metodologia” landu behar genuela esan

beste elkarte eta argitaletxe batzuk ere argitaratu zituzten umeentzat liburuak. Esate baterako Kardaberaz Bazkunak Andima Sariekin saritutako zientzia eta teknika arloko liburuak argitaratu zituen. Halaber, Elhuyarreko kideek ere, ikastola eta instituturako liburuak kaleratu zituzten Eusko Ikaskuntzaren maileguarekin. Edozein kasutan, liburu hauek ez ziren produkzioaren aldetik goi-mailakoak eta beraz, tesi honetatik kanpo geratzen dira. Hala ere, aitortu behar da, liburuon maila eskolakoa bada ere, aditu euskaldunak prestatu zituztela, kasu batzutan unibertsitateko irakasleak zirenak eta besteetan euskal kulturgintzan aritzen zirenak. Bestalde, liburuok oso garrantzitsuak izan ziren jakintza-arlo bakoitzaren oinarritzko hiztegi berezitua finkatzeko.

## **6.2. Batasunaren eragina liburugintzan eta produkzioaren aitzindaritasuna**

Aurreko kapituluan euskarazko aldizkarietan zein liburu argitalpenetan hizkuntzaren gaineko arreta gehiegizkoa zela aipatu dugu. Hala, aldizkari edo liburuetan erabilitako hizkuntza ereduak garrantzi handiago zuen bertan jasotakoak baino. Fenomeno horri filologizazioa deitu diogu<sup>616</sup>. Egia esan, euskarazko produkzio idatziaren filologizazioa gaur egunera arte luzatzen dela esan daiteke. Ikus, esate baterako, Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK euskarazko doktorego-tesiak saritzeko sortu duten Koldo Mitxelena sariaren oinarriak:

**“Epaimahaiak ez du tesiaren edukia epaituko, tesian erabili den euskararen kalitatea baizik, eta, behar izanez gero, tesiak komunitate zientifikoan lortutako eragina. Horretarako, batez ere idazkuntza-moldea eta terminologian eginiko ekarpenak hartuko dira kontuan.”<sup>617</sup>**  
[beltzak gureak dira]

---

zidaten. Eta laster konturatu nintzen *Saioka* bera ‘proiektu’ bat zela, amaiara jakinik gabeko proiektua, bidea eginez egin beharrekoa, proiektuen metodologiaren adibide praktikoa. ‘Proiektua’ deitzen genuen hura ikasketa-prozesu bat zen, izatez, zeinean ikasleek eragile aktiboak izan behar zuten, prozesuaren ‘subjektuak’” (Etxebarria, argitaratzeaz).

<sup>616</sup> Kontzeptu hau Antón Figueroa galiziarraren lanetik Jon Kortazarren liburutik hartu dugu (Kortazar, 2002). A. Figueroa eta J. Kortazarrek filologizazioa erabiltzen dute hizkuntza diglosikoen literaturan hizkuntzak larregizko pisua duenean. J. Kortazarrek honela azaltzen du filologizazioa zer den: “Hizkuntza eta literaturaren arteko jokoan hizkuntzari pisu handia, larregia, ematen zaionean, sortzen da filologizaziorako joera hori.” (Kortazar, 2002: 58). Kontzeptua orain arte literatur kritikaren esparruan baino ez da erabili, baina guretzat kontzeptu horrek oso ondo espliketzen du literatur sormenetik kanpoko produkzio jasoan gertatzen dena.

<sup>617</sup> Ikus "Euskarazko Tesien Lehenengo KOLDO MITXELENA Sariak" 2008ko deialdiko oinarriak (3. puntua)

Beraz, 50eko hamarkadatik euskarazko produkzioaren arreta gune erabakigarria hizkuntzak izaten jarraitzen du, baita 70eko hamarkadan ere. Izan ere, Arantzazuko 1968ko biltzarraz geroztik, Euskaltzaindiak 10 urteko tarte bat ireki zuen, Arantzazun euskararen batasunaren inguruan emandako urratsen gainean behin betiko erabakiak hartzeko. Urte tarte horretan bai batasunaren alde<sup>618</sup> zeudenek zein kontrakoek<sup>619</sup> hainbat argitalpen kaleratu zituzten. Oro har, esan daiteke, batasunaren alde zeudenak horren alde egiteko eman zituzten argumentuetan gehien bat euskara baliatu zutela<sup>620</sup>, eta kontra zeudenak berriz, euskara erabilia ere erdarara askoz gehiago jo zutela. Azaletik ikusita, erdara erabiltzea batasunaren kontra aritzeko harrigarria bada ere, kontuan izan behar da, euskaltzale hauek ez zutela talde guztiz konpaktua osatzen. Batasunarekiko jarrera desberdina zuten, eta ia-ia bakoitzak euskaraz idazteko bide propio bati jarraitzen zion. Erdarak alde horretatik konpaktutasuna ematen zien, erdarak, euskarak ez bezala, eredu zehaztua zuelako. Bestalde, harrigarria bada ere, batzuk nahiago izan zuten, euskarari uko egin, defendatzen zuten euskara eredia erabili baino. Finean, askorentzat, euskaltzale zaharrentzat, bereziki abertzale zaharrentzat, eta EAJ ingurukoentzat, euskararen batasuna, eta hortik sortutako Euskara Batua, euskara erregistro idatzian erabiltzeari uzteko aitzakia izan zen.

Hizkuntzaren batasunak euskal kulturgintzako sektore guztiak ukitu zituen, bi aukera baino ez zeudelako: Euskararen Batua alde edo kontra jartzea, eta euskaltzale guztiak bataren edo bestearen alde jarri behar izan ziren. Egileen lumak ere, euskararen alde edo kontra jarri ziren, bai haren aldeko argumentuak emanez, bai eredu batean edo bestean euskaraz idatziz. Egileez gain, argitaletxeak ere auzian sartu ziren. Hala, Jose Estornes Lasak zenbait argitaletxeren izenean<sup>621</sup>, Euskaltzaindiari 1973an igorri zion eskutitz bat H letraren erabilera bertan behera utz zezan eskatuz. Euskaltzaindiak

---

<sup>618</sup> Batasunaren aldeko lanen artean honakoak aipatu behar ditugu: *Txillardegiren Euskara Batua zertan den* (1974), beste tirada bat izan zuena 1975an, eta 1977an bigarren edizio bat; edota Gabriel Aresti eta Xabier Kintanaren *Batasunaren kutxa* (1970).

<sup>619</sup> Euskararen batasunaren aurka Josu Arenazak hainbat lan argitaratu zituen, bai liburu bai artikulua formatuan (*Tus hijos y el euskera (el mito del "BATUA"*, 1974); Antonio M<sup>a</sup> Labaienek *Sasi-batasuna: mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación* (1972), eta abar.

<sup>620</sup> Salbuespenak badira, esate baterako Luis Villasantek batasunaren alde *Hacia una lengua literaria común* lana kaleratu zuen (1970).

<sup>621</sup> Honako argitaletxe hauen izenean egin zuen eskaria J. Estornesek: Agur, Auñamendi, Auspoa, Ediciones San Antón, Edili, Goiz Argi, la Gran Enciclopedia Vasca, Itxaropena, López Mendizabal eta Ekin.

eskaria aztertu ostean, idazle gehienek H letra erabiltzen zutela eta Arantzazun hartutako erabakia berretsi zuten<sup>622</sup>.

Hizkuntzak eta bere batasun prozesuak erregistro idatzian zuen gehiegizko pisua alde batera utziko dugu, garai honetako goi mailako euskarazko produkzioak bizi izan zuten (eta ia gaur egunera arte, luzatzen den) beste fenomeno bat aipatzeko: produkzioaren aitzindaritasuna. Hau da, 70eko hamarkadan euskarazko produkzioa, Literatura eta Hizkuntzalaritzatik kanpo hedatu zen heinean, hots, Matematika, Fisika, Kimika, Ekonomia, Artea, Geografia, eta bestelako jakintza-arloetara zabaldu zen neurrian, jakintza-arlo askotan euskara lehen aldiz erabilia izaten hasi zen. Egile euskaldunek aitzindaritasun hori lehen pertsonan bizi zuten. Izan ere, aise jabetzen ziren gai horietaz euskaraz ez zuela lehenago inork idatzi. Izatez, gai batzuei buruz bazeuden lehenagoko aurrekariak, adibidez gerraurrekoak, baina horiei ez zitzaaien garrantzia handirik ematen. Askok, gerraurreko ekoizpena, edo ez zuten ezagutzen, edo ezagututa ere, ez zitzaaien baliagarria gertatzen, lexiko garbizaleegia zuelako<sup>623</sup> edota 70eko hamarkadan nagusitzen ari zen hizkuntza eredu erabilgarriagoa zelako. Eredu berri hori bereziki sortua zenez erregistro formalerako (hau da, idatzirako zein irakaskuntzarako), ezin erabilgarriagoa suertatzen zen zientzia, teknologia eta ezagutza jasorako.

Hala, 70eko hamarkadako zientzia eta letrei buruzko liburu askoren hitzaurreetan ohikoa zen egileak (edo egileek) obrak euskarari egindako ekarpena nabarmentzea eta lanak alor batean lehen aldiz irekitako zirrikitua edo proiektuaren aitzindaritzea azpimarratzea. Eta berdin zuten Giza eta Gizarte Zientzien arloko obra bat izatea edo Natur Zientzien arlokoa, denetan, obran erabilitako euskararen gaineko oharrekin batera, jakintza alor batean euskaraz jarritako lehengo liburuari buruzko

<sup>622</sup> Ikus afera honen gainena *Euskera* buletinean agertutako dosiertxoak ("H letra dela eta" *Euskera*, 19 (1974), 389-395. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51843.pdf> [kontsulta data: 2009-08-03])

<sup>623</sup> Adibidez, Kimika eta Fisikari buruz 70eko hamarkadan ibilitako zientzialari euskaldun batzuk gerraurreko Aita Gabirelen *Pisia* eta *Kimia* ezagutzen bazuten ere, eta saio gisa interesgarria iritzi arren, beraientzat ez zen baliagarria horko euskara, Kimika eta Fisikaren irakaskuntzara bideratutako liburuetan.

aipeak eskaintzen ziren. Aitzindaritzaren horren gainean egileak modu desberdinean aritu ziren, batzuk tentuz, eta beste batzuk berriz, heroikotasun ukituarekin<sup>624</sup>.

Noski ezin da ahaztu, zientzia arloko euskarazko liburugintzaren aitzindaritasunean elementu garrantzitsua izan zirela Espainiako A. Suarez presidentearen hitz xaxatzaileak, Fisika nuklearra euskaraz irakasterik ez zela esanez<sup>625</sup>. Pedro Miguel Etxenike edo Jose Ramon Etxebarriaren lan batzuk horren adibide dira. Nahiz eta ikertzaileak heroiak ez diren, beraien ekintza aitzindariak, hau da, Fisika, Kimika, Natur Zientziak edo bestelako esparruetako lanak euskaraz jartzeak, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren baitan (baita handik kanpo ere) ospe eta erreferentzialtasun ukaezina eman die. Aldiz, 1970en ostean zientziari buruz euskaraz idatzi izan dutenek, ez dute halako erreferentzialtasunik lortu beraien jakintza alorretik kanpoko Komunitate Zientifiko Euskalduneari. Adibidez, Jose Ramon Etxebarria eta Jose Mari Pitarke, biak ala biak Fisikari buruzko euskarazko produkzioa dute. J. R. Etxebarriaren ekarpenak azken urteotan euskara zientifikoaren esparrukoak dira, eta J. M. Pitarkerenak aldiz, Fisikari buruzkoak. Baina Komunitate Zientifiko Euskalduneari, Fisikaren alorretik kanpokoan, J. R. Etxebarriaren erreferentzialtasuna handiagoa da J. M. Pitarkerena baino (nahiz eta J. M. Pitarke CIC Nanoguneko zuzendaria den). Baina, eman dugun adibidea ez da soilik aplikagarria Fisikan, beste edozein jakintza alorretan berdin gertatzen baita. Izan ere, euskarazko zientziak aitzindaritasuna galdu duen heinean, eta normaltasuna irabazi duen neurrian (hizkeran, lexikoan, aditueta...), zientzialaria euskaldunaren erreferentzialtasuna gutxitu da bere jakintza alorretik kanpo.

---

<sup>624</sup> Esate baterako Rikardo Arregiren politikari buruzko liburuaren hitzaurrean honako zetorren: “Zientzia politikoaz egiten den euskerazko lehendabizikoa da. (...) /Politika bera expikatu duen libururik ez da oraindik argitaratu. Liburu honek abantaila hori du. Bainan baita ere oztopo hori. Abantaila hori, bere erruak aitortzerakoan lehen liburuaren eskusa egin dezakealako. Oztopoa berriz, berekasa ibiltzen ikasi beharrean aurkitzerakoan inork baino arrisku handiagoak dituelako. / Liburu honen argitaratzearen giroan kontuan izan behar den lehen baldintza horixe da beraz: lehendabizikoa izatea” (Arregi, 1969c: 18)

<sup>625</sup> (Aizpuru, 2003a: 25)

### 6.3. UEU argitaletxe unibertsitarioa

Martin Orbek UEUko zuzendaritza hartu zuenean (1976), elkartearen idazkaritza Hegoaldean kokatu zuen. Zuzendari berriak UEUren azpiegitura sendotzeko lanak abian jarri zituen, eta besteak beste, UEUren berariazko idazkaritza zabaldu zuen Bilbon (ordura arte UEUren idazkaritza Ikas elkartearena baitzen). Idazkaritzatik koordinatu ziren 1977ko Iruñeko Udako Ikastaroak, Hegoaldean UEUk antolatutako lehen ikastaroak izan ziren. Ikastaro horiei begira, UEUk ikastaroetako materiala aldeztu aurretik prestatu eta ikastaroetarako argitaratzeko apustua egin zuen, baita lortu ere. Hala ere urte horretan ikastaro adina materialik ez zen argitaratu, UEUk 20 ikastarotik gora antolatu zituelako<sup>626</sup>, eta 12 liburu argitaratu. Edozein kasutan 1977. urtean UEUk jarduera berri bati hasiera eman zion: unibertsitate mailako testugintzari, hasiera batean Udako Ikastaroekin oso lotuta zegoena.

Hala, Iruñeko 1977ko Udako Ikastaroetan urtean zehar taxututako materialak erabili ziren eta Banco Vizcaya-ren laguntzarekin argitaratu. Adibidez, Jacinto Iturbek 1977ko Udako Ikastaroetako kimikari buruzko ikastarorako argitalpenaren sarreran honela zioen:

“Kimikari buruzko hamar egunetako saio bat prestatzea ez da gauza erraza; alde batetik, gaiak berak dituen konplexutasunaren kausaz, eta bestetik, hizkuntzak berak dituen zailtasunen kausaz. Baina kurtsilo hau prestatzea, garra[n]tzizkoa eta ahantzi ezinezkoa iruditu izan zaigu, gure herriak dituen premien erantzule izanen delakoan. Gauza batzu ondo eginak izanen dira, beste batzu, asko, txarto. Ondo daudenak kritika, txarto daudenak, zuzen, eta hobe egin; helburua izan dadila: zientzia euskaraz egin.<sup>627</sup> [azpimarrak jatorrizkoan]

Ikastaroekin lotutako materialak izanik, UEUren hasierako argitalpenak, ikasmaterial argitaratuak ziren, ez zuten Lege Gordailurik, ezta ISBN zenbakirik ere, eta maiz aurkibiderik, hitzaurrerik, bibliografiarik gabe, eta gora behera ugarirekin kaleratu ziren. Ia-ia obra bakoitzak bere *historia* zuen, hau da, pasadizoz, anekdotaz,

<sup>626</sup> Datu zehatza ematea zaila da, datuak ez datozelako bat. M. Aizpuruk 25 ikastaro izan zirela aipatzen du (Aizpuru, 2003a: 85-86) eta Inguma datu-basean 38 ikastaro agertzen dira (ikus [www.inguma.org](http://www.inguma.org) [kontsulta data: 2008-09-17])

<sup>627</sup> (Iturbe, 1977: 3)



kasualitatez, eta beste hainbat gertakariz hornituta zegoen<sup>628</sup>. Esate baterako, 1977ko Udako Ikastaroetako *Ekosistemen ekologia* ikastarorako *Ekologia* materiala, ez zen inprentara eramateko garaiz amaitu, hala ere, Udako Ikastaroetarako prest egon zen. Kontuan izan behar da obra honek 3 tomo zituela, ordura arte euskaraz landu gabeko gai baten gainean zela, euskarazko hiztegirik ez zutela<sup>629</sup> eta hainbat egilek parte hartu zutela bertan. Garaiz amaitzea zaila zen. Gainera egileetako asko, garai hartan Biologia karrera erdaraz ikasten ari ziren ikasleak ziren eta euskaraz doi-doi alfabetatuta zeuden. Ikastaroaren antolatzaileak Jesus Mari Txurruka eta Jose Ramon Etxebarria izan ziren, garai hartan Zientzi Fakultateko irakasleak. Zientzia Fakultateko Euskal Kultur Taldearen (Z-EKT) inguruan prestatu zuten ikastaroa eta materiala.

Garai honetako beste ezaugarri bat da, UEUn emandako hitzaldietako testuak testuliburu batean biltzeaz gain, batzuetan artikulua forma eman eta sasoiko aldizkarietan argitaratzen zirela. Edo alderantziz, artikulua, hitzaldi eta ikastaroen abiapuntua izan ziren, eta ondoren, testuliburua ateratzen zen. Garai honetan euskarazko hiru aldizkari jaso zeuden: *Elhuyar*, *Jakin* eta *Zehatz*. 70eko hamarkadan aldizkari talde argitaratzaileak UEUn parte hartzen zuten. Beraz, nahiko naturala zen Udako Ikastaroetako hitzaldiak testu gisa aipatutako aldizkarietan argitaratzea, eta alderantziz, artikulua ikastaro bat antolatzeko bidea izatea. Norabide bateko eta besteko zenbait adibide argi<sup>630</sup> emango ditugu:

- Hitzaldietatik artikulura: 1977ko Udako Ikastaroetan M. B. Aboitiz eta E. Iturrazpek “Fotografiaren kimika” izeneko hitzaldia eman ondoren, *Elhuyar aldizkarian* izenburu berarekin zenbait artikulua argitaratu zituzten<sup>631</sup>. Bigarren adibidea *Jakin* aldizkariari dagokio. 1977ko Udako Ikastaroetako

---

<sup>628</sup> Julen Kalzadaren *Herriak eta Gizonak* (1979) obra, kartzelan prestatu zuen, eta UEUK argitaratu arte liburuak ibilbide luzea egin zuen (Aizpuru, 2003a: 123)

<sup>629</sup> Liburua 1976/77. ikasturtean egin zenez, ezin izan zituzten erabili 1977an bertan argitaratutako hiztegiak erabili. Beraz urte honetako materialak euskarazko hiztegi erreferentzialik gabe egin ziren. *Hiztegi modernoa* oso garrantzitsua izan bazen ere, ez zen 1977ra arte kaleratu eta eredu ortografikoa berehala baztertu zuten hiztegiaren egileak beraiek. Jakin taldekoek aurreko urtean Natur Zientzien hiztegia atera zuten, baina nahiko bide garbizaletik jo zenez, ez zuen arrakastarik izan. L. M. Mujikaren 1977 hiztegi teknikoak (*Diccionario general y técnico/Hiztegi orokor-teknikoa*) izan zen kontsulta iturri bakarrenetakoa.

<sup>630</sup> Zaila da baieztatzea zein hitzaldiri dagokion zein artikulua, hitzaldien izenburua eta artikulua normalean ez direlako zehatz mehatz berdinak.

<sup>631</sup> Ikus “Fotografiaren kimika” artikulua *Elhuyar*, 12 (1977) 39-45; 13 (1977), 14-21; 15 (1978), 89-95.

Ekologiari buruzko ikastaroan hizlari eta antolatzaile gisa aritutako egile bik, J. M. Txurrukak eta J. R. Etxebarriak hitzaldia eman eta UEUk materiala argitaratu ondoren, *Jakin* aldizkarian artikulu bana argitaratu zuten<sup>632</sup>.

- Artikulutik liburura, eta tartean hitzaldia/ikastaroa: *Elhuyar* aldizkarian Jacinto Iturbek, kimikaren irakaskuntzari buruzko zenbait artikulu kaleratu zituen 1975-1977 urteen artean, eta UEUren 1979ko Udako Ikastaroetan Kimika Sailak gai horren gaineko ikastaroa antolatu zuen, J. Iturbe ikastaro arduraduna izanik. Ikastaroko 4 egileren artean (Josune Aristondo, Maite Arraiago, Jacinto Iturbe, Jabier Larrazabal) *Kimika irakaskuntza* materiala prestatu zuten eta UEUk argitaratu<sup>633</sup>. Adibide gehiago eman genitzake, baina ez dugu luzatu nahi<sup>634</sup>.

Beraz, ikusten denez, 70eko hamarkadan euskaraz funtzionatzen zuen zirkuitu txiki baina egituratu bat bazen, egile euskaldunei aukera ematen ziena plaza desberdinetan aritzeko eta bidean lanak ontzen joateko. Hau da, artikulu batekin hasi, eta, azkenean, gai baten gaineko liburua ateratzeko, tartean hitzaldiak emanez. Beraz, orain gaintitzen hasten da ordura arteko plaza bakarreko sistema. Izan ere, 70eko hamarkadara arte zientziaren esparruan artikulu bat argitaratzen bazen, *Jakin* aldizkarian adibidez, mugarrira ezarrita geratzen zen, eta egileak ez zuen bere euskarazko artikulua zabaltzeko beste biderik, ez hitzaldi, ez ikastaro, ezta liburu monografiko batean ere.

Laburbilduz, honek guztiak (hitzaldiak, ikasmaterial eta artikuluen argitalpenak) euskarazko unibertsitate mailako zirkuitua ahalbidetzen zuen. Zirkuitu hau

<sup>632</sup> Hitzaldien gaineko detaileak ezagutzeko jo Inguma datu-basera eta artikuluei buruzko informazioa bibliografian jaso dugu (Txurruka, 1978 eta Etxebarria, 1978b)

<sup>633</sup> Aristondo, J. eta beste (1979): *Kimika irakaskuntza*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/427\\_KIMIKAIRAKASKUNTZAN.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/427_KIMIKAIRAKASKUNTZAN.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17]

<sup>634</sup> Topatu dugun beste adibide bat *Ekuaizoen ibilbideari* dagokio. Jesus Mari Goñik, Elhuyar taldeko kideak, 1976an *Elhuyar* aldizkarian argitaratzen hasi zen Ekuaizoei buruzko artikulua, eta hurrengo urteko UEUren udako ikastaroetan ekuaizoei buruzko 7 hitzaldi eman zituen Elhuyar taldeak. Beraz probableena da J. M. Goñik UEUn parte hartzea, Elhuyarreko beste kide batzurekin batera, edo inkluso, berak saio guztiak ematea (Hitzaldiak eman zituen egilearen izen deiturak ez dira ezagutzen, urte honetako dokumentazio zehatzik ez dagoelako UEUren artxiboan). Hitzaldiak Aljebra Sailak antolatutako Matematika ikastaldiaren baitan eman ziren, eta hartarako Elhuyar taldeak *Algebra* ikasmateriala prestatu eta UEUk argitaratu zuen. *Algebra* liburuan ekuaizoei buruzko atalek hitzaldiekin bat egiten dute. (Ikus Elhuyar Kultur Elkarte (1977): *Algebra*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/448\\_ALGEBRA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/448_ALGEBRA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17])

unibertsitatetik kanpo kokatuta zegoen, euskal kulturgintzan errotuta, nahiz eta bertako kideetako asko unibertsitateko irakasleak ziren (UPV/EHUkoak ziren batik bat). Beraz, euskarazko komunikazio zientifikorako lehen oinarri sendoak garai honetan jarri ziren, nahiz eta oraindik jakintza-arlo batzuetan euskaraz lantzen ziren gaietako batzuk oso oinarrizkoak ziren (adibidez, taula periodikoa Kimikan).

Denborarekin, pixkanaka pixkanaka, *Jakin* eta *Elhuyar aldizkariak* urrunduz joan ziren UEUtik. Halaber, UEUren jarduera akademikoa eta liburu argitalpena bereiztuz joan zen. UEUn gaur egun ikastaroren baten haritik liburua atera arren, ez da ohiko bidea, argialetxea eta jarduera akademikoa nahiko banatuta daudelako. Honekin guztiarekin ez dugu esan nahi, gaur egun egile batek ez duela bere lana zabaltzeko zirkuiturik, baizik eta zirkuitua asko hazi eta zabaldu dela, hau da, hasierako trinkotasuna galdu duela.

Hiru hamarkadetako ibilbide honetan, UEU unibertsitate mailako euskarazko testugintzara dedikatu da, eta 1977-2007. urteen artean, Inguma datu-basearen arabera, 308 liburu eta 18 itzulpen lan<sup>635</sup> kaleratu ditu. Bistan da, UEU argialetxe gisa, ez dela itzulpengintzan gehiegi murgildu, eta jatorriz euskaraz prestatutako materialen argitalpenetan zentratu dela. Batetik, eskura zuen materialaren ekoizpen bide naturala hori zelako, alegia ikastaro edota sailetatik etorritako materialak zirelako, eta bestetik UEUK ez zuelako nahikoa baliabiderik itzulpen proiektuetan sartzeko.


Bataz beste UEUK urtero 10 bat liburu argitaratu izan ditu. Hasierako urteetako (1977-1980) produkzio ez-tandaren ondoren, ekoizpen gorabeheratsua izan zuen, garaiko abagune historikoaren isla moduan interpretatu behar dena. 1981ean G. Monreal UPV/EHUko errektorea zela, UEUK harekin negoziaketak hasi zituen. Urte inguru horretan UEU eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak eten egin ziren, lehen Eusko Jaurlaritza, Euskararen Normalizazio Legea eta abar. Horri guztiari gehitu behar zaio diru-laguntzen gorabeherak<sup>636</sup>. Azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako

---

<sup>635</sup> Itzulpenak esatean, liburu formatuko itzulpen lanak esan nahi dugu, eta ez kapitulu itzuliak.

<sup>636</sup> 1977 eta 1978. urteko argitalpenak Banco Vizcaya-ren babesarekin egin ziren, baina kasu honetan diru-laguntza baino, aipatutako bankuak egiten zuena zera zen, liburuak bere inprentan bota.

Udal Patronatua eta Eusko Jaurlaritzaren programa desberdinen bitartez, euskarazko unibertsitateko ikasliburu eta saiakeren UEUren produkzioa erabat egonkoritu da.



**IV.4. Grafikoa:** Euskarazko unibertsitate mailako liburuaren produkzioa eta UEUrena 1969-2007. urteen artean. Ezkerretik eskumara urteak, eta goitik behera argitalpen kopurua. Iturria: Inguma datu-basea

UEUren hiru hamarkadetako ekimen editorialak batz bestea beste unibertsitate mailako euskarazko liburuaren laurdena ekoitzi du. Hasierako urteetan bere argitaletxea nagusi zen, unibertsitate mailako euskarazko liburu produkzioaren gehiena berak ateratzen baitzuen. Baina 80ko hamarkadatik aurrera, unibertsitate mailako testugintza UEUtik kanpo ere ekoizten hasi zen, gero eta argitaletxe gehiagok kaleratzen zuen mota honetako argitalpenak, eta horren ondorioz euskarazko goi mailako liburugintzak ondoko urteetan hazkundera ezagutu zuen. UEUren liburu produkzioa berriz, urteetan nahikoa egonkorra izan da, eta ez du hazkunde aipagarriarik izan.


### 6.3.1. Zientzien nagusigoa UEUren ekimen editorialean

Jakintza-arloei dagokionez, UEUren argitaletxeak orotariko gaien gaineko obrak argitaratu ditu. Hala ere, testu corpusaren ia erdia Natur Zientziak eta Zientzia Hutsei buruzko lanek osatu dute (ikus IV.4. Taula).

Jakintza-arlo multzoa	Argitalpen kop.
Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak	125
Gizarte Zientziak	100
Giza Zientziak	60
Ingeniaritza eta Teknologia	24
Osasun Zientziak	10
Artea eta Musika	5
Zientzia aplikatuak	2
Guztira	326

IV.4. Taula: UEUren produkzioa jakintza-arloen multzoen arabera 1977-2007. urteen artean. Iturria: Inguma datu-basea

Ikuspegi diakroniko batetik, ezin liteke esan Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak nagusi izan direnik beti. Joerak badira, eta hasierako urteetan, batez ere, aipatutako esparruan materialak argitaratu baziren ere, esparru horretako produkzioa gaur egun erabat jaitsi da. Are gehiago, 2007. urtean UEUK ez zuen esparru zabal honetan lanik kaleratu. Osera, Gizarte Zientzien esparruan, alderantzizko fenomenoak gertatu da. Hasieran, UEUK jakintza-arloen multzo honi buruzko materialen bat edo beste kaleratu arren, 80ko hamarkadaren amaieratik, eta bereziki 90eko hamarkadan Gizarte Zientziek produkzio hazkundea ezagutu dute. Giza Zientzien esparruak berriz, urte hauetan guztietan produkzio txikia eta nahiko ezegonkorra izan du (ikus IV.5. Grafikoa).



IV.5. Grafikoa: UEUren argitalpenak (liburuak eta itzulpenak) Natur Zientziak-Zientzia Hutsak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientzien esparruetan 1977-2007. urteen artean. Iturria: Inguma datu-basea.

Grafiko honetatik (IV.5. Grafikoa) atera daitekeen ondorio nagusia da, hasieran behintzat Natur Zientziak eta Zientzia Hutsen jakintza multzoak nagusitu zirela UEUren argitalpenetan, eta beraz, UEUren liburugintzak, jakintza-arloaren aldetik, gerraosteko tradizioarekin erabat hautsi zuela.

Gerraostetik goi mailako euskarazko produkzioa Giza Zientzien ingurukoa zen, hau da, Literatur kritika, Historia, Pentsamenduaren historia, Teologia eta Filosofiaren ingurukoa (adb. *Euzko-Gogoa*, *Egan* edota *Jakin* aldizkariak argitaratzen zutena). Baina 70eko hamarkadan, paradigma erabat aldatu zen. Garai honetan sortu ziren erakunde eta elkarteetan (UEUn, Elhuyarren, Z-EKTn,...) Natur-Zientziak eta Zientzia Hutsak nagusi ziren, hori bereziki elkarte horien ekimen editorialetan antzematen da, hau da, liburu argitalpenetan, aldizkarietan edota hiztegietan. Zergatik paradigma aldaketa hori? Seguru aski, zenbait arrazoi desberdinek eragin zuten. Alde batetik “Adolfo Suarez efektua” deitu daitekeena, aipatu beharra dago. Baina, bestalde, egile euskaldunen sekularizazio oldea nabarmendu daiteke, eliztar ugarik 60ko hamarkadaren amaieran sotana kendu eta prakak jantzi zituztelako, eta horren ondorioz euskal letretan sekularizazio handia eman zelako. Baina ezin da ahaztu, belaunaldi honetako gazteetako asko (M. Zalbide, R. Saizarbitoria, X. Kintana, I. Sarasola, J .R. Etxebarria eta beste) ez zirela apaiztegitik pasatu, eta batzuk gainera, erabat ateo deklaritzen zirela. Gazte hauek, eta aurreko garaitik zetozen eliztar ohiek, gai modernoak, kaletarrak eta berriak landu nahi zituzten bai Literaturan, bai Kazetaritzan, bai Zientzian zein jakintzaren alorrean ere. Unibertsitate mailako esparruan zebiltzan gazteak, euskararen tradizio batekin moztu zuten, hau da, euskaraz gai humanistikoak tratatzea, eta gai zientifikoak besarkatu zituzten: espektroskopia, erlatibitatearen teoria, eboluzioa, estatistika, zenbakiak eta abar.

Hala, 50eko hamarkadan, *Orix*e eta jesuiten eskolakoentzat, ezagutza jaso, ezagutza filosofikoa eta teologikoa zen, ez kimikoa, ez Natur Zientzien arlokoa ere. *Euzko-Gogoa* aldizkariak, J. Zaitegi zuzendari zuela, goi mailako ezagutza euskaraz jartzeko saiakera horretan, gai jakin batzuetan euskarazko ekoizpena sustatu zuen, *zientzia gogorak* baztertuz.

Ondoren, *Jakin* aldizkariaren ingurukoak, aipatutako ereduak irauli zuten, paradigma berria proposatuz, bai gaiak dagokionez, bai hizkuntza ereduari dagokionez. Hau da, euskarak kultura jasoaren transmisiorako hizkuntza izan behar bazuen, edozein gai euskara ulergarri batean jarri behar zen. Horretarako J. Intxausti gazteak metaforikoki *Orixen* maisua hil egin behar izan zuen eta, beste apaizgai batzuekin batera *Jakin* aldizkaria birfundatu. Molde berriko *Jakin* aldizkarian zientzia artikuluren bat edo beste argitaratu zen arren, artikuluek salbuespen ziren. *Jakin* aldizkarian ere, Giza eta Gizarte Zientzien gaiak lantzen ziren gehien bat, baina ez garaiko errealitateak urrunduak, aktualitatezkoak baizik, hau da, euskararen batasuna, desarmaea, sozialismoa, Filosofia, Teologia berria... eta 60ko hamarkadan *Jakinen* Natur-Zientziei buruz argitaratutako artikuluek bakanak euskaltzale zaletuek prestatu zituzten, ez karrera zientifikoa zuten euskaldunek. Horregatik, *Jakinen* Natur-Zientzien esparruan kaleratutako lanak euskara gai eta esparru berriak lantzeko balio zuela, eta horietan ere erabil zitekeela demostratzeko saiakerak izan ziren, eta ez ziren idatzi benetan Komunitate Zientifiko Euskaldunaren baitan existitzen ziren zientzialarientzat.

70eko gazte euskaldunek, asko apaiztegitik pasatu gabe alfabetatu zirenak, formazio zientifikoa edota teknologikoa zuten, hau da, Fisika, Kimika, Matematika edo Ingeniaritza karrera unibertsitarioa egin zuten. Beraiek izan ziren UEUn, Elhuyarren edota UZEIn zientzia arloko argitalpenak (artikulu, liburu monografiko edo hiztegiak) prestatu eta ikastaroak zein hitzaldiak eman zituztenak.

Hemen aurkeztu dugun eskeman sinplifikazio ugari dago, eta errealitatea hemen agertutakoa baino bihurriagoa dela ez dago dudarik. Esate baterako Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*, J. Intxaustiren garaikide eta lagun, ingeniari ikasi zuen, hau da, ez zen apaiztegitik igaro, eta karrera teknikoa egin zuen. Beraz, alde horretatik eta aurkeztu dugun eskemaren argitan ez ditu betetzen J. Intxaustiren belaunaldikoen ezaugarriak. Baina *Txillardegiren* gure ustez, bereiztu behar dira, bere formazioa, eta bere borroka euskarari dagokionez. Formazioa teknikoa izan arren, euskararen esparruan ez zuen Ingeniaritzaren inguruko lanik idatzi. *Orixen* eta beste garbizale

askoren ereduarekin hausten saiatu zen, J. Intxausti eta beste apaizgai euskaltzale askorentzat eredu izanik.

### 6.3.2. Planifikatu gabeko jarduera arrakastatsua

Aipatu dugunez, UEUren argitalpengintza 1977. urtean abiatu zen Udako Ikastaroetako materialen argitalpenarekin. Beraz, UEUren argitalpengintza ez zen sortu hausnarketa prozesu baten ondorio gisa, eta ez du ez txosten ez agiri fundatzailerik, atzean ez zegoen proiektu zehatzik edota espliziturik. UEUren argitalpengintza, Udako Ikastaroen osagarri gisa sortu zen, Udako Ikastaroetako irakaskuntza osatzeko asmoz. Baina hasieran, nahiz eta nagusiki Udako Ikastaroetako materiala publikatu, bere barne jardueratik kanpo etorritako materialari ez zion muzin egin. Izan zen libururik UEUren ikastaroekin harreman zuzenik eduki ez arren, UEUK argitaratu zuena, adibidez Enrike Zabalaren *Euskal Literaturaren historia laburra* (1977)<sup>637</sup>. Ez zen aldi bakarra izan.

Egia esan, UEUK ez zuen soilik Udako Ikastaroetarako materiala<sup>638</sup> argitaratzen, sarritan Udako Ikastaroetan sortutako ideia eta proiektuetatik eratorritako materialak<sup>639</sup> ere atera zituen. Kasu batean zein bestean, urtean zehar eginiko lanak ziren, eta maiz mintegi bidez prestatutakoak<sup>640</sup>. Baina arestian aipatu dugunez, ez zen ikastaro adina material inprimatzen, eta UEUK ezin egin zezakeen alde zuzeneko planifikazio bat.

<sup>637</sup> Liburuaren egile gisa Enrike Zabala agertu arren, E. Zabalak ez zuen liburua idatzi, Dionisio Amundarainek baizik, E. Zabalaren ikastaroan hartutako apunteetatik abiatuta. Eta horrela aitortzen du D. Amundarainek liburuaren hasieran.

<sup>638</sup> Adibide asko topatu ditugu UEUren liburuetan. Ohar labur eta hitzaurretan maiz aipatzen baita materialaren sorburua zein den. Esate baterako 1979ko *Erlatibitatearen teoria espeziala* obran zera aipatzen da: “Lan hau VI. Udako Euskal Unibertsitaterako prestatu da, urtean zehar Zientzi Fakultatean egin diren mintegi batzutan” (Emaldi, 1979). *Txillardegik* berriz honela zion 1979ko udako ikastaroen aurretxoan idatzitako hitzaurrean: “*apunte apal hauek* (eta berriaz azpimarratzen dut hau) prestatu ditut Iruñe-ko U.E.U.-rentzat; udako ikasaldia bukatu ondoren ere, bati baino gehiagori lagungarri gertatuko zaizkion esperantzan” (Txillardegi, 1979b: 4)

<sup>639</sup> Kasu honetan ere, adibide asko topatu ditugu. Esate baterako Leioako Zientzi Fakultateko kimikari talde batek 1978ko udako ikastaroetan “kontaminaziori buru lan bat egitea interesgarria izango zela pentsatu” zuten, eta urte osoan lan egin eta gero 1979an liburua argitaratu zuen UEUrekin (Aboitiz, 1979). J. M. Txurruka eta a. Zubiagaren *Biologiako zenbait praktika* ere antzera sortu zen (Txurruka & Zubiaga, 1979)

<sup>640</sup> *Espazio topologikoak* lana adibidez, honela egin zen, hau da, urtean zeharreko mintegi bidez (Biritxinaga, 1978)



Hausnarketa edo egitasmo zehatzik gabe abiatutako ekimen editoriala, urteekin definituz joan zen. Hala, 1978an Udako Ikastaroen aurkezpenean Martin Orbek UEUren helburuen artean, argitalpengintza ere bazegoela aipatu zuen: “ezinbestekoa dugun oinegitura bibliografikoa sortzen laguntzea”<sup>641</sup> eta UEUK argitalpengintza arloan zituen helburuak seinalatu zituen: “hizkuntza finkatzea, udarako lan-tresnak eskaintzea eta euskal unibertsitaterako baliagarria izango zen fondo bibliografikoa osatzea”<sup>642</sup>. Beraz, UEUren argitalpengintzaren xede nagusia euskal unibertsitaterako euskarazko oinarritzko bibliografia eskura jartzea zen. Noski, horren baitan Udako Ikastaroetako materialak sartzen ziren, baina baita Udako Ikastaroekin lotura zuzena ez zutenak ere. Dena egiteke baitzegoen unibertsitate mailako testugintzaren arloan, eta barne zein kanpo ekoizpena uztargarriak ziren. Lan bakoitza jakintza-arlo batean hutsune bat betetzen saiatzen zen. Egileek beraiek maiz, liburuen hitzaurreetan, obrak zein hutsune beteko zuen aipatzen zuten:

“Beste arlo batzutan bezala, Matematikan ere hainbat parte landu eta egin gabe daudela uste dugu. Hutsune horik, pixkanaka pixkana, denon artaen bete behar ditugula pentsatzen dugunez, oraingo lan hau egiterakoan gure asmoa zenbakien teoria apur bat lantzea izan da.”<sup>643</sup>

Beraz, UEUK ikastaroetatik sortutako materiala zein kanpoko materiala argitaratzen zuen, euskal unibertsitatearen oinarri bibliografikoa eraiki guran. Hau da, eta sinpleki esateko, hutsuneak betetzeko zetorkion guztia kaleratzen zuen (beti ere, duina bazen).

Laburbilduz, UEUK ez zuen proiektu editorial oso zehatzik, (ez bazen unibertsitate mailako testugintza sustatzea Euskal Unibertsitatearen bibliografia edukitzeko), eta jakintza-arlo guztietan hutsuneak hainbeste izanik, eskura zetorkion material guztia argitaratzen zuen. UEUK ez zuen planifikatu jarduera hau, ez zuen sustapen politika berezirik garatu, argitaratzea ez bazen (eta hori ere, ez zen gutxi garai hartarako), eta zerbait egin bazuen, kudeaketa lana izan zen. Hau da, egile euskaldunen materialak argitaratzeko, diru-laguntzak, edizio eta inprenta lanak kudeatu zituen.

---

<sup>641</sup> (Aizpuru, 2003a: 115)

<sup>642</sup> (Aizpuru, 2003a: 117)

<sup>643</sup> (Alkain, 1979: III)

Aipatutako guztiak desabantailak diruditen arren, ez ziren horrela suertatu, eta UEUren argitalpengintzak erabateko arrakasta izan zuen, euskarazko liburugintza unibertsitarioaren esparruan erreferentziala bilakatuz. Arrakastaren gako gisa, elkarrekin lotura duten bi faktore daude: batetik, UEU oso goizetik unibertsitate publikoko irakaskuntzarekin lotutako testugintzara zabaltzea, hau da, berehala zabaldu zen Udako Ikastaroetatik haragoko iraupena zuen irakaskuntzara; eta bestetik, UEUK liburugintzarako planifikazio zehatzik ez zuen arren, bere inguruko pertsona batzuk, gehienak unibertsitarioak, tokian tokiko “planak” diseinatu zituztela. Plan hitza aipatzen dugun arren, ez dugu esan nahi txosten idatziak prestatu zituztenik, baizik eta karrera edo unibertsitate ikastetxe bakoitzeko euskal kultur taldeek (edota bizpahiru lagun ekintzailek) prestatu eta adostutakoak izan zirela. Beraz, egoera bakoitzaren diagnostiko, baliabide eta aukera errealean azterketatik abiatutako estrategiak ziren. Adibide batekin azaltzeko: kultur talde batentzat lehenengo mailako enborrezko irakasgaien testuliburuak prestatzea lehentasuna bazen, eta irakasgai horiek ematen zituzten irakasleak euskaldunak baziren, aukera bat zen irakasleei beraiei eskatzea bere materiala argitaratzeko, edota irakasleak erdaldunak baziren, beste aukera bat zen ikasleek beraiek, klasean hartutako apunteekin liburu egitea, apunteak euskaratuz eta garbira pasatuz. Esate baterako, Bilboko Unibertsitateko Medikuntza fakultateko ikasleek, J. Guimon irakasleak emandako apunteak abiapuntu gisa hartuz, mintegi bidez landu zuten *Eboluziozko psikologiazko oharra* (1978) euskarazko testuliburu<sup>644</sup>. Beraz, nolabait esateko UEUren liburugintza, erakunde gisa planifikatu gabekoa zen baina oinarritzko taldeetatik eginda zetorkion planifikazioa hein batez.

Ekoizpen idatziaren aldetik, unibertsitateko euskal kultur talderik garrantzitsuena Leioako Zientzia Fakultatekoa zen: Zientzi EKT edo Z-EKT izena zuena. Bertan ibili ziren, zuzenean edo zeharka, jada sarritan azaldu zaizkigun unibertsitateko hiru irakasle: Jose Ramon Etxebarria, Jesus Mari Txurruka eta Jacinto

---

<sup>644</sup> Liburu honen egileek hurrengo urtean, metodo berdinarekin, beste liburu bat argitaratu zuten UEUrekin: *Nortasunaren psikologiaz* (1979). Liburu horren hasierako orrian egileek honakoa aitortzen dute: “Ohar hauk Bilboko Medikuntza Fakultateko, Jose Guimon Ugartechea-k zuzentzen duen Psikologia eta Psikiatria Sailan egidako apunteak euki dituzte iturritzat. / 1.978-1.979. ikastaroan egindako mintegian landu dira.”

Iturbe. Hirurek urtero UEUren Udako Ikastaroetan parte hartzen zuten<sup>645</sup>. Hirurek, eta beraien inguruan zeuden unibertsitateko ikasleek, hasieran Udako Ikastaroetako materialak prestatu zituzten (adibidez, *Ekologia I, II eta III* (1977), *Fisiologiazko ikastaroa* (1978) eta abar), baina 1977/78. ikasturtetik aurrera unibertsitateko irakasgaiei lotutako testuliburuak prestatu eta argitaratu zituzten.

Zientzia Fakultatean aipatutako ikasturtean karreraren lehenengo mailako lau irakasgaiak (Fisika, Kimika, Matematika eta Biologia) euskaraz ofizialki ematen saiatu ziren. Saiakerak ez zuen arrakastarik izan, baina, hala ere, modu ez ofizial batean mintegiak euskaraz egiten hasi ziren<sup>646</sup>. Mintegi horietarako prestatutako materialak 1978. urtean UEUK argitaratu zituen<sup>647</sup>. Zientzi Fakultateko irakasle saiatuek UEUn aurkitu zuten Bilboko Unibertsitateak une hartan eskaintzen ez zien azpiegitura editoriala beren materiala argitaratzeko.

Horrela abiatu zen 1978. urtean unibertsitateko irakasgaiei hertsiki lotutako UEUren argitalpenen parte bat. Hurrengo urtean (1979an) ikasleekin prestatutako *Biologia orokorra*, J. R. Etxebarriak bere inguruko ikasleen laguntzaz atondutako *Fisika generala (II)* eta J. Iturberen *Kimika orokorra: II. Parte* etorri ziren.

1979/80. ikasturtea, ezbairik gabe ikasturte berezia izan zen, Zientzia Fakultatean lehen aldiz euskarazko talde bat osatu zelako unibertsitateko lehenengo kurtsoko irakasgaiak euskaraz hartzeko. Zientzia Fakultatean euskal talde hori martxan jartzen ibilitako irakasleak irakasgai horiek ondo funtsatzeko eskoletarako testuliburuak prestatzen jarraitu zuten. Baina modu erabat arrazional eta logiko batean, hau da,

---

<sup>645</sup> J. R. Etxebarriak UEUn eman zuen lehen hitzaldia 1973an, J. Iturbek 1974an eta J. M. Txurruka 1977an.

<sup>646</sup> “Gaztelanieraz eman arren eskolak, ikasle multzo bat mintegiak egitera hasi ziren, eta mintegi horietan euskaraz tratatzen ziren erdaraz aurretik aurkezturiko gaiak./ Mintegiak egitea ez dela nahikoa jakin ba dakigu; soilik lehen pauso gisan ikusten dugu, eta bigarren pausoa egitera doazenei lagungarri izango zaielakoan apunte hauk argitaratzen dira...” (Iturbe, 1978: 1)

<sup>647</sup> Ikus *Fisika generala* liburuaren hitzaurrean: “Lan hau Lejoako Zientzien Fakultatean burutu da, 1977-78 ikasturtean zehar. Kimikazko espezialitateak egin nahi dituzten ikasleek lehen ikasmilako Fisika General asignaturaren programaren lehen lauhilekoari atxikirik doa. / Lehen proiektu batetan, euskara hutsez eta ofizialki eman nahi ukan genituen ikastaldiak. Hala ere zenbait oztopo zirela eta, azkenean extraofizialki eman ditugu eta ematen dihardugu. / Erabiltzen ari garen lan-metodoa hauxe da: Ikastaldi ofizialez –gaztelaniaz- gainera, astean behin mintegi bat egiten dugu euskara hutsean. Bertan eskuzkribu hauk erabiltzen ditugu –fotokopiatuz-, materiale teoriko gisa. Mintegietan, ikasleek Fisika euskaraz ikasteko aukera dute, batetik euskara landuz eta bestetik Fisikazko zalantzak argituz.” (Etxebarria, 1978a)

materialgintza planifikatuz. Ondorioz, lehenengo mailako irakasgaiak emateko behar ziren testuliburuaren prestaketa sustatu zuten. Batzuetan beraiek egin zituzten eta bestetan ingurukoak inplikatu zituzten. Hala, 1980. urterako lehenengo mailako irakasgai batzuen praktikak egiteko testuliburuak argitaratuta zeuden (adb. *Fisika Orokorra (I). Problemak eta ariketak, Kimika: lehen kurtsoko praktikak* eta abar).

Hurrengo urteotan UEUK unibertsitateko irakasgaiari lotuta beste hainbat testuliburu eta ikasmaterial argitaratu zituen. Batzuk erabateko arrakasta izan zuten, zenbait berrargitalpen izateak frogatzen duenez<sup>648</sup>. Datu honen esanguratsutasuna azpimarratzea oso garrantzitsua da, kontuan izan behar delako, euskarazko liburugintzan berrargitalpenak ez zirela ohikoak (ezta gaur egun ere), are gehiago unibertsitate mailako testugintzari buruz ari garenean, eta beraz arrakastaren seinale dira. Bestalde, UEUK argitaratutako euskarazko unibertsitate mailako testu batzuk, gaur egun testu klasikoak dira jakintza-arlo batzuk euskaraz ikasten hasteko (adb. J. R. Etxebarriarenak Fisikari buruz).

Laburbiltzeko, Zientzia Fakultatean zeuden irakasle euskaltzaleak eta haiek harilkatutako ikasleak, UEUren hasierako urteetako testugintzaren arduradun nagusietakoak izan ziren. Baina aipatutako irakasleak, unibertsitateko irakasgaiak euskaraz emateko bibliografia argitaratzeaz gainera, beste bi gauza gehiago egin zuten: euskara egokitzea eta pertsonak gaitzea. Hau da, batetik euskara maila unibertsitarioan erabiltzeko gaitu zuten, bai terminologiaren aldetik bai euskarazko zientziaren jardun diskurtsiboaren aldetik. Bestalde, beraien ikasleak prestatu zituzten, maila unibertsitarioan edozein jakintza-arlotan euskaraz aritzeko. Hala, Zientzia fakultateko euskarazko lehen tesina eta tesiak ingurune honetan sortu ziren. Hau da, egile horiek UEUn argitaratzen ziren testuliburuaren hasi ziren euskaraz idazten. Hor trebatu ziren euskaraz idazteko. Horren adibide da, UEUK zientziaren esparruan argitaratutako liburu askotan aipatzen dela J. R. Etxebarria zuzenketa eta orrazketa lanaz arduratu zela<sup>649</sup>.

<sup>648</sup> Adibidez Estatistikari buruz K. Fernandezek (*Estatistika deskribatzailea, ...*), Kimikari buruzko J. Iturbek prestatutakok (*Kimikako problemak,...*), Fisikari buruz J. R. Etxebarriak prestatutakoak (*Fisika Orokorra, Fisika Orokorra: Mekanika...*) eta abar.

<sup>649</sup> Adibide asko eman daitezke. Esate baterako P. Alkainek prestatutako *Eguzkitiko energia* (1979) obran aipatzen da: “Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot bihotz-bihotzez lan hau erdizen eta zaintzen lagundu nauen pertsona jatorrari. Joserra Etxebarria”.

Horrela, tesia edo tesina prestatu zutenerako, euskaraz idazteko trebatuta zeuden. Adibidez, J. M. Agirregabiriak tesia euskaraz 1981an defendatu zuen<sup>650</sup>, baina aurretik eginak zituen zenbait liburu Fisikari buruzkoak J. R. Etxebarriarekin. J. M. Agirregabiriarena ez da kasu bakarra. 80ko eta 90eko hamarkadetan Zientzia Fakultatean doktorego-tesia euskaraz aurkeztu zutenetako askok (M. J. Zarate, J. M. Pitarke, N. Zabala, eta J. J. Imaz<sup>651</sup>) UEUn argitaratutako ikasmaterialetan parte hartu zuten. Kasu batzuetan gainera UEUn beraien tesien laburpenak, tesinak edo karrera bukaerako lanak argitaratzeko aukera izan zuten<sup>652</sup>.

Honelako babesik edo trebakuntzarik jaso ez zuten ikasleek gorriak pasa zituzten euskarazko ikasliburua prestatzean, eta gerora bertatik ez zen euskarazko goi-mailako lan akademikorik sortu. Ikus, esate baterako, Medikuntza Fakultateko ikasleek *Arnas aparatua* izenburuko liburuan honetaz zer zioten 1980an:

“Medikuntza euskaraz lantzeko eta bitartean gure euskara tekniko ere, nahi genuen hasi baina ez genekien nondik.

Horregatik, arnas-aparatuari buruz aritu ginen, medikuntza ikasle batzu eta profesionariak ere.

(...)

Izan ditugun arazoak asko izan dira, eta banaka aipatuko ditugu:

1.- Euskar[a] mailan taldeko inor ez da tekniko bat, Ahalegindu gara euskara errezean idazteko eta argi azaltzeko hutsuneak agertuko dira, aurrerantzean eta astiroago konpondu egingo ditugunak.

2.- Lexiko mailan ez dago uniformitaterik. Oraindik ez dugu hiztegi teknikorik. Horregatik, gauza berbera esateko pila bat forma erabili ditugu. Lan hau oinarri bezala hartuta, aurrerantzean lexikoa atarako dugu baina, behin betiko lexikoa. Hau, hizkuntzalariekin batera egin beharko dugu. Inor prest badago, gustora hartuko genuke bere laguntza.”<sup>653</sup>

Ikusten denez, bi eredu ditugu: alde batetik, aparteko laguntzarik gabe fakultate batzuetan abiatutako ekimen euskaltzale gogotsu eta bulartsuak, eta bestetik, Zientzia Fakultatekoa, gogotsua izateaz gain, ondo antolatu eta planifikatua izan zena, eta irakasleak zein ikasleak inplikatu zituena. Alde horretatik, Zientzia fakultatea salbuespena da, eta ez araua, bertan gai unibertsitarioak euskaraz lantzeko eskola bat sortu zelako, eta bertan unibertsitateko ikasle euskaldun asko eta belaunaldi

---

<sup>650</sup> J. M. Agirregabiriaren doktorego-tesiaren izenburua hauxe da: *Tetramomentu lineala eta angeluarra ingurune jarraien eta interakzionatzen ari diren partikulen sistemen mekanika erlatibistan* (UPV/EHUn aurkeztua 1981an)

<sup>651</sup> Egile bakoitzak aurkeztutako doktorego-tesiaren gaineko xehetasunetarako jo Inguma datu-basera.

<sup>652</sup> Adibidez, 1980. urtean UEUK Iñaki Antiguedadek Zientzia Fakultatean aurkeztutako lizentziaturako tesia kaleratu zuen: *Arratia hibaiaren arroko azterketa hidrogeologikoa*, [http://www.buruxkak.org/pdf/392\\_ARRATIAHIBAIAREN.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/392_ARRATIAHIBAIAREN.pdf) [kontsulta data: 2008-09-22]

<sup>653</sup> (Abasolo, 1980: I-II)

desberdinetakoak (gaur egun asko unibertsitate horretan irakasle direnak), euskaraz Fisikan, Kimikan, Natur Zientzietan eta Biologian aritzeko trebatu zirelako bai maila idatzian bai ahozkoan ere.

Gaur egun Zientzia Fakultatean euskarazko irakasgaiak emateko erabiltzen den euskara eredu a hein handiz UEUK argitaratutako testuliburuetan abiatu zen, horiek prestatzean egileak trebatu zirelako, eta aldi berean testu argitaratuek eredu hori kodifikatu eta finkatu zutelako. Hala ere, une honetan Zientzia Fakultatean nagusi den euskara eredu a eta UPV/EHUK “ofizialki” Euskara Institututik eta Euskara Zerbitzutik sustatzen duena ez datoz guztiz bat. Eztabaida mahaigainean dago<sup>654</sup>.

#### **6.4. Euskarazko goi mailako idazlanen saritzea**

Andima Ibiñagabeitiaren omenez, Caracas-eko (Venezuela) Euskera Lagunen Elkarteak (ELE), bere izena zeraman sariketa bat abian jarri zuen. Sariaren araudia 1969. urtean idatzi eta abenduan Euskaltzaindira iritsi zen<sup>655</sup>. Beraz, saria A. Ibiñagabeitia hil eta lasterrera hasi zen.

A. Ibiñagabeitia Elantxoben jaio zen, aita jelkidea zuen, eta erregistroan Andima izen sabindarra jarri zioten 1906an. Hamar urterekin jesuita izateko ikasketak hasi zituen Tuteran, eta 1921ean Loiolan sartu zen, nobiziatua egiteko. Hurrengo urtean, J. Zaitegi buru zela, eta Loiolako beste nobizio batzuekin batera, Euskal Akademia (Euskal Elerti Bazkuna) antolatu zuten<sup>656</sup>. Ondoren, Oñara joan zen Filosofia ikasketak egitera. Soldadutzatik libratzeko Kolonbiara joan zen maisutza egitera, eta, ondoren, Marneffe-n Teologia eta Zuzenbide kanonikoa ikasi zuen. Marneffe-n berriro ere elkartu zen Loiolan Euskal Akademian ibilitako batzuekin eta proiektuari segida eman zioten. Jesuita ordenatzeko unea heldu zitzaionean, atzera egin eta Lagundia utzi zuen (1935). Bilbora itzuli eta lanean hasi zen. Gerra garaian bere enpresak Portugalera alde egin zuen, eta horregatik, gerra Portugalen eman zuen. 1943an itzuli zenean, Bilbon

<sup>654</sup> Ikus Kepa Altonagak UPV/EHUren Euskara Institutuak antolatutako *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia III. jardunaldian* aurkeztutako komunikazioa (Altonaga, 2008)

<sup>655</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.12.26)

<sup>656</sup> Euskal akademiako kideak bere buruak trebatu nahi zituzten predikuak eta sermoiak euskaraz prestatzeko eta emateko, baita testu klasikoak euskaratzeko ere.

espioitza lanak egin zituen Eusko Jaurlaritzarentzat. AEBko kontsulatuak ordaintzen zion. 1947an polizia etxera etorri zitzaionean, alde egin behar izan zuen. Parisera joan zen eta Eusko Jaurlaritzarentzat lan egin zuen. Tartean ere, Pariseko euskal ikasleei euskarazko hitzaldiak eman zizkien<sup>657</sup>, gipuzkera osotua irakatsi zuen, Jon Mirande eta Txomin Peillenekin biltzen zen literaturaz aritzeko<sup>658</sup>,... J. Zaitegik Guatemalan *Euzko-Gogoa* aldizkaria sortu zuenean, bere aspaldiko lagunaren proiektuan kolaboratzen hasi zen. J. Zaitegik berak berehala deitu zion Guatemalara etortzeko. A. Ibiñagabeitiak ez zuen berehala alde egin, eta 1954. urtera arte ez zen joan J. Zaitegirengana. Bi urte eman zituen bertan, eta ondoren, J. Zaitegik aldizkaria Biarritzera ekarri zuenean, berak Guatemalatik alde egin behar izan zuen, eta Caracasera joan zen Lorea Badiola bere lobarengana. Caracasen hil zen 1967an, Euskal Herrira itzuli gabe<sup>659</sup>.

Azken urte horietan, A. Ibiñagabeitiak Caracaseko euskaltzaleen artean hitzaldiak eman zituen. Halako hitzaldi batean, 1966an emandako batean hain zuzen, *Euskeraren Laguntzalle Taldea* sortzeko proposamena egin zuen. Taldeak dirua bilduko zuen urtero sari bat antolatzeko. Dirudienez, bera hil arte, ez zen halako elkarterik sortu eta 1969an, Euskararen Lagunen Elkarteak Andima Ibiñagabeitia Saria eratu zuen. Lehenengo urteetan 1.000 dolarreko saria eskola mailako testuak suspertzeko asmoz sortu zen<sup>660</sup>.

Lehenengo saria Guillermo Larrañagak eskuratu zuen *Landare jakintza* izeneko lanarengatik. Euskaltzaindiak Iruñean antolatutako ekitaldi irekian eman zion saria G. Larrañagari. Saria jasotzean G. Larrañagak “bere lanen berri ematen du, eta euskaltzain laguntzaile izendatzea eskatzen die batzarkideei. Ontzat hartua izan da izendapena”<sup>661</sup>.

---

<sup>657</sup> A. Ibiñagabeitiak Parisen emandako hitzaldien testuak ABAn gordetzen dira.

<sup>658</sup> Txomin Peillen euskaltzainak gogoratzen duenez, Andima Ibiñagabeitia gipuzkera osotua irakatsi zion. Halaber, A. Ibiñagabeitiaren bitartez ezagutu zuen J. Mirande (Peillen, 2006)

<sup>659</sup> (Sudupe, 1997a eta 1997b)

<sup>660</sup> Euskaltzaindiko Batzar-agirietan aipatzen da 1971ko sariak “Euskal Ikastoletako Testuak” saritu nahi zituela (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.8.4). Hona hemen 1972ko araudiko 4-5. oinarrietan zehazten zena: “4) Gaitzat Euskal Ikastoletako Testuak hartzen dira, hamar urtetatik hamabost urtetaroko ikas-mailak osatzeko bereziki. / 5) Testu horretan edozer gai erabili ditekete: ala Fisika, Kimika, Historia, Geografia, Matematika, Teknika-gai, Biologia, Fisiologia, Elizti tabar, edozernahi gairi emanaz Enziklopedia Botanika, Geometria eta Antropologia ez ezik”. Botanika, Geometria eta Antropologia aipatzen dira, ordurako jakintza-arlo horietako lanak sarituta zeudelako (ikus *Argian* agertutako iragarkia 1972.7.30eko dataz)

<sup>661</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1970.12.30)

Hala, G. Larrañagak Botanikari buruzko lan honengatik euskaltzain urgazle izendapena jaso zuen. Egia esan, Euskaltzaindiak G. Larrañagaren lanaren berri bazuen, edo behintzat G. Larrañaga bera, bere lana Akademiari ezagutarazten ahalegindu zen gutxienez birritan<sup>662</sup>. G. Larrañagak lantzen zituen gaiak Akademiarentzat lehentasunezkoak ez zirelako, edota Akademiak ez zuelako jesuitaren hizkuntza eredu garbizalea sustatu nahi, G. Larrañagaren lanak “aparkatuta” geratu ziren 60ko hamarkadan. Azkenean, Kardaberaz Bazkunak argitaratu zuen saritutako lana 1975ean. Doi-doi ezagutu zuen argitalpena, G. Larrañaga 1978an hil baitzen.

G. Larrañaga (1905-1978) jaiotzez azkoitiarra zen, eta 1921ean jesuita sartu zen Loiolan. Bertan ezagutu zituen, aurreko atal batean aipatutako, Euskal Elerti Bazkuna edo Euskal Akademiako<sup>663</sup> kideak (J. Zaitegi, A. Ibiñagabeitia eta beste). I. Azkuneko dioenez, G. Larrañaga Ibiñagabeitiaren lagun handia egin zen<sup>664</sup>. Agian berak ere, A. Ibiñagabeitia, J. Zaitegik, P. Muxikak, *Lauaxetak* eta beste batzuren modura *Loiolako Zina* egin zuen. Zin egiten zutenak, besteak beste, konprometitzen ziren unibertsitate mailako euskarazko materiala prestatzera. Loiolatik Oñara eta gero Marneff-era joan zen (Akademiako beste kide batzuk bezalaxe) bere ikasketak osatzera. Baina G. Larrañagak, J. Zaitegi edo A. Ibiñagabeitia ez bezala, ez zuen ordena sekula utzi. Halaber, euskaltzale izateari ere ez zion utzi, eta ondorioz, S. Onaindiak aditzera ematen duenez, Ordenako nagusiek hara eta hona bidali zuten<sup>665</sup>. 1936ko gerra piztean, Caracasera bidali zuten eta irakasle gisa aritu zen. Ondoren beste leku batzuetan aritu zen, eta Tuterakoa izan zen bere azken destinoa. Tuteran jesuiten Eskola Profesionalean eskolak ematen zituen.

---

<sup>662</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agirien arabera, G. Larrañagak 1967. urtean bere lanak eskaini zizkien: “Tudelako Colegio de San Francisco Javier’etik Aita Gillemo Larrañaga’ren gutun bat artu da irakaskuntza gaietarako gertaturik dituan liburuak eskeiñiz: Landare-jakintza, abere-jakintza, giza-soiña, bizi-jakintza, genetika, mineral-jakintza, ta abar. Bakoitzaren kopia bana eskatzea erabaki da.” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1967-7-28) Lehen eskaintzak ez zuen arrakastarik izan. Handik bi urtera eskaintza berri bat egin zion Euskaltzaindiari nekazaritzari buruzko lan berri bat bidaliz: “Guillermo Larrañagaren karta, Nekazaritza izenezko original bat bialduaz. Oraingoz, ikasgo sailean dauden lanetan uzten da, eta Larrañaga jaunari eskerrak ematea erabaki da” (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1969.9.21).

<sup>663</sup> Ikus II. Kapituluko 4.3.1. *Sofoklesen itzultzaile bi: Zaitegi vs. Errandonea* atala.

<sup>664</sup> (Azkune, 1983: 466)

<sup>665</sup> (Onaindia, 1977: 326)



Gerraurrean bertan lanen batzuk argitaratu zituen, baita gerraostean ere, *Euzko-Gogoa* aldizkarian, adibidez. Natur-Zientziak irakasten zituen erdaraz, baina euskarazko irakaskuntzari begira hainbat eta hainbat material zirriborrotuta edota idatzita utzi zituen<sup>666</sup>, bere heriotzaren kariatz I. Goikoetxeak Euskaltzaindian irakurritako txostenaren arabera. Baina I. Azkunek dioenez, kalitateaz ez omen zen gehiegi kezkatu<sup>667</sup>. *Elhuyar aldizkaria* sortu zenean, berehala hurbildu zen proiektura, baita bigarren zenbakirako artikulu bat bidali ere. I. Azkunek gogoratzen duenez, Elhuyar taldearen bilera batera ere agertu zen G. Larrañaga “gu ezagutu nahi gintuela eta hitzaspertu bat egitekotan”<sup>668</sup>. Sasoi hartan G. Larrañagak osasuna motel zuen eta ezin izan zuen gehiago kolaboratu Elhuyarrekoekin.

Laburbilduz, A. Ibiñagabeitiaren omenez antolatutako sariaren eta lehen irabazlearen profilaran artean paralelismo ohargarria dago. Guillermo Larrañaga, A. Ibiñagabeitiaren laguna izandakoa zen, Loiolan harekin ikasitakoa, biak une desberdinetan Caracasen egon ziren, eta biak Loiolan ibilitako beste jesuita baten proiektuan parte hartu zuten, J. Zaitegiren *Euzko-Gogoa*n alegia.

Andima Ibiñagabeitiaren bigarren saria 1971. urtean eman zitzaion Luis Egia Rezolari *Neurritzia* edo Geometriari buruzko eskola materialarengatik. Araudiaren arabera, urte horretan ikastola material bat saritu nahi izan zuen ELEK<sup>669</sup>. Euskaltzaindiaren Batzar-agirien arabera, 290 dolarreko *acesit* bat ere egon zen, Benantxio Otaegirentzat *Giza jakintza* edo Antropologiari buruzko lanarengatik<sup>670</sup>. Berrito ere Kardaberaz Bazkunak argitaratu zuen A. Ibiñagabeitiarekin saritutako L.

---

<sup>666</sup> “Arlo honetan hogeitabat karpeta-paper laga ditu zuribeztuak. Hoietatik itzulpen soil dira asko; berebaitako lan zenbaitzu. Onaindiak dioen Botanika, Geologia, Zoologia eta Biologiak gainera, Fisika, Profesio-eskoletarako Mekanika, Teknologi-mekanika, Kimika, Natur Zientziak, Nekazaritza (bi ale, irudiduna eta irudigabea), 3., 4., 5. eta 6. basikoak; Eboluzioa eta Alabeharra, Ekologia eta Eboluzioa; Gizasoina: Genetika-Mendelen legeak eta abar utzi dizkigu eskuz edo makinaz idatzita.” (Goikoetxea, 1978: 386). G. Larrañagaren lan argitaratu gabeen zerrenda I. Azkunek ere eskaintzen du (Azkune, 1983: 467)

<sup>667</sup> (Azkune, 1983: 467)

<sup>668</sup> (Azkune, 1983: 166)

<sup>669</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.8.4)

<sup>670</sup> Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak honela dio. “Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea-ren gutuna, adieraziz aurtengo “II Andima Ibiñagabeitia” jakintza liburu saria, 1.000 dolarrekoa, Luis Egia Rezola jaunari ematen diotela *Neurritzia* (Geometria) lana gatik; eta *Accesit*, 290 dolarrekoa, Benantxio Otaegi *Giza jakintza* (Antropologia) lanarengatik, eta igazko bezala Euskaltzaindiak sariok banatzea nahi dutela.” (Ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.11.26)

Egiaren lana<sup>671</sup>, (B. Otaegirena berriz, dakigula ez da argitaratu). Sariok ekitaldi publiko batean Euskaltzaindiak eman zituen EL Eren izenean<sup>672</sup>.

L. Egia 1917an jaio zen Tolosan, apaiz eta misiolari gisa ibili zen Euskal Herrian, baita Ameriketara ere<sup>673</sup>. Ez zen EL Eren saria irabazi zuen aldi bakarra, 1972an *accesit* bat jaso baitzuen eta 1974an berriz sari osoa eskuratu zuen *Algebra* lanarekin. B. Otaegi ere apaiza zen, 1943an jaio zen Azpeitian, eta 70eko hamarkadan zenbait lan argitaratu zituen: *Lehen gizarteak* (1971) Mensajerorekin eta ikastolarako materiala *Haitzuloetako euskal gizona* (1976) Gordailurekin. Horretaz guztiaz gain, 1977an hitzaldi bat eman zuen Euskal Herriko prehistoriari buruz UEUn.

Hurrengo urteko saria (1972koa) *Txillardegik* jaso zuen *Matematik II eta IIIgarren mailak* lanarengatik<sup>674</sup>. Horrez gainera, bi *accesit* banatu ziren: bata Iñaki Arrarte Irizarri *Aritmetika Batxiller Atarian* lanarengatik eta bestea, Luis Egiari *Euskal-Erriko Lurraldeak* lanarengatik<sup>675</sup>.

1973ko sariaz dakigun gauza bakarra da Luis Egiak irabazi zuela. Hurrengo bi urteen (1974-1975) gaineko berririk ez daukagu. Agian, urte horietako batean saria Gaizka Barandiaranek jaso zuen, edo behintzat hori dio 1989an argitaratutako *Gauzaki izaki gizaki* Filosofia existentzialistari buruzko obraren sarreran<sup>676</sup>.

1976. urtean berriz, deialdiaren oinarriak nolabait birdefinitu ziren, urte horretatik aurrera goi mailako euskarazko lanak sustatzeko. Azkue Bibliotekaren Artxiboan (ABAn) gordetzen den 1976ko araudiaren arabera, eskola mailako testua saritu ordez, Andima Sariak euskarazko tesinak, tesiak eta saiakerak sustatzeko asmoa zuen, “euskal idazle eta jakintsuentzat euskararen i[n]darberritze, sakontze eta batasuna” helburu harturik. Sariaren baldintzetan agertzen denez, lanak Euskara Batuan

<sup>671</sup> Argitalpenak EL Eren hitzaurre batekin argitaratu zen (Egia, 1972: VII-VIII)

<sup>672</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1971.12.30)

<sup>673</sup> (Onaindia, 1990)

<sup>674</sup> Idazleen elkartearen web gunean (<http://www.idazleak.org/idazleak/idazlea.php>, kontsulta data: 2008-09-10) *Txillardegiri* buruzko orrian aipatzen da 1969ko Andima Saria jaso zuela “matematiken irakaskuntzarako sortutako liburuengatik”. Baina sari hori Euskaltzaindiaren Batzar-agiriaren arabera, 1972an lortu zuen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.12.29)

<sup>675</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1972.12.29)

<sup>676</sup> (Barandiaran, 1989)

idatzita egon behar zuen. Aurkeztutako lanek gutxienez 100 orrialde izan behar zituzten, eta ezin zen itzulpen lanik aurkeztu. Sariaren zenbatekoa 1.000 dolarrekoa zen. ELE Venezuelako elkartearen izanik, sariaren kudeaketaz arduratzeko Euskaltzaindia izendatu zuen. Hala, Euskaltzaindiak originalak jaso, epaimahaia izendatu eta saria Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan ematen zuen<sup>677</sup>. Hala, 1976an bi lan saritu ziren<sup>678</sup>: Joxe Azurmendiren (“Jakue” ezizenarekin) *Espainolak eta euskaldunak* lana, eta Jon Miranderen *Haur besoetakoaren azterketa*<sup>679</sup>.

Hurrengo urtean bi sari eman ziren, lehena ELEk ematen zuen saiakera lan batengatik (1.000 dolar) eta bigarrena berriz, Caracaseko Emakume Abertzale Batzak ikerketa lan batengatik (500 dolar). P. Uribarren, X. Kintana eta A. Irigoienek osatutako epaimahaiak, Julian Alustiza frantziskotarrari eman zion saiakera saria Etnografiari buruzko lan batengatik (*Lihoak lorea hurdin*). Ikerketa saria berriz, zenbait medikuren artean prestatutako *Shocka* izeneko lanari eman zioten<sup>680</sup>. *Shockaren* egileak Joseba Urkiaga, Joseba Badiola, Simon Gurrutxaga, Jesus Arzubiaga eta Patxi Letamendi izan ziren. Saria urrian eman bazen, aurretik P. Letamendik urte horretako udan UEUren Udako Ikastaroetan Shockari buruzko hitzaldia eman zuen.

Era berean hurrengo urtean bi sari banatu ziren, lehena 1.000 dolarretakoa, eta bigarrena 500enakoa. Euskaltzaindiak 1978ko Andima saria emateko *Txillardegi*, P. Xarritton eta A. Zatarain izendatu zituen epaimahaiko kide gisa<sup>681</sup>. Hirukoak honako lan biak saritu zituen: Jose Uriaren *Sagardogintza Euskal Herrian* eta Iñaki Azkuneraren *Akustika* lana. Lan biak urte horretan bertan argitaratu ziren. J. Uriaren lana Donostiako Kutxak plazaratu zuen<sup>682</sup>, eta I. Azkunerena UEUk. Dena den, UEUk argitaratutako

---

<sup>677</sup> Horrela izan zen gutxienez 1976ko urtean.

<sup>678</sup> Urte horretako Andima Sarietako epaimahaia honakoek osatu zuten: A. Irigoien, J. A. Etxebarria eta J. A. Letamendia (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1976.9.24)

<sup>679</sup> J. Miranderen eleberria, euskaldun askoren moral kristautik ikusita, eskandaluzkoa zen. Kontua da J. Mirande 1972an hil bazen, nork aurkeztu zuen lana 1976ko sarira, are gehiago Lur argitaletxeak obra jadanik argitaratuta zuenean, nork jaso zuen 500 dolarreko saria, eta nola saritu zen literatur lan bat, Andima Sariak beste genero batzuk saritzeko sortu bazen?

<sup>680</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1977.10.28)

<sup>681</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1978.8.25)

<sup>682</sup> J. Uria (1978): *Sagardoa*, Donostia: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian.

*Akustika* lanean I. Azkunez gain, Elhuyarreko beste egile bi ere agertzen ziren, Mikel Zalbide eta Luis Mari Bandres hurrenez hurren. Hiruren lana zen, beraz<sup>683</sup>.

Euskaltzaindiaren Batzar-agirien arabera, 1979an sariaren deialdia egin bazen ere, ez dirudi inork jaso zuenik (agian ez zen lanik aurkeztu). Beharbada, urte horretako deialdiaren oinarrietan honakoa zehazten zelako, lana “tesina edo saio lana literatur alorrekoa”<sup>684</sup> izan behar zuela (hau da, eremu zehatzegi bati buruzkoa). Hurrengo urtean eta Euskaltzaindiaren Batzar-agirietan azaltzen denez, azken aldiz antolatu zuen ELEk Andima saria<sup>685</sup>. Berriro ere, saririk ez zen banatu baina dirua ez zen Venezuelara bueltatu. Horren orde, UEUk jaso zuen. Diru-laguntza eskertuz, Martin Orbek, garai horretan UEUko zuzendari zenak, A. Ibiñagabeitiaren lobari honela idatzi zion:

“Entrando ya en materia de esta carta, nuestro común amigo, Jon Urresti, me dijo que, este año, los premios ANDIMA IBIÑAGABEITIA habían quedado desiertos, por causas que él me explicó y de las que creo que también le habrá informado a Ud.

Por esta razón, decidió destinar 73.000 pts. en ayuda a la UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA. El mismo Jon me sugirió, y nosotros lo aceptamos de buen grado, que la citada cantidad se destinara dentro de la Udaiko Euskal Unibertsitatea a una finalidad la más similar posible a la que hubiera tenido en caso de haberse otorgado los premios Andima.

Teniendo en cuenta que, dentro de la **UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA también se publican libros algunos de los cuales son precisamente Tesis Doctorales y Tesinas**, escogeremos uno de entre los que se preparan para los cursos de la U.E.U. del verano de 1.981, para publicarlo como subvencionado por la ayuda recibida de EUSKARA LAGUNEN ELKARTEA, y así lo haremos constar en el mismo libro.”<sup>686</sup> [beltzak gureak dira]

Laburbilduz, eta balantze gisara, Andima Ibiñagabeitia Saria 1970-1980. urteetan indarrean egon zen, eta oro har, zientzia, teknologia eta kultura jasoaren esparruetan euskara sustatzen ahalegindu zen, hasieran eskola mailako testuak, eta laster goi mailako lan akademikoak sarituz. Sarien deialdiak ikusita, nabarmena da bi epe izan zituela: batetik hasierako urteetako non, eskola mailako liburuak saritzen ziren eta saritutako lanak euskara “garbian” idatzita zeuden, eta bestetik, 1976. urtetik aurrerakoa<sup>687</sup>, Euskara Batuan idatzitako tesina eta saiakera erako lanentzat. Pentsa liteke, ELEren sariak Euskaltzaindiak kudeatzen zituenez, Akademiak berak, ELErekin

<sup>683</sup> Materialaren abiapuntuan I. Azkuneren eta L. M. Bandresen lanak zeuden: zehazki I. Azkunek 1976an emandako hitzaldia (*Akustika* historian zehar) eta L. M. Bandresen tesia. L. M. Bandresek bere doktorego-tesia laburtuz *Akustika* libururako prestatu zuen kapitulua. Eta Mikel Zalbide UEUren udako ikastaroetako Akustikari buruzko ikastaro arduraduna izan zen.

<sup>684</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1979.2.23)

<sup>685</sup> (Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1980.5.30)

<sup>686</sup> UEUA, 1980. urteko karpeta.

<sup>687</sup> Edo agian arinago. Baina une honetan 1976ko sarietako araudia baino ez da gordetzen.

adostuta baldintza hori finkatu zuela, Akademiak 1968ko Arantzazuko erabakiekiko jarrera koherentea erakutsi behar zuelako.

Tesina eta saiakerak saritzeko Andima Sarien azken deialdia 1980. urtekoa izan zen. Hala ere, izpiritu hori, goi-mailako lanak saritzeko izpiritua, beste sari batek hartu zuen: Azkue Sariak. Sariok Bilboko Aurrezki Kutxak ematen zituen eta, Andima Sarietan bezalaxe Euskaltzaindiak kudeatzen zituen. Azkue Saria 1975. urtean hasi zen. Hasiera batean, literatur lanak baino ez zituen saritzen, baina 1981. urtetik aurrera ikerketaren esparruan ere sariak banatzen hasi zen, hau da, euskarazko tesi eta tesinak saritzen<sup>688</sup>.

Azkue Sariak tesiak eta tesinak saritu baino lehen, Euskaltzaindiak bere erre-zeiteien kariatara, beste entitate batzuk emandako diruarekin saiakera lanak saritzeko lehiaketa antolatu zuen. Lehen saria Antonio Perez Bilbaok irabazi zuen 1970-1971 urteetan kooperatibismoari buruzko lan batekin (dirua Caja Laboral edo Lankide Aurrezki Kutxak jarri zuen<sup>689</sup>) eta sari berezia F. Krutwigek jaso zuen aditz batuari buruzko lan batengatik (Hegosak jarri zuen dirua)<sup>690</sup>. Urre-zeiteien kariatara Euskaltzaindiak antolatutako beste sariko dirua Bizkaiko Aurrezki Kutxak jarri zuen. Literaturari buruzko saiakera lanak saritzeko sortu zen, eta euskarari dagokionez, honako hau zehazten zen: 1968ko Arantzazuko bileran gomendatutako idazkera arauetara egokituta aurkeztu behar zela<sup>691</sup>. Saria Ibon Sarasolak jaso zuen *Euskal Literaturaren Historia*<sup>692</sup> lanarekin (1971). Dakigula sari honek ez zuen jarraipenik izan.

---

<sup>688</sup> Ikus V. Kapituluko 2.5.1.2. *Goi mailako lan akademikoak eta Azkue Sariak* atala

<sup>689</sup> Lankide Aurrezkiak sarirako 20.000 pezeta jarri zituen (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1968.2.23)

<sup>690</sup> Sarien gaineko erreferentzia hemen aurkitu dugu: "Euskaltzaindiaren literatura sariak" *Euskera*, 18, (1973), 285. [ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52912.pdf](http://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52912.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]

<sup>691</sup> Sariaren oinarriak ikus hemen "Literatura sariketa. Gaia: saiakera" *Euskera*, 16 (1971), 161-162. [ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52024.pdf](http://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52024.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]

<sup>692</sup> I. Sarasolaren lana Lur argitaletxeak argitaratu zen 1971an, eta 1974an, gaztelaniaz Akal-ek argitaratu zuen, izenburu honekin: *Historia social de la literatura vasca* (Jesús Antonio Cid, itzul.).

Oro har, esan liteke garai honetan Euskaltzaindiak, gerraurreko tradizioari eusten ziola, hau da, bere sari propioekin literatur lanak saritzen zituen<sup>693</sup> eta saiakeren kasuan, normalean kudeatu egiten zituen<sup>694</sup>. Kasu horietan, beste erakunde batzuk jartzen zuten dirua halako lanak saritzeko. Hori ikus daiteke, aipatutako Andima Sarien kasuan, baita beste batzuetan ere.

---

<sup>693</sup> Esate baterako Txomin Agirre nobela saria, Lizardi poesia sariak, Toribio Alzaga antzerki sariak, eta abar.

<sup>694</sup> Salbuespenen bat egon liteke. Esate baterako *Gernika Ensayo Sariei* buruz informazio askorik ez dagoen arren, badirudi Euskaltzaindiarenak zirela. Dena den Gernika Sariak, dakigula, behin baino ez ziren eman, 1966. urtean hain zuzen ere. Gernika sarietan bi genero desberdin saritu ziren: alde batetik, saiakera, eta bestetik ipuina. Saiakeraren arloan, lehenengo saria Iñigo Urroz de Herediak jaso zuen Euskaldun ospetsu batzuen gizatasuna lanarekin, eta bigarren saria Gaizka Barandiaran jesuitak *Zugaitz gurgarriek Ixrael'en* lanarekin. (ikus Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak, 1966.8.21, 1966.9.25 eta 1966.11.25 eta "Iñigo Urroz de Heredia "Gernika" ensayo sarietan aurrena eta Sabino Alonso ipuietan" *Euskera*, 13 (1968), 291. <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/52086.pdf> [kontsulta data: 2008-09-24]).

## **V. Komunitate Zientifiko Euskaldunaren hedatzea**

## 1. Sarrera eta abagune historikoa

Kapitulu honen mugarri kronologikotzat unibertsitateko euskarari buruzko bi plangintza hartu ditugu: batetik, Bilboko Unibertsitatearen planifikaziorako Beharrizanen Lantaldeak prestatutako *Premia larriko neurrien txostena* (1979), eta bestetik UPV/EHUko Andoni Iriondo errektoreordeak prestatutako *Euskararen erabilera normaltzeko plangintza* (1990). Funtsean, beraz, 80ko hamarkadan Komunitate Zientifiko Euskaldunaren eraketan berebiziko eragina izan zuten gertaerak, prozesuak eta protagonistak aztertuko ditugu. Hau da, euskarazko irakaskuntza unibertsitatean noiz eta nola hedatu zen, aditu euskaldunen bilgune berrien sorrera (elkarte zein bilkura espezializatuak), argitalpenak eta abar.

Beraz, 80ko hamarkadan abiatu zen Komunitate Zientifiko Euskaldunaren hedatze zabala. Horrek ekarri zuen ordura arte hizkuntzaren batasun prozesuaren inguruan hezurmamitutako komunitatearen zabalpena esparru akademiko berrietara (adb. ikerkuntzara) zein gaietara. Izan ere, aditu euskaldunak hizkuntzari buruzko bilkurak ez ezik, bestelakoak ere antolatzen hasi ziren, hala nola, Fisikari eta Kimikari buruzkoak. Hala, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren hedatzearekin batera sakabanaketa abiatu zen. 90eko hamarkadan areagotu egingo zen prozesua. Orduan, bai unibertsitatean, bai euskal kulturgintzan, hainbat ekimen abiatu ziren, zuzenean edo zeharka, eragina izan zutenak Komunitate Zientifiko Euskaldunaren garapen, zabaltze eta barreiaketan: Mondragon Unibertsitatearen sorrera (1997), UNEDeko zentroaren desagertzea, Unibertsitate Euskal Irakasleen Elkartearen (EIRE) sorrera eta beronek Euskal Unibertsitatearen inguruan antolatutako kongresua (*Euskal Unibertsitatea-2021: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*), eta abar. Halaber UEUK Euskal Unibertsitatea sortzeko eragilea izateko asmoa berretsi zuen 1995 eta 2002-2003an antolatutako kongresuetan. Finkatutako ildo horren haritik zenbait ekimen abiatu zituen euskal kulturgintzako beste elkarte batzuekin (Labayru, AEK, Ikastolen Konfederazioa,...), besteak beste, J. M. Barandiaran Euskal Unibertsitate proiektua eta horrekin lotutako *Ikasgu Nagusia*.



Bestalde, euskal kulturgintzaren esparruan, 90eko hamarkadatik aurrera jasotako hainbat gertakarik eragin handiagoa edo txikiagoa izan dute Komunitate Zientifiko Euskaldunean, eta beronen komunikazioan, hala nola, *Euskararen Unibertsioak*, *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren sortze-gogoetak*, euskarazko egunkariaren sorrerak –*Euskaldunon Egunkarian* unibertsitateko irakasle eta intelektual euskaldunak parte hartu zuten, baita irakurle izan ere– eta abar. Agian, azken urteetako gertakaririk garrantzitsuena euskal kulturgintzako elkarteen profesionalizazioa eta instituzionalizazioa izan da. Kasu paradigmaticoa Elhuyarrek eskaintzen du, kultur elkarte izateari utzi ziolako eta gaur egun Fundazioa delako, soldatapeko 100 bat langilerekin. Era berean beste elkarte batzuk elkartearen alderdi enpresariala kudeatzeko kooperatiba egin dira (adb. AEK), edo europar kooperatiba (adb. Ikastolen Elkarte).

Hortaz, 80ko hamarkadan Komunitate Zientifiko Euskalduna hedatu, eta aldi berean barreiatu bazen, prozesu hori 90eko hamarkadan errotu zen. Hedatzeak eragindako fenomeno berriak (kideen sakabanaketa, elkar ez ezagutzea eta abar) kaltegarri izanik ere, gaur egun jakintza-arloetan antolatutako komunitate zientifikoaren ohiko ezaugarriak ere badira. Alde horretatik nola halako normaltasunaren adierazletzat har daitezke. Kapitulu honetan, arestian aipatu moduan, Komunitate Zientifiko Euskaldunarekin lotura duten 80ko hamarkadako gertaerak aztertuko ditugu, nahiz, noizik behin osteko hamarkadaren gaineko aipuak egin diren gairen bat biribiltze aldera.

Bestalde kapitulu honetan, batik bat EAeko fenomenoak aztertuko ditugu, hiru herrialdeen berrantolaketa politikoarekin bertan gertatu zirelako euskararen ikuspegitik aurrerapenik handienak, esparru guztietan (hezkuntzan, kulturean, administrazioan...), baita goi mailan ere. Izan ere, 1979ko Autonomia Estatutuarekin, hiru herrialdeek, Espainiaren baitan, autogobernu maila zabala eskuratu zuten. Hurrengo urteko hauteskundeekin eratu zen frankismo osteko lehen Eusko Jaurlaritza. EAJko Karlos Garaikoetxea izan zen lehendakaria eta Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza Sailburua. Dena den, P. M. Etxenikek unibertsitatean ezer gutxi egin zezakeen, Espainiako gobernuak ez baitzuen unibertsitate-eskuduntza 1985. urtera arte transferitu. Orduan ere, osorik ez zuen transferitu, unibertsitateko irakasleria estatuaren esku geratu baitzen. Transferentzia ezetik eratorri ziren irakasleen protestak, irakasleria propioaren alde.

Horien isla da 1990. urtean UPV/EHUko zenbait irakaslek administrazio kontratua sinatzeari uko egitea<sup>1</sup>.

EAEren berrantolaketa politikoarekin batera, 80ko hamarkadaren hasiera eraizpen industrialaren garaia izan zen. Langabezia-tasa asko igo zen eta protesta laboral bortitzak gertatu ziren. ETAren indarkeriak ere gailurra jo zuen hamarkada hartan. Oro har, garaia aktibismo politiko, sozial eta kultural handikoa izan zen, gerora apalduko zena. Garai horretakoak dira izaera eta helburu desberdineko hainbat mobilizazio: energia nuklearren kontrako ekintzak, zehazki, Lemoizko Zentral Nuklearraren aurkako borroka, mugimendu ekologistaren dimentsioa gainditu zuena, AEKren lehenengo Korrikaren antolaketa dirua biltzeko, Euskalduna ontziolaren itxieraren kontrako mobilizazioak, NATOren gaineko erreferendumean ezezkoaren aldeko mobilizazioak eta abar. Unibertsitatean ere, istilu ugari izan ziren 1983. urteko unibertsitateko *Ley de Reforma Universitariaren* (LRU) kariaz, irakasle eta ikasleen aldetik.

EAEen euskal politika gehienaren erakundetzearekin batera, euskararen instituzionalizazioa ere gertatu zen. Zenbait arau eta legek eragin handia izan zuten euskararen erakundetze prozesu horretan: 1979ko Autonomia Estatutuak euskararen koofizialtasuna onartu ostean, urte bereko dekretu batek euskara hezkuntzan sartu zuen. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 1982an euskararen ezagutza arautzen zuen *Euskararen Gaitasun Agiria* (EGA) izeneko titulua sortu zuen eta Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako Legea kaleratu zuen. Dekretu eta legearen ondorioz, eskola mailako iraskuntzan hizkuntza ereduak sortu ziren (A, B eta D ereduak) eta euskarazko hezkuntzaren beharrak asetzeko Eusko Jaurlaritzak gaur egunera arte iraun duten programa bi abiatu zituen: Irale, irakasleak euskalduntzeko, eta EIMA, hezkuntzarako euskarazko materialak sustatzeko. Beraz, euskarazko hezkuntza ikastoletan eskaintzeaz gainera, eskola publikoetan ere, aukera gisa zabaldu zen. Urte gutxiren buruan unibertsitatera arteko hezkuntzan euskaraz eskolatutako gazteak ehunka batzuk izatetik milaka izatera igaro ziren. Ondorioz, Unibertsitatean hautaprobak euskaraz egiten zutenak gero eta gehiago bihurtu ziren.

---

<sup>1</sup> (Zalakain eta beste, 1999)

Euskararen erakundetzearekin berehalako ondorioa antzeman zuten garaiko euskaltzaleek: euskararen inguruan lan egiten zuten pertsonen aldaketa soziologiko nabaria. *Txillardegik* adibidez, jada 1984an antzeman zuen egoera berria, eta aurkako jarreraz aipatzen zuen: “1956/1976 urteetako euskaltzale militanteari, euskaltzale suharrari; gaur euskaltzale funtzionario eta txepela nagusitu zaio askotan”<sup>2</sup>. Euskararen erakundetze prozesuaren aurrean gizarte mugimenduei lotutako euskal kulturaintza, oro har, kritikoa izan zen (bai 1982ko euskararen legearekin, HABEren sorrerarekin eta abarrekin), eta maiz kaltegarritzat hartu zuen. Beraz, oro har, euskal kulturaintzak baliabide urriekin eta erakunde publikoetatik jasotako finantzabide mugatuekin, bere bideari jarraitu zion.

Euskararen aitzinatzea unibertsitatean ere sumatu zen, bereziki UPV/EHU. 70eko hamarkadara arte euskararen egoera unibertsitate guztietan nahiko antzekoa zen: gehien jota eskola orduetatik kanpo ikastetxe batzuetan posible zen euskara ikastea. 80ko hamarkadan berriz, unibertsitate desberdinek euskararen esparruan ibilbide propioak abiatu zituzten. Alde horretatik, euskarak UPV/EHU egin zuen aurrerapenik handiena. Hala ere, ikusiko dugunez, aurrerapenak bere mugak izan zituen eta bertako euskaltzaleen ekimenez abiatu zen, ez hainbeste unibertsitateak berak bultzatuta. Horregatik, eskaini diogu UPV/EHUri atal luze bat, euskarak unibertsitate horretan aurrera egin zuelako besteetan baino gehiago eta prozesu aski konplexua izan zelako.

Beste unibertsitateetan euskararen aurrerapena mugatuagoa izan zen. Deustuko Unibertsitatean, esate baterako, UPV/EHU bezala euskara errekteordearen figura 1986. urtean sortu arren, unibertsitateak 1993. urtera arte ez zuen onartu bere lehen euskara plangintza<sup>3</sup>. Nafarroan berriz, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP) Nafarroako parlamentuak sortu zuen 1987. urtean. Aurretik Nafarroako ikastetxe unibertsitarioak (Irakasle Eskolak eta abar) Zaragozako Unibertsitatearen menpe zeuden. Bertako irakasle den J. K. Lopez-Mugartzak kontatzen duenez, publikoa sortuz geroztik euskarazko irakaskuntza unibertsitarioaren jazarpena etengabea izan zen,

---

<sup>2</sup> (Txillardegi, 1984: 25)

<sup>3</sup> (Aizpuru & Jimeno, 2002: 43)

zenbait kasutan atzera eginez<sup>4</sup>. Iparraldeko kasuan, berriz, euskarazko ikasketen egoera unibertsitatean 80ko hamarkadan pixka bat hobetu egin zen. Baionan, 1985ean Euskal Ikasketen Departamentua sortu zen<sup>5</sup> eta 1989an Euskal Filologiaren antzeko lizentzia ikasketak abiatu ziren<sup>6</sup>. Edonola ere, unibertsitate horietako euskarazko eskaintza oso txikia zen UPV/EHUkoarekin alderatuz gero. Horregatik zentratuko gara UPV/EHUn.

## 2. Garai nahasiak Euskal Herriko Unibertsitatean

Bilboko Unibertsitatearen azken errektorea Martin Mateo izan zen (1976-1979). Bere agintaldian, unibertsitate barruti bakarra ezarri zen EAeko hiru herrialdeetarako (1977). Aurreko kapituluan ikusi dugunez, unibertsitateko euskal kultur taldeek (EKT, EIT eta abar) fakultate eta unibertsitate eskoletan antolatutako euskara-eskolen baldintzak hobetu zituzten (adb. euskara eskolak koordinatzeko irakasle batzuk kontratatuz, edota euskara ikasteko aukera ikastetxearen ohiko ordutegian eskainiz). Barrutiaren zabalpenarekin Bilboko Unibertsitateari Araba eta Gipuzkoako ikastetxe unibertsitarioak erantsi zitzaizkion. Egoera berriak unibertsitatearen planifikazioa eskatzen zuen: ikastetxeena, ikasketa eskaintzarena, aurrekontuena, euskararena eta abar. Horretarako sortu zen, 1979ko martxoan, *Comisión de Planificación de la Universidad Vasca/ Euskal Unibertsitatearen Planifikazio-Batzordea*. Batzorde paritarioa zen, unibertsitate publikoko ordezkariak zein Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Saileko ordezkariak biltzen zituena. Batzordea azpibatxordetan antolatu zen bakoitzak unibertsitatearen arlo jakin bat aztertzeke. Halaxe sortu zen *Euskal Kulturaren Beharrizan Unibertsitarioetarako Lantaldea* (aurrerantzean *Beharrizanen Lantalde* gisa aipatuko duguna) zeinak euskal hizkuntzaren eta kulturaren ikasketak unibertsitate publikoan aztertu eta aurrera begirako proposamenak egin behar zituen. Beharrizanen Lantaldeak Martin Mateoren esku utzi zuen bere txostena 1979ko

<sup>4</sup> J. K. Lopez-Mugartzak kontatzen duenez Nafarroako Unibertsitatearen jarrera euskararen aurrean Zaragozako bano atzerakoiagoa zen: “Nafar Gobernuko Presidenteak eta hezkuntza-agintariak Zaragozako Unibertsitateko errektorearekin hainbat urrutze eta makurraldi izan ondoren, 1990/91 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere gain hartu zituen Zaragozako Unibertsitateko nafar ikastetxeak. Hartu zen lehenengo neurria hauxe izan zen: curriculum guztietatik euskara irakasgaia ezabatzea, errektorearen hitzetan «unibertsitatearen lana ez baita hizkuntzak irakastea». Hurrengo hilabeteetan eta ongi aukeraturiko data batean —1990eko azaroaren 20an— euskal lerroa deuseztatzeke agindua eman zuen errektoreak.” (Lopez-Mugartza, 2002: 210)

<sup>5</sup> (Bidegain, 2004: 79)

<sup>6</sup> (Peillen, 1995b: 543)

uztailean. Bai lantaldea zein txostena, ondoko puntuetan aztergai izango ditugu, Euskal Herriko unibertsitate publiko batean planteatutako lehen hizkuntza plangintza izan zelako.

M. Mateok 1979an utzi nahi zuen kargua, baina hautagairik aurkeztu ez zenez, hauteskunderik ez zen izan. Beraz, unibertsitatearen Gobernu Juntaren eskariz, Martin Mateok onartu zuen 1979/80. ikasturtean errektore jarraitzea, baldintza bat jarritz: errektoreorde talde bat hautatzea unibertsitateaz arduratzeko. Horrela, aukeratutako 3 errektoreordeak honako hauek izan ziren: Gonzalo Martin Guzman, Gipuzkoako campuseko errektoreordea eta unibertsitatearen kanpo harremanetarako ordezkaria, Gregorio Monreal, Bizkaiko campusaren ardurarekin eta eskaintza akademikoaren kudeaketarekin, eta Koldo Mitxelena, Arabako campuseko errektoreordea eta hedapen unibertsitarioaren ardura hartzen zuena. Hala ere, Martin Mateok 1979ko irailean dimititu zuen eta errektoreordeetako bat, Martin Guzman, bihurtu zen errektore funtzioetan berria aukeratu bitartean. Nahiz eta, egiazki G. Monreal zen errektore lanetan ibili zena. Azkenean, 1981ean UPV/EHUko klaustroak bideratutako hauteskundeetan bitartez G. Monreal UPV/EHUko errektore gisa aukeratu zuten. Ordurako jada, Bilboko Unibertsitaterik ez zen, eta G. Monreal 1980. urtetik ofiziala zen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen errektorea izan zen. Tartean, unibertsitateak gobernu arazo larriak bizi izan zituen, botere hutsuneak, desadostasunak eta gorabehera ugari<sup>7</sup>.

G. Monrealek unibertsitate publiko sortu berrian egiteko ugari izan zituen, unibertsitatea instituzionalizatzeko eta erakunde gisa sendotzeko. Sortu berria izateaz gain, unibertsitatearen tamaina ez zen edonolakoa, UPV/EHU masen unibertsitatea baitzen. G. Monrealek eskuartean 30.000 ikasletik gorako unibertsitatea zuen, eta 2.040 milioi pezetatako aurrekontua 1981/82. ikasturtean. Alta, errektore izan zen azken ikasturtean (1984/85) aurrekontu hirukoitza zuen (6.277 milioi pezeta)<sup>8</sup>. Horretaz gain, errektore izateko hautagaitzaren programan hitz eman zuen unibertsitaterako estatutuak finkatzera. Nahiz eta errektore gisa sartu eta berehala estatutuen prozesua abian jarri

---

<sup>7</sup> Horiak guztiak UPV/EHUren 25. urteurrenaren gaineko liburuan jasota daude (De Pablo & Rubio, 2006: 90 eta hurrengoak)

<sup>8</sup> Datu guztiak Teodoro Flores-en lanetik (Flores, 1997: 153)

zuen, estatutuen eztabaida oso gorabeheratsua izan zen<sup>9</sup>. Tartean, unibertsitatean eragin handia izan zuen lege bat atera zuen Espainiako gobernuk *Ley de Reforma Universitaria* (LRU, 1983). Unibertsitatearen estatutuak hartara egokitu behar ziren. Azkenean, UPV/EHUren estatutuak 1985. urtean onartu ziren. Ordura arte, indarrean jarraitu zuten Bilboko Unibertsitatearen 1970eko estatutuek. Estatuetan titulu oso bat hizkuntzari dedikatuta zegoen, 8. titulua hain zuzen ere, eta beronen prestatze lekua Euskara Batzordea izan zen (1983an sortua). Tituluaren lehen artikulua ezartzen zuen euskararen ofizialtasuna UPV/EHUn (gaztelaniarekin batera) eta horrekin batera unibertsitatearen euskalduntzerako zenbait organo kargu, eta neurri berri ezartzen ziren, eta aurretik zetozen batzuk finkatu ziren (adb. Euskararako Kabinetea, Euskara Batzordea eta abar).

Behin unibertsitatearen estatutuak onartu eta ofizialak izan zirenean, errektore hauteskundeak deitu ziren. G. Monreal ez zen berriro aurkeztu, 1984ean bigarren bezala errektore gisa, aurkeztu zenean adierazi zuena betez. Errektore berriaren aukeraketa ezin gatazkatsua izan eta, berriro ere, UPV/EHUK gobernu krisi latzak bizi izan zituen. Tarte batez Arantza Mendizabal aritu zen errektore funtziotan. Hauteskundeak, salaketak, Eusko Jaurlaritzaren eskuhartzea, dimisioak eta abar. Azkenean, 1986ko azaroko bozketetan Emilio Barberá-k irabazi zuen eta 1990. urtera arte errektore izan zen. UPV/EHUko errektorearen hautaketa katramilatsua izan zen, baina ez zen unibertsitateak zuen arazo bakarra: unibertsitateak finantziazio arazo larriak zituen, irakasle falta eta “irakasle lagunen” arazoa ere, hortxe zegoen, administrazio zerbitzuko pertsonala (AZP) E. Barberáren kontra zegoen, eta ikasleen protestak ohikoak ziren unibertsitatearen masifikaziogatik, garraio arazoengatik eta abarengatik<sup>10</sup>. Hurrengo errektore hauteskundeak ere, E. Barberák irabazi zituen (1990), baina karguan 1991. urtera arte aritu zen. Ordurako E. Barberáren ustelkeria eta unibertsitatearen diruaren poltsikoratzea ezagunak ziren. Horregatik alde egin zuen. Teknikoki ez zuen dimititu. UPV/EHUko kide izateari utzi zion 1991ko irailean Valentziako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Katedra onartzean.

---

<sup>9</sup> Gorabehera horiek aztertuak izan direnez, hau da, tartean egondako gorabehera politikoak, presioak eta bestelako aldagaiak ez ditugu hemen errepikatutako (De Pablo & Rubio, 2006)

<sup>10</sup> Paragrafo honetako datuak UPV/EHUren historia liburutik atera ditugu (De Pablo & Rubio, 2006: 164-181)

E. Barberáren garaian izendatua izan zen UPV/EHUko lehen euskara errektoreordea. E. Barberárekin bi errektoreorde aritu ziren: lehenengo Jacinto Iturbe (1986-1990), Zientzia Fakultateko irakaslea, eta, ondoren, E. Barberáren 1990ko berrautaketan Andoni Iriondo (1990-1991). J. Iturbe hasi zen prestatzen UPV/EHUren lehen hizkuntza plangintza, gerora A. Iriondok aurkeztu zuena, baina P. Salaburu errektoretzan sartu arte, ez zen erabat gauzatu.

Ondoko puntuotan, UPV/EHU euskararen egoera zein zen argituko dugu. Horretarako bi motatako hurbilpenak planteatzen ditugu: lehena, M. Mateo, G. Monreal eta E. Barberá errektoreen agintaldietan euskararen egoera eta garapena zein izan zen aztertzea, eta bigarrena, irakasleen eta ikasleriaren euskararen aldeko ekimenak azaltzea. Hau da, *goitik* eta ofizialki zer egiten zen, eta *behetik* eta posibilismoa bidaide, zer nolako estrategiak abian jarri ziren. Azken honen adibide gisa Zientzia Fakultatearen kasua aztertu dugu, ez bereziki paradigmaticoa edo parekagarria delako beste ikastetxeetan gertatu zenarekin, baizik eta interesgarriagoa iruditu zaigulako salbuespena aztertzea, ohikoa baino.

## **2.1. Euskal Unibertsitaterako Planifikazio-Batzordea**

UPV/EHUko Gobernu Juntak 1979ko otsailaren 10ean egindako bileran erabaki zuen unibertsitatea antolatzeko (ikasketak, baliabideak, irakasleria eta abar) planifikazio batzorde bat sortzea. Hala, 1979ko martxoaren 5ean Oñatin eratu zen *Comisión de Planificación de la Universidad Vasca/Euskal Unibertsitatearen Planifikazio-Batzordea* (aurrerantzean Planifikazio Batzordea). Ez da kasualitatea Oñati aukeratu izana, bilera eratzailea egiteko. Oñatin behinola unibertsitatea izan baitzen, eta Eusko Ikaskuntzen lehen kongresua ere bertan ospatu zelako.

Oñatin eratutako batzordea, mistoa zen. Espainiar gobernuak eta Eusko Kontseilu Nagusiak (EKN) osatzen zuten. Hala, batzorde buruak bi ziren, ministerioaren ordezkaria Bilboko Unibertsitateko errektorea zen, Martin Mateo, eta Eusko Kontseilu Nagusitik, Karlos Santamaria Hezkuntza Kontseilaria zihoan. Orotara, Planifikazio Batzordea 12 kidek osatzen zuten, eta erakunde bakoitzak 6 ordezkari zituen (aipatutako buruak barne).

Oñatiko bileran, Planifikazio Batzordearen egiteko nagusiak eta antolaketa eredua finkatu ziren. Hala, batzordearen egitekoen artean honako lau hauek aipatu ziren: bata, unibertsitate batek izan behar dituen ezaugarrien azterketa; bigarrena, finkatutako helburuak lortzeko epe laburrerako (1979/80. ikasturteari begira) zein ertainerako (5 urterako) programak edo planak prestatzea; hirugarren, beste ekimen unibertsitarioekin bat egitea<sup>11</sup>; eta azkenik EA Eren beharrak eta eskariak unibertsitatara hurbiltzea. Planifikazio Batzordearen egiteko orokor hauek aurrera ateratzeko lanak hiru lantaldeetan banatu ziren: batetik, *Comité de Estudio de Planificación Educativa*<sup>12</sup>, bestetik *Comité de Investigación*<sup>13</sup> eta, azkenik, *Comité de estudio de las necesidades universitarias en relación con la cultura vasca*. Azken lantalde hau eratzearen ideia Karlos Santamariarena izan zen euskara eta euskal kulturaren unibertsitate-beharrizanak aztertu eta neurriak proposatzeko. Mikel Aizpuruk eta Roldan Jimenok aipatzen dutenez, K. Santamaria Hezkuntza kontseilari bihurtu zenean, unibertsitatea ez zegoen bere eskumenen artean. Bere esparrua Lehen Mailako Hezkuntza izan zen eta bertan euskararen eta euskarazko hezkuntza bultzatzen saiatu zen. “Izan zituen, dena den, bilera bat baino gehiago unibertsitateko agintariekin”<sup>14</sup>. Baina K. Santamariaren ekarpena unibertsitate arloan ez zen mugatu bileretara. Ikusten ari garenez, bera izan zen euskara eta euskal kulturari buruzko lantaldearen sortzailea.

Oñatiko bileran egitekoak eta batzordeak definitzeaz gain, Planifikazio Batzordearen funtzionamendua finkatu zen. Hala, lantalde bakoitzak idazkari bat izango zuen eta idazkariak lantaldeko bilerak deitu eta bileretan eztabaidatu beharreko gaiak eramango zituen. Bestalde, lantaldeak elkarrekin koordinatzeko, lantaldeetako idazkariak osatutako batzorde iraunkorrean (*comisión permanente*) bilduko ziren. Planifikazio Batzordeak bere idazkari propioa zuen, Javier Retegui, une hartan, Hezkuntza Saileko kontseilariordea, hain zuzen ere.

<sup>11</sup> Puntu honetan beraz, ez dira UEU, UZEI edo Eusko Ikaskuntza zuzenean aipatzen baina ingurumari horretaz ari dela argi dago. Zehazki aktan haxe jaso zen: “Como objetivo complementario interesa el de la necesidad de coordinar las iniciativas tanto públicas como privadas que han ido apareciendo durante los últimos años en la vertiente educativa, cultura, científica, etc. De carácter y nivel universitarios.” Planifikazio Batzordearen Oñatiko bileraren akta, 1979.03.05 (JMTA).

<sup>12</sup> Lantalde honen idazkaria Alberto Abad izan zen (De Pablo & Rubio, 2006: 90)

<sup>13</sup> Lantalde honen idazkaria Ramón Bueno izan zen (De Pablo & Rubio, 2006: 90)

<sup>14</sup> (Aizpuru & Roldan, 2002: 30)



## 2.2. Beharrizanen Lantaldea

Oñatin sortu zen, beraz, *Comité de estudio de las necesidades universitarias en relación con la cultura vasca*. Batzordearen euskarazko izena gerora jarri zen eta modu desberdinetara idatzita aurkitu dugu: *Euskal Kulturarekiko Unibertsitate-Beharrizanen Lantaldea* edo *Euskal Kulturaren Beharrizan Unibertsitarioetarako Lantaldea* (aurrerantzean guretzat Beharrizanen Lantaldea). Oñatiko bileran bertan izendatu zuten Lantaldeko idazkaria: Mikel Zalbide. M. Zalbide, ikusia dugunez, ingeniaria zen, Elhuyar Taldeko kidea eta *Elhuyar* aldizkariko kolaboratzailea. Matematika hiztegia prestatzen ibili zenean, Elhuyar Taldeko Matematika azpibatzaileko kide gisa, orduan ezagutu zuen Karlos Santamaria. Matematika hiztegia prestatzen Elhuyar eta Euskaltzaindia aritu ziren. K. Santamariak eta J. M. Zumalabek Euskaltzaindiaren izenean egiten zuten lan hiztegi proiektuan. K. Santamariak Beharrizanen Lantaldearen arduraduna izateko deitu zuenean, M. Zalbide UZEIn lanean ari zen zenbait hiztegi proiektu kudeatzen eta lantzen. M. Zalbideren Donostiako lantokia izan zen, hain zuzen ere, lantaldearen bilera tokia<sup>15</sup>.

Beharrizanen Lantaldea 1979ko apirilean beharrean hasi zen, eta urte amaierara arte iraun zuen. Bere laburrean, lantaldeak bi epe desberdin izan zituen<sup>16</sup>: lehenengo garaia apiriletik uztaile bitartekoa, zeinetan lantaldearen egiteko nagusia *Premia larriko neurrien txostenaren* prestaketa izan zen, eta bigarrena, irailtik urte bukaera artekoa, txostenaren egikaritzera bideratu zena. UPV/EHUren egoera nahasian, are gehiago nahastu zena Martin Mateoren dimisioa eta gero, eta Eusko Jaurlaritzarako 1980ko hauteskunde *impassean*, lantaldeak ez zuen jarraitu.

Lehenengo garaian bilerak astero edo bi asterik behin egiten ziren. Izan ere, lantaldeak txosten bat prestatu behar zuen euskara eta euskal kulturaren egoera unibertsitatean zein zen aztertuz eta 1979/80. ikasturterako plan bat aurkeztuz euskal hizkuntza eta kultura unibertsitatean inplementatzeko. Txostena (*Premia larriko*

---

<sup>15</sup> Paragrafo honetako eta hurrengoetako datuak Mikel Zalbideri (Gasteizen 2007.06.24an eta Zerainean 2007.08.23an) eta Jesus Mari Txurrukari (Leioan 2007ko otsailtik martxora bitartean) egindako elkarrizketatik atera dira. Bestalde ahozko informazioa Beharrizanen Lantaldearen aktekin osatu dugu, Jesus Mari Txurrukaren artxibo pertsonala (JMTA) kontsultatuz.

<sup>16</sup> Beharrizanen lantaldea batzen hasi zenean, M. Zalbideren proposamena izan zen lan egutegia zehaztea, eta bi epe horiek bereiztea (Ikus Beharrizanen Lantaldearen akta, 1979.5.18 (JMTA)).

*neurrien txostena*) 1979ko uztailean amaitu zen, txostenaren azken erabakiak Iruñean UEUk antolatutako Udako Ikastaroetan hartu ziren uztail hartan bertan. Behin dosierra bukatuta zegoela, Bilboko Unibertsitatearen errektorearen eta Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza kontseilariaren esku utzi zuten. Sasoi honetan Beharrizanen Lantaldean aritutako kideak honako hauek izan ziren: Koruko Aizarna (Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskola), Luis Mari Bandres (Elhuyar), Paulo Iztueta (*Zabal* eta *Zehatzen* ibilitakoa), Henrike Knörr (Arabako Unibertsitate Ikastetxea), Iñaki Larrañaga (Siadeco), Xabier Mauleon, Xabier Oleaga (Ikastoletarako irakaslea), Martin Orbe (UEU) eta Jesus Mari Txurruka (Zientzia Fakultateko irakaslea, Z-EKTko kidea). Txostena talde lanean oinarritzen zenez, bilerak ezinbestekoak ziren datuak biltzeko eta kideak elkarren artean koordinatzeko, proposatu beharreko neurriak adosteko eta abar.

Irailetik aurrera lantaldea gutxiagotan bildu zen, bigarren garai honetan egitekoak desberdinak zirelako. Planifikazio Batzordeak zein unibertsitateko Gobernu Juntak *Premia larriko neurrien txostena* urrian ontzat eman zuten. Onespen horren ondoren, Beharrizanen Lantaldeak errol berri bat hartu zuen, txostena prestatu zuen aditu taldea izatetik, eragile izatera igaro zen, txosteneko neurriak abian jartzeko: errektorearekin, Eusko Kontseilu Nagusiko hezkuntza saileko ordezkariekin eta Irakasle Eskoletako zein fakultateetako zuzendaritzekin bildu, irakasle euskaldunen kontratazioa sustatu, kontratazio batzordea eratu, eskatzaileei elkarrizketak egin eta abar... horretaz guztiaz batik bat lantaldeko idazkaria, M. Zalbide arduratu zen, J. M. Txurrukaren laguntzaz.

### **2.3. *Premia larriko neurrien txostena***

Ikus dezagun lehenik, Beharrizanen Lantaldeak 1979ko uztailean amaitutako *Premia larriko neurrien txostena/Dossier de medidas de urgencia*. Txostena elebitan aurkeztu bazen ere, jatorriz euskaraz prestatu zuen Lantaldeak. Txostenak hedadura desberdineko hiru atal nagusi zituen: lehena, irakasle eskolei buruzkoa, bigarrena, unibertsitateko beste ikastetxeei buruzkoa, eta, hirugarren eta azkena, unibertsitateko administrazio zerbitzuko pertsonalaren gainekoa. Lehenengo bietan Lantaldeak 1978/79. ikasturteari zegokion euskararen egoera unibertsitatean aztertzen zuen, aintzat hartuz Hegoaldeko lau probintziak. Ondoren, 1979/80. ikasturterako euskara

unibertsitate publikoan aitzineratzeko proposamenak eskaintzen zituen. Hirugarren atalean, berriz, ez zuen auziaren egoerarik aurkezten, batetik, unibertsitate administrazio eta zerbitzuan euskararen presentzia hutsala zelako, eta, bestetik, ez zuelako lehentasunik unibertsitatearen barne-zerbitzuak euskalduntzeak (ez behintzat irakaskuntzarako irakasleak lortzeko bezainbeste). Halaber, txostenak ez zuen aurreikusten unibertsitatean lehendik zeuden unibertsitateko irakasleen euskalduntzea. Beraz, *Premia larriko neurrien txostenaren* helburua ez zen unibertsitatea, erakunde gisa euskalduntzea, baizik ikasketa unibertsitarioen zati bat euskaraz eskaintzea, unibertsitate aurreko hezkuntza zikloetan euskaraz lan egingo zuten maisu-maistrak prestatzeko eta hezkuntza elebiduna abian jartzeko<sup>17</sup>. Horretarako noski irakasle eskolak irakasle euskaldunak behar zituen, eta hori lortzeko *Premia larriko neurrien txostenak* kontratazio berrien bidea lehenesten zuen, irakasleen euskalduntzea baino.

Segidan *Premia larriko txostenaren* ekarpenak agertzeko, txostenaren abiapuntuko analisia azalduko dugu, hau da, 1978/79. ikasturtean euskararen egoera unibertsitatean zein zen aztertuko dugu, arreta berezia jarritz Irakasle Eskoletan. Ondoren Beharriaren Lantaldeak 1979/80. ikasturterako proposatutako premia larriko neurriak zeintzuk izan ziren eta egikaritu ziren ala ez aipatuko dugu.

### **2.3.1. 1978/79. ikasturteko erradiografia**

Beharriaren Lantaldeak UPV/EHUko premia larriko neurriak proposatzeko, euskararen irakaskuntzaren egoera unibertsitatean zehazki ezagutzeko Hegoaldeko zazpi irakasle eskoletara<sup>18</sup> zenbait itaunekin diseinatutako galde-sorta bidali zuen. Horri esker ikasleriaren eta irakasleriaren gaineko oinarritzko zenbait datu bildu zituen<sup>19</sup>.

---

<sup>17</sup> Txostenean jasota datorrenez, "... Euskal herria [sic] Unibertsitate mailan titulaturiko koadro profesional euskaldunen premia gorrian dagoela (Irakaskuntzarako, Harreman publikoa galdatzen duten lanbideetarako)" (Beharriaren Lantaldea, 1979: 62)

<sup>18</sup> Txostenean aipatzen diren zazpi irakasle eskolak honako hauek dira (txostenean agertzen diren izenekin eskaintzen ditugu): O.H.O.erako Irakasle-eskola Unibertsitarioa (Gasteizkoa, publikoa), O.H.O.erako Irakasle-eskola Unibertsitarioa (Deustukoa, publikoa), "Begoñako Andra Mari" E.G.B.ko Irakasleen Unibertsitate Eskola (Derio, pribatua), O.H.O.erako Irakasle-eskola Unibertsitarioa (Donostiakoa, publikoa), O.H.O.erako Irakasle-eskola Unibertsitarioa S. Coop. Ltda. (Eskoriatzakoa, pribatua), Elizbarrutiaren EGBko Irakasleen Unibertsitate Eskola (Donostiakoa, pribatua) eta azkenik "Huarte Donibane" O.H.O.erako Irakasle-eskola Unibertsitarioa (Iruñekoa, publikoa).

<sup>19</sup> Zoritzarrez Gasteizko Irakasle Eskolari dagokion daturik ez zen jaso eta horregatik ondoko tauletan ez da Gasteizko daturik eskaintzen (Beharriaren Lantaldea, 1979: 4)

Ikasleriari dagokionez, honakoa zen 1978/79. ikasturteko irakasle eskoletako ikasle kopurua eta euskararen gaineko ezagutza (ikus V.1. Taula):

Irakasle Eskola	Ikasle kopurua	Euskaraz dakiten edo ikasten ari direnen portzentajea
Deustukoa (publikoa)	1.926	49,9
Deriokoa (pribatua)	514	(ez dago daturik)
Donostiakoa (publikoa)	962	68,1
Eskoriatzakoa (pribatua)	125	100
Elizbarrutiarena (pribatua)	323	100
Iruñekoa (publikoa)	300	23,3

**V.1. Taula:** Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako ikasleria 1978/79. ikasturtean.  
Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979)

Ikusten denez, Hegoaldeko unibertsitate eskola pribatu zein publikoetan 4.000 ikasletik gora matrikulatuta zegoen. Ikastetxe bakoitzean ikasle goaren euskararen ezagutza desberdina zen. Azpimarratzekoa da, Gipuzkoaren kasua, hiru eskola zituelako, eta Donostiako publikoa erdaldunena zelako.

Irakasle eskoletako irakasleriari dagokionez, datuak oso bestelakoak ziren. Kolektibo honetan euskaldun gutxi zegoen (ikus V.2. Taula):

Irakasle Eskola	Irakasle kopurua	Euskaraz dakiten edo ikasten ari direnen portzentajea
Deustukoa (publikoa)	52	19,2
Deriokoa (pribatua)	32	68,7
Donostiakoa (publikoa)	31	58
Eskoriatzakoa (pribatua)	17	100
Elizbarrutiarena (pribatua)	18	83,3
Iruñekoa (publikoa)	40	7,5

**V.2. Taula:** Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako irakasleria 1978/79. ikasturtean.  
Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979)

Irakasleriaren euskararen ezagutzari dagokion taulak (ikus V.2. Taula), ez du benetan irudi oso zehatza eskaintzen. Zeren, esate baterako, Deustuko Irakasle Eskolan ez zegoen euskaraz ondo zekien irakaslerik. Ondoko taulan datu hori zehazten saiatu gara (ikus V.3. Taula):

Irakasle Eskola	Irakasle kopurua	Euskaraz badaki	Euskara ikasten ari da
Deustukoa (publikoa)	52	0	10
Deriokoa (pribatua)	32	13	9
Donostiakoa (publikoa)	31	9	6
Eskoriatzakoa (pribatua)	17	16	1
Elizbarrutiarena (pribatua)	18	13	2
Iruñekoa (publikoa)	40	3	(ez dago daturik)

**V.3. Taula:** Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako euskaraz dakiten edo ikasten ari ziren irakasleak 1978/79. ikasturtean. Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979)

Bistan da, irakasle eskolen artean publiko eta pribatuen arteko aldeak irakasleriaren kontratazioari begira izugarriak zirela. Deustu, Gasteiz, Donostia edo Iruñeko Irakasle Eskoletan irakasle erdaldunak nagusi ziren<sup>20</sup>. 70eko hamarkadan sortutako Derioko, Elizbarrutiko eta Eskoriatzakoetan berriz, irakasle euskaldunen kontratazioa aktiboki bultzatu zutela nabarmena da. Hain zuzen ere, unibertsitate eskola horiek zuten euskarazko eskaintza zabalena 1978/79. ikasturtean. Izan ere, Derion, Elizbarrutikoan eta Eskoriatzan, publikoetan ematen zen Euskal Filologia espezialitatetik kanpo ere, euskaraz eskaintzen ziren zenbait irakasgai: Derion adibidez, Matematika; Elizbarrutikoan, Geografia, Psikologia, Filosofia, Erlijioa, Hizkuntzaren Psikologia eta haurren hazibide logiko-matematikoa; eta azkenik, Eskoriatzak eskaintzen zuen euskarazko eskaintzarik zabalena, hainbat irakasgai kurtso desberdinetan (Geografia, Matematika, Musika, Plastika, Lengoaien Didaktika eta abar).

Euskararen irakaskuntzari dagokionez, bai Irakasle Eskoletan bai unibertsitateko beste ikastetxeetan ere, erregimen desberdinetan euskara ikas zitekeen, hasi mailarik baxuenetik eta buka alfabetatzean. Premia larriko txosteneko datuekin euskara ikasten ari ziren ikasle kopuruarekin honako taula prestatu dugu:

<sup>20</sup> Donostian irakasleen portzentaje handi bat euskalduna zen, Araban, Bizkaian eta Nafarroan baino gehiago, Gipuzkoa zelako euskal hiztun gehien zituen lurraldea.

Unibertsitate Ikastetxea	Euskara ikasten
Deustukoa Irak. Esk.	962
Donostiakoa Irak. Esk.	410
Iruñekoa Irak. Esk.	200 <sup>21</sup>
Informazio Zientzien Fak.	1go maila osoa
Zientzia Fak.	743
Ekonomi Zientzien Fak.	446
Arte Ederren Fak.	56
Medikuntza Fak.	550 <sup>22</sup>
Erizaintza Eskola	160
Zuzenbide Fak.	114
Zientzia Kimikoen Fak.	82
Donostiako Enpresa Unib. Esk.	62
Filosofia Fak.	75
Informatika Fak.	106

V.4. Taula: Unibertsitatean euskara ikasten zuten ikasleak 1978/79. ikasturtean.  
Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979)

Irakasle Eskola pribatuetan (Derion, Eskoriatza eta Elizbarrutikoan) euskara, ikasgai gisa, karreran bertan ikasten zen. Hala ere, aurreko taulan ikusi dugunez (ikus V.1. Taula) bertako ikasleria oro har euskalduna zen. Publikoetan Deustu, Donostia eta Iruñeko ikastetxe publikoetan, berriz, euskara borondatezko irakasgaia zen. Ikasleak irakasgai horretan ikastetxean matrikulatu arren, irakaskuntza hori ematen zuten irakasleak ez ziren unibertsitateko irakasleak, orduka kobratzen zuten euskara irakasteko monitoreak baizik. Hain zuzen ere, arestian aipatu dugunez, Deustuko Irakasle Eskolan ez zegoen irakasle euskaldunik, unibertsitateak ordaindutako euskara irakasten zuten monitoreak, irakasle koordinatzaileak zeuden. Honek guztiak eragin zuzen-zuzena zuen euskara ikasteko eskolen gainean<sup>23</sup>.

Bestalde, *Premia larriko neurrien txostenak* eskaintzen ditu zenbait datu fakultateetan euskara ikasteko klaseetan zenbat ikasle zeuden jakiteko. Taulan aipatzen diren fakultateez gain (ikus V.4. Taula), beste hauetan ere euskara ikas zitekeen (nahiz eta ikasleen gaineko datu zehatzik ez izan): Arabaren kasuan, Arabako Unibertsitate Ikastetxeko medikuntza ikasketetan, Filosofia eta Letren Fakultatean, eta Perito

<sup>21</sup> Datu hau 1977/78. ikasturteari dagokio (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 24)

<sup>22</sup> Datua Premia Larriko Txosteneko eranskinetatik.

<sup>23</sup> Izan ere Premia Larriko Txostenean honako balorazio gazi gozoa eskaintzen zuen ordura arte monitoreen esku egondako euskara klaseen gainean: “Azken batean, badirudi entzundako kexuak funtsean ondoko hiru hauetara bil daitezkeela / a) Ikasleek burua nekatzeko gogo gutxi agertzen dute klaseetan, eta erraz uzten diote klasera etortzeari./ b) Irakasleak prestakuntz maila eskasekoak dira, eta ez dute beren egitekoan ardura gehiegirik agertu / c) Zuzendaritzak ez du bere hitza bete: Otsail ingurutik edo, ordaindu gabe dauzka irakasleen soldatak.” (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 67)

Eskolan; Bizkaiaren kasuan, Industri Ingeniaritzako Goi Eskolan, Peritoen Eskolan, Meatze Eskolan eta Merkataritza Eskolan (Elkano). Kasu honetan ere, Irakasle Eskoletan gertatu bezala, unibertsitateak irakasle bakar batzuk kontratatzen zituen euskara ikasteko eskolak koordinatzeko, eta beste hainbat monitoreren laguntzaz ematen ziren eskolak.

Orotara, beraz, txosteneko datuen arabera, gutxienez 3.966 ikasle<sup>24</sup> zeuden Hegoaldean euskara unibertsitatean ikasten 1978/79. ikasturtean. Konparazio baterako, UPV/EHUn aipatutako ikasturtean 20.338 ikasle zeuden<sup>25</sup>. Kontuan hartzen baditugu V.4. Taulan agertzen diren datuak, Iruñeko Irakasle Eskola kopuruak kenduta, gutxienez, UPV/EHUko ikasleen % 18,5a unibertsitatean euskara ikasten ari zen. Horri gehitzen badiogu, Irakasle Eskoletan Euskal Filologia bazela, bai Bilbon eta, bai, Donostian ere, Donostiako Kimika Zientzien Fakultatean L. M. Bandresek eta A. Santamariak karrerako irakasgai batzuk euskaraz ematen zituztela eta Leioako Zientzia Fakultatean zein Medikuntza Fakultatean bertako irakasleak klasean emandako gaiak mintegi bidez euskaraz lantzen zituztela ikasleekin, ondorioa ezin nabarmenagoa da: artean hizkuntza plangintzarik egon ez arren, EAEko unibertsitate publikoan, Franco hil ostetik, eta oso urte gutxitan komunitate unibertsitarioaren sektore zabal bat, gehien bat ikasleak eta irakasle euskaltzale batzuk, euskara unibertsitatean sartzeko sakaka ari ziren (maiz ikastetxeetako zuzendaritza taldeen gogoz kontra edota erabateko ezaxolarekin). Sarrera hori bideratzen ari ziren unibertsitate kultur taldeak (EKT, EKM, EIT eta abar) euskalduntze-alfabetatze mugimendurekin batera. Unibertsitate Eskola eta Fakultateetako euskara ikasteko klaseak antolatu zituztenak, irakasle koordinatzaileak bereziki, aipatutako mugimenduko kide izaten ziren. Koordinatzaileak maiz euskalduntze alfabetatzean ari ziren irakasleak monitore gisa hartu zituzten (nahiz eta askotan unibertsitateko ikastetxe bertan ikasle euskaldunak zirenak ere, monitore lanetarako hartu zituzten).

---

<sup>24</sup> Informazio Zientzien Fakultateko 1go mailako ikasleak ez dira kontutan hartu datu zehatzik ez dugulako aurkitu.

<sup>25</sup> (Flores, 1997: 153)

### 2.3.2. 1979/80. ikasturterako proposatutako neurriak

Beharrizanen Lantaldeak 1979/80. ikasturterako proposatutako neurrien abiapuntuan bi txosten zeuden: batetik, lantaldeak berak prestatutako azterketa euskararen egoera unibertsitatean zein zen azaltzen zuena eta bestetik Siadecok aurreko urtean prestatutako txostena (*Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskera*, 1978). Siadecoren txostenaren arabera, 1976an 493.296 ikasle zeuden lehen hezkuntza (OHO) egiten eta beraien kalkuluen arabera, 1985ean 60.000 ikasle gehiago izango ziren. Ondorioz, oinarrizko hezkuntzari begira irakasle asko behar zen. Horri gehitzen bazaio hezkuntza-elebitasunaren gainean Eusko Kontseilu Nagusiak 1979ko apirilean ateratako dekretua<sup>26</sup>, ondorioa argi da: OHOrako irakasle euskaldunak behar ziren. Ikastolak kenduta, beste eskola eta ikastetxe pribatuetan irakasleria erdalduna nagusi zen. *Premia larriko neurrien txostenaren* arabera, “Hemendik 1985era, hortaz, 4.509 irakasleren premian egon gaitezke euskara eta euskaraz irakasteko”<sup>27</sup>. Horregatik guztiagatik Lantaldeak hurrengo ikasturterako proposatutako neurri gehienak irakaskuntzaren berehalako beharrizan gorria asetzerara bideratuta zeuden. Hala, neurri gehienak irakasle eskoletarako izan ziren, OHOrako irakasleak bertatik ateratzen zirelako, eta zenbait fakultatetarako, karrera batzuetatik institutuko irakasleak irteten zirelako.

Irakasle Eskoletarako proposamenak 4 izan ziren. Lehena, Euskal Filologia espezialitatea sortzea hiru Irakasle Eskoletan (Gasteizen oraindik ez zegoen), euskal Filologia unibertsitateko Filologien baitako espezialitate izan gabe; eta bertako irakasgai guztiak euskaraz ematea, gaztelania irakasgaia izan ezik, jakina. Neurri horrek ikasle zein irakasleei eragiten zien. Hala, txostenean zehazten zen espezialitate hau egin nahi zuten ikasleek euskara jakin beharko zutela. Irakasleei dagokionez, kontratazioak gauzatu arte, soilik derrigorrezko irakasgaiak euskaraz ematea aurreikusten zen.

Lantaldearen bigarren proposamena euskara oinarrizko irakasgaia izatea zen Euskal Filologiatik kanpoko espezialitateetan ere. Kontuan izan behar da, ordura arte

<sup>26</sup> Eusko Kontseilu Nagusiren Aldizkari Ofiziala, 1979ko apirilaren 20ko Errege dekretua.

<sup>27</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 34)



borondatezkoa zela. Neurria leuntzeko, Lantaldeak proposatzen zuen ikasleek aukera izango zutela instantzia bat betez gero, irakasgaia ez egiteko.

Hirugarren proposamena, irakasleen kontratazioari zegokion. Hezkuntza elebidunari buruzko dekretua indarrean egon arren, txostenean behin baino gehiagotan aipatzen zen unibertsitate publikoaren Irakasle Eskoletan ezin formatu zitezkeela oinarritzko hezkuntzarako irakasle elebidunak<sup>28</sup>. Arestian aipatu dugunez, horren arrazoa zen bertako irakasleria nagusiki erdalduna zela eta euskararekiko jarrera ezkorra zuela:

“Gaur egun Irakasle-eskoletan dagoen irakaslegoak, batez ere Eskola Estataletakoak, ezin erantzun diezaioke, bere huts-hutsean behinbat, goian aipaturiko berrikuntz behar guzti horiei. Ez **dago horretan zertan harriturik, beraiek beste moduko irakasmolde baterako prestatu eta aukeratuak izan zirenez**”<sup>29</sup> [beltzak gureak dira]

Lantaldeak unibertsitateko irakasleen konplizitaterik ez zuela bazekien, unibertsitateko irakasleetako asko euskararen erabileraren kontra zeudelako edota besterik gabe ez zutelako ikasiko, are zenbaitetan beronen sarrera oztopatuko baitzuten. Baina irakasle horien *status quo*ari eutsi nahi zioten<sup>30</sup>:

“VI.4.2. Egungo irakaslegoaren egoera

a) Irakasle-eskola estataletako egungo irakaslegoak, ikusi ahal izan dugunez, salbuespen batzuk alde batera utzita, ez dauka bere gaiak euskaraz emateko gaitasunik.

b) Egungo irakaslegoak, berdin da numerario ala ez-numerario izan, bistan da eskubide batzuk dituela bere lanpostuari dagokionean.”<sup>31</sup> [azpimarrak jatorrizkoan]

Beraz, irakasleria euskalduna prestatzeko bide azkar bakarra, kontratazioarena zen, bai aipatutako irakasgai berrietarako irakasle berriak kontratatuz, bai irakasle plaza bat hutsik geratzean euskaldunei lehentasuna emanez. Guztira, Lantaldeak 32 irakasle berriren kontratazioa planteatzen zuen, ordura arteko monitore bidezko irakaskuntza baztertuz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren kalitatea ziurtatzeko eta irakasle

---

<sup>28</sup> “Lehen esan denez, egungo egoeran ezinezkoa da Euskal Herriko Irakasle-eskolek, eta estatalek bereziki, Irakaskuntz Politika elebidun baten eskakizunei behar bezala erantzutea” (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 52)

<sup>29</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 38)

<sup>30</sup> Txostenean behin baino gehiagotan aipatzen da unibertsitate irakasleen “irakasleen eskubide profesionalak errespetatzea”.

<sup>31</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 53)

euskaldunak eta erdaldunak profesionalki parean jartzeko, nahiz eta azken hau ez den txostenean esplizituki esaten.

“Irakasle-eskoletan euskarako [sic] klase hauek emango dituen irakaslegorik ez dago, gaur gaurkoz, ikastetxeetan bertan, behar hainbateko neurrian.

Azken ikasturte honetan, esate baterako, monitoreen eskutan utzi behar izan da ia osorik irakasle-eginkizuna. Egoera hori onartezina eta bertan behera baztertu beharrekoa da Lantalde honen ustez, gaitasun-eskakizun minimoak ere eskaintzen ez dituelako.

Euskarako klaseak emango dituen irakasleak, ikastetxeko beste **edozein irakasleak bezala, ohizko titulazio akademikoaz hornitua egon behar du. Horretaz gainera, euskararen ezaguera-maila jakin bat eskatuko zaio**”<sup>32</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, Lantaldeak planteatzen zuen euskararen sarrera unibertsitatean erdal lerroa eta erdal irakasleak arriskuan jarri gabe egitea. Egia esan, irtenbide hau ez zen berria. Hegoaldeko bizitzaren ia edozein mailatan, baina politikoan bereziki, frankismoko polizi, epaile eta bestelako funtzionarioak oro har, erregimen berriak ez zituen egotzi edo zalantzan jarri. Oro har, irtenbide kontinuitista eman zitzaion frankismoari, baita unibertsitatean ere.

Lantaldeak laugarren eta azken proposamenean Koordinazio Batzorde baten eraketa planteatzen zuen unibertsitate barrutiko beharrezanean erantzuteko. Hau da, irakasle euskaldunen kontratazioa bideratzeko, ikasleen instantziak aztertzeke, txostenean jasotako helburuen ebaluaziorako eta hurrengo epeetarako plangintzak diseinatzeke.

Fakultateei dagokionez, Lantaldeak proposatutako neurriak apalagoak ziren. *Utiltasun-faktorea* aplikatuz, euskal barruti unibertsitarioan zeuden unibertsitate ikastetxeak 3 motatan bereizten zituen. Funtsean utiltasun faktorea, eragin sozialari zegokion:

“a) Bihar eguneko Irakaskuntz sistemako koadroak, batez ere lehen etapetakoak (O.H.O.eko bigarren etapa, B.U.P., F.P., C.O.U.) hornitzen dituzten zentruak. Praktikan, Barrutiko Fakultateok: Arte Ederrak / Biologia / Filologia/ Filosofia / Fisika / Geografia eta Historia / Geologia / Kimika / Matematika / Pedagogia.

b) Duten erabilpen-eremu sozialagatik euskaraz jakitea bereziki interesgarria izan daitezkeenak:  
Informazio-zientzietako Fakultatea  
Medikuntza Fakultatea  
Erizaintza-eskola

<sup>32</sup> (Beharizanen Lantaldea, 1979: 47)

Nekazal Injinadore Teknikoetako Eskola  
c) Gainerako Zentruak.”<sup>33</sup>

Lantaldeak a) eta b) multzoko fakultate eta unibertsitate eskoletarako planteatzen zuen karreraren azken bi kurtsoetan euskara hautazko irakasgai gisa eskaintzea zentroko irakaskuntza eskaintzaren barruan. Informazio Zientzien Fakultaterako berriz, eskakizun zehatzagoak egin zituen, fakultate horretan 1978/79. ikasturtean lehen mailako ikasle guztiak euskara ikasteko klaseetan matrikulatu zirelako. Fakultate honentzat Lantaldeak proposatu zuen 8 irakasle titulaturen kontratazioa, 1979/80. ikasturtean fakultate honetan 800 ikasle egongo zirelako euskara ikasteko klaseetan.

Beraz, berriz ere, ikusten da irakasleria euskalduna lortzeko kontratazioa zela bidea. Izan ere, irakasle euskaldunak egonik ere, sarri askotan ez zeuden alfabetatuta, eta beraien formazioa osoa gaztelaniaz jaso ondoren ez zuten gaitasunik unibertsitate mailan euskarazko irakasgairik emateko:

“-Unibertsitate irakasle gehienek ez dakite euskaraz. Eta, euskaldunen artean ere, denak ez dira gai beraien jakintza-sail berezikoezaguerak [sic] beren ikasleei behar bezalako duintasunez euskaraz azaltzeko”<sup>34</sup>

Halaber, Lantaldearentzat euskalduna izatea ez zen nahikoa eta oso argi adierazten zuen baldintza biak eskatu behar zirela. Hau da, karrerako titulua eta euskararen gaineko ezagutza<sup>35</sup>. Beraz, hizkuntzaren ezagutzak ez zituen irakaslegaiaren gabeziak estaliko. Izan ere, K. Mitxelena eta beste batzuren beldurra hori zen: euskara lehenestea unibertsitate mailako hezkuntzaren eta, oro har, ezagutzaren kalterako izango zela. Lantaldeak berriz, biak uztargarriak zirela ikusten zuen.

Bukatzeko, lantaldeak txostenaren hirugarren eta azken atal laburrean unibertsitateko administrazio zerbitzuko pertsonalari (AZP) egindako proposamenak jaso zituen. Proposamenon helburua unibertsitatea euskalduntzea ez bazen ere, bertan oinarritzko neurri batzuk proposatzen ziren. Alde batetik, irakasleei zegokionez,

---

<sup>33</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 69)

<sup>34</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 60)

<sup>35</sup> “b) Irakasle hauei langintza honetarako ohizko titulazio akademikoa eskatuko zaie, eta horretaz gain euskararen ezaguera-maila jakin bat” (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 70)

departamentu bakoitzean irakasle bat izendatzea proposatzen zen euskararen ardura har zezan eta irakasleria erdaldunari lanorduetan euskara ikasteko aukera eskaintzea. Bestetik, irakasle ez ziren unibertsitateko langileentzat proposatzen zuen kontratazio berrietan “eta bereziki bedel, telefonozain, bibliotekazain edo idazkarienetan, euskara kontuan hartua izan dadila orobat”<sup>36</sup>.

### 2.3.3. Txostenaren aplikazioa

Beharrizanen Lantaldeak *Premia larriko neurrien txostena* 1979ko uztailaren azken egunean amaitu eta Martin Mateo errektorea eta Karlos Santamaria Hezkuntza Kontseilariaren esku utzi zuten. Aipatu dugunez, txostenak hilabete gutxi batzuren buruan, irailean bertan, eta oporrak tarteko, hastear zegoen kurtsorako zenbait neurri proposatzen zituen. Txostenean jasotakoak abian jartzea zaila zen hain denbora tarte laburrean, eta horri gehitu zitzaion unibertsitatearen egoera nahasia. Martin Mateok 1979ko irailean dimititu zuen. Gonzalo Martin Guzman izendatu zuten errektore funtziotan, baina praktikan Gregorio Monreal errektoreordeak kudeatzen zuen unibertsitatea, K. Mitxelenarekin (une hartan errektoreordea) eta M. Guzmanekin astean behin bilduz<sup>37</sup>. Zernahi gisaz, UPV/EHUren Gobernu-Batzarrak 1979ko urriaren 9an onartu zuen *Premia larriko neurrien txostena*, bai Irakasle Eskoletarako planteatutako neurriak<sup>38</sup> bai beste ikastetxeetarako proposatutako euskara irakasgaiaren sorrera<sup>39</sup>.

Beharrizanen Lantaldeak prestatutako *Txostena* Euskal Herrian unibertsitate baterako prestatutako lehen hizkuntza plangintza izan zen. Hasieran aurreikusitako neurriak, 1979/80. ikasturtean aplikatzeko baziren ere, besteak beste, unibertsitatearen gobernu egoera nahasiak, beronen egikaritze osoa zenbait urtez luzatu zuen. Azkenean

<sup>36</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 179: 73)

<sup>37</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 88)

<sup>38</sup> Aktak honela dio: “La Junta acepta el Plan propuesto y encomienda a los representantes de las tres Escuelas que lleguen a un arreglo para presentar un Plan único que rija en todo el Distrito. Se encomienda al Prof. Mitxelena la supervisión de dicho acuerdo, que la junta hace suyo y lo da ya por válido. Se acepta igualmente, incluir la lengua vasca com[o] asignatura básica común en el Plan de Estudios de las demás especialidades cursadas en las Escuelas.” Ikus UPV/EHUko Gobernu Juntaren akta, 1979.10.9 (JMTA).

<sup>39</sup> Honen gainean aktan jasotakoa: “Tras un extenso debate sobre el tema la Junta adoptó el siguiente acuerdo: con objeto de impartir las enseñanzas del euzkera [sic] con un mejor rendimiento académico, la Junta de Gobierno acepta la propuesta formulada por la comisión de Planificación Universitaria, en el sentido de que desde el presente curso dic[h]a enseñanza entrará a formar parte de los dos últimos cursos de la carrera” Ikus UPV/EHUko Gobernu Juntaren akta, 1979.10.9 (JMTA).

Gregorio Monreal izan zen benetako eragilea eta 1981. urtean UPV/EHUko errektore hautatua izan zen<sup>40</sup>.

Oro har, esan daiteke plangintzak arrakasta izan zuela Irakasle Eskoletan, urte gutxiren buruan euskarazko ikasketen eskaintza garatzen lagundu zuelako. Hala, 1982/83. ikasturtean Bilbo eta Donostiako Irakasle Eskola publikoetan espezialitate guztiak euskaraz ikas zitezkeen (Euskal Filologiaz gainera). Hori posible izan zen nahiko arin bideratu zelako irakasleria euskaldunaren kontratazioa eta Irakasle Eskoletarako behar ziren irakasle euskaldunak kontratatzeko *Txostenean* aipatutako Koordinazio Batzordea berehala osatu zelako. Hala *Premia larriko neurrien txostenean* aipatutako 32 irakasle plazak bete ziren 1980. urtea amaitu baino lehen<sup>41</sup>.

Fakultateetan berriz, *Premia larriko neurrien txostenak* emaitza oso desberdinak izan zituen. Hiru fakultatetan, Leioako Zientzia Fakultatea, eta Donostiako Kimika Zientzien Fakultatean zein Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, karreraren azken bi kursoetan, eta saio modura, euskara irakasgaia martxan jarri zen eta Donostiako Zuzenbide Fakultateak plan alternatibo bat prestatu zuen bere beharretara egokitua<sup>42</sup>. Beraz, premien txostena fakultate batzuetara heldu zen, bereziki bertako irakasle euskaldunak sustatu zuten kasuetan, eta besteetan ez zuen inongo eraginik izan. Segidan Zientzia Fakultatean euskara irakasgaiaren bilakaera zein izan zen aipatuko dugu, ikusteko *Premia larriko neurrien txosteneko* proposamenak egikaritzea ez zela automatikoa izan.

---

<sup>40</sup> (Aizpuru, 2003a: 103)

<sup>41</sup> Irakasleen aukeraketa ez zen erraza izan, Donostiako Irakasle Eskolako 10 plazak betetzeko ez zen arazorik izan, baina Bilbon lau deialdi egin behar izan ziren 16 plazak betetzeko. Araban berriz, monitorea hartu ziren, aurkeztutakoak ez zituztelako irakasle izateko gutxieneko baldintzak betetzen (Ikus “Euskal Unibertsitaterako Planifikazio-Batzordea: Euskal kulturarekiko unibertsitate-beharrizanen lantaldea. Hasieratik orain arteko ekintzen erreposoa”, ca. 1980 (JMTA).

<sup>42</sup> Zuzenbide Fakultateko Koldo Gorostiaga irakasleak Zalbideri honako proposamena egin zion: “a) Dado el escaso rendimiento de clases de euskera impartidas el año pasado en dicho Centro, existe entre los alumnos un interés manifiesto por estructurar dichas clases de forma más racional a partir de Enero próximo. Al parecer, los alumnos han mostrado su interés de organizar dichas clases con ritmo de tres horas por semana y dentro del horario lectivo./ b) Contando con el volumen relativamente elevado de profesores euskaldunes existentes en el Centro ( $\approx 12$ ), se ha previsto iniciar en breve unos Seminarios destinados fundamentalmente a tratar de elaborar en vascuence el lenguaje específico de su carrera con vistas a su posterior aplicación en el ámbito docente y en el profesional” (Ikus “Comisión de Planificación de la Universidad del País Vasco: Comité de estudio de necesidades universitarias en relación con la Cultura Vasca”, ca. 1980 (JMTA).

Zientzia Fakultatean Saisetako Zuzendarien Batzarrak onartu zuen 1979ko urrian euskara irakasgaia sortzea aukerazko gehigarri gisa<sup>43</sup>. Hau da, euskara ikasteak ez zuen beste hautazko bat ordeztzen, gehigarria zen. Irakasle euskaltzaleek ez zuten onartu eta gaia fakultateko Juntara eraman zuten. Juntarako prestatutako txostena Beharrizanen Lantaldeko kide izandako Jesus Mari Txurrukak egin zuen (nahiz eta Z-EKTK izenpetu)<sup>44</sup>. J. M. Txurrukaren txostenak *Premia larriko neurrien txostenak* planteatutako euskara irakasgaia, Euskara Zientifikoa bihurtzea proposatzen zuen eta “gurera egokitutako Lovainako Unibertsitateko irakaskuntz metodologiaren antzeko batekin gainera”<sup>45</sup>. Izan ere, garai horretan Zientzia Fakultatera hurbildutako Iñaki Agirre Lovainako irakaslea zen eta belgikar unibertsitateko esperientzia elebiduna kontuan hartuta prestatu zuen aipatutako proposamena. Beraz, ikusten denez, J. M. Txurrukak aurkeztutako eskariak *Premia larriko neurrien txosteneko* proposamen generikoa garatzen zuen. Ikastetxeko Juntak 1980ko martxoan onartu zuen Euskara Zientifikoa hautazko irakasgai gisa sortzea (eta ez gehigarri gisa). *Premia larriko neurrien txostena* eta fakultateetarako proposatutako neurri zehatzak azaltzeko Mikel Zalbide fakultateko Juntara gonbidatua izan zen<sup>46</sup>.

Azkenean, Zientzia Fakultatean euskara irakasgaia honela antolatu zen: 4. mailan alfabetatze orokorra eta 5. mailan alfabetatze zientifikoa. Irakasgai berriaren onarpenetik eta berriazko 4 irakasleen kontrataziora arte denbora tartetxo bat joan zen. Aipatutako irakasleak 1982. urtean ematen hasi ziren Euskara Zientifiko irakasgaia Zientzia Fakultatean. *Premia larriko txostenak* aurreikusitakoa baino bi ikasturte beranduago.

Zientzia Fakultateak aipatutako 4 irakasleen kontratazioa egin zuenean, giroa nahasia zen unibertsitatean, eta euskal kulturgintza ere, antzera zebilen. Justu orduantxe

<sup>43</sup> (Txurruka, 2005: 10-11)

<sup>44</sup> Z-EKT “Laugarren eta bostgarren kurtsoetan euskara gai optatibo bezala sartzeko eskariari buruzko txostena/ Informe sobre la petición de introducción del euskara como asignatura optativa en los cursos cuarto y quinto”, data zehaztu gabe, (JMTA).

<sup>45</sup> (Txurruka, 2005: 11)

<sup>46</sup> M. Zalbideren aurkezpenaren ostean eta gaia eztabaidatu ostean proposamena onartua izan zen (“Se somete a votación la propuesta:/ Inclusión del euskara científico como asignatura optativa de 2º ciclo, y que no sea adicional sino que equivalga y sustituya a cualquiera de las optativas ofrecidas en el Plan Docente” (Zientzia Fakultateko klaustroko akta, 1980.3.6, JMTA). Proposamenaren aldeko botoak 33 izan ziren, kontrakoak 24 eta abstentzioak 5. Aldeko boto gehienak ikasleenak izan ziren, eta kontrakoak irakasleenak. Beraz, irakasgai berria hautazkoa izateaz gainera, borondatezkoa zen (Txurruka, 2005: 11)

K. Mitxelenak *Muga* aldizkarian argitaratu zuen *Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia* artikulua ezagun eta polemikoa. Gorago aipatu denez, K. Mitxelenak UZEIren hiztegi gintza bidea kritikatzeari gain, euskararekin zientziaren esparruan egiten ziren *gehiegikeriak* kritikatu zituen. Azken finean, K. Mitxelenarentzat euskararen normalizazio prozesua arinegi zihoan. Horregatik, ez da harritzeko Zientzia Fakultateko irakasle batzuk K. Mitxelenaren artikulua kontrako eta beraien ekarpenaren alde iritzi artikulua argitaratzea sasoiko prentsan.

Bukatzeko, Lantaldearen *Txostenetik* eratorritako azken ondorio bat Euskararako Kabinete Teknikoaren sorrera izan zen, hurrengo puntuan zehatzago azalduko duguna.

## 2.4. Euskararako Kabinete Teknikoa

Beharrizanen Lantaldeak *Premia larriko neurrien txostenean*, unibertsitateak idazki ofizialak eta publikoak elebitan eman behar zituela jaso zuen:

“1. Ikastetxeetako izendapen edo idazki publikoak elebitara ematea. Bere aplikagune nagusiak ondoko hauek dirateke:

- 1.1. Ikastetxe desberdinetako izenburuak, orientabide-palak, gela-izenak,...
- 1.2. Ikaslegoari eskainiko zaizkion idazki ofizialak: instantziak, matrikulua-orriak,
- 1.3. Material didaktikoa. Gerra aurreko Euskal Gobernu autonomoak eraturiko Medikuntza Fakultatean, inoiz aipatu izan denez, laborategiko konposatu kimiko guztiak eta izendapen bikoitzez omen zeuden.”<sup>47</sup>

1979ko *Txostenetik* ateratako aipua eta 1981eko maiatzean sortutako Euskararako Kabinete Teknikoaren egitekoa berdintsua denez, gure ustez Kabinetea txostenak ereindako hazitik sortu zen. Kabinetea dena den, Gregorio Monreal unibertsitateko errektoreak sortu zuen, “UPV/EHUan hizkuntz politika berria bideratzeko asmoz”<sup>48</sup>. Arestiko kapituluan aipatu dugunez, unibertsitateko barnezerbitzu berri honi Euskararako Kabinete Tekniko izena jartzea ez zen kasualitatea izan. Kabinetearen laburdura EKT baitzen, eta Z-EKTko kide izandakoek izen hori proposatu

---

<sup>47</sup> (Beharrizanen Lantaldea, 1979: 72)

<sup>48</sup> Xabier Kintanak dioenez Kabinetea G. Monrealen erabaki pertsonalez sortu zen (Kintana Urriaga, 1994c: 233)

zioten errektoreari, Kabineteak EKTen lekukotza hartzea nahi zutelako, ordurako hilda zeuden unibertsitateko kultur taldeen omenez<sup>49</sup>.

Kabinetearen arduraduna urte luzeetan Xabier Kintana izan zen, Irakasle Eskolan 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean ibilitakoa, hasieran euskara ikasteko eskolen irakasle koordinatzaile gisa, eta gerora Euskal Filologia espezialitateko irakasle gisa, harik eta 1980. urtean Institutuko lehen euskara katedra lortu zuen arte. Orduan Bilboko Gabriel Aresti Institutura joan zen, baina hurrengo urtean bueltatu zen unibertsitatera, Leioan Kabinete sortu berrian lan egiteko<sup>50</sup>.

#### **2.4.1. Unibertsitatearen euskararen inguruko jardueren antolaketa**

Euskararako Kabinete Teknikoak nolabait EKTen izena islatzeaz gainera, eginkizunetan ere, aurreko hamarkadan unibertsitateko kultur taldeek egin zutena egiten hasi zen. Izan ere, Kabinetearen hasierako urteen egitekoa unibertsitateko euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren kudeaketa izan zen. Hala ere, aipatu ohi da, Kabinetearen egiteko nagusia unibertsitateko testu, seinale eta inprimakien euskaratzea izan zela<sup>51</sup>, hau da, unibertsitatearen hizkuntza pasaia euskaratzea eta itzulpenen bitartez euskara gaitzea unibertsitatearen administrazioko hizkuntza gisa<sup>52</sup>. Baina, ikusiko dugunez, hasiera batean Kabineteak zenbait esparrutan lan egiten zuen, eta aipatutako bi horiek ez ziren inondik inora zentralak. Horren adibide da, Kabinetearen lanean zeuden bi pertsonak 1981/82. ikasturtean 47 agiri eta dokumentu baino ez zutela euskaratu<sup>53</sup>. Urteak joan, urteak etorri, hala ere, Kabinetearen egiteko nagusia administrazio agirien itzulpena bihurtu zen. Beraz, segidan ezezagunagoa den Kabinetearen hasierako urteak azalduko ditugu.

Kabinetearen 1981/82. ikasturteko memoriaren argitan, Kabineteak egiteko asko zituen. Hasierako urteetan Kabineteak unibertsitatearen euskalduntzea helburu zuen, eta

---

<sup>49</sup> Jesus Mari Txurrukaren lekukotza (2007ko otsailetik martxora bitartean Leioan egindako elkarrizketak) eta Jose Ramon Etxebarriaren lekukotza (2007ko urtarriletik martxora bitartean Leioan egindako elkarrizketak).

<sup>50</sup> (Arana-Martija, 1995: 38)

<sup>51</sup> (De Pablo & Rubio, 2006: 312)

<sup>52</sup> (Kintana Urriaga, 1994c: 234)

<sup>53</sup> Ikus "Euskara Unibertsitatean 1981-82. ikasturteko ekintza eta ordainbideak" agiria (JMTA).



horretarako euskara irakasteko ikastaroak antolatu zituen, fakultate batzuetan euskarazko irakaskuntza bideratu, irakasle euskaldunak kontratatuz adibidez, mintegi espezializatuak antolatu zenbait fakultatetan, testugintzan aritu, eta unibertsitateko bibliotekak euskal lanez hornitzeko dirua banatu zuen.

Euskara ikasteko klaseen antolaketa ez zen ez Kabinetearen egitekoa, ezta unibertsitatearena ere, Euskal Filologian izan ezik. Hala ere, modu iragankor batean onartzen zen unibertsitateko ikasle eta langileentzat, irakasle zein administrazio eta zerbitzuetako langileentzat<sup>54</sup>, ikastaroak antolatzea. Euskara ikasteko hiru maila zeuden, baita alfabetatze orokorrerako zein mintza praktikorako beste ikastaro bana ere. Hala, Kabineteak 1981/82. ikasturtean gastatutako 18 miloi pezetatik 8 miloi baino gehiago, partidaren handiena, euskararen irakaskuntzarako erabili zituen. Garai horretan 1.877 ikasle ibili ziren euskara ikasten irakasle monitoreekin<sup>55</sup>. 1982/83. ikasturteko memorian, berriz, euskara ikasten ibilitako unibertsitateko ikasleak 862 ziren<sup>56</sup> (ikus V.5. Taula). Hala ere, euskara ikasten zuen ikasleen kopurua erdira jaitsi arren, aurrekontua gutxitu beharrean, pixka bat igo zen<sup>57</sup>. Bestalde unibertsitateko ikasleen % 60a lehenengo eta bigarren mailetan zegoen eta alfabetatze klaseetan % 8-9a. Beraz, unibertsitario euskaldun gutxi zegoen unibertsitate publikoan.

UPV/EHUko ikastetxea	1981/82	1982/83
Arte Ederren Fak.	13	36
Ekonomia eta Enp. Z. Fak	172	139
Zientzia Fak.	70	39
Informazio Z. Fak.	826	152
Ingeniaritzako Goi Eskola	63	47
F <sup>a</sup> , G <sup>a</sup> eta H <sup>a</sup> Fak	-	0
Ingeniaritza Tek. Unib. Esk. (Gasteiz)	42	32
F <sup>a</sup> eta Hezk. Z. Fak	559	379
Informatika Fak.		39
Kimika Zientzien Fak.	41	38
Zuzenbide Fak.	91	-
Guztira	1.877	862

**V.5. Taula:** Euskara ikasleen kopurua fakultatea (1981/82-1982/83. ikasturteak).  
Iturriak: Euskararako Kabinetearen 1981/82 eta 1982/83ko memoriak.

<sup>54</sup> Kabineteak antolatutako euskara ikastaroetan administrazio eta zerbitzuetako langile gutxi ikasten zuen. 1981/82. ikasturtean 65 pertsona zegoen, eta hurrengo ikasturtean are gutxiago 21.

<sup>55</sup> Ikus "Euskara Unibertsitatean 1981-82. ikasturteko ekintza eta ordainbideak" agiria (JMTA).

<sup>56</sup> Ikus "Euskara Unibertsitatean 1982-83. ikasturteko ekintza eta ordainbideak" agiria (JMTA).

<sup>57</sup> 1981/82. ikasturtean jarduera honetan 8.167.910 pezeta gastatu ziren, eta 1982/83. ikasturtean 8.691.370 pezeta.

Ikusten denez, unibertsitatean euskara ikasten zutenen kopuruak urte gutxiren buruan eta arrapaladan behera egin zuen. *Premia larriko neurrien txostenean* ikusi dugunez, 1978/79. ikasturtean gutxienez 4.000 ikasle zegoen unibertsitatean euskara ikasten, eta 1981/82. ikasturtean berriz, erdia baino gutxiago (1.877), eta hurrengo ikasturtean beste horrenbeste gertatu zen. Kabinetearen 82/83ko memorian bertan aipatzen da zein izan daitekeen fenomeno horren arrazoia:

“Nolanahi ere den, aurreko urtearekin gonbaratuz gero, Unibertsitatean euskara ikasi nahi duten ikasleak gutxitu izan direla ageri da. Ez da hortik segitzen, ordea, arlo horretan desinteresik dagoenik, ikasle-jendeak H.A.B.E.k, A.E.K.ak, euskaltegiak, gau-eskolek etab. dauzkaten zerbitzu espezializatu gero eta hobetarako joatea erosoago aurkitzen duela baizik”<sup>58</sup>

Unibertsitatean euskara ikasteko klaseen arrakasta txikia zen 70eko hamarkadatik, irakasle monitoreen prestakuntza ez zelako egokia<sup>59</sup>, ikasleen absentismoa oso handia zelako<sup>60</sup> eta abar. Beraz, ezbairik gabe, unibertsitatea baino leku aproposagoak zeuden euskara ikasteko.

#### 2.4.2. Euskarazko irakaskuntzaren gertakuntza

Irakasleen kasuan, Kabineteak euskararen arloan zenbait ekintza burutu zituen. UPV/EHUK lehen aldiz 1982/83. ikasturtean zenbait irakasle erdaldun liberatu zituen klaseetatik eta euskara ikastaroak ordaindu zizkien. Zehazki, ikasturte horretan Deustuko eta Donostiako Irakasle Eskoletako 11 irakasle liberatu zituen eta Zientzia Fakultateak bakarrik. Ikusten denez, hiruzpalau urte arinago *Premia larriko neurrien txostenak* lehenetsitako Irakasle Eskolak jarraitzen zuten euskalduntzearen arreta gune garrantzitsuenak izaten. Halaber, Kabineteak beste 4 irakasleren ikastaro trinkoak ordaindu zituen. Bestalde Zientzia Fakultateko euskara zientifikoko irakasleen

<sup>58</sup> Ikus “Euskara Unibertsitatean 1982-1983. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA).

<sup>59</sup> Batzuetan karrerako ikasle euskaldun alfabetatu berriak ziren, beraz hizkuntzaren irakaskuntzan aritzeko prestakuntza txikia zuten, eta ordainketa ere ez apartekoa, are gehiago sasoi batzuetan kobratu gabe aritzen ziren. Nahiz eta urteekin arazo biak konpontze bidean jarri ziren.

<sup>60</sup> Esate baterako 1981/82. ikasturtean Sarrikon euskarazko lehenengo maila egiten 105 ikasle hasi ziren, baina kurtsoa 52k soilik amaitu zuten (cfr. “Euskara Unibertsitatean 1981-82. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA)).

formazioa finantzatu zuen<sup>61</sup>. Jarduera hauetan guztietan Kabineteak 4 milioi pezeta baino gehiago gastatu zituen.

Zientzia Fakultatean 1979/80. ikasturtean karrerako lehenengo maila ofizialki euskaraz jartzea lortu zuten. 1980. urtean Fakultateak onartu zuen *Premia larriko neurrien txostenean* aipatzen zen 4. eta 5. mailetarako euskara irakasgaia ematea eta 1981/82. ikasturtean karrerako borondatezko irakasgai gisa sortu ziren *Alfabetatze Orokorra* eta *Euskara Zientifikoko* irakasgaiak. Beste fakultate batzuetan, 80ko hamarkadaren hasieran oraindik mintegiak baino ezin zituzten antolatu. Mintegietan, aipatu dugunez, gai espezializatuak euskaraz jorratzen ziren, eta bihar-etziko irakasgaiak euskaraz emateko gertaleku ziren.

“Unibertsitatean ba dira hainbat Fakultate, ikasle edo irakasle euskaldun nahikorik ezaz, gaia orain arte gutxi landua izan delako edo bestelako arrazoiengatik, **oraindik irakaskuntza normala euskaraz ez dutenak**. Berorietan baina, irakasle-ikasleen artean **irakasgai ezberdinak lantzeko mintegiak antolatu bultzatu [sic] egin dira, geroagoko irakaskuntza normaleranzko zubi gisa**”<sup>62</sup> [beltzak gureak dira]

Esate baterako, 1982/83. ikasturtean Kabineteak mintegi bidez landutako zenbait gai desberdin finantzatu zituen: Baleren Bakaikoaren Sarrikoko alfabetatze zientifiko-teknikoa, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 3 mintegi: bata Filosofiaren Historiari buruzkoa, bestea Zientziaren metodologiaren gainekoa, eta hirugarren eta azkena, Psikologia orokorrari buruzkoa. Guztira Kabineteak aipatutako ikasturtean 10 mintegi bere gain hartu zituen eta ia miloi bat pezeta gastatu zuen horretan. 1981/82 ikasturtean berriz, mintegien aurrekontua erdia baino gutxiago izan zen, 5 mintegi soilik antolatu zirelako: Mikroekonomia (B. Bakaikoa), Kimika (A. Gurrutxaga), Pedagogia (F. Etxeberria), Informatika (K. Sarasola) eta Biologia (J. M. Txurruka) arlokoak.

Mintegiez gain, Kabineteak Zientzia Fakultateko karrerako 2. maila euskaraz eskaintzeko asmoz, irakaslegai euskaldunak formatzeko hiru beka eman zituen 1982/83. ikasturtean:

---

<sup>61</sup> Donostiako ikastaroa ordaindu zuen, baita Euskaltzaindiaren bilera batera aipatutako irakaslerk Uztaritzera egindako bidaia ere.

<sup>62</sup> “Euskara Unibertsitatean 1982-83. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA).

“Zientzi Fakultateko Biologi Sailaren bigarren ikasturtea euskaraz emateko zeuden baldintza egokiak ikusiz, jadanik lehen kurtsoan ziren ikasle, euskaldunen kopuru handia eta egon zitezkeen irakasle euskaldun gertatuak zirela eta, Fakultatearen eskariz eta Errektorearen aldeko eritziz, hiru irakaslegairi beka bana ematea erabaki zen, urte betean nor bere asignatura presta zezan. Bekez gainera Laborategiko gastuetarako ere laguntza bana eskaini zitzaion”<sup>63</sup>

Bekadunek euskarazko irakasgai hori emateko materiala prestatu behar zuten. Beraz, beka euskarazko ikasketa eskaintzaren zabalpenarekin, irakasleriaren euskalduntzarekin eta testugintzarekin lotuta zeuden. Kabineteak emandako beka hauek zehatzago aztertu ditugu 2.5. *Irakaslegai euskaldunen formakuntza beken bidez* atalean.

### 2.4.3. Euskarazko testugintzaren sustapena

Kabineteak unibertsitateko euskarazko irakaskuntza eta ikerkuntza abiatzeko oinarriak jarri zituen. Alde batetik, eta jada aipatu dugun moduan, irakasleria erdalduna euskaldunduz, euskarazko mintegi espezializatuak sustatuz, beka bidez irakaslegaiak prestatuz eta abar. Bestetik, euskarazko testugintza sustatuz. Sustapena bi modutara egin zuen: batetik, unibertsitateko bibliotekarako euskarazko materialak erosiz. Izan ere, unibertsitatean euskarazko libururik ia ez zegoen<sup>64</sup>. Bestetik, Kabineteak euskarazko testugintza sustatzeko eta material falta arintzeko, mekanografi zerbitzua antolatu zuen unibertsitateko irakasle euskaldunek prestatutako materialen argitalpena errazteko. Funtsean, Kabineteak testuak mekanografiatu egiten zituen, eta gero argitaletxeren batek argitaratzen zituen. Gehienetan, garai honetan UEUK argitaratzen zituen testu mekanografiatuok.

Mekanografia lanetarako Kabineteak pertsona bat kontratatu zuen 1982an<sup>65</sup>. 1981/82-1982/83. ikasturteetan, Kabineteak 40 testu prestatu zituen. Horietako asko

<sup>63</sup> “Euskara Unibertsitatean 1982-83. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA).

<sup>64</sup> “Euskara eta euskarazko irakaskuntza ikasketa-programa ofizialetan oraintsu arte ez dira agertu eta horregatik Fakultate eta Unibertsitate-Eskola gehienetan euskal eta euskarazko gaien buruzko literatura-bibliografian hutsune nabaria dago” Ikus “Euskara Unibertsitatean 1981-82. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” (JMTA).

<sup>65</sup> Mari Karmen Menika kontratatu zuen. Baina M. K. Menika 1983. urtean mekanografia lanak utzi eta UEUn lanean hasi zen. Gerora urtetan UEUKo Idazkari Nagusia izan da.

Zientzi Fakultateko irakasleek egin zituzten euskarazko irakasgaiak emateko eta gerora UEUk argitaratu zituen<sup>66</sup>.

Ikusten denez, hasiera batean Euskararako Kabinetearen (eta oro har UPV/EHUren), eta UEUren arteko harremana, elkarren osagarria izan zitekeen. Azken finean, garai honetako UPV/EHUko irakasle euskaldunetako asko, bereziki euskararen sarrera unibertsitatean bultzatzen ari zirenak, edo euskara zientifikoko irakasgaia ematen zutenak, edo mintegi espezializatueta irakasleak, UEUn ere parte hartzen zuten, zuzendari gisa, Talde Eragilean edo Udako Ikastaroak antolatuz.

1981ean UPV/EHUko errektore Gregorio Monreal hautatu zenean, UEU eta unibertsitate publikoaren arteko harremana finkatzeko saioak egon ziren. Izan ere, UEUn parte hartzen zuten kide asko UPV/EHUko irakasleak ziren eta G. Monrealek euskararen aldeko jarrera zuen (Kabinetea sortzea asmo horren lekuko izanik). Ingurumari horretan bi erakundeen arteko harremana, are lankidetzaz, edota integrazio aukerak aztertzen hasi ziren. Bi erakundeen arteko harreman ofizialak hasi baino lehen UEU eta UPV/EHUren arteko harremanak onak eta abegitsuak ziren. Mikel Aizpururen hitzetan UPV/EHUK ez zuen “eragozpenik hasierako urteetako memoria ofizialetan bere irakasleek UEUn burututako lanak aipatu eta goraipatzeko”<sup>67</sup>. Era berean, UEUko zuzendariak, Martin Orbek 1981eko Udako Ikastaroen sarrera-hitzaldia emateko gonbidapena egin zion G. Monreali. Azkenean, G. Monrealek ez zuen eman, baina hura izan zen lehen aldia (eta azkena) UEUren Udako Ikastaroetan parte hartu zuena unibertsitate bateko errektoreak.

UPV/EHU eta UEU 1981eko azaroan bildu ziren ofizialki lehen aldiz, bi erakundeen arteko harremanak zeintzuk izan behar zuten aztertzeko. Gaizki ulertu, borondate eta ideien bateratasun faltagatik, azkenean 1981-1983. urteetan UEU UPV/EHUn integratzeko saioak porrot egin zuen. Horrek ondorio zuzena izan zen testugintzan. Izan ere, G. Monrealek “unibertsitateak bere irakasleek egindako lanak berak argitaratzeko zuen eskubidea azpimarratu zuen”<sup>68</sup> Euskara Batzordean (eta

---

<sup>66</sup> Adibidez, *Moluskuak; Anelidoak eta talde anelidianoak; Fisikaren historia* eta abar.

<sup>67</sup> (Aizpuru, 2003a: 172)

<sup>68</sup> (Aizpuru, 2003a: 176)

Kabinetea, batzordea sortuz geroztik, haren menpe zegoen). Hala, 1984. urtean lehen aldiz argitaratu zituen UPV/EHUK euskarazko liburuak. Pello Salaburuk Baztango euskararen fonetikaren inguruan prestatutako tesia<sup>69</sup> bi liburutan atera zen eta, halaber, P. Salaburuk, Kabineteko arduradunarekin, X. Kintanarekin prestatutako *Euskara hobean hobe* (1984) hizkuntz gida. Beraz, UPV/EHUK 1984an ez zuen testulibururik prestatu, baina ondoko urteetan astiro-astiro, euskarazko irakaskuntzaren lagungarri izango zen argitalpengintza antolatu zuen.

Bukatzeko eta balantze gisara, Kabinetea unibertsitate publikoko hizkuntzaren erabilera bideratzeko lehen barne erakundea izan zen eta ikusi dugunez, lehen bizpahiru urteetako lana euskararen erabilera unibertsitatean bideratzea izan zuen, hainbat jarduera martxan jarritz. Horixe zioen hain zuzen 1982/83. ikasturteko memoriak: “Kabinetearen betebeharra, oro har, Unibertsitatean orain arte egiten ari ziren ekintzak lagundu, euskara-eskolen kontrola eraman, textugintza-mintegiak bultzatu eta unibertsitatearen bizitza elebiduntzeko pausoak ematea izan da”<sup>70</sup>. Hala ere, eta garaiko lekukotza bat hona ekarriz, hau da, *Egin* egunkarian argitaratutako Jacinto Iturberen hitzak hona ekarriz, bere ustez, Kabineteak ez zuen “bere betebeharra betetzen edo nire ustez bete beharko lukeena, hau da fakultate bakoitzaren ekintzak bultzatu eta koordinatu. Nire ustez ez du funtzionatu. Batzutan frenatu bai egin du”<sup>71</sup>. Gure ustez, Kabineteak hasiera batean denetarik egin behar zuen, hau da, unibertsitatean euskarari zegokion guztia bere esku jarri zen. Ondorioz, frente gehiegiri aurre egin behar zion, eta baliabide urriak zituen. Izan ere, 1982/83. ikasturtean unibertsitateak 2.994 milioi<sup>72</sup> pezetetako aurrekontua bazuen, Kabinetearen ikasturte bereko aurrekontua 23 milioi pezetetakoa zen, hau da, unibertsitateko aurrekontuaren % 0,7a baino ez zen euskararentzat<sup>73</sup>. Baliabide gutxi eta lan egitasmo zabala izateaz gainera, Kabinetea ez zegoen guztiz errotuta unibertsitatean. Finantzazioa ez baitzion unibertsitateak ematen, erakunde publikoek baizik, hau da, Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek.

<sup>69</sup> Pello Salaburuk bere doktorego-tesia 1983an aurkeztu zuen (*Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia*).

<sup>70</sup> Ikus “Euskara Unibertsitatean 1982-83. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA).

<sup>71</sup> J. Iturberen hitzak Mikel Aizpururen lanetik atera ditugu (Aizpuru, 2003a: 103)

<sup>72</sup> (Flores, 1997: 153)

<sup>73</sup> Ikus “Euskara Unibertsitatean 1982-83. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” (JMTA).

Beraz, euskararen erabilera unibertsitatean sustatzeko lehen erakundea izanik, lan esparru zabala zuen Kabineteak eta baliabide gutxi. Gero, apurka-apurka, urteekin unibertsitatean hizkuntzaren lan esparruak definitu eta mugatu ahala beste erakunde batzuk sortu ziren, hala nola, Euskara Batzordea, Euskara errektoreordea, fakultateetako euskara batzordeak, Euskara Institutua eta abar. Azpiegitura zabal bat eratu zen hizkuntzaren sustapenerako unibertsitatean. Aipatutako erakundeak sortu ahala Kabinetea gero eta gehiago zentratu zen “administrazio-erabilera normaldua izan ez duen mintzaira honen mila arazo”<sup>74</sup> gainditzen. Bertan itzuli dira bai unibertsitateko agiri administratiboak bai unibertsitate sartzeko hautaprobak, testu-liburuak zuzendu dira eta abar. Gaur egun Euskara Kabinete Teknikoa desagertu da eta horren ordean Euskara Zerbitzuak betetzen du haren lekua.

## **2.5. Irakasleria eta ikasleria elebiduna**

Unibertsitateko komunitatea hiru motatako kideek osatzen dute: ikasleek, irakasle/ikertzaileek eta administrazio zerbitzuetako langileek. Azkenak, unibertsitatearen funtzionamendurako ezinbestekoak diren arren, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren formazioan eta eraketan oso parte hartze txikia dutenez, alde batera utziko ditugu.

Irakasleei dagokionez, aipatu behar da abiapuntuko UPV/EHUko irakasleria nagusiki erdalduna zela eta zeuden euskaldun bakanak, salbuespenak salbuespen, alfabetatu gabeak zirela. Ikusi dugunez, UPV/EHU euskaraz lehen irakasgaiak emateko unibertsitateak hartu zuen bidea kontratazioarena izan zen. Esate baterako, hori gertatu zen Irakasle Eskoletan 70eko hamarkadaren amaiera eta 80koaren hasieran. Unibertsitateak kontratatutako irakasleak 1982. urtera arte ez zuten hizkuntza soslaiaren gaineko zehaztapenik. Urte horretan Joxe Azurmendik lortu zuen unibertsitateak sortutako lehenengo irakasle plaza elebiduna Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Dirudienek, inor ez zen ohartu Gregorio Monrealek plazaren probisorako egindako hizkuntz zehaztapenez eta halaxe, agerian, baina alardetik gabe, lehen irakasle elebiduna sartu zen unibertsitatean.

---

<sup>74</sup> (Kintana Urriaga, 1994c: 234)

Beste fakultate batzuetan euskarazko irakasgaiak bertako irakasleen ekimenez antolatu ziren. Irakasle horiek beren euskalduntze-alfabetatzearen bidez, euren buruak prestatu zituzten eskolak euskaraz emateko. Horixe gertatu zen Zientzia Fakultatean, aurreko atalean ikusi dugunez, eta lehen irakasgaiak euskaraz modu ofizial batean eman zituzten 1979/80. ikasturtean. Baina Zientzia Fakultateko irakasleen ekimena ez zen ohikoa izan UPV/EHUn. Beraz, UPV/EHUko irakasle euskaldunak, nagusiki, kontratazio berrien bidez sartu ziren, ez hainbeste lehendiko irakasleen euskalduntze-alfabetatze bidez. Irakasle erdaldunak euskalduntzeko lehen saiakera UPV/EHUn ez zen heldu 1982/83. ikasturtera arte. Hasiera horretan irakasleen euskalduntzea Euskara Kabinete Teknikoaren ardura zen eta aipatutako ikasturtean modu batera edo bestera dozena bat pasatxo irakasleri aukera eskaini zitzaion euskara ikasteko edo hartan sakontzeko.

Ikasleriari dagokionez, aurreko kapituluan ikusi dugunez, 70eko hamarkadan ikasleak, irakasleekin batera unibertsitateko kultur taldeetan (EKT, EKM eta abarretan) parte hartzen zuten euskal kultur jarduerak unibertsitatean bultzatzeko. Baina 80ko hamarkadan unibertsitateko ikasleria euskalduna antolatzen hasi zen euskarazko irakaskuntza eta, oro har, unibertsitatearen euskalduntzea eskatzeko. Hala, hamarkada honetan, unibertsitatean euskara sustatzen irakasle euskaltzaleen eta ikasle euskaldunen taldeak ditugu. Bien ekintzak koordinatuta egon gabe ere, elkarren osagarri ziren. Zientzia Fakultatean esate baterako, ikasleen presiorik gabe, irakasleen ekimenak burutzea zailagoa izango zen.

Lehenengoetariko ikasle elkarte garrantzitsua Informazio Zientzien Fakultatean sortutako Akerlanda izan zen. Elkarteak 1980. urtean sortu zen<sup>75</sup> eta 1983an bere estatutuak finkatu zituen. Ez da harritzekoa ikasle elkarte honen sorrera goiztiarra. Izan ere, 1978/79. ikasturtean kazetaritzako ikasle guztiak euskara ikasteko eskoletan matrikulatu eta 1981/82. ikasturtean euskarazko lehen irakasgaiak eman baitziren<sup>76</sup>.

---

<sup>75</sup> (Zabala eta beste, 2005: 330)

<sup>76</sup> (Amezaga, 2002: 221)



Akerlanda Euskal Taldeak 1983ko azaroan bere estatutuak onartu ostean, unibertsitateko elkarte gisa errekonozimendua eskatu zuen, unibertsitateak elkarteei emandako diru-laguntzak jaso ahal izateko. Estatutueta elkartearen egitekoa finkatu zen, eta elkartearen talde eragileko kide gisa 50 ikasleren izenak jaso ziren<sup>77</sup>:

“UNIBERTSITATEKO EUSKAL IKASLEEN “AKERLANDA” TALDEAREN ESTATUTUAK

1.- Euskara, gure hizkuntza nazionalak jasaten duen bazterketa ikusirik EHU-ko ikasle batzuk “Akerlanda” taldea eratu dugu, unibertsitate mailan euskara berreskuratzeko, Euskal Herriaren euskalduntzean parte hartu nahi dugularik.

2.- TALDERAREN ZEREGINAK.

a) **Euskal Kultura unibertsitate mailan zabaldu.**

b) **Unibertsitate mailako irakaskuntzaren euskalduntzea indartu.**

c) **Unibertsitatearen bizitzaren euskalduntzea jadetsi.**

(...)

3.-TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA=

a) Taldearen partaide izango dira nahi duten unibertsitateko ikasle euskaldun guztiak.

b) Taldearen barruan hiru komisio eratuko dira:

-Kultur komisioa.

-Irakaskuntza komisioa.

-Euskalduntze komisioa.

c) Taldearen bilerak astero izango dira gutxienez.

d) Taldeak lokalik ez du oraindik. Suposatzen dugu unibertsitateak bulegoren bat eskeiniko digula.

4.-TALDEAREN JUNTA

a) Taldearen erabaki guztiak batzarraren eskuetan egongo dira.

b) Hiru sail-buru egongo dira, komisio bakoitzaren erabakietaz arduratzeko. (...)”<sup>78</sup> [beltzak gureak dira]

Estatutueta atalik interesgarriena taldearen zereginak finkatzen diren puntuari dagokio. Bertan, hiru zeregin aipatzen dira. Lehenengorako, hau da, euskal kultura unibertsitatean zabaltzeko, hilero bi kultur jarduera (film, antzerki...) antolatzeko asmoa agertzen zuten. Unibertsitateko irakaskuntzaren euskalduntzeari dagokionez, fakultate guztietan euskal lerroa bultzatzeko asmoa agertzen zuten, eta are Euskara Batzordea edota antzeko erakundeak eusteko prest agertzen zen (“kritikoki apoiatuko ditugu, beharrezkoa ba da ere, horietan parte hartuz”<sup>79</sup>). Beraz, Akerlandak aurreikusten zuen laguntza ematekotan ezingo zela guztiz ados egon Euskara Batzordearekin. Hirugarren eta azken zereginen artean Akerlandak unibertsitate bizitzaren euskalduntzearen alde egiteko, bai langileei bai administrazioari lotutako dokumentazioa euskaraz eskatuko zuela adierazten zuen.

---

<sup>77</sup> Horietako asko gaur egun Euskal Herriko komunikabideetan lan egiten dute: EITB, *Berria*, *Diario Vasco*, *Gara* eta abar.

<sup>78</sup> “Unibertsitateko euskal ikasleen “Akerlanda” taldearen estatutuak” agiria, 1983.11.17 (JMTA).

<sup>79</sup> “Unibertsitateko euskal ikasleen “Akerlanda” taldearen estatutuak” agiria, 1983.11.17 (JMTA).

Informazio Zientzien Fakultateko euskarazko ikasketen eskaintzaren areagotzearen<sup>80</sup> eragileak bi izan ziren: batetik aipatu dugun Akerlanda taldea, eta bestetik fakultateko Euskara Batzordea. Oro har, fakultateetako Euskara Batzordeak unibertsitateko 1985ko estatutuen ostean sortu ziren. Hala ere, aipatutako fakultatean 1984ko ekainean sortu zen Euskara Batzordea, fakultateko 4 irakaslerekin (P. Salaburu, K. Landa, A. Azkargorta eta R. Basurto). Batzordeak lehenengo bileran bertan finkatu zuen 1984/85. ikasturterako 1go eta 2. kurtsoetan euskarazko irakaskuntza zabaltzeko plangintza<sup>81</sup>.

### 2.5.1. Zientzia Fakultateko irakasle eta ikasle euskaltzaleak

Akerlandaren antzeko elkarteak sortu zuten ikasleek Zientzia Fakultatean *Bultza!* (1985). Baina ez zen izan Zientzia Fakultatean unibertsitatearen euskalduntzearen inguruko ekimen bakarra. Aitzitik, aurreko ataletan aipatu dugunez, Bultza baino lehen Zientzia Fakultateko irakasle (eta ikasle) euskaltzaleek bide luzea egin zuten. Atal honetan Zientzia Fakultatean izandako ekimen eta eragile euskaltzale nagusiak sakonago aztertuko ditugu (Z-EKT, Euskara Batzordea, Bultza eta abar).

#### 2.5.1.1. Posibilismoaren lorpenak irakaskuntzan

Zientzia Fakultateko irakasle eta ikasle euskaltzaleak plataforma eta estrategia desberdinak erabili zituzten fakultatea euskalduntzeko. Hasiera batean Z-EKT<sup>82</sup> eta UEU baliatu zituzten<sup>83</sup>. 80ko hamarkadaren hasieran Z-EKT desagertu zenean, eta Euskara Batzordea sortu arte, harreman pertsonalak baliatu eta maiz Euskararako Kabinetearen sostengua bilatu zuten (adb. irakaslegaiak formatzeko bekak bertatik bideratu ziren). Euskara Batzordea sortu zenean (1983), Zientzi Fakultateak bi

<sup>80</sup> Josu Amezagak Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko euskarazko irakaskuntzaren progresioa aztertu du. Bere lanean hazkundearen grafiko batzuk eskaintzen ditu. Grafikoetan euskararen irakaskuntzaren progresioa, fakultateko erdal irakaskuntzarekin alderatzen da (Amezaga, 2002)

<sup>81</sup> Ikus Informazio Zientzien Fakultateko Euskara Batzordearen akta, 1984.06.01 (JMTA).

<sup>82</sup> Adibidez, mintegiak antolatzeke, Euskara Zientifikoko irakasgaiaren proposamena egiteko eta beronen irakasleen hasierako bulego gisa eta abar.

<sup>83</sup> Adibidez ikastaroak irakasleen zein ikasleen formaziorako, eta euskaraz ematen ziren irakasgaien testuliburuak argitaratzeko. Halaxe aitortzen zen 1980/81ko ikasturtean Zientzia Fakultatean prestatutako txostenean: “Orain arte egin ditugun testu-liburuak UEUrei esker argitaratu ditugu, honek Bankuetxe baten laguntza zuelarik horretarako” (Ikus “‘Euskara Zientifikoa’ Zientzi Fakultatean”, ca. 1980/81. ikasturtea (JMTA).

ordezkari izendatuak izan ziren, Jesus Mari Txurruka eta Jacinto Iturbe. Biak ala biak aurreko urteetan hainbat gestio eta txosten prestatu zituzten euskarazko irakaskuntza aitzineratzeko Zientzia Fakultatean. Euskara Batzordeko kide gisa, J. M. Txurrukak eta J. Iturbek, euskararen aldeko ekimenak gauzatzeko aukera handiagoa zuten. Estatutuak onartu ostean, Zientzia Fakultatean sortutako Euskara Batzordean (1985) J. M. Txurrukak eta J. Iturbek, bertako kide izanik, hantxe eman zioten jarraipena irakaskuntza eskaintzaren euskalduntzeari. Segidan prozesu osoa zehaztasun handiagorekin argituko dugu.

Aurreko kapituluan aipatu dugunez, Zientzia Fakultatean 1977/78. ikasturtetik aurrera fakultateko irakasle batzuk<sup>84</sup> gaztelaniaz ematen ziren irakasgaien baitan euskarazko mintegiak eskaintzen hasi ziren ikasle euskaldunei. Mintegien bidez, irakasleak euskarazko eskolak emateko trebatu ziren eta irakasgaiak euskaraz eman ahal izateko materiala prestatzen hasi ziren. Materialok UEUK argitaratu zituen. Zientzia Fakultateko ekimen hauek eta beste batzuk bertako kultur taldeak, Z-EKTK, bideratzen zituen; aldi berean Z-EKTKo kideak UEUn parte hartzen zuten, fakultateko ikasgaien osagarri ziren Udako Ikastaroak antolatuz. Mintegietan egindako aurre lanari esker, 1979/80. ikasturtean lehen aldiz Zientzia Fakultateko Biologia karrerako lehenengo mailako irakasgaiak, Biologia, Fisika, Kimika eta Matematika euskaraz ikas zitezkeen, irakasleak prestatuta zeudelako, baita testu asko ere. Honela gogoratzen du garaia J. M. Txurruka irakasleak:

“Urte hartako irailean [1979], ikasturtea hasi baino lehen hortaz, Zientzia Fakultateko lehen kurtso bost irakasgai euskaraz emateko behar ziren irakasleak kontratatze eskaera-txostena aurkeztu genion orduan jardunezko errektorea zen Goio Monreal errektoreorde jaunari. Bai eta Goio Monrealek Madrilen lanpostuak lortu ere! Zientzia Fakultatean euskarazko lerroa abiaraztearekin batera hasi genuen 1979-80ko *cursus academicus mirabilis* hura.”<sup>85</sup>

Biologiako irakasle batzuk Zientzia Fakultateko irakasleak ziren ordurako (J. R. Etxebarria, J. Iturbe, J. M. Txurruka) eta beste lau unibertsitateak kontratatu behar izan zituen (J. M. Arregi, I. Garcia Gurtubai, I. Urretxa eta M. J. Zarate). Biologia karrerako lehenengo maila euskaraz egitea erabaki zutenak 1979/80. ikasturtean 22 ikasle izan

---

<sup>84</sup> Irakasle horiek ziren: Jose Ramon Etxebarria, Jacinto Iturbe, Jesus Mari Txurruka, Iñaki Garcia Gurtubai, Jesus Mari Arregi.

<sup>85</sup> (Txurruka, 2005: 10)

ziren. Hain zuzen ere, Zientzia Fakultateko dekanok kurtso osoa euskaraz emateko baldintza gisa jarri zuen gutxienez 20 ikaslez osatutako taldea izan behar zuela<sup>86</sup>. Hasierako urteetan euskaraz Biologian matrikulatutako ikasleen progresioa honako hau izan zen:

Ikasturtea	Ikasle berriak	Errepikatzaileak	Guztira
1979/80	22	0	22
1980/81	19	7	26
1981/82	40	7	47
1982/83	42	15	57
1983/84	45	18	63

**V.6. Taula:** Zientzia Fakultatean Biologia karrerako lehenengo mailan euskaraz matrikulatutako ikasle kopurua (1979/80-1983/84). Iturria: Zientzia Fakultateko irakasle euskaldunen taldeak prestatutako txostena<sup>87</sup>

Datuen argitan, argi zegoen euskarazko irakaskuntza eskaintza zabaltzea erabat zilegia zela, gero eta ikasle gehiago karrera euskaraz ikasten hasten zelako (fakultateko beste karreretan berriz, 10 ikasletik behera matrikulatzen zen), eta lehentasuna Biologiak zuela. Lehenengo maila euskaraz egiten zuten ikasleei fakultateko irakasleek doaneko ikastaro trinko bat ematen zuten musu-truk<sup>88</sup>, “beldurrak” kentzeko<sup>89</sup>.

Lehenengo mailako eskaintza finkatu ostean, hurrengo pausua izan zen bigarren eta hirugarren mailako irakasgaiak euskaraz eskaintzea. Halaber, lehen zikloko irakasgaiak euskaraz eskaintzea lortu zenean, bigarren zikloaren *kolonizazioa* hasi zen 1985/86. ikasturtean. Nolabait, prozesu hau 1998. urtean amaitu zen. Orduan atera baitziren Zientzia Fakultatek karrera osoa euskaraz ikasitako lehen tituludunak. Hori guztia posible izan zen unibertsitatearen Gobernu Juntak 1980. urtean onartu zuelako askatasuna ematea zentzuzko euskarazko irakaskuntza antolatzeke orduan:

<sup>86</sup> “Euskara Zientifikoak Zientzi Fakultatean”. ca. 1980/81. ikasturtea (JMTA).

<sup>87</sup> Zientzi Fakultateko Irakasle Euskaldunen Taldea “Zientzi Fakultateko euskarazko irakaskuntz lerroa antolatuz joateko epe laburrerako pausoak”, 1984.2.7 (JMTA).

<sup>88</sup> Zientzia Fakultateko irakasle euskaltzaleak unibertsitateko lan ofizialaz gain, fakultatean hainbat lan egiten zituzten estraofizialki: “Extraofizialki diogunean, betebeharrak eta ordutegi ofizialek kanpo burutzen duguna adierazi gura dugu. Inork ez gaitu behartzen, baina argi ikusten dugu, horretariko ekintzak ere bete behar ditugula, aitzinera jotzeko. Esan gabe doa, era askotariko zereginak daudela, asto-lan eta lan extrakademikoen zuzenketetik hasi, eta mintegietaraino” (ikus J. M. Txurruka eta J. Iturbe “Euskararen Batzorderako Zientzi Fakultateko txostena”, 1983.4.12 (JMTA).

<sup>89</sup> “Bestalde, lehen kurtsoan matrikulatzen den ikaslegoaren peitutasunak betetzeko, eta aldi berean, bildurrak xakutzeko, alfabetatze-ikastaro trinko bat burutzen da urtero, ikasturtearen lehen astean. Bertan hizkuntza zientifikoaren berezitasunak eta lexikoa erakusten dira” (ikus J. M. Txurruka eta J. Iturbe “Euskararen Batzorderako Zientzi Fakultateko txostena”, 1983.4.12 (JMTA).

“Se ratifica en los acuerdos anteriores, propiciando a **que cada Centro pueda impartir las enseñanzas de Euzkera [sic] segun sus necesidades y posibilidades existentes en los mismos.** Manifiesta esta Junta que no parece que la Universidad deba ser la Institución que propugne enseñanza del Euzkera, mas en este periodo transitorio, parece prudente que pueda seguirse en los Centros Universitarios.

Que se continúe al menos, las experiencias realizadas en los cursos anteriores.

Que se estudien los mecanismos de financiación de los profesores que imparten dicho idioma, y las nuevas experiencias a realizar.

Que se estudie el instrumento de control de este profesorado.

(...)

Que, en cuanto sea posible, por razones económicas y administrativas, el euzkera pueda implantarse como enseñanza voluntaria.”<sup>90</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, zentro bakoitzak posible zuen bide propioa egitea euskalduntzeari zegokionez. Aukera hori baliatu zuten Zientzia Fakultateko irakasle eta ikasle batzuk fakultateko irakaskuntza pixkanaka-pixkanaka euskalduntzeko. Horretarako baliabideak bilatu, eskariak zein txostenak prestatu eta irakaslegai euskaldunak formatu zituzten. Hala, Biologiako lehenengo maila euskaraz antolatu ostean, hurrengo pausua izan zen *Premia larriko neurrien txostenak* (1979) fakultateetarako finkatutako neurria egikaritzea, hau da, euskara irakasgaia, irakasgai hautazko gisa sortzea fakultatean. Arestian aipatu moduan, 1979ko urrian Zientzia Fakultateko Sailen Zuzendarien Batzarrak onartu zuen irakasgai berria irakasgai hautazko gehigarri gisa sortzea. Gehigarria izatea ez zuten onartu fakultateko irakasle euskaltzaleek eta gaia fakultateko batzarrera eraman zuten. *Premia larriko neurrien txostenak* aipatutako Euskara irakasgaia Euskara Zientifikoa bihurtzeko, eta karrerarako 4. eta 5. mailako euskara irakasgaia hautazkoa izateko (eta ez gehigarri) txostena aurkeztu zuen Z-EKTK<sup>91</sup>. Irakasgai honen helburua zen karrera gaztelaniaz ikasita ere, ikasle euskaldunen alfabetatze orokorra eta zientifikoa ahalbidetzea. Irakasgaia irakasle gisa arituko ziren tituludunei zuzenduta zegoen<sup>92</sup>.

Irakasgai berriaren sorrera klaustroak onartu zuen 1980ko martxoan, baina 1982. urtera arte ez zen abiatu<sup>93</sup>, orduan kontratatu zituelako Zientzia Fakultateak hartarako

---

<sup>90</sup> UPV/EHUko Gobernu Juntako akta, 1980.10.03.

<sup>91</sup> Z-EKT “Laugarren eta bostgarren kurtsoetan euskara gai optatibo bezala sartzeko eskariari buruzko txostena/ Informe sobre la petición de introducción del euskara como asignatura optativa en los cursos cuarto y quinto”, ca. 1979/80, (JMTA).

<sup>92</sup> Izan ere, garai hartan Zientzia Fakultatean eskaintzen ziren karreretan baziren zenbait espezialitate, eta horietako bat zen irakaskuntza, hots irakasle izango ziren biologo, fisikari eta abarri bideratutakoa.

<sup>93</sup> Horren aurretik 1980/81. ikasturtean Zientzia Fakultatean alfabetatze zientifiko klaseak bertako irakasleek eman zituzten musutruk. Jesus Mari Txurrukak gogoratzen duenez: “egin zen eskaera, ia baimenik ematen ziguten alfabetatzeko zientifikoko klaseak emateko kobratu gabe, orduak justifikatu

behar ziren 4 irakasleak: Juan Carlos Odriozola alfabetatze orokorra emateko eta beste hirurak euskara zientifikoa emateko (Martxel Ensunza, matematika eta fisikariei euskara emateko, Kepa Altonaga biologo eta geologoei emateko eta Martin Olazar kimikariei emateko).

Beraz 1981/82 ikasturtea oso garrantzitsua izan zen 3 arrazoirengatik: batetik Euskara Zientifiko irakasgaia finkotasun batekin abiatu zelako, bestetik Biologiako 3. kurtsoan Geologia euskaraz eskaini zelako eta J. M. Txurrukak irakasleak plangintza berri bat prestatu zuelako.

Biologiako 3. mailan karrera ikasten ari ziren ikasleek (1979/80. ikasturtean lehenengo maila euskaraz egin zuen lehen taldekoek), eskatu zuten Biologia karrerako hirugarren mailako Geologia euskaraz jasotzea, aipatutako irakasgaia Geologia eta Kimika karreretako lehenengo mailan euskaraz ematen zelako<sup>94</sup>. Baita lortu ere, eta 1981/82. ikasturte horretan bertan Geologia euskaraz hartzen hasi ziren.

Bestalde, 1981/82. ikasturtean J. M. Txurrukak plangintza bat prestatu zuen<sup>95</sup>, Gregorio Monrealen eskuetara ere helarazi zuena. Bertan, Biologia karreraren bigarren mailako irakasgaiak euskaraz emateko, plangintza bat aurkeztu zuen. Plangintzan, besteak beste, aipatzen zuen bigarren mailarako irakasle euskaldunak edukitzeko irakaslegaiak formatu beharra. Plangintzak aurreikusten zuen 1981/82. ikasturtean biologo titulua eskuratutako ikasleetatik irakasle izateko prest zeudenak aukeratzea, eta urtebeteko beka baten bidez arloko terminologia bereganatu eta apunteak prestatu ostean, irakasle gisa kontratatutako zituela unibertsitateak. Hala, fakultateak 1983/84. ikasturtean Biologia karrerako bigarren kurtsoa euskaraz eskaini ahalko zuen. Jatorrizko ideia seguru aski atera zen Hezkuntza Sailak 1980. urtetatik UPV/EHU euskalduntzeko

---

gabe, orduz kanpo, eta gelak libre zeudenean. Eta onartu ziguten. Klaro, musutruk, dena borondatez, eta klaro utzi ziguten. Gu jada hasita geunden ematen. Joserrak ematen zuen gauza bat, nik mailegutzari buruz, eta Iñaki Antigüedadek ematen zuen “hau, hori, hura eta abar”. Hori ere eman behar zen.” (Jesus Mari Txurrukaren lekukotza, 2007.02.19an egindako elkarrizketa).

<sup>94</sup> Biologi sekzioko hirugarren kurtsoko ikasle euskaldunak “Hirugarren kurtsoko geologia euskaraz egin ahal izateko eskaria” 1981/82. ikasturtea (JMTA).

<sup>95</sup> Jesus Mari Txurruka “Euskararen arazoa Zientzi Fakultatean. Etorkizunari begira eginiko laburpen historikoa” 1982 (JMTA).

asmoz sortutako beketatik<sup>96</sup>. Baina J. M. Txurrukak irakaslegaiak formatzeko beka deialdi berezitu bat sortzea planteatzen zuen, eta G. Monrealek onartu zuen arren, berriazko deialdirik ez zen atera, nonbait errektoreak edo sailburuak ahaztu zutelako-edo, eta ez zen unibertsitateko tituludunentzako ohiko beka deialdiarekin batera halako beka deialdirik atera. Berandu baina azkenean, 1982ko azaroan UPV/EHUK deialdia atera zuen<sup>97</sup>. G. Monrealek eta P. M. Etxenike sailburuak adostu zuten Zientzia Fakultateko irakaslegaiak prestatzeko bekak, Hezkuntza Sailak unibertsitario euskaldunei eskaintzen zizkien ohiko beketan sartzea. Hala, 1982/83. ikasturtean hiru beka eman ziren: J. M. Arizmendiri (Biokimikarako), A. Zubiagari (Zitologia-Histologiarako) eta I. Salcedori (Botanikarako). Beken bitartez eta kontratazio berrien bitartez, 1983/84. ikasturterako Biologia karrerako lehenengo zikloko irakasgai gehienak euskaraz ikas zitezkeen<sup>98</sup>, baina praktikak ez.

Bestalde Eusko Jaurlaritzak diru arazoak tarteko, euskarazko irakaskuntza unibertsitatean lehenengo ziklora mugatu nahi zuen. Zientzi Fakultateak beraz, printzipioz ez zuen irakasle berririk lortzerik. Orduan J. M. Txurrukak eta J. Iturbek Arantza Mendizabal errektorearekin (funtziotan zegoena) adostu zuten euskarazko eskaintza bigarren ziklora zabaltzeko, lehenengo zikloko enborrezko irakasgaien praktikak emateko irakasle bi kontratatzea, eta kontratatutakoek irakats orduen zama betetzeko bigarren zikloko irakasgaiak ematea<sup>99</sup>. Halaxe kontratatu ziren 85/86. ikasturtean Arturo Elozegi eta Juan Ignacio Perez Iglesias (gerora UPV/EHUko errektore izango zena) lehenengo zikloko praktikak eta bigarren zikloko Ekologia eta Animalia Fisiologia irakasgaiak emateko. Bigarren zikloaren *kolonizazioa* abian zegoen. Ondoko urteetan 2. zikloko irakasgai gehiago euskaraz emateko (Genetika, Antropologia eta abar) eskari berriak bideratu zituen fakultateko Euskara Batzordeak.

---

<sup>96</sup> Ikus 2.5.2. *Irakaslegai euskaldunentzako bekak* atala.

<sup>97</sup> Deialdiak zehatz mehatz azaltzen zuen bekaren ezaugarriak zeintzuk ziren: “BIOLOGI BEKEN DEIALDIA/ Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskararako Kabinete Teknikoak, Unibertsitatean euskarazko irakaskuntza aurreratzeko eta Zientzi Fakultateko Biologi Atalean jadanik diren premiei erantzuteko asmoz, etorkizuneko euskal irakasleen maila behar adinako izan dadin, Beka deialdi hau egiten du./ Euskaraz dakiten Goi mailako Unibertsitari-Tituludunentzat eta 5. ikasturtean diren ikasleentzat Biologi arloko Bioestatistika, Biokimika, Botanika eta Zitologia-Histologia deritzen gaietan ikerlanak egiteko bekak iragartzin dira.” UPV/EHUren prentsako iragarkia 1982.11.11 (JMTA).

<sup>98</sup> Hau da, lehenengo mailako Kimika, Fisika Biologia eta Matematika, bigarren mailako Biokimika, Botanika, Zitologia eta Bioestatistika, eta hirugarren mailako Geologia praktikak eta Zoologia praktikak (Ikus Zientzi Fakultateko Irakasle Euskaldunen Taldea “Zientzi Fakultateko euskarazko irakaskuntz lerroa antolatuz joateko epe laburrerako pausoak”, 1984.2.7 (JMTA).

<sup>99</sup> Jesus Mari Txurrukaren lekukotza, 2007.02.19an Leioan egindako elkarrizketa.

Izan ere, Zientzia Fakultatean sortutako Euskara Batzordeak 1987. urtean euskara plangintza bat diseinatu zuen 5 urterako euskarazko irakaskuntzaren zabalpenerako<sup>100</sup>.

Laburbilduz, unibertsitateak euskalduntzea ikastetxeen esku utzi zuen heinean emaitza oso desberdinak atera ziren. Hau da, Zientzia Fakultatean irakasle euskaldunen sare batek funtzionatu zuen, baina horrelako abiapunturik ez zuten zentroetan oso zaila izan zen euskarazko irakaskuntzaren garapena. Zientzia Fakultatean berriz, karrera baten, Biologia karreraren euskalduntze azkarra gertatu zen eta intentsitate maila desberdinekin heldu zen fakultateko beste karrera edo sekzioetara: Fisikara, Geologiara, Kimikara eta Matematikara. Beste horietan bi faktorek moteldu zuten euskarazko irakaskuntzaren zabalpena: ikasleria urria edota departamentuaren jarrera. Garaiko informazioaren argitan, geologian adibidez ez zen aurrerapausorik ematen “sekzio honetan euskararekiko dagoen nagitasuna”<sup>101</sup> kausa. Biologia berriz, ikasle gehien erakartzen zuen karrera zen, eta bere alde zituen fakultateko zenbait irakasle zein ikasle euskaltzaleen ekimena eta babesa. Eragile horietatik hiru nabarmendu ziren (alfabetikoki emanda): Jose Ramon Etxebarria, Jacinto Iturbe eta Jesus Mari Txurruka. Pertsona hauek klabeak izan ziren Zientzia Fakultatearen euskalduntzean, eta beraiek egituratu zituzten euskarazko irakaskuntza eta testugintza, baita zenbait irakasle, ikasle eta ikertzaile euskaldunen karrerako lehenengo urteak ere.

J. R. Etxebarria testugintzan aritu zen, J. M. Txurruka irakaskuntzan eta J. Iturbe, batean zein bestean. J. Iturbek, hain zuzen ere, aurkeztu zuen 1974an Zientzia Fakultatean (garai hartan Bilboko Unibertsitateko fakultatean) bere tesina euskaraz (*Hartree-Fock-en metodoaren hurbiketara erdientzirikoa*), unibertsitate publiko batean hizkuntza honetan aurkeztutako goi mailako lehen lan akademikoa<sup>102</sup>. Ondoko urteetan J. Iturbek, 1977/78an mintegietan lehen klaseak euskaraz eman zituen, baita UEUren Udako Ikastaroetan ere. 1979/80. ikasturtean Biologia karrerako lehenengo maila euskaraz eskaini zenean, bertako irakasle gisa aritu zen. Ordurako UEUn zenbait

<sup>100</sup> Zientzi Fakultateko Euskararako Batzordea “Euskararako plangintza Zientzi Fakultatean (Eztabaidarako behin-behineko aurreproiektua)”, 1987ko abendua (JMTA). Plangintza hau 1989. urtean berregokitua izan zen epe labur eta luzerako helburuak zehaztuz (Ikus Zientzi Fakultateko Euskararako Batzordea “Euskararako plangintza Zientzi Fakultatean” 1989.2.1 (JMTA).

<sup>101</sup> (Ikus “Euskal adarren etorkizuna Zientzi Fakultatean” ca. 1985 (JMTA).

<sup>102</sup> Aurretik, 1970. urtean Martin Olazarrek Deustuko Unibertsitatean aurkeztua zuen lizentziaturako memoria: *Mungialde, Bermio ta Ondarruko euskal-abostegia*.



testuliburu argitaratuta zituen, baita *Elhuyar* aldizkarian zenbait artikulua ere. 80ko hamarkadaren lehen erdialdean, Jesus Mari Txurrukarekin batera Zientzia Fakultateko ikasketak euskalduntzeko ekimenetan parte hartu zuen. Elkarrekin, dekanoren zein errektorearen bulegoetara joaten ziren baliabideak, baimenak eta abar lortzeko. Proposamen zehatz eta egingarriak planteatzen zizkieten (adb. irakasle baten kontratazio, beka deialdi bat eta abar), ez bereziki utopikoak<sup>103</sup> edo iraultzaileak (nahiz eta beraien asmoa erabatekoa zen, hau da, karreraren, fakultatearen eta unibertsitatearen euskalduntzea). Beraz, beti planteamendu posibilstekin aritu ziren, eta aukeratutako bidea ofiziala izan zen. Hala, bost urteren buruan, Biologia karrerako lehenengo zikloko irakasgai gehienak euskaraz ikas zitezkeen. Bide ofiziala eta planteamendu posibilista arrakastatsua izan zen, beraz. Honekin noski, sinesgarritasuna eskuratu zuten. Hala, ez da harritzekoa 1983an Euskara Batzordea sortu zenean, biak bertako kide izendatzea eta Jacinto Iturbe 1986an UPV/EHUren lehen euskara errektoreorde izatea<sup>104</sup>.

### **2.5.1.2. Goi mailako lan akademikoak eta Azkue Sariak**

Bien bitartean, hau da, euskarazko irakaskuntza Zientzia Fakultatean zabaltzen zihoan bitartean, irakasleek, irakasgaiak euskaraz emateko materialak prestatzen jarraitzen zuten. UEUren zientzietako argitalpen gehienak Zientzia Fakultatean heldu ziren. Testugintza honen nolabaiteko burua Jose Ramon Etxebarria izan zen eta berak testuak sustatu, zuzendu eta UEUra bideratzen zituen. J. R. Etxebarriak euskarazko eskolak eman eta testugintzan aritzeaz gainera, Zientzia Fakultatean euskaraz aurkeztutako tesina eta doktorego-tesi gehienak zuzendu zituen. Seguru aski askorentzat babes hori funtsezkoa izan zen beraien lan akademikoa euskaraz egiteko, nahiz eta lan eskerga izan (elebitan egin behar zirelako) eta arazo ugariri aurre egin behar zioten (adb. nahikoa bermerik gabeko aurkezpena tribunalaren aurrean). Horixe bera salatzen zuten Euskara Batzordean zeuden Zientzi Fakultateko ordezkariak 1984an:

---

<sup>103</sup> Euskara Batzordea Zientzia Fakultatean sortu berritan prestatutako txostenean halaxe planteatzen zen: "... ezin dira helburu utopikoak eta ametsezkoak planteatu, baizik eta oinarri errealak dituzten, eta betegarri diren, helburuak aurkeztuko dira." (Ikus "Euskal adarren etorkizuna Zientzi Fakultatean", ca. 1985 (JMTA).

<sup>104</sup> Gogoan izan J. Iturberen izena E. Barberári proposatu ziona J. M. Txurruka izan zela.

“Zientzi Fakulteteko (sic) Euskararako Batzordeko ordezkariak bere kezka agertu nahi dute Fakultate horretan Lizentziatur Tesinak burutzen dituzten ikasleek dauzkaten arazoez.

Fakultate honetan Tesina euskaraz aurkeztu nahi duten ikasleek problema batzu dituzte, laburki hemen zerrendatuzak (sic).

a.- Textu idatziaren prestaeran, euskaraz prestatu nahi duten ikasleek erdaraz ere prestatu behar dutela suposatzen da, eta bi hizkuntzetan aurkezteak lan adizionala exigitzen du, bai denboran, bai diruan.

b.- Tesinaren ahozko defentsan, beraien lana euskaraz defendatu nahi duten ikasleak tribunalaren arbitraritatearen menpean geratzen dira, tribunalak erabakitzen baitu zein izango den euskaraz emango den denbora eta zein gaztelanieraz, hau derrigorrezkoa dela suposatzen delarik.

**Oztopo horik direla eta, zenbait ikasle euskaraz (sic) aurkezteari utzi diote, eta beste zenbaitek, euskaraz idatzi arren, ez dute euskaraz defendatu,** hau beraien nahia izan arren.”<sup>105</sup> [beltzak gureak dira]

Zientzia Fakultatean prestatu ziren UPV/EHUn euskaraz aurkeztatutako tesinetako asko. Baina han ere, 1984. urtean oraindik ez zegoen tesinak euskaraz aurkezteko nahikoa bermerik, eta euskaraz prestatutako lana gaztelaniaren bitartez balioesten zen. Egoera honen aurrean Zientzia Fakultateko J. M. Txurruka eta J. Iturbe irakasleak honako eskaria egin zioten Euskara Batzordeari tesinen inguruan (Batzordeak errektoreari eska ziezaion): lehena, idatzitako testua euskaraz egotea (aukerakoa izanik gaztelaniazko laburpen zabala egitea), bigarrena ahozko defentsarako euskaraz baloratuko duen tribunal bat edukitzeko aukera, eta, azkenik, unibertsitateak tesinak aurkezteko araudi bat prestatzea. Zientzia Fakultateko irakasleen eskariak aurrera egin zuen eta G. Monreal errektoreak Zientzia Fakultateko dekanuari idatzi zion testua eta aurkezpena egiteko behin-behineko neurriak har zitzaizkion<sup>106</sup>.

Aipatu bezala, lehen tesina euskaraz 1974an aurkeztu zuen J. Iturbek, eta 1980/81. ikasturterako jada 11 tesina aurkeztuta zeuden eta, beste 13 aurkeztu behar ziren aipatutako ikasturtean<sup>107</sup>. Euskarazko lehen tesi eta tesinak prestatzen ari ziren garai honetan, 1975 urtetik urtero antolatzen ziren Azkue Sariak jite berri bat hartu

<sup>105</sup> Jesus Mari Txurrukak eta Jacinto Iturbek Zientzia Fakultateko ordezkariak Euskara Batzordean 1984ko otsailean aurkeztutako eskaria (JMTA).

<sup>106</sup> Monrealen eskutitzean honakoa esaten zen: “... este Rectorado sugiere a ese Decanato la implantación de algunas medidas provisionales que salvaguarden los derechos constitucionales y estatutarios de los alumnos de la Facultad, en espera de que la Universidad desarrolle una normativa de carácter general en el Estatuto del Euskera” (G. Monrealek bidalitako Zientzia Fakultateko dekanuari bidalitako eskutitza 1984ko ekainaren 28an (JMTA).

<sup>107</sup> Aipatutako 13 tesinak honako arloetakoak ziren: Biologian 6, Kimikan 2 Ingeniaritzan 4 eta Fisikan 1 (ikus “Euskara Zientifikoa’ Zientzi Fakultatean” ca. 1980/81. ikasturtea (JMTA).

zuten. Azkue Sariak Bilboko Aurrezki Kutxarenak ziren, nahiz eta Euskaltzaindiak kudeatzen zituen. Hasiera batean Azkue Sarietan euskarazko idazlanak saritzen ziren, gero eleberria eta olerki lan bana eta 1981. urtetik aurrera Azkue Sariak eleberria, olerkia eta ikerketa lanak saritzen zituen. Ikerketa lanen saritzea izan zen Zientzia Fakultateko irakasle euskaltzaleek sustatutako beste ekimen bat unibertsitatean euskaraz aurkeztzen ziren tesi eta tesinak nolabaiteko zirkuitua eduki zezaten. Bilboko Aurrezki Kutxako sarien kudeatzaileak, Jose Ramon Bilbaok eta Jose Ramon Etxebarriak zuten harremanari esker egin ahal izan zen hau. Izan ere, J. R. Etxebarria Santutxuko bertso eskolako burua zen, eta gero, J. R. Bilbaok bete zuen postua. Gainera, J. R. Etxebarria garai honetan bankuko kontseiluan zegoen, bertako idazkaria zen, azken hauteskundeetan Bilboko udaletxean zinegotzi postua lortu zuelako. J. R. Etxebarria kontseiluan egon zen tartean, euskararen aldeko ekimenak aurrera eramaten saiatu zen, besteak beste, aipatutako euskarazko goi mailako lan akademikoentzat sari bat sortzea.

Era horretara lehenengo urtean, 1981ean, 5 tesina saritu ziren. Saria emateko irizpideak guztiz finkatu gabe zeudelako, hau da, sarian zer baloratu behar zen ebatzi gabe zegoelako aurkeztutako guztiei epaimahaiak<sup>108</sup> saria ematea erabaki zuen. Hurrengo urteetan, aldiz, irizpideak zehatzago finkatu eta saria lan bakarrari edo gehienez bizpahiruri eman zitzairen. Hasierako urteetan 300.000 pezetetako saria zen, 1984.ean 400.000 pezetetara igo zen, 1987an 450.000ra, eta 1989. urtetik azken urtera arte, saria 500.000 pezetetakoa izan zen. Ondoko taula batean bildu ditugu Azkue saria jaso zutenak 1981-1990. urteen artean<sup>109</sup>:

---

<sup>108</sup> Epaimahaiko kideak urterik urte aldatzen baziren ere, normalean beti izendatzen zen Zientzia Fakultateko irakasleren bat: Jesus Mari Txurruka, Jose Ramon Etxebarria, Jacinto Iturbe eta abar.

<sup>109</sup> Aitor Aranak BBK sarien gainean liburu bat prestatu du (Arana, 2004). Hala ere, A. Aranak eleberri eta olerki sariei arreta gehiago eskaini die, ikerketa sariei baino, eta bere liburuan hainbat erreferentzia falta dira. Gure taulan hutsune horiek bete ditugu ahal izan dugun neurrian.

Urtea	Sarituak
1981	Joseba Agirreazkuenaga <i>Hazkunde ekonomikorako azpiegitura lanak, 1818-1876</i> Iñaki Antiguiedad <i>Arratia hibiaren arroko azterketa hidrogeologikoa</i> Juan Ignacio Perez Iglesias eta Jose Mari Madariaga <i>"Actinia equina" delakoaren arnas metabolismoa; populazioen dinamikarekiko harremanak</i> Kepa Sarasola <i>GALDETSU: Konputagailuz lagunduriko irakaskuntzarako sistema</i> Ana Rodriguez Ortiz de Zarate <i>Poliestireno-Bentzeno-a-Metilestireno (dimeroa)...</i>
1982	Juan Mari Agirregabiria <i>Tetramomentu lineala eta angeluarra ingurune jarraien eta interakzionatzen ari diren partikulen sistemen mekanika erlatibistan</i> Ana Zubiaga <i>Jaki naturalaz elikaturiko "Arion ater" L. barearen liseri-guruinaren aldaketa histologikoak eta histokimikoak sasoi desberdinetan</i>
1983	Pello Salaburu <i>Hizkuntzaren soinu-egitura: hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia</i>
1984	Patxi Goenaga <i>Euskal Sintaxia: Konplementazioa eta Nominalizazioa</i>
1985	Martxel Ensunza eta Martin Olazar <i>Bentzil Alkoholaren Polimerizazioa Katalizatzaile Azidoen Gainean. Zinetikaren Ikerketa eta Erreaktorearen Diseinua.</i>
1986	Jose Ramon Etxebarria <i>Ekuazio jaraunskorrek</i> Juan Carlos Odriozola [aipamen berezia] <sup>110</sup> <i>Idazketa teknikoa</i> Julen Zabalo [aipamen berezia] <i>Bizkaiko hileta eskultura</i>
1987	Iñaki Irazabalbeitia <i>Prekozenoen sintesi-bidean. Anetol eta deribatuen eraztun aromatikoaren hidroxilazio eta nitrazioa</i> Patri Urkizu <i>Pierre d'Urteren hiztegia: Londres 1715</i>
1988	Miren Azkarate <i>Hitz konposatuak euskaraz</i>
1989	Eusebio Osa <i>Euskararen hitzordena: komunikazio zereginaren arauera</i>
1990	Andoni Sarriegi <i>Materialen erresistentzia: injinerutza eta arkitektura</i> Jose M <sup>a</sup> Pitarke <i>Tunel espektroskopiaz eta solidoetako elektro- eta fotoi-emisioaz</i>

V.7. Taula: Azkue Sarietako Ikerketa ataleko sarituak (1981-1990).

Iturria: elaborazio propioa zenbait iturritik abiatuta<sup>111</sup>

<sup>110</sup> Aipamen berezia jasotzen zuten lanak diru sari simbolikoa lortzen zuten. Esate baterako 1986ean Etxebarriak irabazi zuen eta 400.000 pezeta jaso zituen horregatik, epaimahaiaren aipamen berezia jaso zutenak 50.000 pezeta.

<sup>111</sup> Aitor Aranaren lana (Arana, 2004), BBKko arduradunak emandako informazioa (J. R. Bilbao), garaiko prentsan argitaratutako artikulua, *Eusker*a buletina, Azkue Bibliotekako Katalogoa (ABK), eta epaimahaiko kide izandako (J. M. Txurruka, J. R. Etxebarria eta J. Iturbe) eta sarituetako batzuk emandako informazioa (J. Agirreazkuenaga, I. Antiguiedad, I. Sarasola, J. R. Etxebarria, A. Zubiaga, J. M. Pitarke). Informazio iturri desberdinak erabilita ere ez da posible izan taula guztiz osatzea, eta gerta liteke beste sariturik aipatzeke egotea.

Saritutako lanen artean denetariko kasuak daude<sup>112</sup>. Batzuk tesinagatik lortu zuten saria<sup>113</sup> beste batzuk, berriz, doktorego-tesiarengatik<sup>114</sup>. Kasu ezohikoa izan zen Juan Ignacio Perez Iglesiasena. Berak saria eskuratu baitzuen Jose Mari Madariagaren lana euskaratzeagatik<sup>115</sup>. J. M. Madariaga euskalduna izanik, alfabetatuta gabe zegoen eta bere tesina erdaraz prestatu zuen. Iñaki Antiguedadek berriz, tesinari zenbait erabilera eman zizkion, euskarazko zirkuitu unibertsitario hasiberriaren seinaleztat hartu behar dena: UEUrekin argitaratu zuen testua, 1980ko Udako Ikastaroetan hitzaldia eman zuen, Euskaltzaindiaren B mailako titulua lortzeko aurkeztu zuen eta Azkue Saria jaso zuen 1981. urtean.

Orokorrean, esan daiteke, bi motatako sarituak egon zirela sariak iraun zuen 10 urteetan: batetik, zientzia fakultateko kideek egindako ikerketa lanak, bai bertako irakasleak zirenak (J. R. Etxebarria edo euskara zientifikoko irakasleak, M. Ensunza, M. Olazar eta J. C. Odriozola), bai ikasleak ere (adb. A. Zubiaga), eta bestetik hizkuntzalaritza arlokoak (P. Salaburu, M. Azkarate, P. Goenaga...).

Urterik urte, gero eta lan gehiago aurkezten ziren Azkue Sarietara. Izan ere, Euskal Herriko unibertsitateetan, eta bereziki publikoan, goi mailako lan akademikoak prestatzen zituztenak gero eta gehiago baitziren. Urte guztietako datuak ez ditugun arren, badakigu 1986. urtean 10 lan aurkeztu zirela, 1987an berriz 13, eta 1990ean saria desagertu zen urtean, 15 lan. Beraz, saria ez zen desagertu material faltagatik, bankuek horrela erabaki zutelako baizik. 1990ean Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta Bilboko batu egin ziren, orduan sortu zen Bilbao Bizkaia Kutxa edo BBK. Kutxa bakoitzak bere sariak zituen. Bizkaikoak Euskaltzaindiko sariak sustatzen zituen, Bilbokoak berriz, sari propioak zituen bai euskaraz (adb. Azkue Saria) bai gaztelaniaz ere (adb. Premio Villa de Bilbao). Hortaz, kutzak elkartu zirenean, sariketak ere bateratzea adostu zuten. Hala Bizkaiko Aurrezki Kutzak sustatutako Euskaltzaindiko sariak soilik mantentzea erabaki

---

<sup>112</sup> Urte batzuetan saritu bat baino gehiago izan zen, eta kasu horietan modu desberdinean banatu zen sariak dirua. 1982an saria 300.000 pezetakoa izan zen eta J. M. Agirregabiriak bi herenak jaso zituen, beste 100.000 pezetak A. Zubiagarentzat izanik. Sariaren azken urtean berriz, saria (500.000) erdibana izan zen.

<sup>113</sup> Esate baterako Iñaki Antiguedadek, Ana Zubiagak eta abar.

<sup>114</sup> Esate baterako Juan Mari Agirregabiriak, Jose Ramon Etxebarriak, Pello Salaburuk, Iñaki Irazabalbeitiak, Patri Urkizuk eta abar.

<sup>115</sup> Lanaren zuzentzaileak Jesus Mari Txurruka eta Jacinto Iturbe izan ziren.

zuten<sup>116</sup>, Azkue sariak desagertuz. Sariok gaur egunera iraun dute eta poesia, antzerkia eta saiakera lanak sarizatzen dituzte, Felipe Arrese Beitia olerki-saria, Toribio Alzaga antzerki-saria, Mikel Zarate saio-saria hurrenez hurren.

Sariak sortu arte, lan akademikoak euskaraz egiten ziren hizkuntzarekiko konpromisoagatik, edo nahi bada, militantziagatik, kasu honetan unibertsitate esparruan euskara aitzineratzeko. Noski, horretaz gain, lanak egileari titulua eskuratzeko balio zion. Hortik kanpo, ezer gutxirako balio zuen, eta unibertsitateko departamentu batzuetan demeritua ere izan zitekeen. Sariak berriz, lehen aldiz euskaraz prestatutako tesi edo tesinak balioesten zituen, lana euskaraz egotea sarietan parte hartzeko ezinbesteko baldintza zelako eta gainera onenak dirua jasotzen zuen. Hala, lehen aldiz euskarazko lan akademikoak egilearentzat curriculuma egiteko bide izan ziren eta errekonpentsa erreal bati lotu ziren. Beraz, sariak euskaraz prestatutako lan akademikoak sustatzen zituzten. Hala ere, oraindik errekonozimendua eta sustapen lana unibertsitateetik kanpotik zetorren.

### 2.5.1.3. Leioako Euskalkia

Aurreko kapituluan ikusi denez, K. Mitxelenak 1981. urtean *Muga* aldizkarian oso artikulu gogorra argitaratu zuen UZEIren kontra<sup>117</sup>, zientziaren esparruan euskararen gehiegizko erabilera kritikatzu eta oro har normalizazio prozesuak zeraman abiadura azkarra kuestionatuz. K. Mitxelenaren kritika UZEI, UEU, Jakin, Elhuyar eta abarrentzat zen<sup>118</sup>. Zientzia Fakultateko irakasleek, zientzietako irakasle euskaldunak izanik, eta aipatutako erakunde guztietan modu batera edo bestera parte hartzen zuten, hiztegiak prestatuz, liburuak argitaratuz, artikuluak publikatuz eta abar, K. Mitxelenaren artikuluaren aurka iritzi artikuluak argitaratu zituzten.

Nahiz eta afera honek ez zuen ondorio nabarmenik izan unibertsitatean, eztabaidak inflexio puntu bat markatu zuen zientzia esparruan erabili beharreko euskara moldean. Bide bi bereiztu ziren, labur esateko. Batetik, zientzialari euskaldunena,

---

<sup>116</sup> (Bilbao Telletxea, 2002)

<sup>117</sup> (Mitxelena, 1981)

<sup>118</sup> K. Mitxelenaren kritikaren edukiak laburki baina argi Iñaki Ugarteburuk esplikatzeko ditu (Ugarteburu, 2003)

zientzia edo jakintza-arloren bateko adituak izanik, zientziarako euskararen beraien parte hartzea eta ekarpena aldarrikatzen zutenak; eta, bestetik, hizkuntzalariena, hizkuntzan adituak izanik, edozein jakintza-arloko zientziarako euskararen gaineko proposamenekin, jatortasunaren izenean. Bi sektoreen arteko urruntasuna oso nabarmena zen, eta urteekin gotortu dela esan daiteke. Horren adibide da K. Mitxelenaren kritikari jarraipena eman diola Ibon Sarasola euskaltzainak. I. Sarasolak 90ko hamarkadan sortu zuen *Leioako euskalkia* kontzeptua. Igone Zabalak eta Agurtzane Elorduik kontzeptu horren atzean zer dagoen esplikatzen dute:

“Erabilera berrietan egiten den euskaraz, eta bereziki euskara tekniko-zientifikoaz, are tonu iraingarriagoa erabili ohi da: narrasa, zabarra, onartezina, mordoilokeria, izugarrikeria bezalakoak denoi egiten zaizkigu ezagunak. Zientzialariek erabiltzen duten euskara maiz aipatu ohi da euskara kaxkar eta antikomunikatiboaren adibide paradigmatico modura. **Zientzia Fakultateko euskara ‘Leioako euskalkia’ izendatzeraino heldu denik ere ez da falta, eta bertan sortutako zenbait testu euskararen normalizazioan lagundu baino, kaltegarriak ere omen dira normalizazio horretarako zenbaiten iritziz** (Sarasola, 1997b).”<sup>119</sup> [beltzak gureak dira]

Zientzia fakultateko irakaskuntza eta testugintzari lotutako euskara, hau da, gai zientifiko-teknikoetarako praktikaren bitartez 70eko hamarkadaren bigarren erdialdetik prestatu, erabili eta egokitutako euskarari, I. Sarasola euskaltzainak euskara *txarra* zeritzon. Beraz, irakasle, ikasle eta testu irakurleen begiek urtetan doitutako eredia gaitzesgarria zen. I. Sarasolaren iritziaren aurrean, Zientzia Fakultateko irakasleek modu desberdinean mintu dira eta erantzun dute. Gaur egunetik hurbileko adibide bat aipatzearen bertako irakaslea izandako Jose Ramon Etxebarriaren hitzak hona ekarri ditugu:

“Ordea, **behin baino gehiagotan entzun behar izan dugu, modu despektibo samarrean entzun ere, gurea “Leioako euskalkia” dela, edo antzeko arbuiozko hitzak**; eta zalantza ere sortu zaigu, gauzak ondo egiten ote gabiltzan. Arbuiozko hitz horiek direla eta, ahalegin horretan lankide izan ditudan **adiskide batzuk mindurik gertatu diren arren, esan behar dut, niri dagokidanez iritzi horrek ez nauela gehiegirik mintu**, antzekorik entzutean beti izan baitut erantzun bera: **“Hobeto esaten badakizu, erakutsi ezadazu, eta pozik erabiliko dut zuk irakatsitako esamoldea; eskerrak emango dizkizut, gainera”**.

Zeren, ene ustez, arazoa ez baitago arazoak gainditzeko ahaleginean beti lehenengoan asmatzean, ekinaren ekinez ondo esatean baizik; alegia, praktikaren gorpolean zenbait itzuli eman ondoren, esamolde berri horiek modu malgu, argi, zehar, ikasterraz, erabilerraz eta bateratuan esatean hain zuzen. Zeren aspaldidanik uste baitut, kontua gauzak euskaraz —dakigun euskara baliatuz— esatean eta erabiltzean dagoela, eta ez mutu egotean edo soluziorik ez ematean. Uste baitut,

---

<sup>119</sup> (Zabala & Elordui, 2005: 1)

gainera, erabiliaren erabiliaz, hasieran arrotz eta arraro samar egiten diren esamoldeak, familiar eta natural bihurtzen direla, eta zuzentasuna gidari izanik ere, zuzentasuna bera ere egin egiten dela. Eta erabiliaren erabiliaz gero eta hobeto egiten ikasten ari garela. Labur esanda, eredu garbi, zehatz, koherente eta “naturala” lortzea denbora-kontua dela uste dut.

Beraz, argi dago **nire/gure erabakia (zeren horretan euskaraz lan egiten ari garenon erabaki kolektiboa baitago) edozein zientzia garatzeko esan beharrekoak euskaraz esatea dela**<sup>120</sup> [beltzak gureak dira]

Gaur egun, bi muturrak elkarrengana hurbiltzeko proposamena egiten dute I. Zabala eta A. Elordui UPV/EHUko ikertzaileek, alde bien ekarpenak, zientzialari zein hizkuntzalarien ekarpenak balioetsiz euskara zientifikoaren garapenean. Hala ere, proposamenak oraindik ez du arrakastarik izan<sup>121</sup>.

#### **2.5.1.4. Bultza!**

Bultza Zientzia Fakultateko ikasle euskaltzaleek 1985ean sortutako elkarteak izan zen. Bultzak antolatutako ekintzarik sonatuenetakoa fakultaterako idazkari euskaldun baten eskari egitea (1985) izan zen. Taldeak 300 bat eskari aurkeztu zizkion idatziz fakultateko dekanuari, nahiz eta eskari bakoitzarekin batera 25 pezeta balio zuen poliza aurkeztu behar zuten. Urte t'erdira dekanook eskariaren egile bakoitzari idatziz erantzun zion eta azkenean idazkari euskalduna kontratatua izan zen. Taldea dozena bat inguru ikaslek osatzen zuten, baina Bultzak antolatutako ekimenek fakultateko ikasle asko erakartzen zituzten. Horren erakusgarritzat har daiteke unibertsitateko eta fakultateko organoetan lortutako ordezkari maila.

“Bultza!-ri dagokionez, ihaz sortu zen, bere haserako helburua euskal taldeetako ikasleoneuskararen egoerarekiko kezka, unibertsitateko klaustrora eta fakultateko Batzordera eramatea, eta **fakultateko euskalduntze prozesua bultzatzeko behar diren ekintzak prestatzea**

<sup>120</sup> (Etxebarria, 2005: 296-297)

<sup>121</sup> Igone Zabala eta Agurtzane Elorduiaren proposamena hau da: “Hizkuntzalariek beren ekarpena egin dezakete alderdi linguistikoa asegarriagoa egiten laguntzeko, baina zientzialariaren ekarpena behar da ezinbestean alderdi kognitiboa eta soziala asegarriagoa egiteko. Izan ere, zientzialariak bi ezaugarri biltzen dituzte: hiztun modura duten gaitasun orokorra eta lan egiten duten jakintza-esparruaren baldintza pragmatiko berezien ezagutza. Baina, gainera, terminoen bereizgarria den nozio-denominazio lotura gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da termino horiek erabiltzen dituen diskurtso-komunitatearen barruko adostasuna.” (Zabala & Elordui, 2005: 17). Euskal Idazleen Elkarteak 2002. urtean *Prosa Zientifikoari buruzko Biltzarra* antolatu zuen, euskarazko prosa zientifikoaren problematika aztertzeko. Aditu bakoitzaren urteetako esperientziatik abiatutako ekarpenetik, arazoaren diagnosi bateratua eskaini ahal izan zen, baina konponbide gutxi irten ziren biltzarretik. Bide horretatik, Bilbon Mendebalde Kultura Alkarteak 2005ean *Euskeraz Zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora* jardunaldia antolatu zuen. Bestalde, UPV/EHUren Euskara Institutuak Espezialitateko hizkera eta terminologiari buruzko 3 jardunaldi izan ditu.



litzateke. Honela ihaz lau lagun sartu genituen klaustroan, eta bi fakultateko Batzordean”<sup>122</sup>  
[beltzak gureak dira]

Bultza unibertsitateko eta fakultateko Juntara, Jarrai taldearekin batera aurkeztu zen, eta zenbait ordezkari lortu zituzten. Nolanahi ere, bi gauza diferente ziren Jarrai eta Bultza. Bultzak, talde euskaltzalea izanik, Jarrairekin adostu zuen Juntarako ordezkarien zerrendetan lehenengo bost pertsonak euskaldunak izatea. Bultzaren dinamika 1989an ahitua zen. Orduan hartu zuen Ikasle Abertzaleak elkarte<sup>123</sup> (IA) Zientzia Fakultatean bere txanda, Bultzak lekukoa pasatu zion. Izan ere, Bultza eta IAren arteko harremana estua zen, bertan ibilitako Iñaki Urkijo, Ikasle Abertzaleen sortzailetako bat izan zelako.

Beraz, fakultateko euskalduntzea sustatzeko sortu zen Bultza. Xede hori lortzeko bide ofizialak jorratu zituen, hau da, unibertsitatearen beraren organoetan parte hartzea, eskari idatziak prestatzea unibertsitateak idazkari euskaldun bat kontrata zezan, edota txostenak prestatzea euskararen egoera fakultatean zein zen azalduz. Horren adibide da, 1986ko urtarrilean prestatutako *Euskara Zientzi-fakultatean* dokumentua. 6 orriko txosten hartan Zientzia Fakultatean euskarak bizi zuen egoera azaltzen zen. Erradiografia horretan deskribatzen ziren 1985/86. ikasturtean euskaraz ikas zitezkeen irakasgaiak<sup>124</sup> eta Fakultateko 14 departamentuetan ez zegoela departamentu buru euskaldunik. Hala, Bultzaren txostenaren arabera, fakultatean euskarazko irakasgaiak ematen zituzten irakasleak 20 ziren, baina baziren beste 11 irakasle euskaldun, eta alfabetatu, irakasgaiak emateko moduan. Departamentuetan beraz, ez zen sustatzen euskal adarraren garapena. Halaber, txostenean aitortzen zen aipatutako 20 irakasle euskaldun horiek kontratatzeko ekimena ez zela unibertsitatearena edo fakultatearena izan, irakasle batzuren ekimena baizik<sup>125</sup>, eta pertsona horiek hain zuzen ere osatzen

---

<sup>122</sup> Ikus “Euskara Zientzi-Fakultatean” 1986.12.15 (JMTA).

<sup>123</sup> Ikasle Abertzaleak hasiera batean, 1986/87 eta 1987/88. ikasturtean, Euskal Herriko ikastetxeetan sortu ziren talde autonomo gisa. “Fakultateen kasuan, Ikasle Abertzaleak klaustroko eta fakultateko batzordeko hauteskundeetara aurkezteko hautagaitzak ziren” (in *IAren historia*, <http://www.ikasleabertzaleak.org/dokumentuak/IAren%20historia.doc>, [kontsulta data: 2009-01-02]). Gerora, 1988an erakundea sortu zen.

<sup>124</sup> Hau da, lehenengo maila osoa eta bigarren, hirugarren eta laugarren mailako batzuk, bosgarren mailan ez zegoen karrerako irakasgaiak euskaraz, titulazioaren bigarren zikloan (laugarren eta bosgarren mailetan) ematen zen Euskara Zientifikoa izan ezik.

<sup>125</sup> “Gaurregun dugun irakasle kopurua, nahikoa ez den arren (ezta gutxiagorik ere), maila honetan aurkitzen bada, ez da izan noski sail edo azpi-sailetan aurkitutako jarrera baikor baten ondorioa, baizik eta zenbait pertsonen lanaren fruitua zeintzuk hemendik eta handik arraskatuz eskuratu bait dituzte plaza guzti hauek” Ikus “Euskara Zientzi-Fakultatean”, 1986.12.15 (JMTA).

zutela fakultateko Euskara Batzordea<sup>126</sup>. Bestalde, fakultatearen administrazioari dagokionez, Bultzak salatzen zuen ikastetxeko idazkari guztiak erdaldunak izatea baita agiri ofizialak erdaraz egotea ere, eta beraz Euskararako Kabinete Teknikoak bere lana ez zuela betetzen, “bere berezitasunik nabariena inoperantzia izanik”<sup>127</sup>.

Bultzak Akerlandarekin harreman estua zuen<sup>128</sup> eta beste campusetako ikasle euskaltzaleekin harremanetan zegoen unibertsitatean euskal adarreko ikasleek 1986an osatutako talde euskaltzaleen koordinadoran<sup>129</sup>. Zientzia Fakultateko Euskara Batzordearekin kolaboratzen zuen euskararen sustapenean.

Lehenengo Euskara errektoreordearen, Jacinto Iturberen, garaiko Euskara Batzordean Bultza! taldeko kide bat zegoen: Joserra Aihartza, Jose Ramon Etxebarriak proposatuta. J. R. Aihartza ordura arte unibertsitatera heldutako lehen ikasle euskaldun eta alfabetatuaren belaunaldiaren paradigmatzat har daiteke. Donostian jaio zen 1962an, lehen urteak Elbira Zipitriarekin eman ondoren, ikastola ilegal batean jarraitu zituen ikasketak, eta batxilergoko ikasketak (BBB eta UBI) aurreko kapituluan aipatu dugun Santo Tomas Lizeoan euskaraz egin zituen. Unibertsitatera sartu aurretik, 16 urterekin, Euskaltzaindiaren D mailako titulua eskuratu zuen. Beraz, unibertsitatera heldu zenerako euskaraz hezitako eta euskara titulua zuen gazte euskalduna zen. Biologia karrera hasi zuen Leioako Zientzia Fakultatean, eta bera heldu zenerako karrerako lehenengo maila euskaraz ikasi ahal izan zuen. Karrera ikasten zegoela Bultza! Ikasle mugimenduaren sortzaile eta eragile nagusia izan zen. Berak esanda dakigu Bultzan zebiltzanak *euskara nahasia* egiten zutela.

<sup>126</sup> “Z.F.ko talde euskaltzaleak bi dira: Euskara Batzordea eta BULTZA! / E.B.a gaurregun duela zenbait urte mugitzen hasitako zenbait irakaslek osotuta dago. Jende honen mugimendua orain dela hamar bat urte hasi zen, eta gaur fakultatean dauzkagun euskarazko asignaturak talde honen lanaren ondorioa dira. Halere eta E.B.an ikasle eta irakasleak parte hartu izan badute ere, gaurregun irakasleen eskutan geratu den elkarte da, eta nahiz eta ikasleentzat irekia izan, oraindik ez dugu ohiturazko parte-hartzerik; dena dela ba dugu parte hartzeko intentzioa” (Ikus “Euskara Zientzi-Fakultatean”, 1986.12.15 (JMTA).

<sup>127</sup> Ikus “Euskara Zientzi-Fakultatean”, 1986.12.15 (JMTA).

<sup>128</sup> Horren adibidea da, elkarte biak elkarrekin *Utikan* izeneko agiria atera zutela.

<sup>129</sup> Hala nola Gasteizeko Filologia eta Geografi-Historia fakultatekoekin (gaur egun Letren Fakultatea).

## 2.5.2. Irakaslegai euskaldunentzako beka

Ataltxo honetan UPV/EHUrako irakaslego euskalduna formatzeko zenbait aldiz jorratu zen bidea aztertuko dugu, beken hain zuzen ere. Izan ere, beka erako diru-laguntzen bidez 80ko hamarkadan eta 90eko hasieran abiatutako programa desberdinak aipatuko dira, ezaugarriak eta beraien arteko harremanak.

Eusko Kontseilu Nagusiaren ostean, lehen Eusko Jaurlaritzaren osatu zenean, Hezkuntza Sailburu izateko Pedro Miguel Etxenike izendatu zuten. P. M. Etxenikek, UPV/EHU euskaldunentzako xedez, unibertsitateko irakasle euskaldunak formatzeko ikerketa beka sortu zituen. Lehen deialdia 1980. urtean atera zen:

“ORDEN del 4 de Julio por la que se dictan normas para la adjudicación de becas para formación de investigadores euskaldunes con el fin de promocionar la euskaldunización de la Universidad del País Vasco.

VISTA la necesidad de crear cuadros de profesores de Universidad euskaldunes, para promocionar la enseñanza en euskera en la Universidad, vengo a disponer la siguiente orden:

Artículo 1.º - Se crean becas para realizar trabajos de investigación en Departamentos Universitario de reconocido nivel internacional, o en centros de investigación equivalentes.

(...)

Artículo 4.º - **Condición indispensable para solicitar una de estas becas es el dominio del euskera**<sup>130</sup> [beltzak gureak dira]

Aipuan ikusten denez, unibertsitateko euskaldunen karrera akademikoa sustatzeko ikerketa beka ziren. Izan ere, Hezkuntza Sailak ikerketa beken ohiko deialdia ateratzeaz gain<sup>131</sup>, euskaldunentzako deialdi berezitua kaleratu zuen, ikerkuntzan trebatutako UPV/EHUrako irakasle euskaldunen formakuntza bermatzeko. Halako beka urtebeterako ziren, baina beste urte betez luza zitezkeen eta merituz bidezko lehiaketaren bidez esleitzen zituen Hezkuntzak. Halako beken deialdiak 1980-1987. urteen artean atera ziren. Dena den 1985. urtean UPV/EHUko Euskara Batzordeak Hezkuntza Sailburuari, beka zirela-eta, 4 puntuko eskaria helarazi zion:

“3.- Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza normalizazioan Beken politikak ukan dezakeen garrantzia ukaezina delarik, ondokoak kontutan hartuak izango direla espero da:

a).- Aurten egin den Beken deialdira aurkeztu diren beka-entzuzkiak, ezagumendu tekniko eta zientifikoak denek berdinki igaro ondoren, **euskararekiko jarreraren arauera taldekatzea, hots, euskaldunak eta ezeuskaldunak**.

---

<sup>130</sup> EHAA/BOPV 1980ko uztailaren 17ko 119. Agindua.

<sup>131</sup> EHAA/BOPV 1980ko uztailaren 17ko 120. Agindua.

b).- Bakoitzari dagokion euskal terminologia zientifiko-teknikoaz duen ezagumendua eta unibertsitatearen euskararen normalizazioan duen tokia kontutan harturik, lehen multzoan leudekeen bekadungaiei buruzko Euskal Herriko Unibertsitatearen eritzia, bere Euskararako Batzordearen bidez, haintzakotzat hartua izatea.

c).- **Lehen multzoak dituen ezaugarriak kontutan hartuz, bertan sartuta daudenei Bekak preferentzialki zuzenduak izatea.**<sup>132</sup> [beltzak gureak dira]

Izan ere 1980ko beken lehen deialdia izan zen aldi bakarra, euskalduna izatea beketara aurkezteko baldintza zena. Hurrengo urteetako deialdien oinarrietan baldintza hori ezabatu zen. Ezabatu arren, Aginduaren izenburua oso argia zen. “... becas destinadas a la formación de investigadores vascoparlantes, con el fin de promocionar la euskaldunización de la Universidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco”<sup>133</sup>. Deialdiaren irakurketa zabala eginez, beka eskuratzeko euskalduna izatea ez zen baldintza, bekaren bitartez eskatzailea euskaldundu zitekeelako. Horregatik, UPV/EHUko Euskara Batzordeak bere kezka eta kexua helarazi zion Hezkuntza Sailari. Badirudi Sailak aintzat hartu zuela unibertsitatetik heldutako eskaria eta 1986ko beken deialdia goitik behera eraberritzearekin batera, honako baldintza gehitu zuen: “7. Artikulua.- Euskal hiztunentzako diren bekaren bat lortu nahi dezaten izangaiek, egoera hori egiazta dezan probaren bat izango dute”<sup>134</sup>

Irakasleria euskalduna prestatzeko bestelako bekarik izan da unibertsitarioentzat, baina ez Hezkuntza Sailarena. Esate baterako, Lan eta Gizarte-Segurantzaren Sailak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak (Kultura Sailak) eta UPV/EHUren Euskara errektoreordetzak graduatu euskaldunak prestatzeko bi ikasturtetan (1990/91-1991/92) deialdi berezitua kaleratu zuten. Beka hauek UPV/EHUren euskararen normalizatorako lehen plangintzaren parte izan ziren (aurrerago ikusiko duguna). Bekak graduatu berriek lehen lana aurkitzen laguntzeko ziren eta horregatik Lan eta Gizarte-Segurantzaren Sailak parte hartzen zuten. Unibertsitarioak lan mundura jalgitzeko programa bazen ere, bekak ziren, eta ez lan kontratuak. Beraz, pentsatzekoa da lehen enpleguaren gaineko formulazioa, finantziario beharrak eragindako argumentazio lerroa izan zela, Lan eta Gizarte-Segurantzaren Sailak diruz lagun zezan euskara errektoreordetzaren plangintzaren atal hau.

<sup>132</sup> 1985.4.18ko agiria (JMTA).

<sup>133</sup> EHAA/BOPV, 1982ko otsailaren 16ko 182. Agindua.

<sup>134</sup> EHAA/BOPV, 1986ko martxoaren 11ko 824. Agindua.

Kasu honetan, bekadunen egitekoa zen irakaskuntzarako euskarazko testu bat prestatzea tutore baten babespean urtebetean. Horretarako, unibertsitateko departamentuek alde aurretik finkatu behar zuten zeintzuk ziren beren beharrak eta zein irakasle izango zen bekaren tutorea. Gutxienez, halako 40 beka banatu zituen UPV/EHUK zientzia eta jakintzaren esparru desberdinetako irakasle euskaldunak formatzeko eta testuak lortzeko.

1990-1992 arteko beka hauen helburuak bi ziren: tituludun euskaldunak irakasle izateko prestatzea eta euskarazko testugintza zabaltzea. Helburu biak oso lotuta zeuden, tituludun gazteak irakasgai berriak emateko formatzen zirelako, eta, hain zuzen ere, irakasgai berrietarako, beharrezkoa, edo gutxienez oso komenigarria zen, euskarazko oinarriko materiala prest egotea. Testu idatzia prestatzeko, tutore baten babespean prestatzen zenez, testuaren eduki eta hizkuntza kalitatea bermatzen ziren. Hala, testuaren prestakuntzaren bitartez, eskoletarako materiala sortzeaz gain, euskaldun tituludunaren jakintza-arloko alfabetatze berezitua lortzen zen.

Jakintza-arloetan espezializatutako irakasle euskaldunak testugintzaren bitartez formatzeko estrategia Zientzia Fakultatek atera zen. Izan ere, fakultateko karrerako bigarren maila euskaraz emateko, J. M. Txurrukak txosten bat prestatu zuen 1981/82. ikasturtean beken bidea planteatuz irakaslegaiak lortzeko<sup>135</sup>. Txostenak G. Monreal errektorearen babesa lortu zuen eta Euskararako Kabinetearen diruarekin, 1982/83. ikasturtean 3 beka atera ziren karrerako bigarren mailako irakaslegaiak prestatzeko. Ordurako, Zientzia Fakultatean karrerako lehenengo maila, eta 4. eta 5. mailetako euskara zientifikoa irakasgaiak ematen ziren. Hurrengo kurtsoetara euskara zabaltzeko bide ziur bakarra tituludun gazte euskaldunak formatzea zen, irakaslegaiak lortzeko.

Zientzia Fakultateko bekadunen egiteko nagusia irakasgai berri bat emateko apunteak prestatzea zen. Hala 1982/83. ikasturteko hiru bekadunek (J. M. Arizmendi, A. Zubiaga eta I. Salcedo) Biokimika, Zitologia-Histologia eta Botanika arloak jorratu zituzten. Dirua Euskararako Kabineteak ematen zuen, baina Hezkuntza Sailak

---

<sup>135</sup> J. M. Txurruka "Euskararen arazoa Zientzi Fakultatean. Etorkizunari begira eginiko laburpen historikoa" 1982. urtean (JMTA).

unibertsitateko irakasleria euskalduntzeko bideratutako 1982ko deialdiko beketatik irten zen.

Hortaz, Andoni Iriondo Euskara errektoreordeak abiatutako hizkuntza plangintzak (edo *Euskararen erabilera normaltzeko plangintza*, 1990) aipatutako bidea irakaslegaiak lortzeko, hau da, postgraduoztat testuak prestatzeko formazio-bekak sortzea, Zientzia Fakultatetik zetorren.

## **2.6. Estatutuak eta euskararen ofizialtasuna unibertsitatean**

UPV/EHUn estatutuak 1985. urtean onartu ziren<sup>136</sup> zenbait urteko eztabaiden ostean. Oroitu ordura arte Bilboko unibertsitatearen estatutuak, 1970.ean onartutakoak, indarrean egon zirela. Garaiko klaustroak Estatutuen testua adosteko zailtasunen lekukoak izan ziren. Estatutuek 9 titulu zituzten eta zenbait xedapen iragankor. Estatutuen 8. titulua hizkuntza ofizialen erabileraren gainekoa zen, hau da, euskara eta gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen zuen unibertsitatean, eta UPV/EHUn euskararen normalizazioa arautzen orobat.

Estatutuen 8. titulua UPV/EHUn Euskara Batzordeak prestatu zuen. UPV/EHUn nolabait bi Euskara Batzorde izan ziren: lehena, unibertsitatearen estatutu aurrekoa, ez zuena erabakitzeke ahalmenik eta errektorearentzat aholkularitza lana betetzen zuena. Bigarrenak berriz, unibertsitatearen estatutuak zehaztutako eskumenak eta egitekoak zituen. Estatutuek esparru berdintsuan zebiltzan Kabinetea eta Batzordearen arteko harremana modu bertikalean definitu zituzten. Kabinetea, Batzordearen egikaratzaila bihurtuz.

Estatutu aurreko Euskara Batzordea 1983an sortu zen. Bere egiteko nagusia zen euskararen erabilera arautzea unibertsitatean, eta bereziki une hartan lantzen ari ziren unibertsitatearen estatutuetan<sup>137</sup>. Beraz, batzordeak prestatu zuen klaustroan aurkeztu

<sup>136</sup> Ikus EHAA/BOPV 1985ko martxoaren 18ko 70. Dekretua.

<sup>137</sup> Kabinetearen memorian honela azaltzen da euskara batzordearen sorrera: “Unibertsitatearen barruko euskal ekintzen aurrerakada eta beraien arteko korapiloak gero eta haundigoak zirela eta, Errektoregoak, 1983.eko Martxoan Euskararako Batzordea eratzea erabaki zuen, Fakultate eta Unibertsitate-Eskola ezberdinetako partaide-aholkulariez osatuta, beraren eginkizuna euskarari buruzko problemak kritikatu

zen 8. tituluaren azken testua. Gaztelaniaz prestatu zen testua (unibertsitate klaustroan aurkeztu ahal izateko) eta ondoren Kabineteak euskaratu zuen. Estatutuen 8. tituluak euskara eta gaztelania, biak ala biak unibertsitatearen hizkuntza ofizialak zirela ezartzen zuen (241. art). Euskararen ofizialtasuna ezin zen bestela izan, izan ere Espainiako Konstituzioak eta Gernikako Estatuak euskararen ofizialtasuna ezartzen zuten EAEn. Bestalde, erabiliko zen euskara eredu ere finkatzen zuen: “literatur euskara batua” (242. art.). Beraz, ordura arte unibertsitate publikoan euskararen inguruan martxan jarritako ekimenak testuinguru alegal batean gauzatu ziren.

Estatutu aurreko Euskara Batzordea 21 kidez osatuta zegoen. Unibertsitateko errektorea, G. Monreal, bertako lehendakaria zen, Patxi Goenaga lehendakariordea zen, eta Kabineteko arduradunak, X. Kintanak, idazkari lanak egiten zituen. Beste 16 kide Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako irakasleak ziren<sup>138</sup>. Kabineteko ordezkari gisa Yolanda Makua zegoen. Bestalde unibertsitatekan kanpoko erakunde batek, Euskaltzaindiak, ordezkari zuten Batzordean (J. Haritzelhar).

Estatu aurreko Euskara Batzordea sortu aurretik, estatutuetan euskararen erabilera arautzeko proposamenik izan zen. Hala, 1982ko abenduan estatutuei zuzenketa gehigarri bat aurkeztua izan zen *Euskararen normalizazioa unibertsitatean* izeneko titulu oso bat gehitzea proposatzen zuena. Proposamenaren egileetako bat Jose Ramon Etxebarria zen, eta berak idatzi zuen zuzenketa osoa<sup>139</sup>. Bertan, besteak beste, zera proposatzen zen: euskara errektoreordetzaren eta Euskara Batzordearen sorrera. Euskara Batzordea errektoreordearen azpian egonik, euskararen estatutuaren prestakuntza eta unibertsitate osorako euskararen normalizazio plangintzak diseinatuko zituen. Euskara Batzordearen menpe, eta beronek diseinatutako plangintzen egikaratzailer gisa, Euskara Kabinete Teknikoa kokatzen zen eta bere egitekoak itzulpengintza administratibotik

---

eta informatzea izanik. Ondorioz, noski, Euskararako Kabinete Teknikoaren funtzioak betearazleak bilakatu dira.”(Ikus “Euskara Unibertsitatean 1982-1983. ikasturteko ekintza eta ordainbideak” agiria (JMTA).

<sup>138</sup> Honako hauek ziren: J. Altuna, A. Azkargorta, J. Azurmendi, B. Bakaikoa, L. M. Bandres, J. M. Elortza, F. Etxebarria, I. Iñurrieta, J. Iturbe, A. Martinez Lizarduikoa, L. Mintegi, K. Mitxelena, K. Perez Urraza, E. Osa, I. Sarasola eta J. M. Txurruka (Ikus *Memoria del año académico 1982-1983 Ikasturtearen txostena*, Leioa: UPV/EHU, 1984an argitaratua eta *Memoria del año académico 1983-1984 Ikasturtearen txostena*, Leioa: UPV/EHU, 1985an argitaratua )

<sup>139</sup> Jesus Mari Txurrukaren Artxibo pertsonalean (JMTA) gordetzen da bai dokumentuaren eskuzko kopia, gerora mekanografiatutako testua ere, erregistroko datarekin (1982.12.3).

harago zabaltzea proposatzen zen unibertsitatearen euskalduntzea bideratuz eta koordinatuz. Azkenik, ikastetxe bakoitzean Euskal Sail bat sortzea proposatzen zen. Estatutuen zuzenketa gehigarri honen bilakaeraz Jose Ramon Etxebarriak honakoa argitaratu zuen *Larrun* aldizkarian:

“Gogoan dut oraindik horretarako aurreproiektua prestatu genuela –ikasle eta irakasleen arteko eztabaidan eta lankidetzan hobatua eta aberastua izan zena- eta aldi hartan errektore zen Gregorio Monreal-en eskuetara iritsi erazi genuelarik, labur esanda, ezertarako balio ez zuen proiektua zela jakin erazi zigula. Nonbait, behetik euskaltzaleen eskutik zetorrena ezin zitekeena inola ere onar.”<sup>140</sup>

Zernahi gisaz, eta arestian aipatu dugunez, 1983ko martxoan, estatutuak onartu baino lehen, Euskara Batzordea sortu zen, eta haren menpe, Euskararako Kabinete Teknikoa. G. Monreal beraz, hasieran egitasmoa gaitzetsi arren, martxan jartzen ari zen. Are gehiago, Jose Ramon Etxebarriaren arabera, G. Monrealek 1982ko zuzenketa gehigarriaren eduki gehienak bereak moduan aurkeztu zituen:

“Handik urte bat edo batzutarra, unibertsitateko estatutuen aurreproiektua Monreal-en beraren eskutik plazaratu zenean, harriduraz ikusi genuen **guk aurkeztutakoaren plagio zuzena zela, copyright-a eskatzeko modukoa**<sup>141</sup> [beltzak gureak dira]

Azkenean, unibertsitatearen klaustroak G. Monrealen proposamena onartu zuen, funtsean J. R. Etxebarriaren 1982ko agiria zena, hurrengo urteetan sortutako Euskara Batzordearen ekarpenetik osatua. Hala, 1985. urteko estatutuen 8. tituluak bi erakunde berri sortzea aurreikusten zuen: Euskara errektoreordea eta Euskara Institutua. Organigrama berrian Euskara Batzordea errektoreordearen menpe egongo zen, eta bere pean Euskararako Kabinete Teknikoa. Estatutuetan aurreikusitako Euskara Institutua 1995. urtera arte ez zen sortu, eta sortu zenak ez zuen hasierako planteamendurekin zerikusirik<sup>142</sup>. Horretaz guztiaz gain, estatutuetan aurreikusten zen unibertsitateko ikastetxe bakoitzean Euskara Batzorde bat sortzea ikastetxeko hizkuntzaren plangintza

<sup>140</sup> (Etxebarria, 1991: 32-33)

<sup>141</sup> (Etxebarria, 1991: 33)

<sup>142</sup> Zientzia Fakultateko irakasleek Euskara Institutua sortzea proposatu zuten unibertsitaterako euskararen egokitzapenerako beharrezkoa zen jakintza-arloz arloko lan lexikografikoak egiteko. Hori egiteko institutua sailetan antolatuko zen. Nolabait UZEIren antzeko institutu bat sortzea zuten buruan. Hain zuzen ere Zientzia Fakultateko irakasleak esperientzia eta hartueman handia zuten UZEIrekin, beraiekin kolaboratu baitzuten hiztegien prestaketan, eta beraz lan planteamendu hori eraman nahi zuten unibertsitatera, euskarazko irakaskuntza eta ikerkuntza garatzeko. Kontua da, ondoko urteetan Euskara Batzordean Euskara Institutu horren egitekoak birdefinitu zirela, eta bere hasierako asmo lexikografikoa galdu zuen.



bideratzeko (J. R. Etxebarriak 1982an proposatutako Euskal Sailaren baliokidetzat har daitekeena).

## **2.7. Euskara errektoreorde karguaren sorrera**

Unibertsitatearen 1985. urteko estatutuek ziotenez, euskara errektoreordearen figura sortu zuten, “Unibertsitatearen barruan Euskararen aurrerabide eta normalkuntzaren aldeko iharduerak bultzatzea eta koordinatzea”<sup>143</sup>. Bere egitekoak honako hauek zirela zehazten zen:

“Batzordeburuak, Euskararako Errektorordeak, ondoko betekizunak izango ditu:

- a) Euskararekin zerikusia duten proposamenak, Unibertsitatearen Gobernu-Batzarreari eta Klaustroari Errektoreak aurkeztekoak, prestatzea.
- b) Unibertsitateko Euskararako Batzordearen eguneko aztergaiak prestatu, horretarako deialdia egin eta, Errektorea ez dagoenean, bertako mahaiburutza izatea.
- c) Bere ardurapeko gaiak Unibertsitatearen organo eskudunek egindako akordioak beterazi eta gainbegiratzea.
- d) Errektoreak horretarako ordezkaritza demaionean, eta euskararekin zerikusia duten beste erakundeekiko harremanetan, Unibertsitatearen izenean joatea.
- e) Unibertsitateak egiten dituen anitzurtetako programaketan eta urteroko aurrekontuaren prestakuntzan esku hartzea.
- f) Unibertsitatearen Euskararako Kabinete Teknikoaren lanak gidatzea.
- g) Ikastegi bakoitzeko Euskararako Batzordeen lana koordinatzea.”<sup>144</sup>

Errektoreordeak ez zuen errektoreordetzarik, Euskara Batzordearen burua zen. Euskara Batzordea zen beraz, unibertsitatearen hizkuntza plangintzarako organoa<sup>145</sup>. Euskara Kabinete Teknikoa berriz, Euskara Batzordearen organo iraunkorra zen, haren menpe zegoen eta beronek diseinatutako plangintzen eta finkatutako helburuen egikaratzailerak<sup>146</sup>.

---

<sup>143</sup> Ikus UPV/EHUko 1985ko estatutuen 251. artikulua.

<sup>144</sup> Ikus UPV/EHUko 1985ko estatutuen 254. artikulua.

<sup>145</sup> Lehenengo honela definitzen da Euskara Batzordea: “Unibertsitatean Euskararako Batzorde bat izango da, berau aholkularitzarako eta unibertsital erakundearen barruan egiazko elebitasuna lortzeko ihardueren plangintza orokorrerako organoa izanik.” (252. art.) eta aurrerako Batzordearen egitekoak honako hauek zirela zehazten zen: “a) Euskararen aineko plangintza eta, Unibertsitatearen barruan, beraren erabilera eta normalkuntzarako proposamenak egitea. Halaber, plangintza horen beterazteak ekar ditzakeen arazoez, galdetuz gero, bere eritzia eta informeak agertuko dira. / b) Fakultate edo Unibertsitate-Eskola bakoitzean euskararen erabilera eta normalkuntzarako egokien diratekeen neurriak hartzeko proposamenak egitea. / c) Unibertsitatearen organo beterazleei Unibertsitate-hizkuntz politikari dagokionean aholku ematea. / d) Euskaraz aurkezten diren akademi lanetarako, arau bereziak jartzeko erizpideak proposatzea” (253. art.)

<sup>146</sup> UPV/EHUko estatutuek zehazten dutenaren arabera, “Euskararako Kabinete Teknikoak ondoko betekizunok izango ditu: / a) Literatur euskara batuaren erabilera zuzena bermatzea, eta, honetarako, Unibertsitate osoko idazki, inprimaki, kartelak, etab. Gainbegiratu egingo ditu. / b) Beragana jotzen duten Unibertsitateko organo guztiei euskarari doakionez argibide eta aholku ematea. / c) Unibertsitateko

Euskara errektoreordea ezin izan zen goizetik gauera izendatu. Batetik, aurreikusita zegoelako estatutuak onartuta, errektore hautaketa berria irekiko zela, eta bestetik errektore berriaren aukeraketa ezin gatazkatsuagoa izan zelako. Estatutuak 1985eko urtarrilean onartu zituen UPV/EHUko Klaustroak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian martxoan argitaratu ziren. Maiatzeko hauteskundeetan errektore izateko hautagai bakarrak, R. Alvarez Isasik, galdu egin zuen, eta Arantza Mendizabal errektore funtziotan izendatu zuten. Orduan, berriro ere, UPV/EHU gobernu krisi latzean sartu zen. A. Mendizabalek errektoretzarako hauteskundeak konbokatu zituen, baina ez zen hautagairik aurkeztu. Hala ere, dimititu zuen, eta unibertsitatea bururik gabe egon zen tarte batez. Hurrengo urteko urtarrilerako hauteskunde deialdi bat antolatu zen, eta bi hautagai aurkeztu ziren: Celestino del Arenal eta Emilio Barberá. Ez bata ez besteak ez zuten ez lehenengo bueltan ez bigarrenean nahiko botorik lortu errektore izateko. Egoera gero eta larriagoa zen UPV/EHU. Egoera larri honetan, Eusko Jaurlaritzak Emilio Barberá izendatu zuen errektore. Baina unibertsitateko kide batzuk salaketa jarri zioten unibertsitateari Jaurlaritzaren izendapenak unibertsitatearen autonomia urratzen zuelako. Epaitegiak arrazoia eman zien salatzaileei, eta E. Barberáren izendapena baliogabetuta geratu zen. Berriz ere, Arantza Mendizabal errektore funtziotan izendatu zuten. A. Mendizabalek ez zuen asmorik errektore izateko eta kargua hartu eta berehala dimititu zuen. Beste zenbait gorabehera tarteko, E. Barberá sasoi batean errektore funtziotan izan zen, hauteskunde berriak egin ziren arte. Azkenean, 1986ko azaroko bozketen arabera, Manuel Tellok galdu eta E. Barberák irabazi zuen. Berau izan zen errektorea 1986-1990. urteetan. Hurrengo errektore hauteskundeak (1990) ere irabazi zituen, baina hainbat gorabehera medio 1991. urtean kargua utzi zuen.

---

Euskararako Batzordeak eta Unibertsitatearen Ikastegietako Euskararako Batzordeek egin ditzaketen proposamenak bideratu eta koordinatzea, bai halaber euskarari buruzko gainerako neurri eta proposamenak ere, berauek Unibertsitatearekin zerikusia dutenean. / d) Euskara Unibertsitatean normalduz joan dadin, egokien deritzen iharduerak proposatzea, ondoren Euskararako Batzordeari horren berri emanez. / e) Behar liratekeen dokumentu edo idazkiak oro ofizialki itzultzea. / f) Ikastegi bakoizko euskal plangintzak burutu eta eginetaratzeko behar diren bitarteko teknikoak lortzea. / g) Euskararekin zerikusia duten unibertsitateaz kanpoko harremanak bideratzea.” (255. art.).

Egoera nahasi honetan euskararekin zer gertatu zen ikusiko dugu. Hasteko, lehenengo eta behin, aipatu behar da, euskararako lehen errektoreordea, E. Barberá errektore zela izendatu zela. Jacinto Iturbe E. Barberáren taldean sartu eta lehen Euskara errektorea izan zen. Karguan 1986-1990. urteen artean iraun zuen.

E. Barberáren bigarren agintaldian Andoni Iriondok hartu zuen Euskararako errektoreordetzaren ardura. E. Barberáren ostean, Juan Jose Goiriena izan zen errektorea, eta orduan euskara errektoreorde Pello Salaburu izendatu zen. P. Salaburuk, besteak beste, unibertsitatearen estatutuetan aurreikusitako Euskara Institutua martxan jarri zuen (1995). Ondoren P. Salaburu bera unibertsitateko errektore izan zen eta tarte horretan euskararako bi errektoreorde izan ziren: Miren Azkarate abiatu zen postu horretan, eta ondoren Irakasleria errektoreordea izatera pasa zenean, Juan Ignacio Perez Iglesias sartu zen Euskara errektoreordetzan. J. I. Perez Iglesiasek unibertsitatearen hizkuntza normalizaziorako II. plangintza martxan jarri zuen.

Manuel Monterok ordeztu zuen Pello Salaburu errektoretzan 2000. urtean. M. Monteroren garaian hiru Euskara errektoreorde izan ziren: Jaione García, Juan Ramon Murua eta Juan Jose Larrea. Larreak egonkortu zuen euskara errektoretza M. Monteroren garaian. Euskara Zerbitzuaren berrantolaketa egin zuen, eta ondorioz Euskararako Kabinetea desagertu edo urtu egin zen unibertsitatearen zerbitzu berrian. Manuel Monteroren ostean, Euskara errektoreorde izandako J. I. Perez Iglesiasek hartu zuen errektoretza. Lau urteko horretan Ludger Mees izan zen euskara errektoreordea eta *Euskararen Plan Gidaria* martxan jarri zuen. Agintaldia bukatzean, J. I. Perez Iglesiasek berriro aurkeztu zuen bere hautagaitza UPV/EHUko errektoretzarako. Hautagaitza bakarra izanik ere, eta irabazi arren, bozketan nahikoa babesik lortu ez zuenez, 2008ko abenduan bere agintaldia amaituko zuela iragarri zuen. Aurretik hauteskunde berriak konbokatu ziren. J. I. Perez Iglesiasen programaren jarraitzaileak irabazi zuen: Iñaki Goirizelaiak. 2009tik aurrera Euskara Errektordea Jon Irazusta da.

## 2.8. Euskararen erabilera normaltzeko plangintza

UPV/EHUK euskararen normalkuntzarako hiru plangintza ezagutu ditu, (lau Bilboko Unibertsitaterako Beharrizanen Lantaldeak prestatutako *Premia larriko neurrien txostena* (1979) aintzat hartzen badugu): *Euskararen erabilera normaltzeko plangintza* (1990), *UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II. Plangintza* (1999), eta *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)* (2007). Plangintza bakoitzak ezaugarri desberdinak ditu eta bakoitzak azterketa sakon bana mereziko luke. Alta, denak ezin ditugu aztertu gure tesiaren mugak gainditzen dutelako. Hala ere 1990koa aztertuko dugu, neurri batean ezezagunena baita.

Andoni Iriondo euskara errektoreordeak jarri zuen abian 1990. urtean UPV/EHUREN *lehen* normalizazio plangintza (Beharrizanen Lantaldeak prestatutako *Premia larriko neurrien txostena* Bilboko unibertsitaterako prestatu zelako). 1990 aurretik, euskararen zabalpena plangintza zehatzik gabe egin zen (nahiz *Premia larriko neurrien txostenak* ildo batzuk ere markatu zituen) eta unibertsitateko kide jakin batzuen ekimenean oinarritu zen. Halaxe salatzen zuen Espainiako *Ley de Reforma Universitaria* (LRU, 1983) legea onartu ostean idatzi zen agiri batek:

“Batzuren ikuspuntutik, euskararen egoera hobetu egin da Unibertsitatean. Lehen ez ezen (sic) euskaraz ikastea posible; orain, gero eta euskarazko asignatura eta kurtso gehiago daude. Bai, baina kontutan hartu behar dugu helburua ez dagoela finkaturik. Ez dago plangintzarik, ez dira pausoak zehaztu,...

Egin dena egiten dena, ikasle-irakasle batzuren inizatiba pribatuz eta borondate hutsez izan da. Eta gainera, oztopoak gainditu behar izan ditugu. **Unibertsitateak jarritako oztopoak:**

- **ikasle kopuru handia eskatzen da**, eta euskarazko taldeak ezin du baldintza hau bete. Ez da kontutan hartzen salbuespenak egin behar direla.
- **irakasleak prestatzeko plangintzarik ez dago.**
- **ez da plazarik sortzen**, irakasle berriak kontratatzeko.
- ez da kontutan hartzen **irakasle euskaldunen lan bikoitza** (apunteak itzuli,...)<sup>147</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, 80ko hamarkadan euskararen garapena unibertsitatean bertako euskaltzaleen ekimenean oinarritzen zen nagusiki. 90eko hamarkadan berriz, hori gainditu nahian plangintza bat diseinatu zuen Euskara Batzordeak. Euskara Batzordeko kideetako asko 80ko hamarkadan beraien departamentu eta ikastetxeetan euskarazko irakaskuntza ezartzeko ekimen desberdinetan ibilitakoak ziren.

<sup>147</sup> “Zein motatako unibertsitatea nahi dugu?”, ca. 1983 (JMTA).

### 2.8.1. Lehen plangintzaren eta beste plangintza batzuen arteko konparaketa

Euskara Batzordeak prestatutako 1990eko plangintzaren eta 1979ko premien txostenaren arteko aldeak badiren arren, ikusiko dugunez, jarraikortasunak ere badira. Funtsean bien arteko alderik handiena zera da, 1979koak euskararen egoera unibertsitatean sakonago aztertzen zuela 1990ekoak baino. Baina lehenengoaren ezarpena laburragoa zen, bigarrena baino, A. Iriondoren plangintza 5 urterako baitzen. 1979koa, berriz, 1979/80 ikasturtean aplikatzekoa zen, nahiz eta aipatu dugunez, hurrengo urteetako UPV/EHUko euskararen garapenaren lerro nagusiak markatu zituen. Beraz, 1990ekoak plangintza zabal bat planteatzen zuen, unibertsitatearen euskalduntze bidean. Aldiz, *Premia larriko neurrien txostenak* ez zuen planteatzen unibertsitatearen euskalduntzea, unibertsitatea ez baitzen helburua, baizik unibertsitateko ikasleak, eta berauen euskalduntzea, gizartearen euskalduntze prozesua azkartu zezaketelako.

Hala ere, Euskara errektoreordearen 1990eko plangintza, 1979koa baino zabalagoa izan arren, urri eta eskas geratzen da Bartzelonako Unibertsitatearen hizkuntza plangintzarekin konparatuz gero. UPV/EHUren 1990eko plangintza Bartzelonako unibertsitateko lehen normalizazio plangintzaren garaikidea zen<sup>148</sup>. David Casals i Andreu-k Bartzelonako plangintzaren gainean argitaratutako artikulua argitan, katalan unibertsitateak goranahi handiagoak zehaztu, berariazko antolakuntza finkatu eta azterketa sakonagoak planteatzen zituen. Esate baterako, UPV/EHUko plangintzak, argitalpenen esparrua ikerkuntzarekin lotzen zuen, ez irakaskuntzarako materialaren ekoizpenarekin, eta aurreikusten zen helburu bakarra aldizkarietara zegoen<sup>149</sup>. D. Casals-en arabera, Bartzelonako plangintzaren helburuetako bat berriz, jakintzen arloz arloko argitalpenen azterketa bat egitea zen, katalanezko testugintzaren planifikazio bat prestatzeko.

“Des de l’SLC [Servei de Llengua Catalana] s’ha realitzat un estudi estadístic sobre el percentatge de publicacions en català del fons bibliogràfic del Servei de Publicacions de la Universitat de Barcelona, segons les diferents àrees de coneixement. Per minvar els efectes de la

---

<sup>148</sup> Ikus Bartzelonako Unibertsitateko *Pla de Dinamització Lingüística* buruzko artikulua (Casals i Andreu, 1992)

<sup>149</sup> UPV/EHUko plangintzak honakoa zioen: “b.- EHUko Argitarapen-Zerbitzuak euskarazko ikerketa-aldizkariak (Elhuyar-kasu) bereganatu eta dinamizatu beharko lituzke eta pare baten (Zientziak eta Letrak) argitarapena bermatu” (UPV/EHU, 1990: 27)

insuficiència de textos universitaris en català, una subcomissió de la Comissió de Política Lingüística de la universitat de Barcelona s'està encarregant d'elaborar un document/proposta sobre les mesures universitaris en llengua catalana i per a la implantació de noves modalitats d'edició d'obres universitàries en català, incloent-hi la traducció de textos ja existents en altres llengües»<sup>150</sup>

UPV/EHUn halako azterketarik ez da planteatu 2007. urtera arte. Orduan kaleratu zen *UPV/EHUren Euskararen Plan Gidaria*. Beronen prestakuntzarako UEUk Inguma datu-basearen datuetatik abiatuta *Unibertsitate mailako euskarazko ikasmaterialaren azterketa 1995-2005*<sup>151</sup> txostena prestatu zuen, UPV/EHUren eskariz.

Nahiz eta Bartzelonako unibertsitatea, UPV/EHUkoa baino handiago den, eta hizkuntzaren egoera herri bakoitzean desberdina den, plangintzen arteko konparaketa guztiz pertinatea da, unibertsitate bietan bertako hizkuntzaren bilakaerak kointzidentzia asko dituelako. Bietan euskaraz edo katalanez emandako lehen irakasgai ofizialak 1978tik aurrera hasi ziren<sup>152</sup>. Bien estatutuak 1985. urtean onartu ziren, eta biak izan ziren lehenak beraien lurraldeetan, gaztelaniaz gain, bertako hizkuntzari unibertsitatean ofizialtasuna aitortzen. Baina Bartzelonakoak, UPV/EHUkoak ez bezala, irakasle eta ikasleei katalana erabiltzeko eskubidea aitortzeaz gainera, eskubide erabilgarria izateko, zehaztu zuen komunitate unibertsitarioak hizkuntza biak jakin behar zituela<sup>153</sup>.

A. Iriondoren plangintzak aurreko errektoreordeak, Jacinto Iturbek eta bere garaiko Euskara Batzordeak landu eta abian jarritako ekimenak biltzen zituen. Horren adibide da plangintzak irakasle euskaldunak formatzeko aipatzen dituen tituludun edo postgraduatuentzako bekak: halako beken programa J. Iturbe errektoreorde zela abiatu ziren. Halaber, plangintzak planteatzen zuen bi aldizkariren sorrera, bata zientzietarako eta bestea letretarako, J. Iturberen garaian landutako proiektuak ziren. Izan ere, zientzia eta tekniketako aldizkariaren aurreproiektuaren, gerora *Ekaia* aldizkaria izango denaren lanketa 1989an hasi zen. Urte horretan bertan zientzietako (*Ekaia*) zein letretako (*Tantak*) aldizkariaren lehen zenbakiak kaleratu ziren.

<sup>150</sup> (Casals i Andreu, 1992: 242)

<sup>151</sup> (Askoren artean, 2006)

<sup>152</sup> (Pons, 1996: 111)

<sup>153</sup> (Pons, 1996: 109)

Ondorioz, errektoreordearen 1990eko plangintza, 1985eko estatutuetan aurreikusitakoaren garapentzat har daiteke. Hau da, estatutuetan aipatutako euskalduntze progresioaren ondorioa zen,

- “1. Irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitate-zerbitzuetan euskara pausoka normalduz joan dadin, Unibertsitateak behar den **plangintza eratu** eta horretarako neurri egokiak jarriko ditu.
2. Unibertsitateak orain arte euskaraz ematen ari den irakaskuntza garatu egingo du. **Irakasgai berriak euskaraz jartzea planen arauera** egingo da, Ikastegi bakoitzeko Euskararako Batzordea kontutan izanik.”<sup>154</sup> [beltzak gureak dira]

## 2.8.2. Plangintzak markatutako helburuak

Hizkuntzaren normalkuntzarako neurri egokiak proposatzeko, plangintzak UPV/EHUko euskarazko irakaskuntzaren analisi labur bat aurkezten zuen. Bertan ematen ziren datuen arabera, Gipuzkoan irakasgaien % 53,9a euskaraz eskaintzen zen, Araban % 21,2 eta Bizkaian % 25,2a. Hala, 1989-1990. ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean irakasten ziren 1.565 irakasgai desberdinetatik 504 euskaraz ematen ziren (hots % 32a<sup>155</sup>). Beraz, 1979ko *Premia larriko neurrien txostenetik*, UPV/EHUK aparteko normalkuntzako neurririk hartu gabe, irakasgaien herena euskaraz eskaintzen zuen. Zer dago horren atzean? Unibertsitateak korporazio osorako plangintzarik edo helburu zehatzik izan ez zuen arren, unibertsitateko fakultate eta unibertsitate eskoletan, irakasle eta ikasle euskaltzaleen eragin, eskari, lan eta sustapen eta abarri esker, euskarazko irakaskuntza sortuz eta antolatuz joan zen. Bestalde, ikastetxeko zuzendaritza batzuk euskara sustatu ez arren, irakasle edo ikasleak proposatutako neurri txiki eta ertainak onartuz joan ziren<sup>156</sup>. Horrela, ikastetxetik ikastetxera euskalduntzearen ikuspegitik oso emaitza desberdinak lortu ziren. Izan ere, emaitza horiek lotuta zeuden ikastetxeko euskaltzaleen kopuru, indar/botere eta estrategiek.

---

<sup>154</sup> Ikus UPV/EHUko 1985ko estatutuen 244. artikulua.

<sup>155</sup> (UPV/EHU, 1990: 10)

<sup>156</sup> Eta horrela aitortzen zuen 1991an euskara errektoreordea zen Salaburuk 1990eko plangintzaren aurreko egoeraz hitz egiterakoan: “En la UPV/EHU no ha habido durante muchos años ningún plan específico de política lingüística. Sin embargo, se han ido contratando profesores para impartir enseñanza en euskera. La contratación del profesorado se ha realizado partiendo de las peticiones individualizadas que al efecto han venido realizando los departamentos con el visto bueno de los centros. De este modo, lo que debería haber sido una planificación global realizada desde el rectorado ha sido sustituida en la práctica por la voluntad que en cada momento haya podido tener el departamento correspondiente. Los departamentos que han tenido sensibilidad en este tema han solicitado profesores y han cubierto plazas en la medida de las disponibilidades presupuestarias, mientras que otros departamento han considerado prioritarias otras actuaciones, con lo que la cobertura de plazas no se ha realizado.” (ikus 1991ko abenduan Salaburuk aurkeztutako txostena, JMTA).

Gorago ikusi dugunez, Zientzia Fakultatean esate baterako, Biologia karreraren euskal adarraren garapena lotuta egon zen hasiera batean irakasle euskaltzaleen ekimenarekin, eta gerora, horri gehitu zitzaion, ikasleen eskari antolatua. Beraz euskal adarraren garapenak ez zuen zerikusirik izan Zientzia fakultatearen zuzendaritzak markatutako helburuekin.

Beraz, lehen aldiz UPV/EHUk 1990. urtean euskararen irakaskuntzaren zabalpenerako goitik beherako plan bat aurkeztu zuen, ordura arte arrakasta desberdinarekin funtzionatutako behetik gora bideratutako euskarazko irakaskuntza dinamizatuz. Horren ondorioz, pixkanaka pixkanaka, irakasle eta ikasle euskaltzaleek bideratutako behetik gorako dinamika apalduz joan zen, eta, hein handiz, euskalduntzearen ardura errektoreordetzan delegatu zen. Gerora, fenomeno honi beste bi gehitu zitzaizkion: batetik, frankismoaren osteko aktibismo zibiko, sozial eta politikoaren eztagaren osteko desmobilizazio sozial progresiboa, eta bestetik, “irakasle lagunak” inguruko borrokak askorengan eragindako akidura. Delegazio, desmobilizazio eta desmotibazioaren ondorioz, unibertsitatearen euskalduntzea, 90eko hamarkadaz geroztik errektoreordetzaren plangintza bidez bakarrik bidera daiteke.

Plangintzak euskarazko irakaskuntzaren garapenerako titulazioka eta ereduak lortu beharreko helburuak markatu zituen “titulazio desberdinek gizartean izango duten eragina kontutan hartuta”<sup>157</sup>. Berrito ere, karrera batzuen gizarte eragin biderkatzailearen arabera finkatu ziren helburuak, 1979ko *Premia larriko neurrien txostenak* egin zuen moduan (1979koak *utiltasun faktorea* deitzen zion horri).

Plangintzaren arabera euskarazko irakaskuntza zabaltzeko 441 irakasle euskaldun edo elebidun behar ziren bost urtetan hiru campusetarako. Horietatik gehienak (295 irakasle) kontratazioaren bidez lortzea aurreikusten zen eta beste 146ak UPV/EHUko irakasleen euskalduntze-alfabetatzearen bitartez. Beraz, urtero 64 kontratu berri eta 38 irakasle birziklatzea aurreikusten zen.

---

<sup>157</sup> (UPV/EHU, 1990: 11)



Irakasle berri euskaldunen kontratazioa borondatek harago planteatutako estrategia bat zen, plangintzak zehazten zuelako irakasle berriak kontratatze bidea zein izango zen:

“Gauza jakina da Unibertsitateko Irakasleak lortzeko harrobi nagusia Unibertsitatean diharduten laguntzaileak edo formazio-bekak dituzten postgraduatuak direla. Horregatik, urte batean, hurrengo urtean kontratatu behar diren irakasle berri euskaldun kopuruaren adina laguntzaile eta formazio-bekadun egon behar du gutxienez.”<sup>158</sup>

Postgraduatuentzat formazio bekak aipatu ditugu, beraz ez gara hemen gehiago luzatuko<sup>159</sup>. Bestalde, plangintzak Euskara Zientifiko irakasgaiari arreta berezia eskaintzen zion. Arestian aipatu dugunez, irakasgai hori unibertsitatean, 1981/82. ikasturtean eman zen lehen aldiz, eta *Premia larriko neurrien txostenaren* arrakastetako bat izan zen. Irakasgaia dena den fakultate bakar batzuetan ematen zen, eta 1990eko Plangintzak Euskara Zientifiko irakasgaia titulazio guztietan hautazko moduan eskaintzea markatzen zuen. Plangintzak aurreikusten zuen Euskara Zientifiko I eta II eskaintzea, lehena titulazio guztietarako eduki berdinekin, eta bigarrena titulazio bakoitzaren hizkuntza beharrei egokitua. Plangintzak honela justifikatzen zuen irakasgai honen zabalpena:

“Euskara Zientifikoaren sorrera, Unibertsitatean hizkuntz normalizazioan garrantzizko tresna bezala ikusten zelako izan zen, alde batetik, irakaskuntza guztia euskaraz jaso ezin zutenei bali[a]bide tekniko bereziak emateko, eta bestetik, hizkuntz normalizazio-prozesuan (titulazio bakoitzean bereziak direnak) baliabide linguistiko, morfologiko, sintaktiko eta abar, sortzeko eta zabaltzeko”<sup>160</sup>

Gai honen irakasleak, jakintza-arlo bateko unibertsitateko departamentuetan zeuden, hau da, jakintza-arloren bateko titulazio akademikoa zuten, baina Euskara Zientifikoaren irakasleak ziren. Horrela gertatu zen Zientzia Fakultatean Euskara Zientifiko irakasgaia sortu zenean: kontratatutako irakasleak Biologia tituludunak ziren, baina Euskara Zientifikoa ematen zuten eta beraien departamentua ez zen Euskal Filologia, baizik Zientzia Fakultateko Biologia, Fisika edo besteren bat.

---

<sup>158</sup> (UPV/EHU, 1990: 17)

<sup>159</sup> Ikus atzerago 2.5.2. *Irakaslegai euskaldumentzako bekak* atala.

<sup>160</sup> (UPV/EHU, 1990: 18)

A. Iriondoren plangintzak zehazten zuen Euskara Zientifiko irakasgaiaren zabalpenerako, irakasle berrien kontratazioa bideratu beharko zela eta honakoa aurreikusten zuen: “EHUn dauden Sailetan sartzen ez diren Euskara Zientifikoko irakasleen berezko kokapena Euskararako Institutua izango da”<sup>161</sup>. Baina, 1990ean Euskara Institutua oraindik sortu gabe zegoen. Beraz, UPV/EHUren 1985. urtean onartutako estatutueta aurreikusitako institutua eratu gabe zegoen bost urte beranduago, eta Institutuaren diseinua eta araudiaren gaineko eztabaidetan beste bost urte igaro ziren. Hala, Institutua 1995. urtean sortu zen. Hainbeste urte pasatu ostean, jatorrizko ideia<sup>162</sup> eta erakunde sortu berria ez zetozen guztiz bat.

### **2.8.2.1. Euskarazko ikerkuntza**

Plangintza unibertsitatearen irakaskuntza euskalduntzean zentratu arren, atal bana eskaini zien administrazio zerbitzuen euskalduntzeari eta euskarazko ikerkuntzari. Guk hemen ikerkuntzari buruz 1990eko plangintzak jasotakoak aztertuko ditugu, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren formazioan administrazio zerbitzuen euskalduntzeak garrantzi txikia izan zuelako<sup>163</sup>.

Plangintzak ikerkuntzarako politika xume bat planteatzen zuen. Izan ere, euskarazko ikerkuntza ez zen lehentasunezko esparru bat, baina EHUKo estatutueta unibertsitateko kideei “ikerlanak edozein hizkuntza ofizialez burutu”<sup>164</sup> eta argitaratzeko eskubidea aitortzen zitzaien heinean, plangintzak horren gaineko proposamenen bat jaso behar zuen. Hasteko egoeraren analisisian honako adierazten zuen: ikerkuntza euskaraz burutzeari ez zitzaiola unibertsitatean inongo garrantzirik eman. Halaber, ikerkuntzarekin zerikusia estua zuten abiapuntuko bi aspekturen gainean,

<sup>161</sup> (UPV/EHU, 1990: 19)

<sup>162</sup> Estatutuen arabera, Institutuaren egitekoa euskararen unibertsitate erabilerako prestatzea zen, euskarazko irakaskuntzarako materialak eta testuak sortzeko, euskara ikastaroak unibertsitateko kideei eskaini eta abar. Baina Institutuaren egiteko bereizgarria “jakintz arlo ezberdinen lexikografia ikertu eta lorturiko ondorioak argitaratzea” izango zen (UPV/EHUKo 1985ko estatutuen 257. artikulua).

<sup>163</sup> UPV/EHUKo administrazio zerbitzuetako 730 langileetatik 50 euskaldunak ziren (% 7a). Bistan da kolektibo nagusiki erdalduna zela, eta plangintzak esparru honetan neurri zehatzak planteatu behar zituela. Eta horrela egin zuen, 5 urtetan 200 bat postu (jendearekiko harremana zutenak) euskalduntzea aurreikusten zuen plangintzak.

<sup>164</sup> (UPV/EHUKo 1985ko estatutuen 243. artikulua).

argitalpengintza eta lan akademikoaren prestaketaren gainean, honakoa zioen: alde batetik ikerkuntzarekin lotutako argitalpengintza urria zela, irakasleen borondatearen esku zegoelako, eta, bestetik, lan akademikoaren prestaketa euskaraz egitea lan bikoitza zela:

“Egoera honen larritasunaz kontura gaitzen, **argi eta garbi esan behar dugu lan akademikoak euskaraz aurkezteak lan bikoitza dakarrela**: terminologi arazoa, idazkari elebidunen eskasia, bi hizkuntzetan aurkezteko “komenigarritasuna”, edo, askoz ere sarriago, “beharra”, dela kausa nahitaezko itzulpenak oztopo bihurtzen dute naturala izan beharko lukeen erabakia. Bestalde, ikerketa-zuzendari erdaldunen arazoa ezin da utzi aipatu gabe, neurri handi batetan beroriek halabehartzen bait dute itzulpena egin beharra, ezagutzen ez dituzten hizkuntzetan idatzitako ikerlanak ezin dituzte zuzendu eta. Honez gainera epaimahai kide batzu, edo denak, erdaldunak izatearen ondorioz, bi hizkuntzetan idatzi eta aurkeztu beharra ere sortzen da.”<sup>165</sup> [beltzak gureak dira]

Hauxe da lehen aldia unibertsitateko idazki ofizial batean aitortzen dela tesi eta bestelako lan akademikoaren euskarazko prestaketak egileari eragiten dion zama, lan bikoitza egin behar duelako. Hala ere, plangintzak esaten zuenez, bai argitalpenen arazoak zein lan akademikoarenak “oraingoz ez dute konponketarik”<sup>166</sup>, plangintzaren hedadura ahalmen mugatuaren erakusgarri.

Edozein kasutan, plangintzak, modu nahiko lasaian zenbait neurriak planteatu zituen. Esate baterako, ikerkuntza proiektuen portzentaje bat ikerkuntza talde euskaldunei emateko komenientzia, baina zehaztu gabe zein portzentajea izan behar zuen. Hala, Inguma datu-basea eta UPV/EHUren dokumentazioa kontsultatuz ez dugu ikusi hazkunde aipagarririk gertatu zenik arlo honetan (ikus V.9. Taula). Egia da, alde batetik, 1991n 3 ikerkuntza proiektu egin zirela euskaraz, baina 1993an berriz, 2 baino ez. Beraz, zorizkoa dirudi euskarazko ikerkuntza proiektuen kopuruak, eta ez bereziki plangintzaren ondorio.

---

<sup>165</sup> (UPV/EHU, 1990: 26)

<sup>166</sup> (UPV/EHU, 1990: 26)

Urtea	Ikerkuntza proiekt. euskaraz
1989	1
1990	1
1991	3
1992	5
1993	2
1994	2

**V.9. Taula:** UPV/EHUren euskarazko ikerkuntza proiektuak lehen hizkuntza plangintzaren ezarpen garaian (1989-1994 urteak). Iturria: Inguma eta UPV/EHUK urtero kaleratuta ikerkuntza proiektuen zerrendak.

Bestalde, argitalpenen arloan plangintzak ikerketa aldizkari bi bermatzeko asmoa agertzen zuen, hau da, 1989tik martxan zeuden *Ekaia* eta *Tantak* aldizkariak ateratzen jarraitzea, eta *Elhuyar* aldizkaria bereganatzea eta dinamizatzea. Ordurako *Elhuyar* ikerkuntzan espezializatutako aldizkaria zen, *Elhuyar Zientzia eta Teknika* dibulgatiboa sortuz geroztik, baina arazoak zituen argitalpenari eusteko<sup>167</sup>.

Lan akademikoak euskaraz ere aurkezten zituenari plangintzak aipatzen zuen “laguntza gehigarria eskainiko litzaioke, buruturiko lan bikoitza ezagutzuz”<sup>168</sup>. Baina ez zen zehazten laguntza zein motatakoa izango zen –dirutan ala bere lanaren itzulpena eginez...–. Halaber, plangintzak terminologia zientifikoko ikerketa lana sustatzea, eta nolabait euskararen inguruko ikerkuntza eta produkzio guztia Euskara Institutuan zentralizatzea proposatzen zuen, baita Euskara Institutuaren gauzatzea ere. Amaitzeko, euskararen ikerkuntza unibertsitatearen lehentasuna bihurtzea proposatzen zuen<sup>169</sup>. Bistan da, plangintzak euskarazko ikerkuntzaren esparruan, hizkuntzari buruzko ikerketari arreta berezia jarri ziola, berriro ere lotuz euskarazko jarduera euskara beraren gaineko lanekin.

<sup>167</sup> Ikus IV. kapituluaren 5.2. *Elhuyar aldizkaria* atala.

<sup>168</sup> (UPV/EHU, 1990: 27)

<sup>169</sup> Plangintzak zehazki honen gainean honakoa zioen: “Euskal Herriko Unibertsitatea, euskararen gainean egin daitezkeen ikerketa linguistikoko, filologiko, literario zein soziolinguistikoen locus-a, alde horretatik, gure Unibertsitatearen ikerket[er]a-gai espezifiko bezala, beharrezko ikusten da, komunitate unibertsitariotik euskararen gainean ikerketa bat proiektatzen denean, laguntza ahalik eta zabalena eskaintzea eta bideratzea. Alde horretatik, euskararen gainean egiten den ikerketa, eta batipat, euskararen gaurkotze edo modernizaziorako bilakaeraren gainean egiten den lana, Euskal Herriko Unibertsitatearen iharduera arlo prioriotzat jotzea proposatzen da.” (UPV/EHU, 1990: 27)

Azkenik, ikerkuntzaren atalean, aurreko ataletan ez bezala, A. Iriondoren plangintzak ez zuen adierazten zeintzuk ziren txostenean aipatutako neurriak martxan jartzeko bitartekoak. Alde horretatik plangintzaren ekarpen handiena ez zen izan, ikerkuntzaren esparruan euskarak egindako aurrerapena, baizik eta lehen aldiz Euskal Herriko unibertsitate batek euskarazko ikerkuntzarako politika bat planteatzen zuela.

### **2.8.2.2. Irakaslegai euskaldunen formakuntza beken bidez**

Euskararen 1990ko plangintzaren testuinguru honetan sortutako beken iraupena oso laburra izan zen. Bizpahiru urtetan baino ez ziren eman, besteak beste, zenbait “kudeaketa” arazo sortu zirelako. Hala, Zientzia Fakultateko Euskara Batzordeak txosten bidez Euskara errektoreordetzari eta Eusko Jaurlaritzari beken esleipenaren gaineko bere kexua helarazi zien. Kexu txostenaren puntu beroenak hiru ziren. Bata beken esleipenari zegokion, batzordearentzat zantzu kezkarriak antzematen zirelako esleipenean:

“Eta ezin dugu sinestu Medikuntza eta Odontologi Fakultateko Biologia Zelularreko Sailak (Errektore Jaunaren Sailak hain zuzen ere), alde aurretik bekadun bat “tokatzearen zori ona” izan zuenak, **bigarren bekaduna**, “gurea” alegia, eskuratzeko bezain besteko **premiarik zuenik, oinarritzko euskal arazoetan bederen**; are gutxiago Sail horretan Medikuntza eta Odontologi Fakultatean **euskaraz ematen den asignatura bakarrerako aurten bi irakasle berri kontratatuak izan diren une honetan**. Dena den, etorkizuneko “irakasle-inbertsiozat” egingo zutelakoaren esperantza ez dugu galdu nahi.”<sup>170</sup> [beltzak gureak dira]

Bigarren kexua zen, bekadunek tutore erdaldunak zituztela eta horrela, bekaren bitartez bekadunak jaso behar zuen jakintza-arlo bateko euskarazko formakuntza berezitua oso zaila zela:

“Benetako **arduradunak euskaldunak izatearen komenientzia** aipatu behar da, honela, bekaduna egiten ari denaren egokitasunari buruzko hurbil-hurbileko informazioa edukitzeko ahalmena ukan dezan, eta ondorioz, etengabeko segizioa egitea posiblea izan dezan.”<sup>171</sup> [beltzak gureak dira]

---

<sup>170</sup> Ikus “Postgraduatu euskaldunentzako formazio-beken 1990.eko deialdiari buruzko Zientzia Fakultateko Euskararako Batzordearen eritzia”, 1990.11.9 (JMTA).

<sup>171</sup> Ikus “Postgraduatu euskaldunentzako formazio-beken 1990.eko deialdiari buruzko Zientzia Fakultateko Euskararako Batzordearen eritzia”, 1990.11.9 (JMTA).

Hirugarren eta azken kexua zen, unibertsitateko departamentuotan bekek zuten gutxiespena edota ikerkuntzako curriculuma abiatzeko erabiltzen zirela<sup>172</sup>. Izan ere, bekaren amaieran beka justifikatzeko nahikoa zen laburpen bat prestatzea, testurik ez zelako eskatzen. Askok bekaren zirrikitu hori aprobetxatu zuten ikerketa egiteko eta ez zuten euskarazko testurik prestatzen. Ikusten denez, bekak sortu eta berehala arazoak zituzten: esleipen arazoak, tutore erdaldunak, eta askotan ikerkuntzarako erabiltzen ziren eta ez testugintzarako. Horregatik guztiagatik, Zientzia Fakultateko Euskara Batzordearen txostenak bekak birbideratzeko arlo bi hauek berrikustea eskatzen zuen:

“- `Urtea bukatzerakoan txosten bat aurkeztu beharko du, buruturiko iharduerak laburbilduko direlarik` esaten da beken baldintzen artean. `Laburpena` eskatzea baino areago, buruturiko lana bera eskatu beharko litzateke.

- Ezagutzen ditugun arduradunetariko batzu erdaldunak dira. Ez al dira izango baldintza hauetan emandako beka batzu (asko) gehien bat ikerlanak egitera (batez ere doktorego-tesiak) dedikatuko den jendea ordaintzeko?. Ez bait da inon agertzen, agerian behintzat, bekadunaren ordutango dedikazio-konpromezua. **Ala, FORMAZIO-BEKAK izenarekin, “euskaraz” formatzea (guk ulertzen dugun interpretazio mugatu eta zehatzean) baino gehiago, besterik gabe “euskara dakitenak” formatzea** (zentzu erabat zabalean) da beken helburua?. Hala balitz, zein da beka hauen benetako berezitasuna?.”<sup>173</sup> [beltzak gureak dira]

Beraz, ikusten denez, bekak, departamentu askotan erdaldunek bereganatu nahi izan zituzten baliabideak izan ziren. Horren adibide da, zenbait departamentuk bekadunen tutore gisa erdaldunak izendatu zituztela, eta bekak euskara zekitenei eman zitzaizkienean, curriculuma egiteko erabili zirela, eta ez euskaraz formatzeko. Beraz, bekaren xedea irakaslegaiari jakintza-arloaren euskarazko formazio berezitua eskaintzea bazen ere, praktikan tutore erdaldunarekin eta testu idatzirik eskatu ezean, helburu hori betetzea ezinezkoa zen. Noski honek guztiak, beka programaren jarraipena mugatuko zuen.

<sup>172</sup> “Sailetan, *inter pares* hitzegitean (badakigu jakin, agintariekin beste hitz-jario desberdina erabiltzen dutela), honako hau bait da eskuarki guk jaso dugun iritzia: “¿Para qué quieres una beca de esas? ¡Si no te sirve para el curriculum!, edo/eta “Que pille la de euskera mientras consigue la del Ministerio (de Educación y Ciencia, jakina)” (Ikus Ikus “Postgraduatu euskaldunentzako formazio-beken 1990.eko deialdiari buruzko Zientzia Fakultateko Euskararako Batzordearen eritzia”, 1990.11.9 (JMTA).

<sup>173</sup> Ikus “Postgraduatu euskaldunentzako formazio-beken 1990.eko deialdiari buruzko Zientzia Fakultateko Euskararako Batzordearen eritzia”, 1990.11.9 (JMTA).

Laburbilduz, unibertsitateak irakaslego euskalduna lortzeko arrakasta desberdina izan zuten bi estrategia ezagutu zituen: batetik, irakasle erdaldunen euskalduntzea, irakaslearen borondatean oinarrituta, eta bestetik euskaldun tituludun berriak irakaskuntzarako prestatzea. Batean eta bestean inbertitutako baliabideak oso desberdinak izan ziren. Irakasle erdaldunei, euskalduntzeko, eskolen liberazioa eta euskara ikasteko ikastaroak ordaintzen zitzaizkien. Euskaldunentzat beka atera ziren. Baina horretan ere ez zen sistematikotasunik egon eta azken 30 urteotan ez da beka programa sistematiko eta kalitatezkorik bermatu. UPV/EHUko irakasleria euskalduntzeko programek berriz, gorabeherak izan dituzten arren, jarraikortasuna izan dute 1982/83. ikasturtetik. Aldiz, beka programak atera ziren bakoitzean, urte gutxiren buruan, “kudeaketa” arazoengatik edota erdaldunen esku geratzen zirelako, bertan behera geratu ziren.

Bukatzeko, eta bi taldeen arteko asimetria erabatekoa zela berriz agertzeko, bada kontu bat ezin dezakeguna aipatu gabe utzi. Unibertsitateak itzelezko diru inbertsioak egin zituen irakasle erdaldunak euskalduntzeko, eskoletatik liberatuz eta ikastaroak ordainduz. Holakoetan onenean, irakasle euskaldun bat irabazten zuen. Euskaldunari berriz beka bat eskaintzen zion, euskarazko irakaskuntzarako oinarritzkoa zen testuliburu edo pareko materialen bat prestatzeko eta bide batez beronen prestakuntzarekin formatu zedin. Euskaldun bekadunari testua idazten laguntzeko Departamentuak tutorea jartzen zion, irakaslegaiaren euskararen alfabetatze zientifikoa bideratzeko eta edukien kalitatea bermatzeko. Baina tutore honi unibertsitateak ez zion aitortza berezirik egiten, ez dirutan, ez curriculumean. Beraz, irakasle euskaldunarentzat tutore izatea bere unibertsitateko ohiko lan zamari eransten zitzaion beste lan bat zen.

Hemen aurkeztu dugun UPV/EHUko Euskararen erabilera normaltzeko plangintza bost urterako zen, baina X. Kintanak zioena (“legerik onenaz ere, bidea oztopoz beterik”<sup>174</sup>) plangintzari aplikatu diezaiokegu. Argi dago, plangintza unibertsitateko euskaltzale desberdinek prestatu zutela Euskara Batzordean borondaterik onenarekin. Batzuk esperientzia bazuten beraien zentroetan euskara sustatzen ibili

---

<sup>174</sup> (Kintana Urriaga, 1994c: 240)

zirelako. Baina oro har ez ziren adituak hizkuntza plangintzetan. Beraz plangintzak ez zuen hausnarketa sakonik. Hala ere, egileek jakin zuten unibertsitatearen euskalduntzeari begira neurri praktiko eta zehatzak finkatzen. Halaber, plangintzak atzean ez zuen proiektu oso sendorik. E. Barberá errektorea ez zen bereziki euskaltzalea, eta alde horretatik euskarari ezin ziezaiokeen proiektu handirik eskaini, nahiz eta arauak finkatutakoa betetzeko prest egon. Hori guztia gutxi balitz, unibertsitateko kideen atal handi baten jarrera negatiboa edo axolagabea zen euskarari zegokionez. Horregatik, plangintzaren sarreran unibertsitario guztiei deialdi bat egiten zitzaien unibertsitatea euskalduntzea guztien ardura zela adieraziz, eta ez soilik euskaldunen arazoa edo Euskara Batzordearena:

“Plangintza honek arrakasta izan nahi du, eta ez huts egin, eta horretarako, unibertsitari guztien kontzientziari zalantza gabeko deialdi zabala egin behar zaio: arauen betetze hutsak –derrigorrezkoa bada ere– ez du Unibertsitatea euskaldunduko, borondate-aitortze eta –aldarrikatze berarizkorik ez badago. Harremanak euskaraz izateko aukera denez Euskararen normalizazio bideetan oinarritzko helburua, Unibertsitateko kargu publikoek Euskara erabiltzeko gai izan beharko lukete (Errektore, Errektoreordeak, Dekanoak, Dekanordeak, Zuzendari, Zuzendariordeak, Sailburuak, Saisetako Idazkariak, etc.)”<sup>175</sup>

Euskalduntze plangintza honek emaitza hobeak lortuko zituen, baldin eta a) hasieratik baliabideak esleituta izan balitu (hori 1991. urtera arte, P. Salaburu errektoreorde izan arte, ez zen gertatu<sup>176</sup>), eta baldin eta b) plangintza amaitu orduko (1994. urtean) bigarren plangintza batekin lotu izan balitz. Baina bigarren plangintza ez zen 1999. urtera arte abiatu.

---

<sup>175</sup> (UPV/EHU, 1990: 5)

<sup>176</sup> Honakoa zioen errektoreorde berria zen Salaburuk 1990ko plangintzaren ganean: “... este plan carecía de consignación presupuestaria y no había sido discutido con el Departamento de Educación. La Memoria de Necesidades de 1991 aprobado por la Junta de Gobierno tampoco tenía en cuenta las necesidades derivadas del plan, por lo que en el presupuesto de 1991 no había ninguna partida específica para el desarrollo de la política lingüística en lo referente a la contratación de nuevo profesorado para impulsar las líneas bilingües. (...) El nuevo equipo rectoral recientemente elegido considera prioritaria una actuación decidida en materia lingüística”. Hala Salaburuk txosten horretan aurkeztu zuen euskara planaren aurrekontua (1.837 miloi pezeta 1992-1995. urte tarterako) (ikus 1991ko abenduan Salaburuk aurkeztutako txostena, JMTA).



### 3. Kultur erakunde eta elkarteak

Aztertzen ari garen 1979-1990 epealdian unibertsitate inguruan, eta bereziki UPV/EHUn, gertatu ziren Komunitate Zientifiko Euskaldunari gehien eragin zizkioten aldaketak –euskarazko irakaskuntza unibertsitarioaren hasiera, euskalduntze planak eta abar–. Horixe aztertu dugu aurreko atal luzean. Konparatiboki, unibertsitatetik kanpo ez zen hain berrikuntza handirik jazo. Hala ere, kultur erakunde eta elkarteek garrantzia izaten segitu zuten Komunitate Zientifiko Euskaldunari dagokionean. Horixe ikusiko dugu atal honetan, nahiz labur izan.

Ez ditugu aztertuko osorik euskaraz funtzionatzen ez zuten Euskal Herriko kultur elkarte eta erakundeak –Aranzadi Zientzia Elkarte, Eusko Ikaskuntza, Geronimo de Uztariz, eta abar–. Izan ere, horrelako elkarteek antolatutako ekitaldi eta argitaratutako lanetan euskarazko hitzaldi eta artikulu batzuk kaleratu arren, aurrerago zehaztuko dugunez, ekoizpen hori oso mugatua izan zen, eta sakabanatua zen heinean nahiko ikusezina. Beraz euskal kultur elkarteak, hau da, euskaraz funtzionatzen zutenak ekarriko ditugu gogora, bereziki orain arte aipatu gabekoak, UEU edo Elhuyar modukoak jada aski aztertuak ditugulako.

Euskal Kultur elkarten artean denak ez ziren berdinak. Jomuga, helburu eta bitarteko desberdinak zituzten, eta batzuren ekimenak gizarte zabalerako ziren moduan, beste batzuk berriz, eragin esparru txikiagoa eta zehatzagoa izan zuten. Adibide bat jartzearren, 1979an sortutako Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) elkartearen asmoa Euskal Herriaren euskalduntzea zen, hain zuzen ere Euskal Herriaren euskaraz bizitzeko<sup>177</sup>. Beraz, euskal gizartearen luze zabalari eragin nahi zion mugimendu honek<sup>178</sup>. Bestalde baziren maila jasoan ari ziren elkarte eta erakundeak, hala nola, Euskaltzaindia, UEU, Elhuyar, UZEI, 70eko hamarkadan edo aurretik sortutakoak, baita 80ko hamarkadan sortutako EIE, EIZIE eta abar. Komunitate Zientifiko Euskalduneari izandako eraginarengatik, guri hemen bigarren hauek interesatzen zaizkigu, euskaldun adituen

---

<sup>177</sup> (Ezkerra & Fernandez, 1995)

<sup>178</sup> Iñaki Arrutik dionez, “esan baikenezake udallerrietako euskararen aldeko mugimendu sozial egituratua 1979. urtean hasten dela EHE taldeekin” (Arruti, 1995: 32). Beraz, EHEk eragin esparru zabala zuen.

bilgune izan zirelako. Hala ere, aipatu behar da, aditu euskaldunek, asko euskaltzaleak izanik, euskararen aldeko taldeetan ere parte hartu zutela, eta batean egoteak ez zuen bestea eskluitzen. Are gehiago, normalean alderantziz zen. Esate baterako *Txillardegia*, Euskaltzaindian, UEUn, UZEIn eta abar ibilita ere, EHEren sortzaileetako bat izan zen eta bertan parte hartu zuen<sup>179</sup>.

Nahiz eta goi mailako irakaskuntzarako esparrua ez izan, helduen euskalduntze alfabetatzean aritu ziren bi erakundeek, AEKk eta HABEk, goi mailako aldizkari bana argitaratu zuten. AEKk, Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordean zuen sorburua: Euskaltzaindiak 70eko bigarren erdialdean euskaltegien arteko koordinazio lana utzi zuenean, orduan sortu zen AEK, Bizkaiko euskaltegien koordinaziorako. AEKk 1986an *Ele* aldizkaria kaleratu zuen, Glotodidaktika, Soziolinguistika, Hizkuntzalaritza eta tankera horretako lanak argitaratzeko. Eusko Jaurlaritzak 1982an helduen euskalduntzea gidatzeko erakunde propio bat sortu zuen, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE). HABEk, sortu eta berehala, 1983an Glotodidaktika aldizkari bat kaleratu zuen, *Zutabe*<sup>180</sup>, hein handiz helduen euskalduntzera dedikatzen ziren irakasleentzat. AEKk berriz, une hartan ikasle eta talde gehien izanik, berak gidatu nahi zuen euskalduntze prozesua, bere metodologiarekin. Ondorioz, eztabaida latzak izan ziren, administrazio publikoaren eta AEKren artean eta tirabirak euskalgintza osora zabaldu ziren<sup>181</sup>.

Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) 1983 inguruan sortu zen, euskararen inguruko elkarten topagune gisa, euskararen normalkuntza sustatzeko. EKBn euskal kulturgintzan ari ziren 15 elkarte, komunikabide eta euskaltegiak parte hartzen zuten. Horien artean baziren goi mailako produkzioa zutenak: Jakin eta UEU. Askotarikoa izanik, EKBren ekinbideak mota eta maila desberdinekoak izan ziren<sup>182</sup>, euskararen aldeko egunak (Euskararen Egunkak), D ereduaren aldeko kanpainak, euskaltegietan matrikulatzeko kanpainak eta abar. *Bat* soziolinguistika aldizkaria ere argitaratu zuen. EKBk 1999an onartu zuen bere desegitea. Ordurako Euskararen Gizarte Kontseilua

<sup>179</sup> (Ormaetxea, 2004)

<sup>180</sup> HABEren *Zutabe* aldizkaria 1994. urtean atera zuen azken zenbakia eta handik bi urtera *Hizpide* atera zuen, aurrekoaren molde berdinarekin baina izena aldatuta.

<sup>181</sup> (Aizpuru, 2003a: 109)

<sup>182</sup> Ikus proiektu eta ekintzabide guztiak EKBri buruzko artikuluan (EKB, 1999)

sortua zegoen, eta hein batez Kontseiluak EKBren lekukoa hartu zuen. *Bat* aldizkariaren ardura berriz, SEI soziolinguistika elkarteak hartu zuen<sup>183</sup>.

### 3.1. Idazleen eta itzultzaileen elkarteak

Soziolinguistikara dedikatzen ziren aditu euskaldunek ikerketarako eta hausnarketarako talaia 2000. urte inguruan antolatu bazuten ere, beste sektore batzuetako euskaldunek, idazleek eta itzultzaileek alegia, 80ko hamarkadan sortu zituzten beraien elkarte profesionalak. Idazleena sortzeko lehenengo saioa euskararen batasunarekin lotutako Ermuko Bileran (1968) izan zen. Jardunaldian idazleek adostutako erabaki agiriaren 2. puntuaren zera jaso zen:

“Euskal idazleen alkarte bat sortu, San Martiñ'ek bere ponentzian azaldu duan bezela. Hori sortzeko batzorde bat autatzen da, sei lagunekoa: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan M. Torrealdai, Xabier Gereño ta Manex Pagola. Hauek, bideak gertutzen dituztenean, dei bat egin beharko diete euskal idazle guztieri batzar orokor batera”<sup>184</sup>

Beraz, lehen saio honetan elkarteak sortzeko ekimena euskararen batasun prozesuarekin lotuta agertzen da. J. M. Torrealdai Ermuko bileraren berri eman zuen *Jakineko* zenbaki horretan bertan esplizituki adierazi zuen idazleen elkarteak hizkuntzaren batasun prozesuarekin bat egin behar zuela<sup>185</sup>. J. San Martinek jasotzen duenez, hurrengo urteetan elkarteak sortzeko beste saio batzuk izan ziren, 1969an eta 1979. urteetan, baina arrakasta gabeak. Azkenean, elkarteak 1982. urtean sortu zen: Euskal Idazleen Elkarteak (EIE)<sup>186</sup>. Elkarteak 1983-1989. urteen artean buletina atera zuen (*Idatz/Hegats buletina*), elkartearen berriekin eta zenbait artikulurekin. Buletina 1989. urtean desagertu zen EIE *Hegats literatur aldizkaria* kaleratzen hasi zenean.

---

<sup>183</sup> SEI gerora Soziolinguistika Klusterrean bihurtu zen eta klusterrak argitaratzen du gaur egun *Bat* aldizkaria.

<sup>184</sup> “Ermua'ko Euskal Idazleen Jardunaldien erabakiak”, *Jakin*, 31/32 (1968), 73. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2009-06-16]

<sup>185</sup> “Alkarte hau, ene ustez, ez litzake, baitipait, idazleen eskubideak defenditzeko. Hortarako ere bai, noski. Halere, uste dut gure euskeraren egoerak hori baiño egikizun ausartagorik eskatzen duela. Idazle guztiok baturik, euskera literarioaren batasunaren alde jokatu behar dugu. Hortarako jaio da Alkarte hau. Hortarako eta idazleok dauzkagun erantzukizunak eta betebeharrak kunplitu ahal izateko” (Torrealdai, 1968: 79)

<sup>186</sup> (San Martin, 1982)

Ikusi dugunez, idazle elkarteak sortzeko lehen saioak, euskararen batasunaren alde jarrita zeuden. Beste idazle eta euskaltzale batzuk berriz, euskararen batasun prozesutik guztiz kanpo kokatutakoek, beraien elkarteak sortu zituzten. Horietako batek goi mailako asmoa zuen, 1986an Tolosan sortutako Euskerazaintza Herri Akademiak hain zuzen ere. Euskerazaintza 1987an erakundearen izena zeraman aldizkaria kaleratzen hasi zen. *Euskerazaintza* euskarazko aldizkari elebakarra izanik ere, erabilitako hizkera eta artikuluen maila herrikoa delako ez dugu ez aldizkaria ezta erakundea ere aintzat hartu lan honetan.

Itzultzaileei dagokionez, berriro ere Juan San Martin euskaltzaina aipatu behar dugu. J. San Martin Jagon Saileko burua zenean, Xabier Mendiguren Bereziarturi eskatu zion Itzultzaile Eskola bat sortzeko txosten bat presta zezala<sup>187</sup>. X. Mendigurenek bere txostena 1980an aurkeztu zuen Euskaltzaindian<sup>188</sup>. Akademiak berehala ontzat eman zuen eta urte berean sortu zen Itzultzaile Eskola<sup>189</sup>. Eskola Donostian kokatuta egon zen eta zuzendaria Josu Zabaleta izan zen. Eskolak 1984an itzulpengintzaren teoria eta pragmatikari buruzko aldizkaria atera zuen: *Senez, Itzulpen aldizkaria*, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak argitaratzen zuen *Quaderns de Traducció i Interpretació* aldizkaria eredu zuela<sup>190</sup>. Beranduago, eta *Senez* aldizkariak ereindako hazitik sortu zen Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE)<sup>191</sup> 1987. urtean. EIZIE sortzean, *Senez* aldizkaria beronen ardura izatera pasa zen.

Idazleak, itzultzaileak, hizkuntzalariak, irakasleak eta oro har euskaltzaleak talde, elkarte eta erakunde independenteetan antolatu ziren 80ko hamarkadan. Ordu arte, Euskaltzaindiak funtzionatu zuen guztien bilgune gisa. Beste modu batera esateko, Euskaltzaindia 80ko hamarkadan, aurreko hamarkadetan Hegoaldeko diktadurarengatik bere gain hartutako hainbat eginkizun, delegatzen edo eskualdatzen hasi zen, erakundearen izaera eta egiteko akademikoa indartuz. Hala, Eusko Jaurlaritzak EGA

<sup>187</sup> (Mendiguren, 1984)

<sup>188</sup> (Mendiguren, 1981)

<sup>189</sup> Eskolaren lehen urteetako ibilbide historikoaz ikus Joseba Urzelai eta Lurdes Auzmendiaren lana (Urzelai & Auzmendi, 1990)

<sup>190</sup> Josu Zabaleta *Senez* aldizkariaren lehen zuzendariari egindako elkarrizketatik (Rey, 2004)

<sup>191</sup> Izan ere *Senez* aldizkariaren 1986 urte hasierako zenbakiak itzultzaileen elkarteak sortzeko gonbita egin zuen eta hortik sortu zen EIZIE. Horixe aipatzen du Josu Zabaletak *Senezi* buruzko elkarrizketan (Rey, 2004)

euskara titulua erregulatu zuenean, EAEn titulu gehiago ez zituen eman, UEU babesteari utzi zion, euskaltegiak koordinatzeko ardura utzi zuen eta horren ondorioz AEK sortu zen, talde euskaltzaleek beraien ekimenak koordinatzeko EKB sortu zuten –eta ez zuten jo aurreko hamarkadetan bezala, Euskaltzaindira–, eta abar. Beraz, nahiz eta 80ko hamarkadaren hasieran euskal kulturgintzak bakardade politikoa bizi<sup>192</sup> eta Eusko Jaurlaritzak baliabide gehiegi ez eskaini, testuinguru politiko berrian esparruka, proiektuka, lanbideka antolatzen hasi zen. Horrek eragin zuzen zuzena izan zuen goi mailako produkzioan, bai liburu zein aldizkarietan, eta azpiegituren aldetik izugarritzko aldea ekarri zuen aurreko hamarkadekin alderatuta. Euskarazko goi mailako komunikaziorako zirkuitua zabaldu zen, eta aurreko hamarkadetan UEU, Elhuyar eta abarren inguruan sortutakoa finkatu.

## 4. Biltzarrak eta udako ikastaroak

Atal honetan kultur erakundeek, euskaldunek zein besteek, antolatutako ekitaldi nagusiak aztertuko ditugu, hau da, Euskaltzaindiaren biltzarrak, Eusko Ikaskuntzaren kongresuak, UEUren Udako Ikastaroak, Miramarreko Uda Ikastaroak eta abar. Hala ere, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren formazioaren ikuspuntutik, gertaerarik garrantzitsuena zera izan zen, lehen aldiz, 80ko hamarkadan abiatu zirela jakintza-arlo zehatz bateko aditu euskaldunen bilkurak.

### 4.1. Aditu euskaldunen bilkurak

Hala, lehenak biltzen kimikari euskaldunak izan ziren (*Euskal kimikari ikerlarien 1. bilera*) UEUren 1985eko Iruñeko Udako Ikastaroetan. Bilera egun batekoa izan zen, 30 hizlari egon ziren, 25-30 bat entzule eta 16 komunikazio irakurri ziren. Esperientzia oso positiboa izan zela aipatu zuten Kimika Saileko kideek. Bileran aurkeztutako lanak gerora *Elhuyar* aldizkarian 1986an argitaratu ziren<sup>193</sup>, guztira 15 txosten. Kimikarien bigarren bilera, berriro ere, hurrengo urteko Iruñeko Udako Ikastaroen barruan antolatu zen egun bateko jardunaldia izan zen, eta ondoren bertako

---

<sup>192</sup> (Aizpuru, 2003a: 150-152)

<sup>193</sup> Ikus *Elhuyar*, 46 (1986) <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-46.pdf> [kontsulta data: 2009-06-16]

txostenak *Elhuyar*ren argitaratu ziren<sup>194</sup>. Hirugarren bilera berriz, ez zen 1987an egin, UEUko Iruñeko 1989ko Udako Ikastaroetan baizik eta aste osokoa izan zen<sup>195</sup>. Laugarren bilera, eta azkena, UPV/EHUko Donostiako Kimika Fakultatean egin zen eta txostenak *Elhuyar*ren argitaratu.

Guztira kimikari euskaldunek lau bilera egin zituzten 1985-1992. urteen artean<sup>196</sup>. Laugarren bileren atariko testuan aipatzen zen bilerak euskarazko ikerkuntza aitzineratzeko helburua zutela:

“Euskal Kimikarien IV. Bileran aurkeztutako ikerketa-lanak dira hemen argitaratzen diren artikuluak. Donostiako Kimika Fakultatean ospatu zen bilera hura askok dute oraindik gogoan. Izan ere, **euskara ikerketa zientifikoko eremura ekartzeko egiten ari diren ekinaldien fruituaren adibide gardena izan baitzen**. Irakurleak baieztatuko du lan honetan kalitatea eta euskara zein ondo uztartzen diren. Izan ere, aipatzekoa da **lan hauen zati handi bat nazioarteko zenbait aldizkari zientifikotan argitaratu izana**, horrela “euskaraz egin eta gero ingelesera itzultzea” aukera bat dela frogatuz. Horrek euskaraz egindako ikerketa-lanei mesede handia egingo dio, gure herriak sortutakoa besteetan zabalduz geurearen iraupena eta garapena ziurtatzen dugu eta.”<sup>197</sup> [beltzak gureak dira]

Fisikariak izan ziren halako jardunaldiak antolatu zituzten hurrengoak. Kasu honetan fisikariek UEUko Udako Ikastaroen barnean antolatu zuten topaketa 1991. urtean. Bertan aurkeztutako hitzaldien txostenak berriz, *Elhuyar* aldizkarian argitaratu ziren. F. Plazaolak aipatzen duenez, 30 bat zientzialari bildu ziren topaketan<sup>198</sup>.

Kimika eta Fisika arloko esperientzia hauen ostean, 90eko hamarkadan beste jakintza-arlo batzuetara zabaldu ziren kongresu berezitu eta elebakarrak. 1996. urtetik aurrera eta gaur egunera arte egin diren aditu euskaldunen bilkuren artean aipa daitezke informatikari euskaldunenak (1996. urtetik), musika irakasle euskaldunenak (1999tik), psikologo euskaldunenak (1999)<sup>199</sup> eta historialari euskaldunenak (2000tik).

<sup>194</sup> Ikus *Elhuyar*, 47 (1987) <http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-47.pdf> [kontsulta data: 2009-06-16]

<sup>195</sup> (Gartzia, 1994: 315)

<sup>196</sup> Hirugarren bileraren gainean ez dugu informaziorik aurkitu, baina laugarren bilerako txostena *Elhuyar* aldizkarian argitaratu ziren (ikus *Elhuyar*, 55 (1992) [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf) [kontsulta data: 2009-06-16]). Gerta liteke bilera gehiago ere egin izana.

<sup>197</sup> J. M. Ugalde “Sarrera” *Elhuyar*, 55 (1992) 105. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf) [kontsulta data: 2009-06-16]

<sup>198</sup> (Plazaola, 1992)

<sup>199</sup> Musika irakasle euskaldunak eta psikologo euskaldunak, gure datuen arabera, behin baino ez dira bildu.

Molde berriko jardunaldi eta bilkura hauetaz gain, baziren tradizio luzeagoa zuten euskarazko beste biltzar batzuk ere, Euskaltzaindiaren biltzarrak hain zuzen ere. Euskaltzaindiak 1956. urtean Arantzazun antolatutako lehen biltzarretik 1968ko Arantzazuko Biltzarrera arte egin zituenei *Euskaltzaleen biltzarrak* deitu zien. Horien ostean antolatukoak *Euskaltzaleen biltzar* izateari utzi zioten, nahiz eta biltzarren zenbakitzeak etenik gabe jarraitu zuen. Hala 1978an Bergaran Euskaltzaindiaren 9. biltzarra antolatu zen, K. Eleizalderen omenez. Bertan 1968ko Arantzazuko Biltzarrean hizkuntzaren batasunerako onartutako erabakiak berretsi ziren. Hurrengo urtean, Arrasaten 10.a antolatu zen, S. Altuberen omenez, eta euskararen Hizkuntzalaritzari buruzkoa izan zen. Bertara atzerritar hizkuntzalari bat hurbildu zen: Rudolf de Rijk. Iruñeko 1984ko biltzarra ere Arrasatekoaren ildokoa izan zen, hau da, Hizkuntzalaritzari buruzkoa, eta nazioarteko euskalariak erakarri zituen (Zytsar, Sturua, Tamura, Trask, Rebuschi eta Brettschneider). Batzuk ingelesez aritu ziren, besteren bat frantsesez, eta izan zen euskaraz aritu zen atzerritarrik ere. Ordurako Euskaltzaindia nazioarteko euskalariekin harremanetan jarrita zegoen, 1981. urtean Gernikan antolatutako *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiaren* bitartez. Gernikara hurbildu zirenetako askok ondoko urteetan Euskaltzaindiak antolatutako biltzarretan parte hartu zuen. Hortaz, Euskaltzaindiaren biltzarretako hitzaldiak nagusiki euskaraz izan arren, beste hizkuntza batzuei ere toki egin zitzaaien, nazioarteko adituen eskutik.

Euskaltzaindiak Bilbon 1991an antolatutako Dialektologiari buruzko biltzarrean 1984. urtean baino nazioarteko euskalari gehiagok parte hartu zuen. Bilbokoa izan zen Euskaltzaindiaren lehen biltzarra *Euskera* buletinetik kanpo argitaratu zena, eta Euskaltzaindiaren Iker bilduman kaleratu zena. Hurrengo biltzarra Maule eta Donapaleu artean burutu zen (1992an), Oihenarten laugarren mendeurrena ospatzeko, eta berau izan zen lehen aldia akademiak bere biltzar bat Iparraldean antolatzen zuena.

Azkenik aipatuko dugun biltzarra UPV/EHUko Leioako ikasgunean burutu zen (1994) eta Euskaltzaindiaren 75. urteurrena ospatu nahi zuen. Leioakoa oso garrantzitsua izan zen euskararen batasun prozesua berrindartzeko. Ordura arteko biltzarretan, Xabier Kintanaren ustez, Euskaltzaindia hizkuntzaren ikerkuntza

aseptikoetan murgilduta egon zen, “nazioarteko euskalariak elkartu eta horien bidez gure jendeen –eta agintarien– aurrean hizkuntza eta akademia prestigioz agertu” nahian, baina euskararen premiei erantzun gabe<sup>200</sup>. Leioako biltzarra arrakastatsua izan zen, oro har aurkeztutako txostenak onartu zirelako eta 354 pertsona bildu zituelako<sup>201</sup>.

Eusko Ikaskuntza 1978an berrantolatu zen J. M. Barandiaran buru zela. 1983. urtetik aurrera Eusko Ikaskuntzen kongresuak antolatzeari ekin zion. Kongresuetako konferentziak eta komunikazioak Eusko Ikaskuntzak argitaratuta ditu. Hala, 1983-2001. urteetako kongresuetan euskaraz argitaratutako lanak % 16,4 izan dira<sup>202</sup>. Ikusten denez, euskaldunek euskaraz mintzatzeko aukera izan arren, kongresuen hizkuntza nagusia erdara izan da.

Bestelako kultur elkarten biltzarrik ere izan zen baina euskararen presentzia oso txikia izan zenez, ez ditugu aipatuko –adb. Nafarroako historialarien Geronimo Uztariz elkarteak Nafarroako historiaren inguruan antolatutako kongresuak–.

## **4.2. Udako ikastaroak**

Bi erakundek antolatu zituzten euskarazko hitzaldiak eta ikastaroak zituzten udako ekitaldiak: UEUK eta UPV/EHUK. Aurreko kapituluan aipatu dugunez, UEU 1973. urtean euskara hutsezko Udako Ikastaroak antolatzen hasi zen. Aztertzen ari garen garaian, hau da, 1979-1990. urteen artean UEUK, batz bestea Udako Ikastaroetan urtero 20 ikastarotik gora eta 100 hitzalditik gora eskaintzen zituen<sup>203</sup>. UPV/EHUKo Uda Ikastaroak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez sortu ziren, Donostia hiria ezagutarazteko asmoz. Lehen saioa 1982an antolatu zen, eta 1982-1990 urteen artean UPV/EHUK Donostian euskaraz urtero 2-3 ikastaro eta 20 bat hitzaldi eskaini zituen. Hala ere hasierako urteetan euskarazko eskaintza ezdeusa zen. Esate baterako 1982. urtean hitzaldi bakarra eskaini zen euskaraz, 1983an berriz, erdaraz emandako 140

---

<sup>200</sup> (Kintana Urriaga, 1994b: 71)

<sup>201</sup> Biltzarraren gaineko detaile gehiago eskaintzen dituzte Patxi Uribarrenek (1994) eta Xabier Kintanak (1994b)

<sup>202</sup> 1983-2001. urteen artean 7 kongresu antolatu zituen Eusko Ikaskuntzak, eta kongresuetako liburu argitalpenetan 578 lan argitaratu ziren. Inguma datu-basearen arabera, euskaraz 95 lan kaleratu ziren.

<sup>203</sup> 1980, 1981 eta 1983. urteetan izan ezik, urte horietako Udako Ikastaroetan eskaintza txikia izan zuelako.



hitzaldiren aurrean 3 baino ez ziren euskaraz izan. Elhuyar Taldean zein UEUn ibilitako Luis Mari Bandresek 1984. urtean UPV/EHUko Uda Ikastaroen zuzendaritza hartzean, baldintza gisa jarri zuen ikastaroen % 25a euskaraz egotea. Hala, 1984ko 20 ikastaroetatik 4 euskaraz eman ziren. Euskaraz emandako ikastaroak batik bat euskal hizkuntzarekin zerikusia izan zuten: *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, *Euskal testuak eta hiztegitza*, eta *Euskara ikasteko metodoak*. L. M. Bandresek urte horretan bertan *Argian* argitaratutako elkarrizketa batean zehazten zituen hizkuntzari dagokionez udako ikastaro bien arteko desberdintasunak zeintzuk ziren: UEUren helburua hizkuntza zen, euskara, hizkuntza gaitzea hizkuntza modernoa izan zedin eta UPV/EHUrena berriz, hizkuntza tresna bat zela zioen, eta gaia lantzea zela garrantzitsuena<sup>204</sup>. Kontua da, alderantziz ere esan daitekeela, hau da, Donostiakoetan gaiak berak markatzen zuela hizkuntza, eta horregatik euskarazko hitzaldiak euskarari buruzkoa zirela, halako ghetifikazioa fenomeno bat eraginez, eta aldiz UEUkoetan hizkuntza ez zela edozein gai lantzeko oztopo.

Ondoko urteetan UPV/EHUK euskarazko ikastaroen kopurua laupabostean mantendu du, baina ez erdarazkoekiko % 25eko proportzian, baizik eta horren azpitik kokatu da beti.

Egia esan, UPV/EHUK Donostian bere Uda Ikastaroak antolatzeak UEU eta UPV/EHUren arteko harremana gaiztotu zuen. Izan ere 1981. urtetik, UEU, UPV/EHU integratzeko aukerak aztertzen ari zen. 1983. urtean UEU instituzionalizatzeko bide gisa planteatu zen UEUK UPV/EHUren euskarazko udako ikastaroen antolatzailea izatea, hau da, “UEUK Donostiako udako ikastaroen lerro euskalduna”<sup>205</sup> prestatzea. UEUK horretarako baldintza batzuk jarri zituen, baina errektorearen ezezkoa jaso zuen<sup>206</sup>. Instituzionalizatzeak edo unibertsitatearekin batera aritzeko saioek porrot egin eta gero, testuinguru eta garai berrietara egokitzeko UEUK Aralarren batzar bat antolatu zuen bere burua birdefinitzeko, UEUren koordenadak jadanik ez baitziren 70eko

---

<sup>204</sup> L. M. Bandres: “Uste baino arrakasta handiagoa izan dugu” *Argia*, 1026 (1984)

<sup>205</sup> (Aizpuru, 2003a: 180-181)

<sup>206</sup> Negoziaketa, baldintzak eta gertaerak Mikel Aizpurren lanean (2003a: 180-187)

hamarkadakoak. Bertan erabaki zuen UEUK, beste unibertsitate eta erakundeekiko bide propio eta autonomoa jarraitzea<sup>207</sup>.

## 5. Aldizkariak

80ko hamarkadan, Hegoaldean 1936ko gerratik ezagutu ez zen egonkortze politikoaren babespean, arestian aipatu dugunez, hainbat erakunde, elkarte edo enpresa (kultural) berri sortu ziren. Horietako askok aldizkari edo liburuak argitaratzeari ekin zioten. Ondorioz euskarazko produkzio jasoak ordura arte bizi gabeko hazkundera izan zuen. Inguma datu-basearen arabera, 1979-1990 urte tartean euskarazko lanak argitaratzen zituzten 25 argitaletxe eta 62 aldizkari egon ziren. Argitaletxeek maila jasoko 367 liburu eta itzulpen argitaratu zituzten. Aldizkariak berriz, 2.901 dokumentu, (2.485 artikulua, 390 liburu aipamen eta 26 itzulpen-artikulua). Horiek guztiak aztertzea, orain arte aztertu ditugun eran, hau da, ia banan banan, ezinezkoa da jadanik. Horregatik guztiatik zertzelada loditan, baina azterketa bibliometrikoaren atari gisa, garai honetako aldizkari eta argitaletxeen zenbait ezaugarri aipatuko ditugu.

Gure datuen arabera, 32 erakundek 62 aldizkari plazaratu zituzten. Aldizkari horietako batzuk, gaur egun hilda daude<sup>208</sup>. Beraz, garai honetan aldizkari asko ditugu, erakunde argitaratzaile ugari, eta proiektu bakoitzaren sorrera, bilakaera, jarraipena edota desagertzea esplikatzeak luzeegi joko luke. Azterketa bibliometrikoetan sartu gabe garai honetako aldizkariak eta beraien erakunde argitaratzaileak deskribatzen ahaleginduko gara. Ondoren liburuak aztertuko ditugu.

### 5.1. Euskarazko aldizkariak eztanda

Garai honetan goi mailako euskarazko 17 aldizkari zeuden (hau da, euskaraz elebakar zirenak). Multzo gisa beraien ezaugarri nagusiak hiru ziren: alde batetik

<sup>207</sup> (Aizpuru, 2003a: 193)

<sup>208</sup> Gaur egun hilda edo erdi desagertuta dauden aldizkariak honako hauek dira: *Ele, Larrun, Kobie: etnografia, Kobie: ciencias naturales, Muga, Formula, Idatz/Hegats (buletina), Galeuzka, Elhuyar aldizkaria, Zutabe, Langaiak, Vianako Printzea. Zientzia eranskina, Saioak eta Ernaroa.*

erakunde argitaratzaileak euskal kulturgintzakoak zirela<sup>209</sup>, lau kasutan izan ezik (Argia, HABE, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea); bestetik, euskarazko 17 aldizkari horietan metatu zela 80ko hamarkadan aldizkarietan kaleratutako euskarazko produkzio gehiena (hau da, % 81a); eta hirugarren eta azkenik aldizkariak Euskara Batuan idatzita zeudela<sup>210</sup> (pixka bat urruntzen den bakarra *Karmel* aldizkaria da<sup>211</sup>).

Erakunde argitaratzailea	Aldizkaria	Sorrera urtea	Dok. kop. (1979-1990)
Jakinkizunak	Jakin	1956	392
Euskaltzaindia	Euskera	1956	341
Elhuyar Kultur Elkarte	Elhuyar aldizkaria	1974	340
Karmeldarrak	Karmel	1970 (1931) <sup>212</sup>	286
HABE	Zutabe	1983	278
RSBAP	Egan	1953 (1948) <sup>213</sup>	179
EIZIE (aurretik, Martuteneko Itzultzaile Eskola) <sup>214</sup>	Senez	1984	160
Argia	Larrun	1985	105
Labayru	Idatz & Mintz	1983	57
AEK	Ele	1986	52
UD/DU	Enseiukarreen	1986	36
UPV/EHU	Tantak	1989	33
EIE	Hegats	1989	32
UPV/EHU	Ekaia	1989	22
Soziolinguistika Klusterra (aurretik, EKB eta SEI)	Bat	1990	15
EIE	Idatz/Hegats (buletina)	1983	14
UEU	Uztaro	1990	8
Guztira			2.350

V.10. Taula: Euskarazko aldizkarien erakunde argitaratzailea eta produkzioa 1979-1990 artean. Iturria: Inguma datu-basea eta elaborazio propioa.

<sup>209</sup> Hein batez baieztapen honekin eman dezake euskal kulturgintzako erakundetatik sortutako aldizkari guztiak euskaraz elebakarrak zirela, baina orokorrean horrela izan bazen ere, erakunde argitaratzaile batzuk erdaraz ere kaleratutako aldizkariak plazaratu zituzten (adb. Labayruk *Euskeraren Iker Atalak* sortu zuen).

<sup>210</sup> Beraz, multzo honetatik kanpo utzi dugu Euskerazaintza Erri Akademiak 1987. urtetik argitaratutako *Euskerazaintza* aldizkaria. Hala ere, aldizkariari aitortu nahi diogu saiakera bat egin zuela mendebaldeko euskara moldean jakintza eta kulturari buruzko artikulua eskaintzeko. Horretan gehien nabarmendu zena Andoni Urrestarazu izan zen. A. Urrestarazuk goi jakintzari buruz idatzi zuen, 50ko hamarkadan *Orixek Euzko Gogoan* landutako ildoan.

<sup>211</sup> *Karmel* aldizkariak Bergarako Bilera baino lehen, beste euskal komunikabide batzuekin batera, batasuna lortzeko euskara herrikoiaren alde, edo beste modu batera esanda, euskalkien alde egin zuen: Gainera *Karmel* aldizkariaren zuzendariak izandako bi kide (S. Onaindia eta L. Akesolo) Euskerazaintza Erri Akademiaren kide izan ziren, L. Akesolo gainera bertako lehendakaria izan zen. Hala ere gaur egun *Karmel* aldizkarian Loberak esaten duen moduan “gaur egun idazkera guztiak daukie euren tokia guztionan dan “KARMEL” honetan” (Lobera eta beste, 1994a: 41).

<sup>212</sup> *Karmel* aldizkaria gerraurtean sortu zen. Aldizkaria hiru aro izan ditu, 1970. urtean abiatzen hirugarren eta azken aroa.

<sup>213</sup> *Egan* aldizkaria 1948an sortu zen, eta 1953. urtean euskarazko aldizkari elebakarra bihurtu zen.

<sup>214</sup> *Senez* aldizkaria Martuteneko Itzultzaile Eskolan sortu zuen baina, aldizkariaren lehen zuzendaria izandako Josu Zabaletaren arabera, 1987an “EIZIE sortu zenean, garbi ikusi zen EIZIE zela Senez aldizkariari bere izatez zegokion lekua” (Rey, 2004)

Euskarazko aldizkarien artean bi motatako aldizkariak bereiz daitezke: alde batetik aurreko hamarkadetan sortutako 5 proiektuak –*Jakin*, *Euskera*, *Elhuyar* aldizkaria, *Karmel* eta *Egan*–, euskaraz dokumentu gehien argitaratzen dituzten aldizkariak direnak; bestetik, hamarkadan bertan sortutako 12 aldizkariak. Beraz, nolabait euskarazko aldizkarien eztanda bat izan zen 1980-1990 artean. Izan ere, hurrengo hamarkadan (1990etik aurrera) euskarazko beste 3 aldizkari soilik sortu ziren: *Euskalingua*, *Gogoa* eta *Eleria*<sup>215</sup>.

80ko hamarkadan euskaraz maila jasoan ekoitzi zuten 62 aldizkarien artean euskarazko dokumentu gehien kaleratu zuena *Jakin* izan zen; ondoren Euskaltzaindiaren *Euskera* buletina<sup>216</sup>, Elhuyar Kultur Taldearen *Elhuyar* aldizkaria, Karmeldarren *Karmel* eta abar. Beraien guztien ezaugarri komunak bi dira: batetik ez daudela jakintza-arlo batean espezializatuak, eta jorratutako gaien aldetik jakintza-arlo desberdinetako artikulak kaleratzen dituztela; eta bestetik, aurreko hamarkadetan sortutako aldizkari hauek direla euskarazko produkzio jasoan, eta perspektiba kuantitatibotik ikusita, erabateko garrantzia dutenak. Orokorrean, aldizkari horien atzean plataforma intelektual sendoa zegoen, hala nola, *Jakin* taldea, hizkuntzaren Akademia, Elhuyar Kultur Elkargoa eta abar. *Jakinen* erreferentzialtasuna ez zen soilik produkzioaren aldetik. Izan ere, *Jakinek* 1981. urtean 2300 harpidedun zituen<sup>217</sup>.

Hamarkadaren erdialdean izaera eta garrantzi desberdineko beste sei aldizkari sortu ziren. 80ko hamarkadan sortutako lehen aldizkari hauek euskaraz argitaratzeaz gainera, hizkuntzarekin oso lotuta zeuden: Literaturarekin (*Idatz & Mintz*, *Hegats*, *Enseiukarrean*), Itzulpengintzarekin (*Senex*), Glotodidaktikarekin (*Zutabe* eta *Ele*). Ikusten denez, hizkuntzaren inguruan posible zen euskarazko aldizkari espezializatuen sorrera, eta aldizkariak ziren hizkuntzaren inguruan sortzen ari zen ehunduraren erakusgarri.

<sup>215</sup> *Hizpide* ez dugu aldizkari berritaz hartzen, *Zutabe* sortu eta bi urtera ordeztu zuelako. Horren adibide da *Hizpideren* lehen zenbakia 37.a zela, hau da, *Zutabe* aldizkariaren azken zenbakiaren hurrengoa.

<sup>216</sup> *Euskera* buletina hobetzeko neurri batzuk hartu zituen Euskaltzaindiak garai honetan. Izan ere Euskaltzaindiko barruko batzorde batzuren materialaren argitalpenak buletinean desorekarik sor ez zezan, buletinetik kanpo argitaratzea erabaki. LEB taldearen lana esate baterako aparte publikatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak (Villasante, 1988). Erabaki hori hartu izan ez balu akademiak, *Euskera Jakinen* gainetik kokatuko zen.

<sup>217</sup> Ikus “2.300 harpidedun” *Jakin*, 21 (1981), 253-257. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin81\\_21/Jakin81\\_21.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin81_21/Jakin81_21.html) [kontsulta data: 2009-06-17]

Hirugarren eta azkenik, hamarkadaren amaieran, 1989-1990. urteetan, bost aldizkari berri sortu ziren, ondoko garaiaren iragarle zirenak, eta artean lehenengo zenbakia edo zenbakiak atera zituztelako, inongo garrantzi kuantitatiborik ez zutenak. Kasu honetan aldizkari gehienak ez ziren hizkuntzari buruzkoak, bestelako jakintzarloei buruzkoak baizik: Hezkuntza (*Tantak*), Zientzia eta Teknologia (*Ekaia*) eta Giza eta Gizarte Zientziak (*Uztaro*). Hala ere, aurreko urteetan sortutako aldizkarien antzera, hizkuntzari buruzko euskarazko aldizkari berriak ere kaleratu ziren, hala nola, *Bat* eta *Hegats*. Lehen EKB eta SEIk ekoitzia Soziolinguistika arlokoa eta bigarrena Literaturakoa, EIErena.

Orain artekoa ikusita, baieztatu daiteke erakunde argitaratzailea zenbat eta espezializatuagoa izan, aldizkaria orduan eta espezializatuagoa zela. Euskal kulturgintzan ondoen antolatutako eta espezializatutako sektore profesionala hizkuntzarena zenez, idazleak, irakasleak, itzultzaileak eta soziolinguistak bertan ari zirelako, bertan sortu ziren aldizkaririk espezializatuenak.

Hamarkada honetako beste ezaugarri garrantzitsu bat da, orain sortu zirela euskarazko lehen aldizkariak. Hala ere, funtsean unibertsitate proiektu bakoitzaren atzean egon ziren pertsonak euskal kulturgintzako kideak edo taldeak ziren. Unibertsitateek alde horretatik, finantzatu egin zituzten. Beraz, unibertsitateek inprimatutako aldizkariak bertan ari ziren euskaltzaleek sustatuko proiektuak ziren, eta ez dinamika instituzionaletik sortuak.

Deustuko Unibertsitatearen *Enseiukarrean*<sup>218</sup>, Euskal Kultur Mintegiaren (EKM) itzalpean sortu zen 1986. Proiektua berez, 1985/86. ikasturtean prestatu zuten unibertsitateko ikasleek. Beraien asmoa zen unibertsitateak aldizkaria bere gain hartzea eta

---

<sup>218</sup> Aldizkariaren izena Axularren *Gero*-tik atera zen. Axularrek liburuaren hasiera irakurleari zuzentzen zaio lana "enseiucarrean" egin dela aitortuz (Otaegi, 2005: 68). Aldizkariaren jatorrizko izenak Axularren ortografia errespetatzen du, baina guk gaurko grafiarekin aipatuko dugu, alegia *Enseiukarrean*.

“bigarrena, helburua honako hau izango zuela, alegia, **“euskararen kultura” gaindituz, benetako euskal kultura lantzea**, Unibertsitate mailako jakintzabide guztiak jorratuz (literatura, antropologia, filosofia, teologia, psikologia, soziologia,...) eta Deustuko Unibertsitateko ikasle nahiz irakasleak parte hartzera deituz.”<sup>219</sup> [beltzak gureak dira]

Hasierako asmoa orotariko jakintza-arloetara zabaldutako aldizkari bat sortzea zen, baina azkenean Hizkuntzalaritza eta Literatura nagusi izan ziren. Lehen hiru urteetan unibertsitateko 6 ikasle aurrera atera zuten aldizkaria. Ikasleak joan zirenean, unibertsitateak erabaki zuen aldizkaria ikasleen belaunaldien menpe ez egoteko, unibertsitateko argitalpen zerbitzuak bere gain hartzea (1990). Aldizkariaren zuzendaria izandako J. Otaegiren ustez, bigarren epealdi horretan aldizkariaren proiektua sendotu egin zen.

UPV/EHUren Euskara errektoreordetzak berriz, euskarazko bi aldizkari proiektuen sorrera sustatu zuen: *Ekaia* eta *Tantak*. Lehen, Zientzia eta Teknologia arloko gaiak lantzeko eta bestea, Hezkuntza eta Pedagogia arlokoak. Biek atera zuten lehen zenbakia 1989an urtean eta gaur egunera arte iraun dute. Biak ala biak UPV/EHUko lehen euskara errektoreordeak, J. Iturbek kudeatu zituen, eta ondoren A. Iriondok unibertsitatearen euskara erabilera normaltzeko lehen plangintzan txertatu zituen.

*Ekaiak* zientziaren euskarazko dibulgazioaren esparruan hutsune bat bete nahi zuen. Izan ere, *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariak dibulgazio orokorra egiten zuen eta *Elhuyar aldizkaria* (edo *Elhuyar txikia*) ikerketara bideratuta zegoen. Beraz, *Ekaia* goi dibulgazioa euskaraz egiteko sortu zen.

“... irakaskuntzari atxekitako aldizkari honek jadanik argitaratzen den inolako euskal aldizkariren konkurrentziarik ez luke izango, izan ere ikerketa-lanak eta bidulgazio-lanak euskaraz argitaratzen dituzten aldizkariak egon arren, unibertsital irakaskuntzaren eremua estaltzen duen aldizkaririk ez bait dago”<sup>220</sup>

<sup>219</sup> (Otaegi, 1995: 65-66)

<sup>220</sup> “Zientzia eta Tekniketako aldizkariaren aurreproiektua”, ca. 1989 (JMTA).

Hortaz, *Ekaia* unibertsitateko irakaskuntzarekin estuki lotuta sortu zen, bai irakasleen materialei bide bat eskaintzeko, zein ikasleei material osagarriak eskaintzeko. *Ekaia* aldizkaria Zientzia Fakultateko irakasleek babestu eta eutsi zuten. Izan ere, bertako zuzendari izan dira, besteak beste, Euskara Batzordeko kide eta Bultza!koa izandako Joserra Aihartza edota Euskara Zientifikoko irakaslea izandako Kepa Altonaga. Horregatik aldizkariak Zientzi eta Teknologia arloei buruzko lanak argitaratzeaz gainera, euskara zientifikoaren esparrukoak ere kaleratu izan ditu.

Ingurumari honetan 1990 urtean UEUK *Uztaro Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria* sortu zuen Udako Ikastaroetako hitzaldien testu idatziak argitaratzeko<sup>221</sup>. *Uztarok* Giza eta Gizarte Zientzien esparruan zegoen hutsunea betetzen zuen. Zientzietan *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, *Ekaia* eta *Elhuyar* aldizkariak zeuden. Hezkuntza eta Didaktikaren esparruan HABEren *Zutabe*, AEKren *Ele* eta UPV/EHUren *Tantak*. Literaturaren esparruan RSBAPen, Euskal Idazleen Elkartearen (EIE), Labayruren eta Deustuko Unibertsitatearen aldizkariak zeuden –*Egan*, *Idatz/Hegats (buletina)*, *Hegats*, *Idatz & Mintz* eta *Enseiukarreen*–. Hizkuntzalaritza arloko lanak Euskaltzaindiaren *Euskeran* atera zitezkeen. Beraz, Zientzia eta Teknologia, Hezkuntza eta Didaktika, Literatura eta Hizkuntzalaritzarako aldizkariak baziren<sup>222</sup>. Baina ez Ekonomia, Politika, Soziologia, Psikologia, Historia eta antzeko jakintza-arloentzako plaza bereziturik.

“... gure aldizkarian, orain beretik, antzerkilaritza, musikologia, bertsolaritza, ekonomia, filosofia, historia, kazetaritza, pedagogia, psikologia, soziologia, zuzenbidea, hizkuntzalaritza elkarrekin gurutzatuko direla. Eta itxaropenik badugu gaurkoz presentzia tipiagoa edo hutsa duten beste giza eta gizare-jakintzen sail batzuek ere eginkizun berera laster sumatuko direla. Gonbidapena egina dago! Euskara lanabes izanik landutako giza eta gizarte-jakintzak aro uztatsuan sar daitezela!”<sup>223</sup>

---

<sup>221</sup> Aldizkariaren aurrekari zuzena *Historia eta Gizarte Zientzien Urtekaria* izan zen. Urtekariak 3 zenbaki ezagutu zituen, azkena 1990. urtean kaleratu zen.

<sup>222</sup> Hala ere argitu behar da, hizkuntzalaritza arloko lanak normalean ez zirela aldizkari elebakarretan argitaratzen, beste hauetan baizik: ASJU, *Euskeraren Iker Atalak*, *Fontes Linguae Vasconum* eta *Oihenarten*.

<sup>223</sup> (Apalategi, 1990: 5)

*Uztaro* beraz, Giza eta Gizarte Zientzien arlorako erreferentziazko aldizkaria izateko sortu zen. Aldizkariak zuzendari bakarra izan du: Jokin Apalategi, UPV/EHUko irakaslea eta alde zuzenetik *Branka*, *Zabal* eta *Zehatz* aldizkarietan ibilitakoa.

## **5.2. Aldizkari eleanitzak**

Euskarazko lanak erdarazkoekin batera argitaratzen zituzten aldizkariak aztertuko ditugu segidan. Izan ere, Euskal Herrian halako hizkuntza ereduan argitaratutako aldizkariak gehiengoa osatzen zuten, nahiz eta dagokigun garaian euskarazko produkzio osoaren laurdena baino gutxiago kaleratu zuten.

Gure datuen arabera 22 erakunde eta elkartek argitaratu zituzten 1979-1990. urte tartean 45 aldizkari. Aldizkariotan oro har hizkuntza nagusia erdara zen, eta euskaraz lan bat edo gehiago argitaratu zuten. Aipatutako 22 erakundeak 7 mota nagusitan sailkatu ditugu: administrazio publikoa, argitaletxea, enpresa, euskal kulturgintzako erakundea, komunikabideak, kultur elkarteak eta unibertsitatea (ikus V.11. Taula). Noski, bakoitzaren egitekoa (eta ahalmena) goi mailako euskarazko produkzio zientifiko-teknikoaren esparruan desberdina zen.



Erakunde mota	Erakunde argitaratzailea	Aldizkariaren izena	
Administrazio publikoa	Arabako Foru Aldundia	OHITURA	
	Bizkaiko Foru Aldundia	KOBIE: antropologia cultural	
		KOBIE: etnografia	
		KOBIE: paleoantropologia	
		KOBIE: ciencias naturales	
	Eusko Jaurlaritzza	SUSTRAI	
		EKONOMIAZ	
	Nafarroako Gobernua	FONTES LINGUAE VASCONUM	
		CUADERNOS DE ETNOLOGÍA Y ETNOGRAFÍA	
	IVAP	VIANAKO PRINTZEA. ZIENTZIA ERANSKINA	
RVAP - Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria			
LEYÇAUR			
BILDUMA			
Udaletxea (Udal Artxiboa, Andoaingo Udala) (Udal Artxiboa Errenteriako Udala) (Luis Uranzu Kultur elkartea, Irungo Udala)	BIDASOAKO IKASKUNTZEN ALDIZKARIA		
		GFA-Arteleku	
Argitaletxea	Pablo Iglesias argitaletxea	ZEHAR	
Enpresa	PRECISA	CUADERNOS DE ALZATE	
Euskal Kultur elkartea	EIE	SAIOAK	
	Labayru Ikastegia	GALEUZCA	
		EUSKARAREN IKER ATALAK	
Komunikabidea	Deia	ETNIKER BIZKAIA	
		MUGA	
Euskal Herriko kultur elkartea	Eusko Ikaskuntza	RIEV	
		OIHENART	
		EUSKO-FOLKLORE	
		VASCONIA	
		EUSKO IKASKUNTZEN KONGRESUAK	
		MUSIKER	
		IKASTARIA	
		ONDARE	
		AZPILKUETA	
		ISTURITZ	
		JENTILBARATZ	
		ZAINAK	
		FÓRMULA	
	Geronimo Uztariz	GERONIMO DE UZTARIZ	
	Ingeba	LURRALDE	
IPES	LANGAIK		
RSBAP	RSBAP	BOLETIN DE LA RSBAP	
		BOLETIN DE ESTUDIOS HISTORICOS SOBRE SAN SEBASTIAN	
Aranzadi	Aranzadi	MUNIBE: natur-zientziak	
		MUNIBE: antropologia-arkeologia	
Unibertsitatea	UD/DU	MUNDAIZ	
		ERNAROA	
	UPV/EHU	UPV/EHU	ASJU
			THEORIA

V.11. Taula: Euskarazko lanak argitaratu zituzten aldizkari eleanitzak (1979-1990).  
Iturria: Inguma datu-basea eta elaborazio propioa.

Goiko taulan (V.11. Taulan) ikusten denez, kultur elkarteak bi motatan bereiztu ditugu: alde batetik euskal kultur elkarteak, eta bestetik, Euskal Herriko kultur elkarteak, hizkuntzaren aldetik izaera desberdinekoak iruditzen zaizkigulako. Gure konbentzioaren arabera, euskal kultur elkartea osorik euskaraz bizi eta funtzionatzen

duena da. Euskal Herriko kultur elkarteak berriz, erdaraz funtzionatzen duena, nahiz eta euskara ere elkarteetan onartutako hizkuntza izan eta kasuren batean elkarte baitako atal batzuk euskaraz ere funtzionatu dezaketen.

Euskal Herriko kultur elkarteek argitaratu zituzten aldizkari gehien, 20 guztira. Elkarte guztiek bokazio zientifikoa zuten eta beren aldizkariak elkartearen beraren ekintzetatik –jardunaldi, ikerketa eta abarretik– hornitzen ziren. Batzuk orotariko jakintza-arloetan aritzen ziren eta gehiago edo gutxiago, sailetan antolatuta zeuden –adb. Eusko Ikaskuntza, Aranzadi eta RSBAP–. Beste batzuk, berriz, arlo jakin batean ari ziren: Ingeba adibidez Geografian eta Geronimo Uztariz elkarteak Historiaren esparruan. Eredu honetatik IPES pixka bat aldentzen zen, helduen irakaskuntzara bideratuta zegoelako, nahiz eta Gizarte Zientzien ikerketa ere sustatzen zuen.

Beraz, ikusten denez, Euskal Herriko kultur elkarteetan, euskarazko produkzioak gutxiengo presentzia zuen. 80ko hamarkadan, beraien aldizkarietan euskarazko lanak argitaratzen hasi ziren arren, euskarazko goi mailako produkzioa sakabanatzen hasi zen, eta beronen erreferentzialtasuna galdu. Hau da, 80ko hamarkadan euskarazko produkzio jasoak lehen aldiz bizi izan zuen goi mailako dokumentazioak berezkoa duen ezaugarri bat: dokumentazioaren sakabanaketarena. Ordura arte euskarazko produkzioa gutxi izanik ere, aldizkari jakin batzuetan, normalean aldizkari elebakarretan bilduta zegoen (*Jakin, Egan, Euskerak, Elhuyar,..*)<sup>224</sup>.

Baina txanponaren alde biei erreparatu behar diegu. Euskal Herriko kultur elkarteek euskarazko produkzioa zuten arren, produkzio hori oso apala zen, beraien ekoiztutako 20 aldizkarietan 1979-1990. urteetan euskaraz 193 dokumentu argitaratu zirelako. Hau da, garai hartan aldizkarietan argitaratutako euskarazko produkzioaren % 6,65a. Ikusten denez, Euskal Herrian errotutako goi mailako kultur elkarteetan argitalpenetan, eta, oro har, seguru aski, elkarteetan erakunde bizitzan, euskarak presentzia urria zuen. Beraz, euskararen sarrera Euskal Herriko kultur elkarteetan oso txikia zen. Horren atzean egon litezkeen arrazoiak ugariak dira eta ezagutzeko erakunde bakoitza banan banan aztertu beharko genuke eta une honetan oinarritzeko ezaugarri

<sup>224</sup> 70ko hamarkadan dena den euskarazko produkzioaren lehen sakabanaketa zantzuak agertu ziren, esate baterako, orduko *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian artikulua euskaraz argitaratu zirelako.

komunak eman ditzakegu bakarrik. Hala ere, garrantzitsua litzateke hori aztertzea, hobeto ulertzeko Euskal Herriko kultur elkarteek zergatik ez zuten euskarazko proiektu sendorik.

Kultur elkarteen ostean, Administrazio publikoak izango lirateke bai aldizkarien aldetik (15) bai beraietan argitaratutako artikulu kopuruarengatik (127), euskarazko lan gehien publikatu zutenak. EAeko administrazioako argitalpen zerbitzuetatik ateratako aldizkarietan euskarazko lanak lehen aldiz 80ko hamarkadan argitaratu ziren. Nafarroan berriz, 70eko hamarkadan kaleratu ziren *Fontes* aldizkarian euskarazko lehen lanak. Noski kontuan izan behar da, euskararen ofizialtasuna 1978. urtera arte ez zela ezarri eta Eusko Jaurlaritza ez zela 1980. urtera arte antolatu, gerraosteko lehendakaritzarako lehen hauteskundeak *ospatu* ez ziren arte. Horrek guztiak administrazio publikoaren argitalpenetan eragina eduki zuen.

Unibertsitateetako aldizkarietara dagokionez, aztergai dugun epean, bi unibertsitate zeuden (Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU) eradarazko aldizkariak argitaratzeaz gainera, euskarazkoak ere bazituztenak, baita aldizkari eleanitzak ere. Nafarroako Unibertsitatea 80ko hamarkadaren amaieran sortu zenez, bere argitalpen ekarria hurrengo hamarkadatik aurrera nabaritu zen. Euskarazko aldizkaririk ez zuen inoiz izan, baina 90eko hamarkadan kaleratutako 6 aldizkarietatik 4tan<sup>225</sup> euskarazko artikuluren bat edo beste ere argitaratu zen. UPV/EHU bere aldetik, Espainian Zientziaren Filosofia abiatzeko hainbesteko garrantzia izan zuen *Theoria*<sup>226</sup> aldizkaria argitaratzen hasi zen 1985an. Aldizkaria 1952-1955 urteetan Madrilen publikatu zuen Miguel Sánchez-Mazas-ek. 30 urteko isilunearen ostean UPV/EHUK espainiar aldizkari garrantzitsua argitaratu zuen berriz. Egia esan, *Theoriak* euskaraz bi artikuluraino ez zituen kaleratu. Biak 1985eko lehen zenbakian argitaratu ziren. Artikuluen egileak Elhuyar aldizkariko eta kultur taldeko kolaboratzaileak ziren. Ikusten denez, *Theoria* euskarazko edukiekin hornitzeko saioak ez zuten arrakastarik izan.

---

<sup>225</sup> Euskarazko artikulurik argitaratu zituzten NUPko aldizkariak honako hauek izan ziren: *Huarte de San Juan: filologia eta hizkuntzaren didaktika*; *Huarte de San Juan: historia eta geografia*; *Huarte de San Juan: hizkuntzalaritza eta literatura* eta *Huarte de San Juan: psikologia eta pedagogia*.

<sup>226</sup> Ikus Elena Ronzón-en artikulua *Theoria* aldizkariaren ekarpenen gainean (Ronzón, 1993)

Administrazio publikoko eta unibertsitateko aldizkariak euskarazko goi mailako produkzioaren sakabanaketa areagotzen zuten. Jakintza-arlo batean euskaraz prestatutako artikuluak gutxi izanik, nagusiki erdaraz argitaratzen ziren aldizkarietan are gehiago barreiatzen ziren. Izan ere, Historiari buruz euskaraz idatzitako artikuluak 80ko hamarkadan nonahi zeuden, hau da, euskarazko aldizkarietan (*Jakin, Euskera* eta abar) zein bestelakoetan ere: *Boletín de Estudios históricos sobre San Sebastian, Ernaroa, Geronimo Uztariz*, Udal artxiboek edo kultur elkarte batek egindako eta udaletxeek finantzaturako aldizkarietan<sup>227</sup> (*Leyçaur, Bilduma, Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria, Vasconia, Saiok* eta abar).

Barreiatzearen ondorio zuzena zen artikuluak ikusezin bilakatzen zirela. Horren adibide da, Filosofiari buruz euskaraz argitaratutako materialen gainean Xabier Eizagirrek eta Andoni Ibarrek 1995ean prestatutako artikulua erretrospektiboan *Theorian* argitaratutako euskarazko bi artikuluak ez zituztela aipatu, ziurrenik ez zituztelako aurkitu<sup>228</sup>. Beraz, euskaraz prestatutako artikuluak egonik ere, maiz oharkabean geratzen ziren. Horren ondorio zuzena da egile baten ekarpena, edukiari zegokiona zein terminologiko eta diskurtsiboa ia-ia hutsean geratzen zela, ez onartuta ez baztertuta ere, hiztun gutxiko hizkuntza batean egonik irakurle gutxi zituelako eta irakurle apur horiengana ere heltzen ez zelako. Horrek dakarren eragin kaltegarriarekin jakintza-arloaren goi mailako erregistroaren finkapenean.

### **5.3. Eusko Ikaskuntzaren sailtako koadernoak**

Aparteko aipamena merezi du Eusko Ikaskuntzak, 80ko hamarkadan Euskal Herriko kultur elkartearen artean aldizkari gehien sortu zituena izan zelako. Elkarteak 1978. urtean berrantolatzen hasi zen, eta (jakintza) sailtan egituratu. Sail batzuk 1982. urtetik aurrera koadernoak argitaratzen hasi ziren saileko kideen ikerketa lanak, artikuluak, tesiak eta bestelako azterketak zabaltzeko. Lehenik, 3 koaderno atera ziren: *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía*<sup>229</sup>, *Cuadernos de Sección. Hizkuntza*

<sup>227</sup> (Jimenez de Aberasturi, 2005)

<sup>228</sup> (Eizagirre & Ibarra, 1995)

<sup>229</sup> *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía* izena hartu zuen bigarren zenbakitik aurrera (1984), lehenengoko zenbakikoa honako hau baitzen: *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía. Prehistoria-Arqueología* (1982). Bigarren zenbakitik aurrera bereiztu ziren bi sailak, hau da, batetik Antropologia eta Etnografía eta bestetik Prehistoria-Arkeologia.

eta *Literatura*, eta *Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Monumentales*. Ondoko urteetan koaderno berriak argitaratu zituzten Eusko Ikaskuntzako sailek<sup>230</sup>, azkena *Cuadernos de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas* (1990) izan zen. Guztira 15 koaderno ditu Eusko Ikaskuntzak.

Sailetako koadernoak (*Cuadernos de Sección*) J. M. Barandiaranen ohar batekin argitaratu ziren. Ataundarrak, bere ustez, sailetako koadernoen jomugak zeintzuk izan behar zuten aipatzen zuen:

“Señalemos a continuación algunos temas que podrían y deberían ser objeto de investigación, además de los apunados arriba.

- 1.-la **casa** en todas sus acepciones, la parentela, el vecindario, el pueblo, las facerías, la asistencia social, los órganos de la administración y sus funciones;
- 2.-el **derecho vasco** que, escrito o no, ofrece abundante material de estudio, aparte de lo ya investigado y registrado que es de gran valor;
- 3.-el **arte** –el vasco y el de los vascos– que debe interesarnos, por que es expresión de nuestras inquietudes, nuestra visión del mundo y del hombre, nuestra interpretación de la vida;
- 4.-el **humanismo**; el hombre que ha logrado recibir los modos comunes de pensar y de obrar o que ha conseguido plantear como problema las formas colectivas que han modelado su conducta y enfrentarse con el mundo (...)
- 5.-los antecedentes de la cultura vasca deben ser dilucidados utilizando los medios y las normas que prescribe la **ciencia histórica**; es decir, la exploración de nuestro suelo y de nuestros monumentos arqueológicos, la interpretación de las inscripciones la recopilación y exégesis de los textos, los relatos de viajeros y peregrinos y el estudio minucioso de nuestros archivos públicos y privados”<sup>231</sup> [beltzak gureak dira]

J. M. Barandiarani jarraituz, koadernoak gerraurreko euskal aldizkari proiektuekin lotuago zeuden –*RIE*ekin edo J. M. Barandiaranek berak argitaratutako *Anuario de Eusko-Folklorerekin*–, 60 eta 70ekoekin baino (*Jakin, Egan, Elhuyar...*). Aipatutako gerraurreko aldizkarietan finkatutako moldeak zen Euskal Herriarekin lotutako ikerketa lanak erdaraz argitaratzea. Frankismo garaian sortutako euskarazko aldizkariak berriz, tematikoki orohartzaileagoak ziren. Hau da, hizkuntza txiki batean argitaratuagatik, ez ziren tematikoki mugatuak. Izan ere, jada ikusi dugunez, 50eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, *Txillardegik* egina zuen Euskal Herriko hizkuntza eta kultura erlikia gisa hartzearen kontrako kritika. Eta beraz, ordutik aurrera hizkuntza mordoilo edo Batuan argitaratutako aldizkariak eta joera horretan kokatutako euskal kulturgintzako elkarteak gainditua zuten aspalditik J. M. Barandiaranen ikuskera.

---

<sup>230</sup> 1983 urtean honako hauek sortu ziren: *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía, Cuadernos de Sección. Ciencias Naturales*, eta *Cuadernos de Sección. Folklore*. 1984an beste hauek: *Cuadernos de Sección. Prehistoria-Arqueología*.

<sup>231</sup> (Barandiaran, 1982: 8-9)

Alde horretatik, nagusiki erdal praxia izan zuten Euskal Herriko erakunde eta elkarteek –Eusko Ikaskuntza, erakunde eta koadernoen argitaletxe gisa, horren erakusletzat har daiteke, baita beste batzuk ere, hala nola, RSBAP–, eta gure ustez, 80ko hamarkadan oraindik gerraurreko postulatuetatik oso hurbil jarraitzen zuten. Alde horretatik, euskarazko aldizkariak proiektu modernoagoak ziren, 50eko hamarkadako eztabaidek ahalbidetu zutelako bilakaera eta berrikuntza. Erdaraz argitaratutako aldizkariak, berriz, halako hausnarketa prozesurik ez zuten inoiz bizi izan, beraien hizkuntz hautua ez baitzen inoiz kolokan jarri. Eta horrela jarraitu dute gaur egun arte, ingelesaren sarrera arte. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak argitaratutako sailtako 15 koadernoetan batean bakarrik aurkitu dugu<sup>232</sup>, koadernoaren gaineko historia, bilakaera eta azterketa kuantitatiborik. Halako azterketarik gabe, ezinezkoa da aldizkari proiektuaren gaineko hausnarketa eta eztabaidarik bideratzea, ez hizkuntzaren erabileraren esparruan, ez beste arloetan ere.

Eusko Ikaskuntzaren koadernoetara bueltatuz, aipatu behar da koadernoek 1997. urtetik aurrera izenburua berritu zutela<sup>233</sup>. Orduetik aurrera aldizkaria izendatzeko izen edo hitz klabe batekin identifikatzen hasi zen (adb. *Azkoaga*, *Ondare*, *Mediatika* eta abar) eta ondoren gehitzen zen aldizkariaren esparruari buruzkoa azalpena (adb. *Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas*). Ikus ondoko taulan Eusko Ikaskuntzaren sailtako koadernoen aldizkariak hartutako izenak eta beren euskarazko lanen produkzioa:

<sup>232</sup> Carmelo Landak *Vasconia Cuadernos de Historia-Geografiaren* gainean egindako lanari buruz ari gara (Landa, 2005)

<sup>233</sup> Hal ere aldaketa egin zuen lehen koadernoak: *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* izan zen, eta 1996. urtean *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* izatera pasa zen.

Aldizkaria	Sorrera urtea	Argitaratutako zenbakiak (1982-1990)	Euskarazko dokumentu kopurua
Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura	1982	1-10	35
Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía	1983	1-17	10
Musiker. Cuadernos de Música	1983	1-4	7
Ikastaria. Cuadernos de Educación	1985	1-3	4
Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales	1982	1-6	3
Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología	1982	1-3	2
Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía	1982	1-7	2
Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore	1983	1-3	2
Azpilcueta. Cuadernos de Derecho	1984	1-6	2
Formula. Cuad. de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas	1990	1	1
Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales	1983	1-6	0
Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación	1984	1-3	0
Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud	1984	1	0
Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía	1985	1	0
Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas	1986	1	0

V.12. Taula: Eusko Ikaskuntzaren Saisetako Koadernoen produkzioa 1982-1990.  
Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, sailetako koadernoetan ez zen euskaraz prestatutako lan askorik argitaratu. Izan ere, sailetako koadernoak argitalpen hizkuntzaren ikuspuntutik nagusiki gaztelaniaz argitaratu ziren, euskarazko lan bakanei tartea eginez. *Vasconia* aldizkarian esate baterako oso argi ikusten da aipatzen ari garena. Carmelo Landaren datuen arabera, *Vasconia* aldizkariak bere ibilbide osoan (1983-2005 tartean) 484 dokumentu argitaratu ditu. Horietatik 29 euskaraz atera ziren<sup>234</sup>. Beraz, aldizkarian gehien erabilitako hizkuntza gaztelania izan da (% 88,42a), eta ondoren euskara (% 5,9), atzetik geratzen dira frantsesa eta ingelesa. Hala ere, hizkuntzaren erabilera ez da inondik inora *Vasconia* aldizkariko tematikaren isla. Izan ere, aldizkariko lanen % 91,74a, C. Landaren arabera, euskal gaien ingurukoa izan da<sup>235</sup>. Beraz, euskal gaiak nagusi izanik, hizkuntza nagusia gaztelania izan da *Vasconian*.

<sup>234</sup> Inguma datu-basearen arabera 32 dira.

<sup>235</sup> (Landa, 2005: 525 eta 535)

Argitalpen hizkuntzaren ikuspuntutik, salbuespena Hizkuntza eta Literaturari buruzko koadernoak (*Oihenart*) izan zen, bertan hizkuntza batean zein bestean hainbat artikulu argitaratu baitziren<sup>236</sup>. Zernahi gisaz, Eusko Ikaskuntzaren aldizkarietatik euskarazko produkzio gehien zuena RIEV zen, eta ez sailetako koadernoak. Hurrengo hamarkadara arte erakunde honek ez zuen sortu euskarazko aldizkaririk (*Eleria*, 1996).

Laburbilduz, Eusko Ikaskuntzaren sailetako 15 koadernoek euskarazko produkzioa 80ko hamarkadan oso txikia izan zen eta alde horretatik euskarazko produkzioari, eta eredu jasoari egindakoa ekarpena oso mugatua izan zen. Horregatik guztiatik, ez diogu, hurrengo ataletan aparteko analisirik eskainiko.

Beraz, 80ko hamarkadan aldizkari eleanitzetan, hau da, euskaraz zein erdaraz prestatutako lanak argitaratu zituzten aldizkarietan erdara nagusi zen, zentrala, eta euskara periferian kokatzen zen. Hortaz, gizartean hizkuntzak bizi zuen egoera diglosikoa, goi mailako aldizkari hauetan ere antzematen da.

## 6. Hamaika liburu, baina itzulpen gutxi

Euskarazko liburugintzak 80ko hamarkadan hazkunde izugarria bizi izan zuen. J. M. Torrealdairen datuen arabera, 1979. urtean euskaraz 367 liburu argitaratu ziren eta 1990. urterako produkzioa ia-ia hirukoiztu egin zen. Era berean, unibertsitate mailako liburu produkzioa ere urte berdinetan hirukoiztu zen (22tik 63ra pasa zen). Ondorioz unibertsitateko mailako euskarazko liburu produkzioaren proportzioa euskarazko liburugintzaren baitan ez zen igo, eta % 6koa izan zen bai 1979. urtean bai 1990. urtean ere (ikus V.13. Taulako emaitzak).

---

<sup>236</sup> Ohargarria da hasierako urteetan M. Lekuona euskaltzainburu ohiak argitaratutako euskarazko artikuluak ez zeudela Euskara Batuan idatzita.



Urteak	Euskal Liburugintza (Torrealdai)	Unib. mailako euskal liburugintza (Inguma)	Unib. mailako liburuen portzentajea
1976	164	3	1,8
1977	260	23	8,8
1978	273	18	6,6
1979	367	22	6
1980	357	38	11
1981	285	11	3,9
1982	499	18	3,6
1983	574	23	4
1984	653	24	3,7
1985	650	39	6
1986	754	30	4
1987	787	42	5,3
1988	987	29	2,9
1989	902	28	3,1
1990	1.043	63	6

**V.13. Taula:** Euskarazko unibertsitateko mailako liburugintza urtez urte, euskarazko liburugintza orokorrarekin alderatuta (1976-1990). Iturria: euskal liburugintzaren datuak J. M. Torrealdairen lanetik (Torrealdai, 2007: 105) eta Unibertsitate mailako euskal liburugintza Inguma datu-basetik.

Taula prestatzeko (V.13. Taula) Joan Mari Torrealdairen lana oinarri gisa hartu dugu. J. M. Torrealdairen euskal liburugintzaren gaineko azterketa eta kontaketa, aurreko kapituluan aipatu dugunez, 1976. urtean abiatu zen, eta horregatik 1976. urtea hartu dugu gure taularen abiapuntu gisa<sup>237</sup>. J. M. Torrealdaik urte bakoitzean argitaratutako titulu kopurua zenbatzeko, aintzat hartu zituen edozein arlo eta mailetan (unibertsitatekoak barne) jatorriz euskaraz prestatutako lehen edizioak, berrargitalpenak eta itzulpenak. Unibertsitate mailako euskarazko titulu kopurua emateko Inguma datu-basera jo dugu.

Segidan goi mailako liburugintza horren ezaugarri nagusiak eta bilakaera aztertuko ditugu. Zehazki antzeman ditugun bost ezaugarri nagusitan zentratuko gara: lehena, unibertsitate mailako testugintza sendotzeko lehen diru-laguntza publikoen agerpena, bigarrena unibertsitate ofizialen euskarazko liburu produkzioaren agerpena, hirugarrena goi mailako euskarazko produkzioa euskal kulturgintzak eusten zuela, laugarrena goi mailako argitalpenak zituzten argitaletxeen dibertsifikazioa, eta bosgarren eta azkena, itzulpen lanen eskasia (eta Klasikoak bildumaren sorrera).

<sup>237</sup> Noski, euskal liburugintza, goi mailakoa barne 1976. urtea baino lehen ere bada. Inguma datu-basearen arabera 1968-1975 urteen artean 44 liburu kaleratu ziren.

Gure datuen arabera, 1983. urtean kaleratu zuen Eusko Jaurlaritzak unibertsitate mailako euskarazko liburu argitaratuentzat berariazko diru-laguntza deialdia<sup>238</sup>. Aurretik euskaraz argitaratutako liburuak finantzabide publiko gabe atera ziren: UEUren hasiera urteetako liburuak esate baterako *Banco de Vizcayak* inprimatzen zituen, beste argitaletxe batzuk harpidetza hobesten zuten, eta harpidedunek eusten zituzten argitalpen proiektuak. Liburugintzaren egoera zaugarria Joan Mari Torrealdai agerian utzi zuen lehen diru-laguntzen urtean *RIEV* aldizkarian argitaratutako artikuluan:

“Eskola mundura doa zuzen zuzenean euskal liburua, liburu praktikora (praktikotasuna irakaskuntzari lotuta ulerturik). Sorkuntzazko literatura bigarren mailan gelditzen da, plangintza gutxiarekin eta bultzadarik gabe. Eta azken mailan uzten ari gara pentsaera-liburua, plangintzarik eta bultzadarik gabe ezez, premiaren kontzientziarik eta planteorik ere gabe.”<sup>239</sup>

Ingurumari honetan Eusko Jaurlaritzak finantzabide sendorik gabeko euskarazko ekimen editorial unibertsitarioa sustatzeko lehen diru-laguntza publikoak atera zituen. Euskal Herriko buletinean 1983ko urrian argitaratutakoaren arabera, diru-laguntza hauek funtsean unibertsitate mailako liburuaren premia asetu eta prezioa orekatu nahi zuten. Laguntzak editorialentzat ziren, ez egileentzat (beraiek musutruk jarraitu zuten unibertsitate mailako liburuak egiten). Diru-laguntza Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak atera arren, UPV/EHUko Euskararako Kabinete Teknikoak kudeatzen zituen. Liburuek argitaratuta edo argitaratze bidean egon behar zuten diru-laguntza jasotzeko eta oinarrizko bi baldintza bete behar zituzten: edukiaren eta hizkuntzaren aldetik zuzentasuna. Hizkuntzaren aldetik unibertsitate mailako liburuek Euskaltzaindiaren arauak bete behar zituztela esplizituki adierazten zen. Gerora deialdi hau bilakatu izan da, eta gaur eguneko EIMA programaren lehen abiapuntua izan zen.

Garai honen bigarren ezaugarria zera da: unibertsitate ofizialen euskarazko lehen liburuaren argitalpena. Goi mailako euskarazko produkzioa, liburuena zein itzulpenena, aurreko kapituluetan ikusi dugunez, 80ko hamarkadara arte ez zegoen lotuta unibertsitate erakundeekin, eta esparru horretan ari ziren euskal kulturgintzako

<sup>238</sup> EHAA/BOPV, 148. zkia, 1983.10.6ko 1905. Ebazpena.

<sup>239</sup> (Torrealdai, 1983: 60)

erakundeen esku zegoen –UEU, Euskaltzaindia, Elhuyar eta abar–. Une honetatik aurrera, eta seguru aski euskararen zein euskarazko irakaskuntzaren sarrerarekin unibertsitatean, unibertsitateen argitalpen zerbitzuak euskarazko lehen liburuak kaleratu zituzten. UPV/EHUK lehen liburua euskaraz 1984. urtean plazaratu zuen eta lehen itzulpena 1990. urtean. Deustuko unibertsitateak berriz, lehen liburua UPV/EHUK baino lehen atera zuen (1980an), baina lehen itzulpena 1994. urtera arte atzeratu zen<sup>240</sup>. Ingumako datuen arabera, 1979-1990 urte tartean unibertsitateek goi mailako euskarazko liburu produkzioaren % 13a kaleratu zuten (ikus V.14. taula).

Argitaletxe mota	Argitaletxeak	Liburuak	Itzulpenak	Guztira (kop.)	Dok. %tan
Euskal kulturgintzako erakunde argitaratzaileak	Aranzadi, Elhuyar, Euskaltzaindia, Jakin, Labayru, UEU eta UZEI	204	11	215	69,8
Unibertsitateen argitalpenak	UD/DU eta UPV/EHU	39	1	40	13
Argitaletxe komertzialak	Erein, Gaiak, Gero, Pamiela, Susa eta Tarttalo	26	3	29	9,4
Erakunde publikoen argitalpenak	Bidegileak eta HABE	10	0	10	3,2
Elkarte erlijiosoen argitalpenak	Arantzazu (EFA) eta Karmel	6	0	6	2
Bestelako argitaletxeak	A. Irigoienen autoedizioa, Sabino Arana Kultur Elkargoa eta Gipuzkoako Kutxa	8	0	8	2,6
Guztira		293	15	308	100

V.14. Taula: Goi mailako liburu eta itzulpen produkzioa duten argitaletxeak (1979-1990).  
Iturria: Inguma datu-basea.

Unibertsitate batzuk euskarazko lehen lanak atera arren, 80ko hamarkadan oraindik oso produkzio txikia zuten. Goi mailako euskarazko produkzioa euskal kulturgintzak eusten zuen, bereziki unibertsitate, zientzia, kultura, ikerketa eta arlo akademikoan ari ziren erakundeak (Elhuyar, Euskaltzaindia, Jakin, Labayru, UEU eta UZEI). Erakunde horiek 80ko hamarkadako unibertsitate mailako euskarazko produkzioaren ia % 70a ekoitzi zuten. Beraz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren lehen sarrera unibertsitatean bibliografiaren aldetik eutsi zutenak aipatutako unibertsitatetik kanpoko erakundeak izan ziren, eta bereziki UEU. Aipagarria da, aurreko hamarkadan berpiztutako Eusko Ikaskuntza, 80ko hamarkadan ez zuela ez libururik ez itzulpenik argitaratu euskaraz.

<sup>240</sup> Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) 80ko hamarkadaren amaieran sortu zen eta, euskarazko lehenengo argitalpena ez zuen kaleratu 2000. urtera arte. Nafarroako Unibertsitateak berriz, ez du euskaraz ezer argitaratu.

Erakunde argitaratzaileak	Liburuak	Itzulpenak
UEU	132	10
UZEI	25	0
Labayru	24	1
Euskaltzaindia	15	0
Elhuyar	6	0
Jakin	1	0
Aranzadi	1	0
Guztira	215	

V.15. Taula: Goi mailako kultur elkarten euskarazko liburu ekoizpenak (1979-1990).  
Iturria: Inguma datu-basea.

Bestalde, garai honetako beste ezaugarri bat da euskarazko liburu eta itzulpenak ugaritu ziren heinean, erakunde argitaratzaileak dibertsifikatu egin zirela, eta izaera desberdineko argitaletxeak sortu zirela. Bereziki nabarmena da argitaletxe komertzialek hartu zuten garrantzia. Aurreko garaian berriz, hau da, 70eko hamarkadan argitaletxe komertzialek ez zuten, goi mailako euskarazko liburugintzaren ikuspuntutik, halako garrantzirik. Lur argitaletxeak hamarkadaren hasieran zenbait liburu plazaratu zituen, baita Gerok ere, ez besterik. Halaber, Eusko Jurlaritzaren gerraosteko berrantolaketarekin, erakunde publikoek babestutako lehen argitalpenak agertu ziren. Erakunde erlijiosoen argitalpenak ez ziren berrikuntza bat, gerraosteko lehen hamarkadetan euskarazko produkzio jaso beraiena baitzen, erregimen frankista indarrean egonik, beraiek baitziren noizbehinka argitalpen baimenak eskuratzen zituzten bakarrenetakoak. Kontua da, kongregazioen argitalpenek dagokigun arloan ez zutela hazkunderik izan 80ko hamarkadan, besteak beste, kultur eragile moduan Elizak zuen gaitasuna faltaren seinale (euskaldunen bokazio krisia tarteko).

Bukatzeko, itzulpenen gainean ohartxo bat egin nahi genuke. Izan ere, aztertzen ari garen 80ko hamarkada honetan itzulpenak ez ziren euskarazko goi mailako produkzioaren % 5era heltzen. Kontuan hartuta esparru jasoan ari garela, horrek esan nahi du zientzia, jakintza eta goi mailako kultur erreferenteen (egile eta obren) euskaratzeaz dihardugula. Kasu honetan zera daukagu, unibertsitario, zientzialari zein ikertzaile euskaldunek mundu mailako (mendebaldeko) obra erreferenteak ezin irakur zitzaketela euskaraz. Ez behintzat 80ko hamarkadan. Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzaileak *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikuluan honela zioen:

“... oraindik esan beharra dago euskaldun askori izugarri zail, ia ezinezko gertatzen zaigula kultur bizitza asegarri bat izatea, horretarako behar adinako oinegiturarik ez daukagulako. Gauzak horrela badaude, alde batetik, gure kultur produkzioa urria delako da, eta bestetik, (...) gure hizkuntzak mendebaldeko kultura honen oinarrian dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak zuzenean eta sistematikoki bereganatu ez dituelako”<sup>241</sup>

Horretaz guztiaz gain, X. Mendigurenek unibertsitate mailan halako desoreka bat bazela aitortzen zuen:

“... euskara bitarteko dutela goimailako irakaskuntzara iristen diren belaunaldiak agerian jarri baitute irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean bibliografi oinegiturak daukan ahulezia eta asistematikotasuna. Kantitatez eta kalitatez egin den ahalegin nabaria gorabehera, urte luzeetan euskara eta euskaraz ikasten jardun ondoren, gure gazteak beren kultur hedabideak ia bertan behera uztera edo izugarri murriztera beharturik aurkitu izan dira, gaztelaniazko edo frantsesezko bibliografi eskaintzara jo behar izan dutelako, (...)”<sup>242</sup>

Gabezia hori estaltzeko asmoarekin 1991. urtean Klasikoak proiektua sortu zen, ideien historian garrantzitsuak izan diren obrak euskaraz jartzeko asmoz. P. Salabururen arabera Pedro Miguel Etxenikerena izan zen ideia<sup>243</sup>. Ekimen pribatuko<sup>244</sup> egitasmo honek gaur egun arte 100 obratik gora euskarara itzuli ditu. Bai itzulpenerako hautatutako obrak (batzorde zientifiko baten esku), bai itzultzaileak (ospedunak), bai itzulpenaren berrikusle edo gainbegiratzaileak, bai edizioen hitzaurregileak emaitza ezin hobeak eskaini dituzte eta bilduma erreferentziala bihurtu da pentsamenduaren historiara euskaratik hurbiltzeko. Eta horregatik hain zuzen Klasikoak bildumak euskararen batasuna indartzen lagundu du, saiakera bultzatu du, finean prosa filosofiko eta zientifikoa garatzen lagundu du<sup>245</sup>.

---

<sup>241</sup> (Mendiguren, 1994: 111-112)

<sup>242</sup> (Mendiguren, 1994: 112-113)

<sup>243</sup> (Salaburu, 2007)

<sup>244</sup> Klasikoak liburu bildumaren argitaratzailea Klasikoak elkarte animoa da. Elkartearen jabego gehiena banku eta kutxek dute eta % 10a unibertsitateak (UPV/EHUk eta Deustuko Unibertsitateak) (Salaburu, 2007)

<sup>245</sup> (Salaburu, 2007 eta Mendiguren, 1994)

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**GAUR EGUNGO HISTORIA SAILA**

# **Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa**

**Doktorego-tesia**

**||**

**KARMELE ARTETXE SANCHEZ**

Zuzendariak:  
Mikel X. Aizpuru Murua  
Xabier Isasi Balanzategi

Leioa, 2009

# **AZTERKETA BIBLIOMETRIKOA**

## **VI. Goi mailako euskarazko produkzioaren azterketa bibliometrika (1968-2007)**



## 1. Ibilera berrirako sarrera

Orain arte ikusi dugu zein izan den Komunitate Zientifiko Euskaldunaren bilakaera historikoa eta harekin lotutako goi mailako euskarazko produkzioa. Beraz, hona arte azterketaren jitea kualitatiboa izan da: gertaera eta prozesu mugarriak eta eragile nagusiak aipagai izan ditugu, hala nola, Euskara Batuaren sorrera eta beronen garapenean Komunitate Zientifiko Euskaldunak izandako parte hartzea, komunitatea noiz eta nola txertatu zen unibertsitatean, eta abar. Atal honetan azalpen lerro kualitatiboa eta analisi historikoa alde batera utzi, eta goi mailako euskarazko produkzioa azken 40 urteotan aztertuko dugu, ikuspegi nagusiki kuantitatibotik.

Aurreko bost kapituluetan, gerraurrean hasi eta 80ko hamarkadara arte, goi mailako euskarazko jarduera zientifikoa, tekniko eta kulturala aztertu dugu. Ikusi dugunez, 80ko hamarkadan Komunitate Zientifiko Euskaldunak ordura arte ezagutu gabeko hazkundera izan zuen. Hazkunde horri esker zabaldu, baina aldi berean sakabanatzen hasi zen. Sakabanaketa areagotu egin zen ondoko bi hamarkadetan. 1990. urtetik aurrerako prozesu eta eragileak asko eta oso anitzak izateaz gainera, oraindik hurbilegi daude gugandik analisi historiko egokia egiteko. Hori dela-eta, ondoko bi hamarkadak aztertzeko (90ak eta 2000ak), aurreko biak ezinbesteko abiapuntutzat harturik, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren produkzio zientifikoaren azterketa bibliometrikoa egitea erabaki dugu. Azterketa horren bitartez baieztatuko dugu euskarazko komunikazio zientifikoa izan badela, produkzioa izan badela, eta neurgarria dela. Halaber baieztatuko dugu azpiegitura zientifikoa egon dagoela eta deskribatu egingo dugu. Finean hau guztia egiten dugu Komunitate Zientifiko Euskalduna aztertzen jarraitzeko.

Mende berriaren ingurumarian Informazio eta Komunikaziorako Tresnek (IKT) aukera berriak eskaini dizkigute Komunitate Zientifiko Euskaldunaren sakabanaketa gainditzen laguntzeko eta kideen arteko elkar ezagutza eta komunikazioa sustatzeko. Teknologiek irekitako bide horretatik egitasmo berriak sortu dira, hala nola, Inguma datu-basea. Bertan goi mailako euskarazko ahozko zein idatzizko produkzioaren erreferentziak zein egile euskaldunen oinarrizko datuak bilduta daudenez, gaur egun

posible da Komunitate Zientifiko Euskaldunaren produkzioaren azterketa bibliometrikoa egitea. Hain zuzen ere kapitulu honetan Inguma datu-basea erabiliko dugu oinarrizko informazio iturri gisa.

Ondoko lerroetan euskarazko gure azterketan erabilitako informazio-iturria deskribatu eta azterketarako aplikatuko dugun metodologia azalduko dugu. Izan ere, funtsean atal hau euskarazko produkzio eta egileen azterketa metrikoa da. Beraz, ez dugu Euskal Herriko goi mailan zientzia, kultura eta teknikaren inguruan ekoizten den guztia aztertuko, baizik euskararen eremuan zentratuko gara. Hau da, metodo matematiko eta estatistiko sinple eta deskriptiboak erabiliz, goi mailako euskarazko ekoizpenaren, egileen eta erakundearen analisi bibliometrikoa egingo dugu. Analisia osatzeko ikuspegi konparatua erabili dugu aukera izan dugun guztietan, euskarazko produkzioaren egoera zein den hobeto kokatzeko (unitate berdinak edo antzekoak topatu ditugun guztietan). Hala, Kataluniako, Galiziako, Espainiako, Errepublika Baltikoetako edota Galesko adibide batzuk ekarri ditugu.

## 2. Metodologia eta informazio-iturria

### 2.1. Bibliometriarako sarrera

*Bibliometria* hitza lehen aldiz A. Pritchard-ek erabili zuen 1969an<sup>1</sup>, eta E. W. Hulme-k 1922an sortutako *bibliografia estatistikoa (statistical bibliography)* terminoa ordeztu zuen. 70eko hamarkadan *scientometrics* hitzaren erabilera zabaldu zen<sup>2</sup>. Beraz, gaur egun azterketa metrikoak izendatzeko modu desberdinak daude (*bibliometrics, infometrics, scientometrics...*), nahiz eta *bibliometria* hitza nagusitu den. Izendapen desberdinek abiapuntu desberdina adierazten dute baina denek azterketa metodo antzekoak erabiltzen dituzte. Esate baterako Informazio Zientzien inguruko adituek lan metrikoak egitean *infometria* egiten dutela diote, bibliotekonomia arlokoek *bibliometria*

---

<sup>1</sup> J. Bellavistaren arabera A. Pritchard-ek honela definitu zuen bibliometria zer zen: “la aplicación de métodos matemáticos y estadísticos tanto a los libros como a otros medios de comunicación, para la cuantificación de los procesos de la documentación escrita. La bibliometría es, pues, el análisis de la estructura de la literatura” (Bellavista, 1997: 49)

<sup>2</sup> “La característica principal de la cienciometría es la aplicación de los métodos básicos de las ciencias naturales –medición y análisis matemático– a la ciencia, es decir a los problemas internos de la propia ciencia, a su organización, desarrollo y aspectos políticos” (Bellavista, 1997: 49)

eta abar. Zernahi gisaz, izendapen guztiek oinarri komuna partitzen dute, estatistika eta eragiketa matematikoen erabilera dokumentazio multzo baten erakunde ekoizle, egile eta kontsumitzaileen azterketa egiteko<sup>3</sup>. Dena den, zehazki M. A. Zuluetak ematen duen definizioari jarraiki, azterketa bibliometrikoak dokumentazio zientifikoaren esparrura mugatzen dira:

“La bibliometría es una disciplina actualmente englobada dentro del campo de la documentación, que se ocupa principalmente de la aplicación de técnicas estadísticas al estudio de las publicaciones científicas y de los elementos bibliográficos contenidos en las mismas, con objeto de obtener información acerca del comportamiento seguido por la Ciencia y los científicos”<sup>4</sup>

Azterketa bibliometrikoen abiapuntua erreferentzia bibliografikoak dira, bertatik lortzen baita azterketa bibliometrikorako oinarrizko informazioa, alegia adierazle bibliometrikoak. Beraz, azterketa bibliometrikoak produkzio idatziaren gainekoak izan ohi dira. Teknologiaren esparruko azterketa bibliometrikoetan berriz, patenteak erabiltzen dira. Horregatik, J. Bellavistak, M. A. Zuluetak baino bibliometriaren definizio osoagoa eskaintzen duela iruditzen zaigu: “La bibliometría es el estudio de los indicadores que miden la producción de la investigación científica y tecnológica mediante datos derivados de la literatura científica y de las patentes”<sup>5</sup>. Gure kasuan patenteen gaineko informaziorik ez dugunez, funtsean euskarazko produkzio zientifikoaren azterketa egin dugu.

Erregistro bibliografiko baten oinarrizko eremuak honako hauek izaten dira: dokumentuaren izenburua, egilea(k), egilearen(en) helbidea, iturria, argitalpen urtea, hizkuntza, dokumentu mota, dokumentuaren jakintza-arloari dagokion sailkapena eta abar. Halako erreferentziak datu-baseetan biltzen dira. Mota askotako datu-baseak daude, ezagunenak zientziaren esparruan Filadelfiako ISIarenak (*Institute for Scientific Information*) dira, eta bereziki SCIA (*Science Citation Index*). Nazioarteko produkzio zientifikoaren gaineko azterketa bibliometriko gehienak ISiko datu-baseen (hau da SCI, SSCI eta AHCI) gainean oinarritzen dira.

---

<sup>3</sup> (Jiménez-Contreras, 2000: 760)

<sup>4</sup> (Zulueta, 2002: 117)

<sup>5</sup> (Bellavista, 1997: 50)

Euskarazko dokumentazio zientifikoari dagozkion erreferentziak Inguma datu-basean bilduta daude. Orokorrean, Inguma-n aipatutako eremu guztiak biltzen dira, egileen helbidea eta hizkuntza izan ezik. Ingumak egilearen helbiderik ez du, baina bai helbide elektronikoa. Posta elektronikoarekin zeharka bada ere, egilea erakundeekin lotu daiteke (adibidez *ehu.es* domeinuko epostak UPV/EHUko irakasle, ikasle eta ikertzaileenak dira). Hizkuntzari dagokionez, Inguma-n erregistratutako dokumentu guztiak euskaraz daudenez, halako eremuaren beharrik ez dago. Beraz, Inguma azterketa bibliometrikoetarako baliagarria da. Hala ere, egon da datu-base honen aukerez jabetu ez den ikertzailearik. Adibidez Luis Morenok, EAEko produkzioari buruz 2004an aurkeztutako doktorego-tesian honako iritzia zuen: “En cualquiera de estos casos, las bases de datos encontradas carecen de los elementos mínimos necesarios para poder desarrollar estudios bibliométricos, ni cualitativos ni cuantitativos”<sup>6</sup>. Horregatik bere ikerketan ISIko datu-baseak erabili zituen EAEko ekoizpen zientifikoaz aztertzeko. Seguru aski L. Morenok ez zuen Inguma ezagutzen, ez baitu datu-baseen artean aipatzen.

Datu-baseetako erregistro bibliografikoak milaka izaten direnez, baita gure kasuan ere, tresna informatikoen bidez kudeatzen da informazioa. Inguma datu-basea MySQL datu-baseak kudeatzeko sisteman egina dago, eta Internet bidez kontsulta daiteke. Gure azterketarako datuak lortzeko ordea, ez dugu webgunea erabili, baizik eta webguneko datu-basearen kopia bat<sup>7</sup>, eta horren gainean SQL lengoaiaren egindako galderen bitartez lortu ditugu ondoko atal honetan jasotako datuak.

Erregistro bibliografikoen zenbaketa eta tratamendu estatistikoa eginez, adierazle bibliometrikoak lortzen dira. M. A. Zulueta bi motakoak bereizten ditu: dimentsio bakarreko adierazleak eta anitzak:

- “- *Indicadores unidimensionales*: basados en medidas cuantitativas que utilizan recuentos simples a partir de diferentes elementos bibliográficos.
- *Indicadores multidimensionales*: o indicadores de relación que utilizan métodos de análisis estadísticos para describir las relaciones entre diferentes elementos bibliográficos”<sup>8</sup>

---

<sup>6</sup> (Moreno, 2005: 42)

<sup>7</sup> Zehazki, Inguma datu-basearen 2009.03.17an egindako kopia erabili dugu.

<sup>8</sup> (Zulueta, 2002: 127)

Gure kasuan, eta erabilitako informazio iturriarengatik, lehenengo motakoak landu ditugu, hau da, produkzioaren gaineko zenbaketak (izenburu, dokumentu mota, urtea eta abarren arabera) gure helburua atal honetan goi mailako euskarazko produkzio idatzia deskribatzea delako, une honetan azterketa sakonagoak egitea ezinezkoa baita. Honelako zenbaketa sinpleetatik lortutako adierazle bibliometrikoak mugatuak dira, eta ez dute kalitatea neurtzeko balio. Kantitatea eta kalitatea bi gauza desberdin dira, eta ez dute zertan bat etorri behar. Hau da, aldizkari edo egile batek lan asko argitaratzeak ez du esan nahi derrigor “ona” edo kalitatekoa denik, produktibitate altua duela baizik. Gure analisi bibliometriko honetan, beraz, kantitatea aztertu dugu, kalitatea hurrengo azterketa baterako utziz.

Bestalde, dimentsio bakarreko adierazleetan aipuen azterketa sartuko litzateke, hau da, aldizkariak edota egileek jasotzen dituzten aipuen analisia. Honi esker, besteak beste, neurtu ohi da aldizkariaren eragin faktorea edo *impact factor*, aipuen batz besteko bizitza edo *cited-life* eta abar. Aipuen azterketak bibliometria arloko lanetan oso ohikoak dira, hala ere, eta arestian aipatu dugunez, informazio iturriak berak mugatu egiten du mota horretako analisia, Inguma-n ez baitira aipuak biltzen, ISIko datu-baseek egiten duten moduan. Bestalde, gure asmoa, egile euskaldunen eta produkzioaren deskribapena egitea da, aipuen azterketa interesgarria izanik ere, lotuago dago ebaluazioarekin, aldizkariaren ranking-ekin eta oro har, egileen karrera unibertsitarioaren errekonozimendu administratiboarekin.

Halaber, arrazoi berdinegatik, dimentsio anitzeko adierazle bibliometrikoak ez ditugu landu, Inguma datu-basearen oraingo egiturak ez duelako ahalbidetzen. Honelako azterketetan erkatzen dira zenbait adierazle, eta estatistikaren bitartez kalkulatu da beraien arteko hurbiltasuna zein urruntasuna, hori guztia espazialki eta grafiko batean adieraziz. Honela egiten dira zientziaren mapak. Mapak egile, aldizkari zein jakintza-arlo zehatz bat irudika dezakete<sup>9</sup>. Azkenaldian, esate baterako, Espainian aurkeztutako doktorego-tesien epaimahaien gaineko mota honetako zenbait ikerketa kaleratu dira<sup>10</sup>. Noski, (euskarazko) zientziaren mapak edota egile euskaldunen

---

<sup>9</sup> (Perianes-Rodríguez eta beste, 2008; Arancibia, eta beste, 2008; Olmeda-Gomez eta beste, 2008; Torres-Salinas, 2007 eta abar)

<sup>10</sup> (Olmeda-Gomez eta beste, 2009; Torres eta Torres-Salinas, 2007; Delgado eta beste, 2006 eta abar)

harreman sareen adierazpen grafikoak prestatzea, zinez interesgarria litzateke, baina berariazko tresnak sortzen direnerako uzten dugu.

### 2.1.1. Auziaren egoera

Azterketa bibliometrikoak Euskal Herrian gero eta ezagunagoak diren arren, are gehiago ebaluazioa agentziak daudenetik (lehenik ANECA eta ondoren EAEn sortutako UNIQUAL), oraindik bide luzea dago egiteko. Are gehiago, goi mailako euskarazko produkzioaren esparruan. Bien bitartean, munduko herrialde aberatsenetan dokumentazio zientifikoaren azterketa bibliometrikoak oso ohikoak dira. AEB, Frantzia, Alemania edota Espainia moduko herrialdeek jarduera zientifikoaren gaineko azterketa kuantitatiboak egiten dituzte, herrialdearen produkzio zientifikoa ezagutzeko eta politika zientifikoak diseinatzeko. Euskal Herrian ez dago horrelako azterketak egiteaz arduratzen den erakunde edota ikerketa-talderik. Gure egoeraren arrazoi nagusia egiturazkoa da, Euskal Herrian Bibliotekonomia eta Dokumentazio arloko ikasketak egiterik ez dagoelako. Lehen UPV/EHUK masterra zuen, baina azken urteotan ez du eskaini. Ez da kasualitatea, Espainian, azterketa bibliometriko eta produkzio zientifikoaren ebaluaziorako tresnak garatu dituzten erakundeak, unibertsitateak edo goi mailako ikerkuntza zentroak izatea. Adibidez Granadako Unibertsitateak Bibliotekonomia ikasketak ditu (diplomatura, lizentziatura eta doktoregokoak) eta honako proiektuak garatu ditu:

- *IN-RECS: Índice de Impacto, Revistas Españolas de Ciencias Sociales* (<http://ec3.ugr.es/in-recs/>). Berriki indize honen baitan atal bat ireki da egileen generoa (gizon/emakumeak) bereizten duena (<http://ec3.ugr.es/in-recs/indicadoresgenero.html>).
- *IN-RECJ: Índice de Impacto, Revistas Españolas de Ciencias Jurídicas* (<http://ec3.ugr.es/in-recj/>)
- *CopalRed: Análisis de las Redes Científicas y Técnicas* (<http://ec3.ugr.es/copalred/>)

- Ikertzaileentzat begira prestatutako *MPI: Mi Perfil Investigador* (<http://www.accesowok.fecyt.es/mpj.html>).

Halaber, Granadako Unibertsitateak, Espainiako beste unibertsitate batzuekin *SCIMAGO Research Group* sortu du. Taldea bi proiektu garrantzitsu garatzen ari da: *SJR: SCImago Journal & Country Rank* (<http://www.scimagojr.com>) eta *Ri<sup>3</sup>: Ranking Iberoamericano de Instituciones de Investigación* (<http://investigacion.universia.net/isi/isi.html>).

Ikusten denez, unibertsitatea faktore klabea da arlo baten garapenean. Aspaldi P. Gartziak eta G. Luzuriagak ohartarazi zuten Bibliotekonomia arloko ikasketa unibertsitario ezak zekartzan kalteez. Bi ikertzaileok biblioteken katalogo elebidunak aztertu zituzten, euskal bibliotekari askoren katalogazio elebidunarekiko eszeptizismoa kritikatu. Halako jarreraren atzean egon zitezkeen faktore desberdinen artean Euskal Herrian Bibliotekonomia arloko unibertsitate ikasketa eza, eta kanpoan formatu beharra aipatzen zuten<sup>11</sup>. Beraz, Bibliotekonomia eta Dokumentazio arloko ikasketa unibertsitariorik ez dagoenez, arlo honi buruzko gogoeta teorikoak eta martxan jarritako proiektuak Euskal Herrian oso urriak dira, bai katalogazio arloan, bai bibliometria arloan ere.

Egiturazko arazoak alde batera utzita, gai honen inguruan argitaratutako lanak aipatuko ditugu. Euskal Herrian, produkzio idatziaren gaineko azterketa kuantitatiboak bi motatakoak dira: batetik, erdaldunek egindakoak, eta bestetik euskaldunek egindakoak. Bakoitzak informazio iturri desberdinak erabili izan dituzte, eta ondorioak ere oso desberdinak izan dira. Erdaldunen azterketa bibliometrikoek Euskal Herriko eremu geografiko edota unibertsitate jakin baten produkzioa aztertzen dute. Bertan, nagusiki erdarazko produkzioa aztertzen da eta noizik behin euskarazko produkzioaren gaineko datuak aurki daitezke. Luis Morenok 1995-2000. urteen arteko EAEko

---

<sup>11</sup> Bibliotekonomia eta dokumentazio arloko Ikasketa unibertsitarioei buruz P. Gartziak eta G. Luzuriagak hauxe diote: "... gaur egun, bibliotekonomiako lizentzia bederatzi unibertsitate desberdinetan lor daiteke, eta diploma beste hiruzpalautan, hots, tradizio unibertsitario oso ahula duten lekuetan ere (Extremadura, A Coruña, etab.), salbuespen aipagarri batekin: Hego Euskal Herria" (Gartzia eta Luzuriaga, 2000: 85). Adibidez, Katalunian hiruburuetak unibertsitate handietan aipatutako karrera egin daiteke, baita Vic hirian dagoen unibertsitatean ere. Vic-eko unibertsitateak, 3.000 ikasle eta 200 irakasle inguru dituena, Bibliotekonomia eta dokumentazio arloko diploma eta lizentzia ematen ditu katalanez.

produkzioa zientifikoa ikertzeko ISiko datu-baseak erabili zituen eta EAEn ekoizitako ingelesezko produkzioa aztertu du. Bere aurretik F. Llerak, beste ikertzaile batzuren laguntzaz, 1994-1998. urteetako UPV/EHUko ikerkuntzaren analisi bat egin zuen. Bertan aztertzen zen UPV/EHUko kideen Giza eta Gizarte Zientzietako arloko produkzioa zein zen. Kasu honetan euskarazko produkzio idatziaz aipamenak badiren arren, euskarazko produkzioaren gainean ematen diren datuak ez dira fidagarriak. Esate baterako Psikologia arloan F. Lleraren lanean 14 liburu aipatzen dira (imajinatzen dugu jatorriz euskaraz prestatutako liburuetaz zein itzulpen lanetaz ari dela), eta Inguma-n 8 baino ez daude. Halaber, arlo honetan euskaraz dauden artikuluei dagokionez, F. Llerak 48 zenbatzen ditu, eta Inguma-n 24 daude<sup>12</sup>.

Euskaldunen azterketa kuantitatiboak berriz, oro har, euskarazko produkzioa aztertzen dute. Hala ere, mota honetako azterketak, normalean ez dira propioki bibliometrikoak. Esate baterako Joan Mari Torrealdai 1977. urtetik aurrera euskal liburugintzari buruzko urteko produkzioaren azterketak argitaratu izan ditu *Jakin* aldizkarian, ez bairik gabe interesgarriak, baina ez direnak bete-betea bibliometrikoak. Halaber, P. Iztuetak zenbait azterketa kuantitatibo egin ditu gerraurreko egileen produkzioaz edota *Euzko-Gogoa* aldizkariaz, baina ez dira analisi bibliometrikoak<sup>13</sup>. EIREK (Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak) Bilbon 2005. urtean antolatutako Euskarazko Unibertsitate-Liburuen I. Erakusketaren kariaz, Iñaki Zabaleta eta Angel Bidaurrezagaren zuzendaritzapean batzorde zientifiko batek unibertsitate liburuaren azterketa kuantitatiboaren gaineko txostena prestatu zuen: *Erakusketako liburuaren datu-baseak arloka eta horien emaitza kuantitatiboak (1990-2005)*<sup>14</sup>. Bertan aztertzen dira 1990-2005. urteen artean 10 argitaletzek<sup>15</sup> kaleratutako 340 obra, liburu zein itzulpen. Bilketa horretan abiapuntu moduan ez zen Inguma datu-basea hartu, eta ondorioz liburuaren zerrenda ez dago guztiz osatuta. Esate baterako Filosofiaren esparruan ezinbestekoa da kontuan hartzea Klasikoak bilduma, 1990. urtean sortua. Horren ondorioz, Inguma datu-basean 1.332 obra daude erregistratuta 1990-2005 eperako, eta EIREren lanean soilik 340. Horretaz gain, EIREkoen katalogazioa ez dago ondo egina.

---

<sup>12</sup> (Llera eta beste, 2001: 27 eta 31)

<sup>13</sup> (Iztueta, 1993 eta 2001)

<sup>14</sup> (Zabaleta & Bidaurrezaga, 2005)

<sup>15</sup> EIREK aintzat hartutako argitaletxeak honako hauek izan ziren: Deustuko Unibertsitatea, Elhuyar, Eusko Ikaskuntza, Jakin, Lanki (MU), NUP, OEE, UEU, UPV/EHU, eta Utriusque Vasconiae.



Esate baterako jatorriz euskaraz prestatutako lan gisa agertzen diren obra batzuk, itzulpenak dira. Kasu honetan ikusten denez, Euskal Herrian Dokumentazioak, diziplina zientifiko gisa duen egitura ahul eta ibilbide laburraren ondorioz, proiektu asko borondate onean oinarritzen dira, baina proiektu dokumental gisa ez dute heldutasun nahikorik.

Azkenaldian, Inguma datu-basean oinarritutako bestelako azterketak, oraingoan bai bibliometrikoak kontsidera daitezkeenak, prestatu dira<sup>16</sup>. Aipagarriena dudarik gabe UEUK UPV/EHUREn Euskara Errektoreordetzaren eskariz prestatutakoa da: *Unibertsitate mailako euskarazko ikasmaterialaren azterketa 1995-2005*<sup>17</sup>. Errektoreordeak txosten hori erabili zuen unibertsitateko Plan Gidaria prestatzeko.

### 2.1.2. Ebaluazioa

Bibliometriak zientzia eta zientzialariak aztertzen dituen neurrian, bibliometriaren erabilerarik ohikoena ebaluazioa da. Horregatik, zientzia zein zientzialarien ebaluazioan, adierazle bibliometrikoak erabili ohi dira. Hala ere, gaur egun gero eta gehiago dira ebaluaziorako, iturri bibliometrikoez gain, bestelako informazio iturriak erabili behar direla defendatzen dutenak, hau da, ebaluazioak adierazle kualitatiboekin osatu beharra aipatzen dutenak. Esate baterako, Joan Bellavista-k zientzialariei sakoneko elkarrizketak egitea proposatzen du<sup>18</sup>.

Ebaluazioa munduko herrialde garatuenetan erakundeek egiten dute, hots, instituzionalizatuta dago. Espainian ANECAk egiten du, salbu eta agentzia propio sortu duten erkidego autonomoetan. EAEn esaterako, UNIQUAL (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia) dago, Nafarroan berriz, ebaluazioak ANECAk egiten ditu. Ebaluazioaren helburu nagusiak bi izan ohi dira:

“Se puede decir que, a este nivel, la evaluación de las actividades científicas tiene dos objetivos, fundamentales. Por una parte tiene la misión de distribuir, de la mejor manera posible recursos existentes entre los investigadores y las instituciones. Por otra, servir de ayuda en la toma de

---

<sup>16</sup> (Isasi, 2004; Aizpuru, 2002 eta 2005)

<sup>17</sup> (Askoren Artean, 2006)

<sup>18</sup> (Bellavista eta beste, 1997: 19 eta hurrengoak)

decisiones de política científica tales como el establecimiento de prioridades, el lanzamiento de nuevos programas de investigación y la reorientación o terminación de programas existentes”<sup>19</sup>

Beraz, bibliometria oso lotuta dago ebaluazioarekin eta ebaluazioa berriz, sarri lotuta dago errekonozimenduarekin. Erakunde, zientzialari, ikerketa talde eta abarrek egindako lanaren errekonozimenduarekin, hain zuzen ere. Izan ere, adierazle bibliometrikoak iragana neurtzen dute, jada egindako lana. Horregatik, ebaluazioan oso erabilgarriak dira, baina ez dute gehiegi balio prospektiba egiteko, geroko oinarritzko lan ildo batzuk markatu ditzakete, besterik ez.

Edozein modutan, analisi bibliometrikoak eta ebaluazioak harreman zuzen eta estua izan arren, bi jarduera oso diferente dira, horregatik hain zuzen ere, ebaluazioari buruz ez gara hemen arituko. Hala ere, ezin da ukatu ebaluazioak berebiziko eragina izan dezakeela produkzio zientifikoan eta egileengan, eta bereziki euskarazko produkzioan, beronen hazkunderan edota geldialdian. 2006. urtera arte EAEn ez zen ebaluazio agentziarik sortu eta beraz, oraindik ikusteko dago egile euskaldunen ebaluazioak zein ondorio ekarriko duen. Argi dagoena da, duela gutxira arte, Espainiako agentziaren ebaluazioak (ANECA) ez zuela egile euskaldunen euskarazko produkzioa ebaluatzeko irizpide egokirik, aplikatzen zituen irizpideak ez zutelako zer ikusirik goi mailako euskararen egungo egoerarekin<sup>20</sup>. Hau da, Espainiako edo Frantziako agentzien irizpideak estatuon azpiegitura zientifiko eta hizkuntzaren egoeraren arabera dira eta ez dute kontuan hartzen euskararen egoera: hizkuntza normalizatu berria dela eta azpiegitura gehiena unibertsitatetik kanpo kokatuta duela, kultur elkarrean hain zuzen ere. Ohar egitekoa da, Espainiako edo Frantziako ikerketa eta ikertzaileen lana ebaluatzeko ez direla AEB eta Erresuma Batuko irizpideak aplikatzen. Horregatik ebaluazioak, hizkuntza egoeraren arabera izan beharko luke,

---

<sup>19</sup> (Bellavista eta beste, 1997: 51)

<sup>20</sup> Ikus adibidez UPV/EHU Zientzia Fakultateko Fernando Mijangosen lekukotza: “Zientzi Fakultateko kimika lizentziaturaren kalitate-egoera aztertzeko Madriletik etorritako Aditu-Batzordeak emandako txostenean ondoko hau irakurri behar izan nuen literalki: De la documentación que nos fue entregada hemos examinado el número de los Departamentos de Química. Hemos excluido aquellas publicaciones de las que, por el carácter local de las revistas en que vieron la luz, es razonable considerar que no han tenido difusión internacional. Aditu Batzordeak egindako txostenari erantzuna eman nion bide ofizialetik, eta oraindik ere haren erantzunaren zain nago. Holan erantzuten nien besteak beste: nire curriculum euskalduna erabat baztertuta utzi zutela euskaraz egin zegoelako eta irakasle funtzionarioa ez nintzelako; eta hori esateaz gain, beste galdera bat bota nien: ¿Son acaso las revistas de Plásticos Modernos (CSIC), o Anales de Química (Real Sociedad Española de Química), con un índice de impacto cercano al cero consideradas locales?” (Mijangos, 2001: 150)

eta neurri handian gaur egun jada horrela egiten da, adibidez Frantzian eta Espainian, nahiz eta oraindik ez den aitortzen.

Azterketa bibliometriko gehienak ISIko datu-baseekin egiten direnez, ebaluazioak ere informazio iturri horretara asko makurtu dira. Hala ere, ISIko datu-baseak aldekoiak dira hizkuntzaren zein jakintza-arloaren ikuspegitik. Izan ere, ingelesez egindako produkzioa eta oinarrizko ikerketa (Kimika, Fisika, Natur-Zientziak eta abarren) lehenesten dute. Herrialde garatuenak eta jakintza-arlo zehatz batzuk gainadierazten ditu. Beraz, ingelesez ekoizten ez dena, hiztun askoko hizkuntzetan egindakoa barne, edota beste jakintza-arloetan ekoizitakoa, Giza eta Gizarte Zientzietakoa batik bat, erabat baztertuta daude.

Azken urteotan herrialde txikiak, baztertutako jakintza-arlo batzuetako adituak eta oro har modu batera edo bestera ISIko datu-baseetan sartzerik ez dutenak, informazio tresna propioak garatzen ari dira<sup>21</sup>. Espainian esate baterako, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak RESH (*Revistas Españolas de Ciencias Sociales y Humanas: valoración integrada e Índice de citas*, <http://resh.cindoc.csic.es/>) sortu du. Sortu eta garatzen den tresna bakoitzak bere hizkuntza aukera ezartzen du. ISIkoek ingelesarena eta Espainiakoak, gaztelaniar aldizkari eta egileena. Ane Larrinaga ikertzaileak euskal kulturgileei buruzko bere doktorego-tesian honakoa zioen:

“... akademiko euskaldunek mendeko kokapenak dauzkate unibertsitate esparruan, euskarak ez baitu eskuratu baliabide legitimoaren estatusa esparruan lehiatzeko. Esparruaren arau nagusiak gaztelaniaren alde jokatu du. Hartara, lehiatzeko sistema meritukratikoaren barruan arau horren arabera karrera akademikoak saritzen dira”<sup>22</sup>

<sup>21</sup> Adibide moduan bi kasu oso diferente aipatuko ditugu: Brasil, Amerikako herrialde handi bat, eta Kroazia, Europako herrialde txiki eta gaztea. Biek ISLa zientzia eredu jakin baten aldekotzat dute eta bestelako bide batzuk jarraitzen dituzte, herrialdearen produkzioaren azterketak egiteko. Brasildar egile batzuk, brasildar produkzioa aztertzeko, ISLa baino lehenagokoa den Pascal izeneko argitalpen zientifikoen bilduma erabiltzen dute. Nahiz eta onartzen duten, “Idealmente, os indicadores bibliométricos deveriam ser computados a partir de uma base multidisciplinar específica de cada país, para quantificar os feitos científicos lá considerados como relevantes. No caso de Brasil, não existe ainda uma base bibliográfica com a representatividade necessária...” (Mugnaini eta beste, 2004: 125). Kroazian berriz, tresna propioak garatzen hasi dira, bertako produkzio zientifikoa ezagutzeko (adibidez, ISIan kroaziar aldizkarietarako produkzioaren % 5,6a soilik jasotzen da). Hala CROSBi (*Croatian Scientific Bibliography*) izeneko tresna sortu dute (Stojanovski, 2003). Bertan kroaziarrek egindako dokumentazio zientifikoa biltzen dute: liburuak, liburu atalak, testuliburuak, artikulak (argitaratutakoak, bidalitakoak eta oraindik onartu gabeak), paper edo eztabaida dokumentuak (adb. hitzaldietako dokumentuak), tesiak, tesinak, eta bestelako lan akademikoak, patenteak, ikerkuntza-proiektuak.

<sup>22</sup> (Larrinaga, 2007b: 315)

Euskarazko produkzioa ebaluatzeko gaur egun ez dago ISI edota RESH modukorik, horrek euskarazko goi mailako ekoizpenean eragin ditzakeen kalteekin. Izan ere, tresnak garatu ezean, ebaluaziorako irizpideak ere ez dira lantzen, beraz, euskarazko produkzioa ebaluatzeko tresneria metriko eta kontzeptualik ez dago. Horren ondorioz zaila da modu egokian euskarazko produkzioa ebaluatzea. Halako gabezia batek eragin dezake, besteak beste, *brain drain* linguistikoa<sup>23</sup>. Hots, egile euskaldunak inongo balio edo aitortzarik ez duen euskarazko produkzioa etetea, ingelesez, edo nola halako aitortza duen hizkuntzaren batean ekoizteko, gaztelaniaz ekoizteko adibidez, nahiz eta nazioarte mailan eragin gutxiko hizkuntza den.

## **2.2. Hizkuntzak eta jarduera zientifikoa**

Eugene Garfield estatubatuarra, kimikaria formazioz, 1960an jaiotako ISIaren (*Institute for Scientific Information*) sortzailea, ingelesa zientziarako *lingua franca* izatearen ideologo nagusia izan da. 60ko hamarkadan bertan egin zituen zientzia arloko hizkuntzen erabileraren gaineko lehenengoetariko neurketak –datuak oso eskura zituen berak sortutako institutuak biltzen zituelako (*Index Chemicus*, *Science Citation Index* eta abar)–. 60ko hamarkadan jada ohartu zen Kimikaren arloko argitalpenen erdia ingelesez zeudela eta gainera ingelesaren erabilera hazten ari zela<sup>24</sup>. Orduan hasi zen defendatzen ingelesa zela nazioarteko zientzia hizkuntza<sup>25</sup>.

E. Garfield-en ustez beharrezkoa zen zientziarako *lingua franca* bat egotea, baina ez artifizialak, Volapuk edo Esperantoa modukoak, baizik hitz egiten zen bat. Bere ustez, *lingua franca* horrek ingelesa izan behar zuen, bere institutuak sortutako datu-baseak argi erakusten zuelako Bigarren Munduko Gerraz geroztik, ingelesa gero eta gehiago erabiltzen zela: “I don’t believe that English is the language most suited to science because it is the *best* language. It is simply the language that scientist as a

---

<sup>23</sup> Ideia Ekialdeko Europan eta oro har lurralde azpigaratuetan AEBra edo herrialde garatuetara gertatzen ari den buru ihesa edo *brain drain*etik atera dugu, baina gure kasuan ez luke aldaketa geografikorik adieraziko, hiztun ihesa baizik.

<sup>24</sup> (Garfield, 1964)

<sup>25</sup> (Garfield, 1967)

whole now best understand.”<sup>26</sup> Une hartan, ingelesaren ostean errusiera zen zientzia arloan gehien erabiltzen zen hizkuntza. Errusiera ez zen edonolako hizkuntza, garai hartako munduko potentzia batek, Sobietar Batasunak eutsitako komunitate zientifiko sendoa zuen, alfabeto propioa erabiltzen zuena, zirilikoa, mendebaldekoentzat ulergaitza zena ez soilik testu idatziaren aldetik, baita formula eta datuen aldetik ere (frantsesarekin, adibidez, gertatzen ez zena). Ingelesa beraz, gehien erabiltzen zen hizkuntza izateaz gainera, bere alfabetoa mendebaldeko zientzialarien artean zirilikoa baino hedatuago zegoen. Are gehiago, E. Garfield-ek proposatzen zien errusiarrei ingelesez idazteko edo gutxienez, errusieraz eginez gero, erromatar alfabetoa erabiltzeko<sup>27</sup>.

70eko hamarkadan argitaratutako azterketa bibliometrikoetan E. Garfield-ek erakutsi zuen, ingelesaren erabilera handiagoa izateaz gainera, ingelesez argitaratutako lanek aipu gehiago lortzen zituztela, beste hizkuntzetakoek baino, hala nola, frantsesak, italierak<sup>28</sup> edo alemanak baino (errusieraren kasua aparte utzita)<sup>29</sup>. Kanadako kasua aztertu zuen, bertan hizkuntza ofizialak bi direlako: frantsesa eta ingelesa. Ikusi zuenez, frantsesez argitaratutako lanen % 39ak aipuak jasotzen zituzten, eta aldiz ingelesez egindakoen % 64a aipatua izaten zen<sup>30</sup>. Horregatik guztiagatik, E. Garfield-ek frantsez hitzun zientzialariei, ez soilik Kanadakoei, proposatzen zien ingelesez idatz zezatela atzerriko aldizkarietan<sup>31</sup>. Kritika ugari jaso zituen, bereziki frantsesengandik, baina E. Garfield-en ustez, zientzialariek ingelesa erabiltzea ez zen nazio hizkuntzarentzat mehatxua. Argi planteatu zuen galdera: zer lehenetsi behar da, nazio hizkuntzaren sustapena edo nazioaren aitzindaritzza (ingelesez)?<sup>32</sup> Egia esan, honelako sasi planteamenduek ez dituzte benetan bi aukera planteatzen. Ordurako E. Garfield-ek bere lanetan ingelesari buruz jada ez zuen esaten nazioarteko komunikazio zientifikoaren esparruan ingelesa zela hizkuntzarik erabiliena, *lingua franca* zela baizik. Gaur egun SCIko datuetan oinarrituz honako erradiografia eskaintzen digu:

<sup>26</sup> (Garfield, 1974: 173) [kurtsibak jatorrizkoan]

<sup>27</sup> (Garfield, 1975: 279)

<sup>28</sup> (Garfield, 1977)

<sup>29</sup> (Garfield, 1978 eta 1979)

<sup>30</sup> (Garfield, 1979b: 249 eta Garfield, 1979a)

<sup>31</sup> (Garfield, 1978: 503)

<sup>32</sup> (Garfield, 1989)

“English has become the lingua franca of science. This trend began after World War II and has accelerated over the past twenty years. For 1997, 95 % of the articles indexed in the SCI were published in English. Only 5 % of the SCI-indexed are published in Chinese, French, German, Italian, Japanese, Spanish, and Russian, contributed only 5 %. Today European and other non-US scientists publish more in English than in any of these languages”<sup>33</sup>

Ingelesa zientzia eta teknikarako *lingua franca* dela esatea ez da guztiz zuzena. *Lingua Franca* berez Mediterraneo aldean sortutako *pidgin* bat zen: “Mediterraneo aldean mende luzez erabili zen *Lingua Franca* edo *Sabir* mintzairak hizkuntza erromaniko batzuk, Arabiera eta Turkiera nahasten zituen XIX. mendean desagertu arte”<sup>34</sup>. *Pidginak*, era naturalean sortzen dira herrien arteko merkataritza beharrak asetzeko. Beraz, *pidginak* harremanetan dauden herrien hizkuntzen nahasketak dira, elkar ulertzeko erabiltzen dira eta horregatik gramatika simple eta hiztegi mugatua dute, ez dutelako beste helbururik. Hau guztia kontuan hartuta, ez dirudi ingelesa *lingua franca* edo *pidgin* motako hizkuntza bat denik, ingelesa ez baita hizkuntzen nahasketatik sortutako hizkuntza berria, ezta merkataritza harremanetara mugatzen ere, eta ez da hizkuntza sinplea ez lexikoari, ez gramatikari dagokionez. *Lingua franca* ingelesaren kasuan eufemismo bat da, ingelesak zientzia eta teknika arloan ezartzen duen uniformizazio linguistikoa estaltzeko.

Ingelesaren erabilera sarri justifikatzen da komunikazio zientifikorako hizkuntza unibertsal bat behar dela esanez kideen arteko elkar ulertzea ahalbidetzeko. Ikusi dugunez, gaur egun hizkuntza hori ingelesa da. Baina ingelesa ez da hizkuntza bakar bat, hizkuntzalariek erakutsi dutenez, ingeles barietateak badira<sup>35</sup>, bai maila apalean bai goi mailako komunikazio esparruan:

“Gunnarsson (1996) has concluded on the basis of his own studies and the contrastive studies conducted by other scholar that texts in English produced in different settings such as England, Australia, the USA, Germany, India, Korea, Thailand, China, Japan, etc. show differences in textual patterns that can be attributed to differences in academic culture and national tradition. Thus, the contrastive studies of texts do not support the hypothesis of uniform international scientific language”<sup>36</sup>

---

<sup>33</sup> (Garfield, 1998)

<sup>34</sup> (Xamar, 2001: 51)

<sup>35</sup> (Bhatt, 2001 eta Kachru, 1983)

<sup>36</sup> (Dua, 2001: 112)

Zernahi gisaz, eta kritika alde batera utzita, gaur egun ingelesa nazioarteko zientzia eta teknologi mailako jardunean beste guztien artean gailendu den hizkuntza da.

Erabilera eta eragin handiko jarduera zientifikoan ingelesa gailendu den arren, horrek ez du esan nahi ingelesa zientzia transmititzeko hizkuntzarik aproposena denik –ezta txarrena denik ere–, hizkuntza guztiak, behar bezalako lanketarekin edozein gai tratatzeko balio dutelako. Beraz, gaur egun ingelesak duen lehentasuna azaltzeko arrazoiak ez dute izaera linguistikoa, edo ez dira hizkuntzaren ezaugarrien baitakoak, ekonomikoak, politikoak eta historikoak baizik<sup>37</sup>.

Ingelesaren gaur egungo nagusigoa nahiko berantiarra da. XX. mendearen lehenengo erdialdean frantsesa, alemana eta ingelesa erabiltzen ziren komunikazio zientifiko arloan. Bigarren Mundu Gerraz geroztik, ingelesa gailentzen hasi zen, bai botere ekonomiko handiena zutenak Erresuma Batua eta AEB zirelako, bai gerra arrazoiengatik<sup>38</sup>. Beraz, mundu gerraren ostean, zientzia mailan ingelesa gero eta gehiago erabiltzen hasi zen, bereziki 70eko hamarkadatik aurrera. Herrialde batzuk lasai asko erabiltzen hasi ziren ingelesa, zirkuitu handiagoetan sartzeko aukera ematen zirelako. Beste batzuk berriz, Frantziak adibidez, beraien hizkuntzaren estatus galeraren aurrean, ingelesaren aurkako jarrera hartu zuten:

“Para poner límites a esta evolución en septiembre de 1981 el ministro Chevenaux publicó una orden ministerial en la que se recordaba a los científicos franceses su obligación de escribir en francés en las revistas científicas publicadas en Francia y de intervenir en francés en los congresos internacionales en los que el francés estuviese reconocido como lengua oficial y de exigir que el francés figurase entre las lenguas oficiales cuando el congreso se celebrase en Francia o en un país de lengua francesa”<sup>39</sup>

Frantziar gobernuak neurriak hartu arren, ingelesaren indarra erabatekoa zen eta 1989. urtean Pasteur Institutuaren aldizkariaren izena *Annales de l'Institut Pasteur* izatetik *Research in Microbiology* izatera igaro zen.

---

<sup>37</sup> Ingelesaren nagusigoaz eta beronen ondorioez beste hizkuntzentzat U. Ammon-en lana kontsultatu (Ammon, 2001)

<sup>38</sup> (Siguan, 1996: 128)

<sup>39</sup> (Siguan, 1996: 137)

Gaur egun ingelesak eta ezagutza zientifikoak duten lotura, garai batean Europan grezierak eta latinak eduki zuten. Komunikazio zientifikoak (ezagutzaren transmisioak) eta hizkuntzen aniztasunak ez dute inoiz harreman orekaturik izan. Gaur egun, jardun zientifikoan erabiltzen diren hizkuntzen panorama hau da: ingelesaren lehentasuna/gailentzea beste edozein hizkuntzaren gainean, bai estatu handi eta milioika hiztun dituzten hizkuntzen gainean (Alemania, Frantzia, Espainia<sup>40</sup>...), bai herrialde ertainetako hizkuntzen gainean (Danimarka, Hungaria, Txekia, Suedia...) zein estatu txikiak eta hiztun gutxiak diren herrialdeen gainean (Kroazia<sup>41</sup>, Islandia...). Gehiago edo gutxiago aipatutako herrialde guztietan zientzia sisteman ingelesaren lehentasunaren inguruan kezka dokumentatu dugu. Are kezkatuago daude Letonia, Lituania, Estonia, Quebec edota Katalunia moduko nazioak, beraiek hizkuntza nagusietako gutxiengoak dituztelako (errusieradunak, ingelesdunak, gaztelaniadunak...).

Honek guztiak zera erakusten du, komunikazio zientifikoak herrialdeen arabera, hizkuntza problematika desberdina duela, herrialde guztietan hizkuntza eta hiztunen egoera eta estatusa ez baita berdina. Alde batetik, badaude herrialde handiak Espainia, Frantzia edo Alemania modukoak ingelesarekin ari direnak konkurrentzian. Bestalde, badaude hiru aldetako hizkuntza jokoa duten hiztunak:

- Estatuko nazio hizkuntza, beste herrialde bateko hizkuntza nagusi bat, eta ingelesa lehian dituztenak. Adibidez, Sobiet Batasunaren baitan edo inguruko orbitan egon ziren herrialdeetan (Lituania, Letonia, Estonia, Ukraina, Bielorrusia, Georgia, Azerbaijan, Armenian eta abar), nazio hizkuntza, errusiera eta ingelesa dituzte.

---

<sup>40</sup> 1979an jada J. R. Pérez Álvarez-Ossoriok honela irudikatzen zuen egoera: "...estamos aquí, en mi opinión, en presencia de un clásico círculo vicioso: nuestros científicos, a quienes lógicamente interesa la máxima difusión de sus trabajos, eluden publicar en nuestras revistas, por considerarlas de no mucha calidad y escasa difusión; y por otra parte, si nuestros propios científicos de más valía no publican en nuestras revistas, difícilmente se podrá conseguir la mejora de la calidad y difusión de las mismas" (egilearen lanaren 2003ko berargitalpenetik atera dugu aipua). Bestalde J. Gil eta C. Luciano-k hogeita hiru urte beranduago egoera berdintsu irudikatzen dute, ingelesa gailen eta gaztelania bazter: "Por este complejo de internacionalidad, que obliga a quien lo padece a escribir en la lengua del imperio para lograr el certificado de existencia científica, a modo de auto habeas corpus afirmativo, se niega a los psicólogos y otros profesionales de habla hispana, leer artículos de calidad en su lengua materna, debiendo hacerlo necesariamente en la de Bill Clinton" (Gil & Luciano, 2002: 442)

<sup>41</sup> M. Siniša kroaziar ikertzailearen ustez, Kroaziako produkzio zientifikoa ISiko datu-baseetan aurki daitekeen ingelesez egindako kroaziar produkzioa baino oparoagoa da (Maricic, 1998)



- Estatu gabeko nazio hizkuntza, estatuko hizkuntza nagusia, eta ingelesa lehian dituztenak. Adibidez, euskara, galiziera, eta katalanaren lurraldeetan gaztelaniaren indarra izugarria da eta ingelesaren presioa nabarmena produkzio zientifikoaren arloan.

Bestalde, badira Belgika, Suitza edo Finlandia moduko kasuak. Hiruretan, estatuaren lurralde bakoitzean hizkuntza ofiziala bana dago (Belgikan nederlandera, frantsesa eta alemana daude, Suitzan, alemana, frantsesa, italiara eta erromantxera, eta azkenik, Finlandian, suomiera eta suediera) eta horien alboan, ofiziala izan ez arren, ingelesa ere ikasi ohi dute<sup>42</sup>.

Laburbiltzeko, Mendebaldean eta bereziki Europan, ingelesaren presioa oso handia da jarduera eta komunikazio zientifikoaren alorrean<sup>43</sup>. Ingelesa nazioarteko mailan gailentzen den hizkuntza da. Hortik abiatuta zientzialari eta ikertzaileen egoera ingelesaren aurrean askotarikoa da. Modu orokorrean gure ustez, honetara laburbil daiteke:

- Berezko ingeles hiztunak: gehienetan elebakarrak direnak (AEB, Erresuma Batua...). Multzo honetako ikertzaileek erraztasun handienak dituzte: hizkuntza ikasteko, hezkuntza sistema osoa beraien hizkuntzan jasotzeko, eta azpiegitura zientifikoa aldekoa daukate. Adibidez, ingelesez

---

<sup>42</sup> Ez ditugu aipatuko estatu gabeko eta hizkuntza ia normalizatu gabeko hiztunen kasua. Adibidez, sorabieraren kasua Alemanian edota frisieraren kasua Herbehereetan eta Alemanian.

<sup>43</sup> Europatik kanpo, eta iragan koloniala izan duten herrialdeetan (adibidez Indian edo Afrikan) ingelesaren presioa are handiagoa da eta hizkuntzen egoera problematika desberdina da Europarekin alderatuta. Indiaren kasuan, bertako hizkuntza aniztasuna izugarria da. 1991ko erroldan adibidez 10.000 hiztun baino gutxiagoko 114 hizkuntza zeuden. Indian, hezkuntza sisteman adibidez, ingelesa erabat gailenduta dago eta, *The Madras Law Journal Reports* aldizkarian 2000. urtean kaleratutako azterketa lan baten arabera, Tamil hizkuntzan jasotako hezkuntzak ikasleen karreretan eragin (negatiboa) du (Mallikarjun, 2004). Afrikan berriz, egoera oso bestelakoa da. Afrikan bertako hizkuntza gutxi dago estandarizatuta, eta are gutxiago dira hezkuntzan erabiltzen direnak, eta bat bera ere ez da unibertsitatean erabiltzen, unibertsitatean kolonizazio garaiko hizkuntza nagusituak erabiltzen direlako: "More than half a dozen languages are currently in use in African higher education institutions: Africaans, Arabic, English, French, Italian, Portuguese, and Spanish. Except for Arabic (and, arguably, Africaans in South Africa), no native language, *sensu stricto*, is used as an instructional medium in African higher learning institutions. Overall, English, French, and, to some extent, Portuguese remain the major Western languages of instruction in African institutions of higher learning" (Teferra, 2003b: 111)

argitaratutako aldizkarietan beraiek dira gehien argitaratzen duten egileak, beste hizkuntzetako hitzunik baino askoz gehiago<sup>44</sup>.

- Estatu hizkuntzen hitzunik: estatu hizkuntza handia (adb. alemana) zein txikia (adb. islandiera, suomiera, eslovakiera...) duten hitzunik eta ingelesa ikasten dutenak. Lehenengo kasuan egoera diglosikoak ez du arriskuan jartzen estatuko hizkuntza, bigarrenean berriz bai<sup>45</sup>, hitzunen komunitatea oso txikia delako, eta ekoizpen zientifikoa sarri ingelesez egiten da, bertako hizkuntzaren kaltetan<sup>46</sup>.

Estatu hizkuntza handi bateko hitzunik (alemana, frantsesa, gaztelania...), normalean bietan dute produkzio zientifikoa: bertakoan eta ingelesez. Hala ere, estatuko hizkuntzan eraikitako barne komunikazio zirkuitua nahikoa handia denez, Giza eta Gizarte Zientzien arloan bereziki, maiz produkzio guztia edo gehiena hizkuntza bakar horretan duten ikertzaileak asko dira. Alemaniaren kasuan esaterako, Bigarren Mundu Gerrara arte, alemana nazioarteko zientzia hizkuntza prestigiotsua eta oso erabilia izan zen, eta gaur egun 80 miloi hitzun baino gehiago ditu, beraz, bada barne kontsumo ahalmenik. Espainian egoera antzekoa da, nahiz eta bilakaera desberdina izan duen: gaztelania ez da izan nazioarteko zientzia hizkuntza, baina frankismo garaian ezarritako elite akademikoaren jarraipenak diktadura ostean, gaztelaniaren gainean eraikitako zientzia sistema eredu autarkikoa mantendu du azken urteotara arte. Beraz, unibertsitate irakasle askoren produkzio hizkuntza bakarra gaztelania izan da.

---

<sup>44</sup> (Swales, 1985)

<sup>45</sup> “The spread of English in most European countries is creating a diglossic situation in which English is gradually taking over some of the functions of the national languages. This has serious implications for small countries such as Finland, Norway, Denmark, Austria, Netherlands, etc. that are showing a higher degree of language shift due to the spread of English” (Dua, 2001: 113)

<sup>46</sup> (Sandelin, 2003)

- Hizkuntza koofizial gutxituen hiztunak<sup>47</sup>: kasu honetan, hizkuntza gutxitua estandarizatuta eta hezkuntza sisteman txertatuta dago, haur hezkuntzatik hasi eta unibertsitate mailaraino. Baina hiztunek beren mintzairaz gain, hezkuntza sistemaren bitartez beste bi hizkuntza ikasten dituzte: estatuko hizkuntza nagusia eta ingelesa (adb. euskaldunek, katalanek eta galizieradunek)<sup>48</sup>. Kasu hauetarako J. Maurais-ek, D. Bernardó soziolinguista katalanak proposamenari jarraituz, *triglosia* kontzeptuaren erabilera ekarri izan du<sup>49</sup>. Zernahi gisaz, egoera honetan dauden hiztunetako askok, estatuko hizkuntzari (frantsesa, gaztelania...) *lingua franca* papera ematen diote<sup>50</sup>, beraien ikerketaren emaitzak zabaltzeko erabiltzen dutelako. Noski, horrek eragin kaltegarria du hizkuntza gutxituarentzat, estatuko hizkuntza nagusiak erabilera esparrua zabaltzen duelako gutxituaren eremura. Kasu honetan galtzen ez duena hiztuna da, nola halako errekonozimendua eskuratu dezakeelako maila ertaineko estatuko komunitatetik eta ebaluazio sistematik.

Euskararen kasuan, atal historikoan hizkuntzaren azken urteotako estandarizazio prozesua zein izan den aipatu dugu, erregistro jaso nola finkatuz joan den eta euskara noiz eta nola sartu zen unibertsitatean. Horri esker, gaur egun euskarazko produkzio zientifikoa dago. Produkzio hori guztia Inguma datu-basean bilduta dago.

---

<sup>47</sup> Ekoizpen zientifikoaz ari garenez, ez ditugu aintzat hartzen hizkuntza estandarizatua ez dutenen kasuak.

<sup>48</sup> Europako hizkuntza gutxituen hezkuntza arloko egoeraren berri zehatza ikus Mercator Education Centre Regional-ek prestatutako txosten serieak. Hemen kontsulta daitezke: <http://www.mercator-education.org/research-projects/regional-dossiers/regional-dossiers> [kontsulta data: 2009-04-13]

<sup>49</sup> “La dominación actual del anglo-americano en el campo de la ciencia y de la tecnología ha llevado al sociolingüista catalán de nacionalidad francesa Doménech Bernardó a proponer, en el marco del X. Congreso mundial de sociología celebrado en la ciudad en México en 1982 la noción de triglosia para describir las nuevas relaciones que están estableciéndose entre las lenguas a nivel internacional: según este modelo explicativo, el catalán -u otro idioma minorizado- se situaría en lo más bajo del escalafón (basilecta, podría decirse, adoptando el término de los criollistas) y sería dominado sea por el francés sea por el español (teniendo aquí el rol de mesolectas) lenguas dominadas ellas mismas por el inglés (acrolecta)” (Maurais, 1993)

<sup>50</sup> (Roselló i Peralta & Boix-Fuster, 2005)

### **2.3. Informazio-iturriaren deskribapena: Inguma datu-basea**

Kapitulu honen oinarrizko informazio iturria Inguma datu-basea izan da eta bertan katalogatutako erreferentziak. Izan ere, Inguma Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea da eta goi mailako euskarazko produkzioaren azterketa bibliometrikoa egiteko informazio eskaintzen du. Hala bada, Inguma datu-basean euskarazko produkzio zientifikoa biltzeko eta sailkatzeko erabili diren kontzeptu eta irizpideak gure egin ditugu ikerketa lan honetan. Esan beharrik ez dago, azterketa honen emaitza abiapuntuko datu-basearen ezaugarriek baldintzatu dutela. Horregatik guztiagatik, Inguma-n bildutako informazioaren azterketa kuantitatiboa egiten hasi aurretik, datu-base beraren gaineko azalpena jasotzea argigarria izan daiteke ikergaiaren baldintzapenak eta mugak argi uzteko.

#### **2.3.1. Egitasmoaren deskribapena**

Inguma Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) 2000. urtean sortutako Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea da. Bertan, 1968. urtetik aurrerako unibertsitate mailako zientzia eta jakintza-alor bakoitzean euskaraz, ahoz eta idatziz, ekoitzi denari buruzko oinarrizko informazioa bildu eta eskaintzen da. Inguma-ren helburua Euskara Batuaren arauak (1968) finkatzen hasi zirenetik gaurdainoko produkzio zientifiko osoa jasotzea izan da, hots, unibertsitate mailakoa eta euskarazkoa. Beraz, Inguma datu-basea Komunitate Zientifiko Euskaldunaren oinarri diren produktuak eta egileak biltzen dituen egitasmoa da. Inguma-ren helburu nagusia euskal produkzio akademikoaren berri ematea bada ere, ez da bibliografia nazional bat, edo katalogo estandar baten tankerakoa. Inguma, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren oinarri diren euskarazko dokumentuak eta egile euskaldunak modu azkarrean ezagutarazteko tresna eraginkorra izateko asmoz sortu zen.

Datu-basea unibertsitate mailako produkzioa duten euskaldunek bizi duten sakabanaketa gainditzen laguntzeko sortu zen. Alde batetik, prestakuntza unibertsitarioa duten pertsona euskaldunak asko dira. Bestetik, beren lana modu erregularrean edo esporadikoan euskaraz egiten duten irakasle unibertsitarioak, edo bigarren

hezkuntzakoak zein profesional kualifikatuak toki desberdinetan barreiatuta daude: unibertsitateetan, goi-mailako hezkuntza zentroetan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, abokatu-bulegoetan, ospitaleetan eta abarretan. Beraz, profesional kualifikatuen artean dagoen elkar ezagutza eta komunikazioa oso urria da eta, urrun dago egoera normalizatua izatetik. Sakabanaketa egoera horrek eta unibertsitate mailako profesional kualifikatuen artean dagoen deskonexioak, gure ustez, eragin kaltegarria du euskal kultura eta hizkuntzaren garapenean.

Oinarrizko informazioa eskaintzeaz gain, Inguma-k Komunitate Zientifiko Euskalduna trinkotzea du helburu. Hortaz, egileen posta elektronikoak jasotzen dira izen-deiturekin batera, euskal komunitate zientifikoaren partaideen arteko ezagutza eta komunikazioa ahalbidetzeko ezinbesteko datua izan daitekeelakoan. Ondorio hau izan dezan, eta Inguma-ren erabilera publikoa ahalik eta zabalena izateko, datu-baseak Web formatua du. Atzipen zuzena, publikoa eta doanekoa eskaintzen du helbide elektroniko honetan: [www.inguma.org](http://www.inguma.org).

Arestian aipatu den moduan, Inguma proiektua 2000. urtean abiatu zen. Urte horretan UEUK bere produkzioa, hasiera-hasieratik, katalogatu zuen. Hurrengo urteetan, euskal kulturgintzan parte hartzen duten gainerako erakundeen produkzioa katalogatu zen Inguma-n. 2002. urtean programa ofizialen arabera, Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz emandako irakasgaien eta haien irakasleen datuak jaso ziren, baita unibertsitateotan euskaraz irakurritako doktorego-tesiak zein ikerkuntza-proiektuak ere. Lan hori burutzeko lankidetzak hitzarmenak sinatu ziren unibertsitateekin, esate baterako, UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzarekin eta Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatearekin. Bide beretik, 2003an UEUK eta Euskaltzaindiak, Akademiaren ahozko zein idatzizko dokumentuak Inguma datu-basean katalogatzeko, lankidetzak hitzarmena sinatu zuten.

Jada ia hamar urteko ibilbidea egin du Inguma-k eta datu-basea edukiz hornitu da, ia 30.000 dokumentu ditu eta 7.000 egile baino gehiago.

### 2.3.2. Katalogazio lanaren irizpide nagusiak

Inguma-ren oinarritzko unitateak hiru dira: egileak, dokumentuak eta erakundeak. Hiru unitate horiek elkarrekin erlazionatuta daude: komunitate zientifikoa osatzen duten *egileek* produzitzen dituzten *dokumentu* zientifikoak *erakundeen* baitan sortzen direlako.

#### 2.3.2.1. Egileak

Inguma datu-basean, egile deritzo ahoz edo idatziz unibertsitate mailako kultur produktua ekoitzi duen pertsonari. Egileak, unibertsitate mailako euskarazko ekoizpen baten gaineko jabetza publikoa aitortzen zaien pertsona indibidualak (adib. Andres Urrutia Badiola)<sup>51</sup> zein kolektiboak (adib. EKT, UZEI, AEK-ko Pedagogia Taldea...)<sup>52</sup> izan daitezke. Arazo dokumentalak medio, egilea zein den zehaztea ezinezkoa izan den kasuetan egilea ezezaguna dela adierazten da. Datu-basean lau egile mota ezezagun daude: *Itzultzaile ezezaguna*, *Irakasle ezezaguna*, *Hizlari ezezaguna* eta *Ikastaro arduradun ezezaguna*.

#### 2.3.2.2. Dokumentuak

Pertsona batek sortu duen unibertsitate mailako edozein kultur produkturi, *dokumentu* deitu zaio. Ekoizpen euskarriaren arabera bi motatako dokumentuak daude: ahozkoak (*hitzaldiak*, *ikastaroak* eta *irakasgaiak*) eta idatzizkoak (*artikuluak*, *liburuak*, *itzulpenak* eta *HAAak*). Unibertsitate mailako euskarazko produkzioa bere osotasunean jaso ahal izateko aurreko bietan kokatzen ez diren beste hiru dokumentu hauek ere katalogatzen dira: *doktorego-tesiak*, *ikerkuntza-lanak* eta *ikerkuntza-proiektuak*. Hiruretatik idatzizkoan egin da saiakerarik handiena unibertsitate mailako euskarazko produkzio guztia katalogatzeko.

---

<sup>51</sup> Egile bat, hilda badago bigarren deituraren eremuan parentesi artean jaiotza eta heriotza urtea jartzen dira, adibidez, *Andolin Eguzkitza Bilbao (1953-2004)*. Ez badago jakiterik jaiotza edo heriotza urtea zein izan den, orduan urtearen ordezkari galdera ikurra agertzen da.

<sup>52</sup> Euskal produkzioan badaude erakunde edo erakundeen sail/atal/talde batzuk, egile kolektibo gisa funtzionatzen dutenak, eta taldeok pertsonak osatu arren, norbanakoak ez dira ezagutzen. Ekoizpena, talde lanaren emaitza da.

Dokumentu guztiek bi baldintza bete behar dituzte datu-basean aintzat hartuak izan daitezen. Lehena: dokumentuek euskaraz, guztiz euskaraz egon behar dute<sup>53</sup>, eta Euskara Batuaren oinarritzko arauak jarraitu, beraz, oro har, 1968. urtetik aurrera ekoizitakoak izan behar dira. Bigarren baldintza: unibertsitate mailako dokumentuak izan behar dute.

#### **A) Dokumentu motak**

Inguma datu-basean hamar dokumentu mota bereizten dira:

- **Hitzaaldia:** saio batean ahoz adierazitako maila jasoko gaiari deritzaio<sup>54</sup>.
- **Ikastaroa:** gai baten inguruko hitzaldi multzoari deritzaio.
- **Irakasgaia:** ikasturte jakin batean, kreditu bidez neurtu eta ahoz adierazitako gai akademikoari deritzaio. Irakasgaiak fakultateka katalogatu dira eta ez sailka, ezta titulazioen arabera ere.
- **Artikulua:** aldizkari batean egile batek edo gehiagok idatzitako mailako jasoko lanari deritzaio. Edo beste era batera esanda, argitalpen seriatuetan argitaratzen diren lanak dira.
- **HAA (Hitzaurrea/Aipamena/Artikulua):** lau motatako dokumentuak baneratzeko kategoria honek<sup>55</sup>:
  - **Hitzaurrea (H):** liburu baten hasieran kokatzen den aurkezpena da.
  - **Aipamena (AP):** beste egile batek edo batzuek idatzitako lan baten kritika da.

---

<sup>53</sup> Dokumentu elebidunak ez dira katalogatzen, holakoetan ez baitago jakiterik lana zein hizkuntzatan ekoiztu den, eta beraz, euskarazko bertsioa itzulpena bada, datu-basean egile erdaldun bat sartzeko arriskua baitago. Adibidez, Eusko Ikaskuntzaren lan asko elebitan kaleratzen dira: euskaraz zein gaztelaniaz, edo euskaraz zein frantsesez, eta beraz, Inguma-n ez dira biltzen.

<sup>54</sup> Inguma-n ohiko hitzaldiekin batera, formatu bereziko hitzaldiak ere badaude: *Sarrera-hitzaldiak* eta *Erantzun-hitzaldiak*. Izaera magistrala duten hitzaldi hauek bi erakundek ekoizten dituzte: UEUK eta Euskaltzaindiak.

<sup>55</sup> Honelako dokumentuek bi ezaugarri dituzte Inguma-n: bata, izenburuaren eremuan eta parentesi artean lanari dagokion bereizgarria daramatela: *H*, Hitzaurreak adierazteko; *AP*, liburu aipamenetarako; *AR*, liburuetako atalak emateko; eta *EK*, edizio kritikoak katalogatzeko.

- *Artikulu* (AR): egile askoren artean idatzitako liburu batean dagoen atal beregainari deritzo.
  - *Edizio kritikoa* (EK): liburu zaharren berrargitarapen kritikoa edo prestatzailea daramaten antologia idazlanari deritzo horrela.
- 
- **Itzulpena:** maila unibertsitarioko lanen euskaratzea<sup>56</sup>.
  - **Liburua:** egile batek edo batzuek idatzitako maila jasoko argitalpen beregaina da<sup>57</sup>.
  - **Doktorego-tesia:** unibertsitate batek ematen duen gradu-akademiko gorena lortzeko prestatzen den dokumentua da.
  - **Ikerkuntza-lana:** unibertsitate batek ematen duen gradu-akademikoren bat lortzeko prestatzen den dokumentua da.
  - **Ikerkuntza-proiektua:** erakunde batek ikerketa-talde baten ikerketa-lan zientifikoa diruz laguntzen duenean horrela deitzen zaio. Halako proiektuek bi bereizgarri nagusi dituzte: ikerketa taldea kode bidez identifikatuta aurkitzen da, eta baita ikerkuntza-proiektua ere<sup>58</sup>.

### **B) Dokumentuen sailkapena**

Produktu guztiak izaera oso ezberdina duten bi katalogazio sistemen bitartez sailkatu dira. Batetik, Melvil Dewey-ren (1876) lanetan oinarritutako *Sailkapen Hamartar Unibertsala* (SHU) sistema erabili da, munduan gehien erabiltzen den sistema delako eta 25.000 liburutegik baino gehiagok erabiltzen dutelako. Bestetik, gaisarreren zerrenda itxi bateko hitz gakoak esleituz sailkatu dira. Era honetan banan-

---

<sup>56</sup> Orokorrean Inguma-n erreferentziazko liburuen itzulpenak katalogatu dira. Euskaratutako artikulua normalean gai jakin baten inguruko irakurketa osagarritzat hartu dira, eta ez erreferentziazko lan gisa, beraz Inguma-n ez dira katalogatu. Arau honetan salbuespen dira: *Ankulegi*, *Senez*, *Eleria*, *Gogoa*, *Hegats*, *Ikastaria* eta *Uztaro* aldizkariak, erreferentziazko artikulua euskaratuta kaleratzen dituztelako.

<sup>57</sup> Liburuen berrargitalpenak euskaraz, zoritxarrez, salbuespenak dira, eta beraz, bakoitzarekin ia-ia salbuespenezko erabakiak hartu behar izan dira. Joera orokorra izan da berrargitalpen bakoitzari erregistro berri bat egitea, izenburuan berrargitalpenaren ezaugarria zehaztuz. Adib. *Fisika Orokorra (I) Mekanika (3. argitarapena)*.

Bestalde, dokumentu batzuk, doktore tesiak esaterako, sasoi batean mikrofitxatu egiten ziren. UPV/EHUk eta Deustuko Unibertsitateak adibidez, sasoi bateko tesi lanak, mikrofitxetan dituzte, eta paperean ez dauden arren, ISBN zenbakia daukate. Hori guztia aintzat hartuz, ISBNa duten doktore-tesi mikrofitxatuak Inguma datu-basean liburu gisa katalogatuta daude.

<sup>58</sup> UPV/EHUren kasuan, 1998. urteko ikerketa-proiektuak soilik katalogatu dira, unibertsitateak berak ez baitigu beste ezer helarazi. UD/DU-k lankidetzak hitzarmena sinatu zen urteko ikerkuntza proiektuak soilik helarazi ditu, 2003. urtekoak alegia.



banan Komunitate Zientifiko Euskaldunak sortutako ia 30.000 dokumentu katalogatu dira. Katalogazio sistematikoak, euskal produkzio zientifikoaren nondik norako zehatza ezagutzeko aukera ematen du. Hau da, euskaraz diziplina akademiko ohikoenak zein gutxien landutakoak ezagut daitezke, eta jakintza-arlo bakoitzean aritzen diren kideak aurki daitezke.

SHUaren zenbaki nagusiek jakintza-arlo nagusiak adierazten dituzte eta gaur egun oinarrizko taulak 10 zenbaki ditu:

- “0 Orotarikoak
- 1 Filosofia
- 2 Erlijioa. Teologia
- 3 Gizarte Zientziak. Estatistika. Politika. Ekonomia
- 4 (Libre geratu zen 1962an, Hizkuntzalaritzari eta Filologiari, Literaturaren ondoan jarrita, 8 zenbakia eman zitzaizkion)
- 5 Zientzia hutsak. Zehatzak eta Naturakoak
- 6 Zientzia aplikatuak, Medikuntza eta Teknikak
- 7 Arteak. Arte Industrialak. Argazkigintza. Musika. Jokoak. Kirolak
- 8 Hizkuntzalaritza. Filologia. Literatura. Literatur kritikak
- 9 Arkeologia. Historiaurrea. Geografia. Biografia. Genealogia. Historia”<sup>59</sup>

Inguma datu-basean erabiltzen den SHUa goiko eskema horretan oinarritzen da. SHUak bere aukera guztiak agortuz gero 160.000 sarrera desberdin izan ditzake. Inguma-rako 118 sarreradun bertsio sinplifikatua egokitu da, moldaketa txiki batzuekin (ikus 1. eranskina xehetasunetarako). Euskarazko produkzio zientifikoaren sailkapena egiteko Inguma-k darabilen SHU zerrendak, 10 eremu nagusi ditu, eta 4. zenbakia euskal produkzioaren arlo jakin batzuen sailkapen zehatza egiteko erabiltzen da:

- 0 Gai Orokorrak
- 1 Filosofia. Psikologia
- 2 Erlijioa. Teologia
- 3 Gizarte Zientziak
- 4 Euskaletza
- 5 Natur Zientziak. Ekologia
- 6 Zientzia Aplikatuak. Medikuntza. Teknika
- 7 Arteak
- 8 Hizkuntzalaritza. Filologia. Literatura
- 9 Geografia. Biografia. Historia

<sup>59</sup> (Agirreazaldegia, 2002: 76)

Inguma-ren gai-sarrerren zerrenda datu-basearen batzorde zientifikoak sortutako gako-hitzen zerrenda kontrolatu eta itxi bat da. Bi motatako sarrerak ditu: zientzia edota jakintza esparru bat deskribatzen dituztenak (*Fisika, Historia* eta abar) eta toponimoak (*Euskal Herria, Europar Batasuna* eta abar). Lehenek dokumentuaren gaia deskribatzen dute, eta bigarrenak gai hori aldez edo moldez, lurralde edota gizarte zehatz bati loturikoa den zehazten du (adb. *Historia* eta *Euskal Herria*, edo *Ekonomia* eta *Europar Batasuna*). Dokumentu bakoitzak hiru gai-sarrera ditu gehienez eta bat gutxienez.

### 2.3.2.3. Erakundeak

Idatzizko zein ahozko produktuak sortzen dituen edozein korporaziori *Erakundea* deritzo. Erakundetzat hartzen dira mota ezberdinetako kultur korporazioak: unibertsitateak, kultur elkarteak, argitaletxeak, enpresak, aldizkariak edota taldeak. Horregatik guztiagatik, lau erakunde mota desberdintzen dira: *aldizkaria*, *argitaletxea*, *unibertsitatea* eta *bestelakoa*. Erakunde bakoitzak dokumentu desberdinak ekoizten ditu<sup>60</sup>. Esandakoa grafikoki adierazita:

Erakunde mota	Dokumentu mota
Aldizkaria	Artikuluak HAA (AP) HAA (H)
Argitaletxea	Liburuak HAA (AR, EK) Itzulpenak
Unibertsitatea	Irakasgaiak Doktorego-tesiak Ikerkuntza-proiektuak
Bestelakoa	Hitzaldiak Ikastaroak

VI.1. Taula: Inguma datu-basearen arabera erakunde bakoitzak ekoizti ditzakeen dokumentu motak.

Horregatik, adibidez, UEUren produkzio guztia katalogatzeko Inguma-n hiru erakunde desberdin izendatuta daude: *UEU* izenekoak ahozko produkzioa biltzen du; *UEU arg* delakoak liburu argitalpenak, eta *Uztaro* aldizkariak UEUk Giza eta Gizarte Zientzien aldizkarian kaleratzen diren lanak.

<sup>60</sup> Inguma datu-basean katalogatutako erakundeen zerrenda eta beste zenbait xehetasun ondoko helbide elektronikoan kontsulta daiteke: [http://www.inguma.org/indexeu.php#erakunde\\_zerrenda](http://www.inguma.org/indexeu.php#erakunde_zerrenda)

Bestalde, erakunde batzuk beren baitan *Sailak* edota *Fakultateak* izeneko azpiatalak dituzte. *Sailak*, kultur erakundeetako egituren unitateak dira. *Sail* bakoitzak diziplina zientifiko jakin bat hartzen du bere barnean. *Fakultateak*, unibertsitateetako diziplina zientifiko bakoitzaren egoitzak izan ohi dira.

### 3. Goi mailako produkzioaren azterketa

Atal honetan gaiaren lehen hurbilpen gisakoa egingo dugu. Horretarako, 1968. urtetik aurrerako euskarazko produkzioa aztertuko dugu: bilakaera, jakintza-arloen banaketa eta abar. Bereziki dokumentu idatzietan jarriko dugu arreta, horien gainean egiten direlako azterketa bibliometrikoak. Hurrengo ataletan, modu bertsuan arituko gara egile euskaldun eta euskarazko produkzioa duten erakundeekin.

Ikerketa lan honetan erabilitako Inguma datu-basearen bertsioak<sup>61</sup> 7.223 egilek 168 erakundetan ekoizitako 29.480 dokumentu biltzen ditu. Ondoko taulan dokumentu mota bakoitzak datu-basean dituen erregistro kopurua jaso da (ikus VI.2. Taula). Dokumentu mota zein multzo bakoitzaren garrantzi kuantitatiboa oso desberdina da, idatzizko eta ahozko dokumentuen artean batez ere:

Dokumentu mota	Kopurua		Dokumentu multzoa
Hitzaldiak	8.060	12.791	Ahozko dokumentuak
Ikastaroak	1.208		
Irakasgaiak (*)	3.523		
Artikuluak	10.314	16.280	Idatzizko dokumentuak
HAA	3.986		
Liburuak	1.529		
Itzulpenak	451		
Doktorego-tesiak	322	409	Bestelako dokumentuak
Ikerkuntza-lana	2		
Ikerkuntza-proiektuak (*)	85		
Guztira	29.480 dokumentu		

**VI.2. Taula:** Ikerketa lan honetan erabilitako Inguma datu-basearen erregistro kopurua, motaren eta multzoaren arabera antolatuta. (\*) Irakasgaien eta ikerkuntza-proiektuen kasuan Inguma datu-basean ez dago urtez urteko produkzio osoa jasota. Iturria: Inguma datu-basea.

<sup>61</sup> Inguma datu-basearen 2009.03.17an egindako kopia erabili dugu.

Nabarmendu behar da euskarazko goi mailako komunikazioan, artikulua dela formaturik erabiliena. Hain zuzen ere, artikulua da komunitate zientifikoek gehien erabiltzen duten euskarri formala kideen arteko komunikazioan, dela ezagutzaren transmisioan, eztabaidan eta abarrean.


### 3.1. Idatzizko dokumentazioa

Inguma datu-basean idatzizko izaera dokumentu argitaratuei aitortzen zaie, hots, artikulua, HAA, liburu eta itzulpeni. Doktorego-tesiak eta ikerkuntza-lanak, idatzizko dokumentuak badira ere, argitaraturik egotea ez da haien berezko ezaugarria. Biak ala biak unibertsitateko gradu-akademikoa lortzeko prestatzen dira. Hala ere gure azterketarako Inguma datu-basean katalogatutako idatzizko dokumentu guztiak, argitaratuak zein argitaragabeak, kontuan hartuko ditugu, ikerkuntza-lanak izan ezik, oraindik datu-baseak ez duelako egin halako dokumentuen bilketa sistematikorik. Idatzizkoaren gure multzoan sartu ditugunak VI.3. Taulan zehazten dira. Orotara 16.602 dokumentu dira, hau da, datu-basean erregistratutako dokumentuen % 56,3a.

Dokumentu mota	Kopurua
Artikulua	10.314
HAA	3.986
Liburua	1.529
Itzulpena	451
Doktorego-tesia	322
Guztira	16.602

VI.3. Taula: Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.


Euskarazko goi mailako produkzio idatziaren bilakaera ondoko grafikoan adierazten da (ikus halaber 2. eranskina):



**VI.1. Grafikoa:** Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoiztako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, euskarazko produkzio idatzia 60ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, gora behera handiekin bada ere, haziz joan da 2002. urtera arte. Gorabeherok euskarazko produkzioaren azpiegitura ahularen islatzat har daitezke, hau da, ahultasuna bai egileetan eta bereziki erakundeetan. Izan ere, erakundeek euskaraz ekoizteko hainbat baldintzapean zituzten: ekonomikoak (diru-laguntza publikorik ez zen egon 80ko hamarkadara arte), frankismo garaian politikoak ere bai, egileena (egile euskaldun alfabetatuak hasierako urteetan ez ziren asko), euskara moldea eta lexikoa, hau da, erregistro jasoaren eta hiztegi zientifikoaren finkapen eza eta abar.

Bestalde, azken urteotan antzematen da produkzioaren halako egonkortze bat. Ondoko grafikoan argiago ikusten da aipatzen dugun fenomenoak:



**VI.2. Grafikoa:** Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren bilakaera (1990-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoiztako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Egonkortzea ez da katalogazio lanaren distortsioa, Inguma datu-basearen katalogazio lanean irizpide zehatzak erabiltzen direlako, informazioaren zaharkitzea ekiditeko eta bildutako erregistroen homogeneousuna bermatzeko. Izan ere, Inguma-n katalogatutako erakundeen produkzioaren eguneraketa urtero egiten da<sup>62</sup>. Hortaz, 2007. urterainoko produkzioa datu-basean jasotzat eman daiteke, eta beraz, azken urteetan litekeena da euskarazko produkzio idatziaren beherakada gertatzea, edo gutxienez, estankamendu fase batera heldu izatea. Ikusiko dugunez, ikuspegi bibliometrikotik, sintoma ezkorra da, hazkundea arau delako.

### 3.1.1. Price-ren legea

Produkzioa zientifikoaren hazkundeari buruzko legea Derek de Solla Price-k enuntziatu zuen. Bibliometrian hain ezaguna den Price-ren legeak zera dio: zientziaren hazkundea esponentziala da, produkzioa 10 edo 15 urteren buruan bikoizten da eta une batetik aurrera hazkundea moteldu egiten da. M. A. Zulueta hitzetan: “alcanza un techo o nivel de saturación, permitiendo representarlo como una curva logística (ley de Price)”<sup>63</sup>.

Goi mailako euskarazko produkzio idatziak, nolabait, bai betetzen du Price-ren legeak dioena, euskarazko produkzio zientifikoaren hazkundea esponentziala baita hasierako urteetan, eta azken urteotan berriz egonkortu delako, baina badirudi are beheranzko bidea hartu duela. Izan ere, 1966. urtetik 1976. urtera produkzioa 47 aldiz biderkatu zen. Handik hamar urtera, produkzioa boskoiztu egin zen. 1996an produkzioa ez zen bikoiztera heldu, eta 2006. urtean, 1996ko produkzioa izan zuen (pixka bat gutxiago)<sup>64</sup>.

---

<sup>62</sup> Hala ere, maiz eguneraketa lana ez dator bat guztiz urte naturalarekin, gehienetan aurreko urtean geratzen baita. Horretarako bi arrazoi nagusi daude: lehena, aldizkariak zenbaki berriak kaleratzeko daramaten atzerapena, eta bigarrena, argitalpenen banaketa edo distribuzio desegokia eta horren baitan euskarazko produkzioaren marjinaltasuna eta sakabanaketa. Beraz, 2009 urtean bagaude datu-basean 2008. urtekoa oraindik katalogatu gabe dago. Aldiz 2007. urterainokoa (urte hori barne) jada bilduta dago eta horraino luzatu dugu grafikoa.

<sup>63</sup> (Zulueta, 2002: 117-118).

<sup>64</sup> Kasu honetan hamar urteko tarteak erabili ditugu. Kalkulua egin genezakeen 15 urterekin, baina hain denbora epe mugatuan (1966-2007), 15 urteko tarteak handiegiak iruditu zaizkigu azterketa unitate gisa erabiltzeko.

Datuak modu ponderatuagoan eman litezke. Izan ere, euskarazko produkzioak urterik urte fluktuazio handiak ditu eta aipatutako urteak (1966, 1976, 1986, 1996 eta 2006) salbuespenezkoak izan litezke. Beraz, ondoko taulan 5 urteko epeetan produkzioaren batz bestekoa kalkulatu dugu (ikus VI.4. Taula):

Urte tarteak	Dokumentu kopurua	Urteko dok. batez bestekoa
66-70	34	7
71-75	242	48
76-80	807	161
81-85	1.413	283
86-90	2.266	453
91-95	3.115	623
96-00	3.579	716
01-05	3.843	767

**VI.4. Taula:** Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren batez bestekoa 5 urtekoen arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

Ondoren 5 urteko tarte bakoitzean batez besteko produkzio horren hazkundea neurtu dugu. Ikusiko dugunez, emaitza antzekoa da: hasierako urteetako hazkundearen ostean, urteekin hazkundea moteltzen da, eta gaur egun halako estankatze bat dago.


Urte tarteak	Hazkunde koefizientea
66-70 / 76-80	23
71-75 / 81-85	5,8
76-80 / 86-90	2,8
81-85 / 91-95	2,2
86-90 / 96-00	1,6
91-95 / 01-05	1,2

**VI. 5. Taula:** Euskarazko produkzio zientifikoaren hazkunde tasa 10 urtetan. Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, frankismotik irten bezain laster euskarazko produkzio idatziak inoizko hazkunderik handiena izan zuen, ia ezerezetik abiatu zelako, baina 90eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera produkzio hori ez da bikoizten eta beraz asetasun maila iritsi du, Price-ren legeak dioen bezala.

### 3.1.2. Euskarazko produkzio idatziaren sailkapena

Arestian aipatu dugunez, Inguma datu-basean dokumentu guztiak bi erataraino sailkatzen dira: bata, Sailkapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) bitartez, eta bestea, zerrenda itxi bateko gai-sarrerak esleituz. SHUa sailkapen unibokoa denez, irizpide hau erabili dugu goi mailako euskarazko produkzio idatzia jakintza-arloetan nola banatzen den ikusteko.



VI.3. Grafikoa: Euskarazko produkzio idatzia SHUaren arabera. Ezkerretik eskumara SHU zenbaki nagusiak eta behetik gora dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Inguma datu-basean SHU bi zenbaki hauetan 8aren (Hizkuntzalaritza eta Literatura) eta 3aren (Ekonomia, Soziologia, Zuzenbidea eta abar) inguruan biltzen dira dokumentu idatzien % 46,5a, hau da, Giza eta Gizarte Zientzien inguruan. Ondoren 1.600-1.900 dokumentuen artean beste hiru SHU zenbaki daude: 9, 5 eta 4a (Historiari, Zientziei eta euskarari lotutako gaiak) dokumentuen % 30,8arekin. Hurrenkera honetan, ondoren etorriko lirateke SHU 6, 1 eta 0a (Osasun Zientziak, Ingeniaritza, Teknologia, Filosofia eta abar) 1.500 dokumentutik behera dituztenak eta produkzioaren % 19a barne hartzen dutenak. Azkenik, Teologia eta Arteak eta Musikaren inguruan (SHU 2 eta 7) oso dokumentu gutxi ekoitzi da euskaraz eta goi mailan, 500 dokumentutik behera, produkzioaren % 3,5a.



Beraz, euskarazko produkzioa desorekatua dela agerikoa da. Alde batetik, desoreka hori euskarazko produkzio zientifikoak bizi duen desorekaren isla zuzena da, SHU 8aren inguruan hainbeste dokumentu biltzea ez baita kasualitatea: euskaraz ekoizten diren dokumentu gehienak, euskal hizkuntza eta literaturari buruzkoak direlako. Bestalde, aipatutako produkzioaren desorekak badu zer ikusia SHU beraren jatorrizko egiturarekin. Teresa Agirreazaldegiri irakasleak hauxe dio SHUari buruz:

“Oinarrizko sailkapen horrek ez du aldaketarik jaso, eta gaur egun nolabaiteko desoreka dago, zeren eta arlo gutxi batzuetan biltzen da azken hamarkadetako ekoizpen bibliografiko gehiena (3an eta 6an gertatzen da hazkunderik handiena; 1ean eta 2an ordea, oso urria da gaur egungo ekoizpen bibliografikoa)”<sup>65</sup>

Hortaz, Inguma datu-basean SHU 3<sup>66</sup> eta 2aren inguruan bildutako dokumentazio bolumena SHUa beraren egituraren isla da. Hala ere SHUaren egiturazko arazoak ez digu balio argitzeko zer gertatzen den SHU 6 eta 1aren inguruan. SHU 6aren (Zientzia Aplikatuak, Osasun Zientziak eta Teknikaren) inguruan dagoen euskarazko produkzio idatzia, SHU 3aren erdia izanik, ez da aipagarria. Beraz, gurean garrantzi kuantitatibo txikia du eta euskarazko produkzioaren hutsune bat azaleratzen du. Bestalde, Filosofia eta Psikologiaren inguruan (SHU 1) badirudi euskarazko produkzioa ez dagoela SHU 2aren parean (Erligioa eta Teologia). Izan ere, SHU 1ak, SHU 2ak baino lau aldiz produkzio handiagoa du.


### 3.1.2.1. Jakintza-arloen arabera

Hala ere, SHUak ez du euskarazko produkzio idatziaren erretratu zehatzegia ematen. Esate baterako SHU 1aren barruan sartzen dira Giza Zientzietako gaiak (adb. Filosofia) zein Gizarte Zientzietakoak (adb. Psikologia). Hori dela eta, ondoko grafikoan produkzioa jakintza multzo konbentzionaletan antolatu dugu, euskarazko produkzioak jakintza-arloka duen banaketa zehatzago ikusteko:

---

<sup>65</sup> (Agirreazaldegiri, 2002: 76)

<sup>66</sup> SHU 3ak Gizarte Zientzietako hainbeste jakintza-arlo biltzen ditu, besteak beste, Estatistika, Soziologia, Demografia, Politika, Ekonomia, Merkataritza, Zuzenbidea, Gobernamentua, Arazo Militarrak, Ongizatea, Aseguruak, Hezkuntza eta Antropologia.



VI.4. Grafikoa: Euskarazko produkzio idatzia jakintza-arlo multzoka. Ezkerretik eskumara jakintza-multzoak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Zehazki hauek dira jakintza multzo bakoitzaren baitan sartu ditugun jakintza-arloak<sup>67</sup>:

- **Giza Zientziak (GTZ):** Filosofia, Teologia eta erlijio-gaiak oro har, Hizkuntzalaritza, Filologia, Hizkuntzak, Itzulpengintza, Literatur Kritikak, Historia, Biografiak, Arkeologia.
- **Gizarte Zientziak (GZ):** Komunikazioa eta Kazetaritza, Psikologia, Gizarte Zientzien Teoria eta Metodologia oro har, Soziologia (Soziolinguistika), Politika, Ekonomia, Zuzenbidea, Administrazioa, Ongizatea eta Lurralde Antolaketa, Antropologia, Pedagogia, Hezkuntza eta Glotodidaktika, Euskalgintza, Bertsolaritza, Geografia.

<sup>67</sup> Jakintza-arloak identifikatzeko SHUa erabili dugu, bi arrazoiengatik: A) SHUko zenbaki bakoitza jakintza-arlo batekin identifikatzen delako. Hala, SHU 15 Psikologia adierazten du eta Gizarte Zientzietan kokatu dugu; B) Inguma-ko dokumentu bakoitza modu unibokoan sailkatzeko SHUa erabiltzen delako (gai-sarrerak berriz ez dira erabilgarriak, dokumentu bakoitzak hiru gai sarrera eduki ditzakeelako). SHU zenbaki guztiak jakintza-arloekin identifikatu ostean (ikus 3. eranskina), Inguma datu-basera jo dugu, euskarazko idatzizko produkzioaren jakintza-arloko banaketa zein den ikusteko.

- **Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak (NZ-ZH):** Biologia eta Natur Zientziak, Matematika, Fisika eta Astrofisika, Kimika, Geologia eta Meteorologia, Paleontologia, Botanika, Zoologia.
- **Ingeniaritza eta Teknologia (IT):** Ingeniaritza eta Teknologia, Informatika, Arkitektura eta Eraikuntza.
- **Osasun Zientziak (OZ):** Medikuntza eta Osasuna.
- **Artea eta Musika (AM):** Artea, Musika, Ikuskizunak, Kirolak.
- **Zientzia Aplikatuak (ZA):** Nekazaritza, Enpresa Zientziak, Industria Kimikoa eta bestelakoak.

VI.4. Grafikoan ikusten denez, Giza Zientziak nagusi dira eta ondoren datoz Gizarte Zientziak, Natur Zientziak eta Hutsak, Ingeniaritza eta Teknologia, Osasun Zientziak, Artea eta Musika eta azkenik, Zientzia Aplikatuak<sup>68</sup>. Jakintza multzo batzuen dokumentazio oparotasunaren eta beste batzuen urritasunaren atzean zer dagoen azaltzea zaila da. Esan ote daiteke jakintza multzo bakoitzaren bilakaera ausazkoa dela eta ez dagoela arrazoi berezirik batzuen eta besteen arteko desberdintasunean? Ala euskarazko produkzio zientifikoak garapen desorekatua izan duela? Hau da, euskaraz gertatzen denak, beste edozein hizkuntzatan gertatzen ari diren fenomenoekin antzekotasunik du? Gure ustez, euskarazko produkzioaren bilakaera zein jakintza-arlo bakoitzaren atzean dagoen dokumentazio oparotasun/urritasuna ez da ausazkoa, ezta halabeharrezko gertakari soila ere, baizik hizkuntza eta hiztun komunitatearen bilakaera historikoaren (politikoaren, soziologiko eta kulturalaren) ondorio edo isla. Gaietik bada ere, ondoko lerroetan erakusten ahaleginduko gara.

Ondoko taulan desglosatu ditugu Giza Zientzietako jakintza-arloak, azken finean, beraiek dira Giza Zientzien nagusigoaren erantzule:

---

<sup>68</sup> Jakintza multzo bakoitzean dagoen dokumentu kopurua zehatza ezagutzeko ikus 4. eranskina.

Jakintza-arloak	Dok. kop.
Hizkuntzalaritza, Filologia, Hizkuntzak eta itzulpengintza	3.130
Historia eta Biografiak	1.726
Literatur Kritika	1.584
Filosofia	659
Gai orokorrak <sup>69</sup>	427
Teologia eta erlijio gaiak oro har	244
Arkeologia	56
Guztira	7.826

VI.6. Taula: Giza Zientzietako produkzio idatzia jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, Giza Zientzietan nagusi dira hiru jakintza-arlo: batetik Hizkuntzalaritza, Filologia, Hizkuntzak eta Itzulpengintza, bestetik Historia zein Biografia lanak, eta azkenik Literatur Kritikaren arloa. Hala ere, hiruretatik lehena nagusi da. Hau da, euskaraz ekoizten den gehiena euskarari buruzkoa da. Egia esan, euskal hizkuntzari buruzko azterketak zein euskal idazleen lanen kritika literarioa euskaraz egotea ez da harritzekoa. Izan ere, ikergaia euskaraz egoteak erraztu egiten du ikerketa ere hizkuntza berean egitea.

Historiaren kasua aldiz, deigarriagoa da, baina oraindik ez dugu erabateko azalpenik aurkitu. Izatez, euskarazko historiografiaren kasuan, Euskal Herriaren eremu geografikoarekin lotzen den neurrian erraztu egiten da beronen ekoizpena euskaraz kaleratzea. Horretaz guztiaz gain, ezin da ahaztu Historia ez dela ohiko jakintza-arlo bat: ez du metodologia zurrunik eta goi mailako ikasketak dituen edozein pertsona hurbildu daiteke bertara, bai egile gisa bai irakurle gisa ere. Hau da, Historiak beste edozein jakintza-arlo ez duen irekitasuna dauka. M. Aizpuruk emandako datuetan oinarrituz, oso nabarmena da hori. Izan ere, Historia arloan euskaraz ekoitzi duten 10 egilerik emankorrenetarik bi baino ez dira unibertsitateko Historia irakasleak<sup>70</sup>. Historia artikulua gehien argitaratu dituzten aldizkariak ez dira Historiari buruzkoak, baizik hizkuntza eta kultura orokorrekoak, Euskaltzaindiaren *Euskera* buletina, *Karmel* eta *Jakin* aldizkariak. Bestalde Historiak ahalbidetu ditzake bestelako erabilera ez

<sup>69</sup> Gai orokorrak ez da kontzeptu argia baina SHU 0 eta bere azpiko sarrerak (01, 02, 03, 05, 06 eta 08) biltzen ditu, hau da, Zientzia eta ezagutza, Antolakuntza, Informazioa, Dokumentazioa, Idazkuntza, Bibliografia, Bibliotekonomia, Erakundeak, eta oro har Dokumentu eta Argitalpenak.

<sup>70</sup> (Aizpuru, 2005: 346)

zientifikoak, hala nola Euskal Herriaren nortasun-kontzientzia garatzen laguntzea (ustez behintzat). Eta horrek ere hainbat zaletu bultza ditzake Historiari buruz idaztera. Beraz, argitzeke uzten dugu euskarazko historiografiaren fenomenoak, konplexua delako.

Jakintza-arlo gisa duen presentzia urriagatik aipatzekoa da Teologia eta erlijio gaien eremua. Egun garrantzi txikia du eta urteekin gainera gainbeheran etorri da. Jakintza-arlo honetan berebiziko eragina izan du gizartearen eta hezkuntza sistemaren sekularizazioak. Atal historikoan aipatu dugunez, gerraostean, gerraurrean bezalaxe, euskaldun askok ikasketak eliz erakundeetan egin zituzten. Askorentzat alfabetatzeko eta ikasteko modu bakarra, elizan sartzea zen. Beraz, idazle euskaldun gehienak eliztarrak ziren, abade edo fraide. 60ko hamarkadatik aurrera, ordea, apaiz eta elizgizon asko sekularizatu ziren, eta oro har euskal gizarteak laikotze prozesu sakona bizi izan zuen. Mendebalde osoan ezagututako prozesua izan zen, baina, garrantzi berezia izan zuen euskal kulturgintzaren kasuan, apaizak euskaldun alfabetatuak zirelako eta sekularizatzean, gizarteko hainbat esparru klabetan, unibertsitateetan, komunikabideetan... barreiatu zirelako<sup>71</sup>. Eliza utzi zuten moduan, euskaldun alfabetatu hauek, bestelako gaiak jorratzen hasi ziren. Adibide paradigmaticoa *Jakin* aldizkariak eta haren inguruan ibilitakoek eskaintzen dute. Hasieran, *Jakin* aldizkaria zenbait apaizgai euskaltzalek sortu zuten eta “teologi jardunak” azpтитulua zuen, baina denborarekin, bai bertako eragileak zein aldizkaria bera sekularizatu ziren. Laster ikasketa prozesua ere laikotu zen. Beraz, lehen euskaldun idazleek ikasketa erlijiosoak egiten bazituzten ere, gaur egun ikasketa eliztarrak edo Teologia karrera egitea salbuespena da. Hortik Teologia arloko ekoizpenaren urritasuna gaur egun.

Giza Zientziak albo batera utzi eta Gizarte Zientziak aztertuko ditugu (ikus VI.7. Taula). Gizarte Zientzietan jakintza-arlo nagusiak bi dira: lehenik, hezkuntza eta irakaskuntzarekin lotutakoak (Pedagogia, Didaktika, Glotodidaktika eta abar), eta bigarrenik, Soziologia. Biak ala biak hizkuntzarekin estuki erlazionatuta dauden jakintza-arloak dira. Lehenengoa oso lotuta dago euskararen irakaskuntzarekin, bai eskola mailakoa (hezkuntza elebiduna) bai helduena ere (bigarren hizkuntzaren irakaskuntza eta abar). Bigarrenean berriz, nagusi dira soziolinguistika arloko lanak,

---

<sup>71</sup> (Intxausti, 2007b: 66)

hau da, hizkuntzaren egoera eta gizarte erabilerari buruzkoak, eta ez hainbeste gizarteko bestelako fenomeno soziologikoen ingurukoak.

Jakintza-arloak	Dok. kop.
Pedagogia, Hezkuntza eta Glotodidaktika	1.668
Soziologia (Soziolinguistika)	1.115
Komunikazioa eta Kazetaritza	385
Zuzenbidea	358
Antropologia	347
Politika	331
Ekonomia	349
Psikologia	312
Gizarte Zientziak oro har	248
Euskalgintza	121
Bertsolaritza	99
Geografia	28
Administrazioa, Ongizatea eta Lurralde Antolaketa	39
Gizarte-Zientzien Teoria eta Metodologia, oro har	8
Guztira	5.408

VI.7. Taula: Gizarte Zientzietako produkzio idatzia jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

Gizarte Zientzietan 300 bat dokumentu idatzirekin 6 jakintza-arlo identifikatu ditugu: Komunikazioa eta Kazetaritza, Zuzenbidea, Antropologia, Politika, Ekonomia eta Psikologia. Aipatutako seirak UPV/EHUn karrera gisa eta euskaraz ikas daitezkeen arren, beraien inguruan euskarazko dokumentazioa idatzia ez da zabalegia. Hala ere, zenbait lan argitaratu eta doktorego-tesi batzuk prestatu dira. Ezer gutxi, euskaraz irakasten diren karrerak eusteko eta jakintza-arloetako euskarazko diskurtso jaso finkatutzat emateko. Are gehiago, kontuan hartzen badugu, ahozko ekoizpena nagusi dela jakintza-arlo batzuetan, esate baterako, Psikologian (ikus aurrerago 3.1.2.3. *Ahozkoaren azterketa* atala). Baina edozein modutan, kasurik kezkarriena Geografian ikusten dugu: bertan 28 dokumentu idatzi baino ez daude euskaraz karrera ikas daitezkeen arren.

Bestalde, aipagarria da Antropologiarekin gertatutakoa. Paulo Iztuetak aztertutako gerraurreko zortzi egile euskaldunen (R. M. Azkue, *Orixe*, J. M. Barandiaran, M. Lekuona, *Aitzol*, P. Lafitte, J. Zaitegi eta K. Mitxelena) ekoizpenetan jakintza-arlo nagusiak lau ziren (euskarazkoak zein erdarazkoak batera kontatuz): Etnologia (% 33), Hizkuntzalaritza (% 26,5), Literatura (% 16,05), Erlijioa (% 8,92),

eta Historia (% 8,42). P. Iztuetak honela interpretatzen zituen datuok: “Euskal Herriari bere nortasun-kontzientzia ematen dioten gaiak lantzen direla gehienbat: hots, Etnologia, Hizkuntzalaritza, Literatura, Erlijioa eta Historia”<sup>72</sup>. Beraz, Etnologia lanak nagusi ziren, herri nortasuna definitzeko orduan XX. mendearen hasieran kultura tradizionala euskal identitate zeinu gisa garrantzitsu jotzen zelako. Aldiz, azken 40 urteotan folkloreak eta tradizioek garrantzia galdu dute. Hau guztia, 60ko hamarkadatik aurrera euskal gizarteak bizi izandako eraldaketa sakonak ekarri du: behinolako euskaldun-fededun tradizionalaren irudia, euskalduntasunaren ideia modernoago batek ordeztua.

Bestalde gerraurrean, P. Iztuetaren datuei jarraituz, Etnologiaren inguruan egile euskaldunek argitaratutako lan gehienak gaztelaniaz prestatu zituzten. Dirudenez, gerraurreko joera hori XX. mende osoan nagusi izan da. Joera horren jarraipena gidatu duena, gure ustez, Jose Miguel Barandiaran abade euskaltzaina izan da. Gerraurrean Etnologiaren esparruan nagusiki erdaraz aritu zen, euskara enkargu berezietarako utzi zuen, zehazki Euskaltzaindiaren Durangoko Euskal Egunetarako eta Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldirako. Gerraostean bai erbestean, bai 50eko hamarkadan Hegoaldera itzuli zenean, erdaraz aritu zen, Nafarroako Unibertsitatean zeukan katedran barne. J. M. Barandiaranen metodologia eta bilketa lanaren jarraitzaileak izandako Etniker taldeen argitalpenak ere, nagusiki gaztelaniaz kaleratzen dira.

Laburbilduz, 5 jakintza-arlo daude euskaraz 1000 dokumentutik gora dituztenak: Hizkuntzalaritza, Historia, Pedagogia, Literatur-Kritika eta Soziologia. Oro har, beste guztiak 500 dokumentutik behera dituzte, hiru salbuespenekin: Osasun Zientziak, Filosofia eta Natur Zientziak-Biologia. Beraz, Zientziak oro har 500 dokumentu azpitik kokatuta daude, aipatutako bi salbuespenekin. Aise ageri da, jakintza-arlorik oparoenak (Hizkuntzalaritza, Historia, Pedagogia, Literatur-Kritika eta Soziologia) euskararekin eta Euskal Herriarekin lotzen direla. Jakintza-arloek euskara eta euskal kulturarekin lotura zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta euskarazko produkzio txikiagoa dute. Baina badira bi salbuespen aipagarri: Osasun Zientziak eta Natur Zientziak, jakintza-arlo horien atzean azpiegitura euskaldun sendoak daudelako.


---

<sup>72</sup> (Iztueta, 1993: 132)

Osasun Zientzien arloan aipagarria da UEUko Osasuna Sailaren lana hasieran, eta 90eko hamarkadan Osasuna Euskalduntzeko Elkartearen (OEE) ekarpena. Natur Zientziei dagokionez, gure ustez, berebiziko eragina izan du UPV/EHUko Zientzia Fakultateko irakaskuntzaren euskalduntzeak eta bertan euskaldundu zen lehen karrera Biologia izateak (ikus V. kapitulua).

### 3.1.2.2. Jakintza multzoen bilakaera

Aztertu ditugu jada, azken 40 urteotan jakintza multzoen kopuru absolutuak, eta orain diakronikoki landuko ditugu. Gehiegizko datuetan ez galtzeko, idatzizko produkzio gehien duten lehen lau jakintza multzoen bilakaera aztertuko dugu lehenik (Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, Natur Zientziak eta Hutsak, eta Ingeniaritza eta Teknologia):




**VI.5. Grafikoa:** Gizarte Zientziak (GTZ), Giza Zientziak (GZ), Natur Zientziak-Zientzia Hutsak (NZ-ZH) eta Ingeniaritza-Teknologia (IT) jakintza multzoetako euskarazko produkzio idatziaren bilakaera (1966-2007). Ezkerrik eskumara urteak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

- Bistan denez, denboraren lerroan Giza Zientziak nagusi izan dira, baina 80ko hamarkadaren hasiera arte, ez zegoen beste jakintza multzoen oso gainerik. 80ko hamarkadan hazkunde ikusgarria izan zuten eta orduan lortutako mailari eutsi dio gerora.



- Gizarte Zientziek berriz, hazkunde homogeneoagoa izan dute.
- Natur Zientzia eta Zientzia Hutsak, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean abiatu ziren, orduan sortu zelako *Elhuyar* aldizkaria, eta hamarkadaren amaieran Zientzia Fakultatean euskarazko irakaskuntza antolatzen hasi zelako. Jakintza multzo honetako produkzioak 1980. urtean goia jo zuen, eta geroztik muga hori ez da modu esanguratsuan gainditu. Izan ere, urte horretan 72 dokumentu ekoitzi ziren, eta 2005. urtean 76.
- Azkenik, aipatu behar da, Ingeniaritza eta Teknologia arloek 90eko hamarkadaren bigarren erdialderaino ez zutela ekoizpen idatzi esanguratsurik izan (ordutik ere ez oso handia), eta atzerapen horren ondorioz, jakintza-arlo honetan euskaraz oso produkzio txikia dagoela.

Ikus ditzagun orain ekoizpen urriagoa duten beste hiru jakintza multzoak (Osasun Zientziak, Artea eta Musika, eta Zientzia Aplikatuak):



**VI.6. Grafikoa:** Osasun Zientziak (OZ), Artea-Musika (AM) eta Zientzia Aplikatuak (ZA) jakintza multzoetako euskarazko produkzio idatziaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Grafiko honetan jasotako hiru jakintza multzoetatik, aipagarriena Osasun Zientziena da. Arte eta Musika arloak 90eko hamarkadan izan zuten halako bizkortze bat, azken urteotan galtzen ari dena, nahiz eta 1997. urtean Guggenheim eta bestelako museo eta kreaio guneak sortu ziren, hala nola, Arabako Artium Museoa edota Donostiako Arteleku.

Osasun Zientzien arloko produkzioa oso berandu hasi arren, jauzi nahiko indartsua egin zuen 90eko hamarkadan. Izan ere, orduan sortu zen Osasungoa Euskalduntzeko Elkarte (OEE) eta 1991 urtetik aurrera urtero jardunaldiak antolatzen hasi ziren osasun arloko adituentzat. Jardunaldietako hitzaldiak eta komunikazioak argitaratu egiten dira eta hortik idatzizko ekoizpena. Jardunaldiak, gaur egun arte, Hegoaldean antolatu dira, eta Osasun Zientzien arloko gai monografiko bat hartzen dute ardatz gisa (minbizia, neurozientziak, eritasun infekziosoak, genetika eta abar). Horretaz guztiaz gain, OEEk sustatzen ditu saio klinikoak euskaraz ospitaleetan, diru-laguntzak banatzen ditu UEUko osasun-arloko ikastaroetarako, badu Jose Antonio Agote saria, osasun arloko testuen argitalpena bultzatzeko eta abar. OEEk sustatutako ekimen horien guztien eragin zuzena antzematen da grafikoan<sup>73</sup>.

Osasun Zientzien adibideak erakusten du, jakintzaren edozein arlotan gertatzen diren aldaketek (adibidez OEE sortzeak) eragin erabakigarria izan dezaketela euskarazko produkzio zientifikoaren bilakaeran. Beraz, baldin eta urteko ekoizpen zientifikoaren hazkundeak goia jo badu, hartzen den zentzuzko edozein erabakik euskarazko ekoizpen baldintzak asko alda ditzake eta, urteko hazkundea emendatu. Egokiena izango litzateke euskarazko produkzio idatziaren urteko hazkunde tasa Price-n legeak markatzen duen mailan kokatzea gutxienez. Izan ere, euskarak beste hizkuntza nagusien hazkunde-tasa berdina behar du, bestela, bere produkzio zientifikoaren garrantzia gutxituz joango da.

---

<sup>73</sup> Gainera aipatu behar da posible dela Osasun Zientzien bilakaera grafikoan jasotakoa baino handiago izatea, Inguma datu-basean ez daudelako jardunaldi guztietako argitalpenak katalogatuta, ezinezkoa izan delako OEEk jardunaldien gainean argitaratutako liburuki guztiak kontsultatzea. Dokumentazio zientifiko aurkitzea zaila bada, are zailagoa da euskarazkora heltzea, produkzio txikia delako, liburuen tiradak oso txikiak direlako, sakabanaketa erabatekoa delako, beraz.

### 3.1.2.3. Ahozkoaren azterketa

Ahozko komunikazio zientifikoak duen garrantzia ukatu gabe –euskararen kasuan batez ere–, gaur egungo komunikazio zientifikoa produkzio idatzian oinarritzen da. Komunitate zientifikoari jakinarazi nahi zaion edozer, idatziz egiten da, eta normalean lehenengo jakinarazpen hori aldizkari zientifikoaren bitartez egin ohi da. Beraz, ekoizpen idatzia, normalizazioaren ezaugarritzat har daiteke.

Gaur egungo komunikazio zientifikoaren testuingurua aintzat hartuta, jakintza-arlo bakoitzak euskaraz erregistro idatzian egitura dokumental sendoa duen ala ez aztertu dugu, euskarazko produkzio zientifikoak beste hizkuntzetako komunikazio zientifiko normalizatuen ezaugarriak betetzen dituen ala ez argitzeko. Horrela topatu dugu, arlo gehienetan dokumentu idatziak ahozkoak baino ugariagoak direla. Badago ordea salbuespenik: Informatika, Psikologia, Nekazaritza, Musika eta Geografiaren inguruan dagoen idatzizko dokumentazioa ahozkoaren azpitik dago. Kontuan hartuta Inguma datu-basean idatzizko dokumentu gehiago erregistratuta daudela ahozkoak baino, aipatutako jakintza-arloetan ahozkoaren gailentzea ez da dokumentazio lanak eragindako distortzioa. Izan ere, Inguma-n 16.602 dokumentu daude idatziz eta 9.268 ahoz, hau da, idatzizkoen ia erdia. Baina proportzio hori ez da betetzen aipatu arloetan (ikus VI.8. Taula):

Dokumentu mota	Informatika	Psikologia	Nekazaritza	Musika	Geografia	Dokumentu multzoa
Artikuluak	128	110	110	49	22	Idatzizkoa
Doktorego-tesiak	14	10	0	0	0	
H.A.A	17	132	7	14	3	
Itzulpenak	5	13	0	0	2	
Liburuak	32	47	1	7	1	
<b>Guztira</b>	<b>196</b>	<b>312</b>	<b>118</b>	<b>70</b>	<b>28</b>	
<b>Hitzaldiak eta ikastaroak</b>	<b>467</b>	<b>410</b>	<b>199</b>	<b>168</b>	<b>72</b>	Ahozkoa

VI.8. Taula: Zenbait jakintza-arloen ahozko eta idatzizko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.

Esate baterako Inguma datu-basearen arabera, Psikologiaren arloan azken 40 urteotan euskaraz maila jasoan, hitzaldi eta ikastaro gehiago prestatu dira (410), lan idatziak baino (312). Ikusten denez, jakintza-arlo honetan erregistro idatzia, ez dago normalizatuta eta ahozkoarekin alderatuta azpigaratuta dago. Psikologiako karrera euskaraz ikas daitekeen arren, bertan irakasle euskaldunak irakasten duten arren, eta

urtero unibertsitario euskaldun tituludun berriak ateratzen diren arren, euskaraz ahozkoa nagusi da, eta maila idatzian azken 40 urteotan ez dira 312 dokumentu baino gehiago idatzi. Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak asko izan litezke. Adibidez aipatu jakintza alorretan, unibertsitate mailako eskolak antolatzeari garrantzia handiagoa eman zaiola idatzizko produkzioari baino.

Beraz, zenbait jakintza-arlotan (ikus VI.8. Taula) euskarazko dokumentazio zientifikoa ez dago guztiz normalizatuta eta kontuan hartuta azken 40 urteotako produkzioaz ari garela, ezbairik gabe urria da, bai arloko komunikazio zientifikoa euskaraz eusteko, arloko euskarazko diskurtsoa finkatzeko, edota ikasketa unibertsitarioak oinarritzeko. Gure ondorioak bi dira. Alde batetik, oraindik ere euskarazko produkzio zientifikoa ahozkoak garrantzi handia duela; eta jakintza-arlo batzuetan produkzio idatzia bultzatzeko zailtasunak daudela. M. Aizpuru izan da lehena euskarazko produkzio idatziaren ahultasuna ohartarazten, UEUko Historia Sailaren bilakaera aztertzean<sup>74</sup>. Bestetik idatzizko produkzio txikia denez, euskarazko produkzioa ohiko adierazle bibliometrikoekin neurtzeko zailtasunak daude (azterketa bibliometrikoek produkzio idatzia aztertzen dutelako).

### **3.2. Zientzietako produkzio idatzia euskaraz eta erdaraz**

Atal honetan zientzietako euskarazko produkzioa erdarazkoarekin alderatuko dugu. Horretarako ISLaren fundatzailearen, E. Garfield-en ideia gure hipotesirako abiapuntu moduan hartuko dugu, hau da, Europako herrialdeek gehiago ekoizten dutela ingelesez, beste hizkuntzetan baino<sup>75</sup>. Konprobatu nahi dugu, ea Euskal Herrian ere hori gertatzen ote den. Horretarako CINDOCeko zenbait ikertzailek SCI eta ICYT datu-baseetako informazioan oinarriturik prestatutako txostena erabiliko dugu: *Proyecto de obtención de indicadores de producción científica y tecnológica de España*<sup>76</sup>.

---

<sup>74</sup> (Aizpuru, 2003b: 4)

<sup>75</sup> “Today European and other non-US scientists publish more in English than in any of these languages” (Garfield, 1998)

<sup>76</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004). Luis Morenok EAeko 1995-2000 produkzioa aztertu du (Moreno, 2005), eta aipatutako txostenaren antzeko kopuruak ematen dituenez, eta datuetan ez galtzeko, CINDOCeko txostenean aipatutakoak erabiliko ditugu, osatuagoak direlako bai kronologikoki (2001. urtera arte heltzen dira) bai geografikoki ere (Nafarroa barne hartzen dute).

CINDOCeko txostenak 1996-2001 seiurtekoan espainiar aldizkari zientifikoetan honako gaien inguruan kaleratutako produkzioa aztertzen zuen: Biologia, Nekazaritza, Ingurugiroa, Lurraren Zientziak, Fisika, Ingeniaritza, Teknologia, Biomedikuntza, Matematikak, Medikuntza klinikoa eta Kimika. Ikerketatik kanpo geratu ziren beraz, oro har Giza eta Gizarte Zientziak. Ikerkuntzaren ondorio nagusia honako hau zen:

“La producción científica española recogida por la base de datos SCI fue de 118.257 documentos, con una tasa de crecimiento positiva del 25 %. Por otra parte, la producción recogida por la base de datos ICYT fue mucho menos, solamente 32.350 documentos, y con una tasa de crecimiento negativa de un 12 %. Esto indica una tendencia de los investigadores a abandonar las revistas españolas y publicar sus trabajos preferentemente en revistas extranjeras de circulación internacional. El idioma empleado en las publicaciones del SCI es mayoritariamente el inglés (97 %) con un crecimiento constante, mientras que el español no alcanza el 3 % de los documentos y su tendencia es negativa. La aportación en otros idiomas es prácticamente inexistente. Por el contrario la base de datos ICYT emplea el español fundamentalmente, el inglés se utiliza solo en el 8 % de los documentos y la aportación de las distintas lenguas nacionales es muy pequeña”<sup>77</sup>

Lehenengo eta behin argi eta garbi geratzen da datu-baseok hizkuntzarekin duten harreman estua, esplizituki hizkuntza jakin bateko datu-baseak ez diren arren. SCiA ingelesarekin oso lotuta ageri da, eta ICYTa gaztelaniarekin<sup>78</sup>.

Ondoren, datu-base bakoitzean produkzio zientifikoaren bilakaera desberdin ageri da. 1996-2001 urteen artean espainiar aldizkari zientifikoetako produkzioa SCiAn etengabe hazten bada ere, ICYT-en hazkundearen joera negatiboa da, hau da, gero eta gutxiago hazten da espainiar produkzioa. Beraz, ingelesez egindako espainiar produkzio zientifikoaren hazkunde-tasa positiboa da, gaztelaniaz egindakoarena aldiz, negatiboa.

Espainiari dagozkion joera orokorrak, komunitate autonomoka ere aztertu zituzten aipatutako txostenean. SCiaren arabera EAEn produkzioaren hazkunde-tasa % 26koa<sup>79</sup> izan zen aldizkari zientifikoetan, eta Nafarroarena % 109koa<sup>80</sup>. EAEn eta Nafarroan erabiltzen ziren hizkuntzak, beti ere SCi-ren arabera, oso antzekoak dira: lehenengo ingelesa (% 97,3a EAEn eta % 96,9a Nafarroan), ondoren gaztelania (% 2,2a

<sup>77</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 1)

<sup>78</sup> Aipatutako bi datu-baseetan euskarak ez du presentziarik: ISi-ko datu-basetan (Moreno, 2005: 83) ez da agertzen eta ICYT kasua, oso mugatua eta puntuala da (ikus VI.9. taula).

<sup>79</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 393)

<sup>80</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 373)

EAEn eta % 2,8a Nafarroan), eta azkenik frantsesa (% 0,4a EAEn eta % 0,2a Nafarroan).

ICYTen bestalde, EAEn urteko produkzioa gero eta txikiago dela ageri da. Esaterako, 1996an 263 artikulua zientifiko ekoitzi ziren eta sei urte beranduago 231<sup>81</sup>. Nafarroan aldiz, seiurte osoan ez dago ia gora beherarik eta urteko produkzioa mantentzen da<sup>82</sup>. Hizkuntzei dagokionez, espainiar aldizkarietan gaztelaniaren erabilera erabatekoa da, EAEn zein Nafarroan; eta euskararena aldiz, oso urria. Espainian dauden beste autonomi erkidegoetako bertako hizkuntzen erabileraren azpitik kokatzen da euskara EAEn zein Nafarroan (ikus VI.9. Taulan katalanaren kasua):

Hizkuntza	EAE	Nafarroa	Katalunia	Balear Uharteak	Galizia	Madril
Gaztelania	% 91,7	% 91,4	% 82,4	% 50,8	% 86,7	% 92,9
Ingelesa	% 7,8	% 8,8	% 10,1	% 19	% 10,9	% 7
Euskara	% 0,3	-	-	-	-	-
Katalana	-	-	% 7,3	% 30	-	% 0,1
Galiziera	-	-	-	-	% 2,1	-

VI.9. Taula: Espainiar komunitate autonomoen produkzio zientifikoaren hizkuntza ICYTen arabera (1996-2001). Iturria: (Gómez Caridad eta beste, 2004)

CINDOCeko txosteneko datuen arabera SCIan jasotako EAeko produkzioak Madril eta Asturias-ekoarekin antzekotasun handiagoak ditu Nafarroakoarekin baino<sup>83</sup>. Hala, EAEn hazkunde tasa Madril eta Asturiasen parekoa da (% 21-26koa), baita ingelesaren (% 97-98koa) eta gaztelaniaren (%1,9-2,2) erabilera ere. ICYTen aldiz, aipatutako hirurek hazkunde negatiboa dute (hau da, urtez urteko produkzio zientifikoa gero eta txikiagoa da), eta hizkuntzen erabileraren hurrenkera honela dago: lehenengo gaztelania (% 91-93), bigarren ingelesa (% 7 eta 8,7), eta beste hizkuntzen presentzia oso urria.

<sup>81</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 737)


<sup>82</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 723)

<sup>83</sup> Nafarroako produkzioak EAekin antzekotasun batzuk baditu ere, desberdintasun handiak daude: Nafarroako SCiko hazkunde tasa % 109koa da (EAekoa berriz % 26koa) eta Nafarroak ICYTen ez du hazkunde negatiborik (EAEn gertatzen den moduan), Nafarroako urteko produkzioa ICYTen berdina da, ez da hazten, ezta gutxitzen ere.

Laburbiltzeko, SCI datu-basean katalogatzen den ingelesezko produkzio zientifikoak 1996-2001 urte tartean hazkunde tasa positiboa izan zuen, hau da, urtez urte Espainiako komunitate autonomoek gero eta gehiago ekoitzi dute ingelesez, eta aldiz ICYT-en katalogatzen den gaztelaniazko produkzioa, beheranzko edo gutxienez estankamendu garai batean dago. EAEn eta Nafarroan ere horixe gertatzen ari da.

SCIa ingelesarentzat dena, ICYT-a gaztelaniarentzat da eta Inguma euskarazko produkzio zientifikoarentzat. Datu-baseok elkar osatzen dutela uste dugu. Hau da, produkzio zientifikoaren joera nagusiak ezagutzeko hirurek eman dezaketen informazioa baliagarria eta osagarria da. Adibidez, Inguma-n detektatu den euskarazko produkzioaren hazkundearen egonkortzea (eta agian beheranzko joera) testuinguru honetan (agian) hobeto uler daiteke. Hau da, EAEn zein Nafarroan, Espainiako beste lurralde batzuen antzera, ingelesezko eta eragin handiko produkzio zientifikoa ekoizteko joerak gero eta indar handiagoa du gaztelaniaren eta euskararen kaltetan. Horren adibide da Euskal Herrian jakintza-arlo hauetaz ziharduen aldizkari bati gertatutakoa. Eusko Ikaskuntzak 1990. urtean kaleratutako Fisika, Kimika eta Matematikari buruzko aldizkariak (*Fórmula*) komunikazio zientifikoaren testuinguru honetan, nagusiki gaztelaniaz argitaratuta, 1999 urteaz geroztik ez du zenbaki berririk atera.

SCI, ICYT eta Inguma-ko datuekin ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz Hegoaldeko artikuluetan hizkuntzen erabilera zein den kalkula daiteke. Hegoaldeko argitalpen zientifikoak, adibidez 2001. urtean, SCIaren arabera 1.127 izan ziren eta ICYTean bildutakoak 350. SCiko artikuluen % 97a ingelesez ekoitzi bazen, orotara 1.093 lirateke. Eta ICYTeko artikuluen % 91a gaztelaniaz egonik, 318 artikulua genituzke lurralde berean eta urte tarte berdinean gaztelaniaz. Euskaraz 2001. urtean, arlo berberetan 109 artikulua ditugu Inguma-ren arabera (Iparraldeko artikulurik ez dago). Datuak guztiz bateragarriak ez badira ere, Hegoaldeko Zientzia eta Teknika arloko produkzioaren hurbilpen interesgarri baterako baliagarriak dira (ikus VI.7. Grafikoa):



**VI.7. Grafikoa:** Hego Euskal Herriko Natur Zientzia, Zientzia Huts, Osasun Zientzia, Ingeniaritza eta Teknologia arloetan 2001. urtean argitaratutako artikuluetan hizkuntzaren erabilera<sup>84</sup>. Iturriak: SCI, ICYT (Gómez Caridad eta beste, 2004) eta Inguma-tik jasotako datuak.

Grafiko honek irudi zehatzagoa ematen du Hegoaldeko Natur Zientzia, Zientzia Huts, Osasun Zientzia, Ingeniaritza eta Teknologia arloetako ekoizpen zientifikoetako hizkuntzen erabilerearen gainean. Ikusten denez, 2001. urtean Hegoaldean Zientzia eta Teknologia arloan argitaratu ziren 10 artikulutik 7 ingelesez ekoitzi ziren, gaztelaniaz 2 eta euskaraz 1. Gainera, kontuan izan behar da ingelesezko artikulua ikerkuntzari lotutako lanak direla, eta euskarazkoak berriz, % 80a *Elhuyar Zientzia eta Teknikan* argitaratu ziren neurrian, dibulgazioarekin lotutakoak, alegia, oso oinarritzkoak.

Amaitzeko, atal honetan konprobatu ahal izan dugu aipatutako jakintza-arloen kasuan Euskal Herriko produkzio zientifikoak bete egiten duela E. Garfield-ek zioena, hau da, gaur egun produkzio gehiena ingelesez egiten dela. Ez litzateke harritzekoa, joera nagusi honek oraindik ezin zehaztuko eragina izatea euskarazko produkzioaren bilakaeran. Izan ere, azken urteotan euskarazko goi mailako produkzioaren hazkunderik ez da izan eta are gainbehera antzeman daiteke.

<sup>84</sup> Bilaketak honako SHU zenbakietan oninarritu dira: SHU 5, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 6, 61 eta 62.



### 3.3. Euskarazko doktorego-tesiak

Doktorego-tesia unibertsitateko gradu gorena lortzeko prestatzen den berariazko dokumentua da, doktore gradua hain zuzen ere<sup>85</sup>. Gure asmoa atal honetan euskarazko doktorego-tesien problematika dokumentala eta oinarritzko ezaugarriak azaltzea da: azken urteotako bilakaera, unibertsitateak identifikatzea, jakintza-arloetan banatzea eta abar. Euskarazko dokumentazio zientifikoaren esparruan doktorego-tesiak aukeratu ditugu hurbilketa zehatzago bat egiteko eta dokumentu mota honen ezaugarri zehatzak aztertzeko. Izan ere, dokumentu mota honek euskaraz dituen ezaugarriak aztertzea Komunitate Zientifiko Euskaldunaren deskribapenerako baliagarria izan daitekeela uste dugu.

#### 3.3.1. Euskarazko tesiak ezagutzeko ikerketa dokumentala

Euskaraz prestatutako tesiak aurkitzeko berariazko ikerketa dokumentala egin dugu, Inguma datu-basearen lantaldearekin batera. Orain arte, ezezaguna izan da unibertsitate desberdinetan euskarazko tesiak zenbat eta zeintzuk ziren. Hau da, bilduma osatzen zuten izenburu eta egile guztiak ia-ia anonimoak ziren. Are gehiago, unibertsitateentzat beraientzat ere, ezezagunak ziren<sup>86</sup>. Laburki bada ere, egoera horren arrazoiak aztertu, informazio iturriak identifikatu, eta doktorego-tesi bildumaren ezaugarriak zehaztu nahi ditugu.

Dokumentazio arloan doktorego-tesiei, eta bestelako dokumentu batzuei, *grey literature* edo literatura grisa izena ematen zaie. Mota honetako dokumentazioa, oso garrantzitsua bada ere, ez da beti argitaratzen, baina argitaratuta ere, ez dago eskuragarri ohiko bide komertzialetan, eta egonik ere, oso tirada txikiko dokumentuak

---

<sup>85</sup> X. Isasik honela dio: “Doktorego-tesia izateak, formalki ikertzeko gaitasuna dakar. Beraz, unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea izateko ezinbesteko baldintza da. (...) Doktorego-tesiek pertsona unibertsitario baten goren maila akademikoa adierazten dute” (Isasi, 2004: 136)

<sup>86</sup> Horren adibide da, 80ko hamarkadan UPV/EHUn aurkeztu ziren doktorego-tesietako batzuk ez direla ez Akademi Antolakuntzak helarazitako dokumentazioan agertzen, ezta Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Teseo datu-basean ere (adib. Patxi Goenaga, Pello Salaburu, Joxe Martin Apalategi eta abarren tesiak UPV/EHUko Akademi Antolakuntzak bere zerrendetan jaso gabe zituen).

direnez, eskuratzeko zailak dira. Horregatik, *grey* edo grisa izena hartzen dute. Horri gehitzen baldin badiogu euskaraz egindako doktorego-tesiak hizkuntza gutxitu batean daudela, euskaraz egindako doktorego-tesiak eskuragarritasunaren ikuspegitik grisak baino, ikusezinak direla esan liteke.

Ikuspegi dokumentaletik euskarazko doktorego-tesiek gaur egun bizi duten ikusezintasunaren faktoreak hiru dira nagusiki, eta laburki aipatutako ditugu:

- Euskaraz egindako doktorego-tesien kopurua txikia da eta erdarazkoen artean barreiatuta daude (adibidez unibertsitateetako sailetako<sup>87</sup> edota ikerkuntza taldeen<sup>88</sup> web guneetan).
- Tesiak ezagutzera emateko ekimenak oso sakabanatuta daude: egile bakan batzuen web gunean<sup>89</sup> edota gai berezituen gaineko zerrendaren batean aurki daitezke.
- Euskarazko tesiak sarritan txarto katalogatuta daude<sup>90</sup> edota erdarara itzulitako izenburuarekin. Teseon adibidez, horrelako hainbat kasu aurkitu ditugu<sup>91</sup>.

Aipatu denez, euskaraz egindako tesiak maiz unibertsitateetako artxiboan, Teseo datu-basean zein liburutegietako katalogoetan, gaztelerazko izenburua daukate. Ondorioz, euskaraz dauden tesiak ikusezinak dira, horrek bere baitan dituen ondorio guztiekin euskararen normalizazioan arlo akademikoan, eta bereziki jakintza-arlo

---

<sup>87</sup> Adibidez, UPV/EHUko Gaur Egungo Historia Sailak, sailean bertan aurkeztutako tesi guztien zerrenda bere web gunean eskaintzen du: <http://www.ehu.es/historiacontemporanea/es/tesis.php>

<sup>88</sup> Ixa taldekoek adibidez hementxe jarrita dituzte: <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Tesiak>

<sup>89</sup> Adibidez, Josu Amezagak bere web gunean 1996. urtean UPV/EHUUn aurkeztutako tesia kontsultagarri jarri du: [http://www.ehu.es/komunikazioa/argitalpenak/Herri\\_kultura.pdf](http://www.ehu.es/komunikazioa/argitalpenak/Herri_kultura.pdf)

<sup>90</sup> Adibidez Mikel Haranbururen doktorego-tesia *Haurren kontzeptu espontaneoak, estilo kognitiboak eta garapen operatorioa, natur arloaren irakaskuntzari begira*, Teseo datu-basean honela agertzen da: *Haurren kontzaptu espontaneoak, estilo kognitiboak eta garapenen operatorioa*.

<sup>91</sup> Adibidez, Itziar Alonso-Arbirolek euskaraz egindako tesia erdaraz katalogatuta dago Teseo datu-basean: *Apego inseguro y rol de genero como correlatos de la dependencia interpersonal*.

desberdinen hizkera zientifiko-teknikoen garapenean. Horregatik, ezinbestekoak da informazio iturri propioak garatzea, euskarazko goi mailako dokumentazioaren erreferentzialtasuna izango bada, eta euskararen politika zientifiko eraginkorrak diseinatzeko eta ebaluatzeko.

Beraz, orain arte doktorego-tesi guztiak sistematikoki bildu gabe egon dira eta ez zen inon bere kontsulta publikoa ahalbidetzen. Orain aldiz, Inguma datu-basean bilduma osoa katalogatuta dago, eta Internet bidez modu publikoan eta doakoan kontsulta daiteke.

Tesi guztiak biltzeko eta Inguma datu-basean erregistratzeko informazio iturri desberdinak erabili dira:

- Inguma datu-baseak sinatutako lankidetzak hitzarmenen bitartez unibertsitateek helarazitako dokumentazioa.
- Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Teseo datu-basea.
- Egileei zuzenean galdetuz eta baieztatuz gure informazioa (Inguma-n egileen helbide elektronikoa jasotzen baita)
- Biblioteka desberdinetako fondoen kontsulta zuzena. Mota honetako dokumentazioa duten liburutegi garrantzitsuenak honako hauek dira: Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka, UPV/EHUko Biblioteka, Bizkaiko Foru Liburutegia eta HABE Liburutegia.

Gure ikerketa dokumentalaren arabera, 1976. urtean euskaraz egindako lehenengo tesia aurkeztu zenetik gaur egun arte, 322 doktorego-tesi prestatu dira hizkuntza honetan<sup>92</sup>.

---

<sup>92</sup> Lehen erreferentzia 1976 urtekoa da, Ricardo Arrue Imaz-ek kardiologiari buruz prestatuko doktorego-tesia. Azkeneko erreferentzia 2009 urteko doktorego-tesia da.

### 3.3.2. Euskarazko tesien kopuruak eta bilakaera

Espainiako Zientzia eta Hezkuntza Ministerioak Internet-en kontsultagai duen *Teseo*, *Procedimiento para la gestión de tesis doctorales* (<https://www.micinn.es/teseo/>) datu-basearen arabera, gaur egunera arte Espainian, unibertsitate desberdinetan, 129.835 doktorego-tesi defendatu dira<sup>93</sup>. Katalan hizkuntzako unibertsitateetan esaterako, Estatu osoko tesien % 26,5a aurkeztu dira<sup>94</sup>, eta Hego Euskal Herrian % 7a. Hurrengo taulan Hegoaldeko tesien datuak biltzen dira:

Unibertsitateak	Tesiak (Teseo)	Eusk. tesi kop. (Inguma)	Eusk. tesi %tan
UPV/EHU	4.579	277	6
DU/DU	488	25	5,1
UPNA/NUP	451	2	0,4
UN/UN	3.539	14	0,4
MU	47	0	0
<b>Guztira</b>	<b>9.104</b>	<b>318</b>	<b>3,5</b>

VI.10. Taula: Hego Euskal Herriko unibertsitate desberdinetan defendatu diren doktorego-tesiak. Iturriak: Teseo eta Inguma datu-basea.

UPV/EHUan aurkeztu dira euskaraz Euskal Herrian prestatutako doktorego-tesi gehien, % 86a. Hala ere, kontuan hartu behar da UPV/EHUren baitan euskaraz prestatutako tesiak % 6a baino ez direla. Deustuko Unibertsitatean euskaraz tesi gutxiago egin ziren, 25, baina unibertsitate horretan ez dira UPV/EHU bezainbeste tesi aurkezten. Horregatik, Deustun euskaraz aurkeztutako tesiak % 5,1 dira, UPV/EHU bezalatsu. Beste hiru unibertsitateetan euskaraz aurkeztutako tesiek garrantzi kuantitatibo are txikiago daukate.


Iparaldeko Unibertsitateetan euskarazko 4 doktorego-tesi aurkeztu dira, 2 Bordeleko Unibertsitatean (*Université Michel de Montaigne, Bordeaux 3/ Michel de Montaigne Unibertsitatea, Bordeaux 3*) eta beste 2 Paueko Unibertsitatean (*Université de Pau et des Pays de l'Adour/ Paue eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatea*).

<sup>93</sup> Kontsulta data: 2009-03-16.

<sup>94</sup> Joan Lluís Vives Institutuaren sarean (<http://www.vives.org/univ/>) parte hartzen duten espainiar estatuko Katalan hizkuntzako unibertsitateak aintzat hartuko ditugu bilaketan, hau da, Andorrako Unibertsitatea eta Perpinyà-koa kenduta, beste hamazortzitan aurkeztutako doktorego-tesiak (guztiak 34.413 tesi).

Beraz, euskaraz aurkeztutako tesi gehien gehienak Hegoaldeko Unibertsitateetan aurkeztu dira (322tik 318), eta bereziki UPV/EHUUn (277). Izan ere, unibertsitate horretan dago unibertsitate mailako euskarazko irakaskuntzarik zabalena eta irakasle euskaldun doktoreen talderik handiena. UPV/EHUK gaur egun 2.000 irakasle-lanpostu elebidun baino gehiago ditu.

Azpmarratzeko beste datu garrantzitsu bat da, euskarazko doktoradutza ikastaroen eskaintzarik ez dela izan XX. mende osoan, Hizkuntzalaritza eta Literatura arlokoak kenduta. Doktoradutza ikastaroen eskaintza Euskal Herrian erdaraz izan da ia osoki eta, nola ez, egiturazko egoera horrek berebiziko eragina du euskarazko doktorego-tesien prestaketan. Gaur egun (2008/2009 ikasturtean), esate baterako, UPV/EHUK 85 doktoradutza programa ditu, eta horietatik 3 eskaintzen dira euskaraz: *Euskal Herria XXI* (2002tik), *Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua* (2004tik), eta *Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia*<sup>95</sup>.



**VI.8. Grafikoa:** Euskarazko doktorego-tesien bilakaera (1976-2008). Beltzez, doktorego-tesi guztiak, eta grisez, UPV/EHUUn aurkeztutakoak. Ezkerretik eskumara, urteak, eta goitik behera tesi kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

<sup>95</sup> UPV/EHUren Doktoradutza programen zerrenda unibertsitatearen web gunen kontsultatu dugu: [http://www.ikasketak.ehu.es/p266-shproget/es/contenidos/informacion/oferta\\_doctorado/es\\_oferta/oferta.html](http://www.ikasketak.ehu.es/p266-shproget/es/contenidos/informacion/oferta_doctorado/es_oferta/oferta.html) [kontsulta data: 2009-04-10]

Euskarazko doktorego-tesien bilakaerari erreparatzen badiogu (ikus VI.8. Grafikoa), 2007. urtean aurkeztu ziren tesi gehien, guztira 26. Hala ere, euskaraz egindako doktorego-tesien bilakaera ez da erregularra, urteen arabera asko fluktuatzen du. Esate baterako, 1997a urte bikaina izan bazen ere, 21 tesi defendatu baitziren, hurrengoa guztiz eskasa izan zen, 10 baino ez zirelako aurkeztu.

### 3.3.3. Tesien fenomenologia zabala

Beste datu kurioso bat da zientzietan gertatzen dena. UPV/EHUko Zientzi Fakultatean 2005/2006. ikasturtean 58 doktorego-tesiren defentsa egin zen. Fakultate horren nazioarteko jitea ukaezina da, hala ere, bertan egindako tesien hizkuntza honakoa izan zen: 46 gaztelaniaz, 4 ingelesez eta 2 euskaraz<sup>96</sup>. Datu hauen argitan esan daiteke UPV/EHUko Zientzia Fakultatean komunikazio hizkuntza ez dela ingelesa, gaztelania baizik. Kontuan izan behar da, ingelesa ez dela UPV/EHUko hizkuntza ofiziala, ordea, euskara eta gaztelania bai. Hala ere, Europar tesiak ingelesez aurkez daitezke, eta Europar tesia izan gabe ere, UPV/EHUko Doktoradutza Batzordeak, doktoregaia/zuzendaria atzerritarra denean edo doktoregaiaren curriculumaren garapenerako baliagarria denean, tesiak ingelesez aurkeztea onartzen du. Baina ikusten denez, doktoregaiak aukera horiek gutxitan baliatzen dituzte.

Euskarazko tesiei dagokionez, unibertsitario euskaldunak, ikasle zein irakasle, badauden arren, hein handiz euskarazko produkzio zientifikoa etenda dago. Baina ez ingelesa gailentzen delako komunikazio zientifiko arloko *lingua franca* gisa, baizik UPV/EHUUn eta, oro har, Hegoaldeko jarduera zientifikoaren egunerokotasunean gaztelaniak hartu duelako *lingua franca* funtzioa. Hortaz, unibertsitatean euskal hiztunak badaude, baina ekoizteko orduan erdal (gaztelaniar edo frantses) komunitateengana zuzentzen dira.

---

<sup>96</sup> Datu hauek Zientzi fakultatearen web gunean kontsultagarri daude kulturgintza deritzon sailean: [http://ciencias.ehu.es/dbtools/agen\\_cultural\\_E.asp](http://ciencias.ehu.es/dbtools/agen_cultural_E.asp) [kontsulta data: 2006/08/29]

Jakintza-arloei dagokionez, euskarazko doktorego-tesien % 62 Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak dira. Ondoren Natur Zientziak eta Zientziak Hutsak daude % 16,1arekin, eta segidan Ingeniaritza eta Teknologia % 14,6arekin. Beste jakintza-arloetan aurkeztutako tesiak oso gutxi dira (ikus VI.11. Taula).

Jakintza multzoak	Tesi kop.	Tesien %
Giza Zientziak	102	31,7
Gizarte Zientziak	97	30,1
Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak	52	16,1
Ingeniaritza eta Teknologia	47	14,6
Osasun Zientziak	18	5,6
Arte Ederrak	5	1,5
Zientzia Aplikatuak	1	0,3
<b>Guztira</b>	<b>322</b>	<b>100</b>

VI.11. Taula: Euskaraz defendatu diren doktorego-tesiak jakintza-arlo nagusien arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

EAEko Hezkuntza Sailak prestatutako azterketa baten arabera 1996-1999. urteetan EAEn edozein hizkuntzetan aurkeztutako doktorego-tesien jakintza-arloak beste hurrenkera bat zuten: % 24,9a Zientzia Esperimentalak, % 23,8a Gizarte Zientzia eta Zuzenbidea, % 19,3a Osasun Zientziak, %16,8a Ikasketa teknikoak eta azken postuan Giza Zientziak % 15,2arekin<sup>97</sup>. Hezkuntza Sailaren azterketa oso mugatua izan arren, bai kronologikoki bai esparru geografikoari dagokionez, argi dago hizkuntzak jakintza-arloetan eragin zuzena duela. EAEko tesi gehien gehienak gaztelaniaz aurkeztu ziren eta jakintza-arloei dagokionez nahiko orekatuta zeuden, nahiz Zientziak nagusi ziren. Euskaraz berriz, Giza eta Gizarte Zientziak dira nagusi.

Giza eta Gizarte Zientzietan euskaraz doktorego-tesi gehiago egotea ez da harriztekoa, gorago ikusi dugunez, euskarazko goi mailako ekoizpen idatziaren ezaugarrietako bat horixe baita (ikus 3.1.2. *Euskarazko produkzio idatziaren sailkapena* atala). Izan ere, normalean jakintza-arlo horietako gaiak euskal hizkuntza eta eremu geografikoarekin harreman estua dute eta horrek errazten du tesia euskaraz egitea. Gainera normalean gai hauetako tesi proiektuak egikaritzeko azpiegitura gutxiago behar da, Natur-Zientzietan, Zientzia Hutsetan edo Ingeniaritzan baino. Alderantziz ere esan daiteke: Fisika arloko gai bat euskal hizkuntza eta eremu geografikoarekin lotzea

<sup>97</sup> (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2001: 23)

gaitzago den neurrian, eta normalean azpiegitura beharizan handiagoak dituen, doktoregaiak jadanik martxan dauden ikerkuntza-talde edota -proiektuetan (gehienetan erdaldunetan) txertatu behar du, eta horren ondorioz taldearen lanerako hizkuntza bereganatu behar du, erabaki pertsonala izateari utziz.

Euskal Herrian euskaraz aurkeztu zen lehen tesia 1976. urtean, Rikardo Arrue kardiologoak aurkeztu zuen, Bilboko Unibertsitatearen Medikuntza Fakultatean (gaur eguneko UPV/EHUren aurrekaria zena) eta beraz, Osasun Zientzien arloak hasiera ezin hobe izan zuen.

“Agian, gerta dakioke gogor samar norbaiti lan hau ulertzea... Izan ere, gaia bera orain artean ez erabilia izanez gero, hainbeste hitz ezezagun horien zerrendak areagotu bide duke ulerkaiztasun hori. **Baina ez dadukagu behin eta birritan erabili beste erremendiorik, baldin eta sekulan ezertara iritsi nahi badugu. Nire ondorengo sendagile edo beste motako ikasketetan diharduketen euskaldun gazte guztiei oihu egiten diet lerro hauetatik, haik ere saia daitezen gisa honetako lanak egiten**, eta hori eginez, euskara aberatsago, jantziago, euskarago bat moldatzen.”<sup>98</sup> [beltzak gureak dira]

Azken 40 urteotan arlo honetan 18 doktorego-tesi aurkeztu dira, eta gure datuen arabera, 18 horietatik bi baino ez daude argitaratuta. Beraz, horrelako dokumentuak gutxi izateaz gainera, argitaratzen ez badira, ez dute euskarazko arloko diskurtso eta lexiko zientifiko-teknikoa elikatzen. Argitaratzen ez diren tesiak, egile euskaldunaren curriculum garapenerako baino ez dira erabilgarriak, hau da, doktore gradua eskuratzeko, ez besterik<sup>99</sup>.

Bestalde, antzeman dugun beste fenomeno bat harrigarria da: Osasun Zientzietako doktoreetako batzuk, euskaraz ekoitzi duten idatzizko dokumentu bakarra doktorego-tesia izan da. Egoera horretan topatu ditugu 3 doktore. Gertaera hau beste jakintza-arlo batzuetan ere antzeman dugu, Kimikan adibidez. Jakintza-arlo horretan 20 tesi auzetu dira, horietatik, 7 egilek, euskaraz dokumentu bakarra dute, tesia hain zuzen ere. Ondoko taulan jakintza-arloen arabera egoera horretan aurkitutako 30 doktoreen kasuak jaso dira:

---

<sup>98</sup> (Arrue, 1979: 9)

<sup>99</sup> Espero dugu, UEUK eta Eusko Jaurlaritzak martxan duten Tesiker proiektuan, hau da, euskaraz egindako dokumentazio akademiko-unibertsitarioaren argitalpen digitala eta kontsulta publikoa ahalbidetu duen proiektuaren bitartez, Osasun Zientzien arloko tesiak euskarri elektronikoen argitaratzea.



Jakintza-arloak	Tesi kopurua		Jakintza multzoak
Kimika	7	12	Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak
Natur-Zientziak-Biologia	2		
Fisika	2		
Matematika	1		
Ingeniaritza eta Teknologia	8	8	Ingeniaritza eta Teknologia
Osasun Zientziak	3	3	Osasun Zientziak
Soziologia	1	3	Gizarte Zientziak
Politika	1		
Pedagogia	1		
Hizkuntzalaritza	3	3	Giza Zientziak
Artea	1	1	Artea eta Musika
Guztira	30		

VI.12. Taula: Euskaraz ekoizpen bakarra doktorego-tesia duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

Fenomeno honek eraginik handiena du Natur Zientzietan, Ingeniaritzan eta Osasun Zientzietan. Aipatutako hiru jakintza multzo horietakoak dira 23 tesi. Posible da, alde batetik, egileok tesia aurkeztu baino lehen, tesian ikertutako gaiekin artikulua ingelesez argitaratu izana, eta behin lanok nazioarte mailako aldizkarietan onartuta eta argitaratuta, artikuluetarako egindako lan hori tesi batean eta euskaraz jartzea. Bide horrek gainera erraztuko luke euskarazko tesiaren defentsa, epaimahaiko kide ez euskaldunek ingelesez argitaratutako lanak irakurtzeko aukera izango luketelako. Halaber, posible da, Zientzietan eta Ingeniaritzan antzemandako fenomeno hau lotuta egotea euskarazko tesiak prestatzeko ematen diren diru-laguntzekin. Izan ere, UPV/EHUK azken urteotan euskarazko tesiak sustatzeko diru-laguntzen deialdi bat du. Deialdiak Zientzia, Teknologia eta Osasun Zientzien arloko gaiak lehenesten ditu. Hori dela eta, posible da, doktoregai batek baino gehiagok tesia euskaraz egitea, nahiz eta aparteko ibilbiderik ez izan euskarazko goi mailako produkzioan. Nolanahi ere, auziak sakonago ikertzea mereziko luke.

Azpitarratu nahi dugun azken fenomeno bat da Deustuko Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitatean euskaraz aurkezten diren doktorego-tesi gehienak arlo jakin batekoak direla. Beraz, unibertsitateen nolabaiteko espezializazio baten aurrean egongo ginateke, non Deustun euskaraz prestatutako doktorego-tesiak euskal Literatura eta Hizkuntzalaritzari buruzkoak baitiren, 25 tesitik 19, eta Nafarroako Unibertsitatean aurkeztutakoak Ingeniaritza arlokoak, 14tik 14ak. Halaber, Iparraldean prestatutako 4 tesietatik 3 hizkuntzarekin oso lotuta daude. UPV/EHUn doktorego-tesien gaiak

askozaz ere sakabanatuago daude, eta euskal hizkuntza eta Literaturaren inguruan aurkeztutako doktorego-tesiak multzorik handiena osatu arren (227tik 58), beste jakintza-arlo ugarian tesi askotxo prestatu dira. Adibidez, Pedagogia eta Hezkuntza Zientzietan 29 tesi daude, Kimikan beste 20, Osasun Zientzietan arestian aipatu moduan 18, Informatika arloan 16, Fisikan 14, Historian 13 eta beste horrenbeste Kazetaritza eta Komunikazio arloan.

### **3.3.4. Galesez, katalanez eta euskaraz egindako doktorego-tesien arteko aldea**

Segidan euskarazko tesiak galesez eta katalanez egindakoekin konparatuko ditugu. Bietatik, hizkuntzaren historia sozialaren ikuspegitik, Galesek antzekotasun handiagoak ditu euskal kasuarekin Kataluniak baino: antzeko lurralde eremua, antzeko hiztun kopurua eta abar. Hala ere, katalanak ezinbesteko erreferente dira, Euskal Herriarekin batera espainiar eta frantziar estatuen unibertsitate sistemen baitan lortu dutelako katalanezko irakaskuntza eta ikerkuntza abiatzea.

Galesez prestatutako tesiak (britaniar sisteman Ph. D. deituak), euskarazkoekin gertatzen den moduan, nagusiki galestar Hizkuntza eta Literatura, Historia eta Hezkuntzari buruzkoak dira. Jakintza-arloen esparruan, euskarazko eta galestar tesien arteko alde nagusia da euskaraz Teologiari buruzko tesirik ez dagoen bitartean, galesez, Teologiari buruzko Ph. D.-ak ugariak direla, eta kopurutan galestar Hizkuntza eta Historiari buruzkoen parean daude. Besteak beste, bi herrietan, Euskal Herrian eta Galesen tradizio erlijioso aski desberdina izateak ekarri du hori (batean tradizio katolikoa izan da nagusi, bestean protestantea).

Bestalde, urtero aurkeztutako tesiei dagokionez, bietan urtero antzeko tesi kopurua aurkezten da. Galesez aurkeztu diren lan akademikoen informazio iturririk ez dago Internet-en, ezta unibertsitate liburutegietan ere. Beraz, ondoko datuak Galeseko Liburutegi Nazionalean (Aberystwyth-en) bertan kontsultatu ditugu. Liburutegi Nazionalean orain arte ez dituzte bereiztu Galeseko lurraldean ingelesez eta galesez aurkeztutako doktorego-tesiak, eta beraz, Liburutegi Nazionalak berak ez ditu berariazko informazio iturriak sortu. Horren ondorioz, urtez urteko zerrenda osoak

kontsultatu eta eskuko zenbaketak egin ditugu galesezko tesiak bereizteko eta kuantifikatzeko. Azken 40 urteak arakatzea neurritz kanpoko lana zenez, laginketa egin eta honako urteak aukeratu ditugu: 1969<sup>100</sup>, 1979<sup>101</sup>, 1989<sup>102</sup> eta 1999<sup>103</sup>. Ohar egitekoa da Ph. D.-ez gain gradu-ondoko beste zenbait ikerketa-lan ere jaso ditugula (M. A., M. Phil. eta abar), hein handiz gure tesien antzeko direnak. Ikus datuak ondoko taulan:

Urtea	Euskaraz	Galesez (guztira)	M.A.	Ph. D.	M. Phil.	M. Ed.	D. Litt	M. Sc.	Zehaztu gabe
1969	0	13	11	2	0	0	0	0	0
1979	1	19	12	0	0	4	2	1	0
1989	2	14	2	3	6	3	0	0	0
1999	20	27	4	9	6	1	0	5	2

VI.13. Taula: Euskaraz eta Galesez aurkeztutako doktorego-tesiak edo baliokideak. Iturriak: Inguma datu-basea eta Galeseko Liburutegi Nazionala.

Goiko taulan ikusten denez, azken 30 urteotan euskarazko tesien hazkundera izan da. Noski horren atzean daude batetik hizkuntzaren normalizazio prozesu orokorra gizartean, eta bestetik unibertsitatean bertako kide euskaltzaleek egindako lana zein unibertsitateak berak martxan jarritako hizkuntza politikarako plangintzak. Nolanahi ere, plangintza horien jomuga nagusia euskarazko irakaskuntzaren normalizazioa izan da, eta ez dute euskarazko ikerkuntzaren edota doktorego-tesien sustapena hainbeste lagundu. Hala, azken 10 bat urteotan Euskara Errektoreordetzak euskaraz doktorego tesiak prestatzeko diru-laguntzak eman izan ditu baina ez beka predoktoralak<sup>104</sup>.

<sup>100</sup> 1969an Galesez aurkeztutako tesiak ezagutzeko Galeseko Liburutegi Nazionalaren honako dokumentu hau kontsultatu dugu: *A List of Dissertations submitted and accepted for Higher Degrees in the University of Wales 1966-1970*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 1971.

<sup>101</sup> 1979an Galesez aurkeztutako tesiak ezagutzeko Galeseko Liburutegi Nazionalaren honako dokumentu hau kontsultatu dugu: Jones, Gordon A. & Bowen, Robin Huw (biltzaileak): *A List of Dissertations submitted and accepted for Higher Degrees in the University of Wales 1978-1979*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 1980.

<sup>102</sup> 1989an Galesez aurkeztutako tesiak ezagutzeko Galeseko Liburutegi Nazionalaren honako dokumentu hau kontsultatu dugu: Evans, Beryl O. & Taylor, Llinos (biltzaileak): *A List of Dissertations submitted and accepted for Higher Degrees in the University of Wales 1989*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 1990.

<sup>103</sup> 1999an Galesez aurkeztutako tesiak ezagutzeko honako Galeseko Liburutegi Nazionalaren honako lau dokumentu kontsultatu ditugu: Davies, Rhian (biltzailea): *1999 List of Postgraduate Dissertations*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 2002; Davies, Rhian (biltzailea): *2000 List of Postgraduate Dissertations*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 2003; *2001 List of Postgraduate Dissertations*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 2002; eta azkenik *2002 List of Postgraduate Dissertations*, Aberystwyth: The National Library of Wales, 2003.

<sup>104</sup> 2009/2010. ikasturteetik aurrera Euskara Errektoreordetzak euskaraz tesia egiteko emandako diru-laguntzak ohiko beka predoktoralekin parekatu ditu.

Galeseko unibertsitatearen historia nahiko desberdina izan da. XIX. mende bukaeran sortu zen Galeseko Unibertsitatea. Bertan ingelesa zen lan hizkuntza nagusia, baina hasiera beretik izan zituzten galestar Hizkuntza eta Literatura ikertzeko sailak. Ondorioz XX. mendeko lehen urteetan jada aurkeztu ziren gradu-ondoko lanak (tesien gisakoak) galeseraz. Galesen ez zegoen bertako hizkuntza sustatzeko plangintzarik, ezta Hegoaldean Francok ezarri zuen moduko hizkuntza bazterterik ere. Ondorioz, galeseraz tesia aurkeztea librea zen, norbanakoen borondatean oinarrituta. Hala, Galeseko Unibertsitatean hizkuntza normalizatzeko plangintzarik eduki ez arren, aurkeztu diren tesi kopuruak, azken urteotan euskaraz aurkeztu direnen antzekoak dira. Adibidez, 2006 eta 2007 urteetan galeseraz 43 tesi aurkeztu ziren eta euskaraz 47. Hortaz neurri batean unibertsiterako hizkuntza politikarik ez duen Galesen parean gaude. Horrek erakusten du euskal unibertsitateetan aplikatu diren hizkuntza plangintzak ez direla bat ere aktiboak izan euskarazko tesiak sustatzeari dagokionez, lehenetasun nagusia irakaskuntzaren normalizazioan kokatu baita, ez euskarazko ikerkuntzan.

Kopuruetan, Gales eta Euskal Herria berdindu diren arren, urteekin galeseraz aurkeztutako tesien proportzioa gutxitu egin da. Izan ere, galeseraz aurkeztutako tesien kopurua urteekin mantendu arren, ingelesez aurkeztutako tesiak gora egin dute. 1969an Galesen aurkeztutako tesien % 2,8a galeseraz bazen, hogeita hamar urte beranduago, 1999an % 0,9a baino ez zen. Galeseko kasua ispilu ona da ohartzeko hizkuntza arloko tolerantzia soilak edo plangintza ahulak, hizkuntza gutxituari minimo batzuk ahalbidetuko dizkiola, baina azkenean marginalitate militantera kondenatzen duela.

Segidan Kataluniako kasura hurbilduko gara eta zenbait datu interesgarri emango ditugu Euskal Herrian euskaraz prestatzen diren doktorego-tesiekin alderatzeko. M. Siguan-ek 1992an zioen Kataluniako unibertsitate desberdinetan urtero katalanez egindako tesiak eta tesinak % 30 zirela eta beste guztia gaztelaniaz egiten zela<sup>105</sup>. Agian, Siguan labur geratu zen, adibidez Historia arloan 1990-1995 urteetan

---

<sup>105</sup> (Siguan, 1992: 178)

katalanez defendatutako tesiak % 55 izan zirelako<sup>106</sup>. Euskal Herrian urte tarte berean, UPV/EHU adibidez, Historia arloan euskaraz 4 tesi prestatu ziren, hau da, UPV/EHU arlo horretan aurkeztutako tesien % 3,5a<sup>107</sup>.

Katalunian, Historia arloko portzentajeen gaineratik, Soziolinguistika arloko doktorego-tesiak egongo liriteke (1990-1995 urteetan % 63a katalanez egin baitziren), eta azpitik Geografia eta Psikologia arlokoak. Geografia arloan adibidez, 1990-1995 urteen artean katalanez tesien % 42 aurkeztu zen<sup>108</sup> eta 1996-2002 urteetan “la proporció de tesis llegendes en català i en castellà ha estat exactament la mateixa”<sup>109</sup>. Bien bitartean aipatu behar da, euskaraz ez dela Geografia arloko tesi bakarria ere prestatu.

Jones eta Baró i Queralt ikertzaileen azterketa bibliometrikoaren arabera, 1954-1996 urteetan Katalan Herrialdeetan Komunikazio arloan 285 doktorego-tesi aurkeztu ziren, horietarik % 41,3a katalanez. Ikertzaileek aztertu dutenez, unibertsitate batzuetan katalana ezagutza zientifikoaren transmisiorako hizkuntza da:

“En aquesta tasca destaca particularment la Universitat Autònoma de Barcelona –en especial la Facultat de Ciències de la Comunicació–, la Universitat de Barcelona i la Universitat de València. Totes tres acaparen prop d’un 85 % del total de tesis doctorals defensades, un tipus de recerca que cada vegada empra més la **llengua catalana com a vehicle de transmissió del coneixement científic.**”<sup>110</sup> [beltzak gureak dira]

Noski, hori guztia soilik da posible Komunikazio arloan 1946-1996. urteen artean katalanez 86 tesi prestatu ez ezik, bestelako lan akademikoak ere, karrera amaierako lanak, lizentzia lortzeko tesia eta abar katalanez egin zirelako. Euskal Herrian, berriz, 1996. urtera arte, arlo horretan euskaraz 8 tesi prestatuta zeuden.

---

<sup>106</sup> “Entre 1990 i 1995, el 55 % de les tesis doctorals d’història han estat presentades en llengua catalana a les universitats de Catalunya, amb un màxim a història medieval -67 %- i un mínim al bloc de prehistòria i història antiga amb un 45 %” (Balcells eta beste, 1998: 36)

<sup>107</sup> UPV/EHU aukeratu dugu euskaraz doktore tesien gehien dituen unibertsitatea delako. Sasoi berdinean Deustuko Unibertsitatean eta Nafarroako bi unibertsitateetan aurkeztutako tesi guztiak aintzat izan bagenu, euskarazko historia arloko tesien portzentaia % 0koa izango baitzen. 1990-1995 urteen artean UPV/EHU Historia arloko 114 tesi aurkeztu ziren (Teseo datu-basean 2005/08/19an egindako kontsultaren arabera).

<sup>108</sup> (Lluch i Martin eta beste, 1998: 35)

<sup>109</sup> (Lluch i Martin eta beste, 2004: 46)

<sup>110</sup> (Jones & Baró i Queralt, 1997: 166)

Pentsatzekoa da gaur egun katalanez aurkezten diren tesien batez besteko portzentajea Siguan-ek aipatutako % 30a baino gorago dagoela. Historia arloan behintzat horrela da. 1996-2002 urteetan Historiaurre, Arkeologia eta Antzinaroko Historia arloan tesien % 57,2 katalanez egin ziren<sup>111</sup>. Erdi Aroko Historiarako ez dago daturik. Aro Berrian katalanez % 60a prestatu zen<sup>112</sup> eta Historia Garaikidearen arloan % 75a<sup>113</sup>.

Hipotesi moduan hartzen badugu Historia arloko datuak salbuespena direla, eta gaur egun katalanez egiten diren tesiak ia herena edo % 30 direla, hori horrela izanda ere, katalanezko eta euskarazko produkzioaren arteko aldea ikaragarria da. Hego Euskal Herrian 2004. urtean adibidez, unibertsitate desberdinetan aurkeztu ziren tesien % 3,3a soilik izan zirelako euskarazkoak<sup>114</sup>.

## 4. Egile euskaldunen azterketa

Hurrengo atalean Inguma datu-basean unibertsitate mailako euskarazko dokumentuen katalogazio sistematikotik bildutako 7.223 egileak aztertuko dira. *Egile* hitza erabiltzen dugu, eta ez idazlea, Inguma datu-basean dauden pertsona ugarik ez duelako ezer idatzi, askok ahozko ekoizpenak baino ez baitituzte. Gainera, idazle hitzak badu literatur ekoizlearen nola halako oihartzunik. Horregatik guztiagatik, ekoizleei *egile* deitzen diegu eta ez idazle.

Unibertsitate mailako euskarazko kultur produkzioa egin edota zabaltzen duten egileei buruz lan gutxi daude, are gutxiago egile horien kidetasun harremanen ingurukoak, eta ia ezer ez taldetasun harreman horiek komunitatea osatzen ote dutenentz. Ikuspegi historiko batetik berriz, ikertzaile bat baino gehiago hurbildu da gai

---

<sup>111</sup> (Balcells eta beste, 2004: 29)

<sup>112</sup> (Balcells eta beste, 2004: 65)

<sup>113</sup> (Balcells eta beste, 2004: 93)

<sup>114</sup> Teseo datu-basean 2009-04-19an egindako kontsultaren arabera, 2003/2004. ikasturtean UPV/EHU 230 tesi aurkeztu ziren, Deustuko unibertsitatean 29, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 38 eta Nafarroako Unibertsitatean 180. Guztira: 477 tesi eta horietatik 16 euskaraz prestatu ziren. 2003/2004. ikasturtea aukeratu dugu Nafarroako Unibertsitatean aurkeztutako tesien azken zerrenda osoa Teseon ikasturte horretakoa delako.

honetara, batzuetan ospe bereziko pertsonen biografia<sup>115</sup>, sare intelektualen azterketa<sup>116</sup>, edo prosopografiaren bitartez<sup>117</sup>.

Amaitzeko, atal honetan, zientzia eta kultur gaiak euskaraz lantzen dituzten egileen azterketa bibliometrika egin dugu. Gure lanaren abiapuntua Inguma datu-basea denez, informazio iturriaren berezko mugek emaitzak baldintzatuko dituzte. Izan ere, Inguma datu-basean egileei buruz eskuratu daitezkeen datuak honako hauek baino ez dira: izena, deiturak, eposta, hilda/bizirik dauden, eta beraien euskarazko produkzio zientifikoa.

#### **4.1. Egile motak: norbanakoak, kolektiboak eta ezezagunak**

Azken 40 urteotan Inguma datu-basearen arabera, euskaraz eta unibertsitate mailan zerbait ekoitzi duten pertsonak edo taldeak 7.223 dira. Horietako batzuk ikertzaileak dira, beste batzuk idazleak edota intelektualak, unibertsitate irakasleak, edo institutukoak eta abar. Ondoko lerroetan, eta egile euskaldunak hobeto ezagutzeko, Inguma-n dokumentatuta dagoen egile multzoaren zenbait ezaugarri emango ditugu.

Arestian aipatu den moduan, Inguma-n katalogatzen diren egileak norbanakoak edo kolektiboak izan daitezke. Indibiduoak 6.920 dira, horietatik 105 hilda dagoela dokumentatu da, hau da, % 1,5a. Horregatik, susmatzen dugu Inguma-ko egile multzoa, norbanako heldu/gaztez osaturik dagoela.

---

<sup>115</sup> Bereziki nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen *Bidegileak* bilduma, euskalgintzarekin lotura izan duten pertsonen biografiak jasotzen dituena. Biografia solteen artean P. Iztuetak (1991) *Orixeren* inguruan egindakoa, edo J. Kintanak (2002) R. M. Azkueren inguruan egindakoa, aipa daitezke.

<sup>116</sup> Adibidez, Amelia Hernández-ek sare intelektualak aztertu ditu, bai XIX. mendekoak (Hernández Mata, 1998) bai XX. mendekoak ere (Hernández Mata, 2007)

<sup>117</sup> Proposopografiaren generoan J. Agirreazkuenagaren lan ugariak ekarri beharko genituzke gogora, baina kultura arloarekin zer ikusi zuzenena duena Eusko Ikaskuntzaren inguruan egindako hiztegi biografikoa litzateke (Agirreazkuenaga, 1998). Euskal Herritik oso urrun proposopografiaren bitartez errusiarrek XVIIItik XX mende hasiera arteko errusiar historialarien komunitate zientifikoa aztertu dituzte. Lan hori burutzeko PROSIS izeneko informazio sistema bat sortu dute eta 1.000 egile detektatu dituzte (Ross eta beste 1998)

Egile Mota		Egile kopurua	Dok kop. (%tan)	Dok./eg. BB
Norbanakoak	Bizirik	6.815	35.256 (% 91)	5,1
	Hilda	105	1.956 (% 5)	18,6
Kolektiboak		299	818 (% 2)	2,7
Ezezagun motak		4	585 (% 1)	-
		7.223	38.615 (% 100)	5,3

**VI.14. Taula:** Inguma datu-baseko egile motak, mota bakoitzeko egile kopurua, produkzioa eta egile bakoitzaren batez besteko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.

Hilda dauden egileak asko ez diren arren, egile hauek, bakarrik edo lankidetzan, Inguma-n katalogatutako 1.956 dokumentu prestatu dituzte, hau da, produkzioaren % 5ean parte hartu dute. Beste hitz batzuekin, mota honetako egile bakoitzak batez beste 18,6 dokumentu ekoitzi ditu euskaraz ahoz edo idatziz. Bizirik dauden Inguma-ko egileen batez besteko produkzioaren gaineratik dago, beraz, hildakoena (Inguma-ko egile biziek batez beste 5 dokumentu dituztelako). Beraz, hilda dauden egileek ia lau bat aldiz produkzio handiagoa dute, bizirik daudenek baino. Hein handiz hori lotuta dago adinarekin, hau da, hilda daudenak urte gehiagotan aritu baitira lanean.

Hortaz, pentsa daiteke hilda dauden egile gehienak adinez nagusiak zirela, (60-90 urte), hau da, XX. mendeko lehenengo erdialdean jaiotakoak (1914 eta 1944 urte bitartean sortutakoak), eta adinez nagusiak zirenean, Euskara Batua sortu gabe edo sortze bidean zegoela oraindik. Beraz, zuzenean edo zeharka prozesu hori sustatu, edo gutxienez, ezagutu zuten. Horregatik, agian mota honetako egileen produkzioan Hizkuntzalaritza, Filologia eta Literatur Kritika jakintza-arloek presentzia handia dute. Ikus ondoko taula honetan jada hilda dauden egileen produkzioaren jakintza-arloen banaketa:

Jakintza-arloa	Dok. kop.	Dok. %
Hizkuntzalaritza eta Literatur Kritika	1.000	51,1
Historia eta Biografia	436	22,3
Beste jakintza-arloak	520	26,6
Guztira	1.956	100

**VI.15. Taula:** Hilda dauden egileen produkzioa jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.



Inguma-n dauden egile guztiak hartuz, Hizkuntzalaritza eta Literatur Kritikaren inguruko produkzioa % 26koa da, eta hildakoen artean, berriz, % 51,1a. Bi ondorio atera daitezke hemendik. Batetik, pellokeria dirudien arren, egile guztiak ez direla berdinak, ez adinez, ezta ekoizpen pauta edo gaien dagokionez ere, eta Inguma-ko egile multzoak ez duela talde homogenea osatzen. Bestalde, hilda dauden egileen goi mailako euskarazko ekoizpena oso lotuta dagoela euskara berarekin. Hau da, honelako egileengan erregistro jasoan aritzeak eta hizkuntza beraren gaineko kezka bat egiten zuen. Hizkuntza finkatuz eta normalizatuz joan den heinean, hizkuntza berak lehentasunezko arreta gunea izateari utzi dio, eta egile euskaldunak bestelako gaietan arreta handiagoa jartzen joan dira. Esate baterako 1977. urtean Inguma-ko produkzio idatziaren % 32,4a Hizkuntzalaritza eta Literatura arlokoa zen<sup>118</sup>, eta hogeita hamar urte beranduago % 21,4a. Beraz, Hizkuntzak eta Literatur Kritikak euskarazko produkzioan oraindik garrantzia badute ere, urteekin garrantzi hori, erlatiboki, gutxitzen joan da eta egileak bestelako jakintzetara ireki dira. Hala ere, oraindik oso garrantzitsua izaten jarraitzen dute kopuru absolutuetan.

Bestalde, Inguma-n badira izaera kolektiboa duten egileak, hau da, euskaltegiak, euskara elkarteak, erakundeak, pertsona taldeak... datu-basean orotara halako 299 egile ageri dira (% 4,1a). Egile mota honek Inguma-n erregistratutako produkzioaren % 2,1a ekoitzi du.

Azkenik, lau egile ezezagun mota bereizi dira datu-basean: *hizlari ezezaguna*, *ikastaro arduradun ezezaguna*, *irakasle ezezaguna* eta *itzultzaile ezezaguna*. Hauek normalean, arazo dokumentalengatik, izen-deiturekin identifikatu ezin izan diren egile indibidualak dira. Hau da, Inguma-n katalogatutako produkzioaren % 1,5aren egileak nortzuk diren (oraingoz) ez dago jakiterik.

Hortaz, Inguma datu-basean bildutako egileen % 94,3a, oraindik bizirik dauden norbanakoek osatzen dute eta datu-basean katalogatutako produkzioaren % 91,3a ekoitzi dute.

---

<sup>118</sup> SHU 8, 81 eta 82arekin egindako bilaketak.

## 4.2. Egileen bilakaera


Egile kopuruaren bilakaerari dagokionez, hamarkada bakoitzean egile euskaldunen kopurua haziz joan da. Ondoko taulan eskaintzen dira hamarkada bakoitzean goi mailan aritutako egile euskaldunen kopuruak:

Hamarkada	Egile kop.
60ko hamarkada (1966-1969)	14
70eko hamarkada (1970-1979)	525
80ko hamarkada (1980-1989)	1.833
90eko hamarkada (1990-1999)	3.572
XXI. mendea (2000-2008)	4.134

VI.16. Taula: Egile euskaldunen kopurua hamarkadaka. Iturria: Inguma datu-basea.

XXI. mendean beraz, 4.000 egilek baino gehiagok, euskaraz eta goi mailan, ahoz zein idatziz, dokumentu bat edo gehiago ekoitzi dute. Duela 40 urte talde horren garrantzi kuantitatiboa oso txikia zen. Gaur egun berriz, eta zenbait prozesuri esker (hizkuntzaren batasuna, euskarazko goi mailako azpiegituraren –aldizkari, argitaletxe...– sorrera eta garapenarekin, unibertsitatearen finkapenarekin...) hasierako egile multzoak tamaina handia hartu du.

Soilik idatzizkoari erreparatuta, idatziz dokumentu –bat edo gehiago– kaleratu dituzten egileak 1975. urtean 103 baino ez ziren, eta hogeitaz beranduago milatik gora izan dira (ikus VI.9. Grafikoa):



VI.9. Grafikoa: Idatzizko produkzioa duten egile kopuruaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Grafiko honetan ikusten denez, 1995. urtetik aurrera urte bakoitzean 1.000 bat egile euskaldun dago euskaraz liburu, itzulpen, HAA edo tesia prestatzen dutenak.

Egileen gorakada bakoitza oso lotuta dago, aurreko kapituluetan landutako fenomeno batzurekin. Esate baterako 90eko hamarkada hasierako gorakada UPV/EHUren euskararen erabilerarako normalizazio plangintza eta haren eraginez sortutako aldizkari berriekin erlazionatuta dago (*Tantak* eta *Ekaia*), baita unibertsitateak irakasle euskaldun gehiago kontratatzearekin ere eta abar.

### 4.3. Egileen ekoizpena eta Lotka-ren legea

Arestian aipatu dugunez, egile guztiak ez dira berdinak, ez adinez, ezta ekoizpenari dagokionez ere. Izan ere, egileen % 89,4ak ahoz edo idatziz 10 dokumentu edo gutxiago ekoitzi dituzte, beste % 10,6ak (hau da, 766 egile euskaldunek) 10 dokumentutik gora prestatu du.

Egileen dokumentu ekoizpena	Egile kop.
Dokumentu 1 ekoitzi duten egileak	3.339
2 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	1.195
3 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	620
4 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	360
5 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	267
6 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	214
7 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	154
8 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	131
9 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	105
10 dokumentu ekoitzi dituzten egileak	72
(...) dokumentu ekoitzi dituzten egileak	(...)

VI.17. Taula: Egile kopurua dokumentu ekoizpenaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

Taula honetan ikusten denez, Inguma-n 3.339 egile daude (% 46,2) euskaraz dokumentu bakarra ekoitzi dutenak, eta ia 1.200 dira euskaraz 2 dokumentu dituztenak. Beraz, Inguma bilduta dauden egile euskaldunen % 70ak euskaraz gehienez dokumentu bi prestatu dituzte.

Auzi honekin lotuta dago Alfred J. Lotka amerikar matematikariak 1926an enuntziatu zuen legea. A. Lotka-ren arabera, egile gutxi dira produkzio zientifiko emankorra dutenak, gehienek oso produkzio gutxi dutelako.

Zehazki Lotka-ren legeak dio jakintza-arlo batean X dokumentu ekoitzi dituzten egile kopurua (Y) alde aurretik kalkula daitekeela formula matematiko bat erabiliz:  $Y = C/X^2$ , non X egile bakoitzak ekoiztako dokumentu kopurua den, eta Y aipatutako X dokumentu kopurua ekoitzi duten egileen maiztasun erlatiboa, eta C, dokumentu 1 ekoitzi duten egileen kopurua.

Lotka-ren legea euskal kasuan betetzen den ala ez jakiteko jakintza-arlo batzuk aukeratu ditugu Inguma-ko datua, datu erreala dena, Lotka-ren formularekin lortutako emaitzekin alderatzeko (X eta C emanik, Y kalkulatu dugu):

Dok. kop.	Fisika		Osasun Zientziak		Ekonomia		Literatur Kritika		Informatika	
	Ing.	Lotka	Ing.	Lotka	Ing.	Lotka	Ing.	Lotka	Ing.	Lotka
1	56	56 (56/1 <sup>2</sup> )	124	124	98	98	147	147	92	92
2	15	14 (56/2 <sup>2</sup> )	21	31	26	24,5	50	36,75	27	23
3	8	6,2 (56/3 <sup>2</sup> )	12	13,7	11	10,8	16	16,3	9	10,2
10	1	0,56 (56/10 <sup>2</sup> )	1	1,24	1	0,98	5	1,47	0	0,92

**VI.18. Taula:** Euskarazko artikulu egileen distribuzioa jakintza-arloka datu errealen arabera (Inguma) eta Lotka-ren legearen arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

Taula honetan ikusten denez, egile euskaldunen kopurua gutxi gora behera, Lotka-ren legera egokitzen da, nahiz eta jakintza-arlo batzuk besteak baino hobeto egokitzen diren (adb. Ekonomia). Beraz, produkzio gutxiko egileen kopurua euskararen kasuan, handia bada ere, hori ez da euskarazko ekoizpenaren bitxikeria bat, baizik ohiko lege bibliometrikoetara hurbiltzen den ezaugarria. Alde horretatik normaltasun zeinu bat litzateke.

### 4.3.1. Ekoizpen bakarria duten egileak

Arestian aipatu dugunez, batez beste Inguma-ko egile bakoitzak 5,5 dokumentu ekoitzi ditu. Hala ere, ikusi dugunez, badira 3.339 egilek euskaraz ekoizpen bakarria dutenak<sup>119</sup>. Lerrootan beraietaz arituko gara.

Esan dugunez, egileen % 46,2ak dokumentu bakarria ekoitzi du. Egile motaren arabera, dokumentu bakarria ekoitzi dutenen intzidentzia handiagoa edo txikiagoa da. Adibidez, egile kolektiboen artean produktu bat bakarrik dutenen portzentajea ia % 69,5koa da, aldiz egile indibidualen artean % 45,5koa, eta hilda dauden artean % 27,6koa soilik.

Egile Mota		Egile kop.	Dok. bakarreko eg. kop.	Dok. bakarreko eg. %tan
Norbanakoak	Bizirik	6.815	3.102	45,5
	Hilda	105	29	27,6
Kolektiboak		299	208	69,5
Ezezagunak		4	0	0
Guztira		7.223	3.339	46,2

VI.19. Taula: Dokumentu bakarria duten egileak, egile motaren arabera sailkatuta. Iturria: Inguma datu-basea.

Bi ondorio arin atera daitezke datuotatik: lehena, ekoizlerik emankorrenak ez direla egile taldeak, egile indibidualak baizik; eta bigarrena, pentsa liteke dokumentu bakarria duten egile indibidualen taldea kide gazteek osatzen dutela nagusiki. Izan ere, dokumentu bakarreko egileen intzidentzia txikiagoa da hilda dauden egileengan, hau da, adinez nagusiago direnengan, eta pentsatzekoa da, dokumentu bakarria duten egile gazteek urteak aurrera joan ahala dokumentu gehiago prestatuko dituztela<sup>120</sup>.

Ondoko taulan produktu motaren arabera dokumentu bakarria ekoitzi duten egileak zenbat diren zehaztu dugu:

<sup>119</sup> Posible da kopuru hau handiagoa izatea eta *hizlari ezezagun, irakasle ezezagun* eta *ikastaro arduradun ezezagun* direnetako batzuk behin bakarrik zerbait ekoitzi duten egileak izatea, eta beraz, dokumentu bakarria duten egileen kopurua altuagoa izatea.

<sup>120</sup> Dena den ekoizpen bakarreko egileen portzentajea mantenduko dela uste dugu (baldin eta gaur eguneko testuinguru kulturala eta sozio-ekonomikoa ez bada aldatzen), urtero egile berriak (eta gazteak) datu-basean etengabe txertatzen joango direlako.

Dok. mota	Egile kop.	Dok 1 duten eg. Kop.	Dok 1 duten eg. %
Hizlariak	3.129	951	30,4
Ikastaro	806	143	17,7
Irakasleak	1.340	180	13,4
Artikulu-egileak	3.518	1.247	35,5
HAA-egileak	1.875	485	25,8
Liburu-egileak	1.426	235	16,5
Itzultzaileak	357	54	15,1
Doktorego-tesien egileak	322	30	9,3
Ikertzaileak proiektuetan	177	13	7,3
Ikerkuntza-lanen egileak	2	0	0

VI.20. Taula: Egile kopurua dokumentu motaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikusi ahal da, hizlari gisa aritutako egileen % 30,4ak euskaraz duen dokumentu bakarra hitzaldia dela. Artikulu egileen kasuan portzentajea are altuagoa da, % 35,5koa. Ondorioa argia da, euskarazko goi mailako artikulu produkzioan badago euskaraz idazteko ohiturarik ez duen egile multzo bat, zehazki 1.247 egile, behin idatzi dutenak eta ez gehiago. Horrek noski, eragin kaltegarria du jakintza-arloetako euskarazko goi mailako diskurtsoan eta lexikoan, sistematikotasunik gabeko ekarpenak direlako. Hala ere, egile multzo hau handia den arren, artikuluen corpusean ez du horrenbesteko eraginik. Izan ere, euskaraz goi mailan 10.314 artikulu argitaratu dira, eta horietatik % 12,1a ekoizpen bakarra (hau da, soilik artikulu bat) duten egileek prestatu dituzte, beraz dokumentu bakarreko egile guztien produkzio globala ez da oso handia. Ondoko taulan argiago ikusten da aipatutakoa:

Dok. mota	Dok. kop.	Dok. bakarreko eg. kop.	Dok. bakarreko eg. %tan
Hitzaldiak	8.060	951	11,8
Ikastaroak	1.208	143	11,8
Irakasgaiak	3.523	180	5,1
Artikuluak	10.314	1.247	12,1
HAA	3.986	485	12,2
Liburuak	1.529	235	15,4
Itzulpenak	451	54	12
Doktorego-tesiak	322	30	9,3
Ikerkuntza-proiektuak	85	13	15,3
Ikerkuntza-lanak	2	0	0
	29.480	3.339	11,3

VI.21. Taula: Euskarazko goi mailako produkzioa dokumentu motaren arabera, eta dokumentu bakarra duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

Goiko taulako datuak honetara laburbil daiteke: euskarazko produkzioaren % 11,3a ekoizpen bakarra duten egileena da, hots, 3.339 egilek 3.339 dokumentu ekoitzi dituzte. Dokumentu motaren arabera, ekoizpen bakarra duten egileak gehiago edo gutxiago dira. Hala, liburuen %15,4a ekoizpen bakarra duten egileena da. Baina, gure ustez, daturik harrigarrienak doktorego-tesi eta ikerkuntza-proiektuei dagokie, baita euskarazko produkziorik gabeko unibertsitateko irakasle euskaldunei ere. Ekoizpen bakarra tesia euskaraz duten egileetaz arestian aritu gara (ikus 3.3.3. *Tesien fenomenologia zabala*). Ikerkuntza-proiektuei dagokionez, Inguma datu-basean euskaraz garatutako 85 ikerkuntza-proiektu daude, eta bertan parte hartu dute 177 ikertzailek, horietatik 13k euskaraz ikerkuntza-proiektutik kanpo ez du beste dokumenturik. Datua bi modutara uler daiteke: batetik ikertzaile horiek pertsona gazteak izan daitezke, eta bestetik 13 horiek euskaldunak ez izatea, baina ikerkuntza-proiektu euskaldunean parte hartzen dutela. Aukera biak oso posibleak dira.

#### 4.3.2. Euskarazko produkziorik gabeko unibertsitateko irakasle euskaldunak

UPV/EHU, DU, NUP, NU eta UEUn, irakasgaiak ematen dituzten 180 egilek euskaraz duten ekoizpen bakarra irakasgaiak da. Multzo honi gehitzen badizkiogu bi produktu dituzten egileak eta biak irakasgaiak direnak, edota hiru dituztenak, eta hirurak irakasgaiak... kopurua are handiagoa da. Ikus ondoko taula:

Irakasgai kop.	Irakasle kop.
1	180
2	102
3	62
4	31
5	16
6	14
7	3
Guztira	408

VI.22. Taula: Euskaraz soilik irakasgaiak ematen dituzten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

Beraz, irakasgaiak dituzten 1.340 egileetatik, 408k (% 30,4ak) euskaraz ez du ekoizpenik, irakasgaietatik kanpo. Hau da, irakasle horien curriculumean euskarazko

produkzio idatzia ez da existitzen. Hortaz, badirudi unibertsitatean ari diren irakasle euskaldunetako batzuk, unibertsitatean daudela euskarazko ekoizpenik ez duten arren. Honi guztiari gehitzen badiogu irakasgaiez gain, hitzaldi bakarra eta ez besterik eman duten irakasleak (adibidez, hiru irakasgai eta hitzaldi bat), euskarazko ekoizpen idatzirik ez duten irakasle euskaldunen multzoa askoz gehiago handitzen da.


Bestelako ekoizpenik ez duten irakasle euskaldun hauen kasuan bi aukera posible daude: lehena, honelako irakasleak bestelako ekoizpenik ez izatea, ez euskaraz, ez erdaraz, edo bigarrena, irakasle euskaldunak bere curriculuma erdaraz garatzea, liburuak eta artikuluak erdaraz argitaratuz.

Arrazoi asko egon litezke deskribatu berri dugun fenomenoaren atzean: unibertsitateen hizkuntza plangintzen arrakasta mugatua, irakasleen ebaluazio sistemak, motibo pertsonalak, ideologikoak, irakasle euskaldunen gehiegizko dozentzia, lan baldintza kaskarrak eta denbora zein baliabide eza bestelako lanak egiteko... Aztertzeke uzten dugu beraz, unibertsitateko irakasle euskaldunen euskarazko produkzio ezaren fenomenoak, fenomeno konplexua iruditzen zaigulako.

### **4.3.3. Ekoizpen bakarra duten egileen bilakaera**

Inguma-n dokumentu bakarra duten egileen bilakaera aztertuz, ikusiko dugu, egile gazteak diren, edo behintzat produkzio akademikoaren ekoizle gisa *gaztetasuna* duten, ala gaur egunean erabat deserrotutako pertsona multzoa den. Beheko grafikorekin ateratzen dugun ondorio garbia da, bietarik daudela, hau da, egile sortu berriak, baita behin eta oso aspaldi ekoitzi zuten egileak ere.





**VI.10. Grafikoa:** Ekoizpen bakarra duten egileen bilakaera (1969-2008). Ezkerretik eskumara, urteak, eta behetik gora, egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Pentsa daiteke 1996. urtetik aurrera ekoizpen bakarra duten 2.037 egileak (ekoizpen bakarra duten egileen % 61) gazteak direla, hots, hasiberriak. Ostera, 1996tik atzera bagoaz, badaude 1.302 egile, ekoizpen bakarra eta oso aspaldikoa dutenak. Gehienek, seguru aski, jada ez dute berriro beste ezer ekoitziko euskaraz.

Egile sortu berriak, hau da, azken 10-12 urte hauetan euskaraz dokumentu bakarra ekoitzi duten egileak, frankismoa bukatzeaz, edota bukatu berri zegoenean jaio bide ziren. Adib. 1976. urtean jaiotakoek, lauazpabost urteko unibertsitate ikasketak egin ondoren, 1998 edo 1999. urtean unibertsitate titulua lortu zuten (diploma arinago ingeniari-titulua baino). Titulatu berritan oraindik zail zuketena beren kabuz zerbait ekoizten hastea, baina handik bi urtera, beren lehen artikulutxoa edo hitzaldia prestatzeko zeketen.

Ekoizpen bakarra duten egileei gehitzen badiegu urte berean ekoizpen guztiak dituzten egileak, 30 bat urte inguru izan dezaketen egileen multzoa are handiagoa da. Egile hauek, 1996 baino atzerako egileek ez bezala, sustapen politika egokien bidez,

ekoizpen berri gehiago egin ditzakete datozen urteotan. Beraz, egile euskaldun alfabetatu gazte-heldu hauek ez galtzea eta euskarazko goi mailako produkzioa duten egile erregular gisa irabaztea Komunitate Zientifiko Euskaldunak epe-labur ertainerako izan dezakeen erronketako bat da.

#### 4.3.4. Urte desberdinetan ekoizpenak dituzten egileak

Orain arte aipatu dugunez, 7.223 egile euskaldunetatik 3.339k (% 46,2a) dokumentu bakarra du (horietatik 2.052k idatzizko produkzioa du), eta dokumentu bakarreko egile euskaldunen multzoa, oro har gaztea da, eta posible da 30 urte bueltan ibiltzea.

Bestalde badira, 3.884 egile ekoizpen bat baino gehiago dituztenak. Horietatik 3.057k idatzizko produkzioa dute. Egile hauek bi, hiru, bost, hamar edota hogeita hamar urteko tartean produkzioa izan dezakete. Hori erakusteko aukeratu ditugu 70eko hamarkadan lehen ekoizpen idatzia egin zuten egileak eta, Inguma-n erregistratuta duten, ahozko zein idatzizko, azken dokumentuaren urtea:

Urte tartea	Egile kop.
1970/79tik 1970/79ra	96
1970/79tik 1980/89ra	52
1970/79tik 1990/99ra	54
1970/79tik 2000/08ra	128

VI. 23.Taula: 70eko hamarkadan lehen ekoizpen idatzia egin zuten egileak, azken dokumentua prestatu zuten hamarkadaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.

Taula honetan agertzen dira 70eko hamarkadan beraien lehen idatzizko dokumentua ekoitzi zuten 330 egile indibidual. Horietako batzuk 70eko hamarkadan bertan ekoitzi zuten beraien azken ekoizpena, eta 128k berriz, XXI. mendean. Kontuan izan behar da, 330 egileetatik 59 gaur egun hilda daudela, eta beraz azken 40 urtetan ekoizten aritutako egileen portzentajea nahiko altua da.

Hortaz, badago euskaraz eta unibertsitate mailako produkzioan aritzen den egile multzo iraunkor bat, horietako batzuk 60 eta 70eko hamarkadan abiatu ziren, urteen joanarekin egile berriekin hornitu dena, eta beraz gero eta handiagoa dena.

Beste modu batera esateko, orain arte ikusitako egileen ezaugarriak laburbilduz, 2006. urtean 1.194 egile izan ziren. Horietatik 149 egilek urte horretan bertan egin zuten beraien ekoizpen bakarra eta beste 1045ek aurretik dokumentu gehiago ekoitzi zituzten<sup>121</sup>, hau da, batzuk 60 edo 70eko hamarkadan hasitakoak ziren, beste batzuk berriz, 80ko hamarkadan, eta asko 90eko hamarkadan.

Aurreko lan batean erakutsi genuen 30 urteko tartean ekoizten zuten egileak ez zirela 3 urtetan ekoizpenak zituzten egileak baino emankorragoak<sup>122</sup>. Bietan egileen urteko produkzioaren batez bestekoa oso antzekoa zen, urtero dokumentu bat. Hala ere, kopuru absolutuetan 30 urtetan zihardutenek ekoizpen gehiago zituzten, batez besteko produkzioari denbora tarte luzeagoan eusten ziotelako. Hortaz, produkzio emariaren gakoa egileen iraunkortasuna zen.

Beraz, gaur egun alde batetik baditugu azken urteotan dokumentu bat ekoitzi duten egileak, eta arestian aipatu dugunez, posible da egile gazteak izatea; eta bestetik, badira ere egile helduagoak, duela 40 urte jada euskaraz ekoizten zutenak (adb. *Txillardeg*i, J. Azurmendi, J. M. Torrealdai...), edota duela 30 urte hasi zirenak (adb. X. Mendiguren Bereziartu, J. Apalategi, X. Amuriza, J. L. Davant, J. Iturbe...), edota duela 20 urte (adb. X. Aierdi, X. Duoandikoetxea, L. Erriondo, F. Plazaola...) eta abar.

#### **4.4. Egileen posta helbide elektronikoak**

Une honetan (2009. urtea), Inguma datu-basean erregistratuta dauden 3.426 egilek eposta ezaguna du, hau da, % 47,4ak. Duela 4 urte datu-baseko egileen % 38ak zuen helbide elektronikoa. Beraz, datozen urteotan teknologia berriak hedatu ahala, egile gehiago informazio eta komunikazio alorreko tresnetan alfabetatuko da, eta egile berriek, gazteek, natibo digitalak izanik, denek izango dute, gutxienez, helbide elektronikoko bat.

---

<sup>121</sup> Horietako gutxi batzuk aurretik beharrez, 2006. urtearen ostean aritu dira.

<sup>122</sup> UPV/EHUko Gaur Egungo Historia Sailean 2005. urteko irailean aurkeztutako Ikerketa-lanean (Artetxe, 2005a: 51)

Eposta duten egileak erdia baino gutxiago izan arren, beraiek ekoitzi dute Inguma-n erregistratutako produkzioaren % 96,6, hau da, epostadun 3.426 egileek 28.498 dokumentu ekoitzi dituzte. Beraz, egilerik emankorrenak eposta dute. Izan ere, mota honetako egileen artean dokumentu bakarria duten egileen portzentajea % 27,5a da, eta aurretik aipatu dugunez, Inguma-n dokumentu bakarria duten egileak % 46,2 dira. Honekin guztiarekin ez dugu esan nahi egileek eposta izateagatik dokumentu gehiago produzitzen dutela, baizik epostak beste zerbaiten sintoma edo agerkari direla. Zerena?

Epostetatik zuzenean atera daitekeen informazio bakarria domeinuari dagokio. Hona hemen egile euskaldunen helbide elektronikoen domeinu nagusiak:

Epostaren domeinua		Eposta kop.	
Unibertsitateak	EHkoak	ehu.es	1.625
		deusto.es	93
		unavarra.es eta upna.es	43
		unav.es	2
		ceit.es	4
		huhezi.edu	32
		mondragon.edu	31
		uned.es	3
	EHTik kanpo	shee-ivef.com	4
		upf.edu	1
		bordeaux.fr	2
		umd.edu	1
		univ-pau.fr	4
		uam.es	2
		uoc.es	1
		uab.es	3
		(...)	
Goi mailako elkarrekin eta erakundeak	elhuyar.org	46	
	euskaltzaindia.net	21	
	ueu.org	20	
	topagunea.com	7	
	aranzadi-zientzia.org	10	
	labayru.org	10	
	kontseilua.org	6	
	behatokia.org	1	
	uzei.com	9	
	Mendebalde.com	1	
(...)			
Erakunde edo sozietate publikoak	osakidetza.net	19	
	ivap.es	12	
	eustat.es	1	
	eitb.com	16	
	habe.org	23	
	irakasle.net	18	
	gipuzkoa.net	30	
	bizkaia.net	13	
	euskadi.net	6	
eg-jv.es	56		

	cfnafarra.es	24
	donostia.org	10
	bilbao.net	3
	vitoria-gasteiz.org	3
	neiker.net	23
	(...)	
Interneteko (doaneko) zerbitzariak	euskalnet.net	271
	gmail.com	59
	wanadoo.*	30
	yahoo.*	66
	hotmail.com	99
	euskalerrria.org	47
	club-internet.fr	4
	telefonica.net	11
	terra.es	17
	(...)	
Enpresak	eleka.net	7
	code&syntax	5
	(...)	

VI.24. Taula: Inguma-ko egileen posta helbide elektronikoen domeinuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Domeinuen azterketatik ikus daiteke non dauden kokatuta egile euskaldunak, hau da, egile horiek eusten duen azpiegitura akademiko eta kulturala zein den. Egia da egileen helbide elektronikoen domeinuak, adierazle gisa erabiltzea, ez dela guztiz zuzena eta ziurra. Adibidez, Euskaltzaindiko domeinuan eposta duenak ez du zertan euskaltzaina izan, edota UPV/EHUkoa duenak ez du zertan unibertsitateko irakasle izan. Hala ere, eposten domeinuen azterketak ahalbidetzen du lehen hurbilketa bat egileen kokagunera.

Hala, VI.24. Taulan ikusten da eposten erdia baino gehiagok unibertsitateekin lotura dutela, gutxienez 1.852 eposta (% 54a) Euskal Herrian edota Euskal Herritik kanpo kokatutako unibertsitateetakoak baitira. Zehazki, UPV/EHUren domeinuan kokatuta daude gehien gehienak (1.625 eposta) eta beraiek ekoitzi dute Inguma datu-basean erregistratutako dokumentazio osoaren % 50,2a.

Unibertsitateetako ostean, Interneteko (doaneko) zerbitzari batean helbidea duten egileak nagusi dira, % 20a inguru. Mota honetako egileak ez dute beraz, aparteko loturarik inongo erakunderekin, edo behintzat ez dute eposta korporatiborik. Ondoren etorriko lirateke erakunde publikoetan eposta duten egileak, goi mailako elkarte eta erakundeetan dituztenak, eta azkenik enpresakoa dutenak. Goi mailako elkarte eta erakundeetako epostak laugarren postuan daude, egiturazko arrazoi bategatik. Halakoetan eposta duten egileak, erakundeko/elkarteko langileak dira. Hau da, UEUren

kasuan ueu.org helbidea dutenak UEUren langileak eta zenbait kargu dira, baina ez UEUrekin liburuak argitaratzen dituzten egileak edo udako ikastaroetan hitzaldiak ematen dituztenak, horiek askotan Interneteko (doaneko) zerbitzari batean eposta baitute.

Lurraldetasunari dagokionez, epostak erabilia ateratzen den beste ondorioa da, Hegoaldearen erabateko nagusigoa. Taulan ikusten denez, Inguma datu-basean Iparraldeko eposta gutxi daude Hegoaldearekin alderatuta. Hein batez, ez da harritzekoa Iparraldean 80.000 bat euskaldun daudelako eta Hegoaldean 600.000 bat, beraz horrek eragina izan behar du. Hala ere, hori ez da arrazoi bakarra. Kontuan izan behar da Iparraldearen (euskal) erakundetze ahula, Hegoaldearekin alderatuta. Hegoaldean zenbait unibertsitate errotuta egoteaz gainera (UPV/EHU, UD/DU, MU, UPNA/NUP eta UN/NU), goi mailako erakunde eta elkarte ugari daude: Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar, Jakin, UEU, Euskaltzaindia, UZEI, Ikerbasque, Aranzadi Zientzi Elkarte, Labayru eta abar. Aldiz, Iparraldean euskarazko produkzioa ekoitzi dezaketen erakunde, egitura eta egile gutxi dago. Dударik gabe garrantzitsuenak honako hauek dira: Baionako Fakultatea, Iker Taldea eta *Lapurdum* aldizkaria<sup>123</sup>. Hiruretan dena den, pertsona ia-ia guztiak errepikatzen dira.

Laburbiltzeko, egile eta euskal erakundearen artean dagoen harremanera eposten azterketaren bidez hurbildu gara. Hala, ikusi dugu, egile oparoenak eposta dutenak direla, baina ez dira emankorra eposta dutelako, bestelako arrazoi batengatik baizik. Arestian aipatu dugunez, iraunkortasuna klabea bada egile baten produkzioan, argi dago iraunkortasuna ahalbidetzen dutenak erakundeak direla. Eposta duten egile gehienak unibertsitate edota erakunde publiko zein elkarte kulturekin lotuta daude, eta beraiek zuzenean edo zeharka egile euskaldunen produkzioa eusten edota sustatzen dute (aldizkariak argitaratuz, jardunaldiak antolatuz eta abar).

---

<sup>123</sup> Egon badaude beste erakunde batzuk Ipar Euskal Herrian errotuta baina beraien garrantzi kuantitatiboa datu-basean oso txikia da. Adibidez: Gatuzain argitaletxea eta *Bulletin du Musée Basque*. Utriusque Vasconiae ez dugu Ipar Euskal Herriko argitaletxetzat hartzen erakundearen egoitza nagusia Donostian dagoelako.

#### 4.5. Dokumentuen egile kopurua

Dokumentu bakoitzean parte hartzen duen egile kopurua aztertuko dugu segidan. Egileen artean dagoen kidetasun edo kidetasun ezaz zerbait adieraz dezakeela uste dugu.

Inguma datu-basean 29.480 dokumentu daude katalogatuta eta 25.145ek (% 85,2ak) egile bakarra du. Beste 2.750 dokumentuk 2 egile dituzte eta geratzen diren 1.585 dokumentuek hiru egile edo gehiago. Idatzizkoetara mugatzen bagara, emaitza antzekoa ateratzen da:

	Dok. kopurua	Dok. %tan	Idatziko dok. kop.	Idatziko dok %tan
Egile 1 duten dokumentuak	25.145	85,2	14.128	85
Egile 2 dituzten dokumentuak	2.750	9,3	1.422	8,5
3 egile edo gehiago dituzten dokumentuak	1.585	5,3	1.052	6,3
Guztira	29.480	100	16.602	100

VI.25. Taula: Dokumentuen egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Kasu bietan, dokumentuen % 85a egile bakarrak ekoitzi du eta beraz, egileen arteko lankidetzaz oso txikia da. Frías eta Romero-ri kasu egiten badiogu,

“Una cuestión de gran relieve para la evaluación es la colaboración en los trabajos científicos. López Piñero y Terrada (1992, p. 143) señalan que a principios del presente siglo, el 80 % de los trabajos tenían una sola firma, mientras que en la actualidad el 80 % tiene varias”<sup>124</sup>.

Euskarazko produkzio zientifikoa oso atzeratuta dagoela esan beharko genuke. Hala ere, hizkuntza nagusietan dokumentazio zientifikoaren inguruan egindako ikerketak eta ateratako ondorioak ez dago jakiterik aplikagarriak diren hizkuntza gutxituetan, batzuen eta besteen egoera soziolinguistikoa goi mailako esparruan oso desberdina delako.

Bestalde, ikusi ahal izan dugu, dokumentu motaren arabera, egileen arteko lankidetzaz handiagoa edo txikiagoa dela. Dokumentu guztiek ez dute izaera berdina, batzuetan egileen arteko lankidetzaz araua da, ikerkuntza-proiektuetan adibidez, eta beste batzuetan kontrakoa gertatzen da, adibidez doktorego-tesietan. Beraz, dokumentu

<sup>124</sup> (Frías & Romero, 1998: 40)

batzuen izaerak erabat baldintzatzen du egileen arteko lankidetzaz. Hala ere, beste batzuetan, dokumentuaren izaerak ez du inongo baldintzapenik ezartzen, esate baterako artikuluen kasuan.

Dok. mota	Dok. kop.	Egile bakarreko dok. kop.	Egile bakarreko dok. %tan
Artikuluak	10.314	8.890	86,1
HAA	3.986	3.573	89,6
Liburuak	1.529	1.079	70,5
Itzulpenak	451	264	58,5
Doktorego-tesiak	322	322	100
Guztira	16.602	14.128	85

VI.26. Taula: Idatzizko dokumentuen egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Gaur egungo nazioarteko joerari jarraiki, lankidetzaz handiagoa espero zitekeen egile euskaldunen artean artikuluz prestatzeko orduan. Baina artikuluen % 86,1a egile bakarrek prestatu du. Liburuei dagokionez, artikuluetan baino lankidetzaz handixeagoa badago ere, lankidetzaz oso txikia da oraindik. Egoera horrek baldintzatzen du euskarazko liburu produkzioaren bilakaera, egitura honekin oso zaila baita taldetan egin ohi diren sintesi lanak prestatzea.

Datu hau hobeto ulertzeko eta kokatzeko Euskal Herritik kanpoko adibide bat ekarriko dugu segidan: jatorri mexikarreko matematikariek AEBn 1980-1998 urteetan ekoiztutako produkzio zientifikoaren azterketa. Kasu hori aztertuz ikertzaileak besteak beste ondorio honetara heldu dira: “En cuanto al grado de colaboración en la publicación de trabajos se encontró que la mayor parte de los trabajos se produjeron en autoría múltiple: el 1,59, según la fórmula de Subramanyan”<sup>125</sup>. Horretan oinarrituta ondorio batera heltzen dira: AEBn dauden mexikarrek lankidetzaz sareak dituztela.

Egile euskaldunen idatzizko produkzioari Subramanyan-en formula<sup>126</sup> aplikatuz gero, euskaldunen lankidetzaz maila 0,14koa dela ateratzen da, eta zehazki matematika arloan 0,26koa. Beraz, esan liteke euskaldunen artean lankidetzaz sarerik ez dela? Egia esateko ez dirudi, goi mailako produkzioaren ikuspegitik, egileek harreman sare, formal, trinkorik dutenik. Informalak agian bai.

<sup>125</sup> (González eta beste, 2003: 94)

<sup>126</sup> Subramanyan-ek 80ko hamarkadan dokumentazio zientifikoan lankidetzaz neurtzeko formula bibliometrika oso sinplea proposatu zuen: egile bat baino gehiago dituzten dokumentuak zati dokumentu guztiak.



Beheko taulan ikusten denez, idatzizko produkzioa duten egileen lankidetzak jakintza-arloaren arabera handiagoa edo txikiagoa da. Hala, Giza Zientzietan egile bat baino gehiago dituzten lanak % 9,8a baino ez dira, eta Osasun Zientzietan berriz %36a.

Jakintza-arloen multzoak	Idatzizko dok. kop.	Egile bakarra duten dok. kop.	egile 1 duten dok. %tan	Dokumentuen batez besteko egile kop.	Subramayan-en formula
Giza Zientziak	7.826	7.070	90,3	1,1	0,01
Gizarte Zientziak	5.408	4.541	84	1,1	0,16
Natur Z- Zientziak H	1.641	1.220	74,3	1,3	0,26
Ingeniaritza-Tek.	573	429	74,8	1,3	0,25
Osasun Zientziak	646	414	64	1,6	0,36
Artea eta Musika	306	282	92,1	1,1	0,08
Zientzia Aplikatuak	202	171	84,6	1,2	0,15
Guztira	16.602	14.127	85	1,2	0,15

VI.27. Taula: Euskarazko dokumentu idatzien egileen gaineko datuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Dokumentu bakoitzaren batez bestekoari erreparatuta ikus daiteke euskarazko produkzio idatziaren batez besteko egile kopurua 1-1,5koa dela. SCI eta ICYT-en katalogatutako Hegoaldeko 1996-2001eko artikuluen zientifikoaren batez besteko egile kopurua berriz, oso gaineratik dago. Adibidez, EAEko Zientzia eta Teknologia arloko lanen batez besteko egileak SCIn 2,4-6,7 artean daude eta ICYT-en 1,5-4,5ean<sup>127</sup>. Morenoren arabera SCIn dagoen 1995-2000ko EAEko produkzioaren % 52,2a lankidetzan prestatu da<sup>128</sup>.

#### 4.6. Egileak jakintza-arloka

Egileak jakintza multzoka nola banatzen diren aztertuko dugu segidan. Horretarako hurrengo taula prestatu dugu:

Jakintza-arloen multzoak	Eg. kop.
Giza Zientziak	2.379
Gizarte Zientziak	3.477
Natur Zientziak-Zientzia Hutsak	1.294
Ingeniaritza-Teknologia	795
Osasun Zientziak	811
Artea eta Musika	371
Zientzia Aplikatuak	339

VI.28. Taula: Egileak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

<sup>127</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 749)

<sup>128</sup> (Moreno, 2005: 90)

Taulan ikusten denez, egile gehien dituen esparrua Gizarte Zientzia da. Izan ere, arlo horretan ia 3.500 egilek dokumentu bat edo gehiago ekoitzi du. Gizarte Zientzien ostean, egile multzorik handiena duen jakintza esparrua Giza Zientzia da. Beraz, aurreko atalean aipatu dugunez, Giza Zientzien inguruko produkzioa nagusi bada ere, egileei dagokionez multzorik handiena Gizarte Zientzia da. Inguma-ko egileen % 36,7a Gizarte Zientzietan aritu da, % 25,1 Giza Zientzian eta % 13,6 Natur-Zientzia eta Zientzia-Hutsetan. Galiziako USCn egindako azterketak antzeko portzentajeak eskaintzen ditu galizieraz ari diren unibertsitarien gainean: “La gran mayoría trabaja en las relacionadas con las ciencias sociales (41,9 %) y las humanidades (22,5 %), siendo su peso en las ciencias del medio físico (16,9 %) o en las de la vida (18,5 %) mucho menor”<sup>129</sup>. Beraz, jakintza-arloek baldintzatzen dute euskararen/galizieraren erabilera handiagoa edo txikiagoa. Hala, euskaldunentzat zein galizieradunentzat Giza eta Gizarte Zientziak euskara zein galiziera erabiltzeko arlo bereziki irekiak dira.

Bestalde VI.29. taulan Inguma-n dokumentu idatzi bakarra duten egileak jakintza-arloka agertzen dira. Bertan ikusten da idatzizko produkzioan jarraikortasunik gabeko egile ugari dagoela eta gainera jakintza-arlo batzuetan gehiago direla besteetan baino. Esate baterako, Osasun Zientzietan egile puntualaren presentzia oso handia dela. Gure datuen arabera, Osasun arloan egileen % 71,8ak euskaraz behin baino ez du ekoitzi dokumentu bat. Beraz, pentsa liteke Osasun Zientzien arloko euskarazko produkzioa nahiko asistematikoa dela. Gizarte Zientzietan, berriz, egileen taldea handia izateaz gainera, dokumentu bakarra duten egileen kopurua txikiagoa da, eta beraz arlo honetako produkzioa dokumentu bat baino gehiago ekoizten dutenen esku dago.

Jakintza-arloen multzoak	Eg. Kop.	Dok. bakarreko eg. kop	Dok. bakarreko eg. %
Giza Zientziak	1.920	923	48
Gizarte Zientziak	2.383	1360	57
Natur Z-Zientzia Hutsak	833	457	54,8
Ingeniaritza-Teknologia	400	264	66
Osasun Zientziak	668	480	71,8
Artea eta Musika	189	140	74
Zientzia Aplikatuak	170	134	78,8

VI.29. Taula: Idatzizko produkzioa duten egileak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

<sup>129</sup> (Rodríguez Rio, 1997: 3)

Jakintza-arlo bakoitzean azken 40 urteotan egileen idatzizko produkzioaren batez bestekoa honako hau izan da:

Jakintza-multzoak	Dok. kop.	Eg. Kop.	Dok/eg. BB
Giza Zientziak	7.826	1.920	4
Gizarte Zientziak	5.408	2.383	2,3
Natur Z.-Zientzia H.	1.641	833	2,
Ingeniaritza-Teknologia	573	400	1,4
Osasun Zientziak	646	668	1
Artea eta Musika	306	189	1,6
Zientzia Aplikatuak	202	170	1,2

**VI.30. Taula:** Idatzizko produkzioa duten egileen batez besteko (idatzizko) produkzioa.  
Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikusten denez, Giza Zientzietako egileak dira batez besteko produkzio idatzi gehien dutenak eta Osasun Zientzietakoak gutxien. Izan ere, Osasun Zientzietan arestian aipatu dugunez, ekoizpen bakarra duten egileak asko dira, eta Osasun Zientzien arloan lankidetzatza beste jakintza-arlo batzuetan baino altuagoa da.

Amaitzeko, dokumentu gehien-gehienak egile bakarrak prestatu ditu, eta beraz egile euskaldunen lankidetzatza oso baxua da. Egileen produkzioa ere, salbuespenak salbuespen, baxua da, batez beste 5 dokumentukoa, eta idatzizkoari soilik erreparatuta are baxuagoa, jakintza-arlo batzuetan bereziki. Hortaz, goi mailako produkzioa duten egile euskaldunak badira, jakintza-arlo batzuetan besteetan baino gehiago, baina ez dute euskarazko produkzioa modu sistematikoan egiten, horregatik aipatutako ratioak hain baxuak dira. Azterketa bibliometrikotik egile euskaldunen ekoizpen baxuaren arrazoiak zeintzuk diren ezin ezagut ditzakegu. Hala ere, euskarazko curriculum unibertsitatean baloratzen ez den bitartean, edota euskarazko produkzioaren ebaluazioak egiteko berariazko irizpideak lantzen ez diren bitartean, euskarazko produkzioa gutxi aintzatesteaz gain, txarto ebaluatuko da, eta sustapen politika eraginkorrik ezingo da diseinatu.

## 5. Erakundeen azterketa

Ondoko lerroetan goi mailako euskarazko produkzioa duten erakundeak aztertuko ditugu. Erakundeak izaera desberdina dute eta lau multzo nagusitan bereizten dira: aldizkariak, argitaletxeak, unibertsitateak eta bestelakoak. Bakoitzak izaera askotariko dokumentuak ekoizten ditu. Esate baterako argitaletxe batek liburuak, itzulpenak, edizio kritikoak (H.A.A.) kaleratu ditzake, baina ez irakasgaiak edo doktorego-tesiak, holakoak unibertsitateek egiten baitituzte.

Lehenengo eta behin euskarazko produkzioaren erakunde ekoizleen bilakaerari erreparatuko diogu eta ondoren erakunde mota bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak aipatuko dira. Aldizkariak, argitaletxeak eta unibertsitate mailako produkzioa duten erakunde eta elkarteak aztertuko dira hurrenkera honetan. Unibertsitateen azterketa, eta batez ere eskaintza akademikoaren azterketa, ikerketa honetatik kanpo utzi dugu, unibertsitateen eskaintza akademikoaren datu seriea Inguma datu-basean ez delako homogenea<sup>130</sup>.

Erakunde mota	Erak. kop.
Aldizkariak	108
Argitaletxeak	46
Unibertsitateak	7
Bestelakoak	7
Guztira	168

**VI.31.Taula:** Erakunde mota eta kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.

Euskarazko idatzizko dokumentazioaren % 71,2a aldizkarietan ekoitzi da eta argitaletxeetan % 27a, beste % 1,8a unibertsitateetako doktorego-tesiek osatzen dute. Komunikazio zientifikoa nazioarte mailan aldizkariak eusten dute eta, ikusten denez, baita euskararen kasuan ere.

---

<sup>130</sup> Unibertsitate batzuen eskaintza akademikoa biltzeke dago (adib. MU edo Baionako Fakultatekoa) eta unibertsitatearen arabera ikasurte desberdinak katalogatuta daude.

## 5.1. Erakundeen bilakaera

Euskarazko produkzioa ekoizten duten goi mailako erakundeen bilakaeran hiru une nagusi desberdintzen dira:

I) 1979. urtera arte sortutako erakundeak: elebakartasunaren garaia izango litzateke. Epe honetan sortzen diren erakunde argitaletxe eta aldizkariak orokorrean elebakarrak dira, erdaraz ala euskaraz, baina elebakarrak. Aranzadi Zientzia Elkartean (1947an sortua) esate baterako, bere argitalpenak (liburu eta aldizkariak) 80ko hamarkadara arte osorik erdaraz ziren, eta 80tik aurrera hasi zen euskarazko lanen bat edo beste argitaratzen *Munibe* aldizkarietan. Beste kasu batzuetan euskaraz, erakundeek ez dute ezer argitaratu 90eko hamarkadara arte (adb. Deustuko Unibertsitateko *Letras de Deusto* eta *Estudios Empresariales* aldizkariak)

Hizkuntza biak erakunde gutxitan erabili ziren, eta erabilia ere bakoitzaren esparrua oso ondo definituta zegoen. Esate baterako, 50eko hamarkadan Donostian sortutako Urkixo Mintegiak bi aldizkari zituen: ASJU, nagusiki erdaraz argitaratzen zena, nahiz euskarazko lanen bat edo beste inoiz kaleratu, eta bestetik 1953. urtetik aurrera euskara hutsez plazaratzen zen *Egan* aldizkaria.

Urte hauetan euskaraz ekoitzi zuten erakundeak kuantitatiboki gutxi izan ziren baina kualitatiboki oso garrantzitsuak, gehienek gaur egunera arte iraun dutelako eta gaur egun ere ekoizle garrantzitsuak izaten jarraitzen dutelako. Esate baterako, 70eko hamarkadan UEU eta Elhuyar sortu ziren. UEUK euskarazko udako ikastaroak antolatu eta liburuak kaleratu zituen, Elhuyar Taldeak berriz, *Elhuyar* aldizkaria<sup>131</sup>. Erakunde bi hauen aurretik Euskaltzaindiak, Jakin Taldeak eta Karmeldarrek aldizkari (*Euskerak*, *Jakin* eta *Karmel* hurrenez hurren) eta liburuak argitaratzen zituzten.

II) 80ko hamarkada: Epe honetan sortu ziren euskarazko aldizkariak (*Ele*, *Senez*, *Zutabe*, *Idatz & Mintz*, *Enseiukarrean* eta abar) hizkuntzari buruzkoak izan ziren (Itzulpengintza, Glotodidaktika, Literatura eta abar) eta hori da hain zuzen ere epe

---

<sup>131</sup> Epealdi honetako *Elhuyar aldizkaria* salbuespena da, gaur egun ez baita kaleratzen. Elhuyar taldeak fundazioa bihurturik gaur egun arte iraun du.

honen ezaugarri bereizgarria. Salbuespen bakarra aipatu behar da: *Elhuyar Zientzia eta Teknika*. Izan ere, une honetan, atal historikoan aipatu dugun moduan, sortu ziren idazleen (EIE) eta itzultzaileen (EIZIE) elkarteak. Guztira beraz, euskarazko 8 aldizkari berri sortu ziren. Produkzioa euskarazko argitaletxeekin osatu zen. Izan ere, orduan hasi ziren UZEI edo Elhuyar liburuak argitaratzen, eta Euskal Editoreen Elkarteko Klasikoen bilduma sortu zen.

Epe honetan Hegoaldean euskara eta gaztelania ofizialak bihurtu ziren. Abagune berri honetan sortu ziren erakundeetako batzuk nagusiki gaztelaniaz funtzionatu arren, euskararen erabilerari irekita zeuden. Besteak beste, Eusko Ikaskuntza, UPV/EHUren Udako Ikastaroak, Geronimo Uztariz Institutua edota Jose Miguel Barandiaran Fundazioa aipa daitezke. Liburu argitalpenetan antzekoa gertatzen da: UPV/EHU edota Destuko Unibertsitatea moduko erakundeek, aurretik sortuta egon arren, euskarazko lehen argitalpenak hamarkada honetan kaleratu zituzten. Aldizkarietara dagokionez, epe honetan sortutako goi mailako hainbat erdal aldizkaritan euskarazko lanik argitaratu zen. Beraz, erdara 80ko hamarkadan bere plaza batzuk euskararekin partitze hasi zen eta fenomeno hori bereziki antzematen da aldizkarietan. Izan ere garai honetan sortutako 37 aldizkarik euskarazko lan bat edo gehiago argitaratu zuten (*Bilduma, Ekonomia, Ikastaria, Inguruak, Musiker, Mundaiz, Ohienart, Vasconia, RVAP, Ernaroa, Kobie* eta abar). Halaber, izan zen aldizkaririk 80ko hamarkadan sortu baina euskarazko lehen lana 90eko hamarkadara arte ez zuena kaleratu. Zehazki Eusko Ikaskuntzaren honako hiru aldizkari hauetaz ari gara: *Azkoaga, Mediatika* eta *Naturzale*.

Beraz, hamarkada honetan Euskal Herrian euskarazko lanak ere argitaratzen zituzten aldizkarietara bat gertatu zen. Hamar bat urteotan honelako 37 aldizkari sortu ziren, gehienak Giza eta Gizarte Zientzien esparrukoak (37 aldizkaritik 33), eta honen baitan bi jakintza-arlo nabarmendu ziren: Historia-Historiaurrea<sup>132</sup> eta Antropologia<sup>133</sup>. Beste 4 aldizkarietatik 3 Natur Zientzietara buruzkoak dira (*Vianako Printzearen Zientzi Eranskina, Naturzale* eta *Kobie: ciencias naturales*) eta Nekazaritza

---

<sup>132</sup> Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria, *Bilduma, Ernaroa, Isturiz, Vasconia, Geronimo Uztariz, Kobie: paleoantropologia*.

<sup>133</sup> (*Zainak, Jentilbaratz, Ohitura, Kobie: etnografia* eta *Kobie: antropologia cultural...*).

eta Arrantzari buruzko bat (*Sustrai*). Orokorrean, azken lau aldizkari hauetan, zein aurrekoetan, euskararen presentzia oso txikia zen, nahiz eta erakunde publikoek kaleratutakoak izan. Beraz, erakunde publikoek aldizkariak sortzean (*Sustrai*, *Kobie*, *Zergak*, *Ekonomiaz* eta abar), nagusiki erdaraz aritu arren, hizkuntza bien ofizialtasunaren testuinguru honetan, euskara onartzen zuten, salbuespen batekin HABEren *Zutabe*, euskara hutsez kaleratu zena.

III) 1990. urtetik gaur egunera arte: euskarazko produkzioa duten erakundeak espezializaziorako joera agertzen dute. Hori antzematen da bai elkarteetan (epe honetan sortzen baita esate baterako Farmazilari Euskaldunen Elkarte, edota Osasungo Euskalduntzeko Elkarte (OEE) eta abar), bai liburu argitalpenetan, obra klasikoen itzulpenetan espezializatutako proiektuan (Klasikoak bilduma), bai aldizkarietan ere. Izan ere 1989tik<sup>134</sup> aurrera honako aldizkariak sortzen dira: *Gogoa Hizkuntza*, *Ezagutza*, *Komunikazio eta Ekintzari* buruzko aldizkaria, *Eleria* Zuzenbide arlorako eta *Tantak* Pedagogiaren esparruan. Orohartzaileago agertzen dira UPV/EHUren *Ekaia* Zientzia eta Teknologia arloak barne hartuz eta UEUren *Uztaro* Giza eta Gizarte Zientzietakoa. Euskarazko beste 4 aldizkari sortu berriak (*Bat*, *Hizpide*, *Euskalingua* eta *Hegats*) hizkuntzaren gai jakin bati buruzkoak dira, Soziolinguistika, Glotodidaktika, Hizkuntzalaritza eta Literatur Kritika, hurrenez hurren.

Euskaraz zein erdaraz produkzioa duten erakundeei dagokionez, garai honetan mota horretako 33 aldizkari berri sortzen dira<sup>135</sup>, aurreko epean baino lau aldizkari gutxiago, tarte hau luzeagoa izan arren. Hala ere, aldizkari eleanitzen hazkundera geldiezina da eta euskarazkoetatik arras gorago dago. Gainera, multzo honen tamaina izugarria da, aurreko garaitik datozen aldizkari eleanitzei, beste 33 aldizkari berri gehitzen zaizkielako. Hala XXI. mendera bizirik 17 euskarazko aldizkari heltzen dira, eta bestelakoak 72.

---

<sup>134</sup> Zenbait aldizkariren lehen zenbakia 1989an kaleratu arren (*Ekaia*, *Hegats*, *Tantak* eta *Uztaro*), ez ditugu bigarren garaikoak kontsideratzen, hirugarrenekoak baizik, bakoitzean argitaratutako lan gehien gehienak hirugarrenekoak baitira.

<sup>135</sup> NUPEk garai honetan sortutako Huarte Donibaneakoaren serieak, UPV/EHUren 7 aldizkari, Bilboko Udalaren *Bidebarrieta*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren administrazio eta ogasunari buruzko *Gida* eta artearen inguruko gaiak lantzen dituen *Zehar* aldizkaria, Eusko Jaurlaritzaren *Zergak* eta abar.

Aurreko hamarkadan gertatu moduan, 90ean sortzen diren aldizkari eleanitzak nagusiki Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak dira. Hala ere, beste jakintza-arlo batzuetan ere aldizkari berriak sortuko dira, hala nola, Osasun Zientzietan (*Cuadernos vascos de historia de la medicina* eta *Osasunkaria*, gaur egun aldizkariok hilik daude), Fisikan (*Formula*) eta Matematikan (*Sigma*).

Bestalde, euskarazko lanak gero eta aldizkari elebidun gehiagotan onartzen dira. 70 edo 80ko hamarkadan sortutako erdal aldizkari batzuetan, hirugarren garai honetan euskarazko dokumentuak argitaratzen hasten dira. Adibidez, Eusko Ikaskuntzaren *Naturzale* (1983an sortua), 1984koak diren *Azkoaga* eta *Mediatika*, UPV/EHUren *Inguruak* (1986), Deustuko unibertsitatearen *Letras de Deusto* (1971), *Estudios de Deusto* (1952) eta *Estudios Empresariales* (1965), Nafarroako Gobernuaren *Trabajos de Arqueología* (1979) eta abar.

Azkenaldian, fenomeno berri bat antzeman dugu: aldizkarien ingelesezko edizioa, gaur egun ingelesezko nazioarteko komunikazio zientifikoan duen lehentasunaren ondorio dena. Mendebalde Kultura Alkarteak *Euskalingua* aldizkaria sortu zuen 2002an, eta 2006tik aldizkariaren ingelesezko bertsio bat ateratzen du. Funtsean, *Euskalinguaren* zenbaki bakoitzean argitaratutako bizpahiru artikulua ingelesera itzultzen dira. Horretaz gain, *Euskalingua* euskarri elektronikoa argitaratzen da, eta ez du paperezko ediziorik. Zenbaki bakoitza CD-ROM batean kaleratzen da eta Internet bidez ere kontsulta daiteke. Halaber, paperezko edizioa duten beste aldizkari asko, epe honetan hasi dira Internet bidez aldizkariako eduki guztietara edo batzuetara sarbidea eskaintzen (*Jakin, Uztaro...*).

Laburbiltzeko, 1969tik gaur egunera arte hiru epealdi daudela uste dugu. Lehenean, euskara eta erdara ez lirakeke nahastuko. Baliteke euskarazko produkzioak sasoi horretan *ghetto* izaera edukitzea. Bigarrenean, euskararen ofizialtasunaren garaian, erdal erakundeetan euskara agertzen/onartzen da, baina ofizialtasunaren momentuan euskarazko produkzioak ez du hazkunde izugarririk biziko erakunde horietan. Hirugarrenean, gauzak antzera darraite, euskarazko produkzioak bere bidea eginez, eta bere hazkundera erakunde euskaldunek bermatzen dutela.



## 5.2. Aldizkarien azterketa

Azken 40 urteotan euskaraz eta goi mailan zerbait ekoitzi duten 108 aldizkari daude, baina 108ak ez dute multzo homoginoa osatzen, batzuk, 2001. urtean sortu ziren (adb. *Gogoa*), eta beste batzuk 50eko hamarkadan (adb. *Egan*); batzuk gai jakin batean espezializatuta daude (*Musiker*) eta beste batzuk berriz zenbait jakintza-arlo barne hartzen dituzte (*Uztaro*); batzuk unibertsitarioentzako goi dibulgazioa (*Ekaia*) eta beste batzuk dibulgazio orokorragoa egiten dute (*Elhuyar Zientzia eta Teknika*); batzuk osorik euskaraz dira (adb. *Tantak*), eta beste batzuk eleanitzak (adib. *Lapurdum*). Hau da, batzuetan euskarazko artikuluak kuota bat dira, adibidez Sancho El Sabio erakundearen aldizkariaren kasuan<sup>136</sup>, besteetan euskarazko artikuluak “ausazko gertaerak” dira (adb. *Notitia Vasconiae* aldizkarian), eta batzuetan euskararen presentzia “istripu” erakoa da, adib. *Kobie* aldizkarian Natur Zientziei buruzko seriean euskarazko artikulu bat agertzea.

Euskarazko produkzioaren sakabanaketa aldizkarietan oso handia da, eta multzo heterogeneoa osatzen duten aldizkarietan barreiatuta dago (ikus 5. eranskina). Dokumentu gehien dituzten lehenengo 15 aldizkarietan produkzioaren % 76,3a kontzentratzen da, beste 93 aldizkarietan produkzioaren % 23,7a barreiatzen da.

*Elhuyar Zientzia eta Teknika* eta *Fontes Linguae Vasconum* artean sortu dugun 15 aldizkariko multzoan gehienak euskarazko aldizkariak dira<sup>137</sup>, hau da, nagusiki edo osoki euskaraz argitaratzen diren aldizkariak<sup>138</sup>. Datu hori kontuan hartuz, euskaraz gutxienez euskaraz zerbait argitaratu duten 108 aldizkariak bi multzotan bereiztu ditugu: euskarazko aldizkariak eta aldizkari eleanitzak<sup>139</sup>:

---

<sup>136</sup> 1999. urtetik Sancho el Sabio Fundazioak unibertsitate mailako ikerketa lehiaketa antolatzen du. Bi sari dira, bat erdarazko lan batentzat eta bigarrena euskarazko beste batentzat. Biak *Sancho El Sabio* aldizkarian argitaratzen direnez, lehiaketari esker euskarari aldizkarian eman nahi zaion kortesiazko kuota betetzea bermatzen da.

<sup>137</sup> Hauek dira 15 aldizkariak: *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, *Jakin*, *Euskera*, *Karmel*, *Egan*, *Bat*, *Elhuyar*, *Uztaro*, *Tantak*, *Zutabe*, *Senex*, *Hegats*, *Hika*, *Larrun* eta *Fontes Linguae Vasconum* (xehetasunetarako ikus 5. eranskina).

<sup>138</sup> Salbuespen bakarra dago: *Hika*. Aldizkari honek ez baitu bereziki euskarazko produkzioa argitaratzeko bokaziorik, eta artikulu asko argitaratu diren arren (zehazki 249 artikulu kaleratu dira), artikulu guztiak oso laburrak dira (2-3 orrialdeko luzera dute).

<sup>139</sup> *Aldizkari eleanitzak*, erdarazko eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten aldizkariak dira. Bi hizkuntza baino gehiago ager litezkeenez, *aldizkari elebidun* izena barik *eleanitz* hobetsi dugu.

Ald. hizkuntza hautua	Ald. egoera	Ald. kop.	Dok. kop.
Euskarazko aldizkariak	Bizirik	17	8.128
	Hilirik	5	1.299
Aldizkari eleanitzak	Bizirik	71	2.289
	Hilirik	15	107
Guztira		108	11.823

VI.32. Taula: Euskarazko produkzioa duten aldizkariak. Iturria: elaborazio propioa.

Ariketa interesgarri honen emaitza hauxe da: Inguma datu-basean 22 aldizkari euskaldun daude eta horietan ekoitzi da aldizkarietan argitaratutako euskarazko produkzioaren % 80a, aldiz, beste 86 aldizkari eleanitzetan soilik produkzioaren % 20a kaleratu da. Euskarazko aldizkari eta aldizkari eleanitzen artean dagoen jautzia erabatekoa da. Nahikoa da aldizkari euskaldun baten lehenengo zenbakia ateratzea, aldizkari eleanitz askotan 20 urtetan kaleratutako euskarazko dokumentuak baino gehiago ekoizteko. Hortaz, bereziki aldizkari euskaldunetan sustatzen da euskarazko produkzioa, eta beraien dira produkzioaren garapena eta biziraupena bermatu dutenak orain arte.

Orokorrean esan daiteke euskarazko produkzioaren erreferentzialtasuna aldizkari euskaldunek dutela, aldizkarietan kaleratutako euskarazko produkzioa aldizkari euskaldunetan kontzentratzen baita. Beste 86 aldizkarietako euskarazko produkzioa txikia da eta oso sakabanatuta dago. Bertan, euskarazko lanak sistematikotasunik gabe argitaratzen direnez askotan ikusezinak dira, eta euskarazko komunikazio zientifikoaren fluxua eteten dute. Hau da, unibertsitateko kideentzat mota honetako aldizkarietan argitaratutako euskarazko lanen jarraipenik egitea zaila da. Beraz, euskaraz egonik ere, ausaz aurkitzen dira, eta ondorioz, irakurketa eta erabilera ez dute guztiz ziurtatuta. Hala ere, beste ikuspegi batetik, pentsa daiteke aldizkari eleanitzetan argitaratzen diren euskarazko lanek eragin handiago dutela jakintza-arlo bateko adituen artean. Izan ere, euskarazko aldizkariak ez dira oso espezializatuak, esate baterako *Uztarok* Giza eta Gizarte Zientzien arloko lanak argitaratzen ditu, eta *Vasconia* berriz, Historiari buruzko aldizkari bat da. Beraz, historialari batzuentzat erreferentzialtasun handiago eduki dezake *Vasconiak Uztarok* baino. Oraingoz, dena den, hipotesi hau lantzeke uzten dugu, hori frogatzeko edo ezeztatzeke aipuen azterketa bat egin beharko litzatekeelako, eta une honetan ez dago euskarazko lanen aipuen bilketa egiten duen tresnarik.

Ondoko lerroetan orain arte modu orokorrean esandako guztia hobeto mugatuko dugu euskarazko produkzioa duten aldizkarien oinarritzko ezaugarriak azalduz. Izan ere, aldizkari bakoitzak erakunde ekoizlearen baitan funtzio desberdina betetzen du, egileak modu desberdinean erakartzen ditu eta abar.

### **5.2.1. Aldizkarien ezaugarri nagusiak: hizkuntza eredua, mota eta tiradak**

Zuzenean edo zeharka aldizkarien produkzioan eragina duten zenbait elementu landuko ditugu atal honetan: hizkuntza eredua, aldizkari mota, erakunde ekoizlea, aldizkarietako egileak, ekoizpen lekua eta tiradak. Guztiak euskarazko produkzio unibertsitarioaren esparruan eragin zuzena duten elementuak dira.

Arestian aipatu den moduan, aldizkari guztiek ez dute hizkuntza eredu bera. Esan bezala bi motatakoak bereizi ditugu: euskarazko aldizkariak (edo aldizkari euskaldunak) eta aldizkari eleanitzak.

*1) Euskarazko aldizkariak*, hau da, aldizkariko lan guztiak edo gehien gehienak euskaraz argitaratzen dituztenak. Inguma datu-basean 22 aldizkari euskaldun daude<sup>140</sup>, baina multzo hau uste baino txikiagoa da, aldizkarietako batzuk hilda daudelako, edota formatu berria hartzean, izena aldatu zutelako<sup>141</sup>. Beraz, gaur egun 17 aldizkari euskaldun daude unibertsitate mailakoak.

Aldizkariaren ekoizpen tokiari dagokionez, 22 aldizkarietatik 15, edo % 68a, Gipuzkoan argitaratzen da, eta beste 7ak, % 32a, Bizkaian. Nafarroan, Araban edota Iparraldean ez dago maila jasoko euskarazko aldizkaririk. Beraz nabarmena da aldizkari euskaldunen *gipuzkoartasuna*.

---

<sup>140</sup> Euskarazko aldizkariak: *Jakin, Euskera, Karmel, Egan, Elhuyar Zientzia eta Teknika, Elhuyar aldizkaria, Uztaro, Zutabe, Tantak, Bat, Senez, Hegats, Ekaia, Ele, Idatz & Mintz, Enseiukarrean, Hizpide, Eleria, Gogoa, Euskalingua* eta *Idatz/Hegats (buletina)*.

<sup>141</sup> *Hegats literatur aldizkaria* esaterako, *Idatz/Hegats (buletina)*etik sortu zen, *Hizpide* aldizkariak *Zutabe* ordeztu zuen eta *Ele* aldizkaria hilda dagoela uste dugu azken zenbakia 1999. urtean argitaratu zelako.

Euskarazko aldizkari guztiak ez dira berdinak. Aldizkari mota eta aldizkariaren funtzioa edo helburua maiz elkartuta daude. Adibidez, Komunitate Zientifikoari zuzentzen diren aldizkariak, *aldizkari zientifikoak* dira, hau da, ikerketen emaitzak zabaltzeko eta goi mailako dibulgazioa egiten duten unibertsitateko irakasle, ikertzaile zein ikasleentzat. Aldizkari euskaldunen artean hamabostek betetzen dituzte aldizkari zientifikoaren ezaugarriak: *Egan, Uztaro, Zutabe, Tantak, Bat, Senez, Hegats, Ekaia, Ele, Hizpide, Idatz & Mintz, Enseiukarrean, Eleria, Gogoia* eta *Euskalingua*. Bestalde, aldizkari zientifikoaren ezaugarri guzti-guztiak betetzen ez dituzten *erakunde-aldizkariak* egongo lirateke. Bertan artikulua zientifikoak argitaratzeaz gainera, bestelako dokumentuak ere plazaratzen dira. Adibiderik onena Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Euskera* buletina da. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* Euskaltzaindiaren organoa da. Buletinaren bitartez, Akademiak bere jardura zientifiko, kultural, sozial, arauemaile eta administratiboaren berri ematen du<sup>142</sup>.

Bestalde, badira *aldizkari dibulгатiboak*, oro har, zientzia eta jakintzaren zabalpena egiten dutenak aditu nahiz herritarren artean. Euskaraz halako aldizkari bakarra dago: *Elhuyar Zientzia eta Teknika*. Zientziaren dibulgazioaz arduratu zen lehen aldizkaria *Elhuyar aldizkaria* izan zen, gaur egun hilik dagoena. Hala ere, ez zen bete-betean dibulгатiboa, aldizkari zientifikoaren ezaugarri asko zituelako, formatua barne.

Bukatzeko, kultura eta pentsamenduko aldizkari orokorrak daude: *Jakin* eta *Karmel*. Lehena kultura, baina batez ere euskal kulturari buruzko aldizkari orokorra da. Bigarrena, *Karmel*, eliz tradizioko kultur aldizkaria da eta Markinako karmeldarrek argitaratzen dute.

Joxe Mari Muxikaren lanari esker, badakigu euskarazko aldizkari batzuren tirada zein (izan) den:

---

<sup>142</sup> Hala ere Inguma datu-basean, *Euskera* buletinean norbanakoek argitaratutako lan akademikoak bakarrik katalogatu dira: sarrera-hitzaldien testuak, jardunaldietako artikulua, omenaldietakoetan irakurritako testuak eta abar, ez besterik.

Aldizkariaren izena	Tirada
Jakin	3.150
Elhuyar Zientzia eta Teknika	2.100
Larrun	1.700
Idatz & Mintz	1.500
Egan	1.300
Karmel	1.250
Bat	1.200
Uztaro	1.000
Hegats	700
Eleria	600
Hizpide	600
Ekaia	500
Elhuyar aldizkaria	500
Tantak	300

VI.33. Taula: Euskarazko aldizkarien tiradak. Iturria: (Muxika, 2002)

Funtsean, euskarazko aldizkari zientifikoak oro har 1.000 aleko tiradaren azpitik kokatzen dira.

II) *Aldizkari eleanitzak*, hau da, erdara batean edo gehiagotan kaleratutakoak eta euskarazko lanak tartekatzen dituztenak. Hizkuntza irizpide hau aintzat hartuta, Inguma-n 86 aldizkari eleanitz daude, eta ekoizpen lekuari dagokionez<sup>143</sup>, Euskal Herriko eremu zabala hartzen dute: % 46,5aren erredakzioa Gipuzkoan dago, % 28arena Bizkaian, % 12,7a Nafarroan, % 8,1a Araban, % 2,3a Lapurdin eta azken % 2,3 Espainian edota European.

Aldizkari batzuetan euskararen presentzia oso handia da: *Euskararen Iker Atalak*, *ASJU*, *Euskalingua*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Lapurdum*, *Oihenart*, *Galezca*... Multzo honetan NUPeko *Huarte de San Juan: hizkuntzalaritza eta literatura* aldizkaria egongo litzateke, baina aldizkari honek zenbaki bakarra ezagutu zuen, eta gero hil egin zen. Ondoren bide libre utzi zion askozaz ere erdaldunagoa den NUPeko beste aldizkari honi: *Huarte de San Juan: filologia eta hizkuntzaren didaktika*. Beste aldizkari guztiak maila handiagoan edo txikiagoan, gure ustez, aldizkari

<sup>143</sup> Aldizkari bakoitzaren kokalekua zehazteko erredakzioaren egoitza kontuan hartu dugu eta ez erakunde argitaratzailearen helbidea. Izan ere badira erakunde batzuk aldizkari bat baino gehiago argitaratzen dituztenak eta ez dituzte modu zentralizatuan aldizkari guztiak kaleratzen. Deustuko Unibertsitateak esate baterako, bi kanpus ditu, Bilbokoa eta Donostiakoa, eta bakoitzean aldizkari desberdinak argitaratzen dira. Adib. *Mundaiz* Donostiako Kanpusekoa da eta *Letras de Deusto* aldiz, Bilbokoa.

diglosikoak dira<sup>144</sup>. RIEV, esate baterako, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari guztietatik euskarazko lan gehien argitaratu dituen aldizkaria da. Hala ere, aldizkari diglosikoa dela deritzogu azkenaldian euskarari gero eta tarte txikiagoa ematen diolako eta gainera euskara liburu aipamenetarako uzten duelako. Ondorio horretara heldu gara 1984-1986an argitaratutako lanak 2000-2002koekin alderatuz. Hala, 2000-2002 urte bitartean aldizkarian euskarazko 22 dokumentu agertu ziren, eta horietatik 17 liburu aipamenak izan ziren. Aldiz 1984-1986 tartean, euskarazko lan gehiago argitaratzeaz gainera (zehazki 38 lan) liburu aipamenak 6 baino ez ziren izan, eta beste guztiak artikulak.

Euskara onartu arren berau nagusi ez den aldizkariei konbentzioz eleanitzak deitu diegun arren, multzo honetako aldizkari gehienetan ez dago eleaniztasun edo elebitasun orekaturik. Kasu gehien-gehienetan erdara da nagusi eta aldika euskara tartekatzen da.

### 5.2.2. Erakunde ekoizlea

Aldizkarietako euskarazko produkzio zientifikoaren atzean izaera askotako erakundeak daude. Erakunde horiek zeintzuk diren argitzea oso interesgarria da goi mailako euskarazko produkzioaren azpiegituraren ezaugarriak ezagutzeko. Gure datuen arabera 4 motatako erakundeek argitaratzen dituzte aldizkariak: administrazio publikoek, unibertsitateek, komunikabideek eta goi mailako kultur elkarte eta erakundeek. Era berean, erakunde multzo nagusi hauen atzean, talde txikiagoak bereiz daitezke. Hala Administrazio publikoan, esate baterako, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Aldundiak eta Udalak bereiz daitezke. Kasu honetan ez ditugu aintzat hartzen erakundeek diruz lagundutako aldizkariak, baizik administrazio beraiek zuzenean beren argitalpen zerbitzuaren bitartez argitaratzen dituztenak. Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren argitalpen zerbitzuak *Kobie* serieak ateratzen ditu, baina ez Mendebalde Kultura Alkartearen *Euskalingua* aldizkaria, nahiz eta *Euskalingua* Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzaz ateratzen den.

---

<sup>144</sup> Aldizkari diglosiko kontzeptua Aitor Zuberogoitia darabilen hedabide diglosiko kontzeptutik atera dugu (Zuberogoitia, 2003: 81 eta hurrengoak)

Bestalde Udaletxeek herriko artxiboek (Errenteria eta Andoainen kasuan) edo kultur elkarteek (Luis Iranzu Kultur Elkartea eta Ego Ibarra Elkartea) prestatutako aldizkariak argitaratzen dituzte (Bilboko Udalaren *Bidebarrieta* aldizkaria izan ezik).

Guztira, administrazio publikoak zuzenean 26 aldizkari argitaratzen ditu euskaraz zerbaiteko izenak, eta horietatik 3 euskaraz elebakarrak dira: HABEk kaleratutako *Zutabe* (gaur egun hila) eta *Hizpide*, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren *UdalGIDA* (aurretik aldundiak argitaratzen zuen *Gida* aldizkari eleanitzaren jarraitzailea). Ondoko taula honetan xehekiago jaso ditugu datuok:


Erakunde mota	Erakundearen izena	Euskarazko ald.	Ald. eleanitzak	Guztira	
Administrazio Publikoa	Eusko Departamentuak	0	6	<b>6</b>	
	Jaurjaritza HABE	2	0	<b>2</b>	
	Nafarroako Gobernua	0	4	<b>4</b>	
	Aldundiak	Bizkaikoa	0	4	<b>4</b>
		Gipuzkoako	1	3	<b>4</b>
		Arabakoa	0	1	<b>1</b>
	Udalak	0	5	<b>5</b>	
	<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>23</b>	<b>26</b>	
Unibertsitateak	UPV/EHU	3	12	<b>15</b>	
	Deustuko Unibertsitatea	1	5	<b>6</b>	
	NUP/UPNA	0	4	<b>4</b>	
	IKER-UMR 5478	0	1	<b>1</b>	
	<b>Guztira</b>	<b>4</b>	<b>20</b>	<b>26</b>	
Komunikabideak	Argia	1	0	<b>1</b>	
	Deia	0	1	<b>1</b>	
	<b>Guztira</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	
Goi mailako elkarteak eta erakundeak	Euskal kultur elkarte eta erakundeak	12	4	<b>16</b>	
	Euskal Herriko elkarte eta erakundeak	2	36	<b>38</b>	
	<b>Guztira</b>	<b>14</b>	<b>40</b>	<b>54</b>	

**VI.34. Taula:** Euskarazko dokumentuak dituzten aldizkarien erakunde ekoizleak eta aldizkari kopurua. Iturria: elaborazio propioa.

Unibertsitateek berriz, euskaraz zerbaiteko argitaratzen duten 26 aldizkari argitaratzen dute, horietatik 4 euskaraz elebakarrak dira (% 16a). Ikusten denez, Euskal Herriko unibertsitate guztietatik (UPV/EHU, UD/DU, UPNA/NUP, MU, UN/NU, UNED eta Iparraldean kanpua duten UPPA eta UB) euskarazko lanak argitaratzen dituzten unibertsitateak, 4 baino ez dira.

Bi komunikabideak, Argiak eta Deiak, jadanik hilda dauden bi aldizkari argitaratu izan dituzte: *Larrun* eta *Muga*.

Euskarazko lanak argitaratu dituzten beste 54 aldizkariak goi mailako erakundeek, elkarte kulturalak eta elkarte profesionalek kaleratu dituzte. Hortaz, aldizkarien erdia goi mailako elkarte eta erakunde desberdinek argitaratzen dituzte eta unibertsitateak doi doi laurden batera iristen dira.



**VI.11. Grafikoa:** Euskarazko lanak argitaratzen dituzten aldizkariaren erakunde ekoizleak. Iturria: Inguma datu-basea.

Aldizkariaren ekoizle nagusiak, goi mailako elkarte eta erakundeak direnez, ondoko lerroetan mota horretako aldizkariaren atzean dauden elkarteak aztertuko ditugu. Multzoa heterogeneoa da mota askotakoak direlako, hala nola, hizkuntzaren akademia, elkarte kulturalak (adb. UEU), fundazioak (adb. Barandiaran Fundazioa), klusterrak (adb. Soziolinguistika klusterra) eta abar.

### 5.2.2.1. Goi mailako elkarte eta erakundeak

Arestian aipatu dugunez, goi mailako elkarteak zein erakundeak eta elkarte profesionalek 54 aldizkari kaleratzen dituzte. Horietatik 14, euskarazko aldizkariak dira. Mota honetako erakundearen ezaugarri nagusiak bost dira:

- Lehenak: salbuespenak salbuespen, mota honetako erakundeek goi mailako aldizkari bakarra izaten dute. Administrazioek eta unibertsitateek berriz,



normalean aldizkari bat baino gehiago plazaratu ohi dute (Udaletxeek izan ezik).

- Bigarrena: euskal kultur erakunde eta elkarteek (euskal kulturgintza), hau da, euskaraz funtzionatzen dutenek, salbuespenak salbuespen goi mailako euskarazko aldizkariak sortu ohi dituzte. VI.34. Taulan ikusten denez, 11 euskal elkarteek 16 aldizkari argitaratzen dituzte, eta horietatik 12 euskarazkoak dira. Elkarteek aldizkari bat baino gehiago ateratzen dutenean, posible da bigarren edo hirugarren aldizkari horietan euskara ez ezik bestelako hizkuntzen erabilera onartzea (ikus adibidez Labayru).

Erakunde argitaratzailea	Euskarazko ald.	Ald. eleanitzak
AEK	1	0
EIE	2	1
EIZIE	1	0
Elhuyar Kultur Elkartea	2	0
Euskalherriko Karmeldarrak	1	0
Euskaltzaindia	1	0
Jakinkizunak	1	0
Labayru Ikastegia	1	2
Mendebalde Kultura Elkartea	0	1
Soziolinguistika Klusterra	1	0
UEU	1	0
Guztira	12	4

VI.35. **Taula:** Euskal kultur elkarten aldizkariaren hizkuntza hautua.  
Iturria: elaborazio propioa Inguma-tik abiatuta.

- Hirugarren, ikuspegi historikotik euskarazko produkzio zientifikoa batik bat euskal kultur elkarte eta erakundeek sortu zuten (*Jakin*, *Karmel*, *Elhuyar* eta abar), baita gerora eutsi ere.
- Laugarren: Euskal Herriko kultur erakunde eta elkarteek, hau da, nagusiki erdaraz funtzionatu arren euskara ere onartzen dutenak, aldizkari eleanitzak argitaratzen dituzte. Salbuespen bi aipa daitezke: Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen *Eleria* aldizkaria eta RSBAPek ateratzen duen *Egan* aldizkaria. Salbuespen bietan, nabarmena da euskarazko aldizkari horiek ez direla elkartearen aldizkari bakarrak.

Erakunde argitaratzailea	Euskarazko ald.	Ald. eleanitzak	Guzt.
Ankulegi Antropologia Elkarte	0	1	1
Aranzadi Zientzi Elkarte	0	2	2
Bidasoako Ikerketa Zentroa	0	1	1
Bilboko Zientzia Medikoen Akademia	0	1	1
Europar Ikerketen Taldea	0	1	1
Medikuntza Historiaren Euskal Elkarte	0	1	1
EI/SV (Barandiaran Fundazioa)	1	16	17
Fundación Pablo Iglesias	0	1	1
Geronimo Uztariz Institutua	0	1	1
Ingeba: Euskal Geografi Elkargoa	0	1	1
IPES	0	1	1
Musée Basque	0	1	1
PRECISA	0	1	1
Zehaztu gabe	0	1	1
Sabino Arana Fundazioa	0	1	1
Sancho El Sabio Fundazioa	0	1	1
RSBAP	1	3	4
Zutik	0	1	1
<b>Guztira</b>	<b>2</b>	<b>36</b>	<b>38</b>

**VI.36. Taula:** Euskal Herriko kultur elkarten aldizkarien hizkuntza hautua.  
Iturria: Elaborazio propioa Inguma-tik abiatuta.

- Bosgarren eta azken ezaugarria, produkzioari dagokio. Euskal kulturgintzako aldizkarietan euskarazko lan gehiago argitaratu dira, nahiz eta aldizkarien kopurua txikiagoa den, euskaraz funtzionatzen ez duten elkarten aldizkarietan baino. Izan ere, euskal kulturgintzako aldizkariak gutxiago izanik (16) bertan argitaratu da beste elkarteetako aldizkarietan baino ia 4 aldiz lan gehiago (7.090 dokumentu). Horrek erakusten du euskarazkoak ez diren aldizkariak nagusiki erdarazkoak direla, euskararen portzentajea bertan oso txikia delako.

Erakunde mota	Euskarazko ald.	Ald. eleanitzak	Ald. guztira	Dok. Kop.
Euskal kulturgintzako aldizkariak	12	4	16	7.090
Euskal Herriko kulturgintzako ald.	2	36	38	1.885
<b>Guztira</b>	<b>14</b>	<b>40</b>	<b>54</b>	<b>8.975</b>

**VI.37. Taula:** Goi mailako elkarte eta erakundeen aldizkarien euskarazko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.

Amaitzeko eta sintesiko ikuspegia emateko hurrengo taulan laburbildu dugu erakunde motaren arabeko aldizkari kopurua eta mota bakoitzean ekoiztutako euskarazko lanen kopurua:

Erakunde mota		Ald. kop	Dok. kop.	Dok. %tan
Administrazio Publikoa		26	1.138	9,6
Unibertsitateak		26	1.458	12,3
Komunikabideak		2	252	2,1
Goi mailako elkarteak eta erakundeak	Euskaldunak	16	7.090	60
	Euskara eta erdara tartekatzen dutenak	38	1.885	16
<b>Guztira</b>		<b>108</b>	<b>11.823</b>	<b>100</b>

VI.38. Taula: Aldizkarien erakunde ekoizleak eta produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikusten denez, euskaldunak ez diren elkarte eta erakundeak dira aldizkari gehien dituztenak (38) eta, komunikabideen ostean, aldizkari gutxien dituztenak, elkarte eta erakunde euskaldunak dira (16). Hala ere, dokumentu ekoiztien ikuspegitik euskal kulturgintzako aldizkariak, gutxiago izanik ere, beste guztiek baino euskarazko lan gehiago argitaratu dituzte. Izan ere, aldizkarietan argitaratzen diren 10 dokumentutik 6 euskal kulturgintzaren aldizkarietan kaleratu dira, eta beste bana euskara eta erdara tartekatzen duten Euskal Herriko elkarte eta erakundeetan, unibertsitateetan eta administrazio publikoetan.

Laburbiltzeko, euskarazko lanak argitaratzen dituzten aldizkarien erakunde ekoizleen artean euskal kulturgintzako 11 elkarte eta erakundeak beren 16 aldizkariekin euskarazko lanen ekoizle nagusiak dira, eta ez erakunde publikoak, ez unibertsitateak, ezta euskaraz gain beste hizkuntzak erabiltzen dituzten kultur erakunde eta elkarteak ere. Beraz, goi-mailako euskarazko produkzioaren azpiegituraren ehundura euskal kultur elkarte eta erakundeek osatzen dute. Neurri handiz horrek markatzen ditu onerako eta txarrerako Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ezaugarriak. Beraz, ekoizpena euskarari eta, oro har, euskal kulturgintzari oso lotua geratzen da, azpiegitura urria du (euskal kulturgintzako erakundeetan, adibidez, ez dago laborategirik), eta horrek duen eragina gai batzuen trataera urrian eta beste batzuen joritasunean agerikoa da. Ondorioz, euskarazko produkzioa eusten duten erakundeen egitura honek ezinbestean baldintzatzen du Komunitate Zientifiko Euskaldunaren neurria, gaiak, garapena eta aitortpen soziala zein instituzionala.

Bestalde, kontuan izan behar da gaur egun euskal kulturgintza diru-laguntza publikoek eusten dutela nagusiki, diru-laguntzak mugatuak direla eta urtero ematen direla. Beraz, euskal kulturgintzaren jarduna ezin da diru-laguntzen gaintetik hazi eta ezin du planteatu iraupen oso luzeko proiekturik, batetik diru-laguntzak urtero-urtero lortu behar direlako, eta bestetik legegintzaldien arabera, hau da, 4 urtean behin, diru-laguntzen ildoak erabat aldatu daitezkeelako.

Honek guztiak, euskarazko produkzio zientifikoaren egitura ahula dela nabarmen uzten du eta galdera berria planteatu: Euskal Herriko unibertsitate desberdinak euskara ez den beste hizkuntzetan zer nolako produkzio zientifikoa egiten ari dira? Berriro ere, aurrekoan egin dugun moduan, CINDOCek prestatutako *Proyecto de obtención de indicadores de producción científica y tecnológica de España* txostenera<sup>145</sup> jo dugu galdera horri erantzuteko. Txostenean 1996-2001 seiurtekoan espainiar aldizkari zientifikoetan gai jakin batzuen inguruan<sup>146</sup> SCI eta ICYT datu-baseetan katalogatutako produkzioaren azterketa egiten dute. Txostenean jasotako datuak eta ondorioak Inguma-n behatutakoa indartzen dutela uste dugu.

SCIn katalogatutako EAeko lanen % 74 unibertsitateetan<sup>147</sup> ekoitzi dira, % 19,7a ospitaleetan eta % 5,2a lukuru asmorik gabeko erakundeetan<sup>148</sup>. Nafarroan ere, unibertsitateak dira garrantzitsuenak (% 64,8) ondoren ospitaleak (% 37,9), Administrazioa (% 2,5) eta azkenik lukuru asmorik gabeko erakundeetan oso gutxi ekoizten da (% 0,3)<sup>149</sup>.

ICYTen katalogatuta dagoen EAeko produkzio zientifikoaren erakunde ekoizleak honako hauek dira: unibertsitateak (% 43,8), enpresak (% 23,4), lukuru

---

<sup>145</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004)

<sup>146</sup> Gaiak honako hauek dira: Biologia, Nekazaritza, Ingurugiroa, Lurraren Zientziak, Fisika, Ingeniaritza, Teknologia, Biomedikuntza, Matematika, Medikuntza Klinikoa eta Kimika.

<sup>147</sup> Unibertsitateen baitan fakultaterik garrantzitsuenak honako hauek lirake: "los centros con más producción en el período son la facultad de Ciencias de Bilbao [sic], seguida de Químicas de San Sebastián y Medicina y Odontología de Bilbao [sic]" (Gómez Caridad eta beste, 2004: 408)

<sup>148</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 407)

<sup>149</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 386)

asmorik gabeko erakundeak (% 15,5), administrazioa (% 11,1)<sup>150</sup>... Nafarroa ere antzera ageri da: unibertsitateak (% 45,8), administrazioa (% 27,6), enpresak (% 9,3), ospitaleak (% 3,5), lukuru asmorik gabeko erakundeak (% 3) eta abar<sup>151</sup>.

Beraz, CINDOCeko txostena gaiei zein kronologiari dagokionez partziala den arren, ondorio argi bat atera daiteke: EAEn zein Nafarroan ingelesez eta gaztelaniaz ekoizten diren lan zientifiko gehien-gehienak unibertsitatean, argitaletxe komertzialetan zein aldizkarietan plazaratzen dira, ospitaleen eta enpresen publikazioak ere nahiko garrantzitsuak izanik. Aldiz, euskarazko produkzio zientifikoa, Inguma-n jasotako datuetan oinarrituz, elkarte edo lukuru asmorik gabeko erakundeetan oinarritzen da. Beraz, hizkuntza bakoitzeko ekoizpen zientifikoak erakunde azpiegitura desberdina du atzean.

#### **5.2.2.2. Euskal Herriko Unibertsitatearen aldizkariak**

Euskal Herriko unibertsitateek plazaratzen dituzten aldizkarietatik UPV/EHU da euskarazko aldizkari gehien eta aldi berean euskarazko lan gehien argitaratzen dituenena. Noski, guztietatik handiena ere bada. Horregatik guztiagatik, segidan UPV/EHUko aldizkariak aztertuko ditugu, horien baitan euskarazko produkzioak duen presentzia deskribatzeko.

Ondoko taulan UPV/EHUko aldizkariak zerrendatu ditugu. Bertan aintzat hartu ditugu UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak zuzenean kudeatzen dituen aldizkariak baita sail, fakultate zein institutu batek zuzenean kudeatu eta argitaratzen dituztenak ere (adb. *Revista Iberoamericana de polímeros* ez du UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak kudeatzen).

---

<sup>150</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 747)

<sup>151</sup> (Gómez Caridad eta beste, 2004: 747)

Aldizkariaren hizkuntza hautua	Aldizkariaren izena	Sorrera urtea	Euskaraz dok kop	Guzt.
Euskarazko aldizkariak	Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria	1989	509	811
	Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia aldizkaria	1989	203	
	Gogoa. Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria	2001	99	
Aldizkari eleanitzak	Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)/ International Journal of Basque Linguistics and Philology	1967 (1954)	194	331
	Inguruak, Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política/ Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria	1986	54	
	Zer, Revista de Estudios de Comunicación/ Komunikazio Ikasketen aldizkaria	1996	24	
	Revista de Dirección y Administración de Empresas/ Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioarako aldizkaria	1994	20	
	Revista de psicodidáctica	1996	18	
	Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje/ Zuzenbide Prozesala ta arbitraia euskal aldizkaria	1989	5	
	Revista Vasca de Economía Social/ Gizarte Ekonomiaren Euskal aldizkaria	2004	5	
	Lan-harremanak: revista de relaciones laborales	1999	4	
	Fabrikart. Arte, tecnología, industria, sociedad	2001	2	
	Notitia Vasconiae, Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako aldizkaria/ Revista de Derecho Histórico de Vasconia	2002	2	
	Theoria. Revista de Teoría, Historia y Fundamentos de la Ciencia/ Theoria An International Journal for Theory, History and Foundations of Science	1985	2	
	Cuadernos de Gestión	1985	1	
Erdarazko aldizkariak	Antropo. ANTROPObiologia. ANTROPOgenetika. PaleoANTROPOlogia	2001	0	0
	Arqueología de la Arquitectura	2002	0	
	Guineana. Revista de Botánica	1995	0	
	Historia Contemporánea	1988	0	
	KREI (Círculo de Estratigrafía Analítica)	1996	0	
	Política Revista de Ciencias Sociales/ Gizarte Zientzien Aldizkaria	2005	0	
	Revista Iberoamericana de polímeros	2000	0	
	The International Journal of Development Biology (IJDB)	ca. 1989	0	
	Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueología y Filología Clásicas	1984	0	

VI.39. Taula: UPV/EHUK argitaratzen dituen aldizkariak argitalpen hizkuntzaren arabera. Iturria: elaborazio propioa, Inguma eta Dialnetetik abiatuta.

Funtsean, UPV/EHUKo aldizkariak sortu dira unibertsitatea bera erakunde gisa kontsolidatu den neurrian, argitalpen zerbitzua antolatu den neurrian eta abar. Horregatik, lehen aldizkaria ez zen 1984. urtera arte sortu. UPV/EHUKo aldizkariak hiru unetan sortu izan dira:

- 80ko hamarkadaren bigarren erdialdean (orduak dira *Theoria*, *Inguruak* eta abar). Hamarkada horren amaieran, zehazki 1989. urtean UPV/EHUren euskarazko lehen aldizkariak sortu ziren (*Ekaia* eta *Tantak*), oso lotuta zeudenak Euskara Errektoreordetzaren sorrera eta finkapenarekin. Halaber garai honetan erdara hutsezko aldizkariak sortu ziren: *Veleia*, *Historia Contemporánea* eta *IJDB*.
- 90eko hamarkadaren bigarren erdialdean 6 aldizkari berri sortu ziren, batzuk euskarazko lanak kaleratu arren, bi aldizkarik (*Guineana* eta *KREI*) ez dute inoiz euskarazko lanik argitaratu.
- Azkenik, XXI. mendearen hasieran 8 aldizkari berri sortu ziren. Horietatik bakarra da euskaraz (*Gogoa*), eta beste hirutan euskarazko lan gutxi argitaratu da, hots, 5 dokumentutik behera: *Fabrikart*, *Revista Vasca de Economía Social* eta gaur egun hilda dagoen *Notitia Vasconiae*. Bestalde mende honetan erdarazko 4 aldizkari sortu dira: *Revista Iberoamericana de Polímeros*, *Antropo*, *Arqueología de la Arquitectura* eta *Politika*.

Beraz, UPV/EHUren aldizkari proiektuetan gero eta joera erdaldunagoa antzematen da. Baina erdara esatean ez dugu esan nahi ingelesezkoa denik, gaztelerazkoa baizik. Ohargarria da, esate baterako, Arkeologia zuzenean edo zeharka lantzen duten aldizkari guztiek gaztelania hutsezkoak izatea. Izan ere, *Veleiak*, *KREIk* eta *Arqueología de la Arquitectura* ez dute euskarazko lanik kaleratu, ezta ingelesezkorik ere. Esate baterako, altxaerako Arkeologian espezializatutako *Arqueología de la Arquitectura* aldizkaria 2002an sortu zen, nazioarteko komunikazio zientifikorako hizkuntza ingelesa zela. Alta, aldizkari espezializatu izanik ere, bertan erabili izan diren hizkuntzak gaztelania, italiera edo frantsesa izan dira, ingelesaren arrastorik gabe.

Beraz, guztira UPV/EHUK gaur egun euskarazko 3 aldizkari ditu, euskarazko lanak argitaratzen dituzten 12 aldizkari, eta erdarazko 9 aldizkari. Kontuan izan behar da UPV/EHU estatutuak onartu zirenetik euskara eta gaztelania biak direla ofizialak.

Horregatik 90eko hamarkadan Euskara Kabineteko buruak ofizialtasun hori argitalpenetara zabaltzea proposatzen zuen:

“Unibertsitatearen diruaz subentzionatzen edo eta osorik ordaintzen diren aldizkari orokorretan, berriz, ez zaie argitaratzaileei eskatzen hor gure hizkuntza ofizialek berdintasun-egoeran beren tokia garantizaturik izatea, eta maiz diru publikoaz erdara hutsezko agerkariak ateratzen dira, izenburuarekin berarekin hasita, berdin-berdin Valladolideko Unibertsitatean argitara litezkeenak”<sup>152</sup>

UPV/EHUUn euskara ofiziala bada ere, aldizkari batzuk ez dute euskarazko izenik ere (adb. *Cuadernos de Gestión, Fabrikart* eta abar) edota edukita ere itzulpena eskasa da (adb. *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje/ Zuzenbide Prozesala ta Arbitraia Euskal Aldizkaria*). Arazoa, ez dago hainbeste erdaraz argitaratzen diren aldizkarietan, horiek azken finean ez dutelako euskarazko lanik argitaratzen, baizik euskarazko lanak onartzen dituzten aldizkariaren kasuan. *Revista de Psicodidáctica* aldizkariak esate baterako, aldizkariaren izena elebitan ez duen arren, euskarazko lanak argitaratu ditu. Ondorioz, egile euskaldun batek ez daki aldizkariaren politika zein den hizkuntza ereduari dagokionez.

Honek beste arazo batera garamatza, aldizkariak ez dutela argiro deklaritzen zein den aldizkariaren hizkuntza hautua. Batzuk agian euskarazko lanik argitaratzeko arazorik ez lukete izanen, baina aldizkariaren ibilbide osoan euskaraz lanik kaleratu gabe, zaila da egile euskaldunek euskarazko lanik hara bidaltzea.

### **5.2.2.3. The International Journal of Developmental Biology**

UPV/EHUK argitaratzen du nazioarteko zientzian eragin handiena duen Euskal Herriko aldizkaria: *The International Journal of Developmental Biology*. Aldizkariak paperean 1.000 aleko tirada du eta aldizkariaren web guneak 2008. urtean 3.000 bisita zituen egunero. Aldizkaria ingelesez argitaratzen da eta bere zuzendaria Juan Arechaga da, UPV/EHUko irakaslea. Aldizkaria berez Granadan sortu zen 1952an eta beste izen bat zuen, *Anales de Anatomía*. Aldizkariaren zuzendaria Zaragozara joan zen eta *Analesen* jarraitzailea atera zuen: *European Journal of Anatomy*. Bien bitartean, Granadakoak izena aldatu zuen (*Anales del Desarrollo*), eta 1987an Juan Arechaga

---

<sup>152</sup> (Kintana Urriaga, 1994c: 239)



zuzendari gisa sartu zen. J. Arechaga 1988an UPV/EHUra etorri zenean, berarekin ekarri zuen Granadako aldizkaria eta zenbait berrikuntza txertatu zizkion. Agerikoenak bi izan ziren: aldizkariaren argitalpen hizkuntza eta horrekin lotuta aldizkariaren izena<sup>153</sup>. Hala, aldizkaria Euskal Herrian argitaratzen hasi zenean, *The International Journal of Developmental Biology* (IJDB) izena hartu zuen eta osorik ingelesez argitaratzen hasi zen. J. Arechaga-ren ustez ikerketa lanak gaztelaniaz argitaratzea “masoquismo lingüístico”a da.

“Cuando un investigador decide publicar sus resultados, lo hace para que puedan ser recibidos y entendidos lo más rápida y ampliamente posible. Actualmente, sólo existe una lingua franca para ello: el inglés. Por paradójico que resulte, el español sólo podrá empezar a ser un lenguaje científico internacional cuando España y los países hispanohablantes publiquen un suficiente número de revistas científicas de calidad, pero... ¡en inglés! Divulgar en otra lengua lo que se publica de primera mano en aquella es una labor que, en estos momentos, debe ser atendida de forma muy secundaria: nuestra audiencia natural es el mundo y no sólo la comunidad de hispanohablantes”<sup>154</sup>

Gaur egun IJDB, SCIren arabera, Espainian editatzen den aldizkaririk aipatuena da, eta beraz Espainiako eragin faktorerik handiena duen aldizkaria da. Harpidedunak ditu 30 herrialdetan, baina Estatu Batuetako liburutegiak nagusi dira.

Aldizkariko zuzendariak Revicien (*Red de Revistas Científicas Españolas*) ekimenean parte hartzen du. Revicien 2004an sortu zen Espainiako aldizkari zientifikoaren plataforma gisa, Espainiako aldizkari zientifikoak sustatzeko, orobat Espainiako zientzia bultzatzeko: “El prestigio de la ciencia de un país no consiste sólo en que sus científicos publiquen en grandes revistas internacionales, sino también en ser capaces de editar publicaciones propias de calidad”<sup>155</sup>. Revicien funtsean aldizkariaren Interneteko bilgune eta aldi berean kontsulta gunea da, non eskaintzen den aldizkariotik argitaratutako lanen erreferentzia eta laburpena (eta batzuetan, testu osoak). Plataforman dauden aldizkariak lau baldintza bete behar dituzte: lehena, edizio batzorde bat eduki behar dute, bigarrena, artikulak argitaratu aurretik ebaluatzaileen eskuetatik pasatu behar dira, hirugarrena, web gunea edukitzea eta eguneratuta izatea, eta laugarrena eta azkena, aldizkotasun erregularra izatea. Gaur egun Arevicien-ek

<sup>153</sup> (Moreno, 2005: 160)

<sup>154</sup> (Arechaga, 2007: 14)

<sup>155</sup> *Revicien, Red de Revistas Científicas Españolas. Dossier,* [http://www.revicien.net/dossier\\_revicien.pdf](http://www.revicien.net/dossier_revicien.pdf) [kontsulta data: 2009-04-01]

(*Asociación Española de Revistas Científicas Españolas*) eusten du Revicien. Honako hauek dira elkartearen helburuak:

“La Asociación de Revistas Científicas Españolas se define como una entidad sin ánimo de lucro cuyos fines son:

- a) Contribuir al **desarrollo científico y tecnológico** de nuestro país mediante la mejora de nuestras revistas científicas.
- b) Potenciar la mejora del **acceso electrónico** a todas las revistas asociadas.
- c) Fomentar la **presencia internacional** de las revistas de la Asociación.
- d) Gestionar el portal de Revistas Científicas Españolas **Revicien.net y su área de prensa**.
- e) Actuar como un **interlocutor** cualificado ante los poderes públicos representativos.
- f) Promover el papel de las publicaciones científicas españolas como parte consustancial del **sistema de I+D+i español**.”<sup>156</sup> [beltzak jatorrizkoan]

AreVICIEN sortu baino lehen Revicien-eko ageriko eragile nagusiak bi ikertzaile ziren: Juan Arechaga eta Manuel León, *Real Sociedad Matemática Española*ko lehendakariordea. M. León gaur egun AreVICIEN-eko lehendakaria da, eta J. Arechaga azken urteotan espainiar aldizkarien aldeko eragile sutua da. Funtsean Revicien-eko proiektuaren ideologoa dela esan daiteke, Revicien-eko ideia asko, eta gerora AreVICIEN-eko helburuetako batzuk, J. Arechagaren artikuletatik irten direlako<sup>157</sup>. Esate baterako, herrialde baten prestigio zientifikoa neurri handi batean aldizkari zientifiko-teknikoetan datzala edota aldizkariak izan behar dutela herrialde baten I+Garen parte.

J. Arechagak, liburutegiei eta ebaluazio sistemei espainiar aldizkariarentzat aitortza eta arreta handiagoa eskatzen die. Izan ere, atzerriko liburutegiek aldizkarien harpidetza garestiak ordaintzen dituzte, baina Espainiako aldizkariak ez dituzte hartzen. Adibidez, J. Arechagak zuzentzen duen IJDB aldizkariak, 2006. urtean Espainia osoan 4 harpidetza baino ez zituen. Bestetik, J. Arechagak salatu izan du seiurtekoetan oso gutxi baloratzen direla espainiar aldizkarietako argitalpenak. Bere ustez, pentsamoldea aldatu behar da, kalitatezko aldizkariak ez direlako soilik atzerrikoak edo *Nature* edo *Science*. Esaterako, Espainiako IJDB prestigiotsua da, ez soilik SCIn eragin faktore handia duelako, baita bertara egile prestigiotsuek, adibidez Nobel sari batek, bere artikulua

---

<sup>156</sup> AreVICIEN elkartearen web gunetik: <http://www.arevicien.es/asociacion.php> [kontsulta data: 2009-04-01]

<sup>157</sup> J. Arechagak *El País* egunkarian argitaratu ditu, baita aldizkari zientifikoetan ere (Arechaga, 2007)

bidaltzen dutelako. Beraz, bere ustez aldizkariaren argitalpenaren kokalekua ez da kalitatearen isla zuzena. Bestalde, espainiar aldizkariak onak izateaz gainera, “las revistas españolas –y no las extranjeras– debieran de ser el vehículo natural de los mejores trabajos de los investigadores españoles”<sup>158</sup>. Halaber, Espainian argitaratzen diren aldizkariak estatuko politika zientifikoan aintzat hartzeko eskatzen du:

“Es más, en el recientemente aprobado Plan Nacional de I+D+I 2008- 2011 no existe ni una sola referencia, siquiera indirecta, dedicada a la promoción de revistas científicas españolas de calidad, a pesar de que durante su desarrollo se irán al exterior cientos de millones de euros bajo la forma de gastos de edición y de suscripciones a bases de datos y a revistas extranjeras (probablemente, este gasto supere ya el 25% de la inversión total española en investigación científica, médica y tecnológica). (...)”<sup>159</sup> [beltzak gureak dira]

Bestalde, J. Arechaga konbentzituta dago Espainiak potentzialki *Nature* edo *Science* moduko aldizkariak argitara ditzakeela, baldin eta egiturazko arazoak gainditzen badira, hala nola, espainiar aldizkarien edizio lanaren filantropia:

“Parece que nos falta mucho para concienciarnos sobre el hecho de que los artículos de una revista profesional son el *producto final* de la actividad investigadora y de que **la edición de las mismas en España no puede seguir siendo una labor fortuita, ocasional, filantrópica o cultural, sino un proyecto competitivo** internacionalmente y una fuente de prestigio y de ingresos económicos para el país, hoy al albur de las multinacionales de la edición científica. No nos cansaremos de repetir a este respecto -quizás, para el asombro de muchos- que en España hay potencial humano y tecnología suficientes para publicar varias *Natures* o *Sciences*. Sólo tenemos que proponémoslo, creer en nosotros mismos (quizás lo más difícil de todo) y dedicarle los recursos imprescindibles.” [beltzak gureak dira]

Ikusten denez, J. Arechagak espainiar aldizkarietzako babes politika aktibo bat eskatzen du. Zilegi dirudi euskarazko aldizkarietzat ere antzeko zerbait eskatzea. Hau da, J. Arechagak egiten duen diagnostia eta espainiar aldizkarietzat erreklamatzeko dituen neurriak eta aitortza, euskarazkoei ere aplikatzea: azpiegitura sendoa, finantziarioa, profesionalizazioa, errekonozimendua eta abar.

Laburbilduz, Euskal Herrian aldizkarien ekosistema konplexua bizi dugu, alde batetik badira Espainiako eragin faktore handieneko aldizkariak, parte hartzen dutenak

---

<sup>158</sup> (Arechaga, 2007: 11)

<sup>159</sup> Arechaga, J. “Revistas científicas en España, entre el aldeanismo y el desdén” *El País*, 2007.12.26.

espainiar aldizkarien eta, oro har, espainiar zientziaren aldeko ekimenetan, eta, bestetik, badira euskarazko aldizkariak, aldizkarietako euskarazko goi mailako komunikazioa eusten dutenak, gehien bat goi mailako kultur elkarte eta erakundeek argitaratzen dituztenak, hau da, J. Arechagaren hitzetan “filantropiak” eusten dituenak, eta ez dutenak aitortzarik ebaluazio agentzien aldetik. Horregatik, Euskal Herrian argitaratzen diren goi mailako aldizkarien zenbakizko azterketez gain, bestelako azterketa kualitatiboak funtsezkoak dira, testuinguru konplexu honetan euskarazko aldizkarien egoera eta ekarpena zein den ulertzeko.

### **5.2.3. Aldizkariak erakarritako egileak**

Aldizkarietan argitaratutako dokumentuak aztertu ondoren, aldizkarietan idazten duten egileen azterketan sartuko gara. Lehenengo euskarazko aldizkarietan parte hartzen duten egileak aztertuko ditugu eta ondoren eleanitzetakoak. Funtsean aldizkari bakoitzean zenbat egile desberdinek parte hartu duten, batez beste zenbat idazten duten, eta aldizkariak egileekiko duten *irekitasuna* zein *itxitasuna* interesatzen zaigu. Eta horretan guztian euskarazko aldizkarien eta aldizkari eleanitzen artean desberdintasunik dagoen.

Aldizkari euskaldunetan parte hartu izan duen egile kopurua aldakorra da eta lotuta dago aldizkariaren sorrera eta ezaugarriekin. Izan ere, 1989. urtean sortutako aldizkari batek egile gehiago erakarri ohi ditu, 2001. urtean sortutakoak baino. Bestalde, aldizkari batzuk egile profesionalak dituzte (adb. *Elhuyar Zientzia eta Teknika*) eta beste batzuk, berriz, enkargu ordainduak egiten dituzte (adb. *Jakin*), eta badira ikertzaileek bidaltzen dituzten lanekin hornitzen diren aldizkariak (adb. *Uztaro*). Beheko taulan euskarazko aldizkarietan aritutako egileak jaso ditugu baita egile bakoitzaren batez besteko produkzioa ere. Taula prestatzeko ez ditugu aintzat hartu jada hilda dauden aldizkariak edota 10 dokumentutik behera dituzten aldizkariak.

Euskarazko aldizkariak	Dok. kop	Eg. kop	Dok/eg BB
Bat	539	398	1,4
Egan	675	178	3,8
Ekaia	203	224	0,9
Eleria	151	103	1,5
Elhuyar Zientzia eta Teknika	1.295	332	3,9
Enseiukarrear	115	79	1,5
Euskera	1.121	327	3,4
Gogoia	99	61	1,6
Hegats	280	149	1,9
Hizpide	168	98	1,7
Idatz & mintz	158	47	3,4
Jakin	1.157	603	1,9
Karmel	772	146	5,3
Senez	348	155	2,2
Tantak	509	250	2
Uztaro	529	387	1,4

VI.40. Taula: Euskarazko aldizkari biziaren batez besteko produkzioa egileko. Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikusten denez, *Jakin* da egile gehien izan dituen aldizkaria. Izan ere, *Jakinek* urtero zenbait egileri eskatzen die urteko balantzea egiteko, edota gai monografiko baten inguruan beraien iritzia bidaltzeko. Batez bestekoari erreparatzen badiogu, *Karmelek* marka guztiak hausten ditu, egileko batez besteko lanak 5,3 direlako. *Karmel* ordena erlijiosoaren aldizkaria da, karmeldarrena, eta beraz aldizkarian gehien parte hartzen duten egileak, karmeldar euskaltzaleak dira, nahiz eta kanpoko lankidetzak ere badituen. Euskaltzaindiaren *Euskera* buletinarekin esate baterako, *Karmelen* antzekoa gertatzen da. Nolabait esateko, erakunde nahiko korporatiboa da, eta bertan bereziki euskaltzainek parte hartzen dute. *Elhuyar Zientzia eta Teknikaren* kasuan, arestian aipatu dugunez, batez bestekoa hain altua da, aldizkariaren erredakzioa egile profesionalek osatzen dutelako.

Izaera nahiko korporatiboa duten aldizkari hauen antipodetan *Ekaia* aldizkaria dago, egileko batez beste 0,9 dokumentu duena. Izan ere, *Ekaian* egile gehiago dago dokumentuak baino, artikulua bakoitzaren prestakuntzaren atzean egile bat baino gehiago egon ohi delako. *Ekaia* Zientzia eta Teknologiar buruzko euskarazko goi mailako dibulgazioa egiteko sortu zen. Goi mailako komunikazioan, eta bereziki, Zientzia eta Teknologiararen esparruan, argitalpenak lankidetzan prestatzen dira, beronen prestaketan alde edo moldez ikerketa talde osoak parte hartu ohi duelako.

Beheko taula honetan (VI.41. Taula) aldizkarietan parte hartutako egileen azterketan pausu bat aurrera egin dugu, eta behin bakarrik parte hartu dutenen datua jaso dugu (kopurua absolututan eta ehunekotan):

Euskarazko aldizkariak	Eg. kop.	Dok. bakarreko eg. kop.	Dok. bakarreko eg %
Bat	398	283	71,1
Egan	178	108	60,7
Ekaia	224	166	74,1
Eleria	103	71	68,9
Elhuyar zientzia eta teknika	332	208	62,7
Enseiukarreen	79	53	67,1
Euskera	327	186	56,9
Gogoia	61	41	67,2
Hegats	149	87	58,4
Hizpide	98	63	64,3
Idatz & mintz	47	27	57,4
Jakin	603	383	63,5
Karmel	146	88	60,3
Senez	155	99	63,9
Tantak	250	136	54,4
Uztaro	387	257	66,4

VI.41. Taula: Euskarazko aldizkarietan behin parte hartu duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

Euskarazko aldizkariotan behin bakarrik parte hartu duten egileen portzentaia % 54-68an kokatzen da. Hortaz, badirudi aldizkari euskaldunek badutela egile taldetxo bat, egileen % 45-32a behin baino gehiagotan argitaratzen dituztenak beraien lanak. Ondorio orokor honetatik ihes egiten dute *Ekaia* eta *Bat* aldizkariak. Bietan lan bakarria argitaratu duten egileak % 70etik gora dira. *Ekaian*, arestian aipatu dugunez, Zientzia eta Teknologia arloko aldizkarietan ohi den moduan, artikuluak egile batek baino gehiagok sinatzen dituzte eta era berean gehiago dira ekoizpen bakarria duten egileak.

*Bat* soziolinguistikan espezializatutako aldizkaria da. Zenbaki bakoitzean gai zehatz bat lantzen dute hainbat egilek, zenbaki bakoitza monografikoa izan ohi delako. Adibidez, 24. zenbakian teknologia berrien aurrean euskararen erronkak zeintzuk ziren aztertu zen, 30.ean Suomieraren normalkuntza eta 47.ean Donostia-Baiona eurohiria. Beraz, *Baten* ez dira argitaratzen aldizkariaren argitalpen batzordera heldutako artikuluak, baizik batzordeak berak aditu desberdinei eskatutako artikuluak. Agian horrek azal dezake ekoizpen bakarria duten egileen portzentajea hain altua izatea.

Amaitzeko azken ohar bat egin nahi genuke *Eleria* aldizkariaren gainean. *Eleriak* erakusten du Zuzenbide arloan zenbat egile euskaldun dagoen zuzenbideari buruz euskaraz artikulua argitaratzeko moduan. 1996. urtean sortu zenetik 2003ra arte, 103 egile desberdinek parte hartu du eta horietatik 71 oraindik behin baino ez da aritu. Beraz, Zuzenbidea euskaraz lantzeko, beharrezkoa izan da aldizkari espezializatua sortzea, Zuzenbide arloko egile euskaldunak biltzeko.

Aldizkari eleanitzei dagokionez, datu bilketa berdina egin dugu, baina asko direnez (86), adibide modura eta aleatorioki 17 hautatu ditugu:

Aldizkari eleanitzak	Dok. kop.	Eg. kop.	Dok/Eg. BB
Ankulegi	25	17	1,5
Bidebarrieta	41	30	1,4
Boletin de la RSBAP	16	9	1,8
Cuadernos de Etnología y Etnografía	18	13	1,4
Euskararen Iker Atalak	68	46	1,5
Fontes Linguae Vasconum	213	81	2,6
Geronimo de Uztariz	17	17	1
Ikastaria	45	48	0,9
Inguruak	54	50	1,1
Lapurdum	64	42	1,5
Mundaiz	96	35	2,7
Musiker	13	11	1,2
Oihenart	75	56	1,3
RIEV	182	110	1,7
Sancho el Sabio	25	23	1,1
Vasconia	32	25	1,3
Zainak	31	24	1,3
Zehar	59	37	1,6

VI.42. Taula: Aldizkari eleanitzen batez besteko produkzioa egileko. Iturria: Inguma datu-basea.

Aldizkari eleanitzetan egileen batez besteko produkzioa ez da 2,7tik igotzen. Euskarazko aldizkarietan berriz, eta *Karmel* aldizkariaren kasuan, batez bestekoa 5eranoikoa zen, eta beste lau aldizkariaren kasuan egileen batez bestekoa 3tik gorakoa. Beraz, aldizkari eleanitzetan egile euskaldunek gehienez, dokumentu bat edo bi argitaratzen dituzte. Ondoko taulan ikus daiteke aldizkari bakoitzean dokumentu bakarra ekoitzi duten egileen portzentajea zein den:

Aldizkari eleanitzak	Eg. kop.	Dok bakarreko eg. kop	Dok bakarreko eg. %
Ankulegi	17	12	70,6
Bidebarrieta	30	25	83,3
Boletín de la RSBAP	9	6	66,7
Cuadernos de Etnología y Etnografía	13	8	61,5
Euskararen Iker Atalak	46	36	78,3
Fontes Linguae Vasconum	81	51	63
Geronimo de Uztariz	17	16	94,1
Ikastaria	48	38	79,2
Inguruak	50	42	84
Lapurdum	42	27	64,3
Musiker	11	10	90,9
Oihenart	56	41	73,2
RIEV	110	68	61,8
Sancho el Sabio	23	22	95,7
Vasconia	25	19	76
Zainak	24	16	66,7
Zehar	37	24	64,9


VI.43. Taula: Aldizkari eleanitzetan behin parte hartu duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

Ikusten denez, lan bakarria duten egileen portzentajea % 61-83 artean kokatzen da. Hiru kasutan (*Geronimo Uztariz*, *Musiker* eta *Sancho el Sabio*) % 90-95ean dago. Honelako aldizkarietan behin baino gehiagotan dokumentua kaleratzen duten egileak % 39-17a dira eta kasu batzuetan % 10 baino gutxiago. Horra beste diferentzia bat euskarazko aldizkariaren eta eleanitzen artean: euskarazkoak egile gehiago erakartzeaz gainera, egile bakoitzak dokumentu gehiago ekoizten ditu. Beraz, aldizkari eleanitzetan egile euskaldunen ekarpena oso puntuala da. Hipotesi moduan planteatzen dugu egile euskaldunak aldizkari eleanitzetan erdarazko lanak argitaratzen dituztela. Adibidez, G. Aulestia *Sancho El Sabio* aldizkariaren zuzendarietako bat da, eta aldizkarian euskaraz lan bakanak argitaratu ditu, gehien-gehienak gaztelaniaz izanik.

#### 5.2.4. Aldizkariaren produkzioaren bilakaera

Aldizkariaren euskarazko produkzioaren urterik onena 1999a izan zen, bai aldizkari kopuruari dagokionez, zein dokumentuei dagokionez. Urte horretan 50 aldizkaritan 609 dokumentu argitaratu ziren.





**VI.12. Grafikoa:** Aldizkarien euskarazko produkzioaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean aldizkarietan ekoiztutako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Euskarazko produkzioaren 1999ko zapaia SCIko datuekin aldera daiteke. SCIren arabera 1999an Hegoaldean ingelesez 962 artikulua ekoiztu ziren<sup>160</sup>. Baina kontuan izan behar da SCI In Inguma-n baino jakintza-arlo gutxiago katalogatzen direla (Biologia, Nekazaritza, Ingurugiroa, Lurraren Zientziak, Fisika, Ingeniaritza, Teknologia, Biomedikuntza, Matematika, Medikuntza Klinikoa eta Kimika). Hortaz, Hegoaldeko ingelesezko produkzio zientifikoa euskarazkoaren oso gaintetik dago.

Bien bitartean, konparazio baterako, 1999. urtean Lituaniak SCIn ia-ia 500 dokumentu katalogatuta zituen, Estoniak 480 eta Letoniak 300<sup>161</sup>. Ikuspegi demografiko eta ekonomikotik Lituania da Baltikoko hiru errepubliketatik Euskal Herriaren antz handiena duena<sup>162</sup>: aipatu dugunez, SCIn ingelesezko 500 dokumentu katalogatuta bazituen ere, herrialde baltiko honek 100 aldizkari zientifiko ditu eta bertan urtero 2.500 bat artikulua argitaratzen dira. Beraz, Lituaniako SCIko produkzioa

<sup>160</sup> Kopurua, SCIn dauden Hegoaldeko 992 artikuluen % 97 kalkulatuz lortu dugu (Gomez eta beste, 2004). Urte horretan Inguma-n SHU 5 eta 6aren inguruan 94 artikulua daude katalogatuta. Hau da, euskarazko artikuluen produkzioerik urterik onenean ere, Hegoaldean jakintza-arlo batzuetan ingelesez ia hamar aldiz gehiago ekoizten da euskaraz baino.

<sup>161</sup> Errepublika Baltikoetako datuak V. Gontis-en lanetik atera ditugu (Gontis, 2000: 32)

<sup>162</sup> Konparazio bat egiteko Euskal Herriko eta Lituaniaren gaineko oinarrizko datuak emango ditugu. Euskal Herriko populazioa 2001.ean ia 2,9 milioi biztanlekoa zen (Aztiker, 2004: 3), eta euskaldunak 780.000 ziren (Aztiker, 2004: 59). Urte horretan EAEk BPGtik % 1,38a bideratu zuen I+G+D (Salaburu eta beste, 2003: 28). Lituaniak aldiz, biztanle gehiago ditu, baina I+G+D oso gutxi inbertitzen du. Lituaniak, 2001ko erroldaren arabera 3,5 milioiko biztanleria zuen, % 83,4a lituaniarra zen (Kallonen, 2004: 1), eta 2000 urtean BPGtik % 0,37a I+G+D gastatu zuen (Gontis, 2000: 31)

(ingelesezkoa), lituanierazko produkzioaren azpitik dago. Euskal Herrian kontrakoa gertatzen da.

“However, everyone has to have in mind that for very long period there were big restrictions in Baltic Countries to publish in international journals and there still exist the language barrier. On the other hand, everyone has to acknowledge that there are over 100 local scientific journals in Lithuanian, where researchers publish over 2500 articles per year.”<sup>163</sup>

Lituanian beraz, lituanieraz argitaratzen diren artikulak dezente gehiago dira Euskal Herrian euskaraz argitaratzen direnak baino, lau bat aldiz gehiago, hain zuzen ere. Baina, jakina, lituanieraren egoera soziolinguistikoa euskararena baino hobea da.

Kroazian<sup>164</sup> ere antzeko gauza bat gertatzen da, bertako aldizkari zientifikoetako produkzioa ISIko datu-basetan (SCI, SSCI eta AHCI) jasotakoa baino handiagoa baita. Klaic ikertzaileak 1980-1995eko kroaziar produkzio zientifiko aztertzekeo ISIko datu-baseak erabili zituen oinarriko informazio iturri gisa, eta horren ondorioz kroaziar produkzioaren gaineko ondorio oso ezkorrak atera zituen<sup>165</sup>, hau da, Giza eta Gizarte Zientzien garrantzia eza, Kimika eta Fisika arlokoak ez diren beste ikertzaileen produktibitate eskasa eta abar. Horri erantzunez, S. Maricic-ek aldizkari berean artikulua bat argitaratu zuen Klaic-en akats metodologikoak agertuz eta ISIaren erabilera kritikatu. Besteak beste, Maricic zioen 300 bat aldizkari zientifiko kroaziar zeudela, eta beraz, kroaziar produkzio zientifiko ISIaz haratago zihoala<sup>166</sup>.

Kroaziako ikerkuntza gunerik handiena den Ruder Boškovic Institutuaren liburutegiko J. Stojanovski zuzendariaren arabera, Kroazian 232 aldizkari zientifiko daude, eta horietatik % 5,6aren lanak ISIan jasotzen dira<sup>167</sup>. Stojanovski-ren arabera Giza Zientziek dituzte aldizkari gehien (60), ondoren Gizarte Zientziek (48), Teknologia (39), Biomedikuntzak (33), Natur Zientziek (29) eta azkenik Bioteknologia (23). Ikusita Kroazia moduko herrialde txikiek dituzten arazoak beraien produkzio zientifiko ezagutarazteko CROSB (Croatian Scientific Bibliography) izeneko proiektu bat martxan jarri zuten. Bertan kroaziar ikertzaile eta zientzialariek

---

<sup>163</sup> (Gontis, 2000: 31-32)

<sup>164</sup> Kroaziak 4,4 miloi biztanle ditu eta 2001eko BPGtik % 0,98a I+Gra bideratu zuen (Stojanovski, 2003)

<sup>165</sup> (Klaic, 1997)


<sup>166</sup> (Maricic, 1998)

<sup>167</sup> (Stojanovski, 2003)

argitaratutako lanen, doktorego-tesien eta parte hartutako ikerkuntza-proiektuen gaineko informazioa jasotzen da. Datu-basea Internet-en dagoenez (<http://bib.irb.hr>) zuzenean aztertzeko aukera izan dugu. Ikusi dugunez, datu-basean jasotako kroaziarren produkzio gehiena kroazieraz dago, ingelesez oso dokumentu gutxi aurkitu ditugu. Segur aski ingelesaren erabilera Kroazian, ISlan jasotako kroaziar aldizkariena izango da, hau da, % 6aren ingurukoa.

#### 5.2.4.1. Aldizkari motaren arabera bilakaeraren azterketa

Arestian goi mailako aldizkarietan argitaratutako idazlanen bilakaera aztertu dugu, orain berriz, hurbilpen zehatzago bat egitea planteatzen dugu, aldizkarien hizkuntza hautuaren arabera. Hala, euskarazko aldizkarietan eta eleanitzetan argitaratutako euskarazko lanen bilakaera ondoko grafikoan jaso dugu:



VI.13. Grafikoa: Euskarazko aldizkari eta eleanitzetan argitaratutako euskarazko lanen bilakaera. Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoiztutako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Grafikoan ikusten denez, goi mailako euskarazko aldizkarietan eta eleanitzetan 1983. urtera arte argitaratzen ziren lan kopurua berdintsua zen. Euskara hutsezko aldizkariak ez ziren asko. Lehenengo *Euskera* baino ez zegoen, gero etorri zen *Elhuyar* aldizkaria (1973) eta beranduago *Jakin* (1977). 1983. urtetik aurrera euskarazko aldizkari gehiago sortu ziren (arestian aipatutako *Labayruren Idatz & Mintz*, *Zutabe*, *Senez...*) eta horren ondorioz, aldizkari euskaldunek askosaz ere euskarazko produkzio handiagoa izan zuten eta eleanitzengandik aldentzen hasi ziren. 90eko hamarkadan sartu orduko, 4 aldizkari euskaldun berri agertu ziren (*Tantak*, *Ekaia*, *Uztaro* eta

*Hegats*) eta beraiek izan ziren, aurrekoekin batera, aldizkarietako euskarazko produkzioaren hazkundearen erantzuleak.

Aldizkari eleanitzen urteroko euskarazko lanen kopurua gutxi gora behera 80ko hamarkadan finkatu zen. Geroztik, gora beherak izan badira ere, bere hartan mantentzen da.

Ohartzekoa da, nolana ere, 2004. urtetik aurrera aldizkarietako euskarazko produkzioan antzematen den beherakada, larriagoa dena euskarazko aldizkarien ekoizpenaren kasuan. Zergatiak ikertzeke daude, baina ez dirudi dokumentazio akats baten ondorio denik.

### **5.2.5. Azken hausnarketa**

Aldizkarien inguruan orain arte aipatutako guztia kontuan hartuta, aldizkarien inguruko zenbait hausnarketa egingo ditugu. Horretarako Aitor Zuberogoitiak prestatu eta argitaratutako tesia bidelagun izan dugu, eta bereziki gaur egungo prentsa elebidun abertzalean euskararen presentziari buruz ateratako ondorioak. Izan ere, A. Zuberogoitiak euskal aldizkarien inguruan dioena gure lanerako iradokigarria izateaz gainera, gauza askotan berak antzemandako fenomenoak, eta guk behatutakoak goi mailako aldizkarien esparruan, parekoak edo hurbilekoak dira:

- A. Zuberogoitiaren arabera, azken mende laurdenean euskaraz jardun duten hedabideak izan dira euskal komunikazio-esparruari eutsi diotenak, ez hedabide elebidunak. Arazorik gabe baieztatu daitezke horixe bera goi mailako aldizkarien kasuan.
- Euskara onartzen duten aldizkari gehienetan, euskarak erdararen aldeko egoera diglosikoa bizi du, euskaraz oso lan gutxi argitaratzen delako eta gainera urteekin produkzio horrek behera egin duelako. Urteko produkzioa mantendu da, baina gero eta aldizkari gehiago direlako euskara onartzen dutenak. Bestela, aldizkariak banaka hartuta, gero eta euskarazko lan gutxiago dituzte (adb. Eusko Ikaskuntzaren sailtako koadernoek).

Salbuespen bakarrenetakoa *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria da, sortu zenetik gaur egunera arte euskarazko artikuluen kopurua nabarmen emendatu duena. Bestalde aldizkari eleanitzek euskarazko lan gero eta gutxiago argitaratzeaz gainera, euskara maila apalagoko lanetan ageri da. Arestian aipatu dugunez, RIEVen 1984-1986. urteetan, artikuluetan erabiltzen zen, eta azken urteotan bereziki liburu aipamenetan agertzen da. Oro har, gaur eguneko aldizkari eleanitzak urrun daude frankismo bete betean, 1953an *Eganek* egindako euskarazko haututik.

- Gaietan ere antzematen da halako *ghettifikazioa* aldizkariotan, bereziki eleanitzetan, euskarazko lanak maiz, euskal gaiei buruzkoak direlako (adb. *Vasconian*<sup>168</sup> eta beste batzuetan) eta A. Zuberogoitiak aipatzen duen moduan “joera hori muturrera eramatea euskara ghettoan hesitzeko modua izan daiteke”<sup>169</sup>.
- Euskarazko goi mailako komunikazioak funtzio guztiez osatutako zirkuitua behar du, besteak beste, egile euskaldunak behar ditu artikulua prestatzeko, aldizkariak, lanak argitaratzeko *referee* lana egingo duten adituak behar dira, baita zuzentzaileak ere, ondoren, eta aldizkaria kalean denean irakurlego euskalduna (unibertsitateko ikasle, irakasle, aditu, profesional, ikertzailea eta abar), informazio tresnak behar ditu dokumentazioaren sakabanaketa ekiditeko eta erabiltzaileei informazioaren berreskurapena ahalbidetzeko, eta ebaluazioa behar du eta berau egiteko irizpideak eta tresnak –hala nola, datu-base, direktorioak eta abar– garatu behar dira. Une honetan, euskarazko goi mailako komunikazio zirkuitua osatze bidean aurkitzen da: goi mailako euskarazko aldizkarietan egileak badira, aldizkariak, adituak, eta irakurlegoa ere. Agian premiarik handiena ebaluazioan dago.
- Alde horretatik une honetan euskara onartzen duten aldizkari eleanitzek ez diote irtenbide integralik eskaintzen euskarari. Honelako aldizkarietan euskarak ez duelako gutxieneko zentralitaterik, aldizkari batzuetan kuota bat

---

<sup>168</sup> (Landa, 2005)

<sup>169</sup> (Zuberogoitia, 2003: 534)

baino ez da aldizkariaren proiektuan (adb. *Sancho El Sabio*) eta horren ondorioz, esate baterako, aldizkariak ez dute izaten euskarazko lanentzako planteamendu orohartzailerik (adb. euskarazko artikulua orrazteko zuzentzailerik).

- Ez mota bateko ez besteko goi mailako aldizkariak, euskarazkoak zein eleanitzak, oro har euskaldunentzat ez dute erabateko erreferentzialtasunik. Halako aldizkarietan lanak argitaratzen dira baina ez dira askorik irakurtzen, ez dira kontsumitzen. Horren froga da adibidez, Psikologiaren inguruan euskaraz argitaratutako artikuluen aipamen bibliografikoa hutsala dela edota Psikologia arloko artikulua ustegabeko aldizkarietan argitaratzen direla, esaterako *Fontes Linguae Vasconum*<sup>170</sup>. Erreferentzialtasuna eraiki ezean, ez da modu koherentean adostutako arloko lexikoa (bakoitzak bere proposamena egingo duelako), ezta arloz arloko aditu euskaldunik sortuko, ezta euskal hiztun komunitatearentzat intereseko ildorik finkatuko... Horregatik, euskarazko produkzioa trinkotu egin behar da, aldizkari euskaldunen kasuan gaien inguruko erreferentzialtasuna landu, eta aldizkari eleanitzetan produkzioa areagotu, goi mailako euskarazko komunikazio esparrua guztiz osatu ahal izateko.
- Euskarazko goi mailako komunikazioak funtzio guztiak dituen zirkuitua osatzeko, euskaraz prestatutako lanen erreferentzialtasuna areagotzeko, eta euskaldunen goi mailako komunikazio esparrua trinkotzeko, giltzarria izan daiteke goi mailako euskarazko produkzioaren ebaluazio sistema propio bat garatzea: alde batetik aitortuko duena hizkuntzaren normalizaziotik harago euskarazko produkzioaren balioa eta erabilera goi mailan (irakaskuntzan, ikerkuntzan eta abar), bestetik, sustatuko duena egileen produkzioa, eta azkenik, erreferentzialtasunak eraikitzen lagunduko lukeena (aldizkariena, egileena eta abar). Horretarako, euskararen beraren gaur eguneko egoera soziolinguistiko eta bilakaera historikora egokitutako nazioarteko oinarriko estandarrak erabiltzea oso baliagarria litzateke. Bestelako ebaluazioek, hau

---

<sup>170</sup> (Artetxe, 2006)


da, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa eta historikoa aintzat hartzen ez dutenak, eragin kaltegarria izan dezakete goi mailako euskararen erabileran.

### **5.3. Argitaletxeen azterketa**

Aldizkariekin batera, argitaletxeak goi mailako euskarazko produkzio idatziaren ekoizle garrantzitsuak dira. Inguma datu-basean 46 argitaletxe daude erregistratuta eta guztira, 1.529 liburu, 451 itzulpen eta 3.986 HAA ekoitzi dituzte. Berauen azterketa egiten hasteko argitaletxeen produkzioaren bilakaera eta lurralde banaketari erreparatuko diogu, eta ondoren atal banatan, euskarazko produkzioa duten argitaletxeen deskribapena egingo dugu, unibertsitateen argitalpenetan arreta berezia jarritz.

Azken ia 40 urteotan argitaletxeen produkzioa nahiko mantso hazi da, ez baitira asko goi mailako euskarazko lanak kaleratzen dituzten argitaletxe edota argitalpen zerbitzuak. Hazkundera bereziki antzematen da 90eko hamarkadatik aurrera.

Argitaletxeen produkzioaren bilakaera VI.14. Grafikoan adierazten da. Grafikoaren igoeratxo bakoitzaren atzean argitaletxe baten sorrera dago. Esate baterako, 1977tik aurrera UEUK liburuak argitaratzeari ekin zion. 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera unibertsitate batzuetako argitalpen zerbitzuek euskarazko liburuak atera zituzten. Une horretan sortu zen, halaber, Euskal Editoreen Elkarteak sustatuko Klasikoak bilduma eta 1990. urtean Klasikoak (pentsamendu unibertsala) bilduma sortu zen. 1997. urtetik aurrera Mendebalde Kultura Alkarteak bere lehen liburuak kaleratu zituen. Aranzadi Zientzi Elkarteak, salbuespen batekin, XXI. mendera arte ez du euskarazko libururik argitaratu.



**VI.14. Grafikoa:** Euskarazko liburu eta itzulpenen bilakaera (1969-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoiztako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.

Goi mailako euskarazko liburuen urteko produkzioa batez beste 103 obrakoa (liburu zein itzulpen) izan da 1997-2007 urte tartean. 2007 urtean euskaraz 94 liburu eta 11 itzulpen argitaratu ziren, guztira 111 lan. Datu hori konparatzen badugu Joan Mari Torrealdaik 2007ko euskal liburugintzaren gainean ematen dituen datuekin, ikus daiteke euskarazko goi mailako liburugintza, euskal liburugintzaren % 5,1a dela<sup>171</sup>.

Lurraldeari dagokionez, Gipuzkoan kokatuta daude argitaletxe gehien (guztira 23 argitaletxe), ondoren Bizkaian (16), Nafarroan (4), Araban (2) eta Lapurdin (1). Hala ere, Bizkaiko argitaletxeak dira gehien produzitzen dutenak, argitaletxeen produkzio osoaren % 67,7a Bizkaian ekoizten baita. Gipuzkoan argitalpen etxe zein zerbitzu garrantzitsuak egon arren (Jakin, Elhuyar, UZEI), Bizkaiaren egitura sendoagoa da. Bizkaian kokatuta daudelako argitalpen gehien dituzten hiru argitaletxeak: UEU, UPV/EHU eta Euskaltzaindia.

<sup>171</sup> 2007. urterako ISBN zenbakia zuten 2.135 liburu identifikatu zituen J. M. Torrealdaik (2009: 12)



### 5.3.1. Unibertsitateen ekarria

Inguma-n identifikatutako 46 argialetxeetatik ugarienak kultura eta zientzi erakundeak dira (adb. Euskaltzaindia, UEU, Aranzadi Zientzi Elkarte, UZEI, Eusko Ikaskuntza...). Guztira mota honetakoak 19 dira eta argialetxeen produkzioaren % 62,6a ekoitzi dute. Badira ere, beste 15 argialetxe komertzial (adb. Alberdania, Erein, Gatzain...). Nahiz eta, argialetxe komertzialak asko diren, argialetxe mota honek duen goi mailako liburu produkzioa ez da oso handia, eta gure kasuan doi-doi heltzen da %7ra. Argialetxe komertzialak baino garrantzitsuagoak unibertsitateetako argitalpen zerbitzuak dira. Euskarazko argitalpenak kaleratzen dituzten unibertsitateak 3 dira: UPV/EHU, DU eta NUP<sup>172</sup>. Hiruren artean produkzioaren % 23a ekoitzi dute, baina bakoitzaren ekarpena ez da berdina (ikus VI.44. Taula). Beraz, nahiz eta unibertsitateen ekarria argialetxe komertzialekiko handia den, goi mailako euskarazko liburugintza Euskal Herriko elkarte eta erakunde kultural eta zientifikoek eusten dute, eta ez unibertsitateek, nahiz eta beraien ekarpena ere funtsezkoa den.

Argialetxe mota		Liburuak	Itzulpenak	H.A.A	Guztira
Beste argialetxeak		1.202	206	2.047	<b>3.455</b>
Unibertsitateen argialetxeak	UPV/EHU	250	101	462	<b>813</b>
	UD/DU	74	70	77	<b>221</b>
	UPNA/NUP	2	1	0	<b>3</b>
	<b>Guztira</b>	<b>326</b>	<b>172</b>	<b>539</b>	<b>1.037</b>

VI.44. Taula: Argialetxeen euskarazko produkzioa (liburu, itzulpen eta HAAak)<sup>173</sup>.  
Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikustenenez, unibertsitateen artean garrantzitsuena UPV/EHU da, produkzioaren % 82,1a berea baita, ondoren Deustuko Unibertsitateak % 21,3a du, eta azkenik, NUPEk % 0,28a. Hortaz, NUPen ekarpena guztiz sinbolikoa da. Ez da ahaztu

<sup>172</sup> Kasu honetan aintzat hartu dira unibertsitateek beraiek zuzenean ekoitzi dituzten liburuak eta beraien katalogoan agertzen direnak. Hau da, unibertsitateen diru laguntzarekin beste argialetxeek argitaratu dituzten liburuak ez dira UPV/EHU, DU edo NUPEko ekoizpen gisa katalogatu. Eusko Jaurlaritza, aldundi edota bestelako erakunde publikoen diru laguntzari esker kaleratzen dira hein batez euskal liburu gehienak. Horrek ez du esan nahi, horregatik liburuak beraienak direnik edota salmentatik beraiei ezer heltzen zaienik.

<sup>173</sup> *Liburua* izeneko dokumentua jatorriz euskaraz ekoizitako lana da, eta *itzulpena*, dokumentu baten, normalean liburu baten, itzulpenari esaten zaio. Argialetxeen kasu honetan, itzulpen guztiak liburuei dagozkie.

behar UPV/EHU, DU eta NUP baino askozaz ere unibertsitate handiagoa dela, eta horrek eragin zuzena duela produkzioan.

Dokumentu motei erreparatzen badiegu, unibertsitateen ekarpen nagusia itzulpenaren esparruan izan da. Izan ere, unibertsitateek liburuen zein HAAn kasuan % 21a ekoitzi dute, eta itzulpenen kasuan % 45,5a. Kasu honetan kopuru absolututan UPV/EHUK itzulpen gehiago plazaratu baditu ere, Deustuko Unibertsitatea ez da atzean geratu eta jatorriz euskaraz prestatutako liburu eta itzulpen produkzioa parean ditu.

Beraz, unibertsitateen ekarpena bereziki garrantzitsua da itzulpengintzaren esparruan. Izan ere, unibertsitateek itzulpenak sustatzeko politika zehatzak garatu dituzte. Horren adibide da 1999ko *UPV/EHUKo Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II. Plangintza*, 2007ko Plan Gidaria prestatu arte indarrean egon dena, itzulpenak erabat lehenesten zirela. Bestalde, itzulpenak baliabide ugari behar dituzten proiektuak dira<sup>174</sup>, eta bai Deustuko Unibertsitateak bai UPV/EHUK, baliabide horiek erakunde publikoetatik errazago eskuratu ahal izan dituzte. Elkarte eta kultur erakundeek maiz behar besteko baliabiderik ez dute itzulpen proiekturik abiatzeko eta kasu batzuetan interesatuago daude jatorriz euskaraz ekoiztutako liburuen argitalpenenean itzulpenetan baino.

Zernahi gisaz, UPV/EHUren II. Normalizazio Plangintza euskarazko materialgintzaren esparruan ez zen guzti zuzen ibili. Plangintzak honako zioen:

---

<sup>174</sup> Esate baterako, Ludger Mees-ek itzulpenei buruz honakoa zioen UPV/EHUKo Euskara Errektorea zenean: “Liburugintza, batez ere arlo teknikoan, aitzindaria izan da EHU, ezta? / Bai, eta kontuan hartu behar da argitaratzen ditugun liburuak euskararen ikuspuntutik oso zainduak direla, eredugarriak euskarari eta edukiari dagokienez. Testu liburu bat euskaratzen denean, lehenik itzulpena egiten da, itzulpena begirale batek zuzentzen du eta ondoren bigarren begirale batek aztertzen du, jakintza arlo horretako edozeinentzat ulergarria gerta dadin ziurtatzeko. Denbora eta dirua behar dira, baina ez dago beste biderik EHUK aitzindaria izan nahi badu gizartean eta unibertsitate munduan”. L. Mees-ek hitzak *EHU harian: Euskara Errektoreordetza berripaperatik* (2004ko abendua 1. alea) atera ditugu. Esfortzuak esfortzu, J. I. Pérez eta P. Salaburu UPV/EHU euskara errektoreorde eta unibertsitate errektore ohien iritziz oraindik ez da nahikoa egin: “Ikasliburuak dira hizkuntza baliabideak finkatzeko biderik egokienak, eta horrek berebiziko garrantzia du euskara bezalako hizkuntza baten kasuan. Izan ere, UPV/EHU lehenik, eta geroago eta beste neurri batean, Deustuko Unibertsitatea, aspaldi hasi ziren ikasliburuak euskaratzen, batez ere munduan erabilienak diren kalitate handiko ikasliburuak. Baina egin diren ahalegin horiek garrantzitsuak izan diren arren, ez dira, inolaz ere, nahikoak” (Pérez & Salaburu, 2003: 196-197)

“Izan ere, garbi dago neurri batean itzulpen lanak egiten jarraitu behar dugula: azken batean ikasle euskaldunek eta erdaldunek maila eta kopuru bereko liburuak erabili beharko lituzkete, hau da, liburu berberak izan beharko lituzkete eskuragarri. Hala ere, horrek ez du esan nahi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek prestatutako testu liburuak argitaratu behar ez direnik. Hori guztia Euskara Institutuaren Kontseiluaren menpean egongo da, kontseilu horrek, Institutuaren argitalpen estrategiak finkatu eta erabakiak hartu beharko dituelako, lehenago azaldu den moduan.

(...)

II. Plangintza honek egiten duen proposamena bide horretatik doa. **Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek testu liburuak itzultzen badituzte** bi helburu desberdin beteko lirateke.

a) Ia edozein unibertsitateko gaiko testu liburua itzultzeko Euskal Herrian egon daiteken aditu euskaldunik prestatuena eta formazio onena duena, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Beraz, kalitate berme handieneko testu liburuen itzultzaileak dira Unibertsitateko irakasleak.”<sup>175</sup>  
[beltzak gureak dira]

Honen guztiaren inguruan hiru ohar egitea dagokigu. Lehen oharra: ikasleak, euskaldunak zein erdaldunak, unibertsitateko ikasketak egiteko materiala behar dutela agerikoa da. Printzipio horretatik abiatuta, liburuak denek behar dituzte. Baina itzulpenen norabideak ez du zertan erdaratik euskarara izan behar, erdarara itzuli baitaitezke euskarazko irakasgaiak emateko erabiltzen diren testuliburuak. Are gehiago, jada hiru kasu behintzat ezagutzen ditugu<sup>176</sup>.

Bigarren oharra: Plangintzan liburuak jatorriz euskaraz idazteko neurri zehatzik ez zen aipatzen. Onartzen zen ez baztertzea (*Hala ere, horrek ez du esan nahi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek prestatutako testu liburuak argitaratu behar ez direnik*). Nolabait, badirudi ez zela aintzat hartu irakasleek testu liburuak sortzeko izan zezaketen gaitasuna. Baina, Plangintzan aipatzen diren irakasle adituak trebatzeko, itzulpenak eskatu aurretik, liburuak jatorriz euskaraz idaztea ezinbestekoa dute.

Hirugarren oharra: Plangintzak argitalpengintzaren atalean arazoaren diagnosi desegokia egiten zuen, oinarri dokumentalik gabea, eta unibertsitatetik kanpoko euskarazko produkzioaren gutxiespenetik abiatutakoa:

---

<sup>175</sup> (UPV/EHU, 1999: 165-166)

<sup>176</sup> Ezagutzen ditugun hiru liburuak UEUK argitaratu ditu: lehena, I. Zabaleta eta J. M. Zalakainek idatzitako *Informazioaren teoria eta teknika irratia eta telebista digital eta analogikoan* (2004) liburua, gaztelaniara itzuli eta Bosch argitaletxe ospetsuak argitaratu duena. Bigarrena, O. Arbelaitz eta T. Ruizek prestatutako *Zirkuitu elektriko eta elektronikoen oinarritzko analisia* (2001) Pearson Educación argitaletxeak itzuli eta argitaratu zuen 2004an, eta azkena O. Arbelaitzek beste bost egileren batera idatzitako *Sistema digitalen diseinu-hastapenak. Oinarritzko kontzeptuak eta adibideak* (2005), itzulpena UPV/EHUK argitaratu du.

“Dagoeneko, **Euskara Institutuak, 65 liburu argitaratu ditu**, gehienak testu liburuak. Beste 10-15 liburu daude argitaratzeaz eta batzuk inprentan. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuaz gain beste erakunde eta argitaletxe batzuek garrantzizko argitalpen ekoizpena izan dute aspalditik, batez ere Udako Euskal Unibertsitateak. (...) Udako Euskal Unibertsitateak atera duen ekoizpena, oro har, hurbilago dago testu liburuen ezaugarrietatik baina oso heterogeneoa izan dela esan daiteke era berean.

Euskal Herriko Unibertsitateak Euskara Institutuaren bildumaren barruan argitaratutako liburu askoren ezaugarri nagusia zabalpen handiko testu liburuen itzulpenak izatea izan da. Horixe da, hain zuzen ere, Udako Euskal Unibertsitateak egindako argitalpen ekoizpenaren eta Euskal Herriko Unibertsitateak egin duenaren arteko desberdintasun nabariena.(...)


Agerian dago 65 testu liburu oso kopuru txikia dela eta alor honetan oso defizit handia dagoela euskararen normalizazioaren ikuspegitik. Lehen esan den moduan, **UEUko ekoizpena handia izan da; hala ere bere heterogeneotasun handia dela kausa, UEUK eta beste erakunde zein argitaletxeek argitaraturiko liburuek oso era murriztean betetzen dute dagoen defizita.**<sup>177</sup>  
[beltzak gureak dira]

Batetik, badirudi UPV/EHUK euskaraz ekoitzi zuen guztia Euskara Institututik egin zuela. Ez zen kontuan hartu egile batzuk zuzenean UPV/EHUKo argitalpen zerbitzura jo eta bertan euskarazko lanak argitaratzen zituztela. Hola, Inguma-n bildutako datuen arabera, UPV/EHUK 1999. urtera arte euskaraz 136 liburu zein itzulpen kaleratuta zeuzkan (ez 65). Hau da, Euskara Institututik kanpo 71 lan ekoitzi ziren eta, horietaz Plangintzak ez zuen ezer esaten.

Bestetik, Udako Euskal Unibertsitatearen produkzioaren heterogeneotasunari buruz esaten dena oinarri dokumentalik gabea da. Egia bada ere UEUren liburu guztiak ez direla berdinak (batzuk itzulpenak dira, beste batzuk saiakerak, testu liburuak ugari), horrek ere badu zer ikusia UEUren produkzioa 1999. urterako 241 liburu zein itzulpenekoa izatearekin, eta beraz, UEUren corpusak, oparotasunak dakarren aniztasuna agertzearekin. Beheko grafikoan UPV/EHUK eta UEUK zientziaren jakintza-arlo nagusien inguruan argitaratutako liburuak adierazten dira.

---

<sup>177</sup> (UPV/EHU, 1999: 27-28)



**VI.15. Grafikoa:** UPV/EHU eta UEUren argitalpenak (liburuak eta itzulpenak) 1999. urtera arte. Ezkerretik eskumara jakintza-multzoak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturriak: UPV/EHUko datuak *UPV/EHUko Euskararen erabileraren normalizaziorako II. plangintzatik* (UPV/EHU, 1999: 35) eta UEUrenak Inguma datu-basetik.

Ikusten denez, UEUren produkzioa zabala izan arren, Natur Zientziak eta Zientzia Hutsen esparruan kontzentratu da bereziki. Era berean EHU ez da mugatu jakintza-arlo bakarrean ekarpenak egitera.

#### 5.4. Ahozkoaren azterketara hurbilpena

Ahozko ekoizpenaz ari garenean, hitzaldi, ikastaro eta irakasgai<sup>178</sup> buruz ari gara. Irakasgaiak alde batera utziko ditugu, euskarazko hitzaldi eta ikastaroen bilakaera eta ezaugarriak emateko. Izan ere, unibertsitateko euskarazko irakasgai ofizialak eman baino lehen, unibertsitate mailako hitzaldiak eta ikastaroak eman ziren. UEUk 1973tik aurrera antolatutako Udako Ikastaroak horren lekuko dira.

Inguma-n hitzaldi eta ikastaroak antolatzen dituzten 8 erakunde daude: Aranzadi Zientzi Elkarte, Elhuyar Kultur Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Euskaltzaindia, Iker Ikerketa Gunea, Sabino Arana Kultur Elkarte, UPV/EHUK Miramarren antolatutako Uda Ikastaroak eta UEU<sup>179</sup>. Hitzaldi eta ikastaroak erakunde baten izate

<sup>178</sup> Irakasgaiak ikastaroetatik bereizten dira, irakasgaiak irakaskuntza arautua eta ofiziala direla, ikastaroak berriz, edozein elkarte eta erakundek antola ditzake eta unibertsitate curriculum osatzen laguntzen duten arren, ez dira irakaskuntza arautuaren parte.

<sup>179</sup> Inguma datu-basean UEUren kategoria ez da bestelakoa, unibertsitatea baizik. Hala ere UEUren egitura juridikoa kultur elkartearena da, nahiz eta bokazioz unibertsitatea izan.

arrazoia izan daitezke. Esate baterako, UPV/EHUren Miramarreko Uda Ikastaroak erakundearen ekoizpen nagusiak dira. Aldiz EIEn ahozkoak ez du berebiziko pisurik, urtero edo bi urterik behin, biltzar bat antolatzen dute eta horri hurrengo helden da ahozko guztia. Beraz, erakunde bakoitzean ahozkoak garrantzi eta funtzio desberdina dauka.

Hiru erakunderen kasuan, Euskaltzaindia, Uda Ikastaroak eta UEU, azken hamarkadetakoa ahozko dokumentuen erreferentzia guztiak sistematikoki bildu dira Inguma-n. Aipatutako hiruren sorreraren gainean atal historikoan aritu gara, beraz orain horretan ez gara gehiegi luzatuko, eta aztertuko ditugu erakundeetako ahozkoaren ezaugarriak, arreta berezia jarritz jakintza-arloetan.

Miramarreko Uda Ikastaroak 1982an sortu ziren eta UPV/EHUren udako ikastaroak izanik, mota askotako gaietarako hitzaldi eta ikastaroak antolatu izan ditu, hainbat hizkuntzetan, batik bat gaztelaniaz, gutxiago euskaraz eta ingelesez. UEU berriz 1973an sortu zen eta Donibane Lohitzunen antolatu zituen bere lehen udako ikastaroak. Geroztik, UEUK urtero urtero udako ikastaroak antolatu ditu eta bere jardura urte osora zabaldu du. UEUn ahozko jarduna 1973tik osorik euskaraz ematen da eta, arestian aipatu dugunez, gaia ez da muga. Euskaltzaindiaren kasuan berriz, ahozkoak izaera berezia du. Euskaltzaindiaren ahozkoa ez dago irakaskuntza prozesuekin hain lotuta, eta maiz baldintza akademiko bat izan daitezke (adibidez sarrera-hitzaldiak euskaltzain gradua lortzeko). Hau guztia kontuan hartuta, pentsatzekoa da Euskaltzaindiaren ahozkoak erakundearen izaerarengatik, hau da, hizkuntzaren akademia delako, harreman zuzena izango duela Hizkuntzalaritza eta Literatur Kritika arloko gaiekin, eta beste bien kasuan, hau da, Donostiako Uda Ikastaro eta UEUren kasuan, euskarazko ahozkoa orotarikoa izango dela.

Jakintza-arloak		Donostiako Uda ikastaroak		Euskaltzaindia		UEU	
		Dok. kop.	%tan	Dok. kop.	%tan	Dok. kop.	%
Giza Zientziak	Hizkuntzalaritza, Filologia, hizkuntzak, itzulpengintza	251		334		673	
	Literatur Kritika	111		72		281	
	Beste arloak	51		145		943	
	Guztira	413	61,7	551	89,7	1897	24,3
Gizarte Zientziak		217	32,4	56	9,1	2940	37,7
Natur-Zientziak eta Zientzia Hutsak		11	1,6	0	0	1542	19,8
Ingeniaritza eta Teknologia		15	2,2	2	0,3	548	7
Osasun Zientziak		13	2	0	0	323	4,1
Zientzia Aplikatuak		0	0	0	0	223	2,9
Artea eta Musika		0	0	5	0,8	317	4
Guztira		669	100	614	100	7790	100

**VI.45. Taula:** Donostiako Uda Ikastaroak, Euskaltzaindia eta UEUren hitzaldi eta ikastaroak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

Taulan ikusten denez, gure hipotesiaren atal bat baieztatu da. Izan ere, Euskaltzaindiaren produkzioaren % 89,7a Giza Zientzien arlokoa da, zehazki hizkuntzari buruzkoa, eta ez du ahozko ekoizpenik Natur Zientziak, Zientzia Hutsak, Osasun Zientziak edo Zientzia Aplikatuak esparruan. Ingeniaritza eta Teknologiaren inguruko hitzaldiak 2 baino ez dira, eta, beraz, beren garrantzia hutsala da.

Baieztatu dugu halaber UEUren hitzaldi eta ikastaroetan denetarikoa gaiak landu direla, nahiz eta Gizarte Zientziak (Ekonomia, Politika, Soziologia eta abar) nagusi diren. Baina ezeztatu dugu Donostiako udako ikastaroetako euskarazko hitzaldi eta ikastaroen gaien orotarikotasuna. Izan ere, Donostiakoak Giza Zientzien arlokoak dira (% 61,7), eta batik bat Hizkuntzalaritza, eta Literatur Kritika arlokoak; eta ondoren, urrunetik Gizarte Zientzien arlokoak (% 32,4a) eta beste % 5,9a Natur Zientzia, Zientzia Hutsak, Ingeniaritza eta Teknologia eta Osasun Zientzien arlokoak dira. Miramarren beraz, euskararen erabilera oso mugatua egiten da, nahiz eta Donostian edozein gairi buruzko ikastaro eta hitzaldiak antolatzen diren.

Laburbiltzeko, Euskaltzaindia eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak oso izaera desberdina duten erakundeak izan arren, biak hizkuntzaren inguruko gaietan espezializatu dira: bata, hizkuntzaren akademia delako, eta bestean euskarazko hitzaldi

eta ikastaroak nagusiki euskarari buruzkoak direlako. Bestalde, VI.45. Taulako datuen argitan, ikus daiteke UEUko eta Miramarreko udako ikastaroetako hitzaldien arteko aldea ez datzala soilik kopuru absolutuetan, hau da, UEUk euskaraz hitzaldi eta ikastaro gehiago eskaini dituela, baizik eta euskararen erabilera arloetan. Izan ere, Miramarren euskara, hizkuntza beraren gaiak lantzeko erabiltzen den bitartean, UEUn edozein jakintza-arlotan erabiltzen da.



**Ondorioak eta eztabaidarako gaiak**

Gaur egungo euskararen egoera, zientzian, teknologian eta kultura jasoaren esparruetan eta alor horietan ari diren euskaldunen egoera ere, neurri handi batean hizkuntzaren bilakaera historikoak esplikatzen du. Hori dela eta, doktorego-tesi honen atalik zabalena historiari buruzkoa izan da. Bertan kapituluz kapitulu aztertu ditugu XX. mendearen hasieratik gaur egun arte erregistro jasoaren sorrerari eta finkapenari lotuta egon diren prozesuak eta eragileak. Izan ere, zientzia, teknologia eta kulturarako euskara, funtsean azken 40 urteotan prestatu da, hizkuntzaren kodifikazioa eta estandarizazio prozesuarekin batera<sup>1</sup>. Hau da, hizkuntzaren batasuna eraikitzearekin batera zientzia, teknika eta kulturarako euskara finkatuz joan da. Hotz-hotzean pentsatuta besterik ezin baitzitekeen izan.

### ***Hiztuna lehenestetik, hizkuntza xede izatera***

Doktorego-tesiaren lehenengo kapituluan, gerraurrekoan, euskal kulturgintza jasoan euskararen erabilera eta errolaren arabera hiru planteamendu aurkeztu ditugu: lehena, euskara tresnatzat zuena, hau da, euskara, euskaldun (gehienetan) elebkarrengana mezu bat zabaltzeko erabiltzen zuena (adb. Eliza); bigarrena euskara helburu zuena, non hizkuntza bera, beronen prestaketa zein zabalpena, kultur proiektuen xede nagusia zen (adb. Euskal Esnaleak Donostian antolatutako hitzaldiak); eta, azkenik, euskara objektutzat zuena, non ikergaia euskal hizkuntza edo kulturari buruzkoa izanik ere, ikerketaren emaitzak nagusiki erdaraz ematen ziren (adb. RIEV aldizkaria).

Lehen planteamendua nagusi izan zen XVI. mendetik XIX. mendearen amaiera arte. Tarte horretan testu idatzietan euskararen erabilerak asmo praktikoa zuen: euskaldunei mezu jakin bat helaraztea, dela elizkoia, dela nekazaritzakoa, dela osasungintzakoa. Ez zegoen, salbuespenak salbuespen, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko proiekturik. Hizkuntza tresna soil-soila zen gutxi eskolatutako euskaldun (ia) elebkarrengana heltzeko. Gaur egun, euskaldunen komunitatean hiztun elebkarrik ez dagoen neurrian, jada planteamendu honek zentzua galdu du. Hau da, euskaraz Osasun

---

<sup>1</sup> (Zabala & Elordui, 2005: 22)

arloko testu jasoak jada ez dira prestatzen euskaldun elebkarrentzat, baizik goi mailako formazioa jaso duten euskaldun elebidunentzat, are arloko adituentzat.

Aipatutako lehen planteamenduarekin maila teorikoan abertzaletasunak hautsi zuen. Sabino Aranaren ideologiak euskara proiektu nazional baten parte bilakatu zuen. Ordura arte, esparru jakin batzuetara mugatuta zegoen hizkuntzari garatzeko horizonte berriak ireki zizkion, bereziki nazio eraikuntzarako proiektuaren parte gisa. Euskaltzale batzuk, jeltzaleak zirenak zein ez zirenak ere, abertzaletasunak irekitako bidetik, euskara kultur proiektuen muinean kokatu zuten, are kultur-hizkuntza bihurtzeko asmoa besarkatu zuten. Hala, hizkuntzaren lanketa, prestaketa eta zabalpena xede zuten proiektuak abian jarri ziren (adb. hiztegiak, Olabideren *Giza-soña*,...). Batzuetan, proiektu horiek izan zitezkeen oso testimonialak, are euskaldun errealek ezin ulertzeko modukoak, hala nola, A. Anabitartek 1923an argitaratutako “Einstein’en ustariak” artikulua. Honelako saioen atzean asmo ideologiko bat zegoen eta ez beharrian komunikatibo praktiko bat.

Beraz, euskarazko zientzia eta ezagutzaren inguruan kultur produkzio jasorik egotekotan, abertzaleak edo abertzaletasunetik hurbil kokatutako euskaltzaleen eskutik etorri behar zuen. Gerraurrean baina, oraindik goizegi zen halako proiektuak sendo finkatzeko, izan ere, maila jasoan aritzeko euskaldun aditu gutxi egoteaz gainera, entzulego/irakurlegoa euskalduna are apalagoa zen. Ekimenik interesgarrienetakoa Euskal Esnalea elkarteak Donostian antolatutako hitzaldi zikloa (1918-1928) izan zen. Bertan oreka bat mantentzen jakin zuten gai jasoak euskaraz ematearen, eta hiztun errealek ulertzeko moduan aritzearen artean, gehiegizko purismoa saihestuz. Zientzia, kultura eta gizarte arloko hainbat gaiei buruzko euskarazko dibulgazio hitzaldiak antolatzeaz gain, argitaratu ere egin zituen Euskal Esnaleak, Euskal Herriko dibulgazio bildumarik zabalena osatuz. Euskal Esnaleak urtetan antolatutako hitzaldi zikloak hainbat aditu euskaldun, normalean gaztelaniaz lan egiten zutenak, euskaraz sortzera ere ekarri zituen (adb. Barandiaran, Aita Donostia,...). Hitzaldi horiek egon ezean, egile batzuk ez zuten euskaraz maila jasoko lanik prestatutako gerraurrean.

Gerrek, 1936. urtekoak zein Munduko Bigarrenak, Euskal Herriko kulturgintza eten egin zuten. Hala ere, Hegoaldeko etena latzagoa izan zen, gerra amaitzean euskara eta haren inguruko proiektuak eta pertsonak jazarri zituelako erregimen berriak.

Frankismo garaia, hala ere, ez zen guztiz antzua izan, eta euskal kulturgintzako proiektu aipagarriak izan zen. Euskara prestatzeko eta kultur esparru jasora egokitzeko izaera desberdineko zenbait saiakera izan ziren. Tartean pertsona gehiago ibili baziren ere, hiru eragile nagusiren izenetara mugatuz, esan liteke lehen saiakera F. Krutwigena izan zela, bigarrena J. Zaitegirena, eta hirugarren eta azkena, K. Mitxelenarena. Bakoitzak kultur proiektu desberdinak martxan jartzeaz gainera, hizkuntzaren batasunerako eredu desberdinak defendatu zituen. J. Zaitegirena zen gerraurrearekin bat egiten zuen bakarra, beste biak garbizaletasunetik urruntzen ziren. F. Krutwigek euskara erabilera esparru berrietara zabaldu nahi zuen, bereziki goi mailan. Horretarako, gerraurreko eredu garbizalea gaitzetsi zuen eta berria proposatu, lapurtera klasikoaren gainean eraikia. Halaber, arrakastarik izan ez zuen institutua sortzeko saiakera egin zuen. J. Zaitegik goi mailako kultur proiektu bat abiatu zuen 50eko hamarkadan: *Euzko-Gogoa* aldizkaria. Euskarazko aldizkari bat izan zen, euskara kultur hizkuntza bilakatzeko eta unibertsitate mailarako prestatzeko asmoa zuena, Euskal Unibertsitate proiektua sustatuz. K. Mitxelenak, beste bi euskaltzainekin batera, eta ASJU Mintegiaren bitartez, *Egan* aldizkaria euskarazko aldizkari elebakar bihurtu zuen 1953. urtetik aurrera. Kultur aldizkari honetan argitaratzeko baldintza bakarra lanak euskaraz egotea zen. Beraz, hirurentzat, alde edo moldez, euskara arreta gune nagusia izan zen eta kultur esparrua euskararena ere bazela erakutsi zuten.

*Jakin* aldizkarian ibilitakoek *Euzko-Gogoa* eta *Egan* euskarazko aldizkarien esperientzietan ikusi zuten posible zela kultura jaso eta eskolatua euskaraz egitea. Halaber, *Euzko-Gogoa* eta haren eredu imitatzetik ikusi eta ikasi zuten euskara eredu garbizalearen mugak goi mailako kultur esparruan erabiltzeko. *Jakin* aldizkarikoek, kultur gaiak maila jasoan erabiltzeko esperientziatik abiatuta, euskara “mordoiloa” elaboratu zuten eta haren defentsarako argumentuak eman ere. Tartean, *Txillardegik* egon zen. *Txillardegik* eta Euskal Idazkaritzak berrindartu zuten hizkuntzaren batasun prozesua 1964an, eta 1968ko Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarrean finkatu ziren gaur

egungo Euskara Batuaren oinarritzko arau ortografiko-gramatikalak. Beraz, gerraostean, aldi berekoak izan ziren hizkuntzaren batasuna eta euskararen prestaketa goi mailako kulturarako.

### ***Hizkuntzaren batasuna, Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen trinkotzea***

Hizkuntzaren batasun prozesua izan zen Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehenengo trinkotzearen unea. 1956. urtetik aurrera antolatu ziren Euskaltzaleen Biltzarrek hizkuntzaren eta bere batasunaren inguruan Komunitate Zientifiko Euskaldunaren lehen nukleoaren finkatzea ekarri zuten. Izan ere, biltzar haietan aditu euskaldunak elkartzen ziren eta komunikazio-hizkuntza moduan euskara erabili zuten. Gerraurrean berriz, hizkuntzaren batasuna eztabaidatu zen aldietan nagusiki erdara erabili zen.

Lehenengo komunitate honetako kideak beraz, adituak ziren hizkuntzan eta literatur testuetan. Batzuk hizkuntzalariak ziren, beste batzuk berriz, hizkuntzan adituak (adb. K. Mitxelena) ez ezik, literatur sorkuntza lanak prestatzen zituzten (adb. Txillardegi). Noski, horrek eragin nabarmena izan zuen garai honetako euskarazko produkzio jaso euskarari buruzkoa izatean.

### ***Batasuna, espezializazioa eta normalizazioa aldi bereko prozesu gisa***

Unibertsitatean eta, oro har, jakintza arloetako Komunitate Zientifikoetan hizkera espezializatuak erabiltzen dituzte. Hizkera horiek hizkuntza estandarren gainean eraikitzen dira. Orokorrean, prozesu batek besteari darraio. Euskararen kasuan berriz, biak ia-ia aldiberekoak izan dira, baina ez du zertan horrela izan. Galeseraz adibidez XVI. mendean finkatu zen estandar idatzia eta ondoren eraiki zen hizkera espezializatua.

Tradizioak finkatzen du zientzia, teknologia eta kultur gaiak lantzeko era (metodologia, konbentzioak, terminologia, diskurtsuak,...), beraz halako gaiak euskaraz eta erregistro jasoan lantzeko, tradizioa behar da.

“La producción de conocimiento científico solo puede partir de la tradición científica misma y, más particularmente, de los paradigmas establecidos. Einstein no pudo haber construido la teoría de la relatividad sin el lenguaje que la física y la matemática clásicas habían elaborado previamente para modelar la realidad”<sup>2</sup>

Euskarak baina, atal historikoan ikusi dugunez, tradizio oso txikia izan du esparru honetan. Gerraostera batasunik gabe heldu zen, eta gerraurrean goi mailako gaiak lantzeko egindako saiakera gehienak garbizaleegiak izan ziren, hau da, praktikotasunik gabeak eta urrunduak aditu euskaldunek behar zuten hizkera funtzionaletik. Hala ere, tradizio hori gerraostean funtsezkoa izan zen, eredu garbizalearen mugak ikusteko, eta bestelako hizkuntza planteamenduak garatzeko.

Halaber, batasunarekin eta hizkera berezituen prestaketarekin batera, aldi bereko beste prozesu bat izan da azken hamarkadetan: hizkuntzaren gizarte erabileraren normalizazioa. Hau da, batasuna egiten ari zela, euskara zientifikoa prestatzen ari zen, eta aldi berean normalizazio politiko eta linguistikoaren ondorioz euskararen erabilera unibertsitatean (irakaskuntzan, argitalpenetan) zabalduz joan da. Hala, Euskara Batuan alfabetatutako lehen irakasleetako batzuk, aldi berean, izan ziren euskara zientifiko-teknikoa prestatu zutenak eta unibertsitateko irakasgaiak euskaraz eman zituztenak. Adibide moduan UPV/EHUko Zientzia Fakultateko irakasleetako batzuk har daitezke.

### ***Euskara (eta kultura) objektu***

Hizkuntza lehenestearen ondorioz, hau da, hizkuntzaren aitzinamendua oinarritzko helburutzat zuten planteamenduetatik sortu ziren euskarazko lehen kultur proiektu jasoak. Aurretik, eta bitartean, eredu jasoak nagusiki erdaraz ziren, euskal hizkuntza eta kulturari buruzko proiektuak barne. Goi mailako ikerkuntzan ari ziren adituak, euskara eta bere ingurunea, Literatura, Kultura, Etnografia, Historia eta abar aztertu arren, ez zekusatzen inongo loturarik ikergaia eta ikergaiaren gaineko emaitzen

---

<sup>2</sup> (Rubio, 1999)

argitalpenerako erabilitako hizkuntzaren artean. Izan ere, ez dago bien arteko lotura formalik eta ez du zertan egon ere. Euskaraz ekoiztea, erdaraz ekoiztea bezala, aukera bat da. Hainbat arrazoi eta baldintzaren ondorio den aukera, baina aukera bat, ez ikergaiak “berez” ezartzen duen zerbait. Gerraurrean zein frankismo garaian erdaraz ekoizteko aukera nagusi izan zen ikerketen arloan, baita euskal nazionalismotik gertu zeuden goi mailako erakundeetan ere.

Euskara eta euskal kulturaren erabateko objektibazioa landu zuten adibidez Eusko Ikaskuntzak, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek eta bere buletinak, J. M. Barandiaranek, zenbait aldizkarik (adb. RIEV, ASJU)... Euskara ikerketa objektua zen, baina ezagutza formal eta arautua erdaraz egiten zen. Beraz, mota honetako goi mailako kultur proiektuak oro har erdaraz elebakarrak ziren. Egia esan, eta arestian aipatu dugunez, garai batean goi mailan euskaraz aritzeko oinarrizko tresna falta zen: hizkuntza estandarra eta zientzia eta kultur gaiak lantzeko euskara berezitua. Baina planteamendu honek ere, euskal hizkuntza eta kultura objektu gisa hartzen zuen heinean, hau da, gaiarekiko “perspektiba objektiboa” hartzen zuen neurrian, ez zuen ahalbidetzen ez bata ez bestea sortzea.

Gaur egun ere, atal bibliometrikoan ikusi dugunez, Euskal Herriko hainbat kultur elkartek eta aldizkarik, gerraurretik datorren paradigma honi jarraitzen diote, hau da, euskara, hizkuntza eta kultura, erdaraz lantzen dute nagusiki (adb. Eusko Ikaskuntzak). Erdara esatean ez dugu esan nahi gaztelania edo frantsesa, ingelesa ere izan liteke, bereziki azken urteotan. Adibide gisa aipa liteke ASJU aldizkaria, ikergaia eta argitalpen hizkuntzaren arteko erabateko disoziazioa eginez, azken zenbakietan ingelesaren erabilera zabala egiten ari dena. Berez, euskara objektu gisa hartzen duten kultur talde eta aldizkariak ez dute beren hizkuntz aukera erdararen aldeko gisa agertzen, baizik elebitasun edo eleaniztasunaren aldeko moduan, euskarazko ekarpenak ere jasoz. Baina azken hauen kopurua beti da erdarazkoa baino askoz urriagoa. Izatez ez dago eredu elebidun orekaturik (euskara/erdara antzeko proportziotan) eskaintzen duen proiektu aipagarririk.

## **Unibertsitate eta euskal kulturgintzaren hurbiltze berantiarra**

Euskal Herriko unibertsitateak, bai pribatuak bai publikoak, sorreran erdaraz elebakarrak ziren. Hau da, goi mailako ezagutza zentroak eta bertan aritzen ziren adituak euskararengandik guztiz aldentuta zeuden. Ikusi dugunez, 70eko hamarkadan Euskal Herrian unibertsitate ikastetxeetan euskara sartzen hasi zen. Ordura arte erdal zentroak izandakoak, modu batera edo bestera, euskararen sarrera mugatua onartu zuten, batzuk euskararen irakaskuntza eskainiz, eta beste batzuk, euskarazko irakaskuntza eskainiz (adb. Irakasle Eskolak). Euskara unibertsitatean sartu zenerako, hizkuntzaren gaineko oinarritzko lanak eginda zeuden eta oinarriak finkatuta: hizkuntzaren batasuna abian zegoen eta goi mailarako prosa eta lexiko berezitua prestatze bidean zen.

Hizkuntzaren batasuna nagusiki Euskaltzaindiak beste kultur eragile batzuekin batera egin bazuen, zientzia eta teknikarako euskara nagusiki euskal kulturgintzak prestatu zuen, hau da, unibertsitateetik kanpo elaboratu zen, nahiz eta horretan aritutako batzuk unibertsitateko irakasleak izan. Izan ere, une hartan unibertsitateak ez zien aukerarik ematen euskararen prestaketa eta egokitze lanak unibertsitatean bertan egiteko. Plaza askozaz ere egokiagoak suertatu ziren, adibidez, UEU, Elhuyar edota UZEI.

Prozesu horren isla da gaur eguneko goi mailako euskarazko produkzioaren ekoizle nagusiak ez direla unibertsitateak, komunitate zientifiko normalizatuetan ohikoa den moduan, baizik eta euskal kulturgintzako elkarteak. Beraz, alde horretatik esan liteke euskara goi mailako esparruan azpi-instituzionalizatuta dagoela, euskarazko unibertsitate ofizialik ez dagoelako (nahiz eta euskarazko eskaintza akademikoa duten unibertsitateak badiren) eta produkzio gehiena, ofizialak ez diren edo administrazio publikoetatik kanpo kokatutako kulturgintzako erakunde eta elkarten esku dagoelako. Esandakoa datu batzuekin ikusteko, aldizkarietan argitaratutako euskarazko goi mailako lanen % 76a kulturgintzako aldizkarietan argitaratu dira, zehazki, % 60a euskal kulturgintzak kaleratutakoetan. Aldiz unibertsitatei lotutako aldizkarietan euskarazko ekoizpen jasoa % 12,3a kaleratu da. Unibertsitateen ekarpena beraz mugatua da. Izan ere, Euskal Herriko unibertsitateetan euskalduntze ahaleginik handiena irakaskuntzan



egin da, eta ez produkzio idatziaren arloan. Horren ondorioz, esate baterako, UPV/EHUen eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleen ia heren batek euskaraz ez du goi mailako argitalpenik.

Hala ere, aipatu behar da, egitura eta irakaskuntza unibertsitaterioaren kontsolidazioarekin Euskal Herrian, eta bereziki UPV/EHUarekin finkatzearekin, unibertsitatetik kanpo kokatutako goi mailako euskal kulturgintza modu askotara aberastu dela. Unibertsitatean euskara eta euskarazko irakaskuntza zabaldu den neurrian, normalizazio aukera errealak eskaini dizkio goi mailako euskarazko jardunari: aditu euskaldunen eskaria artikulatuz unibertsitatean irakasle edo ikertzaile gisa aritzeko, ikasturtero ehunka unibertsitario euskaldun formatuz, unibertsitatetik kanpo elaboratutako arloz arloko diskurtsoak bertatik zabalduz, goi mailako euskarazko produkzioa normalizatuz, eta abar.

Laburbilduz, goi mailako euskararen garapenerako funtsezkoa izan zen, eta da, euskal kulturgintza, baina Komunitate Zientifiko Euskaldunaren normaltasuna lortze bidean eta euskarazko komunikazio zientifikoaren zirkuitua eratzeko, unibertsitatearen ekarpena, eta bereziki UPV/EHUren ekarpena, ezinbestekoa da, are gehiago euskarazko unibertsitaterik ez dagoenean.

### ***Goi mailako euskarazko produkzioa***

Euskarazko produkzio zientifikoa, hizkuntza gutxitu batean ekoizitakoa izanik ere, dokumentazio zientifikoaren ohiko moldeetara egokitzen da, eta, hain zuzen ere, horregatik da posible euskarazko produkzio zientifikoaren azterketa bibliometrikoa egitea.

XX. mendera arte ezagutza zientifikoaren transmisiorako formatu nagusia liburua zen. Gaur egun, berriz, aldizkari zientifikoak dira, eta horren ondorioz, produkzio zientifikoak zenbait ezaugarri ditu: bat-batekotasuna, zahartzea, sakabanaketa eta hazkunde izugarria<sup>3</sup>. Ezaugarriok elkar elikatzen dute eta areagotu egiten dute

---

<sup>3</sup> (Chain, 1995)

bakoitzaren eragina. Hau da, produkzio zientifikoak hazteko berezko joera badu, zenbat eta arinago hazi, dokumentazio zientifikoaren zahartzea orduan eta arinagoa izango da, baita sakabanaketa ere. Ondorioz, maiz errepikapenak edo bikoizketak gertatzen dira.

Euskarazko produkzioa, hizkuntza gutxitu batean badago ere, ez da salbuesenezko produkzioa. Azken 40 urteotan asko hazi da eta normalizazioaren bidea egiten ari da. Hasteko ekoizpen idatzia, normalizazioaren ezaugarritzat hartzen dena, euskaraz egon badago eta 1968tik Euskara Batuan ekoitzia. Era berean, gaur egun euskarazko dokumentazio zientifikoaren zati handiena aldizkarietan argitaratzen da. Adibidez, 2003-2007 urteen artean batez beste urtero goi mailako 414 artikulua argitaratu ziren. Hortaz, posible da euskarazko dokumentazio zientifikoaren azterketa bibliometrikoa egitea. Horren erakusgarri da euskarazko produkzioak bibliometriako legeak betetzen dituela: hazkundearen legea, sakabanaketarena eta abar. Horri esker badakigu, esate baterako, goi mailako produkzioaren hazkunde legea edo Price-en legea, euskarak betetzen duela. Legea betetzea baino garrantzitsua da, adierazle honek gaur eguneko euskarazko produkzioaren diagnostikoa egitea ahalbidetzen duela. Izan ere, egoera oso kezagarria da, euskarazko produkzio zientifiko oso arin heldu delako bere hazkundearen mugara, eta, gaur egungo baldintzak (unibertsitate, argitaletxe, irakurle, idazle eta abarrenak) aldatu ezean, ematen du hazkundera gero eta txikiagoa izango dela, are negatiboa (ikus VI.1. grafikoa). Beraz, euskarazko produkzioaren azterketa bibliometrikoa posible ez ezik, behar-beharrezkoak dira, euskarazko produkzioaren diagnostiko egokia egiteko eta sustapen politika zein geroko estrategiak diseinatzeko. Hau da, gainditu egin behar dira azterketa kualitatiboak, non aditzera ematen den euskarazko produkzioa oso eskasa dela eta produkzio guztia mugarriak aztertuta argitzen den.

### ***Euskarazko produkzioaren bereizgarri nagusiak***

Euskarazko produkzio zientifikoak, esan bezala, bete egiten ditu dokumentazio zientifikoaren ohiko ezaugarriak. Hala ere, hizkuntza gutxitu batean ekoizitakoa denez, ez ditu ingelesezko edo beste hizkuntza nagusi batean ekoizitako literatura zientifikoaren ezaugarri berdinak. Hiru desberdintasun nagusi detektatu ditugu: lehena, jakintza-arloei dagokio, bigarrena egileei eta hirugarrena, azpiegiturari.

- Euskaraz Giza eta Gizarte Zientzietako gaiak nagusi dira, eta besteetan aldiz, Natur Zientziak, Zientzia Hutsak, Ingeniaritza eta Osasun Zientziak.
- Egile euskaldunen arteko lankidetzak oso txikia da. Hau da, beraien arteko harremanak egon badaude, baina liburu edo artikuluen prestaketa norbanakoaren lana da nagusiki. Fenomeno hori jakintza arloarekin ere lotuta dago. Hau da, Zientzia arloko gaietan egileen arteko lankidetzak handiago da, Giza eta Gizarte Zientzietan baino. Hizkuntza nagusi batean ekoiztako lan batek, SCIan jasotakoak adibidez, batz bestek 3-6 egile izan ditzake, eta aldiz euskarazkoetan ohikoena egile bakarra izatea da.
- Azkenik azpiegitura aipatzea geratzen da, hau da, produkzio zientifikoaren erakunde ekoizleak. Ingeleseztan, frantseseztan zein gaztelaniaztan, erakunde ekoizle nagusiak unibertsitateak, goi mailako ikerkuntza zentroak eta ospitaleak dira. Gure ikerketa lanean agertu dugu goi mailako euskarazko produkzioaren ekoizle nagusiak euskal kulturagintzan diharduten erakundeak direla, eta ondoren, urrunago, unibertsitateak, bai gaur egun bai iraganean ere. Hortaz, euskarazko ezagutzaren azpiegitura eta produkzio zientifikoa ahula da.

Euskarazko goi mailako aipatutako bereizgarrien eragileak nagusiki bi dira: batetik, Zientzia eta Teknologiaren sistema, eta bestetik, ebaluazio sistema edo aitortza falta. Ondoko lerroetan bata eta bestea argituko ditugu.

### ***Goi mailako produkzioaren azpiegitura eta finantziak***

Euskarazko azpiegitura zientifikoa, goi mailako euskarazko produkzioaren azterketan aipatu dugunez, nagusiki euskal kulturagintzak sortu eta eusten du. Euskal kulturagintzako erakunde horiek gehien bat Gipuzkoan eta Bizkaian errotuta daude, eta oso gutxi dira Euskal Herri osoan azpiegiturak zabaldu dituztenak (salbuespenen artean daude Euskaltzaindia, UEU,...).

Goi mailako produkzioa duen euskal kulturgintzak autofinantziazio maila apala du, eta administrazio publikoaren (Jaurlaritza, diputazio,...) diru-laguntzetatik eratorritako balibideekin garatzen ditu bere proiektuak. Eusko Jaurlaritzaren kasuan Hezkuntza eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dira diru-laguntzen emaile nagusiak, diputazioetan berriz, Kultura departamentuetako euskara atalak. Beraz, euskararen inguruko hizkuntza politika eta plangintzek eusten dute euskarazko goi mailako produkzioa. Hau da, euskarazko ekoizpen zientifikoak, ikuspegi administratibo batetik, ez du loturarik politika zientifikoekin, hizkuntza politikekin baizik.

EAEn kasuan, politika zientifikoak eta teknologikoak oraintsu arte bereiztuta egon dira eta esparru bien arteko koordinaziorik ez da izan. Olazaranez aztertu duenez:

“Una característica central de las políticas científica y tecnológica de la CAPV es la separación y falta de coordinación entre ambos ámbitos, que hace que existan dos subsistemas con insuficiente comunicación entre sí: el subsistema científico, responsabilidad del Departamento de Educación, y el subsistema tecnológico, estructurado principalmente en torno a los centros tecnológicos privados, y responsabilidad del Departamento de Industria”<sup>4</sup>

Horretaz gain, politika teknologikoa, zientifikoa baino garrantzitsuagoa izan da. Eusko Jaurlaritzak bertara baliabide gehiago bideratu izan ditu (bost bat aldiz baliabide gehiago politika zientifikoetarako baino) eta Euskal Herriko sektore industrialaren babesa eta sustapena izan du<sup>5</sup>. Izan ere, EAEn sektore horren pisua eta garrantzia handiagoa izan da, arrazoi historikoak tarteko, unibertsitate arloko zientzia eta ikerkuntzak baino. Atal historikoan ikusi dugunez, unibertsitateen sorrera oso berantiarra izan zen, eta sortuta ere, unibertsitateak erakunde gisa espainiar/frantziar estatuarenak ziren. Industriaren erroak berriz, zaharragoak eta sakonagoak dira.

Azken urteotan, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako planak gero eta gehiago saiatzen ari dira esparru biak uztartzen. Orain, esate baterako, UPV/EHU Hezkuntza Sailak eta Industriak elkarrekin finantzatzen dute. Hala ere Industria Sailaren nagusigoak erabatekoa jarraitzen du izaten EAeko Zientzia eta Teknologiaren sisteman.

<sup>4</sup> (Olazaran eta beste, 2004: 151)

<sup>5</sup> (Olazaran eta beste, 2007: 52)

Hizkuntza bateko eta besteko ekoizpen zientifikoak atzean dituen sostengu finantzarioei begiratuz, oro har, esan liteke EAEn Industria eta Hezkuntza Sailak eutsitako azpiegiturak (parke teknologiko, unibertsitate...) nagusiki erdaldunak direla, eta euskarazkoa, berriz, gobernu, diputazio zein udaletxe batzuetako Kultura Sailen baitako Euskara atalek sostengatzen dutela. Kontuan izan behar da kasu honetan, administrazio publikoak euskarari dedikatutako baliabideak konparazioz politika teknologiko eta zientifikoetara bideratutakoak baino askozaz gutxiago direla, eta gainera hortik euskarazko jarduerak guztiak finantzatzen direla, hau da, ez bakarrik goi mailako elkarleen jarduerak (liburuak, itzulpenak, jardunaldiak eta abar) baita euskararen normalizazioarekin lotutako bestelako egitasmoak ere (kontzertuak, euskara ikasteko klaseak, eta abar).

Beraz, euskal kulturgintzak ekoizten du euskarazko produkzio jasoaren gehiena, eta beronen finantziazioa nagusiki euskararen normalizazio politiketatik dator. Horregatik, adibidez, euskal kulturgintzak kaleratutako goi mailako euskarazko aldizkariak (*Uztaro* adibidez), Kultura Sailaren komunikabideen diru-laguntzen deialdira aurkeztu ohi dira, komunikabideak ez diren arren. Hau da, ez dira *mass media*, alderantziz baizik, komunikazio zientifikorako tresna, hots, jakintza arloetan antolatutako pertsona talde mugatu eta jakin baten komunikaziorako. Komunikazio zientifikoak ezaugarri bereizgarriak ditu, eta arau propioak, ezagutza zientifikoa modu arautuan sortu eta zabaltzen delako, eta beraz, ez da masa komunikabide bat.

Laburbilduz, hizkuntzaren normalizazio politikek finantzatzen dute euskarazko goi mailako (erakunde eta egileen) zirkuitua eta beraien produkzioa, baina bertara bideratutako baliabideak mugatuak eta partituak dira hizkuntzaren normalizazioan ari diren bestelako eragile eta proiektuekin. Horretaz gain, euskarazko produkzioa urteko diru-laguntzen menpe dago, uneko borondate politikoak diseinatutako euskararen normalizaziorako deialdien menpe, non normalizazioa moduko kontzeptu zabal eta labainkorrak euskarazko produkzio zientifikoari tartea egin diezaiokeen edo ez. Une batez administrazioak erabaki dezake normalizazio prozesuaren baitan euskarazko goi mailako produkzioa ez dela lehentasuna eta laguntzak moztu. Beraz, goi mailako

produkziara dedikatzen den kulturgintzak urtero airean ditu baliabideak, proiektuen jarraipena eta abar, unibertsitateko ikerkuntza proiektuen deialdiak berriz, zenbait urteko jarraipena aurreikusten dute. Unibertsitateek gaur egungo euskarazko ekoizpen ildo mantentzen duten bitartean, euskarazko produkzioa unibertsitarioa ziurtatzeko komeniko litzateke finantzazio sistema aldatzea. Izan ere, egitura ahul honek baldintzatzen du euskararen hazkundera eta garapena goi mailan, eta mugatu egiten du bere esparrua, bai jakintza arloei dagokionez, bai jorratutako generoei dagokionez, eta abar.

### ***Giza eta Gizarte Zientzien nagusigoa***

Ez da kasualitatea euskaraz gehien lantzen diren gaiak Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak izatea, goi mailako euskarazko produkzioaren baldintzapen ugarien ondorio baizik. Gure ustez, badira hiru baldintzapen nagusi: lehena, finantzazio eredia, bigarrena, azpiegitura eta hirugarrena tradizioa. Baldintzapen bakoitza modu batera edo bestera arestian komentatu badugu ere, berriro zehazteak merezi du.

Giza eta Gizarte Zientzien arloko gaiak lantzeko baliabide gutxi behar dira eta hizkuntza politikatik eratorritako diru-laguntzekin finantza daitezke. Beste jakintza arlo batzuk berriz, Fisika, Kimika eta abar, esperimentalagoak diren neurrian, eta berriazko azpiegiturak (adb. laborategiak) eta tresnak (adb. partikula-azeleragailuak) behar dituzten heinean, ezin finantza daitezke hizkuntza politikatik eratorritako baliabideekin. Beraz goi mailako euskarazko produkzioak gaur egun duen azpiegitura mugatuarekin, nolabaiteko jarduera duina Giza eta Gizarte Zientziek soilik planteatu dezake. Zientzia eta Teknologiaren esparruan gaur egun euskaraz egiten dena (testuliburuak, ikastaro laburrak, dibulgazio aldizkariak eta abar) baliabide mugatuekin aurrera atera daitekeena da.

Goi mailako euskarazko produkzioaren erakunde ekoizleak, jada esanenez, euskal kulturgintza osatzen duten elkarteak dira. Kultur elkarten izaera eta ezaugarriak oso konkretuak dira: gizarte mugimenduak diren neurrian, oinarri eta kezka soziala dute, eta jarduera esparrua kulturala da, hau da, hitzaldi eta ikastaroak antolatzea, argitalpenak kaleratzea, web guneak garatzea eta abar. Euskarazko produkzioaren

erakunde ekoizleak euskal kulturgintzakoak izanik, Giza eta Gizarte Zientzietako gaiak nagusi izatea azpiegitura horri loturik dago.

Halaber, ezin da gutxietsi tradizioa. Euskaraz tradizio gehien duten gaiak Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak dira. Gerraurrean bertan aurki daitezke mota honetako lanak, eta gerraosteko lehen hamarkadetan aintzakotza handiagoa izan zuten euskal idazleen artean Teologiak edo Filosofiak, Matematikak edo Fisikak baino, gogoan izan *Orixek* bataz eta besteaz pentsatzen zuena.

Bukatzeko, badirudi euskarazko produkzioaren garapena “euskal” kontzeptuari lotuta azaltzeko duen “erraztasunarekin” erlazionatuta dagoela, eta, oro har, Giza eta Gizarte Zientziak hobeto moldatzen direla etiketa horretara. Hots, “euskal historia” edota “euskal literatura” kategoría arrunt eta finkatuak egiten zaizkigu eta, hain zuzen ere, diziplina horien inguruan euskarazko produkzioa nahiko ugaria da. Aldiz, Ingeniaritza edo Medikuntzari “euskal” adjektiboa eranstea, ez zaigu burura ezer ezagunik etortzen, eta euskarazko produkzioa nahiko urria da arlo horietan. Hortaz, jakintza-arlo jakin bat “euskal gai” gisa egituratzeak, auzi horren inguruko euskarazko produkzioa errazten du, eta zentzu horretan Giza eta Gizarte Zientzien arloak moldagarrienak dira. Beraz, arazoa “euskal gai” edo “euskal esparrura begira” garatzen ez diren arloetan dago, hor euskaraz gutxi produzitzen baita.

### ***Aitortza, errekonozimendua, ebaluazioa eta arrakasta***

Goi mailako euskarazko produkzioaren ekoizle nagusiak euskal kulturgintzako erakunde eta elkarteak izan dira, eta urrunago unibertsitateak eta bestelako erakunde publikoak. Neurri handi batean euskal kulturgintzan sortu eta finkatu ziren gaur egun unibertsitateko irakaskuntzan erabiltzen diren materialak eta hizkera. Hala ere, euskal kulturgintzak jarduera honengatik ez du inongo aitortzarik, ez unibertsitatearen aldetik ez administrazio publikoen aldetik ere. Horren ondorioz, besteak beste, euskal kulturgintzaren parte diren elkarteetako batzuk ez dira ospeko erakundeak.

Kulturgintzako erakundeen arazo bertsua dute euskarazko produkzioa duten egileek: errekonozimendu falta. Gaur egun errekonozimendua oso lotuta dago ebaluazioarekin, eta ebaluazioa errekonpentsarekin. Hau da, karrera akademiko bat egin nahi duenak aitortza edota errekonozimendu sistema bat behar du, dena delako epe eta kategoria mugatuekin, karreraren ibilbidea betetzeko. Ebaluazioa, errekonozimendurako onarritako tresna da, froga fasea baita, eta beraz, karrera akademikoa egiteko funtsezko elementua.

Ebaluazioa egiteko beharrezkoak dira adierazleak eta irizpideak. Egile euskaldunek euskaraz egindako produkzioaren ebaluaziorako bi arazo nagusi dituzte: bata hizkuntza, eta bestea jakintza arloa. Ingelesean egiten den produkzio zientifikoa, eta bereziki Zientzia eta Teknologiaren ebaluazioan aplikatu beharreko adierazle eta irizpideak, kritika asko jaso arren, finkaturik daude. Baina hizkuntza gutxituetako goi mailako produkzioaren ebaluaziorako ez dago nazioarteko eredurik, ez irizpiderik, ez tresnarik. Bestalde ebaluazio sistemek maite dituzten jakintza arloak ez dira Giza eta Gizarte Zientziak, baizik eta Natur Zientziak, Zientzia Hutsak eta Osasun Zientziak. Jakintza arlo horietan ebaluazioa egiteko tresnak eta irizpideak oso garatuta daude eta beraien ezaugarrietara egokituta. Giza eta Gizarte Zientziak ebaluatzeko, berriz, gero eta tresna gehiago dauden arren, oraindik ebaluazio traketsak baino ez dira egiten. Kontuan hartzen badugu euskarazko goi mailako produkzioa nagusiki Giza eta Gizarte Zientzien arlokoa dela, abiapuntu bertatik goi mailako euskarazko produkzioak errekonozimendurako arazo larriak planteatzen ditu.

Hala ere, gaur egun egile euskaldunek ebaluazio fase bat iragan behar dute: Iparraldekoek Frantziako estatuak finkatutakoaren araberrakoa, eta Hegoaldekoek Espainiako agentzia (ANECA) edo EAEkoa agentziaren (UNIQUAL) araberrakoa. Ezein kasutan, gaur egun ez dago bermatuta euskaraz egindako ibilbide edo produkzioaren errekonozimendua. Horregatik, euskaraz egiten dena, ez da karrera akademiko arrakastatsua egiteko giltzarri. Are gehiago, karrera arrakastatsua atzeratu eta, askotan, oztopatu dezake, behar adinako errekonozimendurik izango ez duen artikulu bat prestatzean benetako errekonozimendua izan dezaketan bestelako lanak



egiteko eta proiektuetan parte hartzeko denbora *galtzen* delako. Une batzuetan gainera, euskarazko produkzioa *orbana* ere izan daiteke karrera egiteko edota zirkulu batzuetan sartzeko. Honek guztiak gure ustez, erabateko eragina du egile euskaldunen arteko lankidetzan. Euskaraz jardutea goi mailan, erabaki pertsonala bihurtuta dago. Izan ere, errekozimendu gutxiko hitzaldiak ematea edota lanak idazteak eragindako *atzerapena* onartzea norberaren aukeren eta baloreen arabera da, finean erabaki pertsonal bat. Errekonozimendu faltari, gehitzen badiogu euskaraz egindako produkzioa eragin gutxikoa dela, euskaraz ekoiztea gero eta ekintza militanteagoa bihurtzen da, hots, egile bakoitzaren etikaren eta borondatearen arabera. Noski, egile euskaldunen arteko lankidetzaren txikian eragiten duen faktore bakarra ez da ebaluazio sistema eta hartarako irizpide falta, bestelako aldagai batzuk ere badira. Esate baterako, Giza eta Gizarte Zientzien arloan, egileen arteko lankidetzaren txikia dela, hizkuntza normalizatueta barne. Baina kasu honetan ebaluazioaren faktorea aipatu nahi izan dugu, ebaluazioak kaltetzeko ahalmena duen moduan, behar adinako neurriak hartuz gero, sustatu dezakeelako.

Hortaz, ebaluazioaren bitartez euskarazko produkzioa eta egileak kaltetu nahi ez badira, hizkuntza gutxitu baten bilakaera sozial zein linguistikoari egokitutako eta sistematizatuako irizpideak adostea eta finkatzea beharrezkoa da. Beste modu batera esanda, egile euskaldunen euskarazko, gaztelaniazko/frantsesezko eta ingelesezko goi-mailako produkzioaren ebaluazioa oinarritzko printzipio baten arabera egin beharko litzateke: hizkuntzaren arabera. Hau da, hizkuntza bakoitzaren azpiegitura eta bilakaera sozial eta linguistikoa aintzat hartuz finkatutako irizpideen arabera. Izan ere, goi-mailako erdarazko edo euskarazko produkzioaren azpiegitura eta finantzazioa desberdina da, batean eta bestean erakunde mota desberdinak daude, batean ikerketa zentroak daude, eta bestean kultur elkarteak. Hau da, batean aditu bat ikerketa zentro bateko zuzendaria izatera hel daiteke eta bestean gehienez kultur elkarte bateko zuzendaria. Horregatik hain zuzen, egileen ebaluaziorako hizkuntzaren arabera irizpideak desberdinak izan behar dute.

## ***Aditu euskaldunen hizkuntza komunitatea***

Komunitate Zientifikoak orokorrean jakintza-arloka antolatzen dira eta ez estatuen arabera, nahiz eta zientzia eta teknologia sistema nazionalak bereziko eragina duten azpi komunitateen garapenean, ezta hizkuntzaren arabera ere. Baina adituengan hizkuntzaren aldagaia estatuarena baino garrantzitsuagoa da, kasu batzuetan besteetan baino gehiago. Hizkuntza handi eta normalizatuetakoa adituentzat, adibidez, ingelesentzat, afera linguistikoa ia ia ikusezina da eta hautua ia automatikoa: ingelesa. Baina adituaren abiapuntuko hizkuntza zenbat eta apalagoa izan, hizkuntza hautua orduan eta kontzienteago hartzen den erabakia izan ohi da. Aipatu dugunez, ingeles hiztunei jarduera zientifiko teknikoetarako arlo horretan nagusi den hizkuntza hautatzeak ez die berebiziko hausnarketarik eragiten. Frantses hiztun adituak berriz, zer egin erabaki behar du: ingelesez ekoitzi bere produkzio guztia, zati bat edo ezer ez? Hizkuntza txiki edo gutxitu bateko adituei berriz, ia ezinezkoa zaie *normalak* izatea, eta beraz zeintzuk hizkuntza aukeratu eta zertarako halabeharrez erabaki behar dute (adb. danimarkar edo katalanen kasuan). Adibide hauekin erakutsi nahi dugu, komunitate zientifikoko kideak, hiztunak diren neurrian, hizkuntzaren auzia, bereziki ingelesak ez direnen kasuan, moduren batean ebatzi behar dutela.

Sakoneko auzia, ordea, ez dugu orain arte pausatu: zergatik landu zientzia euskaraz (edo beste hizkuntza gutxitu batean)? Erantzuna ez da berezkoa eta aukera desberdinak eman daitezke. Nolanahi ere, ez da soilik euskarari dagokion galdera bat. Ingelesa ez beste hizkuntza guztiei buruz egin liteke galdera bera: ba al du zentzurik, adibidez, unibertsitatean tesiak gaztelaniaz aurkezteak? Edo Antropologia artikuluak frantsesez idazteak? Praktikan ikus dezakegu gaztelaniaz, frantsesez eta munduko beste hainbat hizkuntzetan zientzia egin egiten dela. Hiztun komunitate bakoitzak bere tresna eta bitartekoak sortzen dituela bere hizkuntzan zientzia egin ahal izateko.

Bestalde, gaur egun bada kontuan hartzeko beste fenomeno garrantzitsu bat: ingelesaren erabilerak zientzia eta jakintzaren esparruan ez duela eraginik adituaren identitate nazionalean. Ingelesak gero eta gutxiago ordezkutzen du identitate nazional jakin bat, estatu eta nazionalitate oso desberdinetako adituek erabiltzen dutelako jardun

zientifikoan. Are gehiago, estatu askok nazioa aitzinerazteko beraien zientzialarien ingelesezko produkzioa sustatzen dute, nahiz eta horrek nazio hizkuntzaren erabilera hein batez mugatzea eragin. Hizkuntza handi eta normalizatuen kasuan, zientzia eta jakintzaren erabilera esparrua murrizteak hizkuntzaren biziraupenean ez du eragin aipagarriarik, baina hizkuntza gutxituen kasuan, hil ala biziko eragina izan dezake. Hizkuntza horiek zientzia eta jakintzaren prozesuetatik aldenduz gero (esate baterako, eragin handikoak ez direlako, edo ebaluazioan aintzat hartzen ez direlako), ez dira esparru horretara moldatuko eta egokituko (gaur eguneko prozesurik garrantzitsuenak bertan ematen direla kontuan izan behar da) eta hiztunentzat erabilgarritasuna zein baliagarritasuna galduko dute, eta beraz haien iraupena oztopatuko da.

Bestalde, kontuan izan behar da zientziaren demokratizaziorako ezinbestekoa dela dibulgazioa, normalean tokian tokiko hizkuntzan egiten dena. Hizkuntza batean dibulgazioa egin ahal izateko funtsezkoa da hizkuntza corpusa prest egotea, hau da, idatzia izatea, batuta egotea eta goi mailako erabilerarako gertatuta egotea. Baina goi mailan erabili ezean, hizkuntzak ez du halako erregistrorik berez garatzen. Hortaz, gaur egun nahiz eta ingelesa funtsezkoa den zientzia eta jakintzaren esparru askotan, egileek ingelesez ekoizteaz gainera, beraien jatorrizko hizkuntzetan goi mailako produkzioa izan beharko lukete, hizkuntza prestatzeko edozein jakintza arlori buruz aritzeko. Beraz, zientziaren demokratizaziorako baldintzen artean hizkuntzarena ere badago.

Hizkuntza gutxituen kasura mugatuz, mota honetako hizkuntzak (galesera, euskara, katalana eta abar) zientzia, teknologia eta jakintzaren esparruetatik ez aldentzeko, erabilgarritasunik ez galtzeko eta jarduera zientifikoaren demokratizaziorako, funtsezkoa da hizkuntza horietako komunitate zientifikoak trinkotzea eta sustatzea, beraiek direlako hiztunak eta adituak, eta beraiek hizkuntza prestatu eta molda dezaketelako hizkuntzaren goi mailako erabilerarako.

Euskal Herrira etorrira, zientzia eta jakintza ekoizten duten egile euskaldunen goi mailako produkzioa normala da, euskaraz egindakoa barne, nahiz eta hizkuntza horren egoera anormala den goi mailako esparruan, baita beste askotan ere. Hau da, euskararen egoerak baldintzatzen du aditu euskaldunen euskarazko jarduna (hizkuntza

eredua erabat finkatu gabe egoteak, ebaluaziorako irizpide egokien gabeziak, unibertsitate eta antzeko erakunde faltak...). Euskararen goi mailako normalizazio ezak oztopatzen du Komunitate Zientifiko Euskaldunaren garapena eta finkapena.

Horregatik guztiagatik, euskarazko produkzio zientifiko-teknikoak politika zientifiko propioa behar du, euskarazko jarduera goi mailan normalizatzeko, aditu euskaldunen egoera soziolinguistikoa hobetzeko, eta hizkuntzaren erregistroa finkatzeko. Ildo horretan beharrezkoa da euskal hizkuntza eta nortasunari edo euskal esparruari hain lotuta ez dauden arloetara hedatzea euskarazko ekoizpena, gaur egun euskararen erabilera oso lotuta dagoelako *euskal gaiekin*. Pelloren egia dirudi, baina planteamendu honek garrantzi handia du hizkuntzaren normalizaziorako, mendebaldeko gizarteetan ezagupena gero eta lotuago dagoelako Zientzia eta Teknikarekin, eta, beraz, horiek ere euskaraz garatu ezean, euskarak euskal gizartearen modernizazio prozesutik kanpo geratzeko arriskua du. Hortaz, edozein ezagupen euskaraz egotea nahi baldin bada, euskaraz euskal gaiak landu ez ezik, bestelakoak ere landu beharko dira. Plangintza batek horretarako bitartekoak eta baliabideak jarri beharko lituzke. Zoritxarrez, une honetan ez dago plangintza edo politika zehatzik, edo, hobeto esanda halako *laisser faire, laissez passer* bat da nagusi. K. Mitxelenak esan zuen moduan hori ere hizkuntza politika bat da, jarrera liberala dirudien arren, eta hizkuntza eredu nagusia indartzen du.

“La tolerancia, el *laisser faire, laissez passer* en materia de lengua, ha sido siempre, y es todavía hoy probablemente, la política más practicada. (...) esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra –más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar– de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras: es, por lo tanto, una política, no una falta de política.”<sup>6</sup>

Esandakoarekin argi geratzen da euskarazko ekoizpena egile indibidualen borondate hutsaren esku uztea, nahita edo nahi gabe, euskarazko ekoizpena eta bere egileak bazterketara kondenatzen dituen hizkuntza politika dela.

---

<sup>6</sup> (Mitxelena, 1985: 187)

## **Oraina: zinezko aukera**

Nazioarteko harremanetarako, politika zein merkataritza harremanetan, ingelesaren erabilera gailendu egin da, baita zientziaren esparruan ere, bereziki Natur Zientzia, Zientzia Hutsak eta Osasun Zientzietan. Egoera hori izanik ere, euskararentzat zinezko aukera bat dago beronen erabilera normaltzeko zientzia, teknologia eta kultura arloan. Pentsa zitekeen ingelesa *lingua franca* izatea euskararentzat erabat kaltegarria izan zitekeela. Baina ikuspegi historiko batetik euskara inoiz baino osasuntsuago ageri da erregistro jasoan:

- Euskararen oinarrizko arau ortografiko-gramatikalekin batera, erregistro jasorako euskara eredu abian jarri zen, eta gaur egun, zientzia, teknika eta kultur gai jasoetarako hizkera berezitua badu, nahiz eta oraindik guztiz finkatu gabe dagoen eta hizkuntzalari eta bestelako jakintza arloetako adituen artean eztabaidak dauden.
- Goi mailako euskarazko oinarrizko azpiegitura bat eratu da, aldizkari, argitaletxe, erakunde eta egileena.
- Unibertsitateak, oro har, ez dira erdaraz elebakarrak, eta gehiago edo gutxiago euskara txertatu dute. EAEko unibertsitate publikoa izan da horretan aurrerapausurik handiena eman duena. Euskal Herriko unibertsitate batzuk hizkuntza plangintzak dituzte, erakundean euskararen normalizazioa bideratzeko. Hala ere, euskararen sarrera unibertsitatean, nagusiki dozentea izan da, hau da, irakaskuntzari lotua, oso gutxi euskarazko produkzio idatzi edo ikerkuntzaren esparrukoa. Horren ondorioz, sarri askotan euskararen erabilera unibertsitatean nahiko agrafoa da.
- Euskarazko goi mailako produkzioak gainditu egin ditu aurreko garaietako erabilera bi: batetik, euskaldun elebakarregana zuzentzeko erabiltzea, eta bestetik, euskararen erabilera sinbolikoak (adb. A. Anabitarteren A. Einstein-en itzulpena). Gaur egun, euskarak erabilera gero eta normalagoa du:

Klasikoak Bildumako Einsteinen lanaren euskaratzea ez da euskaldun elebakar ez ikasientzat, ezta saio sinboliko bat ere. Unibertsitari euskaldunei Einstein euskararen bidetik hurbiltzen saiatzen da.

Horretaz gain, ingelesa *lingua franca* izatea, euskaldunentzat zinezko aukera izan daiteke, euskara erabiltzerik ez dagoen kasuetan zuzenean ingelesera pasatzeko, eta gaztelania edo frantsesa euskaldunen komunikazio-hizkuntza gisa ez erabiltzeko. Hala, ingelesarekin nazioarteko zientzia eta ezagutzaren zirkuituetan parte hartzea posible da, baita lehiakortasunean irabaztea ere. Izan ere, orain arte euskaldunak, talde gisa, unibertsitatean posturik kaskarrenak dituzte eta euskarazko produkzioa soilik izanez gero, hau da ebaluazioetan gaur egun eskas baloratzen den produkzioa edukiz gero, karrera akademikotik kanpo geratzeko arriskua daukate, hau da, talde marginal eta periferikoa izateko arriskua. Euskarazko ekoizpena ingelesezkoarekin osatuz, aldiz, posible litzateke oreka bat lortzea.

Klasikoak Bildumako Einsteinen lanaren euskaratzea ez da euskaldun elebakar ez ikasientzat, ezta saio sinboliko bat ere. Unibertsitari euskaldunei Einstein euskararen bidetik hurbiltzen saiatzen da.

Horretaz gain, ingelesa *lingua franca* izatea, euskaldunentzat zinezko aukera izan daiteke, euskara erabiltzerik ez dagoen kasuetan zuzenean ingelesera pasatzeko, eta gaztelania edo frantsesa euskaldunen komunikazio-hizkuntza gisa ez erabiltzeko. Hala, ingelesarekin nazioarteko zientzia eta ezagutzaren zirkuituetan parte hartzea posible da, baita lehiakortasunean irabaztea ere. Izan ere, orain arte euskaldunak, talde gisa, unibertsitatean posturik kaskarrenak dituzte eta euskarazko produkzioa soilik izanez gero, hau da ebaluazioetan gaur egun eskas baloratzen den produkzioa edukiz gero, karrera akademikotik kanpo geratzeko arriskua daukate, hau da, talde marginal eta periferikoa izateko arriskua. Euskarazko ekoizpena ingelesezkoarekin osatuz, aldiz, posible litzateke oreka bat lortzea.

## **Bibliografia**



- Abasolo, E. eta beste (1980): *Arnas aparatua*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/391\\_ARNASAPARATUA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/391_ARNASAPARATUA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]
- Aboitiz, M. B. eta beste (1979): *Airearen poluzioaren aspektu kimiko fisikoak*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/415\\_AIREARENPOLUZIOAREN.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/415_AIREARENPOLUZIOAREN.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17]
- AEK (1982): *Argitara beharrekoa*, Donostia: Elkar.
- Agirre, J. (1996): *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean*, Donostia: Elkar.
- Agirre, J. J. eta beste (1992): “La Biblioteca Vasca” *Sancho el Sabio*, 2, 333-343. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=1019728&orden=72544](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=1019728&orden=72544) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Agirre, L. (2002): *Joxemi Zumalabe, Ipurtargiaren itzal luzea*, Andoain: Euskaldunon Egunkaria.
- Agirreazaldegia, T. (2002): *Informaziorako dokumentazioaren oinarriak*, Bilbo: UEU.
- Agirreazkuenaga, J. (1998a): “Eusko Ikaskuntza 80 urte: Eusko komunitate zientifikoaren islada” *Euskonews&Media*, 1. <http://www.euskonews.com/0001zkb/gaia0105.html> [kontsulta data: 2008-10-01]
- Agirreazkuenaga, J. (zuz). (1998b): *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/colecciones/corporativas/publicacion.php?o=1098> [kontsulta data: 2009-06-20]
- Agirreazkuenaga, J. (2001): “Euskararen aldeko ideologia nagusiak, hiztunak eta eragileak: herri hizkeratik goren graduzkorantz. 1801-2001” *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 145-161.
- Agirreazkuenaga, J. (2003): “Euskara, egitasmo politikoa bihurtu: Sabino Aranaren asmoak denboraren gorpulean euskaltzaleatasunaren ildoan” *Euskera*, 48, 829-847. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/56090.pdf> [kontsulta data: 2009-06-20]
- Agirrebaltzategi, P. (1985): “Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren hiztegi gintza” *Senez*, 4, 31-51. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19851201/paulo> [kontsulta data: 2008-11-26]
- Agirrebaltzategi, P. (2006): “Jakin Kultur Taldea: aldizkaria, liburuak, hiztegiak... Euskal Unibertsitatea” *Jakin*, 156, 15-39.
- Agirrebaltzategi, P. (2007a): “*Jakin* aldizkaria. Debeku eta oztopo administratiboen historia: 1961-1977” *Jakin*, 162, 71-93.
- Agirrebaltzategi, P. (2007b): *Eujenio Agirretxe (1920-2005)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/48%20AGIRRETXE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/48%20AGIRRETXE.pdf) [kontsulta data: 2008-02-27]
- Agirretxe, E. (1963-1964): “Euskal-itzen maiztasuna” *Euskera*, 8-9, 392-400. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51273.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]

- Aguirre Romero, J. M. (1998): "Las revistas digitales y la vida académica", *Cuadernos de documentación multimedia*, 6/7, 159-169. <http://www.ucm.es/info/multidoc/multidoc/revista/cuad6-7/aguirre.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Aierdi, X. (1995). "Euskal gaiak UPV-EHU-ko Giza eta Gizarte Zientzietako ikasketetan" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 575-588.
- Aizpuru, M. & Menika, M. K. (1998). "Udako Euskal Unibertsitatearen historia eta oraina" *Ele*, 18, 137-157.
- Aizpuru, M. (2000a): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*, Bilbo: UPV/EHU.
- Aizpuru, M. (2000b): "Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean (1974-2000)" in Euskara Errektoreordetzaren web gunean. [http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/ee\\_euskara\\_ehun\\_aurkezpena/eu\\_historia/historia\\_euskara.html](http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/ee_euskara_ehun_aurkezpena/eu_historia/historia_euskara.html) [kontsulta data: 2009-07-08]
- Aizpuru, M. & Jimeno, R. (2002): "Euskal Unibertsitatearen historia" *Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 21-55. [http://www.buruxkak.org/liburuak/146/euskal\\_unibertsitatea\\_2021\\_egiten\\_ari\\_garen\\_euskarazko\\_unibertsitatea.html](http://www.buruxkak.org/liburuak/146/euskal_unibertsitatea_2021_egiten_ari_garen_euskarazko_unibertsitatea.html) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Aizpuru, M. (2002): "Berrezarkuntza garaiko (1876-1923) historiografia Hego Euskal Herrian. 1988-1998 bitarteko produkzioaren azterketa bibliometrikoa eta kualitatiboa (gizartea eta politika)", Artetxe, K. eta Kintana, J. (arg), *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo: UEU, 209-233. [http://www.buruxkak.org/pdf/149\\_IkerketaberriakEHkohistoria.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/149_IkerketaberriakEHkohistoria.pdf) [kontsulta data: 2009-07-08]
- Aizpuru, M. (2003a): *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984*, Bilbo: UEU.
- Aizpuru, M. (2003b) "Hitzetik idatzira, jauzi zaila. UEUko Historia Sailaren historiarako oharra" *kondaira.com*, 0, 1-5. [http://www.kondaira.com/dl\\_fitxategiak.php?id=21&mota=a](http://www.kondaira.com/dl_fitxategiak.php?id=21&mota=a) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Aizpuru, M. (2005): "Historia euskaraz XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea" *Vasconia*, 34, 423-451. <http://hedatuz.euskomedia.org/3788/1/34423451.pdf> [kontsulta data: 2009-07-08]
- Aizpuru, M. (2007): "50eko hamarkadako abertzaletasuna, jarraipena eta berrikuntza" *Jakin*, 159, 11-34.
- Aizpurua, J. & Aizpurua, J. (2000): *Joxe Migel Barandiaran: (1898-1991)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/JOXE%20MIGEL%20BARANDIARAN.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/JOXE%20MIGEL%20BARANDIARAN.pdf) [kontsulta data: 2009-07-10]

- Aizpurua, J. M. (2003): *Imanol Apalategi Aita Bonifazio Ataun (1901-1984)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/30%20AITA%20BONIFACIO%20ATAUN.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/30%20AITA%20BONIFACIO%20ATAUN.pdf) [kontsulta data: 2009-02-10]
- Aizpurua, M. (1977): "Zientzi euskara", *Jakin*, 3, 88-97.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_3/Jakin77\\_3.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_3/Jakin77_3.html) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Aizpurua, M. (1984): "Euskaraz mundura? Zein hizkuntzatan eman iker-lanak?", *Jakin*, 32, 133-137.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin84\\_32/Jakin84\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin84_32/Jakin84_32.html) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Alcaide, R. (1999): "La introducción y el desarrollo del higienismo en España durante el siglo XIX. Precursores, continuadores y marco legal de un proyecto científico y social" *Scripta Nova*, 50, 1-42. <http://www.ub.es/geocrit/sn-50.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Alcain, M. D. (2003) [argitaratu gabe]: *Índices de impacto de las revistas españolas de Ciencias Sociales (Biblioteconomía y Documentación, Psicología, Psiquiatría y Urbanística y Ordenación del Territorio) a partir del análisis de las revistas mejor valoradas por los pares*, Madril: CINDOC.  
<http://www.cindoc.csic.es/info/informecs2003.doc> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Alkain, M. J. eta beste (1979): *Dibisibilitatearen teoria eta kongruentziak*, Bilbo: UEU.  
[http://www.buruxkak.org/pdf/419\\_DISIBILITATEARENTEORIA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/419_DISIBILITATEARENTEORIA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-23]
- Altonaga, K. (1995): "Euskal gaiak UPV/EHU-ko zientzi eta teknologi ikasketetan" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 569-574.
- Altonaga, K. (2001): *Armand David Pandaren Aita*, Donostia: Elhuyar.
- Altonaga, K. (2003): "Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constatin jaun medikuaren 'Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziak'", *Ekaia*, 17, 121-137. <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia17.pdf> [kontsulta data: 2007-06-28]
- Altonaga, K. (2004a): "Pierre Buruzain jaun mediku hazpandarraren "Pasteur jaun zena" (1896)", *Euskalingua*, 5, 11-25.  
<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi117A.pdf> [kontsulta data: 2007-06-28].
- Altonaga, K. (2004b): "Arnaud Abadia jaun kalonjearen Sathorra (1892)" *Ekaia*, 18, 123-145. [http://www.ehu.es/gaudee/jjugo/Ekaia\\_18\\_baja.pdf](http://www.ehu.es/gaudee/jjugo/Ekaia_18_baja.pdf) [kontsulta data: 2008-03-12]
- Altonaga, K. (2005): "Adostutako eredu baten bila (edo amaigabeko eztabaida aspergarria gainditu guran)" in Txurruka, J. M. *Euskera Zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 55-153. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi141A.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]

- Altonaga, K. (2006a): *Etxepare Aldudeko medikua*, Bilbo: UPV/EHU-Euskaltzaindia.
- Altonaga, K. (2006b): “Jean Baptiste Althabe jaun erretorearen hounkailu berrien enthelegia ciberouko laborarier (1895, 1896, 1904)”, *Ekaia*, 20, 87-116.
- Altonaga, K. (2007): “Atharratzeko biltzarrak eta Atharratzeko taldea 14ko gerla atarian” *Mendebaldeak badu ekialdea. Zuberoa: hizkuntza, literatura eta etorkizuna*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 159-229.
- Altonaga, K. (2008): “Txontak eta txolarreak: gogoeta bat ereduako prosa zientifikoaren gainean”, Salaburu, P & Ugarteburu, I. (arg) *Espezialitate hizkerak eta terminologia III: espezialitate hizkeren didaktika eta komunikazioa*, Bilbo: UPV/EHU. [http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara\\_inst\\_jardunaldiak2008/eu\\_jar2008/adjuntos/LIBU\\_RUAehuei08-06.pdf](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2008/eu_jar2008/adjuntos/LIBU_RUAehuei08-06.pdf) [kontsulta data: 2009-06-20]
- Altube, S. (1923): “Euskel-itz barijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen” *Eusko Ikaskuntzen III. Kongresua: Hizkuntza eta irakaskuntza (Gernika, 1922)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren inprenta, 78-93. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/03078093.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Altuna, P. (1957): “Euskaldunak Salamanka’n” *Egan*, 1/2, 67-69. <http://andima.armiarma.com/egan/egan30/iruegan300069.htm> [kontsulta data: 2008-08-18]
- Altuna, P. (1974): “Gotzon Goenaga, S. J. (1915-1974)” *Euskera*, 19, 439-440. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51814.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Altuna, P. (1983): “Aita Plazido Muxika (1906-1982)”, *Euskera*, 28, 297-300. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50895.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Altuna, P. (2001): *Raimundo Olabide (1869-1942)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/RAIMUNDO%20OLABIDE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/RAIMUNDO%20OLABIDE.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Altzola, N. (1964): “Jose Indalezio Zinkunegi Arruti (1886-1964)”, *Euskera*, 8-9, 491. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11188.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Altzola, N. “N.A.G.” (1967a): “Anuario”, *Egan*, 1/6, 119-120. <http://andima.armiarma.com/egan/egan48/iruegan480121.htm> [kontsulta data: 2009-06-03]
- Altzola, N. “N.A.G.” (1967b): “Antropolojia” *Egan*, 1/6, 129. <http://andima.armiarma.com/egan/egan48/iruegan480131.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Alvarez Gila, O. (2000): “La editorial "Ekin" de Buenos Aires” *Euskonews&Media*, 72. <http://www.euskonews.com/0072zbk/gaia7216es.html> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Amat i Noguera, N. (1987): *Documentación científica y nuevas tecnologías de la información*, Madril: Piramide.
- Amezaga, J. (2002): “Euskarazko irakaskuntzaren bilakaera UPV/EHUko Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultatean, 1981-2001” in Zabaleta Urkiola, I. eta beste: *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko*

- unibertsitatea, Bilbo: UEU, 219-223.  
[http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-10-26]
- Ammon, U. (arg) (2001): *The Dominance of English as a Language of Science. Effects on Other Languages and Language Communities*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- Antxustegi, E. (1998): *Luis de Elizalde: un vasco polifacético*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Apalategi, J. (1990): “Uztaro, Giza eta Gizarte-jakintza” *Uztaro*, 0, 3-5.
- Apalategi, J. “Begiko” (1973): “Hizkuntza, pentsakera eta herrikidetasuna Larresoro baitan” *Zabal*, 2, 59-65.
- Apraiz, A. (1919a): *Universidad Vasca*, Bilbo: Junta de Cultura Vasca.
- Apraiz, A. (1919b): “Euzko-Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos” *RIEV*, 10, 181-189. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/10181189.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arana, A. (2004): *Premios literarios Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia literatura sariak 1958-2003*, Bilbo: BBK.
- Arana, J. & Espí, M. T. (2000): *Escuela universitaria de Estudios Empresariales de San Sebastian origen y evolución (1915-2000)*, Donostia: Escuela universitaria de Estudios Empresariales de San Sebastian.
- Aranalde, J. M. (2001): “Genio y lengua, euskal arima eta Euskaldunak poema”, *Euskera*, 46, 123-136. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11642.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arana-Martija, J. A. (1987): *Música vasca*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Arana-Martija, J. A. (1991): “Bedita Larrakoetxea Agirrezabala” *Euskera*, 36, 343-345. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50204.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arana-Martija, J. A. (1993): *Resurrecion Maria Azkue: (1864-1951)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/resu.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/resu.pdf) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arana-Martija, J. A. (1995): “Xabier Kintanaren sarrera-hitzaldiari erantzuna” *Euskera*, 40, 37-47. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49731.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Arana-Martija, J. A. (2001): *Jose Antonio Donostia: (1886-1956)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/23%20DONOSTIA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/23%20DONOSTIA.pdf) [kontsulta data: 2007-07-15]
- Arana-Martija, J. A. (2004): *Bonifazio Etxegarai (1878-1956)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/34%20ETXEGARAI.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/34%20ETXEGARAI.pdf) [kontsulta data: 2007-07-01]
- Aranzadi, D. (1995): “Euskara Deustuko Unibertsitatean” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 529-530.

- Araujo, J. A. & Arencibia, R. (2002): "Informetría, bibliometría y cienciometría: aspectos teórico-prácticos", *ACIMED*, 10.4, [http://bvs.sld.cu/revistas/aci/vol10\\_4\\_02/aci040402.htm](http://bvs.sld.cu/revistas/aci/vol10_4_02/aci040402.htm) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Ardanuy, J. (2008) [argiratu gabe]: *Anàlisi biliomètrica de la producció científica en literatura catalana*, Bartzelonako Unibertsitatean aurkeztutako tesia 2008ko urtarrilean. [http://www.tesisenxarxa.net/TDX/TDX\\_UB/TESIS/AVAILABLE/TDX-0226108-124023/JAB\\_TESI.pdf](http://www.tesisenxarxa.net/TDX/TDX_UB/TESIS/AVAILABLE/TDX-0226108-124023/JAB_TESI.pdf) [kontsulta data: 2009-04-11]
- Arechaga, J. (2007): "Revistas científicas españolas: dónde estamos y hacia dónde podríamos ir" *Sociedad Española de Bioquímica y Biología Molecular*, 154, 10-15. <http://www.sebbm.com/pdf/154/d02154.pdf> [kontsulta data: 2009-04-01]
- Aresti, G. (1962): "Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean" *Euskera*, 7, 271-346. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51249.pdf> [kontsulta data: 2009-06-22]
- Argemi i Roca, A. (2004): "Europako hizkuntza-komunitate txikiak eta hizkuntza horietan garatutako hezkuntza eta unibertsitatea: ikuspegi orokorra eta etorkizuneko garapena" in Zabaleta eta beste: *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 467-480; eta *Bat*, 50, 175-186. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1359?PHPSESSID=6c88f0f69d6b0b2b478ec83837bc5dee> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Arguibau, L. eta beste (2008): "El portal Meridià de l'observatori de la recerca (OR-IEC): anàlisi, promoció i difusió del coneixement científic català" *Coneixement i societat*, 15, 78-103. [http://www.gencat.cat/diue/doc/doc\\_29415460\\_1.pdf](http://www.gencat.cat/diue/doc/doc_29415460_1.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Aristi, P. (2002): *Euskal kantagintza berria*, Bartzelona: Bibliotex.
- Arizkun, A. & Echeverría, J. (1995): "El euskara en la Universidad Pública de Navarra" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 535-538.
- Arpal, J. (1985): "Educación y sociedad (1936-1984)" in Intxausti, J. (zuz) *Euskal Herria. Errealitatea eta egitasmoa*, Donostia: Lankide Aurrezki Kutxa, 310-315.
- Arregi, G. & Manterola, A. (1988): "Anuario de Eusko folklore (1921-1935, 1955-1986)" *RIEV*, 33, 103-117. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/33101117.pdf> [kontsulta data: 2008-09-23]
- Arregi, G. (2002): "XXV aniversario del Instituto Labayru" *Euskonews&Media*, 175. <http://www.euskonews.com/0175zbn/gaia17504es.html> [kontsulta data: 2008-10-01]
- Arregi, L. (1923): *Melibeo ta Titiroren arteko alkar-izketa*, Bilbo: Eusko-Argitaldaria.



- Arregi, L. (1925): "Melibeo ta Titiroren arteko alkar-izketa", *Euskera*, 2-3, 35-39. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52907.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arregi, R. (1969a): "Sarrera" *Jakin*, 34, 1-8. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_34/Jakin68\\_34.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_34/Jakin68_34.html) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Arregi, R. (1969b): "Euskal liburu-gintzaren problematika" *Politikaren atarian*, Donostia: Lur, 6-13.
- Arregi, R. (1969c): *Politikaren atarian*, Donostia: Lur.
- Arrieta, J. (1995): "Euskarazko irakaskuntz eta ikerlana Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 589-590.
- Arrigain, I. (1994): *Erriko Jendeentzat osasun legeak eta medikantzako argibideak*, Bilbo: Euskal Editoreen Elkarte.
- Arrue, A. (1960): "Mogel'ez zeztxobait", *Euskera*, 5, 163-168. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51235.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arrue, A. (1962): "Euskal umoreaz" in "Euskalzaleen Biltzarra" *Euskera*, 7, 300-304. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51251.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Arrue, A.; Irigarai, A. & Mitxelena, L. (1954): "Asmo berri" *Egan*, 2/4, 1-2. <http://andima.armiarma.com/egan/egan22/iruegan220003.htm> [kontsulta data: 2008-02-27]
- Arrue, R. (1979): *His sortaren ezkerreko adarrarene rabateko hersturaren eta zaingorrigrafiaren arteko koerlazioa/ Correlación del bloqueo completo de rama izquierda de haz de his con la arteriografía coronaria*, Donostia: Industria Gráfica Valverde.
- Arruti, I. (1995): "Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea" *Bat*, 16, 31-47. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/Arruti.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Artetxe, J. (1969): "Fontes Linguae Vasconum" *Príncipe de Viana. Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence*, 1969ko maiatza.
- Artetxe, J. (1971): "Artetxe jaunaren hitzaldia Karmelo Etxegaraiz" *Euskera*, 16, 85-90 <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52006.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Artetxe, K. (2003): "Inguma: Euskal Komunitate Zientifikoaren komunikazio eta ikerketarako lan-tresna", *Hizkuntza eta lurra*, Bilbo: Herria 2000 Eliza, 119-130
- Artetxe, K. (2005a) [argitaratu gabe]: *Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ezagutzara lehen hurbiltzea: euskarazko produkzio unibertsitarioaren azterketa (1968-2003)*, UPV/EHUko Egungo Sailean 2005ean aurkeztutako 12 Kredituko Ikerketa-lana.
- Artetxe, K. (2005b): "Euskaltzaindiaren ekoizpen zientifikoa Inguma-n: Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basearen aurkezpena Euskaltzaindian"

- Euskera*, 50, 189-203. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/60420.pdf>  
[kontsulta data: 2009-07-10]
- Artetxe, K. (2006): "Psikologiako artikuluen azterketa Uztaro aldizkaria oinarri harturik" *Uztaro*, 56, 31-50.  
[http://www.uztaro.com/berria/fitxategiak/Uztaro56%5C3\\_Artetxe.pdf](http://www.uztaro.com/berria/fitxategiak/Uztaro56%5C3_Artetxe.pdf)  
[kontsulta data: 2007-11-29]
- Arzelus, X. (2005): *Jose Olaizola: (1883-1969)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/42%20OLAIZOLA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/42%20OLAIZOLA.pdf) [kontsulta data: 2007-08-05]
- Asensi-Artiga, V. & Parra-Pujante, A. (2002): "El método científico y la nueva filosofía de la ciencia" *Anales de Documentación*, 5, 9-19.  
<http://revistas.um.es/analesdoc/article/viewFile/2251/2241> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Askoren artean (1995): "Dosierra: 100 ale bizkar gainean" *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 100, 25-36.  
[http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/1995/100/pdf/A100\\_O25-36.pdf](http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/1995/100/pdf/A100_O25-36.pdf)  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Askoren artean (2006) [argitaratu gabea]: *Unibertsitate mailako euskarazko ikasmaterialaren azterketa 1995-2005*, Bilbo: UEU [UEUK UPV/EHUrako prestatutako txostena].
- Astigarraga, A. (2003): *Jose Antonio Retolaza (1929)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/33%20RETOLAZA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/33%20RETOLAZA.pdf)  
[kontsulta data: 2008-08-19]
- Atxaga, M. (1997): *Euskal emakume idazleak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/eidazle.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/eidazle.pdf)  
[kontsulta data: 2007-07-01]
- Atxaga, M. (1998): *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Aurrekoetxea, G. (2004): "Txillardegi eta Euskara Batuaren kondairaz" *J. L. Alvarez Enparanza, Txillardegiri buruzko jardunaldiak, urriaren 4, 5 eta 6an*  
<http://txillardegi.gipuzkoakultura2.net/gotzonaurrekoetxea.pdf> [kontsulta data: 2008-05-25]
- Azkue, R. M. (1923): "De semántica vasca" in Eusko Ikaskuntza. Biltzarra (3. 1922. Gernika) (1923): *Tercer Congreso de Estudios Vascos : recopilación de los trabajos de dicho congreso celebrado en Guernica del 10 al 17 de setiembre de 1922, acerca de temas de lengua y enseñanza*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren inprenta, 71-76.  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/03071077.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Azkue, R. M. (1934): "Euskalerriko oitura ta sineskeritxo bat edo beste" in Eusko Ikaskuntza. Biltzarra (5. 1930. Bergara) (1934): *V Congreso de Estudios Vascos : recopilación de los trabajos de dicho Congreso, celebrado en Vergara del 21 de agosto al 8 de septiembre de 1930, acerca de temas de arte popular vasco*, Donostia: Nueva Editorial, 92-100.



- <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/05092100.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Azkune, I. (1983): “Gillermo Larrañaga: bide-urratzaile” *Elhuyar*, 37, 465-467. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-37-06.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-37-06.pdf) [kontsulta data: 2008-09-23]
- Aztiker (2004) [argitaratu gabea]: *Euskal Herriari begira: demografia, ekonomia, euskara eta hezkuntza –euskal unibertsitateko merkatu potentzialari hurbilketa–*, Bilbo: UEU.
- Azurmendi Aierbe, M. J. (2002): “Etorkizuna sendotu (BAT aldizkariaren egitasmoa indartuz)” *Bat*, 44, 137-140. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/956> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Azurmendi Zabaleta, N. (2005): *Maritxu Urreta (1915)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/41%20URRETA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/41%20URRETA.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Azurmendi, J. (1960): “Arantzazu´tik: Yakin´larien billera” *Jakin*, 13, 69-75. <http://www.jakingunea.com/50urte/urteak/1960.html#> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Azurmendi, J. (1963): “Euskaltzaleen batzarrea Arantzazu-n” *Egan*, 4/6, 187-193. <http://andima.armiarma.com/egan/egan44/iruegan440109.htm> [kontsulta data: 2008-08-19]
- Azurmendi, J. (1963-1964): “Jakín: euskal kulturaren bideak lantzen”, *Euskera*, 8-9, 336-371. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51269.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Azurmendi, J. (1976): *Zer dugu Orixeren kontra*, Oñati: Jakín.
- Azurmendi, J. (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, Oñati: Jakín.
- Azurmendi, J. (1978): “‘Euskara’ XIX. mendeko aldizkari alemana” *Jakin*, 7, 108-122. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78\\_7/Jakin78\\_7.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78_7/Jakin78_7.html) [kontsulta data: 2009-05-26]
- Azurmendi, J. (1982) “UZEI auzitan eta normalizazio bideak auzitan” *Jakin*, 23, 77-120. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82\\_23/Jakin82\\_23.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82_23/Jakin82_23.html) [kontsulta data: 2008-11-05]
- Azurmendi, J. (1998): *Oraingo gazte eroak*, Irun: Luma.
- Azurmendi, J. (1999): “Txillardegiren saioa: hastapenen bila” *Jakin*, 114, 17-45. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin99\\_114.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin99_114.pdf) [kontsulta data: 2009-08-08]
- Azurmendi, J. (2007a): “Hizkuntz ereduaren eztabaida: Jakínlarien bilerak” *Jakin*, 158, 77-120.
- Azurmendi, J. (2007b): *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, Bilbo: UEU.
- Azurmendi, J. (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia: Elkar.
- Bakaikoa, B. (1984): “Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturaren bideetan”, *Karmel*, 171, 36-42.

- Balcells, A. eta beste (1998): *Reports de la recerca a Catalunya: Història*, Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans. [http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/504\\_3684\\_1097661473484\\_historia.pdf](http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/504_3684_1097661473484_historia.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Balcells, A. eta beste (2004): *Reports de la recerca a Catalunya 1996-2002: Història [document en procés d'edició]*, Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans [http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/3709\\_1097666215140\\_historia9602.pdf](http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/3709_1097666215140_historia9602.pdf) [kontsulta data: 2005-08-22]
- Balcells, A. eta beste (2005): "Història" *Reports de la recerca a Catalunya 1996-2002*, Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans, 1189-1237. [http://www.iecat.net/recerca/reports/Publicats2Edicio/Rep\\_20\\_Historia96-02.pdf](http://www.iecat.net/recerca/reports/Publicats2Edicio/Rep_20_Historia96-02.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Bandres, L. M. (1995): "Elhuyar 1974-1995" *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 100, 26-27. [http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik\\_kod=4467](http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=4467) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Bandres, L. M. (1997): "UEU dela eta..." *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 119. [http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik\\_kod=3417](http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik_kod=3417) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Baraiazarra, L. & Urkiza, J. (2004): *Hipolito Larrakoetxea: (1892-1976)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/34%20LARRAKOETXEA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/34%20LARRAKOETXEA.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Barañano, K. M. & Gonzalez de Durana, J. & Juaristi, J. (1987): *Arte en el País Vasco*, Madril: Cátedra.
- Barandiaran, G. (1963-1964): "Euskera'ren iztegia, nola litzaken", *Euskera*, 8-9, 372-378. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51270.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Barandiaran, G. (1989): *Gauzaki izaki gizaki*, Bilbao: Mensajero.
- Barandiaran, J. M. (1934): *Euskaleri'ko leen-gizona (Euzko-lu'etan lenengo izan ziran gizonen edesti labu'ra*, Donostia: Itxaropena argitaldaria.
- Barandiaran, J. M. (1924): "Eusko-mitolojia" *Itzaldiak. Irugarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean, 35-71.
- Barandiaran, J. M. (1948) [2003]: "Plan de una Universidad Vasca (esbozo)" J. C. [arg.] *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua (Biarritz, 1948an)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 863-866. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/07863866.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Barandiaran, J. M. (1982): "Nota preliminar" *Cuadernos Sección de Antropología-Etnografía*, 1, 7-9.
- Barandiaran, J. M. (1985): "Agamundako izkutuki izugarriak" *Cuadernos Sección de Lengua y Literatura*, 4, 631-636. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/04631636.pdf> [kontsulta data: 2008-10-02]
- Barreña, A. eta beste (2005): *Europako hizkuntzak*, Bilbo: Unesco Etxea.

- Barriola, I. M. (1985): *Gestiones guipuzcoanas por una universidad oficial en el País Vasco 1963-1979*, Bilbo: UPV/EHU.
- Barriola, J. (1998): “Hizkuntzaren pertzepzioaz” *Ankulegi*, 2, 21-28.
- Bastarrika, I. (1957): “‘Txillardegi’ jaunari” *Jakin*, 5, 99-102. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57\\_5/Jakin57\\_5.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57_5/Jakin57_5.html) [kontsulta data: 2009-06-03]
- Bastarrika, I. (1958): “‘Txillardegi’ jaunari erantzuna” *Jakin*, 6, 94-98. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58\\_6/Jakin58\\_6.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58_6/Jakin58_6.html) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Bastero, J. M. (1995): “Estudios vascos en la Universidad de Navarra” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 547-550.
- Bastero, J. M. (2004): “Euskara Nafarroako Unibertsitatean” *Bat*, 50, 73-75. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1348> [kontsulta data: 2008-10-30]
- Basterretxea, J. “Oskillaso” (1963-1964): “Batasunerako urhatsak, euskal-analfabetismua ta kultur-hiztegia”, *Euskera*, 8-9, 378-385. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51271.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Baxok, E. eta beste (2003): “Euskal Irakaskuntza Ipar Euskal Herrian” *Bat*, 49, 49-59. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1305> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Baztarrika, I. (1998): *Rikardo Arregi (1942-1969)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/rikardo.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/rikardo.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Beharrizanen Lantaldea (1979) [argitaratu gabe]: *Premia Larriko Neurrien Txostena/Dossier de medidas de urgencia*, Donostia.
- Beiztegi, I. (1957): “Izarrerri begira” *Euzko-Gogoa*, 1957 (uztaila-daguenila), 111-116. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo37/eugo3719.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Bellavista, J. eta beste (1997): *Evaluación de la investigación*, Madril: CIS.
- Berriatua, I. (1982): *Ikasle Israelen*, Donostia: Euskaltzaindia.
- Berriotxoa, V. (1963-1964): “Euskal-itzen maiztasuna”, *Euskera*, 8-9, 392-400. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51273.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Bhatt, R. M. (2001): “World Englishes” *Annual Review of Anthropology*, 30, 527-550. <http://ejournals.ebsco.com/direct.asp?ArticleID=492AA1723A9FDF68C24F> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Bidaurrezaga van Dierdonck, A. (2008): “Gotzon Bidaurrezaga medikuaren *Argija kirijotz-alija* liburuxka (1927)” *Ekai*, 21, 163-190.
- Bidaurrezaga, G. (1927): *Argija kirijotz-alija edo Argijak gorputza elikatu egiten daula* Donostia: Iñaki Deunaren irarkola.
- Bidegain, X. (2004): “Euskararen egoera Baionako Unibertsitatean (Xarles Bidegaini elkarrizketa)” *Bat*, 50, 77-82. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1349> [kontsulta data: 2009-01-17]

- Bijuesca, J. K. (1997): "Ikastaroaren memoria laburra" *Derioko Udako Euskal Ikastaroa 25 urtean (1970-1994)*, Bilbo: Labayru, 15-63.
- Bilbao Telletxea, G. (2002): *Latin-literaturarako sarbidea: idazleak eta idazlanak*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/159\\_LatinLiteraturarako.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/159_LatinLiteraturarako.pdf) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Bilbao Telletxea, G. (2004): "Aldizkari zientifiko baten zuzentzailea: ergatibotik ortotipografiara, zientziaren bideetatik", *Senez*, 27, <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20041031/zuzenbilbao> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Bilbao Telletxea, G. (2007): "Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa", *Uztaro*, 61, 111-112. [http://www.uztaro.com/uztaro\\_fitxategiak/983\\_Uztaro61.Tesilaburpenak.pdf](http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/983_Uztaro61.Tesilaburpenak.pdf) [kontsulta data: 2009-06-20]
- Bilbao, J. (1948) [2003]: "Projet d'une Université Intenationale d'Eté à Biarritz" J. C. [arg.] *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua (Biarritz, 1948)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 13-15. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/07013015.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Bilbao, J. (1988): "Bibliografia del libro vasco" *X Congreso de Estudios Vascos: archivos, bibliotecas y museos (Iruñea, 1987)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 123-128.
- Bilbao, J. R. (2005): "BBK-Euskaltzaindia Literatura Sariak: 1958-2003" *Euskera*, 50, 410-411. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/60487.pdf> [kontsulta data: 2009-01-03]
- Bilboko Gotzaitetgia (1977): *Instituto Diocesano "Estanislao J. de Labayru" Eleiz-Barrutiko Ikastegia: sortzeko erabagi-agiria eta arauak*, Bilbo: Euskal Kulturaren Aldeko Eliz-Idazkaritza.
- Biritxinaga, E. eta beste (1978): *Espazio topologikoak*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/441\\_ESPAZIOTOPOLOGIKOAK.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/441_ESPAZIOTOPOLOGIKOAK.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17]
- Bujan, K. (2002): "Euskarazko ikas-irakaskuntzaren ekimenak UPV/EHUko Donostiako Irakasle-Eskolan" in Zabaleta Urkiola, I. eta beste: *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 175-184. [http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf) [kontsulta data: 2008-10-26]
- Camino, I. (1998): "Zer dago dialektologiaren gibelean?", *Nafarroako hizkerak*, Bilbo: UEU, 111-134. [http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ikas/euskalkiak/artikuluak/Nafarroako\\_hizkerak%20UEU.pdf](http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ikas/euskalkiak/artikuluak/Nafarroako_hizkerak%20UEU.pdf) [kontsulta data: 2008-05-06]
- Camino, I. (2005): "Euskal dialektologia FLV aldizkarian" *Fontes Linguae Vasconum*, 100, 525-557. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?articulo=1392642&orden=60601](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?articulo=1392642&orden=60601) [kontsulta data: 2008-09-23]

- Campión, A. & Broussain (1922): "Informe de los señores A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera" *Euskera*, 3, 4-17. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52840.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18]
- Casals i Andreu, D. (1992): "La dinamització lingüística de la Universitat de Barcelona" *Revista de Llengua i Dret*, 17, 229-243. [http://www10.gencat.net/eapc\\_rld/revistes/revista.2008-09-18.9866153279/La\\_dinamitzacio\\_linguistica\\_a\\_la\\_Universitat\\_de\\_Barcelona/ca/at\\_download/adjunt](http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2008-09-18.9866153279/La_dinamitzacio_linguistica_a_la_Universitat_de_Barcelona/ca/at_download/adjunt) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Casenave, J. (2005) [argitaratu gabe]: "Eskualduna" astekariaren gizaldi gaztea (1877-1888). [http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/05/26/60/PDF/Gizaldi\\_literarioak\\_2005.pdf](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/05/26/60/PDF/Gizaldi_literarioak_2005.pdf) [kontsulta data: 2009-05-26]
- Chaín, C. (1995): *Introducción a la gestión y análisis de recursos de información en Ciencia y Tecnología*, Murtzia: Universidad de Murcia.
- CINDOC (1998): "La producción científica en español" *El español en el mundo: Anuario del Instituto Cervantes 1998*, Madril: Instituto Cervantes, 257-298. [http://cvc.cervantes.es/lengua/anuario/anuario\\_98/cindoc/](http://cvc.cervantes.es/lengua/anuario/anuario_98/cindoc/) [kontsulta data: 2009-04-22]
- Davant, J. L. (2000): "Gizon askea kezkatu" Ormaetxea, T. eta beste (arg): *Txillardegilagun-giroan*, Bilbo: UEU, 21-24. [http://www.buruxkak.org/pdf/112\\_Txillardegil.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/112_Txillardegil.pdf) [kontsulta data: 2008-09-23]
- Davant, J. L. (2004): "Jose Luis Lizundia euskaltzain berriari erantzuna" *Euskera*, 49.2, 631-640. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/59361.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Davant, J. L. (2005): "Baionako Biltzarra (1964)" in Etxeberria, P. & Knörr, H. *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 207-216. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/59403.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Davila, P. (1995a). *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*, Donostia: Ibaeta Pedagogia.
- Davila, P. (koord.) (1995b): *Lengua, escuela y cultura : el proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, Leioa: UPV/EHU.
- De Pablo, S. & Rubio, C. (2006): *Eman ta zabal zazu. Historia de la UPV/EHU 1980-2005*, Bilbo: UPV/EHU. [http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p077-9030/es/contenidos/informacion/publicaciones\\_institucionales/es\\_pub\\_inst/images/eman\\_ta\\_zabal\\_zazu.pdf](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p077-9030/es/contenidos/informacion/publicaciones_institucionales/es_pub_inst/images/eman_ta_zabal_zazu.pdf) [kontsulta data: 2008-09-18]
- Delgado López-Cózar, E. eta beste (2006): "Análisis bibliométrico y de redes sociales aplicado a las tesis bibliométricas defendidas en España (1976-2002): temas, escuelas científicas y redes académicas" *Revista Española de Documentación Científica*, 29.4, 493-524. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2234361&orden=1&info=link> [kontsulta data: 2009-04-14]
- Dendaluce, I. (2001): "Ciencias sociales e investigación en Euskal Herria" *Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua: Euskal Zientzia eta kultura, eta sare telematikoak (Donostia, 2005)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 75-90.

- <http://www.eusko-ikaskuntza.org/es/congresos/xvestudiosvascos/pdf/06.pdf>  
[kontsulta data: 2009-07-10]
- Diaz Noci, J. (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Diaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mediatika/05007298.pdf> [kontsulta data: 2007-12-08]
- Diaz Noci, J. (1998): *Euskal Kazetaritzaren historia XVIII. mendetik gaur egun arte*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. <http://suse00.su.ehu.es/ephtm> [kontsulta data: 1999-06-01]
- Diaz Noci, J. (2001): “Euskal kazetaritza 50eko hamarkadan” *Egan*, 54, 97-104.  
<http://www.ehu.es/diaz-noci/Arts/A29.pdf>
- Donostia, J. A. (1923): “Euskalduna, abeslari” *Itzaldiak. Bigarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean, 1-34.orr
- Donostiako EKT & Etxebarria, J. R. (1972): *Haizeak, euria eta klima*, Bilbao: I. Boan.
- Dua, H. R. (2001): *Science policy education and language planning*, Mysore: Yashoda Publications.
- Duhau, H. (2007): “Dominique Dufau, notario euskaltzale senperetarra (1880-1956)” *Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, 12, 63-113. [http://www.avd-zea.com/descargas/boletines/boletin\\_12.pdf](http://www.avd-zea.com/descargas/boletines/boletin_12.pdf) [kontsulta data: 2008-01-13]
- Egia, G. (1999): “Julio de Urquijo Mintegia asmoz eta jakitez” *Argia*, 1707. <http://www.argia.com/argia-astekaria/1707/julio-de-urquijo-mintegia-asmoz-eta-jakitez/oso>  
[kontsulta data: 2008-08-04]
- Egia, G. (2006): *Agustin Anabitarte 1891-1981*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/46%20ANABITARTE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/46%20ANABITARTE.pdf)  
[kontsutla data: 2007-09-29]
- Egia, L. (1972): *Neurriztia*, Gasteiz: Kardaberaz Bazkuna.
- Egibar, L. (2004): *Jose Luis Goti (1923-1998)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/36%20GOTI.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/36%20GOTI.pdf)  
[kontsulta data: 2008-12-12]
- Egile Ezezaguna (1962): “Iñazio Maria Etxaide Lizasoain (1884-1962)” *Euskera*, 7, 350-353. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52206.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Eguzkitza, J. B. (1924): “Itz bikoitzak darakuskuezan euskal-izpiakeraren arau batzuk” *RIEV*, 15.4, 592-598. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/15592598.pdf>  
[kontsulta data: 2009-06-18]
- Eguzkitza, J. B. (1927): “Kaxarrenkaren goraberak eta Auriako jaya” *RIEV*, 18.3, 422-436. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/18422436.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18]
- Eguzkitza, J. B. (1930): “Mikoleta’ren euskereak eta gaur Bizkaya’n darabilgunak ¿ze alde ete-dauke?” *RIEV*, 21.3, 468-477.



- <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/21468477.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18]
- Eizagirre, X. & Ibarra, A. (1995): “Filosofia euskaraz: hamar urteko balantzea (1984-1994)” *Jakin*, 91, 77-105.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin95\\_91/Jakin95\\_91\\_077.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin95_91/Jakin95_91_077.pdf)  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- EKA (1960): “Euskaltzaindiak Eibar’en atondutako batzarrari euskerari buruzko asmoak” *Euskera*, 5, 180-183.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51240.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- EKB (1985): “Euskararen plangintzarako oinarriak” *Jakin*, 34, 9-176.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin85\\_34/Jakin85\\_34.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin85_34/Jakin85_34.html)  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- EKB (1999): “EKBren 16 urteko lanaren memoria” *Bat*, 31.  
<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/801> [kontsulta data: 2009-01-17]
- EKT (1970a): *Historia del Pueblo Vasco*, Donostia.
- EKT (1970b): *Fisika gaiak. I. mekanika*, Donostia.
- Elhuyar & Zalbide, M. (1977). “Euskal matematika hiztegiaren azterketa” *Euskera*, 22, 100-109. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51458.pdf> [kontsul data: 2009-01-17]
- Elhuyar Matematika Taldea (1979): “Bibliografia” *Elhuyar*, 20, 1-10.  
[http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-20-01.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-20-01.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1975a): “Oharra” *Elhuyar*, 2, 1-2.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-02-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1975b): “Ustaritzeko Euskal Unibertsitatea” *Elhuyar*, 4, 1-3.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-04-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1975c): “Bideak urratzen” *Elhuyar*, 5, 1-2.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-05-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1975d): “Elhuyar’-en egitura” *Elhuyar*, 3 (1975), 1-2.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-03-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1976a): “Textu liburuak” *Elhuyar*, 6, 1-3.  
[http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-06-01.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-06-01.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1976b): “Hiztegitza” *Elhuyar*, 7, 1-2.  
[http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-07-01.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-07-01.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]

- Elhuyar Taldea (1976c): “Euskal erakunde kulturalak” *Elhuyar*, 9, 1-2.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-09-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1977a): “Elhuyar Matematika Taldea” *Elhuyar*, 10, 1-2.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-10-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1977b). “Arkitektur hiztegia” *Elhuyar*, 12, 1-9.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-12-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1980): “Editoriala” *Elhuyar*, 25, 1-4.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-25-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1981a): “Editoriala” *Elhuyar*, 26, 3-6.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-26-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1981b): “Estatutuak” *Elhuyar*, 28, 345-353.  
[http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-28-13.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-28-13.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1982): “Elhuyar taldeaz mintzo” *Elhuyar*, 30, 209-214.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-30-13.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1983): “Editoriala” *Elhuyar*, 35, 247-248.  
<http://www.elhuyar.org/elhuyar%5Faldizkaria/pdf/Elhuyar-35-01.pdf>  
[kontsulta data: 2009-01-17]
- Elhuyar Taldea (1984): “Idazleentzako informazioa” *Elhuyar*, 38, 113-116.  
[http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-38.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-38.pdf) [kontsulta data: 2009-06-09]
- Eliz-Atarian Idazkaritza (1968): “Aintzin-solas” *Biologia*, Donostia: Apaiztegia.
- Elortza, J. (2005): “Fontes Linguae Vasconum aldizkariak 100 zenbakitik gora” *RIEV*, 50.2, 623-636. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/50623636.pdf>  
[kontsulta data: 2008-09-23]
- Emaldi, L eta beste (1979): *Erlatibitatearen teoria espeziala*, Bilbo: UEU.  
[http://www.buruxkak.org/pdf/440\\_ERLATIBITATEARENTEORIA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/440_ERLATIBITATEARENTEORIA.pdf)  
[kontsulta data: 2008-09-17]
- Enbeita, K. (1959): “Arantzazu´tik Yakinlarien billera” *Jakin*, 10, 80-88.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59\\_10/Jakin59\\_10.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59_10/Jakin59_10.html)  
[kontsulta data: 2009-07-10]
- Enbeita, K. (1960): “Iritzi billa” *Jakin*, 13, 76-87.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin60\\_13/Jakin60\\_13.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin60_13/Jakin60_13.html)  
[kontsulta data: 2008-08-19]
- Ensunza, M. & Etxebarria, J. R. & Iturbe, J. (2003): *Zientzia eta teknikarako euskara, zenbait hizkuntza-baliabide*, Bilbo: UEU.



- Equipo de Planificación educativa en colaboración con el I.C.E. de la Universidad de Bilbao (1979): *Análisis de la elección de Estudio Universitarios del alumnado de COU del Distrito Universitario Vasco*, Txosten argitaragabea.
- Erdozaintzi-Etxart, M. (1957): “Euskal billerak Hazparne’n (uztailaren 23-28)” *Jakin*, 4, 80-84. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57\\_4/Jakin57\\_4.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57_4/Jakin57_4.html) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Erdozia, J. L. (2000): “Erizkizundi irukoitza’ Sakana erdialdean” *Fontes Linguae Vasconum*, 83, 53-72. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?articulo=26319&orden=68355](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?articulo=26319&orden=68355) [kontsulta data: 2008-03-25]
- Erize, X. (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Iruñea: Departamento de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra.
- Erkoreka, A. (1988a): *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur I*, Donostia: Kriselu.
- Erkoreka, A. (1988b): *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur II*, Donostia: Kriselu.
- Erriondo, L. & Garagorri, X & Isasi, X. (1998): “Euskarazko eskolaliburuen historia laburra” *Hezkuntzaren normalkuntza*, Bilbo: UEU, 41-52. [http://denda.ueu.org/pdfak/Hezkuntzaren\\_normalkuntza.pdf](http://denda.ueu.org/pdfak/Hezkuntzaren_normalkuntza.pdf) [kontsulta data: 2007-10-24]
- Erriondo, L. (2006): “Soziolinguistika eta UEU (Udako Euskal Unibertsitatea)” *Bat*, 61,71-84. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/3235> [kontsulta data: 2008-11-20]
- Estornes, I. & Valverde, L. (1996): “Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos cúpula cultural de Euskal Herria (1918-1996)”, *Eusko Pizkundea*, 1, 147-166.
- Estornes, I. (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos: aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Estornes, I. (1995): “Banco de datos Auñamendi” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 725-726.
- Estornes, I. (1998): “Eusko Ikaskuntza: 80 años de vida” *Euskonews&Media*, 1. <http://www.euskonews.com/0001zkb/gaia0102.htm> [kontsulta data: 2008-10-01]
- Etxaide, A. M. (1995): “Euskaraz burutzen diren ikasketak Nafarroako Unibertsitatean” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 531-533.
- Etxaide, A. M. (2006): “Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren Ibilbidea. Recorrido Histórico de la Cátedra de Lengua y Cultura Vasca de la Universidad de Navarra” Beguiristain, M<sup>a</sup> A. eta Barandiaran, A. (arg): *Cátedra de lengua y cultura vasca. 40 años/ Euskal hizkuntza eta kultura katedra. 40 urte*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea, 9-29.

- Etxaide, Y. (1985): "Inazio Maria Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak" *Euskera*, 30, 345-371. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50603.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Etxaniz, N. (1957): "Leturiaren egunkari ezkutua" *Euzko-Gogoa*, 1957ko maiatzak-ekaina, 111-113, <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo36/eugo3623.htm> [kontsulta data: 2008-03-11]
- Etxebarria, I. (2007): *Bernardo M. Garro: 1891-1960*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/50%20OTXALUA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/50%20OTXALUA.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Etxebarria, J. R. (1975): "Donibaneko II. udako euskal unibertsitateaz" *Elhuyar*, 2, 3-5. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-02-02.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-02-02.pdf) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Etxebarria, J. R. (1978a): *Fisika generala. Lehen tomoa: mekanika*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/443\\_FISIKAGENERALAMEKANIKA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/443_FISIKAGENERALAMEKANIKA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-23]
- Etxebarria, J. R. (1978b): "Satsudura: sistema ekologikoaren barneko perturbaketa artifizialak" *Jakin*, 5, 48-59. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78\\_5/Jakin78\\_5.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78_5/Jakin78_5.html) [kontsulta data: 2008-09-16]
- Etxebarria, J. R. (1991): "UPV-EHUren euskalduntze prozesuaz" *Larrun*, 10, 31-42.
- Etxebarria, J. R. (1993): "Euskal Unibertsitateranzko bidean kontutan hartu beharreko ohar batzu" *Bat*, 10, 95-108. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/10/Etxabarria.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18]
- Etxebarria, J. R. (1995): "Pisia. Fisikari buruz euskaraz idatziriko lehenengo liburua, Gabirel Jauregi", *Karmel*, 211, 115-122.
- Etxebarria, J. R. (2002): "Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan", *Hegats*, 30, 63-75, <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats30.pdf> [kontsulta data: 2005-09-28]
- Etxebarria, J. R. (2005): "Naturala al da matematikaren arloko definizioetan erabiltzen dugun euskara" in Txurruka, J. M. *Euskera Zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 295-317. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi144A.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Etxebarria, J. R. (2007): "Gaztetako maisua gogoan", Goikoetxea, J. L. eta Bilbao, B. (2007): *Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen eztandan 1970-1980*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 93-98.
- Etxebarria, J. R. (argitaratzeaz): "Natura-arloko esperientzia Saiokan" Ikastolen Elkarte.
- Etxebarria, J. (2003): *Patxi Altuna nolana ere, maisu*, Azpeitia: Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinadora. <http://www.uztarria.com/azpeitia/ziberteka/liburuak/04Patxi/> [kontsulta data: 2008-10-27]

- Etxegarai, B. (1920): “Euskaldunak, euskeraz” *Itzaldiak*, Donostia: Martin eta Menaren etxean, 57-85.
- Etxenike, P. M. (1979): “Pedro Etxenikerekin hizketan” *Elhuyar*, 17, 51-59. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-17.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-17.pdf) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Etxenike, P. M. (1995): “Ikerlariok euskaraz” *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 100, 27. [http://www.zientzia.net/artikulua\\_inprimatu.asp?Artik\\_kod=4467](http://www.zientzia.net/artikulua_inprimatu.asp?Artik_kod=4467) [kontsulta data: 2009-06-09]
- Euskal Esnalea (1920): *Itzaldiak*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Esnalea (1923): *Itzaldiak. Bigarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Esnalea (1924): *Itzaldiak. Irugarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Esnalea (1926): *Itzaldiak. Laugarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Esnalea (1928): *Itzaldiak. Boskarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Esnalea (1930): *Itzaldiak. Seigarren salla*, Donostia: Martin eta Menaren etxean.
- Euskal Idazkaritza Elkarte (1964): *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak*, Baiona: Euskal Idazkaritza.
- Euskaltzaindia (1956): “Euskaltzaleen Biltzarra” *Euskera*, 1, 164-304. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/6967.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1959): “Euskaltzaleen Biltzarra” *Euskera*, 4, 93-217. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51184.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1960): “Euskaltzaleen Biltzarra: (Juan Antonio Mogel Eibar'ko semearen gorazarrez)”, *Euskera*, 5, 24-183. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11023.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1962): “Euskaltzaleen Biltzarra” *Euskera*, 7, 271-346. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/45778.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1963-1964): “Euskaltzaleen Biltzarra Loyola-n” *Euskera*, 8-9, 496-497. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52146.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1968): “Arantzazu-ko biltzarrak”, *Euskera*, 13, 138-265. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51282.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1976): *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/6965.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1978): “Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra” *Euskera*, 24, 435-878. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51121.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1979a): *Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak*, Bilbo: Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/6966.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1982a): “Euskaltzaindiaren laguntzailleak’ Bizkaiko batzordearen batzar-agiria” *Euskera*, 17, 122-124.

- <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/53263.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Euskaltzaindia (1982b): *Euskaltzaindiaren arautegi eta barne-erregelak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. Euskalegunak (1. 1921. Durango) (1922): *Lenengo euskalegunetako itzaldiak*, Bilbo: Euzko-argitaldaria.
- Euskaltzaindia. Euskalegunak (2. 1923. Doneztebe) (1926): *Bigarren euskalegunetako itzaldiak Doneztebe-n*, Bermeo: Gaubeka.
- Euskaltzaleak (1930): *Euskeltzaleak, zertarako? Acción Popular Vasca, su finalidad, su organización su programa*, Tolosa: Lit. Laborde y Labayen.
- Euskerazaleak (1978): “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa’ko Euskerazaleak Euskaltzaindiari” *Euskera*, 24, 791-793. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51163.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Eusko Ikasbatza (1932): *Eusko Ikastola Nagusi alde*, Madril: Agrupación de Cultura Vasca.
- Euzko Gogoa (1955): “Anai berri” *Euzko-Gogoa*, 3-4, 33. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo26/eugo2602.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]
- Euzko-Gogoa (1951): “Euskaltzaindia” *Euzko-Gogoa*, 1-2, 13. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo08/eugo0812.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]
- Ezkerra, M. & Fernandez, I. (1995): “Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza” *Bat*, 16, 49-55. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/EzkFern.pdf> [kontsulta data: 2009-06-18]
- Felones, R. (1998): *Nuevas universidades en España (1987-1996): la Universidad Pública de Navarra, un modelo de referencia*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Fernández Fernandez, I. (1994): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, Bilbo: UEU. [http://denda.ueu.org/pdfak/Oroimenaren\\_hitza.pdf](http://denda.ueu.org/pdfak/Oroimenaren_hitza.pdf) [kontsulta data: 2007-10-24]
- Ferreiro, L. (1993): *Bibliometría (análisis bivariante)*, Madril: Eypasa.
- Flores, T. (1997): *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea 1968-1993*, Bilbo: UPV/EHU. [http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p077-9030/es/contenidos/informacion/publicaciones\\_institucionales/es\\_pub\\_inst/adjuntos/upv19681993.pdf](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p077-9030/es/contenidos/informacion/publicaciones_institucionales/es_pub_inst/adjuntos/upv19681993.pdf) [kontsulta data: 2008-09-18]
- Frías, J. A. & Romero Gómez, P. (1998): “¿Quiénes son y qué citan los investigadores que publican en las revistas españolas de biblioteconomía y documentación?”, *Revista de Biblioteconomía y Documentación*, 1, 29-53. <http://revistas.um.es/analesdoc/article/view/3101/28731> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Fusi, J. P. (1984): *El País Vasco, pluralismo y nacionalidad*, Madril: Alianza Universidad.

- Gaillard, J. eta beste (1997): *Scientific communities in the developing world*, New Delhi: Sage.
- Gallastegi, I (1917): *Sagardotarako sagarrak: sagardotarako sagar onak izateko sagastiak nola jarri ta zaitu bear diran*, Donostia: Diputazioaren Irarkola.
- Gallastegi, Z.; Lobera, G. & Urrutia, A. (1999): "Euskarazko testugintza juridiko-administratiborako osagaiak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zirkularrak" *Karmel*, 228, 3-19.
- Garate, G. (2006): "Euskal Filologiak 30 urte" *Erabili.com*, 2006-05-03an argitaratua ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1146572848](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1146572848)) [kontsulta data: 2008-10-25]
- García Aretio, L. (2006): "La Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED) de España" *RIED*, 9.1-2, 17-51. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2324055&orden=124674&info=link> [kontsulta data: 2008-10-22]
- Garfield, E. & Welljams-Dorof, A. (1990): "Language Use in International Research: A citation Analysis" *Annales of the American Academy of Political and Social Science*, 511, 10-24. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v13p282y1990.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1964) [argitaratu gabe]: "Statistical Analyses of International Chemical Research by Individual Chemists, Languages and Countries." *Meeting of American Chemical Society, Division of Chemical Literatures* aurkeztua (Chicago). <http://garfield.library.upenn.edu/papers/97y1964.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Garfield, E. (1967): "English -- an international language for science" *Essays of an Information Scientist*, 1, 19-20, <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/V1p019y1962-73.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1968): "The Language barrier in medical communication" *Canadian Medical Association Journal*, 99 (11), 561-562. [http://garfield.library.upenn.edu/papers/canmedassj99\(11\)p561y1968.html](http://garfield.library.upenn.edu/papers/canmedassj99(11)p561y1968.html) [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1972): "'Cover-to-Cover' Translation of Soviet Journals – a Wrong 'Solution' of the Wrong Problem" *Essays of an Information Scientist*, 1, 334-335. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/V1p334y1962-73.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1974): "Let's Erect a New Tower of Babel!" *Essays of an Information Scientist*, 2, 172-174. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v2p172y1974-76.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1975): "Why Not Stop Worrying about Cyrillic and Read *Russian!*" *Essays of an Information Scientist*, 2, 279-284. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v2p279y1974-76.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]

- Garfield, E. (1977): "Can an Italian Biomedical Journal Survive?" *Journal of Nuclear Medicine and Allied Sciences*, 21.3, 121-122. [http://www.garfield.library.upenn.edu/papers/jnuemed21\(3\)p121y1977.html](http://www.garfield.library.upenn.edu/papers/jnuemed21(3)p121y1977.html) [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1978): "Do French Scientists Who Publish Outside of France and/or in English Do Better Research" *Essays of an Information Scientist*, 3, 498. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v3p498y1977-78.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1979a): "Canadian Journals, Part 1: What They Cite and What Cites Them" *Essays of an Information Scientist*, 4, 244-248. <http://garfield.library.upenn.edu/essays/v4p244y1979-80.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1979b): "Canadian Journals, Part 2: Analysis of Canadian Research Published at Home and Abroad" *Essays of an Information Scientist*, 4, 249-251. <http://garfield.library.upenn.edu/essays/v4p249y1979-80.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1989): "The English Language: The Lingua Franca of International Science", *Essays of an Information Scientist*, 14, 344-345. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v14p344y1991.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Garfield, E. (1992): "The microbiology literature: Languages of publication and their relative citation impact" *FEMS Microbiology Letters*, 100, 33-38. <http://www.garfield.library.upenn.edu/essays/v15p180y1992-93.pdf> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1994): "Multilingual Capability is Essential in the Global Science Community" *The Scientist*, 8 (18), 13. [http://www.garfield.library.upenn.edu/commentaries/tsv08\(18\)p13y19940919.pdf](http://www.garfield.library.upenn.edu/commentaries/tsv08(18)p13y19940919.pdf) [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garfield, E. (1995): "Multilingual Communication Essential for Science", *Interdisciplinary Science Reviews*, 20 (3), 179-180 [www.garfield.library.upenn.edu/papers/interdispscirevv20\(3\)p179y1995.html](http://www.garfield.library.upenn.edu/papers/interdispscirevv20(3)p179y1995.html) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Garfield, E. (1998) [argitaratu gabe]: "Mapping the world of science" *Topical paper presented at the 150th Anniversary Meeting of the AAASn* aurkeztua (Philadelphia). <http://www.garfield.library.upenn.edu/papers/mapsciworld.html> [kontsulta data: 2009-04-13]
- Garmendia, E. (1998): *Gregorio Muxika: (1882-1931). Euskalerrriaren Alde eta Euskal-Esnalea*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/mujika.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/mujika.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Garmendia, E. (2000): *Gerthard Bähr (1900-1945)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/gerhard%20bahr.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/gerhard%20bahr.pdf) [kontsulta data: 2008-03-26]



- Garmendia, J. (1955): *Euskeraren Iraupena eta Euskal-Literaturaren Aurrerapena*, Donostia.
- Garmendia, P. (2001): “Mende berrirako unibertsitategintzaren euskarazkoaz. Eztabaidarako oharak” *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 461-466.
- Garmendia, S. (1968): “Euskeraren batasuna” *Jakin*, 31-32, 28-38. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Gartzia, P. & Luzuriaga, G. (2000) “Elebitasunaren auzia: biblioteketako katalogoak”, *Jakin*, 118, 77-87. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00\\_118/Jakin00\\_118\\_077.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00_118/Jakin00_118_077.pdf) [kontsulta data: 2009-06-20]
- Gartzia, P. (1994): “Udako Euskal Unibertsitatea-Universidad Vasca de Verano (UEU)” *Revista de Estudios Políticos* (Nueva época), 84, 305-316. [http://www.cepc.es/rap/Publicaciones/Revistas/3/REPNE\\_084\\_297.pdf](http://www.cepc.es/rap/Publicaciones/Revistas/3/REPNE_084_297.pdf) [kontsulta data: 2008-09-21]
- Gartzia, P. (1997): “Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK): Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetariko bat” *Euskera*, 42, 615-622. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49567.pdf> [kontsulta data: 2009-04-07]
- Gartzia, P. (2000): “Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK): euskal deituren sarrera nagusiez” *Euskera*, 45, 319-342. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49250.pdf> [kontsulta data: 2009-04-07]
- Gartzia, P. (2000): “Elebitasunaren auzia: bibliotekako katalogoak” *Jakin*, 118, 77-91. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00\\_118/Jakin00\\_118\\_077.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00_118/Jakin00_118_077.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17].
- Gartzia, P. (2004): *La España metafísica: lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Bilbo: Euskaltzaindia-EHU. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/55965.pdf> [kontsulta data: 2009-05-26]
- Gartzia, P. (2005a): *Lazarraga, ernazimentua euskaraz*, Iruñea: Pamiela.
- Gartzia, P. (2005b): “Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan: hasierako urteak, 1973-1984” *Uztaro*, 54, 133-141. [http://www.uztaro.com/uztaro\\_fitxategiak/844\\_9\\_liburuaiipamena.pdf](http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/844_9_liburuaiipamena.pdf) [kontsulta data: 2009-06-20]
- Garzia, J. R. (2004): *Kurrin-kurrin vitae*, Irun: Alberdania.
- Gavel, H (1948) [2003]: “Projet de création d’une Université Internationale d’été à Biarritz” J. C. [arg.] *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua (Biarritz, 1948)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 867-868. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/07867868.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Gil, J. & Luciano, C. (2002): “A la calidad por *the quantity* (porque *la cantidad* no vale). Algunas reflexiones sobre los criterios de evaluación de la calidad de la

- investigación en psicología”, *Análisis y Modificación de la conducta*, 119, 431-454.
- Goikoetxea, I. (1978): “Gillen Larrañaga Azpiazu, S. J. (1905-1978)” *Euskera*, 23, 385-386. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51432.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Goikoetxea, J. L. & Bilbao, B. (2007): *Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen eztandan 1970-1980*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Gómez Caridad, I. eta beste (2004) [argitaratu gabe]: *Proyecto de obtención de indicadores de producción científica y tecnológica de España (1996-2001)*, Madril: CINDOC/CSIC. [www.cindoc.csic.es/investigacion/informe1.pdf](http://www.cindoc.csic.es/investigacion/informe1.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Gómez del Pulgar, G. (2004): "Análisis y comparación de cinco modelos de evaluación de revistas científicas", *Forinf@ Online: Revista iberoamericana sobre usuarios de la información*, 25, 7-21. <http://lemi.uc3m.es/forinf@/index.php/Forinf/article/view/101/103> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Gómez Pérez, C. (2005): “Revista Sancho el Sabio: memoria de una época”, *Vasconia*, 34, 453-459. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas34/34453459.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Gómez, C. (1998) "Kulturaldi: fuentes históricas de la cultura vasca; formación de una base de datos de referencias analíticas de publicaciones seriadas vascas", *Euskonews&Media*, 6, <http://www.euskonews.com/0006zkb/frgaia.htm> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Gontis, V. (2000) “Lithuanian Science in Transition: Statistical Analysis”, *Revue Baltique*, 16, 24-32. [http://www.itp.a.lt/~gontis/documents/Revue\\_Baltique.doc](http://www.itp.a.lt/~gontis/documents/Revue_Baltique.doc) [kontsulta data: 2005-08-20]
- Gonzalez Delgado, R. (2008): “La literatura grecolatina en llingua asturiana” *Lletres Asturianas*, 97, 53-102.
- González, E. eta beste (2003): "Estudio bibliométrico de la actividad científica de los matemáticos mexicanos graduados en Estados Unidos en el periodo 1980-1998", *Anales de Documentación*, 6, 89-108. <http://revistas.um.es/analesdoc/issue/view/151> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Goyhenetche, J. (1984) [argitaratu gabe]: *L'apport d'Eskualzaleen Biltzarra dans la construction du champ culturel basque. I. Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)*, (mekanografiatua), Baiona.
- Granja, J. J. (1990): *Federiko Belaustegigoitia: (1876-1947)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/belaus.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/belaus.pdf) [kontsulta data: 2007-12-30]
- Hainbat Egile (1977): “Unibertsitateko Euskal Kultur mugimenduak, Bizkaian” *Jakin*, 1, 130-135. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2009-04-25]



- Haritzelhar, J. (1974): "I Udako Euskal Unibertsitatea" *Euskera*, 19, 429-429. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51804.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Haritzelhar, J. (1989): "Louis Dassance euskaltzain zenaren oroitzapenetan" *Euskera*, 34, 361-363. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50368.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Hasnain, I. S. (2003): "Science Policy: Empowering Indian Languages vis-a-vis English", *Language in India*, 3. <http://www.languageinindia.com/april2003/duabookreview.html> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Hernández Mata, A. (1997): "Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala" *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Bilbo: Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza, 231-262.
- Hernandez Mata, A. (2007): *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944): kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*, Bilbo: Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69360.pdf> [kontsulta data: 2009-04-14]
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2001): *Análisis de la Investigación Básica y de la Población Investigadora en la C.A.P.V*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Ibiñagabeitia, A. (1950): "Zaitegi-ren idazteiei buruz" *Euzko-Gogoa*, 2 (otsaila), 8-13. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo02/eugo0206.htm> [kontsulta data: 2008-02-20]
- Ibiñagabeitia, A. (1952): "Idazti berriak" *Euzko-Gogoa*, 1-2, 28-30. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo14/eugo1420.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]
- Ibiñagabeitia, A. (1954a) [2003]: "Itun berriaren euskal itzulpenak eta Zaitegi Abaren 'Bidalien egiñak'" Larronde, J. C. [arg.]: *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua (Baiona-Ustaritz, 1954)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 223-233. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/08223233.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Ibiñagabeitia, A. (1954b): "Idazti berriak" *Euzko-Gogoa*, 5-8, 127-128. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo22/irueugo22056.htm> [kontsulta data: 2008-09-24]
- Ibiñagabeitia, A. (1957): "Leturiaren egunkari ezkutua" *Euzko-Gogoa*, 1957ko maiatza-ekaina, 111-113 <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo36/eugo3622.htm> [kontsulta data: 2008-03-11]
- Ibiñagabeitia, A. (1958): "Yakin" *Euzko-Gogoa*, 1958ko epaila iorrraila, 219-220. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo40/eugo4020.htm> [kontsulta data: 2008-08-14]
- Idazkaritza (1982): "Mitxelena-UZEI arazoa: Bibliografia" *Jakin*, 23, 121-127. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82\\_23/Jakin82\\_23.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82_23/Jakin82_23.html) [kontsulta data: 2008-11-26]
- Ikasle bat (1978): "EUTGn euskara zertan den" *Zehatz*, 5/6, 107-108.

- Iñigo, A. (2004): “Jose Mari Satrustegi: su aportación en el campo lingüístico”, *Fontes Linguae Vasconum*, 96, 373-380.  
[http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=1429412&orden=60637](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=1429412&orden=60637)  
 [kontsulta data: 2008-09-04]
- Intxausti, J. (1959a): “Illobira bultzaka” *Jakin*, 9, 83-88.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59\\_9/Jakin59\\_9.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59_9/Jakin59_9.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Intxausti, J. (1959b): “Orixe´-ri erantzun bidez”, *Jakin*, 10, 72-74.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59\\_10/Jakin59\\_10.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59_10/Jakin59_10.html)  
 [kontsulta data: 2008-08-14]
- Intxausti, J. (1962): “Euskeraren kultura bide bat” *Euskera*, 7, 309-314.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51253.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Intxausti, J. (1977a): “U.Z.E.I. (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea)” *Jakin*, 4, 61-69. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_4/Jakin77\\_4.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_4/Jakin77_4.html)  
 [kontsulta data: 2009-01-17]
- Intxausti, J. (1977b): “UZEI: Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez” *Euskera*, 22, 935-939. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/31881.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Intxausti, J. (1979a): “Euzko-Gogoa´-ren lankideak: Zaitegi eta `Euzko-Gogoa´ (I)”, *Jakin*, 12, 120-137.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin79\\_12/Jakin79\\_12.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin79_12/Jakin79_12.html)  
 [kontsulta data: 2008-03-03]
- Intxausti, J. (1980): “Hamar urteko lana (1950-1959): Zaitegi eta `Euzko-gogoa´ (eta II)” *Jakin*, 13, 96-113.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin80\\_13/Jakin80\\_13.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin80_13/Jakin80_13.html)  
 [kontsulta data: 2008-03-03]
- Intxausti, J. (1993): *Julio Urkixo (1871–1950)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/julio.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/julio.pdf)  
 [kontsulta data: 2009-02-10]
- Intxausti, J. (1995): “Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformetako ilun-argitan” *RIEV*, 40, 119-160.  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/40119160.pdf> [kontsulta data: 2007-11-25]
- Intxausti, J. (1997): “Euskararen eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545-1556)” *Sancho el Sabio*, 7, 243-274.  
[http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?articulo=157582&orden=72645](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?articulo=157582&orden=72645)  
 [kontsulta data: 2007-11-25]
- Intxausti, J. (2007a): “Euskararen Legearen aurreko euskal gizarteaz”, *Euskera*, 52, 1235-1249 <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/71479.pdf> [kontsulta data: 2009-02-01]
- Plazaberri*, 27.  
<http://www.euskaltzaindia.net/plazaberri/0027/gehigarriak/intxausti.pdf> [kontsulta data: 2007-11-27]

- Intxausti, J. (2007b): “*Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan” *Jakin*, 158, 53-76.
- Intza, D. (1968): “Euskaltzaindiko nere lendabiziko lagunak” *Euskera*, 13, 271-273. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52071.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Intzagarai, R. (1933): “Muñagorri kantak” *RIEV*, 24.3, 412-418. <http://hedatuz.euskomedia.org/1596/1/24412418.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Ipparragirre, P. (2001): *60ko hamarkadako hitzak: elkarrizketa hautatuak*, Lasarte-Oria: Argia.
- Irakasleen Udako Euzkal-Ikastaroa (1959): *Eskoletan euzkera*, Baiona.
- Irakaslego Batzordea (1972): “Euskal irakasle titulua: Euskaltzaindiaren euskal irakasle titulua lortzeko eskatuko dena” *Euskera*, 17, 220-225. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51961.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Irastorza, T. (2003): “Askoren artean Bidegileak bilduma” *Hegats*, 33, 87-120.
- Irazabalbeitia, I. & Mujika, A. (1990): “Udako Euskal Unibertsitatea: Helburuak, historia eta egoera” *Jakin*, 57, 99-120. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin90\\_57/Jakin90\\_57.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin90_57/Jakin90_57.html) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Irazabalbeitia, I. (1991): “Udako Euskal Unibertsitatea” *Hika*, 6, 30-31.
- Irazabalbeitia, I. (1995): “Hogeita bat urte eta 100 ale” *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 100, 29-31. [http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik\\_kod=4469](http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=4469) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Irazabalbeitia, I. (1997): “Sei silaba edo hamabost letra” *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 19, 24. [http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik\\_kod=3417](http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik_kod=3417) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Irazabalbeitia, I. & Barrenetxea, T. (1983): “Udako Euskal Unibertsitatea: berezia” *Elhuyar*, 9, 527-555. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-37-15.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-37-15.pdf) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Irazabalbeitia, I. eta beste (1995): “Euskararen egoera Euskal Herriko unibertsitateetan” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 591-594.
- Irigarai, A. (1960): “Mogel eta literatur-euskara”, *Euskera*, 5, 110-120. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51229.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Irigarai, A. & Loidi, J. A. (1978): “Euskara Batuaren idazkeraz – Euskara bakuna” *Euskera*, 24, 803-806. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51163.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Irigoiñ, A. & Zearreta, J. J. (1986): “Nafarroako azterketak (1985-udazkeneko deia)” *Euskera*, 31, 245-246. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50557.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Irigoiñ, A. (1959): “Berkak eta izkuntza” *Euskera*, 4, 173-179. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51195.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]

- Iriondo, A. (1994): "Pentsamenduaren klasikoak euskaraz" *Euskera*, 39, 603-607. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49974.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Irujo, X. (2005): *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955): Eusko Jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian*, Oñati: HAEE/IVAP.
- Irujo, A. M. (1954) [2003]: "La editorial vasca Ekin de Buenos Aires" Larronde, J. C. [arg.]: *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua (Baiona-Ustaritz, 1954)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 13-15. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/08113115.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Isasi, X. (2002): "Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)", *RIEV*, 47, 347-350. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/47347350.pdf> [kontsulta data: 2008-09-23]
- Isasi, X. (2004): "Unibertsitario euskaldunen egoera zaila" *Bat*, 50, 131-139. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1355> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Iturbe, J. (1977): *Kimika*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/460\\_KIMIKA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/460_KIMIKA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]
- Iturbe, J. (1978): *Kimika orokorra: lehen parte*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/445\\_KIMIKAOROKORRAI.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/445_KIMIKAOROKORRAI.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]
- Iturbe, J. (1979): *Kimika orokorra: II. parte*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/428\\_KIMIKAOROKORRAII.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/428_KIMIKAOROKORRAII.pdf) [kontsulta data: 2008-09-24]
- Iturbe, J. (1990): "Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean" *Jakin*, 58, 133-147. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin90\\_58/Jakin90\\_58.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin90_58/Jakin90_58.html) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Izagirre, K. (1998): *Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998*, Iruñea: Susa.
- Izagirre, K. (2003): *UZEIk 25 urte hitzari bide egiten*, Donostia: UZEI.
- Iztueta, P. (1981): *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975*, Donostia: Elkar.
- Iztueta, P. (1985): "Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984)" in Intxausti, J. (zuz) *Euskal Herria. Errealitatea eta egitasmoa*, Donostia: Lankide Aurrezki Kutxa, 392-403.
- Iztueta, P. (1987): *N. Ormaetxea "Orixe" (1888-1961)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/orixe.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/orixe.pdf) [kontsulta data: 2007-10-12]
- Iztueta, P. (1991): *Orixe eta bere garaia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.
- Iztueta, P. (1993): "Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia", *Uztaro*, 9, 119-151. [http://www.uztaro.com/uztaro\\_fitxategiak/724\\_uztaro9\\_6.pdf](http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/724_uztaro9_6.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Iztueta, P. (2001): *Erbesteko euskal pentsamendua. Bi belaunldikoen lekukoak: Euzko-Gogoa eta Zabal*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

- Iztueta, P. (2002a): *Euskal literaturaren historia laburra*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2002b): *Testu hautatuak euskal estetikaz: Aitzol, Lauaxeta, Orixe*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2003): "Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean", *Euskera*, 48, 849-930. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/56091.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Jakin (1977): "Euskal Unibertsitatearen izarra" *Jakin*, 1, 8-10. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Jakintza (aldizkaria) (1977): *Yakintza: revista de cultura vasca*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Jauregi, G. (1935): *Pisia*, Bermeo: Gaubeka.
- Jauregi, G. (1936): *Kimia*, Bermeo: Gaubeka.
- Jemein, Z. "Belandia" (1956): "Euzkeltzale-Bazkuna" *Euzko-Gogoa*, iraila-urria, 41-45. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo32/eugo3215.htm> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Jimenez de Aberasturi, J. C. (2005): "Tres revistas de historia local" *Vasconia*, 34, 461-471. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas34/34461471.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Jiménez-Contreras, E. (2000): "Los métodos bibliométricos. Estado de la cuestion y aplicaciones" *Primer Congreso Universitario de ciencias de la Documentación*, 757-771. <http://www.ucm.es/info/multidoc/multidoc/revista/num10/paginas/pdfs/ejcontreras.pdf> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Jimeno Aranguren, R. (1997): "Euskara eta euskal kultura Nafarroako Unibertsitatean", *Jakin*, 100, 55-62. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin97\\_100/Jakin97\\_100\\_055.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin97_100/Jakin97_100_055.pdf) [kontsulta data: 2009-06-20]
- Jimeno Aranguren, R. (koord.) (2000): *El euskera en tiempo de los euskaros*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Jimeno, R. (2005): "Historia social e institucional de las lengua (especialmente del euskera) en *Fontes Linguae Vasconum* (1969-2005)" *Fontes Linguae Vasconum*, 100, 567-605. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=1392649&orden=69202](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=1392649&orden=69202) [kontsulta data: 2008-09-24]
- Joanategi, B. (1908): "Oarkera bi: On Kanpionek dionez Euskal-Esnalean", *RIEV*, 2, 583-584. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/02583584.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Jones, D. E. & Baró i Queralt, J. (1997): "Tesis doctorals i treballs de recerca universitaris sobre comunicació als Països Catalans, 1954-1996: aproximació bibliomètrica" *Anàlisi*, 20, 157-187. <http://ddd.uab.cat/pub/analisi/02112175n20p157.pdf> [kontsulta data: 2009-04-18]

- Jusue, C. (1993): “La revista Príncipe de Viana en la acción editorial del Gobierno de Navarra. Primeras aproximaciones” *Príncipe de Viana*, 200, 507-538. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=15986&orden=85453](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=15986&orden=85453) [kontsulta data: 2008-09-04]
- Jusue, C. (2005): “Revistas periódicas de la institución Príncipe de Viana” *Vasconia*, 34, 473-479. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas34/34473479.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Kachru, B. B. (1983): “Models of New Englishes” Fishman, J. A. & Cobarrubias, J. (arg): *Progress in language planning: international perspectives*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 145-170.
- Kallonen, M. (2004): “Minority Protection and linguistic Rights in Lithuania”, *Noves SL, Tardor*, 1-8. <http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hm04tardor/docs/kallonen.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kanpanaga, B. (1958): “Zenbaketatzaz” *Euzko-Gogoa*, 1958ko epaila-iorraila, 199-205. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo40/eugo4016.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kintana Goiriena, J. (1999): “Euskal Pizkundeko aldizkari bat: *Revista de las Provincias Euskaras* (1878-1881)” *Euskonews&Media*, 57. <http://www.euskonews.com/0057z/bk/gaia5702eu.html> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Kintana Goiriena, J. (2002): *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Bilbo: Euskaltzaindia-BBK.
- Kintana Goiriena, J. (2003): “Euskarazko historiografia (I): aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak)” *Kondaira.com*, 0, 1-38. [http://www.kondaira.com/dl\\_fitxategiak.php?id=16&mota=a](http://www.kondaira.com/dl_fitxategiak.php?id=16&mota=a) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kintana Goiriena, J. (2005): “Izurac Bat' Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak” *Uztaro*, 55, 31-46. <http://www.uztaro.com/berria/fitxategiak/uztaro55%5C3Jurgi.pdf> [kontsulta data: 2007-09-16]
- Kintana Goiriena, J. (2006): *Intelektualen sorrera eta bilakaera Euskal Herrian: Resurreccion Maria Azkue (1864-1951)*, UPV/EHUn aurkeztutako doktorego-tesia (argitaragabea).
- Kintana Goiriena, J. (2007a): *Sabino Arana Goiri Euzkadiren aita (1865-1903)*, Donostia: Elkar.
- Kintana Goiriena, J. (2007b): “Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?” *Uztaro*, 63, 21-29. [http://www.uztaro.com/berria/fitxategiak/Uztaro63%5CUztaro63\\_2.Kintana.pdf](http://www.uztaro.com/berria/fitxategiak/Uztaro63%5CUztaro63_2.Kintana.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Kintana Goiriena, J. (2009): *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kintana Urriaga, X. (1968): “Parapsikologia: zientzi berri hori” *Jakin*, 31-32, 95-104. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-10-15]



- Kintana Urtiaga, X. (1982): "Imanol Berriatuaren oroitzapenez" *Jakin*, 22, 160-164.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82\\_22/Jakin82\\_22.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin82_22/Jakin82_22.html)  
 [kontsulta data: 2008-03-23]
- Kintana Urtiaga, X. (1992): "Batasunerako pausoak gogoratuz" *Ele*, 11/12, 23-49.
- Kintana Urtiaga, X. (1994a): *Imanol Berriatua (1914-1984)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/imanol.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/imanol.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-02-27]
- Kintana Urtiaga, X. (1994b): "Euskaltzaindiaren Leioako Biltzarra" *Jakin*, 84, 67-81.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94\\_84.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94_84.pdf) [kontsulta data: 2009-06-18]
- Kintana Urtiaga, X. (1994c): "Euskara U.P.V./Euskal Herriko Unibertsitatean: erabilera, zuzentasuna eta kontrola" *Euskera*, 39, 233-249.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49933.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Kintana Urtiaga, X. (2000): *Justo Mari Mokoroa (1901-1990)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/JUSTO%20MARI%20MOKOROA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/JUSTO%20MARI%20MOKOROA.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-03-23]
- Kintana Urtiaga, X. (2002): "Euskaltzaindiko D Titulua iparraldean" *Euskera*, 47, 951.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50531.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kintana Urtiaga, X. (2004): *Andolin Eguzkitza (1953-2004)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/37%20EGUZKITZA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/37%20EGUZKITZA.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-09-02]
- Kintana Urtiaga, X. (2006): "Imanol Berriatua, euskal etorkizunaren ereile" *Euskera*, 51, 51-57 eta *Plazaberri*, 3.  
<http://www.euskaltzaindia.net/plazaberri/0003/gehigarriak/kintana.pdf>  
 [kontsulta data: 2006/06/08].
- Kintana Urtiaga, X. (2007): "Xabier Kintanari elkarrizketa" in Goikoetxea, J. L. eta Bilbao, B.: *Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen ezteandan 1970-1980*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 39-56.
- Kirikiño [E. Bustintza] (A. Arejita & X. Perea prestatzaileak) (1984): *Edo geuk edo inok ez: euskerearen alde*, Bilbo: Labayru.  
<http://klasikoak.armiarma.com/pdf/KirikinoEdoGeuk.pdf> [kontsulta data: 2007-07-01]
- Klaic, B. (1997): "Analysis of Scientific Productivity in Croatia According to the Science Citation Index, Social Science Citation Index, and Arts & Humanities Citation Index for the 1980-1995 Period", *Croatian Medical Journal*, 38.2.  
<http://www.cmj.hr/1997/3802/klaic.htm> [Kontsulta data: 2005-08-20]
- Knörr, H. (1992): "Barandiaran hil zaigu (1889-1991)" *Euskera*, 37, 619-622.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50142.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Knorr-Cetina, K. (1999): *Epistemic Cultures: How the Sciences Make Knowledge*, Cambridge: Harvard University.

- Kortabarria, B. (1998): “Zientzi fakultateko lehen promozioak” *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 135. [http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/1998/135/pdf/A135\\_O24-35.pdf](http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/1998/135/pdf/A135_O24-35.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Kortabarria, B. (2000): “Mende-laurdena polimeroekin lanean” *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 157, 28-30. [http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/2000/157/PDF/A157\\_O27-36.pdf](http://www.zientzia.net/informazioa/elhuyar/2000/157/PDF/A157_O27-36.pdf) [kontsulta data: 2008-10-26]
- Kortadi, E. (1993): “Publicaciones de la R.S.B.A.R y de la Sociedad de Estudios Vascos” *Cuenta y Razón*, 84, 138-144. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2044014&orden=73891&info=link> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kortadi, E. (2002): *Anizeto Olano Aita Migel Altzo (1896-1966)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/29%20altzo.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/29%20altzo.pdf) [kontsulta data: 2007-09-30]
- Kortazar, J. (1995): “Lauaxetaren iturriak literatura gonbaratuaren azterketa baterako” *Cuadernos de Sección Hizkuntza eta Literatura*, 13, 9-34. <http://hedatuz.euskomedia.org/513/1/13009034.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Kortazar, J. (2002): *Diglosia eta euskal literatura*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Krutwig, F. (1952b): “Seminario jaunari ongi-ethorri” *Euzko-Gogoa*, 1952, 7-8, 29-32. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo17/eugo1724.htm> [kontsulta data: 2008-03-04]
- Krutwig, F. (1952a): “Nibbana” *Euzko-Gogoa*, 1952 gko. Ilbelta-Otsailla. 1-2. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo14/eugo1408.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Krutwig, F. (1952b): “Lafon Jaunari ongi-etorria Euskaltzaindian” *Euzko-Gogoa*, 3-4, 51-54. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo15/eugo1528.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Krutwig, F. (1961): “Physika Berriaren problemat batzuei buruz”, *Egan*, 3/6, 168-181. <http://andima.armiarma.com/egan/egan40/iruegan400016.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Krutwig, F. (1979): *Mikelditarrak: euskal errankaria hamaika irazkietan eta bederatz biilbetan*, Donostia: Ediciones Vascas.
- Krutwig, F. (1991): *Bilbao de los años cuarenta: en torno a Blas de Otero y Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue*, Bilbo.
- Labaien, A. M. (1949): “Euskeraren gaitz eta eritasunak” *Gernika*, z/g (abendua), 26-27. <http://andima.armiarma.com/gern/ger0910.htm> [kontsulta data: 2009-03-04]
- Labaien, A. M. “Aspaldiko” (1954): “Euskeraren batasuna” *Euzko-Gogoa*, 9-10, 154-155. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo23/eugo2319.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Labaien, A. M. “Ibalan” (1952): “Euskeraren batasuna” *Euzko-Gogoa*, 1-2, 26-28. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo14/eugo1419.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lafitte, P. (P. Xarriton & P. Andiazabal prestatzaileak) (2006): “Pierre Laffitten gutundegia” *Euskera*, 51, 195-239. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/66533.pdf> [kontsulta data: 2009-02-15]



- Lafitte, P. (1968): “Batasunaren bideak” *Jakin*, 31-32, 62-65.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html)  
 [kontsulta data: 2008-08-14]
- Lafitte, P. (1974): “Rene Lafon zenaz zombait hitz (1899-1974)” *Euskera*, 19, 5-8.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11794.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lafitte, P. (P. Urkizuren editorea) (1990): *Euskal literaturaz*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz.htm>  
 [kontsulta data: 2009-07-10]
- Landa, C. (2005): “Revista Vasconia, cantera de la nueva historiografía vasca (1983-2003)” *Vasconia*, 34, 481-633.  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas34/34481633.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Larrañaga, J. (2004): “Eusebio Erkiaga, Bankuko euskal kazetaria” *Euskarazko kazetaritzaren I. kongresua (2004ko azaroaren 9tik 12ra, Bilbo)* Bilbo: UPV/EHU. [http://www.ehu.es/servicios/se\\_az/cpags/frp14/kazetari.pdf](http://www.ehu.es/servicios/se_az/cpags/frp14/kazetari.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-09-23]
- Larrazabal, J. M. (1977): “UEUtik Euskal Unibertsitaterako bidean” *Jakin*, 1, 36-43.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2008-08-28]
- Larrazabal, J. M. (1978): “Euskal Unibertsitateranzko bidea, U.E.U. bidegidari” *Zehatz*, 2.1, 7-11.
- Larrea, J. M. (1994): *Euskaldungoa erroizturik*, Iruñea: Pamiela.
- Larrea, K. (2005): *Euskalduntzearen atakan*, Donostia: Erein.
- Larrinaga, A. (2002a): "Kulturaren botere sinbolikoa. Euskal inteligentsia akademikoaren premiari buruzko gogoeta" *Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 383-394.  
[http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf)  
 [kontsulta data: 2009-07-10]
- Larrinaga, A. (2007a): *Kulturgileak eta kulturaren esparrua I. Tradizio intelektualak beranduko modernitatean*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Larrinaga, A. (2007b): *Kulturgileak eta kulturaren esparrua II. Euskal kulturgileak euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Larronde, J. C. [arg.] (1948) [2003] *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua (Biarritz, 1948)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/congresosestudiosvascos/publicacion.php?o=1053>  
 [kontsulta data: 2008-03-23]
- Larronde, J. C. [arg.] (1954) [2003] *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua (Baiona-Ustaritz, 1954)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/congresosestudiosvascos/publicacion.php?o=1178>  
 [kontsulta data: 2008-03-23]
- Lasa, J. (1976): *Univesidad Vasca. Euskal Ikasgu Nagusia*, Zarautz: Itxaropena.

- Laspiur, I. (1968): "Euskal-joskera" *Jakin*, 31-32, 39-57. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Latiegi, B. & Oñatibia, D. (1982): *Euskaltzaindiari epaiketa*, Donostia.
- Lekuona, J. M (1991): "Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)" *Euskera*, 36, 491-500. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50233.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lekuona, J. M. (1992): "Jose Miguel Zumalabe Mendiburu (1906-1992)" *Euskera*, 37, 1075-1078. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50163.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lekuona, M (1956a): "Deikia izenetan", *Euskera*, 1, 31-40. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52425.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lekuona, M. (1956b): "Deikia aditzean" *Euskera*, 1, 99-116. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52431.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lekuona, M. (1968a): "Euskeraren batasuna", *Euskera*, 13, 139-141. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51283.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lekuona, M. (1968b): "Azken-itz" *Euskera*, 13, 249. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51290.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Letamendia, J. A. (1968). "Zenbait iritzi batasunari buruz" *Jakin*, 31-32, 19-27. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Lhande, P. (1921): "Argitartzaillearen itzaurrea = Préface de l'editeur = Prólogo del editor" *Euskera*, 1, 3-9. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52800.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Licea de Arenas, J. & Arenas, M. (2000): "La formación de comunidades científicas en Bibliotecología y Ciencia de la Información", *Anales de Documentación*, 3, 81-91. <http://revistas.um.es/analesdoc/issue/view/121> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Lizardi, X. [Jose Mari Agirre] (1929): "Traducción al Euskera de un capítulo de "El Quijote" *RIEV*, 20, 207-211. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/20207211.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lizardi, X. [Jose Mari Agirre] (L. Otaegi ed.) (1995): *Euskera aundiki-soñekoz*, Bilbo: Labayru. <http://klasikoak.armiarma.com/pdf/LizardiAundiki.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Lizundia, J. L. (1962): "Euskaltzaindiari zuzendutako karta" *Euskera*, 7, 326-328. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51264.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Lizundia, J. L. (2004a): *Jesus Maria Leizaola: (1896-1989)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/34%20LEIZAOLA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/34%20LEIZAOLA.pdf) [kontsulta data: 2007-08-05]
- Lizundia, J. L. (2004b): "Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan" *Euskera*, 49.2, 609-649. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/59360.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Llera, F. eta beste (2001): *Evaluación de la actividad investigadora en Ciencias Sociales y Humanidades*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www.basques.euskadi.net/r85-20319/es/contenidos/informacion/dia6/fr\\_2027/adjuntos/indice\\_c.pdf](http://www.basques.euskadi.net/r85-20319/es/contenidos/informacion/dia6/fr_2027/adjuntos/indice_c.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]

- Lluch i Martin, E. eta beste (1998): *Reports de la recerca a Catalunya: geografia i demografia*, Institut d'Estudis Catalans, Bartzelona. [http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/502\\_3682\\_1097661150046\\_geoidem.pdf](http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/502_3682_1097661150046_geoidem.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Lluch i Martin, E. eta beste (2004) [argitaratu gabe]: *Reports de la recerca a Catalunya 1996-2002: geografia i demografia (1996-2002) [document en procés d'edició]*, Institut d'Estudis Catalans, Bartzelona. [http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/3707\\_1097666009937\\_geografia9602.pdf](http://www2.iecat.net/gc/digitalAssets/3707_1097666009937_geografia9602.pdf) [kontsulta data: 2005-08-22]
- Lluch i Martin, E. eta beste (2005): “Geografia i demografia” *Reports de la recerca a Catalunya 1996-2002*, Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans, 1117-1185. [http://www.iecat.net/recerca/reports/Publicats2Edicio/Rep\\_19\\_Geog-i-Demog96-02.pdf](http://www.iecat.net/recerca/reports/Publicats2Edicio/Rep_19_Geog-i-Demog96-02.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Lobera, G. eta beste (1994a): “Karmel aldizkariaren historia” *Karmel*, 210, 6-42.
- Lobera, G. (1994b): “Karmel'en 3. aroko bibliografia (1970-1994)” *Karmel*, 210, 43-111
- Lojendio, J. M. (1960): “Euskeraren batasuna ta Mogel” *Euskera*, 5, 155-158. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51234.pdf> [kontsulta data: 2009-02-13]
- Lopez Adan, E. (1997): “Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea”, *Uztaro*, 23, 45-63. [http://www.uztaro.com/uztaro\\_fitxategiak/557\\_uztaro23\\_4.pdf](http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/557_uztaro23_4.pdf) [kontsulta data: 2008-09-01]
- Lopez Atxurra, R. (1995): “Cultura, educación y estudios vascos: hitos para la recuperación de nuestra memoria histórica (cronología)” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 55-81.
- López Goñi, I. (2002): “Nafarroako aldundiko euskararen aldeko sailaren ekimenak (1957-1972)” *Tantak*, 28, 79-104. <http://www2.library.unr.edu/journals/02149753/2002/v28/p079.pdf> [kontsulta data: 2008-10-26]
- López Yepes, J. (1978): *Nuevos estudios de documentación. El proceso documental en las ciencias de la comunicación social*, Madril: Instituto Nacional de Publicidad.
- López Yepes, J. (koord.) (2002): *Manual de Ciencias de la Documentación*, Madril: Pirámide.
- Lopez-Mendizabal, I. (1933): *Erleak: beren bizitza eta oiturak*, Tolosa: Lopez Mendizabal inprentan.
- Lopez-Mugartza, J. K. (2002): “Euskal Unibertsitatea Nafarroako Unibertsitate Publikoan” in Zabaleta Urkiola, I. eta beste: *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 209-219. [http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf) [kontsulta data: 2008-12-31]
- Lopez-Mugartza, J. K. (2002): “Euskarazko irakaskuntzaren bilakaera UPV/EHUko Gizarte- eta komunikazio-Zientzien Fakultatea, 1981-2001” in Zabaleta Urkiola, I. eta beste: *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko*

- unibertsitatea*, Bilbo: UEU, 219-223.  
[http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf)  
 [kontsulta data: 2008-12-31]
- Madariaga, J. (1995): "Bergarako UNEDen euskarazko jarduna" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 565-567.
- Madariaga, J. (2006): *Anthology of apologist and detractors of the Basque language*, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.
- Madina, F. (1943): *De música vasca*, Buenos Aires: Ekin.
- Mallikarjun, B. (2004): "An Exploration into linguistic Majority-Minority Relations" *Language in India*, 4, <http://www.languageinindia.com/aug2004/dlamallikarjun2.html> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Maricic, S. (1998): "About 'measuring' Croatian Science", *Croatian Medical Journal*, 38.4, <http://www.cmj.hr/1997/3804/maricic.htm> [kontsulta data: 2005-08-19]
- Marín i Otto, E. & Estella i Clota, M. (2004): "Unibertsitatea eta hizkuntza politika Katalunian" *Bat*, 50, 165-173. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1358> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Martinez Peñuela, A. (1986): "Real Sociedad de Amigos del País de Pamplona 1960-1976" *Príncipe de Viana. Anejo*, 5, 165-177.
- Maurais, J. (1993): "La globalización y la protección de los idiomas", *La redefinición de lo local, lo nacional y lo global: perspectivas desde la antropología, Simposio internacional Ciudad de Mexico (29-31 de marzo de 1993)*, Universidad Autónoma Metropolitana-Iztapalapa, <http://www.oricom.ca/jamaurais/Mexico93.htm> [kontsulta data: 2005-07-01]
- Mees, L. (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión nacional (1903-1923)*, Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- Mees, L. & De Pablo, S. & Rodriguez Ranz, J. A. (1999): *El péndulo patriótico: historia del Partido Nacionalista Vasco*, Bartzelona: Crítica.
- Mendia, J. (1993): "Traducciones al euskera de los clásicos del pensamiento universal" *Cuenta y razón*, 84, 133-137. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2044013&orden=73890&info=link> [kontsulta data: 2009-01-09]
- Mendibehere, K. (1973): "Ikastaldia 73" *Zabal*, 4, 39-42.
- Mendiguren, X. (1978a): "Euskara Batua eta irakaskuntza" *Euskera*, 24, 523-531. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51134.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Mendiguren, X. (1978b): "Irakaslego batzordea: orain arteko urratsak eta etorkizun hurbileko eginbeharrak" *Euskera*, 23, 289-293. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51420.pdf> [kontsul data. 2009-07-10]
- Mendiguren, X. (1981): "Itzulpenaren mundua eta euskal itzultzaileen oinarrizko prestakuntzarako eskola (Dossier-Aurreprojektua)" *Euskera*, 26, 933-1003. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51125.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]

- Mendiguren, X. (1984): "Itzultzaile eskola" *Senez*, 1, 19-26. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19840101/xabier> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Mendiguren, X. (1994): "Pentsamenduaren klasikoak euskaraz" *Jakin*, 80, 111-118. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94\\_80/Jakin94\\_80\\_111.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94_80/Jakin94_80_111.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Mendizabal, P. (1957): "Arantzazun iakinlarien billera" *Jakin*, 4, 85-93. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57\\_4/Jakin57\\_4.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin57_4/Jakin57_4.html) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Mendizabal, P. (1958): "Yakinlariok Arantzazun" *Jakin*, 7, 102-109. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58\\_7/Jakin58\\_7.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58_7/Jakin58_7.html) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Menika, M. K. (1997): "UEUren egitura eta funtzionamendua" *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 119. [http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik\\_kod=3417](http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik_kod=3417) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Miguel, A. (2000): "Aportaciones al estudio de la literatura gris universitaria. La evolución de la tesis doctoral en España" *Cuadernos de documentación multimedia*, 10, 645-621.
- Mijangos, F. (2001): "Nork ebaluatu nahi du nire curriculumama?", *Ekaia*, 13, 149-153. <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia13.pdf> [kontsulta data: 2005-09-28]
- Mikelarena, F. (2002): "Bases bibliográficas para la investigación en temas vasconavarros", *RIEV*, 47.1, 79-91. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/47079091.pdf> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Minondo, C. & Quevedo, M. (1985): "La vida científica y tecnológica (1939-1984)" in Intxausti, J. (zuz) *Euskal Herria. Errealitatea eta egitasmoa*, Donostia: Lankide Aurrezki Kutxa, 325-340.
- Mintegi, L. (1987): *Julene Azpeitia (1888-1980)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/azpe.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/azpe.pdf) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Mitxelena, K. (1955): "Zinema" *Egan*, 1-2, 47-52. <http://andima.armiarma.com/egan/egan23/iruegan230049.htm> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Mitxelena, K. (1956a): "'Euzko-gogoa' eta 'Euskera'" *Egan*, 5/6, 157-163. <http://andima.armiarma.com/egan/egan29/iruegan290161.htm> [kontsulta data: 2009-06-22]
- Mitxelena, K. (1956b): "Liburuak: Ilias'ena (Iliada euskeraz)" *Egan*, 3/4, 102-105. <http://andima.armiarma.com/egan/egan28/iruegan280104.htm> [kontsulta data: 2009-06-22]
- Mitxelena, K. (1956c): "Nora? Irun'go Salletarren Nobiziaduko illerogo Aldizkaria" *Egan*, 1, 58-59. <http://andima.armiarma.com/egan/egan26/iruegan260060.htm> [kontsulta data: 2009-06-22]

- Mitxelena, K. (1995) [1957]: "Sarrera-itx batzu" Txillardegi *Leturiaren egunkari ezkutua*, Donostia: Orain, 9-19.
- Mitxelena, K. (1968): "Ortografia", *Euskera*, 13, 203-219. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51289.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Mitxelena, K. (1977): "Unibertitate eta irakaskuntza gure artean" *Jakin*, 1, 56-66. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94\\_80/Jakin94\\_80\\_111.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin94_80/Jakin94_80_111.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Mitxelena, K. (Iraola, I. arg) (2006): *Denbora bateko zinema paperak 1954-1961*, Irun: Alberdania.
- Mitxelena, L. (1960): *Historia de la literatura vasca*, Madril: Minotauro.
- Mitxelena, L. (1981): "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" *Muga*, 19, 5-19.
- Mitxelena, L. (J. M. Satrustegi ohargile) (1998): "Arantzazuko batzarra (1956)" *Fontes Linguae Vasconum*, 79, 469-474. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=26279&orden=68351](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=26279&orden=68351) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Mitxelena, L. [1974] (1985): "Las lenguas y la política" *Lengua e historia*, Madril: Paraninfo, 178-190.
- Mokoroa, J. M. (1956): "De Vida o muerte" *Euskera*, 1, 273-282. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51164.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Mokoroa, J. M. "Ibar" (1935): *Genio y lengua*, Tolosa: Lib. de Mokoroa Hermanos.
- Monreal, G. (2001): "Una historia de la Revista Internacional de los Estudios Vascos/ Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria/Revue Internationale des Etudes Basques [RIEV] (1907-2000)" *RIEV*, 46.1, 11-46. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/4600110046.pdf> [kontsulta data: 2008-08-19]
- Montejo, J. R. (2003). *El euskera, lengua de transmisión del conocimiento científico: Ignacio Etxaide uno de los precursores del euskera técnico=Jakintza-zabalkundea euskararen bidez: Ignazio Etxaide, euskara teknikoaren aitzindarietako bat*, Madril: Delegación en Corte, Departamento de Publicaciones.
- Moreno Martínez, L. (2005): *Producción científica de la Comunidad Autónoma del País Vasco en Bases de Datos ISI, 1995-2000*, Oñati: HAEE/IVAP.
- Mugnaini, R. eta beste (2004): "Indicadores bibliométricos da produção científica brasileira: uma análise a partir da base Pascal" *Ci. Inf.*, 33.2, 123-131. [www.scielo.br/pdf/ci/v33n2/a13v33n2.pdf](http://www.scielo.br/pdf/ci/v33n2/a13v33n2.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Mujika, A. (1997): "UEU: 25 urte bidean" *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 19, 23-25. [http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik\\_kod=3417](http://www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik_kod=3417) [kontsulta data: 2008-11-20]
- Murua, I. (1998): "Juan San Martini elkarrizketa" *Jakin*, 98, 67-116. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98\\_108/Jakin98\\_108\\_067.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98_108/Jakin98_108_067.pdf) [kontsulta data: 2008-10-31]



- Muxika Casares, J. A. (1998): *Aita Plazido Muxika (1906-1982)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/muxika.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/muxika.pdf) [kontsulta data: 2008-03-23]
- Muxika Casares, J. A. (2006a): “Zertzelada batzuk Plazido Muxikaren bizitzaz” *Euskera*, 51, 15-27. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50895.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Muxika Casares, J. A. (2006b): “Hitzaurrea”, in Svenson, J. S. & Weiser, F. (P. Muxika itzultzailea): *Noni eta Mani. Mendiko argia*, Donostia: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, 3-6.
- Muxika, G. (1919a): “El primer Congreso de Estudios Vascos” *RIEV*, 10.1, 98-111. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/10098111.pdf> [kontsulta data: 2009-06-20]
- Muxika, G. (1919b): “Euzko-Ikaskuntza/ Sociedad de Estudios Vascos” *RIEV*, 10.1, 112-113. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/10112113.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Muxika, J. M. (2002): “Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda (1960-1999)” *Mediatika*, 9, 9-110. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mediatika/09009110.pdf> [kontsulta data: 2008-08-27]
- Narbaiza, A. (2001): *Policarpo Larrañaga: (1883-1956)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/24%20LARRA%DIAGA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/24%20LARRA%DIAGA.pdf) [kontsulta data: 2007-08-06]
- Narbaiza, A. (2004): *Euskaria show*, Irun: Alberdania.
- Odrizola, J. M. (1992): *Gerraurreko Gizarte-Hizkuntzalaritza Euskal Herrian*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/252\\_GerraurrekoGizarte.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/252_GerraurrekoGizarte.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Odrizola, J. M. (2002): *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak*, Iruñea: Pamiela.
- Odrizola, J. M. (2004): *Euskalgintzaren lekukoak*, Donostia: Elkar.
- Oihartzabal, B. (1999): “Euskarazko irakaskuntzaren historia: ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat”, *Lapurdum*, 4, 81-105 [http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/06/50/07/PDF/Euskarazko\\_eskola.pdf](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/06/50/07/PDF/Euskarazko_eskola.pdf) [kontsulta data: 2007-12-30]
- Oihartzabal, B. (2001): “Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)” *Litterae Vasconiae: euskararen iker atalak*, 8, 9-46.
- Oihartzabal, L. (koord.) (1998): *La UPV/EHU a debate*, Donostia: Erein.
- Olabide, R. (1917): *Giza-soña*, Tolosa: Lopez Mendizabalen moldiztegia.
- Olano, A. eta beste (1935a): *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia: Euskaltzaleak.
- Olazaran, M. eta beste (2004): “¿Hacia una segunda transición en la ciencia? Política científica y grupos de investigación” *RES*, 4, 143-172. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1220336&orden=44230&info=link> [kontsulta data: 2009-04-25]

- Olazaran, M. eta beste (2007): “Eredu teknologiko linealaren arazoak: zentro teknologikoen rola EAeko ikerketa- eta garapen-sisteman” Eizagirre, A. (koord.): *Ezagutzaren politikak: zientziaren kultura berrirako oinarriak*, Bilbo: UEU, 41-74.
- Olmeda-Gómez, C. (2008): “Impacto internacional de la investigación y la colaboración científica de las Universidades de Cataluña. 2000-2004” *Revista Española de Documentación Científica*, 31.4, 591-611. [http://eprints.rclis.org/15454/2/2008\\_REDOC\\_Universidades\\_catalanas.pdf](http://eprints.rclis.org/15454/2/2008_REDOC_Universidades_catalanas.pdf) [kontsulta data: 2009-04-14]
- Olmeda-Gómez, C. eta beste (2009): “Colegios visibles: estructuras de coparticipación en tribunales de tesis doctorales de biblioteconomía y documentación en España” *El Profesional de la Información*, 18.1, 41-49. [http://eprints.rclis.org/15690/1/Colegios\\_Visibles\\_EPI\\_enero\\_2009.pdf](http://eprints.rclis.org/15690/1/Colegios_Visibles_EPI_enero_2009.pdf) [kontsulta data: 2009-04-14]
- Onaindia, S. (1954): “Aurkez” in Agirre, T.: *Kresala*, Zarautz: Itxaropena, V-XI.
- Onaindia, S. (1972): *Euskal literatura I*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1972/Euskal%20Literatura%20I.pdf> [kontsulta data: 2008-09-11]
- Onaindia, S. (1974): *Euskal literatura II*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1972/Euskal%20Literatura%20II.pdf> [kontsulta data: 2008-09-11]
- Onaindia, S. (1974): *Euskal literatura III*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1972/Euskal%20Literatura%20III.pdf> [kontsulta data: 2008-09-11]
- Onaindia, S. (1975): *Euskal literatura IV*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1972/Euskal%20Literatura%20IV.pdf> [kontsulta data: 2008-09-11]
- Onaindia, S. (1977): *Euskal literatura V*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1972/Euskal%20literatura%20V.pdf> [kontsulta data: 2008-09-11]
- Onaindia, S. (1990): *Euskal literatura VI*, Bilbo: Etor. <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1974/Euskal%20Literatura%20VI.pdf> [kontsulta data: 2009-06-23]
- Ondarra, P. (1987): “Oieregi-ko Buenaventura Aita (1886-1956)”, *Euskera*, 32, 25-32. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50461.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Orella, J. L. (1977): *La Universidad Vasca*, Donostia: Erein.
- Orixe [N. Ormaetxea] (1929): “Euskaldun bipilak eta manchatar bizkofak izan zuten buñukaldi lazgañaren ondar” *RIEV*, 20.1, 6-9. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/20006009.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Orixe [N. Ormaetxea] (1930): “Erizkizundi-Irukoitzari erietan erantzun diotenak” *Euskera*, 11, 62-71. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/53089.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]



- Orixe [N. Ormaetxea] (1950): "Euskalzaindi zarra eraberritzea: Krutwig jaunari erantzuna" *Euzko-Gogoa*, 7/8, 17-18. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo05/eugo0512.htm> [kontsulta data: 2009-06-01]
- Orixe [N. Ormaetxea] (1951): "Erria, Erria! Berriz eta azkenekoz" *Euzko-Gogoa*, 1-2, 10-12. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo08/eugo0810.htm> [kontsulta data: 2008-08-20]
- Orixe [N. Ormaetxea] (1959): "'Mea culpa' eta 'quos ego!' Anizetxe iaunari", *Jakin*, 9, 89-93. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59\\_9/Jakin59\\_9.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin59_9/Jakin59_9.html) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Orixe [N. Ormaetxea] (P. Iztueta prestatzailea) (2002): *Euskal literaturaren historia laburra*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Orixe [N. Ormaetxea] (P. Iztueta & I. Iztueta prestatzaileak) (2006): *Gutunak (1917-1961)*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Ormaetxea, J. L. "Txipi" (2004): "Euskararen aldeko borroka (Txillardegia: bizitza osoa euskararen alde)" *J. L. Alvarez Enparanza, Txillardegia buruzko jardunaldiak, urriaren 4, 5 eta 6an* <http://txillardegia.gipuzkoakultura2.net/txipiormaetxea.pdf> [kontsulta data: 2008-05-25]
- Oronoz, M. (1995): "Euskaltzaleen Biltzarretik Euskal Konfederaziora" *Bat*, 16, 67-82. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/Oronoz.pdf> [kontsulta data: 2007-11-13]
- Osiranzu (1965): "Fisikaz eta..." *Jakin*, 18, 78-82. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin65\\_18/Jakin65\\_18.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin65_18/Jakin65_18.html) [kontsulta data: 2008-05-06]
- Otaegi, J. (1995): "Enseiukarrean aldizkaria" *Bat*, 15, 65-68. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/15/Otaegi.pdf> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Otaegi, L. (1996): "Aitzol eta euskaltzaleak" *Euskera*, 41, 499-507. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49688.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Otaegi, L. (2000): *Jon Mirande (1925-1972)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/JON%20MIRANDE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/JON%20MIRANDE.pdf) [kontsulta data: 2008-08-22]
- Otaño, O. (2003): *Inazio Barriola (1906-1998)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/32%20BARRIOLA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/32%20BARRIOLA.pdf) [kontsulta data: 2008-10-22]
- Othaburu, X. (2000): "Ipar Euskal Herriko liburutegiak... edo euskarazko bibliotekonomia baten (alferrikako) bilaketa?", *Jakin*, 118, 41-51. [http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00\\_118.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin00_118.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Pagola, I. (2005): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Pagola, R. M. (1995): "Euskal gaiak Deustuko Unibertsitatean" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 559-564.

- Pagola, R. M. (2004): "Hizkuntz politika Deustuko Unibertsitatean" *Bat*, 50, 57-68. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1346> [kontsulta data: 2009-01-17]
- Patalano, M. (2005): "Las publicaciones del campo científico: las revistas académicas de América Latina" *Anales de Documentación*, 8, 217-235. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1126367&orden=34839&info=link> [kontsulta data:2009-04-24]
- Pedró, F. (2004): *Fauna académica. La profesion docente en las universidades europeas*, Bartzelona: UOC.
- Peillen, T. (1995a): "Euskal doktoradutza ta ikerketak iparraldean" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 539-541.
- Peillen, T. (1995b): "Euskarazko lizenziatura ikasketak Frantzian" *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 543-545.
- Peillen, T. (2006): "Andima adiskidea" *Euskera*, 51, 39-43. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/66571.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Peña, A. (1977): "Américo Castro: el estado de la ciencia y de la universidad en España" *Hispania*, 60.1, 9-20.
- Perez Aldasoro, P. (2001): "Tesiak euskaraz: harri kozkorrez beteriko bidezidorra" *Ankulegi*, 5, 49-53.
- Pérez Alvarez-Ossorio, J. R. (2003): "Problemática de la información científica en lengua española " *Reflexiones y artículos de Documentación*, Madril: CSIC-CINDOC, 243-249.
- Perez Arbej, J. A. eta beste (1997): "Impacto de la publicaciones urológicas en lengua española en revistas en lengua inglesa" *Archivos Españoles de Urología*, 50, 427-432.
- Perez Gaztelu, E. (2000): *Luis Villasante Kortabitarte (1920-2000)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/LUIS%20VILLASANTE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/LUIS%20VILLASANTE.pdf) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Perez Gaztelu, E. (2005): *Patxi Altuna (1927-2006)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/38%20ALTUNA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/38%20ALTUNA.pdf) [kontsulta data: 2008-10-27]
- Pérez Iglesias, J. I. eta Salaburu, P. (2003): *Unibertsitatea eta euskal gizartea, gaur*, Iruñea: Pamiela.
- Pérez Matos, N. E. (2002): "La bibliografía, bibliometría y las ciencias afines", *ACIMED*, 10.3, [http://bvs.sld.cu/revistas/aci/vol10\\_3\\_02/Aci012002.htm](http://bvs.sld.cu/revistas/aci/vol10_3_02/Aci012002.htm) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Perez Urraza, K. (2004): "Xabierto-ren jarraikako testuliburuak euskal irakaskuntzaren garapenean" *Euskalingua*, 4, 234-245. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi20A.pdf> [kontsulta data: 2009-02-04]

- Perez Urraza, K. (2005): "Xabierto eta Sabin, eskola liburutako ikasle eredugarri" *Euskalingua*, 6, 105-115. <http://www.mendealde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi134A.pdf> [kontsulta data: 2008-01-13]
- Perez-Eid, C. (1992): "Préponderance de l'anglais: effets et limites de l'unilinguisme en science" *Mémoires de la Société Royale Belge d'Entomologie*, 35, 75-79.
- Perianes-Rodríguez, A. eta beste (2008): "Introducción al análisis de redes" *El Profesional de la Información*, 17.6, 664-669. [http://eprints.rclis.org/15499/1/Introducci%C3%B3n\\_al\\_an%C3%A1lisis\\_de\\_redes\\_EPI.pdf](http://eprints.rclis.org/15499/1/Introducci%C3%B3n_al_an%C3%A1lisis_de_redes_EPI.pdf) [kontsulta data: 2009-05-21]
- Phillipson, R. (2003): *English-Only Europe? Challengin Language Policy*, Londres: Routledge.
- Plazaola, F. (1992). "Sarrera" *Elhuyar*, 55, 3. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-55.pdf) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Plazaola, F. (2002): "Zientziaren zabalkunea komunitate zientifikoan barne eta gizartean: zenbait ohar" *Mediatika*, 8, 247-257. <http://hedatuz.euskomedia.org/2523/1/08247257.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Plazaola, F. (2005): "Agustin Anabitarteren Einstein'en ustariak" *Ekaia*, 19, 115-125.
- Pons, J. M. (1996): "Linguistic policy at the University of Barcelona" *Revista de llengua i dret*, 25, 101-118. [http://www10.gencat.net/eapc\\_rld/revistes/revista.2008-09-19.6818348703/Politica\\_linguistica\\_a\\_la\\_Universitat\\_de\\_Barcelona/en/at\\_download/adjunt](http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2008-09-19.6818348703/Politica_linguistica_a_la_Universitat_de_Barcelona/en/at_download/adjunt) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Radovanic, Z. (1992): "Letter to the editor: on superior scientists and inferior scientific communities" *European Journal of Epidemiology*, 8, 312-313.
- Reguant, S. & Casadellà, J. (1994): "English as Lingua Franca in Geological scientific publications . A bibliometric Analysis" *Scientometrics*, 29.3, 335-351.
- Requena, F. & Diaz, O. (arg) (2002): *Josemaría Escrivá de Balaguer y los comienzos de la Universidad de Navarra (1952-1960)*, Iruñea: Eunsa.
- Retolaza, J. A. (1977): "Ume euskaldunen alfabetatzea" *Euskera*, 12, 283-295. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51527.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Rey, F. (2004): "Senez-ek 20 urte bete ditu" *Senez*, 27, 23-32. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20041031/hogeiurte> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Reyes, M. J. eta beste (2000): "Revista científicas: determinación de necesidades y usos", *Revista española de documentación científica*, 23.4, 417-435. [http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs\\_rdisoc/rev0001/2000\\_vol23-4/2000\\_vol23-4\\_pp417-436.htm](http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs_rdisoc/rev0001/2000_vol23-4/2000_vol23-4_pp417-436.htm) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Rodríguez Ranz, J. A. & Unanue, J. (1994): *Hizkuntz politika, Autonomia eta Euskal Administrazioa: hizkuntz eskakizunak Gipuzkoako toki administrazioan II. Errepublikaren garaian*, Gasteiz: HAEE/IVAP.
- Rodríguez Rio, X. A. (1997): "Los docentes e investigadores de la Universidad de Santiago de Compostela (USC) ante la situación de la terminología en lengua

- gallega: actitudes y necesidades”, *IV Jornadas Internacionales de Terminología (Barcelona, 23 y 24 de octubre de 1997)*, [http://www.unilat.org/dtil/IVjornadas/rodriguez\\_rio.htm](http://www.unilat.org/dtil/IVjornadas/rodriguez_rio.htm) [konsulta data: 2005-07-09]
- Ronco, M. (2000): “Aportaciones a la historia de la Facultad de Ciencias de la Información en la Universidad del País Vasco” *Primer Congreso Universitario de ciencias de la Documentación*, 757-771. <http://www.ucm.es/info/multidoc/multidoc/revista/num10/paginas/pdfs/Mmronco.pdf> [konsulta data: 2009-04-21]
- Ronzón, E. (1993): “La revista "Theoria" y los orígenes de la filosofía de la ciencia en España (I)” *El Basilisco: Revista de filosofía, ciencias humanas, teoría de la ciencia y de la cultura*, 14, 9-40. <http://www.fgbueno.es/bas/pdf/bas11402.pdf> [konsulta data: 2009-04-22]
- Roselló i Peralta, C. & Boix-Fuster, E. (2005): “El català, el castellà i l’anglès: tres llengües en joc. Les ideologies lingüístiques dels estudiants de la Universitat de Barcelona” *Treballs de sociolingüística catalana*, 18, 189-208.
- Rousseau, J. L. (2002): “Le français dans la communication scientifique et technique” *Congreso internacional sobre lenguas neolatinas en la comunicación especializada. El Colegio de México*, México 28-29 de noviembre de 2002. [http://dtil.unilat.org/cong\\_com\\_esp/comunicaciones\\_es/rousseau.htm#a](http://dtil.unilat.org/cong_com_esp/comunicaciones_es/rousseau.htm#a) [konsulta data: 2009-04-22]
- Rubio, J. E. (1999): “Lenguaje y comunicación en la ciencia” *Razón y palabra*, 12. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1224140&orden=45242&info=link> [konsulta data: 2009-04-25]
- Saenz de Santa Maria, Carmelo (1978): *Historia de la Universidad de Deusto*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Sagarna, A. (1978): “Alfabetatze-euskalduntze irakasleak” *Euskera*, 24, 535-542. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51136.pdf> [konsulta data: 2009-07-10]
- Saizar, P. (1958): “Astronautika dala-ta...” *Jakin*, 8, 43-47. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58\\_8/Jakin58\\_8.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58_8/Jakin58_8.html) [konsulta data: 2009-06-03]
- Salaburu, P. (1995): “Euskal Euskal Herriko Unibertsitatean” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean (Gasteiz, 1993)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 521-527.
- Salaburu, P. (2007): “Pentsamenduaren klasikoak euskaraz” *Senez*, 32, 157-164. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080201/salaburu> [konsulta data: 2009-07-10]
- Salaburu, Pello eta beste (zuz) (2003): *Sistemas universitarios en Europa y EEUU*, Madril: Academia Europea de Ciencias y Artes. [http://www.academia-europea.org/pdf/sistemas\\_universitarios\\_en\\_europa\\_eeuu.pdf](http://www.academia-europea.org/pdf/sistemas_universitarios_en_europa_eeuu.pdf) [konsulta data: 2009-04-22]
- San Martín, J (1962): “Umorea euskal literaturan”, *Euskera*, 7, 304-307. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51252.pdf> [konsulta data: 2009-07-10]

- San Martín, J. (1977): "Euskal arteaz eta arte hiztegiak" *Euskera*, 22, 539-553. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/3144.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- San Martín, J. (1979): "Isaac Lopez Mendizabal euskaltzain ohorezkoa" *Euskera*, 24, 63-69. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51116.pdf> [kontsulta data: 2009-06-22]
- San Martín, J. (1981): "Agustin Anabitarte Irazu (1891-1981)" *Euskera*, 26, 1006. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51126.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- San Martín, J. (1982): "Euskal Idazleen Elkartearen asmoa eta helburuak" *Euskera*, 27, 699-710. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51036.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- San Martín, J. (1984a): "Patxi Unzurrunzaga, Itxaropena argitaletxearen sortzailea" *Egan*, 3-4, 5-6. <http://andima.armiarma.com/egan/egan65/iruegan650007.htm> [kontsulta data: 2007-10-09]
- San Martín, J. (1984b): "Egan aldizkaria, 30 urte euskal literaturagintzan" *Egan*, 5/6, 5-7. <http://andima.armiarma.com/egan/egan66/iruegan660007.htm> [kontsulta data: 2008-02-27]
- San Martín, M. L. (2004): "Euskal Unibertsitatea Nafarroako Unibertsitate Publikoan" *Bat*, 50, 69-71. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1347> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Sandelin, B. & Sarafoglou, N. (2004): "Language and Scientific Publication Statistic: a Note", *Language Problems & Language Planning*, 28.1, 1-9. <http://gupea.ub.gu.se/dspace/bitstream/2077/2670/1/gunwpe0109.pdf> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Sanmartín, I. (2008): "Las nuevas comunidades académicas de historiadores" *Arbor*, 731, 507-518. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2575363&orden=159984&info=link> [kontsulta data: 2009-04-22]
- Sano, H. (2002): "The World's Lingua Franca of Science: a survey of English as the universalizing language of chemistry" *English Today*, 18, 45-49.
- Santa María, K. (1992): "Biblioteca del Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto" *Sancho el Sabio*, 2, 345-352. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=1019730&orden=72545](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=1019730&orden=72545) [kontsulta data: 2009-01-17]
- Santa María, K. (2006): "Euskaldok, Centro de Documentación Vasca" *Euskonews&Media*, 351. <http://www.euskonews.com/0351zbk/gaia35104es.html> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Santamaria, K. (1973): "Euskal hiztegi analogikoari buruz" *Euskera*, 18, 167-172. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50943.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Santamaria, K. (1977): "Unibertsitateko kulturaz" *Jakin*, 1, 67-71. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2009-04-25]
- Sanz, E. eta beste (2002): "Creación de un índice de citas de revistas españolas de Humanidades para el estudio de la actividad investigadora de los científicos de

- estas disciplinas" *Revista Española de Documentación Científica*, 25.4, 443-453.  
<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=304620&orden=1&info=link>  
[kontsulta data: 2009-04-21]
- Sarasola, I. (1977): "Euskal hiztegi arauemaile entziklopedikoaren proiektua" *Euskera*, 22, 125-138. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/3985.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Satrustegi, J. M. (1978): "Eskerronez" *Euskera*, 24, 463-465.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51124.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Satrustegi, J. M. (1988): "Migel Jabier Urmeneta" *Euskera*, 33, 487-489.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50449.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Satrustegi, J. M. (1992): "Euskaltzaindiaren laguntzailleak", *Euskera*, 37, 557-571.  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50137.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Satrustegi, J. M. (1997): "Gerra ondoreko Euskaltzaindiaren pizkundea" Badiola, R. (prestatzailea), *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 313-338.
- Satrustegi, J. M. (1999a): "Index 1969-1999" *Fontes Linguae Vasconum*, 2. eranskina, 7-90.
- Satrustegi, J. M. (1999b): "Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1967-1976)" *Fontes Linguae Vasconum*, 80, 323-352.  
[http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?codigo=26290&orden=57322](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=26290&orden=57322)  
[kontsulta data: 2008-05-20]
- Siguan, M. (1992): *España plurilingüe*, Madril: Alianza.
- Siguan, M. (1996): *La Europa de las lenguas*, Madril: Alianza.
- Snow, C. P. (I. Irazabalbeitia itzultzailea) (2007): *Bi kulturak*, Donostia: Elhuyar.
- Spinak, E. (1996): *Diccionario enciclopédico de Bibliometría, Cienciometría e Informetría*, Caracas: UNESCO.
- Stojanovski, J. (2003): "CROSB: a Tool for Monitoring Scientific Productivity", *TERENA Conference 2003 in association with the CARNET Users' Conference (Zagreb, Maiatzaren 19-23)*  
<http://tnc2003.terena.org/programme/papers/p8a2.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Subramanyan, K. (1983): "Bibliometric studies of research collaboration: A review" *Journal of Information Science*, 6.1, 33-38.
- Sudupe, P. (2000a): *Iokin Zaitegi (1906-1979)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
[http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/IOKIN%20ZAITEGI.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/IOKIN%20ZAITEGI.pdf)  
[kontsulta data: 2008-03-23]
- Sudupe, P. (2000b): "Euskal kultura gerraondo minean" *Hegats*, 27, 40-61.  
<http://www.idazleak.org/argitalpenak/dokumentuak/pdf27.pdf> [kontsulta data: 2008-02-05]
- Sudupe, P. (1997a): "Andima Ibiñagabeitia (1906-1967)", *Jakin*, 112, 85-93.  
[http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin99\\_112/Jakin99\\_112\\_085.pdf](http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin99_112/Jakin99_112_085.pdf)  
[kontsulta data: 2008-09-10]



- Sudupe, P. (1997b): *Andima Sabin Ibiñagabeitia (1906-1967)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/andima.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/andima.pdf) [kontsulta data: 2008-09-10]
- Swales, J. M. (1985): "English language papers and authors' first language: preliminary explorations" *Scientometrics*, 8.1-2, 91-101.
- Teferra, D. & Altbach, Philip, G. (arg) (2003a): *African Higher Education: an International Reference Handbook*, Bloomington: Indiana University Press.
- Teferra, D. (2003b): "The Language Predicament in African Universities" in Teferra, D. & Altbach, Philip, G. (arg) (2003a): *African Higher Education: an International Reference Handbook*, Bloomington: Indiana University Press, 111-116.
- Teferra, D. (2003c): *Scientific communication in African universities: external assistance and national needs*, London: RoutledgeFalmer.
- Tejerina, B. (1994): "El proceso de institucionalización política y la política lingüística en el País Vasco" *Revista de Estudios Políticos* (Nueva época), 83, 247-271. [http://www.cepc.es/rap/Frames.aspx?IDS=5tt5uuvhgh5mtu452qdsnvio\\_887864&ART=3,16857,REPNE\\_083\\_249.pdf](http://www.cepc.es/rap/Frames.aspx?IDS=5tt5uuvhgh5mtu452qdsnvio_887864&ART=3,16857,REPNE_083_249.pdf) [kontsulta data: 2008-09-21]
- Telleria, X. (1999): *Ixaka Lopez-Mendizabal: (1879-1977)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/ixaka.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/ixaka.pdf) [kontsulta data: 2007-07-01]
- Toledo, A. (2006): "Euskararen iraupena, atzo eta gaur" *Euskera*, 51, 1019-1026. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67614.pdf> [kontsulta data: 2008-12-29]
- Torrealdai, J. M. (1968): "Ermua'ko asmo bat. Idazleen Alkartea" *Jakin*, 31-32, 79-80. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Torrealdai, J. M. (1977a): *Euskal idazleak gaur*, Oñati: Jakin.
- Torrealdai, J. M. (1977b): "Euskal liburugintza 1976an" *Jakin*, 1, 124-129. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2009-04-25]
- Torrealdai, J. M. (1977c): "Kultur minorien (udako) Unibertsitatea" *Jakin*, 1, 45-52. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77\\_1/Jakin77\\_1.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin77_1/Jakin77_1.html) [kontsulta data: 2009-04-25]
- Torrealdai, J. M. (1978): "1967-1977: liburuak eta batasuna" *Euskera*, 24, 503-522. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51131.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Torrealdai, J. M. (1983): "Gerraosteko liburugintzaz oharra: euskal liburuaren bide luzea" *RIEV*, 28, 47-60. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/28047060.pdf> [kontsulta data: 2008-10-02]
- Torrealdai, J. M. (1993): *XX. Mendeko Euskal Liburuaren Katalogoa (1900-1992)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Torrealdai, J. M. (1998): *El libro negro del euskera*, Donostia: Tarttalo.

- Torrealdai, J. M. (2000): *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*, Zarautz: Susa. <http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=best08> [kontsulta data: 2008-08-09]
- Torrealdai, J. M. (2003): “Francoren hizkuntza politikaren egungo errebisionismoa” *Euskaltzaleen biltzarraren mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 217-226.
- Torrealdai, J. M. (2007): *30 urte liburugintzan*, Donostia: Jakin.
- Torrealdai, J. M. (2009): “Euskal liburugintza 2007” *Jakin*, 170, 9-49.
- Torregarai, I. (2004): “Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)”, *Bat*, 50, 83-96. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1350> [kontsulta data: 2008-09-23]
- Torres Ramirez, I. and Torres-Salinas, Daniel (2007): *Tesis doctorales sobre estudios de las mujeres en las universidades de España (1976-2005): Análisis bibliométrico y repertorio bibliográfico*, Instituto Andaluz de la Mujer. [http://eprints.rclis.org/10755/1/tesis\\_doctorales.pdf](http://eprints.rclis.org/10755/1/tesis_doctorales.pdf) [kontsulta data: 2009-04-14]
- Torres-Salinas, D. (2007) [argitaratu gabe]: *Diseño de un sistema de información y evaluación científica. Análisis cuantitativo de la actividad investigadora de la Universidad de Navarra en el área de Ciencias de la Salud. 1999-2005*, Granadako Unibertsitatean aurkeztutako tesia 2007an. [http://eprints.rclis.org/11717/1/Tesis\\_Daniel\\_Torres.pdf](http://eprints.rclis.org/11717/1/Tesis_Daniel_Torres.pdf) [kontsulta data: 2009-04-14]
- Truchot, C. (1996): “La langue française en sciences un cas de figure: la situation linguistique des sciences en France” *Le français et les langues scientifiques de demain. Actes du colloque tenu à l’Université du Québec à Montréal*, du 19 au 21 mars 1996. [http://www.acfas.ca/evenements/complet\\_flsd.pdf](http://www.acfas.ca/evenements/complet_flsd.pdf) [kontsulta data: 2007-07-27]
- Turull, A. (2006): “L’ús de la llengua catalana a les universitats de Catalunya: de la precarietat a la incertesa” *Cercle XXI bulletí virtual*, 4, [http://www.cercle21.cat/mm/File/annex\\_II\\_ATurull.rtf](http://www.cercle21.cat/mm/File/annex_II_ATurull.rtf) [kontsulta data: 2009-04-22]
- Txepetx [J. M. Sánchez Carrión] (1991): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, Donostia: Urkixo Mintegia & Adorez eta Atseginiz Mintegia.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1956a): “Ez bat eta ez beste” *Egan*, 3/4, 44-49. <http://andima.armiarma.com/egan/egan28/iruegan280046.htm> [kontsulta data: 2008-08-19]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1956b): “Karta idigia” *Euskera*, 1, 245-250. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/36088.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1957): “Taupadak” *Euzko-Gogoa*, 1957ko uztaila-abuztua 63-68. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo37/eugo3712.htm> [kontsulta data: 2008-03-11]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1958): “Txillardeggi jaunaren erantzuna” *Jakin*, 6, 85-93. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58\\_6/Jakin58\\_6.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin58_6/Jakin58_6.html) [kontsulta data: 2008-08-22]



- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1959): “Batasunaren bidea” *Euskera*, 4, 150-170. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/36090.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1966): “Hizkuntza eta pentsakera” *Branka*, 1, 259-278.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1968): “Gerediaga-Elkarteak eraturako biltzar-kideei” *Jakin*, 31-32, 66-70. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-19]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1979a): “Unas palabras de introducción” *Branka*, Donostia: Ediciones Vascas.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1979b): *Fonologiaren matematikuntzaz*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/423\\_FONOLOGIARENMATEMATIKUNTZAZ.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/423_FONOLOGIARENMATEMATIKUNTZAZ.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1984): *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Donostia: Elkar-AEK.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1992): "Errepublika Baltikoetako hizkuntz legeak", *Bat*, 8, 45-52. <http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/7-8/Txillardeggi.pdf?PHPSESSID=7889985c2f233742423ea889ec4a246f> [kontsulta data: 2009-04-21]
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1992): “Euskara Batuaren hastapenak” *Ele*, 11/12, 15-21.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (1994): *Euskal Herria helburu*, Tafalla: Txalaparta.
- Txillardeggi [J. L. Alvarez Enparantza] (2004): *Euskararen aldeko borrokan*, Donostia: Elkar.
- Txurruka, J. M. & Zubiaga, A. (1979): *Biologiako zenbait praktika*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/418\\_BIOLOGIAZKOzenbaitPRAKTIKA.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/418_BIOLOGIAZKOzenbaitPRAKTIKA.pdf) [kontsulta data: 2008-09-17]
- Txurruka, J. M. (1978): “Giza ekologia” *Jakin*, 5, 18-30. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78\\_5/Jakin78\\_5.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin78_5/Jakin78_5.html) [kontsulta data: 2008-09-16]
- Txurruka, J. M. (2005a): “Aurkezpena” Txurruka, J. M. (koord.): *Euskera Zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 9-13. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi140A.pdf> [kontsulta data: 2008-09-23]
- Ugalde, M. (1978): “Idazleei egindako galderak izan duten erantzunen azterketa laburra” *Euskera*, 24, 481-501. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51130.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Ugalde, M. & Arana Martija, J. A. (1984): *Euskaltzaindiaren historia laburra*, Bilbo: Euskaltzaindia.

- Ugarteburu, I. (2003): “Lexicografía de especialidad en lengua vasca” Gutierrez, B, (arg): *Aproximaciones al lenguaje de las ciencias*, Burgos: Fundación Instituto Castellano Leonés de la Lengua. <http://www.ehu.es/euskalosasuna/irakurgaiak/basque.pdf> [kontsulta data: 2009-01-04]
- Unamuno, M. (1958): *Obras completas. Tomo VI: La raza y la lengua, colección de escritos no recogidos en sus libros*, Madril: Afrodasio Aguado.
- Unzurrunzaga, I. (1999): *Patxi Unzurrunzaga: (1906-1984)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/unzurrun.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/unzurrun.pdf) [kontsulta data: 2007-10-09]
- UPV/EHU (1990) [argitaragabe]: *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea. Euskararen erabilera normaltzeko plangintza*, UPV/EHU.
- UPV/EHU (1999): *UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II. Plangintza*, Leioa: UPV/EHU. [www.ehu.es/euskara-orria/euskara/normativa/plan/012e.pdf](http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/normativa/plan/012e.pdf) [kontsulta data: 2005-06-02]
- UPV/EHU (2007): *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)*, UPV/EHU. [http://www.euskara-erretoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/plan\\_informa/eu\\_plan/adjuntos/plan\\_gidaria.pdf](http://www.euskara-erretoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/plan_informa/eu_plan/adjuntos/plan_gidaria.pdf) [kontsulta data: 2008-12-29]
- Urgell, B. (1996): *Andoni Urrestarazu “Umandi”: (1902-1993)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/umandi.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/umandi.pdf) [kontsulta data: 2008-05-26]
- Uribarren, P. (1994): “Euskaltzaindia 75. urte euskararen alde lanean (1919-1994)” *Karmel*, 210, 112-122.
- Uribarren, P. (2007): “Euskararen eta euskaltzaleen historia bizi bezain ezezaguna” Goikoetxea, J. L. eta Bilbao, B.: *Imanol Berriatua euskalduntzearen eztandan*, Bilbo: Mendebalde, 57-92.
- Uribarren, P. (2008): “Bostak bat’ lantaldea 25 urte euskararen alde lanean euskal lexikologia aztertzen” *Karmel*, 261, 3-17. <http://www.karmelaldizkaria.com/upload/pdf/karmel-2008-1.pdf> [kontsulta data: 2008-10-26]
- Urkixo, J. (1919): “Estado actual de los Estudios relativos a la Lengua Vasca” in Eusko Ikaskuntza. Biltzarra (1. 1918. Oñati) (1919): *Primer Congreso de Estudios Vascos: recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas*, Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 403-427.
- Urkixo Mintegia (1955): *El Seminario Julio de Urquijo: antecedentes y constitución*, Donostia: Imp. de la Excma. Diputación Provincial de Guipuzcoa.
- Urkiza, A. (2006): *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Zarautz: Alberdania.
- Urkizu, P. (1998): *Pierre Lhande Heguy: (1877-1957)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/heguy.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/heguy.pdf) [kontsulta data: 2007-07-15]

- Urkizu, P. (1999): “Monjongo Dassançaren *Laborarien abissua* (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre *Chabalgoityk idatzia* (XVIII. m.) eta Bertrand Goyenetcheren *Marechalaren liburua* (1831). Aurkezpena, edizioa, oharra eta hiztegia”, *ASJU*, 33, 239-304.
- Urkizu, P. (2004): *Dianea eta koplak*, Donostia: Erein.
- Urmeneta, B. (1996): *Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Iruña: Nafarroako Gobernua
- Urmeneta, M. J. (1969): “Prologo” *Fontes Linguae Vasconum*, 1, 5-6.
- Urmeneta, M. J. (1967): “Navarra y el vascuence” *Príncipe de Viana. Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence*, 21-22, 10.
- Urrestarazu, A. (1952): “Euskeraren alde egin ditekena. Euskeltzaliak: yakintzaleak eta ekintzaleak” *Euzko-Gogoa*, 9-10, 16-18. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo18/eugo1810.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1954): “Euskera ta euskel-kultura” *Euzko-Gogoa*, 11-12, 187-191. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo24/eugo2428.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1955): “Euskel-kultura dala ta” *Euzko-Gogoa*, 3-4, 51-52. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo26/eugo2618.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1956a): “Euskal-Batzar Orokarra. Euskal-gogo-lantze edo euskal-kultura” *Euzko-Gogoa*, Uztaila-Daguenilla, 76-98. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo31/eugo3114.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1956b): “Euskera ta euskal-kulturari buruz (karta idigia)” *Euskera*, 1, 294-298. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51168.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1956c): “Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak I, 1956” *Euzko-Gogoa*, ilbeltza-otsaila, 115. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo28/eugo2829.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1963-1964): “Euskeraren aldeko lan orokar baten egitaraua” *Euskera*, 8-9, 401-408. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51275.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrestarazu, A. (1968): “«Euskadunok bat» «Jakín» aldizkaria” *Jakín*, 33, 60-62. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_33/Jakin68\\_33.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_33/Jakin68_33.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- Urrestarazu, A. (1978): “EUSKALTZAINDI´ak 1978´ko irailean, Bergara´n antolatut duen BATZAR´ari” *Euskera*, 24, 797-801. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51163.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Urrutia, A. (2004a): “Nazario de Oleaga (1884-1961), Bilboko Goitzaitegiaren itzultzaile juridikoa” *Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, 2, 62-73. [http://www.avd-zea.com/descargas/boletines/boletin\\_2.pdf](http://www.avd-zea.com/descargas/boletines/boletin_2.pdf) [kontsulta data: 2008-01-13]
- Urrutia, I. (2005b): *Derechos lingüísticos y Euskera en el sistema educativo*, Iruña: Lete.

- Ursua, N. (1995): “Las formas del conocimiento científico en los Estudios Vascos” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean* (Gasteiz, 1993), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 25-37.
- Uruburu, L. (1997): *Emakume Abertzale Batza (1922-1936)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/emabatza.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/emabatza.pdf) [kontsulta data: 2007-07-01]
- Urutxurtu, I. (1998): “Euskal jakintza-liburuak euskal unibertsitate liburutegietan” *Revista TK*, 6, 163-176. [http://www.asnabi.com/TK\\_archivos/TK\\_6/15urutxurtu.zip](http://www.asnabi.com/TK_archivos/TK_6/15urutxurtu.zip) [kontsulta data: 2009-04-22]
- Urza, C. (1995): “Estrategias para la enseñanza de temas vascos en los Estados Unidos” *Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean* (Gasteiz, 1993), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 551-557.
- Urzelai, J. & Auzmendi, L. (1990): “Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera” *Senez*, 8, 27-33. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19900110/urzelai-lurdes> [kontsulta data: 2009-01-18]
- UZEI (1981): *UZEI 1977-1980: historia eta gogoeta*, Donostia: UZEI.
- Valverde, L. (1997): “Antoine d’Abbadie eta mende amaierako mugimendu euskaltzalea” *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*, Bilbo: Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza, 289-303.
- Velez de Mendizabal, J. M. (2000a): “Jokin Zaitegi, euskal literaturgilea: bizitza eta obra” *Hegats*, 20, 93-123.
- Velez de Mendizabal, J. M. (2000b): *Sebero Altube (1879-1963)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/SEBERO%20ALTUBE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/SEBERO%20ALTUBE.pdf) [kontsulta data: 2008-01-07]
- Velez de Mendizabal, J. M. (2006) “Gaizka Barandiaran” *Euskera*, 51.2, 1315-1322 <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67641.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Velez de Mendizabal, J. M. (2007): “Gaizka Barandiaran 1916-03-03/2006-07-20” *Plazaberri*, 11. <http://www.euskaltzaindia.net/plazaberri/0011/gehigarriak/barandiaran.pdf> [kontsulta data: 2008-05-11]
- Vilallonga, J. de (1954) [2003]: “Les Congrès des Etudes Basques ont une histoire. Chronique des Congrès précédents” *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua* (Baiona-Ustaritz, 1954), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 9-14. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/08009014.pdf> [kontsulta data: 2007-12-30]
- Villasante, L (1952a): “Literatur-euskara laphurtarr klassikoaren gain eratua” *Boletín de la RSBAP*, 8, 91-119.
- Villasante, L (1952b): “Literatur-euskara laphurtarr klassikoaren gain eratua” *Boletín de la RSBAP*, 8, 259-298.

- Villasante, L. (1953): “Euskera'ren I aroa: (1920-1937): aurkibideak = I Epoca: índices= tables” *Euskera*, Cuaderno I, 3-25. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52937.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1956a): “Ongietorri-itzak” *Euskera*, 1, 165-169. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51145.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1956b): “Gure eginbearrak” *Euskera*, 1, 257-268. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51162.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1959): “Bizitzatik urbil”, *Euskera*, 4, 101-116. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51189.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1971a): “Euskera' aldizkaria gaurkotzeaz” *Euskera*, 16, 135-138. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52019.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1971b): “Euskaltzaindiaren prentsa bulegoa” *Euskera*, 16, 131-132. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52017.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1973): “Lege gizonek behar duten hiztegi berezia” *Euskera*, 18, 203-204. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51888.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1976a): “Karmelo Etxegaraireren mende erdia (1925-1975)” *Euskera*, 21, 362-363. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51615.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1976b): “Euskal-irakasle titulua emateko epai-mahaina” *Euskera*, 21, 283-286. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51594.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1976c): “Ohar gisa” *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, Donostia: Euskaltzaindia, 1976 edo *Euskera*, 30 (1975), 7-9. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/6965.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1977): “Euskararen batasunari buruzko batzarrea prestatzeaz” *Euskera*, 22, 851-856. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/7833.pdf> [kontsulta data: 2009-06-07]
- Villasante, L. (1978): “Euskaltzaindia eta euskararen batasuna” *Euskera*, 24, 441-461. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51122.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1979): “Altuberen maisutza euskal hitzen arazoan” *Euskera*, 24, 611-615. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51313.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Villasante, L. (1988): “Euskera aldizkariaren bir-moldaketaz” *Euskera*, 33, 415-417. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50434.pdf> [kontsulta data: 2009-01-19]
- Villasante, L. (1958): “Euskaltzaleen Batzarrak Bilbon” *Anaitasuna*, 55, 1.
- Vinson, J. (1891): *Essai d'une bibliographie de la langue basque* Paris: Maisonneuve.
- Weber, M. (1998): *El político y el científico*, Madril: Alianza.
- Wenger, E. (2001): *Comunidades de práctica. Aprendizaje, significado e identidad*, Bartzelona: Paidós.
- Xamar (2001): *Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiak*, Iruñea: Pamiela.

- Xamar (2006): *Euskara jendea: gure hizkuntzaren histoia, gure historiaren hizkuntza*, Iruñea: Pamiela.
- Xarritton, P. (2003a): *Euskalzaleen Biltzarraren historia laburra (1901-2003)*, Baiona: Euskalzaleen Biltzarra.
- Xarritton, P. (2003b): “Euskalzaleen Biltzarra 1919tik, 2001era” *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 134-144.
- Xarritton, P. (2008): “Medikuak euskal literaturan” *Euskalingua*, 12, 99-106. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi351A.pdf> [kontsulta data: 2009-02-09]
- Z. (1975): “Uda honetako euskarazko ikastaldia” *Zabal*, 15, 31-32.
- Zabala, A. (1956): “Bertso berri billa euskalerrian zear” *Euskera*, 1, 233-245. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51159.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zabala, F. (1971a): *Euskal Herriaren historia, 1. Lur ekonomia*, Donostia: Jakin & Etor.
- Zabala, F. (1971b): *Euskal Herriaren historia, 2. Lur ekonomiatik merkatalismora*, Donostia: Jakin & Etor.
- Zabala, F. eta beste (1971): *Euskal-Herriko historiaren laburpena*, Donostia: EKT.
- Zabala, I. & Elordui, A. (2005): “Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena”, *Euskera Zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 15-53. <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi139A.pdf> [kontsulta data: 2009-04-22]
- Zabala, M. eta beste (2005): *Ikasi eta irauli: euskal ikasle mugimenduaren historia*, Tafalla: Txalaparta.
- Zabala-Arana, J. (1922): “Euzkera bakafa biafa ote degu?” *Euskera*, 3, 92-96. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52850.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zabala-Arana, J. (1928): “Euskerazko zenbakera” *RIEV*, 19, 584-597. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/19584597.pdf> [kontsulta data: 2008-03-23]
- Zabaleta Imaz, I. (2000): *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/liburuak/121/nazioa\\_eta\\_hezkuntza\\_sistema\\_espainiarraren\\_sorrera.html](http://www.buruxkak.org/liburuak/121/nazioa_eta_hezkuntza_sistema_espainiarraren_sorrera.html) [kontsulta data: 2007-10-24]
- Zabaleta Urkiola, I. eta beste (2002): *Euskal Unibertsitatea-2021\*: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/146\\_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/146_EUSKALUNIBERTSITATEA2021.pdf) [kontsulta data: 2008-10-26]
- Zabaleta, I & Bidaurrezaga, A. (2005) [argitaratu gabea]: *Erakusketako liburuen datu-baseak arloka eta horien emaitza kuantitatiboak (1990-2005)*, Bilbo: EIRE.
- Zabaleta, J. (1985): “Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria” *Egan*, 3, 173-175. <http://www.armiarma.com/andima/egan/egan69/egan69.htm> [kontsulta data: 2009-01-19]



- Zaitegi, J. (1933): “Kizkiña” *RIEV*, 24, 20-30. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/riev/articulo.php?o=13538> [kontsulta data: 2009-02-10]
- Zaitegi, J. (1956): “Atarikoa: “Euskera” ta “Euzko-Gogoa” *Euzko-Gogoa*, maiatzakain, 1-2. <http://andima.armiarma.com/eugo/eugo30/eugo3001.htm> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zalakain, J. M. (1993): *Joxemiren uzta: euskal prentsa herri proiektua da*, Tafalla: Txalaparta.
- Zalakain, J. M. eta beste (1999): *Historia de una pancarta. La lucha por el profesorado propio en la UPV (1988-1999)*, Bilbo: Arabera Kultur taldea.
- Zalbide, M. (1975): “Zientzi eta teknikarako hizkuntzaz” *Elhuyar*, 2, 36-48. [http://www.elhuyar.org/elhuyar\\_aldizkaria/pdf/Elhuyar-02-08.pdf](http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-02-08.pdf) [kontsulta data: 2008-05-06]
- Zalbide, M. (2003): “Hendai-Hondarrietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu” *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1-134.
- Zalbide, M. (2007): “Pedagogoa batzar nagusietan, hizkuntzen azterbideak Iturriagaren argitan: Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia” *Euskera*, 52, 61-157. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/69438.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zarate, M. J. (1980): *Matematika orokorra I (I. parte)*, Bilbo: UEU. [http://www.buruxkak.org/pdf/409\\_MATEMATIKAOROKORRAI\(Iparte\).pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/409_MATEMATIKAOROKORRAI(Iparte).pdf) [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zearreta, J. J. (1975): “Udako Euskal Ikastaroak”, *Euskera*, 20, 531-543. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51672.pdf> [kontsulta data: 2009-01-19]
- Zearreta, J. J. (2000): “Alfabetatzea-euskalduntzea eta `Udako Ikastaroak’”, *Euskera*, 45, 921-930. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49128.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zelaieta, A. (1981): “Hitzaurrea” *Peru Abarka*, Bilbo: Gerediaga Elkarte [zenbakitu gabeko orriak].
- Zelaieta, A. (2000): *Gabriel Aresti (biografia)*, Iruñea: Susa. <http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=best10> [kontsulta data: 2009-06-02]
- Zelaieta, A. (2005): *Jon Gotzon Etxebarria (1934–1996)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/41%20ETXEBA\\_RRIA.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/41%20ETXEBA_RRIA.pdf) [kontsulta data: 2009-06-02]
- Zuazo, K. (1988): *Euskararen batasuna*, Bilbo: Euskaltzaindia-UPV/EHU.
- Zuazo, K. (2005): *Euskara batasuna: ezina ekinez egina*, Donostia: Elkar.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean: Egin, Deia, Enbata, Ekaitza, Gara eta Le Journal du Pays Basque*, Leioa: UPV/EHU.
- Zuberogoitia, A. (2005): *Bidegorriak hizkuntzentzat: euskarazko komunikazio-esparrua trinkotzeari buruzko burutazioak*, Donostia: Elkar.

- Zuberogoitia, P. & Zuberogitia, A. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilbo: Bilboko Udala.
- Zubiaurre, J. (1960): “Mogel eta burdingintza”, *Euskera*, 5, 94-110. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51228.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- Zubimendi, J.R. & Atxaga, M. (2001): *Jose Artetxe (1906-1971)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [http://www1.euskadi.net/euskara\\_sustapena/bidegileak/datos/25%20ARTETXE.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/25%20ARTETXE.pdf) [kontsulta data: 2009-04-21]
- Zubiri, J. J. (2005): “Hizkuntzaren jabekuntzaz *Fontes-en*” *Fontes Linguae Vasconum*, 100, 559-565. [http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero\\_articulo?articulo=1392643&orden=62692](http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?articulo=1392643&orden=62692) [kontsulta data: 2008-09-23]
- Zulaika, J. (1996): *Del Cromañon al Carnaval*, Donostia: Erein.
- Zulueta, M. A. (2002): "Bibliometría y métodos bibliométricos", *Manual de Ciencias de la Documentación*, Madril: Pirámide, 117-136.
- Zumalabe, J. M. (1974): “Etxegintza eta arkitekturako hiztegiaren gertuketa” *Euskera*, 19, 291-295. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51829.pdf> [kontsulta data: 2009-07-10]
- ZZEE (1968): “Euskera idatziaren batasuna” *Jakin*, 31-32, 1-74. [http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68\\_31\\_32/Jakin68\\_31\\_32.html](http://www.jakingunea.com/50urte/html/Jakin68_31_32/Jakin68_31_32.html) [kontsulta data: 2008-08-14]
- ZZEE (1981): *Euskal Batzar Orokorra/Congreso Mundial Vasco: 25 aniversario*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.



**Taulen aurkibidea**

- I.1. Taula: Euskal-Esnalean hitzaldia eman eta testua argitaratu zuten egileen zerrenda eta ezaugarri nagusiak. Iturria: elaborazio propioa.
- I.2. Taula: Euskaltzaindiak bideratutako euskararen batasunaren gaineko iritzi bilketako parte-hartzaileak. Iturria: elaborazio propioa, *Euskera* III.1 (1922) buletinean argitaratutako izen deituretatik abiatuta.
- II.1. Taula: *Euzko-Gogoa* aldizkariaren harpidedunak lurraldeka. Iturria: (Iztueta, 2001: 146)
- III.1. Taula: Euskaltzaindiak antolatutako Euskaltzaleen Biltzarretako parte hartzaileak (1956-1968). Iturria: elaborazio propioa *Euskera* buletinetik abiatuta.
- IV.1. Taula: Unibertsitateko euskal hizkuntza eta kultura elkarteak. Iturria: 1977ko EKTen zerrenda (UEUko artxiboa) eta elaborazio propioa. Oharra: (\*) kultura elkarte legalak ez zirenak.
- IV.2. Taula: UEUren Udako Ikastaroen gaineko datuak (1973-1984). Iturria: hitzaldi eta ikastaro kopurua Inguma datu-basetik, eta partaide kopurua Mikel Aizpururen lanetik (Aizpuru, 2003a).
- IV.3. Taula: Vianako Printzearen goi mailako aldizkarietan euskaraz argitaratutako artikulu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea eta Dialnet.
- IV.4. Taula: UEUren produkzioa jakintza-arloen multzoen arabera 1977-2007. urteen artean. Iturria: Inguma datu-basea.
- V.1. Taula: Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako ikasleria 1978/79. ikasturtean. Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979).
- V.2. Taula: Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako irakasleria 1978/79. ikasturtean. Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979).
- V.3. Taula: Hego Euskal Herriko unibertsitate eskoletako euskaraz dakiten edo ikasten ari ziren irakasleak 1978/79. ikasturtean. Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979).
- V.4. Taula: Unibertsitatean euskara ikasten zuten ikasleak 1978/79. ikasturtean. Iturria: *Premia larriko neurrien txostena* (1979).
- V.5. Taula: Euskara ikasleen kopurua fakultateka (1981/82-1982/83. ikasturteak). Iturriak: Euskararako Kabinetearen 1981/82 eta 1982/83ko memoriak.
- V.6. Taula: Zientzia Fakultatean Biologia karrerako lehenengo mailan euskaraz matrikulatutako ikasle kopurua (1979/80-1983/84). Iturria: Zientzia Fakultateko irakasle euskaldunen taldeak prestatutako txostena.

- V.7. Taula: Azkue Sarietako Ikerketa ataleko sarituak (1981-1990). Iturria: elaborazio propioa zenbait iturritik abiatuta.
- V.8. Taula: UPV/EHUko errektoreak eta euskara errektoreordeak eta beraien maila unibertsitarioko euskarazko produkzioa, eta doktorego-tesia euskaraz egin duten ala ez zehaztuta. Iturria: Inguma datu-basea.
- V.9. Taula: UPV/EHUren euskarazko ikerkuntza proiektuak lehen hizkuntza plangintzaren ezarpen garaian (1989-1994 urteak). Iturria: Inguma eta UPV/EHUK urtero kaleratuta ikerkuntza proiektuen zerrendak.
- V.10. Taula: Euskarazko aldizkarien erakunde argitaratzailea eta produkzioa 1979-1990 artean. Iturria: Inguma datu-basea eta elaborazio propioa.
- V.11. Taula: Euskarazko lanak argitaratu zituzten aldizkari eleanitzak (1979-1990). Iturria: Inguma datu-basea eta elaborazio propioa.
- V.12. Taula: Eusko Ikaskuntzaren Saitetako Koadernoaren produkzioa 1982-1990. Iturria: Inguma datu-basea.
- V.13. Taula: Euskarazko unibertsitateko mailako liburugintza urtez urte, euskarazko liburugintza orokorrarekin alderatuta (1976-1990). Iturria: euskal liburugintzaren datuak J. M. Torrealdaireren lanetik (Torrealdai, 2007: 105) eta Unibertsitate mailako euskal liburugintza Inguma datu-basetik.
- V.14. Taula: Goi mailako liburu eta itzulpen produkzioa duten argitaletxeak (1979-1990). Iturria: Inguma datu-basea.
- V.15. Taula: Goi mailako kultur elkarteen euskarazko liburu ekoizpenak (1979-1990). Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.1. Taula: Inguma datu-basearen arabera erakunde bakoitzak ekoitzi ditzakeen dokumentu motak.
- VI.2. Taula: Ikerketa lan honetan erabilitako Inguma datu-basearen erregistro kopurua, motaren eta multzoaren arabera antolatuta. (\*) Irakasgaien eta ikerkuntza-proiektuen kasuan Inguma datu-basean ez dago urtez urteko produkzio osoa jasota. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.3. Taula: Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.4. Taula: Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren batez bestekoa 5 urtekoen arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.5. Taula: Euskarazko produkzio zientifikoaren hazkunde tasa 10 urtetan. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.6. Taula: Giza Zientzietako produkzio idatzia jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.

- VI.7. Taula: Gizarte Zientzietako produkzio idatzia jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.8. Taula: Zenbait jakintza-arloen ahozko eta idatzizko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.9. Taula: Espainiar komunitate autonomoen produkzio zientifikoaren hizkuntza ICYT-en arabera (1996-2001). Iturria: (Gómez Caridad eta beste, 2004)
- VI.10. Taula: Hego Euskal Herriko unibertsitate desberdinetan defendatu diren doktorego-tesiak. Iturriak: Teseo eta Inguma datu-basea.
- VI.11. Taula: Euskaraz defendatu diren doktorego-tesiak jakintza-arlo nagusien arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.12. Taula: Euskaraz ekoizpen bakarria doktorego-tesia duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.13. Taula: Euskaraz eta Galesez aurkeztutako doktorego-tesiak edo baliokideak. Iturriak: Inguma datu-basea eta Galesko Liburutegi Nazionala.
- VI.14. Taula: Inguma datu-baseko egile motak, mota bakoitzeko egile kopurua, produkzioa eta egile bakoitzaren batez besteko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.15. Taula: Hilda dauden egileen produkzioa jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.16. Taula: Egile euskaldunen kopurua hamarkadaka. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.17. Taula: Egile kopurua dokumentu ekoizpenaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.18. Taula: Euskarazko artikulu egileen distribuzioa jakintza-arloka datu errealean arabera (Inguma) eta Lotka-ren legearen arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.19. Taula: Dokumentu bakarria duten egileak, egile motaren arabera sailkatuta. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.20. Taula: Egile kopurua dokumentu motaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.21. Taula: Euskarazko goi mailako produkzioa dokumentu motaren arabera, eta dokumentu bakarria duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.22. Taula: Euskaraz soilik irakasgaiak ematen dituzten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

- VI.23. Taula: 70eko hamarkadan lehen ekoizpen idatzia egin zuten egileak, azken dokumentua prestatu zuten hamarkadaren arabera. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.24. Taula: Ingumako egileen posta helbide elektronikoen domeinuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.25. Taula: Dokumentuen egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.26. Taula: Idatzizko dokumentuen egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.27. Taula: Euskarazko dokumentu idatzien egileen gaineko datuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.28. Taula: Egileak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.29. Taula: Idatzizko produkzioa duten egileak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.30. Taula: Idatzizko produkzioa duten egileen batez besteko (idatzizko) produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.31. Taula: Erakunde mota eta kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.32. Taula: Euskarazko produkzioa duten aldizkariak. Iturria: elaborazio propioa.
- VI.33. Taula: Euskarazko aldizkarien tiradak. Iturria: (Muxika, 2002)
- VI.34. Taula: Euskarazko dokumentuak dituzten aldizkarien erakunde ekoizleak eta aldizkari kopurua. Iturria: elaborazio propioa.
- VI.35. Taula: Euskal kultur elkarten aldizkarien hizkuntza hautua. Iturria: elaborazio propioa Inguma-tik abiatuta.
- VI.36. Taula: Euskal Herriko kultur elkarten aldizkarien hizkuntza hautua. Iturria: elaborazio propioa Ingumatik abiatuta.
- VI.37. Taula: Goi mailako elkarte eta erakundeen aldizkarien euskarazko produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.38. Taula: Aldizkarien erakunde ekoizleak eta produkzioa. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.39. Taula: UPV/EHUK argitaratzen dituen aldizkariak argitalpen hizkuntzaren arabera. Iturria: elaborazio propioa, Inguma eta Dialnetetik abiatuta.
- VI.40. Taula: Euskarazko aldizkari bizien batez besteko produkzioa egileko. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.41. Taula: Euskarazko aldizkarietan behin parte hartu duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.

- VI.42. Taula: Aldizkari eleanitzen batez besteko produkzioa egileko. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.43. Taula: Aldizkari eleanitzetan behin parte hartu duten egileak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.44. Taula: Argitaletxeen euskarazko produkzioa (liburu, itzulpen eta HAAak). Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.45. Taula: Donostiako Uda Ikastaroak, Euskaltzaindia eta UEUren hitzaldi eta ikastaroak jakintza-arloka. Iturria: Inguma datu-basea datu-basea.

## **Grafikoen aurkibidea**

- IV.1. Grafikoa: Euskaltzaindiak emandako D mailako irakasle tituluak (1972-1983). Iturria: *Euskera* buletinean argitaratutako D mailako tituludunen zerrendak.
- IV.2. Grafikoa: UEUn hizlari gisa aritutako guztiak (marra grisa) eta horietatik euskaltzainak zirenak (marra beltza) (1973-1981). Iturria: Inguma datu-basea.
- IV.3. Grafikoa: *Elhuyar* aldizkariaren orrialde inprimatuen bilakaera (1974-1966). Iturria: elaborazio propioa Elhuyar aldizkaritik abiatuta.
- IV.4. Grafikoa: Euskarazko unibertsitate mailako liburuen produkzioa eta UEUrena 1969-2007. urteen artean. Ezkerretik eskumara urteak, eta goitik behera argitalpen kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- IV.5. Grafikoa: UEUren argitalpenak (liburuak eta itzulpenak) Natur Zientziak-Zientziak Hutsak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientzien esparruetan 1977-2007. urteen artean. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.1. Grafikoa: Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoizitako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.2. Grafikoa: Euskarazko goi mailako idatzizko produkzioaren bilakaera (1990-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoizitako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.3. Grafikoa: Euskarazko produkzio idatzia SHUaren arabera. Ezkerretik eskumara SHU zenbaki nagusiak eta behetik gora dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.4. Grafikoa: Euskarazko produkzio idatzia jakintza-arloka. Ezkerretik eskumara jakintza-multzoak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.5. Grafikoa: Giza Zientziak (GZ), Gizarte Zientziak (GTZ), Natur Zientziak-Zientzia Hutsak (NZ-ZH) eta Ingeniaritza-Teknologia (IT) jakintza multzoetako euskarazko produkzio idatziaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.6. Grafikoa: Osasun Zientziak (OZ), Artea-Musika (AM) eta Zientzia Aplikatuak (ZA) jakintza multzoetako euskarazko produkzio idatziaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.



- VI.7. Grafikoa: Hego Euskal Herriko Natur Zientzia, Zientzia Hutsa, Osasun Zientzia, Ingeniaritza eta Teknologia arloetan 2001. urtean argitaratutako artikuluetan hizkuntzaren erabilera. Iturriak: SCI, ICYT (Gómez Caridad eta beste, 2004) eta Inguma-tik jasotako datuak.
- VI.8. Grafikoa: Euskarazko doktorego-tesien bilakaera (1976-2008). Beltzez, doktorego-tesi guztiak, eta grisez, UPV/EHU aurkeztutakoak. Ezkerretik eskumara, urteak, eta goitik behera tesi kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.9. Grafikoa: Idatzizko produkzioa duten egile kopuruaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.10. Grafikoa: Ekoizpen bakarra duten egileen bilakaera (1969-2008). Ezkerrik eskuma, urteak, eta behetik gora, egile kopurua. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.11. Grafikoa: Euskarazko lanak argitaratzen dituzten aldizkarien erakunde ekoizleak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.12. Grafikoa: Aldizkarien euskarazko produkzioaren bilakaera (1966-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean aldizkarietan ekoizitako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.13. Grafikoa: Euskarazko aldizkari eta eleanitzetan argitaratutako euskarazko lanen bilakaera. Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoizitako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.14. Grafikoa: Euskarazko liburu eta itzulpenen bilakaera (1969-2007). Ezkerretik eskumara urteak, eta behetik gora, urte bakoitzean ekoizitako dokumentuak. Iturria: Inguma datu-basea.
- VI.15. Grafikoa: UPV/EHU eta UEUren argitalpenak (liburuak eta itzulpenak) 1999. urtera arte. Ezkerretik eskumara jakintza-multzoak, eta behetik gora, dokumentu kopurua. Iturriak: UPV/EHUko datuak *UPV/EHUko Euskararen erabileraren normalizaziorako II. plangintzatik* (UPV/EHU, 1999: 35) eta UEUrenak Inguma datu-basetik.

**Laburdurak**

## **Informazio iturriak kokatzeko erabilitako laburdurak:**

**ABA** – Azkue Bibliotekako Artxiboa.

**ABK** – Azkue Bibliotekako Katalogoa.

**JMTA** – Jesus Mari Txurrukaren dokumentazio pertsonala.

**MZA** – Mikel Zalbideren dokumentazio pertsonala.

**UEUA** – Udako Euskal Unibertsitatearen Artxiboa.

## Grafiko eta tauletan erabilitako laburdurak:

### a

**Ald.** – Aldizkari(a)

**AM** – Arte eta Musika

### b

**BB.** – Batez bestekoa

### d

**D. Litt.** – Doctor of Letters

**Dok.** – Dokumentu(a)

**Dok. bakarreko eg. %tan** – Dokumentu bakarreko egileak ehunekoetan

**Dok. bakarreko eg. kop.** – Dokumentu bakarreko egile kopurua

**Dok. kop.** – Dokumentu kopurua

**Dok/eg. BB.** – Egileen batez besteko dokumentu ekoizpena

### e

**Eg.** – Egile(a)

**Eg. kop.** – Egile kopurua

**Eg./dok. BB.** – Dokumentuen batez besteko egileak

**Erak.** – Erakunde(a)

**Eusk.** – Euskara/euskarazko

### g

**GTZ** – Gizarte Zientziak

**Guzt.** – Guztira

**GZ** – Giza Zientziak

### i

**Ing** – Inguma

**IT** – Ingeniaritza eta teknologia

### k

**Kop.** – Kopurua

**m**

**M. Ed.** – Master of Education  
**M. Phil.** – Master of Philosophy  
**M. Sc.** – Master of Science  
**M. A.** – Master of Arts

**n**

**NZ** – Natur Zientziak

**o**

**OZ** – Osasun Zientziak

**p**

**Ph. D.** – Doctor of Philosophy  
**Proiek.** – Proiektua

**s**

**SHU** – Sailkapen Hamartar Unibertsala

**u**

**Unib.** – Unibertsitate

**z**

**ZA** – Zientzia Aplikatuak  
**ZH** – Zientzia Hutsak

**Beste**

**%** – Ehunekoa  
**%tan** – Ehunekoetan